

FR. PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

GUEROCO GUERO

Edizio kritikoa
Blanca Urgell

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 2001

FR. PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

GUEROCO GUERO

22

Edizio kritikoa
Blanca Urgell Lázaro

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 2001

GUEROCO GUERO

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-22

FR. PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

GUEROCO GUERO

22

Edizio kritikoa
Blanca Urgell Lázaro

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 2001



■
Bizkaiko Foru
Aldundia

Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Cultura



© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 5 - 48005 BILBO

I.S.B.N.: 95438-03-8
Legezko Gordailua: BI-

Maketazioa: R.B.U.

Fotokonposizioa: RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 BILBO

Inprimaketa: Gráficas Munguia
Barrio Robica, s/n - MUNGIA

Aita Luis Villasanteri

ESKER EMATEA

Argitalpen honen azken prestaldiari 2000ko maiatzetik aurrera ekin badiot ere, urteetan izan dut aldean, Añibarroren eskuizkribua makinaratu nuen unetik, duela hamabosten bat urte jada!, Euskaltzaindiak, eta haren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak, kaleratzeko bideak ipini eta laguntza eman arte. Bijoaz, beraz, lehen lekuan, nire eskerrik beroenak bi erakunde hauei.

Frantziskotarrak dira, ezinbestean, hurren gogoratu behar ditudanak. Eskuzabalak dira eta izan dira beti, euskaldun guztiok dakigunez, euren gordetegietako altxorrak ezagutzera ematen eta emanarazten, eta atseginez hartuko dute, nik uste, euren kidearen liburu ospetsu hau azkenik osoki kalera izana. Lana, funtsean, haiei zor zaie, eskuizkribuaren kopia txukuna niregana helarazi eta epetasunez itxaron baitute emaiaren fruitua. Beste hainbeste esan behar dut Hondarribiko kaputxinoez, eurenean baitatza jatorrizko eskuizkribua, galeratik ondo gordeta.

Filologoaren lana maiz ixila eta bakarra izan arren, beste edozein burulangilek bezala, arnasa behar du, eta bultzada. Nik hainbat arnaseaile eta bultzagile izan ditut, eta denei aitortu nahi diet hemendik zor diedana, hala hurren aipatuko ditudanei, nola nire buru txarrak une honetan ahantz ditzakeenei.

Filologiaren “ordenaren” barruan, Joseba A. Lakarra akuilu, aholkulari eta lehen irakurle izan dut, eta Iñigo Ruiz Arzalluz latinezko oxinetatik ateratzeko aingura eta argitalpen irizpideak finkatzeko gida. Biokin ez eze, Gidor Bilbao eta Ricardo Gomezekin izandako solasaldiak ernagarri eta aberasgarri suertatu zaizkit.

Liburua bukatu da, bukatu ere, Ricardo Badiola Euskaltzaindiaren Argitalpen arduradunak emandako adore eta erraztasunei esker: beti ulerkor eta adiskidetsu azaldu da, batzuetan horrek lanak izan arren.

EJIEko laguneren laguntza teknikoa nahitanahiezkua izan zen testua programatik programara igaro eta bestelako zailtasunik gabe dagoen bezala aurkeztu ahal izateko.

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

Victor eta Estibaliz Alonso dira lan hau gehien pairatu dutenak, urte betez apopilo bat baino gehixeago, baina ama bat baino askoz gutxiago den norbait izan baitute etxean. Oxala balego euren neurritz gaineko eroapena ordaintzeko modurik!

Heriotzak ezinbesteko bihurtu du argitalpen hau Aita Luis Villasanteri eskaintzea. Hala eta guztiz ere, jakin beza, dagoen lekuan dagoela, hari begira egina dela, eta harentzat izango zela baita bestela ere.

AURKIBIDEA

SARRERA	XV
1. Aurkezpena	XV
2. <i>Geroko Gero</i> -aren testuingurua	XVII
2.1. Zarauzko komentua.....	XVII
2.2. Larramendiren eraginaren itzal luzea	XXII
2.3. Añibarroren lanen kronologia baterako.....	XXVIII
2.3.1. Lehen idatziak (1791-1793?)	XXIX
2.3.2. Argitaratuak (1802-1803)	XXXII
2.3.3. Argitaragabeak: 1. Hizkuntzaz kanpoko datuak	XXXII
2.3.4. Argitaragabeak: 2. Hizkuntz argudioak	XXXV
2.3.5. Zabalarekikoa	XLI
3. <i>Geroko Gero</i> -aren deskribapena	XLII
3.1. Eskuizkribuaren berri.....	XLII
3.2. Tamaina eta itxura kontuak	XLIII
3.3. Añibarroren itzulpena: iturria eta zentsura	LXI
4. <i>Geroko Gero</i> -aren hizkuntzaz	LXVIII
4.1. Grafia	LXIX
4.1.1. <x> eta <ss>.....	LXIX
4.1.2. <v> eta 	LXXI
4.1.3. <h>	LXXII
4.1.4. Azentua.....	LXXII
4.2. Hotsak	LXXVI
4.2.1. <i>a > e / i</i> zein <i>u</i> —	LXXVI
4.2.2. Bokal bikoitzak	LXXIX
4.2.3. <i>a + a</i>	LXXX
4.2.4. <i>e + e</i>	LXXXI
4.2.4.1. Deklinabidean	LXXXI
4.2.4.2. Adizkietan	LXXXII
4.2.5. <i>a / au</i>	LXXXIII
4.2.6. Bokal arteko <i>g</i>	LXXXIII
4.2.7. Ozen ondoko txistukariak	LXXXV

4.2.8. <i>s/ts, z/tz</i>	LXXXV
4.2.9. <i>s/z, ts/tz</i>	LXXXVII
4.2.10. <i>ct > c</i>	LXXXVII
4.2.11. <i>n</i> eta <i>l</i> osteko leherkariez	LXXXVII
4.2.12. <i>eta</i> juntagailua	LXXXVIII
4.2.13. Zenbait bizkaieratze	LXXXIX
4.3. Morfologia	LXXXIX
4.3.1. Ablatiboa, prosekutiboa eta <i>gatik</i> -en aldakerak	LXXXIX
4.3.2. Datiboa (<i>-i / -eri</i>)	XC
4.3.3. Instrumentala (<i>-zaz</i>)	XCI
4.3.4. Artikulu zaharrak (<i>-au, -ori</i>)	XCI
4.3.5. Izenondo femeninoak	XCI
4.3.6. <i>baga / bagarik</i>	XCII
4.3.7. Posesiboak	XCIII
4.3.8. <i>-rik / -ta</i>	XCV
4.3.9. <i>-tu / -du</i>	XCV
4.3.10. Aditz trinkoa	XCVII
4.3.10.1. <i>*edin</i>	XCVII
4.3.10.2. <i>*edun</i>	XCIX
4.3.10.3. <i>egin</i>	C
4.3.10.4. <i>ekarri</i>	C
4.3.10.5. <i>emon</i>	C
4.3.10.6. <i>eroan</i> eta <i>joan</i>	C
4.3.10.7. <i>esan</i>	CI
4.3.10.8. <i>etzan</i>	CI
4.3.10.9. <i>ibili</i>	CI
4.3.10.10. <i>izan</i>	CI
4.3.10.11. <i>jarraitu</i>	CII
4.3.10.12. <i>-ke</i> atzizkia	CII
4.3.10.13. Uzkurdurak	CIII
4.3.10.14. <i>EL</i> ² -n bakarrik lekukotutako trinkoak ..	CIV
4.3.10.15. <i>EL</i> ² -n aberatsago lekukotutakoak	CIV
4.4. Sintaxia	CV
4.4.1. <i>-tera / -ten</i>	CV
4.4.2. Aditz arazleak	CVI
4.4.3. <i>ezin</i>	CVII
4.4.4. Aditz zenbaiten erregimenaz	CVIII
4.4.5. Galdetzaileaz eraturiko erlatibozkoak	CVIII
4.4.6. Kausazko perpausen aurrekaria	CVIII
4.4.7. <i>Ba-</i> zehar galderetan	CIX
4.4.8. <i>-tzat</i> aditzean	CIX
4.4.9. Lehenaldia <i>izan</i> -ekin	CX

4.5. Sinonimo elkarreak	CX
4.6. Ondorioak	CXI
5. Añibarroren itzulpenaren ezaugarriak: hizkuntz erkaketa	CXII
5.1. Morfologia	CXX
5.1.1. Deklinabidea	CXX
5.1.1.1. <i>-a</i> itsatsia eta haren ondorenak	CXX
5.1.1.2. Aposizioen ordena	CXXII
5.1.1.3. Biziduna / bizigabea	CXXII
5.1.1.4. Mugatua / mugagabea deklinabidean	CXXII
5.1.1.5. Mugatua / mugagabea joskeran	CXXVI
5.1.1.6. Zehazgabetasuna	CXXVIII
5.1.1.7. Genitibo singularra vs plurala	CXXVIII
5.1.1.8. <i>-ren / -ko</i>	CXXVIII
5.1.1.9. <i>Noizko</i> vs <i>noizerako</i> , <i>zertako</i> vs <i>zertarako</i>	CXXIX
5.1.1.10. Instrumentalaren forma	CXXX
5.1.1.11. Instrumentala vs soziatiboa	CXXXI
5.1.1.12. Instrumentala vs inesiboa ‘denbora’	CXXXII
5.1.1.13. Instrumentala vs <i>gaitic</i> ‘zertaz’	CXXXII
5.1.2. Erakusleak, izenordainak eta zenbatzaileak	CXXXIII
5.1.2.1. Deiktikoen adierazia	CXXXIII
5.1.2.2. <i>hau guztia</i> vs <i>guzti hau</i>	CXXXIII
5.1.2.3. <i>bera</i> aposizioan	CXXXIV
5.1.2.4. Pertsona izenordainen genitiboak	CXXXV
5.1.2.5. <i>bere burua</i>	CXXXVI
5.1.2.6. <i>alkar</i>	CXXXVII
5.1.2.7. Zenbatzaileen numeroa	CXXXVIII
5.1.2.8. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak	CXXXIX
5.1.3. Aditz morfologia	CXXXIX
5.1.3.1. Partizipioa	CXXXIX
5.1.3.2. Aditzoina	CXL
5.1.3.3. Hitanoa	CXLI
5.1.3.4. <i>z-</i> hirugarren pertsonan	CXLI
5.1.3.5. Datibo komunztadura	CXLIII
5.1.3.6. <i>ba-</i> aurrizkia	CXLIII
5.1.3.7. Perifrastikoa vs trinkoa	CXLV
5.1.3.8. <i>izan</i> vs <i>egon</i>	CXLVII
5.1.3.9. <i>*edun</i> vs <i>euki</i>	CXLVII
5.1.3.10. <i>iruditu-</i> ren erregimena	CXLVIII
5.1.3.11. <i>eritxi-</i> ren erregimena	CXLVIII
5.1.3.12. Alegiazko formen erabilera	CXLIX
5.1.3.13. <i>Ohi</i>	CLI
5.1.4. Aditzondoak	CLI

5.2. Joskera	CLIV
5.2.1. Hitz ordena	CLIV
5.2.1.1. Aditza azken	CLIV
5.2.1.2. <i>behar</i>	CLVIII
5.2.1.3. <i>beste</i>	CLVIII
5.2.1.4. Perpaus nagusiaren aurrerapena	CLIX
5.2.2. Aditza eratuak	CLIX
5.2.3. <i>Beldur izan</i> : baietz edo ezetz	CLX
5.2.4. <i>Bihurtu</i>	CLXI
5.2.5. Sintagma elkartuen atzizkiak	CLXI
5.2.6. <i>bai eta, ez eta</i>	CLXII
5.2.7. <i>ba-</i> zehar galderan	CLXII
5.2.8. Konparazioa eta superlatiboa	CLXII
5.2.9. Egitura erredundanteak	CLXIII
5.2.10. <i>bait</i> erlatibozkoa	CLXIV
5.2.11. <i>-tzen bezala</i>	CLXV
5.2.12. <i>-tzerakoan</i>	CLXVI
5.2.13. <i>-aino</i> aditzean	CLXVI
5.2.14. <i>-la(rik)</i>	CLXVI
5.2.15. <i>-tzeaz / -tuaz</i>	CLXVII
5.2.16. <i>zer egin ala zer eginik?</i>	CLXVIII
5.2.17. Aditza behar	CLXVIII
5.2.18. Galdetzaileen bidezko mendeko perpausak	CLXVIII
5.2.19. <i>-(r)ik / -ez eta -ez gero</i>	CLXX
5.3. Lexikoa	CLXXI
5.3.1. Tautologiak	CLXXI
5.3.2. Garbiketa lana	CLXXIII
5.3.3. Axularri onartzen dizkionak	CLXXIV
5.3.4. Añibarroren arazoak	CLXXX
5.4. Añibarroren eransketak	CLXXXVI
5.4.1. Latin hutsezko pasarteak	CLXXXVII
5.4.2. Azalpenak edo kokapenak	CLXXXVIII
5.4.3. Aurrea hartzen dionekoak	CLXXXIX
5.4.4. Emakumea	CXC
5.5. Erretorika pixka bat	CXCI
5.5.1. <i>Variatio</i>	CXCI
5.5.2. Hitz jokoak	CXCIII
5.5.3. <i>Amplificatio</i>	CXCIV
6. Gure argitalpena	CXCV
6.1. Testuaren argitalpena	CXCVI
6.2. Oharrez zenbait argibide	CXCVIII
LABURDURAK	CCIII
BIBLIOGRAFIA	CCV

SARRERA*

1. *Aurkezpena*

Behar baino gehiago esateko beldurrik gabe esan daiteke Gerraostean Añibarrok merezi izan duela, ez merezimendurik gabe, euskal idazle gehienek baino arreta gehiago eta, neurtzea beti erraza ez izan arren, nire oraingo autuan garrantzitsua den beste idazleak —Axularrek— baino ez askoz gutxiago.

Añibarroren idazlan gehienak, gure ikuspuntutik esanguratsuenak izan daitezkeenetatik hasita, hain zuzen, 1963tik aurrera argitaratu dira, pare bat izan ezik denak lehendabizikoz: *Voces Bascongadas* eta *Gramática Bascongada* (Villasante 1963 eta 1970), 1802ko *Eskuliburua* (arg. faks., 1978), *Nekea Arindurik* eta *Lora sorta espirituala* (Urgell 1987a eta 1988b), *Lau Ebanjelioak batera alkaturik* (Ciarrusta 1991) eta, bigarren mailakoen artean, “Voces bascongadas Labortanas sacadas de la Gramática bascongada y francesa de Harriet en su Arte” (Urgell 1992b), argitalpen hauen atarian edo bestetan agertu diren bere bizitzari, lanei eta idazkerari buruzko lan askorekin batera.

Egia da Añibarrok oraindik lan handia eman diezagukeela euskal filologooi. Argitalpen premiazko zenbait egiteke ditugu, zehazkiago *Misionari Euskalduna* sermoitegi erraldoiarena eta *Eskuliburua*-ren behar bezalako bat, baita lan txikiago zenbait ere noizbait ezagutzera eman beharra, hala nola *Artzai-adibideak* itzulpena edo *Manuscritos del R. P. Añibarro. Catálogo de voces bascongadas* izeneko liburukian gordetzen diren material gehienak. Honezaz gainera, Añibarroren lehen idazlanak berreskuratu eta aztertu beharko genituzke bere idazkeraren garapenaren ildotik, haien artean liburu ezagun zenbaiten lehen bertsioak.¹ Baina, orotara, ezer gutxi dugu eskas Añibarroren idazlan osoak ondo ezagutzen ditugula esan ahal izateko, eta hau harrigarria da, dudarik gabe, hainbat idazlerekiko ditugun era guztietako hutsuneak kontuan izanik.

* Lan hau I/UPV/EHU 00106.130-HA-8117/2000 proiektuaren barnean kokatzen da.

¹ Katalogatze lan handia egin du, alde honetatik, Altzibarrek (1992: 78-99).

Barkaezina zen, halere, hari hainbat arreta eskaini eta *Geroko Gero* (hemendik aurrera *GGero*) oraindik behar bezala ez ezagutzea, inolaz ere haren idazlanik garrantzizkoena baita, alderdi batzuetatik onena ez izan arren, agian. Urquijok *RIEV*-en egin zuen aspaldiko argitalpenak lekukotasun baliotsu hau ezagutzeko bidea eman izan die euskaltzaleei, baita euskalari zenbaiti aztertzeke ere. Baina, tamalez, bu-kagabe geratzeaz gainera, nahi genukeen baino gorabehera gehiago ditu, aurrera-go zehaztuko dudanez. Bi arrazoiok —lekukotasunaren garrantziak eta argitalpen oso eta fidagarriak ezak— beharrezko egiten zuten noizbait lanari berriz ekitea, hasi eta buka ekin ere, irizpide finkoagoen gainean.

Testua bera fidagarriki ematea ez zatekeen, nik uste, aurrerapen makala, baina Axularrekin erkatzeke eta handik atera daitezkeen ondorio aberatsetatik batzuk bederen azalerazteke tentaldia gailendu zait, orain artean egin diren hurbilketa bakanak (Altube 1929)² “euskara zuzenaren” ikuspuntutik eta haren izenean egin direnez gero.³ Halako hurbilketen zilegitasuna —eta are beharra ere beharbada— ukatzeko inolako asmorik gabe, aitortuko dut hasiera-hasieratik ez dudala zeinek jatorrago, garbiago, aberatsago edo dotoreago idatzi zuen lehiaketan esku hartzeko inolako asmorik.

Aitzitik, argitalpen honen iruzkinak euskararen historiaren eman ditzakeen lekukotasunei begira eginak daude edo, bestela esanda, honako galdera hauetarako erantzunak aurkitu nahiz: XIX. mendeko bizkaitar batek XVII. mendeko lapurterazko testu bat zergatik eta zertarako itzuli nahi izan zuen, alde batetik, literatur hizkuntzaren bilakaeran pentsaturik; eta, bestetik, nola ulertu eta nola itzuli zuen, alegia, bien bitartean dauden aldeak —euskalki edo garai aldaketari zor dakizkiokeenak— zein diren, euskararen beraren bilakabidean pentsaturik.

Zeren eta, lehenik, Añibarro ez baita nolana hiko idazlea, eskaini zaion arretak alde beren erakusten duen bezala. Ez dago bere lanik berrirakurtzerik literatur bizkaieraren sortzaile eta ordezkari handi gisa bakarrik, bere irizpide zabaltasunak euskararen historiaren —adierarik hertsienean— oinarritzko pertsonaia bihurtzen baitu, A. Villasantek inork baino lehenago ikusi zuen bezala. Bigarrenik, itzulgaia bera are oinarritzkoagoa baita euskara idatziak izan duen bilakabidea azaltzerako orduan. Eta azkenik, baina ez mendreenik, gutxitan baitugu *GGero* bezalakorik, gure hizkuntzaren bi garai eta bi euskalki hain ezberdin elkarren artean erkatzeke aukera ematen digunik.

Bada azken gai bat aurkezpen honetan, izenak dioenez, gutxienez aurkeztu behar dena. Gure literatur historiagileek hankapuntetan bezala igarotzen dira *GGe-*

² Bada erkaketa xelebreago bat (Oskillaso 1984), *pour épater* egina, antza denez, haren ondorioa baita literatur euskalkiak hizkuntza ezberdinak direla frogatutzat ematea. Erkaketaren irizpideak hain dira badaezpadako eta anakronikoak, ezen ez baitut uste iruzkin gehiago merezi duenik.

³ Salbuespenak ez dira falta, zorionez; probetxuz erabilita dakusagu Rebuschi-k (1988) euskal izen-nordain indargarriet egindako lanean, behinik behin.

ro-aren gainean, seigarren aginduarekikoan itzultzaileak egin zuen zentsura baka-
rik aipatuaz haren tankeraz den bezainbatean (Villasante 1979, Onaindia 1973),
iritzirik eman gabe, alegia.⁴ Eta nekez sinets nezake aipatutako bi bizkaitar jakitu-
nek *RIEV*-eko argitalpena bederen osteratxo bat egin ez zutenik, baita ziurrenik
gehiago ere. Zeharkakoa ematen digu Orixek (1927: 231), “*Esku-liburua* da idaz-
tankeraz baliotsuenik” esanez, eta muinera hurbiltzen: isilpekoa honetan datzake,
alegia, esku artean dugun *GGero*-aren itzulpena ez dela, agian, nahi zuketean be-
zain konplituia.

Ez dut uste Añibarroren lan erraldoi honek bere buruaz beste zuribiderik be-
har duenik, baina irakurleak gogoan izan dezake, garai hartan honelako itzulpen
bat egiteko zailtasunez gainera, hein batean bukagabeko testu batez, azken ber-
tsioa ez zatekeen batez ari garelara, honek ezinbestean dakartzan gorabeherekin.

Ondoren datozen orrialdeetan zehar, ezer baino lehenago *GGero* bere garaian
eta Añibarroren gainerako lanen testuinguruan kokatuko da (§ 2), eskuizkribua
deskribatuko (§§ 3.1 eta 3.2) eta itzulpenaren alderdi orokorreaz hausnarketa ere
egingo (§ 3.2). Ondoren, Añibarroren idazkeraren ezaugarri aldakorak *GGero*-n
aztertuko dira (§ 4), Axularrekin erkatuaz azaldu diren hizkuntz ezaugarri nabar-
men batzuk iruzkinduko (§ 5) eta, azkenik, argitalpen honen kontu ahalik eta ze-
hatzena emango (§ 6).

2. Geroko Gero-aren testuingurua

2.1. Zarauzko komentua⁵

Larramendik, haren ondorengo zuzenez Literaturaren Historiak dioskuna ge-
zurtatuaz, ondorengo haiek ukatuaz nolabait, euskararen aldeko bere lanaren
oihartzunik ez zuen aurkitzen, edo ez zuen aurkitu nahi, bere kideko josulagunen
arte. Haien ordeaz, Zarauzko komentuko predikalari frantziskotarrak goraiatu
zituen, dagoeneko ezin ezagunago ditugun data beretsuko (c. 1764) pasarte bitan
(*Corografía* 291 eta *Autobiografía* 27-29).

Hemen ez zaizkigu gehienbat interesatzen bazterreko jarrera hura hartzera
mugitu zuten zioak, hein batean pertsonalak baitziren. Zeren eta, gertatuak gerta-
turik ere, ez dago ukatzerik zinez Kardaberatz eta Mendiburu izan zirela haren te-
oria agerriki gauzatu zuten hegoaldeko lehen idazleak.

Haatik, dagoeneko baditugu Larramendiren hitzez bestelako lekukotasunak,
han-hemen agertuaz doazenak, idazle garai haiek egiatan gertatu zenaren ageriko

⁴ L. M. Mujikak (1979: 278) aipatu ere ez du aipatzen Añibarroren “obras principales”-en artean,
zeinek ematen baitigu haren lanaren kalitatearen berri aski, lehendik ere ez bageneuka.

⁵ Irakurlea etengabeko erreferentziez ez nekatzearen, behingoan esan dezadan atal honetako da-
tuak, ia denak Villasanteren lanetatik (berezi 1961 eta 1974) atereak direla, bakan batzuetan
—erreferentzia zehatza ematea interesgarri iruditu zaidanean— aitortzen badut ere. Interpretazioak,
berriaz, gehienak nireak dira eta niri dagozkit, beraz, izan litezkeen okerrak.

isla —gaina eta bikaina, nahi bada— baino ez direla baieztatu ahal izateko. Leku-kotasun hauek aditzera ematen dute maila bateko euskaldunen artean bere lanek hautsak ederki harrotu zituztela, batzuk alde eta beste batzuk kontra jarrita, noski, baina ziurrenik inor gutxi epel utzita.

Larramendiren aurka agertu zirenak, haren egitasmoari barre egin ziotenak —cf. haietaz Larramendik *Hirukoitza*-ren hitzaurrean (1745: xli-xliii) dioena, kasu— beste baterako utzirik, gero eta argiago ageri da XVIII. mendearen bigarren zatian izenez ezagutzen ditugun hiruzpalauak baino nahikoa euskaldun gehiago hasi zirela euskarari bestelako begiz begiratzen, baita haietako batzuk euskara bestelako baliabide eta asmoz erabiltzen ere. Azken hauen artean, nabarmen, Zarauzko komentukoak jarri behar ditugu.

Duela oso gutxi ikasi dugu gertakari nagusien ditzira erlatibizatzen eta izen handien azpian datzan errealitate ilunagoan bilakabide historikoak izan duen eragina balioztatzen. Honegatik, zorigaitzez, banaka batzuetan baizik ez ditugu datuak gure nahierara aurkitzen, ohartzen gara orain esanguratsutzat joko genituzkeen gertakari anitz historiaren isilean igaro direla eta ez daukagu beste biderik, aspaldiko puzzle hautsia berreraiki nahi izanez gero, bil daitezkeen ale eskas eta barraiatuak ulertzen saiatzea baizik. Hauxe da, izan ere, Larramendiren ondorengoez gertatzen zaiguna, baita Zarauzko predikalarien alorrera soilik mugaturik ere. Uste dut, dena dela, gaiak alde guztietatik merezi duela interpretazioaren arriskuan erortzea, ager daitezkeen datu edo ulerkera berrien argitara osatu edo eztabaidatua izango delako esperoan.

Zarauzko komentua 1746an bilakatu zen misiolari mintegi, Hego Euskal Herrian predikatze euskaldunak hazteko ageriko asmoarekin. Data esanguratsua izan liteke, Larramendiren bultzadaren ondorio zuzen edo zeharkakoa ez ote den pentsarazteko adinakoa; baina, dena dela, bistan dago mintegia unerik egokienean jaio zela, haren lan argitaratuek —gramatika (1729) eta hiztegia (1745)— misiolarien zeregin zailari halako euskarri bat eman ziezaioketenean, hain zuzen.

Gaitzerdi, predikalari frantziskotar haiek zein diren jakin dezakegu, nola edo hala, gehienbat Añibarrok idatzi zuen komentuko *Libro Becerro*-ari esker eta, nahi izanez gero, baita euren lanen zati bat behintzat ezagutu, bertako liburutegian dirauten lekukotasunak berreskuratuz: neure begiz ikusi ditut Francisco Antonio de Palacios oñatiarraren gipuzkerazko sermoitegi mardul baina irakurgaitz bat, jadanik Villasantek (1961: 19) aipatua, Pedro Agirregoikoak Dima aldean 1774-1807 bitartean eman sermoiak eta Jeronimo Garairen euskal idazlanak (*Obras predicables* II).

Gutxi ez izan arren, hurrengo mendean komentukoak igaro behar izan zituen garai latzak gogoraturik behintzat, objektiboki esan daiteke hutsaren hurren baino ez dela, predikalari sutsu eta ospetsu haiek izan ziratekeenaren aldean: Xalbadorren

bertsoetatik paperean jasotako bakan batzuk bakarrik ezagutuko bagenu bezalaxe, konparazio batera. Asko da, ordea, paper puska hauek, kostata bada ere, ondoko gizaldietako idazle eta euskaltzale handiak hazi eta hezi ziren giro hura berreraikitze bide eman baitiezagukete.

Era guztietako oztopo, eskasia eta ezbeharrak pairatu izanik ere, bere burua ezagutzera eman zuten Zarauzko misiolariak eta azkar asko izen handia erdietsi, ez bakarrik predikalari gisa, baita predikalari euskaldun gisa ere, Larramendi zorrotzaren arreta erakartzeraino, ikusi dugunez, hogeiren bat urteren buruan.

Sorrerako asmoak nahi zuen bezala, mintegia osatu zuten lehen aitak, gehienak euskal herrietakoak ziren; gehientsuenak euskaldunak, hortaz. Hasiera hartan hiru “montañés” eta Salamancako baten aldean, zazpi gipuzkoar, hiru bizkaitar eta bi arabar izendatzen ditu Añibarrok (*Becerro* 293-294). Hauetarikoak dira, zalan-zalarik gabe, Larramendik goraiatu zituen predikalariak.

Hurrengo belaunaldian ez dirudi haien predikazio maila jasoa beherantz joan zenik, alderantziz baizik, A. Francisco Antonio de Palaciosi buruz (Oñati 1727-Zarautz 1804) Mogelek esan zuena lekuko (*Confesino Ona* 292-294), besteak beste. Gainera, belaunaldi honek, aitzinekoak ez bezala, euskaraz idazteari ere ekin ziolako lehen lekukotasunak eskaintzen dizkigu.

Ez bide da zorakeria pentsatzea nahitaez lehendabiziko denboretatik predikazio zereginen lagungarri gisa sermoiak edo haien gidoi modukoak behintzat idazteko ohitura izan behar zutela zarauztarrok. Eta euskal sermoilari txarrez Larramendik (1745: xl) dioena gogoratzen badugu, alegia, sermoiak erdaraz prestatu eta gero erdipurdiko euskaraz egiten zituztela, ondoriozta dezakegu sermoilari onek, nola edo hala, euskaraz prestatu behar zituztela, daturik zaharrenetan uste hau oinarritzeko laguntzarik aurkitzen ez dugun arren.

Daturik eza, bestalde, baliteke sermoigaiak zirriborratzea jakintzat ematen zelako seinale baino ez izatea, edota halako zirriborroak ezdeustzat jotzen zirelako seinale, benazko idatzien —demagun, inprentarako duin zirenen— aldean, zeren eta ez Mogelek esaten digu ezer Palaciosen euskal sermoi idatziez, ez eta Añibarrok *Becerro*-n ematen du komentuko artxibategian gordetzen diren haien eta bestelako idatzien kontu. Aitzitik, Mogelek Palaciosekin egin bezala, Añibarrok komentukideen predikaziorako trebetasuna bakarrik goraiatzen du.

Honegatik, salbuespenak bereziki esanguratsuak izan daitezke, eta bi baino ez ditugu. Antonio de Artetaz (Gatika 1739-Usurbil 1809) honela dio:

Dejó escritos seis tomos en 4º, uno de ellos de pláticas a clérigos y religiosos: y principalmente sus doctrinas son muy apreciables por su método, claridad, lenguaje adaptado a la capacidad del vulgo y opiniones seguras (*Becerro* 318).

Dena den, ez da segurua euskaraz zirenentz; ikus, ordea, Joaquín de Sarobez (Aduna c. 1742- Andoain 1812) dioskuna:

lo más del día empleaba en escribir cuestiones morales, y varios tratados misceláneos y predicables. En los de vascuence reluce una naturalidad castiza y pureza del idioma patrio dignas del púlpito. Pasan de una docena sus tomos en octavo (*Becerro* 318).

Gorago aipatu ditudan Agirregoikoaren bizkaierazko idatziek ez ziruditen, egin nuen begirada arin hartan, honelako laudorioen duin direnik, ez eta hurrik eman ere, ezer baino gehiago zirriborro itxura baitaukate. Honegatik, pentsa liteke Añibarrok, Saroberen salbuespena egin zuenean, komentukideen idazkeran maila aldaketa bat somatu zuela, idatziz jasotzea merezi zuen aldaketa bat, hain zuzen. Tamalez, baliteke egun Arteta eta Saroberen lanak arrastorik ere utzi gabe galduak izatea.

Itzul gaitezen atzerago, baina. A. Palaciosek, esan bezala, ez zuen euskal idazle gisa aipamenik merezi Añibarro eta Mogelen ustetan, eta zalantza handiak ditu Villasantek berak (1961: 30) haren euskararen aldetiko prestakuntzaz. Halaz ere, hartaz dakigun xehetasun bakoitzak bigarren labekadako larramenditar bat dugula —ezagutzen ditugun bakanetakoa, bakarra ez bada— berresten du, hots, Kardaberatz, Ubillos eta Mendibururi hogeiren bat urte kentzen dizkiena, baina bere aldetik Gerriko, Agirre, Mogel, Añibarro, Lizarraga edo Astarloa baino 13 eta 25 urte bitartean zaharragoa.

Besteak beste, badakigu Larramendiren gramatikaren bitartez ikasi zuela euskaraz —Bernardo Recio josulagunak bezala (Larramendi 1745: xxxix)⁶—, sermoiak probetxuz eta arrakastaz egiteko adina ikasi ere. Eta begiak zorroztuaz bere sermoitegitik berreskuratu ahal izan dudan ondoko pasarte labur honek, euskaraz idazteko gauza ez ezik, hiztegi zainduko idazlea ere bederen bazela adierazten digu:

Gaisho batec eduquiarren escubetan vere gaitzaren sendagaia, ez badaqui zer guisatara artu bear duben, guchi valiatuco zayo sendagaia aldean izatea. Emendi gaur azaldu bear degu zer modutan valiatu bear degun S. Josef gloriosoaren vitartecotasunarequin.

Honezaz gainera, Axular behintzat ezagutzen zuen, berea baitzen —“Del uso simple del P. Palacios” dio azalaren barnealdean (Villasante 1961: 30 hh.)— Añibarrok itzulpena egiteko erabili zuen *GGerro*-aren alea; geroago astiroxeago iruzkinduko dudan bezala, garai hartan izan litekeen irakurketarik esanguratsuen a dugu Axular: larramenditarrena, nolabait esateko. Eta, azkenik, badakigu Palacios Añibarro eta Zabalaren aitzindari izan zela, <sh> grafia ausartaren erabileran, behinik behin (Urgell 1987b: 363).

Ez dut uste, dena dela, Palacios apartekoa denik komentuan, ez salbuespena, ezta agian adibiderik onena ere. Kontuan har dezagun berari buruz datu gehiago edukitzea halabeharrezkoa dela, orduan izen handikoa eta saildu usainekoa izate-

⁶ Bidenabar, txikitari haren ikaslea izan zen Palacios (Mateos 1959: 21-22; Villasante 1961: 20).

ari zor zaiona, ez euskararekiko ezein erlazio bereziri. Esan gabe doa, bestalde, berak bakarrik nekez esanaraz ziezaiokeela Larramendiri Zarauzko predikalariez esan zuena, bertara 1762an —haren aipua baino lehentxeago— iritsia bazen ere.

Aitzitik, andoaindarraren hitzek argi eta garbi ematen dute aditzera predikalari talde oso bat izan zela. Eta, are interesgarriago, zeharka iradokitzen dute ezen haien sermoien osagai bakarra ez zela umetan ikasitako (eta batzuetan erdi ahaztutako) euskara, berak hainbatetan larrutu zuen aurreko idazle eta predikalari gaiztoena bezalakoa, alegia; baizik eta euskara landu bat erabiltzen zutela, ezinbestean nolabaiteko ikasketen edo irakurketen bitartez hobetua, beharbada Larramendiren beraren hiztegi-gramatikak erabiliaz ere, gaur hemen eta bihar han predikatu beharragatik ahozko euskararen ezagutza berezia zeukaketela ahaztu gabe.⁷

Itxura guztien arabera, predikalari haietako asko hizkuntzaren aldetik irekiak genituen, euren predikuetan euskalki ezberdinetan aritzeko gauza, batzuk behintzat, edo hartan saiatzeko lotsarik ez zutenak. Larramendi irekiaren eragina dabilke hartan, baina baita arrazoi praktikoa huts-hutsean ere: non predikatu, hango hizkerara hurbildu beharra, ulertuak izan nahi bazuten, oraindik ere hizkuntza estandarrik ez eze, *koine* gisa erabil zitekeen euskalkirik ere ez zegoen lehenengo garai haietan.

Erants dezagun, azkenik, liburutegiaren lekukotasuna. Ezaguna denez, babesleku modura funtzionatu du mendeetan zehar, garai ezberdinetako testuak betiko galtzetik begiratuaz, urte gerlatsu haietan ez baitzuen kalte handiegirik hartu, zorionez, Añibarrok dioskunez (*Becerro* 300). Tamalez, ez dakigu noiz eta nola iritsi ziren bertara XVII eta XVIII. mendeko eskuizkribuak, hala nola Etxeberrri Sarakoaren idazlanak, Larramendiren Azkoitiko Sermoia, edota are zaharrago den bizkaierazko bulda (Lakarra 1985). Ez eta zein diren eta noiz heldu ziren *Geroko gero*-az beste euskal liburu argitaratuak. Honelako datuak argitzerik balego, agian honela hobeki ezagutuko genuke nolakoa zen bertako euskal giroa, zeinaren izpiño zenbait baizik ez baitzaizkigu iritsi.

Labur bilduz, frogatuta dago euskaraz sermoi onak egiten eta, batzuetan berderen, idazten ere bazekitela Zarauzko misiolariak. Egiantzekoa da, bestalde, haien artean euskara ikasteko eta euskaraz irakurtzeko ohitura zabaldurik egotea. Eta baliteke idatzirako isuri gehiago zutenen artean zirriborro bakunetatik nolabaiteko mailako idatziak egitera daraman garapena gertatzea 1746tik aurrera, mende bukaera aldera erpina jo eta XIX. mendeko loraldiaren atariko suertaturik. Argi aski ageri da, dena den, Ubillos ez zela izan Larramendiren ondoren eta Añibarro baino lehen euskarazko gauzetan nolabaiteko maila erdietsi zuen frantzis-

⁷ Añibarroren beraren lekukotasuna dugu, *GGero*-aren “Irakurleari” atalean: “...celan Colegio one-tacooc ain laster gabiltzan Bizcayan cein Guipuzcoan, Araban ta Nafarroco verba eguicune ta itz-cuntzetan...” (0-45/46).

kotar bakarra. Ezin ahantz tradizio hau Añibarroren lanaren nondik norakoa arakatzean.

2.2. Larramendiren eraginaren itzal luzea

Euskararen historia zatitan banatzerakoan hitz egiten da —eta hitz egin behar da, inolaz ere— garai larramenditar batez, hasi 1745ean hasten dena *Hiztegi Hirukoitza*-ren argitalpenarekin bat, onartzen baldin badugu 1729ko gramatikak ez zuela berehalakoan ondorio nabarmenik izan; eta bukatu, XX. mendearen hasieran bukatzen dena, ziurrenik Azkueren hiztegiaren agerpenarekin bat (1905-1906), heriotz kolpea lehentxeagokoa bada ere: 1891koa, demagun, Azkue beraren *Euskal Izkindea*-ren argitalpena aintzat hartuta, Lakarrak (1997) bezala.

Alabaina, honek ez du esan nahi 150 urtetan ez zenik ezertxo ere aldatu. Aitzitik, esango nuke denok ados gaudela Lore Jokoen inguruko giroa aro honen bukaera ez ezik, erpina ere badela, “berpizkundea” deitura merezitzeko lain, Larramendiren eraginari arnasa berria eta euskarari oro har sekula ez izandako zabalkunde eta baliabideak eman zitzaizkionez gero (Pagola 1984). Baina, nire ustez, zenbait ebakidura gehiago egitea argigarri izan daiteke, XIX. mendearen erdialdean Iturriaga, Iztueta eta Lardizabalen garaia bereiziaz, adibidez, geroko lorradiaren aitzindari argia baita hainbat ezaugarritan (Urgell 1999: xxxiv-xlv).

Orain dagokigun alorrean, etsita nago interesgarria dela beste eten txiki bat beren jartzea XIX. mendearen hasieran, Larramendi zuzenean ezagutu zuten eta zeharka bakarrik ezagutu zutenen artean, hain zuzen.

XVIII. mendeko idazleek ez dute beste maisurik Larramendi baizik. Bizi zela, badugu froga aski lan bat baino gehiagotan bere aburuak pisu handikoak izan zirela; gogora, bestela, Gandara eta Mendibururi egin zizkien gutunak eta, batez ere, Burgosko dotrina ospetsuaren istorioa (Altuna 1982, Lakarra 1986a).

Añibarro kokatu behar dugun unean, oster, gauzak zertxobait aldatuta daude. Hasteko, bera eta bere kideak aroaren hasiera inguruan jaiok dira; ez dute, beraz, Larramendi idatziz edo entzunez baizik ezagutzerik izan, ezta haren aldeko edo aurkako iritziaren presiorik jasan beharrik. Gainera, idazkeraren aldetik badituzte eredu zenbait, gutxi izan arren, eta Mogelen arabera neurtuz gero (cf. *Konfesio eta Komunio*-aren hitzaurrea), gipuzkera hegoaldeko literatur hizkuntza izateko abian jarrita zegoen. Bestalde, Larramendiren azpiegiturako lanen eskasiak edota halakoei jarraipena eman beharra azaltzen hasiak dira eta, ondorioz, hizkuntzari buruzko ikerketak eta hausnarketak ere zertxobait aitzinatzen dira urte hauetan. Beraz, labur bilduz, azpigarai honetako idazleak maisuarengandik urrutixeago eta eredu teoriko eta praktikoko gehiagoren —edota ñabarragoen— aurrean daude.

Añibarro garai honen ordezkari ona da, onenetakoa inolaz ere. Larramendi ozen “euskaldun guztien maixu” (*GGero* 0-21)⁸ izendaturik, eta haren asmoei erantzunik ez eze, haren obrarik garrantzikoenei jarraipena emanik, hiru lan bereziki esanguratsu egin zituen, berak ere uste zuen bezala:

Con este Arte, Diccionario y Axular, tenía uno cuanto necesita para hacerse un excelente bascongado (*GB* 14).

“Artea” deritzona eredu jakinik gabeko gramatika *sui generis* bat dugu, ez zehazki orain euskal irakasbidetzat joko genukeena, asmoa bederen halako zerbait egitea bazen ere, berak dioskunez. Lehenago eta geroago bestek egin bezala, bereziki aditzari zuzendutako lana da: Hegoaldeko euskalkien aditz laguntzaile eta trinkoen nolabaiteko deskribaketa, aldaera askorekin. Izan ere, alderdirik deskriptiboenetik osatzera dator Larramendiren gramatika, honek oso azaletik baino aztertu ez zituen euskalki forma ezberdinak ahalik eta zehatzena jaso nahian. Ezin urrunago dago urte batzuk beranduago Zabala bere lagunak onduko zuen lan burutsutik —burutsu eta arauemaile neurri handi batean—, baina baditu berri balio-tsua azentuz eta ahoskeraz, baita ortografi legeak ezartzeko saio goiztar bat ere, bederen.

Hiztegiari dagokionez, *Hirukoitza*-ren zordun handia den, baina aldi berean bilketa lan handia barruan dakarren hiztegi berezi —eta berezitu— bat osatu nahi izan zuen Añibarrok, hura baino eskuragarriagoa, bere garaiko euskal idazle gehienak bezala euskararen irakaskuntzan hautatu zituen bitartekoei —elizgizonei— zuzendua.

Hiztegi honetan Añibarrok Larramendik irekitako bidetik aurrera egiten du, ahozko hitzak ugari bilduaz eta literaturatik ere agian hartuaz —xeheki ikertzeko gaia dugu—, Harrieten, Mogelen eta besteren hitzak jasotzen dituzten zerrenda eskuizkribatuek adieraz lezaketzen bezala.⁹

Aldi berean, azpikoz gora jarri zuen maisuaren asmoa —euskalkietan sakabanututako hitzak guztietara hedatzea—, hitzen etorkia markatuaz. Honetan bat dator geroko hainbat hiztegiarekin, eta honegatik pentsa genezake Larramendiren asmoa forman —nahiz sarritan funtsean ez— luzaro handinahiegi gertatu zela. Añibarrori berari dagokionez, egin dezakegu misiolari modura hartutako eskarmentuak erakutsi ziola ezen herri apalari hitz egiterakoan, eta gogora dezagun predikazioaren lagungarri izan nahi duen hiztegi batez ari garela, beste euskalkietako hitzak neurritz eta tentuz baizik ezin zitezkeela sartu, bere idazlanetan ikus dezakegun bezala.

⁸ Añibarroren *GGero*-aren aipu guztiak oraingo argitalpen honetatik hartuak dira. Kapituluaren eta lerroaren zenbakiak ematen ditut hurrenez hurren, eta 0 zenbakia hasierako atalei (azala, “Iracurle-ari” eta Etxausen gutuna) dagokie, A letra larriak bukaerako aurkibidea adierazten duen bitartean.

⁹ Zerrenda hauei buruzko xehetasunetarako, ik. Altzibar 1992: 85, 156. or.

Urratsik garrantzizkoena, nik uste, Axularren *GGero* bizkaieratuaz eman zuen. Dakigunez, eta bakoitzean argiago jakin ere (Urgell 1991b), ordurako klasikotua zen iparraldeko literatur tradizio handia, Etxeberri Sarakoak aldarrikatu bezala, eta haren entzutea hegoalderaino iritsia zenez, Larramendi hegoaldeko literatur hizkuntza berria harekin lotzen eta hartan bazkatzen saiatu zen, ezagutzen zituen idazlan guztien erreferentzia argia emanaz (1745: xxxiv-xxxv), Leizarraga biziki goraiatuaz (*ib.* xxxvi-xxxviii) —doi bat alferrik bazen ere, haren lanak aurkitzeko zailtasuna zela eta— eta, oso bereziki, Axular euskaldun orok egin beharko luketen irakurketatzat emanaz (*ib.* xxxv) eta inor euskaldun ona ala txarra den —zehatzago, euskaraz letradun ala gabea den— jakiteko neurbide ziurtzat joaz, zenbaiten ezjakintasuna agerian uzteko moduan (*ib.* xlvii).

Honek eragin zuzena izan zuen geroko idazleen jokabidean: agian Larramendiren zerrendako liburu zenbait irakurtzeaz eta mugaz bestaldeko argitalpen berriei adi egoteaz gainera, zeina ez baita beti frogatzen erraza, haietan ikasitako gauzak euren idatzietan erabiltzen dituzte (Ubillosek Axular eta Etxeberri Ziburukoa, Lardizabalek Larregi)¹⁰ edota hango liburuak itzultzera ematen dira. Izan ere, Mogelek *CatLav* eta Añibarrok *GGero* itzultzen dutenean, Larramendiren zerrendako libururik goraiatuenetakoak itzultzen ari dira, eta ez besterik.

Honetan Añibarrok Larramendiren ikasle zintzo ageri da. Bere asmoa literatur bitxi preziatu hura euskaldun —bizkaitar— guztien aho-lumetan jartzea zen, maisuaren aholkua bere eginik:

Iracurle bizcaytarra, oná emen ceure escuetan ta ceure eusqueran *Axularren* libru famaduna. Euscaldunen Ciceronen icenaz icentaturic eta aitaturic ibilli da beti *Axular*; bada Aita Larramendi euscaldun guztien maissuac diñolez (P. M. Larramendi *Diccion. Triling.* fol. xxxv), bere eusquerea da ederra, nastu-bagüea, uts-garbia ta ugaria; baieztu ta eracusten ditu eguiac Escritura, Elessaco Aita Santu, guertaldi, antz-irudintza adigarri arguiacaz; aguertzen ditu becatuac biciro ta arguiro euren ezaintasun itsusi baltz guztiaz. Beragaitic diño, euscaldun guztien escuetan ibilli bear leuquela libru onec (*GGero* 0-19/27).

Bidenabar, Axularren liburuarekin izandako harreman luzeek eragin zuzena izan zuten Añibarroren idazkeran, hiztegi eta estiloko baliabideak bederik eskainiaz. *GGero*-aren oihartzunak ia non-nahi kausi ditzakegu, itzuli aurretik ongi irakurria zuela eta itzuli ondoren ahaztu ez zuela iradokiaz:

*EL*¹-ean (1802): *biotz* (*gogor*) *kaltzaiduzkoa* (125, 149, 195); cf. *Nolatan duçu horrein bihotz gogorra eta alçairuzcoa?* (Ax *GGero* 608). *biotz-min* (40, 74, etab.); hegoaldean erabiltzen duen lehen idazlea, eta ia bakarra XX. mendera arte (*OEH*, s.v. *bihozmin*).

LoraS-n (1803): *gueroric guero* (32). *neurri, marra ta mugaric* (131).

*EL*²-an (1821): *abere mutu* (45, 147; cf. Ax *GGero* 70, 92). *on-bear* (177; cf. Ax *GGero* 232, etab.).

¹⁰ Ubillosi buruz, ik. Mitxelena 1981: 692; Lardizabali buruz, Urgell 1999. Zabalaren iparraldeko irakurketen zerrendak, *VRB*-tik Ruiz de Larrinagak aterea (1924: 55), XIX. mendean alde honetako euskaldun jantziek erdiets zezaketenaren irudi osoagoa emango digu: Axular, Xurio, Larregi, Lécluseren *Manuel*, Leizarraga, Oloroeko katixima, Oihenarten *Notitia*, hainbat dotrina (Napoleonena eta Baionakoa barne) eta *Kantiko ispiritualak*.

garai beretsuan idatzi bide zuen *ME*-n (1808tik aurrera) bereziki ugari direla zehaztu behar bada ere:

Utsa da, alper da, ecer balio eztau (18). *O eta ceimbat engañatu dituan guerotic guerora luce-tuteac!* (77). *Guerotic gueroco luzamentuetan ebillela* (236). *muga, marra ta neurria ifini ez-paleutsé* (240).

Añibarroren hiru lan hauek —gramatika, hiztegia eta *GGero*— bai asmoz, bai egitez ezeren gainera eta bereiz aipatzekoak badira ere, ezin da inondik ere ahaztu azpiegiturako lan hauetaz gain eta hauekin batera idazketa eta berridazketa lan eskerga gauzatu zuela.

Hiru euskalkietan moldatzen zen edo, gutxienez, hirurak aski ongi ezagutzen zituen: gramatikako eta hiztegiko berriez gainera, nafarrerazko dotrina bat (*NDot*) argitaratu zuen, baita *Jesu Cristoren neque-penac* deritzan testu txiki argitaragabe bat “Bizkaiko eta Probinziako euskaran” ipini, besteak beste.¹¹ Halere, lan gehiena bere euskalkian, bizkaieran, egin zuen, jakina denez. Eta, XVIII. mendean zehar bizkaieraz idatzitakoaren aldean, Añibarrok kopuruan eta kalitatean euskalki honi sekulako jauzia eragin zionez gero, eta gerora euskalki honen literatur garapenean izan zuen eraginagatik ere, Mogelean batera literatur bizkaieraren aitatzat hartua dugu.

Ez naiz luzatuko bi elizgizon hauen arteko harremanak, sobera ezagunak, kontatzen, ez elkar aipatzen duten pasarteak gogoratzen, ez eta bien batetortzeak eta ezberdintasunak zehazten ere, dagoeneko hainbat gogoeta egin baitira gai garrantzitsu honen inguruan (Urgell 1985 eta 1988a; Uruga 1991; Alzibar 1992). Añibarro aurkezteko aski dateke, ordea, azken azterketa hauetatik datozen ondorio nagusiak gaingiroki aipatzea, batez ere bien arteko ezberdintasuna —bai xedetan, bai bideetan— mugatzen dutenak.

Esan dezadan aurretik ez dagoela inolako zalantzarik Mogelen garrantziaz, hala literatur bizkaieraren garapenean, nola oro har euskal literaturaren historian, eta are gaur arte jarraitzaileak izan dituen hizkuntzari buruzko pentsamolde jakin baten sorreran. Bizkaierazko literaturan izan zuen eragina, epe laburrera bederen, Añibarrorena baino handiagoa izan zen, dudarik gabe; eta hau baino idazle atsegin eta arinagoa ere badela aitortu behar: ez dago *Peru Abarka* bezalakorik ezer frantziskotarraren idazlanen artean, beti ere predikazio eta debozio kontu lehorra-goetan murgildu zen idazlea dugu eta.

Alabaina, literatur hizkuntzari dagokionez, aitortu behar da, nik uste, Añibarro pertsonaia interesgarriagoa dela, bere originaltasun eta bilakaera konplexuagatik, baita —zergatik ez esan— bere hizkuntz jokabideak gaurko sentipenarekin dauzkan antzekotasun argiengatik ere.

¹¹ Villasante 1963: 15 (gipuzkerazko beste lan txiki zenbaiten berri ematen du) eta Alzibar 1992: 90.

Izan ere, Mogel gipuzkeraz abiatu zen idazten, garai hartan —bere lekukotasunari esker, besteak beste, dakigunez— hegoaldeko literatur euskalki bilakatzeaz baitzebilen. Berak azaltzen du, halaber, herritarrek hartaratuta hasi zela bizkaieraz idazten,¹² eta kinka hartan jaioterriko euskarara, Markinakora jotzen du, literatur bizkaiera berriaren eredu bilakatu nahian.

Mogelen erabakia ez da batere harrigarria, ez eta hura zuritzeko darabilen argudiaketa ere, bide beretik abiatu izan baitira munduan izan diren literatur hizkuntza sortzaile gehienak (cf. Muñoz Martín 1995: 10, adibide klasiko zenbaite-tarako): alegia, ezagunetik hasita eta hura goraiatu beharrez (onena eta ulergarriena delakoan), baina aldi berean, arrazoi osoz Altzibarrek (1992: 160) azpimarratu legez, haren ezaugarriak nabarmenenak gordeaz bada ere, bestelako aukerak —fonetika edo morfologian zabalagoak, lexikoan jasoagoak, etab.— erruz eginez.

Hein bateraino, beraz, literatur bizkaieraren barruan “Markinako eskola” batez mintzatzea ez zait orain hain desegoki iruditzen, baldin eta ekialdeko bizkaieran sustraitzen dela, baina euskalki oso baten literatur ordezkaria izan nahi duen neurrian ezinbestean eta jakinaren gainean handik apartatzen dela ulertzen baldin bada.

Oso bestelakoa dugu Añibarroren jarrera, inolaz ere konplikatua. Euskal herrietan zehar egin zituen ibilaldi usuek, hizkera askorekin izan zituen harreman estuek, hegoaldeko euskalki guztiak nola edo hala ezagutzeak eta euskal gramatikari zein hiztegian lan egiteak hain bereizgarri ez zen, hain eredu estukoa ez zen bizkaiera bat hautatzera eramanez zuten, beste euskalkietatik hurbilago zegoena eta, beraz, asmoz bederen edozeinentzat ulergarriagoa. Egia da oinarri-oinarrian Arratia bere jaioterriko hizkera aurkitzen dela, baina egia da, halaber, bizitzan zehar hura landuaz joan zela, bereizgarriak nabarmenenak alde batera utziaz.

Honegatik, Zabala eta biekin “Arratiako eskola” bat eratzea, jaioterrian bakarrik begiak ipinita, uste dut ezin desegokiagoa dela. Zeren eta hauengan abiapuntua eta helburua ez baitira bat: ez dute bilatzen erdialdeko bizkaiera literaturarako gaitzea. Aldiz, ezagutzen dituzten aldaera guztietatik eredu bizkaiera bat des-tilatu nahi dute, Añibarroren kasuan agian ulergarritasunean enfasia jarrita,¹³ eta

¹² Zuribide hau alde bederen bestelakoez osatu behar da, noski. Irakurlea gonbidatzen dut Altzibarrek (1992: 158-159) egin duen giro soziokulturalaren interpretazio garrantzizkoa irakurtzera.

¹³ Cf., adibidez: “Contuzco aleguin ardurazco ta beguiramentuaz ibilli nas (...) eusquerea bere izan eztidin entero goratua ez chito bee nastu prestueza. Emen doian eusquera guztia, neuc enzuna da Bizcaico errietan non edo non eta euscaldun oytu on garbi batec guztia adituco dau” (*ME*-ko “Adibidea”, ap. Altzibar 1992: 89, 170. or.), baina, bestalde: “Mas bien me parecería insinuar el que, conforme a las reglas gramaticales y atendida su raíz, escribiesse *oso osoa*, y no *osua*, *bete*, no *betia*, *ase*, no *asia*, *argui*, no *arguija*, &c. dejando en la pronunciación al uso de ese contorno” (*Voces bascongadas que trae Moguel en sus escritos* eskuizkributik; xehetasun gehiagotarako, ik. Altzibar 1992: 85, 156. oh.).

Zabalarengan, berriz, ezaugarri fonetiko eta morfologikoen garbitasun eta erregulartasunean.¹⁴

Añibarroren bilakaeraren hainbat lekukotasun gorde zaizkigu, zorionez, berri-datzitako idazlanetan. Eta berridazketarik ezagunena, baita handiena ere behar-bada, *EL*-arena da. 1802an argitaratutakoa 1821eko argitalpenerako goitik behera berrizatu zuen, baita 1827rako oraindik zenbait orraztaldi egin, eta are A. Cándido Zubizarretaren begi zoliek bertsio zaharrago baten pusketak aurkitu dituzte Añibarroren eskuizkribuen artean. Geroago (§ 4) honetaz lasaiago hitz egingo dudan arren, esan dezadan aurretik, *EL*-ak pairatu zuen aldaketa handiari bagagoz-kio, hizkera aberats, gainerako euskalkietara ireki, jator, zaindu eta duda-mudarik gabeko baterantz jo zuela egileak.

Baina ez da bakarra, ez eta gutxiagorik ere, besteak oraindik aztertzeke ditugun arren.¹⁵ Izan ere, *Misionari Euskalduna (ME)* birritan osorik idatzi zuen, gaur Arantzazun eta Zarautzen gordetzen diren bi eskuizkribu mardulak lekuko. Lehenengoan (Zarauzkoa, 420 + 304 or.) dioenaren arabera, aurretiaz egindako dotrina eta sermoiak txukuntzetik sortutako lana da eta, 1808an 60 urte bete berritan idazten jarri zenez, ez zuen uste bukatzerik ere izango zuenik; halere, are bigarren bertsio oso bat (Arantzazukoa, 498 + 442 or.) burutzeko astia izan zuen (Altzibar 1992: 88-89 eta bereziki oharrak).

Aurretiaz egindako dotrina eta sermoi haiek *Sermones panegíricos* (168 or.), *Doctrinas y sermones morales* (190 or.) eta *Materiales para la obra bascongada de los tomos de Doctrinas escritas* (9 or.) izenarekin gordetzen diren eskuizkribuak bide dira, besteak beste. Bada, hasierako idazlan hauetaz hauxe diosku Añibarrok: “El bascuence ya no rige, pues lo escribí en mis principios, y por lo mismo tienen mucho que reformar todas estas doctrinas y sermones”.¹⁶

EL-aren bertsio zaharrarekin batera, *Adicio[ne]s al Ramillete* izenburua duen eskuizkribu bat aurkitu du A. Zubizarretak, *LoraS*-ren bertsio ezezagun bati Añibarrok egin zizkion eransketak jasotzen dituena, antza denez.¹⁷ Argitaratu zuenarekin oro har bat etorri arren, xehetasunetan aldaketa aski ditu.

¹⁴ Cf., besteak beste, “Destino mi obra en primer lugar para las personas de nuestro clero, y otras del país vascongado que quieran perfeccionarse en su idioma patrio” (*VRB* iv), “...en caso de variantes escogeré los que me parecen formados con más uniformidad, aun cuando no estén tan bien recibidos...” (*ib.* vi) eta “Por lo que respeta a la ortografía vascongada, he adoptado aquella que mejor espere nuestra pronunciación...” (*ibid.*).

¹⁵ Kontuan hartu beharko da, hurren aipatzen ditudanez gainera, *Obras Misceláneas* liburukian badela *ND*-aren eskuizkribu bat (Villasante 1963: 15); gainerantzeko lanez dakigunaren arabera, baliteke honek ere argitaratuarekiko aldaerak izatea.

¹⁶ *Doctrinas y sermones morales*, 3. liburukia, aurkibidearen amaieran (ap. Altzibar 1992: 82).

¹⁷ Zerrendatxo batekin hasten da: 16 orrialde zenbaki (eskuizkribukoak?) eta bakoitzaren alboan eransketaren gaia adierazten bide duen ohar labur bat. Ondoren, berriz orrialde zenbakia buruan jarrita, gaiaren garapena dator. Adibidez, lehenengo eransketa argitaratuaren 9-14 orrialdeetan kokatu behar da, “Bada eguiaz...” hasten den lerrokadatik “...ill cinian Crutze baten” bukatzen den lerroka-daraino.

Honetaz gainera, eta azkenik oraingoz, *NekeA*-k ere badu aurreragoko zirriborro edo idazketa bat, Altzibarrek (1992: 90) aurkitua.

Berridazketa lan etengabe honetan inoizko gardenenik dakusagu Añibarrok bizkaiera oinarri sendoen gainean literatur hizkuntza bilakatzeko egin zuen ahaleginaren handia. Orobat, bertan neur dezakegu eta zehazta nolako urratsak eman zituen, nondik abiatu zen eta nora iritsi.

2.3. *Añibarroren lanen kronologia baterako*

Honaino azaldutakoaren arabera, Añibarrok bilakaera bat izan zuela jakin arren eta bilakaera hori zehatzago ezagutzeko lekukotasunak eskura izan arren, oraindik ere ez dakigu “jadanik indarrean ez dagoen” lehen idatzietako euskara hura zein den, ez eta bilakaera hartatik gaur egun hobekien ezagutzen ditugun bi guneen —1802ko eta 1821eko *EL*-en— artean¹⁸ dagoen aldaketa nolakoa den, bat-batekoa, gutxinakakoa ala bietarikoa, alegia. Eta bigarren galdera honek bereziki baduke garrantzirik, Añibarroren idazlan gehienak eta onenak eragiten dituenez gero.

Hasiera batean, *EL*² eta gainerako idazlanen arteko aldaketa bat-batekoa izatea ez litzateke, inondik ere, ezinezkoa, ezta azalezina ere: begibistako azalpena aurreraturik, pentsa genezake Zabalak bere aldera ekar zezakeela, *EL*²-ren ezaugarri asko bat baitatoz haren idazkerarekin edota *VRB*-n aldeztu duenarekin.

Gutxinakako aldaketak, ordea, Añibarro bere buruz garatuaz joan zelako ideia sendotuko luke, eta lehenago mintzagai izan dugun ereduazko euskara hura eratzeko aurrenik zein hizkuntz alderditan arreta jarri zuen jakiteko bidea emango liguke. Bestela esanda, *EL*²-n islatzen den idazkera berriaren ezaugarrietako batzuk besteak baino goiztarragoak izatea espero genuke, argitalpen honen eredurantz hurbilduaz doan bilakabide batean zehar.

Lan hipotesi interesgarri honek oztopo latza du: Añibarroren idazlan gehienak argitaragabe geratu ziren eta, are okerrago, oso oinarri gutxi eskaintzen dute nola-baiteko ziurtasunez datatzeko. Egilearen bizitzan moldiztegitik lehenengoz iraganak ere 1802-1803 urteetan biltzen zaizkigu susmagarriro, are ahulago eginik saio honetarako oinarriak.

Añibarroren bizitzaz dakiguna ez da laguntza hobea. Ia ezer ez dakigu Zarautz aurrekoaz, ezer gutxi Arantzazun egin zituen urte agian erabakigarriez, eta Zarautzko bizimoduaz ere datu historiko edo pertsonal gutxi batzuk baino ez askoz gehiago. Badakigu, adibidez, 1794an, lehen frantsestean, Baionan preso egon zela bi hilabetez (*Becerro* 299-300) eta, bigarrenean, 1809ko urriaren 15etik 1814 arte

¹⁸ Gaiaren aurkezpenarako, ikerketa osorako, grafi alderdirako eta maileguei dagokienerako ik., hurrenez hurren, Urgell 1985, 1986, 1987b eta 1987c.

komentukide guztiak aldegin eta sakabanatzera behartuak izan zirela (*ib.* 302-303), baina honek ez dirudi ezinbestean lana eragotziko zionik.

Villasantek hainbat lanetan bildutako xehetasun ugariei frantziskotarren artxibategietan arakatuaz berri zenbait eransteke gauza izan gintezkeela badirudi ere, beldur naiz horrek ez duela gehiegi argituko gehien interesatzen zaizkigun arloak, hots, haren euskaltzaletasuna noiz ernatu eta zehatz-mehatz nola gauzatu zen.

Baliteke lehen marraztu dudan euskal giroak erakartzea, eta Zarautzera joatea euskaltzaletzearen ondorioa izatea, hortaz, ez zehazki zergatia. Nolanahi ere, bertara iristea aldagunetzat jo dezakegu, misiolari komentuko egotaldia euskaltzaletasun hura loratzera iritsi zen lekua baita.

1790. urtean, 42 urte zituela, eskatu zuen Zarautzerako sarpidea eta, berak esanda, komentura 1791ko uztailaren 2an iritsi zen.¹⁹ Data hauen aurreko euskararekiko harremanik ez dugu ezagutzen, ezpada 1773 inguruan, Arantzazun zegoela, Ubillos ezagutzeko parada izan zuela (Villasante 1979: 215). Badakigu, bestalde, honen euskararen arrastoak ugari aurkitzen direla bere idazlanetan, baina, dena dela, hau zeharkako eragina izan daiteke —badela ere baieztatuko nuke—, ez nahitaez zuzena.

1791 ondoko datuak, berriz, pilatu egiten zaizkigu, ziurrenik Zarautzera iritsi bezain laster lanean jarri zelako seinale eta, nolanahi ere, bere lehen argitaratu datadunaren (*EL* 1802) aitzineko urteetan lan handia egin zuela ziurtatzeko moduan.

2.3.1. *Lehen idatziak (1791-1793?)*

Sermones panegíricos, Doctrinas y sermones morales eta *Materiales para la obra bascongada de los tomos de Doctrinas escritas* izeneko eskuizkribuak Añibarren lehen idatziak direla uste izateko arrazoi sendoak ditugu. Esan dugun legez, Añibarrok berak gutxietsi zuen haietan —zehazkiago haietako bigarrean— erabilitako euskara eta, gainera, Altzibarrek (1992: 82) hura nolakoa zen jakiteko lehen hurbilketa on bat eskaini digu, “jadanik indarrean ez dagoen” euskara haren eta Añibarrenen ohiko idazkeratzat jo dezakegunaren artean agian uste baino aldaketa handiagoa dela iradokitzen baitu.

Ikertzaile honen iritzian, “hasierako Añibarro honek ez du hizkuntza idatzi jator eta erdarakada gabeko baten hainbesteko ardurarik lexiko, sintaxi edo morfologian” (*loc. cit.*). Xehetasunetan zertxobait sartuta, Altzibarrek zehazten du hitzen forman “laburdurak eta fonetismo lokalak” jasotzeaz eta adizki nagusi eta laguntzailea grafikoki ez bereizteaz gainera, txistukariak nahasten dituela eta, are jaikingarriago, *ea* eta *oa* baina *uba* eta *ija* erabiltzen dituela.

¹⁹ Villasante 1956: 70 eta 1974: 283, 2. oh.

Azpimarra ditzagun azken datu biak: gainerantzean Añibarrok txistukariak, oro har, ongi bereizten ditu eta ez du, jakina, *uba* eta *ija*-rik egiten, Mogelek bezala, beti ere *ua* eta *ia* baizik. Añibarro honek, gainera, gaitzetsi egin zuen Mogelen jokabidea:

Cada vez achica Vmd. más el bascuence de Marqui[na] (...) después de significar las inconexiones de mutaciones de *o* en *u*, *e* en *i*, *uba* y *ija*, añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto bascongado.²⁰

Altzibarrek berak (1992: 100-103) datatu ditu lehendabizikoz, dakidalarik, idazlan hauek, *Sermones panegíricos*-erako “ca 1790-1808 edo 1802” eta beste bietarako “ca 1790-1808” proposamenak eginez. Irizpideak agerian ez izan arren, nabaria da Añibarroren Zarautzeratzea eta *EL*-aren argitalpenaren (1802) edota *ME*-ren eskuizkribu zaharrenaren artean (1808) kokatu dituela.

Murgiltzen ari garen ezjakintasunean, zuhur jokatu duela esango nuke; baina zuhurregi, agian. *Post quem*-eko datak garrantzirik gabeko zuzenketa bat behar du: Añibarroren heldueraren data 1791ko uztailaren 2a da, gorago azaldu bezala. *Ante quem*-eko datari dagokionez, berriz, nahikoa aurreratu beharko litzatekeelakoan nago, gutxienez 1800. urteraino, *uba* eta *ija* erabiltzen dituen idatzi guztietarako.

Antza denez, hasiera-hasieran Mogelengandik hurbilago idazten zuen, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik,^{20bis} baina *EL* argitara orduko (1802) eta, beraz, haren inprentarako azken bertsioa idatzi orduko (urte bat edo bi lehenago?) utziak zituen halako asmoak, eta oso bestelako bide bat hartua. Edonola ere, aipatu dudan gaitzespeneko pasartea ezin da Mogelen heriotza (1804) baino beranduagokoa izan, berri zuzendutako gutun baten zirriborroa baitirudi erabat. Ez eta *Confesino Ona*-ren argitalpenaren aurrekoa (1803), nik uste, baina honek azalpen lasaiagoa eskatzen du.

Añibarroren oharraren buruan “Peru abarca” idatzita dago, oharra Mogelen liburuaren hitzaurreko hurrengo pasarteari baitagokio, hain zuzen:²¹

El idioma bascongado no necesita en el alfabeto romano de estas dos letras *f* y *h* y no aciertan los que escriben con *f* estos vocablos *alferra*, *afaria*, *ifini*, y algunos otros que se deben escribir con *p*: *alperra*, *aparia*, *ipini*, es decir, como los pronuncian los puros bascongados. Estos, si no han estado en tierras donde han aprendido algo del idioma castellano, o no han cursado la escuela, no pueden pronunciar la *f* (*PAb* 10-11).

²⁰ Lehendik ere ezaguna den pasarte hau *Voces bascongadas que trae Moguel en sus escritos* eskuizkribuan agertzen da (cf. Altzibar 1992: 85, 156. oh.).

^{20bis} Bide bat irekita utzi du Altunak (1995: 92, 26. oh.), oraindik hain gaizki ezagutzen dugun XVIII. mendeko bizkaieran —Olaetxearen dotrinaren 2. argitalpenean (1775), zehatzago— *uba* bederen baldela agerian jarriaz.

²¹ Hitz zerrendan, bestetikoekin batera, *Peru Abarka*-ko asko aurkitzen dira. Hitzak gehienetan Añibarrok normalduta —hiztegiaren sartzeko itxuran eta fonetismorik gabe— agertzen badira ere, erraza da frogatzen irakurri ahala egindako zerrenda dela; hala, adibidez, liburuaren hasieratik hasita (Gerediaga Elkartearen 1981eko faksimilea darabilt): *baldres*, *zantarra* - *guerrestuba* (43) - *debecatu* - *edan-sarri* - *ardao zaleac* - *dollorra* - *barua* (44) - *mozolloa* (45) - *enzutecoac enzun* - *osaquintza* - *andiquiac* (46) - *asaba* (47) - *itzaña* - *bialdu* - *jarðu* (sic, < *yarduten*) (48) - *baisen* - *imini* - *gisaa* (sic, < *guisaan*) - *aurquez* *aurque* - *baquetsua* - *eroapena* - *aurreracoan* (49), etab. Badirudi, beraz, badakigula nolatsu iritsi zen Mogelen eskuizkribua Zarautza: berak Añibarrori bidali edo utzia, alegia.

“Cada vez achica más...” dioenean, Añibarrok aditzera ematen du *Peru Abarka*-ko hertsapena besteri eransten zaiola, eta beste hori, antza denez, *Confesino On*-ekoa da, Añibarrok ez bezala *maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, Cristinauba* erabiliko dituela iragartzen duenekoa, alegia.²²

Labur bilduz, 1803-1804 inguruan Añibarrok argi dauka, alderdi teorikoan, Mogelen hautua hertsiegia dela. Alderdi praktikoa, oster, dagoeneko ikusi dugu erabakia lehenago hartu bide zuela, *EL* argitara eman baino urte bat edo bi lehenago bederen.

EL-tik irten gabe, Añibarroren idazkeraren aldaketa hau aurrera dezakegu, beti ere data zehatzik gabe, zeren eta bai baititugu —lehenago esan dut— 1802ko argitalpenerako inprimatzaileak erabili zuen eskuizkribu galdua baino zaharragoa den bertsio baten puska luzeak, ia-ia aurreko idazketa oso bat, beharbada lehen.²³ Eta idazki honetan ere ez dago *uba / ija* erabileraren arrastorik.

Ildo beretik, 1801eko gutun ezagunaren lekukotasuna erabil dezakegu, hots, bere gramatikako adizkitegia nafarrerazko formekin osatzeko laguntza eskatzen duenekoa (Villasante 1983). Gutun honetan papera erosi beharraz luze dihardu, inolaz ere zerbait argitaratzeko beharrezkoa duen paperaz, eta zerbait hori, fetxa hartan, *EL* baino ezin izan. Ez zait larregi iruditzen, beraz, 1801erako *EL*-aren azken idaztaldia argitaletxean zegoela edo iristear zela pentsatzea, eta honekin lehen idaztaldi zatikako hura XVIII. mendearen azken urteetara aurrera daiteke ahalegin handirik gabe.

Kontuak argixeago —edo nahasixeago— utz ditzakegu esanez, ezen jadanik 1793an Añibarro *Eskuliburua* argitaratu nahian omen dugula, hobeki esanda, urte hartan jaso omen zuela hura argitaratzeko debekua. Halaxe diosku Urkizuk (2000: 236) bederen, iturririk zehaztu gabe, baina etsita nago ikertzaile honek aski eta sobera frogatu duela honelako datuetan eskaintzen duen fidagarritasuna.

Ondorioz, bi aukera ditugu: segur jokatuaz, Añibarroren idazlanik zaharrenak 1791-1800 tartean datatzea, edo pittin bat arriskatzea, datazioa 1791-1793 tartearaino aurreratuz.

Nik neuk, bigarren aukerari deritzat zentzuzkoena, alde handiaz, *ija* eta *uba*-k uxatzeko erabakia sinesgarriki denboran atzera eramateko bide ematen baitu eta, bestalde, *EL*¹-en idazketa eta berridazketa lanerako aski den adinako denbora tar-

²² Izan ere, *Peru Abarka*-ko hitzen ondoan agertzen direnak *Confesino*-koak dira, argitalpenekoak zehazkiago. Froga bat baino ez: “zareé pag. 4: *erdu* por *dué* ibi.” sarrerako bi adizkiak Añibarrok esan orrialdean daude, alderantzizko ordenan: *Erdu* (10. lerroan), *zaree* (14.ean).

²³ Zati eta hitz batzuk (oraindik) erdaraz daude; baina, bestalde, bertan egindako aldaketa zenbait bat datoz *EL*¹-eko irakurketekin. Orotara 4 orrialdeko 13 koadernotxo dira, aski desordenatuak *EL*¹-ekin erkatuta. Añibarroren bestelako eskuizkribuekin nahaste aurkitu du A. Cándido Zubizarretak, baina, damurik, ez naiz gauza une honetan xeheki non dagoen argitzeko: baliteke *Obras Misceláneas* liburu-ri lodikotearen barruan izatea, Arantzazuko komentuan (cf. Villasante 1963: 14-15).

tea irekitzen baitu, ezinbestekoa nonbait *EL*-arekin bateratsu ondu zituen beste lanak ere (*LoraS*, *NDot*...) kontuan hartzen baditugu.

2.3.2. *Argitaratuak (1802-1803)*

Nafarrerazko dotrina (*NDot*) beti jo izan da bere lehen obratzat, inertziatz baino ez bada ere. Urtegabe atera zen, halere, eta 1762-1765 artean kokatzen zuen Ruiz de Larrinagaren datatze saioaz geroztik 1802-1803ra atzeratzera behartzen duten dokumentuak azaldu dira (Pérez Goyena 1947-1953: VI, 25, 3525 zb.).

Honek esan nahi du Añibarroren argitaratuak samaldaka bezala irten zirela, bata bestearen ondotik: dotrinaz gainera, *EL* (Tolosa, 1802), *LoraS* (Tolosa, 1803) eta *Misioko kanta santuak* (= *MKS*; Donostia, 1803). Kontuan har dezagun, gainera, *EL* eta *LoraS*, biak Tolosako La Lamaren etxean eginak, elkarrekin egon bide zirela inprentan, lehenean agertzen den hurrengo iragarki honek aditzera ematen duen bezala:

Libru onegaz batera salduten da beste eusquerazco *Lora-sorta Espiritual bat, ta Propositu Santuac vicitza barri bat eguîteco* (*EL*' 238).

Argitara aurreko *EL*-aren bizitza luzeaz azaldu berri duguna eta *LoraS*-ren bertsio zaharrago bat, argitaratutik ezberdina, egotea, bi datuok ongi datoz argitalpenen data hurbiltasunak iradokitzen duenarekin, hau da: argitaratze datak dirua egon zeneko data bakarrik adierazten duela, dirua eta ezinbestekoa zen baimena.

Badirudi, beraz, bi frantsesteen artean giroa, une batez, gozoagoa izan zela, Añibarroren lanak ez eze, Juan Antonio Mogel (1800, 1803), Agirre (1803), Bixenta Mogel (1804) eta Gerrikorenak ere (1805) tartetxo honetan pilatzen baitira, hurrengorako (demagun, f. Bartolomeren *Olgetak*, 1816) gerra bukatu ondoko urteetara itxaron behar dugun bitartean, noski.

2.3.3. *Argitaragabeak: 1. Hizkuntzaz kanpoko datuak*

Añibarroren euskal idazlanen lehendabiziko datatze saioa, beste aurrerapen asko bezala, A. Villasanteri zor diogu. Saio goiztarra da eta, beraz, laudagarri bezain osatugabea, gero bilduko zituen datu ugariak kontuan hartzen baditugu. Orduan zeuzkanak ahalik eta hobekiena baliaturik, bada, lan laburrak lehen eta luzeak geroago eginak izan zitezkeela iritzi zion edo, bestela esanda, Añibarro gero eta idazle ausartago izan zela, gero eta zeregin altuagoak hartzen zituena:

Añibarroren bizi-denporan argitaratuak, oetxek [*EL* 1802 eta 1821, *LoraS*, *MKS* eta *NDot*] bakar-bakarrik ditugu; lan txikarrak denak. Argitara gabe gelditu diran lan aundi-edatuak bigarren gerrate ondoko urteetan [beraz, 1814az geroz] zertu ta burutuko zitun, noski (Villasante 1956: 71).

Iritzia sendotzeko datu bat aurkitu uste zuen, berari ere ahula iruditu arren: gramatikaren eskuizkribuaren barruan 1823ko pazko-txartel bat dago, eta honek oina eman zion *VB* urte hartan datatzeko, nahiz gero argitaratzerakoan (Villasante 1970), “Escrita hacia 1820” zehazgabeagoa nahiago izan zuen.

Ez zuen orduan aipatzen, hein batean bere alde etorri arren, *ME*-ri buruz eza-gutzen dugun data bakarra. Ez orduan, ezta beranduagoko lan batean (1979: 221), dirudienez Arantzazuko eskuizkribua, berriagoa eta datagabea, bakarrik ezagutzen zuelako. Zarauzko alearen —bertsio zaharraren— lehen orrian honako hau irakurtzen da:

Esta obra del Misionero Bascongado comencé en 5 de Dic^o. de 1808; día en que nací, y cumplí 60 años mal empleados. Conozco q^o. no la podré concluir, y suplico a algún individuo de este Colegio la continúe, trasladando a este manuscrito mis Doctrinas y Sermones de Misiones q^o. los tengo enquadernados en otro tomo libro 1^o. Dios será su galardón.

Halaber, ez zuen aipatzen gramatikaren “Advertencias”-eko lekukotasuna hiztegia eta *GGero*-ari buruz:

Tengo concluído un Diccionario de poco volumen de *Voces bascongadas diferenciales* (...). También tengo traducido al dialecto Bizcayno el famoso libro de *Gueroco guero* de Axular, Cicerón bascongado... (*GB* 14).

ezta ere, azkenik, hiztegiaren “Advertencia”-koa gramatikari buruz:

...tengo puestas las conjugaciones bascongadas de los tres dialectos, con separación para cada nación, así de verbos regulares como irregulares, en trato regular y cortés, y en trato menos cortés y ordinario. Ambas obritas [hiztegia eta gramatika] pueden servir mucho para Párrocos y Predicadores (*VB* 21).

Eta azken aipu biotatik abiatuko naiz hemen Añibarroren lanen kronologia erlatibo bat bederen ezartzen, makina bat datu ezberdin erabili beharragatik gurrpil zoro batean sartzen garela eman arren.

Hasteko, ikertzaile guztiak ados daude bizkaieraz argitaratutako bi lanak (*EL*¹ eta *LoraS*) idazkera beretsuaren ordezkariak direla (Villasante 1956: 80; Urgell 1988b; Altzibar 1992: 83),²⁴ ziurrenik bien azken idaztaldia argitalpena baino zer-txobait lehenagokoa izateagatik.

Altzibarren ustetan (1992: 84), berriz, gramatika eta hiztegia *EL*¹-aren garai-kideak lirerateke, gutxi gorabehera, eta, halaxe diosku berak, *GGero* “beste bien artekoa omen da” (*ib.*, 152. oh.). Uste hauek ez dira *GB* eta *VB*-ren hitzaurreetako aipuetan oinarritzen —zeren eta, nabaria denez, batak bestea aipatzen baitute—, idazkera eta hizkuntz arrazoietan baizik (Urgell 1988a: 163-164).

²⁴ Bestelako ustea izan zutenek (Azkue 1919-1920, ap. Altzibar 1992: 83, 149. oh.; Orixe 1927: 231; Altube 1929: 157) *EL*³-aren berrargitalpen anitzetatik bat bakarrik irakurri bide zuten (ik. Urgell 1988b: 8).

Hasiera batean, oso arriskutsua da hitzaurreak erabiltzea eskuizkribua datatzeko, zeren hitzaurreak ez aurretik, liburua amaitzearekin bateratsu baizik egin ohi baitira. Hiztegiaren hitzaurretzakoa, adibidez, “iztegiaren atzekaldean oar bat” baino ez da eta “lanari itzaurre bezala jartzeko egina dirudi” (Villasante 1956: 77). Errezelo honen ildotik, esan behar dut ezer baino lehenago ezen, hala nola *EL*, *LoraS*, etabarren argitaratze datek *ad quem*-eko data bakarrik eskaintzen diguten, halaxe balitekeela elkarren aipuak argitaraezinen ondorio baino ez izatea. Hau da, noizbait *GB*, *VB* eta *GGero* bukaturik eta haien garrantzi bereziaren jakitun (gogora dezagun: “Con este Arte, Diccionario y Axular...”), Añibarrok bata bestearen aldeko iragarkiak sartzeko epea nahi adina izan zezakeela 1800 eta 1830 bitartean, demagun.

Dena den, Añibarroren hitzen irakurketa lasaiak hiru lan hauen hurrenkera izan zitekeenaren bertsio interesgarri bat eskaintzen digu, beste datu batzuekin ondo datorrena, *VB*-ren “Advertencia” *GB*-koa baino lehenagokoa dela eginik: 1) *GB*-ren lehen bertsioa, adizkitegi hutsa bide zena; 2) *VB*, non adizkitegia bakarrik aipatzen duen; 3) *GGero*; eta 4) *GB* gaur ezagutzen dugun moduan, hau da, adizkitegiak gainera bestelako berriak ere erantsirik;²⁵ gramatikaren azken bertsio honetan, eta honetan bakarrik, beste bi lanak aipatzen dira.

Hemendik aurrera arlora ekar ditzakedan datu guztiak *GB*-ri dagozkio ia erabat, eta bigarren maila batean soilik *VB* eta *GGero*-ri. Datu hauek goraxeago proposatu dudan hurrenkera, alde behinik behin, berresten dute eta, gainera, gramatikaren eskuizkribua gutxi gorabehera datatzeko bidea ematen digute.

Lehenik, gogoratu behar dugu *GB*-ren izen zaharra “Conjugaciones Bascongadas” izan zela, eskuizkribu autografoan, marraturik, irakurtzen denez (Villasante 1970: 9). Izen hau da, hain zuzen ere, *VB*-en hitzaurrean ematen diona.

Bigarrenik, ziurtasun osoz badakigu gramatikaren zatirik luze eta zehatzenak, bizkaierazko eta gipuzkerazko adizkitegiak, 1801erako eginak zirela eta, honezaz gainera, Añibarrok handik gutxira argitaratzeko esperantza bazuela, ziurrenik *EL* eta *LoraS*-ren ondoren. Lekukotasun garrantzizko hau jadanik erabili dudan 1801eko apirilaren 11ko gutunean aurkitzen dugu:

Se está para imprimir un nuevo arte con las Conjugaciones Bizcaynas y Guipuzcoanas; es la más bella ocasión para que Navarra tenga las suias de seguida a dichos dos Dialectos (Villasante 1983: 404).

Gutun honetan nafarrerazko aditzaren berri zenbait eskatzen dio hango adiskide bati, Aldatzeko parrokoa zen Mariano de Mugirori, gramatikari buru emateko asmoz. Ohar gaitezen *GB*-ri ematen dion izena hobeto datorkiola izen zaharra-

²⁵ Zehazkiago, “Parte primera. Declinaciones y artículos del nombre” eta, bereziki, “Parte novena. Syntaxis o Construcción del Bascuence”, non “Construcción del nombre”, “Construcción del Verbo” eta “Relativos” azpiatalen artean “Pronunciación” eta “Acentos” agertzen diren: lekuz kanpo, nolabait esateko.

ri. Beraz, gramatikaren lehen bertsioaz ari gara, adizkitegi hutsa bide zen hartaz. Udaberri hasieran ari baitzen, bertsio hau 1801aren barnean-edo bukatuta egon zitekeela pentsa dezakegu.

Baina, herenekorik, *GB*-ren eskuizkribua, gaur ezagutzen dugun gisan, nahitaez beranduagokoa da, zeren eta “Advertencias” atalak *post quem*-eko data garrantzitsua eskaintzen baitigu: Mogelen heriotza, alegia, argitaratu handiak aipatzeaz gainera (“... en dos libritos que dí a luz *Esculibrua y Lorategui espiritual*”, *GB* 14).

Beraz, jakintzat eman behar dugu gorde den gramatikaren eskuizkribua, aditaz gainerako eransketak eginda eta txukun jarrita, 1801ez gerokoa dela, agian 1804koa edo ondoko urteetakoa. Eta, ondorioz, 1804 ondoko data ezezagun honetarako *VB* eta *GGERo* eginak leudeke, nahiz eta honek ez duen derrigor esan nahi orain ezagutzen ditugun itxura berean behar zutenik egon: alderantziz, badirudi biek bizitza luzeagoa izan zutela, data horren ostekoa ziurrenik.

2.3.4. Argitaragabeak: 2. Hizkuntz argudioak

Hemendik aurrera, egin daitekeen neurrian eta kontu handiz, Añibarroren lanak elkarrekin erkatzeraz jo behar, euren datazio erlatiboa —zer den zer baino lehenago— erdiesteko. Hau da, honetaz guztiaz benetan interesatzen zaigunera itzulirik, Añibarroren idazkeraren bilakaera aztertzeke data ziurretatik abiatu ezin dugunez gero, alderantzizko bidea, zailagoa, egin behar dugu, *EL*¹ eta *EL*²-z daki-gunak enparauak kokatzeko laguntza emango digulako esperoan.

Honetarako, idazlan zenbait elkarrekin erlazionatzeko eta gainerantzekoetatik bereizteko aski diren idazkera ezaugarri batzuk bederen aurkitu beharko genituzke, lehen hurbilketa modura. Dagoeneko idatzi batzuetan saiatu dugun metodoa da, ondorio interesgarriekin nik uste, baina ondoren aurkezten dudana ez da agortzeke dagoen ikerbidearen emaitza baizik, lehen egindako errakuntzak zuzendu eta alde batera utzitakoak osatu nahi lituzkeena, baina oraindik ere hainbat hutsune dituen.

Baieztapen gehienak grafian oinarrituko direnez, komeni da aurretiaz *EL*¹ eta *EL*²-ren artean dauden aldaketa nagusiak eskematikoki azaltzea:

<i>EL</i> ¹ (1802)	<i>EL</i> ² (1821)
<v>, 	
<h>	∅
<i> bokal artean	<y>
<j> = /j/	<y>
<mp>, <mb>	<np>, <nb>
<qu>	<k>
<ss>, <x> = /š/	<sh>
azentua	∅

Oro har, gainerako idazlanetatik batean ere ez dugu aurkitzen (geroxeago zehaztuko ditudan salbuespenekin) *EL*²-ren grafi sistema berria. Gertakari honek hau baino lehen idatziak direla pentsatzera garamatza, eta uste honen alde letozke egileak orduan zuen adina (73 urte; 1827koa ateratzean 79) eta haren heriotzaren hurbiltasuna (1830).

Añibarroren lehendabiziko idazlanetan Altzibarrek kausitutako ezaugarriak ere, ez dirudi bestetan berragertzen direnik: *uba* eta *ija*, txistukariak biziki nahastea eta adizki nagusi eta laguntzailea bilduta idaztea.

Areago, lan zahar haien eta *EL*¹-ek ordezkatzeko duen hurrengo aroaren artean muga argia dela esango nuke, eta bereizgarri orokor bat ematekotan, idazkeraren alderdi zenbait fintzeko eta finkatzeko Añibarroren kezka agertu eta gauzatzen hasteagatik ezaugarritzatuko nuke aro berria.

Aldaketa hau, Altzibarrek (1992: 82) iradoki bezala, ziurrenik Larramendirekin lotu beharrekoa da: *EL*¹-en bai lexikoan, baita grafian eta azentua markatzeko moduan ere andoaindarraren eragina nabaria izanik, ondorioztatu behar dugu urte hauetan Añibarro haren gramatika eta hiztegia sakon irakurtzera eman zela.

Altzibarrek berak (1992: 83) agerian jarri du *EL*¹-en eta *LoraS*-n Añibarro, idazlanik zaharrenetan ez bezala, txistukariak bereizteaz arduratzen dela, baita hitzak bata bestetik banatzeaz eta gehienbat forma osoak, ez uzkurtoak, idazteaz ere.

Ardura hauetatik txistukariei buruzkoak irudikatzen du hobekienik adierazi nahi dudana. Luzarora eraginkor suertatuko bada ere, geroko idazlanetan nahasketak bakanak baitira, hutsaren hurren, aro honetako idazlanetan oraindik okerrak ugari daude. Alabaina, alde honetatik zeukan kezka bizia dokumenta dezakegu, *EL*-ren eta *LoraS*-ren “hutseginen zuzenbidean” islatzen baita; ohartu, gainera, 1802tik 1803ra zuzendu behar dituen hitzen zerrenda nahikoa gutxitu dela.²⁶

Sgaz esribituco dira: *deuscu, deustazu, euscun, daracuscu, nasana, nasalaco, gustua, gaistoa, gaistaqueria. Jausi, caer. Jaso, levantar, alzar. Eraso, mezaraso, ayudar. Item, embestir, acometer.*

Z bearrean S ta contrara lecu ascotan idoroten da; eta alan Zgaz ifini bear dira: *biztu, zoriondu, jazo, suceder, acontecer. Erazo, precisar, compeler. Ezaindu (EL¹ 238-239).*

Sgaz esribituco dira Aberatsa, ceuntsan. Zgaz eztabil, caridadezco, ezcutua (*LoraS* 196).

Bestalde, aro honetako argitalpenak bat datoz funtsean *EL*¹-eko grafi sistema-rekin eta, are gehiago, esan daiteke *NDot* eta *LoraS* hura baino ordezkari hobeak direla, zeren eta /š/ hotserako <ss> erregularki erabiltzen baitute <x>ekin batera, *EL*-an honen ordezkari hainbat <s> dauden bitartean (Urgell 1987b: 362 eta 1988b: 14). Beraz, bai honetan, baita txistukariak zuzen bereizteko ahaleginean, badirudi

²⁶ Izan ere, *LoraS*-n ere *s* / *z* eta *ts* / *tz* nahaste dabilta hitz gutxi batzuetan; batetik bestera, halere, zenbait hitzen grafiaz ondo jantzi zen: esate baterako, *EL*-an bereziki aipatzen duen *jaso* eta *jazo*-ren arteko bereizkuntza ondo gordetzen duela dirudi.

EL argitaratzean hartutako eskarmentuak ondorioak izan zituela besteen argitalpenean.

Haatik, aldi berean, badirudi badela daturik, *LoraS* eta *NDot*-en azken idaztaldea *EL*-arena baino lehenagokoa dela baieztatzeko modukorik. Alegia, baliteke idazlan zaharrenen eta *EL'*-en artean tarteko garai bat egotea.

Ezaugarriak nabarmenena *NDot*-en aurkitzen dut. Liburu honetan oraindik *e*, *i* aurrean <tc> erabiltzen du Añibarrok, testuinguru guztietan <tz> jartzeko Larramendik hedatu zuen joera lehendik ere nagusitzen ari bazen ere (Urgell 1988b: 14 eta 18. oh.). Lehen begiratuan inprimatzaileari leporatzeko tentaldia izan dezakegun arren, gogoratu behar da ohitura haren arrasto gutxi zenbait *EL'*-en aurkitzen direla oraindik ere.

Esan dezakegu, orobat, *EL*-an konpondu zuela, eta honetan bakarrik, gaztelaniazko grafi sistema zaharraren ohitura batek euskaraz zekarren nahasmendua: izan ere, *NDot* eta *LoraS*-n <ss>k /š/ zein /ś/ irudika ditzake (*essan*), /š/ hotsa bereizgabe utzita.

LoraS-k aztarnaren bat gehiago eskaintzen digu. *EL'*-en <v> / bereizketa finko xamarra da, eta zeharo klasikoa, hots, <v> maileguetarako edo hartakotzat jotzen ziren hitzetarako (*verba, avisu, vici, vide...*) soilik erabiltzen da, salbuespenak salbuespen, eta halako hitzetan sistematikoa izaten da, *LoraS*-n <v> maizago eta lege hausteak ere ugarixeago diren bitartean.

Ildo beretik garamatza *LoraS*-n azenturik ez egoteak, jadanik aipatu baitugu *EL*-ko azentuaren erabilera ez eze, erabiltzeko modua ere Larramendiren eragin zuzenaren ondorio direla. Bada, *LoraS*-n aurkitzen dugun gauza bakarra, azentu bereizleari buruzko “zuzenbideko” oharra da, eta honek aditzera ematen du ezen, originala eta probak zuzentzeko lana hartu ez bazuen ere, gaiak biziki kezkatzen zuela:

Zu *zara* ta zuek *zara* dagoz nasturic: zu *zara*-ri *ra* ganean ifiñi bear jaco acento edo erraia bat; zuec *zara*-ri *za* ganean. Beragaiti obeto dator esatea zuec *zaree* (*LoraS* 196).

Argitaratu ez ziren lanen artean, *GB* bide da talde honetan peto-petean eta errazenez sartzen dena; eta hainbeste esan liteke *VB*-ri buruz, gutxi gorabehera. Honek adierazten du, beraz, garai honetan somatu dugun Larramendiren eragina eta haren ondorio den kezka teoriko bizia, bere gramatika eta bere hiztegia egiteko asmoaren lagun direla.

Alabaina, zehaztu behar da *VB*-k, itxura guztien arabera, gramatikak baino bizitza luzeagoa izan zuela, lehenagoko eta beranduagoko aroetara daramatzan ezaugarri zenbait gordetzen ditu eta. Izan ere, alde batetik, <sz> grafiak daude, bata ala bestea aukeratzerakoan duda-mudatan zebilelako seinale, Mitxelenak esan bezala (1963: 413); hau bezalakorik ez dago bestetan, *EL*-aren zatikako eskuizkribu zaharren izan ezik. Eta, bestetik, noizbehinka aurkitzen diren <k> eta

<sh> grafema berrien agerraldiek²⁷ susmarazten digute behin betiko idaztaldi baten ondoren eransketak egin zizkiola, haietako batzuk jadanik 1821etik oso-oso gertu.

Argitalpen ugariko eta prestakuntza teoriko sendoko aro honen ondoren, ilunbez betetzen da Añibarroren obra. Ez, horratio, berak idazteari utzi. Aro honetan biltzen dira, itxura guztien arabera, bere idatzirik jaso, txukun eta handienak, gehien landu zituenak, inoiz 1808 inguruan datatu ditudanak, hain zuzen. Oinarritzko data hori ez da erabat okerra, *ME*-ren Zarauzko alearena baita, dakigunez, baina ezta erabat zuzena ere, Arantzazuko ale berriarena bailitzan jokatu bainuen, oharkabean. Edonola ere, talde honetan sartzen dira *ME*-ren azken bertsioa, ziu-rrerik aurrekoa ere, *NekeA*-ren bi bertsioak, *LauEv* eta *GGero*, baita agian *Arzai-adibideak* ere.²⁸

Orain ditugun datu berrien argitara ulertuta, gramatika bukatu eta beranduago (1804tik aurrera) egindako lanak genituzke. Hauek ere, ikusi berri dugunez, *EL* eta *LoraS*-k bezala idaztaldi bat baino gehiago jasan dute guztiek, eta gehien frogak gordetzen ditugu. Salbuespenari —*LauEv*-i— dagokionez, nahiz eskuizkribu bakarra izan, argi dago zuzenketa bakanak baino ez dituen garbi ipinitako kopia dela.

Honek adierazten digu aldaketa-garai batez ari garela berriro ere. Garai honetan idazlan bakoitzaren bi bertsioak, edo eskuizkribuan aurreratu ahala somatzen den bilakabidea, edota eskuizkribuan egindako zuzenketa autografoak norabide beretsuan doaz; grafiaren arloan, zehazkiago, <h> ezabatzeko eta <v> rekin ordezkatzeko joera indartsuan islatzen da. Alderdi honek erakusten digu gramatikaren azken bertsio osoak eragina izan bide zuela ondoko idatzien grafian, zeren eta honetan jasotzen baititu grafema hauei buruzko ohar argiak, Larramendi, Kardaberatz, Mogel eta besteren ildotik (Urgell 1987b: 372-378):

La letra aspirada H no hace falta en bascuence...

Ninguna voz bascongada trae consigo V consonante, sino B: *barria*, *biotza*, *bicitza*, *bizcaya*, *zabala*... Con todo, algunos escriben con V consonante las voces que la tienen en latín o en castellano, v. g. *videa*, *vicitza*... via, vita (GB 167).

Antzera esan daiteke azentuari buruz ere: gramatikan azaltzeko —*more* Larramendi, gehienbat— sakon aztertu behar izan zuenez gero, ez da harritzekoa garai honetako idazlan guztietan azentua egotea.²⁹ Gogora dezagun, bestalde, gai honetan *EL*¹-en lorratzetan ari dela.

Oro har, aurreko aroaren kezka teorikoak oraingo idazlanetan eragin handi eta zabalagoa izateagatik muga daiteke aro berri hau: itxura umotuagoa daukate bai-

²⁷ Cf. *cikinkeria*, *zatarkeria* (s.v. *acción descompuesta*) eta *aitasho* (s.v. *abuelo*), adibidez.

²⁸ Azken honi dagokionez, cf. Altzibar (1992: 83, 150. oh.), beronek “ca 1800” datatu arren. Francisco Valero Toledoko Artzapezpikuaren jatorrizko testua noizkoa den aztertu beharko.

²⁹ *ME*-ren bigarren bertsioaz, cf. Altzibar (1992: 88-89).

na, aldi berean, eskuizkribuak izanik, estalkirik gabe islatzen dituzte hizkuntzaren arlo guztietan —grafian, fonetikan, morfologian eta joskeran— egileak izan zituen zalantzak eta gorabeherak.

1804-1820 tarte zabalean koka ditzakegun idatzien multzoa, zentzu horretan, trinkoa bada ere, bereizketa eta zehaztapen batzuk egin daitezke, baita Añibarroren garapena hobeto ulertu ere, *NekeA* eta *GGero*-ri dagokienez.

NekeA-ren bertsio zaharra, Altzibarren ustetan (1992: 90), 1808ko (Zarauzko) *ME*-ren hasierako orrien eta *LauEv*-en garaitsukoa edo aurreraxeagokoa izan daiteke, bertsio berrian <v> : aldaketak, <h>rik eza, azentua eta hitzen ordena jatorragoa somatzen direnez gero.

Bertsio berria, aldiz, Arantzazuko *ME* baino beranduagokoa izan daiteke (Urgell 1987a). Edonola ere, *NekeA* bi *EL*-en artean, eta beharbada *EL*²-tik nahiko hurbilago, kokatzeko zeharkako argudio bat dugu: 1821eko argitalpenean sartu zituen bi atal berriak (*Yesusen nekeac* eta *Maria Virginearen alaac*, *EL*² 214-227) liburuxka horren gai nagusiaren laburpena bide dira.

GGero-aren datazioa arazotsuagoa da, baina oso interesgarria. Hasiera batean, Añibarrok gramatika bukatu baino lehenago itzulitakotzat jo daiteke, bi frogatan oinarrituaz: jadanik ezagutzen dugun gramatikaren beraren lekukotasunean eta *LoraS*-k eskaintzen dizkigun testu argudioetan. Harako *Neurri*, *marra ta mugarik ez daben ontasuna* esaldiak (*LoraS* 130-131) Axularren liburuaren arretazko irakurketa eskatzen du; baina pareko hango esaldiak baino, *LoraS*-kotik *GGero*-ko pasarte zenbait hurbilago direnez gero (cf. *gure becatuen muga, marra, neurria ta contua* (*GGero* 9-29/30) edo *noguiño izango dan bere eldutea, bere muga, marra ta neurria* (*ib.* 9-48/49), *LoraS* egin orduko zatiren bat edo beste itzulirik ere izan zezakeela ematen du.

Bidenabar, liburuan bada pasarte bat, Añibarrok Axularren testuari egiten dion eransketa bat, *GGero* hobeto datatzeko lagungarri izan zitekeena, haren zehazgabetasunagatik ez balitz: izan ere, bertan gertuko gerrate batez mintzo da Añibarro, baina frantseste bietarik edozeini dagokiokela dirudi. Hona dakart, norbaitek nik ez ikusitako xehetasunen bat antzemango duelako esperoan:

Au icusi dogu gueure beguiz guerreac estutu gaituen demporan, ceñetan, arrituric genteac, viciroago emoten cirian Jangoicoaren gaucetara, sarrituten cirian sacramentu santuac, beté elesac, adisquidetu arerioac, guichitu auciac, ordiqueriac, danzac, erriertac ta gaistaqueriac (*GGero* 1-114/118).

Edonola ere, daukagun eskuizkribua alde behintzat beranduagokoa dela uste dut. Eskuizkribu honek ez dirudi, bestek legez (*LauEv*, *NekeA*, *ME*), kopia autografo garbia, lehen idaztaldia ere ez den arren, idazketa garai ezberdinetan dauden atalen bilduma baizik. Hortaz, berebiziko interesa duten aldaketa eta zirriborroz bete dago, batez ere hasieran, geroago zehaztuko dudanez (§ 3).

Ezaugarri nagusia jarraian, hasi eta buka, idatzia ez izatea da, inolaz ere. Ondoko atal batean (§ 4) xehetasun gehiago ematen saiatuko naizenez, esan dezadan oraingoz, oro har, hasierako atalak EL^1 -aren eta garai hartan idatzi gainerakoaren tankera bera edo beretsua duela funtsean; ondokoetan, berriz, jadanik ezagutzen dugun <v> eta <h> ezabatzeko joeraz gainera, grafiaz bestelako aurrerapenak somatu dira, lehen hurbilketa oso azaleko batean: zehazkiago, EL^2 -ren ezaugarri diren aldaera edo aukera zenbaitek (*gaiti*, *-taric* eta *-mentu*) nagusigoa erdiesten dutela frogatu da (Urgell 1991a).

Badirudi, beraz, *GGero* EL^1 eta EL^2 tartean eta astiro-astiro bigarrenaren idazkerantz hurbiltzen ari zen hizkuntz ereduan idatzi zela. Eta, xeheki aztertu gabe badaude ere, gertakari beretsuak agitzen dira garai honetako beste idatzietan, guztiz *ME*-ren bertsio berrian, honetan Axularren eragina inoizko argiena izateaz gainera.

Ondorioz, EL^2 baino lehenago idatzitako lanen beste ezaugarri bat atzeman bide dugu, hots, hartan bakarrak diren edo nagusigoan dauden aldaera morfofonetiko zenbaiten alde egiten hasten dela Añibarro aro honetan.

Aroaren erpina, aro berri bat jarraipenik izan balu, 1821eko *EL*-aren argitalpenean dugu. Orain artean igaro dugun bide luzea igarota, jadanik esan dezakegu EL^1 eta EL^2 -ren artean dagoen alde izugarria ez zaiola bat-bateko jauziari zor, nahiz eta bilakabide luze baten bi muturrak zuzenean erkatuaz halako ikuspegi desitxuratu bat sor daitekeen. Grafia aldaketa txundigarriak (<k>, <sh>...) alde batera lagata, honaino berreraiki dugun bilakaera, urteekin bere idazkeraren osagaiak jakinaren ganean hautatu eta taxutzera eman zen idazle baten bilakaera da. *EL*-an islatzen den neurrian, bilakaera honen ezaugarriak honako hauek dira:

1) Grafian, inongo nahaste, ez aniztasun tronpagarririk gabe, eta atzerriko ohituretatik gureganatu larregizko hizkiak (*h*, *v*) ezabatuaz hizkuntza ahalik eta hobekienik islatzera zuzenduak ditugu berrikuntzak.

2) Gramatikan, aldaerak bateratzen ditu, ahalbide gehiago gauzatuaz aberasten, usadio txarrak zuzentzen, kalkoak zokoratzen, forma osoagoak ezartzen eta txokokeriak garbitzen. Honek berariaz urruntzen du Añibarro “ama hizkeran” oinarritutako idazkeretatik: ikuspegi zabalagoak bultzaturik, nahita eta ohartuki, atzendu edo estali zuen bere arratiera hainbat puntutan.

3) Hiztegiari dagokionez, asko da zer aipa aldaketan; gehiena bat daiteke, haatik, Larramendiren “ez hainbat, ez hain gutxi” hari atxikiaz heldutasun nabarira iritsi zela esanaz: maileguak arrunt eskasten dira, baina bidea hertsu gabe; hitz berezituak (*HH*-ko neologismoak, gehienbat) neurritz eta tentuz darabiltza, bat edo beste kanporatuz; gipuzkerazkoek ere badute beren lekua, baina ez bizkaierazko ordainen kaltetan. Umotasun ezaren seinale den *edokeria* hasieratik gutxi erabiltzen bazuen, ia erabat desagertzen da gero; eta, honen orde, nahiago du esanahi-

kideak edo adiera hurbilekoak lerrokatu, Axularrengan ikasi bide zuen modura, baina hitzak argitzeko balio duen neurrian zeharo bereturik.

2.3.5. *Zabalarekikoa*

Behin-behineko saio honen arabera, hurrengo bilakaera garaiak eriden ditugu Añibarroren idazkeran:

- 1) Lehen idatziak (1791-1793?).
- 1) *EL*¹-ena (1793?-1804?).
- 2) *ME*-rena (1804?-1820).
- 3) *EL* 1821eko jauzia, kualitatibo eta kuantitatiboki itzela, Añibarroren idazkeraren bilakaeraren gailurra.

Kronologia erlatibo honi zailtasun garrantzitsu bat aurkez lekikeola begitanzten zait, alegia, berrikuntzarik begibistakoenak —baita garrantzitsuenetarikoak ere— Añibarroren zahartzaroan, bere obra osoa idatzi ondoren, pilatzea.

Gorora dezagun lan hartan denborarekin bera baino, kulturalki hitz eginez, prestatuago zegoen lankide bat aurkitu zuela: aita Zabala, zorionez arestian —Villasanteren argitalpenari esker (1996)— bere osotasunean ezagutzeko aukera duguna. Gero eta argiagoa da, ene ustetan, aita Zabalaren eragina, arauemaile eta zorrotz baitzen, izan zela *EL*²-n somatzen diren berrikuntza ausartenen eta aldaera inausketa gotorraren bultzatzailea.

Bultzatzailea diot, ez egilea. Izan ere, Añibarro bera da 1821eko argitalpena sinatu ez eze, hitzaurre ezin argiago batekin berresten duena.

Añibarroren tarteko garaiek argi eta garbi adierazten dute inoren laguntzarik gabe ere iritsia zela idazkera aberastu eta findu beharra zeukala sinistera, eta txokokeriak, aho hizkuntzaren uzkurdurak eta duda-mudak lehendik zokoratzen saiatu zela, aldi berean hainbat alderditan idazkera aberasteaz gainera. Gramatika eta hiztegia ontzeak berak bide honetatik gogoz zebilela aditzera ematen du, eta grafi hobekuntzek (alferrrikako <v> eta <h> letrak kentzea) Larramendi eta beste maisu batzuen irizpideen arabera jokatzeko hasi zela. Hau guztiau bere kasa egin zuen, Mateo Zabala komentura iritsi baino lehen (1815) kokatu baitugu, gutxi gorabehera.

Litekeena da, hori da nire aburua bederen, Zabala gazteago eta irakurriagoak Astarloa eta Erroren grafi teoria berrietan trebatzea eta are sistema horiek erabiltzera bultzatzea, berak bere obran egin legez (Urgell 1987b). Agian eragina izan zuen, orobat, aditz laguntzailearen zenbait formaren hautapenean, eta hark irakatsi bide zizkion *GB*-n azaltzen ez diren *-ke-* artizkidun geroaldiak (Urgell 1986 eta, bertan, § 4.3.10.12), besteak beste.

Halere, aditzaren eremu honetan bertan Zabalaren eragina ez zen erabatekoa izatera iritsi: esate baterako, -IT- + -Z pleonasmotun plural zaharrak gorde zituen Añibarrok, besteak hobetsi zituen -Zdun erregularraoen aldean (*dauz* eta *ebazan* barne), eta soilik *EL*³⁰-n bihurtuko zen *naz*, Zabalak dakarren erara (1848: 10, 18, etab.), *nas* adizkia.³⁰

Ikuspegi honen frogagarri, markatzekoa iruditzen zait Zabalak *VRB*-n *EL* sari erabili arren, nahiz usadio zuzenen, nahiz okerren adibideak emateko erabilteza; cf., adibidez:

El presente imperfecto tiene su formación con los artículos activos *lei*, *nei...* y los mismos *leite*, *neinte* ó *nendi...* Le corresponde en castellano, el *podiera* y *podría* en significación de presente (...). También el de *puedo* ó *podré*, especialmente según se usan en los pueblos del interior que muchas veces le confunden con el tenso anterior [“futuro perfecto o presente moral”]. v.g. “¿Cer eguin *nei* zor andi onen alderaco? ¿Qué *podría*, *puedo* o *podré* yo hacer ahora en satisfacción de esta deuda?” (Escul. 146). (Zabala *VRB* 31).

Pentsatzekoa da honelakorik ezin gerta zitekeela Zabala bera izan balitz *EL*² edo *EL*³-ren zuzentzaile edo “diktatzailea”.

3. Geroko Gero-aren deskribapena

3.1. *Eskuizkribuaren berri*

Frai Fernando M^a Soloeta Dimak, munduan Saturnino Soloeta Iturriondo-beitia zenak eta geroago, besteren artean, *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* (Buenos Aires, 1912) lan harrigarriatik bereziko zenak,³¹ 1910 inguruan, Buenos Aireseko kaputxinoen *Euskal-Eche*-ko euskarako irakaslea zela, “La Literatura Euskara” izeneko idatzia bidali zion Julio Urkixori, *RIEV*-en atara zezan.

On Juliok, ohi bezain apain eta gizalegeko, alea kaleratzear zegoela eta, zati aukeratu batzuk bakarrik eskaintzen dituela azaltzen dio irakurlari, eta honi baino gehiago Soloetari berari, antza denez, orripeko ohar batean. Honela, “La Literatura Euskara” hura, zena zela, hiru orrialdetan gelditu zen, dirudienetz betirako: doi-doi Añibaroren idatzi ezezagun baten berri eman eta beraren erakusgarritxo bat eskaintzeko.

RIEV-aren zuzendariari ez zitzaion berriaren garrantzia itzuri, noski, izan ere, Axularren liburuaren Añibaroren itzulpena baitzen.³² Orduan Urquijok ezagutzen ez zuen liburu bat erabat ezezaguna zela esan daiteke, esan beharrik balego.

³⁰ *EL*¹-eko “hutseginen zuzenbidean”, berariaz aipatzen dira *nasana* eta *nasalaco* <s>z idatzi behar diren hitzen artean.

³¹ Eta Azkueren (1925) astindua irabaziko.

³² Halabeharrez, Soloetaren lana hain justu Axularren liburuaren faksimilearen lehendabiziko emaldiarekin batera azaldu zen *RIEV*-en.

Eskuizkribua ez zegoen Zarautzen: Urquijo bera ibilia genuen lau urte lehenago hango artxibategiko altxorrak miatzen (Urquijo 1907: 12) eta, bertako *Libro Becerro* begiratu izan balu ere, ez zuen honen arrastorik aurkituko Zabalak egin zuen bere lagunaren lanen zerrendan (*Becerro* 321), harrigarriki, bestela luzez aipatu eta are orain ezagutzen ez dugun zerbait aipatzen duen arren.³³ Harrigarriagoa da oraindik, bide batez, ezagutu ez eze, 1828an eskura zuela jakinik, soilik beranduxeago agertuko ziren Lécluseren hitzok ziurtatzen digutenez:

Le *Gueroco-guero* d'Axular que possède le R. P. [Zabala] en dialecte Bizcayen, est-il imprimé ou manuscrit? (1828ko apirilaren 14an, Mendizabal inprimatzaileari egindako gutuna, ap. Ruiz de Larrinaga 1924: 315).

Ordea, guk ez jakin nola, 1910ean Hondarribiko kaputxinoen komentuan agertu zen eskuizkribua; horren azala, Eklesiasteseko aipua eta “Iracurleari” deitu atala eskaintzen ditu Soloetak bere lanean eta, bide batez, Añibarroren itzulpena osorik argitaratzeko Hondarribiko ordenakideak animatzen saiatzen da, “sacrificando su modestia religiosa a los intereses del necesitado euskera”.

Hamahiru urte beranduago, Urquijok berak hartu zuen bere bizkarraren gainean argitaratzeko lana, zatika, ohi zuen bezala; baina, zorigaitzez, 1923. urtean hasi eta 1933.ean eten zen argitalpena, 56 buruetatik 42.eraino bakarrik helduta, aldizkaria bera bukatu baino lehentxeago. Eskuizkribua zenez gero, Urquijok ezin izan zuen erabili hain gogoko zuen faksimilea eta, tamalez sarrixe gertatu bezala, hutsak ez dira falta, ez soilik argitalpenekoak, baita irakurketazkoak ere. Egiantzekoa da, bestalde, bestetan bezala kopia ez izatea zuzenean Urquijorena, berak egin zitzakeen zuzenketak gorabehera, laguntzaileren batena baizik; agian —eurek dute hitza— izena ezagutzera emanez apaltasuna “sakrifikatu” nahi izan ez zuen kaputxiko batena.

3.2. *Tamaina eta itxura kontuak*

Itzulpenaren eskuizkribua Hondarribiko Kaputxinoen komentuan gordetzen da orain ere. Duela jadanik urte batzuk, aita frantziskotarrei esker, haren kopia bat eskuratu eta honen gainean lan egin dut.

Eskuizkribua, Añibarrok ohi zuen bezala, argitaratzekoa bailitzan maneatuta dago, azala eta guzti, nahiz eta, berehala ikusiko dugunez, egilearen ustetan zirriborroa baino ez izan. Halere, testua irakurterraza da, haren ohiko letra garbian idatzia, faksimileko erakusgarrietan (ik. XLIX t. hur. or.) antzeman daitekeen bezala.

Bi liburukitan —berak “koaderno” deritze, ziurrenik orriaren tamainari dago-kiola— banatuta dago, baina orrialde-zenbakuntza bakarra dauka, 388.eraino iristen dena, gehi aurkibidearen 3 orrialde zenbatugabeak; orotara, beraz, 391 orrialde.

³³ Zehazkiago, “traducciones al bascuence de los Ejercicios de S. Ignacio”, ez Villasantek (1979: 222), ez harrezkero saiatu direnek (Ciarrusta 1991: 28; Altzibar 1992: 81) aurkitu ahal izan dutena.

Zenbakuntzan badira, dena den, interesa izan lezaketen gorabehera batzuk: (1) Hasieratik eta 39. orrialderaino ondo doa, baina hurrengo orrialdea, txuria, 44 zenbakiarekin hasten da. (2) Bada beste orrialde txuri bat, 116.aren ondokoa, 119 zenbakiarekin markatua; hurrengoan 120 zenbakia 117arekin zuzendu eta hurrengo bigarrena 118.ean hasten da, jarraipena berreskuraturik. (3) 201.ean amaitzen da lehen koadernoak. “Pasa al 2.º quaderno o cartap[aci]o, fol. 202” diosku Añibarrok berak, eta halaxe da: bigarrena 202.ean hasten da eta buruan “Véanse los capítulos anteriores en el 1.º quaderno” egilearen oharra darama. (4) 316. eta 380. orrialde bi daude, eta ez dago 344.ik.

Testua jarraian zenbatu ez zelako seinale nabarmen izateaz gainera, zenbakuntza gorabeheratsu honek atalka ondu zela adieraz dezake, hiru ataletan gutxienez lehen datuon arabera: 1-39, 45-116 eta 117-388. Areago, atalok idaztaro ezberdinetan —batzuk besteak baino landuago— daudela sinisteko bidea ematen digu, orain aurkeztuko ditudan beste zenbait aztarnarekin batera.

Eskuizkribuaren hasieran halatsu interpretatu den pasarte luze bat dago, euskaraz hauxe dioena:

Citac edo deierac zucen edo oquer ete dagozan icusteco astiric euqui eztot, eta doaz lengo era-
ra, baña ifini, icentatu ta aietu бага ce lecutan edo librutan dacardén Dotoréac aec gauzac, sen-
tenciac ta esanac: bada ascori asco eragozten deutsee iracurteco jarraian, baldin idoroten badi-
tuez malla artean (*GGero* 0-40/44).

Eta erdaraz:

Con esta advertencia se podrán omitir las citas de este libro, q[uan]do se ponga en limpio, como lo he hecho yo desde la pagina 220: pues a un pobre bascongado iliterato le impiden mucho, para ler [sic] de seguido, q[uan]do halla interrumpidas las lineas con otras citas. El curioso las puede ver en la primera impresion que hizo el Autor (*loc. cit.*, orripeko oharrean).

Soloetak (1910: 592) honela ulertu zuen: “Por lo que dice el hijo de Villaro, en el prólogo, se desprende no ser uno sólo el autógrafo”, hau da, 220. orrialdetik aurrera Añibarrok berregina edo txukun ipinita dagoela eskuizkribua. Ni neu ere (Urgell 1988a: 164), axaleko hurbilketa batean, ustezko jauzia koaderno aldatetarekin berdintzeko tentazioan erori nintzen, 220 zenbakia 202ren ordean Añibarroren *lapsus* bat izan zelakoan, idazkeran somatzen nituen aldatetarako muga argia eta azalbide erraza bilatu nahiak bulkatuta (ik. orain § 4).

Batera zein bestera izan, litekeena da, noski, arratiarrak idazlanak behin eta berriz berregiten zituela ondo dakigunez gero. Soloetaren iradokizunari bagagozkio, arraro xamarra dirudi, halere, erditsutik aurrera bakarrik txukuntzeak; are arrarago, ia ezinezkoa, bigarren koadernoaren lehen orrialdeak (202-219) zirriborroan eta hurrengoak txukun egoteak.

Egia esan, eskuizkribuan ez dago uste horren aldeko ezer: 219 eta 220. orrialdeen artean —ez eta 201 eta 202.aren artean, bidenabar— ez da somatzen inolako aldatetarik, ez letran, ez txukuntasunean. Argi dago, beraz, pasarte bestela ulertu

behar dela: “220. orrialdetik aurrera neronek egin bezala” aipuen erreferentziak alde batera uzteari dagokio, eta ez garbira pasatzeari. Azken erreferentzia (Rom 12) 219. orrialdean azaltzen da, hain zuzen. Handik aurrera aipuak zuzenean ematen dira, zeinek dioen bai, baina non dioen zehaztu gabe.

Dena dela, pasarte honek *GGero*-aren idazketan aldaketak daudela frogatzeko euskarri modura zeukan balioa galdu badu ere, honek ez du esan nahi egon ez daudenik. Aitzitik, gorago iradoki dudanez, eskuizkribua jarraian ez idatzia salatzen duten xehetasun anitz antzematen dira, batzuk itxurarekin lotuak, besteak testuaren egoerarekin, hizkuntzan oraingo sartu gabe.

Itxurari dagokionez, bada beste aldaketatxo bat erreferentzietan: 39. orrialderaino, hau da, orrialde zenbakuntzan oinarrituta gorago mugatu dudan lehen atal osoan, oin-oharretan agertzen dira, handik aurrera testuan barneratuta dauden bitartean. Gainera, lehen zati honetan, zehazkiago 1. buruaren 2. orrialdetik 3. buruaren 1. atalaren bukaeraraino, orrialde guztiek zeinek bere goiburukoa daramate, ezkerrekoan *Gueroco* eta eskuinekoan *Gueró* dioena.

Bestalde, 222. orrialdean orripeko oinak agertzen hasten dira, hots, hurrengo orrialdeko lehen hitzaren lehen silaba orrialdearen oinean ematea, argitaratuetan ohi zen bezala.

Testuaren egoerari dagokionez, lehenik esan behar da eskuizkribu osoak Añibarroren eskuko zuzenketa eta eransketak dituela, milaka eta tankera ezberdinekoak. Batzuk lerro barruan daude, idatzi ahala damutu, jarritakoa marra batez ezabatu eta ondoren zuzenduta; eta beste batzuk, gehienak, lerro gainean, agian haietako asko beranduago, berrirakurtzerakoan egindakoak. Garbi zuzentzen du gehienetan, ezabatu nahi duena marra bakar batez ezabatuaz, eta erantsi nahi duena non erantsi behar den marka gardena jarriaz (ik. argazkiak, XLVI-XLVII. or.).

Zuzenketetako batzuk etengabe errepikatzen dira une jakin bateraino, iritziz noiz aldatu zen zehazteko moduan. Nabarmenena bakarrik aipatuko dut, aurkezpen aldaketekin lotua dagoen heinean: 7. bururaino (77. or.) “Capitulu X.” deritze liburuko atalei, baina denetan *Capitulu* hitza marratuta eta *X. Burua* tankeran zuzenduta dago beti; 8. burutik aurrera, berriz, ez dago zuzenketaren beharrik, denak *buru* baitira hasieratik.

Edonola ere, eskuizkribu osoan zuzenketak izan arren, ez dira berdin banatzen, ez kopuruan, ez kalitatean, testu guztian zehar. Mugarri batzuk jartzekotan, hasierako txikiak gainera, 162 eta 220. orrialde inguruak jarriko nituzke, letrakera eta lerroarteekin lotuaz.

Izan ere, letrakera aldaketa nabarmenak daude, batzuetan zenbakuntzako jauziekin bat, bestetan hain gabe. Xehekiegi jokatu gabe, honako hauek nabarmen daitezke: (1) Lehenengo ataltxoan (1-39), aurrerantzean “A atala” izenarekin aipatuko dudan hartan, lerroarte zabalak, letra handi borobila eta zuzenketak ugari

~~tao~~ ~~ecia~~ ~~lucetutea~~ ~~da~~ ~~Et~~ ~~in~~ ~~ba~~ ~~re~~ ~~an~~ ~~gor~~ ~~go~~ ~~tute~~ ~~an~~ ~~ta~~ ~~and~~
 dutoren irakia galduten dau biotz gogorac, limona equiteco,
 gogo ta serendateric ez dabenac. Eta equiteco gogoa daucañac
 bere, baldin bere bere eruz, ~~ni~~ ~~dian~~ ~~arkan~~, equiten ezpadau,
 gauza jaquina da, irabaci areñ parte andi bat, edo zatiñic
 guciena galduten dabela, omen ondaco urrengo Buruan agu-
 etu, azaldau, eracuti, ta adierazoco dan lepuoz.

Burua

Lelan limonac, ta berte equite on~~ac~~ borondaterzacoac bere, ceuc
 ceure escuz, edo bertarenaz, ceu bici
 zareala, ondorengoai ichi bago
 equin ber dozuzan.

1. 2.

Gauza ciur, seguiri, ~~ta~~ jaquina, ~~ta~~ ta bapere dudaxic extruacina
 da ^{obe} on ta probecturigo, ta mexitu guciapocoa izango ~~da~~ dozula,
 orain ceuc, bici zareala, ta orainua dozula, ceure escuz pobreañ
 emeten deutzazunaz, guexo ~~ill~~ ~~ez~~ ~~guero~~ ^{il} iteracoan edo ~~exio~~ ~~tao~~
 orduan agurnduar baño. Baña zue oraingo, ta guerozo eugu
 areñ ondaron andiac, orain bapere ez, ta guexo ^{equiteco gogoa, dizu} ~~ill~~ ~~tao~~ ~~zazun~~
 in, ~~oraingo~~ ~~dozuz~~ ^{prectururun} ~~andiac~~. ^{Alberato} zapoz, onde-
 un, ^{duna} ~~andiac~~ ^{zara} ~~dozuz~~, areñen jabe zara, eta bucazu bai noron-
 etea, ondaron orrectaxic pobreañ ichi ta zatiñitaco
 Baña nor? Guero, ^{il} itera zazazean; ~~for~~ ~~ant~~ ~~put~~ ~~ta~~

I. argazkia: Añibarroren zuzenketa eta eransketa argiak (esk. 171-172. or.).

GUEROCO GUERO

emen ~~laga~~ ~~brat~~ ~~dozun~~ nai ta nai^z, laga ~~brat~~ dozun^{can}. Bitar-
 zan diñozu: neure ondairunac neuc gura dotuz goratu, ^{zaindi} mamatu,
 ta gende: eztoñ maindiño baguetu gura; eztoñ euroc laga guelditu
 ez bilbotu gura. Baña guero eriotzara demperan, azqueneo onle-
 namentuan, ta tertamentuan, aguinduco deustrac. neure ondacoari
 nire ondairunén jabe izango darazi, equin dapiuzatu nire dexapuz
 guztia. Eta orrez gueriago aguinduco deustrat, onmembete seintla-
 tu ta icentaturic, pobreak emon dapiuzentzat. Eta baldin purpu-
 toriora banoa bere (bañá quich abaz leura an sartu laga) bertu-
 tic bertati ^{ta laster} ~~amero~~ urteteco, onmembete Aiteza ^{aterazo} dapiuzala, ta bert
 obra on arca ere icenean nire ondairunetatic equin dapiuzat-
 lá aguinduco deustrat.

Onelan diñozu equingo dozula, bertearen bitartez ta
 eruz, ta ondacoaren contura, ta ceuc cerorrec bapere ez
 Baña ez liteque obe equite en guzti orrez, bizi zarean ar-
 tean ceure eruz equitea, ta orreen bidez ta bitartez fur-
 gatorioso lexi gorietara joan laga egotea, ere ez guero ara-
 zoazanean erremediac, ondea, ta quituadria equitea. ^{pero za-}
 reaneco erremediac billataten dozuz, ta ~~ze~~ ^{prezo} xertututetic
 gordetan ezara.

Orrez gueriago, limon^{ca} ~~ta~~ obiac onac, ta onairu-
 nac ^{contura} guero ~~co~~ ^{en} ichidic, adieruoten dozu, atzetie ta urvine-
 tic gura dozula, argui equin daizuen. Cer erango cendague,
 gau amats ilun baten, pausu etu, gach, ^{amiray} pellipuzco baten igare

ditugu; erakusgarri modura lehen eta azken orrialdeen faksimilea ikus daiteke aurreraxeago (XLIX-LI. or.). (2) B atal bat proposatuko nuke (45-162): honek aurrerakoak baino zirrorro itxura handiagoa dauka, zuzenketa kopurua berdintsua bada ere; 58.etik aurrera lerroak bilduagoak daude eta letra txikituaz doa; gorago nabarmendu ditudan 116.eko zenbakuntza gorabeherak, berriz, ez dirudi aurkezpenean eraginik dutenik (ik. LII-LV. or. etako faks.). (3) C atala (162-219) halako batean hasten da, lerrokada baten barruan: letra handiago bilakatzen da, baita lerroarteak ere zabalago; testua txukunago dago, zuzenketa kopurua jaitsi da eta ez dut inolako aldaketarik somatzen —lehen esan bezala— koaderno aldaketarekin batera (ik. LV-LVII. or.). (4) D atalean (220-388), letra txikiagoa da, lerroak elkarrengandik oso gertu daude eta zuzenketa are gutxiago dira. Gogora dezagun atal honen hasiera erreferentziak ezabatzearekin bat datorrela, eta orripeko oinak agertzen hastearekin bateratsu (ik. LVII. or.).

Lau atal hauen deskribapenetik gera gaitzen oraingoz C eta D-ri dagokienerekin: 162. orrialdetik aitzina testuak oro har itxura hobea dauka eta zuzenketa urriago dira. Erants dezadan orain garrantzi gutxiagokoak ere izaten direla, eta zalantzak edo hutsuneak zeharo desagertzen direla. Badirudi, beraz, atal hauetan begi aurrean daukagun testua aurreko zirrorro baten kopia txukunagoa dela, zuzenketa berriak ere badituena, halere.

Alabaina, bikotearen barruan D atalak nortasun berezia dauka: jadanik aipatutako ezaugarriez gainera, inoizko argienik soma daiteke bertan Añibarro kopiaketan dabilena, zeren eta erabat bakandu diren ohiko zuzenketen ordez, kopia huts nabarmenak —letra janak, lekuz aldatuak eta duplografiak— eta halakoen ondorio baino ezin izan daitezkeen zuzenketa —ahaztutako hitz edo hitz zatiak gainean erantsita daude— ugari xamar ageri dira.

Kopia hutsak *bat bada*-ren ordez jartzea (56-120), *gauza batera*-ren ondoan *zabatera* errepikatzea (34-50; garaiz ezabatu du) bezain argiak dira, hots, barne-diktaketak bakarrik azal ditzakeen modukoak. Gainera, huts hauetarik asko eta asko lerro aldaketan gertatzen dira, hala nola *berac [bera]ganic* (41-148), zeina baita kopia-lanak berezko duen ezaugarri baten ondorio arrunta: maiz gogo bildu ezinik ibiltzea, alegia.

Kopia hutsen zuzenketei dagokienez, begiratu arin batean honako hauek harrrapatu ditut, esate baterako (parentesi artekoa Añibarrok lerro gainean erantsita da):

neure (buruaz) fidatu (222. or. = 22-115), *pusca (bat) otzitutera* (226. or. = 23-82), *atera (ez) dabenean* (238 = 28-48), *ta (ez) beste adisquide* (239. or. = 28-87), *icasleac (gareala)* (248. or. = 30-84), *erreguea (zan) len* (253. or. = 32-26), *ta (ez) bestetaco* (256. or. = 32-96), *etorri(co) eta beguiru(ne)* (260. or. = 34-55 eta 34-62), *deabru(aren)* lerro bukaeran (263. or. = 35-90/91).

Aldaketa hauek bestelako xehetasun zenbaitekin lot daitezke oraino. Goraxeago, bide batez bezala, C eta D ataletan zalantzak edo hutsuneak zeharo desagert-

GUEROCO GUERO



Vici bedi Jesus

GUEROCO GUERÓ,



EDO

Guerooco Iuzamendütan ibiltede, eta
Arimaren equitecôac guerooco ichitac
cembat cälte ^{dacatizan.} equiten dituan.

Escritura Santatic, Elessaco Doctore-etic, eta li
bru devociônzcoctatic D. Pedro Axular Saraco
Erretôreac bildua, eta arguitara emona.

Aldatu dau Bizcayco euzquerara,
garbituxic lenapo cituan utz, eta erracuntzeetic,
A. N. Pedro ^{Antonio} Anibaxoc Larauzo Colegio Hita N^o
Franciscoren Dideaco Misionariac, aldatu dau ut supra.

Beaz dizan licencia can.



2. argazkia: Liburuaren azala.

Gueroa

dereoa on batzuek baño ezpadira bere, izan dituzten. Eta
 inor ain gairto galduric, nesic berin bere gairtequexiac ich
 teoa popoa etertan ez jaquenic, ta dereoa ta guraxia ba
 narac izaten ezta^{itu} amc. Baña dereoa onere eura bu
 canac eztiñ arco, bada onere ta lorac, lepuer dirac.
 Eta provechuric eztañ lepuer artzen eztaben lotiaz,
 oratu ta guelditzen eztañaz, bere botoi pipil ta nini
 an galduten danaz, onela ecin dateguc onie probe
 churic ez fruituric, noxondate beragaz, gundiaz utroz,
 ta dereoa ta popo bacariaz, egun al liteguela, egun
 bapa guelditzen danaz.

Alperxari erag bear jaco, dapuela, eta na
 guari ubiatu mugutu ta preta dedilla eta
 bata oner bertea, bata lepuer bertea, triac alcar dirac.
 Bata oner bertea, noxondate, utroac ez dabe, ezpada gura-
 zate utrac, dereoa, popo, ta suticia puzerac gaurerac pre
 tuerac ecer valio eztabenas. Eta nai-gura oner eu
 tac dirac penapaxuric arco, diño Escritura Santeac (a)
 ta dereoa utrac ilten dabe napua. Ejañ or da: napu
 entrat ta alperxentiat egun guztiaz dirala jar-ficitac
 Baña obeto erag lei, alacoentrat, jarac bere artogunac.
 Baxiala: cexxon bearquillac euren bearrean baño, arco
 tan alperxac bere alperquexian bear-neque guziago

(a) Prov. 2.

3. argazkia: A atalaren azken orrialdeak (esk. 38-39. or.).

GUEROCO GUERO

Guero.

ta gopacaxxiago idoxeten dau. Au aguixi da David
Erregea gan. Errege omi ez eutzen eguño guerra, ta
guexetaco nequeac, aibat eguñeco ta atrecaba emen,
non alperqueziac, ta alperxiic repocala eguñ cituan be-
catusac. «Eztaoz alperxiic atrequineta: labiltzenac diño
Senecac (a): cerven gurtu ta atrequineta unetan badira bai
naibaque, atrecabe, gaxxazmin, neque ta cerequinâac. Al-
per egotraz, jausten dira eguñeco andietan, ta damu-
gaxxietan. «Celan jat ez jateac galtzen dituzan agui-
ñac, alan beax eztanetic, irabai eztanetic jateac bere,
«emoten deutze garrazpera,» diño San Chriostomo (b)

P. L. Para degojar

) Seneca de tribit. vit. (6) S. Chriost. hom. 36. tom. 3.

Lutai deide salbat. 50

2. 3. 8

Garza ^{siurra} sepurua jaquinia ~~ta~~ eguiaz ^{ta} fides iracaten dabela da, salbatu
 ita, ~~Garza~~ ^{co olorian} jaunitako, eziziala arco dero, ^{naunde soil} ta nai-gura utz bazarac..
 Espata beas diracala, Jangerioaren Legue ta ~~ta~~ ^{naunde soil} jaundu santuac, ~~dero~~ az
 ipuz obiaz bere cumpli, bete, ta gordé. Tu da eguia, ta eguia au
 Christianan fededunac garcan partioe sinisten dopu. Bana orree
 gurtiaz. ~~idoxoten~~ ditu gure malicia ta vorondate partioe igue-
 bidé batue, itzulpidé ^{inguru achaguia,} ta eracia batue, obratuta ichi ta ~~larparis,~~
 dero bazaretan demporea iparotae, ^{icharomenetan} lucmenduetan ta ichadotetan
 ibiltaco. „Lan bearia eguin gura ez ebanac otzaren achaguia emon
 eban,“ ~~dira~~, Jaquintuac Prov. 20.: barautitaco napu zana, buruan
 min obela eran eban. Napuac ~~ta~~ bere locutis miñitu gura eta
 benac eraporquetan undiac idoxoten ditu, videan bere Leois dago-
~~ta~~ ^{dira} eraten deu. Prov. 19. Adisquidera bat largu gura dabanac,
 adisquidera aña auri ta urratu gura dabanac ^{erata} ocariñoc kollatu
~~tan~~ dituz ^{achaguia itzulpidere} ta armi arco idoxoten dituz. Alan idoxoten dñuz
 bada jouc bere ocariñoc, ~~erac~~ ~~eracrac~~ ~~emune~~, achaguac, iguesbidrac
 becatuetan ^{erotea,} deroetan ta purexitan demporea iparotaco.
^{42. ontasunera}
~~noc~~ ~~erata~~ estutu ta proximaliten zaituencan, eta
 atzera rapozancan, erantzuten deuteru, alan estutitzen zaituencan.

4. argazkia: B atalaren lehenengo orrialdea (esk. 45. or.).

tzen direla baieztatu dut. Izan ere, eskuizkribuak, zirriborro legez, ez du oraindik Axularren originalarekiko lotura zeharo galdu: 45. orrialdetik aurrera, hots, B atalaren hasieratik aurrera —bertan “Axular desde la pág. 50” irakurtzen da orri buruan— originaleko orrialdeak etengabe agertzen dira, ertzean, kapituluaren hasieran, 27. bururaino (233. or.) baita azpikapituluenetan ere, salbuespen gutxi batzuekin. Baliteke, beraz, itzulpena berriz Axularrekin erkatzea, edo bederen hartarako asmoa izatea; izan ere, maiz aldaketak Axularren bertsiora itzultzen dute testua, han begiratuta egin bailituan (cf., askoren artean, *ezpaliz*: leh. *ezpalego*, < *ezpaliz* (13-196); *filosofo andiari*: leh. *filosofoari*, < *philosopho handi hari* (43-55). Nolanahi ere, bistan da itzultzen non zebilen jakiteko edota edozein zalantza iturria originalean kokatzeko biderik errazena zela.

Badira, halaber, itzulpen zalantza adierazten duten pasarte batzuk, gehienetan behetik besarkatzen dituen marra batez markatuak (ik. LVIII-LIX. or.ko faksimilea). Axularren hitz edo esapide zenbaitekin arazoak izan zituela erakusten digute, harena, latinezkoa edota bere aukera batzuk agertzen baitira, bata bestearen aldamenean edo gainean. Honelakoak ere Axularren liburuko orrialdearekin markatuta daude ertzean: *adibidez*, *lehia* (47. or., ik. 3-132. oh.), *succarra* (53. or., ik. 4-109. oh.), *mimberatuten* (73. or., ik. 7-70. oh.) edo *mimberadura* (83. or., ik. 8-138/139. oh.). Aurkitu dudak ertzean azken erreferentzia 136. orrialdean dago, “Faltan aquí muchas cosas...” Añibarroren iruzkina agertzen den unean, hain zuzen (13-230).

Bestalde, aurreratu behar dut itzulpena ez dela beti fidela (§§ 3.3 eta 5.4) eta, orain axola zaigun arloan, 8. burutik aurrera askexego itzultzen hasten dela, Axularren testuari eransketa luzeagoak eginez, hitz ordena aldatuaz, etab., gainerakoan oraindik ere hitzez hitz jardun arren. Bi testuen arteko aldea handituaz doa, Añibarroren ohiko idazkerak Axularrenari gaina hartzen dion heinean, gero eta zailagoa —inoiz ezinezkoa— eginik bien arteko alderaketa. 11-12. buruen inguruan kokatuko nuke joera honen gorakadaren hasiera (§ 6.2).

Nola uler daitezke xehetasun guztiok batera? Dakigunez, eskuizkribu bakarra dugu, garai beretsuan datatu ditugun beste lan garrantzitsu zenbaitetarako (*NekeA*, *ME*) ez bezala (§ 2.3.4). Orobat, ez dago dataren aztarrenik inon ere, *ME*-n izan ezik gainerako argitaragabe guztietan bezalaxe.

Dirudenez, denbora luzeko lana izan zen, ez hasi eta buka egiten diren horietakoa. Ezinezkoa iruditzen zait, dena dela, gorde den eskuizkribu bakar hau lehen bertsioa izatea, itzulpena burutua baitago, gorabehera eta zuzenkizun askotxorekin bada ere. Demagun, hortaz, aurrenik beste zirriborro bat behintzat egon zela, osagabea eta akastuna, *EL*-aren lehen zirriborroen tankera beretsukoa. Eta hura gutxi gorabehera 1804rako bukatu zegoela, gramatikaren hitzaurrean aipatzeko lain.

Baina gure eskuizkribu hau ez da, nik uste, ezta bigarren zirriborro osoa, elkarrekin josirikako atal ezberdinen bilduma baizik. Atal berrienen ezaugarriak, alde beren, jadanik ezagutzen ditugu. Honaino bildutako datuen laguntzaz lehendabiziko ataltxoaren oso ondo ezaugarritza daiteke, baita hemendik abiatuta azalpen orokorraren bila hasi ere.

mercedac equiteo. Ceure exuquitoraraz ta misericordiaz, gaituten
 zara, abiatu, ta prestatu, Jarpoioa game misericordia eta irabarteco,
 ta atrezo: ta Ipoia bere ^{andic} arte da zuxi on equitea, ta bere gracia
 emotea. Onetaraco, equia au. ~~baiztate~~ baiztutea, exemplo ta guer-
 taldi adparaxi aro ta miragaxiac idon. ditekuer; baña nic oraingo-
 an, ezto bat baxen ecarrico. San Bonifacio Martia, dempora baton ibili-
 zan andracume eder aberati butegar galdia, ta araguzico becatu loi-
 ciguimian riquinduxic, ta itutuxic. Eta bacituan Bonifacio onec
 berte erandu gairto aro bere: edatea zan; jocolaxia zan; biragquilla zan;
 alongoac oi dian lepuer. Gauza bat eucan oia: biote beca, exuquiu-
 xia, onquilla, pretua, ta limonagquilla zan. Alde bateti: becatu aro ep-
 uiten bacituen, bateti: probe. erqueca: eua zabalduten equian. Eta
 onela beca bere Jarpoioac merceda ontatu, ta favorecitu eban, biotean
 ucutu eban, argui santu batuc, pogoeta, on batuc emon eutzean.
 Eta guexo oneraz batean biutu eban: berapana, ~~surroca~~ andic
 auriera equite onetara emontran, ta arguentean Maxir iltran;
 Jauri epuru, cer equite, edo eraguten daben limoneac, exuquiu-
 ta ta misericordietua izateac. Hin jaco eder Ipi erruquitaru-
 na, ta beartuxic ta preminatuxic, dagoaraxi on equitea non be-
 ri bere andic erruquituten jaco a on-equillea: eta orain edo
 guexo eracuten deuto, ta emoten vidi onen jarteco vidi; San
 Bonifacioi emon euttan lepuer.

batz bonuc

Hbia gaitzean bada exuquioxac, onquillac, ta limonia-
 quillac izatera; bada aro ta astiac dira, andic ta ataric ~~ortu~~
 ta jauten dirian probechuc, ondunac, raxionac, irabaciac, ta abera-
 runac.

Eta berte aroen astian ixi dira limonaren provechuc an-
 dienac. Lenegoa, becatu baga dagoala, Jarpoioa gaitic equiten
 dan limoneac merexiten dan Cexuco glaxia, ta queituten dan Ipien
 gracia: Bigarren provechuc da, limonrac quitate, ordetu, ta papa-
 tzen ditu, becatu paxutres, pena demporazcoac, gurtiac edo zati-
 bat, emen edo ~~Puputurico~~ pagatu ber arvanac. Eta Exritu san-
 tuc eraten deca Daniel ^{notic}, becatuc limonia paz quitate equi-

5. argazkia: 162. orrialdean (eskuinekoan) B atala bukatu eta C atala hasten da, 15. lerroan edo.

edo emedimtu epuruz „

Yiparrena da: limoneac ondarun arco, alcanetan dituz
 Jaqoioa ganic. ^{Limoneac dira exuquioxar, cexen arquiteuo daben}
 „miseriordia, edo exuquia: Math. 5. Eta alan, zuz limoneac dei tu
 gueiapotuten dau zuretat ceuco saxia, ta anditu gracia ta mercedimen-
 dua: guichtuten dau Papatencia nequ-pena; ta erdetri Jqioa ganic
 erque merede ondarun arco. Jaquin bear dopu ce, limonacuillari, biote
 bipun, ta exuquitua danari, equigo jacoa misericordia. Eta cerbait
 emoten badeutepu otain ^{omen} erque ipen erquean dabilenaxi, edo berte edo
 cein obra on equiten badopu, oxi guexo idaroco dopula berte mundu-
 an, ta ez bertexic.

2. 2. V.

Jaquin daiguin, ezteutafula erqueoaxi ^{apinacaxi, onotexic} averrexic, verba popo-
 xic, et evanzutexic, earquic epuin bear, ez eta gauza charric eran
 bear. Baldin ee-emotese gairan bagara, edo dexocinaxic badopu, emon
 daquioqun, ta ganeracian ichi daigun. Bada, proba, ondoen dana
 bere, on bear da, preminaduna ta exuquioxaria. Billoric dapo,
 onutrea ta ortofic dabil, ^{sonce zar raxi eten adobatuaz dabil} eztaun alanturea alcondaraxic eta ez
 ezateco oexic; eztaqui jatalli ~~on~~ ta bazcaxi on baten baxi-
 xic. Hico dau bere iucexia, exaxia, beataxina, ta mitecia.
 Beraz, ez-jaco alangoaxi arexxexic, evanzutexic, onotexic, ez exi-
 extaric epuin bear. Bada alan epuiteaz, batrun ezpada ber-
 tean, peliquan jaxxi cintequez uti epuiteta, eta proba;
 bere probetarunex ^{bere popan, ta biotzean} ganera, zauritua, mindua, gogaituxic, tu
 tristetua biraltreco. Ertot uite, itanduco deuta ^{scu} Jaqoioa,
 probe onaxi, ala paistoaxi emon dautrepunex, ezpada
 ea emon badeutepu. Daigun onqui, ta ez bequiratu
noti: equizu on, ta ez bequiratu non.

Aberatrac lequez, probaer bere Jaqoioac epuinac dira.

San Pablo Apóstolua dioan Rom.12: emon daigula icha-
dote, epe, arti, lecu, ta amore irari, ta aierreari. Adierazo
gura dau, gorde gaitecola persona aierreor etatic, aierretu-
teco vide ta ocaimotati, auitan sartutecic, exuerta, quimera,
ta aieraldietatic. Bada bein sarturic, ta estropezu equinic,
calpean lau ~~sin~~ oinca doian zaldia ^{lequez} coleran sartura
^{ezquezo} ta berotuz ~~berotuz~~, gach da gueldituta, gach da aurrera-
go igaro bago, gorrotoran sartu bago gueldituta. Beraz
omelan diraguan lapicoari, bere iraguan gueldituteo,
emoten jacan erremedia, emiozu zuc bere ceure buru-
ari, ceure veiquetaco guryaria, ta aierreco iraguina ortu
ta amatetaco. Jutic ~~aparta~~ atzeratu zaité, ocaimotac apar-
ta ta iguer epuz.

2. 2.

Bigarren erremedia lapicoari bere iraguan gueldi-
exatoteo, da, egurra quendutea, sua quichitutea. Alan
ta bada colera ta aierredureairen iraguina ortuteo,
ta amatetaco erremedia, verba deungac ez atavata, go-
or ta artun etacuten jatunari eme ta bigun erdaci-
ta ~~ixilic~~ ichitea, enzun gor, equitca, ez janamotea. Sua
urra guetateaz, quetu, aci, ta andituten dan lequez, alan eta
enduteaz quichitu ta chiquetunon ~~berria~~, alan gorrota, ta
mea bere berba arico ~~diandure~~ gaité, ta goporra ~~di~~ irawic

6. argazkia: 220. orrialdean (eskuinekoan) C atala amaitu eta D atala hasten da, 6. lerroan edo.

GUEROCO GUERO

queiru, ta birtuten da: ta ez erantzutez, chiquitu ta amarauten da. Zuri
leue arexiac gauza ^{aso} dirautu; lapur bat zaxexala, engaitate bat
bat zaxexala. Ta guero arqueuan, San Basilio diñon leque; sajera
botatzen dagoana leque, buruan dituan dirauen artean, penia alac,
eio daquiranac eran ateratu, eta inilduten.

Onduan ac dauguero berba eguiten dau; ta zuri bere de-
richazu danguero berba eguiten dabela. Ta alambere zue ari berte.
onemerte eio guirapo ta dorgapo dirautuazu. Leuc dorgapo eran-
zunaz, gura dozu erimediatu. Paña engaitate zara. Bada ori
da ariaz aria jota: bizen su ta perra birtutea: Naya zaria gura-
go zabaltzea: ta arexiotarunean ta azernean barnurao sartzea. Zuri
beguia ateretan destrunari, leuc bere areta aterteaz, eta andic zurea or-
tu ez onotuten, ez bere kura biurten. Colpe bat onisten destrunari, bete
bat zui berari emonaz, ezteutazi onela leue buruari quenduten betac
emona:

Lapur bat zaxexala dirautuaz, serantutez, ori bat dala, ez-
taacut irabarte andic eguiten dala. Baldin beti guelidari gura baazu
arqueuio berba leuc eranaz; ta ez bembere lagatari, ez amore emon,
ta cueraz utten, ondun eta eracabatuo quereza ta azerne. Lengro bai
ondiaf are edateaz, epartuazo dagoan leque, ceppen ariaz beratu ta on-
tan dabon: aian arexiac bere, alac erantzutez, guirapo pexiotuten dala.

Nai badozu inildu dala arexiac, ta zaxexala: gura badozu
guelidari dala, guelidi zaxex, onega zaito. Nai bozu atonen ta aniatu
idien sua, eguriaz quendi eguriaz. Bada au ta bixaxen erimediaco
diraquiari lapicua guelidi arexiata, azeria inildutaco, eguriaz quendu-
tea, bidic ez emotez, inilde larpatez, anzu-gu, ez-inic eguriaz.

2. §.

Insuperon erimediaco, diraquian lapicua gante eguriaz doacean pueratate

^{antecumec}
^{aschumec}
 76. ^{aracumec} lequer dixiala gaitoa, inquerico apueca, exquencio
 aldon fimo dituela Targoraco: Math. 23. Anzumea, gaitoa dan ar-
 tean, on da jateco, sanur ^{da} bigun dago (uxter), bera galduten dau
 adina: for guao ta guao da galdia, gopontue zaldia. Adina
 utra: aumea gaiten dabe aguer.

Betataria, lencopon, berau quichi daugioran, di-
 zudi orandio cerbat valio dabela, sanur degoan huetic, bigun dago
 an zatitit ^{atal parte} [endricura] omic ta gozoric badabala. Eta alen orduan
 sermeriac, ^{cor} adivide ^{sumec} mozar, gairataruna, bere lapueca ilten ja-
 cozala icuritan, ^{minauten} [gortexiez], eta onlaco berte era aridana, icaratu-
 ren da, ^{minauten} [mimbaxten da], sentiar eguiten da, ta kotaturic bere bu-
 zar, ^{zatu ezguero} etorguicunae gopontuten aron da. Bera berauz bera ee-
 quen, ^{zatu ezguero} egandi oturacoa aru ez guao, uratu ta atara epuin ezgu-
 zo [zaharaa paco], gairitoten da, deupapotenten da, chaxuten da
^{ardura bapuec gaiten da}
 eta [antixaten da], eta alden argueru gaitoa car bardiendu,
 ta paxetu eguten da, on antra artuten dau.

Eten Anguxuac bere adimontia exditi, al eban gaitia,
 ez que lequer apueca quichica zatia, ta paxatur, ezfeda exditi
 eta alcanzatu eban beigoan bat berau alpe batera ta orra exditi,
 eta alcanzatu eban, lencopon aru eban vidaxi daxero beti, ta ja-
 xatuec suro betio irante gaitian. Bera maustu argueru aldi ba-
 tra, ean zucendi litque bera, ez atzante bixtu. Eta alen jarabon
 jagu guri bere ilten gaurican. Bada San Juan Damasceni dina-
 nei lb. 2. cath. fi. 2. "Anguxuifin berauc epuin eban, epuiten dau
 guran bere exditec," Once berau epuin argueru, or argueru exime-
 dicit, ez eta que bere berau mortal odo exditec ilteguzo. Ba-
 da Anguxu gaitia odo alabuen ^{gaur} gaitalita uruten, gu bere, bera

7. argakia: Azpimarratutako hitzak Axularren testukoak dira. Ertzean bertako kokapena irakur dai-
 teke, nehez bada ere, eta hitzaren gainean, Añibarroren itzulpena (esk. 78-79. or.).

^{eraburra}
 Ta ^{eraburra} ~~eraburra~~ epurme, beatusetan gopartzera, itututera, ta ez ez ^{minio laxitatu} ~~an-
 taria~~, patoraxen. Anpurau gaitoa beigoan galdu, ta gopartzera, ^{ta} ~~eraburra~~
 betio, alan-bada gu bez, ez beigoan, baina bai aratan ta beatus-
 ta eguner era euztan unatiaz ta eandutiaz, galdu ta gopartzera ^{ta}
 ta.

Era alaco beatus gopartzera guenboca desituten da Espiritu San-
 tuom contra beatus dala. Cenon artuxaz guenboca maliciaoa da.
 Era olan argaturuz eguiten den beatus, eratan dan hitaxen en-
 no dala; era joquinez eta ignoranciaz eguiten dala, Sempron
 contra dala; alan maliciaz gaitaxiaz ta desingularuz, eguiten
 dala bez, eratan da Espiritu Santuaren contra dala. Era beatus
 ta ain pelliguroa, ta icarapaxia oca, iranduten dau ^{8^o Tomax, 22.}
 g. 4. et seq. g. 14. ar. 3. "Ea parcaquirun, parcapaxi dancz, pascad
 litiquanec?" Era ^{lenengo} erantuten dau lenengo; beintzat mesicitiaz da
~~no~~ alderic, ezititac. parcaaxioic mecci, maliciaz ^{oca} gaitotaxunec da
 loco. Bigaxen erantuten dau, maliciaoa ta dancoguz eiquero, ezitac
 bez, ta bez ^{ta bez} ~~eraburra~~ parcaquirunecaxia. Bada oi dican tyuer gaitota-
 run ^{ta bez} ~~eraburra~~ ain andiac, gorputz guotia argalduric, marcaxuric, jauria,
 adax bagua, ta eandua, gifinten dabine, ta gaitotari ain erantac ta
 erature, ta eritrac, eguiten jecozanec, non bez izatez ta egutez
 ezititac eremedioic, ezititac eragaxiac sendagurunec: Allan gaito-
 ta oquexioen, gopartzexen, itutuaren ^{ardura baguaren} ez ~~antiactunec~~ beatus, gacha,
 gaitotaria bez ain da andia, non beradanc bez ezta er-
 gaxia, ez parcapaxia. Cenon eratico, sendatu ta sendatutea,
 parcatitico bez dican sendagaiac, magaxiac, bitaxetaxunec, bez
 bez ezur, maliciaz, ta sendate gaiten, bez nai-guar ta ja-

A atala (1-39. or. = “Iracurleari”, Etxausen gutuna eta 1-3. buruak), idaztaldiari dagokionez, B eta D-ren artean kokatu behar dela deritzat. Inolaz ere, B-ren ondoren ondua da, orrialde-zenbakuntzan 5 orrialdeko aldea baitago bien artean: honek aditzera ematen du gutxienez aurreko zirriborro bat izan zuela, 5 orrialde gehiago zituena, hain zuzen, nahiz eta orain letra handiagoa eta lerroarte zabalgokak izan. Bestalde, D atala baino lehenagokoa dateke, aipuen erreferentziak gordetzeaz gainera, Añibarrok oin-oharretan jartzea erabaki baitu, jadanik harako “bada ascori asco eragozten deutsee iracurteco jarraian, baldin idoroten badituez malla artean” hura kontuan harturik, baina oraino erreferentziok ezabatzeko erabakia hartu gabe.

A atala kopia oso txukuna da, behin betiko bertsio moduan apaindua, goiburuak eta guzti, geroago egindako zuzenketak gorabehera. Ez da itzulpen zalantzarik geratzen, ez eta Axularrekiko lotura gorde nahi zuten orrialde zenbakien arrastorik ere.

B atala (45-162 = 3-16. buruak), ezpairik gabe, ez zen hainbesteraino heldu: Axularren erreferentziak gordetzeaz gainera, era askotako zuzenketez zein eranskez blai dakusagu eta itzultzailearen hainbat zalantza fidelki islatzen ere ditu. Zalantzon islak 13. buruaren bukaera arte bakarrik iristea lotuta egon liteke, bestalde, itzulpena gero eta askeagoa izatearekin, zeren eta honek edozein pasarte ilun, ez ezinbestean hitzez hitz, baizik eta gaingiroki —*ad sensum*— itzultzeko eskua ematen baitio.

Nire iritzian, ez dago B-tik C-ra (162-220 = 16-22. buruak) somatzen den aldaketa zerk eragin duen jakiteko bide errazik, zeren eta, azaldu bezala, lerrokada baten erdian gertatzen baita, bat-batean.

Demagun 162. orrialderaino iritsita, zerbaitegatik lana bertan behera utzi behar izan zuela. Lanari berriro ekiterakoan, Añibarrok letrakera eta lerroarteak aldatu ez ezik, irmotasun gehiagoz —zuzenketa gutxiagoz— ere aurrera egiten du. Berez, hau atzerapen zein aurrerapen zantzua izan liteke: edo ez du C B bezain zorrozki berrirakurri, baina honek ez du azaltzen zergatik kopia txukuna dirudien, eta ez zirriborrea, aurrekoak bezala; edo kontuak lehen baino argiago ditu, dela igarotako denboragatik, dela tartean beste zirriborro bat izateagatik, dela aurreragoxetik originalari ez hain hertsiki lotzeko hartuaz joan zen erabakiak hartan lagundu ziolako. Honi dagokionez, esan gabe doa hizkuntz azterketak duela azken hitza.

C atalaren hobekuntzak azal litzakeen ustezko zirriborrea, ezinbestekoa dugu, nire ustez, D-rako (22-56. buruak), aipatu ditudan kopia hutsak lekuko.

Laburbilduz, eta jadanik hizkuntz alderdiaz dakiguna ere baliatuz, lau atal ezberdin proposatuko nituzke, idaztaldiaren arabera zaharretik hasita: B, besteen aldean zaharkituta gelditua; A, besteak baino argiago argitalpenean pentsaturik ondua, azken kopia txukuna izan behar zenaren erakusgarri; C, jadanik hizkuntz

arlo batzuetan bestelako iritziak zituenean berridatzia; eta D, ildo beretik baino oraindik zirriborro hobearen gainean landua. Azken bi atal hauek, inondik ere, *ME* eta *NekeA*-ren bertsio berrien garaikide dira.

3.3. *Añibarroren itzulpena: iturria eta zentsura*

Axularren transmisioa egoki ulertzen hasteko erabateko iraultza izan da, ares-tian ohartzea ezen ia-ia ondoko irakurle esanguratsu guztiek, Pouvreau salbu, ez dutela lehen argitalpena ezagutu, bigarrena baizik; edo 1864az gero are Intxauspereen hirugarrena errazago, beste biak baino. Gertakari hau oraintsu arte oharkabean igaro da, edota ez zaio behar beste garrantzirik eman,³⁴ nahiz eta aspaldi jakina izan batetik bestera aldaketak —batzuetan oso garrantzizkoak— badirela (Vinson 1891-1898: 87, 22. zb.).

Honelako ahazturek derrigor ondorio filologikoak izan behar, areago hain liburu eraginkorraz den bezainbatean. Adibidez, Mitxelenak (1970) Larramendiren *Eranskin*-eko iturri gisa Axular ederki identifikatu ondoren, zalantzekin egotzi zizkion *ahartara* edo *itzulpide* (*Erans* 100 eta 244) bezalakoak, *Gero*-n gutxi gorabeherako kideak (*ahatara* eta *itzurpide*) baino aurkitu ezinik, letraz letra *GGero*-ko irakurketak diren arren. Halaber, *OEH*-ak *alokairu*-ren aldaeren artean *allakairu* harrigarria aipatzen du, *Hirukoitza*-ren bermearekin bakarrik; egiatan, *Gero*-ko *alocairu*-ren ordez *GGero*-k dakarren *alacairu* akastunetik sortutako iratxo baina ez da, <ll> grafiagatik agian Larramendik zeharka —beste iturri batek (Etxeberriren hiztegitik?)— erdietsia; *OEH*-ak alde batera utzi duen Azkueren hiztegiko *alacairu*, berriz, zuzenean *GGero*-tik kopiatua da, inolaz ere, aldean *Gero*-ko erreferentzia badarama ere (Urgell 2000).

Añibarroren kasuan, behinik behin, ez daukagu aitzakiarik, aspaldi ezaguna baita *GGero* erabili zuela (Urquijo, *in* Soloeta 1910: 594, oharrean), zehazkiago Arantzazun gordetzen den A. Palaciosen alea bera, lehen esan dudanez. Beraz, Larramendiren zein Azkueren hiztegieta bezalaxe, hemen ere ezinbestekoa da ikerketan *GGero* erabiltzea, bi argitalpenen artean diren aldaketak —aldez ezagunak, aldez argitalpen berriek estaliak (Urgell 2001)— direla eta.

Gero-arekin jokatuaz, ez dago Añibarroren itzulpenaren anitz pasarteren etorkia ezagutzeko, ezta itzultzaileak hamaika aldiz *GGero*-aren akatsak gainditu dituela igartzeko, ezta batzuetan akatsongatik itzulpen bitxiak eman dituela jakiteko aukerarik:

egoa бага (1-60/61) < *ego gabe* (*GGero*) < *eho gabe* (*Gero*). *zalegarria* (1-252) < *gogo* (*GGero*) < *goço* (*Gero*). *zuc bere* (1-265) < *çu ere* (*GGero*) < *çuc ere* (*Gero*). *alperqueric* (2-2) < *alferqueric* (*GGero*) < *alferqueric* (*Gero*). *atarlean* (2-14) < *coccoan* (*GGero*) < *zoccoan* (*Gero*). *itzulpide* (3-92/93, Larramendik bezala) < *itçulpide* (*GGero*) < *itçurpide* (*Gero*). *emen* (5-22) < *hunin* (*GGero*) < *hemen* (*Gero*). *ecandu gaisto charra* (7-143) < *aztura gaiztoaz* (*GGero*) < *az-*

³⁴ Honi buruzko berri gehiagotarako, ik. Urgell 1991b: 320-323.

tura gaixtoa (Gero). ez artu-emoteric (10-22/23) < eta ez hartceric (GGero) < eta ez hats hartceric (Gero). senarrez campora beste bategaz izan ebala (10-59) < içan çuela (GGero) < izan cela (Gero). penitencietan = GGero < penitenciatan (Gero), etab.

Oro har, Añibarrok *GGero* osorik itzuli zuela esan daiteke. Honek dituen zati-tietatik, hasiera batean nafarraren hitzaurrea soilik du eskas, bere kabuz ondu zuen “Iracurleari” deritzan atalaz ordezkaturakoa. Honek azal lezake, bidenabar, eskuizkribuaren A eta B atalen artean dagoen bost orrialdeko aldea (§ 3.2).

Hitzaurre hau, Axularrenean ez bezala, Etxausen gutunaren aurrean agertzen da, eta ez da bertan geratu jatorrizkotik ia ezer, espero zitekeen bezala, bizpahiru oihartzun nabari eta esanguratsu izan ezik. Lehena itzulpenaz diharduen pasarte-txoan ageri da, ideietan ez ezik, hitzetan ere islatua:

Libru onetan aitatzen dirian Escritura Santa ta Doctoreen esanac, eztira betibere verbatic verbara eusquerara biurtu, iruli ta aldatu, cerren eusquereac eta beste verbacuntzac euren esaera ta verbaeguicune banaac, bacarrac ta berezcoac dituez (*GGero* 0-37/40).

Ez eta, eztitut bethiere escritura saindua eta doctoren erranac ere, hitzez hitz euscarara bihurtcen. Ceren euscara eta bertce hitzcuntçac different baitira (Ax 19).

Bigarrena idazkerari dagokio, eta bertatik Axularren pasarte ospetsu bat dakar gogora, honek Materreri hartu zizkionetako bat, hain zuzen:

Eusqueran, eguin dot aleguiña Bizcaycoari jarraitzeo; baña celan Colegio onetacooc ain laster gabiltzan Bizcayan cein Guipuzcoan, Araban ta Nafarroco verba eguicune ta itzcuntzetan, utsen batzuc idoroco dozuz, ta orduan, ito eguizuz issilic, ta irunsi epetasunaz ceure artean, oñon baga (*GGero* 0-44/48).

Baiña ceren comunzqui, hala esquiribatcea, nola minçatcea, nori berea iduritcen baitçaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ezpaita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran (Ax 18-19).

Hitzaurrearen bukaeran, berriz, Axularren eskema orokorrari jarraituaz, haren *amplificatio* moduko zerbait egiten du:

Beinic bein iracurri eguizu gogo onaz; ta beronegan arquiteco dozuz cia eraguinguilleac, argui arguitsuac, acullu zorrotzac ta eguia indartsuac, biztu, muguitu, atera ta irazartuteco zure ari-meac, baldin ceure adu ta zorigachez bazatzaz lozorroac arturic ta gogorturic becatuzco egotaldi arrigarrian. Onetaraco escatu eguiozu Jangoico gauza on guztien iturri ta emolleari bere arguia, bere escua ta bere gracia; ta, bide batez, escatu ta erregutu eguiozu, arren, biocaitic. Ta onem-bestegaz: *Agur*. (*GGero* 0-49/55).

Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia: haur dasta eçaçu, haur escuzta eçaçu, iracurtcen duçula, ez lehiaz, ez gainguiroqui eta ez arbuiatceco contuan ere. Baiña intencione on batequin, ceurea, ceure eguina baitcendu beçala. Eta baldin halatan eta orduan, bat ere goçoric edo zapporeric edireiten badiçoçu, ceren hura guztia laincoaganic heldu baitateque, eta ez eneganic faltaric baicen, hari esquerrac errenda iatçotçu, eta nitçaz ere othoitz eguiteaz, arren othoi, orhoit çaiteci (Ax 20).

Etxausen gutunari dagokionez, oso jakingarria da Añibarrok aurrean jarri zion oharra, aditzera ematen baitu nagusiki erlijio kontuek kezkatzen zutela, baina ba-

zeukala hizkuntza hutsaren alderdia balioztatzeko nahikoa sentsibilitate, hainbat non “Irakurtzaileari” kendu arren, gutuna gorde baitzuen:

Librucho au atera zan, ez bacarric arimén oneraco, baita apaindu, aci, gorde-eraguin, edertu ta zabaltzeco eusquerea; ta laguntzeco euscaldun icasle barriai; eta beragaitic ezteutsat quendu gura izan, *Axularrec* berac esqueñi ta zucendu eutsan Carta alabagarria Echaus Arzobispo Jau-nari, eusquera garbi ederrean cirautsela onela: ... (*GGero* 0-56/60).

Sentsibilitate horrek, dena dela, ez dio eragozten itzulpena bere gogara egitea, hasieran Axularren estiloari nahikoa atxikiaz, baina geroago handik urrunago, da-kigunez, eta are nahi adina eransketa eta kenketa eginaz. Honelako itzulpenak, gaur “egokitzapen” izena mereziko luketenak, erruz aurki daitezke aurreko men-deetan, euskaraz eta erdaraz, egilearen hitzari baino, maiz lan berriaren helburuei gehiago begiratzen baitzitzaien.

Zehazki, egingo nuke gutxienez hiru zio nagusik, bata bestearekin lotuta, bul-tzatu dutela Añibarro hain aske jokatzerara. Lehenik, originaleko pasarte lizun edo labaingarriak behingoan ebakitzeko inolako lotsarik ez izanak. Hainbat urte be-randuago, Intxauspe ez zen herabeago izan:

Guti tokitan behar izan dugu Axularen mintzaia ere estali, aphaindu edo aldatu, oraiko ienden delikatutasunagatik. Axularen denboran, bai erdaraz bai euskaraz, orai baino librokiago eta na-saikiago mintzo ziren; gauzen bere izenaz deitzeaz nehor etzen asaldatzen. Oraiko azturak nahiz eztiren ordukoak baino hobea ez garbiago, bai ordea minberago dira beharriak; eta benturaz gogoa ere gaizkiaren phensatzera zalhuago eta lasterrago. Minberatasun horren ariaz, eta amo-rekatik arima garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten Axularen liburu ederra, garbitu, leuntu eta aphaindu ditugu lekhu harro, zakhar eta gordinegi zirenak; alabaina, osorik uzten du-gularik Axularen lanegina (Intxauspe 1864: viii-ix).

Bigarrenik, XVII eta XIX. mendeetako erlijiotasunean gertatu den pentsamol-de aldaketak. Seigarren aginduarekikoak oro eragiten ditu nabarmen aldaketa ho-nek, baina ez haiek bakarrik, ezta gutxiagorik ere, segidan ikusiko dugunez. Eta hirugarrenik, Axularren eskola handiko irakurle eredutik oso ezberdina den ira-kurle mota bat buruan izateak. Izan ere, Añibarrok latinezko pasarteak ia beti eza-batu eta, hala dagokionean, bere kasa euskaratu ditu, edota pertsonaiak identifika-tzen lagun dezaketen datuak erantsi (§ 5.4), irakurle askoz apalago batean pentsatu zuela aditzera emanez: latina jakin edota Bibliako zein Historia klasikoko izenak ezagutu beharrik ez duen batengan, alegia.

Axularren liburua bere hartan ez dirauela frogatzeko, aski da ohartzea origi-nalak 60 kapitulu dituela, eta itzulpenak 56 baino ez. 30. kapituluraino bataren eta bestearen izenburuak elkarri dagozkio, baina jatorrizko 31, 32, 33 eta 34. kapitu-luak bitan (31 eta 32. buruak) bildu dira itzulpenean. Hona sarraskia pairatu duten kapituluaren izenak:

CAP. XXXI. *Cenbat calte eguiten duen haraguiaren beccatuac, lehenbicoric itsutcen duela adimendua, eta nola behar den hartan sartetic beguiratu, eta sarthuz guero ere, lehen baiño lehen ilquitcera enseiatu.*

CAP. XXXII. *Harguiaren amorio desordenatuac eguiten duen bigarren, eta hirugarren calteaz, ezuela den ahaicoaric hurcoenaz ere conturic eguiten, eta ez hartaco iuramenturic complitcen.*

CAP. XXXIII. *Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen laugarren calteaz, amoltsu eta baquezco cirenac, eguiten baititu cruel eta guerlati.*

CAP. XXXIV. *Haraguiaren amorio desordenatuac eguiten duen borzgarren calteaz, soseguric eta pausuric gabe ibentcea.*

Añibarroren itzulpeneko biei honela deritze, aldiz:

31. *Araguizco pecatuac dacartzan caltéac, ta itsutasuna.*

32. *Beste calte batzuc.*

Gertakaria tolesik gabe iragarrita dago Añibarrok 31. burua hasi baino lehen jarri zuen “adibide” edo oharrean:

Urrengo buruetan Axularrec ifini cituan gauza batzuc laburtuco dira, ta larga beste batzuc, euren iracurtzatic ascoc on baño calte gueiago ateraco leuqueelaco; ta lenago bere onen ganean esa-mesac izan direalaco (*GGero* 31-2/4).

Jakin nahi genuke, noski, non eta zeinen artean izan ziren esamesa haiek, tartean elizgizon euskaltzaleak ibiltzea egiantzekoena bada ere. Eta halakoak, aitorlekuan saiatuak, ez bide dira aise asaldatzen, Mogel batek elizgizonentzat pentsatutako liburu batean, *Konfesino onean*, ematen dituen exenpluek —gordin xamarrak, nik uste— erakusten diguten bezala. Hortaz, baliteke Añibarrok funtsean elizgizonez bestelako euskaldunek ere “Axularren liburu famaduna” irakurtzeko gogoa izango zutelako esperantzan zentsuratzea, “ez bacarric arimén oneraco, baita apaindu, aci, gorde-eraguin, edertu ta zabaltzeco eusquerea; ta laguntzeco euscaldun icasle barriai” itzuli zuenez gero.

Xehetasunetara igarorik, 31. buruan Semiramisen istorioa (Ax 344-346) osoki desagertu da. 32. buruan, lehen atalean (§1) Axularren bigarren eta hirugarren kalteak bilduta daude, baina bigarrenean adibideak erabat inausi ditu Añibarrok, izen batzuk aipatu arren (32-6/7); orotara hiru lerro eta erditara murriztu da itzulpenean, originalean bi orri eta erdi (Ax 449-451) betetzen zuen gaia. Hirugarren kaltea, berriz, osorik itzuli du, adibiderik gabekoa da eta. Bigarren atala (§2) Axularren XXXIII. kapituluaren kidekoa da; Ioan Guerin-en istorioa (Ax 353) eta *emazte gaixtoei* buruzkoa (*ib.* 355) ezabaturik daude, eta Davidena zein *iondone Iacue Penitencialearena* zertxobait leunduta, eta eremutarrak bere bekatua nola penatu zuen bere aldetik erantsita (32-34/36); adibidez, hurrenez hurren:

haren emazteaz goçatceagatic (Ax 353) > *bere emazteaz ezcontzeagaiti* (32-29).

nescato bati bere ona galaraci baitceraucan (Ax 353) > *jausi zan pecatuan... emacume bategaz* (32-32/33).

Catilinaren eta Lenillaren istorioak ere (Ax 354) gorde dira, baina Villasante (1976)-ko zenbakuntzaren arabera, 237. lerrokadaren bukaera, eta hurrengo biak (§§ 238 eta 239) osoki ezabatu ditu (Ax 359-362).

33. burua Axularren XXXV. kapituluarekin bat hasten da, eta berdina da. Ondokoetan berriro, baina labur, jatorrizko banaketari atxikitzen zaio; hona kidetasunak:

Añ 33 = Ax 35; Añ 34 = Ax 36; Añ 35 = Ax 37; Añ 36 = Ax 38.

Gai galgarria amaitu ez denez, baina, laster Añibarro berriro artaziak erabili beharrean aurkitzen du bere burua, Axularren 39 eta 40. kapituluak erabat ebakitzeko. Izenburuak irakurri eta ez dago, nik uste, zergatia galdetzeko premiarik:

CAP. XXXIX. *Haraguiaren beccatutic beguiratceco borzgarren erremedioa, consideratcea cein ttipia eta laburra den hartaco placera.*

CAP. XL. *Haraguiaren beccatutic beguiratceco seygarren erremedioa, hartaco placerac cein ondore gaixoa, bere ondotic utzten duen consideratcea.*

Gorago aipatu oharrean ez eze, haragiari buruzko kapitulu hauena, oro har, "Irakurleari" atalean ere xeheki argudiatzen du:

...euqui ditu libro onec non edo an lengo demporétan bere ecáchac, bere cérac: onetaraco bidea emon eban, bear etzirian persona errespetagarriac aotan artzeac, euren utsac aguertzeac, eta beste maquiña bat gauza, issilic igaro, estaldu ta gorde bear cirianac, zabaltzeac. Dirianac albatenez garbitu dira oraingo onetan; batez bere, ogueta amacagarren capitulutic berrogueta laugarrenaguño laburtu dira gauza batzuc, beste batzuc quendu ta beste asco eransi ta gueiagotu, uste izanic convenico ez jaquela era guztico personai; ta bere iracurtzetic on baño, calte gueiago etorrico lequiquielaco gazte ascori, len leguez gueldituco balira (0-28/36).

Ezabaketa handi haren ondoren, kapituluai dagokienez, ez dago arazo gehiago; hona kidetasunak:

Añ 37 = Ax 41; Añ 38 = 42; Añ 39 = Ax 43; Añ 40 = Ax 44; Añ 41 = Ax 45; Añ 42 = Ax 46; Añ 43 = Ax 47; Añ 44 = Ax 48; Añ 45 = Ax 49; Añ 46 = Ax 50; Añ 47 = Ax 51; Añ 48 = Ax 52; Añ 49 = Ax 53; Añ 50 = Ax 54; Añ 51 = Ax 55; Añ 52 = Ax 56; Añ 53 = Ax 57; Añ 54 = Ax 58; Añ 55 = Ax 59; Añ 56 = Ax 60.

Halaz ere, kapitulu barruetan artaziak gehiagotan erabili dira, ez nahitaez seigarren aginduari buruzkoetan bakarrik, gehientsuenak halakoak izan arren. Behar izanez gero, kapitulu zentsuratuez gainerakoetan ere istorio osoak kentzen jakin zuen; hala gertatzen da, esaterako, Sesostris Egiptoko erregearenarekin (39-69; Ax 409-410).

Honen kariaz egindako zentsura txikietako zenbait aipatzea aski dateke Añibarrok nondik jo zuen antzemateko. Esate baterako, argi dago San Agustin dela ahotan hartu behar ez diren pertsona errespetagarrietako bat; erka ditzagun bi bertsoak:

Alde batetic desiratcen çuen bide onean iartcea. (...) Eta bertetic, tratatcen eta guibelatcen çuten, leheneco vsantcec, eta guztiz ere emaztèn balacuec, hitz ederrec eta placerec. (...) Emaztèc ceducaten bortitzqui lothua. (...) Emaztètatic apartatcea hain ceitçan gaitz eta gaitzi, ecen... (Ax 52).

Alde batetic gura eban vide onean jartzea (...). Eta bestetic, lotu ta atzeratuten eben lenagoco usadioac, maña charrac, oiturac, ecanduiac ta azturac; ta guztiz bere araguiaren ta munduaren labanqueriac, palaguac, verba eder, atseguin ta solasac (libr. 8 cap. 1 Confes.). Onec euquen irmeago lotua. Eta oneetatic alde eguitea eguiten jacan ain gach, ece... (3-121/127).

Liburuan zehar, Axularrek *emazteak* —edo *amoranteak!*— aipatu orduko, Añibarrok muzin egin eta eskuarki *desoneskeria*-ra darama gaia.³⁵

gutziz ere emazteequin (Ax 177) > *gutziz bere desonesqueriac* (13-130).

emazteetaco beccaturic eguiten (Ax 178) > *bear eztan presona loiacaz lagunduten* (13-133/134).

edocein emazterequin parte içaitea (Ax 254) > *desonesqueria bat eguitea* (19-67/68).

emazte batequin parte içaitea (Ax 264) > *desonesqueria* (19-239/240).

amorantearequin dagoena (Ax 267) > *amorentasun ta ocasiño desonestuan sarturic [dagoana]* (19-289/290).

Axular baino minberago ageri da, oro har, lexikoan, hitz batzuek beti izan duten eta beste batzuek denborarekin hartu duten kutsu bereziaren lekuko:

içorrateaz eta ethor ahal daquidicayon desohoreaz eta calteaz (Ax 72) > *emetic etorrico jacon desonra, lotsaria ta calteaz* (5-77/78).

içorratuco (Ax 72) > *seindun gueratuco* (5-79).

ecen emazte guiçacoicac eta guiçon emacoicac, presuna putanerac eztuela deusetan ere soseguric (Ax 357) > *quendutea sosegua ta barruco baquea* (32-81), nori kentzen zaion esan gabe.

Alabaina, esan bezala, badira seigarrenaz bestelako gaiekin lotutako zentsurak ere. Nagusiki, fedearen ingurukoak dira, eta ez da honetan adituegia izan behar, ohartzeko Axularrek eta Añibarrok oso erlijiotasun ezberdina zeukatela. Añibarrok zenbait gauza estalkirik gabe kondentzen ditu —adjektibo gardenak eranstiaz, adibidez—, beste zenbaiten garrantzia zeharo ematen duen bitartean:

iende suerte batçuec (Ax 135) > *becatari itsu ascoc* (11-32).

Minçatce molde haur (Ax 135) > *Verbacuntza gaisto au* (11-33).

Baiña ez ezquerrecoec (Ax 227) > *Baiña ez ezquerreco esquer gaisto gogor erruquibagueac* (16-144/145).

Ezberdintasunok batzuetan testuko pasarte zenbait alde batera uzteko adina-koak izan ziren, dela okerren ideiak, dela ideia okerrak zabaltzen dituztelakoan, agi denez. Esaterako, Axularrek lasai asko aipatzen ditu heretikoen iritziak, Añibarrok halakoak ezagutzea kaltegarritzat jo, nonbait, eta ondoko lerrokada osoari ezikusia egin dion bitartean:

Lehenagoco philosopho batçuec, ez aithortceagatic egon cela behin ere Iaincoa alferric, erran çuten, mundu haur Iaincoa bera beçala eterno cela eta haste gabe. Ceren bertcela mundua eguin arterainoco bitartean, alfer egon beharco çuela Iaincoac. Baiña ez mundua da eterno eta ez haste gabe, eta ez hargatic egotu Iaincoa egundaiño alferric. Ceren badu, eta baçuen lehen ere Iaincoac, munduaren eguitea eta gouernatcea baiño obra handiagoric: nola baitcen, eta baita, bere buruaren contemplatcea, onhestea, eta bai bertceric ere anhitz. Ordea philosopho hec eman çuten hartan bere ahal guztiaz aditcera gauça gaixtoa eta perilosa cela alferqueria, Iaincoa baithan

³⁵ *Emazteei* buruzko aipuen desagerpenak, ordea, beste zio bati erantzuten bide diote: ik. § 5.4.4.

edireiten cela ez aithortceagatic, erran baitçuten erhoqueria handi bat, Iaincoa bera beçala, mundua ere eterno cela eta haste gabe. Eta puntu batean, mundua haste gabe cela erraiten, huts eguin baçuten ere, ordea bertcean, alfertasuna gauça gaixtoa, perilosa eta norc bereganic egotztecoa cela eracustean, etçuten hutsic eguin (Ax 33-34).

Taiu beretsukoa da bigarren adibidea, burutik buru ezabatua, non Axularrek gaiztoek penitentziari buruz egiten dituzten gogoeta okerrak aipatzen dituen:

uste dute ecen penitenciac eztuela bat ere ontasunic, atseguinic, eta ez placeric: eta içaitecotz ere, bertce munduan içanen duela, eta ez [h]emen. Eta nola bertce munduoa baita gueroco, erraiten dute, eztutela presenteco placera gueroco esperantçagatic utci nahi. Eta erraiten dute hunela, ceren baitacusate ecen verthuteac, Iaincoaren legue sainduac, campoco iduria eta figura duela itsusi, latz eta gaitz. Eta handic campoco gaixtasun harc icituric, utzten dute barreneco mamia, eta hartcen dute campoco açala (Ax 505-506; cf. 46-73. oh.).

Beste leku batean, berriz, honako hau aitortzen du Añibarrok ertzean:

Faltan aquí m[u]cha[s] cosas. Vid. pág. [Ax] 183. Son algo ridículas para la gravedad que pide el Pulpito: en todo tiempo y edad admite Dios al hombre arrepentido (13-230).

Zeren eta Axularrek iradokitzen baitu, zahartzeraino itxaroten duten bekatariek nekez erdietsiko dutela Jainkoaren miserikordia. Ados etorri ezinik, Añibarrok pasarte luze bat uxatu du eta haren ordezeko beste bat bere kabuz ondu (13-222/230), Axularrek San Agustin, Climaco saindua eta San Matheoren bermeak bere alde ekarri arren.

Bestalde, eta bukatzeko, badirudi aitopenari buruzko Axularren dotrinari askeegia iritzi ziola, ondoko lerrokada ezkerretara ageri den moduan laburtu eta aldatu zuenez gero:

Ceren eguiazco penitencia, eta bertceric ecin daidiqueyenean, salbatceco asco dena, bihotzezco urriquemendua da, falta eguinez barrenean, Iaincoagatic, damu eta dolu içaitea.

Erraiten denean eguin behar dela penitencia, eta bertcela ecin salba ditequeyela, ezta ez aditcen, bada eta ezpada behar dela cofessatu, barccamendu escatu, barurtu, oracinotan egon, erromerian ibili, eta hunelaco bertce obra penatuetan penatu. Ceren eguia da, gauça hauc guztioc penitenciac dira, eta penitenciazco obrac; ordea dira campocoac, eta eguin ahal ditezqueyenean, cenbait bedere eguin behar direnac. Baiña baldin ecin eguin baditezque, ecin coffesa badadi, ez mintça eta ez deusetan ere manaita, asco da orduan barren ona, vorondatea, bihotzezco damua, dolua eta dolorea. Cein baita eguiazco penitencia, eta casu hartan, bertceric ecin daidiqueyenean, salbatceco asco dena (Ax 196-197).

Becatu mortalean bere zorigachez jausi dana ecin salva liteque penitencia eguin baga, au da, al badedi confesatu bear da; baña ecin confesatu bada, asco da salbetaco contricño eguiazco bat; eta da euquitea damu eta biotz min eguiazco bat, Jangoico ain ona ta maitegarria ofenditu dabelaco, proposituaz guero al daienean confesetaco; eta besteric ecin danean, au da asco salbetaco (15-43/48).

Orokorrean, nolana ere, Axular bezala itzulinguruka ibiltzea ez bide zaio atsegin; hortaz, itzulpen askeagoa egiten eta bere ohiko idazkerara gehiago hurbiltzen den neurrian, mamira zuzenean igaro (ik. 44-127/129. oh.) edo gerora datozen ideiak aurreratu (ik. 45-188/189. oh.) nahiago du. Ekar dezagun adibide bakar bat, non Axularren pasarte galdera erretorikoez —ba ote dago galdera alferragorik?— arindu baitu:

Cer bada, Iaincoa iñanen da hain idor eta onedequi, non vtico baititu bere adisquideac eta cerbitçariac, atseguindasun mocco bat ere gabe? Cein parte estimatcen duçu hobe, Iaincoarena ala Deabruarena? Baldinba Iaincoarena? Beraz, Iaincoaren atseguinac eta placerac ere hobeagoac eta handiagoac iñanen dira Deabruarenac baino (*GGero* 507).

Cer, bada, Jangoicoa izango [da] ain gogorra, escasa, laburra, prestueza bere serbitzari maiteai gozotasun, atseguintasun, olgurazco pozcariren bat ucatuco deutseena? Deabru madaricatuac bere adisquide zorigaistocoai baño, atseguin andiagoac, beteagoac emongo ez al deutzaz Jangoicoac bere adisquide fiel maiteari? (46-91/95).

4. Geroko Gero-aren hizkuntzaz

Lehen azaldu dudanez, Añibarroren idazkeraren maila guztietan —grafiatik hasi eta joskeraraino— gutxinakako garapen bat soma daiteke, eta haren gailurra, lorpenik akabatuena, *Esku liburua*-ren bigarren argitalpena da (1821), hirugarren argitalpenean (1827) egin zituen azken aldaketa ttikiak gorabehera.

Hipotesi hau oraingoz datu sakabanatu eta urrietan baino ez da oinarritzen, Añibarroren idazlanen kronologia —erlatiboa baino ez bada ere— zehazteko zailtasunagatik eta erabili behar ditugun aldagaien konplexutasunagatik (lan beraren bertsiio ezberdinak, eskuizkribuetako zuzenketak).

Zailtasunok nola edo hala gainditurik, bereizi ahal izan dugu kronologikoki 1802-1803ko argitalpenen eta EL^2 -aren artean kokatu beharrekoa dirudien eskuizkribu multzo bat, <v> eta <h> gaitzesteko joeran oinarri hartuaz.

Multzo honen partaide argienetako bat *GGero* bera dugu, gutxienez haren zatirik modernoena (B eta D atalak), zeren eta, kontu grafiko haietaz gainera, EL^1 eta EL^2 arteko lana dela frogatzen duten beste hiru hizkuntz ezaugarri aurkitu baititugu: *gaiti* eta *-taric* aldaeren nagusitasuna, eta *-mendu* > *-mentu* aldaketa. Izan ere, EL^1 -ekin zuzenean erkatzerakoan EL^2 -n antzemandakoarekin bat datoz guztiak, hala aldaketen xehetasunetan, nola haien filosofian: grafi bikoiztasunak eta alferrikako letrak kendu, aldaera aniztasunaren aurrean bat bakarrik erabiltzeko joera sendotu eta bi aldaeraren artean mendebalekoa hautatu da.

Argitalpen honek zehatzago jokatzeko aukera eskaintzen digu, EL -an kausitutako hamaika alderdi aldakorrak banan-banan hemen zein egoeratan dauden miazteko, alegia.³⁶ Bidenabar, Añibarroren garapena hobeto ezagutzeko ez ezik, mul-

³⁶ Bi EL -en arteko erkaketarako, cf. Urgell 1985 eta 1986. Azkena argitaragabea denez gero, jakintzat emango da hurrengo ataletan ukitzen diren xehetasun guztietan.

tzoko gainerako idazlanak *GGero*-arekin eta elkarrekin erkatzeko, eta handik on-dorio zabalagoetara iristeko baliagarriak izan daitezkeen ezaugarriak azaltzea ere espero dut.

Aurretik komeni da zehaztea ezen, antza denez, garai honetako idazlanen be-reizgarrietako bat, *GGero* benetan ordezkari ona baldin bada, Añibarroren idazkera zenbait arlotan nahita finkatu gabe egotea dela, ezaugarri batzuk zeharo aldako-rrak edo hautazkoak izatea. Balirudike aldaerak ikasi berritan, denak erabiltzeko ahalegina egiten duela, maiz bata bestearekin, elkarren lehian ez baileuden, hiz-kuntz aberastasuna erakusteko, ulergarritasuna areagotzeko edota errepikapena saihesteko balio duten aldaera estilistikoak bailiran; adibidez:

Artuten dogu eta *artzen dogu* (3-28), *daguigun* eta *daigun* (5-134/135), *deunguero* eta *dongue-ro* (15-321/322), *direanac* ta *eztirianac* (32-95), *sentitzea* eta *sentietea* (41-97/98), *salbetan di-rianen* eta *salbatzen ezfireanen* (43-267), *serbitzen emon* eta *serbietara emon* (46-164/165), *icu-si бага* eta *berba eguin bague* (48-163/164).

Joera indartsu honek are zailago bilaka dezake ikerketa. Baliteke, dena dela, haietako batzuk finkapenean zehar ahulduaz edo indartuaz, agertuaz edo desagertuaz joatea. Eta hori da, izan ere, gure aztergaia.

4.1. Grafia

Grafian egin zituen Añibarrok EL^2 -ko berrikuntzarik begibistakoenak, guztiz <sh> eta <k> grafema berri-berriak bere eginaz, /j/ren ahoskapena hobeto islatze-ko <y> hautatuaz eta <nb>, <np> erabiliaz. Ez dago honelakorik *GGero*-n, noski, Añibarroren gainerako lan ezagun guztietan bezalaxe, ezta hain erabatekoak izan ez ziren beste aldaketa batzuk, hala nola bokal arteko <i>-ren ordezkari <y> ezartzea edo bustidura adierazten duten grafemak (<ñ>, <ll>) gutxitzea. Alabaina, beste ezaugarri batzuetan bada zer esanik, baita garrantzizko aldaketarik ere.

4.1.1. <x> eta <ss>

/ʃ/ adierazteko, Añibarrok <x> eta <ss> erabiltzen ditu EL^2 baino lehenagoko liburu guztietan, ia-ia banaketa osagarrian, non <ss> izaten baita termino marka-tua, *i* etimologiko zein ageriko testuinguruetan agertzen denez gero (Urgell 1987b: 362).

GGero-n ere biak kausitzen ditugu eta, espero bezala, <x> da hitz ezberdin gehiagotan agertzen dena, testuinguruak baldintzatzen ez baitu; hona adibide bana:

Axular (0-7), *axetuteco* (1-231), *goxago* (1-237), *auxe* (2-17), *oxinac* (2-70), *baxen* (3-56/57), *ixil* (4-138), *erexeguinic* (4-149), *puxigac* (7-70), *caxa* (9-173), *axe* (10-88), *quexatu* (11-52), *goxtarric* (13-44/45), *orixe* (13-214), *elxetan* (16-183), *lexi* (17-28), *guizagaixoa* (20-123), *gaixotuten* (20-165/166), *exetuac* (20-179), *quexac* (20-220), *Onexec* (20-229), *axetsuen* (20-241), *gaixotasunac* (21-7/8), *uxaturic* (21-33), *itoxura* (41-130), *quexaca* (41-169).

Berriz, <ss> gehienbat *i* ondoko testuingurura mugatuta dago:

Ellessaco (0-6), *maissuac* (0-21), *issilic* (0-31), *ossin* (0-133), *eresseguiten* (1-97), *gaissotasunic* (2-65), *gaisso* (3-55), *gaissotuteco* (4-98), *essaminatu* (12-184), *odol-issurleac* (12-203), *is-silduten* (22-49), *itossura* (41-132), *issilca* (46-268), *guissagaissoa* (46-364), *Issuri* (47-132), *gaissotiago* (53-71).

Dakusgunez, testuingurua ez da zeharo erabakigarria; aitzitik, hitz batzuk (*axe*, *baxen*, *gox*) <x>z idazten dira beti, eta beste batzuk <ss>-z (*essaminatu*, *asserre*),³⁷ hari begiratu gabe, hitz talde bat bietara agertzen den bitartean (*gaisso* eta *gaixo*, *issil* eta *ixil*...).³⁸

Bestalde, *EL*¹-en bezala, <ss>ren ordeztu <s> soila ager daiteke, ziurrenik ohar-kabeaz:³⁹

gaisotasunetic (0-109/110), *gaisoa* (13-214), *gaisotuten* (13-217), *guizagaisoari* (16-176), *gaisotasunez* (19-230), *esaminatu* (24-47).

Hauxe da bietara erabiltzen dituen agerraldi gutxiko hitzen banaketa:

ELESSA (21) / ELEXA (3): *elexetan* (16-183), *elexan* (16-188), *Elexa* (19-101), baina *Ellessaco* (0-6, 0-24), *elessatic* (0-115), etab., liburu guztian zehar.

EREXEGUIN (5) / ERESSEGUIN (4): *eresseguiten* (1-97), *erexeguinic* (4-149), *eresseguitea* (6-17), *erexeguiña* (14-56), *eresseguin* (21-12), *eresseguiten* (21-21), *erexeguiten* (21-22), *erexeguiten* (49-26), *erexeguin* (53-43).

GUISSAGAISO (2) / GUIZAGAISO (1) / GUIZAGAIXO (1): *guizagaisoari* (16-176), *guizagaixoa* (20-123), *guissagaissoa* (46-364), *guissagaissoac* (50-42).

ITOSSURA (4) / ITOXURA (1): *itoxura* (41-130), *itossura* (41-132, 41-138, 41-143), *itossuratic* (41-344).

OXIN (9) / OSSIN (1): *ossin* (0-133), *oxinac* (2-70), *oxinean* (6-139/140), *oxin* (8-147), *oxinera* (11-189), *oxinean* (11-196), *oxin* (11-306), *oxin* (41-94), *oxin* (46-319), *oxinera* (52-18).

Agi denez, banaketa ausazkoa da, inolako legeri jarraitzen ez diona, aldaera grafikoak bata bestearen hurren ager baitaitezke, lerro bateko edo lerro gutxiko aldearekin. Halere, kasurik argienetan, testuinguruaren arabera ebazteko joerari amore ematen zaio (*elessa* eta *itossura* baina *oxin*).

Honetan, beraz, ez dago atzera-aurrerarik, gainerako idazlanetan aurkitzen dugun egoera beretsua baizik.

³⁷ *asserre* forma segurua da: *asserre* (20-194), *asserrea* (22-2). *OEH*-aren arabera, ez dago beste lekukotasunik, *HH*-ko “perrengue, *aiserre*, *asyerre*, *chacurmota*” baizik.

³⁸ *LauEv*-en *billossic* ere behin (Ciarrusta 1991: 38), *GGero*-n beti *bilos*- egon arren: *billosa* (0-103), *Billossic* (16-82, 16-93), *billos* (16-251), *billostu* (17-17), etab.

³⁹ Beraz, ez dira argitaratu hartakoak inprenta hutsak nahitaez, iradoki nuen bezala (Urgell 1987b: 362, 10. oh.).

4.1.2. <v> eta

Jadanik dakigunez, 1808 inguruko (ziurrenik ondoko) idazlanen ezaugarrieta-ko bat <v> z ordezkatzeko joera da (§ 2.3.4), dela lan beraren bertsio berrian, dela eskuizkribuko bertako zuzenketetan;⁴⁰ 1802-1803an argitaratuetan, berriz, tradiziozko banaketari atxiki ohi zitzaion, hots, maizenik erdal antzeko hitzak <v> eta euskal jatorrikoak z idazteari (Urgell 1987b: 362), Añibarrok *GB*-n azaldu bezalaxe:

Ninguna vos [sic] bascongada trae consigo V consonante, sino B: *barria, biotza, bicitza, bizca-ya, zabala...* Con todo, algunos escriben con V consonante las voces que la tienen en latín o en castellano, v.g. *videa, vicitza... via, vita* (GB 167).

*EL*²-n, berriz, sistema defektibo hau zeharo alde batera utzi zuen, *Virginea* eta *Ave* hitzetan izan ezik.

GGero-n ere, maileguak edo hartakotzakakoak <v>z idazten dira eskuarki:

Vici (0-1), *devociñozcoetatic* (0-7), *convenico* (0-33), *verbatic verbara* (0-38), *verbacuntzac, verbaeguicune* (0-39), *valiatu* (0-84), *vici-lecua* (0-86), *errecivitzzen* (0-88), *vicitzez* (0-100/101), *venganzaz* (0-110), *villau-citeltasunaz* (0-110/111), *visitan* (0-115), *videetan* (0-125), *vorodate* (0-131), *verbaguille* (0-135), *escrivitzen* (0-138), *servitzari* (0-141), *valioac* (1-40), *Evangelioaco, diverti* (1-73), *soberviatu* (1-84), *viciroago* (1-115), *venzutu* (1-159), *victoria* (1-168), *adividea* (1-182), *favoretzera* (1-202/203), *videscac* (1-264), *vertutén* (2-31), *vicio* (2-32), *veneragarriac* (3-47), *salvatu* (3-58), *provehuric* (3-65), *vanerietatic* (3-137), *virgiña* (5-18), *privilegio* (5-96), *viztu* (7-150), *vanidade* (8-11), *vicicor* (9-173), *veneno* (11-184), *valiotsuac* (11-276), *vela* (12-60), *valentia* (15-127), *salvamentuco* (18-146), *veniala* (19-89), *venturaz* (19-122), *virtutetsuac* (19-162), *escrivau* (19-171), *absolviciñoric* (19-286), *absolvitutu* (19-291), *convidetaco* (20-86), *verdea* (20-235), *avisu* (21-10), *governetaco* (21-44), etab.

salbuespenak izan arren:

bici (1-189), *berba* (2-105), *serbicioan* (4-211), *balioa* (6-53), *borondateari* (6-79), *escubide* (10-18), *iguesbideric* (10-42), *faboretu* (10-54), *soberbiotsu* (11-109), *biciteco* (12-200), *dibertitu* (13-64), *balioco* (13-84), *debociño* (14-30), *salbamentuaz* (14-120), *berde* (14-124), *bicitzeaz* (15-108), *probechatuco* (16-29/30), etab.

Gehien interesatzen zaizkigun albuespenak, dena dela, testuan bertan <v> gainean zuzendutako daramatenak dira:

biciro (0-25), *bidea* (0-29), *borondate borondatsuac* (0-68/69), *bici* (0-72), *berba* (0-73), *bertutearen* (7-73), *bide* (9-64), *balio* (10-2), *bici* (11-219), *biciric* eta *bici* (11-296), *borondate* (12-293), *baliatzen* (15-170), *salvatu* (16-98), *borondatezcoac* (17-2), *bici* (17-3), *bidea* (19-257), *berba* (19-261, 19-262), *balio* (19-338), *benzutu* (28-24), *bezperacaz* (44-93), *berba* (45-13).

Zuzenketa hauen banaketa esanguratsua da, bat baitator *GGero*-aren eskuizkribuan somatzen diren lau atal ezberdinetako bi ezaugarritzatzeko lehen esan dudanarekin (§ 3.2). Alde batetik, batzuk A ataltxoaren hasiera-hasieran biltzen dira; geroago —jadanik beste irizpide batzuekin— zuzendua izan zela berresten du ho-

⁴⁰ *NekeA*-ren bertsio bien arteko aldeaz, ik. Altzibar (1992: 90); bertsio berriko zuzenketez, Urgell (1987a: 213); *ArzaiAdib*-en eta *ME*-ren bilakabideaz, Altzibar (1992: 83, 150. oh. eta 88).

nek. Bestetik, bilketak bezain interesgarriak izan daitezke hutsuneak ere: hasiera hartatik 7. bururaino (73. or.), B atalaren lehen laurden osoan ez dago zuzenketa-rik; honek eskuizkribuko atalik zaharrena izan daitekeelakoan bermatzen gaitu.

Alabaina, D atalean (220-338) erabateko aldaketa bat gertatu da: <v>aren azken adibideak 219. orrialdean daude; handik aurrera *Livio* (23-7), *Octavio* (23-16/17), *David* (24-15), *Valerio* (31-24), *Calvario* (32-37), *Venus* (32-61) edo *Ovidio* (36-41) bezalako izen bereziak eta honezkero hartakotzat hartu beharko ditugun *Virgiña* (33-40) eta *Evangelio* (43-47), gehi euren eratorriak (*virgindadea* 33-11, *Evangelista* 42-161) kenduta, salbuespenak bakan dira, ia ezerezak, itzulpenaren zati honetan:

conveni (26-6), *conventu* (36-15), *favore* (41-301), *verba* (49-92/93).

Honen ordez, lehen <v> zeramaten hitzak beti-beti z idazten ditu:

berba (22-44), *bengatzallearen* (22-75), *bicitzea* (22-79), *debotoen* (22-104), *gobernetan* (23-62), *bidebagueac* (24-3), *Salbaguilleac* (24-11), *abisatu* (27-46), *berdugu* (27-58), *bitoria* (27-92), *combersaciñoric* (28-82), *escribitu* (29-8), *birtutea* (30-41), *baliatu* (33-40), etab.

4.1.3. <h>

Añibarrok *EL*¹-ean gutxi darabil <h>, beti ere maileguetan (*hereje*, *hortu*, *hostia*, *humil*), gehi tradiziozko *hume*-n. *EL*²-n, berriz, zirenak ezabatu ditu (Urgell 1987b: 378). *GGero*-ri dagokionez, erka bitez <h>dun adibide urriak (denak C ataletik atzerakoak) <h> gabekoekin:

hic (1-236), *hi* (1-237), *Hic* (1-240), *Ha* (10-94), *heregeac* (11-29), *humiltasunaz* (15-184), *herederuac* (18-91), *heregiaren* (19-200).

umezurtza (0-76), *umea* (3-27), *umeac* (4-100), *umearen* (14-9), *umildea* (22-74), *umiltasun* (28-145), *umiltasunari* (44-69), *umillac* (45-11), *umiltasunaz* (47-12), *umildu* (53-183/184), *umil* (56-23), etab.

4.1.4. *Azentua*

Azentu grafikoa, dakigunez, garai honetako eskuizkribuek *EL*¹-ekin batera daukaten ezaugarria da, baita denok *EL*²-tik bereizten dituen, argitalpen honetan gehien-gehienak, gutxienez esanguratsuenak, desagertu baitira (Urgell 1987b: 380-381).

Lehenik esan behar da azentuari buruz gramatikan Añibarrok dakarren guztia (*GB* 168-169), Larramendiren gramatikako atal beraren laburpena baino ez dela (1729: 350-372). *Imposible Vencido*-ko deskribapena ongi dator mendebaleko azentuaz; azentu mota hau gaur inon baino hobeto bizkaieran eta inguruko hizkeretan gorde da, baina XVIII. mendean Gipuzkoan barrena hedatuagotzat jo dezakegu, Larramendiren lekukotasunari esker, hain zuzen (Hualde 1991). Hortaz,

gaingiroki bederen Añibarrok —bere aldetik aztertu edo ez— onar zezakeen azentu mota zatekeen.

Bestalde, garai honetako idazkeraren beste bereizgarri batzuk bezala, esango nuke ziurrenik azentu marka Añibarrok aurretiaz egindako gramatika lanaren ondorio dela, zehazkiago azentuaren zereginez eta banaketaz jabetu izanaren ondorio.

Hala eta guztiz ere, azalpen teorikoa eta praktika ez datoz bat nahitaez, *GGerro*-n ageri denaren arabera. Añibarrok, hemen ez eze gainerako idazlanetan ere, hitzak azentu gabe idatzi ohi ditu, Larramendik ez bezala;⁴¹ honegatik, ohitura hausnertu duenean, badirudi garrantzizkoa den zerbait azpimarratu nahi lukeela.

Orain arte honelako kontuez ezer gutxi kezkatu bagara ere, azken urteotan euskal azentuaren deskribaketa eta tipifikatzean gertatu diren aurrerapenek Añibarrokren sistema aztertzeraz gonbidatzen gaituzte, ez bakarrik ziurtasun handiagoz lan egiteko aukera eskaintzen dutelako, baita halako azterketa batek argi berriren bat egin dezakeelako itxaropenean ere.

Añibarrok lau ziotatik edo lau kasu nagusitan markatzen du, maiztasun ezberdinaz, azentua; salbuespenak, izan badiren arren, hutsaren hurrengo ditugu. Eta, oso oker ez baldin banago, *GGerro*-n eta gainerako idazlanetan, maiztasuna gorabehera, berberak dira beti: bakan batzuetan, (1) azken silaban kokatzen den azentu finkoa markatzen du; maizago, ordea, azentua (2) bereizgarria, (3) bi bokalen bilketaren ondorioz sortutako bokalari dagokiona edo (4) adizkietakoa izaten da, berehala zehaztuko ditudan baldintzetan.

Axola gutxiagoko kontuetatik hasirik, inoiz edo behin, oso bakan, azken silaban azentua daramaten izenki biluziak, partizipioak, *-ko* izenlagunak eta adberbioak aurkitzen ditugu, Larramendiren sistemaren arabera:

GUEROCÓ GUERÓ (0-2), *Guerocó* (0-4, 0-5), *librú* (0-26), *beté* (1-48), *gueró* (1-106), *beté* (1-116), *latzquiró* (1-215), *beté ta gordé* (3-90), *asé* (3-109), *guerocó* (3-128), *beté* (4-54), *gueró* (6-106), *baiéz* (12-81), *Beté* (14-151), *oztú* (23-89), *atsitú* (41-162).

Oso maiz, liburu guztian zehar, *á* 3. graduko erakuslea azentuaz agertzen da atzizkirik gabe doanean (adib. *á guztia* 0-139, *á Parabisua* 1-16, *Parabisu á* 1-22).^{41bis} Ondoan zerbait duela, aldiz, lau adibidetan bakarrik; halere, aski dira ohartzeko enborrak azentua gordetzen duela *-gaz* atzizkiarekin edo *gaiti* posposizioarekin (cf., aldiz, *arequín* eta *agáiti*, Larramendi 1729: 24 eta 353), baina *-ko* atzizkiarekin galtzen duela, adibidea zeharo atipikoa bada ere:

agazcóaz (3-138/ 139, < Ax *harequicoaz*), *ágaz* (16-136, 53-31), *ágaiti* (47-48).

⁴¹ Cf. Hualde 1991: 747ko adibideak edo oro har Altuna & Lakarra 1990.

^{41bis} Ohitura bera zeukan Mogekek, artikulua eta erakuslea ahalik argiena bereizi nahian, antza denez (cf. Irigoyen 1981: 367).

Arazo berezirik aurkezten ez duten izenkietan azentua jartzea salbuespena da, honelakoei oraindik garrantzi gutxiago ematen zielako seinale; Larramendik aipatzen ez duen mugagabeen erroak —gorago 6 aldiz azentuaz aurkitu dugun *beté* berak— bere gordetzen du azentua adibide bakar batean (*urte betétara* 14-53/54), beste hainbeste gertatzen da datibo pluralean (*probéai* 16-24) eta 1. graduako erakuslearen instrumentalean (*onéz* ‘honetaz’ 13-105).

Honelako adibideen urriak iradoki lezake Larramendiren deskribapenetik —deskribapen bakar eta, hortaz, kanonikotik— oso hurbil dagoen azentua izanik, Añibarrok etengabe markatzeari lan alferra iritzi ziola, eta kasu berezietara soilik mugatu zela. Halere, aurkezteko geratzen zaizkidan bi adibideek badirudi besterik adieraz dezaketela: *adisquidéaren* (2-100) eta *eurecáz* (7-51), Larramendiren arabera *adisquidearén* eta *éurecaz* (*éurocquin* 1729: 31) izan beharko lirakekeenak. Bi adibidetatik ondorioak ateratzea larregi izan arren, baliagarri izan daitezke gerroago aurkituko dugunaren sarrera modura, zeren eta Añibarrok sarrienik markatzen duen azentua aldez bakarrik baitator bat Larramendiren azentu sistemarekin.

Azentu bereizgarriaren zereginik garrantzitsuena, Larramendik ere zehaztua (1729: 351-352), ergatibo singularra (*guizonác*) eta nominatibo zein ergatibo plurala (*guizonac*) bereiztea da; gramatikan ematen dion garrantzi handiaren arabera-koa⁴² da erabat *GGer*o-n honelako azentuak daukan maiztasuna:⁴³

ibilteác (0-4), *eguitecóac*, *ichiteác* (0-5), *ecáchac*, *cérac* (0-29), *Dotoréac* (0-42), *útsac*, *fáltac* (0-64), *artúac* (0-67/68), *Onelacóac* (0-112), *zarrác* (1-36), *itsúac* (1-226), *escúac* (1-232), *zárrac* (1-249), *nequéac* (1-265), *Doctoréac* (2-5), *eriotzeác* (4-92), *Gurasóac* (4-177), *gaissoác* (4-187), *Seméac* (7-32), *egúnac* (12-204), *aberátsac* (16-114), *ondasúnac* (16-213, 16-223, 16-253), *saréac* (17-39), *ondasúnac* (17-84), *maitéac* (19-37), *Guizonác* (19-49), *juramentúac* (19-252), *Apostolúac* (19-280), *aguirácac* (20-221), *eguitecóac* (20-225/226), *bigúnac* (22-74), *arrióac* (24-3), *santuác* (24-15/16), *lapúrrac* (24-28), *ondasúnac* (24-31), *Jaunác* (24-32), *gentéac* (26-3), *bestéac* (26-41), *zancóac* (27-19), *gorrotóac* (28-6), *gaistóac* (28-19), *icasléac* (28-33), etab.

Alabaina, baditu beste zeregin batzuk, hala nola *óna* / *oná* ‘hona’ bereiztea; *oná* bakarraren aldean, termino markatua izenondoa izaten da, singularrean maiz, pluralean bakanago:

oná emen (0-31), *gogo óna* (0-124), *eguite ónac* (0-129), *deseo óna* (3-112/113), *ain óna* (5-5), *óna da* (5-25), *urte óna* (5-116), *óna da* (8-21), *óna* (8-195), *gogo óna* (15-234), *óna* (16-46), *bide óna* (16-214), *eguicai ónac* (17-36), *gauza ónac* (17-63), *gauza óna* (19-54), *óna* (19-57), *Gauza óna* (20-17), *gauza óna* (20-151), etab.

LoraS-ko “hutseginen zuzenbidean” ezarri zuen arauari atxikita, *zu zará* eta *zuec zará* ere bereizten ditu azentuak, eta leku berean gordetzen da pluralaren forma aldatu arren; arauarekin bat ez datorren adibide bakarra (*záre* 13-38) nahaske-ta izan liteke:

⁴² “Hai nombres que no se pueden distinguir si son singular o plural si no es por el acento: y por eso es mui necesario éste para la construcción bascongada” (*GB* 168).

⁴³ Erlatibozkoan adibide bakarra aurkitu dut: *dabillanác* (46-220).

zará (0-90, 0-151), *Etzaré* (4-169), *zára* (8-237), *etzára* (9-208), *azará* (41-181), *zaréan* (46-262), etab.

Bokalen bilkuratik sortutako azentua, *GGero*-n Añibarrok oso bakan erabilzen du kontsonante baten galeraz gertatutako uzkurduretan (cf. Larramendi 1729: 369 *gorá*, *berá*, ordea):

bá ‘bada’ (5-55), *gorabéraren* (14-49), *álic guichiena* (19-84), *gora-bérac* (46-343/344).

Maizago, berriz, *-a-z* edo *-e-z* amaitutako hitzen pluraleko deklinabidean zein superlatiboan:

demporétan (0-28), *arimén* (0-56), *demporétan* (1-239/240).

umétara (0-157), *bestén* (1-139), *vertutén* (2-31), *besténtzat* (2-87), *bestén* (2-97), *naibaguétan* (3-50), *bestén* (8-79/80), *bestén* (14-74).

lucénetan (4-108), *lucénaz* (13-99).

Erabilera hau mendebaleko sistemaren arabera da, azentua erroaren azken silaban erortzen baita: *echéatic*, *echétan* (Larramendi 1729: 368) eta *edérren*, *ciquíñen* (1729: 351; Hualde 1991: 747). Halere, Añibarroregan azentu berbera hartzen dute kontsonantez amaitzen diren izenkiek, arau nabarmen apurtuaz:

utsétan (3-2), *egunén* (14-52), *aberatsén* (16-110), *ondasunén* (17-19), *aserrecorrén* (20-10), *illén* (20-108), *eutsenén* (53-99), *gachétan* (54-21).

baita erakusleek ere, singularrean zein pluralean:

orrén ‘horren’ (4-39), *orrétatic* ‘horietatik’ (6-105).

Luze joko luke adizkien azentuaz Larramendik (1729: 357-367) egiten duen deskribapen zehatza hemen berriz kontatzeak. Eta, gainera, alferrikakoa izango litzateke neurri handi batean, Añibarro nagusiki beste era bateko azentuaz kezkatzen baita. Aipa dezadan, dena dela, Larramendik (1729: 360) *eguingó cénduque*, *nítuque*, *cíniquet* ematen dituela alegiazko adizkietarako; Añibarrok *guenduqué* (54-48), *leuqué* (54-164), aldiz. Halaber, ez du betetzen *-la* atzizkiak azentua erakartzen duelako legea, baina hau ez da oro har adizkietan markatzea interesatzen zaion azentuak dakartzan ondorioetako bat baizen: hein handi batean bokal bilkurarekin lotuta dagoen azentu batez ari naiz.

Izan ere, *zará* / *zára* bereizketa eta alegiazko adizki azentuatu bakanak alde batera uzten baditugu, Añibarrok aditzean markatu ohi duen azentuak bi salbuespen bakarrik ditu: *ezpében* (3-61), hau ere bokal bilkuraren ondorio, eta *eztá* (9-136). Gainerako azentu guztiak, edozein baldintzatan, *-e* pluralgilearen gainean (hala dagokionean baita *-dé* forman ere) erortzen dira, nagusiki pluraleko hirugarren pertsonan, beraz:

dacardén (0-42), *ezteusté* (0-69), *deutsé* ‘haiek hari’ (0-80), *ebéla* (0-116), *eutsézan* ‘hark haiei’ (1-105), *ebén* (1-196), *euquénac* (1-197), *ebéla* (1-198), *eutsén* ‘haiek hari’ (1-199), *deutsé* ‘haiek hari’ (2-7), *ebénac* (3-43), *deutséla* ‘hark haiei’ (3-149), *euquén* (8-41), *deutséz* ‘hark haiei’ (8-83), *eutsézan* ‘hark haiei’ (12-201), *eutsézanean* ‘haiek hari’ (13-213), *eutsén* ‘hark

haiei' (14-106), *ebéla* (15-265), *deutsé* 'hark haiei' (15-326, 16-132), *dabénac* (18-127), *ez-teutséla* 'haiek hari' (19-251/252), *dabén* (20-235), *deutsé* 'haiek hari' (27-23), *deutségu* (28-25), *deutséla* 'hark haiei' (31-56), *eutsén* 'hark haiei' (37-50), *dabé* (38-9), *ebén* (39-19, 39-22), *deutsé* 'haiek hari' (40-76), *dabéla* (41-129), *deutsé* 'haiek hari' (41-165), *dabéla* (41-226), *eutsén* 'haiek hari' (42-29), *ebén* (42-103), *deutsézu* (42-142), *ebéla* (43-112), *jaquéla* (43-113), *eutsén* 'haiek hari' (43-115), *ezpaleutsé* 'hark haiei' (43-116), *dauquén* (43-117), *dauqué* (43-118), *deutsén* (43-219), *badeutségu* (43-273), *deutsé* 'haiek hari' (44-53), *dauqué* (44-68), *dabé* (44-85), *dirautsé* (45-15), *ebélaco* (45-87/88), *dabélaco* (45-129), *jaquén* (46-334), *badeutsé-guzala* (47-153), *dirautsén* (48-213), *erabillén* (49-10/11), *dacardé* (50-36), *badeutségu* (51-7), *deutsézu* (51-66), *baleuqué* (51-102), *jaqué* (53-70), *euquéla* (53-237), *eustén* 'haiek niri' (53-247), *baleutsé* (54-161), *zagozénac* (54-200), *ebélaco* (56-80), *etab*.

Oso garrantzizkoa da ohartzea, Añibarroren hizkeran —eta idazkeran (§ 4.2.1)— *deutsa* / *deutse* erako bereizkuntzak neutralduta egon arren, baita analogiaz *jaca* / *jaque* bezalakoak ere, ez duela behin ere azenturik jartzen osagai guztiekin singularreko komunztadura egiten duten adizkietan; beraz, azentu hau bereizgarria ere bada, *deutse* 'hark hari' / *deutsé* 'hark haiei' eta 'haiek hari', edo *daben* 'hark' / *dabén* 'haiek' bezalako bereizkuntzak egiteko baliagarri den neurrian. Salbuespen bakarra dago, *dabén* (20-237), ziurrenik aurreko bigarren lerroan agertzen den *dabén* zuzenaren eraginez okertua.

Araua oso indartsua da. Alde batetik, erlatibozkoan genitiboa markatu beharrez bakarrik hausten da, adibide bakar batean: *eutsenén* (53-99). Bestetik, analogiaz hedatu da *ibili* aditzaren pluralera (cf. *dabiltz*, 8-12): *dabiltzéla* (41-215), *dabiltzénac* (40-37/38, 41-2, A-64).

Amaitzeko, komeni da azpimarratzea *GGero*-n azentuen banaketa ez dela erregularra, goian emandako adibideetan soma daitekeen bezala. Lehen orrietan azentuak ugari dira eta, beraz, zati hau arreta handiz idatzi edota zuzendu zelako hipotesia berresten dute. Hurrengo orrietan maiztasuna beherantz doa nabarmen, eta azentu bereizgarria behinik behin ia erabat desagertzen da zaharragotzat jo dudan B atalean. Bokal bilkuraz sortutako azentuari dagokionez, kontsonantez amaitutako hitzetan izan ezik, adibide guztiak 16. burua baino lehenagokoak dira. Alderantziz, C eta D ataletan azentuak ugarixeago agertzen dira, batez ere adizkietakoak, eta hauetan goraka doa azken kapituluetan (gutxi gorabehera 39. burutik aurrera).

Bokal bilkuraz sortutako azentuan eta adizkietakoan dauden gorabehera guztiak, dena dela, beste kontu batekin lotu beharrekoak dira: *e + e* bilkuratik sortzen diren ondorioekin (§ 4.2.4).

4.2. Hotsak

4.2.1. a > e / i *zein* u —

EL-aren bi argitalpenen artean Añibarrok arlo honetan egin zuen hautu garrantzizkoenetako bat, bere ama hizkeraren ezaugarri honen kaltetan jokatzea izan zen, eredu orokorrako baten alde eginaz (Urgell 1985: 99).

Bokal itxien ondoan bokal irekiena ixteko joera honek era guztietako hitzei eragiten die, baina bereziki interesatzen zaizkigu izenkietako morfema mugan eta adizkietan gertatzen diren aldaketak, paradigma jakinen barrukoak baitira eta, halatan, morfologi sistemaren arlo batzuetan eragina izateko gauza.

Leheni dagokienez, enborraren azken bokala edota *-a* artikulua aldatzen du itxidurak, forma biluziaren gaineko eta atzizkiaren loturako bokalaren gaineko zalantzak sorraraziaz. *GGero*-ko bilakaera aztertzeke, *arima* / *arime* eta *deunga* / *deungue* bikoteak hautatu ditut erakusgarri.

Liburu honetan, artikulurik gabeko forma *arima* da beti, baita artikuluduna adibide bakar batean (ik. § 4.2.3), *EL*¹-ean ez bezala:

arima galdua (8-241), *arima obetu* (14-47), *arima joanai* (16-18), *ceimbat arima* (18-155), *zure arima Jesusen odolaz irabaciac* (19-338/339), *arima ta gorputza* (20-165), *aimbeste arima* (31-33, 40-114), *arima garbia* (42-24), *arima batec* (45-118), *arima bat* (46-35), *Arima debotoen* (46-38/39), *arima justuac* (46-51), *arima barrucoac* (46-137), etab.

Halere, deklinabide atzizki birekin zalantzak ditu oraindik: *-tic* atzizkiaren arabera, B atala dateke zaharrena, beti bezala:

arimatic (6-69), *arimetic* (15-71), *arimatic* (43-222).

-ko atzizkia, ordea, beste zerbaitez mintzo zaigu. Izan ere, *arimeco*-ren adibi-deak C eta batez ere D ataletan agertzen dira, baita *arimaco*-ren alde-aldean agertu ere, aldaerak txandakatzea estilo-lana bailitzan, hizkuntza aberastu eta ñabar-zeko baliabide gisa:

arimaco (6-43, 12-136, 21-8), *arimeco* (21-9), *arimaco* (21-10, 30-42, 31-18), *arimacoa* (31-123), *arimeco* (33-7), *arimacoa* (34-43), *arimeco* (37-11), *arimaco* (37-12, 42-13, 47-92), *arimeco* (47-98), *arimaco* (47-108), *arimeco* (48-152), *arimaco* (48-153), *arimeco* (48-164/165), *arimaco* (53-3, 54-142, A-80).

deunga / *deungue*-ren kasuan ere, hots-aldaketarik gabeko aldaeraz jabetu eta erabiltzen hasia da *GGero*-n, *EL*¹-ean ez bezala, baina bi aldaerak pare-parean dabilta, eta *arima*-n baino atzizki gehiagorekin (partitiboa, konparatiboa, nominatibo plurala...) zalantzak daude, agian erdal formaren euskarria ez izateagatik. Hitz honetan, bestalde, ez da estilozko txandakatzerik ere antzematen:

deungac (7-118), *deungago* (8-7), *deungagotuten* (8-31), *deungai* (8-87), *deungue* (11-228), *deungueric* (12-158), *deungago* (12-225, 13-53), *deunguego* (14-23), *deungueac* (pl.) (14-145), *deunguego* (15-198), *deungue* (19-200, 19-234), *deunguecoa* (20-156), *deungac* (20-160, 22-41), *deungago* (22-52, 23-89), *deunguego* (24-55/56), *deungago* (28-22), *deungueren* (28-96), *deungueric* (28-111), *deunguetan* (33-49), *deungue* (34-11), *deungac* (34-53), *deungai* (34-60), *deungago* (43-223).

Adizkiei dagokienez, hainbat ezaugarrik pairatzen dute itxiduraren eragina: laguntzaile iragankorrean, singularreko 3. pertsonaren datibo singularrak (adib. *deutsagu* > *deutsegu*), 1. pertsonarenak *egin*-en (adib. *da(g)idala* > *da(g)idela*), eta aditz trinko askotan konpletiboa (*-la*), erlatiboa, lehenaldia zein zehar-galdera

(-n) egiterakoan loturan agertzen den bokalak (*dabillan* > *dabillen*, *dabiltzan* > *dabiltzen*, *da(g)iala* > *da(g)iela*, *dantzuana* > *dantzuena*, *daucala* > *dauquela*, *dirauan* > *dirauen*, *dituala* > *dituela*, *dozuzala* > *dozucela*, *jacuzala* > *jacucela*, etab.).

Bestalde, agi danez, itxidura analogiaz hedatu da bi sailetan: laguntzaile irangangaitzaren datibo markan (*jacala* > *jaquela*) eta pluralgilearen ondoko bokalean (*deutsezala* > *deutsecela*, etab.); baina, bestalde, hiperzuzenketen iturri ere izan daiteke (*leuque* > *leuca*).

Gertakari hauetatik guztiotatik bereizkuntza baten neutraltzea eragiten dutenak bakarrik miatuko ditugu hemen: batetik, 3. pertsonaren datiboak (*deutsegu*, *jaquela* erakoak); eta bestetik, loturako bokalak bereizgarritasuna dueneko kasuak (*dituela*, *dauquela* erakoak, baina ez *dabillen* edo *dabiltzen*). Hiperzuzenketa sistematikoen arloan (*neuca*, *leuca*...) zer gertatzen den aztergai izango dugu, orobat.

Adibideak erruz ditugunez, lartxo aukeran, ikertu gai bakoitzeko forma bakar batera mugatu naiz, eta *GGERO*-ko atal bakoitzetik hiru burutara, hasierako, erdiko eta bukaerakora; hona emaitzak:

deutsa- / *deutse-*:

ezteutsat (0-58), *deutsegu* (2-123), *deutsazu* (3-105), *badeutsegu* (16-74), *ezteutsagula* (16-78), *deutsegunez*, *badeutsegu* (16-90), *deutsaguna* (16-100/101), *deutsagu* (16-102), *deutsazunean* (16-118), *deutsanac*, *deutsala* (16-121), *deutsala* (16-123), *deutsazunean* (16-126), *deutsala* (16-130), *deutsaguz* (16-131, 16-132), *deutsala* (16-141), *deutsazu* (16-151), *deutsala* (16-175), *deutsazunean* (16-177), *deutsana* (16-224), *deutsaguz* (20-58), *deutsaz* (20-178), *deutsan* (20-257), *ezteutsazu* (22-57), *deutsazuzan* (22-95), *deutsan* (22-109), *badeutsat* (22-116), *deutsazanac*, *deutsan* (22-132), *deutsala* (22-141), *deutsazuna* (22-146/147), *deutsan* (56-31), *deutsazunari* (56-145).

jaca- / *jaque-*:

bajacan (1-213), *jacazan* (1-231), *jacaz* (2-33), *jaquenic* (3-63), *jacan* (3-127, 3-134, 10-96), *jacazan* (16-31), *jacaz* (16-32), *jacan* (16-200/201, 20-35, 20-44), *jacazala* (20-214), *jacana* (22-3), *jacaz* (22-13), *jacan* (22-35).

ditua- / *ditue-*:

dituen (1-260), *dituena* (2-119), *dituan* (4-72), *dituela* (16-96, 16-113, 16-222, 16-223), *dituan* (16-257, 20-3), *dituala* (20-11), *dituan* (20-189), *dituanac* (22-48), *dituan* (39-35, 56-72).

dauca- / *dauque-*:

dauquezunean (3-21), *daucazuzan* (4-130), *daucazuz* (4-131), *dauquegu* (4-223/224), *dauquela* (10-106), *dauquena* (16-9), *daucanac* (16-261), *daucanari* (20-62), *dauca* (56-30).

leuque- / *leuca-*:

leuquela (0-26), *leuque* (3-52), *leuquenic* (4-79), *leuque* (16-169, 16-200, 20-205, 22-138, 56-10, 56-20), *leuca* (56-41).

Erakusgarri honetatik kanpora C zein D ataletan salbuespenen bat egon litekeela zeharo ezinezkoa ez izan arren, uste dut emaitzak ezin argiagoak direla, guz-

tiz adibide gehien bildu dugun kasuan: *deutse*-ren azken agerraldia 16. buruaren hasieran dago, hots, B eta C atalen mugako 162. orrialdean, hain zuzen. Antzerako emaitzak erdietsi ditugu *dauque*- eta *ditue*- formetan, azken honek iraupen handixeagoa badauka ere, eta *jaque*-renak ez ditu besteak gezurtatzen.

Beraz, badirudi aditzaren arloan erne ibili zela Añibarro, C ataletik aurrera, itxidurak eta haren ondorenek eraginik izan ez zezaten, aditza aztertu ondoren ziu-rrenik neutraltzeek argitasuna edo ulergarritasuna kalte zezaketela gogoan izanik. Edonola ere, lehentxeagotik ere badaude norabide bereko zuzenketa zenbait: *eutsan*: lehenago *eutsen* (8-103), *dituanac*: leh. *dituenac* (8-185) eta, geroago, *eustan*: leh. *eusten* (18-73).

Halere, arreta berezi honek nahi ez bide zituen ondorio batzuk izan zituen, hiperzuzenketarako joera sortu baitzitzaion: cf. *deutsenac*-en ordez *deutsanac* (18-50), inoiz garaiz zuzendu bazuen ere (*deutsedaz*: leh. *deutsadaz* 18-104, *deutsezue*: leh. *deutsazue* 28-22). Joera honen barruan sartu beharrekoak dira, noski, *leuca*- tankerako adizkiak: laginean forma bakar bat aurkituko, eta hura *GGero*-aren azken buruan. Hortaz, merezi du honelatsukoen banaketa berrazter dezagun liburu osoan:

cenduca (19-199), *leuca* (24-18), *cenduca* (25-13), *leuca* (27-42, 31-123, 46-234, 47-187, 48-16), *leucala* (49-127, 54-7), *leuca* (54-114, 56-41).

19. buruan dago, beraz, lehen agerraldia, C atalaren bukaera aldera. Haietako bat, gainera, berariazko zuzenketa da (*leuca*: leh. *leuque* 47-188).

Bidenabar, jakingarria da ezen, ez Zabalak aipatu (1848: 20), ez Gamindek jaso (1984-1985: I, 425 t. hur.) dutela *leuca* erako formarik eta, oso oker ez banago, *EL*-aren bi argitalpenetan ere ez dago haien arrastorik; beraz, baliteke zalantza handiko garai honetako erakusgarri ez eze, ezaugarri ere izatea. Jakintzat eman behar dugu, edonola ere, *GGero*-n *cenduca* eta *leuca* formak ez direla bakarrak, ez eta D atalean bertan ere; eta ez dut inoiz **neuca* aurkitu (cf. *neunqueana* 35-38, *neunque* 35-55, etab.).

Haren jatorriaz, hiperzuzenketaz gainera beste zerbait aipatu behar da: tartean *euki* aditzaren kutsadura ere egon daitekeela, 3. pertsonarena zehazkiago (cf. *ezpaleuca* 42-212, vs adib. *baceuncaz* 13-174).

4.2.2. *Bokal bikoitzak*

Fenomeno ezberdinen ondorioz, zenbait hizkeratan bokal bikoitzak —edo luzeak?— agertzen dira, dakigunez (cf. Mitxelena 1977: 111-114). Deklinabide kasu batzuek sortzen dituztenak eta adizkietan agertzen direnak ondoko bi ataletarako utziaz, honetan besteez kezkatuko gara: kontsonante baten galeraz eta elkartu-eratorrietan morfema mugan gertatzen direnez, baita euskara historikoan azalpen errazik ez dutenez ere.

EL^2 -ren ezaugarri deigarrienetako bat honelako bokalak halako maiztasun batez agertzea da, bizkaieraren ekialdeko hizkeren ezaugarri baita eta, beraz, nolabait idazle markinarrengan ikasia. EL^1 -ean ez dira ezezagunak, baina salbuespen-tzat jo daitezke. Añibarroren garapenaren barnean, hitzak ahalik eta formarik osoenean emateko joera gisa uler daiteke, hasieratik ahozko euskararen arlo guztietako uzkurdurak idatzitik uxatzen saiatu zenez gero.

Jadanik ikusi dugu (§ 4.1.4) hasperenaren galeraren ondoko bokal berdinar batzetik sortutako bokala azentuaz markatu zuela *GGero*-n bakan batzuetan (*gorabéra, álic*), baina zehaztu behar da hau ez dela ohikoena. Izan ere, bokal bikoi-tzei dagokienez liburu hau bi EL -en artean kokatu behar dugu, lehenengo argital-penean baino maizago agertzen baitira, baina bigarrenean baino askozaz hitz ezberdin eta testuinguru gutxiagotan. Adibidez, ez dago *-ari* atzizkidunik (cf. EL^2 -n *edaari, escaari, guraari, lotsaari, miraari, yanaari*), ezta *aaztu, leen* edo *naaste* bezalakorik behin ere. Alabaina, hurrengo hitzotan oso sistematikoa da (lehen age-rraldia bakarrik jaso dut):

aala (12-95), *aalic* (16-198), *beera* (11-39; *beerena* 11-116), *beeratu* (1-184), *mee* (1-214).

beraa (1-214), *banaa* (13-192), *beraatu* (15-59).

Hauetakoren bat, gainera, zuzenketaren ondorio da: *beera*: leh. *bera* (11-39). Eta hauezaz gain, jadanik EL^2 -ko jokabidearen iragarle diren *iraaquian* (22-39), *zaartu* (35-99) eta *beetu* (54-83) forma bakartuak ere aurki daitezke.

4.2.3. $a + a$

Ezaguna da zenbait hizkeratan —bizkaieraz batik bat— ez dela betetzen erdi-ekialdeko eta euskara batuko $a + a > a$ araua; honen orde z fenomenu ezberdinak kausi daitezke, haieratik ezagunena deklinabide singularreko kasu batzuei baka-rrik eragiten dien $a + a > ea$ araua.⁴⁴

EL -aren bi argitalpenen artean dauden aldeak Añibarrok alde honetatik izan zitu-ten zalantza handien erakusgarri dira, ez batean, ez bestean somatzen baita arau sistematikorik, batetik bestera $a + a > ea$ nabarmenki indartzen bada ere, eta are EL^2 -n forma berri batzuk (nominatibo pl. *-aak*, lokatibo sing. *-aan*) lehian sartzen baitira lehengoez gainera. Ondoko taulan jasotzen ditut bi argitalpenen emaitzak:

	EL^1	EL^2
NOR sing.	-ea (-a)	-ea (-a)
NOR pl.	-ak	-aak (-ak)
NORK sing.	-eak (-ak)	-eak (-ak)
NOREN	-aren (-earen)	-earen
NORI	-eari (-ari)	-eari (-ari)
NON	-an	-an (-aan)

⁴⁴ Fenomenu honen egungo banaketarako ik. Zuazo (1998).

GGero-n, EL^2 -n bezalatsu, nabari da Añibarrok $a + a > ea$ araua indartzearen alde lan egin zuela, hamaika baitira alde honetatik egindako eskuzko zuzenketak:

arimea: leh. *arima* (0-51). *gauzea*: leh. *gauza* (4-15/16). *vicitzea*: leh. *vicitza* (4-208). *demporea*: leh. *dempora* (12-21). *deungueac*: leh. *deungac* (19-293). *gaisquilleari*: leh. *gaisquillari* (20-56). *gaucea*: leh. *gauza* (20-65). *erriртеa*: leh. *erriрта* (23-24). *peneagaz*: leh. *penagaz* (31-86). *danzea*: leh. *danza* (32-70/71), etab.

EL^2 -ko berrikuntzei dagokienez, ostera, ez dago *GGero*-n lokatibo *-aan* edo nominatibo plur. *-aac*-en lorratzik ere. Beraz, arlo honetan, *edaari* eta antzekoetan bezala, baliteke Mogelen eraginak baino, ondoko markinarren lanenak izatea azken hitza. Kontua astiroago aztertzea bada ere, hala balitz, *GGero* eta gainerako lan garaikideak zehazkiago 1816 aurrean datatu beharko genituzke, f. Bartolome eta J. J. Mogelen argitalpenak agertu baino lehenago, alegia.

4.2.4. $e + e$

4.2.4.1. *Deklinabidean*

Pluraleko genitibo eta leku-kasuetan suertatzen da $e + e$ bokal topaketa, baita superlatiboan ere. Añibarroren idazkeraren ezaugarri da $e + e > ee$ araua betetzea, batzuetan bokal bikoitzaren ordeztu *é* azentudunarekin gauzatzen dena (§ 4.1.4), baina are ezaugarriago kasu beretan ' $a + e$ ' zein '*konts. + e*' testuinguruetan ondorio bera izatea.

EL^1 -etik EL^2 -rako igarobidean $e + e > ee$ egiteko joera indartu da, forma osoagoak ematearen alde hartu zituen hamaika erabakietako bat, baina kontsonante ondoko testuinguruetan e bakarra idazteko joera nagusitzen zaio, batez ere genitiboan, $a + e > ee$ egiteko joerari eutsi zion arren.

Kontua da, beraz, bien bitartean non kokatu behar dugun zehazki *GGero*. Hauek dira ohiko laginak eskaintzen dizkigun adibideak:

$E + E > EE$: *Doctore-etaric* (0-6), *videetan* (0-125), *ateetara* (16-147), *probeetara* (17-96), *utseguiteetan* (22-141), *aserreetan* (23-61), *emacumeetan* (39-35), *edaleetan* (39-35/36).

$E + E > E$: *Piramidetan* (1-80), *uts eguitetan* (1-142), *axetaco* (2-6).

$A + E > EE$: *erracuntzeetatic* (0-10), *gauceetaric* (3-43), *peneetara* (16-143), *verbeetan* (20-219), *peneetara* (56-72).

$A + E > E$: *itzcuntzetan* (0-46), *gaucetara* (1-116), *perseguilletatic* (1-127), *elgontzetan* (3-19), *guerretaco* (3-78), *dantzetan*, *ezcontzetan* (4-220), *adierancetan* (10-10), *esturetan* (10-33), *ele-xetan* (16-183), *demporetan* (39-21).

konts. + E > EE: *ondasuneetatic* (17-24).

konts. + E > E: *egaletan* (0-92), *ciquiñetara* (1-113), *lenenetatic* (1-170/171), *bearretara* (1-245), *bacarretan* (3-2), *utsetan* (3-58), *atseguñetan* (3-80), *atseguintasunetan* (3-81), *bacarretan*, *icharomenetan* (3-94), *utsetan* (3-145), *gueienetan* (4-99), *promesetan* (10-9/10), *larritasunetara* (10-35), *atzamarretatic* (10-61), *gogorretatic* (10-65/66), *ebenetaric* (10-77),

promesetan ta esanetan (10-78/79), *onetara* (16-51), *ondasunetario* (16-98), *ondasunetan* (17-91/92), *aserrekorretatic* (22-30), *anditasunetan* (22-108), *Gueienetan, jan-edanetan* (39-68), *bacarretan* (56-67/68).

Erakusgarri txiki honen arabera, $e + e > e$ araua hasiera-hasierako buruetan bakarrik lekukotzen den bitartean, $e + e > ee$ egiteko joera gorantz doa C eta D ataletan; ildo beretik dator, noski, $e + e > é$ ondorioaren bat-bateko desagerpena, gorago iradoki legez. Aipatuez gainerako *ee*-dun adibide guztiak biltzeak argi gehiago egingo bide du:

nequeetara (13-5), *gazteetan* (13-167), *eguiteetan* (14-97/98), *urteetan* (14-126), *umeetara* (19-132), *utseguiteetara* (31-117), *echeetan* (31-121), *luceetan* (32-32), *deungueetan* (33-49), *eguiteetan* (35-94), *sareetan* (37-30), *Emacumeetario* (37-38), *emacumeetario* (38-39), *bideetario* (38-54), *echeetara* (38-100), *besteetara* (41-26, 41-31), *besteetario* (41-279), *nequeetaco* (46-39), *nequeetan* (46-62), *parteetario* (47-114), *echeetara* (49-8), *ateetan* (49-119), *nequeetara* (52-17), *naibagueetara* (52-17/18), *irauteetan* (52-169), *luceetan* (53-93/94), *irauteetan* (53-259, 54-55, 54-102/103), *luceetan* (54-103).

$a + e > ee$ araua ahula da gure laginean, eta adibideak B eta D ataletan zehar sakabanatuta daude:

gauceetara (5-44), *gauceetan* (6-43), *deungueetan* (33-49), *berbeetan* (35-93), *gauceetara* (37-66), *gauceetan* (46-72), *criatureetara* (53-16/17).

Are ahulagoa konts. $+ e > ee$ egitekoa; hona geratzen zaizkigun gainerako guztiak:

berrogueta amarreetan (14-128), *calte eguiñeetan* (18-46), *añeneetan* (19-151), *donguetasunetan* (19-235), *laguneetatic* (21-17), *gacheetan* (46-62/63), *oñeetan* (53-161).

4.2.4.2. Adizkietan

Azentu grafikoa jartzeaz eta neutraltzearen kontrako neurriak hartzeaz gainera, adizkietan *ee* marka erabiltzen du Añibarrok pluraltasuna adierazteko. Alabaina, marka hau, hurrengo adibideetan ageri denez, 16. bururaino oso bakan eta handik aurrera oso maiz aurkitzen da:

deutsee 'haiek haiei' (0-43), *jaqueela* (9-190), *euqueen* (10-56), *dauquee* (11-291), *dauqueela* (13-105), *eutseena* 'haiek haiei' (15-310), *eutseen* 'haiek hari' (16-144), *cirautseena* 'haiek haiei' (16-218), *jaquee* (16-242), *leiqueezala* 'haiek' (17-37), *dabeenac* (17-38), *dabeela* (17-56), *etzenduqueezala* 'zuk' (17-60), *deutseezu* 'haiei' (17-69), *badauquee* (18-54), *eztauquee* (18-55), *dabeenac* (19-48), *daroaqueezanac* (19-128), *deutseelaco* 'haiek haiei' (19-130), *cirautseen* 'haiek hari' (19-153), *deutseela* 'haiek haiei' (19-167/168), etab.

Banaketa bat dator, hein batean, *EL*-aren bi argitalpenen artean somatutakoarekin, adizki batzuetan (adib. *dabee*, *ebeen*) lehenengoz *EL*²-n agertzen baita. Harelere, xehekiago aztertu beharko da, bai hauetan, baita *LauEv*-en ere, argitaratzaileak emandako adibideen arabera (Ciarrusta 1991: 113-114), bai baitirudi *GGero*-n baino adibide gutxiago dagoela bietan.

Pluraltasunaren marka dela esan dut, eta halaxe da gehienetan; baina hemen ere arazoak sortzen zaizkio Añibarrori, baldin eta, uste bezala, gero eta forma gar-denagoen bila, unibokotasunaren bila bazebilen. Izan ere, NOR eta NOR-NORK adizkietan subjektua pluraleko 3. pertsona dela markatzen du, eta bi pertsonako iragangaitzetan datiboa hura bera dela. (NOR)-NORI-NORK adizkietan, berriz, ergatiboa 1. edo 2. pertsona denean datiboa adierazten du (cf. *deutseezu* goian), baina 3. pertsona denean ez du bereizten datibo-ergatiboak singular ala plural diren: goiko adibideen artean *deutsee*, *eutseena*, *cirautseena* ‘haiek haiei’ dugu, baina baita *eutseen* eta *cirautseen* ‘haiek hari’; adibideetatik kanpora, cf. *deutsee* (50-2) edo *ba-leutsee* (51-78) ‘hark haiei’, eta are ‘hark hari’ *deutseela* (52-166).

4.2.5. a / au

*EL*²-n *au* diptongo etimologikoak osatzearen aldeko saioa egiten du Añibarrok ondoko hitz guztietan: *arkitu* > *aurkitu*, *arpegi* > *aurpegi*, *gabean* > *gaubean*, *jabe* > *yaube*, *Jangoiko* > *Jaungoiko*.

GGero-n joera honen lehen aztarnak kausitzen ditugu. Hala bada, ez dago *aurpegi* edo *yaube* formarik idazlan honetan:

arpegui (2-35, 37-45, 47-60, 52-122, etab.), *jabe* (0-90, 2-64, 42-205, 45-232, etab.).

Jaungoiko, berriz, bi adibidetan baino ez da agertzen (*Jaungoicoaz* 13-5, *Jaungoicoac* 16-117), maizenik erabiltzen duen *Jangoiko*-ren aldean.

Bestelakoa da *arkitu* / *aurkitu* aldaeren bilakabidea:

arquituco (0-49), *arquitu* (2-43/44), *arquitutea* (6-16), *arquituteco* (6-85), *arquitu* (10-13, 10-32), *aurquituco* (12-164), *arquituten* (13-192), *aurquituten* (14-36), *aurquituten* (15-30), *arquitzen* (15-241), *aurquituten* (15-403), *arquituco* (16-69), *aurquitu* (16-146), *arquituco* (16-224), *aurquituco* (19-232), etab.

B atalean biak lehian izan ondoren, 16. burutik aurrera —C eta D ataletan, beraz— ez da diptongoa galtutako forma berriz agertzen, salbuespen bakar batean (*arquituten* 42-22) izan ezik.

Honezaz gainera, liburu osoan zehar ez dago *gaub*-ez besterik, *gaberortean* (20-22) salbu:

gaubez (10-53), *gaubetu* (12-272), *gaubaz* (14-59), *gauban* (28-123), *gaubez* (38-100), *gaubac* (45-173), *gauberdiraño* (45-243), *gaubeco* (46-57), *gaubac* (46-246, 46-251), *gauba* (54-53), etab.

Antza denez, forma hauek erabiltzea ez da behingo erabakia, osoagoak ikasi ahala gauzatuaz joan zen etengabeko joera baizik.

4.2.6. Bokal arteko g

Taiu bereko aldaketa dugu bokal artean galtutako *g* berrezartzeko *EL*²-n egin zuen saio zabala. *EL*¹-en noizbehinka gal zitekeen hitz ezberdinetan (*lenaoco*, *one-*

az, judeuac, bateatic, ezauerazo, eiteco, jaola) eta sarritan *egin*-en adizkietan. Lehenengoetatik, bakar batean aurkitzen dugu *GGero*-n halako maiztasun batez g gabeko forma, gutxiengoan bada ere:

bateaz (0-102, 9-164, 24-25, 35-107). *bategaz* (4-34/35, 4-198, 9-169/170, 10-59, 10-75, 10-84, etab.).

Gainerakoetan, forma osoa baino ez:

lenagoco (1-273, 2-5, 3-24, etab.), *onegaz* (1-119, 5-73, etab.), *judegu* (7-41, 9-206, etab.), *bategaitic* (9-87/88, etab.), *ezaguerazo* (52-90/91), *eguiteco* (0-87, 1-31, etab.), *jagoleac* (50-74).

Egin-en adizkiei dagokienez, EL^1 -ean orainaldian (*daidan* / *daguidan*) ehuneko oso altua da (49/51, %96), eta EL^2 -n, osoki zuzendu ez bada ere, asko jaitsi da (17/32, %53); hainbestetsu gertatzen da aginteran ere (*eidazu* / *eguidazu*). Hona *GGero*-ko emaitzak ohiko laginean eta atalka:

A atala (4/20, %20): *eguiuz* (0-47), *eguizu* (0-49), *eguiozu* (0-53, 0-54), *eguidazue* (0-107, 0-108), *daguidazan* (0-137), *daguidan* (0-138), *eguizu* (0-146), *eguiozu* (0-147), *daguiala* (0-161), *daigun* (1-73), *daigula* (1-243), *daigucela* (1-244), *eguiuz* (1-266), *daguičen* (2-69), *eguizu* (2-73, 2-99), *daiquegunic* (2-126), *daguiela* (3-69).

B atala (4/15, %27): *daiquedan* (3-112), *eguidazu* (3-131, 4-8), *daiogun* (4-25), *daizan* (4-68), *daigun* (4-191), *eguiuzue* (10-25), *eguizu* (10-29, 10-30, 10-39), *daguizun* (10-50, 10-51), *eguizu* (16-11, 16-52), *eguiuz* (16-67).

C atala (7/39, %18): *daguiğun* (16-78), *daguiogun* (16-80), *daigun* (16-81), *Daigun* (16-90), *eguizu* (16-91), *daguien* (16-112), *daguięzan* (16-115), *eguiuzue* (16-137), *eguizu* (16-149), *eguiozu* (16-179), *eguizu* (16-190, 16-192, 16-192/193), *daguizan* (16-204), *eguiuzue* (16-218), *daizuela* (16-219), *daguięzala* (17-19/20), *daguięentzat* (17-21), *daguięzala* (17-23), *daizuen* (17-32), *daguiola* (17-35), *daguiela* (17-69), *eguizu* (17-77), *eguiozu* (17-79), *eguizu* (17-91), *daigun* (17-110), *daguiğun* (17-111), *daguiana* (17-115), *daguięuna*, *daigun* (17-118), *eguizu* (20-13), *eguiuzue* (20-139), *eguiozu* (20-187, 20-193), *eguizu* (20-194, 20-254, 20-255), *daiogula* (22-28), *eguizu* (22-37).

D atala (7/20, %35): *eguięuz* (22-67), *eiozu*, *eguięzu* (22-81), *eguięzu* (22-92), *eguizu* (23-11, 23-29), *eiozuz* (23-57), *daiola* (23-74), *eguizu* (23-81), *eiozu*, *eguięzu* (39-11), *eguięola* (39-14), *daguięun* (56-110), *eguiuzue*, *daizuen* (56-111), *eguięu* (56-121), *eguięuz* (56-124, 56-130), *eguięu* (56-133), *eguięzu* (56-135), *eguięu* (56-137), *eguięuz* (56-141, 56-144, *eiozu* (56-145), *eguięzu* (56-146), *daiala* (56-155).

GGero tarteko egoera batean egotea espero genezakeen arren, ehunekoak askoz baxuagoak dira EL^2 -n baino, edozein ataletan dela. Dirudienez, *egin*-en adizkien forma osoagoak idazteko arta lehenagotik datorkio, baina ez bide zuen gerora hain garrantzizkotzat jo, *GGero*-n bertan antzeman daitekeenez: ohartu, batetik, aginteran aurkitu ditugun g gabeko adibide guztiak D atalean biltzen dira; eta, bestetik, C eta D ataletan elkarren aldean agertzen diren g-dun eta gabeko adibideen ugaria, errepikapena saihesteko noizbehinka erabili zuen aukera bailitzan.

4.2.7. *Ozen ondoko txistukariak*

EL^1 -ean eskuarki txistukari frikariak aurkitzen ditugu n ostean, aditz lagun-tzaile eta trinkoetan izan ezik; l eta r ostean, berriz, tz bederen nagusi. EL^2 -n joera n ostekoetara ere hedatzen da, mailegu zenbaitetan (*doncella, conciencia...*) izan ezik. Areago, bi hitzen topaketara ere zabal daiteke (*bear-tsari, artzantar*), batez ere aditzean: *egintzala, egintzan, illtzan, sartzaita...* EL^1 -ean ere bada honelako adibideren bat, baina 1821eko argitalpenean haboro.

l ondoko testuinguruan ez dugu harritzeko ezer aurkitzen G Gero-n: *calzaiduaz* (22-22), *alza* (zuhaitza) (39-32) eta *calzaiduzcoa* (54-195) dira <lz>ren adibide bakarrak, *ibili*-ren adizkiak alde batera utzita (*dabilz* 16-228, *gabilz* 35-51, *zabilz* 48-79, etab.; cf. halaber *darabilz* 45-207).

r ondokoan ere ez: *carcela* beti (4-62, 7-91, etab.), *Arzobispo* (0-59, 0-61), *arzai* (7-52), *forzatua* (35-101), *ecerzat* (45-106), *arzain* (49-19, 49-90), eta adizkietan, baina gutxiengoan: *dacarz* (16-236), *jatorzunean* (17-64), etab.

n ondoko testuinguruan, EL^1 -eko egoera errepikatzen dela dirudi: adibidez, ez dago *entzun* bakar bat ere, eta *jantzi*-ren familiaren agerraldi anitzetatik bakar batean dugu grafia afrikatua (*jantzierac* 4-199/200). Esan gabe doa, beraz, maileguak frikariaren grafiaz agertu ohi direla; esate baterako, testu osoan, *-ancia* eta *-encia* erdal atzizkidun hitz ugarietatik *alegrantziaren* (42-35) soilik aurkitu ahal izan dut. Egia da, bestalde, hitz batzuek <ntz>rako joera aurkezten dutela, maileguak izan zein ez; mia dezagun, adibide gisa, *seguran(t)za*-ren bilakabidea:

segurantzaric (4-2), *seguranza* (4-11), *segurantzaric* (4-84), *segurantzaric* (4-87), *segurantzaric* (4-156/157), *segurantza* (4-166), *segurantzaric* (4-176/177), *segurantza* (4-214), *segurantzaric* (4-218), *segurantza* (4-223), *segurantzac* (5-57), *segurantzaric* (5-153, 10-13), *segurantza* (11-10), *segurantzaric* (13-163/164), etab.

Joera beste hitz garrantzitsu batzuetan ere soma daiteke; *esperanza* dugu hasierako ataletan (3-138, 4-78, etab.), baina *esperantzaturic* (11-59) agerraldiaren ondoren orotara beste lau ditu (*esperantzaric* 11-137, *esperantzac* 15-14, *esperantza* 42-172 eta *esperantzeac* 50-5), sakabanatuxe *esperanza* ugarien tartean. Halaber *venganza* (0-110, 5-140, etab.) edo *benganza* (25-5/6, 26-43, 27-11, etab.), baina *vengantzaren* (20-79) eta *vengantzazcoa* (20-153).

Hitzen topaketari dagokionez, ez dago adibide gehiegi, are EL^1 -ean bertan baino gutxiago ere eta denak aditzean, garai batez halakoak markatzeari utzi ziola adieraziaz: *emontzan* (16-51/52), *iltzan* (16-52, 20-47).

4.2.8. *s/ts, z/tz*

EL^1 -ean zalantzak daude bokal artean (*eracusi / eracutsi, iracasi / iracatsi, jausi / jautsi*), eta oro har frikaria nagusi da. Zalantzak hitz bukaeran (*ezez, gor-*

puz) edo morfema mugan ere —atzizki aurrean (*eriozco* / *eriotzco*, *quiratstua*) zein elkartuen lehen osagaien (*garratz min* / *garrazmin*)— agertzen dira.

Esan gabe doa oso taiu ezberdinekoak direla, batzuek aldaera ezagunen artean hautatu ezina adierazten baitute, edo jadanik hautatua, *irazar-* aditzean bezala; beste batzuk, berriz, osagaiak ageri-agerian jartzen dituen idazkera etimologizalea erabiltzeko garai eta euskalki ezberdinetako idazleek (Axularrek berak ere, esaterako) izan duten joeraren lekuko dira; eta badira oraindik bi azalbide hauetan sartzen ez diren formak ere,⁴⁵ haietako batzuk (*gorpuz*, adib.) hitz bukaeran gertatzen den neutraltzearen ondorio izan balitezke ere.

Batera zein bestera izan, *EL*²-n oro har gaur batuan —hitz gutxitan esanik— ohikoa dena dakusgu nagusi; hots, batetik, aldaeren artean afrikatuduna aukeratu du azkenik, baita *iratzar*-en kasuan ere; bestetik, ahoskeratik gertuago dagoen idazkera hautatu du elkartu-eratorrietan (*kirastua...*); eta, azkenik, gainerakoetan forma arrunta berrezarri (*gorputz*, *ezetz...*).

GGero-n, aldaerei dagokienez, ez dago *irazar-* eta *jausi* baizik liburu guztian zehar:

irazartuteco (0-51), *irazarrico* (7-95), *irazarriric* (31-58), *irazarri* (54-107), etab.

jausiaz (0-99), *jausiago* (13-93), *jausiagoac* (19-9/10), *jausi* (31-28, 50-39), etab.

Berriz, *irakatsi* eta *erakutsi*-n ustekabeko bat hartzen dugu, banaketa aski finko batekin afrikatudun aldaerak hasieran eta frikaridunak gero azaltzen direlako. Adibide gehiago eskaintzen dituen *erakutsi*-ren kasuan, gainera, salbuespen bakar batekin aldaeren arteko muga C eta D atalen arteko mugarekin bat dator:

iracasi: 7-32, 20-100, 41-22; *iracatsi*: 1-204, 2-45.

eracutsi: 0-68, 1-3, 2-35, 4-41, 6-121, 9-222, 10-40, 13-203, 15-209, 16-136, 16-202, 16-264, 17-123, 19-169, 20-99, 20-101/102, 42-75; *eracusi*: 22-106, 23-20, 27-24, etab.

Idazkera etimologizalearen alorrean, gogora dezagun berriz Axular bera ere bide honetatik aritu zela; honegatik espero izatekoa zen, harekin bateratsu, Añibarrok ere beste hainbeste egitea, baina ez da zehazki hala. Bi hitz adibide hartuta, bata Axularrek ere erabilia (*garratz*) eta bestea ez (*kirats*), lehenengoan bietara jotzen duela ageri da, eta Axularrekiko bere kasa:

garratz-min (3-50), *garrazmin* (3-82), *garrazpera* (3-84/85), *garratzmin* (11-53), *garratzasunari* (11-85 < Ax 138 *garratz-*), *garraztasuna* (11-220 < Ax 145 *garratz-*), *garraztuteco* (42-37), *garratzasun* (42-37/38), *garratzasuna* (45-72).

Bigarrenaren eratorri bakarra, aditza, behin izan ezik gainerako guztietan frikariatz jasota dago, berriz:

quirastu (2-69, 7-150, 7-153, 7-154, 8-226, 39-83, 41-162), *quirasturic* (47-103), *quirasturic* (53-129), etab.

⁴⁵ *Ezez*, *OEH*-aren arabera (s.v. *ezetz*), Añibarrok ez eze, Pouvreau, Mogel eta Lardizabalek ere erabili izan dute.

Hiperzuzenketak izan daitezkeen haietan, behean ikus daitekeenez, A eta B ataletan biltzen diren lau adibide dira orotara, eta ez dago haietan txistukari aukerarik:

biotzco (5-29, baina *biotzeco* 12-77, 17-104, etab.), *eriozcoan* (8-42), *eriotzcoa* (8-43), *eriozcoac* (9-78), baina *eriotzaco* (4-74, 4-152, 12-182, etab.) edo *eriotzeco* (15-131), *zorrotzic* (9-67).

4.2.9. *s/z, ts/tz*

Añibarrok bereizkuntza ikasi egin du, aspaldiko partez bereizten dakiten bizkaitar gehienek legetxe, euskalki honetan ia guztian (salbuespenetarako, ik. Mitxelena 1977: §14.2) oposaketa neutraldu baita, Mendebaletik hasita eta XVII. mendearaz geroz (cf. Mikoleta bilbotarra), antza denez, jadanik *RS*-n lehen aztarrenak somatzen badira ere (Lakarra 1996: 145).

Biziki kezkatu zuten gaietako bat izanik, *EL*¹-ean “hutseguinen zuzenbidean” okerrak zuzentzen saiatu zen, dakigunez. Halaz ere, bi argitalpenetan frikarien nahasketaren adibideak ugari daude, askoz gutxiago afrikatueta. Gauzak honela, alferrik arituko naiz hemen *GGero*-ko egoera aztertzen. Bi ohar baino ez nuke egin nahi honi dagokionez. Lehena da *itsal itzal*-en ordeztasun sistematikoa dela hemen ez ezik, Añibarroren edozein idazlanetan ere, dakidalarik. Eta bigarrena, liburu honetakoak batzuetan Axularrek eraginak direla, hala nola *escas* (29-16; cf. *escas* 2-85, 5-89, etab.). Eta behin bederen harena, testuinguruak laguntzen duen horietako bat, zuzentzeko gai izan dela: *bazterrean* < *basterrean* (43-52).

4.2.10. *ct > t*

*EL*¹-ean mailegu bik jatorrizko <ct> taldea mantentzen zuten beti edo gehienetan, *EL*²-n desagertu den bitartean: *doctrina* > *dotrina* eta *sanctua* > *santua*.

GGero-n ez dago forma horien aztarnarik ere; halere, *doctore* dugu maiz C atalaren hasieraraino (0-6, 0-37, 1-49, 2-5, etab. 18-48raino), *dotore*-ren bi agerraldiarekin batera (0-42, 9-18); esandako lekutik aitzina, berriz, *dotore* baino ez (33-41, 41-12, 41-257, 48-129, etab.). Hitz honetan, behinik behin, XIX. mendeararen hasieran indartzen den joera orokorrarekin bat dator Añibarroren jokabidea (ik. *OEH*, s.v. *dotore*).

4.2.11. *n eta l osteko leherkariet*

Ezaguna denez, euskaraz leherkari ahostun eta ahoskabeen arteko oposaketak neutraltzeko joera du *n* eta *l* osteko testuinguruan, zubereraren eta erronkariaren izan ezik (Mitxelena 1977: 230). Alabaina, morfo jakin batzuetan neutraltzerik gabeko aldaerak kausi daitezke aipatu euskalkietatik at ere, guztiz bizkaieraz, Añibarro bera lekuko.

Izan ere, *EL*¹-ean *odoltu* eta *lencusu* formak lekukotzen dira, eta *-mendu* / *-mentu* zalantza orobat. *EL*²-n egiten duenagatik, Añibarrok ez bide zituen forma

hauek guztiak elkarrekin ebatzi, zein bere aldetik baizik. Hala, *odoldu* bilakatzen da bata, baina *lencusu*-k bere hartan dirau, *lengusiñea* ere agertzen dela egia bada ere. Bestalde, atzizkian inolaz ere mendebalean zabalduago dagoen aldaera ahoskabearen alde egiten du.

GGero-n ez dugu hitz solteei buruz sendo hitz egin ahal izateko nahiko daturik, baina badirudi lehengoan dagoela: *odoltutea* (20-182).

Atzizkiaz, ordea, datuak erruz ditugu. Kontuan har bedi, dena dela, Axularrek *-mendu* erabiltzen duenez, honek baldintza zezakeela, hasiera batean behintzat, Añibarroren hautua. Hauxe da, esate baterako, *luzatu* eta *merezi*-ren eratorriek idazki honetan daukaten bilakaera:

luzamendu (0-4, 2-115), *lucemendu* (1-5, 2-117, 3-94, 3-116/117, 3-134, 3-140, 5-144, 6-28/29, 6-61, 12-241), *lucementu* (5-55, 14-36, 31-8, etab.).

mercemendu (0-128, 11-50, 11-173, 12-10, 13-120, 13-124, 13-138, 15-260, 15-414/415, 16-71, 16-212, 17-78, 18-14/15, 18-110), *mercementu* (17-102, 24-47, 28-17/18, etab.).

Bistan da, beraz, *EL*²-n somatu dugun *-mentu*-ren aldeko erabakia lehenagotik datorkiola: bi hitzetan *-mendu* da nagusi, ia-ia bakar, A, B eta are C ataletan. D atal osoan, berriz, ez dago *-mentu* besterik. Areago, erantsi behar da aldaera ahostuna, ez hitzotan bakarrik, baita beste edozeinetan ere desagertu dela azken atalean.

4.2.12. eta *juntagailua*

Añibarrok lau aldaera erabiltzen ditu: *eta*, *ta*, *da* eta *enda*. Gaingiroki hitz eginenez, *EL*²-n azken biak ia erabat desagertzeaz gainera, *eta* forma osoenak zokoratu du *EL*¹-ean nagusi zen *ta* aldaera. Xehekiago, lehengo banaketa testuinguruak baldintzatzen zuen, *enda* eta batez ere *eta* etenaren ondoan agertzen baitziren, *eta da* bereziki *-n* ondoan, *ta* aldaera markagabea, edozein testuingurutan agertzeko gai zen bitartean. Banaketa berrian, hortaz, testuinguruari forma osoa eman beharra gairitu zaio, *eta* franko hedatu baita esaldi barnean, *ta*-ren kaltetan.

GGero-n zer gertatzen den ikusteko, erka ditzagun *EL* bietan erdietsi genituen ehunekoak bertako ataletakoekin:⁴⁶

	<i>EL</i> ¹	<i>EL</i> ²	A	B	C	D
<i>eta</i>	%29,3 (302)	%57,5 (693)	%27,3 (143)	%19,3 (386)	%19 (171)	%13,6 (66)
<i>ta</i>	%68,9 (711)	%41,7 (503)	%72,7 (380)	%80,65 (1.613)	%80,9 (730)	%86,4 (421)
<i>da</i>	%1,4 (14)	%0,7 (9)	—	—	—	—
<i>enda</i> ⁴⁷	%0,4 (4)	%0,1 (1)	—	%0,05 (1)	%0,1 (1)	—

Antza denez, tarteko egoera honetan testuinguru fonikoari atxikitako aldaera (*da*) zeharo desagertu da dagoeneko, *eta enda*-k bere lehengo bazterreko paperean

⁴⁶ D atalean 30. bururaino bakarrik hartu dut kontuan.

⁴⁷ Aldaera interesgarri hau orotara hiru aldiz agertzen da *GGero*-n (7-22, 19-48 eta 53-215); beste behin (7-146) *eta*-rekin ordezkatu du.

dirau. Aitzitik, *ta*-k nagusitasuna galdu beharrean indartu egin du: A atalean soilik ditugu EL^1 -en antzeko emaitzak.

4.2.13. Zenbait bizkaieratze

Hitz garrantzizko batzuetan Añibarrok zeharo aldatu du EL^1 -ean egin zuen hautua: *baña* > *baya*, *eche* > *etse* eta *ifini* > *imini*. “Bizkaieratze” izena gehiegizkoa da, inolaz ere, hein batean edo bestean guztiak bizkaieratik kanpo ezagunak baitira, baina aditzera eman nahi du Añibarrok aldaera hedatuagoen kaltetan jokatu zuela honetan, bizkaieraren (zati baten) bereizgarri diren formak hobetsiaz.

GGero-n ez dago *baya* edo *etse*-rik, beti *baña* edo *eche* baizik. Bestelakoa da *ifini* / *imini* bikotearen kasua: nagusiki *ifini* dugu, baina B atalaren bukaera aldetik aurrera eta C atal ia osoan badira *imini* gutxi batzuk, sei orotara, *ifini*-ren agerrialdien artean sakabanatuak:

iminico (15-121), *ifinten* (15-137, 15-221), *ifini* (15-412), *imini* (16-155), *ifintea* (17-39), *iminten* (18-81), *Imini* (19-69), *ifinten* (19-92), *iminten* (19-181), *ifinten* (19-188), *ifintea* (19-208), *ifinten* (19-227, 20-146, 20-196), *ifini* (20-199), *ifinten* (20-203), *imini* (20-219).

4.3. Morfologia

4.3.1. Ablatiboa, prosekutiboa eta gatik-en aldaerak

EL^1 -ean ablatiboan eta prosekutiboan forma aniztasuna da nagusi, singularrean (*-tic*, *-(r)ic*, *-ti*, *-reanic*) zein plural edo mugagabeen (*-taric*, *-tatic*, *-tati*). EL^2 -n forma bakar bat desagertzen da (pluraleko *-tatic*), baina bataz bestekoak zeharo aldatzen dira. Labur esanda, singularreko eta pluraleko forma nagusi asimetrikoen ordeztan (*-tic*, *-taric*) forma simetrikoak (*-(r)ic*, *-ti*; *-taric*, *-tati*) hobetsi dira eta, bestalde, *-reanic* arkaismoa zertxobait indartu da, beti bazterreko paperean bada ere.

Hauek dira *GGero*-aren emaitzak EL -koekin erkatuta:

	EL^1	EL^2	A	B	C	D
-tic	%61,9 (65)	%3 (4)	%92,9 (65)	%94,8 (218)	%91,3 (63)	%67,3 (230)
-(r)ic	%34,2 (36)	%53 (70)	%7,1 (5)	%4,8 (11)	%7,2 (5)	%31 (106)
-ti	%1 (1)	%38,6 (51)	—	%0,04 (1)	%1,4 (1)	%1,8 (6)
-reanic	%2,8 (3)	%5,3 (7)	—	—	—	—
-tatic	%30,3 (10)	—	%50 (8)	%63,3 (57)	%29,5 (13)	%0,9 (1)
-taric	%66,6 (22)	%72 (36)	%37,5 (6)	%32,2 (29)	%52,3 (23)	%82,1 (92)
-tati	%3 (1)	%28 (14)	%12,5 (2)	%4,4 (4)	%18,2 (8)	%17 (19)

Singularrean zein pluralean, EL^1 -eko kopuruak D atalean bakarrik lortzen dira. Singularrean, A, B eta C ataletan ia ez dago *-tic* formaz besterik. Eta pluralean, hainbestera heldu gabe, A eta B ataletan *-tatic* dugu nagusi, EL^1 -ean ez bezala. Ho-

nek adierazten du 1802tik aurrerako garaian ere simetriaren bila zebilela, baina lehenik *-tic* / *-tatic* bikotearen alde makurtu zela. C atalarekin batera gertatzen den *-taric*-en igoera handia da beste norabidean ematen duen lehen urratsa, berehala *-(r)ik*-ek ere jarraitua. Atal birrienetan jadanik somatzen da EL^2 -ko sistema izango dena, beraz.

Zehaztu behar da *-tati* alomorfoa *bertati* eta *berpetati* hitzetan bakarrik agertzen dela, salbu eta *ocasiñoetati* (22-30); halaber, *tatic*-en D-ko agerraldi bakarra *berpetatic* (52-75) dela. Beraz, *GGero*-ko D atalean, EL^2 -n ez bezala, *-taric* erabat nagusitu da, halako forma nekez har dezaketan esapide lexikalizatuetan izan ezik.

gatic posposizioaren kasua oraino argiagoa da EL -an: bateko lau aldaeretatik (*gaitic* %76, *gaiti* %13,7, *gatic* %7,3 eta *gati* %2,7), besteko forma bakarrera iritsi da (*gaiti*, 6 salbuespenekin). *GGero*-n ederki antzeman dezakegu lautik bakar baterako igarobidea gutxinakakoa izan zela:

	A	B	C	D1	D2 (253-308)	D3 (308-364)	D4 (364-)
<i>gaitic</i>	23	139	25	2	4	5	0
<i>gaiti</i>	2	3	42	55	94	113	48
<i>gatic</i>	4	15	0	0	0	0	0

Aurrenik *gati* desagertuta, *gatic* ez da C-D ataletara iristen, *gaiti*-k nagusigoa hartzearekin bat. D atalean ebakidura batzuk eginez, azken aldean *gaitic*-en ezabaketara ere heldu zela dakusgu.

Eskuizkribuan, ataltxo honetan azaldu joeren aldeko zuzenketak hamaikatxo dira, B atalean izan ezik:

bertati: leh. *bertatic* (1-13, 13-33). *orregaiti*: leh. *orregaitic* (19-265). *agaiti*: leh. *agaitic* (41-201). *Onegaiti*: leh. *Onegaitic* (41-278). *peleagaiti*: leh. *peleagaitic* (41-344). *Emeti*: leh. *Emetic* (45-257). *joateagaiti*: leh. *joateagaitic* (46-386). *gaiti*: leh. *gaitic* (53-130).

4.3.2. *Datiboa* (-i / -eri)

Morfo laburrekin gertatu ohi den bezala, fonema bakarreko datibo marka zaharrak luzapena jaso du zenbait hizkeratan, eta Añibarroren idatzietan honen lekukotasun garrantzizkoa kausitzen dugu: izan ere, EL^1 -eko forma luzatuaren adibide parearen ordean, EL^2 -n nahikotxo ugaltzen da, bereziki *bat* zenbatzailean (*bateri*) eta 1. eta 2. graduko erakusleetan (*oneri*, *orreri*).

Joera berankorra bide da: *GGero*-n adibide bakanak denak zenbaitzailearenak izateaz gainera, beti ere *bateri ta besteari* egiturara mugatuta daude (15-158/159, 37-31, 46-239).

4.3.3. *Instrumentala (-zaz)*

Kasu instrumentalaren forma luzatu hau ere ugaltzen da EL^2 -n, bi testuingurura mugaturik, *ascozaz* alde batera utzita: posposizio baten aurrean erakusleekin (*onezaz ostein, azaz ganeti*) edo *erruki*-ren adizlagun gisa erakusle zein pertsona izenordainekin (*nizaz, guzaz*), bigarreanean EL^1 -eko *-gaz*-en ordez.

EL^2 -ko ugaltzea lehenagotik dator kion joera baten ondorio da, dudarik gabe, *GGero*-n ere EL^1 -en aldean ugari agertzen baita, guztiak D atalaren hasierako une batetik atzera aurkitzen badira ere. Ohartzekoa da, dena dela, hartzaileak hemen ere izenordainak eta batez ere erakusleak izan arren, testuinguaren aldetik muga argirik gabe ager daitekeela:

guzaz ondo izateco (4-4), *onezaz gomutetan* (8-176), *aezaz guticiago (da)* (13-20), *onezaz mirarrituten* (14-15), *azaz etsitu* (14-132/133), *onezaz batean* (15-75), *aezaz (balia)* (15-321), *azaz verba eguin* (15-369/370), *azaz gomutatu* (24-54), *orrezaz gomutatu* (27-50).

4.3.4. *Artikulu zaharrak (-au, -ori)*

EL^1 -ean garai modernoetan erakusle bakarrik diren eta, hortaz, bereiz idatzi ohi diren *au* eta *ori* formak maiz izenkiari atxikita ageri dira, berarekin azentu unitate berezia osatzen dutela iradokiaz. Bigarren argitalpenean, ordea, bereiz idazteko joera modernoari amore ematen zaio. Halere, espero zitekeen bezala, (*au*) *berau* edo (*ori*) *guztiori* bezalako forma fosilduak mantentzen ditu.

GGero-n, 12. bururaino ikusten dudanagatik, esango nuke hura hasierako idazlanetan ahozko hizkuntzaren uzkurdurak jasotzeko Añibarrok izan zuen eta gerora ezabatzen saiatu zen joerarekin lotu behar dela hein handi batean, forma fosilduez gainera honako adibide urriok baino ez baitira:

Eguiau (1-186), *naguiori* (1-241), *au demporau* (9-124/125).

4.3.5. *Izenondo femeninoak*

Euskara berez izenkietan femenino eta maskulinoaren arteko gramatika bereizkuntzarik ez daukaten hizkuntzetakoa den arren, mendeetan euskal idazleek *santu / santa* bezalako bikoteak erabili izan dituzte, Elizaren hizkuntzak hartarata. Erabilera hau, sistematikoa ez izateaz gainera, defektiboa ere bada, noski: *santa* jatorrizko hizkuntzan femenino diren maileguei bakarrik —edo batez ere— egokitzen zaie.⁴⁸

⁴⁸ XVIII. mendera arte (Sarasola 1980) honako salbuespen urri hauek aurkitu ditut: *eleyça santuac* (TAV 3.2.6,d), *Eleiza ama santuac* (ib. 3.2.13), *Passiño santuco* (Viva Jesús 16), *Oleaciño santuen* (Kapanaga 66) eta *Humanidade santuen* (ib. 29), *santa* eta are *santisima*-ren adibide ugarien aldean. Beste muturrean, *izara* (Kapanaga 141), *sabel* (ib. 30) eta *izen* (ib. 144) bezalako hitzek ere har dezakete izenondo femeninoa. Joera ez doa beherantz hurrengo 50 urteetan (cf. Lakarra 1984a, s.vv. *santa* eta *santisima*), Elizalde nafarrak izen gisa bakarrik (*Ceruan diren sandu eta sanda guciei*, 18) erabiltzen duela zehaztu behar bada ere.

Tradiziozko jokabide honi zeharo lotuta ageri zaigu Añibarro *EL*¹-ean; eta ezin esan daiteke *EL*²-n ohitura erabat uxatu duenik, baina *santa*-k hartan 56 agerraldi izatetik, honetan 17 izatera igaro da, beti ere *santu*-k ordezkatuta.

GGero-ren barruan *EL*-en artean antzemandako aldaketa horren tankerako bilakaera bat dago: *santa* gero eta gutxiago, gero eta esapide jakinetan baino ez erabiltzeko joera handiagoa somatzen da. Izan ere, lehen buruetan hainbat dira femeninino markadun izenondoa eraman dezaketen hitzak:

Escritura Santa (0-37), *christiñau-legue santa catoliquea* (0-98/99), *bere ama santearen negarrac* (3-122), *miseriordia santearen señaile andi bat* (9-187/188), *Elessa Santatic* (11-29), *Elessa Ama Santa* (11-159), *Susana andra santeac* (11-238/239).

Azken buruetan, aldiz, esan daiteke *elessa* (*ama*)-k bakarrik atxiki duela:

Elessa Ama Santaren (38-55), *Elessa Ama Santeac* (42-56), *Elessa santeac* (46-47), *Escritura santea* (47-4), *Elessa santan* (47-151), *Elessa Ama Santeac* (47-159), *Elessa santeac* (47-184), *Elessa Ama Santeac* (47-186), *Elessa Ama Santeac* (50-52).

Pare bat hitzek erakutsiko digute bilakaera nolakoa izan den. Argiena *lege* da, une batetik aurrera beti *santua* baita:

santa catoliquea (0-98/99), *santuco* (44-24), *santua* (45-6), *santuari* (45-33), *santua* (45-41/42), etab.

Atzera-aurrera dabil, ordea, hasiera-hasieratik *escritura*-rekin:

Santutic (0-6), *Santa* (0-37), *Santuac* (2-5), *Santeac* (3-73), *Santan* (6-4), *Santuac* (8-19), *Santeac* (8-91), *santeac* (9-126), *Santuan* (11-160, 11-217, 14-4), *Santa* (15-91), *Santeac* (15-208), *santa* (15-214), *Santuac* (16-66), *santea* (47-4), *Santuac* (53-55), *Santuan* (56-56).

4.3.6. *baga* / *bagarik*

Aditzondo paperean *EL*¹-ean bi forma daude lehian, *baga* soila eta *bagaric* indartua, bietatik lehena alde handiaz erabiliena bada ere (46/51). *EL*² idatzi orduko, ordea, bigarrena bakarrik erabiltzen du Añibarrok.

Aldaketa berankorra bide da, *GGero*-n behin ere ez baitago *bagaric*. Aitzitik, oso bestelako egoeran gaude hemen, lehiaketa *baga* eta *bage*-ren artekoa baita. Lehen buruetan *baga* bakarrik dugu:

aitetu baga (0-41/42), *oñon baga* (0-48), *eguin baga* (0-70, 0-138), *lotsa baga* (0-150), *errasuric bere baga* (1-11/12), *aldatu baga* (1-57), *eguin baga* (1-58), etab.

Lehendabiziko *bage* C atalean agertzen da, baina atal honetan oraindik agerraldiak bakan-bakanak dira. Orotara, 62 *baga* kontatu ditut, ondoko lau *bage*-en aldean: *eranzun bague* (18-126), *igaro bague* (20-140), *euqui bague* (20-141), *vengatu bague* (20-184).

D atalean, berriz, Añibarro gero eta forma berriaren alde isuriago da. Aurreko emaitzak atal honen hasieratik 25. bururainokoekin erkatzean, eta perpauk berekoak bakartzat hartuta, batz bestekoa berdindu da:

eracusi baga (22-106), *eranzun bague* (22-112), *ganora bague* (22-123), *probechu bague* (22-133), *erru bague* (23-42), *eguin baga* (23-86/87), *emon baga* (24-81), *jo baga* (24-87), *cenzun baga* (25-9), *conorte bague* (25-10/11).

Azken buruetan, ordea, azpikoz gora irauli (5/12):

aldatu baga (54-87), *muguitu bague* (54-90), *aldatu bague* (54-91), *probatu baga* (54-96), *itzuli bague* (54-99), *aldatu bague* (54-109), *erremedio baga* (54-145), *muguitu bague* (54-150), *arindu bague* (54-170), *icharomen bague* (54-217), *ardura bague* (54-220), *confesatu bague* (54-221/222), *castigu baga* (55/55), *pecaturic bague* (55-56), *quendu baga* (55-67/68), *gracia bague* (55-68), *castigu bague* (55-71).

Izenondoak, bestalde, *EL*¹-ean *bage*-rekin eratzen ditu Añibarrok, eta *EL*²-n *ba(g)aco*-rekin. Erabateko aldaketa honen tarteko urrats batean aurkitzen dugu *GGero*: ez dago *bagaco*-rik, baina liburuan zehar barreiatuta, eta azken buruetan maizago, *bagueco* batzuk aurkitzen dira, are *baco* urri batzuk ere:

probechubaguecoac (3-42), *Indarbagueco colera* (29-21), *Erruquibagueco justicia* (30-53/54), *ocasiñobaguecoa* (35-102), *iragote ustebagueco* (37-22), *deseo erabaguecoa* (46-339), *guizon gaisto galdu concienciabaguecoacaz* (49-12/13), *azquenbagueco guerora* (52-17), *Consuelubagueco*, *azquenbagueco... puntu onetan* (54-47/48), *seculabagueco secula agaz*, *esperanzabagueco beti agaz* (54-186/187), *neurribagueco zorra* (55-32), *neurribagueco castigua* (55-38).

ganorabaco (1-71, 8-188 eta 56-123), *neurribaco* (55-36).

Azken buruetako jokabidea hobeto ulertuko dugu 52. burutik aurrera dauden *bage*-dun izenondoak ere ikusiaz, adibidez:

parebague (52-46), *mugabague* (52-97), *parebaguea* (52-99), *fedebague* (53-53), *cenzunbaguea* (53-244), *probechubaguea* (53-264), *baliobaguea* (53-265), *ondarbagean* (54-43/44), *zartubagueac* (54-78), *esquerbaguea* (54-114), *mugabaguea* (54-121), *azquenbaguea* (54-171/172), *adimentubaguea* (54-180), *neurribaguea* (55-11, 55-13), *azquenbaguea* (55-17), *atzenbaguea* (55-18), *neurribaguetic* (55-31), *neurribaguea* (55-35).

Bidenabar, *bagueco* / *bagaco*-z eratutako izenlagunak Añibarrorengan izenaren ondoan agertu ohi dira; goraxeago eman ditudan adibideen artean izenaren aurrean agertzen direnak Axularren eraginari egotzi behar zaizkio, beraz; cf., hurrenez hurren:

Indar gabeco colera (Ax 332), *Misericordia gabeco iusticia* (Ax 337), *fin gabeco guerora* (Ax 572), *consolamendu gabeco*, *fin gabeco... puntu hunetan* (Ax 600), *secula gabeco secula hartçaz*, *esperantça gabeco bethiere hartçaz* (Ax 607).

4.3.7. Posesiboak

Añibarroren idazlanetan posesiboen forma arruntak eta indartuak, bietarik aurkitzen dira, nahiz forma bereizkuntzaren azpian ez datzan inolako legerik, ez

Linschmann/Arestirena, ez besterik, dagoeneko oposaketa neutraldu baita (ik. § 5.1.2.4).

Honako hauek dira emaitza orokorrak aintzat hartzen ari garen hiru liburuetan:

	<i>EL</i> ¹	<i>EL</i> ²	A	B	C	D
nire	%50,8 (124)	%24,2 (63)	%33,3 (3)	%27,3 (6)	%26,7(8)	%57,3 (43)
neure	%48,8 (119)	%20,8 (54)	%44,4 (4)	%40,9(9)	%60 (18)	%24 (18)
ene	%0,4 (1)	%54,6 (142)	%22,2 (2)	%31,8 (7)	%13,3(4)	%18,7 (14)
nerere	—	%0,4 (1)	—	—	—	—
ceure	%71,8 (176)	%69,5 (203)	%35,7 (10)	%61,3 (65)	%64,8 (46)	%61,6 (125)
zure	%28,2 (69)	%30,5 (89)	%64,3 (18)	%38,7 (41)	%35,2 (25)	%38,4 (78)
bere	%99,1 (105)	%96,6 (115)	%98,4 (62)	%92,3 (217)		
aren	0,9 (1)	%3,4 (4)	%1,6 (1)	%7,7 (18)	(4)	(36)
gure	%57 (24)	%80 (44)	%58,8 (10)	%67 (67)	%64 (16)	%58,8 (90)
gueure	%40,5 (17)	%20 (11)	%41,2 (7)	%33 (33)	%36 (9)	%41,2 (63)
guere	%2,4 (1)	—	—	—	—	—
zuen	—	%40 (2)	—	%57 (4)	%100 (1)	%54,5 (6)
ceuen	—	%40 (2)	%100 (1)	—	—	—
ceuroen	—	%20 (1)	—	%42,9 (3)	—	%45,5 (5)
eureen	%66,7 (8)	—	—	%1,8 (1)	—	%1,1 (1)
euren	%33,3 (4)	%100 (19)	%100 (29)	%98,2 (56)	%100 (19)	%98,9 (91)

Gaia ezagutzen dugun heinean, emaitzak espero izatekoak dira zenbait arlotan, baina erabat ustekabeak bestetan.

Bizkaierak oro har denboraz hartuko zuen bidearekin ondo dator *ceure* anitzez maizago kausitzea *zure* baino bi *EL*-etan, eta batetik bestera ehunekoak ia-ia ez aldatzea. Harrigarrixeago dugu *GGero*-ko A atalean banaketa alderantzizkoa izatea eta gainerako ataletan, *EL*-ko kopuruetara hurbildu arren, beti ere pittin bat behetik ibiltzea. Ziurrenik aldea Axularri egotzi behar zaio, haren ereduaren arabera estuki jokatuero gero pentsatzekoa baita emaitzak ezinbestean oso ezberdinak izan behar direla, baita handik gehiago edo gutxiago apartatuez gero Añibarro berez bezala ohiko jokabidera hurbildu ere behar zela.

Pluralean, *EL*²-ko forma aniztasun bera dugu *GGero*-n, honetan Añibarrok *ceuen* bakarraren aldean *zuen* eta *ceuroen* erabiltzea nahiago badu ere.

Alfertzat jo dut *bere*-ren agerraldiak —*bere* ‘ere’-renetik bereizgaitzak— bukaeraraino banan-banan zenbatzea *GGero*-n, hiru liburuetan *bere* nagusi baita *aren*-en gainean, funtsean banaketan aldaketarik izan gabe.

Euren / *eureen* bikoteari dagokionez, *GGero*-k erakusten digu *EL*¹-eko zalan-tza *EL*² baino lehen konpontzeaz zela, jadanik han aurreneko forma nagusia (*euren*) desagertzeaz dago eta.

Ustekabeak 1. pertsonan ageri zaizkigu, ez baitago forma indartua hobesteko joerarik, alderantziz baizik: *EL*-etan goraka doa *gure*-ren erabilera, eta *GGero*-n aldaketa ikusgarririk ez egon arren, iragarrita bezala dago *EL*²-n forma honek izango duen gorakada handia.

Singularrean hiru forma daude lehian: *neure* indartua, *ene* zaharra eta *nire* analogikoa, eta hemen ere ez du gaina hartzen espero genezakeenak: EL^1 -ean zeharo bazterrean egon ondoren, EL^2 -n *ene*-ren kopuruak oso gora egiten du, beste bi formen kaltetan. Bilakaera honen barruan ez dira erraz azaltzen *GGero*-ko zenbakiak: egia da *ene* nahikoa hedatu dela dagoeneko, baina bestalde A, B, C ataletan, EL -etan ez bezala, *neure* nagusi izatetik bat-batean C atalean *nire*-k EL^1 -eko lekua iritsi eta are gaingitu ere egiten du.

4.3.8. *-rik / -ta*

Itxura guztien arabera, *-ta* atzizkidun partizipioa testuetan jarrai daitekeen berrikuntza baten hedapenaren ondorio baino ez da.⁴⁹ Nolanahi ere, EL^1 -ean, salbuespen pare batekin, Añibarrok *-rik* bakarrik erabiltzen du, EL^2 -an *-ta* maizago azaltzen den bitartean, gutxiengo argian bada ere.

GGero-n ez da ezertxo ere aldatu 1802ko egoeratik, *LauEv*-en legez, bidena-bar (Ciarrusta 1991: 102). Adibide garden bakarra aurkitu ahal izan dut, bukaera aldera: *alan confesatu ta bere* (48-73), EL^1 -ean bezala aditza eta atzizkia bereiz idatzirik. Honezaz gainera, erabiltzen hasi eta damutu zelako bat ere bide dugu azken bertsoan ...*gorrotauteco, muturtuteco, maquertuteco, ernegu gogaicarran jarteco* dioen esaldian, *ernegu*-ren ordezkari *ernegauta* jartzen baitzuen (ik. 21-38/39. oh.).

4.3.9. *-tu / -du*

Partizipioaren eta aditzizenaren formak oso aldakorak dira Añibarrorengan, guztiz gainerako euskalkietan *-atu* edo *-itu* bukaera daukaten aditzetan, baina ez bakarrik, ikusiko dugunez.

EL bien arteko bilakaera labur deskribatuaz, 1802ko argitalpenean *-atu* aditzek *-atu*, *-adu* zein *-au* forma har dezakete partizipioan, arau jakinik gabe (*alabadu* eta *alabatu*, *asmatu* eta *asmau*, *sacramentatu*, *sacramentadu* eta *sacramentau...*), baita *-itu* zein *-idu* besteez ere (*escribitu* eta *escribidu*, *ofenditu* eta *ofendidu*). Egoera bera aurkitu du Ciarrustak (1991: 101-102) *LauEv*-en. 1821eko EL -an, berriz, *-atu* aldaera desagertu da, beste bi formak lehen bestetsu aldizkatzaren diren arren.

Orobat, halakoetan zein bestelakoetan, oraindik ondo aztertu ez den moduan, aditzizenak *-tze*, *-eta* zein *-tute* forma har dezake (*sinisetan* eta *sinistuten*, *agertzen* eta *agertuten*, etab.), baina EL^2 -n *-tute*-ren alde egiteko joera somatzen da, batez ere *-tze* bukaeraren kaltetan.

⁴⁹ Xehetasun gehiagotarako, ik. Urgell 1986, non hegoaldeko testu zaharren lekukotasunak bildu diren.

Har ditzagun *GGero*-n mota ezberdineko lau aditz adibide modura:

OFENDITU (EL^1 *ofenditu*, *ofendidu*; EL^2 *ofendidu*).

ofenditu (15-47, 29-41), *ofendituaz* (47-84), *ofenditu* (51-70, 56-54).

ofendietan (20-223), *ofendietara* (43-235), *ofendietaco* (53-114), *ofenditzen* (55-16).

GALDU (EL^1 *galtzeco*, *galduteco*; EL^2 *galduteco*).

A atalean: *galtze-* (3), *galdute-* (2). B atalean: *galtze-* (12), *galdute-* (19). C atalean: *galtze-* (1), *galdute-* (6). D atalean: *galtze-* (10), *galdute-* (37).

KONDENATU (EL^1 *condenatu*, *condenau*, *condenetan*; EL^2 *condenadu*, *condenau*, *condeneta-co*).

A atalean: *condenatu* (1). B atalean: *condenatu* (18). C atalean: *condenatu* (3). D atalean: *condenatu* (26).

A atalean: *condeneta-* (2). B atalean: *condeneta-* (7). C atalean: *condeneta-* (3). D atalean: *condeneta-* (7).

SINISTU (EL^1 *sinisten*, *sinisetan*, *sinistuten*; EL^2 *sinisten*, *sinistuten*).

A atalean: *sinistute-* (1). B atalean: *sinistute-* (1), *siniste-* (13). C atalean: *sinistute-* (4), *siniste-* (9). D atalean: *sinistute-* (1), *siniste-* (11).

Adibideon arabera, *GGero*-n kontuak argiago daude EL^1 -ean baino: *-a* eta *-i* temadun aditzek partizipio forma bakarra (*-atu*, *-itu*) eta aditzizen forma bakarra (*-eta*) izateko joera dute liburu osoan zehar. Halaxe bermatzen du hurrengo zuzenketa honek ere: *juzgatuco*: leh. *juzgauco* (12-184).

Alabaina, partizipioan gure adibideek islatu ez dituzten salbuespenak ugari daude D atalean, *-idu* eta *-au* formekin, behin ere ez *-adu*-rekin:

socorridu (16-133), *pagau* (18-27, 18-29, 18-48/49, 18-49, 18-52/53, 18-61), *cumplidu* (18-102), *amatau* (18-144), *probau* (19-41, 19-42), *cumplidu* (19-126), *mereciduco* (19-210), *probau* (19-272, 19-284), *amatauco* (20-25), *gorrotau* (20-29), *sentidu* (20-34), *asmau* (20-52), *castigauco* (20-100), *amatauco* (22-81/82), etab.

Aditzizenean ere badira salbuespenak, baina haietako batzuk behintzat trinkoak dirudite: adibidez, *proba(t)u* aditzak beti *probatze-* egiten du, ez behin ere *probeta-*.

Gainerako aditzei dagokienez, *galdu*-k erakusten digu EL^2 -n bezala *GGero*-an zehar *-tute* erabiltzeko joera indartuaz joan zela *-tze*-ren kaltetan. Bere aldetik, *sinistu*-k berresten du *-eta* gutxiago erabiltzeko joera, hau bezalako aditz berezietan bederen, nahiz hemen *-te*-k irabazi, ziurrenik *siniste* izenaren maiztasunak eraginda (cf. Ax *sinheste*). Norabide berean doa zuzenketaren bat ere (*beteten*: leh. *betetan*, 9-86).

EL -ekin erkatzeko biderik ez badut ere, azpimarratu nahi nuke *GGero*-n ez direla eskas bestela ere partizipio forma bat baino gehiago daukaten aditzak, zehazkiago, *-tu* partizipio markadun eta gabe ageri direnak. Hein bateraino, badirudi Añibarrok aditzoina erabili nahi eta ongi egin ezinik izan zela (ik. § 5.1.3.2), ondokoak bezalako adibideetan:

guerta oi jacona (0-65), *valia bear ciriala* (1-198), *abiatu*, *muguitu ta presta dedilla* (3-69).

LauEv-en ere (Ciarrusta 1991: 102) badira aditzoin gutxi batzuk, hala testuiguru egokian nola desegokian erabilitakoak: *sar zaitte* (42), *lagun zaquioz* (209) edo *quen, quen* (309), baina *guerta zan* (216), *presta eutsen* (241) edo *ecin salva da* (312), adibidez.

Halere, aitortu behar da zenbait aditzetan jokabide berezi hau haratago doala, zinez eta benetan partizipioaren forma bikoitza baita inolako zalantzarik gabe. Hauxe da, esate baterako, *irudi(tu)* eta *mereci(tu)* aditzen kasua, nahiz eta, bistan denez, oso kasu ezberdinak izan.

Irudi(tu)-ri dagokionez, *OEH*-aren arabera inork ere ez du erabiltzen *irudi* partizipio gisa, ezinbestean iparraldeko *iduri* gogoratu beharra badugu ere. Alabaina, *irudiric* erabiltzen du Añibarrok Axularren *irudituric*-en ordez (1-82. oh.), eta bada testu honetan adibide gehiago (*irudiac* 14-28, *irudi* 15-169/170, *irudico* 45-34, 45-50, 54-54), *iruditu* sarrixeago badarabil ere: cf., besteak beste, *iruditu* (15-301, 45-73), *irudituco* (23-28, 46-149), *irudituric* (11-171, 11-174, 45-67); *irudiric* > *irudituric* zuzenketa bat ere badugu (1-92). Harzaz gainera, *irudin* partizipioa ere han-hemen azaltzen da (*irudindu* 6-4, *irudingo* 46-145, 56-20), gutxienez *LoraS* eta *MisE*-n bezala (cf. *OEH*, s.v. *irudin* II).

Merecitu eta *mereci izan*, aldiz, bata bestea bezain arruntak dira gure literaturan (cf. *OEH*, s.vv.), baina tamalez hiztegi honek ez du zehazten *mereziko* edo *merezirik* bezalakoak ere hainbestean ageri diren, adibideen artean *mereziren* (*EZ Man* II, 160), *mereziko* (*Bv AsL* 28), *merezitako* (*Bilbao IpuiB* 258) eta *merezitta* (*Etxba Ibilt* 481) agertu arren. Nolanahi ere, Añibarrok gehienetan *mereci* dakar (2-26, 4-32, etab.) eta *merecico* (19-212 eta 55-21), baina badu *merecidu* (43-109) eta *mereciduco* ere (19-210) eta areago, behin izan ezik (*mereciric* < *Ax merecituric* 16-32), beste guztietan *merecituric* dago (4-59, 8-160, 41-317 eta 53-172).

Ciarrustak adierazi bezala (1991: 103), batzuetan bederen *-n* amaieradun partizipioek ez dute kontsonante hori galtzen aditzizena egiterakoan. *GGero*-ko adibideen arabera, *erein* aditzean izan ezean, joera ez da B ataletik aitzina iristen, eta denetan *-n* gabeko formak ere aurkitzen dira:

equinteaz (7-83/84), *iraunten* (9-121, 12-53), *ereinteco* (13-126), *ereintera* (13-127), *ereinten* (15-375, 16-230, 16-234), *Ereintean* (16-235), *ereinten* (43-26).

irauten (4-108), *irauteaz* (8-6), *iraute* (8-37), *irauteric* (10-22), etab. *ereitea* (13-150), *ereiten* (15-372), *ereitea* (16-234), *equitea* (27-28).

4.3.10. Aditz trinkoa

4.3.10.1. *edin

EL bien artean alde handiak daude aditz honen adizkietan, bai forman, baita erabilera maiztasunean ere. Lehen alderdia da hemen azter dezakegun bakarra: forma hutsa alegia.

1) EL^1 -ean *dedi-* eta *didi-*; EL^2 -n *dedi-*:

	A	B	C	D
dedi-	4	17	5	15
didi-	0	2	3	9

GGero-ko banaketa oso berezia da, gainera: *dedi-* baina *eztidi-*, *eztedilla* (15-95, 16-155/156, 19-80/81, 20-20) izan ezik.

2) EL^1 -ean *beitez*; EL^2 -n *bitez*, baita *GGero*-n ere (10-20, 10-21, 15-5, 26-6, 42-106/107).

3) EL^1 *neindeque*, *neinteque*, *nindeque*; EL^2 *ninteke*:

A atala: *nintequen* (0-134), *guintequez* (1-71).

B atala: *guintequezala* (4-27), *guintequez* (4-177), *nindeque* (7-54), *cintequezan* (9-210), *cinteque* (11-194, 11-196), *niteque* (14-157), *cinteque* (15-7), *guintequez* (15-23).

C atala: *cinteque* (16-87), *cindeque* (19-336), *ninteque* (20-227).

D atala: *guintequez* (24-75), *nindequeala* (33-22), *bacinteque* (45-55/56), *guindequez* (46-172), *cinteque* (48-145, 48-150), *cindequez* (48-170), *baguintequez* (51-9), *guintequez* (51-10), *ceinteque* (51-44), *cindequean* (53-169), *bacinteque* (53-170), *guindequez* (54-140).

Ikus dezagun orain bilakaera ezaugarrika, 3. pertsona ere erantsirik:

	A	B	C	D
EI	0	0	0	1
I	2	10	3	12
diteke(z)	0	15	3	6
daiteke(z)	0	2	0	1
liteke(z)	9	28	5	38
leiteke(z)	0	3	3	2
ND	0	1	1	4
NT	2	8	2	9
T	0	1	0	0
ATE	0	0	0	2

EL^1 -eko ñabartasuna *-eind-* erako formen aldetik bederen (*neindeque...*) bakandu da. Gainerantzean, era guztietako formak aurkitu arren, diptongorik gabekoak erabiltzeko joera bereziki argia da, baita *-nt-* erabiltzekoa aski sendoa ere.

-ate- erako formak (*litzateque* 56-5, *guiñatequez* 56-18) azken buruan biltzen dira, oharkabean ziurrenik, eta haietako batean bakarrik Axularren eragin zuzenez (*liçateque* Ax 613).

4) EL^1 -ean *gaitean*, *zaitte* (nagusi) eta *zaittez*; EL^2 -n *gaitez*, *zaittez*; *GGero*-n nagusi *gaitez-* baina *zaitte-*, erdibidean:

	A	B	C	D
gaite-	0	0	0	1
gaitez-	1	15	2	6
zaitte-	2	14	12	34
zaittez-	0	2	1	4

5) EL^2 -n bitxikeria bat, aoristo zaharraren 3. pertsonako fosil bakar bat (*aguer-tu ekiela* ‘zitzaiela’, EL^2 127; cf. Lakarra 1986b: 652-654 eta 1996: 177-179),⁵⁰ baina edonola ere *GGero*-n behintzat berragertzen ez dena.

4.3.10.2. **edun*

1) EL^1 -ean *dabe*, *daude*; EL^2 -n *dabe*.

Daude erako formak mendebaleko bizkaieraren eta, beraz, arratieraren ezau-garri badira ere, 1802rako jadanik pare bat agerralditan baino ez ditu Añibarrok baliatzen, ekialdeko aldaerak hobetsirik. Espero genezakeen bezala, bada, ez dago *GGero*-n halakoen arrastorik ere.

2) Plural zaharra vs plural analogikoa edota pleonastikoa

Bi EL -etan plural analogikoa aurkitzen dugu 1. eta 2. pertsonetan (*dodaz*, *dozuz*) eta pleonastikoa 3.ean (*ditu(e)z*), baina EL^1 -ean oraindik plural zaharraren ale zenbait topa daitezke (*ditut*, *dituzuz*, *ditu*).

GGero-n jadanik *dodaz* eta *dozuz*-en alde makurtu da Añibarro erabat, salbuespen bakanekin; 3. pertsonan, ordea, forma zaharrak nahiago ditu oro har, zenbat eta aurrerago, nahiago:

	A	B	C	D
<i>dodaz</i>	2	14	1	0
<i>ditut</i>	0	0	0	1
<i>dozuz</i>	2	53	18	8
<i>dituzuz</i>	0	1	0	0
<i>ditu(e)z</i>	14	44	15	4
<i>ditu</i> , <i>ditua</i> -, <i>ditue</i> -	9	68	43	32

Dodaz, *dozuz* baina *ditu* paradigma Zabalak (1848: 74) hobetsia bada ere, *GGero*-k erakusten digu Añibarrok hautua 1821 baino lehenago egina zeukala.

3) EL^1 -ean *zaitu*, *zinduan*; EL^2 -n *zaituz*, *zinduzan*.

GGero-n ez dago lehenaldiko adibiderik, baina argi dago orainaldian 1802ko argitalpenarekin bat doala oraindik:

	A	B	C	D
<i>zaitu</i> -	3	19	4	51
<i>zaitu</i> + Z	1	3	2	3

⁵⁰ Ikertzaile honek gogoratu bezala, badira antzeko batzuk, denak datibozkoak, Mendibururengan ere: *zekigun*, *zekien*, *zekion*, *zekiozkan*... (ik. hauetako adibide zenbait Azkue 1928: 147-n, honek ematen duen azalpenak ezer gutxitarako balio badu ere).

4.3.10.3. *egin*

Ezaguna denez, bizkaiera zaharrea *e / a* oposaketak hiru pertsonako eta bi pertsonako adizkien arteko bereizkuntza markatzen zuen. XIX. menderako oposaketa zeharo neutralduta zegoen hizkera batzuetan *egin* aditzari dagokionez, EL^1 lekuko, ez baitago liburu honetan *dai*-z beste formarik.⁵¹ EL^2 -n, aldiz, hiru pertsonako zenbait *de(g)i*- agertzen dira: nonbait, Añibarrok bereizkuntza ikasi egin zuen, osoki bete ez arren.

GGero-n ere badira *dei*- bakan batzuk, denak D atalean eta gehienak buru be-rean bilduta:

deiezuela (28-129), *deizuela* (28-154), *deizuedala* (28-161), *deiezuela* (28-172), *deidan* (54-30, 54-31).

4.3.10.4. *ekarri*

EL^1 -ean *ecartzu*, *ecartzuz*; EL^2 -n *ecazu*, *ecazuz*.

GGero bien bitartean dago: *ecazuz* (19-248), *ecartzu* (54-49).

4.3.10.5. *emon*

Aditz honen forma jokatu bakarrak EL^2 -n azaltzen dira: aginterazkoak dira denak (*emoyozuz*, *emoikiozuz*, *emoidazu...*), eta haietako batzuk EL^1 -eko *indazu* era-koen ordeaz agertzen, 1821eko argitalpenean aukerak ugaltzearen alde jokatu zue-la adieraziaz.

GGero-n ere badarabiltza halakoak, nahiz eta *-ke-* artizkidunik ez ageri (ik. § 4.3.10.12), *egin*-en aginterazko adizkietan bezalaxe:

emoiozu (5-143, 16-177), *emoizu* (16-180), *emoiozu* (22-35), *emoizu* (33-29, 41-200, 45-218), *emoiozu* (50-70).

4.3.10.6. *eroan* eta *joan*

Ez dago EL^1 -ean *eroan* eta *joan*-en adizkirik ohikotasuna adierazten duenik; ondoko urteetan ikasi zuen erabilera bide da, EL^2 -n halako maiztasun batez ager-tzen da eta. *GGero*-ren lekukotasunak, hain zuzen, zilegi egiten du baieztatzea ika-sia dela, eta ez berezkoa. Izan ere, 1821eko argitalpenean *eroan / joan* bereizkun-tza profitatu eta ondo gordetzen duen bitartean (*entzun daroagu / izan doa*), Axularren itzulpenean *eroan* bakarrik erabiltzen du, baita denetarako erabili ere (iragangaitzak izarraz markatu ditut):

⁵¹ Irigoyenek erakutsi bezala (1958: 126-127), Mogel eta f. Bartolomerengan ere berbera (*dau / deus-tut* baina *daigun* eta *da(g)izut*, alegia) gertatzen da, Juan Jose Mogel eta Astarloarengan ez bezala. Bizkaiera zaharrek eta besteko lekukotasunez, ik. Lakarra 1986b: 649-650.

eguin daroaguz (4-166), **izan daroa* (15-335), **il daroa* (15-354), *eguin daroaz* (16-258), *biraldu daroa* (17-114/115), *galdu daroaz* (18-139), *eguin daroaqueezanac* (19-128), *eguin daroana* (20-120), *eguin eroiala* (27-28/29), *esan daroena* (28-62), *esan daroazu* (30-25), *eguin daroioe* (43-200), *eguin daroazuz* (48-112), *igaro daroan* (54-50), etab.

OEH-ak (s.v. *eroan* I, 2) bizkaitarrez gainerako idazleengan bakarrik aurkitu du honelako nahasterik, eta cf. gramatikako paradigmak (*GB* 77-78). Halaz ere, nabaria da XVIII. mendetik aurrera iragankorra errazago eta maizago aurkitzen dela, iragangaitza baino, eta honek adieraz lezake atzerakadan bilakaera ezberdina izan dituztela.

4.3.10.7. *esan*

*EL*¹-ean *esazu*(z), *esaizu*(z); *EL*²-n *esaizu*(z).

GGero-n *esazu* (5-101, 28-169), *esaizu* (54-153).

4.3.10.8. *etzan*

1) *EL*¹-ean *datz*;⁵² *EL*²-n *datza*.

GGero-n *datz* (54-149).

2) *EL*¹-ean *zatzala*, *zatzazala*; *EL*²-n *zatzazala*.

GGero-n *bazatzaz* (0-52), *zatzazanean* (12-142).

4.3.10.9. *ibili*

1) *EL*²-n lekukotzen dira lehendabizikoz bi pertsonako adizkiak (*badabiltzu*, *ebilcozala*, *nabilco*). *GGero*-n, *EL*¹-ean bezala, ez dago halakorik.

2) *EL*¹-ean *dabiltzan*, *zabiltzan* / *EL*²-n *dabiltzazan*, *zabiltzazan*. *GGero*-n 1802ko egoera bera dago:

	A	B	C	D
dabiltz	2	10	5	23
dabiltzaz	0	0	0	0
zabiltz	0	8	0	8
zabiltzaz	0	0	0	0

4.3.10.10. *izan*

1) Ezaguna denez, singularreko deklinabidean eragina daukaten bokal disimilazioen antzekoak gertatzen dira adizkietan ere testuinguru egokietan (*-a + a > ea > ia > ie*, etab.).

⁵² Forma honek erroko azken bokala galdu du; galera antzinakoa da: cf. *Çe an daz Presebal ylic* ("Arrasateko erreketeta", *TAV* 3.1.7).

EL^1 -ean Añibarrok garapen maila ezberdineko formak elkarrekin erabiltzen ditu: *ziran* eta *diran* disimilaziorik gabeko bakan batzuek gainera, orainaldiko 2. pertsonan *ea* (*zareala*) eta gainerakoetan *ia* (*giñian*, *ziniala*, *diriala*). EL^2 -n, ostera, berdinketara jo da, eta tankera guztietako adizkiak *ea* itxuran agertzen dira (*ginean*, *direala*, etab.).

$GGero$ -n sistema egongaitzago bilakatu da EL^1 -ekoaren aldean: 3. pertsonako adizkietan, esate baterako, hiru aukerak (*diran*, *direan* eta *dirian*) aurkitzen ditugu. Haatik, D atalean *direan* motatakoak erabiltzeko joera gailentzen da orainaldian, eta lehenaldian nekez bai nekez *cirean* gutxi batzuk azaltzen hasten dira, EL^2 -ko sistemaranzko lehen urratsak emanik:

	A	B	C	D
direa-	0	4	7	127
diria-	15	102	26	21
dira-	1	1	0	4
cirea-	0	0	0	9
ciria-	24	31	5	64
cira-	0	2	0	2

2) Añibarrok islatu ohi ditu *ez* + konts. topaketak dakartzan hots aldaketak (*enas*, *eleuke*, *etzara*, *eztira*...). Alabaina, EL^2 -n, adibideak ugaltzeaz gainera tesuinguru berri bat jaso du: *ez* + *j*- > *etx*- (*echaco*, *echaramon*). Aldaketa lehenagokoa da, $GGero$ -ren garaikoa behinik behin, oso agerraldi gutxi baditu ere:

echacola (11-129), *Echaco* (11-134), baina *ez jaquela* (0-34), *ez jaco* (0-152, 2-19), *ez jaquenic* (3-63), *ez jacaz* (7-67), etab. etab.

4.3.10.11. jarraitu

EL^1 -ean (eta GB -n) *darraio*; EL^2 -n *darraico*.

Ez dago halako berrikuntzarik $GGero$ -n:

darraio (7-4, 7-8), *darraiola* (7-121), *darraioan* (9-114), *darraioen* (23-13), *darraiozan* (32-80), *darraionac* (44-78), etab.

4.3.10.12. -ke atzizkia

EL bien arteko alderik handienetako bat 1821eko argitalpenean *egin*-en adizkietan oro har *-ke*- artizkiaren agerpena da, hala ahaleran (*daikedan*, *leikean*, *neikezu*...) nola aginteran (*eikedazu*), baita gutxienez *esan* eta *emon*-en aginterazkoetan ere (*esaikezu*, *emoikiozuz*). Berrikuntza hain bide zen berezia Añibarrentzat, eze iruzkindu ere egiten baitu hitzaurrean:

Azkenez *esan* bear deusut eze liburu onetan icusico dozula batzuetan esaten dala *eguizu*, *eguidazu*, *eguiozu*, *deguizula*, eta beste batzuetan *eikezu*, *eikedazu*, *eikiozu*, *deikezula*, &c. Lelengoak esaten dira gauea ordu berean eguin bearra danean; bigarrenac, barriz, gueroagogarrenean eguin bearco danean. Alanche *esan daroe*, baita ondo baño obeto, gure bizcaitar baserritarrac (EL^2 7-8).

Alabaina, berrikuntza ez da osoki EL^2 -koa, aldez $GGero$ -ren garaikoa bederen baizik. Izan ere, lehen adibidea jadanik A atalean aurkitzen dugu, eta handik aurrera maiz:

daiquegunic (2-126), *daiquedan* (3-112), *leiquean* (5-149), *ciñeiquezala* (6-35), *leiquezue* (6-36), *neiquez* (6-136), *leiquezala* (9-53), *leiquezan* (9-174), *daiqueala* (11-274), *neiquenic* (13-49/50), *neiquezan* (15-15), *daiquezuz* (15-262), etab.

Ohartu, dena den, ez dela behin ere aginterazkorik agertzen, ez *egin*-en, ez eta *emon* edo *esan*-en ere: ahalerazko laguntzailean bakarrik erantsi da atzizkia, bizkaiera modernoan gerora goraka joango den joera iragarritz.⁵³ 1821eko benetako berrikuntza, ordea, hauxe dugu: geroaldiko agintera mota hau erabiltzea, jadanik XVIII. mendean are bizkaieraren hizkera gehienetan —hauxe baita honi dagokionez euskalkirik kontserbatzaileena— desagertuta edo desagertze arren (Lakarra 1996: 171-173).

4.3.10.13. *Uzkurdurak*

EL^1 -en ezaugarri da ahozko hizkuntzan arruntak diren uzkurdurak jasotzea, EL^2 -n Añibarrok maizenik adizkiak osorik idatzi ohi dituen bitartean. Uzku rduren aurkako joerak gutxinaka aurrera egin zuen, $GGero$ lekuko.

1) *ba-* baldintzazkoa: EL^1 -ean *bozu*(z); EL^2 -n *badozu*(z).

$GGero$ -n, 1802koaren aldean, agerraldiak oso gutxi dira, eta guztiak singularrerako *bozu*-renak:

	A	B	C	D
bozu	0	2	2	4
badozu	3	16	9	30

Cf. halaber *beutsan* (1-202), *beban* (11-24).

2) *ba-* baiezkoa:⁵⁴ EL^1 -ean *bazaut*, *bacust*, *baquit*...; EL^2 -n *baazaut*, *baacust*, *baakit*.

Ezaugarri honek indartsu dirau Añibarroren idazkeran, era guztietako adizkiak eraginez (baita *bá*, baina ez *bira*, dakidalarik), eta $GGero$ -n oraindik ez da hedatu bokal azentuduna EL^2 -n bezala *aa*-rekin ordezkatzeara:

bá (5-55), *Bago* (5-88), *baquit* (5-119), *bagoz* (11-159), *baucó* (12-18), *bago* (13-117, 14-84), *Baiguigu* (14-144), *bau* (15-170), *bago* (15-368), *baucó* (16-34), *baucazu* (17-12), *Baquit*, *baquí* (18-56), *Baquit* (21-58, 23-9), *bacusaz* (24-43), *baquíz* (24-44), *baquízula* (24-78/79), *baquízu* (25-19), *Baquit* (28-42), *baunqueela* (28-72), *bacusue* (28-125), *baquízu* (28-146), *bacusue* (28-165), *bacusu* (29-45), etab.

⁵³ Bidenabar, joera berri honek eraman bide zuen Azkue (1923-1925: § 1025), *-ke* “erori” egiten dela baieztatzen, hala geroaldia adierazten duten adibide zaharretan, nola ahaleran aurkitu zituen adibide zahar eta berriagoetan (Añibarro, Mogel, Astarloa, f. Bartolome). Geroaldiko formetarako, ik. Lakarra 1996: 169-171.

⁵⁴ Ezaugarri honetaz orain artean esan dena bilduta dago Lakarra 1984b: 137-138.

3) Geroaldiko *-ko / -go*: *EL*¹-ean *aditucot, eguingozu*.

GGero-n adibide bakar bat kausitu dut: *Icusicozuz* (19-167).

4) *bear* edo *gura* + adizkia: *EL*¹-ean *beogu, gurot*.

GGero-n oraindik hiru adibide daude B eta C ataletan: *Gurozu* (15-255), *beozu* (16-210, 19-77).

5) *-n* bukaeradun aditz nagusiak: *EL*¹-ean *eguiteban, emoeustazan*.

Ez dago honelakorik *GGero*-n.

4.3.10.14. *EL*²-n *bakarrik lekukotutako trinkoak*

EL-aren 2. argitalpena aberatsagoa da aditz trinkoetan lehena baino. Joera honen barruan, aditz batzuen forma trinkoak lehenengoz lekukotzen dira: *erago, erazan* eta *iñardun* aditzenak, zehazkiago.

Haatik, bistan da gramatika egin zuen bilketa eta hausnarketa lanak 1821 aurreko frutuak izan zituela, *GGero*-n jadanik *erago* aditzak nahikoa adibide eskaintzen ditu eta:

daragoioe (13-102), *daragoiengan* (20-252), *daragoion* (20-257), *daragoionac* (22-134), *daragoio* (41-110), *Daragoionac* (43-58), etab.

Zeharo ezberdina da beste bi aditzen egoera, ordea. *Eratzan*-ek adizki trinko bakarra eskainiko, eta hura Axularrek dakarren bera (*aratza* 1-235 < Ax 34). *Iñardun*-ek, bere aldetik, erakusten digu Añibarroren ikasketak ez zirela behingoan amaitu; izan ere, *GGero*-ren garai inguruan ez dirudi ongi menperatzen zuenik: lehenik, partizipioa bera bi aldiz baino ez da agertzen, eta bakoitzean aldaera bat dakar (*jardun* 1-108 eta *iñardun* 41-110); bigarrenik, Añibarrok *diardu* partizipio gisa erabiltzeko joera dauka (ik. 1-108/109. oh.); eta hirugarrenik, *GGero*-n jokatuta dagoen agerraldi bakarrean irangaitza da (ik. 41-110. oh.).

4.3.10.15. *EL*²-n *aberatsago lekukotutakoak*

1821ean aditz gehiagoren trinkoak azaltzeaz gainera, lehenik erabiltzen zituenak askoz forma gehiagotan erabiltzeko gauza da Añibarro, aldez hobeto menperatzen dituelako, aldez perifrastikoak baino trinkoak erabili nahiago bide dituelako (§ 5.1.3.7).

GGero-n, testuak hala derrigortuta agian, ez da aldaketa aipagarriarik somatzen aztertutako aditzetan. *Entzun*-ek pare bat adizki eskaintzen ditu: *eztanzu* (25-26/27), *eztanzuela* (53-119) (cf. *EL*¹ *dantzuenari*; *EL*² *eztantzu, dantzuela, dantzuenai*). *Eracutsi*-renak oso berandu azaltzen dira, eta bi formatan bakarrik (cf. *EL*¹ *daracuscuz*; *EL*² *daracusaz, daracusdan, daracutsun...*):

daracusecu (41-9, 43-188), *daracuscun* (47-30/31), *daracus* (47-132, 49-33, 52-8), *daracusecu* (53-40, 53-55, 56-58).

Erion aditzean oinarritzkoenak baino ez dira agertzen (cf. EL^1 *dariozala*; EL^2 *daridala*, *dariela*, *darion*, *eriola*, *eriozan*):

darion (19-155, 20-188), *cerion* (28-159), *dario* (46-41), *dariola* (53-145).

Erruz eta aberaski erabiltzen duen joko bakarra *erabili* aditzarena da (cf. EL^1 *zarabiltzela*; EL^2 *badarabiltzu(z)*, *darabildela*, *darabilen...*):

darabilgun (4-4), *darabilc* (5-128), *darabiltzadazan* (6-135), *darabiltzuz* (7-89), *darabilgun* (7-100), *darabiltzen* (8-202), *darabilgula* (9-250/251), *cerabillan* (14-31), *darabiltzuzan* (18-153), *darabillana* (19-139), *darabilde* (20-123), *darabildez* (32-92), *narabilen* (36-30), *erabillic* (40-32), *darabilz* (45-207), *erabillén* (49-10/11), etab.

4.4. Sintaxia

4.4.1. *-tera* / *-ten*

Dakigunez, inesibo eta alatiboaren arteko banaketa ez da bat eta bera euskalki guztietan, eta hautapen ezberdinen artean ezagunenetakoa mendeko perpausetako aditz burutugabeena dugu: besteak beste, mugimenduzko aditzekin mendebaldean *-ten* gehiago erabiltzen da, erdialdean eta ekialdean baino.

Ildo honetatik, Añibarrok zalantzak izaten ditu noiz bata, noiz bestea erabili, eta haietako batzuk behintzat EL^2 -n zuzendu dira:

a) ASI EL^1 -ean *-ten* eta *-tera* (3); EL^2 -n *-ten*.

	A	B	C	D
<i>-ten</i>	1	36	2	17
<i>-tera</i>	0	0	0	3

GGero-n jadanik gauzak argiago daude, beraz, D atalean salbuespen zenbait agertu arren:

pecatuaren contraco erremedio ta osagarriac emotera asi baño len (33-4/5), *gaurganic asi bicitza on garbi santu bat eguitera* (46-386/387), *asi zaite bicitza on garbi bat eguitera* (56-137).

b) Mugimenduzko aditzekin, EL^1 -ean *-ten* eta *-tera*, EL^2 -n *-tera* zuzentzeko joera: Gai honetan ere *GGero* EL^1 baino gorabehera gutxiagoko liburua da: *joan*, *etorri*, *eroan* eta *eldu* aditzak aztertuta, ez dago inesiboaren lau adibide besterik, alatiboarenak bataz beste 59 diren bitartean. Hona direnak, eta ohartu haietatik hiru A eta B ataletan direla:

eiza edo caza ecarten joaten da (3-22). *ostuten doyanean* (5-80). *adina itzultzen ta beeratuten doianean* (14-139/140). *jatorcazanacaz verba eguiten* (20-189/190).⁵⁵

⁵⁵ Azken adibidea pasarte ustel batean agertzen da: ik. 20-189/190. oh.

Han-hemen bestelako aditzekin ere aurkitzen da atal beretan:

Eguin zaite goxean gox jaguiten (...). Eguin zaite asco jaten ta edaten (7-95/96). eztabe cam-pora urteten ezpada atseguña artzen (13-154).

4.4.2. Aditz arazleak

EL^1 -ean Añibarrok *erazo* darabil nagusiki, *eraguin*-en bat badago ere. EL^2 -n, berriz, hainbat *erazo eragin* bihurtuta agertzen dira, oraindik *erazo* ere erabili arren; argitalpen honen ezaugarri dira, bestalde, lehian *arazo* ere sartzea, eta aditz arazlea elkartuago bilakatzea (*igaroerazo* > *igarazo*). Gai hau tarteko idazleengan ikertzeko badago ere, gaingiroki esan daiteke *erazo*-ren aldeko aukera Larramendi zor bide zaiola (Urgell 2000), eta esan gabe doa *eraguin* bizkaieraren bereizgarri modura maizten duela.

$GGero$ argi eta garbi tarteko garaian dago, baina EL^2 -tik oso gertu. Batetik, bi aditz arazleak erabiltzen ditu, eta biak paretsuan dabilta. Ez da arraroa biak batera edo bata bestetik oso hurbil agertzea: cf. *erazo eraguiten* elkartu tautologikoa (9-164/165) eta *beguiratu eraguin ta ezaguerazo* (52-90/91), adibidez.

Mozketa C eta D atalen artean eginez gero, eta beti *adierazo* itxuran (eta oso sarri) agertzen dena alde batera utzita, aurreko zatian 16 *erazo* zenbatu ditut, eta 13 *eraguin*; handik aurrera, 12 *erazo* eta 16 *eraguin*, joera zertxobait aldatzen ari zelako seinale. Bestetik, B ataletik aurrera 4 *arazo* ere aurkitu ditut (*promesarazo* 15-190, *obligarazoric* 16-122, *ernegarazoten* 23-78, *ernegarazo* 48-60).

Eskuarki bananduta idazten ditu bi osagaiak, eta lehenak partizipio marka darama (adib. *biurtu erazo* 27-51, *sinistu eraguin* 38-26). Halaz ere, partizipioaren ordeztu aditzoina (*t*-ren epentesiarekin edo sarriago gabe) daramaten salbuespenak ugari dira, eta erdialdetik aurrera ugarixeago: *-arazo* guztiez gainera (cf. gorago), *-t*-rekin (*sinisterazo* 4-173/174, 4-182, 19-206, 19-250, *gomuterazo* 12-36, 41-338) edo gabe (*adierazo* (*passim*), *aterazo* 17-23, *sentierazo* 20-173, *gueldierazo* 22-39, 22-68, *aserrerasazo* 48-38, *gogaierazo* 48-60, *pensaerazo* 52-89, *ezaguerazo* 52-90/91). Honen aldean, *eraguin*-ek salbuespen bakarra dauka: *sentieraguin* (53-68).

Honezaz gainera, *eraguin* bera berez aditz arazlea da, noski (adib. *berrac gauza asco eraguin leiz*, 14-94/95), *eguin*-ekin erkatuta ager daiteke (adib. *cer eguiten edo eraguiten daben* 16-52/53), eta *egin*-ez egindako aditz elkartu edo esapideen arazleak osatzen ditu (*bear eraguin* 1-89/90, *ganez eraguin* 9-75, *pecatu eraguin* 46-201/202, *igues eraguin* 48-40). Halaz ere, badaude gorabehera batzuk honetan, fosiltze prozesua abian zatekeela iradokiaz: batetik, *erazo* haren lekuan ager daiteke, zeharo baliokideak bailiran (*promesa erazo* 15-200, *igues erazo* 34-33); bestetik, ohiko *eragin*-en ordeztu, hala *eguinerasazo* (17-37) nola *eguin eraguin* (18-14) agertzen dira.

4.4.3. *ezin*

*EL*¹-ean *ezin* bi eratara ager daiteke: nagusiki [partizipioa + *ezin* + laguntzaileria] egitura osatuaz, baina baita [*ezin* + part. + lag.] erara. *EL*²-an, berriz, bigarren egitura bakarrik erabiltzen da.

Badirudi aldaketan mailakatze bat egon dela, zeren *LauEv*-en bigarren egitura baita nagusi, bestearen adibideren bat bada ere (Ciarrusta 1991: 116). Ez ditugu horko zenbakiak ezagutzen, baina baliteke *GGero*-koetatik urrun ez egotea: izan ere, bi egiturak liburu guztian zehar aurkitzen dira, baina batz bestekoka hitz eginez, [*ezin* + part. + lag.] egituraren nagusitasuna (10/111) begi bistakoa da.

Egitura honek, jadanik *EL*²-n somatu bezala, *ezin* eta aditz taldearen artean nahi adina hitz sartu ahal izatea dakar berekin. Egiatzatu beharko genuke Axularrek zerikusirik izan duenentz honetan, baina egia da *GGero*-n, hau dela eta, egitura luze xamarrek aurki daitezkeela; cf., adibidez:

ecin ataric aurrera joan ta igaro liteque (9-49/50), *ecin gachic iñori eguin leio* (11-14), *araguiac ecin arerio gaisquiña maitetu lei* (20-34).

Bestalde, *EL*¹-ean [part. + *ezinik*] erako egitura bakarrik kausitzen den bitartean, *EL*²-an *ezin egina* bat ere badago, beste egitura alde handiaz nagusi izan arren. Ez dut uste honetan duda gehiegi egon litekeenik, Axularrengan ikasitako egitura dela, zeren eta *GGero*-n kontuak alderantziz baitoaz:

	A	B	C	D
part. + <i>ezinik</i>	1	1	2	3
<i>ezin</i> + part.	1	7	2	6

Ordena berri honetan, bere ohiko idazkeraren barruan ausart diren egitura zenbait erabiltzera iristen da, Axularrena kalkatuaz:

campoan ecer ecin izanez (1-270) < *campoan deus ecin içanez* (Ax 36). *ecin eguinez egotea* (13-114) < *ecin eguinez egoitea* (Ax 176). *gura izanaren ecin eguiña* (13-114/115) < *eguin nahiaren ecin eguina* (Ax 176). *ur tanta chorta bat bere ecin euquiteco pobretasun ta beartasunera etorri zan* (16-256) < *ecin içanezco probetasunera* (Ax 233).

Alabaina, [*ezin* + part. + -(r)ik] da egiturarik arruntena, gainerako idazlanetan erabili ohi duen egituraren isipiluko irudia dena, hain zuzen, batez ere bukaera aldedeko buruetan, non Axularrengandik askeago dabilen:

ecin jasoric larga eban (6-123/124), *ecin ecer eguinic ichi zaituezanean* (10-51/52), *ecin sufrituric ango min andi garratzac* (19-158), *bere carga andia ecin jasoric leguez quexaca* (41-168/169), *carga pisu astuna ecin jasoric leguez* (41-170), *ecin sufrituric* (41-179), *carga astun au ecin jasoric* (46-10/11), *ecin dateque contriciñoric*, *damuric*, *garbairic confesatu bague*; *edo ecin confesaturic*, *confesetaco borondate ta gogoa bague* (47-124/126), *ecin ateraric zabilz* (48-79).

Ondoko adibidean antzeman dezakegu nola dakien berera eramaten:

ebillela ecin etenduz, *ecin urratuz ta beragan ecin erabagui izanic* (3-118/119) < *ecin ethenduz*, *ecin partituz*, *eta bere baithan ecin deliberatuz* (Ax 52)..

4.4.4. *Aditz zenbaiten erregimenaz*

EL^1 -ean behinik behin, *jarraitu* aditzak ez dauka erregimen finkorik: NORK-ZER aditza izan daiteke, baina baita NORK-NORI ere. EL^2 -n zalantza NORK-NORI-ren alde konpontzen da.⁵⁶ *LauEv*-en ere, 1802an bezala, biak aurkitzen dira (Ciarrusta 1991: 99).

Alderantziz gertatzen da *eskatu* aditzarekin: EL^1 -ean NORK-(NORI)-ZER dugu beti, baina EL^2 -n NOR-NORI batzuk agertzen dira, Añibarrok erabilera zaharra ikasi duelako seinale.

GGero-n, berriz, *jarraitu*-ren objektua beti datiboa da eta, beraz, objekturik egotekotan, NORK-NORI aditza da; baliteke Axularren ereduak (NOR-NORI erabiltzen baitu) trinkotasun honetan zerikusiren bat izana. Eta *escatu* beti NORK-(NORI)-ZER, NOR-NORI zaharra hemen ikasi zukeela pentsa genezakeen arren.

4.4.5. *Galdetzaileaz eraturiko erlatibozkoak*

EL^1 -ean honelako perpausen erdiak inguru *-n* markarik gabe agertzen dira, baina EL^2 -n halako guztiak zuzendu zituen Añibarrok, gogorrenak —guztiz *cegartic* edo *nos* aurrekaridunak, baina ez hauek bakarrik— bestela moldatzeaz gainera. *LauEv*-en ere, gehienetan *-n*-dun perpausak eratzen baditu ere, bada gabe doan bat baino gehiago (Ciarrusta 1991: 134).

Azken hau da *GGero*-ko egoera: berez *-n* daramaten lehenaldiko perpausak alde batera utzita, *-n*-dun erlatibozkoak 24 dira, eta gabekoak 8, hauetako bost 128-133. orrien artean bildurik (B-C ataletan, beraz):

ceñaz baieztuten da (9-141).

ceintzuec gaitic... esango dozu (13-6). *ceñec esan gura dau* (15-57). *ceintzuc... ecin eguin guñeiz* (15-74). *ceñec diño* (17-103). *ceñec... galdu daroaz* (18-139). *ceinec... ilunduten dau* (22-8/9). *ceini... deituten deutse* (45-235).

4.4.6. *Kausazko perpausen aurrekaria*

EL^2 -n aurreko argitalpeneko *cerren* guztiak desagertu dira, gehienak *cegartic*-*ce*-rekin ordezkaturik; cf. *VB*-ko lekukotasuna:

Porque, respondiend: b. *cegarti*; g. *cegartic*; c. *cerren*, *ceren*.

Porque, respondiend, si se dice otra cosa antes de la que corresponde a la respuesta, se hace también con: c. *ce*, o *cegarti tze*.

Oso oker ez baldin banago, bizkaiera idatzian berrikuntza bat sartzen du Añibarrok, bizkaiera zahar guztian *cerren* oso erabilia izan baitzen.

LauEv-en *cerren*, *cerren tze* eta *cegartic ce/tze*, hirurak erabiltzen ditu (Ciarrusta 1991: 143-144), baina ez dakit zein proportziotan. Badirudi, beraz, aterabide ezberdinekin saiatuez gero egin zuela 1821eko aukera.

⁵⁶ Beraz, ez dio honetan kasurik egiten Zabalarri, honek NOR-NORI zaharrera bihurtzea gomendatu baitzuen (1848: 16).

GGero-n egoera bakunagoa da: *cerren* eta *ce(r)ga(i)ti(c) ce*, biak erabiltzen ditu, baina lehena, EL^1 -etik hurbil, askoz gehiago (210/38). Hemengo gertakaririk jakingarriena ez da bata besteaz ordezkatea, ordea, oro har aurrekaria ezabatze-ko joera baino: 220. orrialdera arte 161 *cerren* daude eta 35 *cergaitic ce*; handik aurrera, berriz, 49 *cerren* eta 3 *cergaitic ce* baino ez.

4.4.7. Ba- zehar galderetan

Bai-ez erako zehar galderak Añibarrok bitara markatzen ditu: laguntzailean *-nez* edo *ba-* jarriaz. Esan gabe doa bigarren markaera erdararen kalkoa dela, eta Añibarro, galde-perpauzak hala osatzeko joera handia izanik ere, noizbait ohartu bide zen egituraren badaezpadaoaz, zeren eta EL^2 -n egin zituen zuzenketen artean *ba-* erako zehar galdera anitz *-nez* erako bihurtzea izan baitzen, denak zuzentzera iritsi ez bazen ere (cf. Azkue 1923-1925: § 557). *LauEv*-en ere bietako adibideak aurkitu ditu Ciarrustak (1991: 132-133).

GGero-n hainbat dira *-nez* erara taxututako zehar galderak, ia beti aurrekari modura *ea* daramatenak: orotara 29 zenbatu ditut, 18 *ea*-dunak, hauetako gehienak lehen erdialdean pilatzen direla egia bada ere. Eta behin *ala ez* egiturarekin aldizkatuta agertzen da (cf. Azkue 1923-1925: § 558):

bere buruaz gogoeta eguitea aserrekorra danez; coleratsua, vengatzallea dan ala ez; jauscor danez vicio onetan (21-14/15).

Baina *ba-* egiturarekin ere aldizka daiteke, baliokideak bailiran:

Eztot uste itanduco deuscula Jangoicoac probe onari ala gaistoari emon deutsegunez, ezpada ea emon badeutsegu (16-90).

Guero doaz confesore edo besteetara itandutera, ea tratu aec justuac direanez, eguin al balitequez (41-31/32).

Edo zuzenean bi egiturak batera aditz berean erabili:

ea jaso al baebanez (6-123, 6-126) < *ea iasan ahal ceçaqueyenz* (Ax 85).

Azken honek ezerk baino argiago adierazten du Añibarro ziurtasun gutxiz ari zela gai honetan. Halere, orotara hartuta, egiatan *GGero*-n *ba-* egituraren adibideak urri dira; aipatuez gainera honako hauek baino ez:

ea iñor bada errian pobre bearturic (16-208). *gorria bada, zuria, baltza, nabarra bada erabaguitea* (46-83/84). *eztaquigu guero algo badogu* (52-76/77). *eztaquizu guero naico bazaitu* (56-127).

Pentsatzekoa da Axularren ereduak zerikusia izan duela urritasun honetan, baina gai hau aurrerago aztertu beharko dugu (§ 5.2.7).

4.4.8. -tzat aditzean

Berez helburuzko balioa dauka subjuntiboari erantsitako *-tzat*-ez egindako egitura honek. Honetaz ohartu zen lehen gramatikaria, dakidalarik, Zabala dugu

(1848: 29), lapurteraz gainera Bizkaiko erdialdean erabiltzen zela zehaztuaz. Azkuek (1923-1925: § 560) oraindik Arratia, Orozko eta Txorierrin kokatzen du, galtezear zegoela ohartu arren; idazleetan, bizkaitarren artean gehien Añibarrok erabiltzen duela zehazten du, eta hartaz gainera Leizarraga eta *CatLlo* aipatzen. Erants dezadan *Viva Jesus*-en ere bederen badela, bai subjuntibo perifrastikoarekin (*parcatu ditezanzat 9, Iangoicoa icen ditincet alabadue 16, libredu gaguicenzat 3, etab.*), bai zaharrarekin ere (*gareanzat honac 9*).

EL-aren lehen bi argitalpenen artean gertatzen den bilakaerarekin bat etorririk, *-tzat* erako helburuzko perpausak urri dira *GGero*-aren C ataleraino, D atalean nahikoa ugaltzen diren bitartean:

empleatu leientzat (1-69), emon daguioentzat (17-21), sinistu daguioentzat (19-252/253), daguientzat (29-14), ezagutu eguientzat (31-84), alabatu daientzat (35-71), emon daiguntzat (43-85), autortu eguientzat (47-15), gogoratu eguientzat (47-24), confesatu eguientzat (47-25), estimatu eguiantzat (49-89), ecarri daizentzat (50-24).

LauEv-en ere sarri xamar erabiltzen du (cf. Ciarrusta 1991: 75-76 eta 153), baina bada alde garrantzitsu bat honen eta *GGero*-aren artean: Axularren itzulpeanean adibide guztiak iragankorrek dira, *EL*¹-ean bezala (*jarraitu neguiantzat 10, ezagutu daientzat 100*), *LauEv*-en iragangaitzak ere agertzen diren bitartean (*bete cedintzat 22, issildu cedintzat 232, maitetu zaitecéntzat 282, izan ez nendintzat 303/4, EL*²-an bezala (*eldu nadintzat 102, izan ditezantzat 93, austu dedintzat 39, equin cedintzat 215, etab.*).

4.4.9. Lehenaldia izan-ekin

*EL*²-n ugaldu egiten dira *EL*¹-ean nekez baizik agertzen ez ziren *geratu izan da* erako egiturak, Zabalak (1848: 18) ezarri zuen bereizkuntzaren ildotik:⁵⁷ *hots, geratu da* erakoek *geratu izan da* baino denbora hurbilagoa adierazten dute. Alde honetatik, *GGero*-n 1802ko egoera bera aurkitzen dugu, orotara hiru adibideok baino ez baitituz aurkitu: *emon izan baciña (12-165), fiatu izan baguez (22-115)* eta *egon izan cirianac (32-40)*.

4.5. Sinonimo elkarteak

Añibarroren idazkeraren ezaugarrietako bat esanahikideak pilatzea da, eta honetan marka guztiak hautsi zituen. Inolako zalantzarik gabe ahalik eta irakurle gehienek uler zezaten edota apaizek euren eliztarrek hobeto uler zezaketena aukera zezaten egin zuen, bestek bezala, baino eurek baino idazkera astuntzeko arriskuari axola gutxiago eginik. Jokabide honen barruan, oso maiz “tautologiak” de-

⁵⁷ *OEH*-an (s.v. *izan 15*, hots, iragangaitzen laguntzaileaz) Leizarraga eta Orixeren adibideak jasotzen dira, baina ez da gaia iruzkintzen: jakin gabe geratzen gara, beraz, XX. mendeko teorikoen teoriara arte Hegoaldean gauzak nola zebiltzan.

ritzen elkartuak —hots, osagai esanahikidez eratutakoak— egiten ditu. Izan ere, elkartu mota hauek osagaietako bat ezezaguna izan daitekeenean sortzen dira (Azkarate 1990: 195-196).

Haietako batzuk halako maiztasun batez bere idazlan guztietan errepikatzen dira, EL^2 -n batzuk (*antz-irudi*, *esker-mesede*, *esker-zor*, *gor-sortu*, *kitu-saritu*, *lan-bear*, *lan-neke*, *orde-kitutu*) ezabatu bazituen ere, bakar bat (*min-ala*) erantsiaz.

GGero-n ere oso maiz aurkitzen ditugu tautologiak, batzuk behin bakarrik, besteak hitz finko modura:

antz-irudintza (0-24), *neque-pen* (0-118), *lan bearrari* (1-109), *Arech-arbolac* (1-238), *alpernaguia*ren (2-59), *nai-gura* (3-2), *garratz-min* (3-50), *jai-fiestac* (3-75), *bear-neque* (3-77), *antz-irudia* (6-119), *sor-gortuten* (7-67/68), *estu-larritu* (11-9), *ase-bete* (11-75), *kitu-sarituten* (12-85/86), *esquer-mesede* (13-200), *kitu parcatuten* (18-31/32), *lar-gueieguia* (20-157), etab.

Ikus daitekeen legez, elkartu hauen ezaugarri formala, elkartu guztiei dago-kienez, bigarren osagaiak bakarrik atzizkia hartzea da. Eta Añibarroren tautologietan, gehienak euskalki edo hizkera ezberdinetan aurki zitezkeen esanahikideak bildu ohi dira, *jai-fiestac* bezalakoetan, hots, osagaietako bat mailegua denean, euskal hitz jatorra ezagutzera emateko gogoia azpian badabilke ere.

Honek arazo bat dakarkigu Añibarroren pasarte batzuen ulerpenean; izan ere, bigarren osagaia izenondotzat har daitekeenean (cf. 0-24. oh.), *OEH*-ak hartakotzat hartzeko joera izan du, baina orain artean esan dudaren arabera, erabaki hauek berpentsatu beharko genituzke: *señale adigarria* bezalakoetan, alegia (ik. *OEH*, s.v. *adigarri*). Aurrerago (§ 5.3.1) Axularrekiko erkaketak honetan egin dezakeen laguntza profitatzen saiatuko naiz.

4.6. Ondorioak

Era askotako ondorioak atera litezke aurkeztu dudan azterketatik, baina hirutan geratuko naiz, labur bilduta, hasieran ezarritako helburuen ildoan esangura gehien daukatenetan, hain zuzen.

Lehenik, *GGero*-ari dagokionez, egiaztatu dugu letrakeran oinarrিতa idaztaldi ezberdintzat jo ditugun lau atalen artean hizkuntz ezberdintasun nabariak ere badirela: batzuk (A eta batez ere B) besteak baino zaharragoak direla, alegia. Baliteke B-k baino, gainerako atalek lan gehiago —zirriborro gehiago— eraman izana. Nolanahi ere, argi dago Axularren liburuaren itzulpena denbora luzeko lana izan zela, tartean hizkuntz iritzi zenbait goitik behera aldatzeko adinakoa, eta egiantzekoa da jarraian egina ez izatea.

Bigarrenik, hizkuntz ezaugarrien arabera kokatu ahal izan dugu *GGero EL*-aren 1802ko eta 1821eko argitalpenen artean, batzuetan EL^1 -ekin bat baitoa, bestetan EL^2 -rekin, eta bestetan oraindik bere bidetik, tarteko urratsetan itxaron dai-

tekeen bezalaxe. *GGero*-aren azterketak, gainera, osterantzeko eskuizkribuak erlatiboki datatzeko hirugarren euskarria eskaini digu.

Eta hirugarrenik, frogatu ahal izan dugu EL^1 -etik EL^2 -ra gertatu diren aldaketa asko eta asko, *GGero*-n jadanik beteta, edo maizago oso argi iragarrita daudela. Beraz, Añibarroren idazkeraren aldaketa ez zen bat-batekoa izan, gutxinakakoa baizik, gauzak honela edo bestela idazteko erabakiak ez baitzituen denak batera hartu, ez eta une batean hartutako erabakiak behin betirako gorde: joera goiztar batzuk lege bilakatzen dira *GGero*-n; beste batzuk orduan azaltzen dira lehenengoz, eta 1821ean baino ez dira orokortuko, edo ez dira behin ere orokortuko, dela erabaki ezinik jarraitu duelako, edo dela bertan behera utzi dituelako. Orotara, oso ezaugarri gutxi eman daitezke EL^2 -n berezkotzat, gehienak lehendik datozen joera horien ondorio dira eta.

Badirudi, hortaz, bizitza osoan zehar Añibarro bere idazkeraren baliabideak ugaltzera eta zorroztera jo zuela, hartara jarrita dagoen idazlearen begi-belarriak erne, euskal liburu zein herrietan etengabe esamolde berriak ikasteko, baita erabili ohi zituenen hedadura, ulergarritasun edota jatorritasunaren neurria hartzeko ere.

5. *Añibarroren itzulpenaren ezaugarriak: hizkuntz erkaketa*

Itzulpenak testu beregainak bailiran erabili ohi ditugu, jatorrizko testura jo gabe irakurri, aipatu eta are argitaratuaz ere. Ikuspuntu askotatik, baita filologia-renetik ere, iruzur egitea bezalaxe bada ere, badirudi, erosotasuna edo axolagabekeria alde batera utzita, aintzat hartzen dugula itzulpena bere baitan bizi dela, beste liburu bat dela. Halaxe bide deritze testukritikaren maisuei ere, ez baitago teoria berezirik, dakidalarik, itzulpenak ematen dituen arazo filologiko berezietarako.

Halere, ia ezinezkoa da honela jokatzea Añibarroren itzulpen honekin, guztiz testuarekiko arrazoiengatik. Itzulpena burutik buru eginda dagoen arren, egiatan bukagabeko lan batez ari gara, egilearen azken orrazketaren beharretan geratu zen batez. Jadanik ezagutzen ditugun kopia-hutsez gainera, badira itzulpen prozesuari zuzenean egotzi beharreko akats mota ezberdinak ere ugari. Adibidez, perpaus luzeen buruan maiz Axularren ergatiboa gorde du Añibarrok, nahiz esaldia taxutu ahala haren aditz iragankorra iragangaitzarekin ordezkatu. Nolabait esanda, dagoen bezala itzulpen honek ez du oraindik jatorrizko testuarekin lotzen duen zilborrestea hautsi.

Testu arrazoiak indartsuenak badira ere, baditugu hizkuntz arrazoiak edo, nahiago bada, estilo arrazoiak ere, sarritan Añibarroren idazkeran ezohikoak diren hitz, esapide edo egiturak idoroten baitira, Axularren kidekoen egokitzapen, kaliko edo kopiatik sortuak.

Arrazoi hauen guztiengatik, argitaratzaileak hamaika aldiz jatorrizkora jo behar du, ezinbestean, dela bitxikeriaren, dela okerraren jatorriaren bila. Halere, halako egokiera berezietan bakarrik bi testuak erkatuaz, dudarik gabe Añibarroren

jokabideari buruzko ikuspegi desorekatu bat baino ez dugu lortzen. Hauxe kontuan harturik, bada, bi liburuak hasi eta buka alderatu ditut, eta erkalan honen emaitzak argitalpenaren oharretan aurkeztu, aurrerago azalduko ditudan irizpideen arabera. Atal honetan ageri dena, berriz, emaitzon sistematizazio saio bat eta azalpen hasikin bat baino ez da.

Alderaketaren ondoren nagusiak bi eratakoak dira. Alde batetik, jatorrizko testuaren edukia eta forma —hitz honen adiera estilistikoan— zertan geratu diren esaten digu, nolako itzulpena den egiaztatzeke eta are zein motatako irakurlearentzat pentsatuta dagoen somatzeko aukera emanez. Bestetik, hizkuntz lekukotasun apartekoa da, berebizikoa, hala Añibarroren hizkuntz gaitasuna ezagutzeko, bere gainerako idazlanek nekez erakusten duten moduan, nola bi mende eta bi euskalkitako testuak alderatzeko, euskararen —batez ere euskara idatziaren— bilakarari buruz profita daitezkeen hainbat datu eskainiaz.

Gure lana zein izan den eta zein datu mota eskaintzen dituen ulertzeko, nahitaez hasi behar da itzulpenaren nolakoaz hitz egitetik, idazketan zehar, ezustean, Añibarrok jokabidea erabat aldatu zuela zehaztetik. Etxausen gutuna eta lehen kapituluak, gutxi gorabehera 11-12. buruetaraino, jatorrizko testuaren hitzez hitzeko itzulpena dira, hain hitzez hitzekoa non, oro har, Añibarrok edukia eta perpausen osagaiak ez eze, haien ordena bera ere errespetatzen baitu, salbuespen gutxirekin, Axularren idazkera ia ezertan ere aldatu gabe. Honela jokatzek buruhauste zenbait sortu zizkion itzultzaileari: gogora ditzagun eskuizkribuan berez markatuta dauden hitz ulergaitz haiek, hitzez hitz aritzerakoan saihestuezinezkoak. Hala eta guttiz ere, honela taxututako testua, nik uste, itzulpenaren zatirik harrigarri eta atseginena da: Añibarroren bizkaiera arazorik gabe egokitzen zaio lapurterari, euskalki hark beste inongo liburutan, dakidalarik, aurkiezina den kutsu oratorio bat galanki erdietsirik.

Handik aurrera, ordea, Añibarro bakoitzean askeago dabil, oraindik ere hitzez hitz itzulitako zatiak ugari dauden arren: batzuetan batera eta bestetan bestera, ez dago aurrez esaterik noiz itzulpen estua egingo duen eta noiz ez, baina oro har ez da behin ere bihurtzen hasierako buruetako zintzotasunera. Ez da larritzen hitz edo perpaus baten esanahi zehatza ongi ez ulertutakoan: esanahi orokorrari begira itzultzen du, txikikerietan gelditu gabe. Lehen baino hitzak erantsi, kendu edo lekuz aldatzeko askoz atzerapen gutxiago dauka, pasarte osoak ezabatu edo bere erara berridazten ditu eta, hala deritzanean, bere kabuz hainbat eransketa egin ere, egiten ditu.

Zati honetako ezaugarriak garrantzizkoena, idazkerari dagokionez, esaldiak bere modura antolatzeke joera dugu, Axularren erretorikarako isuria eta harekin lotutako joskera konplexua eta sarritan arrotza begiratu gabe. Honek esan nahi du, azken batean, une batetik aurrera gehienbat Añibarroren ohiko idazkera lau baino ez dugula aurkitzen: nolabait esateke, noren itzulpena den jakingo ez bagenu, ziurrenik ez genuke izango Axularrengan pentsatzeko aski arrazoirik.

Orain artean esanak egiaztatzeko biderik onena, inondik ere, tankera bateko eta besteko pasarteak ikuskatzea izango da. Lehenik itzulpen estuko adibide bat, Etxausen gutun ospetsutik hartua:

Bada, ez eta onraren amatatzalle ta iltzallea bere. Lenagotic bai, badirudi ece zuc gogo óna aurreratu dozula, muga ta marra igaro dozula, ta *Echausco* eheco soñeco gorriaz janzteco vide-etan izan zarea. Cerren ezta eztaquienic, Erreguec ataraco autu ta icentatu cinduala. Eta colpea uts eguin bada bere, ezta uts eguin zure erruz edo zu ataraco ez gai izanez; cerren, ichi ta largaric alde batera zure merecimendu andiac, eta Elessari, Erregueari ta Comun guztiari ocasíño ta era ascotan eguin deutsezuzan eguite ónac, naturaleza berac bere dotatu ta bete-betean emon deusuz doe apaingarri asco: Adimentu eder bat, gomute andi bat ta vorondate onera, onrara ta prestutasunera jausi bat, zabaldu bat, macurtu bat ta emon bat emon deusuz (0-123/132).

Bada ez eta ohorearen iraunguitçaille ere. Aitcitic, badiruri ecen çuc chedea aitciñatu duçula, marra iragan duçula, eta *Echausco* etchearen arropa gorriaz vestitceco bidetan içan çarela. Ceren ezta eztaquienic, ecen Erreguec hartaracotçat hautatu eta icendatu cinituela. Eta colpea huts eguiñ bada ere, eztela çure faltaz edo çu hartaco ez gai içanez huts eguiñ, ceren utciric alde batetara çure merecimendu handiac, eta eliçari, erregueri eta comun guztiari anhitz ocasinotan eguiñ derauztetçun cerbitçuac eta endreçuac, naturaleçac berac ere anhitz donu, dohaiñ eta abantail suertez dotatu, hornitu eta complitu baitçaitu. Adimendu eder bat, memori handi bat, eta vorondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratçu (Ax 8-9).

Bigarrenik, itzulpen askeagokoa, amaiera aldeko buru batetik hartua; ohartu nola, besteak beste, Axularren itzulinguru erretorikoak desagertzen diren:

Iraute era bicoac idoroten dira gure artean. Bata da, dempora lucean irauñ ezquero onean ta pecatu eguin bague, guero azquenean uts eguiten dabenean. Au da arriaren ganean ereinten dan acia leguez: ernetan da ondo, baña eztabelaco sustrairic ezarten, laster igartuten da. Alan, asco ondo asten dira, baña eztira aurreratuten ontasunean; dan ocasíño ta tentaciñoric chiquienac cañabera mea leguez macurtuten ditu; ta azquenean, nos eta sendoago egon bear leuqueanean, orduan jausten dira, ausiten dira, galduten dira (43-24/31).

Bi perseveratce molde, bi iraute suerte erran ahal diteque edireiten direla gure artean. Bata da cenbait denboratacoa, cenbait denboraz ontasunean iraunez guero, eta beccaturic eguin gabe egonez guero, azquen finean edo finera hurbiltcean faltatcen duena. Hura da lapitçaren ganean ereiten den hacia beçala, sortcen da ongui, baina nola ezpaitu erroric eguiten, fite ihartcen da. Hala dira, bada, iende thailu batçuc ere, hasten dira ongui, ordea eztira aitcinatcen: den traburic ttipiënean behaztopa, canabera beçala malgu eta plega, camaleona beçanbate-tan muda, finean firmetasunic ez, hoberenean falta (Ax 456).

Eta hirugarrenik, bere kasa dabilenetako bat, oraingoan hain maite dituen *amplificatio*-etako bat (§ 5.5.3):

Eguia da edocein dempora dala ona Jangoicoa servitceco; edocein urte, edade ta ordutan dago prest gure Jangoico maitea parcatuteco becatuac becatariric andienari, nai dala gazte demporan, nai zartasunean, nai eriotzaco orduan, baldin becatariac penitencia eguiazcoa eguiten badau. Nosnai, diño, prest egongo dala parcatuteco ondo prestatzen danari; ta alan aditu bear da len esan dogun guztia (13-157/162).

Eguia da, Iaincoac prometatcen dio bere beccatuen barccamendua noiz nahi den, çahartcean ere, penitencia eguiten duenari (Ax 179).

Añibarrok ez du beti egiten espero genezakeen lana, beraz. Liburuaren gehie-nean ez du jatorrizko edukia, ezta forma ere errespetatzen. Bere erara itzultzen du. Eta gertakari hauek haren helburua zein izan zen ulertzen hasteko zantzu ederrak eskaintzen dizkigu. Esan gabe doa egungo euskaldun batek ez lukeela Añibarrok bezala jokatu, ez eta lanbidez itzultzaile ez balitz ere. Sentipena asko aldatu dela gogoratu behar dugu, hainbat aldetan aldatu ere.

Lehenbizikorik, gaia dagoen-dagoenean utziko genuke, ez bakarrik gordinke-riak eta, baita dotrina kontuak ere. Guretzat, ezer baino gehiago, lehenagoko ga-rietako dokumentua da Axularren liburua, bai hizkuntzaren, baita bestelakoen al-detik. Erljio gogoetak eragiteko egokia izan daitekeela deritzenak ere, aparatuan azalduko luke gaurko erlijiotasunarekiko dituen aldeak, Villasantek, gaiak dakie-nak legez, bere lehen argitalpenean (Bartzelona, 1964) egin bezala. Eta, bigarre-nik, Axularren idazkeratik ikasten ohituta gaude; tarteko mendeetan, eta guztiz az-ken urteotan, haren hainbat esamolde euskara jasoak barneratu ditu: hortaz, ahalik eta gutxiena aldatuko genuke.

Ez bata, ez bestea egin du Añibarrok. Halaz ere, badakigu, berak esanda, itzul-zeiko zio nagusia hizkuntza izan zela: haren euskara ederra erakustea eta irakas-tea. Itxurazko kontraesan hau askatzeko, kontuan hartu behar ditugu egungo itzul-tzailearen lana baldintzatuko ez luketen edo, gutxienez, era berean zamatuko ez luketen bi alderdi.

Batetik, dotrinaren eta garbitasunaren aurkako ezer agertu ezinak hitzak zein pasarte osoak zentsuratzera legetxe, dotrina argi eta zuzen azaldu beharrak bost al-daketa edota eransketa egitera darama, goian ikusi dugun pasarte luzatua lekuko: honek askoz indar gehiago du, Axularren estiloaren edertasunak baino.

Bestetik, indar gehiago bide du, orobat, buruan zeukan irakurle motak ere, Axularrenaz oso bestelakoa, askoz apalagoa baita, jadanik aurreratu dudanez (§ 3.3). Badirudi honi egotzi behar zaiola, ez bakarrik latina ezabatua edota azalpe-nak gehitua (§ 5.4), baita oro har forman igarri dugun aldaketa handia ere, Axula-rren idazkera jasotik bere ohiko idazkera lauagora daramana: ez dago esan beha-rrik joskera korapilotsuek eta bihurgune erretorikoek bihotza galarazteko modukoak izan daitezkeela euskaraz irakurtzen ohitura gutxi daukan eta are agian irakurtzen ozta dakien irakurlearentzat.

Hau honela izatera, orduan hasierako itzulpen estuak beharbada ez du zintzo-tasuna zehazki adierazten, ongi menperatzen ez den eremu batean sartzerakoan sentitzen den errespetua edo beldurra baizik; badirudi hartatik askatu zen heinean, konfidantza hartuaz joan zen heinean gutxinaka bere lehengora bihurtu zela, ohiko irakurleentzat ohiko idazkera erabiltzera, alegia.

Honaino ezberdintasuna azpimarratu badut ere, gaiari alderantziz helduta ai-tortu behar da zorrak ere erruz aurki daitezkeela liburu guztian zehar, baita askee-nik itzultzen duenean ere. Añibarroren idazkeran ez ezik, bizkaieran eta are men-debaleko edozein hizkera edo idazkeratan zeharo ezohikoak diren esamoldeak han-hemen aurkitzea ez da lan zaila. Alde batetik, asko ikasten du Axularrengan-

dik, eta ikasitakoa hein batean bederen irakurleei irakatsi nahi die: badaki lapurterazkoa bizkaieraz “berziklatzen” kalkoaren bidez, eta ez dauka lotsarik hitzak zein esapideak mailegatzeko, sarritan bizkaierazko esanahikide edo glosen laguntzan (§ 5.3.3). Bestetik, ez du haren hizkuntza nahi bestean menperatzen, eta honegatik noizbehinka ilun edo oker itzultzen du, azalari atxikiegia, mamia antzeman ezinik (§ 5.3.4).

Añibarrok egin duen itzulpenean —honetan eta beste edozeinetan, jakina— eragina duen beste alderdi bat ere bada, begi bistakoa bezain garrantzitsua den alderdi bat: itzultzailearen hizkuntz gaitasuna, jatorrizkoa ulertzeko eta berera aldatzeko daukan ahalmena. Arlo honetan, erkaketak eremu ia mugagabe bat irekitzen du, itzulpen akats edo zalantzetatik esperoezineko asmakuntzetaraino, xehetasunetatik gertakari orokorretaraino, Añibarroren geroko idazkeran Axular itzultzeak izan zezakeen eraginetik dialekto bereizkuntza eta euskararen bilakabidea bezalako gai handietaraino heda baitaiteke, hedatu ere, haren irispidea.

Ildo honetatik, gure eskuizkribu bakar eta akastunak beste edozein dokumenturen aurretik duen abantaila defendatu behar dugu, zeren eta aurkezten dituen oztopoak baino anitzez garrantzitsuago diren gehigarriko informazioak eskaintzen baititu. Añibarro Axularren testua irakurri, hausnartu, buruz itzuli eta paperera igarotzeko unean aurkitzen dugu maiz, duda egin eta erabaki bitartean begira gagozkio, aurrera egiten edo ibilitakoa berpasatzen duenean, aldakan eserita bageunde bezalaxe.

Ispilu honetan, itzultzaileek beren burua ikus dezakete. Euskaltzale askoren bihotza hantuko da, apika, gogoia beste baliabiderik gabe, aitzinekoek egin ahal izan zutena ikusiaz, euskara lantzea mende latz haietan izan zen bide mehar baina itxaropenez bete hartan. Eta filologoen eskura dugu XIX. mendeko bizkaitar batek —asko ibilitako batek, baina— ia bi mende lehenagoko lapurtera nola hartzen zuen zehatz-mehatz islatzen duen lekukotasun aberats hau: nola erantzun zion testu oso zail batek eskatzen zuenari, nola haztatzen zituen bere ama-hizkeraren adierazpideak, nolako zalantzak zituen eta nolako erabakiak hartu zituen.

Izan litezkeen guztietatik, ondoko azterketan bi interesgune nagusi izan ditut. Lehenik, erkaketak agerian jarri dituen ezaugarri garrantzitsu edo nabarienen ikuspegi orokor eta ordenatua eskaintzea, oharretan sakabanatuta gera zitezkeen iruzkinak batuaz, Añibarroren itzulpena ez eze, haren idazkera ere hobeto ezagutzeko asmoz. Eta bigarrenik, ohi ez bezalako lekukotasun hau baliatuaz, euskararen historian esanguratsu izan daitezkeen datu zenbait bildu eta aurkeztea.

Lehenari dagokionez, Añibarroren idazkeraren ikuspegi berri bat eskaintzen digu Axularrekiko erkaketak, zeren eta agerian jartzen baititu bestela oharkabean igaroko lirakeen ezaugarriak. Adibidez, ohartarazten digu buruan zeukan irakurle motaren barnean emakumea ere sartzen dela, Axularrenean ez bezala (§ 5.4.4). Haatik, hizkuntz kontuetan da baliotsuenik erkaketaren lekukotasuna, gertakari zail batzuei buruz ziurtasun handiagoz hitz egiteko parada ematen digu eta.

Izan ere, Añibarrorengan zein beste edozein euskal idazle zaharrengan agertzen diren zenbait gauza ez dakigu, nik uste, nondik nora doazen, nahita ala ohar-

kabean egiten dituzten. Hau da, adibidez, erdarakadekin edo erdararen kalkoekin gertatzen zaiguna: Añibarro sarritan erdaratik itzultzen ari zenez (gogora ditzagun, besteren artean, *LoraS* edo *LauEv*), jakintzat ematen dugu —edo hala dirudi behintzat— itzulpenean bertan gertatutako interferentziak direla. Beste hainbeste esan daiteke herri hizkuntzaren ezaugarri berezienei buruz ere, idazleari berez bezala itzurtzen zaizkiola uste izan ohi baitugu.

Erkaketak halako usteak kolokan jartzeko datuak eskaintzen dizkigu, batzuetan behintzat. Esate baterako, Axularren ‘X *bihurtu*’ egitura jatorraren ordez Añibarrok ‘X-*n bihurtu*’ kalkoa erabiltzen duenean, ez du oharkabean egiten, ez dago interferentziez mintzatzerik: bizkaitarrak berrikuntza barneratuta zuela onartu behar dugu (§ 5.2.4). Berebat, *EL*¹-ean *pisetu* eta *EL*²-n *pisatu* jartzen duenean, pentsa liteke batean natural ari zela, eta bestean ohartuki; baina Axularren *pisatu pisetu* bilakatzen duenean (11-71/72. oh.), begibistan dago jakinaren gaineko erabakia dela, itzultzaileak euskalki ezberdintasuna emetu beharrean azpimarratzeko hautua egin duela.

Lekukotasun honen balioa hamaika ezaugarritara heda daiteke, hala nola *elkar* edo *bere burua* izenordainen erabilera berezira, aspaldixko gainbehera doazelako seinale (§§ 5.1.2.5 eta 5.1.2.6), beti ere Axularrek erkabidea eta, beraz, erabakiaren bermea ematen digu eta. Hari esker, berebat, hemendik aurrera Añibarroren elkartu tautologikoen osagaiak ‘izena + izenondoa’ egituratzat hartzeko arriskua kontuz saihestu beharko dugula ikasten dugu (§ 5.3.1).

Histori alderdiari dagokionez, kontuan izan behar dugu Añibarrok ez duela beti era batera jokutzen. Alde batetik, badakigu bere idazkera finkatzeke dagoela zenbait gaitan, finkatzen ari dela. Eta bestetik, euskaratik euskarara itzultzen ari denez, ez dabil erdaratik euskarara itzultzen edo bere kasa idazten ari denean bezain aske: sarritan Añibarroren beste idatzietatik ezertan ere bereizten ez diren pasarteak aurkituko baditugu ere, Axularrek gaina hartzen dio batzuetan, haren tankerako gauzak ez-arian bezala itzuri zaizkio, bestetan hauek berak bestela aldatu baditu ere.

Nolanahi ere, itzulpen bat denez, erkaketan zehar esangura historikoa izan dezaketen hizkuntz aldaketa anitz aurkitzen dira, maizenik behin eta berriz bide beretik doazenak. Haietako asko espero izatekoak dira, euskalki eta garaian dagoen aldeari zor baitzaizkio. Batzuk gehienbat euskararen beraren bilakabideak azaltzen ditu, hots, mende eta erdiz gero euskararen gertatu diren berrikuntzen edo euskalkiak elkarrengandik areago bereizi dituzten hautapenen islak dira: 1643an bizkaitar batek ere ez zituzkeen hala aldatuko. Besteak, gehientsuenak ziurrenik, mendebaleko eta ekialdeko euskara batzuetan, bizkaiera eta lapurtera bestetan, lehenagotik ere bereizten dituzten ezaugarriak dira.

Batera zein bestera, funtsezkoenei begirada bat ematea oso irakasgarria izan daitekeela deritzat, gaintik baino ez bada ere, ez baitut uste behar bezain ongi eza gutzen ditugunik. Izan ere, aztertuko ditugun gai gehienak hizkuntz historialariek xeheki aztertu gabe daude, asko eta asko ez xeheki, ezta gaingiroki ere, eta bati baino gehiagori buruz zantzuz baino ezin gara mintzatu. Adibide bat baino ez: espero

izatekoa da Añibarrok Axularren aldean mugagabe gutxiago erabiltzea eta, beraz, Axularren mugagabeak itzulpenean mugaturik agertzea; haatik, zeinek esan dezake Añibarroren muga alde honetatik non dagoen, hots, zer onar zezakeen eta zer ez?

Alabaina, ez nuke dena baino gehiago saldu nahi. Erkaketa honen ondorioak apalak dira, asmoa ez baita Añibarroren aurreko mende eta erdia azaltzea, ezta ondoko bietan gertatuko denaren lorratzak aurkitzea, are gutxiago euskararen historiaurrearekin zerikusia daukan ezer argitzea. Ezin dezake berdinu, bestalde, lapurteraren eta bizkaieraren garapenez, euskalki gisa ez eze literatur euskalki gisa ere, egiteko geratzen zaigun lanaren handia. Edonola ere, ikutuko diren gai gehienak ikertzeko dauden edo historiaurrearen lanbropean geratu beharrekoak diren neurrian, erkaketaren ildotik hemen egin ahalko diren iruzkin apurrek bide irekitzaile izan nahi lukete, ideia emaile, ahal balitz, ez osoki azaltzaile, inondik ere.

Gainera, agian letra xehez izendatu behar den historia mota batez ariko naiz gehienbat: azalduko zaizkigun Añibarroren hizkuntzaren ezaugarri batzuek zurrerik ez dute bi mende baino askoz gehiagoko zahartasunik, beste batzuk ia ez-deusak dira, historiagile batek nekez aintzat hartuko lituzkeenak, eta are beste batzuk idazkerazkoak bakarrik, ahozko hizkuntzarekin zerikusi gutxikoak. Haien zer-nolakoaren neurri emango digun datu bat badugu: historialarien arreta baino, haietako batzuek errazago arauemaileena erakarri dute. Halere, honelako gauzak ere historikoki bereizten ikastea, ez deritzat ikasketa alferra denik.

Erkaketaren gaiak hautatzerakoan erabili ditudan irizpideez den bezainbatean, uste dut ezinbestekoa dela aurrenik Añibarroren lana inguratzen duten baldintzak gogoratzea, itzultzailea bi gudalekutan ari baita, batzuetan aise, bestetan nekez. Lehenik, Axularren testuarekin borrokatu behar du, ez baita beti erraza, ez ulertzen, ez itzultzen, batez ere irakurle apalarengan gogoa ipinita duen itzultzailearentzat. Ez dauka euskarririk, Harrieten gramatikak eta bertako hiztegitxoek eman diezaioketen laguntza laburraz besterik, eta bigarren argitalpenaren akats eta irakurketa berezi ugariak are behaztopa gehiago dakarzkio, inondik ere (cf., adibidez, *egoa бага* ustela < *eho gabe*, 1-60/61. oh.). Bigarrenik, Añibarrok bere hizkerarekin berearekin borrokatu behar du, ez baitago lapurtera klasikoaren parean oraino, estreina baitu ia, literatur euskalkitzat hartzeko moduko testuak ekoizten hasi berritan.

Ez dezagun ahatz, dena dela, Añibarro ez dela bizkaitar hitzun arrunta, idazle jantzia, gramatikagile aditua eta lexikografo trebea baizik: euskalkiak eta haien arteko ezberdintasunak orduan gutxi adina ezagutzen zituen; euskara oro har gutxi adina menperatzen zuen eta, beraz, adiuntzarik onenean zegoen arloari ekiteko.

Ez dezagun ahatz, berebat, *GGero*-aren hitzaurrean berak aitortua, alegia, Zarauzko misiolariak, Hego Euskal Herriko eskualde guztietara hedatu behar zirenez, leku jakin bateko euskara hutsez, ez eta bizkaiera hutsa dei dezakegun zerbaitez, mintzatzeko zailtasunak izan zitzaketela. *Excusatio* hauek, bistan da nik uste, ez dute egiatan ezintasunik adierazten, ahalik eta gehienek ulertzeko moduko euskara molde bat, batez ere lexikoaren aldetik oso irekia zen euskara molde bat erabiltzeko jakinaren gaineko aukera baizik. Añibarrok ere ez bide zuen ikus-

ten arazorik, Larramendik “euskaldun guztion maisuak” zioen bezala, euskalki guztietako hitzak denonak bilaka zitezten. Beraz, aukera batzuk begi irekitasun honekin eginak izan daitezke: euskalari batek eginak dira, ez euskaldun huts batek.

Egoera honetan, hala itzulpen zuzena egiten duen buruetan, nola askeagora igarotzen denetan, aldaketak hainbat dira eta era askotakoak: itzulpenak beharrezko egiten zituenak eta borondatezkoak; estiloari edo edukiari baino ez dagozkionak eta hizkuntzakoak, morfologia, joskera zein hiztegiak.

Aldaketa mordo horretatik, aski ezagunak iritzi diedanak alde batera utzita, gai jakingarri eta eragingarrienak honako aukeratzen saiatu naiz, gai txikerragoak edo behingo gertakariak oharretan bakarrik jasotzen diren bitartean. Honek esan nahi du aldaketen kontu ematerakoan, aldaketak jaso ala ez erabakitzerakoan, garrantzizkoa izan daitekeena hautatzeko irizpide zenbait izan direla. Jasoaz den bezainbatean, morfologia eta joskerari arreta gehiago ipini diet, lexikoari baino, baina haien barnean ere nabariari muzin eginik, eta jakintzat ezin eman nitzakeen gaiak edota beste batzuk bezain sistematikoki ezagutzen ez ditugunak oso bereziki begiraturik. Eta jaso gabeaz den bezainbatean, beti ere alde batera utzi ditut *arguizagui* > *ezcoa* eta areago *ardo* > *ardau* motakoak, hiztegi berezi edo teknikoko zenbait gertakari islatu nahi izan badituz ere, baita *eguiten du* > *eguiten dau* edo *acabatzen du* > *acabetan dau* motakoak ere.

Axularren grafiak oro har ez zuen eraginik izan Añibarrorean, dagoeneko mendebaleko literatur euskararen grafi sistema, oraino ere puntu apur batzuetan finkatugabea bazen ere, ezinbestean gaingitu behar baitzitzaien Axularren sistema anitzez arkaikoagoari. Alde batera utziko ditut, bestalde, hots kontuak, alde Añibarroren idazkeraren ezaugarriak aztertzerakoan hainbat azaldu baitira, alde bien artean itxaron daitezkeen ezberdintasunak aski jakinak baitira. Edonola ere, haie-tako batzuk ez-arian bezala agertuko zaizkigu bestelako bereizgarriekin batera.

Añibarroren hizkuntz hautapenetan jarri ditut begiak, beraz, Axularren hizkuntzaren ezaugarri morfologiko edo sintaktikoak ezagutzen zituenentz, bere hizkuntzan onartzen zituenentz, eta ez onartzekotan, zerekin ordezkatu zituen jakiteko asmoz (§§ 5.1 eta 5.2). Iragarri bezala, lexikoaren arlo zenbait ere jorratu dira (§ 5.3), baita irakurlegaia ezagutzeko ezinbestekoak diren eransketa motak (§ 5.4) eta itzulpena orokorki ezaugarritzatzeko kontuan hartu beharrekoak diren gutxieneko alderdi erretorikoak ere, nabarmenenak baino ez (§ 5.5).

Adibide gehienak erkaketa osotik (12. bururainokotik) atereak dira, handik aurrera lehen ongi islatuak jakintzat eman baitituz ia beti, gertakari bereziak ez aurkitzera. Hasierako atal horiek interesgarrienak dira arlo askotan, jatorrizko testuari estu-estu atxikitzen zaionez, Axularren hitzak ez eze, egiturak ere onartu edo ordezkatzeko erabakia unean-unean hartu behar baitu.

Esan gabe doa testu bion erkaketak, baita hurren aipatuko diren ezaugarrietan ere, orain egin nezakeen baino azterketa gehiagotarako gaia eskaintzen duela. Oraindaino ez bezala, Añibarroren testua eskura izateak eragingo ahal du hurbilketa haboro!

5.1. Morfologia

5.1.1. Deklinabidea

5.1.1.1. -a *itsatsia eta haren ondorenak*

Añibarroren idazlanekin nolabaiteko harremanak izan dituen edozeinek daki arazoak izan zituela zenbait hitzen forma biluzia erabakitzeko, hots, sarrienik behar baino *-a* bukaera gehiago aurkitzen zaizkiola, gutxi batzuetan *-a* behar luketen hitzak gabe agertzeaz gainera. Orain arteko eskarmentuari *GGero*-aren azterketa-tik erdietsitako datuak erantsita, nago bagaudela kontu hau behin betikoz-edo garbitzeko paradan, gertakari bat baino gehiagoz ari garela eta hauetako batzuk gurutzatuta agertzen direla aurretiaz aitortuaz bada ere.

Gogora dezagun berriz, lehenik eta behin, arazo gehienak *-a* bukaera errokoa bailitzan hartzetik datozkiola gure idazleari. Nire ustetan, honek azalpen orokorra dauka, Añibarroz beste askorentzat ere balio duena. Garai haietako hegoaldeko idazleek lexikoa aberasteko bi bide nagusi zituzten eskura: inoren idatzietan ikas-tea edota Larramendiren hiztegian gaztelaniazko hitzen ordainak bilatzea. Batera zein bestera, ez zatekeen beti erraza forma biluzia zuzen harrapatzea, baina are gutxiago hiztegian, beti edo ia beti forma mugatua eskaintzen baitu (cf., besteak beste, Urgell 1996: lxxvii, Lardizabalez).

Honelatsu azal daitezke, bada, testuan zehar behin eta berriz soberako *-a* daramaten hitz bakanak, eta haien artean bereziki argi deritzet Iparraldetik mailegatu berriberria zen *adin*-i (cf. *OEH*, s.v.) eta Larramendik berak ere mugagabetzat jotzen zuen *zia*-ri (cf. Urgell 2000); aitzitik, baliteke *iraina* bakarra oker hutsa baino ez izatea:

ADINA: *adinara* (12-286/287, 13-32, 32-51), *adinaric* (13-109), *adina edo edade* (13-141), baina *adin argal* (13-110), *adinean* (14-36), *adin onean* (15-389). ERTZA: *beco egal ertzaz-queanean* (43-49), *ertzaz* (43-53). IRAINA: *iraina asco* (13-80), baina *irainic* (29-5). OÑATZA: *oñatza gaistoac* (7-115), *oñatza ta laguntza asco* (44-83). SOLASA: *solasa loiac* (38-7/8), *dibersioño, solasa, llaneza gueieguietan* (38-24), *solasa, dibersioño, barriqueta amorezcoetaric* (38-89/90), *solasa ta combersacioño gueieguietan* (38-97), *solasan* (41-157), *solasa, olgura, dibersioño, fiestatzat* (45-95/96), *fiesta, solasa, musica gozoen erdian* (54-104), baina *solasean* (19-92, 38-134, 44-92). ZIA: *cia eraguinguilleac* (0-49), *cia andiac* (15-53).

Añibarroren mugagabe okerre, gainera, erator atzizki zenbaiten bizitzaren berri ematen digute. Izan ere, *eskari* bezalako hitzetan agertzen den *-ari* atzizkia ez zen erraz menperatzen zituenetakoa, inolaz ere ikasia baizik, neke gabe bil daitezkeen adibideek erakusten diguten bezala:

ESKARIA: *escaria berau* (33-53) baina *Escari au* (54-31/32), *escari labur* (54-33). GURARIA: *guraria banacac* (3-63), *guraria ori* (11-42), *guraria andi bat* (20-64), *guraria citela* (20-165), *guraria gaistoac* (44-94), baina *guraricoa* (1-252), *gurari bat* (3-108), *gurari utsetan* (3-145), *gurari char* (11-157), *gurari gaistoac* (32-41), *gurari ta naicunde* (33-45), *gurari gaistoac* (38-52), *gurari gaistoa* (39-77). JANARIA eta EDARIA: *ceru-janaria on gozoa* (7-42), *edaria garratz samiñac* (20-122), *janaria onac, edari obeac* (46-361), *janaria gozo* (54-94), baina *janari, mantenu* (1-250), *edari bat* (8-215), *janariric* (16-252), *edari samin bat* (30-15), *janariz ta edariz* (39-59), *janari guztien* (45-161/162), *janari gozo* (46-52), *janari gozoz* (46-333), *janari ustel* (53-133), *edari garratz* (53-133/134). LOTSARIA: *desonra, lotsaria ta calteaz* (5-77/78), *garratzmin, lotsaria ta eriotzaz* (11-53), *ceimbat lotsaria* (46-226), baina *lotsari ta arpegui char*

(2-96/97). MIRARIA: *miraria bat* (15-394), baina *ezta mirari* (43-239). POZCARIA: *pozcaria gozoa* (11-337), *pozcaria charretan* (12-255), *pozcaria, gozotasun, olgura, atseguintasun au* (42-14), baina *pozcariz* (5-123), *pozcariren bat* (46-92/93), *pozcarri andiangoa* (49-22), *pozcarri andiango* (49-91/92), *pozcarri bat* (54-152).

Beste hainbeste dioskute, askoz neurri txikiagoan bada ere, *-pen* atzizkiari buruz, eta bide batez Hegoaldean literaturaren bitartez erroztatu delako hipotesia datu berri honekin sendotzen (cf. De Rijk 1991 eta Urgell 2000):

ERAGOZPENEA: *eragozpenaric* (48-199/200). IRAUPENA: *azquen-iraupena au* (43-87), baina *iraupenean* (9-119), *iraupen* (12-64).

Esan gabe doa, euskaratik euskararako itzulpen batez ari garenez gero, Axularrek batzuetan zuzen jokutzen lagundu ziola; adibidez, *adin*-en adibide zuzen guztiak jatorrizkoari zor zaizkio:

adin argal (13-110) < *adin flaco* (Ax 176), *adinean* (14-36) = Ax 186, *adin onean* (15-389) = Ax 217.

Halaz ere, sarritan Añibarro bere kasa dabil, buruan zuenak Axularren leku-kotasunak baino, batzuetan indar gehiago zuela erakutsiaz:

adinaric < *adinic* (13-109), *solasa loiac* < *solhas gaixtoec* (38-7/8), *janaria* < *ianhari* (7-41/42), *janaria onac*, *edari obeac* < *ianhari onac eta edari hobeac* (46-361).

Bestetan, jatorrizko testua bera izan liteke nahasketaren eragilea:

Oñatza ta laguntza asco < *oinhatça franco, eta ez compainia escasic* (44-83).

Bigarrenik, taiu berekoak eman arren, zeharo beste gertakari baten barruan sartu behar ditugu ondokoak bezalako adibideak, non hitzaren zalantzazko izaerari baino, dudarik gabe deklinabide-atzizkiaren formarekiko zalantzari egotzi behar zaion *-a*-ren agerpena. Ohartu adibide guztiak leku-kasuak direla eta haien artean deigarria da inoiz beste ezergatik zalantza sortu ez zioten hitzak egotea, guztiz *-tasun* atzizkidunak:⁵⁸

etorquizaraco (3-127/128), *eriotzera / eriotzara* (ik. 4-55. oh.), *laguntzatic laguntzera* (8-135), *Zartasunaraño* (15-7/8), *dabonaraco* (20-61), *adisquidetasunatic* < *adisquidetasunetic* (32-65/66), *sabel darraiotasunatic* (39-6), *amorentasunaraco* (40-20), *gorputzaraco* (40-112), *pozara* (42-13).

Halaber, egitura batzuetan —eskuarki sinonimo edo baliokide zerrendetan— gertakaria ez da hain argia edo, bestela esanda, ez dirudi hitzaren (ustezko) izaerari zor zaionik; azken finean, honelako adibideak ez dira esanguratsuak berez, egoeraren araberakoak baizik, sarritan azken orduko eransketen ondorio:

asiera, acia ta biztugarri (1-51), *bear-saria, merecimendu ta arimazco ondasun andiac* (12-10/11). *sastamarra, auts, amaraun ta loiquieriac* (48-89).

Eta, azkenik, berezko *-a* itsatsia galtzen dutenen kasua dugu. Bizkaitar bategan itxaron zitekeen bezala, adibideak oso gutxi dira eta, dakusgunez, gehienak Añibarroren inguruan *-keria*-k jadanik *-a* itsatsia galdua edo galtzear zuelako lekuko, gehienetan irme eusten badio ere:

Nafarroco (0-46), *alperqueritic* (2-80), *gaiztaqueriz* < *gaiztaqueriaz* (42-55), *banerizcoetan* (46-61), baina *alperqueriatic* (1-7, 1-42), *gaiztaqueriaric* (1-107/108), *gaiztaqueria guztien* (2-29), *eroqueria andia* (5-93), etab. etab.

⁵⁸ Erants bekizkie aurrerago (§ 5.1.1.9) ikusiko ditugun NOIZKO kasukoak.

5.1.1.2. *Aposizioen ordena*

Ezaguna denez, *Dabid erregea* zein *errege Dabid*, bi hurrenkerak aurkitzen dira euskaraz (Azkarate 1990), eta gaingiroki hitz eginez lehena hegoaldekoa eta bigarrena iparraldekoa direla esan daiteke. Lekukotasun argirik behar izanez gero, hara non aurkitzen dugun Añibarro Axularren aposizioen ordena aldatu beharrez, bat edo beste itzuri bazitzaizkion ere:

Faraon errequeac < *erreque Pharaonec* (1-81), *Faraon errequeari* < *erreque Pharaoni* (9-65), baina *erreque Faraonec* (10-55), *David errequeac* < *erreque Davitec* (11-240), *David profetac* < *propheta Davitec* (12-181), *David errequeac* < *Erreque Dauitec* (41-64), etab.

Areago, inoiz antzematen da ordena aldatzeko zalantza izan zuela, azkenean gauzatu ez arren, aposizio konplexuagoetan: esate baterako, *Mecenas bere adisquideac* (27-52 eta 27-55) badio ere Axularrek bezala, *bere adisquide M.* jartzeko-tan ibili zela susma dezakegu, *Mecenas*-en aurrean *bere* ezabatua agertzen baita.

5.1.1.3. *Biziduna / bizigabea*

Añibarrok izen bizigabeekin bizidunen atzizkiak erabiltzeko joera dauka, ez oso indartsua, baina Axularren eredia aurrean izanik, inolaz ere berariazkotzat jo beharrekoa, eta honegatik are harrigarriagoa. Dakidalarik, deskribatu gabeko fenomeno hau euskaraz:^{58bis}

beronegan (= *libru onetan*, 0-49), *beragan* (= *gauzan* 7-85/86), *beragan* < *hartan* (= *miseri-cordian*, 10-3), *bataganic bestera* < *batetic bertcera* (= *denporatik denporara*, 27-89), *amoreaganic* < *amoriotic* (32-66), *bata besteaganic* (= *amorea gorrototik* 32-69), *pecatu loi lotsagarriganic* (35-78), *munduaganic* < *mundutic* (41-243), *beraganic* (= *infermurako atetik*, 44-82), *confeseteaganic* (47-193), *suaganic* < *sutic* (52-61).

Dakusgunez, adibideen erdiak baino gehiago izenordain anaforiko edo elkar-kariei dagozkie, halakoetan oposaketa ahulduta bailegoen. Halere, haratago ere badoa, izenarekin ez eze, aditzizenarekin ere erabiliaz.

5.1.1.4. *Mugatua / mugagabea deklinabidean*

Jakin badakigu *-ta-* artizkiak bereizten duen deklinabide mugagabearen alorra berri xamarra dela,⁵⁹ eta oro har Iparraldean Hegoaldean baino hedatuago dagoela, behe-rago ikusiko ditugun erabilera jakin batzuk lekuko, baina ez dugu haren ezarketa, banaketa eta hedapenaren deskribaketa zehatzik. Añibarro eta Axular alderatzeak, gertakari ezagun zenbait bermatzeaz gainera, datu esanguratsuak eskaintzen ditu, hain da eta handia bien arteko aldea. Honekin batera, deklinabide mugagabearekin lotuta dauden beste zenbait gai ere jorratuko ditugu.

Lehenik eta behin, azpimarra dezagun deklinabide mugagabea zeharo erro-tuta dagoela Axularren hizkuntzan, eta banaketa jakina duela, Añibarrorean ez be-zala. Baieztapen hau hainbat alderdi ezberdinetan egiazta daiteke:

^{58bis} Eta halere, lekukotasun gehiago eta zaharragoak daude, bizkaieraz bederen. Kapanagaren liburua ireki eta honako adibide hauek aurkitu ditut ustekabeen: *Curuçe santeagan*, *pecatuaganic* eta *eguiteaganic*.

⁵⁹ Cf. Mitxelena 1971 (146, 10. oh.): "Para hallar en toponimia una muestra de *-(e)tako*, la forma indeterminada histórica con *-ta-* infijado en nombres no propios, he tenido que llegar hasta *Iruerreca-taco* 'de tres arroyos' 1605, en Alava".

1) ZERTAN galderari erantzuten dioten sintagmetan, Axularren forma mugagabeak sarrienik plural bilakatzen dira itzulpenean (a), baina haietako batzuk singular zein plural, bietara egin ditzake Añibarrok, edo zalantzan ibili (b):

- (a) *luzamenduetan* < *luzamendutan* (0-4, eta *passim*), *andietan* ta *damugarrietan* < *handitan* (3-83), *lucemenduetan* ta *icharomenetan* < *luçamendutan* (3-94), *devociñoetan* ta *penitencietan* < *debocinotan* eta *penitenciatan* (5-36), *esturetan* < *hersturatan* (10-33), *eguitecoetan* < *eguitecotan* (10-103).
- (b) *becatuan* < *beccatutan* (11-37), *becatuetan*: leh. *becatuan*, < *beccatutan* (11-203), *becatuan* < *beccatutan* (12-133), *oraciñoan* < *oracinotan* (12-100), *oraciñoan* < *oracinotan* (12-177).

Ezinbestean, baina, Axularren ereduak salbuespen bat bederen eragin du, ingurune eta adiera ezberdineko adibidea dela antzeman badaiteke ere:

zure onra anditan... aguertu, eracutsi ta camporatuco ditu < *çure ohore handitan* (16-202).

NON galderari dagokionez, esapide jakinetan baino ez luke Axularrek berak ere erabiliko; aurkitu dugun adibidean, singular bihurtu du Añibarrok, oro har hegoaldeko arautzat jo dezakegunarekin bat etorririk:

bide erdian < *bidatz erditan* (9-64).

2) Aurreko adibideak, badirudi oro har Iparraldean Hegoaldean baino zenbait kasutan mugagabe gehiago erabiltzeko joerarekin lot daitezkeela. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, galdetzaille, determinatzaile zehaztugabe eta zenbatzaileekin, non, ustez behintzat, edonon ere dela mugagabea espero genezakeen, baina Añibarrok askotan deklinabide mugatua erabiltzen duen:

AINBESTE: *aimbeste urtean* < *hanbat urthez* (8-241/242), *aimbeste urteen buruan* < *hanbat urtheren buruan* (11-128/129), *aimbeste urte galduena ta alperric emonena* < *hanbat dembora galduz eta alfer iraganez* (12-168/169), *aimbeste demporan* (32-40), *aimbeste urtean* < *hanbat demboraz* (41-336), baina *aimbeste eguiteco* (1-45), *aimbeste mandamentuz* (1-48), *aimbeste calteren* (1-51), *aimbeste erri ta erreinu* (5-147), *aimbeste neque-pen* (11-45), *aimbeste on, esquer ta mesede* (11-330/331), *aimbeste asmu ta itzulpide* (16-172), *aimbeste birao, aien, aguiraca ta dedar* (20-146), *aimbeste calte negargarri* (31-122), *aimbeste urtez* (43-55), etab.

EDOZEIN: *edocein demporetan* (13-223/224), *edocein arriscuetan* < *edocein periletan* (31-50), *edocein lecura* (37-36), *edocein ordu ta demporetan* (43-81), *edocein demporan* (48-173/174), baina *edocein lecutan* (1-62), *edocein becatari* (8-117), *edocein urte, edade ta ordutan* (13-157/158), *edocein lecutan* (15-50), *beste edocein obra on* (16-75), *edocein castigu* (19-210/211), *edocein faltatan* (19-282), *edocein moldez* (30-30), *edocein ucutze* (38-52), *Edocein neque* (43-99), *edocein tentaciño, ocasiño, axe* (43-134/135), *edocein pecatu* (47-94).

MAKINA BAT: *maquina bat gauza char negargarriac* (20-162/163), *beste maquina bat gauzaraco* (48-128), baina *beste maquina bat era ta moldez* < *anhitz bertce moldez* (8-105), *maquina bat buruco min, ocasiño ta errierta* (46-278).

ONELAKO...: *onelaco ta alaco gauzac eguingo dogucela* < *hunelaco eta halaco descargu eguinen ditugula* (4-193/194).

ZE: *ce gogoan* (4-63), *Ce azquen ondo gaistoa* (20-212), *ce egoqueran* < *cer estatutan* (25-6/7), *ce arpeguiaz* (28-58), *ce calteac etorri ez jacozan* (37-18), *ce ecanduetacoac, ce cenzunecoac* < *cer azturatacoac* (40-38/39), *ce gozotasuna* (45-77/78), *ce sari andia, ce zorionezco ondasu-*

nac (45-183/184), *ce diferencia andia* (46-104), *ce neque, pena ta castigua* (46-371), *ce erara* (47-130), *Ce gracia ta ondasunac* (48-22/23), *Ce burla ta barreac* (50-64), *ce sentimentu, ce damu, ce tristura, ce biotz-mina* (52-154/155), *Ce sentimentua* (54-209), *baina ce lecutan edo librutan* (0-42), *Ce zaldi* (2-11/12), *ce achaquia ta iguesvide* (4-49), *Ce lo-zorro* (5-47), *ce aldats gora, neque ta gach* (7-101), *Ce escastasun, ce laburtasun, ce urritasun* (9-183/184), *ce bestetasun* (11-21/22), *ce provechu, ce on* (11-22/23), *Ce aurre-vide, burupe, ce privilegio, ce merecimendu* (11-172/173), *ce gauza on* (13-110), *Ce valentia, fanfarrerria ta gauza andi* (15-127/128), *ce modutan* (25-35), *ce bidez, ce aguinduz* (28-11), *Ce bicitza gaisto gogaituago* (32-96), *ce modutan* (35-20), *ce bidez ta bitartecoz* (36-19/20), etab.

ZEINBAT: *ceimbat bederatzurrun... ta testamentuco aguinduac* (18-83/84), *cembatera* (9-15, 9-29/30), *ceimbateric ceimbatera* (47-148) *baina cembat calte* (0-5), *cembat calte gogor* (0-142), *cembat eragozgarri ta locarri* (3-119), *cembat urte* (4-130), *ceimbat obra on* (12-163), *ceimbat damu, garbai ta naibague* (20-211), *ceimbat naibague, atsecabe, ta ceimbat gau ta egun char* (32-82/83), *ceimbat negar ta naibaguec* (32-97).

ZENBATZAILEAK: *amar becatuen < hamar beccaturen* (6-112), *oguei urteen < hogoy urtheren* (9-202), *milla milloi urteen buruan < milla urtheren buruan* (54-133).

Adibideak ikusita, zehaztaper bat egin beharra dugu, halere: bizkaitarrak ez du oro har —sintagma luze korapilotsua ez izatera, eta sarri ezta honela ere— arazorik izaten absolutuarekin (ez eta instrumentalarekin ere, agi danez), gainerako kasuekin bakarrik baizik, mugagabearen eta deklinabide mugagabearen artean hasieratik ezarri nahi izan dudana bereizketa bermatuaz. Alde honetatik, adibiderik onenak *ainbeste*-k eskaintzen dizkigu; tamalez, *ceimbat*-ek ez du absolutuaz bestelako adibiderik, baina haren beraren jokoak (*zenbatera...*) gauza bera adieraz dezake.

3) NOLAKO galderari erantzuten dioten izenlagunetan, ezaguna da *-tako* gehienara jota iparraldeko zenbait idazlerengan aurki daitekeela, gainerantzean *-ko* erabiltzen den bitartean (cf. Euskaltzaindiaren 34. arauaren azalpenak). Ezberdintasun honetaz ohartuta, Añibarrok gehienetan halako egiturak berera ekarri zituen, zenbatzailea egon zein ez:

lau esquiñaco < laur cantoiñetaco (1-88), *sabel aldi bateco bicochac < sable aldi batetacoac* (7-20), *lau eguneco < laur egunetaco* (7-149/150), *fede guichicoa < fede appurretacoa, fidantcia gutitacoa* (10-94), *bere caltecoa < bere caltetacoa* (31-110), *berba onecoac < hitz onetaco* (32-9).

Bada, dena dela, Axularren ereduak eragindako salbuespen pare bat:

probechu guichitacoa < probetchu gutitacoa (18-125/126), *berba onetacoa < hitz onetacoa* (22-83).

Baita bere kasa erabilitako *bitaco* bat (*Era bitaco presonac*, 44-7), hemen izan ezik, *bico* badakar ere (ik. 6-108, 8-230, 12-96, 12-270, 43-24, 52-119).

Are esanguratsua, mugagabe marka agerikorik ez eze, pluralik ere ez bide zuen onartzen ondoko egituran:

era guztico becatuetaraco < beccatu suerte guztietaco (13-141/142), *era guztico pecatuetan < beccatu suerte guztietan* (46-256/257).

Bidenabar, ondorio bera eragiten diote, hiperzuzenketa modura, jatorrizkoan ZERTAKO eta NOIZKO diren kasuek ere (bi hauetaz, ik. § 5.1.1.9):

cerbaiteco gai < cerbaitetaco gai (39-38/39), aimbat demporaco < hanbat demborataco (55-7/8).

4) Ezaguna da *errege*-ren erabilera klasikoak mugagabea eskatzen zuela, orain *OEH*-ak (s.v.) gramatikaren aldetik zehazkiago deskribatu duen erara. Hiztegi honen arabera, beraz, *errege* ezeren laguntzarik gabe agertzen denean, euskalki eta garai guztietan, gutxienez XIX. mendearen bukaera arte, maizenik mugagabe doa, lehen testuetatik salbuespenak izan arren, baina mugagabea ezinezkoa da izenondoaz (zein haren lekuan jarritako izenlagunaz) lagunduta doanean, eta aukerakoa izenlagunaz.

Axular baldin bada erabilera klasikoaren paradigmatako bat, argi geratzen da Añibarro, ostera, mugatua erabiltzeko joera areagotuta zegoen garai batekoa dela:

Erregueari < erregeri (0-128), erreguearen < erregeren (1-78).

Mugagabeetako batzuk errespetatzen ditu, halere:

Erreguec (0-95, 0-126), Erregueri (19-72), Erregue (40-80).

5) *Beste*-ren posibilitate ugarietatik bat, mugatzailerik gabe agertzea da. *OEH*-ak honetaz dioenaren arabera (s.v. *beste* 5), Iparraldean haren erabilera XVIII. mendetik aurrera beheraka doa, baina ez —inferi daiteke eta adibideetan (Añibarrorenak barne) egiazta— Hegoaldean. Izan ere, bai Axularri jarraiki, baita bere kasa, bada *beste* honen adibiderik *GGero*-an:

Ez besteren, ezpada ceure buruaren, ceure concienciaren baño < Ez nehoren bertceren... (41-247/248). dala araguiaren tentaciñoa, dala naigura citela, edo beste bicioren guerrea (44-67).

Beraz, honainokoa ezker ere ezin eman zezakeen aditzera Añibarrok gauzatu duen aldaketa, Axularren *beste* mugagabeak mugatu bihurtzen baititu ia beti, eta apika oro har mugagabe gutxiago erabiltzeko joerak bakarrik azal ditzake:

bestearen < bertceren (5-132), bestearena < bertceren çuçena (11-232), bestearenaz < bertcerenez (17-3), beste eguitecotara < bertce eguitecotara (27-30), beste aguinuaren bearric < bertce manuric behar (28-33), besteen guzurac < bertceren gueçurrac (42-72).

Ondoko adibidean, mugagabearen aldetik anbigua izan arren, *beste* berak bakarrik aski indarrik ez bailuen agertzen da, gainera:

beste gauzac < bertcec (36-33).

6) *asko*-ren deklinabidea izango da mugagabearen arlo honetan azalduko dudan azken datua. Tamalez, *OEH*-ak (s.v.) ez du ematen honetaz ezer ziurrik esateko argibiderik, baina adibideen artean, *denpora askorako*-k (Ur *MarII* 41), esate baterako, Añibarro honetan bakarrik ez dagoelako bermea eskain diezaguke.

Gure egileak ia beti ezagun ditugun formak erabiltzen ditu, hala nola *ascotan* (0-129), *ascotara* (8-28), *ascoz* (8-98), *ascotaco* (8-223), *ascori* (13-108), *ascotaraco* (14-54) edo *ascogaz* (15-116). Ablatiboan, berriz, *ascotic* dugu (1-126 eta 5-12); genitiboan, zalantzan dabil *ascoen* (1-252, 16-61, 52-111) eta *ascoren* artean

(15-211, 17-12, 44-88/89, 45-225, 53-125); cf. halaber *ascoentzat* (51-54) eta jarraian *ascoentzat* (51-54/55). Inesiboan baditu *ascoan* batzuk (cf. *aurre ascoan ibili*, MIH 87, ap. *OEH*, s.v. *asko* 2, bukaeran bereizita), gehienak *urte ascoan* (14-44, 43-45) eta *dempora ascoan* (15-66) kideko esapideetan (cf. halaber *dempora guichian vs ascoan* oposaketa, 12-283/284), zeinekin lotu behar den *urte ascoac* ere (13-122), azken adibideak azalpen berezia eskatzen duen bitartean (*ain ascoan dauco < hain ecertan eduquitcen du*, 16-127/128).

Oro har itzulpenean mugagabeak pairatzen duen atzerakadarekin amaitzeko, ezinbestean seinalatu behar da zalantza izpi zenbait ere badirela, hala nola *berroguetatic*: leh. *berroguetatic*, < *berrogoietaric* (12-167), edota NORA kasuarekin dituenekin nahaste: *armatara / armetara* (ik. 7-59. oh.). Baita mugagabearen formarekikoak ere: *emacumaren*: leh. *emacumeren < emazteren berriric* (34-44).

Hala ere, hegoaldekoek —eta Añibarrok, zehazki— mugagabe gutxiago erabiltzen dutela esatean, alde batera uzten dugu Hegoaldean —baina ez Iparraldean— beharrezkoak diren zenbait mugagabe. Kasurik ezagunenak bi dira: bizitzaren aroak eta isurkiariak-eta. Lehenengoetan, Añibarrok espero bezalaxe jokatzen du:

chiquitatic < haurretic (7-33, 7-103), *gaztetatic < gaztetic* (7-107), *zarreran celan gaztetan < çahartcean nola gaztean* (12-228)

Hauekin bildu behar da ondokoa ere: *barritan eban usaiña < berrian* (7-16).

Bigarrenetan, berriz, baditu bere zalantzak:

surtara < sura (9-153) eta *uretan* (54-35 eta 54-36), baina *urean* (54-30 eta 54-35), eta *urera beguira < urera beha* (31-57).

5.1.1.5. *Mugatua / mugagabea joskeran*

Aurrekoarekin lotuta egon arren, berariaz aparte aipatu nahi nuke arlo honi dagokiona, ez baitoaz nahitaez elkarrekin batera eta oraingo hau ezagunago baitugu, gaingiroki baino ez bada ere. Kontua da, Hegoaldean gaur den egunean ez ezik, aspalditxotik ere predikatu osagarrian mugagabearen erabilerak atzera egin duela, dela mugatuarekin, dela *leguez* edo *bezala*-ren tankerako erdal kalkoekin ordezkatuta (*OEH*-an, s.v. *bezala* 2, oso ondo ikus daiteke, dena dela, bigarren aukera zaharra dela, eta anitzez hedatuago dagoela uste ohi dugun baino).

Lehenengo ordezkapen mota da hemen interesa dakigukeena; izan ere, Axularrak ‘mugagabea + *izan*’ dakarren gehienetan, Añibarrok mugatua jartzen du; adibideak nahi adina pila daitezke, baina ikus ditzagun gutxi batzuk:

atzeratzallea izan < guibelatçaille içatu (0-121/122), *biac bat ta vorondate utsecoac < biac dira vorondate huts* (3-71), *badira bai naibague, atsecabe, garrazmin, neque ta cereguiñac < bada desplacer eta atsecabe, trabailu eta eguiteco* (3-81/82), *biderioa bera baño bere pelligruczcoagoc, auscorragoac < perilos eta hautscorrago* (4-104/105), *oraingo au da gurea < gure* (12-

31), *ain da chiquia, guichia, laburra ta igarocorra < guti, labur eta ez deus (12-47/48), maliciatia... maliciatia, asmaquilla < maliciati... maliciati (16-170/171).*

Mugagabearen ordez *bat* jartzera irits daiteke, beste arazo batek eraginda, noski (ik. § 5.1.1.6):

ecerez bat dala, guichi bat, argal mee labur bat dala < deus guti dela, mehar dela eta labur (12-44).

Salbuespenen bat aurki daiteke, ereduaren pisua handia izan zela, eta inoiz (*on dala*, 1-119) bere kasa ere egin zezakeela erakutsiaz:

senticor zara (7-92), beti dala on < beti dela on (11-235).

Baina gainerantzean, absolutiboan mugagabeak mugatu bihurtzeko joera oso-oso indartsua izan zen. Izan ere, *izan*-ez kanpora, beste horrenbeste gertatzen da aditz elkarteekin, Añibarrok desegiten baititu sarritan:⁶⁰

lurra landutea < lur-lanttea (1-17), erneguac, juramentuac, biraoac ta añen gaistoac eguiten dituez < arnegu eta iuramentu eguiten dute (4-36/37), egurra eguiten < egur eguiten (6-128), minic ta calteric artzetic < min hartcetic (11-40), atseguña artzen < atseguin hartcen (11-215 eta 12-148), escatuco jacu contu ta errazoia < escatuco çaicu contu (12-176), contua emon < contu eman (12-230).

Baita gertatzen da *izan egon*-ekin aldatu eta berak ere mugagabea erabiliko zukeenean ere (*izan / egon*-ez ik. § 5.1.3.8):

seguruac baguiña < segur baiquina (4-185).

Eta eraman dezake Añibarro aditzoina izenondotzat hartzera:

andia dedinean < handi dadinean (6-102).

Edo esapideak desgisatzera:

igaroac igaroac diriala < diren iraganac iragan (9-248).

Edo duda-mudan okerrak egitera:

verban leiala ta jabe < hitçaren leyal eta iabe (10-24)

Derradan, bidenabar, partitiboa ere aldatzeko joera izan zuela, pluralarekin ordezkatuaz hain zuzen:

dirauscuzan gauzac baxen < dioscun gauçaric baicen (3-56/57), ain aberatsac, valiotsuac ta precio andicoac < hain aberatsic, valiosic eta precio handitacoric (12-91).

Aitzitik, konparatibo eta superlatiboan, Añibarrok Axularrek baino errazago onartzen du mugagabea:

al daizan ondoen < ahalic eta hobequiena (4-68), oraindiño arguiago < are claragoa (8-169), jausiago, macurtuago ta emonago < eroriagoa, isuriagoa eta emanagoa (8-172), alic ondoen < ahalic eta hobequiena (9-248).

⁶⁰ Hau jakitea garrantzizkoa da testurako, *esqueñi ofrenda ta sacrificio < eguin cenbait offerenda eta sacrificio (47-49/50) hutsa dela, ziurrenik batzuc falta duela erakusten baitigu.*

5.1.1.6. *Zehazgabetasuna*

Ez naiz honetan luzaro geratuko, zeharo jorratu gabeko arloa baitugu, dakidalarik: hau da, baliabideak gaingiroki ezagutu arren, ezertxo ere ez dakigu zeinek noiz nola adierazten duten euskaldunek —idazleek zein hiztunek— zehazgabetasuna, ez eta zein den baliabideen hedadura, ez denboraren, ez euskalkien aldetik.

Baina bada honetan alderik, izan. Axularrek mugatu singularra zehazgabetzat erabili ohi du, eta Añibarrok, berriz, haren ordeztu edo mugatu plurala (a), edo *bat* (b) erabiltzen ditu. Ikus ditzagun adibide gutxi zenbait:

- (a) *Erleac, ain gauza pildin-chiquiac izanic, betetzen dabe mundua... < du* (1-246), *bada oneec lorac leguez dira < lorea beçala dira* (3-64).
- (b) *Otseiñ servitzari batec < Cerbitçariac* (2-25), *ceñ indar andia eucan usadio ta ecandu batec < usantçac* (7-19).

Honekin bateratsu, gaian interesa izan dezakeenarentzat, testu batetik bestera *bat*-en erabilera berak ere gorabehera zenbait dituela esan behar dut; hona hiru aukeretatik (Añibarrok *bat* eranstea, *bat* gordetzea eta *bat* kentzea) adibide bana, eta ohartu guztiak —ez ziurrenik halabeharrez— izen abstraktuekin gertatzen direla:

confianza andi bategaz < handirequin (10-75), *segurutasun ta esperanza bategaz < fidantzia handi batequin, esperantça segur batequin* (10-84), *arriscu andiric < peril handi batetatic* (18-144/145).

5.1.1.7. *Genitibo singularra vs plurala*

Añibarrok ongi bereizi ohi ditu bi numeroak (*gizonaren / gizonen*). Halaz ere, badakigu bizkaieraz antzinatik genitiboaren *-r*-a galduaz joan dela (cf. jadanik Mi-lia Lasturkoaren eresian *erdiaen* eta *andiaen*) eta bokal topaketa hartatik ondorio ezberdinak sortu direla (Castaños 1957).

Idazkerak hizkeraren ezaugarri zenbait berariaz estal zitzakeelako zantzu zenbait aurkitzen dira *GGer*-n; zehazkiago, *-en* genitibo singular batzuk, gehienak erlatibozko perpausetan:

doianena (4-124), *dabilenena* (5-26), *dituanentzat < dituenarentçat* (bi bider, 24-70/71), *dau-canen* (41-133), *daucanentzat* (45-71).

baina badira bestelakoak ere:

becoquien erdian (7-57), *Becatuen ecandu deungueac < Beccatuaren* (7-73), *jaquinen ganean* (8-66/67), *pecatu jatorrizcoen ondoan* (31-11/12)

5.1.1.8. *-ren / -ko*

Aldea zertan datzan xeheki analizatuko ez badut ere, bereizketa honetaz (edo bereizgaiztasunaz) kezkatuta daudenentzat jakingarria izan daiteke Axular eta

Añibarro behin baino gehiagotan ados ez egotea; gaingiroki esanda, Añibarrok *-ko* erabiltzeko joera dauka Axularrek *-en* dakarren hainbat testuingurutan, sarritan —baina ez guztietan— gaurko (hegoaldeko?) usadiotik —nire intuizioak baliio baleza— gertuago:

Echausco echeco soñeco gorriaz < Etchhaus etchearen arropa gorriaz (0-124/125), conciencia-quisquetadac ta ausicadac < concienciaren autsiquitec (3-122), jausteco perilla < erortcearen peril (4-108/109), berroguei eguneco epea, astia, demporea < berrogoy egunen epea, espatioa (4-213/214), urte bat edo bico ecandu deunguea < urte baten edo biaren usantça gaixtoa (6-108), alaco concienciaco lotsatasunic < concientiaren halaco alhadura handiric (8-141), Pasiño Santuco merecimenduetaric < passione sainduaren meritutic (11-50), gorputzeco atseguñetan < gorputzaren plazeretan (12-151/152), egun bateco epea ta astia < egun baten tregoaren, epeareta eta espatioaren (12-243), Ordu bico bidea < Bi orenen bidea (12-270), ordu bico bidea < bi orenen bidea (12-274), lurreco jabearena < lurraren iabearen (15-333/334), justiciaco mandatariac ta prebosteac < iusticiaren muthilac (24-29/30), Olan ta errementarico suteguiian < Errementaldeguiian, harotçaren suteguiian (28-74/75; adibide berezia: ik. dagokion oharra), escuetaco nequeac < escuen travailluac (46-49), infernuco bildurtasunac < ifernuco penen veldurtasunac (52-82).

Bakan baizik ez da alderantzizkoa (*-ko > -en* bihurteta, alegia) aurkitzen:

munduaren erechian, irudiz ta ustez < munduco iduriz (10-30/31), pecatu eguin dogunaren señaleac: leh. dogun, < beccatu eguin dugulaco señaleac (40-71).

Berak ere zalantza batzuk aurkezten ditu:

eguitearena vs eguiteco (lenengo becatua eguitearena bere bai; baña guttiz bere, andic ara urrengoa eguiteco bildur izan bear gareala, 9-98/99).

Eta ereduak eragin bide dituen nahasketak (*barren-en* itzulpenez ik. § 5.3.4):

bere concienciaco barruan < bere barreneco gambaran (41-144).

Cf. halaber nola askatzen duen Axularren elkarte, honek aurrerago ikutuko dugun gaiarekin (§ 5.3.3) zerikusia badu ere:

ichasoco ondarrera < itsas ondarrera (9-69).

5.1.1.9. *Noizko vs noizerako, zertako vs zertarako*

Badakigu, gutxi gorabehera behinik behin, Mendebalean *-rako* erabiltzeko joera dagoela bi kasuetan, eta zehazki *noizerako*-ren kasuan joera areagotuz joan dela azken denboretan. Honen arabera, espero izatekoa zen Añibarrok jatorrizko *-ko* zenbait *-rako* bihurtzea, baita denborazkoak direnean ere:

gueroraco < gueroco (3-58), etorquizaraco < ethorquizaraco (3-128), biaramoneraco < biaramuneraco (5-148), conturaco < contuco (12-28), artaraco < hartaco (12-110), ataraco... bestetaco < hartaco... bertcetaco (32-95/96).

edo onartu ondoan ohartu eta zuzentzea:

etorquizaraco: leh. etorquizaraco < ethorquizaraco (1-259)

Aldaketak arrisku argi bat zeukan: izenlaguna hartakotzat hartzea, alegia; ondoko adibidean garaiz zuzendu du, ostera:

zure gueroco, azqueneco orduco, guerorengo demporaco ondasun emoteac: leh. orduraco... demporaraco < çure orduco, azquen oreneco onen emaitte eta errepartitce harc (17-61)

Honek ez du esan nahi ‘noizko’ adieran *betiko* (0-154, 1-120, 8-45) edo *geroko* (4-162, 4-218, 11-3, etab.) bezalakoak erabiltzen ez zekienik, baina dena dela, baliteke fosilduta edo fosiltzeaz egotea. Azterketa lasai eta orokorrago batek eman beharko luke honen kontu.

Salbuespen hustzat hartu behar dira, berriz, *capataco* eta *jaquetaco* (4-199) solteak, Axularrengandik hartuak, eta honegatik oso susmagarri deritzat jatorrizkoan kiderik ez duen *gaistaqueriaco* (53-113) bakarrari.

Gainerantzean, azpimarratzekoa da denborazko perpausetan beti ere zegoena onartzen duela, *-eko / -ako* zalantza (jadanik ezagutua: ik. § 5.1.1.1) alde batera utzita:

datorreneco (4-146), *dodaneco*: leh. *dodanaco*-edo, < *dudaneco* (12-48), *zartuten ciñianeco* < *çahar cindeciñeco* (14-152), *gaissoric zagozanaco* < *eri çareneco* (15-131), *zareaneco* < *çareneco* (17-29), *jaquin ebaneco* < *iaquin çueneco* (23-41), *gaissotuten zaneco* < *eritcen ceneco* (50-95).

baita bere kasa erabiltzen, behar izanez gero: *ateretan ebenaco* (1-94).

5.1.1.10. *Instrumentalaren forma*

Axularrekiko erkaketatik, baita Añibarroren idazkera ohi baino astiroago aztertetik ere, instrumentalaren forma zalantzia dela ikasten dugu.

Adibide askotan Añibarrok forma arruntak (mugagabea *-(e)z*, sing. *-az* eta plurala *-ez*) erabiltzen ditu:

icenaz (0-20), *biotzez* (0-88), *echeaz*, *ondasunez ta vicitzez* (0-100/101), *soñeco gorriaz janzteco* (0-125) *era guztico edertasunez* (1-12), *gente alperrez betea* (1-103), *leorrez joan* (1-218), *bere gorputzaz* (1-225), etab.

Alabaina, ez dira guztiak adibide hauek bezain arruntak. Ezaugarririk nabarmenena plurala *-az* izatea da. Inoiz edo behin, eman lezake Axularren singularra plural bihurtzeari zor zaiola:

probisiñoaz, *bear dituen janariaz* < *prouisioneaz*, *horniçoiñaz* (1-260), *emon dituen promesaz* < *eman duen promesaz* (15-187).

Halere, adibide argi ugariak kontua bestelakoa zela erakusten digute:

munduaz ta munducoaz < *Munduaz eta munducoez* (4-66), *gaissotasunaz* < *eritasunez* (8-26/27), *onelacoaz* < *hunelacoaz* (9-223), *guztiaz* < *guztiaz* (10-36), *gauzaz* (pl.: 17-67), *santuz ta beste criaturaz* < *sainduz eta bertce creaturez* (19-29), *Guzurraz* < *Gueçurrez* (19-66), *gauzaz* (pl.: 44-93), *cirimoniaz* < *cirimoniaz* (45-14).

Alde honetatik, zuzenketa bakarra kausitu dut: *onez*: leh. *onaz*, < *onez* (40-37).

-*az*, gainera, mugagabeen ere ager daiteke, *becatuaz*-en kasuan -(g)*az* soziati-boa baino ez bide dugula egia bada ere (formaz, ik. § 4.2.6):

amar becatuaz < *hamar beccaturequin* (6-107), *laroguet becatuaz* < *lauretan hogoy garren becatuaz* (9-94), *irudipenazco* < *itchurapenezco* (46-199).

Berriz, singularrekoak forma mugagabeen ager daitezke Añibarroren bertsioan (*adimentuz* < *adimenduaz* 8-34, *senarrez campora beste bategaz* < *senharraz bertcerequin* 10-59), baita pluralekoak ere (*becatuz* < *beccatuez* 7-133), halako bat zuzentzeko gai izan bada ere (*ibilli zarean demporaz*; *eta (...)* *zagozanaz*: leh. *zagozanez* 27-88).

Ondorioa hauxe izan daiteke: gehienetan Axularren eredia aurrean izan arren, instrumentalaren forma zalantzazkoa dela Añibarroren bertsioan, hiru morfoen artean (-*e*)*z*, -*az* eta -*ez*) ez baitago banaketa finkorik. Baliteke honen azpian leku-kasuetan aurkitu dugun *a* / *e* zalantza berbera egotea (§ 5.1.1.1), baina baita instrumental eta soziatiboaren artean dagoen bereizgaitasuna ere (ik. § 5.1.1.11).

5.1.1.11. *Instrumentala vs soziatiboa*

Instrumentalak, teorian, ‘tresna’ edo ‘bidea’ adierazi beharko lukeen bitartean, soziatiboak ‘laguntza’, nolabait esateko. Halere, ezaguna da —baina ez xeheki aztertua— bi kasu hauen eremuak aldakorrak izan direla denboran zehar, eta aldakorrak direla euskaltitik euskalkira.

GGero ezberdintasunak aztertzen hasteko alor ezin hobea dugu, Axular eta Añibarroren arteko aldeak nabarmen eta ugari dira eta. Ildo batzuk bakarrik jorratuko ditut, erakusgarri modura, gai honetan sakondu nahiari bide emateko moduan.

Demagun Axularrek instrumental eta soziatiboaren artean banaketa finkoa egiten duela. Añibarrok, berriz, ez dirudi antzekorik ezer ere duenik: aitzitik, -*gaz* eta -*z* berdin-berdin erabil ditzake, bata zein bestea, Axularren -*kin* zein -*z* itzultzeko, baita harrigarriak diren testuinguru edo adieretan ere.

Erabilerarik deigarriena, Axularren -*z* ‘zertaz, zeri buruz’ -*gaz*-ekin itzulia dukegu:

Alperracaz... diño < *alferrez mintço dela* (2-23), *gueiegui fiatuten dirianacaz verba eguiten dabela* < *direnez* (11-6), *Icasbide onec (...)* *berba eguiten dau batez bere legue zarreco cirimoniaz cargaturic ta pecatuaren pisuaz astunduric bici cirian mundutarracaz* (45-13/15).

Beste ezaugarri harrigarri bat, biak elkarrekin erabiltzea da, baliokide modura:

bategaz ta besteaz < *batarequin eta bertcearequin* (4-34/35), *gura guenduque eguin gure vicitzeaz ta vicitzeco demporeaz*, *oial pusca bategaz eguiten doguna* < *gueure bicitceaz eta bicitceco demboraz*, *oihal pusca batez eguiten duguna* (4-198), *pensatzeaz beragaz* < *pensatceaz beraz* (12-147).

Baina badira bestelako ezberdintasunak ere; adibide batzuk baino ez:

auzardia andi bateaz bere biotz christiñau prestu sendoaz asi zan (...) dedarrez < ausartcia handi batequin, bere bihotz guiristino noblearequin (0-102/103), urjola bategaz ito ta ondatutea < uholde batez (9-169/170), uriola bategaz ondatu < uholde batez hondatu (11-146), arri precia-tuaz (bardindu) < harri precia-tuequin (comparatu) (11-160/161), oraingoaz loturic < presente-coarequin lothuric (12-39), Errazoiaz < Arraçoñequin (12-169 eta passim).

Aldaketa batzuetan atzera egin du, eredukoarekin geratuaz:

guizonacaz: leh. guizonaz, < guiçonequin (11-251). ecerez: aurrean ecerg] (ecergaz?), < deusez ere (12-123).

Saltsaren erakusgarri, derradan normalean Añibarrok 'iraupena' inesiboarekin eman ohi duela, Axularren instrumentalaren ordezt (ik. § 5.1.1.12), baina ez zaio axola sozietatiboa eta inesiboa, biak perpaus berean ematea:

urte bategaz eguin daitequena (...), eguin liteque orain egun batean (12-92/93).

Bestalde, Añibarrok maiz *-az batera* erabiltzen du, Axularren *-arequin batean-en* ordezt:

misericordiaz batera < misericordiarequin batean (11-336). igaroaz batera < iragaitearequin batean (12-29).

5.1.1.12. *Instrumentala vs inesiboa 'denbora'*

-z-k 'iraupena, denbora tartea' adierazten duenean (*urte batez*), Añibarrok gehienetan inesiboarekin itzultzen du (*urte baten* edo *batean*):

egun guztietan < egun guztiaz (4-43), iruroguei urtean < hirur hogoy urthez (4-140), urte baten edo bian < urthe batez edo biaz (6-75/76), dempora guichi baten < dembora appur batez (6-136), dempora lucean < dembora luceaz (7-7), aimbeste urtean < hanbat urthez (8-241/242), oguei urtean < hogoy urthez (9-197), iru egun ta gaubez < hirur egunez eta gauez (10-53), milla urtean, ta amar millan < milla urthez, eta hamar millaz (11-133), urte batean < urthe batez (12-9), urte baten < urthe batez (12-11), urte batean < urthe batez (12-87), egun batean < egun batez (12-93), urte batean < urthe batez (12-166), (ordu) baten < batez (12-274), dempora guichian < dembora gutiz (12-283), etab.

eta bakanago absolutuaz (*urte < urthez* 9-178), instrumentala gorde duen salbuespenen bat badago ere: *ez colpe batez, ez beingo batez* (4-180/181).

Nolanahi ere, badirudi oso irme jokatzen duela Añibarrok honetan, tankerakoak diren beste zenbait esapide ere era berera itzuli baititu:

verba guztietan < hitz guztiaz (4-36), verba guichitan < hitz gutiz (12-253).

5.1.1.13. *Instrumentala vs -gaitic 'zertaz'*

Añibarrorenean instrumentalaren betebeharrak lapurtzen dituztenen artean *-gaiti(c)* posposizioa ere kokatu behar dugu, 'zeri buruz' adieran. Adibide bakar

bat aski izango da, hamaikaren artetik: *Esan begui Aristotelec nai dabena dempo-reagaitic < demboraz* (12-27).

5.1.2. *Erakusleak, izenordainak eta zenbatzaileak*

5.1.2.1. *Deiktikoen adierazia*

Bi aldaketa nagusi daude gai honetan. Alde batetik, testuinguruari —adiera hertsian— egoeraren beste edozein osagairi baino garrantzi gehiago ematen dio Añibarrok deiktikoa aukeratzeko. Eta, bestetik, haren idatzietan jadanik *hori*-ren familiaren eremuaren hedapena somatzen da.⁶¹

Lehenari dagokionez, Añibarrorentzat testuinguru hurbila aski da *hau* erabil-tzeko, Axularrek urrutiko zein antzinako zerbaitez mintzo denean *hura* erabiltzen duen bitartean; ikus ditzagun adibide gutxi batzuk:

onela < hala (7-142), *Emen < Han* (9-45), *onen*: aurrean *aren*, ezabatua, *< haren* (9-54), *oneec < hec* (11-105), *onec bere < harc ere* (11-319), *pena onec < pena harc* (12-101), *uts ero onetan < erho hetan*; *ero onetan*: leh. *eroetan* (12-148), *au < hura* (12-172), *onec < harc* (12-194), *seme au < seme hura* (12-196), *Onelacoac < Halacoec* (12-221), *onela < halatan* (12-275), *Onela < Halatan* (12-296).

Bigarrenari dagokionez, badirudi euskal deiktikoen betebeharra denboran ze-har aldatuz doala. Berez, Axular batengan, adibidez, hurbila eta urruna, *hau* eta *hura* dira paper nagusiak dituztenak, baina badirudi azken urteotan bederen, *hori*-k gero eta eremu gehiago duela, agian gaztelaniaz *ese* (*este* eta batez ere *aquel*-en kaltetan) hartuaz joan den nagusitasunaren eraginez. Bada, aldaketaren ale garbiak aurkitzen dira jadanik Añibarroengan:

ori < hura (1-25), *ori berori < hura bera* (7-38), *orren < hunen* (7-106), *guero ori < guero hura* (9-236), *ori*: gainean, *a*-ren ordeaz, *< hura* (9-242), *ori < hura* (11-271), *Orregaitic < Halatan* (12-279/280), *cerren ori zala < ceren hura cela* (39-54).

5.1.2.2. *hau guztia vs guzti hau*

Euskaltzaindiak (4. araua) zenbatzailea lehen eta erakuslea bigarren daraman egituraren lehen agerraldia Ubillosengan aurkitu du (*Zer esan nahi du guzi onek?*, Ub 199), XVIII. mendearen bukaeran, eta, azaltzen duenez, “XIX. mendean eta XX.aren lehen erdialdean gero eta gehiago ikusten dira joskera hauek, eta azken urteetan, jakina denez, gutxi dira joskera zaharrari eusten diotenak. Azpimarratu behar da aldakuntza hori Hegoaldean soilik gertatu dela, eta ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrean zegoen batasuna hautsia gertatu dela”. Joskera zaharraren adibideen artean Añibarroren bat (*Egun a guztia bapere bekatu gaberik emoteko*, Añ *EL*² 90) eskaintzen badu ere, gertakariaren historia hobeto ezagutzeko datu ja-

⁶¹ Azalpen handirik gabe aurkeztu arren, Altubek (1930: § 103) joera biak antzeman eta adibideak bildu zituen.

kingarriak eskaintzen ditu *GGero*-k, euskararen normalkuntzaz bestelako xedez ari garenontzat.

Izan ere, Añibarrok, berez, badirudi *guzti au* egitura modernoagoa jotzen duela normaltzat eta, beraz, *hau guztia* egitura ikasia bide duela, nominatibotik atetik formetan bederen.

Lehen baieztapenaren froga gisa, jatorrizko testuarekiko egiten dituen aldaketak eman daitezke:

guzti oneen < hequen guztien (3-18), guzti onen buruan < hequen guztien buruan (4-51), urte guzti aetan < urthe hetan guztietan (6-70/71), Errazoi guzti oneec < Arraçoin hauçaz guztioz (7-156), gauza guztioç < gauça hauc guztioç (9-225), mundu guzti au < mundu haur guztior (12-67).

Egitura zaharraren adibideak, Axularrenen oihartzun huts izateaz gainera, denak nominatibokoak dira, gehienera jota Añibarrok *fase sparita*-n ezagutu zuela iradokiaz:

á guztia (0-139) < hura guztia (Ax 9), au guztiau (1-99) < hura guztia (Ax 27), a guztia (1-222) < hura guztia (Ax 33), oneec guztioç (3-41) < hec guztiaç (Ax 47), oneec guztioç (7-89/90) < hauc guztioç (Ax 91), oneec guztioç (11-45) < hec guztiaç (Ax 135-136), oneec guztioç (11-149) < hec guztiaç (Ax 141), onec guztioç (11-334) < hec guztiaç (Ax 152).

Egitura ihartuta zegokeen, harzaz gainera, *onez guztiaz* (4-107, 8-233, etab.) eta *orrez guztiaz* (0-67, 3-92, etab.) aurkaritzako lokailuetan. Halakoetatik ateratzen denean, berriz, arazoak ditu, egitura menperatzen ez duelako seinale argi: *oneec guztioçaz*: leh. *oneeçaz guztioçaz*, < *hequin guztiequin* (46-233).^{61 bis}

5.1.2.3. bera aposizioan

Aposizioan erabiltzen den *bera*, ereduak dioena dioela, gutxi-gutxitan baizik ez du Añibarrok formaren aldetik bereizten izenondo kokagunean erabiltzen denetik:

naturaleza berac < naturaleçac berac (0-129/130), Caton beronec < Caton harc berac (1-217), naturaleza beraren < naturaleçaren beraren (1-229), vorondateaz bacarric < vorondateaz beraz (3-57), vorondatea beragaz < vorondateaz beraz (3-67), á beragaitic < hura gatic beragatic ere (4-55), Jangoico beraren < laincoaren beraren (4-209), naturaleza berac < naturaleçac berac (5-7), mesedetara euretara < fabore comun hetara beretara (8-115), Jangoicoac < laincoac berac (9-20), bere ontasan ta erruquitasun beragaitic < bere ontasunagatic beragatic (11-91/92), ori beragaitic beste baga < hargatic beragatic ere (11-193/194), misericordia beraren < misericordiaren beraren (11-315), ordu berean: leh. orduan, < orduan berean (13-140), santa berac: leh. santeac, < sainduac berac (15-214), ori beragaiti (35-100), ori berorigaiti < arraçoin horren beronen gatic (37-55), ucututeaz bereaz < uquitceaz beraz (41-223), pecatu eguite berac < beccatu eguiteac berac (43-155).

Batzuetan jatorrizko testukoa kalkatzen badu ere, aldaketek ez eze, komunztadurarekiko zalantzek (*-a beragaz*, *-az bereaz*) egitura arrotz zuela adierazten dute; hona adibide batzuk, aipatutako kasuak ez diren guztiak bilduaz 16. bururaino:

^{61 bis} Añibarroren “zuzenketaren” ondorena bat dator erabat, egitura (eurentzat) berria erabiltzera behartzen ditudan ikasleen idatzietan maiz aurkitzen dudanarekin.

escua ifintea bera (1-91) < *escuaren ibentcea bera* (Ax 26), *Espiritu santuac berac* (1-262) < *Spiritu Sainduac berac* (Ax 36), *alperric egoteaz beraz* (2-25/26) < *alfer egoiteaz beraz* (Ax 39), *agaitic beragaitic* (11-331) < *hargatic beragatic* (Ax 152), *pensatzeaz beragaz* < *pensatceaz beraz* (12-147), *pintatzalleari berari* (13-30) < *pintatçailleari berari* (Ax 172), *bere Egui-llari berari* (13-33) = Ax 172, *Jangoicoari berari* (16-157) < *Iaincoari berari* (Ax 228).

Halere, badaki bere kasa erabiltzen ere, hala nola ondoko adibide hauetan:

Axularrec berac (0-58/59), *guizon ari berari* (16-130/131) < *guiçon hari* (Ax 226).

Bestalde, Añibarrok *bera* eta *eurak* Axularrek baino testuinguru gehiagotan erabiltzen ditu:

euroetan < *hautan* (6-136), *usadioa bera*: leh. *usadioac berac*, < *usantça hura* (7-129/130), *Jangoicoac berac bere* < *Iaincoac ere* (8-168), *Berac* < *Harc* (9-55), *eurai* < *hey* (9-202), *bera* < *hura* (10-15), *bera* < *hura* (10-27), *euroc* < *hec* (10-74).

5.1.2.4. *Pertsona izenordainen genitiboak*

Gaur egun, ezaguna da egoera hirukoitza dugula alde honetatik: badira genitibo arrunt eta indartuaren arteko bereizkuntza arruntaren alde galdutako hizkerak, indartuaren alde galdutakoak (bizkaieraren eremu handi batean) eta bereizkuntza gorde dutenak. Egoera hau, aldatuz joan den eta doan arren, ez da zehazki gaur-gaurkoa, aspalditxotik datorkiguna baizik, eta bi testuen erkaketak haren historia-rako zantzu zenbait eskaintzen dizkigu.

Izan ere, Linschmann/Arestiren legea hausten duten aldaketak egiten ditu Añibarrok testuinguru argietan:

nic nire < *nic neure* (11-58), *gueuc gure* < *gueroc gueure* (12-105), *guc bere gure* < *guc ere gueure* (12-276).

Oro har, badirudi edozein testuingurutan izenordain arruntak erabiltzeko joera duela, jadanik zenbakietara joaz antzeman dugunez (§ 4.3.7):

zure < *ceure* (9-76), *ceure* < *çure* (9-234/235), *gure* < *gueure* (11-12), *gure aldetic* < *gueure aldetic* (11-321/322).

Alderantzizko aldaketa bakarra: *ceurea* < *çurea* (9-22).

Halere, beti bezala 3. pertsona berezi suertatzen da, *bere* baita izenordain orokorra, Axularren *haren-en* ordeztuak.⁶²

bere < *haren* (1-46), *Abrani ta bere ondocoai* < *Abrahani eta haren ondocoey* (9-212/213), *bere* < *haren* (11-48), *aren icenean...* *bere icenean*: Axularrek bietan *haren icenean* dakar (16-150).

Baita *euren* pluralean: *euren* < *hequen* (12-232).

⁶² Joera Altubek (1929: § 103) markatu zuen lehenengoz, eta bizkaiera modernoaren ezaugarritzat jo. Are interesgarri eta zabalagoak dira Rebuschi irakaslearen ondorioak (1988: 830-833).

Azkenik, aipatzekoak dira Axularrek singular eta pluralean genit. *bere* erabil-tzeak Añibarrori sortu zizkion buruhaustek:

euren: gainean, *bere*-ren ordezt (6-42/43), *euren*: gainean, *bere*-ren ordezt (11-56), *bere* = Ax 177, eta ez *euren*, ohi bezala (13-129), *euren*: gainean, *bere*-ren ordezt (15-325), *euren*: aurrean *bere*, ezabatua, < *bere* (28-134).

5.1.2.5. *bere burua*

Halako gorabeherak baditu ere, *OEH*-ak (s.v. *buru* 2, 671. or.), bi adibide mo-dernotan (Xa *Odol* 265 eta *MEIG VIII*, 27) baino aurkitu ez duen posibilitate bi-txi —baina gramatikal— baten lehen agerraldia eskaintzen digu Añibarrok:

...euroetaric gueure buru ta echeocoac mantenduteco ta estaduco igaroipide onean euquiteco bear doguna artu, ta generacoac pobre bearrenai zor jaque < gueure maiñadaren mantenatce-co (16-106/108).

Izan ere, gai da Axularren egitura berezi zenbait arazorik gabe gordetzeko:

gueure buruac zordun deutzaguz < gueure buruac çordun daduçagu (16-131/132).

Baita bere kabuz behar-beharrezkoa ez den zenbait testuingurutan sartzeko:

icusiric bere burua... estura andian < herstura handian baitago (15-178/179).

Eta aldaketa bati esker egiazta dezakegu *ad sensum*-eko komunztadura ez due-la egiten: *euren buruari* < *bere buruey* (12-212).

Ezaguna da, baina ikergabea, izenordain bihurkari honen atzerakada, azken bi mendeetan inolaz ere areagotuz joan dena. Atzerakada hau, gaingiroki hitz eginez, aldameneko erdaren eraginari egotzi ohi zaio, eta ‘*bere burua* + aditz iragankorra’ egituraren ordezt (*neure burua ikusi dut*) aditz iragangaitza (*ikusi naiz*) erabiltzea bide da haren islapenik ezagunena, adibide zaharrak aztertuaz berehala somatu arren oro har izenordainen genitibo bihurkariet ere zerikusia izan dutela ordeztka-penean (*bere buruaren etsai* < *bere etsai* taiukoetan).

Añibarrok, esaten ari nintzen bezala, oraindik maiz erabiltzen du, baina haren askatasuna eta bestelako ezaugarriak, batez ere forma eta erabilpen ugaritasuna, uste dut bihurkari honen erabileraren ustelketaren adierazgarri direla, eta ez eus-kararekin jokatu nahiaren, Hiriart-Urrutyren *elkarrek* ospetsua ez bezala.

Diodanaren adibiderik argienak, jakina, egitura saihesten dutenak dira, per-tsona-izenordainaz ordeztatuaz:

ceuc ceuganic dozu < ceureganic (9-21), ceuc ceuri < ceure buruari (29-34).

Honen aldamenean, ordeztatu beharrean izenordainaz azaldu egiten dutenak aipatu behar dira:

Eurac eurez euren buruz dira < Berac dira bere buruz (0-134/135),

Egitura bihurkaria perpausaren subjektu izan ahal izatea ere ez da makala:

gueure buruac: ergatiboan (41-22/23), *Ceure burua*, *ceure conciencia da* < *Cerori çara*, *çure conciencia da* (41-275), *bere gogoac*, *bere buruac*, *bere grînac* < *bere gogoac eta appetituac* (44-102), *gueure buruac*: ergatiboan (51-11).

buru-ren aurrean agertzen den genitiboaz duen askatasuna ere horren adierazgarri izan daiteke. Alde batetik, idazle zaharrengan eta garai guztietako idazle bizkaitarrengan arrunt aurkitzen den moduan, gabe ere ager daiteke:

buruarentzat < *bere buruarentçat* (41-57).

Baina bestetik, forma arrunta ager daiteke indartuaren ordeztan, eta *noberaren* izenordaina ere:

zure burua < *ceure burua* (11-46/47), *noberaren burua* < *bere burua* (41-60).

5.1.2.6. *alkar*

Bere burua egituraren atzerakada ezaguna bada ere, zer esango dut, bada, *elkar* izenordainaz? Axularren ereduari jarraiki badabil ere, nabarmen baino nabarmenago da Añibarrok oraindik arazo gehiago dituela honekin bestearekin baino.

OEH-ak dioenez (s.v. *elkar*), atzerakada nolabait hiru urratsetan gertatzen da edo hiru arlotan igartzen da. Alde batetik, *elkar* aldagabe bilakatzen da, berez perpausarean betetzen duen paperaren arabera jokatu beharrekoa bada ere. Bestetik, *elkar* aldagabe honek ez du eraginik jokoan, hots, aditza iragangaitza izan daiteke bera kontuan hartu gaberik. Eta azkenik, osagarri zuzena denean, desager daiteke, joko iragankorraren ordeztan iragangaitza erabilaraziaz. Bada laugarren posibilitate bat, alegia, *bere burua* egiturarekin bezalatsu, haren ordeztan genitibo bihurkariak erabiltzea, zehazkiago *elkarren*-en ordeztan.

Añibarro lau gertakarion adibideak eskaintzen dizkigu, Axularren ereduaren gorabehera, baina badira harengan erabilera berri hauen testuinguruak zehazteko hainbat datu.

1) *Alkar* aldagabea aditza jokatu gabeeekin maiz agertzen da, soziatiboaren zein datiboaren ordeztan:

ur jagocaz Jangoicoari, *alcar baturic dagoz* < *hurbil dagotça Iaincoari eta elccarri* (11-83), *alcar loturic*, *oraturic ta erantsiric* < *elccarri iratchequiric* (12-84/85), *alcar eranzuteaz* < *iharduquiz* (22-64), *alcar oraturic* (48-194/195), *alcar lotuoc...* *alcar esturic* (53-201/202).

2) Aditza jokatu denean, *alkar* aldagabe honek ez du eraginik haren jokoan eta, beraz, aditza iragangaitza da:

alcar... *maitetuten direan leguez* < *elccar onhesten duten beçala* (27-10; berbera gertatzen da beheaxeago: 27-16/17), *alcar ondo artu*, *lagundu ta maitetuten dira* < *elccar daducate*, *elccarri laguntcen çaitça*, *elccar onhesten dute* (27-22), *alcar amatu zaitceçela* < *Elccar onhesten deçaçuela* (28-128), *Alcar amatu zaitceçela* < *Elccar onhesten deçaçuela* (28-171).

3) Añibarroren itzulpen honen arabera *alkar*, maiz aldagabe izan arren, beharrezkoa izaten da. Adibide bakar batean osoki desagertu da, perpausa iragangaitz bihurtzearekin batera:

Maite-maite direan < Cinez eta eguiaz elccar maite dutenen (49-105/106).

4) Genitibo bihurkariak:

euren artean < elccarren artean (1-248).

Gauzaren bat gehiago eransteko parada ematen digu, halere. Alde batetik, *alcar* aldagabea bestelako azalpenez lagundurik ager daiteke itzulpenean:

alcar batac besteari < elccarri (41-325), alcar batera baturic < elccarri iratchequiric (46-135/136).

Eta, bestetik, badirudi *bata beste* egiturarekin ere arazoren bat zuela:

batac besteen atzean ta jarraian < bata bertceari cerraitçala condenatu ciren (18-96).

5.1.2.7. Zenbatzaileen numeroa

Ezaguna da euskaraz zenbaitzaile batzuek, hizkeren arabera-edo, singularra zein plurala eragin dezaketela aditzean. Banaketa denborazkoa ere baden esateko daturik ez izan arren, badirudi lekuari begira, eta oro har, Ekialdean singularra eta Mendebalean plurala hautatu ohi direla halako kasuetan.

Añibarroren itzulpena banaketa hau bermatzera letorke, plural bilakatu ohi baititu Axularren singularrak oro, ondoko kasuotan:

1) *anitz* > *asko* bihurketan; ugari baino ugariagoak dira honen adibideak:

citequezala: leh. *citequeala < citequeyela (1-104), idoroten dituz < edireiten du (3-100), idoroten cituan < edireiten çuen (3-120), Noraco dodaz < Noraco dut (5-118), cituenac < çuenac (11-45), deuscuzan*: leh. *deuscun, < deracun (11-331), eguiten ditu < eguiten dute (12-10), eguiten dozuzala < eguiten duçula (12-12/13), Emon deusudaz < Eman deratçut (12-90), eguiten dozuz < eguiten duçu (12-142), eguiten dozuz < eguiten duçu (12-144), eguiten dituezala < eguiten dutela (12-208), daguizala*: leh. *daguiala (17-23).*

2) *ceimbat*:

eguiten dituzan < eguiten duen (2-2), artzen dau < hartcen du (Ax 46). dau: *aurrean ditu, ezabatua; osagarri zuzena cerbait gogo da (3-15), ceimbat calte etorri jacazan eta ceimbat on galdu daben < cenbat calte ethorri çaiccan eta cenbat ontasun galdu duen (41-284/285).*

3) *hainbat, hainbeste*:

cituan aimbat victoria < çuen hanbat victoria (5-146/147), beste orrenbeste urte bearco dozuz beraganduteco < beharco duçu hurbiltceco ere hainbertce dembora (6-74).

3) Zenbakiak:

eguiten dituez milla juramentu < eguiten dute milla iuramentu; dituez: gainean, dabe-ren ordezt (32-13).

Bide batez, aipatzekoa da *anitz* > *asko* aldaketak eta, zehazkiago, zenbatzailearen lekua aldatu beharrak ere arazoak sortu zizkiola Añibarrori inoiz edo behin, dela haren eremua gaizki erabakiaraziaz, dela zegoen lekuan oharkabean utzara-ziaz, edo dela lekuz kanpo ipinaraziaz:

promesasco eder < anhitz promes eder (15-194), jausteasco, beaztopa ta arriscu < anhitz casu, behatztopa eta peril (19-218/219), asco mandamentu < anhitz manamendu (45-64/65), urte milla ascotan < anhitz milla urthez (54-191).

5.1.2.8. *Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak*

Gaur egungo gramatiketan izen zenbakarri eta zenbakaitzen arteko bereizketa aipatu ohi da, noiz *asko* (eta bestelako zenbatzaileak) erabili eta noiz ez jakiteko. Bereizketa hau indartsua bide zen Añibarrorentzat, Axularren zenbait adibide *andi*-rekin ordezkatu baititu:

pelligru ta zoriric andiena < perilic guehiena (4-98), damu andiagoric < hanbat damu eta atse-cabe (12-114), ain pelligru andiric < hanbat peril (17-121).

5.1.3. *Aditz morfologia*

5.1.3.1. *Partizipioa*

Ikergabe egoteaz gainera, egingo nuke azken urteotan zertxobait nahasirik aurkeztzen ari garen gaia dela partizipioaren banaketa eta erabilera, guztiz predikatu osagarrian.

Maiz aipatu ohi den Ekialde vs Mendebalde bereizketaren ezaugarri ezagunetako bat, Ekialdean partizipioa izenondo gisa erabiltzeko dagoen askatasuna da. Axularrek adibide ederrak eskaintzen dizkigu, hala izenondo huts gisa erabilitako partizipioaren, nola haren lekuan predikatu osagarrian —*izan* zein *egon*-ekin, irakatsi ohi zaigun ez bezala— agertzen denaren, eta haietako batzuk Añibarrok, oharkabean edo bestela, kalkatu ditu:

onetan eguiña ta usatua nago < hetan usatua bainai (7-55), usatua... ta atsitua < usatua, us-teldua eta quirastua (7-152), pecatari beragana biurtuaz < beccatore convertituaz (49-43).

Alabaina, kalkoak baino ugariago aurkitzen ditugu, predikatu osagarriari dagokionez, *-rik* atzizkidun partizipioarekin ordezkaturako adibideak:

deseo onez beteric dagoala Infernua < infernua desira onez bethea dagoela (3-60), uts eguiñic < huts eguina (4-7/8), condenaturic dagoala < condenatu dela (4-62), armetara eguinic < har-metan usatua (7-52), eztago maissua leguez... aurreraturic < ezpaita aprendiça officialea beçala usatua, ohitua eta trebatua (7-81/82), becatuan jausiric ta sarturic gagozala < nola gauden beccatutan sarthuac (8-96/97), Erabaguiric dauco < Deliberatua daduca (9-31/32), ifiniric

dauco < ibenia daduca (9-34), erabaguiric < deliberatua (9-226), sarturic... beteric < sarthuac... betheac (11-292), gueldituten dirialaco madaricaturic < eta guelditcen dira maradicaturic (19-132/133), zu zagoz atara erabaguiric < nola baitçau de deliberatua (27-67).

Predikatu osagarrian, beraz, Añibarrok ongi ulertu baina ordezkatu nahiago ditu Axularren partizipioak. Salbuespentzat jo behar ditugu ondoko bi adibideak: lehenean alderantzizko aldaketa kausitzen dugu, eta bigarreanean Axularrekin zerikusuzuzenik ez duen agerraldi bat, zalantza egin ondoren gauzatua:

condenatuac < condenaturic (4-76/77), diferente ta bestetua < different (bestetua: leh. besteturic-edo; 4-122/123).

Aurrekoaren arabera, are arrazoi gehiagoz itxaron behar ditugu hurrengoak bezalako aldaketak; hots, batetik izenondo gisa erabilitako partizipioaren ordezen lagun gisa erabilitakoa (*emonico sententia < sententia emana 4-58*) eta, bestetik, izen gisa erabilitakoaren ordezen (*bere aitac emonico diru guztiac < bere aitareren eman hec guztiac 12-194/195*).

Azken egitura bi hauek arrotz zituelako agergerri hobeak dira, inolaz ere, eragin zizkioten erdipurdiko aldaketak, zalantzak eta are itzulpen akatsak ere:

lengo demporea deunguero emon arren < gueure lehenecoa gaizqui empletatu guztiarequin ere (12-190/191). dempora igarua donguero emona < dembora iragan gaizqui empletatua (12-268). berac... zuri emonetic: leh. emonic, < berac emanetatic (16-244). Sabel betea, janariz ta edariz ganez eguitea < Sabel bethea, ianhariz eta edariz gainez eguina (39-59).

Dena dela, esan daiteke Añibarrok ongi ikasirik irten zuela azkenean, hurrengo bezalako egitura konplexuetan bere kasa erabiltzeraino iritsi baitzen:

zure arima Jesusen odolaz irabaciac < çure arimac (19-338/339).

5.1.3.2. Aditzoina

Jadanik badakigu Añibarrok *GGero*-n, baita *LauEv*-en ere bederen, batzuetan aditzoina erabiltzen duela partizipioaren ordezen, zeina baita harrigarria, salbu eta ihartutako forma bakanetan, bere garai eta euskalkiko idazle batengan (§ 4.3.9). Badakigu, halaber, aditzoinaren banaketa ez dela ohikoa, hau da, batzuetan indikatiboan ere ager daitekeela.

Badirudi gai honetan bi eratako kontuak nahasi dabiltzala, alde batean jarri behar baititugu egiazko aditzoinak, part. *-tu* eta geroald. *-tuko* egiten duten aditzinak, alegia, eta bestetik *gerta* bezalako partizipio forma bereziak (geroald. *gertako*), dirudienez *-adu > -au > -a* bilakaera pairatutakoak, Añibarrok —eta ez berak bakarrik— bere idazlan guztietan halaxe erabiliak (cf. *OEH*, s.v. *gertatu*).

Behin hau zehaztuez gero, egiazko aditzoineri dagokienez, egiantzekoa da Añibarroren hizkeran *sar(t)zaitte* (*EL*¹ 12, *EvL* 42) edo *ken* aginterazkoa (cf. Azkue, s.v. *ken*: “Es de los pocos verbos que se usan en V en imperativo sin el derivativo

-tu, -du”) bezalako bakan batzuek fosil gisa iraun izana, baina honek ez du inolaz ere azaltzen *GGERo*-n aditzoinak daukan maiztasuna.

Aditzoinok hasieran anitzez maizago ageri dira, liburuaren bukaeran baino, baina ez dira behin ere desagertzen, 43. burutik aurrerakoetan bildu ditudanak lekuko:

presta zaite (44-55), *confesa zaite* (47-136), *confesa gaitetzala* (47-161), *engaña cindequez* (48-170), *gueldi dedin* (52-9), *gomuta zaite* (54-186).

Jatorrizko testuarekin erkatu bezain laster, nabarmen geratzen da Axularren ereduari jarraiki eginak direla, berari kopiatu edo kalkatuak:

lagun zaquioz < alde çaquitça (0-146/147). *mugui dedin*, *marea dedin < higuí dadin*, *marea dadin* (2-68). *manea bedi < manaia bedi* (2-86). *goberna gaitezan < governa gaitecin* (5-109/110). *ta itsu ta gogor dıtecen < eta itsu eta gogor dıtecin* (8-165). *gueldi citecen < gueldi citecin* (9-155). *acaba badedi < accaba badadi* (9-237/238). *guztiz onda etzedin = Ax 132* (10-92/93). *fia zaite < fida çaiteci* (11-47). *pena dedin < pena dadin* (11-137). *engaña cindequez < engana ahal cindezque* (11-194). *provecha gaitecen < probetcha gaquitçan* (12-175). *contenta dedin < contenta dadin* (13-211).

Hain irakasle ona izanez gero, ez da harritzekoa han-hemen bere kasa ongi erabilitakoren bat edo beste ere agertzea (cf. *gueldi zaitece* 13-67/68). Alabaina, hurrengo bezalako adibide batek, maizenik kalko hutsak direla erakusten digu:

egon, ez *sosega dira < iar baititezque*, *eta ez sosega* (8-140).

Eta bestetan, berriz, aliritzira jarritakoak, besterik gabe:

valia bear ciriala (1-198). *bear direala... cumpli, beté ta gordé < complitu* (3-90). *cumpli jacan < complitu ceican* (9-69).

5.1.3.3. *Hitanoa*

Hitanoaren historiarako jakingarri izan daiteke *GGERo*, argi xamar uzten baitu Añibarrok ez zuela gogoko. Izan ere, nahiz B ataleko pasarte bitan (5-47/49, 5-128/130) arazorik gabe itzuli, lehen agerraldian (1-235/241) damutu ondoren bakarrik sartu du hika, eta hauetaz beste agerraldietan zuka bihurtu du Axularrek hika ematen duena (6-133, 10-94/95, 22-108, 23-56/58, 51-92/97). Eta, bestalde, haren hitanoko forma bat bederen ulertzeko arazoak izan zituen:

neucan < ninduan (51-93; *nintzan* behar luke).

5.1.3.4. z- *hirugarren pertsonan*

Bizkaieraren berezko berrikuntzetako bat, lehenaldiko hirugarren pertsonako adizkietan (salbu *zan*, *zirean*, *zitian*, *zıtuen*, *zedin*, *zıtean*, *zıtzan* eta aldaerak) hasierako z- markaren galera da, XIX. mendearen hasieran aspalditxo betetzat eman dezakeguna hizkera gehienetan: cf. *equida*, *eguia* (RS 344, 319), *eguiçuna* (TAV 3.1.4), *esala* (ib. 3.1.6), *eguien* (ib. 3.1.7, 29), *eguion* (ib. 3.1.14).

*EL*¹-ean bada z-dun adibide solteren bat (*cegoan* 221), baina *GGero*-aren lehen buruetan ohi ez bezalako maiztasunarekin aurkitzen ditugu, Axularren eraginez, agi danean. Seigarren bururaino, esate baterako, orotara askoz ugariagoak dira z-dunak gabeak baino:

*EDIN (2/0): *cequiezan* (1-144/145), *cequien* (1-146).

*EDUN (3/2): *euquezan* 'zituzkeen' (1-65), *baceben* (1-91), *baceben* (1-100), *baeben* (1-176), *baceben* (1-222).

EGIN (2/3): *eguiala* (1-15), *ez eguion* (3-128/129), *etzeguiela* (4-52/53), *eguiela* (5-36), *etzeguiela* (5-37).

EGON (11/3): *cegoan* (0-101), *cegoala* (1-26), *cegoana* (1-32/33), *cegoquean* (1-33), *cegoan* (1-39), *bacegozen* (1-100), *cegozen* (2-49), *cegoan* (3-23), *cegoala* (3-79/80), *egoanean* (3-118), *cegoquela* (4-46), *egozanac* (5-22), *cegoan* (5-67), *egoan* (6-120).

ERITXI (1/0): *cerichen* (1-206).

EUKI (2/6): *euquen* (1-13), *ez euquenai* (1-105), *ceuquen* (1-150), *ez euquénac* (1-197), *eucan* (1-210), *baceucan* (1-214/215), *ez eucan* (3-34), *euquen* (3-126).

IBILI (6/2): *cebiltzen* (0-116), *ebillela* (3-118), *cebillenean* (3-130), *cebillela* (3-134), *ebiltzela* (4-221), *cebillenean* (5-47), *cebillela* (5-126), *cebillela* (6-122).

JAKIN (1/1): *equianac* (3-116), *etzequien* (4-171).

Ez guke gertakari hau Añibarroren akastzat jo eta bazterrera utzi behar, zeren eta oso irakasgarria izan baitaiteke, trinkoak erabiltzeko joera handia duen gramatikagile honek, adizki ezberdinak nolako ziurtasunarekin erabiltzen zituen jakiteko neurbide emanez, besteak beste.

Bereziki deigarri gertatzen da, Añibarrorentzat *eban* eta *eben* zalantzagabekoak izan arren, noski, baldintzazkoetan (*baceben*) kordokatzerira irits daitekeela, eta ez behin, lautik hirutan baizik. Ia beste hainbeste esan behar dugu *euki* aditzari buruz ere (*baceucan*).

Ezezkoak ere zalantzarri suertatzen zaizkio, bestela z- gabeko formak baino eskaintzen ez dituzten *eguín* eta *jakín* aditzek aditzera ematen duten bezala.

Honezaz gainera, azpimarra dezadan *egon*-en adizkien hiru laurdenak ia, eta *ibili*-ren bi herenak z-dunak direla, baita corpus laburregiarekin epaitu behar ditugun **edin*-en bi pertsonako adizki guztiak eta *eritxi*-ren bakarra ere. Honek iradoki lezake, agian, Añibarrok halako adizkiak ezer gutxi erabiltzen zituela besteen aldean.

Bukaera aldeko antzeko laginean, aldiz, z-dun adizkiak erabat bakandu dira, oraindik ere Añibarroren idazlan batean espero zitekeen baino gehixeago badira ere:

*EDIN (1/0): *emon cequion* (43-51).

EGIN (1/5): *eguiantzat* (47-15, 47-24, 47-25), *etzeguiola* (49-88), *eguiantzat*, *ez eguian* (49-89).

GUEROCO GUERO

EGOKI (0/1): *egoquien* (47-52).

EGON (1/4): *egoan* (45-74), *egozalaco* (45-91), *cegoan* (47-14), *ez egoala* (47-35/36), *egoan* (47-123).

ERETXI (0/1): *erichen* (45-87).

EUKI (1/9): *eucan* (43-111), *eucalaco* (45-86), *euqueen* (45-89), *eucan* (46-154), *euqueen* (46-338), *eucan* (47-43), *eucana* (47-61), *ceucan* (47-78), *euqueenac* (47-165), *euca[na]ren* (48-17).

IBILI (0/6): *ebillana* (45-211), *ebiltzanean* (46-334), *ebillan* (49-8, 49-16), *ebillana* (49-102).

IKUSI (1/1): *cecusenean* (45-90), *ecusalaco* (49-98).

Zuzenketaren batean hartan saiatu zelako froga aurkitzen dugu (cf. *eguiala*, zurrenik leh. *ceguiala*, 17-83. oh.), gainera.

5.1.3.5. *Datibo komunztadura*

Dagoeneko Ciarrustak (1991: 52) seinalatu du inoiz datibo komunztadurarik gabeko aditz formak aurkitzen direla Añibarroengan, salbuespentzat har badaitezke ere. *GGero*-ak ahaztu ttikiak direlako susmoa uxatu egiten du, Axularren eredua aurrean duela ere egiten baitu, batez ere, antza denez, datiboa aditzaren ostean doanean:

zu ta ni eguiaz zordun gareala gueure Jangoicoari < gatçaitçala (9-101/102). *gurago dogu etorquizuneco pelligru ta gach gogorrai jarraitu < nahiago gaitçaitça* (11-258). *Jangoicoari esqueñiten diriala < çaitçala* (11-305). *gura ez neunque inori < ezpaneraucayo nehoari* (15-12). *emon eban iguesari < cioen* (15-287). *besteai emoten dalaco* (28-98). *saldu ebeen egitoar bati < saldu zuten* (28-133). *entregatu eban arerioai < emazte harc berac enganatu çuen* (36-64). *eztabela jaramoten besteen deunguero esateari* (42-71/72). *zordunac bagara bere Jangoicoari < bagatçaitça* (45-240). *cer eranzungo daben < dioen* (46-239/240). *cer eguingo eztau... dagoan bati* (48-22).

5.1.3.6. *ba- aurrizkia*

Partikula honek bi betebeharrak izaten ditu aditz trinkoari itsastean zaionean: alde batetik, baieztapena zein aditza bera, bietako bat galdegai dela markatzen du; eta, bestetik, ezinbestean agertu behar du aditza perpausaren lehen lekuan (mintzagaia alde batera utzita) doanean. Dena dela, zenbait hizkeratan bederen, aditz trinko batzuk ia beti *ba*-rekin erabiltzeko joera ere badago: *dakit* edo *dirudi* bezalako forma biluziak, beraz, bakanak edo ezinezkoak dira halakoetan.

Bestalde, ezaguna da dagoeneko (Ciarrusta 1991: 121) Añibarrok —bide batez, Altuberren aurreko hainbat idazlek bezalatsu— ez duela galdegaia hitz ordenaz markatzen, alegia, berak idatzitakoetan galdegaia ez doala nahitaez aditzaren aurrean, eta are aditza perpaus buruan jartzeko inolako arazorik ez duela. Testu-inguru honetan, ikertzaile berak markatu du adizki trinkoak *ba*-gabe ager daitezke-

ela, “bai bakarrik, aditza bera galdegai dala, bai galdegaia izan daiteken osagarria atzetik dauala” (*ibid.*).

Ciarrustak somatutako joeren ildotik, itzulpen honetan, Axularren aldean, Añibarrok gutxitan baizik ez du betetzen arau gisa aurkeztu dugun bigarren betebeharrak.⁶³ Perpaus buruan maiz erabiltzen den *dirudi* adizkiak lehen hurbilketa gisa bali diezaguke, jatorrizko testuan ez bezala, itzulpenean behin bakarrik baitoa *ba-z* lagunduta, lehen agerraldian hain zuzen (0-123/124), gainerakoetan *dirudi* hutsa dagoen bitartean (1-21, 1-256, 2-67, 2-98, 3-148, 4-46, etab. etab.).

Iruditu aditzaren beste muturrean *jakin* jar dezakegu, ordea, honen trinkoak maizenik *ba*-dunak baitira hala dagokienean:

baqui munduac celan... (0-100). *baquie ezituezala ondo artuco* (2-34). *baquigula nos izango ezian* (4-192). *baquigu eztala ordura artean izango* (4-194). *baquit cer eguingo dodan* (5-119/120). *Baita baqui cembatera elduco dan* (9-15), etab.

Berezia da, inolaz ere; cf. hurrengo adibidea:

baquizu ta dazauzu (25-19).

Halere, honetan bertan ere batzuetan *ba*-rik ez dago:

daquienean condenaturic dagoala (4-62). *Daquialaco eztala alan esqueco pobrea* (22-125/126). *Pacienciaz daroazu, daquizulaco...* (24-89). *daquialaco bear dana* (41-39). *dacust ta daquit gauza bat* (46-212/213), etab.

Bien bitartean, badira han-hemen aditza perpaus buruan ezer gabe agertzen deneko hainbat adibide; hona batzuk:

Dau < Badu (9-16). *dacusgu < badacusagu* (9-148). *Da ereinteco dempora, ta bai bilduteco bere < Bada eraiteco dembora, eta bai viltcecoa ere* (13-144/145). *Daragoionac ardurazco lan bati* (43-58). *Dacusunean arima bat...* (46-35). *dabela daquizunean* (52-151/152).

Halako maiztasun batekin, dena dela, *ba*- agertzen da, dela galdegaitasuna markatzeko, edo dela *bere*-ren ondoan:

cerren gustu ta atseguintasunetan badira bai naibague, atsecabe, garrazmin, neque ta cereguiñac (3-81/82). *lo datzanean ta jarriric dagoane[a]n bere badoa* (4-125/126). *beintzat esan ta eguiten bere badogu ciur baguenqui leguez* (4-195/196). *badot etorquizuneraco bear dodan betegarri guztia* (5-125), etab.

Haatik, inoiz honelakoak ere desagertzen dira itzulpenean:

justiciatia bere dala < ere badela (11-216).

Gehiago sakondu ezinean, honako lan hipotesi hauek plazaratu nahi nituzke: 1) Añibarroren idazkeran *ba*-ren erabilera ez da Altubek eskatzen zuen bezain zurruna, ez eta hurrik eman ere, eta bai aitzitik beste idazle askorenak baino ziurrenik laxoagoa. 2) Gainerako idazlanei dagokienez, erdararen eraginari-edo egotz

⁶³ Altubek (1929: § 77) jadanik hamar adibide bildu zituen, eta okertzat jo Axularren egituren aldean.

zekiokeen bitartean, agian, honetan berariaz egindako *ba*-ren kenketak ugari direla ikusirik, dagoeneko haren idazkeraren ezaugarritzat hartu behar dugu. 3) Idazkeraren ezaugarritzat, ez nahitaez hizkeraren ezaugarritzat; izan ere, *jakin* aditzaren portaera bereziak adieraz lezake etengabe erabiltzen diren trinkoekin bestela jotzen zuela, belarriaz alegia, eta ez buruaz, nolabait esateko.

5.1.3.7. *Perifrastikoa vs trinkoa*

Teorian, forma trinkoak dituzten aditzetan aspektuaren aldetik bereizketa bat somatzen da orainaldian zein lehenaldian: forma trinkoek puntukaritasuna adierazten dute eta perifrastikoek ohikotasuna (*banator* ‘(ya) vengo’ / *etortzen naiz* ‘suelo venir’).

Alabaina, beti bezalatsu teoria motz gertatzen da gure bi idazleongan aurkitzen dugun aldea azaltzeko. Zehazki, Añibarrok trinko bihurtzen ditu Axularren hainbat perifrastiko:

ebillela < *ibili cen* (3-118). *daquienean* < *iaquiten duenean* (4-62). *datoz* < *ethortcen dira* (4-133). *doazan* < *ioaiten diren* (5-113). *ezpalelor*: *gainean, etorrigo ezpalitz-en ordeaz, < ethor ezpaledi* (7-37/38). *gatozanean* < *ethortcen garenean* (8-44). *dacusenean* < *iccusten duenean* (8-96). *ez dabenac* < *içaiten ezutenec* (8-141). *doazanai* < *ioaiten direney* (9-91). *ciñoan* < *erraiten du* (9-138). *dirautso* < *erraiten dio* (9-171/172). *letorquien amoreagaitic* < *ethor cequien amoreac gatic* (9-192). *dirautsu* < *erraiten deratçu* (11-41). *celan eztacusen* < *nola ez-tuen iccusten* (11-101). *zatozanean* < *ethortcen çarenean* (11-302). *daroió* < *eramaiten deraue* (12-107). *daroién* < *eramaiten derauen* (12-108). *Jatortzu* < *Ethortcen çaitçu* (12-144). *dara-biltzuz* < *erabiltceintuçu* (12-145). *dirauscu* < *erraiten du* (12-181). *dacusenean* < *iccusten du-tenean* (12-229). *dirauscuna* < *erraiten duena* (12-261). *zaucaz* < *eduquitcen çaitu* (13-199). *dazaut* < *Eçagutcen dut* (15-182). *daracuscu* < *eracusten deracu* (43-188).

Eta perifrastiko Axularren hainbat trinko:

esan daguidan < *derradan* (0-138). *ecarrico eutsan* < *baitcecarqueyen* (1-40). *egon etzedin amoreagaitic* < *etcegoen amoreac gatic* (1-67/68). *egon cedilla* < *dagoen* (2-67). *esan eguidazu* < *Erradaçu* (4-8). *ecin esan guiñei* < *ecin baiterraquegu* (4-15). *esan guiñei* < *derraquegu* (4-134). *izan zaite* < *çaren* (5-32). *Eztaguiozula esan* < *Ezterroçula* (5-141/142). *deituten dan* < *daritçan* (7-139). *egon litequela* < *dagoqueyela* (8-174). *nora joango ete liteque* < *norat othe lihoaque* (8-240). *esan nei* < *derraquet* (9-95). *joan, atera ta batu daigun* < *goacin...* *eta athera deçagun, vil deçagun* (9-149). *zugaz ondo joan dedin* < *çutçaz ongui dohan* (10-28). *Eztaguizula esan* < *Ezterroçula* (11-81). *Izan bedi* < *biz* (12-5). *euqui eguizu* < *educaçu* (15-400).

Irakurleak badakike dagoeneko gertakari ezberdinak adierazten dituztela. Izan ere, haietako batzuk bakarrik dagozkio aspektuari. Eta honetaz den bezainbatean, norabide bakarreko aldaketak daude: perifrastikotik trinkora daramatenak, alegia. Añibarrok trinkoa teoriak dioen bezalatsu erabiltzen du, baina Axularrek argi eta garbi teoriak dioen baino gutxiago; erka bitez ondoko adibideak:

Carcelan dagoanac, daquienean condenaturic dagoala vicitzea galtzera... < *iaquiten duenean* (4-62). *Segurutzat dot Infernura doazan gueienac guero baten menturan ta zorian ifiniric, atan fiaturic ta atan uste utsaz engañaturic joaten diriala* (5-113/114) < *ioaiten diren guehienac...* *ioaiten direla* (Ax 75).

Honezaz gainera, Añibarrok —Villasantek azpimarratu bezala (1956: 84-85)— Axularrek baino aditz gehiagoren trinkoak ezagutzen eta erabiltzen ditu: honelakoak dira, bada, *erakutsi* eta *ezagutu*-renak bederen. Bestalde, agian *etorri*-ren alegiazkoetan-eta dagoen aldea ez zaio aspektuaren arloari bakarrik zor: Axularrek *dathor*, *datozi*, *dathorke*, *bethor* eta *zatozte* formak baino erabiltzen ez ditue- nez gero (Aresti 1971: 201), baliteke Añibarroren *ezpaletor*, *letorquien* eta antze- rakoak Axularren hizkeran ezohikoak izatea.

Alabaina, Villasanteren baieztapenari bi ohar egin behar zaizkio. Batetik, Añi- barrok Axularrek baino trinkoen erabilera gutxiago ezagutzen ditu, eta zehazkia- go apenas ezagutzen du subjuntibo zaharra, Axularrek berak Leizarragak baino gutxiago erabili arren; badira, halere, zenbait adibide testuan zehar, galera aurre- ratu xamartuta zegoela, baina erabatekoa behintzat ez zela (gaur egun bezalaxe- ko egoera, beraz) iradokiaz:

gagozan zur, *irazarriric*, *prest < gauden erne*, *gauden prestic* (4-83/84). *doiala ta datorrela < dohala eta dathorrela* (5-142). *dabillela atzetic < daudela guibelat* (17-34/35). *daroagun < da- ramagun* (17-119).

Bestetik, Axularrengan forma trinkoak dituzten aditzen kopurua txikixeagoa izanik ere, hark bizkaitarrak baino batzuetan forma konplexuagoak erabiltzen ba- daki, guztiz *-ke* atzizkidunak (*baitcecarqueyen*, *dagoqueyela*, *lihoaque...*; atzizki honetaz, ik. § 4.3.10.12); halaber, itzulpenean nekez bai nekez ordezkatu dira haie- tako batzuk:

zuc ezpada < çuc ezpadeçaçu (0-144). *on liteque < on liçate* (1-199). *eztituezala < eztuquetela* (2-34), etab.

Talde honetan sar litezke, agian, *erran* erroko trinkoak (*derradan*, *erradaçu*, *derraquegu...*), Añibarrok perifrastiko bihurtu ohi dituenak, gainerantzean NOR- NORK aditzetan biek *-io-* errokoak eta NORI barneratzen dutenetan Axularrek *-io-* (*dioitso...*) eta Añibarrok *-irau-* (*dirautso*) errokoak usu erabiltzen dituzten arren, bigarrenak maizago, noski, lehenak baino. Ohartu, dena dela, aipatutako formak subjuntibo zaharra, agintera eta *-ke* atzizkiduna direla, hurrenez hurren, beharbada Añibarrok baliabide gutxiago zituen arloetakoak, alegia.

Azken finean, Añibarro euskal aditzari garrantzi berezia ematen hasi zitzaio- neko lehen ordezkarietakoa dugu. Eta baliteke garrantzi emate honetan aditz as- koren trinkoak ezagutu eta erabiltzea garrantzizkoago izatea, aditz bakar baten forma gehiago baino, Villasantek ere —eta berarekin batera gutariko askok— is- latzen duen aurreiritziaren arabera. Bestelatsu begiratuta, berriz, bi idazleek nork bere aberastasunak baliatu zituzten, batean galduan, baina bestean irabazian ate- reaz zein bere aldian.

5.1.3.8. *izan* vs *egon*

Ezaguna da *izan* eta *egon*-en erabilera ez dela bat eta bera Euskal Herri osoan. *OEH*-ak (s.v. *egon*) dioskunaren arabera, *egon*-ena gorantz joan da Hegoaldean, testu zaharretan jadanik bizkaieraz somatzen zenaren ildotik. Gipuzkeraz, zehazkiago, XIX. mendean igartzen da gorakada, eta XX.ean *izan* bezain usu ageri da. Iparraldeko idazleengan, berriz, bakanago kausitzen da, eta adieraren aldetik, denetariko adibideak badira ere hasierako testuetatik, ‘egonkortasuna’ markatuagoa izaten da.

Iruzkina honek aditzera ematen duen bezalaxe, gure bi idazleak *egon*-en erabilera maiztasunaren bi muturretan daude, ehunka adibidetan Añibarrok *egon* jarritzen baitu Axularren *izan*-en ordean; hona oharretan jasotako anitzetatik bakan batzuk baino ez:

ecin legoque deunguero < *eciñ dateque gaizqui* (0-79). *dagozan zorigaistocoac* < *direnec* (3-60/61). *ez cegoquela ceren miraritu* < *etçatequeyela miresteco* (4-46). *dagoanean* < *denean* (4-97). *gaztea zara, sendo, osasundum ta indartsu zagoz* < *gazte çara, sendo eta indartsu* (6-87/88). *gaisso zagoz, argal ta zarturic* < *eri çara, flaco eta çahar* (6-89). *erbalago, zantarrago, mascarrago ta argalago zagozanean* < *flacoago çarenean* (6-140/141). *ez egoan* < *ezpaitcen* (7-52). *samur dago* < *samur da* (8-22). *libre gagozan* < *libre baicara* (8-100). *ez cegoan* < *ezpaitcen* (9-200). *ez zagoz* < *etçara* (9-243). *dagoan* < *den* (11-133). *dago* < *baita* (12-94). *gagozanean* < *garenean* (12-127). *aberats gagozala* < *aberats garela* (12-128). *egongo da* < *içanen da* (13-183). *santua dagoanari* < *saindu denari* (48-12).

Batzuetan gordetzear *izan* bada ere, azkenik aldatu du, edo aldatu eta gero damutu:

Arbola batzuc dagoz: aurrean *Badira*, ezabatua, eta *dagoz* gainean erantsia, < *Badira çuhaitz batçuc* (15-275). *ezpazara...* *gaisotu*: leh. *ezpazagoz...* *gaisoric*, < *ezpaitçara oraiño eri* (15-407). *ezta*: leh. *eztago*; cf. *Ceren ezta hartaracotçat* (27-81).

Edo hainbatetan aurkitzen diren *variatio*-ak egin (ik. § 5.5.1):

aserre eztagoanac aserre dana < *coleraric eztuenac coleran dagoena* (25-33/34).

Ez dugu beti erabateko lekukotasunik izango, Añibarrok Axularren *izan*-ak erraz onartzen baititu; cf., adib. *leorrear baliz leguez* < *içan bailliz beçala* (10-83/84), edo, aldaketaz damutu ondoren *onelaco diferenciaric edo baanic ezpaliz*: leh. *ezpalego*, < *ezpaliz* (13-196). Honek berak erakusten digu bere belarriarentzat bederen ez zirela batzuk gogorak. Baina *de facto* aldatu egiten ditueanean, lekukotasun ezin hobea du *GGero*-n *izan* / *egon*-en banaketa ikertu nahi lukeenak.

5.1.3.9. **edun* vs *euki*

Beste hainbestetsu gertatzen da bi aditzon banaketarekin; *OEH*-aren arabera (s.v. *eduki*), ‘tener’ adiera hutsa hegoaldekoa da batez ere, eta bereziki bizkaitarrengan, eta *izan* / *ukan*-en eremua gutxituaz joan da alde honetako literaturan,

guztiz azken urteotan, haren betebeharra ia-ia laguntzaile zereginetara bakarrik murriztuaz.

Honen arabera, espero izatekoa zen Axularren **edun*-en formak Añibarrok *euki*-rekin ordezkatzea:

bageunco < *baguendu* (1-72). *daucazuz* < *baititütçu* (4-131). *ain indar andia dauco* < *hain du indar handia* (7-40). *euqui arren* < *içanagatic ere* (9-51). *dauque* < *dute* (9-119). *bauco* < *badu* (12-18). *alcarren antza, irudia dauque* < *elccarren idurica handi baitute* (12-55).

Aldaketak ere norabide berekoak izan daitezke, edo damutu izanarenak:

euqui: aurrean *iza*] (*izan?*), ezabatua, < *içan* (14-113). *cenduanean*: aurrean *ceuncazanean*, ezabatua < *cenduanean* (15-264). *izango*: aurrean *euquico*, ezabatua, < *içanen* (18-15).

Ez du beti egiten, baina bai sarritan (cf., adib., *ain dau indar andia usantzac* < *usantçac hain du indar handia*, 7-42/43). Adibide kopuruak jadanik aditzera ematen du *izan* / *egon*-en ordezkapena baino urriagoa dela. Merezki luke, agian, aldaketa noiz egiten duen eta noiz ez aztertzea.

Halere, markatu behar da inoiz alderantziz ere egin dezakeela:

ez dau < *eztaduca* (8-147/148). *dozu* < *daducaçu* (10-10).

5.1.3.10. *iruditu-ren erregimena*

Añibarrok *zerk zer iruditu* ‘eman’ jokoak erabiltzen du beti, behar bezala (cf. *OEH*, s.v.). Alabaina, beti irristakorrago den arlo batean, hots, subjektua aditzizenaz eraturako mendeko perpausa denean, ergatiborik gabe ager daiteke, hurrengo adibidean bezala:

Gacha dirudi... bidea ta... gordetea < *Gaitz da Iaincoaganaco bidea, haren manamenduen compliticea* (45-43).

Dakusgunez, ez da Axularren joskeraren eragina erabat saihestsi behar, halere.

Bestalde, *OEH*-ak (s.v. *iruditu* 2) ongi jasotzen du Añibarro dela XX. mendera arte (Orixe, Lizardi eta segiziokoak arte, alegia) *iruditu*-ren trinkoak ‘iritzi’ adieran erabiltzen dituen idazle bakarra. Zehaztu behar da, halere, *zerk nori zer iruditu* jokoan egiten duela, XX.ekoak, jakin daitekeen neurrian, *zer nori zer iruditu* egiten duten bitartean. Hona hemen beste adibide bat, ergatiboa ixilean utzita:

ascori dirudien beste latz eta gach < *dirudien beçain latz eta gaitz* (46-163).

5.1.3.11. *eritxi-ren erregimena*

OEH-an (s.v. *iritzi*) ikus daitekeen bezala, aditz honen jokoak *nork zeri zer* izan arren, izan ditu gorabehera batzuk: hala bada, *nork zer* (mug.) *zer* (mugg.), *nori zerk zer*, *nork zer* eta *nor nori* jokoak bederen bildu ahal izan ditu aldiari behin, idazle jaso eta ez hain jasoetan, iparraldeko zein —maizago— hegoaldekoetan,

zahar zein —maizago— berrietan. Batzuetan adiera bereko aditzen kutsadura nabarmena da: *zer nori*-rako bederen, *iruditu* kontuan hartu beharrekoa da. Baina, edozelan ere, balirudike nolabait haren jokoak arrotz suertatu izan zaiela —eta egun ere suertatzen zaiela— euskaldun askori, arrazoiak ematea erraza ez izan arren.

Mitxelenaren hiztegiaren arabera, Añibarro zuzen erabiltzen duten idazleetakoa dugu, *Beti gogor eretxi deusat nekerik arinenari* (Añ *EL*² 73) perpausa lekuko, eta lekuko bakar. Alabaina, hautatutako adibidea bigarren argitalpenetik hartua izateak adieraz lezakeen bezala, gauzak ez ziren beti hain argiak izan. Izan ere, *LauEv*-en *eritxi*-ren joko arrunta *iruditu*-rena bera da (Ciarrustak 1991: 99),⁶⁴ *nori zer*, alegia, eta berbera gertatzen da *GGero*-n ere bederen. Beti bezala azpimarra dezadan bere kasa ez eze, Axularren eredia aurrean izanik ere erabiltzen duela, gehienetan haren *iduritu*-ren eraginpean egiten badu ere:

ez jacu oraingoa, presentecoa ain labur erechiten ta iruditen < iduritzen (12-39/40). ea cer eretxi jacan demporeaz (12-79/80) < ea cer iduri çaicán demboraz (Ax 157). cergatic derichazan [leh. derichen] Jangoicoari deunguero iru becatu modu oneec < cergatic darizten laincoac hain gaitz hirur beccatu suerte haui (14-77). Jangoicoari eder erechico jacana (15-414) < eder içanen çaicana (Ax 218). Derichazu (...) aimbestegaz cumlietan dozula (18-57/58) < Iduritzen çaitçu (Ax 244). ez jacola zure ondocoari bere, zuri laimbeste on, gozo, eder erechico (18-70) < idurituco (Ax 245). zuri erechico jatzu < çuri idurituco çaitçu (46-29), etab.

Salbuespen bakarra aurkitu dut testuan, eta hura jatorrizkoa “zuzenduaz” egina, Axular baita, izan ere, inoiz edo behin absolutua datiboaren ordean erabiltzen duten idazleetakoa:

onec dericho asco < hura daritça asco (42-118).

Añibarroren gainerako testuak sakonago aztertu beharko dira honezkero, ea noiz eta nola erabiltzen dituen bi jokoak. Ikusitakoaren arabera, dena dela, egingo nuke azken aldera bakarrik iritsi zela *eritxi*-ren joko klasikoaz jabetzera.

5.1.3.12. Alegiazko formen erabilera

Ezaguna da **ezan*-en ordean ahaleran *egin*-en adizkiak erabiltzen dituzten mendebaleko hizkeretatik zenbaitetan bederen, *da(g)i* eta *da(g)ike* taiuko formak galdu eta *le(g)i* eta *le(g)ike* taiukoak bakarrik erabiltzen direla, hots, alegiazkoek ahalerako orainaldiko formei lekua kendu dietela^{64 bis}.

⁶⁴ Larregi dio Ciarrustak (*loc. cit.*) Añibarroren gramatikako pasarteetan (*GB* 62), “Aditz hau, NORK eretxi, eta ZERI eretxi erabiltzen dala azaltzen deusku Añibarrok” dioenean. “A mi me parece, o me llamo: derichat...” bezalako ohar hutsetik, inolaz ere, berdin-berdin aterata daiteke *nik deritxat* zein *niri deritxat*, beheragoko adibideetan ikus daitekeen bezala. Bestela esanda, Añibarroren gramatika zeharo anbigua da dagokigun auzian, tamalez.

^{64 bis} Gaminderen arabera (1984: I, 453 t. hur.), bizkaieraren eremu osoan gauzatu da aldaketa, eta oro har ekialdean *leike* eta mendebaldean *lei* nagusitu dira euskara batuko *dezake*-ren kide modura.

Añibarrok itzulpenean egiten dituen aldaketa batzuek joera datatzen hasteko laguntza eskaintzeaz gainera, **edin*-en adizkietan berdintsu dabilela adierazten dute, eta adibideren batean alegiazkoa are jatorrizko testuaren lehenaldiaren ordez ere agertzen da; hona bakan batzuk:

al litequecen < ahal citezqueyen (1-89). jazo litequela < guertha ditequeyela (5-101). liteque < diteque (8-38). emon al litequen < eman ahal ditequeyen (8-162). Abiatu liteque < Enseia ahal diteque (9-50). gura izan lei < desira ahal deçaque (ibid.). leiquezala < deçaqueyela (9-53). leitequela < ditequeyela (9-95/96). euqui al leienez < eduqui ahal deçaqueyenz (9-128). ecerberztuco litequez < deseguin ditçaque (10-21/22). esan lei < erran ahal diteque (11-318). cobratu litequez < cobera ditezque (12-118). esan al liteque < erran ahal diteque (12-132). eguin lei < eguin diteque (15-83).

Bide batez, erreparatu, ezer baino lehenago, *esan lei* eta *eguin lei* bi horiei: ezen alegiazkoak izateaz gainera, inperzonalekoak baitira; aldaketak eman duen bigarren urratsa ere dagoeneko gertatzen ari zela garbi uzten dute, hots, *egin / *edin* bereizketa *lei(ke)* tankerako adizkien alde galduaz zihoala. Hala eta guztiz ere, ez da hemen somatzen (cf. goiko adibideen artean *emon al litequen*, adib.) Altunak (1987: 18-19) frai Bartolomereren hizkuntzan inperzonalean aurkitu duen *joan leiteque / esan legui* erako bereizkuntzarik.

Goiko ideiara itzuliaz, eta **edin*-i dagokionez, orainaldiko formak han-hemen aurkitzen dira oraindik; *d(a)iteque(z)*, adibidez, nahiko urri agertzen da, zenbat eta aurrerago, urriago:

al baditeque (5-153). ecin erremedia ditequena (7-155). ecin sosega diteque (8-185). bete diteque (9-2, 9-94). cumpli diteque (9-112). arqitu al ditequezan (10-13). egon ditequela (11-171). jazo daitequen (11-187). celan al diteque (11-291). eguin daitequena (12-92/93). eguin ditequete [sic] (15-76). celan diteque (15-161). Jazo diteque (15-356). guerta diteque (15-359). idoro ditequez (16-42). probau al ditequenean (19-41). eguin diteque (19-42/43). izan diteque (19-329/330). Egon diteque (27-34). etorri ditequecela (28-90). ecin egon diteque (34-51). ezta ecin daitequen lana (35-42). ecin engaña diteque (41-276/277). Celan ori alan izan diteque? (48-13/14).

Berdintsu *egin*-ekin; *da(g)i*- hasierako formak, esate baterako, une batetik aurrera azken buruetaraino ez dira berriz aurkitzen eta, edonola ere, beti aurrean *al* (edo *ezin*) dutela, adibide bakar batean (*daiqueana* eta *daquiana* aurrez aur jarrita) izan ezik:

al daiquegunic (2-126). al daiquedan guztia (3-112). al daizan ondoen (4-68). al daian dempora guztian (6-25). al daigun guztian (9-249). erdetsi al daigun leguez (9-253). ecer al daiqueala (11-274). al daizun eguite onetan (11-284/285). al daizuna (12-22). al daguien guztiaz (13-105). eguin al daiquean demporan (13-140). al daienean (15-47). al daguienean (15-136). ecin eroan daiquezuz (15-262). ecin daiquean demporaguño (15-271). al daguiana (17-115). al daguiguna (17-117/118). Pagatu al daizula (18-35). al badaizu (18-42). al daguiala (18-49). al daizula (18-149, 18-159). al daizuna (18-161/162). guztia daiqueana ta daquiana (19-27). igarro al badaizu (19-85). al badai (19-292). artu al daizan gari garau aimbeste urte (54-156/157). artu al daizan gari garauac (54-165/166). idoro al daizuen dempora (56-111).

5.1.3.13. *Ohi*

Gorago (§ 5.1.3.7) ikasi dugu Añibarrok ‘aditz trinkoa / aditz perifrastikoa’ bereizkuntza zorrotz gordetzeko joera izanik, Axularren hainbat perifrastiko trinko bihurtu zituela itzulpenean. Bada, ohikotasunari dagokionez, beste muturrera igarotzen da inoiz edo behin, jatorrizko testuko perifrastiko arruntak *ohi*-z hornituaz:

eguin oi dabe < eguiten dute (2-92/93). esan oi dogu: leh. esaten dogu, < erraiten dugu (5-13). euqui oi dau < eduquitcen du (7-16). jazo oi dana < comunzqui guerthatcen dena (7-161). esan oi doguna < erraiten duguna (9-109). esan oi dozu < erraiten duçu (9-235). esan oi dabela < erraiten dutela (11-61). Esan oi da < Erraiten da (12-74). Esan oi dozu < Erraiten duçu (12-152).

Dakusgunez, *esan*-ekin bereziki maiz gertatzen da, han-hemen bildutako adibideen artean. Aldaketa estilistikoa izan daiteke, agian; honela balitz, ulergarriagoa litzateke alderantzizkoa ere gertatzea, adibide bakarra aurkitu badut ere:

ichiten dituan < utzten ohi baitu (7-113).

Bestalde, ezaguna da Ekialdean *ohi* -tzen erako adizkiarekin erabiltzen dela, Mendebalean partizipioa daraman bitartean (Zubiri & Zubiri 1995: 558). Haueta-ko bi bakarrik itzuri zaizkio itzultzaileari, biak B atalean:

biurtzen oi da = Ax (15-171). guelditzen oi dira < eratchequitcen ohi da (15-277).

5.1.4. *Aditzondoak*

Modu-aditzondoez mintzatzeko, egun ezinbestean De Rijk irakasleak egin duen azterketa zuhurretik (1995) abiatu behar gara. Labur bilduz, haren ustetan, gaurko egoera —non izenondoek markaren bat ia beti beharrezkoa duten aditzondo izateko— garapen moderno bati zor zaio, ziurrenik erromantzeekiko auzotasunarengatik, euskararen aurrehistorian antzeko marka formalik ez zegokeen bitartean.

Bere argudiaketa aberatsetik gogoeta historiko-geografikoak bakarrik interesatzen zaizkigu orain. Izan ere, testuen arabera, garapena Iparraldean abiatu bide zen inon baino arinago, 1545ean jadanik *-ki* emankorra baitzen. Aitzitik, De Rijk-ek zalantzan jartzen du atzizki honen bizitasuna hegoaldeko euskalkietan, eta literatur hizkuntzaren bitartez hedatu dela iradokitzen.

Bere tesiari hobekienik erantzuten dion euskalkia bizkaiera da, ez bakarrik *-ki* ezezaguna edo ia ezezaguna izateagatik —ongi dakigunez—, baita (eta nagusiki) *-to*-ren emankortasun erabat mugatuarengatik ere. Gipuzkeraz aterabide ezberdinak aurkitzen ditu, baita *-ro* eta *-kiro*-ren lehentasun argia azaleratzen ere, eta azken honetan gipuzkoarrak Beriain eta Lizarragarekin bat datozke.

Beste leku batean azaldu dudanez (Urgell 2000), De Rijk-en hipotesia argigarri eta, nire ustetan, zuzena da gehienez, baina aurkezten dituen datuen interpre-

tapenari pare bat zuzenketa eginik. Lehenik, argudiaketan erabili ez den datu erabakigarri bat dago: Larramendik *-kiro* atzizkia “navarro y labortano” deritzan euskalkiaren ezaugarrien artean sartzen du, *-ki*-rekin batera, bide batez (1745: xxviii). Beraz, atzizki horrek *HH*-an daukan maiztasuna ez dator hiztegiaren mintzairatik, bere hautapen kultural batetik baizik. Eta atzizkiaren etorkia nahikoa murriztu behar dugu, zeren eta oso gogoko zuen Beriainen dotrinaz beste hautagairik ez baitago, dakidalarik, Larramendiren *-kiro*-ren aldeko erabakia egotz dakiokeenik.⁶⁵

Ez da hain argia, baina bai egiantzekoa behinik behin, Beriain izatea oro har *-kiro* eta *-ro* atzizkiak aditzondogile nagusi hautatzeko Larramendiren erreferentia, iparraldeko literaturan *-ki*-k lortua zeukan tradizio aberatsa alde batera utzirik, nafarra baita Hegoaldean andoaindarrak aintzat hartzen zuen idazle zahar bakarra.

Beraz, bigarrenik, handik jarraitzen da idazle gipuzkoarren (eta Lizarragarren) De Rijk-en antzeman duen *-ro* eta *-kiro* formen nagusitasuna, ondoko lexikoan *HH*-ak izan zituen eraginetako bat baino ez bide dela, orain artean, inplizituki bederen, garai hartaz kezkatu diren filologoek jakintzat eman izan duten bezala.⁶⁶

Gainerantzean, *GGero*-aren datuak De Rijk-en hipotesia bermatzera baino ez datoz, zeren Añibarrok maizenik *-ki* atzizkidun aditzondoak bestelakatu egiten baititu; era ezberdinetara, ordea, eta honetan geratuko gara zertxobait.

Gehienetan Añibarrok aditzondo markarik gabeko irtenbideak hobesten ditu, eta haietan usuena adizlaguna da edo, bestela esanda, izen-izenondoak deklinabide atzizkiez janztea, instrumentalaz bereziki, baina baita partitiboaz (*pozik*) eta inesiboaz ere; ordainetako batzuek hiztegi garbiagoa erabiltzeko joerari ere erantzuten bide diote (§ 5.3.2), baina edonola ere, arlo honetan itzultzaile trebe modura jokatzeko du, ordain egokiak eta zenbaitetan irudimen handikoak aurkituaz:

biotz onaz artua < arraiqui errecibitua (0-77). *biotzez ta pocic < arraiqui eta alegueraqui* (0-88). *zurtaşunaz < çuhurqui* (0-88/89). *ausardiaz, gogor ta indarraz < nabasiqui eta ausartqui* (2-62). *cin-ciñez, eguiaz ta benetan < deliberatuqui* (3-111). *gueienetan < comunzqui* (4-99, 7-137, etab.). *gueienez < comunzqui* (6-87). *nequez eci (...) ta ecanduco dozuz < ezititçu hobequiago manucortuco...* (7-34/35). *erraz ta atseguintasunaz < erraxqui eta aise* (7-151). *bere vorondatez ta nai-guraz < librequi eta bere nahiz* (9-52). *vorondatez < deliberatuqui* (9-60). *guzurrez, falsiaz < falsoqui* (10-59). *ecin gueiangoan andia, neurri ta mugabagüea < infinituqui handia* (11-196/197). *prestutasunean < prestuqui* (11-218/219). *pocic < alegueraqui* (11-296). *pacienciaz < patientqui* (12-103). *borondatez < librequi, gueure vorondatez* (12-111). *cin-cinez ta gogo oso guztiaz < cin-cinez, fintqui eta debotqui* (12-164). *men-menean < iustuqui* (12-183).

⁶⁵ *-kiro*-ren lehen lekukotasuna ere (*lealkiro* 1536) Belaskoingoa izatea (De Rijk 1995: 68) ez bide da kasualitate hutsa. Oso egiantzekoa da nafarreraren hegoaldeko mugako hizkera haietako ezaugarri bat baino ez izatea, beraz.

⁶⁶ Bi adibide baino ez: Agirre Asteasukoa (F. Altuna 1999: xciii) eta Lardizabal (Urgell 1995: xlv-xlvi).

Irtenbide honetara inoiz bere buruari egiten dion zuzenketa baten bitartez iristen da:

oso-osoan: aurean *osoro*, ezabatua, < *ossoqui* (11-17).

Izenondo markagabea bera ere usu aurki daiteke itzulpenean, baina hartarako aukerak, agi denez, ez dira Añibarroren hizkuntzan gaurkoan baino ugariagoak. Zehazki, nagusiki aditzondo modura dabilizan zenbaitez gainera (*erraz*, *sarri*, *ziur*, *aserre*, *laster...*), maiztxo ‘izond. + *-ago* konparatiboa’ egituran eta bakan ‘*hain* + izond.’ eta ‘*adina* (*bezain* bezala erabilia; § 5.3.4) + izond.’ egituretan bakarrik:

erraz < *erraxqui* (3-8, 4-38, 4-172, etab.). *irmeago* < *bortitzqui* (3-126). *Sarri* < *Comunzqui* (4-87). *ciur seguru* < *segurqui eta gerthuqui* (4-175). *aserre zanean* < *gaizqui cenean* (5-50). *errazago* < *erraxquiago* (6-64, 6-129, 6-132, etab.). *laster* < *laburzqui* (6-75, 6-117). *prestago*, *errazago ta arinago* < *aisequiago eta erraxquiago* (6-141/142). *bigun* < *emequi* (8-103/104). *viciago*, *sendoago*, *indartsuago* < *biciquiago eta sendoquiago* (8-107). *indartsuago ta sendoago* < *bortizquiago eta sendoquiago* (8-119). *artez*, *zucen*, *banaca*, *era on*, *ciur ta men* < *chehero*, *bat-banaca*, *bere gainqui eta bereciqui* (9-12). *adiña seguru*, *irme ta gogor* < *beçain segurqui eta gogortqui* (10-87/88). *ain estu* < *hain herst[u]qui* (12-183).

Bestela, taiu ezberdineko irtenbideak ematen dizkie, perifrasi gehienbat, eta hauen artean nagusiki partizipio-egiturak:

lotsa бага < *ausartqui* (0-150). *ondo ifinia* < *iustuqui* (4-58). *ondo merecituric* < *iustuqui* (4-59). *betiraun guztico adu on edo gaistocoa izatea* < *seculacotçat ongui edo gaizqui içaitea* (5-90/91). *ardura бага* < *antsicabequi* (6-48). *jazo oi dana* < *comunzqui guerthatcen dena* (7-161). *sosegatuac* < *sosegatuqui* (8-142/143). *ausardia gueieguiaz fiaturic* < *ausartquiegui*, *fidatuquiegui* (11-191/192).

Aipatutako irtenbideen aldean, bakan-bakanak dira atzizki aditzondogileen agerraldiak, hitz jakin batzuez bestetan. Hona lehenengo 12 buruetan ediren ditudanak:

-RO: *deunguero* < *gaizqui* (0-79, 8-258, etab.). *naguiro* < *flacoqui* (3-25). *erabaguiro erabagui* < *deliberatuqui deliberatua* (3-32). *gozoroago* < *goçoquienic* (4-95). *osoro* < *ossoqui* (4-180, 8-35, etab.). *arguiro* < *clarqui* (9-222).

-KIRO: *latzquiró* < *bortitzqui* (1-215).

-TO: *obeto* < *hobequi* (1-30). *obeto* < *aisequiago* (6-65). *obeto* < *hobequi* (6-100). *ondo* < *pres-tuqui* (11-268, 11-279).

Eta are bakanago gordetako *-ki* atzizkidunak:

ain ondo ta ain zorionqui < *haiñ ongui*, *haiñ ohoresqui eta dohatsuqui* (0-155). *comunqui* < *comunzqui* (1-190, 6-71/72, etab.). *laburqui* < *laburzqui* (5-148, 12-254).

Ez dira falta bitariko irtenbideak:

-RO: *Garbiro*, *arguiro ta ciur* < *Garbiqui eta segurqui* (5-70). *osoro ta alde guztietara* < *ossoqui eta complituqui* (8-109/110).

-KIRO: *bigunquiro*, *suabetasunaz*, *leun*, *naguiro*, *azalcho ta palaguz leguez* < *malguqui*, *leunqui*, *emequi*, *naguiqui eta balacuz beçala* (2-60/61). *arguiro*, *osoro ta eguiaz* < *osoqui eta eguiazqui* (12-294/295).

-KI: *laburqui ta laster* < *laburzqui* (12-79). *deunguero ta charqui* < *gaizqui* (12-216).

Honek ez du esan nahi alderantzizko kasuren bat aurkitzen ez denik, beti bezala:

lucero < *dembora luceaz* (6-106).

Erator atzizkidun aditzondoekiko portaera argiago izan dezagun, haien agerrialdiak oro miatu ditut:⁶⁷

-RO: *deunguero* (0-79, etab.; orotara 85), *donguero* (8-123, etab.; orotara 20) eta *deungaro* (12-223, 32-91). *barriro* (3-36/37, etab.; orotara 31). *lucero* (4-148/149, etab.; orotara 16) eta *luzaro* (37-23, 48-148, 51-6, 55-75). *arguiro* (0-25, etab., 15 orotara). *osoro* (4-180, etab.; orotara 13). *biciro* (0-25, etab.; 12 orotara). *astiro* (7-80/81, 20-65, 54-122). *naguiro* (2-60, 3-25). *garbiro* (5-70, 51-43/44). *erabaguiro* (3-32). *gueldiro* (7-81). *gozoro* (8-104, etab.; orotara 6). *santuro* (19-56, 28-146). *justoro* (42-62) eta *justuro* (55-10).

-TO: *ederto* (5-94, etab.; orotara 10), *galanto* (22-117, 49-87, 51-106, 53-138), *charto* (12-223/224), *polito* (23-72).

-KI: *zorionqui* (0-155). *comunqui* (1-190, 6-71/72, etab.; 19 orotara). *espiritualqui* (3-13). *laburqui* (5-148, 12-254, etab.; 5 orotara). *charqui* (12-216). *naturalqui* (20-44). *la(t)zqui* (36-16, 41-126). *desonesqui* (40-91). *finqui* (49-66). *prestuqui* (52-81).

-KIRO: *bigunquiro* (2-60). *la(t)zquiro* (1-215, 7-58). *bildurquiro* < *icigarriqui* (15-92). *lazqui-roago* (53-33).

Emaizton arabera, *-ro* atzizkia da egiatan garrantzizko eta agian emankor agertzen den bakarra (cf. *erabaguiro*, *justoro* / *justuro* eta agian *santuro* ere). Halere, hitz bakan batzuek (*deunguero* ‘gaizki’, *barriro*, *lucero*...) adibide asko biltzen dituzte, haiezaz gainerako bakanek adibide gutxi, bat edo bi, dituzten bitartean.

Gainerakoak, edo Axularren eragin zuzenari, edo *HH*-aren eragin zuzen zein zeharkakoari egotzi behar zaizkio, *-to*-ren adibide urriak alde batera utzita. De Rijk irakaslea bezalaxe, beldur naiz oro har gai honetan literaturak zerikusi gutxi duela errealitatearekin, berrikuntza nahikoa lehenago onartu baitzuen, antza denez, ahozko hizkerak baino.

5.2. *Joskera*

5.2.1. *Hitz ordena*

5.2.1.1. *Aditza azken*

Ezaguna denez, joskeraren arloan Altube baino lehenagoko “altubetarrak” izan dira gure artean, eta ziurrenik haietako lehena Añibarro dugu:

⁶⁷ Alde batera utzi ditut, noski, *ondo* eta *hobeto*, inolako interesik gabekoak direlakoan, haien zahertasun eta hedadura handiagatik.

GUEROCO GUERO

De paso advierto que assí Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga assí, pues sale más natural. No tuve este método presente en dos libritos que dí a luz *Esculibrua* y *Lorategui espirituala*. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel... (GB 14).

EL-aren 2. argitalpenean ildo honetatik egin zituen aldaketak dira gramatikan azaltzen duen arau honen lehen eragin ezaguna. Alabaina, Añibarrok izan zuen maisuetako bat Axular izan zenez, espero izatekoa da *GGERo* itzultzerakoan hartu zukeela eskarmentu gehiena honi dagokionez eta, azken batean, maisuaren hitz ordena, eta batez ere aditzarekikoa, oso eta oro errespetatuko zukeela.

Halaxe da hein handi batean, baina ez osoki, bi muturretatik aldatzen baitu jatorrizko testuaren ordena: batetik, aditza azken jarriaz baita Axularrek egiten ez duenean ere; bestetik, zenbait esalditan aditza aurreratuz. Honek arauaren izenean Hegoaldean eman ziren lehen urratsak ezagutzeko bide ematen digu eta, aldi berean, baita arauaren aurka Añibarrok intuitiboki egiten dituen aldaketak aztertze-ko ere.

Alde batetik, beraz, zenbaitetan Añibarrok, ikasi berriek ohi duten bezala, araua behar baino haratago eramaten du, ereduak baino testuinguru gehiagotan be-
tearaziaz. Gehien errepikatzen den kasua kontakizunari edo inoren berbaldiari ha-
siera ematen dioten aditzena da, Axularrek perpaus buruan jartzen baititu, ziurre-
nik tradiziozko ohiturari jarraiki. Añibarrok, zalantza batzuekin, atzeratu ohi
ditu:

Casianoc diño: leh. *Contatzen dau Casianoc*, < *Contatcen du Casianoc* (1-36). *Ezcara beimbere ur baten bi bider sartuten: ibai edo errearen icena beti da bat, baña ez ura, diño Senecac*: leh. ...*sartuten, diño Senecac* < *Ezcara behinere ur batetan biatan sartcen (dio Senecac)*... (4-117). *Santo Tomasec diño* < *Erraiten du San Thomasec* (10-5). *Davic erregueac eranzuten dau* < *Ihardesten du erregue Davitec* (11-284). *San Bernardoc diño* < *erraiten du San Bernardoc* (12-154).

Ez ditu onartzen, batzuetan behintzat, perpaus kompletibo hautsiak:

Noec, bost eun urte cituan < *bortzetan ehun urthe cituela Noec* (9-181). *Jangoicoac zure premia ta beartasun ori estaldu al leizula* < *ceure premia eta escastasuna estal ahal diaçaicula Iaincoac* (11-268/269). *orain emen gure artean bere dacuscunean guizon batec gure aide edo adisquide bati mesederen bat gure amoreagaiti eguiten deutsal*: *eguiten deutsal* gainean erantsita dago, hasieran ahaztu eta gero nahita atzeratuta, < *gure ahaide edo adisquide bati eguiten dioela gure amoreac gatic cenbait ongui* (16-130).

Ezta mendeko perpausaren ondo-ondoan ezarritako aditzak ere:

Baña baldin a ecandua biurtu bada beste aldera, gaistotasunetic ontasunera, bertutearen bidea idoroco da leun... < ...*gaixtatasunetic ontasunera, edirenen da verthutearen bide hura bera, errex, atseguin eta placent* (7-75). ...*gogotic larga ezquero, bere gogo, asmo ta biotz guztia ifinten dau orduan darabiltzen becatuetan ta atseguinetan* < *gogotic utciz guero, ibentcen du aldiz bere gogoa eta bihotz guztia...* (8-201/202).

Harrigarri xamarra da konpletiboa aditz nagusiaren aurrean jartzea edo aginterazko aditza atzeratzea, Añibarroren senaren kontra baitoa erabat, geroxeago ikusiko dugunez:

guztiac salva ditecen gura dau < Iaincoac nahi du guztiac salua ditecin (8-87/88). Aurrerago goazan < Goacin aitecinago (17-54).

Perpau laburretan, bestalde, ez du arazorik ikusten aditza azkeneratzeko:

ta onec marai bi bacarric emon cituan: bacarric-en aurrean emon ci[tuan], ezabatua, < eta harc eman cituen bi cornadu (16-186/187).

Inoiz edo behin aditza aurreratzeko tentaldia gaingitu duela ikus dezakegu, azkenean Axularrek dakarren leku berean utzita:

beragaz daroa < berequin baitarama; beragaz: aurrean daroa, ezabatua (4-127). Cerren libertate onen aguintaria ta nagusia da Jangoicoa < Ceren libertate haren gaigñeco eta nabusi da Iaincoa; da: gainean erantsita, lerroan ezabatu, Jangoicoa-ren ondoren ipini eta damututa (9-55). Eta, azquenez, presona zar bat otz-beratu, min-beratu, ezaindu, aserratu, alde guztitic erruquigarria ta on-beartua gueldituten da < presuna çaharra hotz beratcen, minberatcen, iduricortcen, haserrecortcen eta alde guztiz on-behartcen eta urricalquicun eguiten da; hasieran presona zar bat guelditzen da jartzen zuen (13-220).

Alabaina, aditza aurreratu dueneko adibide batzuk ez bide dira ikasi berriaren gehiegikeriak, nolabait esanda, senak eskatzen zizkionak baino. Izan ere, Añibarrok maiz aditzaren aurrean zerbait, perpauseko osagai bat bederen, ezarri beharra sentitzen duela dirudi:

celan... alan dempora lucean becatuetan egoteac ichiten dituz bere ondorengo oñatza gaistoac < nola... hala utzten du dempora luceaz beccatutan egoiteac ere bere ondotic... (7-114/115). Eta lenengo eranzuten dau, beintzat merecitezaz dan aldetic, ezabela parcaciñoric mereci...: leh. eranzuten dau lenengo, < Eta inhardesten [sic] du lehenbicoric (8-55). Baldin oraingo demporau, orain escuen artean doguna, ondo emoten ezpadogu... < emplegatcen ezpadugu ongui (12-188/189).

Eta ez du Axularrek bezala *hain da...* egitura onartzen, zeinagatik inoiz bere buruari zuzenketak egin behar izan dizkion:

Eta or[a]jingo dempora au bere ain guichia, laburra ta pitia da ece...: ain-en ondoan da, ezabatua, < hain da guti (12-32).

Beste alde batetik, aurreratu bezala, batzuetan badirudi Añibarroren senak gaina hartzen diola aruari:

1) Aginteran, aditza perpausaren buruan jarri nahiago du:

emon gaitezcan devociñozco gaucetara < debocinotan iar gaitecin (5-44). atera ta batu daigun gaisto a < eta gaixto hura athera deçagun, vil deçagun (9-149). cumpli eguizu ceure guraria ori < ceure desira compli eçaçu (11-42).

Aukera bera egiten du, bidenabar, laguntzailea perpaus burura aurreratuta daramaten Axularren adibideen aurrean:

Icasi daigun, bada, besteren buruan...: aurrean Daigun bada, ezabatua, < Gaitecin beraz bertceren gaiñean centça (5-134). ondatu ta galdu daiguzan lurraz batera < ditçagun guztiac lurrarequin batean gal eta honda (9-136/137).

2) Perpaus konpletiboak nagusiaren ondoren kokatzeko joera du:

sinisterazoric... ezcareala ilgo < molde berean nahi lerauquegu guri ere, ezcarela hillen sinhets araci (4-173/174). iruditen jatzu menturaz eztala alacoric izango < venturaz eztela halacoric içanen iduritzen çaitçu (5-62).

3) Eta, ezezko perpausetan, partizipioa laguntzailearen edo ez-en ondora eram beharra:

ezta uts eguin zure erruz edo zu ataraco ez gai izanez < eztela çure faltaz edo çu hartaco ez gai çanez huts eguiñ (0-127). ez sartu an sarri < ez hain maiz ibil (2-100).

4) Subjektuak edo objektuak ere aditza erakartzeko indar handia daukate perpauseko beste osagaien aldean:

celan lurra landutea, apaindutea, escuz bear eguitea, eta gordeteco bearrean ta premiñan jartzea dirian becatutic sortu, erne, jaiio ta eldu dirian eradenduac... < beccatutic sortcen eta heldu diren... ondoreac baitira (1-17/19). cerren á bearreta ta lan guztia artuten eban, oraciño ta Jangoicoaren gauzac eguin ezquero, alperqueriatic igues eguiteagaitic < ihes eguiteagaitic hartcen baitçuen (1-41). Eta orduan, seme onec bere aitac emonico diru guztiac urtuc balitu jocoan, jan-edanean, gaistaquerian ta arloterian < iocoan, ian-edanean eta arloterian gasta balitça (12-195).

5) Perpaus luzeetan, aditza aurreraxeago jartzeko joera du, zehazkiago azken etenaren ondoan:

Batzuc euren nasaitasunaz beste baga, eztirialaco christiñau onac, austen dabe barau eguna ardura baga < barur eguna mengoa gabe hautsten dute (4-34). Ascotan, cer diñozun eztaquizula, ezarten dozuz erneguac < arneguac eta iuramentuac eguiteintuçu (7-88). onela verba eguiten ebanean, becatuen neurria bete jacan, contua osotu ta cumpli jacan, eta berun astuna balitz leguez ichasoco ondarrera jausiric, azquendu cituan bere egunac < bere egunac accabatu ceitçan (9-70). Eta abiatu ta asi zan bertati oñez, onzi baga, leorrean baliz leguez ur ganean ibilten, segurutasun ta esperanza bategaz, joanic bere jaun ta jabeagana < bere Iainco nabusiagana cihoanaz gueroztic (10-83/85).

6) Baita, orobat, aurrean esandako guztiaren erreferentzia egiten duten anaforiko edo deiktikoen ondora eramateko:

Paulo abade ermutar zarrác, palma adar ta orri batzuc arturic, aecaz eguiten cituela otzarac < hetçaz... otharre eguiten haritcen cela (1-37). cerren orrén gauza errazean, chiquian, pildin apurrean ceure zabarqueria, prestueztasuna ta naguitasuna eta Jangoicoaren aguinduz contu ta ardura guichi eracutsi dozun, ori beragaitic zareala infernuraco < ...aldez are hori gatic ifernuraco çarela (4-42).

7) Mendeko perpausak, bata bestean txertatu beharrean, banandu nahiago ditu:

eta ascotan atec bere ichiten deutsecela, enzun-gor ta ez-icusi eguinic, iñoc jaramon gura eci-nic < eta atheac ere maiz, ez iccusi iduri eguinic, hersten çaitzela (2-97/98).

8) Mendeko hautsiak egiteko, batzuetan Axularrek baino arazo gutxiago du:

Eta guero abiatu cirianean bere billa, idoro eben... < Eta guero bilha abiatu cirenean, ediren çuten... (6-83/84).

9) Azken adibide honetan, baliteke arrazoia galdegai ezberdina somatua izatea:

barrutic ta campotic deituric ta mesedeturic, bere gracion ta adisquidetasun zorionecoan ifinten gaituz gueure erru, uts ta deunguetasun guztiaç parcaturic < campotic eta barrenetic deituric eta faboraturic, bere garacion eta adisquidetakunean, beccatu guztiaç barccaturic ibentcen baicaitu (8-110/112).

5.2.1.2. *behar*

Axularrek bi egitura onartzen ditu, [*behar* + adizkia (+ osagarriak) + partizipioa] eta [partizipioa + *behar* + adizkia]; Añibarrok bigarrena bakarrik, hainbat aldaketak erakusten digutenez:

bear eguin bear dan < behar den travaillatu (1-8). beguiac argui irazarriac ta belarriac zur zabalac euqui bear dira < behar dira buru-beharriac ernatu (1-135). bear eguin bear dala < behar dela travaillatu (2-7). bildur izan bear gareala < behar dugula içan veldur (9-99). euqui bear dogula bildurra < behar dugula içan veldur (9-105). gogoratu bear da < behar da consideratu (9-177). gorde bear zara < behar duçu beguiratu (9-247). contutu bear gara < behar da iharduqui (11-244). artu bear da < behar da atrapatu (12-58). orain estutu bear gara < orai behar dugu permatu (12-288).

Adibideotan jadanik somatzen denez, bestalde, arratiarrak berez iragaingaitza den aditzarekin laguntzaile iragangaitza jartzen du, Axularrek ez bezala; cf. goikoez gainera:

aspertu bear nas < aspertu behar dut (3-108/109). ezcara... ibilli bear < eztugu... ibili behar (12-249).

Inoiz iragankorra itzuri bazaio ere:

joan bear daben ta doian < ioan behar duen eta dohan (8-194).

Halere, kontuak ez bide ziren hain erabatekoak, ez behintzat *izan* aditzarekin, alderantzizko aldaketa bat eskaintzen digu eta:

asco izan bear leuque < asco behar liçateque (9-239).

5.2.1.3. *beste*

Sintagmaren barruan izenaren aurrean osagai bat baino gehiago agertzen direnean, bestela pentsatzeko joera izan badezakegu ere, *beste*-k ez du noiznahi eta non-nahi ordena bera gorde.

Baliteke askatasun hura *beste*-k pairatu zukeen leku aldaketaren ondorio izatea (cf. *uraz alde bestean*, “Arrasateko erreketeta”-n, TAV 3.1.7, 41, eta *Etxebeste*

deitura, gutxienez), leku berria finkatu aurretikoa, alegia. Edonola ere, Axularrek *beste* sintagma-buruari atxikia jartzen duen bitartean, ziurrenik espero dugun bezala, Añibarrok sintagmaren hasierara aldatzen du, batzuetan zinez urrun ipiniaz:

beste onelaco < hunelaco bertce (4-45). beste bear dirian soñeco jantzierac eguïteco < behar diren bertce soñecoen eguïteco (4-199/200). gentil fedebagueac, moroac, turcoac, judeguac, heregeac ta beste, Elessa Santatic campora mundu guztian zabalduric dagozanac diriala deituac < ...eta munduco bertce guztiac direla deituac (11-28/30). beste beimbere jausi eztanaz baiño < behin ere erori eztenaz baino (49-44/45).

Ez da hau bi idazleen erabilera igar daitekeen aldaketa bakarra: ondoko egiturak gure usadiotik kanpora geratzen badira ere, gaia hobeto aztertu beharko genuke, nik uste, Añibarroren akatsak diren ala ez ebatzi aurretik:

beste andiagoo < bertce bat, are handiagoo (23-45/46). ta beste eguïtecoric miragarrienac < eta bertce obra onec (30-45/46).

5.2.1.4. *Perpau nagusiaren aurrerapena*

Axularren joskera konplexuaren aurrean Añibarrok egin nahi izan zituen aldatketen artean, oso nabaria da esaldi luzeetan perpau nagusia aurreratzeko izan zuen joera. Hona adibide gutxi batzuk:

Eta provechuric eztan leguez artzen eztaben loreaz, oratu ta guelditzen eztanaz, bere botoi pipil ta ninian galduten danaz < Eta nola hartzen ezten loreaz, itchatchetquitcen eztenaz, botean edo ninicoan galtcen denaz, ezpaita probetchuric (3-65/66). ecin dateque onic, probetchuric, ez fruturic, vorondatea beragaz, guraiza utsaz, deseo ta gogo bacarraz eguin al litequela, eguin бага guelditzen danaz < vorondateaz beraz, desira hutsaz, choilaz eta bacarraz, obra ahal ditequeyela, obratu gabe guelditcen denaz, ecin dateque probetchuric eta ez fruituric (3-66/68). San Gregorioc diño (...) gure vicitzea ichasoz doianena leguez dala < Gure bicitcea itsasoz dohana beçala da (dio San Gregorioc) (4-124).

5.2.2. *Aditzizenak eratutako sintagmak*

Aditzizena izen gisa Iparraldean ugari eta Hegoaldean doi-doi erabiltzen dela jakintzat ematen dugunean, XIX. mendetik atzera gertatu izan dena ahazten ari gara, antza denez, XVI. mendean Landuccik *joatea* “ida”, *yçorraytea* “preñez”, *hirtetea* “salida” edo *erçea* “parto” baitakartza, eta XVIII.ean oraindik Loiolako dotrinak (F. Altuna 1995) *escace* (14) eta *izaitte* (33) bezalako izenak, besteak beste.

Añibarrok ere ildo bereko lekukotasun bat eskaintzen digu *GGero*-n, Axularrek aditzizenarekin egiten duena egiten duela, bere hartan gordetzeko joera handia baitauka liburu guztian zehar:

bere indar ta aleguiñac probatze bat < bere indarraren eta ançearen frogatze bat (1-26/27). dempora lucean becatuetan egoteac ichiten dituz < utzten du dempora luceaz beccatutan egoiteac ere (7-114/115). ez ain aurrera eldu ta lucetute au < ez hedatze haur (11-206). aren biurteric = Ax (12-252/253). Jangoicoaz gogoratute au < laincoaz orhoitce hec (15-216/217). Deunguero iltearen bildur zara < Gaizqui hiltcearen çara veldur (15-366/367). orduguïño be-

catuetan egote ori < an arteraiño beccatutan egoite hori (15-397). ta aren alan izateaz = Ax (25-13). ichite au, amorangeanic aldeguite au < utzte haur, amorangeanic apartatce haur (35-20). igues eguite au, ocasiñotic alde eguin ta ceure burua gordete au < ihes eguite hura, ocasinotan çarenean ceure buruaren beguiratce eta bortchatce hura (38-58/59). zure beti usain onez beteric ibilteac = Ax (40-40/41). azqueneco orduraño gracion iraute au < perseveratce haur, verthutean eta ontasunean fineraino eta finean iraute haur (43-8). zure penitencia eguiteaz = Ax, gero zu beragana biurtzeaz (< eta bide oneratceaz, ibid.) egitura normaldu badu ere (49-123). ardiaren bedar jateaz < ardiaren belhar iatearequin (53-209).

Izan ere, ez da arraroa berak ere bere kasa aditzizena erabiltzea:

sagar baten eragoztean < sagar baten debecuan (4-48/49). beguiac gora jasote baten bitartea < beguien goiti ailtchatceco asco luqueyen bitartea (12-68/69).

Honek ez du esan nahi beti gorde duenik: aditz jokatua daramaten perpausetan objektua nominatiboan jartzen du, jakina, aspaldi arrotza baitzen bere hizkeran hartarako genitiboa erabiltzea, inoiz duda egin zuelako seinaleak aurkitzen baditugu ere:

a eguitetic: leh. aren eguitetic, < haren eguitetic (9-240/241).

Edozein kasutan ere, [genitiboa + aditzizena] egitura gehienetan normaltaz jotzen duenez, irakurketa iragankorra zein iragangaitza izan dezaketen *izan* bezalako aditzekin oker ulertzera irits daiteke:

conciencia onaren izatea ta esperanzarena < conciencia onaren içaitea eta esperantça ere içaitea (42-164/165), hots, berak conciencia ona eta esperanza euquitea esango zukeena.

Hain-hain ezaguna ere ez zuela erakusten digun beste gaizki ulertu bat aurkitu dut, non *herrian* irakurri baitu, oharkabean, *herrien* zena, agian aditzetik hain urruti egoteak lagunduta:

errian bere erreguearen edo beste edoceinen contra jaguitetic gordeteco < herrien (1-78/79).

Egitura aldatzen duenean, maizenik izena era mugatuan jartzen du, aditzasunari izentasunari baino garrantzi gehiago emanaz, adibide batean mugagabean aurkitzen badugu ere:

demporea galtze onegaz < demboraren galtce hunetçaz (12-130). gogoa beste aldera itzultze bat < gogoaren bertce aldera itçultce bat (15-79). becatua larga ta ichite bat < beccatuaren utzte bat, eta gaitceste bat (15-80). ondasun emoteac < onen emaitte eta errepartiite harc (17-62).

Aldaketako batean, bidenabar, *galtze* eta *kalte*-ren artean dagoen erlazio etimologikoa agerian geratzen da:

bere buruaren ta besteen calte gogor zorigaistocoac, galduerac < bere buruen eta bertceren galtceac (20-161/162).

5.2.3. Beldur izan: *baietz ala ezetz?*

Jakingarria da eta, dakidalarik, erabat ezezaguna, Axularrek baiezkua eta Añibarrok ezezkua erabiltzen dutela *beldur* hitzaz egindako egituretan:

etorri ez lequion bildurrez < ethor cequion gogan beharrez eta veldurrez (1-100/101). enzun ez eguion < ençun ceçan (3-128/129). quendu ez leguiozan < edequi liatçon (12-197). quendu ez-taigun < edequi diaçagun (12-198).

5.2.4. *bihurtu*

Añibarrok zintzo-zintzo erabiltzen du batzuetan [mugagabea + *bihurtu*] egitura, Axularrek bezala:

bedar biurtu liteque (1-272). usadio au ecandu biurtzetic (7-138/139). arerio biurtzen da (38-71). gatz biurtu zan (43-185). atseguña atsecabe biurtzen da (46-359/360).

Haatik, bi aldiz [*zertan* + *bihurtu*] erdal kalkoa (1609tik lekukotua; cf. *OEH*, s.v.) jarri du bestearen ordezt:

gorrotoan biurtzen < desamorio bihurtcen (32-76). dolorearen minac dolore utsean biurtuco < dolore hutsez dolore bihurtuco (53-156/157).

Eta beste bitan [*zertara* + *bihurtu*] egitura (Iparraldean Etxeberri Ziburukoa-rengandik eta Hegoaldean Otxoarengandik lekukotua, iturri beraren arabera):

amorea gorrotora biurtu leien < amoria desamorio eta gaitcerizcoa bihur daquien (20-137/138). ecerezera biurtu baliz < ez deus bihurtu baliz (53-219/220).

Honek adierazten digu, goraxeago iradoki dudanez, Añibarrok hiru egiturak baliokidetzat, bata bestearen aldaera estilistikotzat baino ziurrenik jotzen ez zituela.

5.2.5. *Sintagma elkartuen atzizkiak*

Añibarroren itzulpeneko lege orokorra da, baldin eta bi item edo gehiago lokailu batez (guztiz *eta-z*) lotuta badaude, azkenak bakarrik hartzen duela atzizkia, dena dela, Axularrek ez bezala, hain justu. Errepikapena saihesteko daukan joeraren barruan ulertu behar da ezaugarri hau (§ 5.5.1); hamaika adibideren artetik honako ale hauek aski izan daitezke kontuaz jabetzeko:

legue ta fedea < leguearen eta fedearen (0-107). tristetuten dau, izutu, ollotu ta bildurtu < tristetcen du eta icitcen (3-50/51). malicia ta vorondate gaistoac < maliciac eta vorondate gaixtoac (3-92). an non galdu cenduan guelditzen da, ta bai idoro bere < guelditcen da, eta bai edireiten ere (6-9). jaso ta eroango < iasanen eta eramanen (6-129). orduan quenduco deutset aei, ta emon Abran ta aren ondorengoai < orduan edequico derauet hey, eta emanen... (9-217). Egemplu onegaz adierazoten jacu ta eracutsi arguiro < ...emaiten çaicu aditcera, eta eracusten clarqui (9-221/222). ondu ta obetuco < onduco eta prestutuco (12-4/5). obra on asco eguiten ditu, ta bai bear-sari, merecimendu ta arimazco ondasun andiac irabaci ta erdetsi < anhitz obra on eguiten dute, eta bai meritu ere erdiesten (12-9/11). galdu ta probechatu бага igaroten < galtcen eta probetchatu gabe iragaiten (12-160/161).

Zuzenketa batzuk ere ildo honetatik doaz:

neque, atsecaba, garratz-min ta naibaguétan < travailluetan (Ax 48); leh. nequeac, atsecabac, garratz-minac, baina gero bukaera guztiak ezabatu ditu (3-49/50). eroqueria, joan-etorri, go-

rabéraren barriac: leh. *eroqueric*, *joan-etorriac* < *erhoquerien eta ioan-ethorrien berri* (14-48/49). *araguiac escatu ta buruac emoten deutsena*: leh. *escatuten* (45-46/47).

Lege berberak balio du ondokoa bezalako kasuetan, non atzizkiaren ordeztaditz laguntzailea baita batean edo bestean kokatu behar dena:

ecin eroan, *ez jaso ebela* < *ecin bururic eguin çutela*, *eta ez iasan* (1-46/47).

5.2.6. *eta bai, eta ez*

Añibarrok ez bide ditu *eta ez*, *eta bai* egiturak normaltzat hartzen eta, beraz, aterabide ezberdinak aurkitzen dizkie gehienetan: *eta bai*-ren ordeztaditz *baita* nahiago du, baina ez da ordeztaditz bakarria, hurrengo adibide ezberdin hauek erakusten digutenez:

baita < *eta bai* (2-83). *ta cembateguiño* < *eta bai cenbateraiño* (9-24). *ta arechac bere* < *eta bai çuhaitzec ere* (9-122). *bai ta* < *eta bai* (11-90). *gachean*, *barriz*, *bai* < *eta bai gaitcean* (11-277/278).

Ezeztaditz berriz, ukapen hutsa hobetsi ohi du:

ez zabalduten < *eta ez hedatcen* (11-206). *ez icusquizunic* < *eta ez icusquizunic* (11-225). *ez prestuagotzat* < *eta ez prestuago* (11-304). *ezta biurtzeric ta erdetsiteric* < *ezta bihurtceric*, *eta ez erdiesteric* (12-16). *ez gogoric* < *eta ez gogoric* (12-53). *ez etorteco* < *eta ez ethortceco* (12-57).

Beste batzuetan, baiezkoaren antzera, *ez eta* jartzen du, ondoko zuzenketa guztiotan bezala:

ez eta: *eta* gainean erantsia, < *eta ez* (13-49). *ez eta*: aurrean *ta*, ezabatua, < *eta ez* (20-34). *ez eta*: aurrean *ta*, ezabatua (54-35).

5.2.7. *ba- zehar galderan*

Jadanik ikusi dugu (§ 4.4.7) erabili badarabilela, baina Axularrekiko erkaketak erakusten digu nahita erabil dezakeela, eta ez oharkabea, ez erdal kalko hutsaz:

ea jaso al baebanez < *ea iasan ahal ceçaqueyenz* (6-123). *Eztot uste itanduco deuscula Jangoicoac probe onari ala gaistoari emon deutsegunez*, *ezpada ea emon badeutsegu* < *eman diogunz baicen* (16-89/90). *ea iñor bada errian pobre bearturic* < *ea nor den* (16-208). *gorria bada*, *zuria*, *baltza*, *nabarra bada erabaguitea* < *gorri ala more den eçagutcea*, *hartan sentencia emaita* (46-83/84).

5.2.8. *Konparazioa eta superlatiboa*

Dakidalarik, deskribatu gabe dago Añibarroren aldaketa batzuetan somatzen den gertakaria, hots, konparatibo eta superlatiboaren arteko bereizkuntza ilundu eta bigarrenaren esparrua murriztu egin dela, Axularren erabileraren aldean, zehaztu beharko den eremu batean.

Esan gabe doa Añibarrok badakiela superlatiboa erabiltzen, baina ia erabat *-ik...-ena* egiturara mugatuta geratu da, taiu honetako adibideetara, alegia:

danic justuena (43-141). *Guc dogun arerioric andiena* (51-11). *penaric andiena, sentigarriena, tristeena ta tristegarriena* (52-126/127).

Murritzapen honen barruan, gainera, Añibarrok *danic... -ena* erabili nahiago du, *den... (-ic) ena* baino, Axularrek ez bezala:

Danic becatu mortal chiquiena < *Den beccatu mortalic ttipienaren* (9-92/93). *Zanic ederrena* < *Cen ederrena* (11-114). *danic chiquiena bere* < *den appurrena ere* (12-71).

Axularren hizkeran, ordea, superlatiboak baditu beste betebeharrak batzuk, guztiz *izan* edo *egon* aditzen predikatu izatea, biluzik edo *-(r)ik* atzizkiaz lagunduta. Bada honelakoetan Añibarrok konparatiboa eta superlatiboa nahasian erabil ditzake, edo Axularren superlatiboa konparatibo bihurtu, besterik gabe. Hona bildu ditudan adibideak:

pelligruric andiagoan (geratu) < *peril andiagoan* (1-165). *sendoen ta osasuntsuago dagoanean* < *sendoen denean* (4-97). *dagoala zuganic urrinago* < *çure ganic dagoela urrunenic* (4-99). *aztuagoric zagozanean* < *ahantcienic çaudenean* (5-138). *Alan da, bada, becataria bere becatu eguin barrian: gai prest dago becatutic jaguiteco* < *Hala da bada beccatorea ere beccatu eguin berrian gaienic eta prestenic beccatutic ilquitceco* (6-18/19). *obe ta errazago izango da len bait len* < *lehen baiño lehen içanen da hoherenic eta erraxenic* (6-32). *nos eta gogo eguiazcoagoa atan ifini...* < *noiz eta gogoa cinecenic hartan ibenia baitaducate* (9-62).

Hutsegite nabarmenen bat alde batera utzita, egingo nuke kalko kutsua duela Añibarroren erabilerak (gazt. *estar más...*, *ser más...*) eta, hortaz, ziurrenik berrikuntza dela; zehazkiago, orokortu gabe dagoen berrikuntza bat, eta hortik haren zalantzak. Alabaina, belarriak huts egiten ez badit, hegoaldeko hiztun bat baino gehiago ados dagoke arratiarrak egin dituen hautapenetako batzuekin.

5.2.9. Egitura erredundanteak

Nire ustetan, argi dago Añibarro ez dagoela ohituta, ez erabat prestatuta, Axularren esaldi luze korapilotsuak egiteko. Periodo laburragoko esaldietara dago egi-na, eta ez da batere ezohikoa, ezta harrigarria esaldien joskera eta hitzen hurrenkera aldatzea, hein batean ikusi dugun bezala, ez eta zenbaitetan doi bat —edo zeharo— galtzea ere.

Galtzera iritsi ez arren, batzuetan, hasieran edo bukaeran marka eraman dezaketan esaldi motetan, bieran jartzen du, eta hemendik sortu dira hurren aztertuko ditugun lehen hiru egitura erredundanteak. Pentsa liteke nahita, irakurleari laguntza egiteko-edo, eratu zituzkeela halako egiturak; halere, uste dut badela nahigabe eginak direla sinesteko arrazoi aski.

Denborazko perpausetan, Mendigatxa erronkariarrarengan bakarrik aurkitzen omen da *noiz eta... -nean* egitura (cf. *OEH*, NOIZ ETA, s.v. *noiz*), ezohikoa, bazterrekoa eta inolaz ere berri-berria delako seinale. Añibarrok berak *nos eta... -n*

erabili ohi du bestetan (*OEH*-ak *CatAN* eta *MisE*-ko adibideak ematen ditu). Beraz, oso adierazgarria da *GGero*-n launa adibide aurkitzea:

nos eta uste dozun (4-98). *nos eta mundu onetan deunguego igaroten dozun* (24-55/56). *Nos eta asten dan bere gogoa poztuten* (41-207/208). *nos eta persecuciño, desonra, carcela, neque gueiago euqueen* (45-88/89).

nos eta gogo eguiazcoagoa atan ifini ta atara prestatu ta abiatuten dirianean < noiz eta... baitaducate (9-62). *nos eta bicitza gaisto igaroa, barreca ta pozcaria charretan galdu doguna, negarrez, neque ta penitencia eguiazcoacaz erosi, cobratu ta irabazten dogunean < noiz eta... baitugu* (12-254/256). *nos eta sendoago egon bear leuqueanean* (43-29/30). *nos guero bear dozunean* (48-78/79) < *guero behartcen çarenean* (Ax 542).

Ohartu, dena dela, lehen bi adibideak bakarrik zor zaizkiola Axularren *noiz eta... bait-* egiturari, hirugarrena Añibarrok bere kasa erantsitako pasarte batean, eta laugarrena denborazko perpaus arrunt eta motz batean gertatzen diren bitartean, itzultzaileak egitura barneratu izan balu bezala.

Kausazko perpausetan, Añibarrok maiz *ceren* aurrekaria *-laco* atzizkiaz ordezkatu nahiago du (§ 5.2.18). Ordezkapenak arriskuak ditu: behin aurrekaria garaz zuzendu du (ik. 46-189. oh.), baina beste batean ez:

cerren aragui gaistoac, griña charrac, usadio, ecandu ta oitura deungueac contra andia eguiten dabelaco < ceren... baitute (45-127/129).

Hainbeste esan behar da *nola* aurrekariak eta *-la* atzizkiaz konpletiboetan:

Eracusten dau celan bere vicitza gaistoa ichiteco urrean ta inguruan egoanean, ebillela ecin etenduz < Contatcen du, nola... ibili cen (3-117/118).

Bada laugarren egitura erredundante bat (erabat ezezaguna, dakidalarik), urruntasunari ezin egotz dakiokena, Axularren kalkoari baizik: *ez ba-... ere, baña* egitura, alegia, jatorrizko testuaren *ordea* sistematikoki *baña*-rekin itzultzetik sortua (cf. 18-29. oh., adib., beste testuinguru batean). Ondorena gogorra da gaurko begi-belarrientzat, eta ez zatekeen gutxiago ordukoentzat ere, baina Añibarrok, haren dotoretasunaz etsita nonbait, behin eta berriz erabiltzen du, baita bere kabuz ere, azken adibidea lekuko:

Eta escua ifintea bera asco baceben bere: baña prestamenac (...) eurac billatu, abiatu ta presta bear cituezan < ...baçuqueten ere: *ordea...* (1-91/93). *Bada, jausteco perilla badau bere, baña ez calentura gaisotasunaren edo zartzearen pelligruric < ...badu ere, ordea eztu...* (4-108/109). *Bada limosneac berac indar asco ezpadau bere becatutic ateretaco, baña bai bauco atera eraguiteco < ...ezpadu ere beccatutic atheratceco, bai ordea badu...* (16-33/34). *Deabruac sare asco baditu bere arimac cogietaco; baña, orrez guztiaz, eztau aimbeste arima galduen...* < *Deabruac anhitz sare badu ere arimaren atcemaiteco, eztu batez ere hanbat atrapatcen...* (31-32/33).

5.2.10. bait erlatibozkoa

Ezer ustekabekorik baldin badago iparraldeko idazkeran mendebaleko euskaldun batentzat, hura da *bait* partikula soilaz eraturako erlatibozko perpausa, ustez

behintzat. Honegatik, Añibarrok nola itzuli dituen, erlatibozkoak direla igartzeko gai izan den aztertzea biziki interesa dakigukeen gaia da.

Maizenik, bada, partikulari ezikusiarena egin diola dirudi, beti ere markarik gabeko aditza aurkitzen baitugu haren ordeztu:

(igaroten cirian seireun milla personatic bacarric guizon eguiñac) < (iragaiten baitciren...) (1-83/84). Icusico dozue eche andi batzuetan araco Hercules sendo famatua (...) mallu andi bat escuan dabela; dirudi beragaz echean sartzen dirian guztiai burua ausi gura deuséla < ...baitirudi ecen... (3-147/149). esan daigun (jazo litequen gauza da) < (guertha ditequeyen gauça baita) (5-109). (oneec obra onac dira) < (hauc obra onac baitira) (12-178).

Halere, aitortu behar da arazoa nola edo hala gainditzeko moduko adibideak direla guztiak, batez ere parentesiak. Halako irtenbide errazik ez duenean, berriaz, unean uneko testuinguruari atxiki zaio, erlatibozkoa nolabait —baina egoki— ordezkatuaz:

emon eutsezanean Saul erreguearen armac, ecin gueiagoan onac bacirian bere, on baño calte gueiago eguiten eutsen < ...harmac bai[t]ciren ecin hobegoac eta halacoac, guztiarequin ere... (7-49/51). Len Saulen armac chiquiogoac ta arinagoac izanic, anditzat ta pisutsu[t]zat ichi cituan < tiptiac eta arinac baitciren (7-62/63).

Añibarro *bait* partikulari erlatibozko marka somatzeko gauza izan zenentz oraindik zalantzak geratuko balira, gai honetan ezin baliotsuagoa den *lapsus* bat eskaintzen digu testuak, halako batean, jatorrizkoan *nola*-k gobernatzen dituen *bait* partikuladun bi mendeko perpausetatik bigarrenean erlatibozko egitura erabili baitu itzultzaileak, joskera aldrebeseko pasarte bat eratuaz, bidenabar:

CELAN becatua arimetic quenduteco ta atarateco gauza bi bear DIRIAN: bata Jangoicoaren aldetic, aren gracia ta laguntza; ta bestea guretic, gure naia, gura izatea ta borondatea; eta gauza guztic, gure aldetic bear dirianac bere, CEINTZUC Jangoicoac lagundu baga ecin eguin guiñeiz < ...eta gauça hauc guztic, are gure aldetic behar direnac ere, principalqui Iaincoac eguiten baititu (15-71/74).

5.2.11. *-tzen bezala*

Axularren egitura honi erantzuteko, Añibarrok *egin* indartzailea, aditzaren galdegaitasuna markatzeko Hegoaldean —batez ere, eta antzinagotik, bizkaieraz (*OEH*, s.v. *egin* 7)— erabiltzen den hura tartekatzen du lau adibidetatik hirutan, hark baino aditz nagusi eta laguntzailearen artean bestelako ezer jartzeko oztopo gehiago duela adieraziaz:

batu, bildu, lotu, alcartu ta josi leguez eguiten dituan < iuntatcen eta iosten beçala baititu (12-35). icaratuten leguez da < urccatcen beçala da (41-206). biurtu leguez eguiten ditu < bihurtcen beçala baititu (43-238/239). buztetu leguez eguiten da < uztartcen beçala baita (45-216).

5.2.12. -tzerakoan

Oso jakingarria da atzizki honekin gertatzen dena, ez baitirudi Añibarrok berez ezagutzen zuenik; argi dago, nolana ere, bestela errazago esaten zuela. Izan ere, *ilteracoan* (15-329) agertu arte, ez du behin ere atzizkia onartu, baizik eta, lehen agerraldian saihestu eta gero, bereziki *-tze(ko) orduan*-ez ordezkatu:

Orain emen gogoratu bear da gauza bat, ontzia eguin-eraguitearen ganean < Orai hemen behar da consideratu pontu bat. Untziaren eraguiteracoan. Erran cerauen... (9-177/178).⁶⁹ ilteco orduan bere < are hiltceracoan ere (11-11/12). eguitorduan < eguiteracoan (11-237). joate orduan < partitceracoan (11-288). vicitzaren azquenean, gaisotasunean ta iltean < eta hiltceracoan (15-279). Ilte orduan < Hiltceracoan (18-48). echeric urteteco egoala < etchetic partitceracoan (23-17).

Ondoko buruetan *ilteracoan* bera, eta ez besterik, berriz agertuko da, inoiz duda egin ondoren bada ere:

ilteracoan: leh. *iltecoan*, < *hiltceracoan* (15-329). *ilteracoan*: aurrean *ill ezquero*, ezabatua, < *hiltceracoan* (17-8). *ilteracoan* < *hiltceracoan* (17-93, 18-41).

eta behin *eriotzaracoan* (leh. *eriotzacoan*) bihurtuko (15-370), baina hauezag gain ez da itzulpenean atzizkiaren adibiderik geratu.

5.2.13. -aino aditzean

Esan gabe doa *deino*, *dagoeino* bezalako formak arrotz zaizkiola Añibarrori, behin (*diraño* < *direiño*, 15-328) itzuri bazaio ere. Nagusiki, bitara jo zuen hala-koak itzultzeko: lehen aterabidea, *-nean* atzizkiaz denborazko perpaus arrunt bilakatzea izan da, baina une batetik aurrera, bestea zeharo utzi gabe, zorrotzago jokatze bidea aurkitu du, *-n (bit)artean* posposizioaz baliatzea, alegia (cf., esate baterako, *bete artean* < *bethe arteiño*, 9-27):

chiquia danean < *tipi deiño* (6-101). *gaztea danean* < *gazte deiño*; *barria danean* < *berri deiño* (7-12). *chiquia danean* < *tipi deiño* (7-13). *gaztea dan artean* < *gazte deiño* (8-21). *dirauen artean* < *direiño* (8-83). *dagoan artean* < *dagoeiño* (11-203/204). *daben bitartean* < *dueiño* (11-204). *dabillenean...* *gogo dabenean* < *dabillaino...* *gogo dueiño* (11-209). *becatuan zagozan artean* < *beccatutan çaudeiño* (11-224/225). *dauquezunean* < *duçuiño* (12-15). *dozunean* < *duçuiño* (12-18). *escuan daucazun artean* < *aicinean duçuiño* (12-21/22). *dogun artean* < *duçuiño* (12-26). *mundu onetan dauquen artean* < *mundu hunetan utzten dueiño* (15-28). *Eguizu penitencia sendo zagozanean*; *ichi eguizu becatua larga al dozunean* < *Eguizu penitencia sendo çareiño*, *beccatu ere ahal daidiciuiño* (15-255/256). *bici dan artean* < *bici deiño* (15-334).

5.2.14. -la(rik)

Antza denez, *-la* atzizkia, ohiko konpletiboaz gainera, Añibarrok ondo ezagutzen zuen denborazko erabileran ere, Axularren *-nean* zenbait hartaz ordezkatzearaino, edo *-z gero* egituraren maila berean jartzeraino iristen baita:

⁶⁹ *Gero* eta *GGero*-ko puntuazioa nahastaile da; honela letraldatu du Villasantek (1976: 81. zb.): “Orai hemen behar da konsideratu pontu bat. Untziaren eragiterakoan, erran zerauen...”.

GUEROCO GUERO

joiala < cihonean (9-65/66). eroiela < ceramatenean (10-60). eguin ezquero ta aetan zagozala < eta eguinez guero, hetan çaudela (12-133/134).

Alabaina, ez du errespetatu ohi gerundio kutsua soma dakioken egituretan, are gutxiago *-larik* atzizkia, ez egitura horietan, ez eta *-larik ere* kontzesiboan, eta bata zein bestea sarrienik *-(r)ik* partizipioaz ordezkatzten ditu:

leorrez joan al izanic, ichasoz joatetic [gordeten zala] < ahal cihoaqueyela (1-218). Jangoicoac berac bere cemaituten ditu onelacoac esanic:... < erraiten duela (6-92). Ascotan, ezaguturic obe litequela ichitea, ausitea ta aztutea darabilgun ecandua, eztoqu orrez guztiaz largatzen... < daquigularic (7-99/100). izanic gu bere arerioac, beragaz adisquidetuteco, bere vicitzea bere vorondatez emon eban < bere etsai guinituelaric (10-16/17). biciric zuen mesedeoc bici dirian leguez pocic, eceren bildur бага, salvetaco esperanza ta segurutasun andiaz dabiltz < quec bicitcen çareten beçala, bicitcen çaretelaric ere (11-296/297). Cergaitic ce a apurra, danic chiquiena bere, ondo emon, bete ta empleaturic, asco leuque... < ongui emplegatcen luela (12-71/72). Purgatorioco penac, mundu onetaco neque guztiaz (...) baño andiangoac izanic, gueiango valio dau... < direlaric (12-84/85).

uneari egokitutako bestelako ordezkabideak ere izan arren:

Cerren, baldin orain, gauza guztiaz ain nequez ta aimbat costaric irabaci ezquero, ain nagui alper ganorabacoac bagara: cer guintequez...: leh. irabazten badoguz < erdiesten ditugularic (1-69/71). bategaz ta besteaz solazca barriquetan egoteagaitic, meza enzun бага jai egunean ichiten dabe < daudecilla (4-34/36). Judeguac ugaritasun andiaz euquen Mana cerichan cerujanaria on gozoa, baña ain dau indar andia usantzac ta oiturac, ece etorri cirian esatera... < Mana ceritçan ianhari on, ezti, goço hartaric franco çutelaric, guztiarequin ere... (7-41/43).

5.2.15. tzeaz / -tuaz

Añibarrok, badirudi [partizipioa + instrumentala] eta [aditzizena + instrumentala] egiturak baliokidetzat jotzen zituela eta, nolnahi ere, berarentzat lehena bigarrena baino ezagunagoa zela. Beraz, Axularrek kasu horretan aditzizena maiz erabiltzen duenez, ordezkapenen bat aurki daiteke itzulpenean, beti norabide berean:

zuc eta nic bere demporea galtze onegaz, probechu бага igarotera ichiaz, ondo contu estua emon bearco deusagu Jangoicoari < utzteaz (12-130/131). euretaric ezpadator calteric, ez eta cumplituaz probechuric < epaita hequen hausteaz calteric eta ez complitceaz probe[t]churic (19-106).

Baina harrigarriagoa da nolako maiztasunez biak elkarrekin erabiltzen dituen:

jorraituteaz, landuaz ta bedar gaistoac atereaz < iorratceaz eta ... atheratceaz (1-192/193). erabilteaz, maneatuaz, escuz ecarriaz ta muguituaz < erabilteaz, manaiateaz eta escuztatceaz (2-15). egoteaz ta ecandutuaz < egoiteaz eta usatceaz (7-37). ibilteaz, usatuaz, sarrituaz < ibilteaz eta usatceaz (8-16/17). becatu eguiteaz ta oneceaz neurria betetuaz < beccatu eguiteaz eta hequen contuaren complitceaz (9-209). escatuaz ta guganic artuaz, guc ari emoteaz eguiten deusaguna baiño < escatceaz eta gureganic errecibiteaz, guc hari emaitceaz... (16-100). sufrituaz, sentimenturic ez eracusteaz, baquean largatzeaz < pairatceaz, sentimenduric ez eguiteaz, erastera utzteaz (22-130/131). Icusteaz, berba eguiteaz, enzuteaz, usain eguiteaz eguiten da pecatu, baña ez ucutuaz leguez < ez ordeaz uquitceaz beçala (40-88/89), etab.

Hein handi batean, honelako aldizkatzeak *variatio* hatsarrearekin, eta honen barruan egiten dituen antzeko beste aldizkatze batzuekin (§ 5.5.1) lotu behar dira. Hala eta guztiz ere, bildutako lekukotasunak adituzenaz egindako egitura nekez ezagutzen zuela eta Axularrengan ikasi bide zuela baieztatzeko adina ez balira ere, bere kasa egindako hurrengo honetan aurki dezakegu bermea, behin *-tzeaz* bere kasa jarriko eta *-tuaz, joan* egitura jakinaren ordeztartzen baitu:

ia adinara ta urte andietara sartuaz, zartzeaz goazala < ia adinaren arauaz (12-286/287).

5.2.16. zer egin *ala* zer eginik?

Antza denez, Añibarroren ustetan gogorra da halako egituretan, lexikalizatuta ez daudenetan behinik behin, partitibo marka erabiltzea, Axularrek bezala:

cer estutu < cer lehiaturic (5-8). *cer itandu < cer galdeguinic* (8-243). *cer ichadon gueiago < cer guehiago iguriquiric* (9-136). *cer gueiago ichadon < cer guehiago iguriquiric* (9-200).

Haatik, aurreko ataleko egituretan bezalatsu, badirudi itzulpenean zehar ikasterra ez eze, erabiltzera iritsi zela; baina, behin erabiliko eta, lekuz kanpo geratzen denean:

ta au cumpli, bete ezquero, eztabela gueiago ichadoten, eztala icharomen, ez parcaciñoric cer erdetsiric < eztela guehiago iguriquitceric, eta ez barccamendu erdiesteric (9-27/28).

5.2.17. *Aditza behar*

Aldian behin, itzuli behar duen testuan Añibarrok aditz laguntzailerik gabeko perpausak aurkitu eta osatu egin ohi ditu, ziurrenik ezeri baino lehenago ulergarritasunari begiratuta:

Guztiac cirian zugana laster < Guztiac çure gana laster (0-86). *animaliac abereac bere euren janariac ta alimentuac, bereala egoa бага, erre ta egosi бага jaten dituezan; eta baita bere echeac ta vicilecuac non-nai edocein lecutan ilundu, gautu ta arratsatuten jaquen toquian artzen dituezan < iaten baitituzte: eta bai... hartcen* (1-60/63). *Baldin len meza bat enzun bear cendu[a]lla, ichi bacenduan < ...ençun behar bacenduen, eta ez hura ençun* (12-264/265).

5.2.18. *Galdetzaileen bidezko mendeko perpausak*

Ezaguna denez, iparraldeko tradizioak berrikuntza handi bat egin edo areagotu behar izan zuen, euskal prosa inguruko erromantzeetan erabiltzen ziren perpaus motei eta haien itxurari egokitzeko, galdetzaileak tankera ezberdineko perpausen aurrekari bilakatuaz.

Hegoaldeko tradizioan betebeharrak aurrekariak aspaldi ezagunak baziren ere, Añibarrok joera handia dauka halakoak utzi eta bestelako baliabideak erabiltzeko. Joerak bi aurrekariri eragiten die nagusiki, *nola* eta *zeren-i*, baina erlatibozko perpausetako *cein*-ekin ere adibide batzuk bildu ahal izan ditut. Ikus ditzagun banan-banan:

a) *nola... bait-* > *-n leguez, -la*

Hauxe da hobekien lekukotu dezakeguna, ordezkatzeko moduan aldaketa zenbait somatzeaz gainera. Izan ere, hasiera batean, Añibarrok *zelan...-n* egitura kalkatua jartzeko joera handia du, eta batzuetan *nola* bera ere itzurtzen zaio (ik. 1-80. oh.):

baqui munduac celan zure aita jauna... (0-100). *Celan, besteac beste diriala, alperqueriatic igues eguiteagaitic bere, bear eguin bear dan* (1-7/8), etab.

Une batetik aurrera, Axularren egitura *-n leguez*-ekin ordezkutzen hasten da nahikoa sarri, eta hauxe da orotara gehien aurkituko dugun ordezkabidea:

Egaztiari emoten jacazan leguez < Nola hegaztinari emaiten baitçaitça (1-231). *Eta provechuric eztan leguez artzen eztaben loreaz < Eta nola... ezpaita probetchuric* (3-65). *oi dirian leguez < nola baitira* (8-58). *dirian leguez Jangoicoaren arerioac < nola laincoarequin etsai baitira* (8-151/152), etab.

Ordain honek, bidenabar, aurrekaria kendu baina bukaeran *leguez* ahazteko arriskua dakar berekin:

orduguño beti arzai ibilli zan [leguez] < nola anarteraiñoacoan bethi arçain ibili baitcen (7-51/52).

Itzulpenean aurreratu ahala, beste aukera batzuk ere aurkitu zituen; haietarik lehen, modua adierazten dutenetan *-(r)ik* partizipioa erabiltzea izan zen:

izanic < nola baitciren (4-171). *izanic bere narrua latza < nola larruan baita latz* (6-21). *izanic Jangoicoaren misericordia ta ontasuna neurribaguea, mugaric eztabena < nola laincoaren misericordia baita...* (8-70/71). *becatuan jausiric ta sarturic gagozala < nola gauden beccatutan sarthuac* (8-96/97). *izanic asco ta lar < nola asco baita* (9-86).

Zuzenketa batean, badakusagu *nola* berariaz aldatzen duen honekin *zelan*-ez hasten den egitura:

icusiric: aurrean celan, ezabatua, < nola iccusi baitçuen (9-188).

Hurrengo adibidean berriz, kausazko kutsua igarriaz egitura zuzentzeko gai izan zen:

cerren maliciazcoa dan, ta ez argaltasunecoa, eztabe alacoac berez parcamenic merci: cerrenen aurrean izanic, ezabatua, < nola maliciazcoa baita (8-76).

Aurreraxeago baino ez bide zitzaion burura etorri balio konpletiboa daukatenen begibistako ordezkabidea, *-la* atzizkia, alegia. Dena dela, behin jabetuez gero, hain maiz erabiltzen duen *-n leguez* egitura bera harekin zuzentzera irits daiteke:

Errazoi guzti oneec adierazoten dabe, guerotic guerora ibilteaz artzen dala... < emaiten da aditcera, nola... hartcen den (7-156/157). *Eta dala: leh. Eta dan leguez, < nola den* (7-158).

b) *ceren...* > *-lako*

Ceren-en ordez Añibarrok jartzen duen *cerren*-ek aspaldiko tradizioa zeukan bizkaieraz. Hala eta guztiz ere, hainbat aldiz, *-lako* atzizkia nahiago du, eta behin bederen [aditzizena + *-gatic*] posposizio egitura:

ain gauza erraz chiquian mandamentua austeagatic < ceren... manua hautsi çuen (4-32). ceu lenengo urrinduten zarealaco < ceren... baitçara (6-68/69). maliciaçcoa, gaistotasuneçcoa dalaco < ceren maliciaçcoa baita (8-56/57). eciñ parcatu leielaco, edo batzuetan parcatuten eztabelaco < ceren... eciñ barcca deçaqueyen, edo ezñuen cenbait barccatcen (8-74/75). oraindo bete ta cumplitu ezñrialaco < ceren ezñaitira oraiño bethe eta complitu (9-215). ifini ta josi ebelaco < Ceren... ibeni baitçuten (10-75/76), etab.

c) *cein bait-* > *eta*

Batzuetan Axularren ordena bera ere kalkatzen du, espero genezakeen bezala:

cein dan zure arimea < cein baita çure arima (6-58). cein dan arimeco gaisotasuna < cein baita arimaco eritasuna (21-9), etab.

Behin behintzat, izenondo posizioan ezarritako erlatibo arrunta aurkitzen dugu haren ordez; azpimarratzekoa da, zeren eta, garaiko bizkaiera idatziak (Mogelek eta) eskaintzen zion aukera izan arren, ez baitzuen berak bestetan gehiegi erabili ohi:

alango becatu Espiritu Santuaren contracoa danagaitic < beccatuagaitic, cein baita Spiritu Sainduaren contracoa (8-67/68).

Alabaina, maizenik aurkitu dudana irtenbidea, are interesgarriagoa (cf. Biguri 1994 eta Alberdi 2001), *eta* juntagailua da:

Eta becatu au da < Cein baita (8-53). ta da < cein baita (8-169). eta zan < cein baita (11-123).

5.2.19. *-(r)ik / -ez* eta *-z gero*

Añibarrok badaki *ezquero* erabiltzen:

bein icusi ezquero ustecabez, ez beguiratu barriz bigarrenez (37-29/30). dempora lucean irau ezquero onean ta pecatu eguin bague (43-24/25). ceruco erreinuco senipartea artuteco dempora eldu ezquero (52-145/146), etab.

Alabaina, hura baino, askotan *-(r)ik* partizipioa erabili nahiago du, aztertu beharko lirakeen arrazoiengatik:

adisquideac izanic < adisquide direnaz geroz (1-133). banaturic < deseguinez guero (1-173). au onela izanic < gauça hauc hunela direnaz gueroztic (6-100). Gogorturic bein < Gogortuz guero (7-15). bein andi eguinic < behin handituz guero (7-33/34). Baña guero, bein atara eguiñic < Baiña barren hartan]o[ohituz guero (7-93). emonic < emanez guero (8-155). joanic bere jaun ta jabeagana < bere lainco nabusiagana cihoanaz gueroztic (10-84/85).

Are bereziagoa da *-(r)ik*-ez instrumentala ordezkatzeko daukan joera, partizipio partitibodunak bere hizkeran Axularrenean baino esparru zabalagoa betetzen zuela iradokitzen baitu argi:

cerren arerioac, gure faltac esanic ta aguerturic, emoten deuscue videa irazartzeco < esanez eta hetçaz erançute eguinez (1-141). icusiric besteac ilten diriala, ta gueu bere zartuaz ta argalduaz goacela, ciur seguru daquigu il bear dogula < bertceren baiñhan iccussiz, eta gueure baiñhan ere çahartceaz eta flacatceaz frogatuz... (4-174/175). ecin jasoric larga eban < ecen ecin iasanez utci baitçuen (6-123/124). ecin ecer eguinic ichi zaituezanean < deus ecin eguinez utci çaituztenean (10-51/52).

Edonola ere, biak batera erabiltzeko gauza da, gorago *-tzeaz* eta *-tuaz* bukaerekin ikusi dugun bezalaxe (ik. § 5.5.1):

ebillela ecin etenduz, ecin urratuz ta beragan ecin erabagui izanic < ...ecin deliberatuz (3-118).

5.3. Lexikoa

Añibarroren lorpenen artean, aipatu eta goraiatu behar da zenbat eta zenbat hitz edo esapide, gaurko hegoaldeko euskaldun jantziak ere hiztegian bilatu behar harko lituzkeenak, zuzen eta arazorik gabe itzuli dituen: *egur heceari eta iunt denari* (Ax 286, > *egur eceari ta sendoari*, 21-21) edo *tragaça colpeca* (Ax 292, > *sayetac botatzen*, 22-48) bezalakoak ezin konta ahala dira itzulpenean zehar.

Egokitze zenbait ere egin bide ditu: esate baterako, erlijio hiztegian izandako aldaketek —garai ezberdinetako boladek— bakarrik azal dezakete, nik uste, Axularrek *parabisua* darabilen lekuan Añibarrok ia beti *cerua* jartzea (cf. 12-79, adib.).

Alabaina, halako kontuak ere interesgarriak izan arren, lau gai atxiki ditut oharretan zehar hemen iruzkintzeko: gorago aipatutako tautologiak (§ 5.3.1), lexikoren aldetik Añibarrok egiten duen garbiketa lana (§ 5.3.2), Axularrengandiko maileguak (§ 5.3.3) eta itzultzaileak maila honetan izan zituen arazo nagusiak (§ 5.3.4).

5.3.1. Tautologiak

Arazoa jadanik aurkeztu badut ere (§ 4.5), beharbada komeni da gogoratzea Añibarrok tautologiak egiteko joera daukala jakin arren, orain artean zalantzak izan ditugula haietako batzuk diren edo ez diren erabakitzeko, batez ere bigarren osagaia izenondotzat ere har daitekeenean.

Axularrek giltza ematen digu, tautologiak haren izen bakarraren ordean agertzen baitira sarrienik:

gentil fedebagueac < ientilec (2-5). lur lupetza < lurra (8-228). erazo eraguiten < eraguiten (9-164/165). gentil fedebagueac < ientilac (11-28). pobre esquecoari < probeari (12-178). arriscu pelligruzco < perilos (17-33/34). erremedio osagarria < erremedioa (19-321). dicipulu icastle < dicipulu (23-8). emperadore aguintariari < emperadoreari (23-8). medicina osagarriari < midicinari (30-41). señale adigarria < seinalea (35-102). bideac ta señale adigarriac < bideac eta seinaleac (40-46/47). ez da erremedioric, eztago osagarriaric, utsac ta alperrac dira medicina sendagai guztia < ezta sendagai, ezta sendaquiçun, eta ez midicuntçatan ibilteaz probetchu-

ric (41-100/101). *guidari zucenguilla* < *quidari* (41-113). *soldadu guerrariac* < *soldaduac* (44-47). *bitoriaren señale adigarritzat* < *victoriaren seinaleac* (44-49).

Honek esan nahi du *gentil fedebaguea* edo *señale adigarria* bezalakoak tautologiak direla, dagoeneko dudarik gabe, agertzen diren testuinguru guztietan, eta ez dira gutxi, ez hemen, ezta Añibarroren gainerako idazlanetan. Lehena *GGero*-n, aipatuez gainera beste lau aldiz ageri zaigu (14-38, 28-18, 41-29, 53-53), *gentil hutsa* baino maizago (23-39, 37-58, 40-13); cf. *VB* “gentil, el idólatra: c. *fedebaguea*”. Bigarrena are adibide interesgarriagoa da, ez baitago zalantzan *señale* eta *adigarri*-ren arteko erlazioa bakarrik, baita testuinguru ilunetan *adigarri*-ren beraren izaera ere. Ikusiak ikusirik, izentzat jo behar dugu honako agerraldi guztioan ere, Axularren laguntzarekin edo gabe:

guertaldi, antz-irudintza adigarri arguiacaz (0-24). *presona illaren ta lurpetuaren antzeco adigarria da* (2-77/78). *egemplo ta guertaldi adigarri asco ta miragarriac* (16-41). *adigarri da < señale da* (19-317/318). *adigarri da* (43-162). *oraingoaren gueriza, antz irudin adigarri bat* (47-8). *garbai onen señale adigarriren bat* (47-38).

Añibarrok, beraz, bi adieratan erabiltzen du nagusiki —eta beti izen modura, dakidalarik—, alboan eraman ohi dituen esanahikideek adierazten duten bezala: ‘seinalea’ da, batetik, eta ‘gertaldia, exenplua’ (cf. *VB* “símil”) bestetik. Honen arabera berrirakurtzen baditugu *OEH*-ak (s.v. *adigarri* II) izenondotzat jo dituenak, kontuak oso bestela ateratzen zaizkigu:

Krutze Santea, zeñaren antz adigarria zan arako Lege zarreko Utxea (LoraS 7). Artu asmo sendo bat, lenengo era danean, au egiteko, emonik amore fin baten señale adigarriak (ib. 54). *...bildur izan bear gara, izan ez daitean ori gure egokera txarraren señale adigarria* (ib. 191).

Elkartu hauen izaera hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar dugu lehenik, halako maiztasun batez Añibarro jatorrizkoan juntagailuz lotuta zeuden itemetan —ez nahitaez esanahikide estuak diren hitzetan— oinarritzen dela tautologiak edo haien antzeko elkartuak osatzeko:

indar irauccarriric < *indar eta sopportu ere* (4-105/106). *qitu parcatuten badeutsu* < *quitatcen baçaitu edo barccatcen baderatçu* (18-31/32).

zenbait zuzenketatan atzera egin duela soma badezakegu ere:

cer esan ta eguiten: leh. *esa-eguiten* < *cer eguiten eta erraiten* (1-135/136). *graciac, arguiac, laguntza, esquerrac ta mesedeac*: leh. *esquer mesedeac* < *garacia, laguntça eta fabore* (8-84/85).

Bigarrenik, kontuan hartu behar dugu tautologiek deklinabide atzizki bakarria ez eze, erator atzizki bakarria (edo *gabe* bezalako sasi-atzizkia) daramatela, baita adizki jokatu gabearen marka bakarria ere:

buru cenzunbaguea < *centçugabea* (5-127/128). *nasai zabartuten* < *ez antsiatcen* (8-155). *laban laprastgarriac* (15-365). *arriscu ta pelligruzcoa* < *perilosa* (20-69). *Emacume-guizacumezalea* < *emaccoia* (53-191). *amai-azquenbaguea* (55-17).

Eta Añibarrok berdin joka dezakeela tartean juntagailu bat izanik ere:

seiñ edo umetasuna < haurtasuna (4-142).

5.3.2. *Garbiketa lana*

Ibarrengandik aurrera (1935), Larramendik euskal lexikoan izan zuen eragina, maiz idazle batek erabiltzen dituen hitz berrien kopuruaren arabera neurtu nahi izan da. Ikuspegi honetatik ateratzen den ondorioa haxe da: XVIII eta XIX. mendeetako iparraldeko idazle gehienek *Hiztegi Hirukoitza*-ri ez ikusiarena egin zioten, eta hegoaldekoek bertako hitz berriak tentuz baino ez erabiltzeko moduko zuhurtzia izan zuten. Badira, halere, larramenditar amorratu gutxi batzuk, hala hemen (Iztueta denen buru), nola Pirineoetz beste aldean (Egiategi, Robin).

Jadanik Sarasolak (1986) ezarrita utzi du, ostera, hitz berriak erabiltzea edo ez erabiltzea zuzenean lotuta dagoela gaiarekin eta, azken batean, lanaren izaerarekin: Mendiburu edo Añibarro misiolariak ezin erabil zezaketan Iztueta historialariak edo Egiategi filosofoak erabili nahi izan zuten lexiko jasoa, batzuen eta beste xedeak —irakurleak, besteak beste— ez baitziren, inondik ere, berberak. Areago, idazle ber batek jokabide ezberdina hartu zuen, gaia zein zen eta horren arabera: Bixenta Mogelek era batera idatzi zituen bere *Ipui onac*, eta bestera *Carta pastoral*-aren itzulpena, zeharo larramenditarra, eta aldaketa berbera dakusagu Kardaberatzen *Euskeraren berri onak*-en, Mogelen latinetikako itzulpenetan, etab.

Honezaz gainera, Sarasolarekin bateratsu, azken aldiko hainbat ikertzailek azpimarratu dute Larramendiren eragina ez dela hitz berrien erabileran bakarrik islatzen: oro har, aurreko idazleek baino lexiko orekatu, jator eta garbiagoa erabiltzeko jaiera da garai hartan nagusitzen dena, batzuetan *HH*-aren laguntzarekin eta bestetan hain gabe, idazlearen lanak edo senak berak eskaintzen zuena profitatuaz, funtsean Larramendiren xede nagusiarekin bat etorririk.

GGero-aren itzulpena, Ibarren ikuspegitik, ez da liburu larramenditar bat. *HH*-ko hitz berriak bakanak dira eta ez oso nabarmenak: nekez aurkitzen da Añibarrok aurreko liburuetan irakur edo berak bere kabuz erator ez zezakeen ezer. Areago, halakoak baino, aisago aurkitzen dira berak asmatuak (*adizain* ‘tribunala’, *banatasun* ‘diferentzia’, *bardintza* ‘konparazioa’, *gubernubagetasun* ‘desgovernua’...), edo *HH*-ko formak berak emandako adiera arras ezberdinetan erabiliak (*batar* ‘eremutarra’ vs *HH* “privado”, “privativo”, *gogartu* ‘hausnartu’ vs *HH* “proponer”).

Eta halaz ere, ezin argiagoa da Larramendiren iraultza tartean dela eta, beraz, lexikoaren arloan ere itzulpen hau larramenditarra dela. Izan ere, bere ohiko lexikotik gehiegi atera gabe, hots, maileguak berez arbuatu gabe, baina ahalegin berezia eginaz, Añibarrok Axularren maileguak hitz jatorragoetz edota garbiagoetz ordezkatzera lortu du hamaika aldiz:

atseguintasunez, zorionez ta gozotasunez < placerez (1-14/15), artua < errecibitua (0-77), Nafarroaco Aguintaritza < Nafarroaco Parlameta (0-102), videa < occasino (1-141/142), laquetu < permititu (1-145), auzoco < fronteraco (1-149), salaturic < accusaturic (1-211), gogoratu < considera (1-244), Sarri < Comunzqui (4-87), gueienetan < comunzqui (4-99), gueienez < comunzqui (6-87), ecanduturic < usantça coberaturic (8-209), Oraingo au < Presentecoa (12-44), aurrea ta baliotasuna < abantaila (12-108), gogoratuten < consideratcen (12-149), uste egizu < estima eçaçu (12-157), salatuten < accusatcen (12-171), emon...emonic < emplega...emplegaturic (12-175), gogo onagaz < intencione onez (12-180), essaminatu, aracatu, icusi ta juzgatuco < examinatuco eta iuzgatuco (12-184), oraingo demporau < presenteco dembora haur (12-188), etab.

Maiz bere buruari egindako zuzenketak dira, jadanik ezagutzen dugun *capitulu* > *burua* aldaketa (1-6, etab.) edo ondokoak bezala:

artuac: errecivituac-en ordez, < *errecibituec* (0-67/68). *lenenetic bat*: leh. *principalenetic*, Axularrek bezala (1-170/171). *icenean*: *aurrean part] (partez?)*, ezabatua, < *partez* (12-181).

Bi zehazkizun garrantzitsu eskatzen ditu gai honek. Lehenik, ordezkatzea ez dela ezinbestekoa: lehen agerraldian edo hartaz beste batzuetan mailegua eta hitz jatorra, biak elkarrekin erabil ditzake, honetan ere Añibarrok esanahikideak pilatzeko edota hitzak irakasteko joerari amore ematen baitio:

batzar edo consejuan < conseilluan (1-169), conseju ta adividea < conseillua (1-182), Presondegiuan edo carcelan < Garcelean (7-91), icharomen ta esperanza < esperantça (12-38/39), oraingoa, presentecoa < presentecoa (12-39/40), bardindu ta comparatu < comparatu (12-54), urten ta libratu < libratu (12-104), pamparroitasun ta balentia asco < anhitz valentia (12-144), etab.

Bigarrenik, ez da kikildu ordezkapena lortzeko joskera aldatu edo perifrasietara jo beharragatik:

Esan oi da < Erran comuna da (3-60), gogoa artzen < deliberatcen (5-76), Jangoicoagana biurtzea < convertitcea (6-29/30), eztator, ez, andic < ezta, ez, handic seguitcen (9-52), esqueñi jaquen errian < herri prometatuan (10-77), bere gañean euquitco < sostengatceco (10-98), aurrean dagoanean < presentean denean (12-58), aurrean daucazunetic artu < presentecoari lot (12-59/60), balio andiagocoric < preciatuagoric (12-121), etab.

Baliteke garbizaletasuna denentz argi ez daukanik egotea, baizik eta, agian, jadanik aski ezarrita zegokeen lexikoa erabili nahia, edota Hegoaldean arrotzak ziren maileguak saihestu beharra. Itzulpenak adibide eder bat eskaintzen digu, garbizaletasunak bakarrik azal dezakeena, hain zuzen: Axularrek *cein den verde, eta cein more* dakarren lekuan, bi kolore-izen mailegatu halaberharrez, Añibarrok azkenik *cein dan verdea, ta cein gorria edo urdiña* jarri du (20-235/236), *morea* alde batera utzita; baina lehenik *verdea* bera ere *zuria*-rekin ordezkatzeko saiatu da, gauz kolore bat antzeman baldin badaiteke, hura zuria dela ohartu arte, nonbait.

5.3.3. Axularri onartzen dizkionak

Beste euskalkietako lexikoari muzin egiten ez zion idazle izanik, hein batean bederen espero izatekoa da Añibarrok *GGero*-n ikasi zituen zenbait hitz edo esa-

pide itzulpenean herabe gabe erabiltzea eta, are gehiago, baliteke haietako batzuk beste idazlanetara ere igarotzea.⁷⁰ Galdera, beraz, ez da zehazki Axularren hitzak erabili zituenentz, baizik eta zein eta nola.

Xumeenetik hasita, Axularren nolabaiteko eragina somatzen da zenbait aldaeratan. Pare bat kasutan, Añibarroengan bitxiak edota ezezagunak diren formak agertzen dira *GGero*-n, itxura guztien arabera Axularrek dakarrenaren arabera moldatuak edo hark iradokiak. Argiena *moropillo* dugu (*moropilloac* < *coropilloac*, 6-109), gainerantzean *moropil* erabili ohi baitu (*MisE* 237, ap. *OEH*, s.v. *moropil*); cf. halaber *VB* “nudo: c. *orapilla*, *llo*; b. *moropilla*; g. *orapilloa*, *corapilloa*”. Adierazgarria izan liteke, halaber, *poderea* (< *botherea*, 10-98), zeren eta hitza, edozein aldaeratan dela, ez baita Añibarroren ohiko lexikoan sartzen: Axularrek behartutako agerraldi bakar honetan, halere, ez du nolanhiko aldaera hautatu, bizkaieraz eta gipuzkeraz antzinatik ezaguna baizik (cf. XIX.aren hasieran Mogel eta Agirre, bederen; ik. *OEH*, s.v. *botere*).

Bestetan, itzultzaileak bi aldaeraren artean duda-muda egiten du, hots, berez dagokiokeenaren eta jatorrizkoan datorrenaren artean, batzuetan hasieran bakarrik (*gende*, *probe*), baina bestetan, azken aldeko buruen azterketak erakusten digun bezala, testu osoan zehar (*presona* < *Ax presuna*):⁷¹

GENTE / GENDE: *gende* (1-81, 1-90, 1-151, 1-161, 1-177, 1-190, 1-220, 2-93, 9-58, 9-163, 11-239, 13-132, 13-136, 15-287), *gente* (0-116, 0-150, 1-80, 1-103, etab.).

POBRE / PROBE: *probe* (14-94, 14-99, 16-8, 16-11, 16-24, 16-27, 16-48, 16-81, 16-87, etab.; azken agerraldia: 17-96), *pobre* (12-178, 14-75, 14-79, 14-81, 16-95, 16-100, 16-108, 16-109, etab., 17-8, 17-12, 17-21, 19-100, 22-125, 39-68, 46-130, 46-151, 46-155).

PERSONA / PRESONA: *presona* (44-7, 45-135, 46-42, 48-18, 48-114, 49-12), *persona* (44-62, 46-25, 46-32, 46-230, etab. 48-5, 48-45, 48-212, 49-106, 52-115, 53-67).

Aldaerez gainera, hitzak, esapideak eta esamoldeak ere ugari xamar mailegatu dizkio Axularri. Denen artean, orotara, sekulako multzoa osatzen dute, eta ez bakarrik kopuruagatik: guztiak alde honetan anarteraino lekukotugabeak izateaz gainera —inoiz Larramendiren *HH*-an izan ezik—, gehienek luzaroan, gutxienez XX. mendera arte, egoera berean iraungo dute, tartean erabili dituen hegoaldeko idazle bakarra Añibarro baita, izan.

Era bateko edo besteko hitzak izan, eta honen arabera mailegaketa errazago edo zailago gertatzen denez, badirudi komenigarri izan daitekeela Axularrengandiko hitzen artean zenbait talde egitea.

⁷⁰ Azken hau ez da hemen azter dezakedan gaia. Adibide batzuk bilduta daude aurrerago (§ 2.2); cf., haiezaz gainera, atal honetan aipatuko ditudan hitzen artetik, *LoraS*-n *sentikor* (77-13) eta *su-biztugarri* (173-13); eta *NekeA*-n *maliziati* (32-21,22).

⁷¹ *presona* aldaera beste liburu batzuetan ere —*EL*¹ eta *LoraS*-n behinik behin— erabiltzen du (ik. *LoraS* 23-10. oh.).

Lehenik, izenki eta aditz kopuru handi bat dugu, Añibarrok testuan aise barneratua, espero zitekeen bezala, honelakoak izaten baitira mailegaerazena:

buztandu (1-272). *az-ama* < *haz-ama* (2-84). *tornuetara* (3-24). *bulcatzen* (3-121). *ilquizon* (5-72). *senticor* (7-92). *ecinquizunetic* (11-208). *gorreria* (13-216). *buru itzultze bat* (15-42). *alderditua* (15-341). *laceria*, *escasia* (16-84/85). *maliciatia* (16-170). *juramentutsuacaz* (19-272). *erremediaquizonago* (20-149). *cameluac* (24-27). *barrendari* (26-11). *Basa-asto* (31-49). *autua* (34-6). *jocolariac* (38-14). *Legue zucenean* (38-116). *edan aldia* (39-47). *estalgarriac* (40-70). *iunturatic* (41-46). *faltatsua* (41-257/258). *gatz biurtze* (43-185). *goldelari* (43-204/205). *solasean* (44-92). *jaundu* (45-130). *bernizadura* (46-233). *capapetic* (46-268). *irazten* (47-117). *leloac* (53-121). *escu-toquiric* (54-45), etab.

Hitzak baino are interesgarriago dira, inolaz ere, esapideak:

burutan atera (0-89). *lotaric* (3-41). *lenez beste* (4-65). *penazago* (6-28). *izatecoz bere* < *içaitecotz ere* (7-142). *guero ta guero* (8-22). *noraco da* (8-242). *becatuaren beguira* (9-230). *aetaric nas zale ta gura* (13-22/23). *gazte antzu* (13-60). *erregue sartu* (14-12). *men-menean jarri* (15-409). *merituago* (16-156/157). *etorqui berecoac* (18-90). *cinac eta minac* (20-220). *bere gogara* (20-247). *gente andia* (27-54). *edocein moldez* (30-30). *no zan to* (31-76/77). *Gaistoneco puntuan* (40-91). *Noraco da?* (41-144). *prestic dago* (43-76). *aldez gaistoago* (43-229/230). *buruz gora* (44-18). *erabilli utsez* (46-186). *contraco bidean* (46-272). *irautez ta iraupez* (54-171, 55-13). *contrara eracusten* (55-61/62). *nor bagara* (56-98).

Eta haien artean azpimarratu nahi nituzke adberbio esapide zenbait, maiz lo-kailu modura dabilzanetakoak, eta elkarrekin lotuta dauden bi arrazoigatik azpimarratu ere: mailegagaitzak izan arren, behin baino gehiagotan azaltzen baitira bizkaierazko itzulpenean, batzuetan liburu guztian zehar:

alaco moldez (9-41, 11-335). *alde guztiz* (8-226, 12-106, 13-28, 16-211, 28-28, 41-105 eta 52-99). *-(r)en alderacotzat* (16-119, 20-43). *aldez* (0-152, 8-32, 16-160, 43-229). *aldez edo moldez* (0-83, 33-32, 46-254, 47-6, 48-135). *aimbatic aimbatean* < *hanbatic hanbatean* (12-224/225, 14-66, 49-40, 49-54). *andic ara* < *handic harat* (0-120, 1-272/273, 7-47, 8-183, 8-203, 8-257, 46-146).

Zenbat mailegu diren eta zein diren baino, areago interesatzen zaigu noiz eta nola egiten dituen jakitea. Mailegaketa honen zergatia edo zergatiak, berriz, uste dut bi baino ezin izan litezkeela: lexikoa aberastea edo ezezagutza estaltzea, alegia. Berehala ikusiko dugu noiz eta nola galderek azken galderari ere erantzuna ematen diotela, eliminazioz baino ez bada ere.

Gehienetan, salbuespenak salbuespen, behingo maileguak dira, bakarka, jatorrizko testuan duten agerraldi bakarrean edo agerraldietako batean hartuak. Alirizira jokatzeko duen, unean-unean erabakitzen duen idazlearen jokabidea dela dirudi, beraz. Alabaina, ez du beti era batera jokatzeko, eta honek bide ematen digu haren jokabide orokorra nondik nora joan zen ezagutzeko.

Alde batetik, hitzarekin batera testuinguruaren zati bat edo testuinguru osoa ere gorde du batzuetan, edota adierazpide oso bat bere egin, behar izanez gero pixka bat bizkaierazteaz beste aldaketarik gabe:

GUEROCO GUERO

tornuetara ta maiña gaistoetara (3-24/25). macurtua ta alderditua (15-341). bere burua zure alderacotzat zordun eracusten dau (16-119/120). bacebillan obraren esquea (16-180/181). emonac emonic bere, franco (16-190). Baldin ez nagoanean banengo (20-227). Ezta on barrindari izatea (26-11). bere seme propioac (32-56). bere beguien eguinbideaz (37-43). bere soldadu propioac, bere traidore dituela (38-73). ez ernaturic egon (40-9). Ce icusquizun dau (44-37). espiritua araguiari jaundu ezquero (45-129/130).

Bestetik, Axularren hitzok halako maiztasun batez mendebaleko irakurlearen tzat ulergarriagoak izan zitezkeen esanahikideen edo glosen laguntzan azaltzen dira; Añibarrok ongi ulertuak eta aberaspide modura erabiliak direlako lekukotasun ziuerra eskaintzen digute, bidenabar:

itzul-inguru gira-bira < itçul-inguru (3-12). parcaquizun, parcagarri < barccaquiçun (8-54). iuntura ta locazurrac < iunturac (13-187). labore guichi bat, ogui otzur bat, arto zati bat < labore pochin bat (16-101). ceimbat sufragio ta arima-cari < cenbat arima-cari (18-83). luterotasuna ta heregiaren antzecoa < luthertasun (19-199). bere gogara, gusto ta atseguin andian < bere gogara (20-247). batera edo bestera, aldez edo moldez (46-253/254). aldez edo moldez, nolabait (47-6). Aimbatic aimbatean, ta nolabait ta berez < hanbatic hanbatean (49-40).

Bestetik oraindik, aipatutako hitz edo esapideetako batzuk jatorrizko testuan behin baino gehiagotan agertzen direnez, erraz egiazta dezakegu Añibarrok ez duela mailegua nahitaez eta beti hartu, eta aukera paregabea dugu ezezkoan nola-ko irtenbide eman dion aztertzeke; bide batez, berriro ere Añibarroren gaitasun handiaren froga ederrak kausitzen ditugu.

Honelakoetan kasuistika atzengabe eta galgarri baino izan ohi ez denez gero, adibide esanguratsu batzuk bakarrik hautatu ditut, ahaleginean agerraldi anitzekoak edota hegoaldeko batentzat zailtasun berezikoak:

BURUPE: Behin bakarrik onartua (*Ce aurre-vide, burupe, ce privilegio, ce merecimendu < Cer burupe, cer privilegio edo abantail, 11-172/173*), esanahia somatzen lagun zezaketen bestelako hitzen aldean; lehenagoko agerraldian, berriz, itzuli du (*buruz macurtuco jacoç guztiac < burupe içanen du, 0-149*), itzulpen etimologiko moduko zerbait eskainiaz; ildo beretik doa, bidenabar, bere hiztegiko agerraldia: “latría, culto que solo se deve a Dios: c. *Jangoicoari burupe edo macur eguiteda*”.

-(R)EN GOGARA: Behin bakarrik onartua, glosarekin, jadanik ikusi dugunez (*bere gogara, gusto ta atseguin andian < bere gogara, 20-247*). Gainerakoetan kalkatua (cf. *beheraxeago*) eta glosatua (*Eztira nire gogoraco, eztira nire gustuoc, eztira gai prestu < eztira ene gogoraco, 13-6*), edo kasuan kasuko itzulpen egokiak emanda azaltzen zaigu: *bere atseguin ta gustura < bere gogara, placerera (36-21/22), gogoco eizaric < bere gogoraco ihiciric (37-20), pozago, contentuago, atseguinduago < aiseago eta bere gogarago (46-250/251)*; bada itzulpen berezi bat: *deabruaren egoquiac < deabruaren gogoracoac (ik. 48-55. oh.)*.

PENSU: Bitan ederki ordezkaturia (*gogoeta 1-104, pensamendu 2-46*). Hiru aldiz onartua, ziu-rrenik aldameneko hitzen laguntzan fidatuta (*eguiteco gogoa, asmoa ta pensua < gogoeta, asmua eta pensua, 1-86; alango pensuric, asmuric ta arteric asmatuco < halaco pensuric eguin eta ez arteric bilha, 16-169/170; deseoa, nai gurea, contua, ipuiña ta pensua < desircundeia, contua eta pensua, 56-107*).

Bereiz aipatu nahi nituzke, berriro ere, adberbialak; ikus ditzagun orain haien ordezkoak:

halaco moldez > alacoz (ece) (6-52, 6-57, 8-109, 9-20). *alde guztiz > alde guztitic* (8-181), *alde guztietara* (45-239/240). *-(r)en alderacotzat > -(r)en alderaco* (0-68, 42-89), *-(g)az* (5-32/33, 15-182). *handic harat > andic aurrera* (15-247, 19-283), *andic achina* (19-272/273).

Eta are bereizago, Añibarrok bere kasa, jatorrizko agerraldietatik kanpora, erabiltzera iritsi zirenak:

ANDIC ARA: Birritan azaltzen da berez, bietan < *handic eta halatan* (18-80, 18-101).

Axularren maileguen artean badira azalpen berezia eskatzen duten bi hitz, Añibarrok bere kasa erabiltzeaz gainera, forma aldatu baitzien, nahita edo nahigabe, eta bietatik lehenean bederen (ustezko) etimologia tartean dela:

KONTRAKAR > KONTRAKOR: Hitzaren historia ulertzeko, adibideen kronologiari jarraitu behar diogu: *contra-carra izanic = Ax* (0-119). *contracar ta arerio < contra eta etsai* (1-154). *izanic ain contracorrac amoreta ta gorrotoa < differentac* (32-67). *arerioac, naibagueac, contracorrac, perseguillac < etsaiac, atsecabeac* (41-138). *aldizca contracor onegaz* [hots, infernuan “bero anditic otz andira, otz anditic bero andira” ibiltzeaz] (53-83). Bigarren adibidea dugu erabakitzaile, ‘kontrakoa’ adieran erabiltzen hasten baita, eta halaxe jarraituko du liburu guztian zehar, noiz izen, noiz izenondo dela, baina jadanik *kontrakor* bihurtuta. Cf. *VB contracorra* (c.) “contrario, opuesto”.⁷²

SABELDARRAIO > SABELDARROI: Axularri aurea hartuta erabiltzen du lehendabizikoz *sabeldarraiotasun*, egoki glosatua (*gorde bear da sabel darraiotasunatic, jateco ta edateco nalcunde gueieguitic < behar du ian-edanetic ere beguiratu*, 39-6), berehala etorriko den agerraldiaren oihartzun gisa; bigarrenean bazuen aski esanahikide jatorrizkoan ere (*jan-edanetic, gulleriatric, sabeldarraiotasunetic < ian edanetic, gulatic, sabeldarraiotasunetic*, 39-70). Forma aldatuta, lehenengoz, hirugarrenean azaltzen da, *-tasun* gabe baina adiera berean (*sabel-darroiac < gulac*, 44-71), eta forma honetan tematuko da izenondo gisa darabilenean ere (*sabeldarroia < sabel-darraio*, 53-187), jatorrizko testuaren eta hiztegien lekukotasunaren kontra (cf. *HH* eta *VB sabeldarraioa* “tragón”).

Izan ere, formak zer esan handia dauka maileguen kontu honetan. Adibidez, *aimbatic aimbatean* Axularren *hanbatic hanbatean*-en egokitzapena da, gorago ikusi dugun bezala. Itxura berean gordetzen du beti, eta beti gordetzen du —behin glosatzen saiatu bada ere, dakigunez—, behin izan ezik, ziurrenik oharkabeko hutsegitez: *Aimbat aimbatean* (13-10). Ordezkgaitza zatekeen, dudarik gabe, halako esapidea, orain ere bada eta.

Añibarroren ahaleginen arabera, ordezkagaitza zen, halaber, *bere gainezcoa*, agerraldi guztietan mantendu baitu, formaren aldetik gorabehera handiak izan arren, bai *-zko / -ko* eta *gain / gan* hautatu beharrez, baita Axularren *bere* singular eta plurala bereizi beharrez ere:

bere gañezcoac (8-121), *bere ganecoac < bere gañezcoac* (8-133), *euren ganezcoac < bere gañezcoac* (8-136), *euren gañezcoric < bere gañezcoric* (8-140) eta *mesede vici andi ganezcoac < fabore bici handi bere gañezco hequen* (8-160/161).

⁷² Cf. halaber *kontrakor* (*MisE* 68 eta 158, ap. *OEH*, s.v.).

Ordezkgaitzak izan zein ez, mailegatzearekin bateratsu, Añibarrok Axularren hitzak edo esapideak noiz kalkatzeko, noiz berranalizatzeko joera handia dauka, jadanik adibide zenbaitek erakutsi diguten bezala, zeren kalkoa baita *aimbatic aimbatean*, eta *kontrakor* berranalisiaren ondorio.⁷³

Kalkoak errazak dira euskalki aldaerez nahikoa dakien Añibarro bezalako hiztegitik saiatuarentzat, eta bat edo batean aurrea hartzen dio galanki XX. mendeko hegoaldeko tradizioari, beste batzuetan badaezpadako kalkoak —ulergaitzak, apika— egiten baditu ere:

AXETU < AIRATU: *axetuteco*, *egaz eguitemo* < *airatceco* eta *hegaldatceco* (1-231): *airatu hegaldatu*-ren esanahikidea da, ezaguna denez, *axetu* eta aldaerak antzeko adieran sekula erabili ez diren bitartean (cf. *OEH*, s.v. *haizatu*).

IRUDIZ < IDURIZ: *irudiz* < *iduriz* (7-151) eta, glosatua, *irudiz ta ustez* < *iduriz* (9-218) eta *munduaren erechian*, *irudiz ta ustez* < *munduco iduriz* (10-30/31). Esapide hau Mendiburuk bakarrik erabili izan du Hegoaldean, eta kalkatu, hemen bezala, inork ez, XX. mendera arte (cf. *OEH*, IDURIZ eta IRUDIZ, s.vv. *iduri* eta *irudi*).

ONDOEGI (iz.) < ONGIEGI: *ceuen ondoeguiac*, *alperqueric*, *on lar gueieguiac ta mizqueric* < *ceuen onguieguiac*, *alferqueric*, *aisetasunac* (1-96).

Derradan, bidenabar, kalko morfologikoren bat ere egin duela:

AGAZKOAZ EGIN < HAREKIKOAZ EGIN: *eguin dot agazcóaz* < *eguin dut harequicoaz* (3-138/139).

Berranalisiek, beren aldetik, elkarbide eta eratorbidearen arauetan trebe, argitasun eta ulergarritasunaren zale, eta euskal hitzak desbistatzen dituzten antzinako aldaketa ilunen etsai den Añibarro bat erakusten digute. Oro har, osagaiak osorik azaleratu nahiago ditu, eta inoiz elkartuaren aldamenen haren azalpen morfologiko edo etimologikoa ere eman dezake:

AMURUTSU < AMURUS: *amurutsua* < *amurusa* (31-49). *amurutsu amorenteen* < *amurusen* (32-18). Jadanik Larramendi ondorio berera iritsi zen (*HH*, s.v. “enamorado”, ziurrenik iturri beretik; cf. Urgell 2000), erromantzezko atzizkia etorki bereko euskal atzizkiak ordezkatuaz. Baliteke, beraz, Añibarro haren zordun izatea, azken batean.

BERANDUKOR < BERANKOR: *ez porfiatu*, *ez lar estutu*, *ez nas beranducorra izango*, *laster nas zugaz* < *ez lehia*, *ez khecha*, *ez berantets*, *sarri naiz çurequin* (3-132/133). *penitencia beluacoac*, *damu beranducorrac* < *penitencia berancorrac* (15-274). Hitz honen berranalisia aurretik egin bide zuen: cf. *VB beranducorra* < *HH bera[n]corra* “tardío”.

GALDUGARRI < GALGARRI: *galgarri* maiz azaltzen da (1-229, 2-120, 11-186, 12-137, 22-86), baina *galdugarri* maizago (7-158/159, 8-253, 15-365, 19-136, 36-50, 40-82/83 eta 43-173). Cf. halaber *galdugarri* (*LoraS* 21) vs *galgarri* (*ib.* 31); Mogelengan bikoiztasun bera dago (ik. *OEH*, s.v. *galgarri*).

⁷³ Berbera egiten du, bidenabar, *HH*-ko hitzak *VB*-n barneratzerakoan: cf., kalkoen arlotik, *ichiera* < *utziera* “abandono”, *axetu* < *aizatu* “abanicarse”, *biotz muguida* < *biotziguintza*, etab.; eta berranalisenetik, *olio oncia* < *olioncia* “aceitera”, *osticotu* < *osticatu* “acocear”, *guela-oea* < *gueloya* “alcoba”, etab.

ITXASO < ITSAS: *ichaso bazterrean* < *itsas bazterrean* (10-65). *ichaso ganean* < *itsas gainean* (10-82).

SUGAR, SU TA GAR < SUKAR: *calentura edo sugar* < *succarra* (7-140); adiera figuratuan, *Ango su ta garra* < *Hango succarra* (54-88).

SUAREN BIZTUGARRI, etab. < SU-PITZGARRI: *suaren biztugarriac* < *su pitzgarriac* (38-17), *sua biztutea edo su-biztugarria* < *su pitzgarri* (38-86/87).

URTETU < URTHATU: *becatuan urtetua dagoana* < *beccatutan urthatua dagoena* (8-242).

Eta, azkenik, Añibarroren hautapen batzuek aditzera ematen dute ezen, Larra-mendi ondoko literaturan aurkitzen duguna aurkitzen dugula, zenbait atzizki orai-no ere —edo ordurako jada, nondik begiratzen zaion— Hegoaldean ezohikoak bide zirela, ziurrenik berez ezezagunak, arrotzak eta, azken batean, tradizio hone-tara iparraldekotik gutxinaka mailegatu eta barneratuak:

-KIZUN: *parcaquizun, parcagarri* < *barccaquiçun* (8-54). *osagarriac, sendaquizunac* < *sendaquiçun* (8-61/62). *osagarria, ez parcagarria* < *sendaquiçun, eta ez barccaquiçun* (8-64). *erruquitasuna* < *urricalkiçuna* (13-46). *erruquiçgarriac* < *urricalkiçun* (16-212). *parcaquizun edo parca bear* < *barccaquiçun* (27-39/40). *ez da erremedioric, eztago osagarriric, utsac ta alper-rac dira medicina sendagai guztiac* < *ezta sendagai, ezta sendaquiçun, eta ez midicuntçatan ibiltceaz probetchuric* (41-100/101).

-TI: *justiciadunago* < *justiciatiago* (11-139). *guerraguillac, maliciadunac ta engañatzalleac* < *guerlati, maliciati eta enganatiec* (12-203/204). *maliciaduna* < *maliciatia* (42-127). *barrichu, min luce, ao zabal, erausle, berba asco diñozan bati* < *erasle handi, minçatçaille, aha-çabal, hitz mitzti, elhaberriti eta salhati* (48-45/46).

5.3.4. Añibarroren arazoak

Ez zen beti samurra izan Añibarroren lana, hain baliabide eskasekin hain itzulpen zaila burutu beharra.

Eskuizkribuaren itxuraz mintzatzerakoan (§ 3.2), jadanik aipatu dut badirela bereziki markatutako pasarte batzuk, aldean Axularren erreferentzia daramatenak. Zalantzarik gabe, itzultzaileak *GGero*-n idoro zituen *crux*-etako batzuk fideltasu-nez islatzen dituzte, baina tamalez B atal zaharrenaren zati batean bakarrik aurkitzen dira. Hona hemen direnak:

ABAILA: *onda mendel locarri bat* < *habailla batçuc*; *onda*: aurrean (*Habailla*) eta gainean *onda* (7-54/55).

ELDARNIO: *irazarriric*: gainean, (*eldarnioetan*)-en ordezt, < *eldarnioetan* (7-128).

ENDREZERA: *atal, parte*: gainean, *endrecera*-ren ordezt, < *endrecera* (8-25).

EZ ANTSIATU: *ez larritu, ez arduratutea*: gainean, *ez antsiatzea*-ren ordezt, < *ez ansiatcea* (8-9). *eta ardurabaguea eguiten da*: gainean, *ez antsiatzen da*-ren ordezt (8-31/32). *ardurabaguearen*: gainean, *ez antsiatuaren*-en ordezt (8-62/63). *itsutu, gogortu, nasai zabartuten* < *itsutcen, gogortcen eta ez antsiatcen dira*; *nasai zabartuten*: gainean, *ta ez antsiatzen*-en ordezt (8-155). *itsutua, gogortua, ganorabacoa ta sustraiac eguinic* < *itsutua, gogortua, ezansiatua eta erroac eguinic*; *ganorabacoa*: gainean, *ez antsiatua*-ren ordezt (8-188). *bildur icara bagueac*: gainean,

GUEROCO GUERO

ez antsiatuac-en ordez (8-238). *bildurra galtzea*: gainean, *ez antsiatzea*-ren ordez (8-255). *bildur ta ardurea galdutetic*: gainean, *ez antsiatztetic*-en ordez (8-255).

IGORTZIRI: *trumoi*az: gainean, *igortziriez*-en ordez, < *igortciriez* (8-27).

LEHIA: *ez porfiatu*, *ez lar estutu*: gainean erantsia, (*ez lehia*) —Axularrena— eta *aserratu*, *etzaita quexatu*-ren ordez < *ez lehia*, *ez khecha* (3-132).

MINBERA: *mimbera da*, *mintsu da* < *minbera da*; *mimbera da*: gainean *dolorido* azalpena agertzen da (8-184).

MINBERADURA: *lotsatasun*, *mintasun*, *erretasun* < *alhadura eta minberadura*; *mintasun*, *erretasun*: gainean, *mimberadura*-ren ordez (8-138/139).

MINBERATU: *ta ez jacaz araguiac eten ta eraciten* < *eta ez haraguiac ethentcen*, *eta ez minberatcen*; *eraciten*: ondoren (*mimberatuten*) eta honen gainean *dolorido* (7-70). *minduten*: gainean, *mimberatzen*-en ordez; hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago (8-28).

SAPPAR-LAHARRAK: *elorrietatic*: gainean *tribulis*, < *sappar-laharretaric* (15-374).

SENDAGAILA: *gala ta vanidade*: gainean, *sendagailla*-ren ordez, < *sendagailla* (8-11).

SUCCARRA: *calentura gaisotasunaren*: < *succarraren*; *gaisotasunaren*: leh. *gaisotasun*; aurrean (*succarraren*) eta honen gainean *calentura fiebre*; ertzean ere, *succarra*, *calentura*, *fiebre* (4-109).

ZAHARU (sic): *zartu ezquero*: gainean, *zaharuz* [sic] *gero*-ren ordez, < *çahar[t]uz guero* (8-30).

Gainerako arazoak, ezinbestean, Añibarrok proposatu dituen itzulpenetatik eratorri behar ditugu. Hala bada, badira:

a) “Lehengusu faltsu” argiak erruz, gehienak behingo irakurketa txarragatik, baita zalantzazko zenbait ere:

AKORDATU ‘adostu’ > GOMUTAU: *alcarregaz gomutauric* < *elccarrequin accordaturic* (35-61).

ALBENIA ‘ertza’ > ALBINUA ‘hari zuntza’: *oialaren albiñua*, *ertza ta cabuco altsiac bere* < *oihalaren albenia eta bazterra ere* (15-351).

AMORATU ‘ematu, amore emanarazi’ > MAITETU: *ez ecarri maitetutera* < *eta ez amoratu* (11-143/144).

BEREHALA > BERE ALAN: *bere alan* < *bere hala* (28-53).

BOTE ‘kimua’ > BOTA: *bota iru edo lau garau*, *ta dacarz guero eunca* < *botean hirur laurac cituztenac* (16-236).

DEITORATU > AITATU, IZENTATU (~ DEITU): *alabatu*, *mezpreciatu edo aiatatu ta icentatu* < *lauda edo auhen eta deithora* (12-45/46).

EGITEKO ‘arazoa, larrialdia’ > ‘zeregina’: *Eguitecoac eguin bear dirianean* < *Eguitecoac eguitemocotan direnean* (10-38/39). *bacocharen eguitemocotan ta batez bere bere azqueneco orduan* < *bat bederaren, eguitemocotan denean, eta guztiz ere bere azquen finean* (10-103).

EGUN ‘gaur’ > ‘eguna’: *artuco cinduan ceure egunac* < *hartuco ituen egun heureac* (23-58).

ERANZUTE > ERANZUTE, ERANZUERA: lehen agerraldian hala-hola itzuli ondoren (*esanic ta aguerturic* < *esanez eta hetçaz erançute eguinez*, 1-141), bi aldiz onartu du, ziurrenik adieraz gehiegi kezkatu gabe: *aguiracanic, oñoteric, verba gogorric, eranzuteric, carguric* < *liscarric edo erançuteric* (16-78/79), *saladura, ausicada, chaucada, cemaia, menazua, cicada, acullu, quisquetada, aranza, elorria ta aguiracada, eranzute lotsagarri bat* < *accusamendua, autsiquia, alhadura, chimicoa, erançutea* (53-236) eta beste batean, berebat, *eranzuera* bihurtu (*Concienciaren cemaia, menazua, deadarra, deia, eranzuera* < *Concienciaren erançutea eta mehatchua*, 41-79). Behin, ordea, argi dago esanahiaz jabetu dela: *saladurea* < *erançutea* (41-143).

ETZAUNTZA > ETXAGUNTZA, XISTERA > OTZARA: *lengo otzaran, echaguntzan ta bici lecuan* < *lehen beçala, ceure leheneco beccatuen chisteran, etçautçan eta toquian* (15-233).

GAITZEZ IARRI ‘haserretu’ > GAIXOTU: *gaissotuten dala* < *gaitcez iartcen dela* (35-33).

GAITZI > GATX: *gachago* < *gaitciago* (20-13).

GUZTIAREKIN ERE: *dirian guztiacaz bere* < *guztiarequin ere* (8-223), vs *orrez guztiaz* (6-42), *orregaitic bere* (11-133), etab.

IAUZI > JAUSI: *Batac arduraric eztabenaz, bestea jausten ta aserratuten da* < *bertcea iauzten eta enconiatcen da* (21-27/28).

IAUZKOR > JAUSKOR: *jauscor danez vicio onetan* < *iauzcor denz* (21-15). *errea, ernegaria, jauscorra nasalaco* < *errea naicela, iauzcor naicela* (21-37). *jauscorra* < *iauzcorra* (22-85); *baina, aldiz, exetuac ta vengatzalleac* < *iauzcor eta mendecos* (20-178/179). Cf. VB *jauscorra* (b.) “caedizo”, *jausicorra* (b.) “frágil, fácil en caer”.

INPRENTZUAZ ‘alderantziz’ > MOLDEAN (~ INPRENTA): *moldean leguez* < *imprentçuaaz beçala* (32-72).

KOBERATU ‘berreskuratu’ > KOBRATU: *irabaci, cobratu ta sendatu* < *coberatu eta erremediatu* (12-251). *erosi, cobratu ta irabazten* < *coberatcen eta erreparatcen* (12-256).

KONTU ‘kopurua’ > KONTU ‘arreta’: *Gueuretçat contuzcoac gara, gueugaz contu dogu* < *Gu contu gara, gurequin contuz guehiago* (2-24).

LABORARI > LANGILE, BEARGILA: ez dirudi hasieran *laborari*-ren esanahi berezitua eza gutzen zuenik: *languilleac* < *laborariac* (13-36), *languilla ta bearguilla* < *laborari* (13-39) eta *necazari, languille, bearguillac* < *Neccaçaleric eta laborariric* (36-8/9); azkenik asmatu zuen, ordea: *Necazariac* < *Laborariac* (45-168).

MANAIATU > MANEATU: Itxuraz eta etorkiz kidekoak izan arren, adiera ezberdinekoak izaten dira Ip. *manaiatu* eta Heg. *maneatu* (cf. *OEH*, s.vv.); Añibarrentzat, euskaldun askorentzat bezala, batez ere janaria maneaten da (cf. *NekeA* 252), baina itzulpen honetan, hitzez hitz dabilen zatian bederen, berdindu ohi ditu (ik. 2-12/13, 2-15, 2-86, 12-193, 13-174 eta 17-16).

ONTASUN / ONDASUN: *ondasun andiac* < *ontasun handia* (1-191). *ondasunac aurreratute-co* < *ontasunean aitcinatceco* (12-95).

SEGIENTZA > JARRAI(TE): *jarraiteac*: leh. *jarraiac*, < *seguintçac* (7-29); cf. VB “seguida: c. jarraia, jarraitea”.

SEHI > SEIN: *seiñac* < *sehiec* (15-118), vs *otseñai* (19-128 eta 19-168).

b) <h>aren esanahi aldaketa alde batera uzten edo ahanzten dutenak:

AHALA > ALAN: *alan eguiten dabenari* < *ahala eguiten duenari* (43-76/77).

GUEROCO GUERO

AHANTZ IDURI > ANTZ IRUDI: *antz ir[ʉ]dina eguinic < ahantz iduri eguinic* (22-105/106).

ALA (interj.) > ALAN: *alan < ala çuc eta nic ere... contu hertsia eman beharco baitiogu laincoari* (12-130).

ALHA > ALAN: *alan dagoala < alha dela* (49-91).

HAUR > AURRE: *aurretic < haurretic 'haurzarotik'* (13-86).

ILE 'ulea, biloa' > ERIOTZA (~ HIL): *eriotza bien erdian ifini zareala < bi illetan iarri çarela* (5-58).

URA > A 'hura': *euqui dabenari < eduqui duen urari* (7-7).

c) "Belarriz" egindakoak, hots, gutxi gorabehera esanahiari, baina batez ere hotsei begiratuaz:

bere gai antz < bere gainqui (1-11). *zulora < çolara* (9-82). *herra > guerra* (28-73).

Halaz ere, espero zitekeen bezala, gramatikako hitz edo esamoldeek ekarri dizkiote arazo gehien eta larrienak. Sarrienik agertzen direnak bildu ditut hemen, zehazki taldean sartzen ez den, baina sekulako buruhausteak eman dizkion *alha*-rekin batera. Alabaina, eta hau Añibarroren ohoretan doa, ohartu behar da une batetik aurrera egiazko esanahiaz jabetu eta irtenbide egokiak proposatu ohi dituela azkenik:

AITZITIK: Añibarrok badaki lokailua dela, baina ez nolakoa den; honegatik, pare bat aldiz *bada*-rekin itzulita ageri da (3-136, 9-86). Halere, azkar aski ohartzen da aurkaritzakoa dela, eta baliabide ezberdinak saiatu ondoren (*Lenago dirudi*: aurrean *Beragaitic dirudi*, ezabatua, 4-31; *Bai*, 4-136), batez ere *lenago bai* (5-61, 8-142, 10-46/47, 11-135, 12-250) erabiltzen du, baina baita *gueiago bai* (8-223/224) eta *lenagotic bai* (11-328, 12-135) kideak ere; cf. *VB* "antes bien, parece que: c. *lenago bai badirudi ece*". Askoz aurrerago irtenbide berri bat asmatzen du: *Contrara bai* (23-77); cf. *VB contrara* "al contrario".

ALHA: Gorago ikusi dugunez, *alan*-ekin nahastera heldu zen (49-91), baina ez da beti berbera gertatzen; aitzitik, taiu bereko itzulpen harrigarriak —ziurrenik testuinguruaren arabekoak— ematen dizkio pasarte bereko beste bi agerralditan: *Arraña olguran dagoanean < Arraña alha denean* (4-92), *gozoroago poztuten danean < goçoquienic al[h]a çayenean* (4-95/96). Beste batean, berriz, *alhatu* eta *alhadura*-ri eman ohi dien itzulpenarekin (cf. *lotsatu* 8-28/29, 8-177, *samindu* 8-104, *salatu*, 41-106; *lotsatasun* 8-138/139) bat datorrena hautatzen du: *euren conciençiac lotsatuten dituela < bere conciençiac alha çaitzela* (6-43/44).

AMOREKATIK: Iparraldeko esapidea arazorik gabe onartu du, ziurrenik itxurak hartaratuta (ik. *OEH*, AMOREKATIK, s.v. *amore*), noiz *amore* gordeaz (*gure amoreagaiti* 16-129/130, *neure amoreagaiti* 28-43, *aitaren amoreagaiti* 28-143), noiz *maitetasun* bihurtuta (*aitaren maitetasunagaitic* 0-76, *bere maitetasunagaiti* 16-132), noiz bestela (*aren amorez ta beguiramentuz* 28-139/140). Harrigarriagoa da, ordea, helburuzko balioa duenean ere onartzea: *egon etzedin amoreagaitic < etcegoen amoreac gatic* (1-67/68), *letorquien amoreagaitic < ethor cequien amoreac gatic* (9-192), *Cerura ta Ceruco laguntasunaz balia gaitecen amoreagaitic < cerura eta cerucoetara fidancia handiarequin laster dagaigun amoreac gatic* (10-37). Ohartu behar da kontuaz jabetu ondoren ere erabiltzen jarraitu zuela, hein bateraino behintzat, aurreko adibideen artean sakabanatuta dauden bestelako itzulpenek diguten bezala: *egon ez litecen < etzeudecin amoreacgatic* (1-81), *bildur izan gaitecen gaitic < veldur garen amoreac gatic* (9-93), *larga dagaizuzan < utz ditçatçun amoreac gatic* (11-106), *pobreai zabaldu, emon ta aldatu*

daguien < probetara parti deçaten amoreac gatic (16-111/112), sinistu daguiontzat < sinhetz deçaten amoreac gatic (19-252/253). Eta, azkenik, behin zeharo okertu da: maite dodazalaco < dugun amoreacgatic (1-160/161).

ARAUAZ: Hasierako buruetan deslari dabil, eta aterabide ezberdinak —ez denak egokiak— ematen dizkio: *Onela < Hunen arauaz (1-158). Era onetara < Hunen arauaz (5-104). atara ecanduturic aci zalaco < bere hazcuntçaren arauaz (7-30/31). onen erara < hunen araubaz (8-101). vorondateaz batera < ordenamenduaren arauaz (9-11). beragan danez < bere arauaz (9-47/48). bere justicia beragan danez < bere iusticiaren arauaz (9-130). Une batetik aurrera, jadanik baliatu duen -(r)en erara nagusitzen da (11-73, 16-190/191, 17-80), baina baita -(r)en aldetik (cf., adibidez, araguiaren aldetik 20-44) eta egoki aditza (ceuroen pecatuai dagoquiena 52-50) erabiltzen hasten ere. Hona pare bat aldiz otu zaion bestelako baliabidea: *bacochac al ebana ta celan eucan < bat bederac bere içanaren, ahalaren eta debocinoaren arauaz (16-185/186). celan ceucan prestaerea, debociñoa, disposiciñoa batec < errecibitcen cituenac çuen disposicionearen, debocinoaren eta aparailuaren arauaz (47-78).**

ARDURAKO ‘ohikoa, jarraia’: Itxurak engainatuta gordetzen du hasieran, edo *ardurazco* bihurtzen (2-9, 2-20), berarentzat *ardurazko* ‘kontuzkoa, arretatsua’ den arren (cf. *OEH*, *ARDURAZKO*, s.v. 1 *ardura*). Pare bat agerralditan hala-hola saihestu ondoren (*comunac, guztirocoac, guztientzacoac < comunac eta arduracoac 8-122/123, comunac, guztientzacoac < comunac, arduracoac 8-132*), aterabide ona asmatzen du: *oi dirianac (8-136, 8-141)*.

ARE: Maiz ez ikusiarena egiten dio (1-137/138, 5-37, 10-10, 11-11/12, 12-197, etab.), eta ulertzeko da, bizkaieraz aspaldi partikula honek daukan eremu murrizta kontuan izanik. Bestela jokatutako duenean, hiru tankerako itzulpenak eskaini dizkio: *are gueiago (2-6, 6-63)*, izenordain indartua (*ori beragaitic < aldez are horigatic 4-42, biderioa bera baño < are beiraquia baiño 4-104, Abereac eurac bere < Are abre mutuec ere 7-96*) eta *oraindino, oraindo* esanahikideak (*oraindino deungago... da < are da gaixtoago eta perilosago 8-7, oraindino arguiago < are claragoa 8-169, oraindo jaijo baño len < are sorthu baino lehen 11-126/127*).

-(R)EN BAITAN: Esamolde honen adiera ñabartasuna dela eta, arazoak itzulpen guztian zehar hedatzen dira, nahiz nagusiki zuzen itzuli, dela *bere (zeure...) artean (12-142, 27-36, 31-109)*, dela irtenbide irudipentsuagoren batekin: *bere biotzean < bere baithan (8-199)*. Lehen agerraldian itzulpen kaxkarra egiten du, ordea: *eurac dira eureetan < berac dira bere baithan (0-135/136)*; eta gerora *beragan* automatikoki erabiltzeko joera handia dauka: *beragan biztu бага < bere baithan pitztu gabe (20-95), beragan paciencia euqiterra eguinagaiti bere < bere baithan aiticnetic paciencia içaitera deliberatuagatic ere (21-50/51), ez egoala beragan, etzala guizon < etcegoela bere baithan (23-63)*, baina cf. *aren buruan ta agan < haren baithan (43-191)*.

BARRENA: Ekialdeko forma honen itxura berezi eta esanahiak mahaiz nahasarazi zuen itzultzailea: *erlautsean barruan < cofaiëan barrena (1-249), basoan barruago < oihanean barrenago (6-10), baso barrura: leh. basoaren, < oihanean barrena (6-121), munduaren barruan < munduan barrena (11-292), deunguetasun barrura sartutea < malician barrenago sartcea (14-24), bere barruan ta bere artean < bere baithan barrena (42-117/118)*.

BERAZ: Gaurko euskaldun jantziak ezinezkoa baleritza ere, hasieran Añibarro ezin asmatu iribili zen: *eguiaz (0-121, 0-137, 2-123)*. Lehenengo irtenbide ona: *Bada alan (4-110)*. Harrezkerok *bada* da hobetsiena (5-152, 6-72, 7-10, 8-252, 9-136, etab.), baina badakartza *ori danez (4-194, 5-8, 11-20, 11-63; cf. VB “ergo, luego, según eso: c. beraz, orrela, ori danez”)*, eta *alan (11-8), bada alan (9-247, 12-110), Bada orrela, ori danez beraz [zehazki ori danez (ergo) beraz] < Beraz, hunelatan (10-101) eta bada orrela (11-46) ere bederen*.

BEZAIN: Oso jakingarria da Añibarrok ez duela berdintasuneko konparazioa egiteko baliabide zurririk, antza denez, eta honegatik ezohikoak edota badaezpadaoak, haien artean ‘kantitate’

GUEROCO GUERO

eta ez 'maila' adierazi ohi duten partikulak (*adina* edo *dun beste*, kasu) erabiltzera jotzen du: *ain erraz cein lenengo Gurasóac < gure lehenbico aita ama hec beçain erraxqui* (4-177). *bear dituezan < asco duten beçain bertce* (8-84). *gura dituzan becatu guztiaç < nahi duen beçanbat beccatu; becatu guztiaç*: leh. *aimbeste becatu* (9-53). *adiña chiquia < beçain ttipi* (9-116). *dun beste andi < beçain handi* (9-117). *len gaistoac baciran, guero... ardurazcoac eguiten dira < lehen gaixto beçain eguiten dira guero on eta prestu* (12-213/215). *len baxen gaistoago ta oquerago eguiten zara < lehen beçain gaixto edo gaixtoago çara* (14-149/150). *bear dan leguezco librea < behar beçain librea* (15-149). *len baño gaistoago eguiten dira < lehen beçain gaixto, edo gaixtoago eguiten dira* (15-198). *bear litequen cindoa ta eguiazcoa < behar beçain fin eta eguiazco* (15-269).

BEZANBAT: Antzera esan behar da honetaz ere: *ateraten adiña edo dun beste < atheratcen den beçanbat* (16-240). *Nic neuretzat gura dodan ona*: leh. *gura dodana, < nic neuretçat nahi nuqueyen beçanbat ontasun* (28-64).

BEZANBATEAN: Behin *mercitceaz dan aldetic < meritceaz denaz beçanbatean* (8-55/56). Bestetan, berriz *Nigan dagoanez < Nitçaz denaz beçanbatean* (3-137) edo *danez < denaz beçanbatean* (8-81, 11-94) tankerako aterabidea eman dio.

-(R)EN ESKUKO: Behin onartzeaz (*bere escuco*, 10-20) eta alde batera uzteko joera izateaz gainera (ik. 12-192, 45-236), eskuarki *bere* (*gueure*, etab.) *escuan* itzultzen du, batzuetan *bere jabe* (*izan*) esapiderearen laguntzan: *Celan gueure vorondatearen jabe garean ta gueure escuan dauquegun < gueure vorondatea gueure escuco baitugu* (8-99). *cer gueiago gurago leuquean bere escuan < cein luqueyen nahiago bere escuco* (12-67; ik. halaber 15-24, 20-37 eta 20-38, azken biak + *bere jabe da*). Baditu, halere, bestelako aterabideak, hala nola destinatiboa (*ichiten deuscu gueuretzat < utzten deracu gueure escuco*, 12-174) edo *-ren aguinduan: eztodalaco ... neure burua neure aguinduan < eztudala... neure burua neure escuco*, 21-35).

GIBEL, AITZINGIBEL, etab.: Hitzez hitz itzuli ohi du, *atze*-rekin zuzenean lotuaz eta hartzen dituen adiera berezietz ohartu gabe: cf., alde batetik, *atzeraturic joan ezquero < guibeleraz guero* (12-19) eta *atzera, bildurti < guibel veldurti* (42-128). Eta, bestetik: *aurrera ta atzera beguiratu бага < aïcin-guibel behatu gabe* (19-81/82). *aurrecoa ta atzecoa, igaroa ta etorquizuna ondo gogoraturic < aïcin guibel behaturic* (20-65/66). *beguiratu eraguin ta ezaguerazo, ceren beguira gagozan < aïcin guibel beha araciten deracu* (52-90/91).

HALABER: Hasierako agerraldietan, edo erabat saihestu (9-105, 9-172/173, 12-13, 12-210), edo erdipurdi ordezkatu egin du: *egiaz*: aurrean *alambere*-edo izan litekeen zerbait, ezabatua (1-21); *alambere*: gainean, *orrez guztiaz*-en ordezkari (9-61). Halako batean kontuak aldatzen hasten dira, eta batez ere *bere*-rekin ordezkatzeko du: *bardin* (12-96), *Eta contu eguizu bere < Eta eguizu halaber contu* (12-162/163), *Eta obe bere da < Eta hobe da halaber* (18-134), *eldu bere da < heldu da halaber* (19-11).

HARI IZAN: Aditz honen ordezkapena gorabeheratsua da, Añibarrok baliokidetzak argi izan- go ez bailituan, nagusiki *ibili, egon* eta indikatibo perifrastiko hutsaz itzultzen badu ere; ohartu, dena den, *egon*-en lehen agerraldiak berankorrek direla (cf. behean 12-133): *aecaz eguiten cituela otzarac < hetçaz... otharre eguiten haritcen cela* (1-37). *campoan euren janari, mantenu ta igaropiden billa dabilten < bere mantenuaren eta bicicayen garrayon campotic hari diren* (1-250). *gauza zoragarri asco eguiten ta asmetan ebiltzela < anhitz gauçaren ordenatcen, pensatcen eta traçatcen hari cirela* (4-221). *becatu eguïteari darraiozula < beccatu eguiten hari çarela* (6-70). *urrinduric ta alde eguïnic ibilli zareala < urruntcen eta apartatcen hariçan çarela* (6-71). *ibilli bazara Jaincoaganic urrinduric < hariçan bai[t]çara Iaincoaganic urruntcen* (6-73/74). *darraiozunean becatu eguïteari < beccatu eguiten hari çarenean* (6-86). *egurra eba- guiten cebillela < hari cela egur eguiten* (6-122). *astiro, gueldiro, contatuaz leguez daroaz puntadac < bakhan, baratz eta pontuac contatuz beçala hari dela* (7-80/81). *erneguac... ezarten do-*

zuz < arnegu eta iuramentu eguiten hari çara (7-125). gueroago becatu gueiago eguiten ebela < egunoro beccatu eguiten hari cirela (9-188). jarraituco eutsela < harico cirela (9-189). zagozanean < hari çarela (12-133). emon cirian escu bearrera ta lanera < hariçan ciren (12-282/283). sendatzen zabiltzanean < erremediatcen hari çarela; sendatzen: ondoan asten bazara, ezabatua (15-235). ceri daragoion < cer hari den (20-257). sayetac botatzen dagoana < Tragaça colpeca hari dena (22-48).

HELDU: Axularrengan maizenik defektiboa den aditz honen esangura asmatzea ez da erraza ezustean harekin topo egiten duenarentzat. Beraz, ez da harritzekoa hasierako agerraldietan Añibarrok *eldu* arrunta bailitzan hartzea: *Eldu nintzan < Heldu nintzen* ‘banentorren’ (0-64), *sortu, erne, jaio ta eldu dirian < sortcen eta heldu diren* ‘datozen’ (1-18/19). Haatik, aski sena izan zuen nahiko goiz aldeaz jabetzeko: *datorren < heldu den (3-51), dator < heldu da (8-228)*. Honek ez du esan nahi noizean behin lehengora itzuliko ez denik: *eza deunguero eldu < eza gaizqui heldu* ‘ez dator’ (9-140), *Eza... deunguero eldu < Eza... gaixqui heldu* ‘ez dator gaizki’ (14-73), etab. Ohartu ondoan, dena dela, batzuetan erdibidetik jotzen du, adiera bai, baina aspektua ongi itzuli gabe: *etorrigo jaqueela < heldu ceyela* ‘zetorkiela’ (9-190), *etorri dira < heldu dira* ‘datoz’ (34-14, 46-40). Edo *etorri eta eldu*, biak emanez: *eldu ta etorri jacuna < heldu çaicuna* ‘datorkiguna’ (12-97), *nondic jatorcan ta nondic eldu jacan < nondic heldu çaicun* (16-200/201), *eldu ta etorri jacu < heldu çaicu* ‘datorkigu’ (41-332).

HURRAN: Garapen argi bat somatzen da testuan zehar. Lehenik, itzulpena gorabeheratsua da, batzuetan (cf. *urrin*) zeharo okerra: *emengo aldia eguin ezquero < hemengo aldia eguiñ hurran baitut* (0-158), *urrin dago < hurran da (8-258), ganez eguin dau < gainez eguin hurran du (9-169)*. Bigarrenik, nondik nora doan asmatzen du, eta baliabide ezberdinak saiatzten: *urren eguiten dozun lenengo becatuan < hurran lehenbico eguinen duçunaz (9-228/229), laburtuaz ta acabatuaz doazala < laburtu hurran çaitzela (12-229/230)*. Hirugarrenik, *urreean* kidea egokitzen dio sistematikoki: *emengoaz eguiteco urreean gabiltzala < hemengoaz eguin hurran dugula (12-287/288). acabetaco urreean: aurean acabateco ur]*, ezabatua, < *accabatu hurran (13-100). acabetaco urreean < accabatu hurran (14-136). vençutu urreean zala < vençutu hurran cela (15-295)*. Laugarrenik, ustekabea, esapide berezi batekin topo egin, eta lehengo lepora itzultzen du: *ain urreean, ain arriscu ta peligru andian dago zarra, ceifn] gaztea < bada hurran-hurran hanbat peril çahartcean nola gaztean, hots, ‘ia-ia’ (35-80)*. Eta, bosgarrenik, irtenbide berri eta egokia aurkitzen du azken agerraldi baterako: *erdi illac < hil hurranac (46-152)*.

ON / ONGI: Añibarrorentzat estua den *on* (iz. eta izond.) eta *ondo* (adond.)-ren arteko banaketa ez dator bat Axularrengan aurkitzen duenarekin; beraz, maiz itsuka itzultzen du. Halaxe, *ondo egin* eta *ongi egin* ‘on(a) egin’ nahasten ditu batzuetan (*daguigun ondo < daguigun ongui, 12-26*), baina ez bestetan (*on eguin < ongui eguin, 12-159*). Oro har, badirudi *ongi* izenaren balioaz jabetzera iritsi zela: *eguite onac < onguiac (12-259), eguiteco gogo dozuzan gauza onac < eguin gogo dituçun onguiac eta descarguac (15-410/411)*, baina honek beronek itzulpen xelebre edo ezohikoak egitera darama: *gaisto izatea ichiric ona eguitea < gaixtoa utciric onaren hartcea (12-218), eza on < eza ongui (14-98), idoroco dau ona < edirenen da ongui (27-75)*.

ONDORE: Ez dauka ordain onik: *ondorengo errastuac, ondaquiñac, emparauac < ondoreac (1-19/20). bere ondorengo oñatza gaistoac < bere ondotic cenbait ondore gaixto (7-115). oste-co ondoac < ondoco ondorea (8-7). azquen ondo gaistoa < ondore gaixtoa (20-212). aserrearren ondorengoac < coleraren ondorea (21-8/9). ondoac ta azquena < fina eta ondorea (32-75). ondoren ona < ondore ona (46-374/375). ondocoagaiti < ondoco ondoreagatic (55-81)*.

5.4. Añibarroren eransketak

Jadanik badakigu Añibarrok ez zuela inolako lotsarik izan, hala iritzi zionean, Axularren testuari nahi adina eransketa egiteko, batez ere dotrina azaldu beharrak

hartaratuta. Zehatz daiteke ezen dotrinari buruzko eransketa anitz, gehienak beharbada, atal edo azpiatal bukaeretan daudela, Axularrek berak atalaren laburbiltzea egiteko edo hurrengo aurkezteko profitatzen dituen uneetan, hain zuzen.

Atal honetan eransketa berezi zenbaitez bakarrik kezkatuko gara, halere: alde batetik, bizkaierazko itzulpenaren irakurle mota zehazten laguntzen digutenez, zehazkiago, latin hutsezko pasarteetan patuaz (§ 5.4.1) eta azalpen edo kokapenez (§ 5.4.2); bestetik, itzulpenaren nolakoa, hots, oro har Añibarrok eman nahi izan zion tankera nola edo hala adierazten dutenez: gaiari aurrea hartzeko joeraz (§ 5.4.3); azkenik, bada bitariko gai bat ere: emakumeekiko jokabidea (§ 5.4.4).

5.4.1. *Latin hutsezko pasarteak*

Añibarrok, oso salbuespen gutxirekin (ik. 0-104/105. oh.), latinezko pasarteak osoki kendu ditu itzulpenean, soberan baileuden. Honek bi ondorio nagusi izan ditu:

a) Axularrek latinez bakarrik ematen dituen pasarteak itzuli beharra (ik. 0-14/15, 3-73, 12-42, 15-190/192, 16-66/67, 16-173/176, 19-160/161, 32-38/39, 52-111. oh.).

b) Latinezkoa kendutakoan eskas dituen aurkezpen hitzak erantsi beharra; adibide bat aski izango da (ik. halaber 1-86/87 eta 45-13. oh.):

Onetan esan gura dau, San Agustinen ustez: Axularrek zuzenean ematen du latinezko aipua, eta saildua ertzean bakarrik aipatzen (46-17).

edo Axularrenak leku egokira eraman beharra (2-63, 3-33, 7-31/32, 11-74, 12-29, etab.).

Añibarroren erabakiak, bestalde, eragin garrantzizko bat dauka itzulpenean terminologiaren arloan, nahitaez Axularrek latinez dakartzan berbak euskaraz jarri behar baititu. Bereziki deigarriak dira euskal testuaren barnean Axularrek latinez bakarrik aipatzen dituenak: *pena artua* < *pœna assumpta* (12-99), *caltepena* < *Pœna damni* (52-123); cf. *VB caltepena* “pena de daño” (< *HH*). Azken honen il-dotik, Axularrek latinari atxikita (*Pœna sensus*), *sensuaren pena* deritzana *gorputz-pena* bilakatu da (53-2): cf. berriz *VB gorpuzpena* “pena de sentido” (< *HH*).

Eta, azkenik, hala nola pasarteren batean latinak eman ziezaiokeen laguntza Añibarrok alde batera utzi duela dirudien (ik. adib. 2-24 edo 2-29/31. oh.), beste batzuetan badirudi euskarak baino, latinak zerikusi gehiago izan duela itzulpenean:

Cer balio dau orain eche bat eguitea... < Batec eguin, eta batec deseguin, cer probetchu, tra-baillua baicen?, cf. latinez Unus ædificans & unus destruens... (43-173).

Jesu Cristogan bici < Sainduqui eta prestuqui, Jesu-Christoc manatcen duen beçala, bici; cf. latinez Qui pie vivere volunt in Christo Jesu (44-57).

Latinezkoa alde batetik, Axularren glosa bestetik itzultzera ere iritsi da noiz edo noiz (ik. 20-97/98. oh.).

5.4.2. Azalpenak edo kokapenak

Añibarroren eransketetatik asko eta askok, batez ere txikiek, irakurle ez oso jakitun batentzat idazten zuela salatzen dute: latina jakin beharrik ez izateaz gainera, jatorrizko testuak jakintzat ematen dituen zeharkako aipuen edo iradokizunen aurrean gal zitekeen irakurle batentzat. Berak esan bezalaxe, “nekazari buru gitxi-ko batek ulertu ta aditu leizan erraztasunaz” idatzi nahirik,⁷⁴ beraz, itzultzaileak ahaleginean iluna azaldu eta isilekoa azalerazteko joera handia dauka, eta honek mota askotako eransketak eragiten dizkio, haietako batzuk argi eta garbi metalinguistikoak, hots, jadanik ezagutzen ditugun glosa edo esanahikideen tankerakoak (§ 5.3.3).

a) Izenordainak, joskera errazteko asmoz:

berac beretzat becatuz galtzetic gordetzea < beretçat beccatuz galtcetic beguiratcea (1-28). zuc becuritic ez eguin arren < beccaturic ez eguiteagatic (11-264).

b) Izenondoak, dela izen batzuen ulerpene irakurlearen iritzira ez uzteko, eta honetan arreta berezia jartzen du *gaiztoa* dena hartakotzat markatzen; edo dela epiteto modura, besterik gabe:

obra ta eguite onacaz < obrequiñ (0-68). gente gaisto oquer batzuc < iende batçuec (0-116). calte gogor < calte (0-142). eguiozu beguirarte on < eguioçu beguirarte (0-147). Jangoico maiteac < laungoicoac (1-53). arerio gaisquin eta perseguilletatic < etsaietatic (1-127). Ceru eder gozoan < Ceruco lorian (3-58). gueiago ta gogaicarriago < guehiago (3-77). ecandu deungueac < usantçac (7-73). becatu mortal edo eriozcoan < beccatutan (8-41/42). Jangoico maiteac < laincoac (8-82). adisquidetasun zorionecoan < adisquidetasunean (8-110/111). guero zorigaistocora < guero hartara (9-234). escu gogorretatic < escuetatic (10-65/66), esperanza eguiazco batec < esperantçac (10-101), becatari itsu ascoc < iende suerte batçuec (11-32), Verbacuntza gaisto au < Minçatce molde haur (11-33), ezquerreco esquer gaisto gogor erruquibagueac < ezquerrecoec (16-145), etab.

c) Hitz berezi edo berezitu zenbaiten glosak:

Azor derichan egazti arrapatari bat < Aztorea (3-21). Cesar edo erregueac < Cesarec (11-245). sinist gogorrac ta sinistuteco atzeratuac < sinhets gogorrac (20-110). Amorentian, adisquidetasun charrean < Amorantian (46-294).

d) Esapide ilunsko batzuen glosak:

marea dedin, ur-gorac ta ur-berac euqui daguicen < marea dadin (2-68/69). angueru gaisto edo deabruen < ainguiru gaixtoen (8-42). izan bedi zuen verba-eguicuna: ez, ez; bai, bai; ez edo bai < biz çuen hitzcuntça, solhasa eta mintçaia: ez, ez, bai, bai (19-38/39). ez edo bai asco danean, esate bacarrac valio dabenean < ez eta bai asco den leccuan (19-87/88). Abe ta eutsigarri asco, gracia ta ceruco laguntza ta escua bear da < Anhitz habe, fabore eta sostengu behar du (31-26). berba eguiten dabe issilca, capapetic, ezcutuan < capapetic bedere gaizqui mintço baitira (46-268).

⁷⁴ *MisE*-ko “Adibidetik”, ap. Basabe 1934: 258.

e) Pertsonaiak, lekuak edo gertaerak kokatzeko datuak:

Lacedemoniac cerichen guizon batzuei < Lacedemoniacoei (7-18). Saul erreguearen < Saulen (7-49). Sodoma ta Gomorra erri becatariacaz < Sodomacoequin eta Gomorracoequin (9-218). Lapur Santuari < ohoiñari (12-79). Dimas lapur santua < ohoiña (15-21). saldu ebeen egitoar bati < saldu çuten (28-133). Sanson indartsua guerran ebillanean filistioen contra peleetan < Sanson ere guerlan cebillaiño (36-60/61). cirautsen Jesu Cristoc bere icasleai Gesemanico ortuan < erran cerauen baratcean nabusiac bere discipuluey (45-189). Evangelio... seme gais-to gastalari ondatzalleari < semeari (49-94/96). Cer, esaten deitsunean Evangelio[co] virgiña nagui alper eroai leguez: Ezauzadaz; etzaituela ezagututen, berandu zatozala < Nescio vos. Etçaituela eçagutcen, verandu duçula (52-156/158).

f) Iradokitakoa edo metafora agerian jartzeko azalgarriak:

Uts eguin neban ta galdu nintzan ardi galdu deslaitua leguez < ardia beçala (6-13/14). artu eban Goliat andiaren ezpata andia < ezpata (7-60/61). jausi cirian arri astun bat leguez ondarrera < harria beçala (8-251). berun astuna balitz leguez ichasoco ondarrera jaustic < veruna beçala (9-69). baldin gaisotasunic ezpaliz, ez eriotzaric < eritasunic ezpaliz, eta eritasunac ondoreric ezpalu (18-62/63). ez oi dau begui ordecoen bearric, eztitu bere umeen umeac bere inguruan icusten, ta guichi onetaricoric zartuten da < ez ohi du begui orde anhitz higatcen, eta ez comunzqui bere umen umeric ere bere ingurunean icusten (20-176/177). ...da ancla angura bat, ta aingura santua ta ona, pecatuen ondarreric ta an itozetic gordeten gaituana; ta ichasooan anclac ontzia leguez gauçazana < aingura da, eta aingura ere saindua eta sacrata, becatuaren hondarrean erortetic eta han ithotcetic beguiratcen gaituena (41-79/81). gueiago aserraturten dabela Jangoicoa pecatuan bertan lucero irauteac, damutu, confesatu, penitencia eguin bague dempora lucean egoteac < beccatutan egoiteac eta perseverateac hasserrercena-go duela Iaincoa (43-155/157).

g) Oker ulertzeko arriskuak ekiditeko abisuak:

gai onetan becatu eguiten dozu alango juramentua eguiteaz, ta beste becatu bat a juramentua cumpliteaz; juramentu char au eztozu cumplitu bear < Eta baldin uste baduçu edo sinhesten baduçu obligatu çarela complitcera, hirugarren batez cargatcen çara (19-97/99).

Bidenabar, aldaketatxo batek erakusten digu Añibarrok ez zukeela konfiantza handirik bere irakurleriak idazteko zeukakeen trebeteasunean:

azquenean beste aldera beguira zagozala bere, letren erdiac escriptuico dozuz < hitcen erdiac (7-78/79).

5.4.3. Aurrea hartzen dionekoak

Dela gaia hasieratik argi utzi nahiagatik, edo dela beste edozein arrazoigatik, Añibarrok maiz aurrea hartzen dio Axularri, gaiaren ondorenak hark baino lehenago aipatu edo kontatuaz, itxaron ezinik eta, beraz, askotan haren argudiaketa logiko edo erretorikoa hautsiaz:

Dirudi, oneec artuaz pobretu ta besteac emonaz aberastuten diriala, garia ereinten dabenac leguez: ereina baño asco gueiago artzen dabe < Baitirudi ecen hec hartuz probetcen, eta bertceac emanez aberatsten direla (16-229/231); cf. geroago Esan lei ereitea leguez dala limosna emotea < Halaber ereitea beçala da probeari ematea (16-234). Jangoicoaren ordenamentua ta baimenac direala, ta bere escutic datozala arerioac eguiten deitsuzan atsecabeac..., berac la-

quetu ta permititu dituala aren purgac < ...da Iaincoaren ordenamenduaren consideratcea, ez pensatcea etsaieac eguiten derauzquiguten atsecabeac, Iaincoaren escutic heldu direla, harc permititcen dituela, haren purgac direla (24-9/11). Bai ta idoroco dogu erraz ta arin Jangoicoaren legue santua, gogoratuten badogu legueco buztarri au bien artean jasoten dogula: Jancoicoaren laguntzaz gueuc < Ceren legue haur uztarri baita, eta uztarria, biac iasaiten eta eramaiten baitute (45-187/189), etab.

5.4.4. Emakumea

Ikuspegi aldaketa handia somatzen da Axular eta Añibarroren artean emakumeez hitz egiterakoan. Sarako erretoreak inolaz ere gizonentzako liburu bat egin du, eta hartan emakumeak adibide on eta batez ere txarrak hornitzeko gai baino ez dira, animalien perako, arima salbu.

Oso bestelakoa da alde honetatik frantziskotarraren itzulpena, emakumeak irakurleen artean kontatzen baititu, mila pasartetan egin dituen eransketek —baita aldaketek ere— argi eta garbi aditzera ematen dutenez:

a) Gizon-emakumeentzat hitz egiten du:

emacume edo guizacume ori gorrotoan sartzen dala zure contra edo gaissotuten dala, ez egizu jaramon < emazte hura (35-32/33).

b) Ez dio behin ere emakumeari egozten gizonaren bekatuaren errua:

Bada bestela, laster eransico da adisquidetasun amarezcoa, alcarren afecto eragotzia ta gogoraciño pecatuzcoac < Ceren hequen [emazteen] conversacioneac eta solhasac berequin du ez-tia, berequin du balacua, linburtceco occasinoa, eta bai elccarri lotceco cola, visca eta leque-da ere (38-22/23). baldin andracumeacaz batu, bildu, lagunduten bazara, eztozu onean asco iraungo; itsutu, amoretu, zoratu ta jausico zara pecaturen baten < baiña emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciatsuz, ez-tiaz eta emeaz, beretacotuco çaitu, centçutic atheraco, liluratuco eta bertce aldera itçulico çaitu (38-34/36). guizacume ta emacumeac alcarregaz ez ibilteco < emaztetaric apartatceco (38-96).

Beraz, *emazte*-ren ordez *desoneskeria* eta antzekoak jartzeko joera ere (§ 3.3), ez da zehazki zentsura, gorago neronek iradoki bezala, zalantzarik gabe honen ondorioetako bat baizik.

c) Ez du jakintzat ematen emakumeek berez eta berariaz bekatuak ezin egin dezaketela:

Emacumeacaz dabillan guizonac, edo guizon artean dabillan andreac < Emazten artean dabillanac (38-23/24). Emacume-guizacumezalea < emaccoia (53-191).

d) Nolanahi ere, aukera guztiak profitatzen ditu bi generoak agertarazteko:

Gogoa ezta aguratuten, atsotuten, beti da gaztea < Ceren gogoa bethi da gazte (35-86/87). uga-bazaba ta ugazabandre < nabusi (51-32/33).

Honegatik, badirudi ondoko pasartea itzuli ez izana ezin dakiokela ahanzturari egotzi, emakumeentzat iraingarri izateari baizik:

Eta hala egun batez bere compainiaco bati usaina adituric, eta bere baithan hasserraturic, galdeguin çuen. Quis hic mulierem olet? Norc du hemen emazte urrina? Bide gabe handia eguiten derauca bere buruari, emaztequi bat beçala, urrintaturic eta usain onez betheric dabillan guizonac (40-33).

5.5 Erretorika pixka bat

Gai honetaz den bezainbatean, eta guztiz Axularrekin zerikusia duen zerbaitez ari, bada gure artean —beharrik— hitzaurregile hau baino funts gehiagorekin mintza daitekeenik. Haatik, irakurlerik lañoenak ere antzeman ditzakeen idazkera aldaketa handi nabarmen zenbait badirenez, badirudi Añibarroren itzulpenaren aurkezpen hau herren geratuko litzatekeela, Erretorikaren arlo zabalean sarralditxo batzuk bederen egin ezean.

5.5.1. *Variatio*

Berbaldia antolatzeko orduan, tradiziozko *ornatus*-aren barnean, *variatio* eta *repetitio* elkar osatzen duten funtsezko bi baliabideak dira (Mortara Garavelli 1988: 215): *variatio*-aren hatsarreak *taedium*-aren kontrako, irakurleak ez asperetzeko moduko baliabideak erabilarazten dituen bitartean (Lausberg 1976: I, § 257), *repetitio*-ak, apaingarri gisa dituen betebeharrak garrantzitsuez gainera, berbaldia finkatzen du, etengabeko berritasunak sortzen duen anabasa edo iluntasuna uxatuaz.

Onea, beharbada, bien arteko oreka aurkitzea izan arren, idazle guztiek ez dituzte berdin aintzat hartzen bata eta bestea, eta hori da, hain zuzen, hemen gertatzen zaiguna: itzulpenean zehar, Añibarro *variatio*-aren ohi ez bezalako zale ageri zaigu, eta honek zuzenean jotzen du Axularrek *repetitio*-aren baliabideak erabiltzeko daukan joera ezagunaren kontra.

Haren *variatio* zaletasunak, beraz, bi alderdi ditu, txanponaren bi aurpegiak: errepikapena higuintzea eta ezberdintasuna bilatzea. Biak ezinbesteko dira itzulpenean agitzen diren gertakari batzuk berez ulertzeko.

Erretorikaren aldetik, Añibarroren jokabide honen islapenik nabariena, jatorrizko testuan diren errepikapeneko baliabideak hausteko daukan joera handia da; hala bada, anafora (a) eta epifora usuak (b), baina baita kateak ere (c), desagertu ohi dira itzulpenean:

- (a) *gura badau, ondo edo deunguero eguiteco < nahi badu ongui, eta nahi badu gaizqui eguiteco* (9-51). *bardin da biar edo guero < orobat da bihar, orobat da guero* (11-10). *bardiñac dira pisuan, balantzán, neurrian < berdin dira pisuan, berdin dira balantzán* (11-87). *orduan da mena, mina, azquen adina < orduan da mena, orduan da mina, orduan da azquen adina* (14-65).
- (b) *oitu, ecardutu zan < enseiatu cen, trebatu cen* (7-65). *Jangoicoac euquico eztaben leguez finic, ez eta infernuco nequeac bere < Ceren nola laincoac ezpaitu içanen finic, eta ez accabatceric: hala ifernuco penec ere ez tute içanen finic, eta ez accabatceric* (54-178/179).
- (c) *Lenengo ilten da seiñ edo umetasuna; seintasunaren ondoan ilten da mutiltasuna; onen ostean ilten da gaztetasuna; onen ondorengo ilten da zartasuna; zartasunaren ondoan ilten da aguretasuna < Lehenic hiltcen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltcen da morrointasuna; morrointasunaren ondoan hiltcen da gaztetasuna; gaztetasunaren ondoan hiltcen da çahartasuna; çahartasunaren ondoan hiltcen da sentontasuna* (4-142 t. hur.).

Are arrazoi gehiagoz ezabatu ditu, hortaz, hurrengo bezalako errepikapen luze eta ekonomiaren ikuspegitik zeharo alferrak:

Iru eraco becatu edo becatari gorrotatu ta icusi ecin dodaz bestén gañetic; eta dira pobre andigurea, aberats guzurtia eta zar zoro cenzunbaguea edo zar amorantea. // Dacusun bada orain, ea cergaitic derichazan Jangoicoari deunguero iru becatu modu oneec; bada dirudi ece badala oneec baño becatu andiagoric < Hirur beccatu edo beccatore suerte gaitz esteintut, eta çaiçquit bertce guztien gainetic itsusi. Pobre urguilla, aberats gueçurtia eta çahar erho centçu gabea, edo çahar amurusa. // Consideratcecoac dira hitz hauc iaquin deçagun ea cergatic daritzten Iaincoac hain gaitz hirur beccatu suerte haui: probearen urguillutasunari, aberatsaren gueçurrari eta çaharraren erhotasunari. Baldinba bada hauc baino beccatu handiagoric (14-74 t. hur.).

Joera indartsu hau ezagutuez gero, alferrik galdetuko diogu gure buruari ea ondokoa bezalako pasarteetan eskas den zatia oharkabean ahaztu ala berariaz kendu duen:

Eta secula alan izan, jazo ta guertatuco ezpadira bere, orrez guztiaz, alan pensatzeaz beragaz... < Eta secular hala içanen ezpadira ere, eta eztirela içanen badaquiçu ere, guztiarequin ere... (12-146/147)

Añibarroren *variatio* zaletasuna, bigarrenik, hautatzen duen lexikoan islatzen da indartsu, guretzat harrigarri den moduan, are ezinbestekoak diruditen hitz errepikapenak ere ezabaraziaz. Hiru islapen mota bereiziko ditut hemen, zer aldatzen den eta horren arabera:

a) Erator atzizkia aldatzea (a) eta esanahikideak (b) edo aldaerak (c) erabiltzea testuinguru hurbilean hitz baten (inoiz erro baten) errepikapena saihesteko:

- (a) *usadioa; usantzatic < usantça; usantçatic (8-254). naturalezac naturaltasuna < naturaleçac naturaleçaren (33-13). cuticiotsuac cuticiadun cequenacaz..., biraoguilleac biraotiacaz < avariciosac avariciosoequin..., arnegariac arnegariequin (53-197/198).*
- (b) *eguite onac maitetuteco < eguinbidearen eguiteco (13-184). Donguea da gaisotasuna, baña gaistoago barriro gaisotasunera biurtutea < gaixto da eritasuna, baina gaixtoago berretura (43-227/228). eztira Jangoicoaren cemaiaç menazuac baño < mehatchuac mehatchu baicen (56-81). eztira guretzat Jaunaren cemaiaç, menazuac ta queñuac baño < mehatchuac mehatchu baicen (56-98/99).*
- (c) *christiñauac, christau < guiristinoac, guiristiño (0-105). da ancla angura bat, ta aingura santua < aingura da, eta aingura ere saindua (41-79/80).*

b) Ortodoxoki jokatuaz bata bestearen etsai diren aditz esapide baten (a) edo aditz jokoaren (b) bi aukerak elkarren ondoan jartzea, edo besterik gabe aditza aldatzea (c), esaldiaren barruan edo egitura paraleloetan aditzaren errepikapena saihesteko:

- (a) *baliz ganaric, bago borondatea < baliz appetituristic, bada vorondate (13-117). nagoanean... nagoala; ...nasanean, ez nasala < naicenean... naicela, eta ez naicenean, ez naicela (15-250/251). aserre eztagoanac aserre dana < coleraric eztuenac coleran dagoena (25-33/34).*

- (b) *bear dana bear dabenaz solastu dedilla < behar duena behar duenarequin solhasta dadi-lla (28-107/108).*
- (c) *Nazu...? Gurozu...? < Nahi duçu...? Nahi duçu...? (15-255). beti datoz cerbait escas, urri, artzaren ta chacurraren umeac direan leguez < bethi dira cerbaiten escas, hartçaren eta oraren umeac diren beçala (23-51/52). faltetan jausten danac faltetan uts eguiten dabena estutu ta castiguetea < faltetan erortcen denac, faltetan erortcen denaren gaitzestea (27-40/41).*

Eta, hirugarrenik, islatzen da joskeran, osagai bi edo gehiagotako sintagma juntatueta, nagusiki gutxi gorabehera baliokideak diren atzizkiak aldizkatzen baititu (a), baina baita, adibidez, mugatzaile motak ere (b):

- (a) *argalduric... ta ecindua < flacatua, vençutua eta ecindua (8-59/60). bibiderturic ta laster eguiñaz < doblatuz eta laster eguinez (12-277). echeratuteaz? ...ibiltean? ...ibilteaz? < bihurtceaz? ...ioaiteaz? ...ibiltceaz? (13-125/127). berba guichiz ta laburracaz < hitz gutiz eta laburzqui (22-138). defendituaz... eguiñaz... eguinic < deffendatuz... iarriz... ihes eguinez (38-65/66). barriac ecartera, abisetaco ta esateco < berri eccartceco, avisatceco eta erraitceco (41-284). izana... izatea < içana... içana (42-35/36).*
- (b) *medicuac, barberuac, osaguille batec < midicu batec edo barber batec (20-120).*

Variatio lexikoa harrigarria bazan, hau are harrigarriago, hainbestearino non halako egiturak, testuinguru honetan ulertu ezean, akastzat jotzeko joera izango bailuke, ziurrenik, gaurko edozein euskaldun jantzik.

5.5.2. Hitz jokoak

Añibarro errepikapenaren etsai amorratu bada ere, ikusi berri dugun bezala, bada haren alderdi bat biziki maite duena: hitz jokoei dagokiena, alegia.

Dakigunez, hitz jokoak itzultzaileen erronketako bat izaten dira, ez baitira itzulerrazak izan ohi. Honegatik, bada, normaltzat jo behar dugu jatorrizko testua- ren zenbait joko galdu izana, batzuetan pareko egitura bilatzea zaila baitzen (a), bestetan agian oharkabean galdu badira ere (b):

- (a) *ez menturaz, ezpada ciur < ez venturaz, baina seguraz (5-60). Baldin beguiari eragozten ezpajaco icustea < Baldin beguiari eduquitcen ezpaçaica beguia (37-16).*
- (b) *eguiten dau negar ta eguiten dau garra < eguiten du gar, eta eguiten du nigar (46-41).*

Izan ere, maiz gorde ditu, euskaratik euskarara itzultzeak eskaintzen dizkion erraztasunak berariaz profitatuaz:

borondate borondatsuac (0-68/69). beti nai, beti nagui (3-144/145). esperanza esperanzaba- guea < esperantça esperantça gabea (11-309). borondate borondatsuari < vorondate voron- datetsura (24-83/84). atseguñaren atsecabea < atseguin haren atsecabea (41-198). premiña premiñazcoan (52-150).

Eta bestetan egokitu, batera edo bestera:

eztiz gozotceco ta arguiceguiz arguitceco < eztiz eztitceco eta ezcoz arguitceco (1-246/247). era- baguiro erabaguia < deliberatuqui deliberatua (3-32). Gueroco zorian, arriscuan ta bada ez-

pada menturazcoan menturaturic galduten gara < Nola gueroco venturaren venturan venturaturic galtcen garen (5-2/3). ordeaz ordetutea, moneda berean paguetea < ordainez ordain, moneda berean pagatcea (44-96). oneec dira bere secretario secretoac, issilac ta dempora lucean euren biotzean pecatua ezcutaturic ta gorderic euqui daroenac < hec dira haren secretariac, haren beccatu sequeretuac, sequeretu, dembora luceaz eduquitcen dituztenac (48-56/57).

Alabaina, Añibarroren hitz joko zaletasuna egiaztatzeko daturik garrantzikoena, euskararen ahalbideak somatu eta erabiltzeko daukan gaitasun erraldoia da, agian itzulpen honetan bestetan bainoago gauzatua.

Bi joko mota bilatu ohi ditu: (a) “eratorpena” edo “figura etimologikoa” izezez ezagutzen dena, hots, erroa errepikatzean datzan baliabidea; eta (b) paronomasia, hau da, fonetikoki antzekoak diren hitzekin jokatzea:

- (a) *gogoac gogoz artzen dau < gogoac ere errecibitcen du (37-15). Ceimbat gose gosetiago < Cenbatenaz gosea handiago (45-160/161). ceruco janari gozoz gozoturic, ase beteric ebiltzenean < ceruco ianhariz assetcen cirela cebiltçanean (46-333). secretario secreto-gordeguilla < secretari (48-59). seguruan seguraturic < segurean (49-75).*
- (b) *ontasun ta ondasun artúac < ontasun errecibituec (0-67). argalduaz, galduaz, otz epelduaz ta jausiaz joianean < flacatcera, cordocacera eta erortcera cihoanean (0-99/100). gachac ta ecachac < herioicearen tormentac (15-392). itsutu, izutu, zoratu < itsutcen, çoratcen (20-262/263). ez alcandora charra, ez soñecoa, ez oñecoa < çapata (51-21/22).*

5.5.3. Amplificatio

Aplificatio-a da Erretorikaren baliabide orokor ezagunenetako bat, gaia taxutzeko behar-beharrezkoak diren xehetasunez —hitzez zein ideiez— bestelakoak ematean datzana: oro har, gaia luze garatzeko baliabideak dira, berba edo esaldi esanahikideak pilatzetik hasita adibideak eransteraino (Lausberg 1976: I, §§ 401 t. hur.).

Gure kasuan, *amplificatio* adiera hertsia hartan ez eze, adiera zabalago batean ere erabil dezakegu, zeren eta Añibarrok *amplificatio*-aren baliabideak erabiltzeko, zehazki Axularren testua alderdi batetik baino gehiagotatik zabaldu edo hedatzen baitu.

Ondoriorik ezagunena, Añibarrok gainerako idazlanetan ere baliatu ohi dituen esanahikide edo baliokide zerrenda luzeak dira, Axularren euskara ugaria are ugarriagotuz. Hasierako adibide gutxi batzuk aski izango dira, arratiarraren hitz jarioa noraino heda daitekeen somatzeko:

Ax 1 / Añ 2

laquetu ta ichiten < utzten (0-69), auzardia ta atrebencia < ausartciaren (0-71), aguertu ta adierazoten < conta (0-87/88). larga ta ichiric < utciric (0-106), erre ta banatu < erre (0-111). amatatzalle ta iltzallea < iraunguitçaille (0-123), baso ta beresi onetan < oihanean (0-134), egape ta guerizpean < guerizçan (0-145).

Ax 1 / Añ 3 edo 4

ondoan, azquenean, ostein ta guero < ondotic (0-69/70). beguitandu, uste ta iruditen < iduritcen (0-72), lan bear eguiteco < eguiteco (0-106), gorde, zaindu ta jagon < deffenda (0-146). zaindu, jagon ta gorde < beguira (1-15/16).

GUEROCO GUERO

Ax 2 / Añ 3 edo 4

mantendu, eutsi ta irmetasun guztiaz gorde ta jagotera < mantenatcen eta sostengatcen (0-107/108). ordenamentua, escubidea ta leguea < ordenantça eta manamendua (0-120).

Ax 3 / Añ 4

echea, estalpea, vici-lecua, portua ta ostatua < etchea, pausa leccua eta portua (0-85/86). argalduaz, galduaz, otz epelduaz ta jausiaz joianean < flacatcera, cordocacera eta erortcera cihoeanean (0-99/100).

Ax 4 / Añ 5 edo 6

quejac, eguitecoac, naibagueac, coitac, beartasunac ta premiñac < arrencurac, eguitecoac, coaitac eta ondicoac (0-86/87). consejatu, zucendu, gobernatu, zaindu ta burutan atera < consei-lla, quida, governa eta burutan athera (0-89).

Honezkero argi dago, nik uste, sinonimoak pilatzeko zio bakarra, ez eta beharbada nagusia ere, ez dela ulerpena erraztea: aitzitik, badirudi estilema eta ohitura bilakatu zaiola.

Edonola ere, xehetasun gehiegitan sartu gabe, halako zerrendatzeez bestelako *amplificatio* motak ere kausi daitezke Añibarroren itzulpenean, haien artean jadanik ezagutzen ditugun azalpen edo kokapenak (§ 5.4.2). Oraino aipatu ez ditugunetarik, agian interes gehien izan dezaketenak, irakurlearekiko lotura indartzera datozen eransketak dira, ondoko honen modukoak:

Batean adirazoten dau erraza ta zabala dala ceruco bidea, ta bestean gacha ta gogorra dala. Batec esan guraco dau: Celan liteque au? Celan erraza ta gacha, estua ta zabala? Orra emen non eracusico deutsudan < Batean emaiten du aditcera, erraz dela eta çabal parabisuco bidea, eta berriz bertean gaitz dela eta mehar. Nolatan ahal dateque, bada, haur humela, erraz eta gaitz, çabal eta mehar? (45-28/30).

6. Gure argitalpena

Urquijoren argitalpenak euskaltzaleei eskuizkribua ezagutzeko aukera eman zien, eta hau da inolaz ere ezin ken dakiokeen meritua, tamalez testua bukaeraraino jasotzen ez badu ere. Alabaina, bere neurrian neurtzeko, aitortu behar da bi alde txar ere badituela: lehena, nahi baino errata edo irakurketa txar gehiagorekin aterra izana; bigarrena, argitalpen irizpide iraunkor eta finkorik ez izatea zenbait puntu istilutsutan: adibidez, Añibarroren lerro gaineko eransketak, batzuetan parentesi artean barneratu dira testuan, eta bestetan, berriz, besterik gabe.

Oraingo honetan, haren lepora eskarmentua hartuta, errakuntza berak ez errepikatzen saiatu gara eta, zenbait irakurketa hobetzeaz gainera, arreta berezia ipini dugu irizpideak ezartzeko orduan. Eskuizkribuan diren eta harekin izan ditugun gorabeherak asko eta askotarikoak direnez, uste dut luzez azaltzea irakurleari zor zaiola, nekagarri izan arren, eskuartean duen ekoizpena nola taxutu den eta, beraz, azken batean zer-nolakoa den jakin ahal dezan.

Bi iruzkin modu doaz ondoko lerroetan: testuari eta testua aurkezteko moduari dagokiona, eta argitalpen honetarako maneaturako oharrei dagokiena.

6.1. *Testuaren argitalpena*

Eskuizkribu baten lehenengo argitalpena edo, nahiago bada, lehenengo argitalpen osoa izanik, komenigarri iritzi diogu gauzak diren bezala ahalik eta zintzonik aurkezteari. Ildo honetatik, testua originalaren kopia fidela da, eta argitaratzailearen eransketak oro testuan taketez markatu dira, nahiz eta honek argitalpen paleografikoaren antza ematen dion.

Halaz ere, ez da paleografikoa, kritikoa baizik, edo hala nahi luke, zeren eta ahaleginean funtsezko alderdiez kezkatu taxutu baita, eta hutsalak alde batera utzirik (Bleca 1983: 137). Ikuspuntu honetatik, edizio kritiko batean oharrak, argitaratzaileak testuaz ezer irakasten digun zerbait esateko erabiltzen dituen baliabideak dira, eta ez egin behar dituen eragiketa beharrezkoen kontu emateko, edota are eman behar hori saihesteko aitzakiak.

Nolanahi ere, lehenengo argitalpena izateak hein handi batean baldintzatu du grafiarekiko izan dugun jokabidea, burutik buru errespetatu baita, gai honetaz ardua litezkeen ikertzaileengan pentsaturik, euskal grafiaren historia ez baita oraindik, zoritxarrez, nahi genukeen bezain ezaguna.

Ez da beste hainbeste gertatu puntuazioan eta testuaren beste alderdi formaletan: denak gaurkotu dira, etsita baikaude halakoak dauden-daudenean uzteko, argitaratzaile batek nagitasunaz beste estakururik ez duela, baldin testua alde honetatik zeharo arrunta bada behinik behin, gurea den bezala. Bestela esanda, dakidalarik, ez dago XIX. mendearen hasierako hegoaldeko euskal testuetan ezertxo ere, ez gaurkotzeko ziorik emateko modukorik. Egin ditugun aldaketak, beraz, munduan zehar ohi direnak baino ez dira, baina agian gure artean oraindik behar bezain ohikoak ez izateak, hurrengo lerroetan xehe-xehe azaltzera eramán gaitu.

Letra larriak eta puntuazioa gaurko ohiturei egokitzen saiatu gara. Lehenei dagokionez, honek esan nahi du Euskaltzaindiaren araupean egin direla aldaketa guztiak. Puntuaziorako arau estuak ematea, berriz, ez da hain erraza: alde batetik, maiz egun erabili ohi ez ditugun joskerak puntuatu behar dira; bestetik, aurreko mendeetako idazleek ez zituzten beti bi puntuak eta puntu eta koma guk bezala erabiltzen (cf. orain García Folgado 2001), eta oro har guk baino koma gehiago erabiltzen zituzten. Lehen kontua labaina da, baita komari buruzko erabaki orokorrak hartzea ere: kasu honetan, erdibidea hautatu dugu, begibistakoenak (*ta* aurrekoak, adibidez) ezabatuz, baina gaurko urritasunera heldu gabe, zehazkiago Añibaroren joskera ulertarazten dutenak ahal zela gordeaz. Eskuizkribuan, gainera, oso nabarmena da komak arnasa hartzeko etenak ederto markatzen dituztela perpausa luzea denean. Puntu eta koma eta bi puntuak, ordea, gaurko erara jarri ditugu inolako zailtasunik gabe.

XIX. mendetik hona bilduta edo bereiz idazteko ohitura aldatu den itemei dagokienez, bi arau orokorri atxiki gatzaizkie: funtsezko informazioa galtzea ez dakarren guztia gaurkotzea, eta ahoskera gertakariak islatzen dituzten idazkerak gordetzea. Kausuistika osoa honako hau da:

a) Gaur bilduta idazten diren atzizki eta posposizio zenbait (-gaz eta -caz, -gaiti(c), -gan, -guiño, -arren) Añibarrok berezita idazten ditu oso sarri, baina ez sistematikoki. Arazorik ez zegoen orotan bildu egin dira, hots, *guizonac gaiti* edo *eurac gana* bezalako kasuetan izan ezik.

b) Atzizkidun hitzak, hasiera aldera batez ere, halako maiztasun batez bananduta agertzen dira (*eraguin-guille*, *bitarte-tasun*, etab.): gutxi izateaz gainera, ez diote gaurko irakurleari informazio gehiegi ematen, bai baitakigu, jakin ere, orduko lexikoa hainbat arlotan finkatu gabe zegoela, alde batetik, eta Axularrek berak halako ohitura bazuela, bestetik. Biengatik, ez zaigu iruditu gordetzea merezi zuenik, tartean zio berezirik ez egotera.

c) Erabaki berbera hartu dugu gaur bilduta idazten diren *ecin bestez*, *nola bait*, *bear bada* eta antzeko guztietan.

d) Osterantzean, *bere* hitz jakin batzuei (adib. *batezbere*, *betibere*, *guerobere*, *celambere*, *alambere*, *baitabere*, *ecerbere*, etab.) lotuta agertzen da sarri. Bereizteko edo ez bereizteko irizpidea, posesiboarekin nahasteko arriskua izan da.

e) *Ez* partikula maizenik adizkiari lotuta ageri da, hala *eztot*, *enas* bezalako kasuetan, nola *ezdot*, *ezlitecen* bezalakoetan. Hots aldaketa islatzen duten idazkerak bakarrik gorde dira bilduta argitalpen honetan.

f) Laburdurak, ohi bezala, zabaldu dira, salbu eta azpian zetzan forma zehatzari buruzko zalantzarik egotekotan: honelakoetan, dagokien oharrean azaltzen da kontua.

Gure argitalpenak jatorrizko orrialde-zenbaketa gordetzen du, eskuizkribura jo beharko duen ikertzailearen lagungarri. Orrialde zenbaki horiek “<>” artean tartekatuta dira testuan; kontuan izan bedi ezen, orrialde aldaketa hitz baten erdian gertatzen denean, hitza zatikatu beharrean, beti ere osorik ipini dela zenbakiaren aurrean. Errepikatutako orrialde zenbakiak (§ 3.2) “bis”-ekin bereizi dira (<316bis> eta <380bis>).

Añibarroren lerrokadak eta Axularrenak ez datoz beti bat. Axularrek ez dio inoiz kapituluaren lehen atalari zenbakirik ematen: bigarrena da lehena bere liburuan; Añibarrok bai. Esan gabe doa honelako gorabeheretan itzultzailearen erabakiak errespetatu direla.

Garai hartako argitaratuetan ohi zen bezala, eskuizkribuaren atalik berrienean Añibarrok orrialdearen beheko izkinan hurrengoaren hasieran doan hitzaren lehen

silaba jartzen du. Halakoak ezabatu dira, jakina, baina ohar zenbait eskaini behar izan zaie, hurrengo orrialdean datorrenarekin bat ez datozenean, hain zuzen.

Añibarrok orripeko oharretan 39. orrialderaino bakarrik ematen dituen bibliografi erreferentziak, testuan barneratu ditugu, halakoak jasotzeari uzten dion arte berak egin zuen bezalaxe, gure argitalpeneko ohar sistemarekin ez nahasketarik sortzeko. Bai orripeko hauek, baita ondokoak ere, denak parentesi artean ezarri dira hemen, egungo ohituren arabera. Gai honi, oro har, ez diogu guk Añibarrok baino garrantzi gehiago eman. Beraz, Axularrenak osoagoak izan arren, adibidez, zeuden-zeudenean utzi dira. Oso bestela jokatu dugu okerren bat zegoenean, noski.

Hasierako buruetan, Añibarrok beti jartzen ditu kakotxak inoren aipu zuzenak markatzeko; gero, zeharkakoak egitea hobesten duen heinean, baina ez beti honekin bat, kakotxik ez ipintzen ere hasten da. 187. orrialdetik aurrera, areago, batzuetan aipuak azpimarratzen ditu. Hau guztiau inkoherente xamarra denez, berdintasunaren alde egitea erabaki dugu, eta kakotxak zein azpimarrak, denak ezabatzea.

Axularren orrialde zenbakiak-eta jasotzen dituzten eskuizkribuaren ertzeko oharra ez dira jaso; gure oharretan informazio hori etengabe ematen dugunez gero, alferrik errepikatzea zelakoan egin dugu.

Testuaren bukaeran Añibarroren jatorrizko “idorogarria” erantsi dugu, berak ere testu gisa garrantzia baitauka, lehenago aztertu ditugun idazkera aldaketetako batzuk fidelki islatzen ditu eta.

6.2. *Oharrez zenbait argibide*

Liburu honek interes bi ditu, eta bakoitzaren arabera bi argitalpen mota eta bi irakurle mota: Añibarroren ekoizpen gisa eta Axularren itzulpen gisa.

Añibarroren ekoizpen gisa, esan daiteke hainbat aldetatik ez dela gehiegi aldentzen gainerako idatzietatik, tamainan baino. Halere, biziki interesgarria da, *EL*¹ eta *EL*² arteko lanetako bat izanik, gorago frogatu dugunez, batetik bestera daroan bidearen erakusgarriak ugari daudelako, bai liburuan zehar antzematen diren joera aldaketetan, bai eskuzko zuzenketa batzuetan ere. Alde honetatik, beraz, testu ohar piloa eska dezake argitalpenak.

Baina Axularren aldetik ere oso interesgarria izan daiteke, gorago erakusten saiatu garen bezala: zer ulertu zuen eta zer ez, zer errespetatu zuen eta zer ez, galdera hauek ere ohar piloa eragin dezakete hitzez hitz eta egituraz egitura arituez gero.

Aukera egin beharra zegoen, hortaz, bateko eta besteko ohargai guztiak jarri ezinik, aparatu kritikoa neurritz gainekoa izan ez zedin.

Honegatik, Añibarroren testuaren aldetik, eskuzko zuzenketak ugari eta gehienak argi-argiak izan arren, testuaren eraikuntzan esanguratsuak izan daitezkeenak bakarrik jaso dira, dela Axularrekiko erkaketan argi egiten digutelako, dela Añibarroren hizkuntz gorabeherei buruzko berri ematen dutelako, idazterakoan edo kopiatzerakoan egindako hutsak alde batera utzita, oharrek testua gaindi ez dezaten amoreagatik.

Adibidez, ez dira jaso milaka *ta* ezabatuak, jadanik ezagutzen dugun Añibarroren idazkera ezaugarri bat berresteko baino ez baitute balio: sinonimo zerrenda bati *ta*-z bukaera eman nahi eta ezina (§ 5.5.3).

Eta Axularren aldetik, Etxausen gutunaren eta lehenengo hamabi buruen erkaketa zehatza, hitzez hitzekoa ia, eskaintzen da, baina gai batzuetara —morfolo- gi eta joskera arazoetara batez ere, jadanik adierazi dudanez— mugaturik; eta handik aurrera beharrezko edo interesgarri iruditu zaizkidan kontuen hautaketa hertsiago bat baino ez.

Argitalpen guztian zehar, hiztegi oharrak, hitzen esanahi eta bestelako zertzeladei buruzkoak, ahalik gutxienak egin ditut: informaziorik beharrena, nahi izanez gero, bukaerako hiztegitxoan aurki daiteke laburbilduta.

Oharrak goiko deirik gabe ipini dira, batez ere liburuaren irakurketaz gozatu besterik egin nahi ez lukeen irakurlea gogoan izanik, baina edozein irakurle gogoan ezin bildurik ibilarazten dutela eskarmentuz ongi jakinik. Bakoitzak bi zenbaki darama, lehena *GGero*-aren buruari dagokiona, eta bigarrena argitalpen honen lerroari. Zenbaki hauek berak erabili ditugu orain artean hitzaurrean egin ditugun testuko erreferentzia guztietan.

Axularrekiko erkaketan, beti ere *GGero* erabili dut, hutsaren edo zalantzaren aurrean *Gero*-ra jo badut ere, baita behar izanez gero Villasanteren argitalpenera. Denetan orrialde zenbakia ematen dut, besterik markatzen ez bada. Kontuan har bedi Axularren lehen bi argitalpenen artean orrialde-zenbaketan jauzi garrantzizko bat dagoela: *Gero*-k 440. orrialdearen ondoren berriz 439.a dakar, orotara bi 439 eta bi 440 daudelarik. Hau *GGero*-n zuzendu zenez, handik aurrera beti ere bi orrialdeko aldea dago, bada.

Axularren *GGero*-aren grafia errespetatu dut, baita bertako irakurketak ere, baina hitz zatiketa gaurko erara eginez eta errata txikiei ez ikusiarena eginez, edozein irakurlerentzat, baita niretzat ere, Villasanteren argitalpenaren ondoren Axularren testua den bezala ikustea harrigarria baita, eta nahasgarri baino ez. Edonola ere, bertako irakurketa zehatzek Añibarroren ulerpena oztopa zezaketenean edo *de facto* oztopatu dutenean, esan gabe doa dagoen-dagoenean kopiatu ditudala.

Erkaketa zehatza egin den buruetan, besterik esaten ez denean, ulertu behar da hitzez hitz jarraitzen diola Añibarrok Axularri, honek erabili hitz berak —edo bizkaieraz (edo mendebaleko euskaran) dagozkien ordainak— eta ordena berean ja-

rrita agertzen direla, alegia. Ezabaketa, eransketa eta hitz ordena aldaketa guzti-guztiak jaso dira oharretan, ahanzten errazak diren zenbait partikula (*ere*, esaterako) batetik bestera desagertu direnean izan ezik.

13. burutik aurrera, berriz, irakurleak jakintzat eman behar du jaso ez diren hainbat aldaketa badirela, eta guztiz Añibarrok etengabe *amplificatio*-ak egiten dituela, bai sinonimo zerrendetan, bai ideietan ere. Azken batean, ezer esaten ez den bitartean, Añibarroren testuak Axularrenari darraio, maiz gutxi gorabehera baino ez bada ere. Eransketak, denak markatzen saiatu gara, bereziki tamaina batekoak direnean, bai haien gai eta arrazoiak ulertzen saiatzeko, baita haien hizkuntza ezinbestean burutik buru Añibarrorena dela agerian jartzeko. Eransketez gainerakoei dagokienez, oro har jaso ohi ditugun gertakaririk garrantzitsu eta iraunkorrenak, ondoko zerrenda honetan laburbil daitezke:

- a) Añibarroren irakurketa txarrak edo “irakurketarik errazenak”.
- b) Añibarroren testua, hitzak edo perpausak, ulertzen laguntzen duena.
- c) Añibarroren “zuzenketak” (cf. *cerbait balioco duenac < anitz*, 13-84).
- d) Añibarroren kenketa nabariak (ez hitz bakarrekoak, alegia).

Axularrekiko erkaketa ez da bakarrik baliagarri izan bien hizkuntza erkatzeko asmoan. Ongi ulertzen ez diren, edo nire ustetan ulergaitz gerta daitezkeen pasarte askotan, aldamenean Axularren bertsioa ematera mugatu naiz, baldin eta honek argi aski egiten duela iritzi badiot. Ez bide dago iruzkin hobetik. Hitz bat, edo esapide bat, Axularrek dakarren berbera denean, eta Añibarrok onartzeak garrantzia izan dezakeenean, “= *GGERo*” konbentzioa erabili dut.

Gure testua eskuizkribua denez, ohi baino zuzenketa gehiago eskatu ditu. Behar-beharrezkoak, begibistakoak, ahaleginean denak zuzendu dira testuan, salbuespenik gabe, behar izanez gero oharretan haien berri emanez. Alabaina, hain begibistakoak ez ziren batzuk ere zuzendu dira, euskal argitalpenetan erabaki ausartak hartzea, kritikoki arriskatzea oraindik nahi bezain zabalduz ez egon arren, zabaltzen hasi behar delakoan. Testua ikutu gabe ematekotan, oharretan zenbait huts markatu arren, hobe genuke faksimileak baino egingo ez bagenu. Eta faksimileak egiteko, ongi dakigunez, ez da ezein filologoren beharrik.

Halaz ere, tentuz aritu naiz, Añibarroren idazkera, azpimarratu bezala, ez baita batua, ez arau estukoa. Alde batetik, askotariko formak onartzen dituenek, alderak bakantzea haren idazkera desitxuratzea eta Añibarro bera saltzea baino ez litzateke, noski. Bestetik, hutsak zuzendu baiezean, kontuan hartu dut zer den Añibarroren idazkeraren ezaugarri, eta zer ez. Zeren haren ezaugarrien artean kokatzen baitira ortodoxian akatsak diren gauza zenbait, hala nola NORI aditzean ez islatzea, *elkar* zuzen ez erabiltzea, edota hitz batzuen mugagabeak ez ezagutzea, gorago antzeman ahal izan dugun bezala. Hauen bitartez Añibarroz, eta orduko hizkuntzaz, gehiago ikasten dugun heinean, zuzentzezinak dira, noski. Testua okertzea, ulergaitz bilakatzea beste eragin edo onurarik ez daukaten hutsei, berriz, zuzenkizun ez eze, zuzenbehar iritzi behar zaie.

Zuzenkizun ausartenak, bidenabar, gehienak ergatiboak berrezartzeari dagozkio: *-c* baten gorabehera, batez ere esaldi korapilotsuetan, Añibarrori bederen erraz itzurtzen zaion kontua da.

Ezinbestean gogoratu behar dugu, labur baino ez bada ere, itzulpen batek gainerako testu motek ez bezalako arazo filologikoak dakartzala berekin, aurrean jatorrizko testua izaki, itzulpenean zer jarri beharko lukeen asmatzeko laguntza gehiago daukagulako, besteak beste. Somatutako okerrak edo jauziak konpontzerakoan laguntza honetaz baliatzea zilegi ez eze, beharrezkoa ere bada. Haatik, jatorrizko testuaren irakurketek ez digute itzulpenaren testua nahi adina aldatzeko eskurik ematen: itzultzaileak irakurketa txarrak edo gaizki ulertuak egin baditu, adibidez, errespetatu behar zaizkio, argitaratzaileak ez baitu itzulpena “hobetzeko” inolako eskubiderik.⁷⁵

Bestalde, Añibarroren zuzenketa gehienak argiak, dudagabekoak izan arren, gorago esan bezala, bi zuzenketa motak zalantzan erabili naute. Alde batetik, *dabiltzanac*: leh. *dabiltzanac* (41-2) tankerakoak, ez baitago beti ziur esaterik *a* *e*-ren orde zuzendu diren. Honelakoetan, irakurlea argitaratzailearen begi zorrotasunean fidatu beharko da, halabeharrez.

Bestetik, hasiera batean zalantzakoa da erabat, halaber, hitz baten gainean, hura ezabatu gabe, agertzen diren hitzen kasua. Hauetako batzuk erabaki errazak dira, halere, azpikoa Axularren testukoa bera denean, eta gainekoa Añibarrok azkenik aurkitu dion ordaina. Hauen artean argienak, berriz, marka bereziren bat dararamatenak dira, Añibarrok markatuta utzi eta gero ordaina aurkitu duelako seinale. Baina beste askotan ez dago honelakorik, hitz bat bestearen gainean baizik. Honelakoetan, edo batzuetan behintzat, baliteke egiatan tartean eransteko asmoa izatea, ohiko marka ahaztu bazaio ere. Hala zenentz jakin ezinik, eta gehienetan gauzak bestelakoak direla etsirik, guztiak ordezkapentzat hartu ditut, eta goikoa testuan barneratuta, behekoa oharrera erbestetu dut. Dena dela, irakurleak oharretan aurkituko du honelako guztien kontu zehatza, baita egin ditudan salbuespen urrien arrazoiak ere.

Amaitzeko, esan behar da hirutan erkatu dela argitalpenaren testu berria eskuizkribuarekin, eta behin Axularren liburuarekin, testua patxadaz, okerren bila, bi bider irakurtzeaz gainera. Eta guztietan zer zuzendu aurkitu da. Añibarrok letra argia izan ohi badu ere, Axularrekin erkatu ez banu, edo zerbaitekin erkatzeko biderik izan ez balitz, azken unean zuzendu ahal izan ditudan hamaika hutsi edo neronek egindako bost irakurketa txarri ez nien antzik ere emango. Eta, halere, obra luzea denez, eta gorputza argal, badateke oraindik hutsik, honetan aritu diren guztiek dakiten bezala. Izango ahal dira gutxi eta ezdeus!

⁷⁵ Gai honetaz, 2000. urteko EHUaren Udako Ikastaroetan hitzaldi ezin argigarriagoa entzun genion Iñigo Ruiz Arzalluz irakasleari. Berak egindako oharretan oinarritzen dira nire gogoetak, eta zinez espero dut aurki argitaratuak ikusteko paradan izango garela.

LABURDURAK

AxH = Villasante 1973.

Becerro = Villasante 1974.

DAut = Real Academia Española 1726-1739.

EGLU = Euskaltzaindia 1985-1999.

EH = Sarasola 1996.

Erans = *HH*-aren *Eranskina* (ik. Mitxelena 1970).

FHV = Mitxelena 1977.

GB = Villasante 1970.

HH = Larramendi 1745.

IV = Larramendi 1729.

OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia* (ik. Mitxelena).

VB = Villasante 1963.

VRB = Zabala 1848.

BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, X., 2001, “Gramatika eta estiloa”, in X. Alberdi & I. Sarasola, *Euskal Estilo libururantz*, EHU, Bilbo.
- Altube, S., 1929, *Erderismos*. Arg. faksimilea, Indauchu, Bilbo, 1975.
- Altuna, F., 1995, “Loiolako Dotrina (XVIII. mendekoa)”, *ASJU* 29:2, 611-649.
- Altuna, P., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak (edizio kritikoa)*, 2 lib., Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1987, *Fray Bartolomeren Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba (1816)*. Edizio kritikoa, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Altzibar, X., 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Aresti, G., 1971, “Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra *Gero*”, *FLV* 11, 197-221.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Mundaiz, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Azkue, R.M., [1905-1906], *Diccionario Vasco-Español-Francés*, (2 lib.). Arg. faksimilea, LGEV, Bilbo, 1969.
- , [1923-1925], *Morfología Vasca*. 2. arg., LGEV, Bilbao, 1969.
- , 1925, “Txukuneria”, *Euskera* 6, 4-21.
- , 1928, “Mendibururen adizkiak eta idaztankera”, *Euskera* 9, 124-183.
- Basabe, K., 1934, “Pedro Antonio Añibarro Aitaren Euskerazko eskuidatziak”, *Euskera* 1934, 258-261.
- Biguri, K., 1994, “Erdarazko erlatiboen itzulpenaz”, *Senez* 10, 37-72.
- Blecua, A., 1983, *Manual de crítica textual*, Castalia, Madril.
- Castaños, F., 1957, “El genitivo en vizcaíno antiguo”, *BAP* 13, 60-69.
- Ciarrusta, 1991, *Pedro Antonio Añibarro. Jesu Christoren lau evangelioac batera alcaturic*, Labayru Ikastegia eta BBK, Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1985-1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (I-V)*, Bilbo.

- Euskaltzaindia, 1994 t. hur., *Arauk*, (hiru karpeta), Bilbo.
- Gaminde, I., 1984-1985, *Aditza bizkaieraz* (3 lib.), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Garate, G., 1998, *Atsotitzak*, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Donostia.
- García Folgado, M. J., 2001, “Los criterios de puntuación en las ortografías de la Academia Española (1741-1999)”, SEHLaren Nazioarteko III. Kongresuan emandako hitzaldia (agirietan argitaratzeko).
- Hualde, J. I., 1991, “Manuel de Larramendi y el acento vasco”, *ASJU* 25:3, 737-749.
- Ibar, ik. Mocoroa.
- Intxauspe, E., 1864, *Guero Guero... Edicione berria, garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana*, Lamaignère Alhargunaren moldequintçan, Baiona.
- Irigoyen, A., 1958, “Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario”, *Euskera* 3, 105-132.
- , 1981, “*Haur ola zirola*. Elementos deícticos en lengua vasca”, *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*, Bilbo.
- Lakarra, J. A., 1984a, *Euskal thesauruserako gaiak. Hegoaldeko testuak (1700-1745)*, EHUaren tesina argitaragabea, Gasteiz.
- , 1984b, “*Bertso Bizkaitarrak* (1688)”, *ASJU* 18:2, 89-185.
- , 1985, “XVII. mendeko bulda batez”, in J. L. Melena (arg.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario Oblatae*, EHU, Gasteiz.
- , 1986a, “Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharrak”, *ASJU* 20:2, 533-594.
- , 1986b, “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20:3, 639-682.
- , (arg.), 1988, *Hiztegiak eta Testuak*, EHU, Bilbo.
- , & Ruiz Arzalluz, I., (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, (*ASJU*-ren gehigarriak 14), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1997, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU* 31:2, 447-535.
- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas, Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*, Salamanca. Ediciones Vascas, Bilbo, 1978.
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuenze y Latín* (2 lib.), San Sebastián. Arg. faksimilea, Txertoa, Donostia, 1984.
- , c. 1764, *Corografía de Guipúzcoa*, ms. de la Real Academia de la Historia, fondo *Jesuitas*, leg. 62. J. I. Tellechea Idigorasen arg., Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1969.

- Larramendi, M., c. 1764, *Autobiografía y otros escritos*, J. I. Tellechea Idigorasen arg., Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1973.
- Lausberg, H., 1976 [1960], *Manual de Retórica literaria* (3. lib.). J. P. Riesco-ren itzulpena, Gredos, Madril.
- Mateos, F., 1959, “Sobre el Colegio de la Compañía de Jesús en Oñate a mediados del Siglo XVIII”, *BAP* 15, 17-30.
- Mitxelena, K., 1963, “Fr. Pedro Antonio de Añibarro. *Voces Bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra*” (erreseina), *BAP* 19. Orain in *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, I, 411-413.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbao.
- , 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 3. Orain in *Palabras y Textos*, 1987, 141-167.
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. osatua, *ASJU*-ren gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , [1981], “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. Orain in *Sobre Historia de la Lengua Vasca* (*ASJU*-ren eranskinak, 10), II, 680-693.
- Mocoroa, J.M. “Ibar”, 1935, *Genio y Lengua*, Tolosa.
- , 1990, *Repertorio de locuciones del hablar popular vasca*, 2 lib., Labayru, etab., Bilbo.
- Mortara Garavelli, B., 1988, *Manual de Retórica*, Cátedra, Madril.
- Muñoz Martín, R., 1995, *Lingüística para traducir*, Teide, Bartzelona.
- Onaindia, S., 1973, *Euskal Literatura II. XIX mendea*, Etor, Bilbo.
- Orixe, 1927, “Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra”, *Euskal Eснаlea* 17, 148-156, 169-173, 191-196, 205-215, 228-237 eta 246-252.
- Oskillaso [J. Basterrechea], 1984, *El libro negro del euskara*, LGEV, Bilbo.
- Pagola, I., 1984, “Neologismos en los Juegos Florales”, *ASJU* 18:1, 55-159.
- Pérez Goyena, A., 1947-1953, *Ensayo de Bibliografía Navarra. Desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910* (6 lib.), Burgos.
- Real Academia Española, [1726-1739], *Diccionario de Autoridades*, Berrarg. faks., 3 lib., Editorial Gredos, Madril, 1979.
- Rebuschi, G., 1988, “Note sur les pronoms dits ‘intensifs’ du basque”, *ASJU* 22:3, 827-844.
- Rijk, R. P. de, 1991, “Deux suffixes capricieux: *-pen* et *-men*”, in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), II, 709-751.
- , 1995, “Basque manner adverbs and their genesis”, *ASJU* 39:1, 53-82.
- Ruiz Arzalluz, I., 2000, “Itzulpenen edizioen arazoak: Orixeren *Aitorkizunen* adibidea”, EHUaren Donostiako Uda Ikastaroetan emandako hitzaldi argitaragabea.
- Ruiz de Larrinaga, J., 1924, “El vascófilo franciscano P. Fr. Juan Mateo de Zabala”, *RIEV* 15, 33-82 eta 313-336.

- Sarasola, I., 1980, *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, Doktorego tesi argitaragabea, Bartzelona.
- , 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20:1, 203-215.
- , 1996, *Euskal Hiztegia*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- Soloeta, F. M., 1910, “Añibarro traductor del *Guero*”, *RIEV* 4, 592-594.
- Uraga, B., 1991, “Markinako eskolako idazleen euskararekiko jarrera”, in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), I, 337-347.
- Urgell, B., 1985, “Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*” *ASJU* 19:1, 67-117.
- , 1986, *Añibarroren Esku-lburua eta literatur bizkaiera*, tesina argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , 1987a, “Añibarroren idazlanak I: *Nekea arindurik*”, *ASJU* 21:1, 211-263.
- , 1987b, “*Esku-liburuaren* grafi aldaketak (1802-1821)”, *ASJU* 21:2, 357-387.
- , 1987c, “*Esku-liburuaren* hiztegi aldaketak: 1. mailebuak”, *ASJU* 21:3, 683-708.
- , 1988a, “Añibarroren inguruan zertzelada batzu”, in Lakarra (arg.) 1988, 141-174.
- , 1988b, “Añibarroren idazlanak II: *Lora Sorta Espirituala* (1803)”, *ASJU* 22:1, 7-92.
- , 1991a, “Añibarro, Axularren itzultzaile”, in Lakarra (arg.) 1991, 315-336.
- , 1991b, “Axular eta Larramendi”, *ASJU* 25:3, 901-928.
- , 1992a, “Axular eta Larramendi”, in Lakarra (arg.) 1992a, 221-246.
- , 1992b, “Martin Harriet Añibarrorengan”, *ASJU* 26:1, 221-258.
- , 1996, “Hitzaurrea”, in F. I. Lardizabal, *Testamentu Berriko Kondaira*, Klasisikoak, Donostia.
- (arg.), 1999, *F. I. Lardizabal, Testamentu Berriko Kondaira*, EEE, Donostia.
- , 2000, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, tesi argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , 2001, “Axularren *Gero*-aren argitalpenak historian zehar”, prestatzen.
- Urkizu, P. et alii, 2000, *Historia de la Literatura Vasca*, UNED, Madril.
- Urquijo, J., 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes D’Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*, Paris. Berrarg. faks. *RIEV* 28, Bilbo, 1976.
- (arg.), 1923-1933, *Añibarro. Guero*, *RIEV* 14 (1923), 297-314, 486-501; 15 (1924), 245-261, 677-687; 16 (1925), 346-364; 17 (1926), 22-33, 516-528; 19 (1928), 88-99, 434-448; 20 (1929), 414-421; 22 (1931), 270-287, 603-630; 24 (1933), 198-224.
- Villasante, L., 1956, “Añibarro, euskal-idazle”, *Euzko-gogo* 7, 60-88.
- , 1961, “El padre Palacios. 1727-1804. Estampa de un gran Misionero de nuestro siglo XVII”, *Scriptorium Victoriense* 8, 7-40.
- , (arg.) 1963, *Voces Bascongadas*, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo.

- Villasante, L., (arg.), 1970, *Fr. Pedro A. de Añibarro. Gramática Bascongada*, ASJU III.
- , 1973, *Axular-en Hiztegia*, Jakin, Arantzazu / Oinati.
- , 1974, “El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz (1746-1840)”, *Scriptorium Victoriense* 21, 281-330.
- (arg.), 1976, *Axular. Gero*, Jakin, Arantzazu.
- , 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. arg. berrikusi eta osatua, Editorial Arantzazu, Burgos.
- , 1983, “En torno a una carta, hasta ahora inédita, del escritor vasco P. de Añibarro”, *Euskera* 28:2, 403-409.
- , 1986, *Aita Juan Mateo Zabalaren serrmoiak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Vinson, J., [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Berrarg. faks. J. Urquijoren oharrekin (ASJU-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- Zabala, J. M., 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, Baroja, Donostia.
- Zuazo, K., 1998, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 30, 191-233.
- Zubiri, I. & Zubiri, E., 1995, *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo..

Vici bedi Jesus

GUEROCÓ GUERÓ

edo

5 Guerocó luzamenduetan ibilteác eta arimaren
eguitecócac guerocó ichiteác cembat cálte dacartzan.

Escritura Santutic, Elessaco Doctore-etaric eta libru
devociñozcoetatic D. Pedro Axular Saraco Erretoreac
bildua eta arguitara emona.

10 *Aldatu dau Bizcayco eusquerara, garbituric lenago cituan uts
eta erracuntzeetatic, A. Fr. Pedro Antonio Añibarroc Zarauzco Colegio
Aita San Franciscoren Ordeaco Misionariac.*

Bear dirian licenciacz.

-
- 0-1 *Vici bedi Jesus*: Erdaraz *Viva Jesús* A. Palaciosen (cf. § 2.1) bere gauza guztietan jar-
tzen zuen lema dugu; Zarauzko misiolarien ezaugarri bihurtu zen (Villasante 1961:
30, 23. oh.). Añibarrok ere bere lan guztien buruan jarri ohi zuen, hemen bezala.
- 0-4 *luzamenduetan*: leh. *luzamendutan*, Axularrek bezala (ik. § 5.1.1.4).
- 0-5 *dacartzan*: *eguiten dituan-en ordez*, < *eguiten dituen* (GGero 1).
- 0-6/8 *Escritura Santutic...*: lerrokada osoa Axularrenenetik itzuli du, bere kabuz *D. Pedro*
erantsirik. Ondoko *Bigarren Edicionea corrigetua eta emendatua* desagertu da,
noski, baita argitaratzaileari dagokiona ere. Bien bitartean dagoen Bibliako latinez-
ko aipua hurrengo orrian aurkituko dugu (ik. 0-14/15 oh.), euskaraz jarria.
- 0-6 *Doctore-etaric*: nahiz eta hurrengo lerroan *devociñozcoetatic*; *-tatic* / *-taric* ablatibo
pluralerako, ik. § 4.3.1.
- 0-10 *erracuntzeetatic*: ik. § 4.2.4.
Antonio: gainean erantsia.
- 0-11 Lerro bukaeran *aldatu dau ut supra* idatzi du Añibarrok; konposatzailearentzako oha-
rra dirudi.

<2>

15 *Becataria, biurtu zaitte cembat lasterren Jangoicoagana, ta ez lucetu penitencia guerotica guerora.*
Eccli. cap. 5, v. 8.

<3>

IRACURLEARI

20 Iracurle bizcaytarra, oná emen ceure escuetan ta ceure eusqueraan *Axularren* libru famaduna. Euscaldunen Ciceronen icenaz icentaturic eta aitaturic ibilli da beti *Axular*; bada Aita Larramendi euscaldun guztien maissuac diñolez (P. M. Larramendi *Diccion. Triling.* fol. xxxv), bere eusquerea da ederra, nastu-baguea, uts-garbia ta ugaria; baieztu ta eracusten ditu eguiac Escritura, Elessaco Aita Santu, guertaldi, antz-irudintza adigarri arguiacaz;

-
- 0-14/15 *Becataria, biurtu zaitte...*: Axularrek portadan dakar aipua, latinez (ik. 0-6/8 oh.): *Ne tardes converti ad Dominum, & ne differas de die in diem.* Eccles. 5.
cembat lasterren: egitura ez da batere klasikoa, jakina (cf., adibidez, *OEH*, *LASTERREN*, s.v. *laster*), baina jasota dago bere hiztegian: “Con la brevedad, con el cuidado posible haré, harás, etc.: c. *al dodan lasterrena, al dozun contuz, alic onen, ceimbat lasterren, aibat lasterren*” (*VB*, s.v. *posible*).
lucetu: ik. § 4.2.1.
- 0-18 *Iracurleari < Iracurtçailleari* (*GGero* 15). Atal hau osoki Añibarrok ondua da; xehe-tasun gehiagotarako, ik. § 3.3.
- 0-20 *icentaturic eta aitaturic*: leh. *icentatic*.
- 0-21/22 *Aita Larramendi euscaldun guztien maissuac diñolez*: ondoan datorrena Larramendiren pasartearen itzulpena dugu, hitzez hitzekoa ia: “El Bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo, el assunto tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, exemplos y semejanzas muy oportunas. Los vicios pintados al natural, y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los Bascongados” (Larramendi 1745: xxxv).
- 0-24 *antz-irudintza*: Larramendiren *semejanzas*-en ordaina; Añibarrok *antz-irudi* erabili ohi du adiera honetan, edo bestela *irudintza* (cf. *OEH*, s.vv.).

25 aguertzen ditu becatuac biciro ta arguiro euren ezaintasun itsusi baltz guztiaz. Beragaitic diño, euscaldun guztien escuetan ibilli bear leuquela librú onec.

Au onela izan arren, euqui ditu libru onec non edo an lengo demporétan bere ecáchac, bere cérac: onetaraco bidea emon eban, bear etzirian persona
 30 errespetagarriac aotan artzeac, euren utsac aguertzeac, eta beste maquiña bat gauza, issilic igaro, estaldu ta gorde bear cirianac, zabaltzeac. Dirianac al-baitenez garbitu dira oraingo onetan; batez bere, ogueta amacagarren capitulutic berrogueta laugarrenaguiño laburtu dira gauza batzuc, beste batzuc quendu ta beste asco eransi ta gueiagotu, uste izanic convenico ez jaquela
 35 era guztico personai; ta bere iracurtzetic on baño, calte gueiago etorrigo lequiquielaco gazte ascori, len leguez gueldituco balira.

<4> Libru onetan aitatzen dirian Escritura Santa ta Doctoreen esanac, ezтира betibere verbativ verbara eusquerara biurto, iruli ta aldatu, cerren eusquereac eta beste verbacuntzac euren esaera ta verbaeguicune banaac, baccarrac ta berezcoac dituez. Citac edo deierac zuden edo oquer ete dagozan icus-

-
- adigarri*: izena denean, Añibarrok ‘señale’ adieran erabili ohi du, *VB*-n “sentido de algún dicho” eta “símil” ere (bietan c.) bederen bada ere; *OEH*-k (s.v.) izenondo gisa sailkatzen ditu hemen bezala izen baten ostean agertzen diren adibideak (*antz adigarria*, *señale adigarria* erakoak), baina Añibarroren ohiturak ezagaturik (cf. § 5.3.1), baliteke adibide hauetan guztietan aurreko izenaren sinonimoa izatea, eta ez izenondoa. Edonola ere, *VB*-n “inteligible” eta “oíble” ere bada (bietan c.).
- 0-25 *biciro*: leh. *viciro*.
itsusi baltz: *baltz* jartzen hasi, baina damututa, *itsusi* gainean erantsi zuen eta *baltz* er-tzean, zertxobait irtena.
- 0-26/27 *Beragaitic...*: esaldi osoa beranduago erantsia, lerro artean eta letra txikiagoan.
- 0-29 *bidea*: leh. *videa*.
- 0-31/32 *Dirianac al-baitenez garbitu dira oraingo onetan*: Añibarroren zentsuraz ik. § 3.3.
Dirianac: ‘denak’. Oso arrunta Añibarrorengan (cf. *OEH*, s.v., batez ere 2.a. atala).
al-baitenez: *OEH*-aren arabera (*ALBAITANEZ*, s.v. *ahalbait*), Añibarrok bakarrik erabilia, bi itxuratan: *al-baitanez* (*EL*¹ 12, baita *EL*²-n ere) eta *al-baitenez* (*LoraS* 59), hemen bezala. Hiztegiakoak omen dira gainerako lekukotasun bakarrak: *al-baitanez* dago *HH*-an, eta handik baita *VB*-n ere (bietan s.v. *poder*, “en cuanto se pueda” azpisarreran). Formari dagokionez, testu honetan *al-baitanez* sarrixeago agertzen da (1-217, 9-249, 20-7/8 eta 23-12), *al-baitenez* baino (15-235).
- 0-38 *verbativ verbara*: *VB* “palabra por palabra: b. *verbativ verba*; g. *itzez itz*”.
iruli: *irauli*-ren mendebaldeko aldaera, literaturan oso gutxi erabilia, areago adiera honetan (ik. *OEH*, s.v., batez ere 5. adierapean).
- 0-39 *esaera ta*: ta gainean erantsia.
verbaeguicune: hemen *esaera*-ren esanahikide gisa agertzen da, eta beheraxeago (0-46) *itzcuntza*-ren. *VB*-ko lekukotasunetarako eta Añibarroren beste adibide batzuetarako, ik. *OEH* (s.v.).
banaac: leh. *banac*, gainean, lehenengo *a*-ren gainean zehazkiago, beste bat erantsi duelarik; *baanac* ezinezkoa da, ostera. Ik. *OEH* (s.v. *bana* 2), ‘ezberdina’ adieraren adibide gehiagotarako, Añibarrorenak barne.
- 0-40 *deierac*: leh. *deiac*. Cf. *VB* “cita, citas: c. *deiac*, *deierac*” (< *HH* *deiera* “cita”).

- teco astiric euqui eztoz, eta doaz lengo erara, baña ifini, icentatu ta aitetu baga ce lecutan edo librutan dacardén Dotoréac aec gauzac, sentenciac ta esanac: bada ascori asco eragozten deutsee iracurteco jarraian, baldin idoroten badituez malla artean. Eusqueran, eguin dot aleguiña Bizcaycoari jarraitzeco; baña celan Colegio onetacooc ain laster gabiltzan Bizcayan cein Guipuzcoan, Araban ta Nafarroco verba eguicune ta itzcuntzetan, utsen batzuc idoroco dozuz, ta orduan, ito eguizuz issilic, ta irunsi epetasunaz ceure artean, oñon baga.
- 45
- Beinic bein iracurri eguizu gogo onaz; ta beronegan arquituco dozuz cia eraguinguilleac, argui arguitsuac, acullu zorrotzac ta eguia indartsuac, biztu, muguitu, atera ta irazartuteco zure arimea, baldin ceure adu ta zorigachez bazatzaz lozorroac arturic ta gogorturic becatuzco egotaldi arrigarrian. Onetaraco escatu eguiozu Jangoico gauza on guztien iturri ta emolleari bere arguia, bere escua ta bere gracia; ta, bide batez, escatu ta erregutu eguiozu,
- 50
- 55 arren, biocaitic. Ta onembestegaz: *Agur*.

-
- 0-41 *eztot*: leh. *ez dot*.
- 0-41/44 *baña... malla artean*: beheko ohar batean, duda gabe hemen tartekatzeko. Hitzoierdarazko hauek darraizkie: “Con esta advertencia se podrán omitir las citas de este libro, qdo. se ponga en limpio, como lo he hecho yo desde la pagina 220: pues a un pobre bascongado iliterato le impiden mucho, para ler [sic] de seguido, qdo. halla interrumpidas las lineas con otras citas. El curioso las puede ver en la primera impresion que hizo el Autor”; honetaz, ik. § 3.2.
- 0-42 *dacardén*: leh. *dacartén*; Urquijok (1923: 298, oh.) *dacararten* [sic] irakurtzen du. Zein zeinen zuzenketa den erabakitzen erraza ez bada ere (ik. § 6.2), kontuan har bedi liburu osoan *dacarde* dela forma bakarra: cf. *dacarde* (13-123, 38-16, 50-36), *dacardez* (35-37, 46-168), *dacardezala* (19-235), *eztacarde* (42-15) eta *eztacardenac* (15-281).
- 0-44 *malla artean*: *maila* ‘lerroa’ (ik. *OEH*, s.v., 1. adierapeko lehen azpiadieran).
- 0-46 *Nafarroco*: sic, -a itsatsirik ez bailuen (ik. § 5.1.1.1).
- verba eguicune ta*: gainean erantsia.
- 0-47 *issilic*: gainean erantsia.
- epetasunaz*: lasaitasunez, soseguz. Añibarroren hitz bereizgarrietako bat (cf. *OEH*, s.v.).
- 0-49 *beronegan*: bizidunen atzizkiaz; testuan zehar bost honelako aurkituko ditugu (ik. § 5.1.1.3).
- cia*: VB “aguijón”, etab.; itxura guztien arabera *ziri*-ren aldaera eta, nolana ere, -a itsatsirik gabekoa, testuan ez bezala (ik. § 5.1.1.1).
- 0-50 *eraguinguilleac*: VB “eficaz”.
- 0-51 *arimea*: leh. *arima*. a + a bilkuraren ondorioez, ik. § 4.2.3.
- 0-52 *egotaldi*: egoera. Oso normala Añibarroren lexikoan (cf. *OEH*, s.v. *egotaldi* 2).
- 0-54 *ta erregutu*: gainean erantsia.

60 <5> *Librucho au atera zan, ez bacarric arimén oneraco, baita apaindu, aci, gorde-eraguin, edertu ta zabaltzeco eusquerea; ta laguntzeco euscaldun icasle barriai; eta beragaitic ezteutsat quendu gura izan, Axularrec berac esqueñi ta zucendu eutsan Carta alabagarria Echaus Arzobispo Jaunari, eusquera garbi ederrean cirautsela onela:*

ENE JAUN BERTRAN DE ECHAUS TURSCO ARZOBISPO JAUNARI,
CERUCO GLORIA.

65 Neure Jaun maitea, joan zachataz lurretic, baña ez gogotic, eta ez biotzetic. Eldu nintzan: ezteustazu ichadon. Baña eneac dira útsac, fáltac; nirea da errua. Guerotic guerora ibilli nas; eta alan dabillenari guerta oi jacona, jazo jat niri bere.

Baña orrez guztiaz, neure zor premiazco andiac, ontasun ta ondasun artúac, ta beti nire alderaco, obra ta eguite onacaz batean, eracutsi dozun bo-

-
- 0-61 *ENE = GGero 3. Ez du beti mantentzen; cf., adibidez, nirea da errua < enea da hobena (0-64/65). Añibarroren idazkeran posesibo honek daukan leku eta banaketaz ik. § 4.3.7.*
ARZOBISPO JAUNARI: Axularrek askoz titulu gehiago eransten ditu: Tursco Arzipizpicu, Franciaco lehenbico erremusinari, Ordenaco aitoren seme, eta erregueren Conseillari famatuari (GGero 3).
- 0-64 *Eldu nintzan: ezteustazu ichadon < Heldu nintzen. Ezterautacu iguriqui (GGero 3). Villasantek (1976: 3) “Llegué, por fin, pero no me has aguardado” itzuli arren, badirudi “Banentorren. Ez didazu itxaron” dukegula. Heldu-ren erabilera defektibo honekin gorabehera handiak ditu Añibarrok itzulpenean zehar (ik. § 5.3.4).*
útsac, faltac < faltac (GGero 3).
- 0-65 *guerta oi jacona < guerthatcen ohi çaicana (GGero 4). Ia beti partizipioa gerta da Añibarrorengan (ik. § 4.3.9).*
- 0-67 *zor premiazco andiac < obligacino handiec (GGero 4).*
ontasun ta ondasun < ontasun (GGero 4).
- 0-67/68 *artúac: gainean, errecivituac-en orde, < errecibituec (GGero 4).*
- 0-68 *nire alderaco < ene alderacoçat (GGero 4).*
obra ta eguite onacaz < obrequiñ (GGero 4).

70 rondate borondatetsuac ezteusté laquetu ta ichiten, ondoan, azquenean, ostean ta guero bada bere, zure gomute eguin бага, librucho au campora ateratzeco auzardía ta atrebencia artzera.

Cerren beguitandu, uste ta iruditen jat oraindiño bici zareala, beguien aurrean aurrez aur zaitudala; eta, alan, ala baceunquedaz leguez, berba eguin gura deusut.

75 Aita prestu onradu ondo icusi bat ilten danean, bere ondorengo guelditzen dan seme umezurtza, lecu ascotan <6> da aitaren maitetasunagaitic ondo etorria ta biotz onaz artua. Librucho au da umezurtza, *Posthumus*, aita illez guero sortua. Baña zu lango aitaren semea, umezurtza izanagaitic bere, ecin legoque deunguero; cerren guerobere zure prestutasunac, onrac ta fama
80 onac balioco deusé.

Eta zure prestutasunaz, onreaz, anditasunaz, eta aurrengo ta ondoco fama on famatuaz norc cer esango dau?

Nor da Euscal Errietan aldez edo molde zordun ta beartua ez jatzunic? Beartu ta empleatu etzaituenic? Eta zugaz valiatu eztanic? Zure echea, egon

-
- 0-68/69 *borondate borondatetsuac*: leh. v- bietan, Axularrek bezala (*GGero* 4); ik. § 4.1.2.
 0-69 *laquetu ta ichiten < utzen* (*GGero* 4).
 0-69/70 *ondoan, azquenean, ostean ta guero < ondotic* (*GGero* 4). Sinonimo pilaketez, ik. § 5.5.3.
 0-71 *auzardía ta atrebencia < ausartciaren* (*GGero* 4). *VB ausardia* (g.) “atrevimiento” eta “osadía”. Txistukaria bizk. *azartu, aizartu* eta familiari zor bide zaio (cf. *OEH*, s.v. *azartu*, etab.); itxura berean beste behin agertzen da (0-102), gero *ausardia* darabil (ik. 2-62, 11-51, 11-182, 11-191, 11-311), eta 11. burutik aurrera ez dago adibiderik. *atrebencia*: ik. 11-182. oh.
 0-72 *beguitandu, uste ta iruditen jat < iduritzen çait* (*GGero* 4). *beguitandu, uste*: gainean erantsiak. *jat*: ondoan *ece*, ezabatua, < *ecen* (*GGero* 4). *bici*: leh. *vici*; Axularrek ere *bici* dakar hemen (*GGero* 4).
 0-72/73 *beguien aurrean aurrez aur < beguien aiticinean* (*GGero* 4).
 0-73 *berba*: leh. *verba*.
 0-75 *prestu onradu ondo icusi < prestu ohorezco* (*GGero* 4).
 0-76 *aitaren maitetasunagaitic < bere aitaren amoreac gatic* (*GGero* 4); *amoreac gatic* esapideaz ik. § 5.3.4.
 0-77 *biotz onaz artua < arraiqui errecibitua* (*GGero* 4); ik. § 5.1.4.
 0-78 *illez guero = GGero* 4; Añibarrok *ill ezquero* tankeran idazten ditu honelakoak; cf., adib., hurrengo bi agerraldiak: *eguin ezquero* (0-158 eta 1-25). *lango*: leh. *laco*. Gainerako agerraldietan *laco* bakarrik erabiltzen du (8-250, 11-221 eta 15-149).
 0-79 *ecin legoque deunguero < eciñ dateque gaizqui* (*GGero* 4). Sarritan aurkituko dugu *izan > egon* aldaketa testuan zehar (ik. § 5.1.3.8).
 0-80 *balioco deusé < valiatuco baitçaitça* (*GGero* 5).
 0-83 *Euscal Errietan < Escal herrian* (*GGero* 5) < *Euscal-herrian* (*Gero* 5). Aldaketa esanguratsua da, singularrak eta pluralak batzuetan eta batzuentzat adiera bera izan dutela egiaztatzeko: cf. *OEH*, s.v. *Euskal Herri*, non antzerako adibide argi zenbait (Cb *EBO* 61, etab.), zalantzako eta bestelakoekin nahaste eskaintzen diren.

- 85 eta ibilli zarean lecu guztietan, beti izan da euscaldunen echea, estalpea, vici-lecua, portua ta ostatua. Guztia cirian zugana laster; zuri euren quejac, eguitecoac, naibagueac, coitac, beartasunac ta premiñac aguertu ta adierazoten eutsuezan. Eta zuc guztia biotzez ta pocic errecivitzen cenducen; zurtasunaz consejatu, zucendu, gobernatu, zaindu ta burutan atera.
- 90 Zu izan zará, ta izango zará, euscaldunen ondragarria, aguea, jabea, sendotzallea ta cantabro fiña, naturala, prestua ta eguiazcoa.
- Zu izan zara, *Echaus*, Mendi Pirineoetaco Alduideco egaletan beti centinela ta beguiratzalle leguez, irazarriric dagoán jauregui ta gaztelu andi, eder, noble ataco seme. Anjo bizcondeac eta seme guztia izan dira betibere, gaurguiño, Erreguec empleatuac, estimatuac, maitetuac, fiñ ta leial probatuac. Eta bai eguiazco fedearen ta leguearen defenditzalleac, aguintariac eta aurreratzalle nagusiac bere.
- <7> Nafarroa beco lecu aetan, beste lecu ascotan leguez, christiñau-legue santa catoliquea, ustez argalduaz, galduaz, otz epelduaz ta jausiaz joia-

-
- aldez edo moldez = *GGero* 5; ik. § 5.3.3.
zordun ta beartua ez jatzunic < *çordun eta obligatu etçaitçunic* (*GGero* 5). *beartua*: gainean, *obligatua*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; honelako gertakariez, ik. § 6.2.
- 0-84 *zugaz valiatu eztan* < *valiatu etçaitçanic* (*GGero* 5).
 0-85/86 *echea, estalpea, vici-lecua, portua ta ostatua* < *etchea, pausa leccua eta portua* (*GGero* 5).
- 0-86 *cirian zugana laster* < *çure gana laster* (*GGero* 5), aditzik gabe (ik. § 5.2.17).
 0-86/87 *quejac, eguitecoac, naibagueac, coitac, beartasunac ta premiñac* < *arrencurac, eguitecoac, coitac eta ondicoac* (*GGero* 5).
- 0-87/88 *aguertu ta adierazoten eutsuezan* < *conta* (*GGero* 5).
 0-88 *biotzez ta pocic* < *arraiçui eta alegueraçui* (*GGero* 5); ik. § 5.1.4.
errecivitzen cenducen < *errecibi* (*GGero* 5).
- 0-88/89 *zurtasunaz* < *çuhurçui* (*GGero* 5).
 0-89 *consejatu, zucendu, gobernatu, zaindu ta burutan atera* < *conseilla, quida, governa eta burutan athera* (*GGero* 5). *Burutan atera* ('onik bukatu' edo) ezezaguna da Hegoaldeko tradizioan (cf. *OEH*, s.v. *buru*), Añibarrok lainoki onartu arren (ik. § 5.3.3).
- 0-90 *aguea* < *habea* (*GGero* 5). *VB* "viga que sustenta otras: c. *abea, aguea*".
 0-90/91 *sendotzallea* < *sostengua* (*GGero* 5).
 0-92 *Mendi Pirineoetaco Alduideco egaletan* < *mendi Pyrinioetan, Alduideco hegaletan* (*GGero* 5).
- 0-92/93 *centinela ta beguiratzalle* < *centinela eta beguiraille* (*GGero* 5). *beguiratzalle*: *XX*. mendera arte, Añibarro da Hegoaldean adiera honetan erabiltzen duen idazle bakarra (cf. *Lora*§ 163 eta *OEH*, s.v.).
- 0-95 *Erreguec empleatuac* < *Erreguez emplegatuac* (*GGero* 6). Añibarrok ez du onartzen, beraz, instrumentala egile modura (cf. *EGLU* I, 433).
estimatuac, maitetuac < *estimatuac* (*GGero* 6).
- 0-96 *defenditzalleac* < *defendatçaille* (*GGero* 6).
 0-96/97 *aguintariac eta aurreratzalle nagusiac* < *aicinatçaille buruçaguiac* (*GGero* 6).
 0-98 *beco* < *behereco* (*GGero* 6).
lecu aetan < *parte hetan* (*GGero* 6); cf. *gero bertce anhitz leccutan beçala* > *beste lecu ascotan leguez*.
- 0-99/100 *argalduaz, galduaz, otz epelduaz ta jausiaz joianean* < *flacatcera, cordocacera eta erortcera cihoeanean* (*GGero* 6).

- 100 nean, baqui munduac celan zure aita jauna, bere echeaz, ondasunez ta vici-
tzez bere contu guichi eguiñic, joan zan Donapalaia, non cegoan orduan
Nafarroaco Aguintaritzza. Eta auzardia andi bateaz bere biotz christiñau pres-
tu sendoaz asi zan, ezpata billosa escuan arturic, dedarrez, Matatias bat bere
105 demporan leguez, esaten ebala: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testa-
mentum exeat post me* (1 Macab. cap. 2.): Ea christiñauac, christau icenaz
izana dozuena, beste lan bear eguiteco guztiac larga ta ichiric, neuganatu
zaitece, jarraitu eguidazue, ta eguiatzco legue ta fedea mantendu, eutsi, ta ir-
metasun guztiaz gorde ta jagotera lagundu eguidazue. Eta aimbeste eguin
eban, non bere erria, ta ingurucoac bere, aetara sartutera joian gaisotasune-
110 tic gorde cituen. Eta guero andic artara venganzaz, dollorqueriaz, villau-ci-
teltasunaz ta prestuezqueriaz erre ta banatu eutsen bere jauregui eder polita.
Onelacóac cirian zure aita jaun ta bai beste zure aurrengoac bere.

Bada eztozu zuc bere ceure jaiotz-etorreraz ucatu, etzara ceure jatorriz-
co sustrai etorquitic camporatu, alderatu ta urrindu: cerren zuc bere, Baio-

-
- 0-100 *baqui*: ik. § 4.3.10.13.
0-102 *Nafarroaco Aguintaritzza* < *Nafarroaco Parlameta* (GGero 6); ik. § 5.3.2.
auzardia: -z- s baten gainean egin duela dirudi; cf. 0-71. oh.
bateaz: ik. § 4.2.6.
0-102/103 *prestu sendoaz* < *noblearequin* (GGero 6). Sozietibo eta instrumentalaren arteko go-
rabeheraz, ik. § 5.1.1.11.
0-104/105 *Omnis qui...*: oso gertakari bakana dugu Añibarrok latinezko bertsoia ere ematea (ik.
§ 5.4.1).
0-105 *christiñauac, christau* < *guiristinoac, guiristiño* (GGero 6). Errepikapena saihesteko
(ik. § 5.5.1) erabiltzen bide du bigarren forma, idazle bizkaitarrek (bera barne) ber-
tsotan baino erabili ohi ez baitute (OEH, s.v.).
0-105/106 *icenaz izana* < *icenarequiñ izana* (GGero 6).
0-106 *lan bear eguiteco* < *eguiteco* (GGero 6-7).
larga ta ichiric < *utciric* (GGero 7).
0-106/107 *neuganatu zaitece* < *hurbil çaquizquidate* (GGero 7).
0-107 *jarraitu eguidazue* < *iarraiqui çaquizquidate* (GGero 7).
legue ta fedea < *leguearen eta fedearen* (GGero 7). Añibarrok, Axularrek ez bezala,
azken osagaian bakarrik jarri ohi du atzizkia (ik. § 5.2.5).
0-107/108 *mantendu, eutsi, ta irmetasun guztiaz gorde ta jagotera* < *mantenatcen eta sostenga-
tzen* (GGero 7).
0-108 *lagundu eguidazue* < *lagun çaquizquidate* (GGero 7).
0-109 *aetara sartutera* < *hetan sartcera* (GGero 7).
0-109/110 *gaisotasunetic*: eskuarki <gaisso-> (ik. 13-214. oh.).
0-110 *andic artara* < *handic hartaco* (GGero 7): ez dirudi ongi ulertu duenik.
0-110/111 *venganzaz... ta prestuezqueriaz* < *herraz eta mendecuz* (GGero 7). VB “vileza: c. bi-
llauqueria, dollorqueria, prestuezqueria, -eztasuna, citelqueria”.
0-111 *erre ta banatu eutsen bere jauregui eder polita* < *bere iauregui ederra erre cioten*
(GGero 7). Hitz-ordena aldatetaz, ik. § 5.2.1.
0-112 *zure aita jaun ta bai beste zure aurrengoac bere* < *çure aita iauna eta bai...* (GGero 7).
0-113 *ceure jaiotz-etorreraz ucatu* < *çure arraçaz ucatu* (GGero 7). VB jaiotza “origen” (c.)
eta *etorrera* “estirpe”, “linage, estirpe” (c.).
0-113/114 *zure jatorrizco sustrai etorquitic* < *ceure leiñutic eta ethorquitic* (GGero 7).

- 115 naco Obispo ciñenean ta visitan cembiltzenean, icusiric elessatic campora
 cebiltzen gente gaisto oquer batzuc gura ebéla bere azquen fiñean gorputz
 illac elessan sartu ta lurpetu; ceure visita ausiric, Nafarroaco iru Estaduac
 bilduric, joan ciñian Erreguearen aurrera; eta an neque-pen asco igaroric,
 120 andic ará alaco gaistaqueria eragozteco ordenamentua, escubidea ta leguea.
 Eguiaz, etzara zu bere ceure aurrengoan ta Christiñautasu[naren] atzeratzal-
 lea izan.

- Bada, ez eta onraren amatatzalle ta iltzallea bere. Lenagotic bai, badiru-
 di ece zuc gogo óna aurreratu dozula, muga ta marra igaro dozula, ta *Echaus-*
 125 *co* echeco soñeco gorriaz janzteco videetan izan zareala. Cerren ezta ezta-
 quienic, Erreguec ataraco autu ta icentatu cinduala. Eta colpea uts eguin
 bada bere, ezta uts eguin zure erruz edo zu ataraco ez gai izanez; cerren, ichi
 ta largaric alde batera zure merecimendu andiac, eta Elessari, Erregueari ta

-
- 0-116 *gente gaisto oquer batzuc < iende batçuec (GGero 7). Maiz eransten ditu izenondo ka-*
lifikatzaileak (ik. § 5.4.2).
ebéla: pluralean behar luke, osagarri zuzena gorputz illac baita; cf. cituztela (GGero 7).
 0-116/117 *gorputz illac < gorputzac (GGero 7).*
 0-118 *joan: jat. joañ (arg. zuz).*
Erreguearen aurrera < Gorthera (GGero 7).
neque-pen < travaillu (GGero 7).
 0-119 *contra-carra = GGero 7. OEH-aren arabera (s.v.), kontrakar ez da testuetan Axula-*
rrengan baizik aurkitzen XX. mendera arte, harengandik hiztegiatar (Pouvreau,
Harriet, HH-aren eranskina) igaro bada ere. Añibarrok onartzen dizkion hitzez, eta
zehazkiago honetaz egiten duen erabileraz, ik. § 5.3.3.
sendagarria < erremedioa (GGero 8).
 0-120 *gaistaqueria eragozteco < desordenuen debeatceco (GGero 8).*
ordenamentua, escubidea ta leguea < ordenantça eta manamendua (GGero 8).
 0-121 *Eguiaz < Beraz (GGero 8); beraz-en esanahia asmatzeko izan zituen arazoez, ik. §*
5.3.4.
Christiñautasu[naren]: -tasu ondoren datorrena ez da ondo irakurtzen, < guiristiño-
tasunaren (GGero 8).
 0-121/122 *atzeratzallea izan < guibelatçaille içatu (GGero 8). Axularren mugagabe ugarietatik*
Añibarrok batzuk bakarrik onartzen ditu (ik. § 5.1.1.5).
 0-123 *amatatzalle ta iltzallea < irauungitçaille (GGero 8).*
 0-124 *gogo óna: berez chedea-ren itzulpena da (GGero 8); gainerakotik erabat bereizten*
duen letren estuagatik, badirudi geroago ezarri dela, utzitako hutsunean edo.
 0-124/125 *Echausco echeco soñeco gorriaz < Etchaus etchearen arropa gorriaz (GGero 8). Ez*
dago beti ados Añibarro Axularrek hautatu duen genitibo motaz (ik. § 5.1.1.8).
 0-125 *janzteco < vestitceco (GGero 8).*
 0-127 *etzta uts eguin... izanez < eztela çure faltaz edo çu hartaco ez gai içanez huts eguiñ*
(GGero 8). Ezezko perpausan partizipioa laguntzailearen ondora eraman du Añiba-
rrok (ik. § 5.2.1.1).
 0-127/128 *ichi ta largaric < utciric (GGero 8).*
 0-128 *merecimendu = GGero 8; Añibarrok eskuarki -mentu erabiltzen eta Axularrenak*
bihurtzen ditu, baina ez hau bezalako zenbait itzuri gabe (ik. § 4.2.11).
Erregueari < erregueri (GGero 8); ik. § 5.1.1.4.

130 Comun guztiari ocasiño ta era ascotan eguin deutsezuzan eguite ónac, naturaleza berac bere dotatu ta bete-beteen emon deutsuz doe apaingarri asco: Adimentu eder bat, gomute andi bat ta vorondate onera, onrara ta prestutasunera jausi bat, zabaldu bat, macurtu bat ta emon bat emon deutsuz.

135 Baña, certaraco sartzen nas ni ichaso ossin ondarbague onetan? Ecin urten nintequen baso ta beresi onetan? Zure alabanzac aitatzen? Eurac eurez euren buruz dira verbaguille andizcari ta alabanzaric asco; eurac dira eureetan arguiac, jaquiñac, icusiatic, ezagutuac, aguertuac ta celambere aguiriac. Ichi ta larga daguidazan eguiac nic oneec, utsic eztaguidan. Eta igaroten nasala aurrera, esan daguidan utsic eguin baga: cerbait escrititzen bada eusqueraz, á guztia euscaldunen lenengo buruari leguez, zuri dagotzula, zuri zor

-
- 0-129 *ocasiño ta era ascotan < anhitz occasinotan (GGero 8). eguite ónac < cerbitçuac eta endreçuac (GGero 8).*
- 0-129/130 *naturaleza berac < naturaleçac berac (GGero 8); ik. § 5.1.2.3.*
- 0-130 *dotatu ta... doe apaingarri asco < anhitz donu, dohaiñ eta abantail suertez dotatu, hornitu eta complitu baitçaitu (GGero 8). Ziurrenik apaingarri izentzat jo behar dugu, doe-ren nolabaiteko esanahikidetzat (ik. § 5.3.1).*
- 0-131 *gomute: gainean, memoria-ren orde, baina hau ezabatu gabe, < memoria (GGero 8); gomute da, izan ere, maileguaren orde aurrerantzean erabili ohi duen hitza: cf., adib., 5-89 (< accordua, GGero 73) eta 6-95 (< memoria; ik. dagokion oh.).*
- 0-132 *jausi bat... emon deutsuz < erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratçu (GGero 9); ik. § 5.5.1.*
- 0-133 *ichaso ossin ondarbague < itsas hondar gabe (GGero 9); ossin gainean erantsita dago. Logikaren arabera, ossin ichaso-ren kide gisa erantsia badateke ere, kontuan har bedi Añibarrok becatuaren (edo becatuen) oxin ondarrean sartu esapidea maiztxo erabiltzen duela (ik. 8-147, 11-306 eta 41-94/95), oxin eta ondar esanahikidetzat zituela aditzera emanez: cf., adib., VB “profundidad en el río: c. oxina, osina, urbarria, ondoa, ondarra”.*
- 0-133/134 *urten nintequen < athera naitequeyen (GGero 9). Axularrek eragin bide du urten iragangaitz jokatzera hemen, ohi ez bezala: cf., adib., urteten dabenean (8-191) edo urtengo ebala (10-64).*
- 0-134 *baso ta beresi onetan < oihanean (GGero 9). VB “bosque: c. beresia, basoa; n. oyaná”.*
Zure alabanzac aitatzen? < Çure laudorioen aippamenean? (GGero 9).
- 0-134/135 *Eurac eurez euren buruz dira < Berac dira bere buruz (GGero 9); ik. § 5.1.2.5.*
- 0-135 *verbaguille andizcari ta alabanzaric asco < asco gora mintço (GGero 9). Bestalde, andizcari-ren ondoan ta andizcari, ezabatua: bistan da kopiatzen ari dela.*
- 0-135/136 *eurac dira eureetan < berac dira bere baithan (GGero 9). Itzulpen ilunskoa (ik. § 5.3.4).*
- 0-136 *arguiac... ta celambere aguiriac < asco clar eta ozen (GGero 9). aguertuac: gainean erantsia.*
- 0-137 *Ichi ta larga < Utz (GGero 9). eguiac < beraz (GGero 9); ik. § 5.3.4.*
- 0-138 *esan daguidan < derradan (GGero 9); ik. § 5.1.3.7.*

- 140 jatzula; eta errazoiak orain bere librucho au zuri presentatu ta aurrean ifini bear jatzula. Bada, zure servitzari chiqui onen lan apur au, guerotic guerora eguitecoac lucetuteac cembat calte gogor dacartzan, zuc ain ondo daquizun gai au, nori egongo jaco, <9> zuri ezpajagotzu? Norc arteztu, zucendu, noc echeratuco dau, zuc ezpada?
- 145 Zure egape ta guerizpean doa; zure bitartetasunaren azpian estalpeturic menturatzen da. Artu eguizu, bada; gorde, zaindu ta jagon eguizu; lagun zaquioz; eguiozu beguirarte on. Idoro bedi librucho onetan *Echhaus* ta *Echhausen* fama ta icena. Cerren alan eta agaz batean, ibillico dan lecu guztietan,

-
- 0-140 *errazoiak orain bere librucho au < arraçoñez orai ere (GGero 9):* Añibarro aurreratu egin da, Axularrek ez baitu oraindik bere lanaren aipurik egiten, hurrengo esaldian baizik (ik. § 5.4.3).
presentatu ta aurrean ifini < presentatu (GGero 9).
- 0-141 *Bada, zure servitzari... < Eta guztiz ere çure cerbitçari... (GGero 9).* Honela konpondu du aurreratua (cf. 0-140. oh.).
- 0-142 *cembat calte gogor dacartzan < cenbat calte daccarqueyen (GGero 9).*
- 0-143 *gai < pontu (GGero 9).*
nori egongo jaco, zuri ezpajagotzu? < nori egonen çaica, çuri ezpadagotzu? (GGero 9). *OEH*-ak (s.v. *egon* 2) trinkoen adibideak baino jasotzen ez dituenek, ez daukagu jakiterik adiera honetan forma perifrastikoak zeinen arrunt edo ezohiko ziren orduan; hala eta guztiz ere, egingo nuke ez zirela oso ohikoak, ez Hegoaldean bederen, Añibarrok ausarki gorde baditu ere.
- 0-143/144 *Norc arteztu, zucendu, noc echeratuco dau < Norc quidatuco, norc ostatuco du (GGero 9).*
- 0-144 *zuc ezpada < çuc ezpadeçaçu (GGero 9).* *Ezpada* ezohiko ordenan, sintagmaren bukaeran, Axularren egituraren eraginez, nonbait (cf. *OEH*, s.v.); honezaz gainera, galderari darraiola, eta ez ezezko perpausari, *OEH*-ak adibide bakar bat jaso du, Zabalarena hain zuzen.
- 0-145 *egape ta guerizpean < gueričan (GGero 9).*
bitartetasunaren azpian estalpeturic < itçalaren azpian (GGero 9).
- 0-146 *menturatzen: men-* gainean, baina beheko *ben-* ezabatu gabe, < *venturatcen (GGero 9)*. Itzulpenaren hasieran *menturatu* (eta *mentura*) darabil (ik. 5-3 eta 5-78, adib.), baina bukaera aldera *benturatu* (eta *bentura*), noiz bere kabuz (43-94 eta 52-76), noiz Axularri hartuta (48-177 < *venturatcea*, *GGero* 548). Cf. *VB* “arriesgar: c. (...) *ben*, *o menturatu*” eta *venturatu* (c.) “atreverse” (bigarrena bakarrik *HH*-tik hartua). *OEH*-aren datuen arabera (s.vv. *mentura* eta *menturatu*), Añibarro aditza erabiltzen duen Hegoaldeko lehen idazlea dugu, eta bakanetakoa *XX*. mendera arte, baina aditza eta izena, biak itzulpen honetan bakarrik agertzen dira, dakidalarik; formaren aldetiko zalantza, bestalde, bestek ere aurkezten du *XIX*. mendearen hasieratik aurrera, orduraino *ben-* aldaerak Hegoaldean betetako lekua kordokan jartzen hasiaz.
Artu eguizu < Errecibi eçaçu (GGero 9).
gorde, zaindu ta jagon eguizu < deffenda eçaçu (GGero 9).
- 0-146/147 *lagun zaquioz < alde çauitça (GGero 9).* Ohartu aditzoinari (ik. § 5.1.3.2).
- 0-147 *eguiozu beguirarte on < eguiocu beguitarte (GGero 10);* ik. 22-90. oh.
- 0-148 *fama ta icena < omena eta icena (GGero 10).*

150 burua gora ecarrico dau; buruz macurtuco jaco^z guztia^c; iñoren bildur guichi izango dau; gente artera bere beguirarte^a lotsa бага ataraco dau.

Bai, baña joan zará; lecu^z aldatu zara; emengo aldia eguin dozu. Eguia da, alan da. Eta alde^z damu dot, ta alde^z atseguin. Damu, cerren ez jaco iñori bere andic, niri adiña edo dumbeste calte etorri.

155 Atseguin, cerren nola eztan betico lurreco vicitzau, ta zuc ceurea igaro dozun ain ondo ta ain zorionqui, uste dot Ceruco glorian Jangoicoaren laguntzan doatsuturic zagozala; eta ortic elduco zachatazala, escua emongo deustazula; ta arrañoa aidean doianean, bere umétara leguez, zuc bere beguia nigan ifinico dozula. Eta nic bere (emengo aldia eguin ezquero), Jangoicoaren graziaz ta zure bitartetasunaz batera, zure zoriona irabacico dodala: ta or-

-
- 0-149 *buruz macurtuco jaco^z guztia^c < burupe ičanen du (GGero 10). Burupe etimologiko-ki itzuli duela dirudi (ik. § 5.3.3); cf., ildo berean, VB “latría, culto que solo se deve a Dios: c. Jangoicoari burupe edo macur eguitea”.*
- 0-150 *beguirarte^a < beguitarte^a (GGero 10). lotsa бага < ausartqui (GGero 10).*
- 0-152 *alde^z... alde^z... = GGero 10.*
- 0-153 *adiña edo dumbeste < niri bečanbat (GGero 10). edo: gaineran erantsia. dumbeste (edo dun beste) Añibaroren lehen liburuetako (EL¹, LoraS) idazkeraren berezitasunetarik bat da (cf. OEH, s.v. beste II). GGero-n hasierako buruetan soilik aurkitzen da (ik. 2-66, 6-72, 9-117 eta 16-240), eta behin azkenik laimbeste-z ordezkaturata (ik. 10-100. oh.).*
- 0-154 *nola: gainean erantsia; ik. 1-80. oh. eztan betico lurreco vicitzau < ezpaicara bi mendetaco (GGero 10).*
- 0-154/155 *zuc ceurea igaro dozun ain ondo ta ain zorionqui < çuc ceurea haiñ ongui, haiñ ohoresqui eta dohatsui iragan baituçu (GGero 10). zorionqui: cf. HH zoriongui “felizmente”.*
- 0-155 *uste dot < esperantça baitut (GGero 10).*
- 0-155/156 *Jangoicoaren laguntzan < Iaincoaren compaiñian (GGero 10).*
- 0-156 *doatsuturic zagozala < credit handiarequiñ çaudela (GGero 10). doatsuturic: cf. doatsutu “felicitar, hacer feliz” (HH eta VB). zachatazala: leh. zachatacela; cf. elduten zachatazala “que tu me llegas” (GB 33) eta ik. § 4.2.1.*
- 0-157 *arrañoa: cf. VB “aguila: c. arranoa, arrañoa”. Bestalde, Axularrek arranoac dakar (GGero 10), aditz nagusiarekin komunztadura eginez, Añibarrok doianean-ekin egiten duen bitartean.*
- 0-157/158 *zuc bere beguia nigan ifinico dozula < çuc ere nigana beguia eduquico duçula (GGero 10); nekez itzuli du begia eduki ‘zaindu, begiratu’ lapurtera klasikoko esapidea (cf. OEH, BEGIA(K) EDUKI, s.v. begi).*
- 0-158 *Eta nic bere < Eta guero nic ere (GGero 10-11). emengo aldia eguin ezquero < hemengo aldia eguiñ hurran baitut (GGero 11); hurran itzultzeko arazoez, ik. § 5.3.4.*
- 0-158/159 *Jangoicoaren graziaz ta zure bitartetasunaz batera < Iaincoaren garaciarequiñ eta çure arartecotasunarequiñ batean (GGero 11).*
- 0-159 *zoriona < çorthe ona (GGero 11).*

160 duan guztien esker onac emongo deusudazala. Jangoicoac alan guerta ta gura izan daguiala.

Zure servitzari chiquiena ta obligatuena,

PEDRO AXULAR.

0-160/161 *Jangoicoac alan guerta ta gura izan daguiala < Iaincoac hala nahi duela (GGero 11). guerta eransketa iluna da (formaz ik. 0-65. oh.): gertatu iragankorra, 'gertarazi' adieran, Etxeberri Ziburukoak bakarrik erabiltzen du (ik. OEH, s.v. gertatu 4); cf., agian hurbilago, Jaungoikoak zeruan gertatu dezan (Zab Gabon 68, ap. OEH, 3. adieraren bukaeran), hau ere tradizioan bakartua.*

0-163 *Pedro Axular < P. de Axular (GGero 11). Gogora bere buruari euskaraz Añibarro eta ez de Añibarro deitzen diola hasieran.*

<11>

GUEROTIC GUERORA

*ibilteac dacartzen calteac eracutsi baño len
esango da cerbait alpertasunaren ganean, bada emendic
dator gueroco lucemenduan ibiltea.*

5

LENENGO BURUA

*Celan, besteac beste diriala, alperqueriatic igues
eguiteagaitic bere, bear eguin bear dan.*

1 §.

10 Gure Jangoicoac, munduco beste gauza guztien ondoan guizona bera, bere gai antz, bere imagiña eta irudira, bapere becatu-ric eta becatuaren erras- turic bere baga, apaindura, doe ta era guztico edertasunez dotaturic ta zo- rionduric eguin ebanean, ifini eban bertati lurrac euquen parteric, lecu ta to-

1-2 *GUEROTIC GUERORA*: honen aurrean Axularrek *GUERO HASTEN DA* dakar (*GGero* 21).

1-4/5 *bada... ibiltea*: letra txikiagoaz lerro artean erantsia. Izenburua oro har Añibarrorena da; Axularrek *GUEROTIC GUERORA dabillanaz eguiten den liburuaren lehen parte* dio (*GGero* 21).

1-6 *BURUA*: leh. *Capitulua*, Axularrek bezala (*GGero* 21).

1-7 *Celan*: leh. *Nola*, Axularrek bezala (*GGero* 21); ik. 1-80. oh.

besteac beste: leh. *besteac besteac*, < *bertceac bertce* (*GGero* 21); ik. 15-141. oh.

1-8 *bear eguin bear dan* < *behar den trabaiillatu* (*GGero* 21).

1-11 *bere gai antz*: Añibarroren itzulpen askea (ik. § 5.3.4), < *bere gainqui* (*GGero* 21).

bere imagiña eta irudira < *bere imaginara eta idurira* (*GGero* 21).

1-11/12 *errasturic*: leh. *jausteric*, < *cutsuric* (*GGero* 21).

1-13 *bertati*: *-i* ostein tinta nato bat; ziurrenik leh. *bertatic*, < *berehala* (*GGero* 21). *-ti / -tic* zalantzaz ik. § 4.3.1. Bestalde, *bereala* ere, *bertati(c)* bezala, komun bada ere bere ustetan (cf. *VB*, s.v. *inmediatamente*, etab.), sarrienik aldatu egiten du.

15 quiric onenean, lurreco Parabisuan, egotaldi atseguintasunez, zorionez ta gozotasunez betean. Eta aguindu eutsan landu eguiala, bear eguin, zaindu, jagon ta gorde ondo á Parabisua (Genes. 2).

20 Baña, celan lurra landutea, apaindutea, escuz bear eguitea, eta gordeteco bearrean ta premiñan jartzea dirian becatutic sortu, erne, jaio ta eldu dirian eradenduac, landarac, frutuac ta ondorengo errastuac, ondaquiñac, emparauac; eta oraindiño orduan etzan becatutic, ez becatuaren quiñuric, siñuric, ez famaric, ez aitatzeric, ez barriric, dirudi etzala eguiaz oraindo orduan Parabisu á landu ta gorde bearric. Cetaraco, bada, emon eutsan orduan Jangoicoac guizonari á mandamentua? Eranzuten dau Santo Tomasec, esaten dabela (S. Thom. 1. p. q. 102. art. 3): Etzan, ez, orduco bear eguitea penagarrri izango, orain becatu eguin ezquero leguez. <12> Baña ori izango zan

- 1-13/14 *parteric, lecu ta toquiric* < *parteric eta aurquientçaric* (GGero 21).
 1-14 *egotaldi* < *leccu* (GGero 21); ohartu Añibarrok *lecu* erabili berri zuela.
 1-14/15 *atseguintasunez, zorionez ta gozotasunez* < *placerez* (GGero 22).
 1-15 *aguindu eutsan* < *manatu çuen* (GGero 22).
eguiala: aurrean letra bat ezabaturik: *c-* dateke, noski (ik. § 5.1.3.4).
 1-15/16 *bear eguin, zaindu, jagon ta gorde*: leh. *bear eguin ta gorde*, < *labora ceçala eta beguira* (GGero 22); gainean *zaindu, jagon, beguiratu* erantsi eta gero, *beguiratu* marra batez estali du.
 1-16 *á Parabisua*: ondoren *á* ezabatua.
 1-17 *lurra landutea* < *lur-lantcea* (GGero 22); ik. § 5.1.1.5.
escuz bear eguitea < *laboratcea* (GGero 22).
 1-18 *dirian becatutic...*: *dirian* aditza subjektuaren ondora aurreratu du (ik. § 5.2.1.1), < *beccatutic sortcen eta heldu diren... ondoreac baitira* (GGero 22).
 1-18/19 *sortu, erne, jaio ta eldu dirian* < *sortcen eta heldu diren* (GGero 22); *eldu*: ik. § 5.3.4.
 1-19 *eradenduac* < *chertoac* (GGero 22); cf. *VB eradendu* (b.) “enxerir o injerir” eta *HH edaen, edaendu* “enxerir”.
 1-19/20 *ondorengo errastuac, ondaquiñac, emparauac*: leh. *errasto* jartzen zuela dirudi, eta *ondaquiñac* gainean erantsita dago; < *ondoreac* (GGero 22); ik. § 5.3.4.
 1-20 *etzan*: Axularrek *ezpaitcen* (GGero 22), ondoko perpausaren azalpen modura.
 1-20/21 *quiñuric, siñuric*: gainean erantsia, *jaquite*-ren orde; *jaquite* bera ere, letragatik gerroago jarria, utzitako hutsune bat betetzen ari dela dirudi. Antza denez, Axularren *ayeruric*-ekin (GGero 22) arazoak izan zituen.
 1-21 *famaric* < *omenic* (GGero 22).
ez barriric: aurrean *bere*], ezabatua. Axularrek *ez aippamenic ere* (GGero 22); beraz, hasieran *ez aitatzeric bere* jarri, *bere* ezabatu eta *ez barriric* erantsi ondoren, *bere* berrezartzea ahaztu bide zitzaion.
dirudi: ondoren *ece* ezabatua, < *badirudi ecen* (GGero 22).
egiaz: aurrean *alambere*-edo izan litekeen zerbait, ezabatua; cf. *etcela halaber* (GGero 22); *halaber* ordezkatzeko arazoak izan zituen (ik. § 5.3.4).
oraindo: Azkuek (B-a...) markatzen du, Añibarroren *EL*-ko adibide batean oinarri hartuta.
 1-22 *landu ta gorde bearric*: leh. *landuteco ta gordeteco*, < *lantceco eta beguiratceco premiaric* (GGero 22).
 1-25 *ori* < *hura* (GGero 22); ik. § 5.1.2.1.

atseguin artze bat, ta bere contentu ta gustora cegoala, bere indar ta alegui-
 ñac probatze bat. Eta gorde ta jagotea bere, ez arerioetatic, ezpada beraga-
 nic, eta berac beretzat becatuz galtzetic gordetzea izango zan euqui bear
 30 eban ardura guztia. Baña San Juan Chrisostomoc emoten dau beste errazoi
 bat, nic darraiiodan gaiari, puntuari obeto dagoquiona, diñoala (S. Chrisost.
 in cap. 2 genes.): Eguia da etzala orduan lur-parabisu atan eguitecoric, ez
 bear eguiteco premiñaric. Baña, alambere, gura ez eban Jangoicoac, an ce-
 goana, cegoquean gueldiric; ez bear eguitetic alpertutera ta naguitzera etorri
 etzedin, eta ce gauza charra ta ezaina zan eta dan alperqueria adietan emote-
 35 agaitic.

Casianoc diño (Casian. lib. 18, cap. 14) Paulo abade ermutar zarrác, pal-
 ma adar ta orri batzuc arturic, aecaz eguiten cituela otzarac, galbaiac, sare-

-
- 1-26 *bere contentu ta gustora < placerera eta aisiara (GGero 22).*
 1-26/27 *bere indar ta aleguiñac probatze bat < bere indarraren eta anceanen frogatce bat (GGero 22); ik. § 5.2.2.*
 1-27 *gorde ta jagotea < beguiratcea (GGero 22).*
 1-27/28 *beraganic < bereganic (GGero 22).*
 1-28 *berac beretzat becatuz galtzetic gordetzea < beretzat beccatuz galtcetic beguiratcea (GGero 22). Jatorrizko testuan ez dagoen izenordaina azalerazten du maiz, ulerterrazago egin nahirik, ziurrenik (ik. § 5.4.2); oraingo honetan, perpausa berez gaitza bazen, ez dirudi erraztea lortu duenik.*
 1-28/29 *izango zan euqui bear eban ardura guztia < iñanen cen bakarrik (GGero 22). Pasartea zaila denez, hitzez hitz itzuli duenaz gainerakoa ulerpene errazteko erantsi duela dirudi.*
 1-29 *Baña: aurrean Axularrek Humela dio San Thomasec dakar (GGero 22).*
 1-30 *nic darraiiodan < ni narraican (GGero 22-23).
 gaiari: gainean erantsia; Axularrek pontuari bakarrik (GGero 23).
 obeto dagoquiona < hobequi hurbiltcen çaicana (GGero 23).
 diñoala < erraiten duela (GGero 23).*
 1-31 *Eguia da etzala < Eguia da etcen... (GGero 23). Villasantek (1976: 21) puntuazioa aldatu dio, noski, Egia da, etzen... jarriaz.
 orduan < o[r]jaiño orduan (GGero 23).*
 1-32 *bear eguiteco < traillaatceco (GGero 23).
 gura ez eban < etçuen nahi (GGero 23); ik. § 5.2.1.*
 1-33 *cegoquean < cegoan (GGero 23); ik. § 5.1.3.7.
 bear eguitetic < traillaatcetic (GGero 23).*
 1-34 *ta ezaina: gainean erantsia; Axularrek gauça gaixtoa bakarrik (GGero 23).*
 1-36 *Casianoc diño: leh. Contatzen dau Casianoc (= GGero 23); ik. § 5.2.1.1.
 ermutar: Añibarroren eransketa; cf. Paulo abade çahar hura (GGero 23). Dirudienez, Añibarro da ermu eta ermutar aldaerak erabiltzen dituen idazle bakarra (ik. OEH, s.vv. eremu eta eremutar).*
 1-37 *ta orri: gainean erantsia; Axularrek palma adar batçuc bakarrik (GGero 23).
 aecaz < hetçaz (GGero 23).
 eguiten cituela: aditza aurreratu du (ik. § 5.2.1.1); Axularrek hetçaz... otharre eguiten haritcen cela (GGero 23); ohartu halaber haritcen-en desagerepenari (ik. § 5.3.4).*
 1-37/38 *otzarac, galbaiac, sareac: galbaiac gainean, ongi ulertzen ez den zerbaiten orde (berhabada otarrac), < çare, sasqui eta otharre (GGero 23). Cf. VB “cesta, cesto: b. n.*

ac; eta guero azquenean, eguin ondoan, astearen buruan, guztiac banatu, de-
 40 seguin ta erreten cituela. Cerren, bataz, nola errietatic urrin cegoan, obraren
 valioac baño, gastu gueiago ecarrico eutsan aetara eroan bearrac; ta barriz,
 besteaz, cerren á bearreta ta lan guztia artuten eban, oraciño ta Jangoicoaren
 gauzac eguin ezquero, alperqueriatic igues eguiteagaitic, ta ez cuticia ta ira-
 bazteagaitic.

<13> Gure Jangoicoac emon cituen legue zarrean seireun ta gueiago
 45 mandamentu ta ceremonia mueta, eta aecaz batera aimbeste eguiteco non,
 diño San Pedroc (Act. 5), ez berac, ez bere aurrengoac bere, ecin eroan, ez
 jaso ebela ain carga astun andi pisutsua. Eta jaquin gura badozu, ea cergai-
 tic cargatu, beté ta astundu cituen Jangoicoac aimbeste mandamentuz, eran-
 50 zuten dau doctore jaquintsu batec (Abulens. in Prefac. in Levitic.), cargatu
 cituela aimbeste mandamentuz, sacrificioz eta ciremoniaz, aecaz batean
 quendu cedin aimbeste calteren ta damuren asiera, acia ta biztugarri dan al-
 perqueria.

-
- otzarea; g. otarra; n. sasquia, zarea*"; halere, itzulpena egiterakoan *zare > sare* egin bide zuen. Ez dirudi *galbaia*c eta *sareak palma adarrez* egitea erraza denik, baina iturria kopuruan berdintzea lortu du, behinik behin.
- 1-38/39 *banatu, deseguin ta erreten < erretcen eta deseguiten (GGero 23).*
- 1-39/40 *obraren... eroan bearrac < guehiago baitcecarqueyen garraioaren gastuac, obraren valioac baiño (GGero 23). Ohartu baitcecarqueyen > ecarrico eutsan aldaketari (ik. § 5.1.3.7); baita gastu erantsi izanari: bistan da Añibarrok ez zuela ekarri adiera horretan ezagutzen; bide batez, erants bekio Axularrena, lehen agerraldia baita, OEH-ak (s.v. ekarri 1, atal berezi batean) Larregirengandik aurrera baino lekukotzen ez duen "produire" adierari.*
- 1-41 *bearreta < travaillu (GGero 23).*
artuten eban: subjektuaren ondora aurreratu du aditza (ik. § 5.2.1.1); cf....ihes eguiteagaitic hartcen baitquen (GGero 23).
- 1-41/42 *oraciño ta Jangoicoaren gauzac eguin ezquero < oracinotan eta othoizzetan unhatu ondoan (GGero 23).*
- 1-42/43 *ez cuticia ta irabazteagaitic < ez ondoco irabaciagaitic (GGero 23).*
- 1-45 *mueta < suerte (GGero 23).*
aimbeste < hanbat (GGero 23).
- 1-46 *diño < erraiten baitu (GGero 23).*
bere < haren (GGero 23); ik. § 5.1.2.4.
- 1-46/47 *ecin eroan, ez jaso ebela < ecin bururic eguin çutela, eta ez iasan (GGero 23). Ohartu joskera aldaketari (ik. § 5.2.5), baita buru eguin-en itzulpen badaezpadakoari.*
- 1-47 *astun andi pisutsua < handia (GGero 23). astun: gainean erantsia.*
jaquin gura badozu < nahi baduçue iaquin (GGero 24).
- 1-48 *cargatu, beté ta astundu < cargatu (GGero 24).*
aimbeste < hanbat (GGero 24).
- 1-49 *doctore jaquintsu batec < doctor batec (GGero 24).*
- 1-50 *cituela: leh. cituen, Axularrek bezala (GGero 24).*
aimbeste < hanbat (GGero 24).
ciremoniaz < cirimonia suertez (GGero 24). Gorago ceremonia (1-45); cf. VB "ceremonia: c. ciremonia, ceremonia".
aecaz batean < hequin batean (GGero 24).

55 Celan gure Jangoico maiteac janci cituen lurreco animaliac, aideco egaz-
 tiac, ichasoco arraiñac ta basoco arechac euren eraco janciera ta soñecoz:
 abereac narruz ta ullez, egaztiac lumaz, arraiñac escamaz ezcataz, ta arechac
 azalez.

60 Eta celan arechac dagocen euren lecutic muguitu, urten ta aldatu baga,
 eta bear lanic bere eguin baga, euren azpico lurraren gozoa ta guicentasuna
 eurac gana euren sustraiacaz tiratuaz ta miazcauaz, aci, anditu ta mantentzen
 dirian; animaliac abereac bere euren janariac ta alimentuac, bereala egoa
 baga, erre ta egosi <14> baga jaten dituezan; eta baita bere echeac ta vicile-
 cuac non-nai edocein lecutan ilundu, gautu ta arratsatuten jaquen toquian ar-
 tzen dituezan; eta gueienac euren amaren sabeletic urten ta bertatic datoz
 orren aurreratuac. Alan Jangoicoac, gura izan baleu, emon eusquiezan gui-

- 1-51 *aimbeste*: leh. *aimbat*, < *hanbat* (GGero 24).
asiera, *acia* ta *biztugarri* < *haste eta pitzgarri* (GGero 24). *acia*: gainean erantsia;
 eransketa mugatuan jarri du, oker (ik. § 5.1.1.1).
- 1-53 *Celan*: leh. *Nola*, Axularrek bezala (GGero 24); ik. 1-80. oh.
Jangoico maiteac < *Iaungoicoac* (GGero 24); ik. § 5.4.2.
janci < *beztitu* (GGero 24).
- 1-54 *arechac* < *çuhaitzac ere* (GGero 24).
euren eraco janciera ta soñecoz < *bere beztimenda suerte batçuez* (GGero 24).
- 1-55 *abereac* < *Animaliac* (GGero 24).
escamaz ezcataz < *ezcataz* (GGero 24).
- 1-57 *arechac dagocen* < *çuhaitzac bere dauden* (GGero 24).
euren lecutic < *leccuetaric* (GGero 24).
muguitu, urten ta aldatu baga < *higuitu gabe* (GGero 24); *urten*: gainean erantsia.
- 1-58 *bear lanic bere eguin baga* < *trabaillatu ere gabe* (GGero 24).
euren < *bere* (GGero 24).
- 1-59 *eurac gana* < *bere gana* (GGero 24).
sustraiacaz < *erroez* (GGero 24).
tiratuaz ta miazcauaz < *thiratz eta edosquiz* (GGero 24). *miazcauaz*: gainean, *chu-*
patuaz-en ordez, baina hau ezabatu gabe.
aci, anditu ta mantentzen < *hazten, handitcen eta mantenatcen* (GGero 24).
- 1-60 *animaliac abereac* < *Aniamaliec* (GGero 24).
euren < *bere* (GGero 24).
- 1-60/61 *egoa baga* < *ego gabe* (GGero 24) < *eho gabe* (Gero 24). Bigarren argitalpenaren al-
 daketak hanka-bururik gabeko irakurketa eragin dio.
- 1-61 *baita bere echeac...* < *bai bere etcheac... ere* (GGero 24).
- 1-62 *non-nai edocein lecutan* < *non nahi den* (GGero 24).
ilundu, gautu ta arratsatuten < *arratsten eta ilhuncen* (GGero 24); *gautu*: gainean,
ar] (*arratsatuten?*) izan daitezkeen letra pare baten ordez.
- 1-62/63 *artzen dituezan* < *hartcen* (GGero 24); ik. § 5.2.17.
- 1-63/64 *euren amaren sabeletic... orren aurreratuac* < *berehala bere ameen* [sic] *ondotic baito-*
aci, cein baitira abantail handiac (GGero 24). *bertatic*: gainean, *bereala-ren* ordez.
aurreratuac-ek marra bat du gainetik, inoiz ordezkatzea pentsaturik balu bezala.
- 1-64 *eusquiezan*: jat. *eusquiozan* (arg. zuz.); leh. *eusquion*. Aldaketaren zioetarako, cf. hu-
 rrengo oh.

- 65 zonai bere onelaco gauzac ta andiagoac bere. Janci euquezan, echedun eguin euquezan, emon eusquiezan bear cituen ondasun ta gauza guztiac ecer bere costa бага. Baña ez eban alan ifini gura izan. Eta cergaitic ez? Alperric egon etzedin amoreagaitic. Eta, San Ambrosioc diñoan leguez, artu eban adimentua empleatu leientzat (S. Ambros. pefat. in Levit.). Cerren, baldin orain,
- 70 gauza guztiac ain nequez ta aibat costaric irabaci ezquero, ain nagui alper ganorabacoac bagara: cer guintequez, gura dogun guztia nolana eta nosnai escuen artean bagueunco? Ecer bere falta ezpalichagu? Esan guiñeique Evangelioco aberatsac leguez (Luc. 12): Jan ta edan daigun; poztu, diverti ta atseguin gaitecen; cerren ez dogu eceren bearric; eztauquegu oraingoan es-
- 75 quean ibilli bearric.

-
- 1-64/65 *guizonai*: -i estalitako zerbaiten gainean erantsia; ziurrenik lehen *guizonari* jartzen zuen, Axularrek *eman cerauzcaion guizonari* baitakar (GGero 24). Berak ere, aditza datibo singularrean jarri, eta zuzenketaren ondoren ez du aldatu, ikusi bezala.
- 1-65 *onelaco gauzac ta andiagoac bere* < *abantail suerte hauc guztic, eta guehiago ere* (GGero 24).
- 1-66/67 *emon eusquiezan... ecer bere costa бага < eta deus gosta gabe, behar çuen guztiarequin ibeni çuqueyen* (GGero 25). *eusquiezan*: jat. *eusquiozan* (arg. zuz.); arrazoietarako, ik. 1-64/65. oh.
- 1-67/68 *egon etzedin amoreagaitic < etcegoen amoreac gatic* (GGero 25); ik. §§ 5.1.3.7 eta 5.3.4.
- 1-68 *artu < errecibitu* (GGero 25).
- 1-69 *empleatu leientzat < emplega deçangatic* (GGero 25).
- 1-70 *aibat < hanbat* (GGero 25).
irabaci ezquero: leh. *irabazten badoguz < erdiesten ditugularic* (GGero 25); ik. § 5.2.14.
- 1-70/71 *nagui alper ganorabacoac < nagui eta alfer* (GGero 25).
- 1-71 *guintequez < gueneidique* (GGero 25).
nolana eta nosnai < nahi beçala (GGero 25).
- 1-72 *bagueunco < baguendu* (GGero 25); ik. § 5.1.3.9. Dena dela, ez da Añibarroren lehen aukera izan: -o zerbaiten zuzenketa da eta ondo-ondoan beste letra bat ezabatu du tintaz; baliteke *bagueuncan* izatea.
Ecer bere < Deus (GGero 25).
Esan guiñeique < Erran gueneçaque (GGero 25).
- 1-73 *aberatsac < aberats harc* (GGero 25).
Jan ta edan daigun < Deçagun ian eta edan (GGero 25).
- 1-73/74 *poztu, diverti ta atseguin gaitecen < deçagun pausa eta atseguin har* (GGero 25).
- 1-74 *cerren < ceren berdin* (GGero 25).
eceren bearric < deusen escasic (GGero 25). *ecer-* eta *-en* artean letra bat estali du (*ecerren?*).
eztauquegu < eztugu (GGero 25).
oraingoan < egun hautan (GGero 25).
- 1-74/75 *esquean ibilli bearric < esquean ibiltceco perillic* (GGero 25).

2 §.

Aristotelec diño on dala alperqueria erritic quentzeco, urrindu, deserri ta erbestuteco; eta errian bere erreguearen edo beste edoceinen contra jaguite-
 tic gordeteco, lan ta obra andi batzuc astea, torre ta gaztelu batzuc eguitea,
 80 eta aetan gentera emplantzea. <15> Nola aguirri dan Egitoco Piramidetan,
 ceintzuc eraguin cituen Faraon erregueac gendeac alperric egon ez litecen.
 Irudiric erregue ari baldin Israeleco semeac, catibu leguez bere azpian ta
 mendepean cituanac (igaroten cirian seireun milla personatic bacarric gui-
 zon eguiñac), ichiten bacituen euren atseguin ta gustura viciten, soberviatu,
 85 arrotu, jabetu ta nagusituteco videan jarrico ciriala, eta andic bear etzana sor-
 tuc zala, artu eban Piramide batzuc eguiteco gogoa, asmoa ta pensua. Pira-

- 1-77 *Aristotelec diño* < Erraiten du Aristotelec (GGero 25). Bada beste *Aristotelec* bat (12-27), baina gainerantzean *Aristotelese* itzuli ohi du (7-82/83, 9-114, 32-60 eta 36-8).
- 1-77/78 *quentzeco, urrindu, deserri ta erbestuteco* < *khentceco eta desterratceco* (GGero 25). *urrindu, deserri*: gainean erantsiak; azkenaren irakurketa ez da ziurra, izan liteke *deserritu*, orriaren ertzerantz idatzita badago; baina <deserr> ondo irakurtzen da, eta azpian <i>, berak ere lekurik izan ez balu bezala. Urquijok (1923: 304) *arrindu, desserritu* hutsez beterikako irakurketa eskaintzen du.
- 1-78 *errian* < *herrien* (GGero 25). Gaizki ulertu du, beraz, *erriac* behar bailuke; ik. § 5.2.2. *erreguearen* < *erregueren* (GGero 25). *beste edoceinen* < *bertceren* (GGero 25).
- 1-79 *lan ta obra andi batzuc* < *cenbait obra handiren* (GGero 25).
- 1-80 *Nola* = GGero 25; honelako batzuk itzuri zaizkio, ugari lehen buruetan (ik. 0-154, 1-39, 1-136, 1-181, 1-189, 1-251, 1-253, 1-257, 2-33 eta 2-39) eta oso bakan gero (12-114, 22-89, 35-28, 42-121; cf. halaber *nolaco* 15-343 eta 43-96), beste zenbait zuzendu baditu ere (ik. 1-7, 1-53, 1-112, 1-255 eta 2-9. oh.); *nolanai* eta *nolabait* bezalakoak, berriz, askotan erabiltzen ditu.
- 1-81 *ceintzuc* < *cein* (GGero 25). *Faraon erregueac* < *erregue Pharaonec* (GGero 25-26); ik. § 5.1.1.2. *gendeac* < *iendeac* (GGero 26); ik. § 5.3.3. *alperric* < *alfer* (GGero 26). *egon ez litecen* < *etzeudecin amoreacgatic* (GGero 26). *litecen*: leh. *litecenagaitic*; ik. § 5.3.4.
- 1-82 *Irudiric* < *Idurituric* (GGero 26); ik. § 4.3.9. *ari*: ondoren *ece* ezabatua; cf. *hari, ecen baldin* (GGero 26).
- 1-82/83 *Israeleco semeac... cituanac* < *Israeleco seme gathibu beçala bere azpian cedutçan hec* (GGero 26). *seme*-ren -*ac* letra txikiagoan erantsita dago.
- 1-83 *igaroten cirian* < *iragaiten baitciren* (GGero 26), hots, erlatiboakoa (ik. § 5.2.10). *personatic* < *presunetan* (GGero 26).
- 1-83/84 *bacarric guizon eguiñac*: Añibarroren eransketa.
- 1-84 *euren atseguin ta gustura* < *bere placerera eta aisiara* (GGero 26). *viciten* < *bicitcera* (GGero 26).
- 1-84/85 *soberviatu, arrotu, jabetu ta nagusituteco* < *urguillutceco eta nabusitceco* (GGero 26). *arrotu*: gainean erantsia.
- 1-86 *artu eban... gogoa* < *eguin çuen... gogoeta* (GGero 26). *asmoa*: leh. *asmua*, -*o*- gainean zuzendua, < *asmua* (GGero 26); eta alderantziz beranduago (ik. 4-180. oh.). Halere, liburu guztian zehar bi formak erabiltzen ditu, behin biak elkarrekin (*asmu ta asmor*, 31-34), *asmo* maizago bada ere (15/23).

mideac cirian, diño San Isidoroc (S. Isidor. lib. 5. Ethim. cap. 11), sepulturen antzeco pilare edo tumba lau esquiñaco batzuc, goi-goira jasoac, eguin al litequecen gorenac, ondoan zabal ta puntan estu bedar. Eta olacoetan bear eraguiten eutsen Faraonec bere azpico gende oni, señalaturic bacochari bere eguneco lana ta gaia. Eta escua ifintea bera asco baceben bere: baña prestamenac, aldamioac ta obra eguiteco bear cirian guei guztiaac, eurac billatu, abiatu ta presta bear cituezan. Eta alambere ecin azartu cirian aserratzera, ez chitic eguitera; cerren bestela, lenengo verbea aotic ateretan ebenaco, cirautsen Faraonec (Exod. 5): *Vacatis otio*. Alperric zagoce, aguiari da neque an-

-
- pensua* = *GGero* 26, hitza Iparraldekoa bada ere (cf. *EH*, s.v. 1 *pentsu*). Gehiagotan ere onartu du (ik. 16-169/170 eta 56-107), bestetan aldatu arren (*gogoeta* 1-103/104, *pensamendu* 2-46).
- 1-86/87 *Piramideac cirian* < *Eta Piramide hetçaz mintço dela* (*GGero* 26). Axularrek gero latinezko pasarte dakar, eta euskaraz *Piramidea edo Piramideac ciren...* hasten da. Itzultzaileak hasiera berregin du, beraz (ik. § 5.4.1).
- 1-87 *diño* < *erraiten du* (*GGero* 26).
- 1-87/88 *sepulturen antzeco* < *sepultura suerte batçuc* (*GGero* 26).
- 1-88 *pilare edo tumba* < *pilare, harroin edo thomba* (*GGero* 26). Bitxia da hirutik bira pasatzea (cf. § 5.5.3); baliteke *harroin* ez ezagutzea: ez dago *VB*-n jasoia, behinik behin, *HH*-ak (s.vv. *columna* eta *pilar*) badakar ere.
- lau esquiñaco* < *laur cantoiñetaco* (*GGero* 26); ik. § 5.1.1.4.
- batzuc, goi-goira jasoac* < *gora ailtchatu batçuc* (*GGero* 26). *goi-goira*-ren lehen lekukotasuna (cf. *OEH*, GOI-GOI, s.v. *goi*); kontuan har bedi *goi-gora* Lauaxetak dakarrela lehenengoz (*ibid.*), eta *gora-gora* ez dela Iparraldean baizik lekukotzen, eta berandutxo (1852, ap. *OEH*, GORA-GORA, s.v. *gora*).
- 1-89 *al litequecen* < *ahal citezqueyen* (*GGero* 26); ik. § 5.1.3.12.
- estu bedar* < *mehar* (*GGero* 26).
- olacoetan* < *hetan* (*GGero* 26).
- 1-89/90 *bear eraguiten eutsen* < *trabaila aracitcen cituen* (*GGero* 26).
- 1-91 *lana ta gaia* < *lana eta sailla* (*GGero* 26).
- ba... bere: baña... < ba... ere: orde* (*GGero* 26). Egitura hau hainbatetan errepikatzen da Añibarroren itzulpenean, bitxia bada ere; dakusgunez, Axularren hitzez hitzeko itzulpenari zor zaio (ik. § 5.2.9). *baceben* < *baçuqueten* (*GGero* 26). *ceben*, eta ez *eben*; honelako hainbat adizki daude lehen buruetan (ik. § 5.1.3.4).
- 1-91/92 *prestamenac, aldamioac* < *lanhabesac, tresnac* (*GGero* 26). Itzulpen askea. *aldamioac*: *VB* (c.) “andamio” (< *HH*).
- 1-92 *eguiteco bear cirian guei guztiaac* < *eguiteco gai guztiaac ere* (*GGero* 26).
- eurac* < *berec* (*GGero* 26).
- 1-92/93 *billatu, abiatu ta presta* < *bilhatu eta hornitu* (*GGero* 26). *abiatu*-k hemen Añibarrok bakarrik erabiltzen duen adiera dauka: *VB* “preparar” (cf. *OEH*, s.v. *abiatu* 3).
- 1-93 *cituezan*: aurrean *eben*, ezabatua; gero *cituen* ipini zuen, eta *-za*- gainean erantsi. Axularrek *cituzten* (*GGero* 26). Plural bikoitzeko forma hauetarako, ik. § 4.3.10.2.
- ecin azartu cirian* < *ecin ausarta citezqueyen* (*GGero* 26); *azartu*: gainean, *auzartu*-ren orde. Cf. *auzardia*-z esana (0-71. oh.).
- 1-93/94 *aserratzera, ez chitic eguitera* < *arrancuratcera* (*GGero* 26).
- 1-94 *cerren bestela* < *halaco moldez ecen hartaco* (*GGero* 26).
- ateretan ebenaco* < *itçuri ceyenean* (*GGero* 26). *ebenaco*: ik. § 5.1.1.9.
- 1-94/95 *cirautsen* < *erran baitcerauen berehala* (*GGero* 26).

diric ez dozuela, ceuen ondoeguiac, alperqueric, <16> on lar gueieguiac ta mizqueric eresseguiten zaituez, orrec orrela divertitu ta verbaz ifinten zaitue. Eta onetan, gueroago carga gueiago, cereguin gueiago, neque-pen ta lan-bear barriac egozten eutsezan. Eta au guztiau eguiten eban, baldin bapere astiric baceben edo alper bacegozen, andic calteren bat etorri ez lequion bildurrez.

Pisistrato Atenasco tirano borreru gaistoac (*Ælianus lib. 5 vari. hist.*), icusi ebanean plaza guztia gente alperrez betea, ta ataric malicia, citelqueria ta gogoeta gaisto asco sortu citequezala, deitu cituan guztia beragana. Eta alperric egoteco escusa, achaquia ta videric ez euquenai, emon eutsézan mando, zaldi, idi, aci, diru ta bear eguiteco bear eben guztia. Eta guero bialdu cituen lanera ta bearrera, irudituric ez ebela calteric eguingo, gaista-

- 1-95/96 *Alperric zagoce, aguri da neque andiric ez dozuela < Asti duçue (GGero 26).*
- 1-96 *ondoeguiac < onguieguiac (GGero 26); ik. § 5.3.3.*
- 1-96/97 *on lar gueieguiac ta mizqueric < alferqueric, aietasunac (GGero 26). Leh. ta on larrac; gueieguiac gainean erantsi du.*
- 1-97 *orrec < harc (GGero 27).*
divertitu < quilicatcen (GGero 27). Hala-holako itzulpena, agian Añibarrok kilikatu beste adieran bakarrik (VB, s.v. cosquillas) ezagutzeak eragina.
verbaz ifinten < mintça aracitcen (GGero 27).
- 1-97/98 *zaitue < çaituzteçate (GGero 27).*
- 1-98 *onetan < alatan (GGero 27).*
- 1-98/99 *gueroago carga... egozten eutsezan < aiticinerat cargatuago cituen, lana berretu ce-rauen (GGero 27).*
- 1-99 *au guztiau < hura guztia (GGero 27).*
- 1-100 *baceben... bacegozen: berriz z-dun formak (ik. 1-91. oh.). Ohartu, bestalde, bacegozen-eko -en bukaerari (ik. § 4.2.1).*
calteren bat < cerbait calte (GGero 27).
- 1-100/101 *etorri ez lequion bildurrez < ethor cequion gogan beharrez eta veldurrez (GGero 27). Honelakoetan Añibarrok beti ezezkora jotzen du, Axularrek ez bezala (ik. § 5.2.3).*
- 1-102 *borreru gaistoac < tirano gaixto harc (GGero 27). borreru: gainean erantsia. Cf. VB "tirano: c. neque emallea", hemen emandako irtenbidetik hurbil.*
- 1-103 *ataric < hetaric (GGero 27).*
- 1-103/104 *malicia, citelqueria ta gogoeta gaisto < malicia eta pensu gaixto (GGero 27). citelqueria: gainean erantsia.*
- 1-104 *citequezala: leh. citequeala < citequeyela (GGero 27); ik. § 5.1.2.7.*
deitu cituan < deitu cituen (GGero 27). Añibarrok berez ere badaki deitu honela jokatzen, baina Ciarrustak (1991: 97) bildu adibideen arabera, laguntzailerik gabeko perpausetan batez ere, edo bakarrik agian.
beragana < beregana (GGero 27).
- 1-104/105 *Eta alperric... ez euquenai < Eta aiticinerat alfer egoiteco desencusaric etçutentçat (GGero 27). Itzultzailea nahasi da, helburuzko perpausa markatzen duen -tzat atzizkia destinatibotzat hartuaz, nonbait.*
- 1-106 *zaldi: leh. carga-edo, < çamari (GGero 27).*
ta bear eguiteco < finean travaillatceco (GGero 27).
- 1-107 *irudituric: leh. irudiric ece < Idurituric ecen halatan (GGero 27); ik. 1-82. oh.*
- 1-107/108 *gaistaqueric asmatico < maliciaric pensatico (GGero 27).*

queriaric asmatuco, ez erriric nastuco jardun, erago ta equinic betico lan bearrari.

- 110 Munduco barria daquienac esan oi dabe on dala errientzat ta erreinuentzat, eguiteco batzuc ta guerrac euren erri eta erreinutic campora izatea. Cerrren, celan bacocho baqueaz loac artu ta gorputzeco atseguintasunera ta gustu ciquiñetara emoten dan: alan arerioacaz guerran dabillena contuz vici da, zur zoli ta irazarriric dago. Au icusi dogu gueure beguiz guerreak estutu gaituen demporan, <17> ceñetan, arrituric genteac, viciroago emoten cirian
- 115 Jangoicoaren gaucetara, sarrituten cirian sacramentu santuac, beté elessac, adisquidetu arerioac, guichitu auciac, ordiqueriac, danzac, erriertac ta gais-taqueriac.

- Eztot onegaz adierazo gura, guerra on dala: ez orrelacoric; sortu ta sartu bedi betico gugan baquea, cerren Jangoicoaren graciaz gueroz, ecin euqui leiz guizon batec mundu onetan osasuna ta baquea baño ondasun oberic; baqueaz agur eguin eben angueruac guizonai Jesu Christo jaio zanean: *baquea zuecaz* eta *zorionecoac baquetsuac* cirautsen Jesus baquearen buru nagusiac bere Icasle Apostoluai; eta alan, emen bacarric adietan emon gura dot, gue-
- 120

-
- 1-108/109 *jardun, erago ta equinic betico lan bearrari*: Añibarroren eransketa; izan ere, letra txikiago eta tinta meheagoaz idatzita dago, geroago erantsia bailitzan. Bestalde, *jardun* aurrean *dia*] dago (*diardu?* *LSorta*-n (141) eta *LauEv*-en (cf. Ciarrusta 1991: 105) bederen itzuri zitzaion; ik. 22-45. oh. ere), ezabatua.
- 1-110 *barria daquienac < berri daquitenec (GGero 27). esan oi dabe < erran dute eta erraiten dute (GGero 27).*
- 1-111 *eguiteco batzuc ta guerrac < cenbait eguiteco eta guerla (GGero 27). Esan gabe doa eguiteco eta guerra batzuc behar zukeela. erri eta erreinutic < herritic eta erresumatic (GGero 27). campora < campoan (GGero 27).*
- 1-112 *celan*: leh. *nola < nola (GGero 27)*; ik. 1-80. oh. *baqueaz < baquearequin (GGero 27).*
- 1-112/113 *loac artu... gustu ciquiñetara < lohacartcen, ez ansiatcen eta gorputzaren placeretara (GGero 27). ciquiñetara*: jat. *ciquiñitera* (arg. zuz.).
- 1-113/114 *arerioacaz guerran dabillena... irazarriric dago < guerlequin, etsaiequin eta contrastequin ernatcen, iratçartcen eta acholduritcen da (GGero 27).*
- 1-114/126 *Au icusi dogu...: lerrokada bukaera hau guztiau eta hurrengoa osorik Añibarroren beraren hitzak dira.*
- 1-116 *sarrituten*: VB *sarritu* “frequentar, v.g. sacramentos”.
- 1-119 *on dala*: bere kabuz mugagabea ipinia (ik. § 5.1.1.5).
- 1-120/121 *ecin euqui leiz... osasuna ta baquea baño ondasun oberic*: partitiboa eta aditza pluralen. Ez da hau testuko adibide bakarra (ik. 6-102/103. oh.).
- 1-122 *zanean*: ohar deia dauka ondoan, baina hutsik.
- 1-123 *eta zorionecoac baquetsuac*: geroko eransketa, *eta* lerro bukaeran eta, ondoko lerroan, gainean, osterantzekoa; *baquetsuac*-eko *b- p* baten gainean dago idatzia. *Jesus*: tintaz ezabatutako zerbait darama atzean, agian *-ec*. *buru*: leh. *buruac*; *-ac* ezabatu eta *nagusiac* gainean erantsia.
- 1-124 *Apostoluai*: ondoan ohar deia, hutsik.

125 rrac, ardurac, cereguiñ andi contuzcoac urrindu ta aldeguiten gaituezala gaistaqueria ascotic.

Plutarcoc eguiten dau libru bat, arerio gaisquin ta perseguiiletatic aterazten dan on ta probechuaz (Plutarc. de utilit. ex inimic.); eta guztien artean andiena ta principalena diño dala alperrari bear eraguitea, lotia irazartzea ta
 130 ardurabaguea estutu ta arduratsu eguitea. Adisquiden artean gareanean, zabal estuera бага gagoz, ez dogu ecerberen conturic, ez bildurric; deunguero verba eguin <18> arren ta milla eroqueria eguinagaitic bere, ez dogu arduraric. Cerren daquigun, adisquideac izanic, guztia ontzat eroango dabela, dan guztia gorde ta estalduco dabela. Baña arerioen artean idoroten gare[a]nean,
 135 an, beguiac argui irazarriac ta belarriac zur zabalic euqui bear dira; cer esan ta eguiten dan ondo beguiratu bear da. Cerren, nola arerioac betibere celataca dagozan, uts edo faltaren bat oartuten badabe, bereala artuten dabe; ta ascotan, aciric ta gueiagoturic dana baño gueiago, zabaldu ta andizquetan dabe

- 1-126 *ascotic*: ik. § 5.1.1.4.
 1-127 *arerio gaisquin ta perseguiiletatic* < *etsaietaric* (GGero 27); ik. § 5.4.2. *VB persegui-
 llea* (c.) “perseguidor”.
 1-128 *on ta probechuaz* < *probetchuaz* (GGero 27).
guztien artean < *guztietaco* (GGero 27).
 1-129 *bear eraguitea* < *trabailla aracitcea* (GGero 28).
lotia irazartzea < *lotien iratçartcea* (GGero 28). *irazartzea*: aurrean *iratzar*, ezabatua.
 Añibaroren partizipioa *irazarri* (0-93) zein *irazartu* (0-51) izan daiteke (*VB iraza-
 rri, irazartu* (b.n.) “despertar”), baina behin ere ez *iratzar-* (ik. § 4.2.8).
 1-130 *estutu*: leh. *estu*. Añibarrok *estutu* (*VB* “atribularse”) eta *estu* (*VB* “atar”) bereizi ohi
 ditu (cf. Urgell 1987: 233, 23-4. oh.).
 1-130/131 *zabal estuera бага* < *lacho* (GGero 28).
 1-131 *gagoz* < *gara* (GGero 28).
ez dogu ecerberen conturic, ez bildurric < *eztaducagu deusez ere conturic* (GGero
 28). *conturic*-en ondoan *ez arduraric*, ezabatua.
 1-131/133 *deunguero... ez dogu arduraric*: Axularrek *eztugu gaizqui mintçatuagatic eta milla
 erhoqueria eguinagatic ere antsiaric* (GGero 28).
 1-133 *daquigun* < *baïtaquigu ecen* (GGero 28).
adisquideac izanic < *adisquide direnaz geroz* (GGero 28); ik. § 5.2.19.
guztia < *hec guztia* (GGero 28).
 1-133/134 *ontzat eroango... ta estalduco dabela* < *estalico eta onera hartuco derauzquigutela
 (GGero 28)*.
 1-134/135 *idoroten gare[a]nean* < *garenean* (GGero 28). Beste behin bakarrik (55-37) itzuri zaio
 Axularren forma erabili ohi duenaren ordezt.
 1-135 *beguiac... euqui bear dira* < *behar dira buru-beharriac ernatu* (GGero 28).
 1-135/136 *cer esan... beguiratu bear da* < *cer eguiten eta erraiten den behatu* (GGero 28). *esan
 ta eguiten*: leh. *esa-eguiten*; honelako forma laburtuak lehen liburuetako ezaugarri
 dira (ik. § 5.3.1). *ondo*-ren aurrean *beguiratu be*], ezabatua.
 1-136/137 *celataca* < *celatan* (GGero 28).
 1-137 *uts edo faltaren bat* < *cer ere huts edo falta* (GGero 28).
bereala < *hura berehala* (GGero 28).
artuten < *harrapatcen* (GGero 28).
 1-137/138 *ta ascotan* < *ta are batçutan* (GGero 28); ik. § 5.3.4.

140 bestén aurrean. Agaitic diño San Chrisostomoc (S. Chrisost. hom. 3 ad Popul.) ascotan adisqueideac baño, on ta mesede gueiago eguin oi deuscuela arerioac, cerren arerioac, gure faltac esanic ta aguerturic, emoten deuscue videa irazartzeco, falta ta uts eguitetan onduteco, zucenduteco eta beste bein alacoac eguitetic gordeteco.

145 Errazoi onegatic esan lei ez ebalá gure Jangoicoac gura izan, acaba cequiezan Israeleco semeai arerio guztiac; baña ordendu edo laquetu eban, gueldi cequien betibere arerio bacocho batzuc, irazartzeco ta alperqueriatic gordeteco.

3 §.

150 Irabaci ebenean Lacedemoniacoac euren auzoco <19> uri arerio bat, muga-bitartean ceuquen bat, esan eben bertaco gobernari aguintariac (Plutarc. in Aphot.): Eguin da gure gende gazteaz, eztabe emetic aurrera esetsi ta erasoteco paradaric izango, eta ez jo, astindu ta purrucatzeco arerioric.

- 1-138/139 *aciric... bestén aurrean <berreturic, airatcen eta campatcen dute (GGero 28). aciric: lehenik barrituric dirudiena idatzi, ezabatu, gainean agian andituric litekeena, ezabatu eta azkenean aciric aukeratu du.*
- 1-140/141 *ascotan adisqueideac baño... arerioac < Anhizetan eguiten deracate etsaiec hanbat ongui eta ontasun nola adisqueideec, eta bai batçutan gueiago ere (GGero 28).*
- 1-141 *esanic ta aguerturic < esanez eta hetçaz erançute eguinez (GGero 28); ik. § 5.2.19.*
- 1-141/142 *videa < occasino (GGero 28).*
- 1-142 *irazartzeco < ernatceco, iratçarceco (GGero 28).
falta ta uts eguitetan < falta eguinen (GGero 28).
eta beste bein < eta bai are aiticinerat (GGero 28).*
- 1-143 *alacoac eguitetic < gueiago eguitetic ere (GGero 28).*
- 1-144 *esan lei < erran ahal diteque (GGero 28).
ez ebalá: gainean, eztabela gaurguiño-ren ordeaz, < etzuela egundaiño (GGero 28).*
- 1-144/145 *cequiezan < cequizten (GGero 28). Lehenaldiko z-dun beste adizki bat (ik. 1-91. oh.);
cf. GB 36 equioezala “que ellos [llegaran o llegassen] a ellos”.*
- 1-145 *semeai < seme hey (GGero 28).
arerio guztiac < bere etsai guztiac (GGero 29).
ordendu edo laquetu eban < ordenatu çuen edo permititu (GGero 29).*
- 1-146 *gueldi cequien = GGero 29. Berriz ere z-dun forma emateaz gain (ik. 1-91. oh.), NOR plurala beharko luke, cenbait > batzuc aldaketak eskatua (ik. hurrengo oh.).
arerio bacocho batzuc < cenbait bacochoz [sic] eta hondar (GGero 29). Añibarrok *bakotx* kalkatu bide du, baina cf. *bakotx batzuetan* “raras veces” eta *bakotx batzuc* “unos cuantos” (Otxandioko eskuizkribua, ap. A Apend; ik. OEH, s.v. *bakoitz* 3).
*irazartzeco ta alperqueriatic < iratçartceco, ernatceco eta alfertetic (GGero 29).**
- 1-149 *auzoco < frontieraco (GGero 29).*
- 1-150 *muga-bitartean < muga-quide (GGero 29). Nola ulertu Añibarrorena?
ceuquen < çuten (GGero 29). ceuquen, eta ez euquen (cf. 1-91. oh.).
bertaco < Lacedemonia hartaco bereco (GGero 29).
governari aguintariac < gouernariac (GGero 29).*
- 1-151 *Eguin da: jat. Eguinda (arg. zuz.) = GGero 29.*
- 1-151/152 *esetsi ta erasoteco < iharduquitceco (GGero 29).*
- 1-152 *jo, astindu ta purrucatzeco < borrocateco (GGero 29). Cf. VB burrucatu (c.) “luchar” (< HH).*

155 Lacedemoniaco oneec euroc ez eben banatu gura izan uri contraco bat, beti euren contracar ta arerio izan eben bat, esaten ebela á erria zala gaztetasunaren zorrotz-arria, cerren gazteac an probatzen ta zorrotzuten cituezan euren al ta indarrac, icusten zan nor nor zan, eta gordeten cirian uguertzetic, gorriña edo erdoitic.

160 Onela eranzun eban Cleomenes Sparciacoac bere, itandu eutsenean ea cergaitic venzutu, goiartu, azpitu ta mendepetu ezquero, etzituan bere arerio argiboac apurtu ta ondatu. Eztodaz ecindu ta galdu maite dodazalaco, ezpada icustearren certaco dan gure gende gaztea.

Enzun ebanean Publio Nasicac (idem ibi.) bota ebela erromatarrac erritic campora Anibal bere arerio andia eta artu ebela Cartago erri famatua, eta aimbestez, bere ustez, aurreraco seguru guelditu ciriala, esan eban: Orainche

- 1-153 *oneec euroc < hec berec (GGero 29).
banatu < deseguín (GGero 29).*
- 1-154 *contracar ta arerio < contra eta etsai (GGero 29). Lehen (0-119. oh.) ikusi dugu contracar Axularrengandik mailegatua; hona hemen bere kabuz erabilia, ‘kontrakoa’ adieran (ik. § 5.3.3).
esaten ebela: ondoren ece ezabatua, < erraiten çutela, ecen... (GGero 29).*
- 1-155/156 *probatzen... indarrac < bere indarra eta antcea frogatcen, çorrotzten (GGero 29); ta zorrotzuten gainean erantsia.*
- 1-156 *icusten zan nor nor zan: Añibarroren eransketa. nor nor zan lehenik icusten-en aurrean idatzi, ezabatu eta ondoren ipini du.*
- 1-156/157 *eta gordeten... erdoitic < eta herdoiltcetic beguiratcen baitçuten (GGero 29). gordeten eta gordetan artean zalantzan ibili da: azkenekoz ezarritakoa, handi eta markatuena baita, e dela dirudi, eta honela utzi dut testuan; Urquijok (1923: 306) irakurketa bera ematen du. gorriña-tik aurrera letra txikixeago eta tinta meheagoz; uguertzetic, alderantziz, letra handiagoan eta lerrotik goratua bezala; ematen du hutsunea bete zuela bitan. gorriña edo erdoitic bikoterako, cf. VB “roña: b. uguerra; g. erdoia” eta “roña en los trigos: c. gorriña”.*
- 1-158 *Onela < Hunen arauaz (GGero 29).
Sparciacoac < Sparciaco harc (GGero 29).*
- 1-159 *venzutu, goiartu, azpitu ta mendepetu ezquero < hala bere meneraz guero (GGero 29).
goiartu, azpitu: gainean erantsiak. azpitu: ezohiko hitza, Añibarrok (eta hainbatek ere) azpiratu erabili ohi du (cf. OEH, s.vv.), baina hemen agerraldi asko ditu (ik. 1-184, 11-139, 38-52, 40-113, etab.). mendepetu: VB (c.) “avasallar”.*
- 1-160 *apurtu ta ondatu < deseguín (GGero 29).
ecindu ta galdu < deseguín (GGero 29). ta galdu: gainean erantsia.*
- 1-160/161 *maite dodazalaco, ezpada... gende gaztea < dugun amoreacgatic, norc gure iende gaztea certaco den froga deçan (GGero 29). Hona hemen amoreacgatic egitura oker ulertzen zuelako froga argia (ik. § 5.3.4).*
- 1-162 *erromatarrac < Erromacoec (GGero 30).*
- 1-162/163 *erritic campora < herritic (GGero 30).*
- 1-163 *andia < handi hura (GGero 30).
eta artu ebela Cartago erri famatua < Cartago ere hartu çutela (GGero 30).*
- 1-164 *aurreraco < aitzinerat (GGero 30). Añibarrok aurrerakoan erabili ohi du adiera honetan (cf. EL¹ 143 = EL² 158), baina aurrerako oso ezaguna da XVIII-XIX. mendetako Hegoaldeko idazleen artean (cf. OEH, AURRERAKO, s.v. aurre).*

165 da nos gueratu garean iños baño jausteco ta galduteco pelligruric andiagoan, cerren eztauquegu orain, len leguez, <20> irazartzalleric ta gueure eguin-videaren eraguilleric.

Izan ebenean erromatarrac deseatzten eben victoria arturic Cartago, sartu cirian batzar edo consejuan Erromacoac, erabaguiteco ea cer eguingo
 170 eben Cartagoco uriaz (Vid. D. Agust. de Civit. Dei cap. 30). Eta Catonec (lenenetatic bat) esan eban guztia deseguin, banatu, apurtu ta lurraraz bardindu bear ebela, euren guerrac, aserreac, erriertac, esamesac ta quirrimarra guztia erri arturic sortuten cirialaco, ta uri á banaturic, baquean ta soseguan gueldituco ciriala. Baña Scipion capitai famatuac, etorquizonari obeto be-
 175 guiraturic, esan eban ez ebela iñolatan Cartago apurtu bear, cergaitice ondaututen baeben, guerra bat amatatu ustean, beste andiago bat biztucoco ebela. Ce-

-
- 1-164/165 *seguru guelditu < segurean iarri (GGero 30).*
orainche da nos gueratu garean < Aitzitic orai gaude (GGero 30). Erreparatu denborazko erlatiboari.
- 1-165 *iños < egundaiño (GGero 30).*
jausteco ta galduteco < limburtceco eta erortceco (GGero 30).
pelligruric andiagoan < peril andiagoan (GGero 30); bistan da buruan pelligruric andianean zuela (ik. § 5.2.8).
- 1-166 *eztauquegu < ezpaitugu (GGero 30).*
- 1-168 *victoria < abantailla eta garaitia (GGero 30).*
arturic Cartago < cartagotarren gaiñean (GGero 30).
- 1-169 *batzar edo consejuan < conseilluan (GGero 30).*
Erromacoac < erromatarrac (GGero 30).
- 1-170 *uriaz < hiri hartçaz (GGero 30).*
- 1-170/171 *lenenetatic bat: leh. principalenetatic, Axularrek bezala (GGero 30).*
- 1-171 *guztia < guztia (GGero 30).* Añibarro ohartu da *Gero*-aren argitalpen guztietan (cf. halaber Villasante 1976: 29, “toda” itzuli arren) dagoen arazo honetaz: *guztia* baina *çuela*, alegia.
deseguin, banatu, apurtu < deseguin (GGero 30). *apurtu*: gainean erantsia. Ondoan Axularrek *plaundu* dakar, Añibarrok alde batera utzia (cf., halere, *VB plaundu* (g.) “allanar”, < *HH*).
- 1-172/173 *lurraraz < lurrarequin (GGero 30).*
euren guerrac... ta quirrimarra guztia < ceren bere guerla guztia eta eguitecoac (GGero 30). *esamesac*: gainean erantsia.
- 1-173 *cirialaco < ceiztela (GGero 30);* gogoratu Axularren *ceren* ezabatu duela (ik. aurreko oh.).
banaturic < desegüinez guero (GGero 30); ik. § 5.2.19.
baquean: aurrean *pa]* (*paquean?*) ezabatua.
- 1-174 *gueldituco < iarrico (GGero 30).*
capitai famatuac < capitain famatu harc (GGero 30).
- 1-175 *iñolatan < neholatan (GGero 30);* Iparraldeko esapidea da, eta han ere zaharra (cf. *OEH*, *NEHOLATAN*, s.v. *inola*).
Cartago < hiria (GGero 30).
apurtu < deseguin (GGero 30).
cergaitice < ceren (GGero 30).
- 1-175/176 *ondatuten < deseguiten (GGero 30).*

rren bereala berpetatic gendea emongo zan alpertasunera, jan-edanera, barriquerietara, eta gogoac ecarquien gaistaquerietara ta era guztico charquerietara. Eta andic erriertac, aserrecuntzac, guerrac, alcar icusi ecinac, go-
 180 rrotoac, ondamuac, areriotasunac eta Cartagoco guerrac baño pelligruzcoa-
 goac euren artean sortu ta erneco ciriala. Nola esan, ala guerta zan: cerren,
 Scipionen conseju ta adividea ichiric, artu eben Catonena, banatu eben Car-
 tagoco uria, jarri cirian euren ustez baquean. Baña Scipionec <21> adierazo
 eban leguez, laster eurac ta Erromaco erria beeratu, azpitu, galdu ta jausi
 185 cirian.

Eguiau ezaguturic, Pericles famatuac mantentzen cituan beti bere bere
 erritic campoan guerra batzuc. Eta urtean-urtean biralduten cituen ontziac
 gentez beteric guerra atara. Eta aetan biraltzen cituan idoro al cirian alper
 guztiac. Eta guero bici zan baque andi baten. Cerren, nola erri guztietan oi
 190 dira comunqui alper eta gende galdu asco ecertaco eztirianac, eta onelacoac
 gach eta calte asco eguiten dituezan, ondasun andiac eldu jaquez erriai ala-

-
- 1-177 *bereala berpetatic < berehala (GGero 30).*
 1-177/179 *emongo zan... charquerietara < alferqueriari, ian edanari, erran-merraney eta aisiac
 deccazqueyen gaixtaqueria suerte guztiey emanen ceyela (GGero 30). barriquerie-
 tara: VB “bachillería”, “locuacidad”. ecarquien < deccazqueyen: Añibarrok bere
 erara ordezkatu du, ezen berea ‘zekarkien’ baita, Axularrena ‘dakartzakeen’ den bi-
 tartean. gogoac < aisiac: ulertu ez, beraz?*
 1-179/180 *erriertac... areriotasunac < nahasteriac, differentciac, guduac, hauciac, etsaigoac
 (GGero 30). aserrecuntzac: leh. aserracuntzac. alcar: aurrean icus ezabatua.*
 1-180/181 *Cartagoco guerrac baño pelligruzcoagoac < Cartagotarrequicoa baño guerla perilo-
 sagoa (GGero 31).*
 1-181 *sortu ta erneco ciriala < sorthuco ceyela (GGero 31). sortu ta: gainean erantsia.
 Nola esan, ala guerta zan < Eta hala guerthatu cen (GGero 31).*
 1-182 *conseju ta adividea < conseillua (GGero 31).
 banatu < deseguín (GGero 31).*
 1-184 *erria < hiria ere (GGero 31).
 beeratu, azpitu, galdu ta jausi < beheititu eta erori (GGero 31).*
 1-186 *Eguiau < Eguia haur (GGero 31).
 famatuac < famatu harc (GGero 31).*
 1-187 *urtean-urtean < urtheo (GGero 31).*
 1-188 *idoro al cirian < ediren ahal citçan (GGero 31).*
 1-189 *bici zan < bicitcen cen (GGero 31).
 nola = GGero 31; aurrean erri, ezabatua.*
 1-190 *comunqui < comunzqui (GGero 31).
 alper eta gende galdu... eztirianac < cenbait alfer eta iende galdu (GGero 31).
 onelacoac < hec (GGero 31).*
 1-191 *gach eta calte < calte eta nahasteria (GGero 31).
 eguiten dituezan: nola-ri dagokion -n adizki honek badarama, baina ez berarekin el-
 kartuta dagoen aurreko dira-k (1-190); cf. nola... ohi baita... eta... eguiten baitute
 (GGero 31).
 ondasun andiac < ontasun handia (GGero 31); ik. § 5.3.4.
 eldu jaquez erriai < heldu çaica herriari ‘datorkio’ (GGero 31).*

coac quentzeaz, probechu andia elduten jacon leguez lurrari jorraituteaz, landuaz ta bedar gaistoac atereaz.

195 Corintioac ain gorroto ta icusi-ecina eutsen alperrai ece, icusten ebene-
an guizon bat vici zala errenta бага, oficio бага ta bearric eguin бага, bere-
ala beste probanza бага, quenduten eutsen vicitzea, cerren esaten ebén pre-
sona alper oficioeric, lanic ta errentaric ez euquénac lapurreriaz, falsiaz,
engañamentuz ta arte gaistoz valia bear ciriala, eta alangoac vicia zor ebéla
200 eta, alan, quentzen eutsén. Eta on liteque alangoacaz orain bere alan eguin-
go balitz castiguren bat.

Solon andiac ordenatu eban aita batec bere semeari baldin oficioeric ira-
casten ez beutsan, <22> etzedilla a semea egon bearturic bere aita favore-

- 1-191/192 *alacoac < halaco hequen (GGero 31).*
1-192 *probechu... leguez < Nola lurrari ere heldu baitçaica probetchu (GGero 31).*
1-192/193 *jorraituteaz... atereaz < iorratceaz eta belhar gaixtoen atheratceaz (GGero 31); ik. § 5.5.1.*
1-194 *ain gorroto ta icusi-ecina eutsen < hain ceizten ayher (GGero 31). Axularrenak azal-
tzen du, beraz, Añibaroren egitura bitxia.*
1-195 *vici zala < bicitcen cela (GGero 31).*
errenta бага... eguin бага < errentaric gabe, officioric gabe eta travaillatu ere gabe (GGero 31).
1-196 *probanza бага < frogantçaric gabe (GGero 31).*
quenduten eutsen vicitzea < bicia edequitcen baitcioten (GGero 31).
ebén: ondoren ece ezabatua < ecen (GGero 31).
1-197 *oficioeric, lanic < officioric (GGero 31).*
ez euquénac < etçuenac (GGero 31).
1-197/198 *falsiaz, engañamentuz < enganamenduz (GGero 31).*
1-198 *ta arte gaistoz < edo cenbait arte gaixtoz (GGero 31).*
*valia bear ciriala < usatu behar çuela (GGero 31-32). ciriala: gainean erantsia, eba-
la-ren ordez. valia: Añibarrok bakarrik erabiltzen du honela (cf. OEH, BALIA IZAN,
s.v. *balia*, bukaerako atalean), jadanik ikusi ditugun *guerta* eta *irudi* bezala
(ik. § 4.3.9).*
*alangoac: -n- gainean erantsia; ziurrenik, beraz, g lehenagoko c estaltzen du, lehen
alacoac zekarrelarik; laco > lango aldaketa argi bat dago lehenago (ik. 0-78. oh.).*
1-199 *on liteque < on liçate (GGero 32).*
alangoacaz orain bere < orai ere halacoequin (GGero 32).
1-199/200 *eguingo balitz < eguin baledi (GGero 32).*
1-200 *castiguren bat: geroago erantsia dirudi, letra estuagoogatik, lerroa bukatzeko geldit-
tzen zen lekuan sartzearren, hain zuzen, eta hala ere lerrotik kanpora atera zaio, ka-
sik orriaren ertzearaino. Ez da ahaztua, noski, Axularrek ez baitakar: gure idazleak
leundu nahi izan bide du haren aholku gogorra.*
1-201 *ordenatu eban < ordenatu çuen ecen (GGero 32). Gorago ordendu ikusi dugu testuin-
guru berean (ik. 1-145. oh.).*
1-201/202 *baldin oficioeric iracasten ez beutsan < officioric eracusten etcioenean (GGero 32).*
beutsan: ik. § 4.3.10.13.
1-202/203 *etzedilla... icusiagatic < etcela seme hura bere aitaren faboratcera, beharrean iccu-
siagatic ere, obligatu içanen (GGero 32). premiñan: gainean erantsia; -n ia ez da
ikusten, orria josita dagoen alderantz sartuta baitago.*

tzera, premiñan, bearrean icusiagatic (Plutarc. in Solon.). Cerren oficioeric ez iracatsi ta ez emonaz, alper eta gaisto izateco oñean, videan ta pelligruan ichi eban bere aitac.

Gimnosofista cerichen jende batzuc ain deunguero eroien alperatasuna ece, afal aurrean deituten cituezan eurac gana echeco gazteac, jaquiteco ea cetan igaro ta emon eben eguna; eta baldin probatzen bajaquen alperrieriaric, ez eutsen afariac gachic eguiten.

Caton Censorinogaitic (ceñec eucan alperren ganean escu-vide ta aguinaritza) iracurten da, ecarten eutsenean bere aurrera guizon bat salaturic, esaten zala alperra zala, bereala lenen eguin oi ebana zala escuetaco azala ucutu, igortzi ta icustea; eta baldin latz, lodi ta gogor idoroten bajacan, libre ta baquean ichiten ebala; baña baldin mee, bigun, samur, leun ta beraa baceucan, alpertzat condenaturic, falta guichigaitic bere latzquiró castiguetan ebala.

Caton beronec esaten eban, iru gauzataric albaitanez gordeten zala: Emacumeari bere secretoac fiatzetic; leorrez joan al izanic, ichasoz joatetic; <23> eta egun guztian alperric egotetic.

-
- 1-203/204 *ez iracatsi ta ez emonaz < ez eracustez (GGero 32).*
 1-204 *oñean, videan ta pelligruan < bidean eta perilean (GGero 32). oñean: gainean erantsia.*
 1-206 *ain deunguero eroten < hain gaitzesten çuten (GGero 32).*
 1-207 *ece < ecen bethibere (GGero 32).
 eurac gana echeco gazteac < presuna gazteac beregana (GGero 32). eurac aurrean ber]-edo (beregana?); singularrean Añibarrok beragana jarriko zukeen (cf. 1-104. oh., adib.).*
 1-208 *igaro ta emon < iragan (GGero 32).*
 1-210 *Censorinogaitic < Censorino hartçaz (GGero 32).
 eucan < baitçuen (GGero 32).*
 1-210/211 *escu-vide ta aguinaritza < escu eta bothere (GGero 32).*
 1-211 *iracurten da: lehenik Censorinogaitic-en ondoren zegoen idatzia, Axularrek dakarren ordena berean (GGero 32); gero, parentesi artean datorren erlatibozkoa ikusita, antza denez, ezabatu eta lekuz aldatu zuen.
 bere aurrera guizon bat < guizon bat bere aitcinera (GGero 32).
 salaturic < accusaturic (GGero 32).*
 1-211/212 *esaten zala: ondoren ece, ezabatua, < erraiten cela ecen (GGero 32).*
 1-212/213 *lenen eguin oi ebana zala... icustea < lehenbiccico gauça escuetaco larrua hazcatcen eta ferecatcen cioela (GGero 32).*
 1-213/214 *libre ta baquean ichiten ebala < ahalic eta arrintquiena [sic] utzten çuela (GGero 32).
 Erratak ulertzea eragotzi ote dio? Ezetz esango nuke, eta berariaz aske itzuli duela.
 mee, bigun, samur, leun ta beraa < mehe, leun eta bera (GGero 32).*
 1-214 *baceucan < baçuen (GGero 32).*
 1-214/215 *latzquiró < bortitzqui (GGero 32).*
 1-215 *latzquiró < bortitzqui (GGero 32).*
 1-217 *Caton beronec < Caton harc berac (GGero 32); ik. § 5.1.2.3.
 albaitanez gordeten zala < bere mendean, ahal beçanbat, beguiratu cela (GGero 32-33).*
 1-218 *joan al izanic < ahal cihoaqueyela (GGero 33); ik. § 5.2.14.*
 1-219 *alperric < alfer (GGero 33).*

- 220 Lucanotarrac idoroten ebenean iñorc gende alperrai cerbait ordeaz prestatzen eutsela, bertati emoten eben sententia prestatzallearen contra: cer edo cer prestatu baceben, a guztia galdu leguiela. Baña, nire ustez, etzan alaco sententia emon bearric: berez dago emona; cerren ez dabe prestatzalleac alacoai cobratzeco pelligruric, galdutzat emon bear dabe alacoai emona.
- 225 Indietaco erri batzuetan etzan iñor bere bere gorputzaz valia al citequeanic esquean ibilten: itsúac bere, tornuan edo errotan bazan bere, bear eguin bear eben (Osor. lib. 11).

4 §.

- 230 Ain da gauza galdua ta galgarria alperqueria, ece naturaleza beraren bere contra da. Guizona jaioten da lan bearra eguiteco ta egazia egaz eguiteco, diño Job santuac (Job 5). Egaztiari emoten jacazan leguez egoac axetuteco, egaz eguiteco, alan guizonari escúac bear eguiteco.

-
- 1-220 *Lucanotarrac < Lucanoec (GGero 33).*
- 1-220/221 *ordeaz prestatzen < prestatzen (GGero 33).*
- 1-221 *bertati emoten eben < emaiten çuten berehala (GGero 33).*
- 1-221/222 *cer edo cer prestatu baceben < cer ere prestatu baitçuen (GGero 33).*
- 1-222 *nire ustez < nic uste dut ecen (GGero 33).*
- 1-223 *emon bearric < emaiteco premiaric (GGero 33).*
berez dago emona < bera baitago emana (GGero 33).
- 1-223/224 *ez dabe prestatzalleac alacoai < ezpaitu halacoey prestatçailleac (GGero 33).*
- 1-224 *galdutzat... emona: geroago erantsia dirudi, letragatik eta lerroak besteen parean zuzen joan beharrean gorantza egiten baitu nabarmenki. Añibarroren eransketa da, dena den.*
- 1-225 *iñor bere < bat ere (GGero 33).*
- 1-225/226 *valia al citequeanic < ualia ahal citequeyenic (GGero 33). citequeanic: aurrean zanic, ezabatua.*
- 1-226 *errotan < arrodan (GGero 33); cf. VB errotea (b.) “rueda”.*
bazan bere < bedere (GGero 33).
- 1-226/227 *bear eguin bear eben < hari behar çuten (GGero 33).*
- 1-228 *Atalaren hasiera, Axularren liburuan 23 lerro (Lehenagoco philosopho batçuec-tik etçuten hutsic eguin-era, GGero 33-34), osorik kendu du, inolaz ere ideia heretikoak aipatzen zirelako. Zentsuratutako pasarte osoa hitzaurrean (§ 3.3) irakur daiteke.*
- 1-229 *Ain da < Ceren ain da (GGero 34).*
ece < non (GGero 34).
naturaleza beraren < naturaleçaren beraren (GGero 34). beraren gainean erantsia; azpian ere beraren zegoen: badirudi gainean bere ipini duela lehenik, eta gero bere ‘ere’ ere behar zuela ohartuta, berriz beraren zuzendu duela gainidatziaz (ik. § 5.1.2.3).
- 1-230 *lan bearra eguiteco < travailluco (GGero 34). bearra: leh. bear.*
egaz eguiteco < aireco (GGero 34).
- 1-231 *Egaztiari emoten jacazan leguez < Nola hegaztinari emaiten baitçaitça (GGero 34); ik. § 5.2.18.*
- 1-231/232 *axetuteco, egaz eguiteco < airatceco eta hegaldatceco (GGero 34). axetuteco: beranduago jarria dirudi, lerroan hala-hola sartuta; nolana ere airatzeko-ren itzulpen eskasa da (ik. § 5.3.3).*
- 1-232 *guizonari < guizonari ere emaiten çaitça (GGero 34).*
bear eguiteco < travaillatceco (GGero 34).

- Munduco gauza guztia condenetan dabe alperra; cerren ác ez beste guztia emoten dabe demporea artan cetaraco eguiñac cirian. Eguzquia errazoiak <24> esan leio beranduguño oean datzanari: Cerc aratza or, alper nagui lotia? Nic atzo hic baño vide gueiago igaro niñoazan; gira-bira inguratu ñoan mundu guztia; eta orain bere hi baño lenago ta goxago jagui ñoc. Arech-arbolac bere esan leioque alperrari: Eztacusc celan ez gagozan beimbere gueldiric, ez alperric? Celan azten, anditzen, loratzen ta gueure demporétan frutu elduz betetzen garean? Hic cer eguiten doc? Certan demporea emoten doc? Ceri beguira ago alper andi naguiori?

Bada, abere ta animalia adimenturic eztabenac bere, beintzat erleac ta iñurriac, errazoiak esango deuscue bear daigula; euren nequeac, lanac,

-
- 1-233/234 *ác ez beste guztia < hartçaz bertce guztie < GGero 34.*
 1-234 *emoten dabe demporea < empleatcen baitute bere dembora < GGero 34.*
artan cetaraco eguiñac cirian < certaco eguinac baitira hartan < GGero 24. Axularrek azaltzen du Añibarroren egitura bitxia.
- 1-234/235 *errazoiak < arraçoñequin < GGero 34.*
 1-235 *esan leio < erran ahal diaçayo < GGero 34.*
 1-235/236 *alper nagui lotia < alfer-naguia < GGero 34.*
 1-236 *niñoazan < nian < GGero 34.* Añibarrok *bide gehiago* kantitatea (plurala) balitz bezala islatu du aditzean. Gramatikan (*GB 79*), tamalez, honi dagokion forma jaso gabe dago: singularrean *najoan* dakar, eta ez *ñoan* testuan bezala. Edonola ere, gainean erantsita dago, *nituzan*-en orde. Hika diharduen pasarte bakanetakoa dugu hau, eta badakusagu hemen ere damutu ondoren bakarrik sartu duela (ik. § 5.1.3.3). *gira-bira*: gainean erantsia; egiatan ez da ikusten *igaro* ala *inguratu* aditzarekin joan behar duen, eta ez dauka kiderik jatorrizko testuan.
- 1-237 *ñoan < bainuen < GGero 34;* gainean erantsia, *neban*-en orde.
lenago ta goxago < goizago < GGero 34.
ñoc < nauc < GGero 34. Cf. *GB 78 noc.*
- 1-238 *Arech-arbolac < Çuhaitzec < GGero 34;* aurrean *Arbolac* ezabatua. Esanahikideak dira: *VB arecha* (b.) “árbol”.
esan leioque alperrari < erran ahal deçaquete < GGero 34.
Eztacusc < Eztacusaçue < GGero 34; leh. *eztacuts*]: badirudi *eztacutsu(e)* jartzen bukatu aurretik damutu zela.
ez gagozan < gu ezcauden < GGero 35.
- 1-239 *gueldiric, ez alperric < gueldiric eta ez alperric < GGero 35.*
 1-239/240 *demporétan < demboretan sasoiñetan < GGero 35 < demboretan eta sasoiñetan < GGero 35.*
 1-240 *frutu elduz < fruituz < GGero 35.*
 1-240/241 *Hic cer... naguiori?* Añibarroren eransketa. *beguira*: gainean erantsia, ziurrenik *adiren* orde. *alper andi naguiori?* geroago erantsia, letra txikiagoan, galdera marka zegoen tokitik hasi eta galdera marka berriraino.
- 1-242 *Bada: aurrean Erleac* ezabatua; egiatan hurrengo lerrokadaren hasiera da.
abere ta animalia < animalia < GGero 35.
- 1-243 *errazoiak < arraçoñequin < GGero 35.*
deuscue < deracute < GGero 35; hau itzultzeko gaizki ibili zen: *deuscue*-ren aurrean *leioque* eta *deutse* saio ezabatuak irakur daitezke, nekez bada ere.

joan-etorriac gogoratu daigucela, ta alacoz, lotsaturic bada bere, gueure
245 eguinen bidearen eguitera ta lan bearretara irazarri, prestatu ta abiatuco gara.

Erleac, ain gauza pildin-chiquiac izanic, betetzen dabe mundua eztiz go-
zotzeco ta arguiceguiz arguitzeco. Eta ezta erraz contatzea, celan gobernetan
dirian erleac euren artean, celan dauquen euren erreguea ta obedituten da-
ben, celan zárrac erlautsean barruan echecho lanac eguiten egoten dirian, ta
250 gazteac campoan euren <25> janari, mantenu ta igaropiden billa dabilzen,
nola daben euren ate-zaiña, eta bear bere bai, cergaitic ce eztiari, nola dan
zalegarria ta, icena daben leguez, ezti-gozoa, ascoen gogocoa, guraricoa ta
gustucoa da. Nola bear eguiten dabenac, lanic eguiten eztaben erle alperrac
eta naguiac esten colpez, cicadaz ta izpi zorrotzacaz botatzen dituezan euren

-
- behar daigula < beha diacegula (GGero 35). Itzulpen txarra, ziurrenik irakurketa txar
batean (behar, eta ez beha) oinarritua.*
- euren < hequen (GGero 35).*
- 1-244 *lanac < travailluac (GGero 35).*
- gogoratu < considera (GGero 35).*
- ta alacoz < eta halatan aguian (GGero 35); aguian-ez, ik. 22-25. oh.*
- 1-245 *bada bere < bedere (GGero 35).*
- lan bearretara < travaillatcera (GGero 35).*
- irazarri, prestatu ta abiatuco gara < ernatuco eta erdutuco garela (GGero 35). gara:
leh. gareala.*
- 1-246 *pildin-chiquiac izanic < ttipiac eta flacoac (GGero 35).*
- dabe < du (GGero 35). Orokorrean mintzatzeko Axularrek singularra eta Añibarrok
plurala hautatzen dute (ik. § 5.1.1.6).*
- 1-246/247 *eztiz gozotzeco ta arguiceguiz arguitzeco < eztiz ezitceco eta ezcoz arguitceco (GGe-
ro 35). Axularren hitz joko etimologikoa galdu da, baina Añibarrok beste bat lortu
du (ik. § 5.5.2).*
- 1-247 *ezta erraz < gaitz liçateque (GGero 35). ezta: gainean erantsia.*
- 1-248 *euren artean < elccarren artean (GGero 35); ik. § 5.1.2.6.*
- dauquen < duten (GGero 35).*
- 1-249 *erlautsean barruan < cofaüean barruna (GGero 35); ik. § 5.3.4.*
- 1-250 *campoan... dabilzen < bere mantenuaren eta bicicayen garrayon campotic hari diren
(GGero 35).*
- 1-251 *ate-zaiña < athal-çaiña (GGero 35). Aurrean, ezabatuta, ate-zaia; honi n bat erantsi
dio lerro gainean, gero zaiña jarri eta hau ere estali.*
- cergaitic ce < ceren (GGero 35).*
- 1-252 *zalegarria < gogo (GGero 35) < goço (Gero 35); aurrean gozoa, ezabatua. VB zale-
garria (c.) "apetecible" (< HH).*
- ezti-gozoa < ezti (GGero 35).*
- 1-252/253 *ascoen gogocoa, guraricoa ta gustucoa da < anhitz baitarraica eta baitçaica aiher
(GGero 35). Aurrean d eta bokal baten hasiera, ezabatuak: ziurrenik da hemen jarri
nahi zuen hasieran. ascoen-i buruz, ik. § 5.1.1.4.*
- 1-253 *bear eguiten dabenac, lanic eguiten eztaben < travaillatcen direnec, travaillatcen ez-
tiren (GGero 35); ik. § 5.5.1.*
- erle alperrac < alferrac (GGero 35).*
- 1-254 *esten colpez, cicadaz ta izpi zorrotzacaz < exten colpez (GGero 35) < ezten c. (Gero
35).*

255 laguntzatic. Eta celan beste gauza asco eguiten dituezan; eta guztiac ain ordenanza, zurtasun ta gobernu andiaz, ce dirudi ez dala erregueric bere erreinua ain ondo gobernatzen dabenic, nola erleac euren erregueaz batera bear eguiñaz gobernatzen dabeneuna.

260 Bada, iñurriaren gobernuaz, zurtasunaz, lan-bearraz, etorquizuneraco eguiten dabene probisiñoaz, bear dituen janariaz, bildu ta billatuten dabene mantenuaz, noc cer esango dau? Norc eztau miretsico ta gogoeta eguingo? Espiritu santuac berac biralduten gaitu animalia chiqui onegana, cer eguin bear dogun icastera, diñola (Prov. 6): Zoaz, naguia, iñurriagana, eta gogoratu eguizuz aren videac eta videscac, joan-etorriac, inguruac, or-emen ibilteac, nequéc ta bearrac, eta icasico dozu zuc bere, celan bear dozun aurrera-coan ta beti bici, ibilli ta gobernatu; onec, iracasleric <26> ta bide-aurrecoric baga, berac bere buruz bilduten dau udan, negua igaroteco bear dabene mantenua, janaria ta garaua. Eta garau au gordeten dau lurraren barruan, berac eguinico toqui, gorde-lecu ta garautequietan. Eta ain da zur eta beguiratua ece, campoan ecer ecin izanez, bere bilduetara bildu bear dabenean, asten da jaten lenic garatu, cildu ta erne bear dabene garautic; cerren bestela sortu ta

-
- 1-255 *laguntzatic* < *compaiñiatic* (GGero 35).
celan: gaínean, *nola*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; ik. 1-80. oh.
beste gauza asco < *bertceric ere anhitz gauça* (GGero 35).
eguiten dituezan < *eguiten duten* (GGero 35).
- 1-255/256 *ordenanza, zurtasun ta gobernu andiaz* < *ordenantça handiarequin* (GGero 35).
1-256 *ce*: gaínean, *non-en* orde, baina hau ezabatu gabe, < *non* (GGero 35).
dirudi < *baitirudi ecen* (GGero 35).
- 1-257 *euren*: aurrean *bere*, ezabatu, < *bere* (GGero 36).
erregueaz batera < *erreguearequin batean* (GGero 36).
- 1-257/258 *bear eguiñaz* < *trabaillatuz* (GGero 36).
1-259 *etorquizuneraco*: leh. *etorquizuneco* < *ethorquizuneco* (GGero 36); ik. § 5.1.1.9.
- 1-260 *provisiñoaz, bear dituen janariaz* < *prouisioneaz, horniçoiñaz* (GGero 36). Ohartu plurala eta -az duela (ik. § 5.1.1.10).
bildu ta billatuten < *viltcen* (GGero 36).
- 1-263/264 *gogoratu* < *considera* (GGero 36).
1-264/265 *inguruac, or-emen ibilteac* < *eta itçul-inguruac* (GGero 36).
1-265 *zuc bere* < *çu ere* (GGero 36) < *çuc ere* (Gero 36).
1-266 *beti* < *bethiere* (GGero 36).
onec < *Harc* (GGero 336).
bide-aurrecoric < *quidariric* (GGero 36). VB *bideaurrecoa* (c.) "precursor".
- 1-268 *garau au* < *bihi hura* (GGero 36).
lurraren barruan < *lurrean barrena* (GGero 36). Orain ondo itzuli du (ik. 1-249. oh.).
- 1-269 *toqui, gorde-lecu ta garautequietan* < *gambaretan eta bihitequietan* (GGero 36).
beguiratua < *goithatu* (GGero 36).
- 1-270/271 *asten da... erne bear dabene garautic* < *lehenic hozitu behar duen burutic hasten baitçaica bihiari* (GGero 36).
- 1-271/272 *sortu ta aci* < *sor* (GGero 36).

aci liteque a garaua, buztandu liteque, bedar biurto liteque; eta guero andic ará, lan uts alperra jazo ta guerta lequiquio bere lenagoco zurtasun guztia.

275 Are gueiago, garatuac jan ezquero, lurraren bustitasun ta ecetasunac ganecoac usteldu eztaguiozan, ateretan dituz nosic bein campora axetu ta eguzquitutera; ta orduan eguraldi ta dempora onaren señalea dateque. Eta onela ta alan igaroten dau iñurriac bere negu lucea; eta eracusten deutso bacochari, celan ta ce moldez bear daben mantendu, gobernatu ta alperqueria guztia largaric, bere demporan bear eguin.

-
- 1-272 *buztandu liteque < buztan liteque (GGero 37).*
 1-272/273 *andic ará < handic harat (GGero 37); ik. § 5.3.3.*
 1-273 *lan uts alperra < alfer-lan (GGero 37); leh. alper, mugagabeen.*
jazo ta guerta < guertha (GGero 37).
 1-274 *Are gueiago = GGero 37.*
garatuac < hozidurac (GGero 37).
jan ezquero < ianez guero ere (GGero 37).
bustitasun ta ecetasunac < humidurac eta hecetasunac (GGero 37).
 1-274/275 *ganecoac usteldu eztaguiozan < gaiñeracoa ustel eztiçon (GGero 37).*
 1-275/276 *axetu ta eguzquitutera < airatcera eta iguzquizatcera (GGero 37). eguzquitu: cf. HH*
“asolearse”.
 1-276 *eguraldi ta dempora < dembora (GGero 37).*
 1-276/277 *onela ta alan < halatan eta hala (GGero 37).*
 1-277 *negu lucea < negua (GGero 37).*

2. BURUA

Cembat calte eguiten dituzan alperqueric, eta celan emendic datorren guerotic guerora ibiltea.

1 §.

- 5 Escritura Santuac, Elessaco Doctoréac, lenagoco gentil fedebagueac eta
are gueiago ceruco, axetaco ta lureco <27> gauza guztiac bere condenetan
dabe, lotsatuten dabe alperra; eta adierazoten deutsé bear eguin bear dala, ta
bacocha bere aldetic bere eguicaiac eguitera saiatu, dendatu ta zaletu. Ce-
10 rren, celan ardurazco cereguin ta bear batec lan guztiac aurreratuten dituzan,
alan alperqueric atzeratuten dituz.

Itanduten dau San Juan Chrisostomoc (S. Chrisost. in Act. Apostol.): Ce
zaldi da on edo obea, gueldiric ta alperric bere gustura dagoana, ala ibilli ta

-
- 2-1 2. BURUA: gainean, *Capitulu 2.-ren ordez, < CAP. II (GGero 37).*
2-2 *eguiten dituzan < eguiten duen (GGero 37). Zenbat-ekin ere Axularrek singularra eta*
Añibarrok plurala aukeratu ohi dute (ik. § 5.1.2.7).
alperqueric < alferqueria (GGero 37) < alferqueric (Gero 37).
emendic < handic (GGero 37).
2-3 *datorren < sortzen den (GGero 37).*
2-5 *gentil fedebagueac < ientilec (GGero 37); ik. § 5.3.1.*
2-6 *are gueiago < are (GGero 37).*
axetaco < aireco (GGero 37).
2-6/7 *condenetan dabe, lotsatuten dabe < condenatcen dute (GGero 37).*
2-7 *eta adierazoten deutsé < eta emaiten aditcera (GGero 37).*
bear eguin bear dala < behar dela travaillatu (GGero 37).
2-8 *bacocha bere < nor bere (GGero 37).*
eguicaiac < eguin didearen (GGero 37) < eguin bidearen (Gero 37).
saiatu, dendatu ta zaletu < enseiatu (GGero 37). dendatu: gainean erantsia.
2-9 *celan: gainean, nola-ren ordez, baina hau ezabatu gabe (ik. 1-80. oh.).*
ardurazco < arduraco (GGero 37); ik. § 5.3.4.
cereguin ta bear batec < travailluac (GGero 37).
2-11 *Ce < Cein (GGero 38).*
2-12 *on edo obea < on edo hobeago (GGero 38).*
gustura < placerera (GGero 38).

15 maneatzten dana? Cein ontzi, costan dagoana ala ichasoan dabillena? Cein ur, gueldia ala darioa? Cein burdiña, atartean datzana ala erabilten dana? Jaquiña da guztiac erabilteaz, maneatuaz, escuz ecarriaz ta mugituaz onduten, arguitzen ta fintzen diriala; eta bai alper ta gueldi egoteaz bere galdu, prestueztu ta uguertuten diriala. Bada auxe berberau jazoten da alperric, gueldiric eta ecer eguin baga demporea emoten dabenez.

20 Dabillan arriari ez jaco goroldiric eransiten. Ur iraqiñian ezta euliric gueratuten. Arduraco soñecoari ez jaco sitsic eguiten. Arech-arbola frutuduna eztau iñoc ebaguiten. Baña alperra, soilla, utsa, arro-eroa, iños elduten ez-tana, frutubaguea certaraco da? Alangoac cetaco beteco dau lurra? (Luc 13).

<28> Alperracaz verba eguiten dabela, Oracioc diño (Horat. lib. 5. c. 2): Gueuret zat contuzcoac gara, gueugaz contu dogu, baña gañeroacoan gauza ez

-
- 2-12/13 *ibilli ta maneatzten dana < ibiltcen eta manaiatcen dena (GGero 38). maneatzten: ik. § 5.3.4.*
- 2-14 *darioa < lasterra (GGero 38). Cf. OEH, s.v. dario; bertan, Añibarroren hiztegiko eta idazlanetako adibideekin, izena (“flujó, emanación”) eta batez ere elkartu exozentrikoen bigarren osagaian (ezti-darioa erakoak) erabilia aurkitzen da. atartean < coccoan (GGero 38) < zoccoan (Gero 38).*
- 2-14/15 *Jaquiña da < Segur da (GGero 38).*
- 2-15 *erabilteaz... ta mugituaz < erabiltceaz, manaiatceaz eta escuztatceaz (GGero 38). -teaz / -tuaz aldizkatzeaz ik. § 5.2.15. ecarriaz: aurrean mug] (mugituaz?), ezabatu. Axularren escuztatceaz-en itzulpena da escuz ecarriaz ta mugituaz hori.*
- 2-16/17 *galdu, prestueztu ta uguertuten diriala < galtcen, deseguiten eta herdoiltcen (GGero 38). Cf. VB prestueza (c.) “inútil”.*
- 2-17 *auxe berberau < haur beror (GGero 38).*
- 2-17/18 *alperric, gueldiric eta ecer... dabenez < alfer dagoena baithan ere (GGero 38).*
- 2-19 *goroldiric < goroldioric (GGero 38). Añibarrok hautatu duen aldaera, badirudi nahikoa ekialdekoa dela (cf. OEH, s.v. goroldio), Bizkai aldean hasierako herskari gabeko aldakerak (oroldi, orolgi, etab.) aurkitzen diren bitartean. Cf. VB “moho que se cría en árboles, piedras: c. oroldia, goroldia, goroldioa” eta erka bedi HH-ko sarrera bereko ordainekin: goroldioa, oroldioa. eransiten < lotcen (GGero 38). iraqiñian: ik. 15-17. oh.*
- 2-20 *Arduraco = GGero 38; ik. § 5.3.4. soñecoari < arropari (GGero 38). Arech-arbola < Çuhaitz (GGero 38).*
- 2-20/21 *frutuduna < bethacorra (GGero 38).*
- 2-21 *soilla < fauna (GGero 38). arro-eroa: Añibarroren eransketa.*
- 2-21/22 *iños elduten ez-tana, frutubaguea < bere sasoiñean jasaiten ez-tuena (GGero 38).*
- 2-22 *beteco < trabatuco (GGero 38).*
- 2-23 *Alperracaz... diño < Nos numeri sumus, fruges consumere nati dio Oracioc, alferrez mintço dela (GGero 38). Alperracaz < alferrez, ik. § 5.1.1.11.*
- 2-24 *Gueuret zat contuzcoac gara, gueugaz contu dogu < Gu contu gara, gurequin contuz guehiago (GGero 38). Argi dago Añibarrok ez ziola latinari begiratu (cf. aurreko oh.), gaizki itzuli baitu (ik. § 5.3.4); honela itzultzen du Villasantek (1976: 38): “Nosotros somos número, con nosotros aumenta el número”.*

- 25 gara, ezpada lureco frutuac jateco. Otseiñ servitzari batec alperric egoteaz beraz, gaistaqueriric ez eguinagaitic bere, merci dau castigua. Bada, San Chrisostomoc diñoan leguez (S. Chrisost. tom. 2): Onic ez eguitea bera da deunguero eguitea. Eta Catonen esana da, ecer bere ez eguiteaz icasten dala deunguero eguiten. Alpertasuna da gaistaqueria guztien iturburua; eta San
- 30 Bernardoc diñon leguez (S. Bernard. lib. de consider. cap. 11), da aserretasun, errierta ta zorigach guztien ama ta vertutén ugaz-ama. Eta alan aserretac, eraqueriac ta vicio mueta guztiac doaz laster alpertasunera, cerren ama daben; baña vertuteac eta obra onac igues, urrinduten jacaz; cerren, nola daben ugazama, baquie ezituezala ondo artuco, beguiracune oquerra, becoqui
- 35 illuna ta arpegui charra eracutsico deutsela.

-
- gañerocoan* < *gañeracoan* (GGero 38). *ganeraco* formak nagusi dira une batetik aurrera (cf. 16-81, 16-108, 23-68, 24-31, 28-86, etab.), *gañeraco*-ren batekin batera (13-186), baina hasiera aldera batez ere *ganeroco* darabil (4-199, 4-202, 8-108, 50-14). Aldaera hau ez dago, dakidalarik, beste inon jasota eta, edonola ere, *gainerako* eta hortik jalgi diren esapideak (*gainerakoan*, etab.) bakan-bakanak dira bizkaierazko idazleen artean (cf. *OEH*, s.v. *gainerako*): cf. *VB ganeracoac* (c.) “(los) demás”, baina “quanto a lo demás: c. *gañeracoan*, *ganeracoaz*; b. *osterantzean*, *-tze-coan*, *ganecoan*” eta *gañeracoan* (g.) “sino, de otra suerte”. Cf. halaber *aurreroko* (12-191. oh.).
- 2-24/25 *gauza ez gara* < *ezcara deusetaco* (GGero 38).
- 2-25 *ezpada lureco frutuac jateco* < *lurreco fruituen eta onen iateco baicen* (GGero 38-39).
- Otseiñ servitzari batec* < *Cerbitçariac* (GGero 39). Aurrenekoetan plurala singularraren ordeztu jarri du (ik. 1-246. oh.); dakusgunez, *bat*-ek ere zehazgabetasuna adieraz dezake Añibarrenean (ik. § 5.1.1.6).
- alperric* < *alfer* (GGero 39).
- 2-26 *Bada* < *Ceren* (GGero 39).
- 2-27 *diñoan leguez*: leh. *diñoalez*.
- 2-28 *ecer bere ez eguiteaz* < *Ez deus eguiteaz beraz* (GGero 39).
- 2-29/31 *Alpertasuna da... ugaz-ama* < *Alfertasuna da erguelquerien ama, eta verthuten ugaz ama* (GGero 39). Hemen ere latinari begiratu gabe, eta Axularri kasu gehiegi egin gabe, aritu da, bere kabuz hainbat gauza erantsiaz.
- 2-31/32 *aserreac* < *erguelqueriec* (GGero 39). Orain argi xamar geratzen da ez duela hitza ulertu.
- 2-32 *eraqueriac* < *erhoqueriec* (GGero 39). *erakeria* da XVIII-XIX. mendeetako Hegoaldeko forma arrunta (cf. *OEH*, s.v. *erokeria*).
- doaz laster* < *eguiten dute laster* (GGero 39). *laster egin* ez du behin ere zehazki (‘korrika egin, arineketan joan’) itzultzen (cf. 9-234, 10-48/49, etab.), behin bederen (12-277) bere hartan utzi badu ere.
- 2-33 *igues, urrinduten jacaz* < *ihes* (GGero 39).
- 2-34 *baquie*: ik. § 4.3.10.13.
- 2-34/35 *ezituezala ondo... eracutsico deutsela* < *eztuquetela harenganic beguitareric eta ez ongui ethorriric* (GGero 39).

2 §.

Esaten dau Job santuac, deabruaz verba eguiten dabela (Job 40): Guerizpean, cañaberaren estalpe ta guerizan eguiten dau bere loa, an gueratuten da. Cañabereac, nola dan landara alperra, fruturic eztacarrena, <29> eta barruan bere utsa, adierazoten dau alperra. Eta emen, bere vici-lecu ta ostatu jaquiñean ta ezagutuan leguez, ostatuten da deabrua. Agatic, cirautsan San Geronimoc bere adisquide bati (S. Jeronim. ad Rustic.): Etzaitte beimbere alperric egon, zaquioz beti lan on bati, onela beti deabruac ondo emona arquite ta idoro zaguizan.

Malicia asco iracatsi dau alperreriatic, diño Espiritu Santu Jaunac (Eccle. 33). Ezta maliciariatic, ez pensamendu charric, presona alperrean idoro ezтитеquenic. Asco da esatea alperra dala, agaitic edocein gaistaqueria sinistuteco.

Igaro nintzan, diño Jaquintsuac (Prov. 24), guizon naguiaren solotic eta ero-zoro gobernubaguearen masteguitic, ta guztiatic cegocen asunez, aranzaz

-
- 2-38 *estalpe ta guerizan < estalgunean eta guerican (GGero 39).*
 2-39 *eztacarrena < iasaiten eztuena (GGero 39).*
 2-40 *adierazoten dau < significatcen du (GGero 39).*
alperra < presuna alferra (GGero 39).
emen < hartan (GGero 39).
bere < nor bere (GGero 39). Lehenago *bacocha bere* erabili du (ik. 2-8. oh.), testuiguruak gehiago lagunduta, nonbait.
vici-lecu ta ostatu < ostatu (GGero 39).
 2-41 *jaquiñean ta ezagutuan < jaquinean (GGero 39); leh. ostatuan leguez, -an leguez ezabatua.*
ostatuten < ostatatcen (GGero 39); cf. VB ostatutu (c.) "hospedarse".
cirautsan: gainean, ciñoan-en ordez, < erraiten cioen (GGero 39).
 2-42/43 *Etzaitte beimbere alperric egon < Etzaudecilla behin ere alferric (GGero 40).*
 2-43 *zaquioz beti lan on bati < eguiçu bethi ere cenbait obra on (GGero 40).* *zaquioz: ekin-en trinkoa (cf. OEH, s.v. 1 ekin, iruzkin interesgarri batekin; erants bekio Añibarro bertako zerrendari).*
onela < alatan (GGero 40).
beti < bethiere (GGero 40).
ondo emona < emplegatua (GGero 40).
 2-43/44 *arquitu ta idoro zaguizan < ediren çaitçan (GGero 40).*
 2-45 *Malicia asco... Jaunac < Multam malitiam docuit otiositas, dio Spiritu Sainduac. Anhitz malicia eracutsi içatu du alferqueriatic (GGero 40).*
 2-46 *pensamendu < pensu (GGero 40); ik. 1-86. oh.*
 2-47 *agaitic: leh. argaitic, < hartçaz (GGero 40).*
 2-48 *diño Jaquintsuac < (dio Spiritu Sainduac) (GGero 40); Axularrena mahastitic-en ondoren agertzen da.*
 2-49 *ero-zoro < erho (GGero 40).*
masteguitic < mahastitic (GGero 40); eta gero mastuitic (2-53) eta mastitic (2-55); cf. VB mastia, mastegua, mastuia (c.) "viña".
cegocen < ciren (GGero 40); ik. 1-91. oh.

- 50 ta bedar gaistoz beteac; eta esiac, latak, inguruac ta ormac bere jausiac ta banatuac. Eta oneec alan icusi nituenean, eguin neban gogoeta, artu neban adividea, icasi neban cer eguin bear neban, centzatu nintzan besteen buruan ta ganean. Eta cer dan naguiaren solotic ta ero gobernubaguearen mastuitic igarotea adierazoten dau Glosac, esaten dabela (Glos. ordin. in Prov. 24):
- 55 Naguiaren solo ta lurretic eta gobernubaguearen mastitic igarotea da presona nagui alper ardurabaguearen <30> vicitza ta joan-etorriac gogoratutea, eta euroetan, solo jorraitubaguean leguez, asun, bedar gaisto ta lollo asco, falta uts-eguite asco, malicia, gaistaqueria, vicio ta becatu asco idorotea. Asuna idoroten da alper-naguiaren lurrean ta soloan. Asunac adietan emoten
- 60 dau naguitasuna: baldin bigunquiro, suabetasunaz, leun, naguiro, azalcho ta palaguz leguez oratu, ucutu, igortzi ta erabilten badozu asuna, erreco zaitu; baña ez ausardiaz, gogor ta indarraz estutu ta irardausten badozu. Dan lurric onenac bere, bear dau landu, apaindu, garbitu ta jorraitu, diño Ovidioc (Ovidi: lib. de trist.), cerren bestela bedar gaistoa izango da jaun eta jabe. Ezta

-
- 2-50 *esiac, latak, inguruac ta ormac < hesiac, hersteguiac eta harmorac (GGero 40). latak: irakurri ezin daitekeen zerbaiten gainean erantsia; cf. VB “entrada, puerta para sembrados”, “puerta, barrera, entrada a los sembrados, piezas cerradas” (bietan b., vs g. langa).*
- 2-51/52 *adividea < exemplo (GGero 40).*
- 2-52 *centzatu < eta centçatu (GGero 40).*
- 2-52/53 *besteen buruan ta ganean < bertceren gaiñean (GGero 40).*
- 2-53 *mastuitic < mahastitic edo ardantcetic (GGero 40).*
- 2-54 *adierazoten < declaratcen (GGero 40).*
- 2-55 *solo ta lurretic < landatic (GGero 41).*
- 2-56 *nagui alper ardurabaguearen < alferraren eta antsicabearen (GGero 41). gogoratutea < consideratcea (GGero 41).*
- 2-57 *euroetan < hetan (GGero 41). bedar gaisto ta lollo < belhar gaixto (GGero 41).*
- 2-58 *falta uts-eguite < falta (GGero 41). malicia, gaistaqueria, vicio ta becatu < malicia eta beccatu (GGero 41).*
- 2-59/60 *adietan emoten dau < significatcen du (GGero 41).*
- 2-60/61 *bigunquiro... ta palaguz leguez < malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala (GGero 41).*
- 2-61 *oratu, ucutu, igortzi ta erabilten < hazcatcen, ferecatcen eta erabiltcen (GGero 41). asuna: Añibaroren eransketa.*
- 2-62 *ausardiaz, gogor ta indarraz < nabasiqui eta ausartqui (GGero 41). estutu ta irardausten < hersten eta marruscatcen (GGero 41). irardausten: irardausi inarrosi-ren aldaera anitzetatik bat baino ez da, Añibarrok erabili ohi duena, hain zuzen (cf. OEH, s.v. inarrosi); hala-holako itzulpena, beraz. Diodan bidenabar, Axularren iharrosi bakarra saihestu duela Añibarrok (ik. 3-21. oh.).*
- 2-63 *landu, apaindu, garbitu ta jorraitu < appaindu, garbitu eta iorratu (GGero 41). diño Ovidioc: Axularrek latinaren ondoren eta euskarazko itzulpena baino lehen dakar (GGero 41).*
- 2-64 *izango da < izanen da bethiere (GGero 41).*
- 2-64/65 *Ezta gaisotasunic...: esaldi honek “Plaut. de Rep.” erreferentzia darama ertzean (GGero 41), Añibarrok jaso ez badu ere.*

65 gaissotasunic eta ez edeníc edo menenoric naguitasunac edo alperqueriac
dun beste calte eguiten dabenic.

Dirudi ta esan lei, agaiti gura ez ebala Jangoicoac, egon cedilla beimbere
ichasoa gueldiric; bai gura dau ibilli dedin, mugui dedin, marea dedin,
ur-gorac ta ur-berac euqui daguicen. Bada, bestela atsitu liteque, quirastu li-
70 teque, zapoz, suguez, arrez ta loitasunez bete liteque, putzuac, oxinac ta bes-
te ur gueldiac betetzen dirian leguez.

<31>

3 §.

Presona alperra euqui eguizu galdutzat eta iltzat. Eta andic esaten dau
75 Senecac (Senec. epist. 28): Letra ta jaquituria bagueco atseguña, ecer ezta-
quienaren alperqueria, guizon viciaren il-oea da ta sepulturea. Ceren ecer
eztaquiena ta eguiten eztabena, presona illaren ta lurpetuaren antzeco adiga-
rria da. Vicio guztien, gaistaqueria guztien ta gogoraciño gaisto guztien ci-
mendu, sustrai, iturburu ta maissua leguez da alpertasuna, diño San Chri-
80 stostomoc (S. Chrisost. tom. 2); ceren iturritic urac leguez, alan alperqueritic
jaioten dira gaistaqueriac.

-
- 2-65 *edenic edo menenoric* < *poçoinic* (GGero 41); cf. *VB meneno* (c.), *edena* (b.) eta *pozoia* (g.) “veneno”.
- 2-66 *dun beste* < *beçanbat* (GGero 41); ik. 0-153. oh.
- 2-67 *Dirudi ta esan lei* < *Badirudi* (GGero 41).
agaiti: lehen *agaitic*.
gura ez ebala < *eztuela nahi içatu* (GGero 41).
egon cedilla < *dagoen* (GGero 41); ik. § 5.1.3.7.
- 2-68 *bai* < *baiña* (GGero 41).
mugui dedin, marea dedin < *higui dadin, marea dadin* (GGero 41); ik. § 5.1.3.2.
- 2-69 *ur-gorac ta ur-berac euqui daguicen*: Añibarroren eransketa, ziurrenik *marea dedin-*
en azalpen gisa (ik. § 5.4.2).
Bada < *Ceren* (GGero 41).
- 2-70 *arrez* < *ielez* (GGero 41), hots, ‘igelez’.
- 2-75 *Letra ta jaquituria bagueco* < *Letra gabeco* (GGero 42).
- 2-77 *eztaquiena*: leh. *eztaquienc*.
eguiten < *eguiten ere* (GGero 42).
- 2-77/78 *antzeco adigarria da* < *pare baita* (GGero 42).
- 2-78 *gaistaqueria guztien*: Añibarroren eransketa.
- 2-78/79 *cimendu, sustrai, iturburu ta maissua* < *cimendu, ithur-buru eta maestru* (GGero 42).
- 2-79/80 *diño San Chrisostomoc*: Axularrek latinaren ondoren eta euskarazkoaren aurrean da-
kar (GGero 42).
- 2-80 *urac leguez* < *ura beçala* (GGero 42).
alan alperqueritic < *alferqueriatic ere* (GGero 42); ik. § 5.1.1.1.

Andic eldu da pobretasuna, beartasuna, escapremiña, esquean ibiltea, baita lapur izatea. Naguitasuna da beartasunaren ta pobrezaren iñudia ta az-ama, diño Senecac (lib. de benefic.). Eta esaten dau Espiritu Santuac bere: Naguia beti da bear, escas, urri ta premiñan (Prov. 2). Ostuten ebanac, diño San Pabloc, eztaguiela ostu, bear eguin begui, manea bedi, ta onela izango dau beretzat ta besténtzat (Ephes. 4). Esan gura dau, baldin bear eguiten badau, ezabela ostuco, ez esca premiña andiric icusico. <32> Escu nasai alperrac beartasuna dacarque, baña indartsu ta bearguilleac aberastasuna batu ta bilduten dau, diño Espiritu Santuac (Prov. 10).

San Ambrosioci diño (S. Ambros. ad Vercel.): Esau alperrac galdu eban bere lentasuna ta senipartea, gurago ebalaco artu, ece ez billatu. Alan eguin oi dabe beste gende alperrac bere: gurago dituez bestén ondasunac zucen edo oquer artu, ta eurenac bere prendan ifini ta saldu, bear eguin baño. Eta guero ecin artu dituenean eta ez ostu, eta prendaquizunic ta saltzecoric ez da-

- 2-82 *eldu da = GGero 73, hots, 'dator'.
escapremiña: lerro batetik besterako igarobidean erantsia, letra txikiagoaz; ez du kiderik Axularrenean. Cf. HH escapremia "mendiguez".*
- 2-83 *baita < eta bai (GGero 42); aurrean ta ezabatua (ik. § 5.2.6).
lapur: leh. lapurra; cf. ohoin içaitea (GGero 42).
beartasunaren < necesitatearen (GGero 42).*
- 2-83/84 *iñudia ta az-ama < unhidea eta haz-ama (GGero 42). iñudia: ik. 15-17. oh.*
- 2-84 *diño Senecac: Axularrek latinaren ondoren eta euskarazkoaren aurrean dakar (GGero 42).*
- 2-85 *bear, escas, urri ta premiñan < behar, escas eta errumes (GGero 42).*
- 2-86 *diño San Pabloc: Axularrek latinaren ondoren eta euskarazkoaren aurrean (GGero 42).
bear eguin begui < baiña travailla bedi (GGero 42).
manea bedi < manaia bedi (GGero 42); ik. § 5.1.3.2.
onela < halatan (GGero 42).*
- 2-87 *beretzat ta besténtzat < bere eta bertceren (GGero 42). Villasantek ere (1976: 42) "para sí y para otros" itzultzen du.*
- 2-88 *esca premiña andiric < errumesqueriaric (GGero 42). esca: gainean erantsia; ik. 2-82. oh.*
- 2-88/89 *nasai alperrac < lacho eta alferrac (GGero 43).*
- 2-89 *beartasuna < pobretasun (GGero 43).
indartsu ta bearguilleac < bortitzac eta travaillariac (GGero 43).
aberastasuna < aberatstasun (GGero 43).*
- 2-90 *batu ta bilduten < viltcen (GGero 43).
diño Espiritu Santuac: Axularrek latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean dakar (GGero 43).*
- 2-92 *lentasuna ta senipartea < lehentasuna (GGero 43).
gurago ebalaco artu < Ceren nahiago içatu çuen hartu (GGero 43).*
- 2-92/93 *eguin oi dabe < eguiten dute (GGero 43). Hainbatetan gertatzen da (ik. § 5.1.3.13).*
- 2-95 *ecin artu dituenean < ecin har deçaquetenean (GGero 43).
prendaquizunic < bahitcecoric (GGero 43).
ta saltzecoric < eta saltcecoric ere (GGero 43).*

benean, abiatzen dira esquean, valiatzen dira batez ta bestez, lotsari ta arpegui char ilun asco icusten dituela, eta ascotan atea bere ichiten deutsecela, enzun-gor ta ez-icusi eguinic, iñoc jaramon gura ecinic. Dirudi au adierazo gura ebalá Espiritu Santuac, esan ebanean (Prov. 25): Atzeratu eguizu ceure
 100 oña adisquidéaren echetic, ez sartu an sarri, ase, aspertu ta gogaitu eztaguizun, gogaicarria eguin etzaiozan, atea jo ta ordu gachean bota etzaizan. Cerrren, San Ambrosioc diñolez (S. Ambros. in Epist. ad Theod. cap. 2), besteren maira sarri doianac dirudi alperqueriari emona dala.

<33> Lan-bear onean izango da asco ta ugari, diño Espiritu Santuac,
 105 baña berba ta barriqueta asco dan lecuan, an oi da beartasuna ta pobreza (Prov. 14). Alperrac entero dira berba-egucune ederrecoac, miñ-labanac, barritsuac, verba-lapicoac; oneen laguntzan zagozanean, ezta zure aldiric: zu baño aec obeto enzunac dira; oneentzat dira enzutaldi guztiac; oneei jagoquez mundutarrac aoa zabalic ta belarriac zur zoli irazarriric adi. Baña gue-

- 2-96 *valiatzen dira batez ta bestez < bataren eta bertcearen forogu (GGero 43). dira: gainean erantsia. Itzulpen askea; beheraxeago (2-112)forogu ongi itzulita agertzen da.*
- 2-96/97 *lotsari ta arpegui char ilun asco icusten dituela < anhitz veltçuri eta beccaitzcoa içaiten dutela (GGero 43).*
- 2-97/98 *eta ascotan... gura ecinic < eta atheac ere maiz, ez iccusi iduri eguinic, hersten çaiçtela (GGero 43); ik. § 5.2.1.1.*
- 2-98 *Dirudi < Badirudi ecen (GGero 43).*
- 2-100 *ez sartu an sarri < ez hain maiz ibil (GGero 43); ik. § 5.2.1.1.*
- 2-100/101 *ase... bota etzaizan < asse ezteçaçun, higuin etçauitçan, eta gaitzets etçaitçan (GGero 43). aspertu: gainean erantsia; marka ase aurrean dago, baina hitza ondoan; bes-tetan egiten duenagatik, ordena egokia hauxe dela deritzat, Urquijok (1923: 313) aspertu ase ta gogaitu irakurri arren.*
- 2-104 *Lerrokada honen hasiera falta da Axularren testutik: Eta halacoa eta halacoac, haiña <baña> eta haiñac <haisiac> maiz dira gaizqui eta on-behar. Baiña alde ez tira urricalkizun; ceren bere faltaz, travaillatu nahi gabez, eta ethorquicunera ez behatuz halacatu <halocatu> baitira. Paga beçate beraz iragan duten aisia eta alferqueria, presenteco penaz eta travailluaz; leheneco assea eta soberania, oraico gosseaz eta escasiaz (GGero 43-44).
 diño Espiritu Santuac: Añibaroren eransketa.*
- 2-105 *berba ta barriqueta < hitz (GGero 44).
 an oi da < maiz da (GGero 44).*
- 2-106 *Prov. 14: oharra bai, baina deirik ez dago jatorrizkoan.
 entero: cf. VB (c.) "sobremanera", chit eta guztiz-en aldean, besteak beste; badu tradizio txiki bat XIX. mendetik aurrera, baina Añibarrok berak ordezkatu zuen EL²-n (cf. OEH, s.v.).*
- 2-106/107 *berba-egucune ederrecoac... verba-lapicoac < hitztun eder, solhasturi handi (GGero 44).*
- 2-107 *laguntzan < compaiñian (GGero 44).
 zagozanean < çarenean (GGero 44).*
- 2-108 *oneentzat dira enzutaldi guztiac < hequentçat da audiencia guztia (GGero 44). enzutaldi: cf. OEH, s.v. entzunaldi; edonola ere, Axularrek 'entzuleria' esan nahi duela dirudi.*
- 2-108/109 *jagoquez mundutarrac < dagote mundua (GGero 44).*
- 2-109 *zur zoli irazarriric < ematuric (GGero 44). zur: gainean erantsia.
 adi: gainean erantsia, beguira-ren ordez, < beha (GGero 44).*

110 ro azquenean oneec escale ta zu emalle. Au da alperqueriatic edo naguitasunetic eldu dan irabacia, beartasuna, premiña, esquean ibiltea; bataren ta bestearen carga ta gogaicarria izatea; cale gogor bacarrean burua icustea; ez cer jan, ez cer lan ez euquitea.

115 Baña calte guztien ganeco caltea, alperqueriatic eldu dan andiena, ta aztu-erazoten dabena orainguiño esan dodan guztia, da luzamenduan guerotic guerora ibiltea. Bada nagui alperrac eztau beimbere esaten gaur: beti biar, beti guero, beti lucemendu. Alpertasuna da guero guztien itur-burua, cimendua ta ama: eguïteco guztiac gaurtic biarrera, orainic etorquizunera ta guerotic guerora luzatzen dituena. Eta ama onen alaba au, naguitasunetic ta
120 <34> alperqueriatic sortuten dan guero au da gure galgarria, gure gacha, ta gaurguiño gure arerio deabruac gu engañatu ta galtzeco idoro daben videric ta asmuric oberena, onena, fiñena, ciur seguruena.

Eguiaz, guc bere Guero oni contuz beguiratu bear deutsegu. Au gueuganic quentzeco, urrinduteco ta echetic ateratzeco, bear dogu gueure indar guztiaz, aleguin ta ardura guztiaz erabagui, ensaiatu, saiatu, estutu ta arduratu;
125 eta gaur eguin bear dogun gauzaric ta al daiquegunic, ez biarco luzatu.

-
- 2-111 *eldu dan < heldu den 'datorren' (GGero 44).
beartasuna, premiña, esquean ibiltea < probecia, errumesqueria (GGero 44).*
- 2-112 *gogaicarria < forogu (GGero 44).*
- 2-112/113 *cale gogor... ez euquitea < ondore gaiztoa, calte handia (GGero 44). Erreparatu ez cer jan, ez cer lan esapid,eari.*
- 2-114 *eldu dan < heldu den 'datorren' (GGero 44).*
- 2-114/115 *ta aztu-erazoten... guztia < ceïni narraicola erran baitu[t] nic, oraïnooan erran dudan guztia (GGero 44). Zerikusirik ez jatorrizkoarekin.*
- 2-115/116 *luzamenduan guerotic guerora ibiltea < luzamendua, guerotic guerora ibiltcea (GGero 44).*
- 2-116 *Bada < Ceren (GGero 44).*
- 2-118 *gaurtic biarrera < egunetic biharrera (GGero 45).
orainic < presentetic (GGero 45).*
- 2-121 *gaurguiño < egundaiñotic (GGero 45); cf. VB (b.) "hasta ahora, hasta el día de hoy".
engañatu ta galtzeco < enganatceco (GGero 45).
idoro daben < ediren ahal duen (GGero 45).*
- 2-122 *asmuric < arteric (GGero 45).
oberena, onena, fiñena, ciur seguruena < hoberena, finena eta segurena (GGero 45).*
- 2-123 *Eguiaz < Beraz (GGero 45); ik. § 5.3.4.
contuz beguiratu bear deutsegu < eduqui behar diogu beguia (GGero 45).*
- 2-123/124 *gueuganic < gueureganic (GGero 45).*
- 2-124 *quentzeco, urrinduteco ta echetic ateratzeco < khentcera, urruntcera eta echetic atheratcera (GGero 45).*
- 2-124/125 *indar guztiaz, aleguin ta ardura guztiaz < indar guztiaz eta antceaz (GGero 45).*
- 2-125 *erabagui, ensaiatu, saiatu, estutu ta arduratu < enseiatu, permatu, deliberatu (GGero 45). saiatu: gainean erantsia.*
- 2-126 *gaur < egun (GGero 45).
al daiquegunic < ahal daidiquegunic (GGero 45).*

3. BURUA

*Celan nai-gura utsétan ta deseo bacarretan igaroten
jacun demporea.*

1 §.

5 Esaten dau Salomonec, edo Salomonen aotic Espiritu Santuac (Prov.
26), atea bere susterrean, contzan edo elgontzan leguez, iruli ta biurtzen dala
naguia bere oean. Atea bere sustarrean, bere oñean, orpo ta toquian ondo ja-
rria ta ifinia dagoanean, erraz ichi ta idiguiten da; arin alde batera ta bestera
erabilten da. Baña erabilte guztioac gatic bere, erabilli ostein edo ondoan
10 bere lecuan ta toquian guelditzen da. <35> Naguia bere negu otzean, atear

-
- 3-1 3.: aurrean *Capitulu*, ezabatua.
3-2 *bacarretan < choilletan (GGero 45). bakar* ezohiko adieran erabilia (ik. halaber 3-57,
3-68, 3-89, etab.), nahiz honekin bil daitezkeen adibide zenbait izan *OEH*-an (s.v.
bakar 1, lehen azpiatalean).
3-6 *susterrean, contzan edo elgontzan < erroetan (GGero 45). susterrean:* gainean eran-
tsia. Cf. *VB* “gonce: c. *contza*”, “gozne: *elgontza*” eta “pernio: *elgontza*”. *Suster* edo
sustar-erako (ik. 3-7) ez daukat pareko lekukotasunik; Azkuek biak eta *zuztar*; *zuz-*
ter aldaerak jaso zituen, lehenak bizkaieraz eta bigarrenak gipuzkeraz, “raíz”,
“aguijón”, “tallo”, “raspa de la uva” eta antzeko adieretan.
iruli ta biurtzen < itçultcen (GGero 45).
3-7 *naguia < naguia ere (GGero 45).*
oean < ohean edo camastran (GGero 45).
bere sustarrean, bere oñean, orpo ta toquian < erroetan eta uhaletan (GGero 45). sus-
tarrean: gainean, *elgontzan*-en ordeztan (ik. 3-6. oh.). *orpo:* gainean erantsia; cf. *VB*
“quicio: *contza, orpoa, erroa*”.
3-8 *erraz < erraxqui (GGero 46).*
ichi ta idiguiten < hersten eta idequitcen (GGero 46).
arin < aise (GGero 46).
3-9 *erabilte guztioac < erabiltce hec guztioac (GGero 46).*
ostean edo ondoan < ondoan (GGero 46). edo: gainean erantsia.

ateari darautsanean, oean muguitzen da, beste aldera itzultzen da, burua goituric jartzen da. Baña orregaitic itzul-inguru gira-bira oneez guero, lotara bere oe berora biurtzen da. Bada, au berau espiritualqui becatari naguiagan bere jazoten da. Becatariac egon ezquero, ezagutzen dau bide oquerra da-
 15 roiala, galdua doiala. Eta artzen dau cerbait gogo, artzen dau nai-gura bat bide onera biurtzeco, vicitza barri bat artzeco ta orduguñoco ecandu ta oitura gaisto guztiac ichiteco.

Baña guero bere, biurrera ta ibilte guzti oneen azquenean, atea bere susterrean, elgontzetan ta naguia bere oean leguez, bere becatuen egotaldian
 20 gueratu edo guelditzen da.

Azor derichan egazti arrapatari bat escuan dauquezunean, muguitzen da, egaz eguitera prestatu ta abiatzen da, ta eiza edo caza ecarten joaten da. Baña, au eguiñic, len cegoan escura biurtzen da. Alan biurtzen da, bada, becatari naguia bere, bere gogoeta on guztien buruan, bere lenagoco tornueta-
 25 ra ta maiña gaistoetara. Asten da, baña naguiro; urtu, urbildu, urreratuten da,

- 3-11 *darautsanean < darauntsanean (GGero 46)*. Añibarrok kalkatu bide du Axularren aditza, zeren eta *dirautsanean* esperoko baikenuke garai haietako bizkaitar batengan, baina ez erabat itsuka, *n* gabeko bihurtu baitu (cf. *dirautsagu* Mg PAb 145, *dirautsela* Astar II 192, ap. *OEH*, s.v. *erauntsi* 1).
- 3-12 *orregaitic < hargatic (GGero 46)*.
itzul-inguru gira-bira < itzul-inguru (GGero 46); aurreneko batean (ik. 1-264/265. oh.) ez du *itzul-inguru* onartu, lehen ez baitzen Hegoaldean ezaguna, dirudienez (cf. *OEH*, s.v.); cf., erabat bakartua, VB “rodeo: *ingurua, gira, bira, itzul-ingurua*”.
- oneez guero < hequen buruan (GGero 46)*.
- 3-14 *egon ezquero < egonaren buruan (GGero 46)*. Villasatek (1976: 46) “al cabo de permanecer en ese estado” itzultzen du.
- 3-15 *artzen dau < hartcen du (GGero 46)*. *dau*: aurrean *ditu*, ezabatua; ohartu osagarri zuzena *cerbait gogo* dela: sing./pl. zalantza, kasu honetan singularraren alde erabakia, bestetan ez bezala (ik. § 5.1.2.7).
cerbait gogo = GGero 46.
- 3-16/17 *ecandu ta oitura < aztura (GGero 46)*.
- 3-18 *guzti oneen < hequen guztien (GGero 46)*; ik. § 5.1.2.2.
azquenean < finean (GGero 46).
- 3-18/19 *susterrean, elgontzetan < erroetan (GGero 46)*. *susterrean*: gainean erantsia.
- 3-19 *egotaldian < chisteran eta etçauntçan (GGero 46)*.
- 3-20 *gueratu edo guelditzen < baratcen eta guelditcen (GGero 46)*. *edo*: gainean, *ta*-ren orde.
- 3-21 *Azor derichan egazti arrapatari bat < Aztorea (GGero 46)*. Cf. VB “azor: c. *egazti arrapatari bat, azora, rea*” (< *HH* “azor, *egazti arrapari bat, azorá, azorea*”). *arrapatari* forma ia-ia Añibarrok bakarrik erabili izan du (ik. *OEH*, s.v. *harrapatari*); ik. § 5.4.2.
muguitzen da < higuiczen da, iharrosten da (GGero 46); cf. 2-62. oh.
- 3-22 *prestatu ta abiatzen < appoderatcen eta oldartcen (GGero 46)*.
ta eiza edo caza ecarten joaten da: Añibarroren eransketa.
- 3-23 *au eguiñic < oldartce hec eguin eta (GGero 46)*.
- 3-24/25 *tornuetara ta maiña gaistoetara = GGero 46*.

baña ez asco. Alangoac gaitic esaten dau Isaias Profetac (Isai. 37): Etorri cirian seiña edo umea <36> eguiteco ordura, baña ez eben eguin, etzan artaraco indarric asco. Artuten dogu gogoa, artzen dogu vorondatea, obra onac eguin bear ditugula; eta etorten gara eguin bear dogucen ordura, baña an
 30 gueratu ta atzeratuten gara, an uco, eurt-atzera eguiten dogu, bearrean uts eguiten dogu. Cergaitic-ce artzen dogun gogo, asmo ta vorondate á, ezta fiña, ezta eguiazcoa, ezta erabaguiro erabaguaia, gura-izatea da, ez nai-gura oso benetacoa. San Agustinec ciñoan beragaitic (S. Agust. lib. 8. Confes. c. 5): Ene vorondate barriac ez eucan indarric asco vorondate zarra goitu,
 35 goiartu, venzuteco; lo datzanac, erdi irazartzen danean, eguiten dau muguidaren bat, jagui gura irudi bat, baña, celan eztan eguiaz asco estututen, barriro lotara biurtzen da, loa aguintari ta jabe guelditzen da. Alan diño San Agustinec jazoten jacola aldi baten berari bere (Idem ibi c. 8): Munduco atseguiniac ta contentuac, lo gozo batec leguez azpian menderatzen ninduan,
 40 eta nosic bein etorten jatazan atseguin oneetatic jaguiteco ta Jangoicoagan

-
- 3-25 *Asten < Enseiatcen (GGero 46).
 naguiro < flacoqui (GGero 46).
 urtu, urbildu, urreratuten < hurbiltcen (GGero 46).*
- 3-26 *asco < asqui (GGero 46).*
- 3-27 *seiña edo umea eguiteco < erditceco (GGero 47). seiña: aurrean seiña, ezabatua.
 ordura < pontura (GGero 47).*
- 3-28 *gogoa... vorondatea < gogo... vorondate (GGero 47).*
- 3-30 *gueratu < ixtitcen (GGero 47).
 uco, eurt-atzera < anu eta ukho (GGero 47). Cf. zuec beti Espiritu santuari eurt atzera eguiten deutsezue (NekeA 31-10) eta VB eurt eguin (c.) “oponerse”.*
- 3-30/31 *uts eguiten < faltatcen (GGero 47).*
- 3-31 *gogo, asmo ta vorondate < gogo eta vorondate (GGero 47).*
- 3-32 *erabaguiro erabaguaia < deliberatuqui deliberatua (GGero 47). Cf. HH erabaqui
 “definitivamente”, baina badirudi Añibarrok Axularrena “itzuli” duela zuzenean; ik.
 § 5.5.2.*
- 3-32/33 *gura-izatea da, ez nai-gura oso benetacoa < nahicundea baita, eta ez nahia (GGero
 47). nai-gura aurrean gur], ezabatua. Ohartu nola gaintitu duen Axularren bereiz-
 kuntza finak jartzen dion zailtasuna.*
- 3-33 *San Agustinec ciñoan beragaitic < dio San Agustinec (GGero 47), latinaren ondoren
 eta euskarazkoaren aurrean.
 ez eucan < etçuen (GGero 47).*
- 3-34 *goitu, goiartu, venzuteco < garaitceco (GGero 47).*
- 3-34/35 *muguidaren bat < cenbait muguida (GGero 47).*
- 3-36 *jagui gura irudi bat < iaiqui nahi iduri bat (GGero 47).
 eguiaz asco < asco cinez (GGero 47), hots, ‘aski zinez’.
 estututen: aurrean pre], ezabatua, < permatcen (GGero 47).*
- 3-37 *aguintari ta jabe < nabusi (GGero 47).*
- 3-38 *aldi baten < aldia batez (GGero 47).*
- 3-39 *contentuac < placerec (GGero 47).
 azpian menderatzen ninduan < azpian nenducaten (GGero 47); egiatan ninduen behar
 zuen (ik. § 4.2.1).*
- 3-40 *atseguin < placer (GGero 47).*

gogotuteco gura batzuc; baña oneec guztioe lotaric irazarri gura dabenaren irudintza argal uts batzuec leguez cirian, probechubaguecoac loa quentze-
co, munduco gaucetario ateratzeco indarric asco ez ebénac. <37> Eta alan
neure deseo on guztien ondoan bere, neure lenagoco usadio, ecandu, oitura
45 char ta becatuetan guelditzen nintzan.

Gura dau ta gura eztau naguiac, diño Salomonec (Prov. 13): Ez dau
gura-izate osoa, betea ta benetacoa. Eta Beda veneragarriac diñoiez (Beda
lib. 2 in Prov.): Gura dau naguiac Jangoicoaren erreinuan parteletasuna,
baña ez a erreinu gozotasunez betecoa irabazteco igaro bear dirian neque,
50 atsecaba, garratz-min ta naibaguétan. Sariac poztuten dau, nequeac tristetu-
ten dau, izutu, ollotu ta bildurtu. Ondo eguitetic datorren irabacia, onic eguin
baga gura leuque gozatu. Gura dau joan Cerura, baña nequetu бага, burua
ausi бага, aleguiñic eguin бага. Ez atseguñic gura dau ichi, ta ez penaric

-
- 3-41 *oneetatic* < *hetaric* (GGero 47).
jaguiteco < *ilquiteco* (GGero 47). Honela itzuli ohi du (ik. 6-100/101, 6-105/106, 6-138, 6-142, 8-83/84 eta 11-120. oh.); *urten* beranduago baizik ez da aurkitzen, dela *jagui-z* lagunduta (6-2, 11-36, 11-137), dela bera bakarrik (10-28/29).
- 3-42 *gogotuteco* < *phensatceco* (GGero 47). VB *gogotu* (c.) “pensar”.
lotaric = GGero 47.
- 3-42 *irudintza* < *enseiu eta permadura* (GGero 48).
argal uts batzuec < *flaco batçuc* (GGero 48).
- 3-42/43 *loa quentceco* < *loa garaitceco* (GGero 48).
- 3-43 *gaucetario* < *eguitecoetario* (GGero 48).
- 3-44 *on*: gainean erantsia, Axularrek (GGero 48) badakar ere.
ondoan < *buruan* (GGero 48).
- 3-44/45 *usadio, ecandu, oitura char ta becatuetan* < *usantcetan eta beccatuetan* (GGero 48).
- 3-46 *ta gura eztau* < *eta eztu nahi* (GGero 48).
diño Salomonec: Axularrek latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean dakar (GGero 48).
- 3-47 *osoa, betea ta benetacoa* < *ossoa, eta ez complitua* (GGero 48).
Eta Beda veneragarriac diñoiez: Añibaroren eransketa; Axularrek (GGero 48) ertzean bakarrik aipatzen du.
- 3-48 *parteletasuna* < *parte* (GGero 48); cf. VB *parteletasuna* (c.) “participación”.
- 3-49 *a erreinu gozotasunez betecoa* < *erresuma haren* (GGero 48). *betecoa*: esango nuke *betea* edo behar lukeela.
- 3-49/50 *neque, atsecaba, garratz-min ta naibaguétan* < *trabailluetan* (GGero 48); leh. *neque-ac, atsecabac, garratz-minac*, baina gero bukaera guztiak ezabatu ditu (ik. § 5.2.5). *garratz-min*: Añibaroren tautologietako bat, berak bakarrik erabilia (cf. *OEH*, s.v. eta ik. § 5.3.1); beheraxeago (3-82) *garratzmin* itxuran berragertzen da.
- 3-50 *Sariac poztuten* < *Pagamenduac alegueratcen* (GGero 48).
- 3-51 *izutu, ollotu ta bildurtu* < *eta icitcen* (GGero 48); ik. § 5.2.5. *izutu*: aurrean *ta*, ezabatu. *ollotu*: gainean erantsia.
datorren < *heldu den* (GGero 48).
- 3-52 *Cerura* < *parabisura* (GGero 48).
- 3-52/53 *nequetu бага, burua ausi бага, aleguiñic eguin бага* < *nekhatu gabe* (GGero 48).

- artu. Nagui da videa artzen. Eta naguia, San Isidoroc diñolez (S. Isidor. lib. 2 ethim.), da errena leguez, oñac ditu gaisso, gogoia erbal ta argal. Bapere, ecer bere eguin бага, gueure gogoac ta vorondateac dirauscuzan gauzac baxen eguin бага, deseo uts bacarracaz, vorondateaz bacarric gura guenduque salvatu ta Ceru eder gozoan sartu. Eta onelaco deseo utsetan, gueroraco gogoetan ta vorondatean dempora guztia igaroten jacu.
- 60 Esan oi da deseo onez beteric dagoala Infernua. Cerren an dagozan zorigaistocoac, obratu ezpében bere, <38> deseo on batzuc baño ezpadira bere izan cituezan. Ezta iñor ain gaisto galduric, nosic bein bere gaistaqueric ichiteco gogoia etorten ez jaquenic, ta deseo ta guraria banacac izaten eztituanic. Baña deseo oneec eurac bacarric eztira asco; bada oneec lorac leguez
- 65 dira. Eta provechuric eztan leguez artzen eztaben loreaz, oratu ta guelditzen
-
- 3-54 *Nagui da videa artzen < Herabe du bideari lotcera (GGero 48).
Eta naguia, San Isidoroc diñolez: Añibarroren eransketa; Axularrek ertzean bakarrik aipatzen du, eta in media res hasten: Maingu da... (GGero 48).*
- 3-55 *da errena leguez < Maingu da (GGero 48).
argal < flaco (GGero 48). Honen ondoan Axularren esaldi oso bat falta du: Nahicun-dea badu eta badugu, nahia eta obratcea çaicu falta, hura guerocotz egotzten dugu (GGero 48).*
- 3-55/56 *Bapere, ecer bere < Deus ere (GGero 48). Axularren esaldia honela da: Deus ere obratu gabe, deus ere, gueure gogoac...*
- 3-56 *eguin < obratu (GGero 48).*
- 3-56/57 *dirauscuzan gauzac baxen < dioscun gauçaric baicen (GGero 48); ik. § 5.1.1.5. dirauscuzan: leh. dirauscun. gauzac: leh. gauzaren.*
- 3-57 *deseo uts bacarracaz < desira hutsen botherez (GGero 48).
vorondateaz bacarric < vorondateaz beraz (GGero 48); ik. § 5.1.2.3.*
- 3-58 *Ceru eder gozoan < Ceruco lorian (GGero 48); ik. § 5.4.2.
onelaco deseo utsetan < desira hautan (GGero 48).
gueroraco < gueroco (GGero 48); ik. § 5.1.1.9.
gogoetan < gogoan (GGero 49).*
- 3-58/59 *Esan oi da < Erran comuna da (GGero 49).
deseo onez beteric dagoala Infernua < infernua desira onez bethea dagoela (GGero 49); ik. § 5.1.3.1.*
- 3-60/61 *dagozan zorigaistocoac < direnec (GGero 49); ik. § 5.1.3.8.*
- 3-61 *baño ezpadira bere < bedere (GGero 49).*
- 3-62 *iñor < nehor ere (GGero 49).
gaisto galduric < gaixtoric (GGero 49).
nosic bein < cenbait aldiz (GGero 49).*
- 3-63 *jaquenic: iñori-rekin komunztatu behar duenez, jaconic esperoko genuke; cf. ethortcen ez çaicanic (GGero 49).
deseo ta guraria banacac < cenbait desircunde on ere (GGero 49). guraria: ik. § 5.1.1.1. banacac: bakanak.*
- 3-63/64 *eztituanic: leh. eztabenic.*
- 3-64 *deseo oneec eurac bacarric < desircunde on hec berac (GGero 49). Berriz bakarrik (ik. 3-57. oh.).
lorac < lorea (GGero 49); ik. § 5.1.1.6.*
- 3-65/66 *Eta provechuric... galduten danaz < Eta nola hartzen eztuen loreaz, itchatchetquitcen eztenaz, botean edo ninicoan galtcen denaz, ezpaita probetchuric (GGero 49).*

eztanaz, bere botoi pipil ta ninian galduten danaz; onela, ecin dateque onic, probechuric, ez fruturic, vorondatea beragaz, guraiza utsaz, deseo ta gogo bacarraz eguin al litequela, eguin bago guelditzen danaz.

- Alperrari esan bear jaco daguiela; eta naguiari abiatu, muguitu ta presta
 70 dedilla; eta celangoa bata, alacoa bestea, bata leguez bestea, biac alcar dirudie, biac bat ta vorondate utsecoac; ez dabe ezpada gura-izate utsac, deseo, gogo ta cuticia gaiezac, gauzezac, prestuezac, ecer valio eztabenac. Eta nai-gura oneec eurac dira penagarriric asco, diño Escritura Santeac (Prov. 2), ta deseo utsac ilten dabe naguia. Esan oi da naguienzat ta alperrentzat egun
 75 guztiac dirala jai-fiestac. Baña obeto esan lei, alacoentzat jaiac bere astegunac diriala; cerren bearguillac euren bearrean baño, ascotan alperrac bere alperquerian bear-neque gueiago <39> ta gogaicarriago idoroten dau. Au agui-

-
- Ohartu joskera aldaketei: perpaus nagusiaren aurrerapena dago batetik (ik. § 5.2.1.4), eta *nola* > *leguez* aldaketa (ik. § 5.2.18) bestetik.
oratu ta guelditzen < *itchatchetquitzen* (GGero 49): honek erakusten digu Añibarrok ondo ulertu duela esaldia; cf. "...de la flor que no arraiga, de la que no prende" (Villasante 1976: 50).
- 3-66 *botoi pipil ta ninian* < *botean edo ninicoan* (GGero 49). *botoi*: bilduta dauden lekukotasunen arabera (denak anitzez ekialdekoagoak; ik. OEH, s.v. 1 *botoi* 3), egiantzekoago dirudi Ax. *botean*-ek burura ekartzea, benetan hala erabiltzea baino (ik. § 5.3.3). *pipil*: cf. VB *pipila* (b.) "botón... en flores".
onela < *hala* (GGero 49).
- 3-66/68 *ecin dateque onic... eguin bago guelditzen danaz* < *vorondateaz beraz, desira hutsaz, choilaz eta bacarraz, obra ahal ditequeyela, obratu gabe guelditzen denaz, ecin dateque probetchuric eta ez fruturic* (GGero 49); ik. § 5.2.1.4.
vorondatea beragaz < *vorondateaz beraz* (ik. § 5.1.2.3).
guraiza: jat. *guraizaz* (arg. zuz.); cf. VB "querencia, benevolencia" (< HH).
- 3-69 *abiatu, muguitu ta presta* < *higui* (GGero 49). *presta*-z ik. § 4.3.9.
- 3-70/71 *celangoa bata, alacoa bestea, bata leguez bestea, biac alcar dirudie* < *hala bata, nola bertcea, biac orobatsu baitira* (GGero 49). *celangoa*: gainean, irakurri ezin daitekeen hitz baten orde; *alacoa*: gainean, *cein*-en orde. *biac alcar dirudie*: cf. *gauza ascotan dirudie alcar* (6-5) < *anhitz gauçatan baitirudite elccar* (GGero 78).
- 3-71 *biac bat ta vorondate utsecoac* < *biac dira vorondate huts* (GGero 49); ik. § 5.1.1.5.
- 3-71/72 *ez dabe ezpada... ecer valio eztabenac* < *eztira nahicunderic, desircunderic, gogoric eta guticiaric baicen* (GGero 49). Cf. VB *gaieza, gauzeza, prestueza* (c.) "inútil" (lehenengo biak < HH).
- 3-73 *oneec eurac* < *hec berac* (GGero 49).
diño Escritura Santeac: Añibarroren eransketa. Axularrek ertzean bakarrik. Erreferentzia ondoko esaldiari (*deseo utsac ilten dabe naguia*) soilik dagokio, eta Axularrek latinez baino ez du ematen: *Desideria occidunt pigrum* (GGero 49).
- 3-74 *Esan oi da* < *Erraiten ohi da* (GGero 49).
- 3-75 *jai-fiestac* < *besta* (GGero 49).
esan lei < *erran liteque* (GGero 49).
- 3-75/76 *astegunac* < *astelegun* (GGero 49).
- 3-76 *ascotan* < *anhitzetan ere* (GGero 49).
- 3-77 *gueiago ta gogaicarriago* < *guehiago* (GGero 49); ik. § 5.4.2.
- 3-77/78 *Au agui da* < *Agueri da* (GGero 50).

ri da David erregueagan. Erregue oni ez eutsen eguño guerrac ta guerretaco
 nequeac aimbat eguiteco ta atsecaba emon, non alperqueriac ta alperric ce-
 80 goala eguin cituan becatuac. Eztagoz alperric atseguñetan dabiltzenac, diño
 Senecac (Seneca de brebit. vit.); cerren gustu ta atseguintasunetan badira bai
 naibague, atsecabe, garrazmin, neque ta cereguiñac. Alper egoteaz jausten
 dira eguiteco andietan ta damugarrietan. Celan ez jateac galtzen dituzan
 aguiñac, alan bear eztanetic, irabaci eztanetic jateac bere emoten deutse ga-
 85 rrazpera, diño San Chrisostomoc (S. Chrisost. homol. 36. tom. 3).

2 §.

<45> Gauza segurua, ciurra, jaquiña, eguiazcoa ta fedecac iracasten da-
 bena da salvatuteco, Ceruco glorian sartuteco, eztiriala asco deseo, naicun-
 de soil ta nai-gura uts bacarrac. Ezpada, bear direala Jangoicoaren legue ta
 90 aguindu santuac deseoaz leguez obraz bere cumpli, beté ta gordé. Au da

- 3-78 *David erregueagan < erregue David baihan (GGero 50).
 Erregue oni < Erregue hari (GGero 50).*
- 3-79 *aimbat... non... < hanbat... nola... (GGero 50). Añibarroren egitura bitxi suertatzen da,
 ainbat... non... ondorio perpausa izatea espero dugulako, nahiz Añibarrok ainbat...
 (e)ze... erabili ohi duen (ik., adib., 8-181 eta 12-65). Kideko esaldi batean, berriz,
 ainbat... zein... darabil: arratsaldean bear eguiten asi cirian languillai ta achurla-
 rriai emon eutsen aimbat aloguera ta bear-sari, cein goxetic bear eguin ebenai (12-
 280/282) < hanbat tornal eta alacairu, nola... (GGero 169).*
- 3-79/80 *alperric cegoala < alfer cegoala (GGero 50).*
- 3-80 *Eztagoz < Eztaude, ez (GGero 50).
 atseguñetan < placeretan (GGero 50).*
- 3-80/81 *diño Senecac: Axularrek latinaren ondoan eta euskarazkoa baino lehen (GGero 50).*
- 3-81 *gustu ta atseguintasunetan < placer hetan (GGero 50).*
- 3-81/82 *badira bai naibague... ta cereguiñac < bada displacer eta atsecabe, travaillu eta
 eguiteco (GGero 50); ik. § 5.1.1.5.*
- 3-83 *andietan ta damugarrietan < handitan (GGero 50). damugarri: VB (c.) “sensible, que
 causa dolor” (< HH); ik. § 5.1.1.4.*
- 3-84 *aguiñac < hortz-haguinac (GGero 50).
 bear eztanetic, irabaci eztanetic < behar eztenetic (GGero 50); ik. § 5.5.1.*
- 3-84/85 *emoten deutse garrazpera < hortzquitceintu (GGero 50). garrazpera: VB (c.) “carras-
 pera”. Itzulpen askea, askeegia nonbait, zeren jatorrizkoan deutse haginei baitago-
 kie, eta ez alfer daudenei.*
- 3-85 *diño San Chrisostomoc: Añibarroren eransketa; Axularrek ertzean bakarrik.
 Amaieran “Pasa dos ojos” dio, eta halaxe da: bi orrialde txuri daude. Zenbakuntza, ha-
 lere, 45.ean hasten da, jauzi handi bat eginez (ik. § 3.2).*
- 3-87/88 *Gauza segurua... iracasten dabena < Gauça segura da eta eguiazcoa, fedecac eracus-
 ten duena (GGero 50). ciurra: gainean erantsia.*
- 3-88 *Ceruco glorian: leh. Ceruan, < ceruco lorian (GGero 50).*
- 3-88/89 *eztiriala asco... nai-gura uts bacarrac < eztirela desira onac berac asco (GGero 50).
 soil: gainean erantsia.*
- 3-89 *Ezpada < Baiña (GGero 50).*
- 3-89/90 *legue ta aguindu < manamendu (GGero 50).*
- 3-90 *cumpli, beté ta gordé < complitu (GGero 50). cumpli-z, ik. § 5.1.3.2.*

eguia, ta eguia au christiñau fededunac garean guztioac sinisten dogu. Baña orrez guztiaz, idoroten ditu gure malicia ta vorondate gaistoac iguesbide batzuc, itzulpide, inguru, achaquia ta escusa batzuc, obratutea ichi ta largaric, deseo bacarretan demporea igaroteco, lucemenduetan ta icharomenetan ibilteco. Lan bearra eguin gura ez ebanac, otzaren achaquia emon eban, diño Jaquintsuac (Prov. 20); baraututeco nagui zanic, buruan min ebala esan eban. Naguiac, bere lecutic muguitu gura eztabenac, eragozqueta andiac idoroten ditu, videan bere leoia dagoala esaten dau (Prov. 19). Adisquide bat larga gura dabenac, adisquidetasuna ausi ta urratu gura dabenac, era ta ocasiñoac billatuten dituz, achaquia, itzulpideac ta asmu asco idoroten dituz. Alan idoroten doguz, bada, guc bere ocasiñoac, erac, escusac, asmuac, achaquiac, iguesbideac becatuetan egoteco, deseoetan ta gurarietan demporea igaroteco.

- 3-91 *christiñau fededunac* < *guiristino* (GGero 50).
 3-92 *malicia ta vorondate gaistoac* < *maliciac eta vorondate gaixtoac* (GGero 50); ik. § 5.2.5.
 3-92/93 *iguesbide batzuc... ta escusa batzuc* < *cenbait itzulpide, cenbait desencusa eta escapateco bide* (GGero 50). *inguru, achaquia*: gainean erantsiak. *itzulpide*: egiatan Axularrek *itzurpide* idatzi zuen (Gero 50), baina GGero-aren irakurketak *itzulpide* “evasión” (HH > VB) eta “excusa”, “disculpa” (VB) bezalako sarrerak eragiteaz gainera, Añibarro (berak bakarrik, OEH-aren arabera, s.v. *itzurpide* 2) hemen ez eze (ik. 3-100, 14-35, 16-172, baita *itzulbide* 47-16) bestetan ere (MisE 153, ap. OEH) erabiltzera eraman zuen. Bide batez, OEH-ak aldaera hutsa bailitzan aipatzen du, beste azalpenik gabe, gutxienez Mitxelena 1970: 85 eskura bazeukan ere. Xehetasun gehiagotarako, ik. Urgell 2000.
 3-93 *ichi ta largaric* < *utciric* (GGero 50).
 3-94 *deseo bacarretan* < *desiratan* (GGero 50).
lucemenduetan ta icharomenetan < *luçamendutan* (GGero 50-51); ik. § 5.1.1.4. *icharomenetan*: gainean, *ichadotetan*-en ordezt, baina hau ezabatu gabe; *itxaromen, itxadote* ez bezala, usu agertzen da Añibarroren idazlanetan (cf. OEH, s.vv.).
 3-95 *achaquia emon eban* < *atchaquia eguin çuen* (GGero 51).
 3-95/96 *diño Jaquintsuac*: Añibarroren eransketa. Axularrek ertzean bakarrik (GGero 51).
 3-96 *baraututeco nagui zanic* < *barutcera herabe çuenac* (GGero 51).
 3-97 *eragozqueta* < *trabu* (GGero 51).
 3-98/99 *Adisquide bat larga gura dabenac* < *Adisquideaz deseguin nahi denac* (GGero 51).
Adisquide bat: leh. *Adisquideaz*.
 3-99 *ausi ta urratu* < *hautsi* (GGero 51).
era ta ocasiñoac < *occasinoac* (GGero 51). *era ta*: gainean erantsia.
 3-100 *achaquia, itzulpideac ta asmu asco* < *anhitz desencusa eta estacuru* (GGero 51).
achaquia, itzulpideac gainean, *escusa*-ren ordezt.
idoroten dituz < *edireiten du* (GGero 51); ik. § 5.1.2.7.
 3-101/102 *ocasiñoac, erac, escusac, asmuac, achaquiac, iguesbideac* < *occasinoac, desencusac, estaculuac* [sic], *atchaquiac eta itzulpideac* (GGero 51).
 3-102 *becatuetan* < *beccatutan* (GGero 51).

Iñoc ontasunera estutu ta premiñatuten zaituanean, eta atzera zagozanean, eranzuten deutzazu alan estututen zaituenari: <46> Ichozu orain presentean, oraingoan parcatu bear deustazu, ecin nei oraindiño zuc diñozuna. Cerrren buruan sartu jat asmo bat, cumpli bear dot gogoraciño au; gogoratu jat gurari bat, irago bear dot a gúrari ta guticia; apur bat ase bear dot, aspertu bear nas, digiritu ta egosi bear dot; eta guero, asé, bete, dichiri, aspertu ta necatu nadinean, orduan dirianac ichico dodaz; orduan vide on batean jartzera ta seguratzera cin-ciñez, eguiaz ta benetan erabaguico dot. Baña bitartean, orduguño ezta cer chitic eguin. Bada nic orain al daiquedan guztia da deseo

- 3-104 *ontasunera* = *GGero* 51; gainean erantsia, *onera*-ren ordez.
estutu ta premiñatuten < *hersten* (*GGero* 51).
zaituanean: leh. *zaituenean* = *GGero* 51; ik. § 4.2.1.
- 3-105/106 *Ichozu... bear deustazu* < *Othoi orai presentean barccatu behar derautazu* (*GGero* 51). Ez da dudarik, dena dela, *othoi*-k zer esan nahi zuen bazekiela: *Ichozu*-ren aurrean *Erregututen deutzut*, ezabatua.
- 3-106 *ecin nei* < *ecin daidiquet* (*GGero* 51).
- 3-107 *asmo bat* < *fantasia bat* (*GGero* 51).
gogoraciño au < *fantasia hura* (*GGero* 51).
- 3-108 *irago* < *iragan* (*GGero* 51); Axularrek eraginda eta oharkabean itzuri bide zaio *irago*, ezagutu bai (cf. *VB* s.v. *pasar*; etab.), baino erabili ohi ez duena, *igaro* baita gainerakoan, hemen eta kanpoan, darabilena (cf. 0-31, 0-118, 0-124, 0-137, etab. etab.). Bada, dena den, beste salbuespen bat: *iragote* (37-22).
a gurari ta guticia < *guticia hura* (*GGero* 51).
- 3-108/109 *aspertu bear nas* < *aspertu behar dut* (*GGero* 51).
- 3-109 *digiritu ta egosi*: gainean, *gozatu*-ren ordez, < *dichiritu* (*GGero* 51). Cf. *VB* “digerir la comida: c. *jatecoa egosi*”. *digiritu*: Axularren *dichiritu*-ren egokitzapena, antza denez, bestela *digeridu/-tu* (cf. *digerietaco*, *LoraS* 61) erabiliko zukeen eta (cf. *OEH*, s.v. *dijeritu*). Bide batez, *OEH*-ak Inchauspere argitalpenekotzat jotzen duen *dixiritu* irakurketa, dakusgunez, egiatan *GGero*-koa da.
guero: gainean, *orduan*-en ordez, < *guero orduan* (*GGero* 51).
- 3-109/110 *asé... necatu* < *asse, asper, dichiri eta nekha* (*GGero* 51). *dichiri*: gainean erantsia, ondoan *gozotu*, ezabatua, eta *digerir* dituela (cf. 3-109. oh.). *necatu*: aurrean *nequ]* (*nequetu?*), ezabatua.
- 3-110 *nadinean*: ondoan Axularrek *vianda higuintcen has daquidanean* (*GGero* 51) dakar. *batean*: eta ez *baten*; esapide zenbaitez (-z *batean*, *bat-batean*) edo *bestean*-ekiko erakaketaz kanpora, nekez agertzen da *baten*-en ordez; halere, adibideak ez dira falta, eta bukaera aldera gero eta sarriago (ik. 12-9, 12-87, 12-93, 12-166, 28-155, 41-153, 43-44, 44-23, 44-24, 46-25, 49-115, 53-161, 53-196, 54-77, 54-82, 54-90, 54-102); behin bederen (ik. 36-15. oh.) *batean baten* zuzendu du.
- 3-110/111 *jartzera ta seguratzera* < *iarccera eta fincatcera* (*GGero* 51); *batean erabagi* eta *bestean deliberatu*-ren lagunak dira; *-ra erabaki* ezezaguna ez bada ere (cf. *OEH*, s.v.), Añibarrok *-tzea erabagi* (3-139, 9-169/170, etab.) erabili ohi du.
- 3-111 *cin-ciñez, eguiaz ta benetan* < *deliberatuqui* (*GGero* 51). *cin* eta *eguiaz*: gainean erantsiak. *benetan*: gainean, *beraz*-en ordez.
erabaguico < *deliberatuco* (*GGero* 51).
- 3-112 *cer chitic eguin* < *cer mintçaturic* (*GGero* 52). *chitic*: aurrean *verb]* (*verba eguin?*), ezabatua.
al daiquedan < *ahal duquedan* (*GGero* 52). *daiquedan* gainean, *neinquen*-en ordez.

óna, gogo ta vorondate ona, ta ez besteric. Ezta vide gaistoa au ta onela orain eguitea, guero gach edo ños ez eguiteco.

115

3 §.

San Agustinec, ondo equianac leguez, gauza asco esaten dituz lucemenduetan ibilteco gai onen ganean. Eracusten dau celan bere vicitza gaistoa ichiteco urrean ta inguruan egoanean, ebillela ecin etenduz, ecin urratuz ta beragan ecin erabagui izanic. Eracusten dau cembat eragozgarri ta locarri idoroten cituan, cembat guerra eguiten eutsen bere lagunac, ocasiñoac ta ecandu gaistoa. Alde batetic gura eban vide onean jartzea, atara bulcatzen eben bere ama santearen negarrac, concienciaco quisquetadac ta ausicadac, ta Jangoicoaren mandamentuac. Eta bestetic, lotu ta atzeratuten eben lenagoco usadioac, maña charrac, oiturac, ecanduac ta azturac; ta guztiz bere

- 3-113 *gogo ta vorondate ona < gueroco gogoa eta intencionea (GGero 52).*
 3-114 *guero gach edo ños ez eguiteco < guero fin gaitz eguiteco (GGero 52).* *gach:* aurean ños edo, ezabatua; ondoren *eguiteco*, ezabatua. *ez:* ganean erantsia. Bistan da ez zuela esapidea ulertu; geroago, berriz, *fin gaisto* (4-225) edo *azquen deunguea* (6-91) bezalako kalkoak egingo ditu, eta behin bederen nahikoa okertuko (ik. 19-174. oh.). Utzi duen moduan, dena dela, ‘gero nekez edo inoiz ez egiteko’ esanahia duela esango nuke.
- 3-116 *ondo equianac < frogatuac (GGero 52).*
gauza asco esaten dituz < anhitz gauça erraiten du (GGero 52).
 3-116/117 *lucemenduetan < luçamendutan (GGero 52).*
 3-117 *gai < pontu (GGero 52).*
Eracusten < Contatcen (GGero 52).
- 3-118 *urreean ta inguruan egoanean < ingurunera cenean (GGero 52).*
ebillela < ibili cen (GGero 52); ik. § 5.1.3.7. Ohartu *celan... -la* egitura sortu duela, anakolutoz ziurrenik (ik. § 5.2.9).
urratuz < partituz (GGero 52).
- 3-119 *ecin erabagui izanic < ecin deliberatuz (GGero 52),* nahiz *etenduz* eta *urratuz* izan lehenago (ik. §§ 5.2.19 eta 5.5.1).
Eracusten dau < Contatcen du halaber (GGero 52).
eragozgarri ta locarri < trabu (GGero 52).
- 3-120 *idoroten cituan < edireiten çuen (GGero 52);* ik. § 5.1.2.7.
 3-121 *gura eban... jartzea < desiratcen çuen... iartcea (GGero 52).* Añibarrok, hitzez hitz itzultzen ez aritzekotan, *jarri gura eban* idatziko zukeen.
bulcatzen = GGero 52.
- 3-122 *eben:* leh. *eban,* < *çuten (GGero 52);* ik. § 4.2.1.
concienciaco quisquetadac ta ausicadac < concienciaren autsiquieç (GGero 52); ik. § 5.1.1.8. *concienciaco quisquetada:* VB (c.) “remordimiento, gusano que roe la conciencia”. *ausicada* eta jatorrizko *autsiqui*-ren artean egin zezakeen loturaz, ik. 41-62. oh.
- 3-123 *lotu ta atzeratuten < trabatcen eta guibelatcen (GGero 52).*
 3-124 *usadioac, maña charrac, oiturac, ecanduac ta azturac < usantceç (GGero 52).* *maña charrac* eta *ta azturac:* ganean erantsiak.

- 125 araguiaren ta munduaren labanqueriac, palaguac, verba eder, atseguin ta solasac (libr. 8 cap. 1 Confes.). Oneec euquen irmeago lotua. Eta oneetatic alde eguitea <47> eguiten jacan ain gach, ece bere oraciño ta escariac bere onetan eguiten cituzan guerocó, etorquizaraco. Bada bildur zan, enzun ez eguion bereala Jangoicoac; eta bere gogoan erabiltzen atseguinac, deseo andiaz gocetaco, oneec atzeratuten eben. Eguiteco onetan cebillenean, cirautsan Jangoicoari: Prest nago, prest, Jauna, baña ichodon eguidazu guichi bat (ibi. cap. 6); ichozu beste apur bat; ez porfiatu, ez lar estutu, ez nas beranducorra izango, laster nas zugaz. Onela esaten eban, onela lucetuten eban. Eta, lucemendu onetan cebillela, dempora andia igaro jacan. Baña guero bere, demporaz ta goxic asco biurtu zan; etzan azquenengo orduraño egon.

-
- 3-125 *araguiaren ta munduaren*: leh. *andracumeen*, < *emazten* (GGero 52). Antzeko aldatetak usu gertatzen dira (ik. § 5.4.4).
- 3-125/126 *palaguac, verba eder, atseguin ta solasac* < *balacuec, hitz ederrec eta placerec* (GGero 52). *atseguin*: gainean erantsia. *solasac*: ezabatutako *atseguintasunac*-en ordezt, *diversiñoac* jarri du lehen eta gero, baina hau ezabatu gabe, *solasac*. Hauxe hobetsi dut, bietarik bat eta bakarrik behar zelakoan, hain zuzen beranduago ezarria dirudielako; Urquijok (1923: 490) biak (*ta diversiñoac solasac*) sartu ditu.
- 3-126 *Oneec* < *Emaztec* (GGero 52).
irmeago < *bortitzqui* (GGero 52).
Eta oneetatic < *Emaztetaric* (GGero 52).
- 3-126/127 *alde eguitea* < *apartatcea* (GGero 52).
- 3-127 *eguiten jacan ain gach* < *hain ceitçan* [sic, Gero-n *ceican*] *gaitz eta gaitzi* (GGero 52).
oraciño ta escariac < *othoitçac* (GGero 52-53).
- 3-127/128 *onetan eguiten cituzan guerocó, etorquizaraco* < *hetçaz gueroco, ethorquiçuneco eguiten baitcituen* (GGero 53). *etorquizaraco*: ik. §§ 5.1.1.1 eta 5.1.1.9.
- 3-128/129 *enzun ez eguion* < *ençun ceçan* (GGero 53); ik. § 5.2.3.
- 3-129/130 *eta bere gogoan... atzeratuten eben* < *eta bere placerac, goçatu nahizco desira handi batequin, bere gogoan cerabiltçanac, guibela ciatçon* (GGero 53). Jatorrizkoan, beraz, perpaus hau ere *bildur zan*-en osagarri da, itzulpenean ez bezala.
- 3-130 *cebillenean*: leh. *cebillela*, < *cebillanean* (GGero 53).
- 3-130/131 *cirautsan* < *erraiten cioen* (GGero 53).
- 3-131 *Prest nago, prest, Jauna* < *Ha launa* (GGero 53). *Jauna*: gainean erantsia.
- 3-131/132 *baña... beste apur bat* < *utzaçu appur bat, iguricaçu bertce appur bat* (GGero 53). *beste*: gainean erantsia. *ichodon*: testuko agerraldi bakarra (OEH-ak, s.v. *itxaron*, *LoraS*-n aurkitu du behin), *ichadon* (0-64, 4-69, 4-195, etab.) eta *icharon* (ik. 11-285. oh.) aldaeren aldean.
- 3-132 *ez porfiatu, ez lar estutu* < *ez lehia, ez khecha* (GGero 53). *ez porfiatu, ez lar estutu*: gainean, (*ez lehia*) —Axularrena— eta *aserratu, etzaitte quexatu*-ren ordezt. Lehengo zuzenketa, ezabatua, *ez ansitu* izan zen.
- 3-132/133 *ez nas beranducorra izango* < *ez berantets* (GGero 53). *beranducor*: aldaera honek osagaiak agerian jartzeko Añibarrok eraturakoa dirudi (ik. § 5.3.3): cf. *VB beranducorra* (c.) “tardío” (< *HH bera[n]corra*).
- 3-133 *lucetuten eban*: *eban*-en aurrean *zan*, ezabatua; < *luçatcen çuen* (GGero 53).
- 3-135 *demporaz ta goxic asco* < *hura asco goiz* (GGero 53).
orduraño < *ponturaiño* (GGero 53).

Bada, alde batetic ta bestetic bere contuac eguinic, esan eutsan adisquide bati: Nigan dagoanez, ni campoan nas munduco eguitecoetatic, vanerietatic ta esperanza guztietatic; nic ausi dot, urratu dot munduaz; eguin dot agazcôaz ta erabagui dot Jangoicoa serbitzea. Eta orainche, orainganic asten nas; 140 ezta ia gueiago gueroico gueroric, lucemenduric, ez epetan ibilteric. Eta celan esan, alan eguin bere eban. Lucemendu asco erabilli eban, baña azque-
nean guztiac ta ondo laster ichi cituan. Baña guc eztoqu alan eguiten: egu-
netic egunera gabiltz, beti promesca, beti gogoa artuten; ta beimbere eztoqu
eten ta urratuten, beimbere eztoqu erabagui ta cumplitzen; beti nai, beti na-
145 gu; naicunde, deseo ta gurari utsetan dempora guztia galduten dogu; eta onetan gagozala eriotzeac atzeman ta artuco gaitu.

Icusico dozue eche andi batzuetan araco Hercules sendo famatua pinta-
tua, maquilla porra bat edo mallu andi bat escuan dabela; dirudi beragaz
echean sartzen dirian guztiai burua ausi gura deuséla. Baña, celan Hercules

-
- 3-136 *Bada* < *Aitcitic* (GGero 53); ik. § 5.3.4.
esan eutsan: ondoan Axularrek *deliberamendu handi batequin* dakar (GGero 53).
- 3-137 *Nigan dagoanez* < *Nitçaz denaz beçanbatean* (GGero 53).
- 3-138 *ausi dot, urratu dot* < *hautsi dut* (GGero 53). *urratu dot*: gainean erantsia.
munduaz < *munduarequin* (GGero 53).
- 3-138/139 *agazcôaz* < *harequicoaz* (GGero 53); ik. § 5.3.3.
- 3-139 *erabagui* < *deliberatu* (GGero 53).
orainche, orainganic < *orai bereoin, presenteon* (GGero 53).
- 3-140 *ia* = GGero 53. 'jadanik'. Añibarrok *ya* (LoraS 29; ik. 9-60. oh. ere) edo *iya* (EL² 210)
erabiltzen ditu (OEH, s.v. 1 ja).
ez epetan ibilteric < *eta ez eppetan ibiltceric* (GGero 53).
- 3-140/141 *Eta celan... eban* < *Eta hala, erran beçala, eguin ere çuen* (GGero 53). *bere*: gainean
erantsia.
- 3-143 *promesca* < *prometa* (GGero 54).
gogoa hartuten < *gogo har* (GGero 54).
- 3-143/144 *eztoqu eten ta urratuten* < *ez ethen* (GGero 54).
- 3-144 *eztoqu erabagui ta cumplitzen* < *ez delibera eta ez compli* (GGero 54).
- 3-144/145 *beti nai, beti nagui* = GGero 54; ik. § 5.5.2.
- 3-145 *naicunde, deseo ta gurari utsetan* < *naicunde hutsetan, desircundetan* (GGero 54).
deseo ta: gainean, *utsetan*-en ordez.
galduten dogu < *gal* (GGero 54).
onetan < *hala* (GGero 54).
atzeman ta artuco gaitu < *atrapa, atceman eta har* (GGero 54). *atzeman*: aurean *artu*,
ezabatua.
- 3-147 *eche andi batzuetan* < *iende handi batçuen etchétan* (GGero 54). *andi batzuetan*: leh.
andietan.
araco: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
famatua < *famatu hura* (GGero 54).
- 3-148 *dirudi* < *baitirudi ecen* (GGero 54). Jatorrizko egitura erlatibozkoa bada ere, Añiba-
rrok loturarrik gabe utzi du (ik. § 5.2.10).
beragaz < *hartçaz* (GGero 54).
- 3-149 *burua ausi gura deuséla* < *buruac hautsi behar derauztela* (GGero 54).

- 150 á arriz, zulez edo cobrez <48> eguiña dan edo pintatua baxen eztan, gueldi dago beti, cemaitu baño besteric eztau eguiten. Alan dira, bada, guerotic guerora dabilzenac bere: queiñatu, menazatu, cemaituten dira, baña eztabe besteric eguiten, ezpada siñuz ta quiñuz aditzera ematen dan ademana ta irudinza. Esaten dabe eguingo dot, eta ez dabe beimbere eguiten. Alan dagozala dempora guztia igaroten jaque, eta eurac bere igaroten dira, azquenduten dira, acabetan dira.

-
- 3-150 *baxen*: gainean, *baño*-ren ordez.
- 3-151 *beti*: Añibarroren eransketa.
cemaitu baño besteric eztau eguiten < *kheinatcea eguiten du eta ez bertceric* (GGero 54).
- 3-152 *queiñatu, menazatu, cemaituten dira* < *kheinatcen dira* (GGero 54). Ohartu aditz erregimenari. Cf. VB *cemaitu* (b.), *menazatu* (c.), *quiñutu* (b.) eta *queñatu* (g. n.) “amenazar”; *menazatu*: maiz agertzen da (5-38, 14-134, etab.), beti *cemaitu*-ren aldameanean.
- 3-152/154 *baña eztabe besteric eguiten... ademana ta irudinza* < *eta eztute aurthiquitcen; desatcen dira, eta eztute desarratcen* (GGero 54). Itzulpen askea, pasarte bereziki gaitz batean. *aditzera ematen*: eta ez adietan emoten-edo (ik. 10-32/33. oh.).
- 3-155/156 *igaroten dira, azquenduten dira, acabetan dira* < *iragaiten, finatcen eta accatcen dira* (GGero 54).

4. BURUA

Celan ez dogun gueroco segurantzaric.

1 §.

- 5 Baldin orain darabilgun vicitzea gaistoa bada, guzaz ondo izateco, vicitza gaisto au ichi bear dogu. Baña contua dago ea nos ichico dogun. Zuc diñozu: Guero. Nic diñot: ez guero, ezpada Orain. Dacuscun ea ceñec diñoan obeto, ceñec daben errazoia. Eta eracusteco nic dodala, ta zu zoazala uts eguiñic, eta vide errealetic ta zabaletic alderatua ta erratua, esan eguidazu bein, eguiteco onetan sartu baño len: Zuc diñozu ece guero onduco zareala, 10 guero bear dirian descarguac, neurriac ta eguin-videac eguingo dozuzala. Non dozu Guero orren seguridada? Eztaquizu esan oi dala, eztala eriotzea baño gauza ciur seguruagoric, ta ordua ceñetan izango dan baxen jaquiñezagoric?

-
- 4-1 4. BURUA: aurrean *Capitulu*, ezabatua.
4-4 *Baldin orain... guzaz < Badaquigu orai darabillagun bicitcea, bicitce gaixtoa dela; eta gutçaz... (GGero 55).*
4-5 *ichi: aurrean la] (larga?), ezabatua. contua dago < pontua da (GGero 55). Zuc < Eta çuc (GGero 55).*
4-6 *Nic diñot < Baiña nic diot ecen (GGero 55).*
4-7 *eracusteco nic < eracusteco ecen nic (GGero 55).*
4-7/8 *uts eguiñic: gainean, erraturic-en ordeç, < huts eguina (GGero 55); ik. § 5.1.3.1.*
4-8 *esan eguidazu < Erradaçu (GGero 55); ik. § 5.1.3.7.*
4-10 *descarguac, neurriac ta eguin-videac < descarguac eta eguin bideac (GGero 55). neurriac: gainean erantsia.*
4-11 *esan oi dala < erran comuna den beçala (GGero 55).*
4-12 *baño gauza ciur seguruagoric < beçain gauça securic (GGero 55). ciur: gainean erantsia. seguruagoric: leh. securic-edo.*
4-12/13 *ordua ceñetan izango dan baxen jaquiñezagoric < orena noiz içanen den beçain guti guerthuric (GGero 55). jaquiñez: cf. VB “incógnito” (< HH).*

15 Gure vicitza onec ain dau cimendu erbal, argal, gaissoa ta mea ece, ondo
 verba eguiteco, ecin esan guiñei: biar eguingo dogu onelaco edo alaco gau-
 zea. Bai esan bear dogu, Santiagoc diñoanez: Baldin Jangoicoac gura badau,
 baldin vici bagara, eguingo dogu au edo bestea (Epistol. Jacob. cap. 4).
 Agaitic esaten dau San Mateo Evangelistac (cap. 25): Zagoce prestic, zur ta
 irazarriric, cerren eztaquizue eguna, ez ordua. Eta diño Espiritu Santuac
 20 <49> bere, asco galdu diriala euren buruari etorquizunaz gueiegui promes-
 tuaz (Eccles. 29).

Gure lenengo Aitaren becatuaren bitartez, aganic, aren erruz, guztioac ga-
 goz preso, guztioac gagoz mundu onetaco presondeguian eriotzara condena-
 tuac, sentenciatuac.

25 Baña, igarotez leguez, ucutu daiogun cerbait gure eriotzara condenatu-
 ric egoteco gai, guei lan oni. Dirudi ece, gure lenengo Aitaren becatuagaitic
 ez á, ez gu il bear guintequezala. Cerren bere becatua etzan besteric, ezpada
 Jangoicoac eragotzi eutsan sagar bat edo alaco fruta bat jatea. Bada, sagar
 bat jateagaitic guizon bat bere ondorengo guztiacaz eriotzara condenetea, di-
 30 rudi justicia gogorreguia, barria ta errazoiaren contra dala. Eguia da; alan di-

-
- 4-14 *erbal, argal, gaissoa ta mea <flacoa eta eria (GGero 55). ta mea: gainean erantsia.*
 4-14/15 *ondo verba eguiteco < ongui minçatcera (GGero 55). eguiteco: leh. eguiten.*
 4-15 *ecin esan guiñei: aurrean ecin guiñei, esaten, ezabatua, < ecin baiterraquegu (GGero 55); ik. § 5.1.3.7.*
 4-15/16 *gauzea: leh. gauza.*
 4-16 *Bai < Baiña (GGero 55).*
 4-17 *au edo bestea < haur edo hura (GGero 56).*
 4-18/19 *prestic, zur ta irazarriric < prestic eta iratçarriric (GGero 56).*
 4-19 *eztaquizue: bukaeran letra bat —n ziurrenik— ezabatua.*
ez ordua < eta ez orena (GGero 56).
 4-20 *asco galdu diriala: leh. dala, < anhitz galdu dela (GGero 56).*
 4-22 *becatuaren bitartez < beccatua dela causa (GGero 56).*
aren erruz < haren cariaz (GGero 56).
 4-23 *presondeguian < garcel hunetan (GGero 56).*
eriotzara: leh. eriotzeran-edo, < [h]eriotcera (GGero 56).
 4-23/24 *condenatuac, sentenciatuac < condenatuac (GGero 56).*
 4-25 *igarotez leguez < iragaitçaz beçala (GGero 56); igarotez ‘iragaitzaz’ ez da beste inon aurkitzen, iragaitez (Lç) ez bezala (cf. OEH, s.vv. igarotze eta iragaite).*
 4-25/26 *ucutu daiogun... lan oni < gure heriotcera condenaturic egoiteco pontu haur ukhi deçadan (GGero 56). gai: ondoren oni, ezabatua. ucutu daiogun: NOR-NORK izaten da (1-212/213, 9-155, 16-49/50, etab.), baina badira NORI-NORK-en adibide gehiago (ik. 40-97 eta 54-30).*
 4-27 *ez á, ez gu < ez harc berac, eta ez guc ere (GGero 56).*
il bear guintequezala < ezquenduqueyela hil behar (GGero 56).
Cerren: aurrean Bada, ezabatua, < Ceren (GGero 56).
 4-27/28 *bere becatua... fruta bat jatea < sagar bat, edo halaco bertce fruitu bat, ian çuen (GGero 56).*
 4-30 *gogorreguia, barria ta errazoiaren contra < berriarena, soberania eta arraçoñaren contra (GGero 56).*

rudi. Baña ezta alan: irudia dau, ez izana. Lenago dirudi sagar bat jateagaitic, ain gauza erraz chiquian mandamentua austeagaitic, mereci ebala castigu andiagooa, gogorragooa, latzagooa. Batzuc euren nasaitasunaz beste baga, eztirialaco cristiñau onac, austen dabe barau eguna ardura baga; bategaz ta besteaz solazca barriquetan egoteagaitic, meza enzun baga jai egunean ichiten dabe; verba guztietan, ez edo bai asco dan lecuan, erneguac, juramentuac, biraoac ta añaen gaistoac eguiten dituez; eta guero esan oi dabe: Ez al nas onegaitic, onen gauza chiquiagaitic ta onen erraz eguin dodanagaitic infernura joango? Bada <50> esan gura deusut ece, cerren orrén gauza errazean, chiquian, pildin apurrean ceure zabarqueria, prestueztasuna ta naguitasuna eta Jangoicoaren aguinduaz contu ta ardura guichi eracutsi dozun, ori beragaitic zareala infernuraco.

Baldin Jangoicoac aguindu baleutsu egun guztietan barau eguiteco, zul edo arri baten ganean, oean sartu baga, etzateco; cilicio zorrotz gogor bat,

- 4-31 *ez izana < eta ez içana (GGero 56).*
Lenago dirudi: aurrean Beragaitic dirudi, ezabatua, < Aitcitic (GGero 56).
- 4-32 *ain gauza... austeagaitic < ceren hain gauça ttipian eta errachean manua hautsi çuen (GGero 56); ik. § 5.2.18.*
- 4-32/33 *mereci ebala... latzagooa < aldez hargaitic çuen gaztigu guehiago mereci (GGero 56).*
- 4-33/34 *beste baga: Añibarroren eransketa.*
- 4-34 *eztirialaco cristiñau onac < ceren ezpaitira guiristino finac (GGero 56).*
austen dabe barau eguna ardura baga < barur eguna mengoa gabe hautsten dute (GGero 56); ik. § 5.2.1.1.
- 4-34/35 *bategaz ta besteaz < batarequin eta bertcearequin (GGero 56-57); ik. § 5.1.1.11.*
- 4-35 *solazca barriquetan < solhasean (GGero 57). solazca: sic; solatsez dago aurrerago (11-223), baina osterantzeko agerraldietan txistukaria zuzena da (3-125/126, 19-92, 26-36, 31-71, etab.).*
egoteagaitic < daudecilla (GGero 57); ik. § 5.2.14.
- 4-36 *verba guztietan < hitz guztiaz (GGero 57); ik. § 5.1.1.12.*
ez edo bai < ez eta bai (GGero 57).
- 4-36/37 *erneguac... eguiten dituez < arnegu eta iuramentu eguiten dute (GGero 57); ik. § 5.1.1.5.*
- 4-37 *esan oi dabe < erraiten dute (GGero 57).*
- 4-38 *Ez al nas < Baldinba ez ahal naiz (GGero 57).*
erraz < erraxqui (GGero 57).
- 4-39 *infernura joango < infernuraco (GGero 57).*
deusut: jat. deusuc (arg. zuz.).
- 4-40 *errazean, chiquian, pildin apurrean < errachean, appurrean eta ttipian (GGero 57).*
- 4-40/41 *zabarqueria, prestueztasuna ta naguitasuna < lachotasuna (GGero 57).*
- 4-41 *aguinduaz < manuz (GGero 57).*
- 4-41/42 *contu ta ardura guichi eracutsi dozun < contu guti eguitea eracutsi duçun (GGero 57).*
- 4-42 *ori beragaitic < aldez are horigaitic (GGero 57).*
zareala infernuraco < ifernuraco çarela (GGero 57); ik. § 5.2.1.1.
- 4-43 *aguindu < manatu (GGero 57).*
egun guztietan < egun guztiaz (GGero 57); ik. § 5.1.1.12.
barau eguiteco < barur cindecilla (GGero 57).
- 4-43/44 *zul edo arri baten < çur baten edo harri baten (GGero 57).*
- 4-44 *oean < ohetan (GGero 57).*
etzateco < etcin cindecilla (GGero 57).

- 45 narru azal latz bat beti erabilli cenguilla; edo beste onelaco mandamentu gach nequezco bat emon baleutsu, dirudi ez cegoquela ceren miraritu, ez cumplitea; eta, ez cumplitu arren bere, izango cenduque escusa ta igues-videren bat. Baña gauza chiquian, piscan, ecerezquerian ta errazean, sagar baten eragoztean, ce achaquia ta iguesvide euqui ciñei?
- 50 Adan gure lenengo Gurasoac esquer mesede andi ugariac artu cituan Jangoicoaganic, ta guero, guzti onen buruan, arbola frutudun bat señalatu eutsan, esaten eutsala, beste guztiac bai, baña aren fruturic iñolacoz jan etzeguiela. Aguindu erraza, eragozte chiquia ifini eutsan; eta, orrez guztiaz, ez eban gorde, ez eban beté ta cumplitu; ausi eban, jan eban; errazoiaz, bada
- 55 erraztasun á beragaitic condenatu eban bere ondorengo guztiacaz eriotzera, cerren ondocoac bere aren naturaleza artu eben. Gauza erraza ta chiquia zan galazo eutsena, baña andia desobediencia ta Jangoico baten aguindua ta esana ez cumplitea. Eta, alan, ondo ifinia dago gure contra emonico sententia;

-
- 4-44/45 *cilicio zorrotz gogor bat, narru azal latz bat < cilicio bat, cerdazco guerrico bat larru arras (GGero 57). Badirudi narru azal larru arras-ek iradokia dela.*
- 4-45 *cenguilla: cf. GB 25 cenguiala. edo < edo finean (GGero 57). beste onelaco < hunelaco bertce (GGero 57); ik. § 5.2.1.3.*
- 4-46 *gach nequezco < gaitz (GGero 57).*
- 4-46/47 *ez cegoquela ceren miraritu, ez cumplitea < etçatequeyela miretsteco, ez complitcea (GGero 57); ik. § 5.1.3.8.*
- 4-47 *izango cenduque < içan cenduqueyela (GGero 57).*
- 4-48 *gauza chiquian... ta errazean < gauça ttipian eta errachean (GGero 57). piscan: gainean erantsia.*
- 4-48/49 *sagar baten eragoztean < sagar baten debecuan (GGero 57); ik. § 5.2.2. eragozte: VB eragozte (c.) “prohibición” (cf. HH “inhibición”).*
- 4-49 *ce achaquia ta iguesvide < cer desencana, cer estacuru (GGero 57). euqui ciñei < ahal duqueçu (GGero 57).*
- 4-50 *Adan gure lenengo Gurasoac < Adanec (GGero 57). esquer mesede andi ugariac < anhitz favore eta abantail (GGero 57). artu < errecibitu (GGero 57).*
- 4-51 *guzti onen buruan: leh. onez guztiaz, < hequen guztien buruan (GGero 57). arbola frutudun bat < çuhaitz bat (GGero 57).*
- 4-52 *beste guztiac < bertce guztietaric (GGero 57). iñolacoz: aurrean jan, ezabatua; izan ere, hitz hau Añibarroren eransketa da.*
- 4-52/53 *jan etzeguiela < etçeçala ian (GGero 57).*
- 4-53 *Aguindu < Manamendu (GGero 57).*
- 4-54 *beté ta cumplitu < complitu (GGero 58).*
- 4-55 *á beragaitic < hura gatic beragatic ere (GGero 58); ik. § 5.1.2.3. eriotzera < heriotcera (GGero 58), lehenago (4-23, 4-25, 4-29) eta beranduago (4-59, 4-77...) eriotzara erabiltzen badu ere (ik. § 5.1.1.1).*
- 4-56/57 *Gauza erraza ta chiquia zan galazo eutsena < Gauça, debecua, ttipia da (GGero 58).*
- 4-57/58 *andia... ez cumplitea < desobediencia andia (GGero 58).*
- 4-58 *ondo ifinia < iustuqui (GGero 58); ik. § 5.1.4. ifinia: aurrean ema] (emana?), ezabatua. emonico sententia < sententia emana (GGero 58); ik. § 5.1.3.1.*

60 ondo merecituric gagoz eriotzara condenatuac; ta eztaquigu nosco. Beraz, baldin gueure buruaz <51> contu onic emon gura badogu, condenaturic dagoan bat leguez bear dogu egon, vici ta gobernatu.

65 Carcelan dagoanac, daquienean condenaturic dagoala vicitzea galtzera, noc esan lei celan tristetuten dan? ce gogoan jarten dan? Asten da estutu ta larrituten, alde batera ta bestera itzultzen. Eta, icusiric eguin dala berea, ez dala erremedioric, ez dabela iguesteric, artzen dituz lenez beste gogoeta mueta batzuc. Aztuten da munduaz ta munducoaz, eztau aecaz conturic eguiten. Bere concienciaz, bere arimaz dau cereguiña. Gogoratuten dituz bere becatuac; al daizan ondoen confesetan dituz; batari ta besteari jagoco parquesca. Gueroenean al guztiaz garbituric bere conciencia, ichadoten dau eriotzea.

70 Bada, presondeguian condenaturic dagoanac leguez, alan prestaturic, ac dituan gogoetacaz bear dogu guc bere egon, eguin, vici ta ibilli; á biaramo-

-
- 4-59 *ondo merecituric gagoz < iustuqui gaude (GGero 58).*
 4-60 *gueure buruaz < gueure buruoz (GGero 58).*
 4-61 *bat leguez < batec leguez (GGero 58).*
 4-62 *daquienean < iaquiten duenean (GGero 58); ik. § 5.1.3.7.*
condenaturic dagoala < condenatu dela (GGero 58); ik. § 5.1.3.1.
vicitzea galtzera: aurrean urc] (urcamendira?) eta eriotzara, ezabatuak, < biciaren galtzera (GGero 58).
 4-63 *esan lei < erranen du (GGero 58).*
ce gogoan < cein gogoetatsu (GGero 58); ik. § 5.1.1.4.
 4-63/64 *estutu ta larrituten < hats beherapen eguiten (GGero 58).*
 4-64 *eguin dala berea: Añibarroren eransketa.*
 4-64/65 *ez dala erremedioric < ezuela erremedioric (GGero 58).*
 4-65 *iguesteric < escapatceric (GGero 58); cf. VB igestea (c.) “fuga” (eta igesdea < HH).*
lenez beste = GGero 58.
 4-66 *Aztuten da... munducoaz < Munduaz eta munducoez etsitcen du (GGero 58). Ohartu intrumentala -az dela, plurala izan arren (ik. § 5.1.1.10).*
aecaz < hetçaz (GGero 58).
 4-67 *Bere concienciaz... dau cereguiña < Bere concienciac, bere arimac derauca eguiteco (GGero 58).*
 4-67/68 *Gogoratuten dituz bere becatuac < Bere beccatuac pensatceintu (GGero 58).*
 4-68 *al daizan ondoen < ahalic eta hobequiena (GGero 58); ik. § 5.1.1.5. ondoen: leh. onen.*
 4-68/69 *jagoco parquesca < barccamendu escatcen çaye (GGero 58). parquesca: VB parquesca egon (b.) “(pedir) perdón”.*
 4-69 *Gueroenean < Finean (GGero 58).*
al guztiaz < ahal beçanbat (GGero 58).
garbituric bere conciencia < bere conciencia descargaturic eta garbituric (GGero 58).
 4-69/70 *ichadoten dau eriotzea < heriotceari iguriquitcen dio (GGero 58).*
 4-71 *presondeguian < garcelean (GGero 58).*
dagoanac < dagoen harc (GGero 58).
 4-72 *egon, eguin, vici ta ibilli < egon, bici eta ibili (GGero 58).*

neco leguez, guc bere ez jaquin nosco, menturaz gaur icusico gara Jangoi-
coaren adizain edo tribunal santuan, bada eriotzaco sententia emonic deus-
75 cu guztioi.

Sartu baleguiz Justiciac carcela barruan amar guizon urquemendira con-
denatuac; eta atera baleguiz andic eriotzara gaur bat, biar edo beste egun ba-
ten beste bat edo bi: ete legoque iñor aen artean vicitza lucearen esperanza-
ric leuquenic? Edo lenen ateretan ez ebelaco, azquena izango dala seguru
80 uste dabenic? Eztot uste. Bada, mundu au ezta beste gauzaric, ezpada gueu-
re eriotzara condenaturic gagozanon carcela bat. Eta carcela onetaric atere-
tan gaituz Jangoicoaren justiciac, gaur bat, biar beste bat: bata len, bestea
guero; eztaqui iñorc nos, ez da segurutasunic. Beraz, gagozan zur, irazarri-
ric, prest, ez euqui ezquero segurantzaric, ciurtasunic.

85 <52>

2 §.

Sarri aotan erabilli oi dogun esana da eztogula gueroco seguranzaric,
beti gogozala pelligruan. Eta alan da eguia. Bada guichien uste doguean,

- 4-73 *guc bere ez jaquin nosco* < *gu ere, ez iaquin noizco* (GGero 59). Añibarrok *guc jaquin-*
en subjektua delako uste okerrean zuzendu du, antza denez.
gaur: leh. *gaurco*, < *gaurco* (GGero 59).
- 4-73/75 *icusico gara... deuscu guztioi* < *iaingoaz beraz, iaingoac sententia emanic condena-*
tuac gaudenaz gueroztic (GGero 59). *eriotzaco*: gainean erantsia. *deuscu*: gainean,
dauco-ren ordez, baina hau ezabatu gabe. *adizain edo tribunal*: cf. *VB tribunala*
(c.), *adizaina* (c.) “tribunal”; badirudi Añibarroren beraren hitz berria dela (cf.
OEH, s.v.).
- 4-76 *carcela barruan amar guizon*: *Justiciac*-en ondoren eransteko, gainean, *amar guizon*
ipini eta gero ezabatu du; cf. *iusticiac hamar guizon garcelean barrena* (GGero 59).
- 4-76/77 *condenatuac* < *condenaturic* (GGero 59); ik. § 5.1.3.1.
- 4-77 *atera baleguiz andic eriotzara* < *handic athera baliça galtcera* (GGero 59).
gaur < *egun* (GGero 59).
- 4-77/78 *beste egun baten* < *bertce egun batez* (GGero 59).
- 4-78 *ete legoque* < *Othe liçateque* (GGero 59).
iñor < *nehor ere* (GGero 59).
- 4-78/79 *esperanzaric leuquenic* < *esperantça luenic?* (GGero 59).
- 4-79 *lenen ateretan ez ebelaco* < *ceren eztuten lehena atheratcen* (GGero 59).
azquena: leh. *azquenean*, < *azquena* (GGero 59).
- 4-79/80 *seguru uste dabenic* < *segur licenic* (GGero 59).
- 4-83/84 *gagozan zur, irazarriric, prest* < *gauden erne, gauden prestic* (GGero 59); ik. §
5.1.3.7.
- 4-84 *ez euqui ezquero segurantzaric, ciurtasunic* < *segurantçaric eztenaz gueroztic* (GGe-
ro 59). *ez*: aurrean *segurantzaric*, ezabatua.
- 4-87 *Sarri* < *Comunzqui* (GGero 59).
aotan: gainean erantsia, < *ahotan* (GGero 59).
erabilli oi dogun < *babillan* (GGero 59) < *dabillan* (GGero 59).
esana da eztogula... < *solhasa da. Eztugu...* (GGero 59).
- 4-88 *gogozala pelligruan* < *gara periletan* (GGero 59).

- 90 gogotic quenduago dogunean ta aurrerantzean gauza asco eguiteco gogo artzen dogunean, artzen gaitu eriotzeac. Eztaqui guizonac bere fiñaren barriric; eta amuac cojietan dituzan leguez arrañac, ta egaztiac sareac ta laquioac, alan guizona bere artuten dau eriotzeac. Arraña olguran dagoanean, janari daquionean ta bere ustez obeto dagoanean, achitzen dau arrantzalleac, eta bai egaztia bere eiztariac. Era onetara atzemon ta cogitzen dau becataria
- 95 eriotzeac, bere becatuai josiago, gogotiago ta oratuago dagoanean; gozoroago poztuten danean, ta guichien uste dabenean.

Medicuen esana da, presona batec sendoen ta osasuntsuago dagoanean dabela gaisotuteco pelligru ta zoriric andiena. Eta nos eta uste dozun erioztzea dagoala zuganic urrinago, orduan oi dago gueienetan urrago. Zorrac

- 4-89 *gogotic quenduago dogunean* < *gueure gogarenic gaudenean* (GGero 59). Añibarrok *gogarenic -reanik* atzizkiarekin lotu ote zuen (cf. halaber 4-95. oh.)? *gogarena* ere ez dirudi ulertu duenik (ik. 11-115/116. oh.), baina bai *gogara* eta *gogaraco* (ik. 13-6 eta 20-247. oh., adib.).
aurrerantzean < *aicinera ere* (GGero 59).
- 4-90 *artzen gaitu* < *atrapatcen baicaitu* (GGero 59).
- 4-91 *eta amuac cojietan dituzan leguez* < *baiña nola amuac atcemaiten baititu* (GGero 60). *dituzan leguez*: gainean, *daben-en* ordez. *cojietan*: eta beheraxeago *cogitzen* (4-94); Añibarrorengan 'harrapatu' adiera zehatza dauka (cf. OEH, s.v.), eta batez ere arrantzaz, eizaz edo oro har ihes ari denaz diharduela erabiltzen du, baina deabruak ere arimak *cogidu* ditzake (ik. 31-32, 37-21, 40-90, 43-65, 46-241).
- 4-91/92 *sareac ta laquioac* < *segadac* (GGero 60).
- 4-92 *guizona bere artuten dau eriotzeac* < *guiçonac ere atcemaiteintu bere heriotceac* (GGero 60).
olguran dagoanean < *alha denean* (GGero 60). Ez du ulertu; cf. halaber 4-95/96, 6-7 eta 49-91. oh. eta ik. § 5.3.4.
- 4-93 *janari daquionean* < *bazcari datchecanean* (GGero 60). Gorago *zaquioz* aurkitu dugu (ik. 2-43. oh.).
obeto < *hobequienic* (GGero 60).
achitzen < *atrapatcen* (GGero 60).
- 4-94 *eiztariac*: jat. *eitzariac* (arg. zuz.).
Era onetara < *Hala* (GGero 60).
atzemon ta cogitzen dau < *atrapatcen du bada* (GGero 60).
becataria < *beccatorea ere* (GGero 60).
- 4-95 *bere becatuai josiago, gogotiago ta oratuago dagoanean* < *bere beccatuey bere gogarenic datchetenean* (GGero 60). *gogotiago*: gainean erantsia; aurrenekoan *gogarenic gogotic*-ez itzuli du (ik. 4-89. oh.).
- 4-95/96 *gozoroago poztuten danean* < *goçoquienic ala çayenean* (GGero 60) < *alha* (Gero 60). *alha-z* ik. 4-92. oh.
- 4-97 *sendoen ta osasuntsuago* < *sendoen* (GGero 60). Konparatiboa eta superlatiboa elkarrekin (ik. § 5.2.8).
dagoanean < *denean* (GGero 60); ik. § 5.1.3.8.
- 4-98 *pelligru ta zoriric* < *perilic* (GGero 60).
andiena < *guehiena* (GGero 60); ik. § 5.1.2.8.
Eta nos eta < *Eta hala, noiz eta* (GGero 60). *eta*: gainean erantsia.
- 4-99 *dagoala zuganic urrinago* < *çure ganic dagoela urrunenic* (GGero 60). Konparatiboa nahiago (ik. § 5.2.8).

100 quitutu dozuzanean, eche barria eguin dozunean, umeac ezcondu dozuzanean, ceure gauzac oñ onean ifini dozuzanean, baque on baten jarritera eta sosegu, atseguñ ta igaroipide baquetsu bat ceure buruari emotera prestatu ta abiatuten zareanean, an da bereala eriotzea.

105 Ezcara ecer bere; biderioaz pare gara; ta biderioa bera baño bere pelligruzcoagoac, auscorragoac. Ez dogu biderioac adiña bere indar irauncarriric. Bada San Agustinec diñoanez: Cer da bideriozco ontzi bat baño gauza argalagoric, meagoric, auscorragoric? Baña, onez guztiaz, jagon ta gordeten danean, irauten dau <53> urte ta demporaric lucénetan. Bada, jausteco perilla badau bere, baña ez calentura gaissotasunaren edo zartzearen pelligruric

gueienetan < comunzqui (GGero 60).

urrago < hurbilenic (GGero 60).

4-100 *quitutu < pagatu (GGero 60).*

4-100/101 *ezcondu dozuzanean: dozuzanean gainean (eta ondoren ere errepikatua, oharkabean), ta oñ onean ifini-ren ordezt, < ezcondu dituçunean (GGero 60).*

4-101 *ceure gauzac oñ onean ifini dozuzanean < Finean, ceure eguitecoey garaituric (GGero 60).*

jarritera < iartcera (GGero 60). Eta jarritean (19-107); maizenik jartze (1-18, 3-12, etab.) edo jarte (4-63, 4-135, 8-137, etab.) izaten da.

4-101/102 *sosegu, atseguñ ta igaroipide baquetsu bat < cerbait sosegu eta placer (GGero 60). ta: aurrean ceure bur] (buruari?), ezabatua, eta beronen gainean ta ig] (igaroipide?), hau ere ezabatua. igaroipide: jat. igoroipede (arg. zuz.); hots, 'bizimodua' (cf. 16-107. oh.).*

4-102/103 *prestatu ta abiatuten < prestatcen (GGero 60).*

4-104 *biderioaz pare gara < beiraquiaren pare gara (GGero 60). Ez dut uste Añibarroren egitura arrunta denik; beheraxeago (4-115) egitura bera -en antzekoa-rekin itzultzen du.*

biderioa bera baño < are beiraquia baiño (GGero 60).

4-104/105 *pelligruzcoagoac, auscorragoac < perilos eta hautscorrago (GGero 60); ik. § 5.1.1.5.*

4-105 *adiña bere < beçanbat (GGero 60). bere: gainean erantsia.*

4-105/106 *indar irauncarriric < indar eta sopportu ere (GGero 60). irauncarri: sopportu-ren ordezkua (ik. § 5.3.1); bestetan iraungarri (cf. LoraS 156, adib., eta ik. OEH, s.v. iraungarri 1).*

4-106 *Bada San Agustinec diñoanez < dio San Agustinec (GGero 60-61), latinaren ondoan eta euskarazkoa baino lehen.*

ontzi bat < ontzia (GGero 61).

4-107 *argalagoric, meagoric, auscorragoric < samurragoric eta hautscorragoric (GGero 61). argalagoric: aurrean samurrag] (samurragoric?), ezabatua.*

4-108 *urte ta demporaric lucénetan < mendez mende (GGero 61).*

4-108/109 *jausteco perilla < erortcearen peril (GGero 61); ik. § 5.1.1.8.*

4-109 *baña ez < ordea eztu (GGero 61); ik. § 5.2.9.*

calentura gaissotasunaren < succarraren (GGero 61). gaissotasunaren: leh. gaissotasun; aurrean (succarraren) eta honen gainean calentura fiebre; ertzean ere, succarra, calentura, fiebre, GGero-ren orrialdearekin. Urquijok (1923: 494) baña ez (succarraren) calentura fiebre gaissotasunaren irakurri zuen, baina fiebre inolako zalantzarik gabe erdaraz dago, eta ez euskaraz (ik. § 3.2). Ondoko adibideetan onartzen (succarra edo calentura 20-233) edo etimologikoki berranalizatzen du (calentura edo sugar 7-140, adiera figuratuan su ta garra 54-88); honelako berranalisez, ik. § 5.3.3.

- 110 (San Agust. Serm. 1 de verb. Dni. tom. 10). Bada alan, biderioa baño pelligruz-agoac gara, ta ez guichiago. Cerren ausiteric, jausteric ta gaissotasunic ez euquiarren bere, eta gueure buruac ondoen ta osasunic obenean euqui ta gorde arren bere, adinac, urteac ta demporeac berac deseguin, galdu, urtu, chimurtu, ezaindu ta acabetan gaituz.
- 115 Beti goaz: ez gara beimbere guelditzen. Uraren antzecoac gara: ura leguez goaz (2 Reg. 2). Gure gorputzac ur corront lasterra leguez doaz. Ezcara beimbere ur baten bi bider sartuten: ibai edo errearen icena beti da bat, baña ez ura, diño Senecac (epist. 58). Cerren, celan beti doian, ta beti aldatuaz, ezta beimbere lena. Ez eta gu bere, ezcara beimbere lengoac, bada beti
- 120 goaz, beti aldatuaz, zartuaz ta muguituaz. Eta ezipabere beguiratu eguizu celan presona bat gaztetic zartzarora, eta batzuetan urtetic urtera bere, aldatu, macartu ta ezereztuten dan irudian bere, lena eztirudiela jartzen dan, cein diferente ta bestetua eguiten dan.

-
- 4-110 *Bada alan < Beraz (GGero 61). pelligruz-agoac < perilos ago (GGero 61). Badirudi gaizki irakurri edo ulertu duela perilos (perilo-z, alegia).*
- 4-111 *ta ez guichiago < eta ezteusago (GGero 61). Gaizki ulertua, antza. ausiteric < behaztoparic (GGero 61); ik. 6-15. oh.*
- 4-112 *euquiarren < guerthatuagatic (GGero 61). ondoen ta osasunic obenean < ahalic eta hobequiena (GGero 61). osasunic: leh. osasunean.*
- 4-112/113 *euqui ta gorde < errecaitatu eta beguiratu (GGero 61).*
- 4-113 *adinac, urteac ta demporeac berac < adinac berac (GGero 61).*
- 4-113/114 *deseguin... ta acabetan < eramaiten (GGero 61). deseguin: gainean, acabe]-ren orde. galdu: leh. galduten. chimurtu, ezaindu: gainean erantsiak.*
- 4-115 *guelditzen < baratcen (GGero 61). Uraren antzecoac < Uraren pare (GGero 61).*
- 4-115/116 *ura leguez goaz < ura beçala limburtcen gara (GGero 61).*
- 4-116 *ur corront lasterra < ur-lasterra (GGero 61). corront: VB corronta (c.) “corriente de agua”.*
- 4-117 *bi bider < bietan (GGero 61). sartuten: ondoren diño Senecac, ezabatua, < (dio Senecac) (GGero 61); azkenean ge-roago jarri du, esaldiaren bukaeran (ik. § 5.2.1.1). ibai edo errearen < uraren (GGero 61).*
- 4-118 *baña ez ura < ez ordea ura (GGero 61). diño: gainean erantsia; gogora dezagun aurretik hona aldatu duela.*
- 4-119 *Ez eta gu bere < Ez eta bada gu ere (GGero 61).*
- 4-119/120 *ezcara... muguituaz < nola bethi baicoaci, eta bethi aldatuaz eta mudhatuaz [sic], ez-cara behin ere lehenac (GGero 61; cf. muthatuz, Gero 61). aldatuaz: leh. aldatu, -az, zartuaz gainean erantsia dagoelarik.*
- 4-121/122 *aldatu, macartu ta ezereztuten < aldatcen eta ezeztatcen (GGero 61). macartu: VB “debilitar”.*
- 4-122/123 *diferente ta bestetua < different (GGero 61). bestetua: leh. besteturistic-edo (ik. § 5.1.3.1); VB bestetu (b. g.) “convertir una cosa en otra”, (c.) “trocarse” (< HH).*

- San Gregorioc diño (epist. 26. tom. 2) gure vicitzea ichasoz doianena le-
 125 guez dala: ichasoz doiana jatean, edatean, lo datzanean ta jarriric dagoane[a]n bere badoa, ezta orduan bere guelditzen; bada ontziac, gura ezpadau bere, beragaz daroa. Alan garoez, bada, gu bere adinac, edadeac, urteac ta demporac eurecaz: ezta paratzeric, ezta guelditzeric, ezta egoteric aldantza baga.
- 130 Itanduten deutsu[e]nean cembat urte daucazuzan, ta eranzuten dozunean oguei edo ogueta amar dozucela, cerren ceure contuan alan daucazuz, dirudi eztozula ondo eranzuten. Bada, San Agustinec diñoanez (in psal. 65): Gure urteac datoz joateco, ta ez <54> gugaz egoteco. Igaroten dira: beraz, ecin esan guiñei dituguzala, ezpada igaro jacuzala, larga doguzala. Eta, alan,
 135 baldin urte aen buruan jarten bagara gogoratuten ea cer eguin zan aecaz, eztoгу ecer bere idoroco. Bai icusico dogu, asmatu, ezagutu ta iguerri baga, joan jacucela ta, celan eztaquigula, zartu gareala. Demporac bajoacuz ta urte ixil batzucuz, otsic ta dedarric eguin eztabenacaz, zartuten gara (Ovid. lib. 6. Fasto).

-
- 4-124 *San Gregorioc diño* < (dio San Gregorioc) (GGero 62), beranduago, *itsasoz*-en aurrean jarria. Añibarrok lerrokada burura ekarri du (ik. § 5.2.1.4).
doianena < *dohana* (GGero 62). Axular itsasoz doanarekin ari da erkatzen, noski, ez itsasoz doanaren bizitzarekin, Añibarrok aditzera ematen duenez. Genitiboaren formaz, ik. § 5.1.1.7.
- 4-126 *guelditzen* < *baratcen* (GGero 62).
- 4-127 *beragaz daroa* < *berequin baitarama* (GGero 62). *beragaz*: aurrean *daroa*, ezabatua (ik. § 5.2.1.1).
garoez: leh. *garoaz* (ik. § 4.2.1).
- 4-127/128 *adinac, edadeac, urteac ta demporac* < *gueure adinac eta demborac* (GGero 62).
- 4-128/129 *ezta egoteric aldantza baga* < *eta ez tricateric* (GGero 62); *trikatu* 'gelditu' zer zen jakiterik ez zuen izan, agian.
- 4-130 *daucazuzan* < *dituḡun* (GGero 62).
- 4-131 *dozucela* < *dituḡula* (GGero 62), aurreko oharrean ez bezala.
daucazuz < *baitituḡu* (GGero 62), berriz ere (ik. § 5.1.3.9).
- 4-133 *datoz*: aurrean *eto*] (*etortzen?*), ezabatua, < *ethortcen dira* (GGero 62); ik. § 5.1.3.7.
Igaroten dira < *iragan dira* (GGero 62).
- 4-134 *esan guiñei* < *derraquegu* (GGero 62); ik. § 5.1.3.7.
ezpada igaro jacuzala, larga doguzala: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
- 4-135 *jarten bagara* < *iar bagaiteci* (GGero 62).
gogoratuten ea cer eguin zan aecaz < *hetçaz, cer eguin diren gogoetan* (GGero 62).
- 4-136 *ecer bere* < *deus* (GGero 62).
Bai < *Aitciic* (GGero 62).
asmatu, ezagutu ta iguerri < *sentitu* (GGero 62). *ezagutu*: aurrean *bag*] (*bag?*) *ta*, ezabatua.
- 4-137 *bajoacuz*: aurrean *badoaz*, ezabatua, < *badohaci* (GGero 62).
- 4-138 *batzucuz* < *batzuez* (GGero 62).
eguin eztabenacaz < *eguin gabe* (GGero 62). Añibarrok *urte batzucuz*-ekiko komunztadura ezarri dio, Axularrek *gu*-rekin lotzen duen bitartean.

140 Esaten da: urlia vici izan da iruroguei urtean; baña obeto esan lei, il zala iruroguei urtean. Bada, sortzen gareanean asten gara ilten, orduan abiatzen gara, ta ezcara beimbere guelditzen. Lenengo ilten da seiñ edo umetasuna; seintasanaren ondoan ilten da mutiltasuna; onen ostean ilten da gaztetasuna; onen ondorengo ilten da zartasuna; zartasanaren ondoan ilten da aguretasuna. Adinac guztiac alcarri darraioe; igarotea ta iltea, guztia da bat: bata bestearen atzean doaz errencan, alacoz ece, azquen adina datorreneco, acabatu dira lenagoco guztiac. Bada, San Gregorioc diñonez (homil. 37 in Evang.): Egunetic egunera gorputz-jauste, acabatzea ta argaldutea cer da, ezpada lucero ilte bat? Zucia erexeguinic dagoanean vici da, eta orduan ilten da, bada orduan acabetan da. Erreteaz vici da, ta erreteaz ilten da. Alan bada, gu bere vicitzeaz ilten gara, ta ilteaz vici: bada vici gareanean ilten gara. Eta, cembat gueiago vici garean, aimbat gueiago urretuten gara eriotzaco portura. Alan diño Senecac (epist. 2): Egunoro ilten gara, cerren egunoro gure vicitzeari zati pusca batzuc guichitu ta quentzen jaco. Eta alan azten ta anditzen

- 4-140 *urlia* < *huelaco* (GGero 62).
vici izan da < *bici içatu cen* (GGero 62).
iruroguei urtean < *hirur hogoy urthez* (GGero 62); ik. § 5.1.1.12.
- 4-141 *urtean* < *urthez* (GGero 62).
sortzen gareanean = GGero 62 ('jaino').
- 4-142 *guelditzen* < *baratcen* (GGero 62).
seiñ edo umetasuna < *haurtasuna* (GGero 63); ik. § 5.3.1.
- 4-143 *mutiltasuna* < *morrintasuna* (GGero 63).
onen ostean < *morrintasanaren ondoan* (GGero 63); ik. § 5.5.1.
- 4-144 *onen ondorengo* < *gaztetasunaren ondoan* (GGero 63).
4-144/145 *aguretasuna* < *sentontasuna* (GGero 63).
4-145 *Adinac guztiac* < *Adin guztiac* (GGero 63); *Adinac*-eko *-ac* gaínean berariaz erantsita dago.
alcarri: gaínean erantsia, < *elcarri* (GGero 63).
- 4-146 *errencan*: Añibarroren eransketa; VB "uno tras otro: c. *bat bestearen ondoan, ondoaren, errencan*".
azquen adina datorreneco = GGero 63; ik. § 5.1.1.9.
- 4-147 *homil.*: *aurrean tom. 27 super evang.*, ezabatua, < *Greg. tom. 27 super Evang.* (GGero 63, in m.).
- 4-148 *gorputz-jauste, acabatzea ta argaldutea* < *ahitce eta flacatce hura* (GGero 63). *acabatzea*: gaínean erantsia.
ezpada: gaínean erantsia; cf. *luçaro hiltce bat baicen* (GGero 63).
- 4-149 *vici da* < *bicitcen da* (GGero 63).
4-151 *vici* < *bicitcen* (GGero 63).
vici gareanean < *bicitcen gareanean* (GGero 63).
- 4-151/152 *cembat... aimbat* < *cenbatenaz eta... hanbatenaz* (GGero 63).
4-152 *gueiago urretuten gara eriotzaco portura* < *heriotceco portura hurbiltcenago gara* (GGero 63). *urretuten*: leh. *urtuten*; halaz ere, *urretu* ez da behin ere berriz aurkitzen, *urtu* maiz agertzen den bitartean (3-25, 6-88, 6-89, 8-43, etab.); cf. VB *urretatu, urtu* (b.) "acercarse".
- 4-154 *zati pusca batzuc* < *cenbait pochin eta parte* (GGero 63).

155 gareanean bere, gure vicitzea chiquitu ta laburtzen da. Beti doa, ta bein joan ezquero, ezta joan danaren <55> biurtzeric, eta ez etorquizunaren segurantzaric.

3 §.

160 Esan oi dogu: menturaz gaur ilgo gara, menturaz biar: ez dogu ordu baten ciurtasunic; beraz, len bait len bear dogu vide onean jarri, engañatuac guelditu ez gaitezan. Onela esaten dogu, ta esatea ondo eguiten dogu; baña vicitza ondutea beti gueroco ichiten dogu: eriotzea zartzaroraco lucetu ta dispontzen dogu. Ecin sinistu dogu adinac berac acaba artean acabatuco garea. Esaten dogu bai, menturaz gaur ilgo gara, menturaz biar, menturaz ez-
165 cara zartuco; baña zartuco baguiña leguez ta orain ilgo ezpaguiña leguez eguin daroaguz gauzac. Gueure naieraz batean, gueure gogoac emoten deuscu ain segurantza andia, ece zartzaro utseco punturaño ilgo ezcareala iruditzen jacu.

170 Esan eutsenean deabruac gure lenengo Aita-Amari: Etzaré ilgo iñolacoz (Genes. 3), sinistu eutsen bereala, ciur ta duda бага. Eta dempora atan etzan ain miresteco alan sinistutea. Bada, izanic munduco lenengoac, etzequien oraindiño eriotzaren barriric, ez eben iñor ilten zala icusi; eta, alan, erraz en-

-
- 4-159 *Esan oi dogu < Erraiten ohi dugu (GGero 64).
menturaz < Venturaz (GGero 64).*
- 4-160 *ciurtasunic < segurantzaric (GGero 64).*
- 4-162 *vicitza ondutea < obratcea (GGero 64).*
- 4-163 *Ecin sinistu dogu < Ecin sinhets deçaquegu (GGero 64).
acaba artean < accaba arteiño (GGero 64).*
- 4-164 *Esaten dogu bai < Erran bai nahi duçun beçanbat (GGero 64).*
- 4-164/165 *menturaz gaur... menturaz ezcara zartuco < venturaz bihar hillen, venturaz gaur, venturaz ez çahartuco (GGero 64).*
- 4-165 *ta orain ilgo ezpaguiña leguez: Añibarroren eransketa.*
- 4-166 *eguin daroaguz gauzac < gueure gauça guztiac eguin (GGero 64). daroaguz: gainean erantsia, oi doguz-en orde z baina hau ezabatu gabe (ik. § 4.3.10.6).
naieraz batean < nahiarequin batean (GGero 64).*
- 4-166/167 *emoten deuscu ain segurantza andia < hanbat segurantça emaiten deracu (GGero 64).*
- 4-167 *ece < non (GGero 64).
zartzaro utseco punturaño < çahartu hutsezco ponturaño (GGero 64).*
- 4-167/168 *ilgo ezcareala iruditzen jacu < ezcarela hillen iduritcen baitçaicu (GGero 64). ilgo: aurrean uste dogu, ezabatua.*
- 4-169 *Aita-Amari: singularrean; hegoaldeko testuetan, eta batez ere bizkaierazkoetan, berankor eta urri da Iparraldekoen aldean (OEH, s.v. aitamak); baliteke, beraz, Añibarrok (gaizki) ikasia baino ez izatea, baina cf. seme-alaba (51-20/21. oh.).
iñolacoz: Añibarroren eransketa.*
- 4-170 *eutsen < çuten (GGero 64).
ciur ta duda бага < eta sinhetsi ere colpe batez ossoqui, dudatu gabe (GGero 64).*
- 4-171 *izanic < nola baitciren (GGero 64); ik. § 5.2.18.*
- 4-172 *erraz < erraxqui (GGero 64).*

gañatu cituan deabruac. Alan bada, gura guenduquez gu bere engañatu, sinisterazoric aei leguez ezcareala ilgo. Baña, celan guc orain, icusiric besteac ilten diriala, ta gueu bere zartuaz ta argalduaz goacela, ciur seguru daquigu il bear dogula, ez dogula atzera biurtzeric, ez aurreraco segurantzaric, ecin engaña guintequez ain erraz cein lenengo Gurasóac. Gugaz, guri sinistu eraguiteco ezcareala ilgo, edo sinisten baguendun leguez galdu ta eraguiteco beste vide bat artzen dau deabruac, beste joco modu bat jocatuten dau, beste maiñaz, trazaz, asmuz valiatzen da. Ez osoro, ez colpe batez, ez beingo batez, ezpada guichica ta <56> egunetic egunera lucetuz atrapetan gaituz. Sinisterazoten deuscu ezcareala gaur ilgo, ezcareala biar ilgo; eta ezta eztauquenic biarguiñoco epe luceric, icharomenic ta viciteco esperanzaric; eta onela ta andic, celan uste eztogun gaur ilgo gareala, ez biar bere, vici gara seguruac baguiña leguez edo iños ilgo ezcareala baguenqui leguez; eta contu ero zoro uts onec engañetan ditu eriotzaco egun ta ordura eldu di-

- 4-173 *deabruac*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
gura guenduquez < *nahi guinituzque* (GGero 64); GB 31 *guinduquez*.
- 4-173/174 *sinisterazoric... ezcareala ilgo* < *molde berean nahi lerauquegu guri ere, ezcarela hillen sinhets araci* (GGero 64-65); ik. § 5.2.1.1.
- 4-174/175 *icusiric besteac... ta argalduaz goacela* < *bertceren baithan iccussiz, eta gueure baithan ere çahariceaz eta flacatceaz frogatuz* (GGero 65); ik. § 5.2.19.
- 4-175/176 *ciur seguru daquigu* < *baitaquigu segurqui eta gerthuqui* (GGero 65).
- 4-176 *atzera biurtzeric* < *itçurteric* (GGero 65). *itzultzerik zela egin bide zuen.*
- 4-176/177 *ez aurreraco segurantzaric* < *eta ez nehoizco segurantçaric* (GGero 65).
- 4-177 *engaña guintequez* < *engana gaitçaque* (GGero 65); cf. GB 40 *gaiquez* (hark gu) vs 41 *gueindequez* (gu); beraz, 'ezin engaina gaitetzke' jarri du, oharkabean edo nahita, hori ez dakit.
ain erraz cein lenengo Gurasóac < *gure lehenbico aita ama hec beçain erraxqui* (GGero 65); ik. § 5.3.4.
Gugaz < *Gurequicoçat* (GGero 65).
- 4-177/178 *sinistu eraguiteco ezcareala ilgo* < *ezcarela hillen sinhets aracitceco* (GGero 65).
- 4-178 *sinisten baguendun leguez* < *sinhesten baiquendu beçala* (GGero 65); *baguendun*: sic, *baguendu*-ren ordez (cf. GB 25).
- 4-178/179 *galdu ta eraguiteco* < *eraguiteco* (GGero 65).
- 4-179 *deabruac*: Añibarroren eransketa.
- 4-180 *maiñaz, trazaz, asmuz* < *maiñaz eta traçaz* (GGero 65). *asmuz*: leh. *asmoz*; alderantzizko aldaketa ikusi dugu lehenago (1-86. oh.).
osoro < *ossoqui* (GGero 65).
- 4-180/181 *ez beingo batez*: Añibarroren eransketa. *batez*: leh. *baten*.
- 4-182/184 *eta ezta eztauquenic... esperanzaric* < *eta bihar beçain epe luçeric ez, eta ez bihar arteiño bicitceco esperantça eztenic* (GGero 65). *eta*: aurrean *eta biarguiñoco epe luce*, ezabatua.
- 4-184 *onela ta andic* < *halatan eta handic* (GGero 65).
celan uste eztogun < *nola ezpaitugu uste* (GGero 65).
ez biar bere < *eta ez bihar ere* (GGero 65).
- 4-185 *vici gara* < *bicitcen gara* (GGero 65).
seguruac baguiña < *segur baiquina* (GGero 65); ik. § 5.1.1.5.
- 4-186/188 *eta contu ero... etzilimo*: Añibarroren eransketa, estu-estu hutsunean sartua, geroago erantsia baillitza.

rean gaissóac bere: gaur enas ilgo; au berau diño biaramonean, etzi ta etzili-
mo.

4 §.

190 Eztaquigu nos ilgo garean; eztaquigu nos izango dan gure azqueneco
eguna; ezta, beraz, errazoia jaquin daigun nos izango eztan. Baña dirudi ece,
nos izango dan ezpadaquigu bere, baquigula nos izango eztan. Bada, esaten
dogu guero beste urtean onduco gareala; orduan onelaco ta alaco gauzac
eguingo dogucela; ori danez, baquigu eztala ordura artean izango, bitartean
195 ichadongo deuscula, edo beintzat esan ta eguiten bere badogu ciur baguen-
qui leguez.

Guc gura guenduque eguin gure vicitzeaz ta vicitzeco demporeaz, oial
pusca bategaz eguiten doguna. Oialaren zati bat neurritu ta prestatzen dogu
capataco, beste bat jaquetaco ta ganerocoa beste bear dirian soñeco jantzie-
200 rac eguiteco. Alan bada, oialaz leguez, gueure vicitzaren jaun, jabe ta nagu-

- 4-191 *errazoia < arraçoin (GGero 65).
eztan < ezten ere (GGero 65).*
- 4-192/193 *esaten dogu < erraiten dugu ecen (GGero 65).*
- 4-193 *beste urtean < bertce urthean (GGero 66).*
- 4-193/194 *onelaco ta alaco gauzac eguingo dogucela < humelaco eta halaco descargu eguinen
ditugula (GGero 66); ik. § 5.1.1.4.*
- 4-194 *ori danez: gainean, beraz-en ordeaz, < beraz (GGero 66); cf. VB “ergo, luego, según
eso: c. beraz, orrela, ori danez” eta ik. § 5.3.4.*
- 4-195 *ichadongo deuscula < iguriquico çaicula (GGero 66); baina nork itxadongo? inper-
tsonala da, noski, jatorrizkoan.
esan ta eguiten < erraiten eta eguiten (GGero 66).
bere badogu < bedere badugu (GGero 66).*
- 4-195/196 *ciur baguenqui < baiquinaqui (GGero 66).*
- 4-197 *vicitzeco: leh. viciteco; ik. § 4.3.9.*
- 4-198 *bategaz < batez (GGero 66); ik. § 5.1.1.11.
zati < parte (GGero 66).
neurritu ta prestatzen < neurtcen eta ordenatcen (GGero 66). neurritu: VB “medir: c.
neurrtu, neurritu”; dena dela, ez dago beste agerraldirik itzulpenean, neurrtu ugari
izan arren (cf. adib. 9-14, 11-71/72, 15-67).*
- 4-199 *capataco = GGero 66 (ik. § 5.1.1.9); leh. capa bat (eguiteco?).
beste bat < bertce parte bat (GGero 66).
jaquetaco < iacataco (GGero 66); cf. VB *jaquea* (c.) “justillo”, “sayón, jubón”, eta
formari dagokionez, “casaca: c. *jaque lucea*”.
ganerocoa: ik. 2-24. oh.*
- 4-199/200 *beste bear dirian soñeco jantzierac eguiteco < behar diren bertce soñecoen eguiteco
(GGero 66). beste: gainean erantsia; ik. § 5.2.1.3.*
- 4-200 *oialaz leguez < oihalaren beçala (GGero 66); itzulpenean galdu da jatorrizko lotura
oihalaren eta ondoko vicitzaren-en artean.
vicitzaren < bicitcearen ere (GGero 66).*
- 4-200/201 *nagusiac < nabusi (GGero 66).*

siac baguiña leguez, disponduten dogu vicitzaren zatiric onena ta gaiena, gaztetasuna, munduarentzat; ta guero ganeroco char prestuez gaistoena, zartzaroa, Jangoicoarentzat. Eta Senecac diñoanez (cap. 9 de brevitae vitæ):
 205 Etorquizuneco gauzac, fortunaren escuan ta menturan dagozanac, gura dozuz orainganic ordendu, dispondu ta trazatu; ta oraingoac, ceure auqueran ta escuan dagozanac, ichiten dozuz galtzen. <57> Dozunaz eztozu conturic, ez arduraric; ta ez dozunaz dozu gogoa eguiteco mirariac. Orain Jangoicoac emoten deutzuzan vicitzea, osasuna, indarrac, centzunac, almenac ta ondasunac, gura dozuz, Jangoico beraren contra zabiltzela, emon, artu ta galdu,
 210 eta guero, oraindiño emon ezteutsucenac, ta menturaz emongo bere ezteutsuzenac, diñozu emongo dozuzela bere serbicioan. Icusi eguizu zeure itsutasuna, desgovernua ta gal-videa.

Ninivitarac penitencia eguiteco berroquei eguneco epea, astia, demporea ta segurantzaz ebela, atara beguiratu baga ta azqueneco egunera ichadon
 215 baga, bereala, lenengo egunean asi cirian penitencia eguiten; eta euren uts eguiñac ta becatuac negar eguiten; eta andic eta alan alde eguin eben ceruco azotea. Cegaitic, bada, guc bere eztozu alan eguiten? Cergaitic larga bear

-
- 4-201 *zatiric onena ta gaiena < parte bat, eta parteric hoberena eta gaiena (GGero 66). zatiric: aurrean onen, ezabatua.*
- 4-202 *ganeroco char prestuez gaistoena < gaiñeracoa, gaixtoena (GGero 66).*
- 4-203 *Eta Senecac diñoanez < dio Senecac (GGero 66), latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean.*
- 4-205 *ordendu, dispondu ta trazatu < gobernatu, traçatu eta destatu (GGero 66). oraingoac < presentecoac (GGero 66).*
- 4-205/206 *auqueran ta escuan dagozanac < escuan dituçunac (GGero 66).*
- 4-206 *ichiten dozuz galtzen < utzten dituçü galtcera (GGero 66).*
- 4-206/207 *conturic, ez arduraric < conturic eguiten (GGero 66). ez: gainean erantsia.*
- 4-207 *dozu gogoa eguiteco mirariac < eguin gogo duçu miracuillu (GGero 66).*
- 4-208 *vicitzea: leh. vicitza.*
- 4-208/209 *indarrac, centzunac, almenac ta ondasunac < indarra, antcea eta onhasunac (GGero 66).*
- 4-209 *Jangoico beraren < laincoaren beraren (GGero 66); ik. § 5.1.2.3. emon, artu ta galdu < higatu eta galdu (GGero 66).*
- 4-211 *diñozu < dioçu ecen (GGero 67). emongo dozuzela bere serbicioan < haren cerbitçuan empletatuco dituçula (GGero 67). emongo: gainean, emplea eta gastatuco-ren ordez. Icusi eguizu < Iccussaçu (GGero 67).*
- 4-212 *desgovernua: aurrean galvidea ta, ezabatua, < desgovernua (GGero 67). gal-videa < galtceco bidea (GGero 67).*
- 4-213 *Ninivitarac < Niniuïtec (GGero 67).*
- 4-213/214 *eguneco epea, astia, demporea < egumen eppea, espatioa (GGero 67); ik. § 5.1.1.8.*
- 4-215/216 *uts eguiñac ta becatuac < faltan (GGero 67).*
- 4-216 *negar eguiten < erremediatcen (GGero 67).*
- 4-216/217 *alde eguin eben ceruco azotea < salbatu ciren (GGero 67). alde eguin: ik. 5-31/32. oh. alan eguiten < hala eguinen (GGero 67).*

dogu gueroco, berrogei egunen ez ece, baten segurantzaric ez euqui ez-
quero?

- 220 Noeren demporan jaten, edaten, jocoan, dantzetan, ezcontzetan,
saldu-erosietan ta gauza zoragarri asco eguiten ta asmetan ebiltzela, artu, ito
ta ondatu cituan urac. Auxe berberau jazo ta guerta lequiquigu guri bere,
guerotic guerora gabiltzanoi. Bada guc aec baño segurantza guichiago dau-
quegu; ta aurrerantzean obeto beguiratuten ezpadogu, aimbat bildurgarriago
225 izango da gure fin gaistoa ta adua.

-
- 4-218 *berrogei egunen ez ece, baten < ez berrogoy egunen baiña baten ere (GGero 67).*
4-218/219 *ez euqui ezquero < eztugunaz gueroztic (GGero 67); aldaketa bera ohartu dugu gora-
go (4-73/75. oh.).*
4-220/221 *jocoan, dantzetan, ezcontzetan, saldu-erosietan < iocatcen, dançatcen, ezcontcen, sal-
erosi eguiten (GGero 67).*
4-221 *gauza zoragarri asco eguiten ta asmetan ebiltzela < ethorquiçunerat anhitz gauçaren
ordenatcen, pensatcen eta traçatcen hari cirela (GGero 67). gauza: aurrean zora]
(zoragarri?, zoraqueria?), ezabatua.*
4-221/222 *artu, ito ta ondatu < hartu eta hondatu (GGero 67).*
4-222 *Auxe berberau... guri bere < Hala da bada peril, guertha daquigun guri ere (GGero
67). lequiquigu: leh. daquiquigu; Urquijok (1923: 497) lequiquegu irakurri zuen,
baina honelako formak arruntak dira Añibarroren (cf. lequiquielaco 0-35/36, le-
quiquio 1-273, etab.).*
4-223/224 *guc aec baño segurantza guichiago dauquegu < hec cein guti çuten, are guc baitugu
hec baiño segurantça gutiago (GGero 67).*
4-224/225 *aimbat bildurgarriago... ta adua < galtceco eta fin gaitz eguiteco iduri, arau eta mol-
de gueiago (GGero 67).*

5. BURUA

Gueroco zorian, arriscuan ta bada ezpada menturazcoan menturaturic galduten gara.

1 §.

- 5 Celan dan gure Jangoicoa ain óna, biotz-bera, erruquiorra, paciencia
<58> ta misericordia andicoa, esaten dozu: Ascori ichadon deutso ta icha-
doten deutso zartu utsezco puntuguiño, naturaleza berac berea eguin artera-
ño; ori danez, ez dot orandiño cer estutu, bada menturaz alan eguingo dau ni-
gaz bere. Menturaz diñozu? Eta eztaquizu menturac menturaren jocoac,
10 inguruac, gira-birac ta tornuac dituela?

Iru *menturaz* mueta, iru eraco menturac idoroten dodaz gai onen gane-

-
- 5-1 *BURUA*: aurean *Capitulua*, ezabatua < *CAP. V* (GGero 68).
5-2/3 *Gueroco zorian... galduten gara* < *Nola gueroco venturaren venturan venturaturic
galtcen garen* (GGero 68); ik. § 5.5.2. *arriscuan*: gainean erantsia.
5-5 *Celan dan gure Jangoicoa* < *Nola gure laungoicoa baita* (GGero 68).
5-5/6 *óna, biotz-bera... ta misericordia andicoa* < *on, bihotz bera, misericordios, pacien-
ciatsu eta ethorcor* (GGero 68).
5-7 *zartu utsezco puntuguiño* < *çahartu hutsezco ponturaiño* (GGero 68). Gorago (4-167)
zartzaro utseco punturaño bihurtu du.
naturaleza berac < *naturaleçac berac* (GGero 68); ik. § 5.1.2.3.
berea < *bere ahala* (GGero 68).
5-8 *ori danez* < *beraz* (GGero 68); ik. § 5.3.4.
orandiño: normalean *oraindiño* erabiltzen du (0-72, 1-20, 3-106, etab.), eta hutsa di-
rudi, baina *OEH*-aren datuen zain bere hartan uzten dut, beste bitan (8-7 eta 14-154)
agertzen baita.
cer estutu < *cer lehiaturic* (GGero 68); ik. § 5.2.16.
5-9/10 *jocoac, inguruac, gira-birac ta tornuac* < *iocoac eta tornuac* (GGero 68).
5-11 *Iru menturaz mueta* < *Hirur ventura molde* (GGero 68); cf. halaber 5-24, 5-55, 5-94.
Nolabait metalinguistikoki erabiltzen du, buru osoan zehar dauden ehunka *mentu-
raz* arruntekin daukan lotura irakurleari nabarmenerazteko; honegatik, letra etzane-
tan jarri dut.
iru eraco menturac < *hirur ventura suerte* (GGero 68). *eraco*: aurean *mentura*, ezabatua.
gai < *pontu* (GGero 68).

an. Lenengoa da becatu eguitetic ta pelligru ascotic gorde ta atzeratuten gaituana. Agaitic esan oi dogu: Eztot becuric eguin gura, cerren menturaz, atan nagoala, neure azquen egunac artu neinquē. Eztot ostu gura, cerren
 15 menturaz Justiciac lotu, azotatu edo urcatu nei. Eztot jocatu gura, cerren joco
 a ezta errenta, menturaz galdu nei. Eztot escuetan dodanaz jabetu gura, cerren
 menturaz guero, gura dodanean, ez dot izango cegaz quitutu. Alan esaten
 eutsen Evangelio[co] virgiña zur aituac, orio esque etorri cirian virgiña
 20 ero nagui: Ezteutsugue emon gura, cerren menturaz ezquenduque gueuret
 zat bere bear doguna (Math. 25). Alan Datan ta Abiron euren lagun batzue
 caz lurrac ondatu ta irunsi cituenean, andic iguesi eguin eben inguru atan
 egozanac esaten eben: Goazan emetic, cerren baldin emen bagagoz, mentu
 raz besteac leguez irunsi gueinquez gu bere lurrac (Numer. 16). Au da men
 tura ona, etorquizuneco *menturaz* gaistotic ta galvidetic gordetan gaituena.

-
- 5-12 *ascotic*: ik. § 5.1.1.4.
gorde ta atzeratuten < beguiratcen eta guibelatcen (GGero 68).
- 5-13 *Agaitic < Handic (GGero 68).*
esan oi dogu: leh. *esaten dogu*, < *erraiten dugu (GGero 68)*; ik. § 5.1.3.13.
- 5-14 *atan < hetan (GGero 68).*
nagoala < nengoela (GGero 68).
artu neinquē < atrapa nintçaque (GGero 68).
Eztot: aurrean *Eztot escuetan dodanaz jabetu gura*, ezabatua; hurrengo bigarren esaldiaren hasiera da: berdinetik berdinerako jauzia egiteko zorian izan da.
- 5-15 *lotu, azotatu edo urcatu nei < atceman nintçaque, urcca edo açota (GGero 68).* Ohartu hemen *nei* itzuli duen *nintçaque* bera *neinquē* egin duela aurreko perpausean, eta gero berriz *gal neçaque galdu nei* (5-16).
- 5-16 *jabetu < gabetu (GGero 68).* Irakurketa txar honegatik, gero *gura dodanean, ez dot izango cegaz quitutu < nahi dudanean, ez nuque (GGero 68-69).*
- 5-17/18 *esaten eutsen < erran ceraueçan (GGero 69).*
- 5-18 *Evangelio[co]*: Añibarroren eransketa.
zur aituac < çuhurrec (GGero 69).
- 5-18/19 *orio esque... nagui < virgina erguel olio esque ethorri ceizteney (GGero 69).*
- 5-19 *Ezteutsugue*: cf. halaber GB 29 *deutsugue* (guk zuei); bada *dirautsugüe* ere (52-67).
menturaz < venturaz guero (GGero 69).
- 5-19/20 *gueuretzat bere < gueretçat (GGero 69) < gueuretçat (Gero 69).*
- 5-20 *bear doguna < asqui (GGero 69).*
- 5-21 *ondatu ta irunsi cituenean < iretsi cituenean ere (GGero 69).*
- 5-21/22 *andic iguesi... esaten eben < eguin çuten inguru hartan cirenec handic ihes, erraiten çutela (GGero 69).* *eben*: leh. *ebela*. Joskera nahasia atera zaio ordena aldaketaren ondoren.
- 5-22 *emen < hunen (GGero 69) < hemen (Gero 69).*
bagagoz < bagueneunde (GGero 69).
- 5-23 *besteac < bertce hauc (GGero 69).*
irunsi gueinquez < iretsi guinitçaque (GGero 69).
- 5-24 *menturaz gaistotic < ventura gaixtotic (GGero 69).*
galvidetic < periletic (GGero 69).

- 25 Bigarren mentura bere óna da; eta da becatu eguin ondocoa, ostecoa, gaisto-eguiñac ordetu ta quitutu gura izanic dabillenenena. Icusiric galduac go-azala, Jangoicoaren aguinduac ausi doguzala, esaten dogu: Eguiñac eguin, ez gueiago. Aurrerantzean obeto gura dot vici; Jangoicoari cin-ciñez, eguiaz, biotzco damuaz gura deusat parcaciñoa escatu. Cerren menturaz onela parcatuco deust, izango dau nigaz erruquia. Verba eguicune onez usatu eban Daniel profetac bere, esan eutsenean Nabucodonosor erregueari: Alde eguin zaitte lengo vide deunguetatic ta eguizuz limosnac, izan zaitte biotz beraa, bigun ta erruquitsua beartsuaz, eta menturaz onela Jangoicoac parcatuco deusuz ceure becatuac (Daniel 4). Alan Ninive uri andico erregueac bere, <59>
- 30 enzun ebanean aserre zala bere ta bereen contra Jangoicoa, aguindu eban erri guztia ifini cedilla devociñoetan ta penitencietan, guztiac barau eguiela, eta

-
- 5-25 *Bigarren mentura... ostecoa < Bigarrena da, halaber, ventura ona, beccatu eguin ondocoa (GGero 69).*
- 5-26 *gaisto-eguiñac < eguinen (GGero 69). ordetu ta quitutu gura izanic dabillenenena < erremediatu nahiz dabillanarena (GGero 69); dabillenenena: ik. § 5.1.1.7.*
- 5-27 *aguinduac < manamenduac (GGero 69).*
- 5-28 *gura dot vici < nahi dut gouernatu (Ggero 69). cin-ciñez, eguiaz < cin-cinez (GGero 69).*
- 5-29 *biotzco damuaz < bihotzeco urriquimendu batequin (GGero 69). biotzco: agerraldi bakarra (biotzeco 12-77, 17-104, etab.), baina cf. halaber LoraS 30-2; biotzeco damu, Axularren antzera, aurrerago hasiko da erabiltzen (12-293, 15-51, etab.). parcaciñoa escatu < barccamendu escatu (GGero 69). onela < halatan (GGero 69).*
- 5-30 *izango dau < halatan içanen du (GGero 69). nigaz < niñaz (GGero 69). erruquia < misericordia (GGero 69). onez < hunez (GGero 69); ik. 13-105/106. oh.*
- 5-31/32 *Alde eguin zaitte < Erregue, aparta çaitte (GGero 69); alde egin (edo maizago aldeguin) iragangaitza izaten da Añibarroengan (11-228, 19-231, etab.), eta iragankorra denean osagarri zuzena darama, beste inorengan ez bezala (cf. OEH, s.v.), bai 'saihestu' adieran (adib. alde eguin eben ceruco azotea, 4-216/217), bai 'uxatu' adieran ere (adib. [angueruac] deabruac aldeguin, uxatu ta urrinduten ditu, 50-46).*
- 5-32 *lengo vide < ceure leheneco bide (GGero 69). eguizuz limosnac < eguiçu erremusina (GGero 69).*
- 5-32/33 *izan zaitte... beartsuaz < çaren beharren alderacoçat bihotz bera eta misericordios (GGero 69); ik. § 5.1.3.7. beraa, bigun: gainean, bera-ren orde.*
- 5-33 *onela: aurrean orduan, ezabatua, < halatan (GGero 70).*
- 5-34 *andico < handi hartaco (GGero 70).*
- 5-35 *bere eta bereen contra < haren eta harenen contra (GGero 70). aguindu < manatu (GGero 70).*
- 5-35/36 *erri guztia < hiri gustia (GGero 70).*
- 5-36 *ifini: gainean, jarri-ren orde, < iar (GGero 70). devociñoetan ta penitencietan < debocinotan eta penitenciatan (GGero 70); ik. § 5.1.1.4. barau eguiela < barur citecilla (GGero 70).*

abere mutu cenzunbagueai bere etzeguiela emon jatecoric, ez edatecoric, esaten ebala: Norc daqui cemaitu ta menazatu bagaitu bere gueure Jangoicoac, eta esan badau bere aserre dala gure contra, ea gure damua ta penitencia icusiric, itzulico danez beste aldera, bigunduco jaconeze bere aserrea, ta 40 ichico gaituanez castigatu ta astindu baga? (Jonæ 3). Esan baleu leguez: Errazoiacz da gure Jangoicoa gure contra aserre, errazoiacz cemaituten gaitu ta dirauscu castigatu, apurtu ta ondatu gura gaituzala. Baña, orrez guztiaz bere, emon gaituzan devociñozco gauceetara; len gaistaquerian leguez, orain gauza 45 onac eguitera abia gaituzan, ta menturaz onela biotza ausico jaco, erruquituco jaco ta parcatuco deuscu. Alan esan eutsan ontzi-maissuac bere, eacacha cebillenean, Jonas profetari: Ce lo-zorrocc artu au, guizona? Celan atz lo? Eztacusc itotera goazala? Jagui adi ortic, ifini adi oraciñoan, eguiozac escariac eure Jangoicoari, eta menturaz onela igues eguingo joguc pelligru onetic 50 (Jonæ 2). Alan Jacob aitaurrenac bere, bere anajeaz aserre zanean, biraldu eutsezan bere anajeari aurretic presenteac, doiac, esaten ebala (Genes.

- 5-37 *abere mutu cenzunbagueai < are abre mutuey (GGero 70). etzeguiela < etcequiela (GGero 70). jatecoric, ez edatecoric < iatera eta ez edatera (GGero 70).*
- 5-38 *cemaitu ta menazatu < mehatchatu (GGero 70). gueure: gaínean erantsia, < gueure (GGero 70).*
- 5-39 *damua < urriquimendua (GGero 70).*
- 5-40 *aserrea < colera (GGero 70).*
- 5-41 *castigatu ta astindu < gatzigatu (GGero 70).*
- 5-41/42 *Errazoiacz < Arraçoinequin (GGero 70).*
- 5-42 *cemaituten: leh. cemaitu, < mehatchatcen (GGero 70).*
- 5-42/43 *dirauscu < erraiten deracu (GGero 70).*
- 5-43 *castigatu, apurtu ta ondatu < gatzigatu (GGero 70). ondatu: leh. ondatuco.*
- 5-44 *emon gaituzan devociñozco gauceetara < debocinotan iar gaitecin (GGero 70); ik. § 5.2.1.1.*
- 5-44/45 *gauza onac eguitera abia gaituzan < ontasunean emplega gaitecin (GGero 70). gauza onac: aurrean onean, ezabatua.*
- 5-45 *onela < halatan (GGero 70).*
- 5-46/47 *ecacha < tormentatua (GGero 70).*
- 5-47 *Ce lo-zorrocc artu au < Cer hari az (GGero 70). Ce: aurrean ceri-edo, ezabatua. Celan atz lo? < Cer aratça lo? (GGero 70).*
- 5-48 *Jagui adi < Haic (GGero 70). ifini adi oraciñoan < iar adi mecinotan (GGero 70).*
- 5-48/49 *eguiozac escariac eure Jangoicoari < eguioç heure Iaincoari othoitz (GGero 71).*
- 5-49 *onela < halatan (GGero 70).*
- 5-49/50 *igues... onetic < escapatuco gaituc (GGero 71). igues: aurrean urt] (urten?), ezabatua. joguc: cf. GB 79 joagu. onetic: adibide bakarra; gainerakoan, onetic erabiltzen du (11-191, 18-51, etab.).*
- 5-50 *Jacob aitaurrenac < Patriarca Iacobec (GGero 71). aitaurren: cf. VB (c.) "patriarca" (< HH). anajeaz < anayarequin (GGero 71). aserre zanean < gaizqui cenean (GGero 71).*
- 5-51 *anajeari < anaya hari (GGero 71). presenteac, doiac < presentac (GGero 71).*

32): Menturaz onela mesede ta presenteacaz parcatuco deust, menturaz oneen bitartez adisquidetu ta baquetu[co] gara. Au da bigarren mentura ona, ontasunean emoten dana, uts eguiñac sendotuten ditua[na]rena.

55 Baña bá beste *menturaz* gaisto bat, irugarren bat, lucementuac billatuten dituena, atzeracuntzetan dabiliena, ta ondamendiac ta pelligrua baxen eztan lecuan bere, segurantzac idoro gura dituena. Esan jatzu zartuten asi zareala, eriotza bien erdian ifini zareala, beguiac ilunduten asi jatzuzala, videco iru partetatic bi igaro dozuzala; eta baldin orrela zagozala ceure azqueneco egu-
60 nac artuten bazaitu, ez menturaz, ezpada ciur condenatuco zareala. Baña <60> zuc eztozu onelacoric sinistu gura, ta ez enzun bere. Lenago bai ceure nai-guraz batean, iruditen jatzu menturaz eztala alacoric izango. Eta esan be-
arrean menturaz alan izango da, menturaz condenatuco nas, esaten dozu: menturaz ez nas condenatuco, menturaz ezta alacoric jazoco.

65 2 §.

Lenengo guzurra, lenengo andreac esan eban. Itandu eutsan deabruac Evari, ea cegaitic ez eban jaten Parabisuaren erdian cegoan arbola ederraren frutu gozo ataric. Eranzun eban: Eztot jaten, cerren esan deust Jangoicoac,

-
- 5-52 *mesede ta presenteacaz* < *present hauquin batean* (GGero 71).
5-52/53 *oneen bitartez* < *hunelatan* (GGero 71).
5-53 *adisquidetu ta baquetu[co]* < *adisquidetuco* (GGero 71).
5-54 *emoten* < *emplegatcen* (GGero 71).
uts eguiñac < *falta eguinac* (GGero 71).
sendotuten ditua[na]rena < *erremediatu nahi dituenarena* (GGero 71).
5-55 *bá*: leh. *baa*] (edo *bada*-ren hasiera?); ik. § 4.3.10.13.
beste menturaz gaisto bat, irugarren bat < *bertce bat, hirugarren bat, venturaz gaix-
toa*]c] (GGero 71).
5-56 *ondamendiac ta pelligrua* < *perilic* (GGero 71).
5-57 *Esan jatzu* < *Erraiten çaitçu* (GGero 71).
zareala: jat. *zara* (arg. zuz.), < *çarela* (GGero 71); cf. hurrengo oh.
5-58 *eriotza bien erdian ifini zareala* < *bi illetan iarri çarela* (GGero 71). Gaizki ulertua,
ill = *eriotza berdindu baititu, ilea* (bizk. *ulea*) dena (ik. § 5.3.4). *zareala*: leh.
zara.
5-58/59 *videco iru partetatic bi* < *bidearen bi herenac* (GGero 71). *partetatic*: leh. *partec*. *bi*:
gainean erantsia.
5-60 *ciur* < *seguraz* (GGero 71); ik. § 5.5.2.
5-61 *Lenago bai* < *Aitcitic* (GGero 71). *Lenago*: gainean, *Guei*ago-ren orde; ik. § 5.3.4.
5-62 *nai-guraz batean* < *nahiarequin batean* (GGero 71).
iruditzen jatzu... izango < *venturaz eztela halacoric içanen iduritcen çaitçu* (GGero
71); ik. § 5.2.1.1.
5-62/63 *bearrean* < *behar bidean* (GGero 71).
5-64 *jazoco* < *içanen* (GGero 71).
5-67 *eban*: gainean, *etzituen*-enen orde; baina hau ezabatu gabe; < *etçuen* (GGero 72).
ederraren < *eder haren* (GGero 72).
5-68 *gozo* < *eder* (GGero 72).

- 70 baldin jaten badot, menturaz ilgo nasala (Genes. 3). Eta, eguiaz, Jangoicoac ez eutsen alacoric esan; ez eutsen menturaric aitetu. Garbiro, arguiro ta ciur esan eutsen jaten eben egun berean ilgo zala; esan gura dau ilcorra eguingo zala, ilquizun izango zala (ibi.). Menturaz á Evac berac gueitu, asmatu ta eransi eban; eta gueitura ta eransiera onegaz bere burua ta bere ondorengo guztioac galdu guinducen.
- 75 Andra ezcondu batec bere senarra eztanaz edo ezconbagueac bear eztanaz becatu eguitemo gogoa artzen dabenean, ezcondua gomutetan da bere senarraz ta bai ezcondubaguea bere emetic etorrigo jacon desonra, lotsaria ta calteaz. Baña orregaitic bere menturatzen dira bata ta bestea, esaten dabela: Menturaz senarrac jaquingo eztau; menturaz ez nas seindun gueratuco. La-
- 80 purrari bere, ostuten doyanean, gogoratuten jaco escuac ezarten badeutsez, guichienean bereac emongo deutsecela, presondeguian lotuco dabela, azotatuco dabela. Baña onec bere laster consoletan dau bere burua, esan oi dabela: Menturaz ez nabe presotuco, ez nabe asmatuco, ezteust iñoc jaquingo.

-
- 5-69 *eguiaz < alabaiña (GGero 72).*
- 5-70 *eutsen:* leh. *eutsan < cioen (GGero 72)*; ondoko guztiak ere *eutsen* dira (ik. hurrengo oh.).
Garbiro, arguiro ta ciur < Garbiqui eta segurqui (GGero 72).
- 5-71 *eben < çuen (GGero 72).* Hemen egiaztatzen da orain arteko *eutsen < cioen* guztiak berariaz plural direla, baina halere hurren *ilgo zala* dio (ik. § 4.2.1).
ilcorra < mortal (GGero 72).
- 5-72 *ilquizun = GGero 72.*
- 5-72/73 *gueitu, asmatu ta eransi < berretu eta iratchequi (GGero 72).*
- 5-73 *gueitura ta eransiera < berretura eta iratchetura (GGero 72).*
onegaz < hartçaz (GGero 72).
- 5-73/74 *bere ondorengo guztioac < guztioac ere (GGero 72).*
- 5-75 *bere senarra eztanaz < bere senharraz bertcerequin (GGero 72).*
edo ezconbagueac < eta ezcondugabeac ere (GGero 72). Beheraxeago (5-77), Axularrak bezalatsu ezcondubaguea erabiltzen du.
- 5-75/76 *bear eztanaz < behar eztenarequin (GGero 72).*
- 5-76 *becatu eguitemo gogoa artzen < beccatu eguitera deliberatcen (GGero 72);* ik. § 5.3.2.
- 5-77/78 *emetic etorrigo jacon desonra, lotsaria ta calteaz < içorratceaz eta ethor ahal daquidicayon desohoreaz eta calteaz (GGero 72);* ik. § 3.3. *lotsaria:* ik. § 5.1.1.1.
- 5-78 *orregaitic bere < hargatic (GGero 72).*
bata ta bestea < bata eta bercea ere (GGero 72).
- 5-79 *jaquingo eztau < eztu iaquinen (GGero 72).*
seindun gueratuco < içorratuco (GGero 72).
- 5-80 *ostuten doyanean < ebastera dohanean (GGero 72);* leh. *doianean.*
ezarten badeutsez < iratchequi badiatçote (GGero 73).
- 5-81 *presondeguian lotuco dabela:* Añibarroren eransketa.
- 5-81/82 *azotatuco dabela < açotea içanen duela (GGero 73).*
- 5-82 *onec < harc (GGero 73).*
- 5-82/83 *esan oi dabela < erraiten duela (GGero 73).*
- 5-83 *presotuco < atrapatuco (GGero 73);* cf. VB *presotu* (c.) “apresar”.
ez nabe asmatuco, ezteust iñoc jaquingo < venturaz ez naute sentituco (GGero 73).

85 Alan bada, guc bere, guerotic guerora gabiltzenoc, poztuten doguz gueure buruoc ta esaten dogu: Menturaz oraindiño ichadon deustenac ichadongo deust orain bere. Menturaz orain ezpadot bere, izango dot aurreranzean ondo eguiteco gogo. Eztira oraindiño dempora guztiac igaro.

90 <61> Bago bai emen mentura franco ugari, eta ez esperanza urri escasic. Cer da au? Non da cenzuna? Non da gomutea? Cer eguin da adimentuaz? Ceure salbamentua, aimbat joatzun gauza, betiraun guztico adu on edo gais-tocoa izatea ifini daguizula menturan? Eztozu pensetan mentura orrec menturaz mentura gaistoa emongo deustula? Eta norberac daben guztia menturatzea eroqueria andia dala?

95 *Menturaz* onen ganean ederto verba eguiten dau San Juan Chrisostomoc era onetara: Esaten dozu ta esango dozu: Jangoicoac ascori emoten deutso privilegio au, gaztetan gaisto izanagaitic, ichadoten deustela zartu ditecen arteraño, ta orduan bear dan vide onean ifiniric ta penitencia eguinic, salvetan dira. Cer, bada, zuri alaco privilegioric, mesederic eta graciariac emongo ete deustu? Esango dozu: Menturaz bai, cerren batzuetan guertatzen da.
100 Eguizu gogoeta, ceure arimeari dirautsazula, ta pensatu eguizu, contrara bere jazo litequela. Eta esazu: Cer izango da ichadoten ezpadeust? Esango dozu orainguiño: Eta cer izango da ichadoten badeust? Ichadon leizu. Baña

-
- 5-84 *poztuten* < *consolatcen* (GGero 73); cf. *VB poztu* (c.) “consolar”.
- 5-85 *oraindiño* < *huneraiño* (GGero 73).
- 5-87 *gogoa* < *gogo* (GGero 73).
- 5-88 *Bago bai* < *Bada* (GGero 73); ik. § 4.3.10.13.
franco ugari < *franco* (GGero 73).
urri escasic < *escasic* (GGero 73).
- 5-90/91 *betiraun guztico adu on edo gaistocoa izatea* < *seculacotçat ongui edo gaizqui içaitea* (GGero 73).
- 5-92 *norberac daben* < *norc bere duen* (GGero 73).
- 5-94 *verba eguiten dau* < *erraiten du* (GGero 73).
- 5-95 *era onetara*: Añibarroren eransketa.
Esaten dozu: aurrean *Diñozu*, ezabatua, < *Erraiten duçu* (GGero 74).
ascori emoten deutso < *anhitzi emaiten deraue* (GGero 74); Axularrek plurala eta Añibarrok singularra, ohi ez bezala (ik. § 5.1.2.7): ordea, ondoko aditzetan jatorrizko pluralari atxiki zaio (*ditecen* 5-96, *dira* 5-98).
- 5-96 *gaztetan* < *gaztean* (GGero 74).
- 5-97 *bear dan vide onean ifiniric ta penitencia eguinic* < *behar den bidean penitencia eguinic* (GGero 74). Argi dago ez duela *behar den bidean* esapidea ulertu. *vide onean*: leh. *videan*.
- 5-98 *privilegioric, mesederic eta graciariac* < *privilegioric edo garaciariac* (GGero 74).
- 5-99 *Menturaz bai*: ondoan Axularrek hau dakar: *Cergatic dioçu, venturaz bai?* (GGero 74). Añibarrok erantzuna bakarrik jaso du.
- 5-100 *ceure arimeari dirautsazula* < *ceure arimaz di[h]loaçula* (GGero 74). Gaizki ulertzeaz gainera, esaldi ulergaitz bat eskaini dio irakurleari.
- 5-101 *jazo litequela* < *guertha ditequeyela* (GGero 74); ik. § 5.1.3.12.
- 5-102 *orainguiño* < *oraiño* (GGero 74).

obeago ta seguruago da, ichadongo ezpaleutsu leguez vicitea ta gobernatzea (Sⁿ. Juan Chrisost. hom. 22 tom. 4). Era onetara, diño San Agustinec bere (in
 105 psal. 77): Baldin Jangoicoac galdu ezpaditu gaistoac, seguru da, ciur ta duda
 bague da, eztituela galduco onac. Cegaitic eztogu bapere dudaric eztabena
 autuco? Cegaitic eztogu, menturac ta bada ezpadac ichiric, seguruan jocatu-
 co? Esan oi dogun leguez, menturaz ichadongo deuscula Jangoicoac, esan
 110 daigun (jazo litequen gauza da) ameneco ichadongo ezteuscula; ta goberna
 gaitezcan ichadongo ezpaleuscu leguez; eta onela ez menturan, ezpada segu-
 ruan izango gara.

3 §.

Segurutzat dot Infernura doazan gueienac guero baten menturan <62> ta
 zorian ifiniric, atan fiaturic ta atan uste utsaz engañaturic joaten diriala.
 115 Beintzat alan joan zan araco Evangelioco aberatsa. Bada, San Lucas evang.^{ac}
 diñolez (12): Aberats oni urte óna etorri jacan, bildu ta batu cituan ondasun

-
- 5-103 *obeago = GGero 74; pare bat aldiz (ik. 2-12 eta 12-69/70. oh.) obe-z ordezkatu badu ere, ez dira forma pleonastiko honen adibideak itzulpenean falta, sarritan, hemen bezala, Axularrek eraginda (cf. 13-17, 17-103, 45-18, 54-94, etab.).*
- 5-104 *Era onetara < Hunen arauaz (GGero 74).*
- 5-105 *galdu ezpaditu < venturaz galduco ezpaditu (GGero 74). Aldaketa harrigarria edukiaz den bezainbatean; bide batez, latinez ere geroaldian (non perdet) dago: kopia hutsa ez ote?*
- 5-105/106 *seguru da, ciur ta duda bague da < segur da eta duda gabe da (GGero 74).*
- 5-106 *Cegaitic < Cergatic bada (GGero 74).
 bapere: leh. papere; ik. 19-178. oh.*
- 5-106/107 *eztabena autuco? < eztuena hautatuco? (GGero 74).*
- 5-107/108 *eztogu... jocatuco < ezcara... iocatuco (GGero 74). Añibarroren jokabidea bat dator OEH-ak (s.v.) somatu duen Ip. iragangaitza / Heg. iragankorra bereizkuntza orokorrekina. menturac ta bada ezpadac < venturac (GGero 74).*
- 5-108 *Esan oi dugun leguez < Nola erraiten baitugu (GGero 74).*
- 5-109 *jazo litequen gauza da < guertha ditequeyen gauça baita (GGero 74); ik. § 5.2.10.
 ameneco < venturaz (GGero 74).
 ichadongo ezteuscula < ezteracula iguriquico (GGero 74); ik. § 5.2.1.*
- 5-109/110 *goberna gaitezcan < governa gaitecin (GGero 74); ik. § 5.1.3.2.*
- 5-110 *onela < halatan (GGero 75).
 ez menturan < eta ez venturan (GGero 75) < ez v. (Gero 75).*
- 5-113 *Segurutzat dot < Segur beçala daducat (GGero 75).
 doazan < ioaiten diren (GGero 75); ik. § 5.1.3.7.*
- 5-113/114 *menturan ta zorian < venturan (GGero 75).*
- 5-114 *ta atan: leh. artan-edo; ondoren irakurri ezin daitekeen zerbait, ezabatua.
 uste utsaz: Añibarroren eransketa; cf. hartan fidaturic eta hartan enganaturic (GGero 75).*
- 5-115 *araco Evangelioco aberatsa < Evangelioco aberats hura (GGero 75).
 San Lucas evang.^{ac}: leh. San Lucasec.*
- 5-116 *Aberats: jat. Aberast (arg. zuz.).
 oni < hari (GGero 75).*

- ta frutu ugariac ta asco, eta ifini zan bere arteco gogoetac eguiten, ciñoala: Cer eguingo dot orain? Noraco dodaz onembeste ogui, ardao, garau, frutu ta ondasun? Ez dot euquico lecuric bere euroc gordeteco. Baña baquit cer eguingo dodan, dirautso barriz bere buruari: lengo garauteguiac, ardanteguiac, oqueluac, salac ta camarac anditu ta zabalduco dodaz, toqui, lecu asco eguingo dot. Eta guero sosegatuco nas, ardura guztiac largaric atseguintasun ta pozcariz ase beteco nas, diñodala neure artean: Orain sosega nadin, jan daguidan, edan daguidan, cerren ez dot eceren bearric, ez dot guerocoren peligruric; badot etorquizuneraco bear dodan betegarri guztia.

Asmu ta contu uts ero oneetan cebillela aberats arrotu au, contuac ondo atera бага, enzun eban Cerutic dei bat cirautsala (ibi.): A, ero zoroa, buru

-
- 5-116/117 *bildu ta batu < eta vildu (GGero 75).
cituan: aurean eba] (eban?), ezabatua.
ondasun ta frutu ugariac ta asco < anhitz (GGero 75); orain ulertzen da aureko aldaketa.*
- 5-117 *eta ifini < iarri (GGero 75).
bere arteco gogoetac eguiten < bere buruarequin gogoetan (GGero 75).*
- 5-118 *orain: Añibaroren eransketa.
Noraco dodaz < Noraco dut (GGero 75); ik. § 5.1.2.7.
onembeste < hunenbat (GGero 75).
ogui = GGero 75, baina bata eta bestearen ogiek ez dute esanahi bera, noski.*
- 5-119 *Ez dot euquico lecuric bere euroc gordeteco < Eztut eduquitceco lecuric ere (GGero 75). euquico: ondoan bere, ezabatua.*
- 5-120 *dodan: leh. dog] (dogun?) ipintzen hasia, < dudan (GGero 75).*
- 5-120/121 *garauteguiac... ta camarac < bihiteguiac, ardandeguiac, sotoac, salac eta gambarac (GGero 75). ardantegui: Añibarrok (Mogelek eta bezala) ‘taberna’ adieran erabiltzen du bestetan (cf. EL² 92, eta oro har OEH, s.v.). oquelu: VB (c.) “escondedero, escondrijo”, (b.) “rincón”. camara: ahoz ongi lekukotua ‘ganbara’ adieran (V-gerarr-oro, ap. OEH, s.v. ganbara 2); cf. VB (c.) “desván” ere.*
- 5-121 *anditu ta zabalduco dodaz: leh. andituco dodaz, < handitucoitut (GGero 75).
toqui, lecu asco < eduquitceco leccua franco (GGero 75).*
- 5-122/123 *atseguintasun ta pozcariz ase beteco nas < pausatuqui, hatsaren gainean iarrico naiz (GGero 75). atseguintasun: aurean atsegin, pozcari, jan edan, ezabatua. ase: aurean beteri] (beteric?), ezabatua. Nabarmenki hatsaren gainean-ek zalantza sortzion.*
- 5-123 *diñodala < erraiten dudala (GGero 75).
neure artean < neure baithan (GGero 75).
sosega nadin < atsegin har deçadan (GGero 75).*
- 5-124 *ez dot < berdín eztut (GGero 75).
berric < escasic (GGero 75).*
- 5-125 *etorquizuneraco < ethorquicunecotçat (GGero 75).
bear dodan < behar den (GGero 75).
betegarri < complimendu (GGero 75).*
- 5-126/127 *Asmu ta contu uts... atera бага < Bada contu hautan, contuac ongui eguin gabe, cebillala (GGero 75-76). Asmu ta: geroago erantsia, sangratuaren lekuan.*
- 5-127 *dei bat cirautsala < minçoa (GGero 76).
ero zoroa < erhoa (GGero 76).*

130 cenzunbaguea, cer ago esaten? Ce gogoeta darabilc? Eguin yoc iriac; gaur escatuco jata eure arimea, gaur gorputzetic ateraric eroango deube. Eta guero orduan bilduric daucazazan ondasunac norentzat izango dozac? Eroa deituten dau aberats au, ta errazoiacz: bada, cer da zoraqueria andiagoric, guero demporaz, bestearen escuan ta menturan dagoanaz, bere escuan ta seguruan baleu leguez dispondu ta ordendutea baño?

135 Icasu daigun, bada, besteren buruan cenzundunac ta beguiratuac izatea: atera daguigun segurutasun bat besteen pelligrutic, artzen dogula Espiritu Santuac emoten deuscun consejua, dirauscula (Eccle. 5): Biurtu zaitece lasterren Jangoicoagana; becatuic jagui zaitece, ta ez eguizue egunetic egunera berandutu ta lucetu. Bada <63> guichien uste dozuenean, aztuagoric zagozanean, neurria beteco da, Jangoicoa aserratuco da; eta guero
140 venganzazco egunean, eriotzaco demporan galdu ta apurtuco zaitu. Dirudi adierazoz gura ebalu Espiritu Santuac esan ebanean (Prov. 3): Eztaguiozu-

- 5-127/128 *buru cenzunbaguea* < *centçugabea* (GGero 76). *buru*: gainean erantsia. Esan gabe doa *burubaguea* eta *cenzunbaguea* ulertu behar dugula (ik. § 5.3.1).
- 5-128 *cer ago esaten?* < *cer mintço aiz?* (GGero 76).
yoc: cf. GB 79 *joc*.
- 5-129 *jata*: cf. GB 84 (hura hiri).
deube: leh. *deuste*; cf. GB 80 *deubee* (haiek hiri).
- 5-130 *daucazazan* < *dadutzcan* (GGero 76) < *dadutçan* (Gero 76); cf. GB 87 *daucazac*.
izango dozac < *içanen dira* (GGero 76); cf. GB 79 *dozac* edo *dituc*.
- 5-131 *aberats au*: jat. *aberatsa au* (arg. zuz.), < *aberats hura* (GGero 76).
errazoiacz < *arraçoinequin* (GGero 76).
- 5-132 *bestearen* < *bertceren* (GGero 76); ik. § 5.1.1.4.
- 5-133 *dispondu ta ordendutea* < *ordenatcea* (GGero 76).
- 5-134 *Icasu*: aurrean *Daigun bada*, ezabatua; cf. *Gaitecin beraz bertceren gaiñean centça* (GGero 76); ik. § 5.2.1.1.
- 5-135 *atera daguigun segurutasun bat besteen pelligrutic* < *deçagun bertceren periletic athera segurantça* (GGero 76).
- 5-136 *dirauscula*: Añibarroren eransketa.
- 5-136/137 *Biurtu zaitece lasterren Jangoicoagana* < *Converti çaiteci* (GGero 76). Oartu *çaiteci* pluraltzat ('zuek') hartuta, honen arabera aldatzen dituela ondoko aditzak (5-137 *eguizue*, 5-138 *dozuenean* < *doçunean*), baina ez guztiak (5-138/139 *zagozanean* < *çaudenean*, 5-140 *zaitu* < *çaitu*).
lasterren: leh. *lasterrenen*; VB *lasterren* (c.) "lo más pronto" (s.v. *prontitud*); Añibarrok maiz —eta berak bakarrik— erabiltzen du honela (cf. OEH, LASTERREN (b), s.v. *laster*), baina badaki *aalic lasterren* (18-43) eta batez ere *ce(i)mbat lasterren* ere (0-14, 15-135, 18-161, etab.) erabiltzen.
- 5-137/138 *ez eguizue... lucetu* < *ezteçaçula berant, ezteçaçula egunetic egunera luçat* (GGero 76). *egunetic*: aurrean *lucetu*, ezabatua.
- 5-138 *aztuagoric* < *ahantcienic* (GGero 76); ik. § 5.2.8.
- 5-140 *venganzazco*: gainean, *azqueneco*-ren ordez, < *mendecuzco* (GGero 76).
galdu ta apurtuco < *galduco eta deseguinen* (GGero 76).
- 5-141 *Santuac* < *sainduac berac* (GGero 76).
- 5-141/142 *Eztaguiozula esan* < *Ezterroçula* (GGero 76); ik. § 5.1.3.7.

la esan ceure adisqueari doiala ta datorrela, biar emongo deutsezula: baldin badozu emotecoric, emoiozu bertatic. Esan gura dau eguingo dozun mesedea, daguizula laster, gueroco zorian ta menturan ichi baga, lucemendutan ta joan etorrietan ibili baga.

Aldi baten itandu eutsen Alexandro andiari, ea celan irabaci cituan aimbat victoria, ambat ondasun ta aberastasun, aimbeste erri ta erreinu. Eta eranzun eban laburqui: Ez ecer lucetuaz, ez ecer bere biaramoneraco ichiz. Ez eban beimbere urrengo eguneraco larga, egun berean eguin al leiquean cereguinic. Etzan secula guerocoan fiatu; ta onela ain irabaci andiac eguin cituan.

Ez gaitecen, bada, gu bere guerocoan fiatu. Cergaitice gueroco atan, mentura bat al baditeque bere, baña ez segurantzaric; eta zoraqueria andia da, seguru bear dogun gaucea menturazco bada ezpadan ifintea, biaramoneco icharomen ta pelligruan ichitea.

- 5-142 *doiala ta datorrela* < *dohala eta dathorrela* (GGero 77); ik. § 5.1.3.7.
emongo deutsezula < *emanen dioçuna* (GGero 77).
- 5-143 *bertatic* < *berehala* (GGero 77).
- 5-143/144 *mesedea* < *onguia eta ontasuna* (GGero 77).
- 5-144 *zorian ta menturan* < *venturan* (GGero 77).
- 5-146 *Aldi baten* < *Egun batez* (GGero 77).
irabaci < *erdietsi eta irabaci* (GGero 77).
- 5-146/147 *cituan aimbat victoria* < *çuen hanbat victoria* (GGero 77); ik. § 5.1.2.7. Orain *aimbat* eta hurrengoan *ambat ondasun* (5-147).
- 5-147 *aimbeste erri* < *hanbat hiri* (GGero 77).
- 5-148 *laburqui* < *laburzqui* (GGero 77).
biaramoneraco < *biharamuneco* (GGero 77); ik. § 5.1.1.9.
- 5-149 *beimbere* < *egundaiño* (GGero 77).
- 5-149/150 *urrengo eguneraco...* *cereguinic* < *egunean eguin ahal ceçan gauçaric biharamuneco utzi* (GGero 77). *leiquean*: leh. *leiquen*.
- 5-150 *Etzan*: leh. *Ez eban*, < *etcela* (GGero 77).
secula < *egundaiño* (GGero 77).
onela < *halatan* (GGero 77).
- 5-152 *bada* < *beraz* (GGero 77).
- 5-153 *al baditeque* < *ahal badateque* (GGero 77).
baña ez < *ez orde* (GGero 77).
- 5-154 *bear dogun* < *behar duen* (GGero 77).
menturazco bada ezpadan < *venturan* (GGero 77).
- 5-155 *icharomen ta pelligruan* < *esperantçan eta perilean* (GGero 77).

6. BURUA

Celan dan gueroago gachago, becatutic jagui ta urtetea.

1 §.

5 Sarri ascotan Escritu[ra] Santan irudindu ta bardinduten da becataria, bide galduric dabillen ardiaz. Eta errazoiaz. Bada gauza ascotan dirudie alcar. Ardia bere lagunetic alderatu ta atzeratuten danean, alaco moduz bide onetic ta bere lagunetic deslaitu ta atzeratuten da, non gueroago urrinago, galduago ta deslaiago dago. Diru bat edo eleztun bat galtzen dozunean, an non galdu cenduan guelditzen da, ta bai idoro bere: ezta bera <64> andic mugui-

-
- 6-1 6. BURUA: aurean *Capitulu*, ezabatua.
6-2 *jagui ta urtetea* < *ilquitcea* (GGero 77). *jagui*: leh. *jaguitea*.
6-4 *Sarri ascotan* < *Anhitzetan ere* (GGero 77).
Santan < *sainduan* (GGero 77).
irudindu ta bardinduten < *comparatcen* (GGero 77). *irudindu*: leh. *iruditzen*; VB *iruditu*, *irudindu* (c.) “assimilar”.
- 6-4/5 *bidea galduric dabillen ardiaz* < *ardi errebelatuarequin* (GGero 77-78).
6-5 *errazoiaz* < *arraçoiñequin* (GGero 78).
gauza ascotan dirudie alcar < *anhitz gauçatan baitirudite elccar* (GGero 78).
6-6 *lagunetic... atzeratuten danean* < *laguney azquentcen çaienean* (GGero 78).
bide: aurean *alderatuten*, ezabatua. Axularren ordena berrezarri du.
6-7 *lagunetic... ardi lagun en alhapidetic* (GGero 78); *alhapide* ez bide du ulertu (cf. 4-92. oh. *alha-z*).
deslaitu ta atzeratuten < *aldaratcen eta hastantcen* (GGero 78). *deslaitu*: VB (b.) “abandonar”, (c.) “descuidar” (azkena < HH); beste idatzietan izenondo modura, ‘galdua, errebelatua’ adieran erabiltzen du (*EL*¹ 146 = *EL*² 162 eta *LoraS* 96, ap. *OEH*, s.v.; ik. hemen 6-14 ere). *atzeratuten*: aurean *albor*] (*alboratuten?*), ezabatua.
- 6-7/8 *urriago, galduago ta deslaiago dago* < *urruntcenago, galcenago eta errebelatcenago baita* (GGero 78).
6-8/9 *an non galdu cenduan* < *han berean galdu cenduen leccuan* (GGero 78).
6-9 *ta bai idoro bere* < *eta bai edireiten ere* (GGero 78); ik. § 5.2.5.

10 tzen, aldatuten. Baña ardia ordutic ordura urrinduten da, basoan barruago
sartuten da, gueroago galduago eguiten da. Alan bada, becataria bere guero-
ago galduago ta bere ecandu gaistoetan barrurago sartzen da. Agaitic esan
eban David erregueac (psal. 118): Uts eguin neban ta galdu nintzan ardi gal-
15 jausi ta zorigaistotu zan.

Ardia galdu barria danean erraz da arquitea, billatutea ta idorotea; eta
bai candela bat bere barriz eresseguitea, amatatu barria, oraindiño oztu ba-
gueda danean. Alan da, bada, becataria bere becatu eguin barrian: gai prest
dago becatutic jaguiteco.

20 Quiriquioac bere nequez ateretan dituz sabeleco ume latzac, baña ne-
quezago bere erruz. Bada, izanic bere narrua latza ta gaztaiña lacatza leguez

-
- 6-9/10 *muguitzen, aldatuten < higitcen (GGero 78).*
6-10 *urrinduten da < leccuz aldatcen da (GGero 78).*
basoan barruago < oihanean barrenago (GGero 78); ik. § 5.3.4. barruago: barren-
ago-ren kalko hutsa dirudi: ondoko agerraldietan (6-12, 6-51, 6-140, 8-188, 14-148,
etab.) barrurago erabiltzen du, ohi den bezala (cf. OEH, BARRUAGO- (leku kasue-
tan erabilia) eta BARRURAGO, s.v. barru; ez dago, oker ez banago, barruago-ren an-
tzeko adibiderik inon).
6-11 *gueroago galduago eguiten da < bethi eta galtcenago eta errebelatcenago da (GGe-*
ro 78).
6-11/12 *gueroago galduago < guero eta guero galtcenago (GGero 78).*
6-12 *barrurago sartzen da < barrenago sartcenago da (GGero 78). barrurago: aurean sar-*
tuago, ezabatua.
6-13 *David erregueac < erregue Davitec (GGero 78).*
Uts eguin neban < Errebelatu nintcen (GGero 78). Cf. VB “descarriarse: c. bidea gal-
du, utseguin; n. errebelatu”.
ta galdu nintzan < eta galdu (GGero 78).
6-13/14 *ardi galdu deslaitua leguez < ardia beçala (GGero 78); ik. § 5.4.2. ardi: jat. ardia (arg. zuz.).*
6-14 *bertatic < berehala (GGero 78).*
6-15 *jausi ta zorigaistotu < behaztopatu eta erori (GGero 78). Ez dirudi behaztopa(tu)-ren*
esanahia hasiera hauetan ezagutzen zuenik, saihestu ohi baitu (ik. 4-111. oh. ere);
beranduxeago ohartu bide zen (cf. VB “tropezar: c. estropezatu; g.n. beaztopatu):
estropezu, beaztopa (20-239), estropezu (22-31/32, 27-17/18) eta beaztopa edo es-
tropezua (27-12/13).
6-16 *galdu barria... idorotea < errebelatu berrian da erraçenic edireiteco eta incontratce-*
co (GGero 78).
6-17 *bai: gainean erantsia, < bai (GGero 78).*
candela bat < candela (GGero 78).
6-17/18 *barriz... oztu bagueda danean < irauingui berrian, oraino hoztu gabea denean, berriz*
lotceco eta iratchequiteco (GGero 78). barriz: gainean erantsia.
6-18/19 *gai prest dago < gaienic eta prestenic (GGero 78); ik. § 5.2.8.*
6-20 *Quiriquioac bere nequez: bere gainean erantsia; cf. Sagarroya, bere eguitez ere, ne-*
quez... (GGero 78).
ateretan dituz sabeleco ume latzac < erditcen da (GGero 78). Gero datorrena aurrera-
tu du (ik. § 5.4.3).
6-20/21 *baña nequezago bere erruz < baiña are bere faltaz nequezago (GGero 78).*
6-21 *izanic bere narrua latza < nola larruan baita latz (GGero 78) izanic: aurean dan l/*
(leguez?), ezabatua; ik. § 5.2.18.

- 25 aranza zorrotzez betea, eta umeac bere bera leguez latzac ta aranzatsuac, sa-
beletic umeac atera bear dituenean, euren aranzac ta lacatzac min eguiten
deutse; ta minaren minez, atzeratuten dau umeen jaiotza; sartzen dituz ba-
rrura, ta an dauquez al daian dempora guztian. Eta, celan alan dituzan bitar-
tean aci, anditu ta gogortuten dirian aec umeac; eta, besteti, atera bear edo il:
30 andic azquenean, arri baten contra estuturic, len eguingo zana baño neque-
zago ta penazago erdituten ditu. Bada, au berau vicitza on bat eguiteco lu-
cemendutan dabillen becatariac jazoten da. Cergaitic ce, celan Jangoicoaga-
na biurtzea ta obra onac eguitea dan ume-eguite bat leguez, alan, cembat
gueiago ichadon ta lucetuten daben, aimbat nequezago onetara abiatuco da.

-
- 6-22 *gaztaiña lacatza < gaztaina carloa (GGero 78-79); lacatz: cf. VB "erizo de la casta-
ña: b. quiriquioa; g. morcotza; c. lacatza" (azken biak < HH).*
- 6-22/23 *aranza zorrotzez < puntaz eta arantzez (GGero 79).*
aranzatsuac < arancetsuac baititu (GGero 79).
- 6-23/24 *sabeletic umeac atera bear dituenean < ume hec, erdi behar duenean (GGero 79). sa-
beletic: aurrean um] (umeac?), ezabatua.*
- 6-23/24 *euren aranzac ta lacatzac min eguiten deutse < bere arantceez eta carloez min egui-
ten diote (GGero 79).*
- 6-24 *minaren minez < halatan minari errendaturic (GGero 79).*
atzeratuten dau umeen jaiotza < erditceco meneratcen denean (GGero 79).
- 6-24/25 *sartzen dituz barrura < barrenat sartceintu (GGero 79). sartzen: aurrean barruan,
ezabatua.*
- 6-25 *an dauquez al daian dempora guztian < ahal beçanbat eduitceintu (GGero 79).*
- 6-25/26 *dituzan bitartean < dadutçan bitartean ere (GGero 79).*
- 6-26 *aci, anditu ta gogortuten < handitcen eta gogortcen (GGero 79).*
besteti < alabaiña (GGero 79).
atera bear edo il < erdi behar, edo hil (GGero 79). bear: aurrean edo il, ezabatua.
- 6-27 *estuturic < permaturic (GGero 79).*
zana baño < cen baiño (GGero 79).
- 6-28 *penazago = GGero 79.*
*erdituten ditu < erditcen da (GGero 79). Lehenago bestela itzuli du: seiña edo umea
eguiteco (3-27) eta azken lerroetan (umeak) atera (6-20, 6-23, 6-26); cf. halaber
ume-egite < erditze (6-30). Hegoaldeko beste idazle gutxi batzuek bezala (cf. OEH,
s.v. 2 erdi), iragankor jokatzan du, beharbada liburuetatik bakarrik ezagutzen zute-
lako seinale. Edonola ere, hauxe da liburu osoko ez eze, bere idazlanetako agerral-
di bakarra.*
- 6-29 *vicitza on bat eguiteco < obra onen eguitea (GGero 79).*
becatariac < beccatorea baithan ere (GGero 79).
- 6-29/30 *celan... dan ume-eguite bat leguez < nola... erditce bat beçala baita (GGero 79).*
Jangoicoagana biurtzea < convertitcea (GGero 79); ik. § 5.3.2.
- 6-30 *cembat < cenbatenaz eta (GGero 79).*
- 6-31 *ichadon ta lucetuten daben < baitago (GGero 79).*
aimbat: aurrean alan, ezabatua, < hanbatenaz (GGero 79).
nequezago onetara abiatuco da < obra on hetçaz nequezago erditcen da (GGero 79).

Eta, beragaitic, obe ta errazago izango da len bait len obra onac eguitea ta becatutic jaguitea.

35 Ceure lurrean zure baimena ta licencia baga eche bat asten deutsuenean, ordenaturic dauco legueac eragotzi al ciñeiquezala <65> obra barria: bada, baldin obra acabatzera ichiten badeutsazu, eraso leiquezue jabetasunen bat dauquela lur atán. Alan eguin bear da, bada, becatuetan ta becatarien obretan: barriac dirian artean quendu ta bota bear dira; bestela guraco dau deabruac eraso ta esetsi, obrea zartu dala ta atan jabetasuna dabela.

40 2 §.

Errazago bada bere ondasun prendan ifinia ateretea ta cobretea, saldua baño; idoroten dira, orrez guztiaz, euren ondasunac prendan leguez saldu bere eguiten dituenac. Eta berberau jazoten da arimaco gauceetan bere. Esan oi dabenean becatariac bildur diriala, euren concienziac lotsatuten dituela,

-
- 6-32 *Eta, beragaitic < Beraz, hunelatan (GGero 79). obe ta errazago izango da len bait len < lehen baiño lehen içanen da hoberenic eta erraxenic (GGero 79); ik. § 5.2.8. ta errazago: gainean erantsia.*
- 6-33 *becatutic < beccatuetaric (GGero 79).*
- 6-35/37 *ordenaturic dauco... lur atán < ceren baldin obraren accabatcera utz bacinitça peril bailluque, accometa liaçaçuten çucen dutela lur haren gainean, hartaracotçat, aiticinduric beçala, ordenatcen du legueac, egotz ahal deçaqueçula obra berria (GGero 79). Ordena aldaketa erraldoia, eta ideia bera ere errazago kontatua. Axularrek, dena dela, eragin zuzena izan du eraso-k (< accometa) hemen daukan ezohiko erabileran (cf. OEH, s.v. 1 eraso 1, bereziki 3. azpiatalean, 'dirigirse a' adierakoan); cf. halaber 6-39. oh.*
- 6-35 *ciñeiquezala: leh. ceinquezala; cf. GB 38 ceinque(zala).*
- 6-36 *bada: aurrean cerren, ezabatua (< Ax ceren).*
- 6-36 *ichiten: aurrean lar] (larga?), ezabatua.*
- 6-37/38 *jabetasunen: gainean, derechoren-en ordez (< Ax çucen).*
- 6-37/38 *becatarien obretan < beccatuzço obretan ere (GGero 79).*
- 6-38 *barriac dirian artean < berri direino (GGero 79).*
- 6-38 *quendu ta bota < egotci (GGero 79). quendu ta: gainean erantsia.*
- 6-38 *bestela < ceren bertcela (GGero 80).*
- 6-39 *eraso ta esetsi < acometatu eta alegatu (GGero 80); ik. 6-35/37. oh.*
- 6-39 *jabetasuna dabela < çucen duela (GGero 80).*
- 6-41 *prendan ifinia < bahitua (GGero 80).*
- 6-42/43 *idoroten dira... eguiten dituenac < edireiten da guztiarequin ere bere onac bahitcen beçala, saltcen ere dituenic (GGero 80). euren: gainean, bere-ren ordez (ik. § 5.1.2.4). prendan leguez saldu bere: hitzez hitz zuzen itzulia bada ere, ulergaitza dirudi; ik. § 5.2.11.*
- 6-43 *berberau < haur beror (GGero 80).*
- 6-43/45 *Esan oi dabenean... eguingo ezabela < Veldur direla, bere concientciac alha çaitzela, beccatu bat edo bia baicen ezutela eguinen erraiten dutela (GGero 80). dabenean: leh. dabe.*

- 45 becatu bat edo bi baño eguingo ezabela; oneec largatzeco usteaz ta gogoaz dabilzela becatu eguiten badabe, prendan ifinten dituez euren arimac. Baña bildurtasun бага, Jangoicoaz, concienziaz eta munduaren esateaz conturic eguin бага, ardura бага dabilztenac, salduten dituez arimac. Prenda bat tabernara biralduten dozunean, dirautsazu tabernariari, equi daguiela egun
- 50 batzuetan a prenda, ta guero aen buruan ateraco dozula. Baña zuc, celan atera bearrean barrurago sartuten dozun, egunetic egunera prendaren gañean ardao gueiago artzen dozun; alacoz ece, azquenean, icusiric ceure prendaren balioa edan dozula, prenda guztia tabernan ichiten dozu. Bada, au be-
rau ceure arimaz bere eguiten dozu. Esaten dozu, prenda ifini bai, baña
- 55 iñolatan eztozula salduco. Esaten dozu, becatu bat eguingo dozula, ta ez gueiago. Baña bat eguin, ta bat oni beste asco eransiten deutsezuz ondotic; alacoz ece, arimaren gañean becatuaren <66> zorra gueitu ta carguetan dozu; eta azquenean prenda guztia, cein dan zure arimea, tabernan, dea-
bruaeren escuan ta mendepean guelditzen zara, agaz, noc bere gauzaz leguez,
- 60 gura dabena eguiteco.

-
- 6-45 *oneec*: gainean erantsia; azpian leh. *eta orrez guztiaz*, gero *eta orregaitic bere*, dena ezabatua, < *eta hequen ere* (GGero 80).
usteaz ta gogoaz < *gogorequin* (GGero 80). *ta gogoaz*: gainean erantsia.
- 6-46 *becatu eguiten badabe* < *beccatuac eguiten dituztenec* (GGero 80). *badabe*: leh. *da-benean*.
prenda ifinten < *bahitcen* (GGero 80). *ifinten*: leh. *ifiniric*.
- 6-47 *bildurtasun бага* < *veldurtasunic gabe* (GGero 80).
Jangoicoaz < *Iaincoz* (GGero 80).
esateaz < *erraiteaz ere* (GGero 80).
conturic: leh. *contu*, < *conturic* (GGero 80).
- 6-48 *ardura бага* < *antsicabequi* (GGero 80).
arimac: Añibarroren eransketa.
- 6-49 *biralduten dozunean* < *arnoçun igortcen duçunean* (GGero 80).
dirautsazu < *gaztigatcen dioçu* (GGero 80).
- 6-50/51 *celan atera bearrean... sartuten dozun* < *nola atheraco doçun ecen barrenago sarcen duçu* (GGero 80). Aldaketa zilegi da eta ulergarri, baina ohartu gero honen eraginez *alacoz ece* (6-52, < *halaco moldez ecen*) lekuz kanpo geratzen dela.
- 6-51 *prendaren*: *aurrean ar]* (*ardao?*), ezabatua.
- 6-52 *ceure*: *aurrean pren]* (*prendaren?*), ezabatua; izan ere, Axularrek *bahiaren* bakarrik dio (GGero 80).
- 6-55 *iñolatan* < *neholatan ere* (GGero 80).
eztozula salduco < *ezteçaqueçula sal* (GGero 80).
- 6-56 *ta bat oni* < *ta bat hari* (GGero 81).
beste asco < *hanbat* (GGero 81).
- 6-57 *alacoz ece* < *halaco moldez eta suertez* (GGero 81).
gueitu ta carguetan < *berretcen eta cargatcen* (GGero 81). *gueitu*: leh. *gueituten dozu*.
- 6-58 *eta*: gainean, *non-en* ordez, < *non* (GGero 81). Lokailua (*ece*) perpausaren hasieran jarri du (ik. 6-57. oh.).
cein dan zure arimea < *cein baita çure arima* (GGero 81); ik. § 5.2.10.
- 6-59 *escuan eta mendepean* < *escuan eta botherean* (GGero 81).
zara < *baita* (GGero 81), subjektua *zure arimea* bada ere.

Becatutic jaguiteco, lucemendutan dabillenari jazoten jaco, censo ta interesece diruaren irabacia paguetan eztabenari guertatzen jacona. Alangoari urtetic urtera zorra aci, anditu, eransi ta gueituten jaco; ta are gueiago, baldin dempora luceaz badago, bibidertuten jaco; ta orduan ezta errazago pagatzen. Ez eta becatua bere ezta egonaren gueroz obeto sendatzen. Bada, batetic, deabruac egunetic egunera zure arimearen gañean escu-vide gueiago artzen dau; ta, bestetic, celan zu zoazan becatu eguiñaz ta becatutan egonaz, alan doa Jangoicoa bere zure arimatic igues eguiñaz ta urrinduaz, ceu lenengo urrinduten zarealaco. Eguizu contu, eguizu gogoeta, ea cembat urte dirian becatuan zagozala ta becatu eguiteari darraiozula; eta idoroco dozu urte guzti aetan Jangoicoaganic urrinduric ta alde eguinic ibilli zareala. Bada comunqui, joateco dun beste dempora bear oi da biurtzeco bere. Bada orrela, zuc bere joan dirian amar urte oneetan edo gueiagotan ibilli bazara Jangoicoaganic urrinduric, beste orrenbeste urte bearco dozuz beraganduteco. Ce-

-
- noc bere* < *norc bere* (GGero 81). Oraindaino ordezkatu nahiago izan du: *bacocha bere* (2-8), *bere* (2-40, oker) eta *norberac* (5-92).
- 6-61/62 *censo ta interesece* < *sensuco eta interesece* (GGero 81) < *censuco eta i.* (Gero 81).
- 6-63 *aci, anditu, eransi ta gueituten* < *handitcen, berretcen* (GGero 81).
are gueiago < *are* (GGero 81).
- 6-64 *bibidertuten* < *doblatcen* (GGero 81); cf. VB “duplicar: c. *bibidertu*” (< HH).
ezta errazago: gainean, *gachago da-ren* ordez, < *ezta erraxquiago* (GGero 81).
- 6-65 *egonaren gueroz*: *gueroz* gainean, *buruan-en* ordez, < *egonaren buruan* (GGero 81).
Hitzez hitzeko itzulpen dohakabea: ez dago *gueroz-en* aurrean genitiboa sekula erabili duenik (cf. OEH, GEROZ, s.v. *gero*).
obeto < *aisequiago* (GGero 81).
sendatzen < *erremediatcen* (GGero 81).
- 6-65/66 *batetic* < *bataz* (GGero 81).
- 6-66 *escu-vide* < *escu* (GGero 81).
- 6-67 *bestetic* < *berriz bertcea* (GGero 81).
- 6-68/69 *ceu lenengo urrinduten zarealaco* < *ceren... baitçara* (GGero 81); ik. § 5.2.18.
- 6-69 *cembat urte dirian* < *cenbat urthe duen* (GGero 61).
- 6-70 *becatuan* < *beccatutan* (GGero 81).
becatu eguiteari darraiozula < *beccatu eguiten hari çarela* (GGero 81). *darraiozula*: jat. *darroatzula*, -a- gainean oker erantsia (arg. zuz.).
idoroco dozu < *edirenen duçu ecen* (GGero 81).
- 6-70/71 *urte guzti aetan* < *urthe hetan guztietan* (GGero 81); ik. § 5.1.2.2.
- 6-71 *urrinduric ta alde eguinic ibilli zareala* < *urruntcen eta apartatcen hariçan çarela* (GGero 81).
- 6-71/72 *comunqui* < *comunzqui* (GGero 81).
- 6-72 *dun beste* < *beçanbat* (GGero 81).
Bada orrela < *Beraz hunelatan* (GGero 81).
- 6-73 *amar urte oneetan* < *hamar urtheotan* (GGero 82).
- 6-73/74 *ibilli bazara Jaincoaganic urrinduric* < *hariçan bai[t]çara Iaincoaganic urruntcen* (GGero 82).
- 6-74 *beste orrenbeste urte bearco dozuz beraganduteco* < *beharco duçu hurbiltceco ere hainbertce dembora* (GGero 82); ik. § 5.1.2.7.
- 6-74/75 *Celan, bada, uste dozu* < *Nolatan duçu bada uste* (GGero 82).

75 lan, bada, uste dozu aimbeste dempora igaro dozun videtic, ain laster, urte baten edo bian, ceure zartasunean sarturic, zartuten bazara bere, biurtuco zarea?

Eguia da, bai, alaco mesedea, gracia, indarra ta gustua emon al leiola Espiritu Santuac zure gogoari ta borondateari; eta urrindutean baño lenago ta
80 dempora guichiagoan zu biurtzea eguin lei Jaunac. <67> Baña, eztaquizu zugan alan jazoco danez, alango mesederic ta graciari eguingo deutsunez.

85 Maria Virgiña ta San Josepe bere esposo maiteac egun baten galdu eben Jesus seinchoa ezcutatu jaquenean Jerusalenen. Eta guero abiatu cirianean bere billa, idoro eben irugarren egunean. Dempora gueiago bear izan eben arqituteco, galduteco baño. Alan dirudi, bada, dempora gueiago bear dala becatuac osatuteco, eguiteco baño. Bada, darraiozunean becatu eguiteari, Jangoicoganic urrinduten zareanean, gueienez gaztea zara, sendo, osasundun ta indartsu zagoz; baña guero, Jangoicoagan[a] biurtu ta urtu gura dozune-

-
- 6-75 *aimbeste dempora igaro dozun videtic < hanbat demboraz iragan duçun bidetic (GGero 82).*
laster < laburzqui (GGero 82).
- 6-75/76 *urte baten edo bian < urthe batez edo biaz (GGero 82); ik. § 5.1.1.12. baten: leh. bat.*
6-76 *zartasunean sarturic: gainean, zartzaroan-en ordez, < çahartcean (GGero 82).*
6-78 *bai < ordea (GGero 82).*
mesedea, gracia, indarra ta gustua < faborea, garacia, indarra eta haicea (GGero 82).
emon al leiola < eman ahal diaçαιο (GGero 82). leiola: leh. leiquezula.
- 6-79 *eta < non (GGero 82); hau da, Axularrek halaco faborea... non... egitura dakar, eta Añibarrok bestela ulertu du halaco hura.*
- 6-79/80 *urrindutean baño... Jaunac < urruntcea baiño fitetzago eta denbora gutitzago eguin baiteçaqueçu hurbiltcea (GGero 82).*
- 6-80 *Baña < Ordea (GGero 82).*
- 6-81 *mesederic < faboreric (GGero 82).*
deutsunez < çaitçuntz (GGero 82); lehentxeago Jaunac erantsi izanari zor zaio aldaketa.
- 6-82 *San Josepe bere esposo maiteac < Ioseph Mariaren esposa (GGero 82).*
baten: leh. bateco, hurrengo aldetaren eraginez.
- 6-82/83 *galdu eben... Jerusalenen: gainean, videa ibilliric urrinduric Jerusalemelic, emen Jesus seinchoa ezcutatu jaquen-en ordez, < urrundu ciren Ierusalemelic egun baten bidea, han hey Iesus haurra ustecabeaz azquenduric (GGero 82).*
- 6-83/84 *abiatu cirianean bere billa < bilha abiatu cirenean (GGero 82); ik. § 5.2.1.1.*
6-85 *bada < bada, halaber (GGero 82).*
6-86 *osatuteco < erremediatceco (GGero 82).*
darraiozunean becatu eguiteari < beccatu eguiten hari çarenean (GGero 82). becatu eguiteari: leh. becatuari.
- 6-87 *gueienez < comunzqui (GGero 82); ik. § 5.3.2.*
- 6-87/88 *gaztea zara, sendo, osasundun ta indartsu zagoz < gazte çara, sendo eta indartsu (GGero 82); ik. § 5.1.3.8.*
- 6-88 *Jangoicoagan[a] biurtu < laincoagana bihurtu (GGero 82); hainbatetan agertzen da, eta denetan zuzen (cf. 0-14, 5-137, 6-29/30, 15-33, etab.).*

an, gaisso zagoz, argal ta zarturic. Beraz, orduan gachago izango da urtutea
 90 ta urregotutea, len urrindutea baño. Alan diño profeta Davidec (psal. 72):
 Zuganic urrindu ta alde eguiten dabenac, azquen deunguea euquico dabe.
 Eta Jangoicoac berac bere cemaituten ditu onelacoac esanic (Osee 9): Zori-
 gaistocoac dira niganic alderatu, urrindu ta igues eguiten dabenac.

3 §.

95 Becatuac itsaltu ta ilunduten dau adimentua, argaldu gomutea ta gaisto-
 tutu borondatea: cembat becatu gueiago, aimbat ecerbereezago adimentua,
 cenzuna, gomutea ta borondatea. Aimbat jaunago, nagusiago ta jabeago de-
 abrua. Aimbat Jangoicoaganic urrinago ta alderatuago. Aimbat indar ta es-
 cubide al guichiago ta argalago eranzuteco, eraso ta esetsiteco arerioai. Bada,
 100 au onela izanic, celan uste dozu guero orain baño obeto onduco zareala ta be-

-
- 6-89 *gaisso zagoz, argal ta zarturic < eri çara, flaco eta çahar (GGero 82); ik. § 5.1.3.8.*
argal: aurean zarturic, ezabatua.
- 6-89/90 *urtutea ta urregotutea < hurbilteca (GGero 83). ta urregotutea: gainean erantsia. VB*
urragotu (b.) “acercarse más”.
- 6-91 *urrindu ta alde eguiten dabenac < urruntcen direnec (GGero 83). alde eguiten: ira-*
gankor, ohi ez bezala (ik. 5-31/32. oh.).
- 6-92 *azquen deunguea euquico dabe < fin gaitz eguinen dute (GGero 83).*
cemaituten ditu < mehatchatceintu (GGero 83).
onelacoac < halacoac (GGero 83).
esanic < erraiten duela (GGero 83); ik. § 5.2.14.
- 6-92/93 *Zorigaistocoac dira... eguiten dabenac < Beguira beute eneganic urrundu eta apar-*
tatu direnec, çori gaitz hequentçat (GGero 83). alderatu: jat. alderatu ta (arg. zuz.),
biak gainean erantsiak; ta igues eguiten dabenac-en geroagoko eransketak (urrindu
leh. urrinduten dirianac baitzen) ta alferrikako (eta Añibarrorengan zeharo ezohi-
ko) bilakatu du.
- 6-95 *itsaltu ta ilunduten < ilhuntcen (GGero 83). itsaltu: cf. halaber itsaltu (51-92) eta itsal*
‘iluna’ (13-68, 15-382, 19-169, etab.). Añibarrok bakarrik idazten du honela, baita
beti honela idatzi ere, EL²-n izan ezik (cf. OEH, s.vv. itzal eta itzali).
argaldu gomutea < flacatcen du memoria (GGero 83).
- 6-95/96 *ta gaistotu borondatea < eta gaixtatcen du vorondatea (GGero 83).*
- 6-96 *cembat becatu gueiago < cenbatenaz beccatu guehiago, eta beccatutan ego (GGero*
83) < ...eta beccatutan egonago (Gero 83).
- 6-96/97 *aimbat ecerbereezago... borondatea < hanbatenaz adimendua, memoria eta voron-*
datea eztheusago (GGero 83).
- 6-97/98 *Aimbat jaunago... deabrua < Hanbatenaz deabrua iaunago eta nabusiago (GGero*
83). deabrua: gainean erantsia.
- 6-98 *alderatuago < apartago (GGero 83).*
- 6-98/99 *Aimbat indar ta escubide... arerioai < Eta hanbatenaz çure indarra eta ahala ere,*
etsaia[r]i ihardesteco ttipiago eta flacoago (GGero 83). escubide: gainean erantsia,
atze] (?) -ren ordez. eraso: gainean erantsia.
- 6-100 *au onela izanic < gauça hauc hunela direnaz gueroztic (GGero 83); ik. § 5.2.19.*
uste dozu < duçu çuc uste (GGero 83).
- 6-100/101 *orain baño obeto... jaguico zareala < hobequi onduco çarela eta beccaturic ilquitco*
çarela orai baiño (GGero 83). orain: aurean obeto onduco zareala, ezabatua.

- catutic <68> errazago jaguico zareala? Ura chiquia danean ecin igaro badozu, cer eguingo dozu andia dedinean? Arech chiquerrac, oraindiño sustrairic eztituezanac ecin atera badozuz, cer eguingo dozu irme sustraituric ifinten dirianean? Esan gura dot: orain becatu guichi dozunean, ta guichioc bere
- 105 eguin barriac dirianean, ecin bapere erabagui ta abiatu zara orrétatic jaguiten; cer izango da, bada, guero becatuz beteric ta aetan lucero gogorturic zagozanean? Orain amar becatuaz dozu jarduquia, errierta ta aucia; guero eunegaz equi bearco dozu. Orain urte bat edo bico ecandu deunguea dozu; guero oguei edo berroqueicoa izango dozu. Becatu eguiteaz moropilloac bi-
- 110 bidertuten dozuz, cateac gueituten dozuz, carguea astundu ta aciten dozu. Ce zoraqueria da, bada, zuc uste izatea guero carga andiagoaz obeto maneatuco zareala, orain chiquiaz baño? Uste dozu guero amar becatuen parcaciñoa obeto erdetsico dozula, orain bostena baño? Uste dozu guero gaisstosuna

-
- 6-101 *chiquia danean < ttipi deiño (GGero 83).*
- 6-101/102 *ecin igaro badozu < ecin iragan deçaqueçu (GGero 83).*
- 6-102 *cer eguingo dozu andia dedinean? < cer eguinen duçu bada handi dadinean? (GGero 83). Aditzoina izenondo mugagabetzat hartu du (ik. § 5.1.1.5).*
- 6-102/103 *sustrairic eztituezanac: sic, aurrean ez dab] (ez dabenac?) ipintzen hasi bazen ere, < errorric ez tutenac (GGero 83); ik. halaber 1-120/121 eta 49-62. oh.*
- 6-103 *ecin atera badozuz < ecin athera diaçaqueçu (GGero 83) < ...ditçaqueçu (Gero 83).*
- 6-103/104 *irme sustraituric ifinten dirianean < errozta eta handi ditecinean (GGero 83). Ohartu orainaldi ez burutua hautatu duela, subjuntiboa edo geroaldia hautatu beharrean.*
- 6-104 *guichioc < guti horiec (GGero 83).*
- 6-105 *eguin barriac dirianean < berri direnean (GGero 83). eguin: gainean erantsia.*
- 6-105/106 *ecin bapere... jaguiten < ecin delibera deçaqueçu, halaric ere, horietaric ilquitcera (GGero 83-84). ta: aurrean dozu, ezabatua. zara: gainean ba- (bazara), ezabatua.*
- 6-106 *lucero < dembora luceaz (GGero 84); ik. § 5.1.4.*
- 6-107 *amar becatuaz < hamar beccaturequin (GGero 84); cf. gero eunegaz (6-107/108); ik. § 5.1.1.10. dozu jarduquia, errierta ta aucia < diharducaçu (GGero 84). jarduquia, errierta: gainean, disputa-ren orde; cf. VB jarduqui (n.) “disputar” (< HH). aucia: letra txikiagoaz, hutsunea beranduago bete izan balu bezala.*
- 6-108 *bat edo bico < baten edo biaren (GGero 84). bico: aurrean biare[n], ezabatua; ik. § 5.1.1.8.*
- 6-109 *oguei edo berroqueicoa < hogoyena edo berrogoyena (GGero 84). berroqueicoa: leh. berroqueiena. moropilloac < coropilloac (GGero 84); cf. iru moropil edo orapillogaz (MisE 237, ap. OEH, s.v. moropil) eta VB “nudo: c. orapilla, llo; b. moropilla; g. orapilloa, corapilloa”; ik. § 5.3.3.*
- 6-109/110 *bibidertuten dozuz < doblatceintuçu (GGero 84).*
- 6-110 *astundu ta aciten < handitcen (GGero 84).*
- 6-111 *zuc uste izatea < haur]z[uste baituçu, ecen (GGero 84). andiagoaz < handiarequin (GGero 84).*
- 6-112 *chiquiaz < ttipiarequin (GGero 84). Uste dozu < Uste baituçu ecen (GGero 84). amar becatuen < hamar beccaturen (GGero 84); ik. § 5.1.1.4.*

115 andiagotu dedinean, errazago izango dala osatutea ta sendatutea, chiquia danean baño? Eztaquizu Espiritu Santuaren esatea dala (Eccl. 10) gaisotasun zar luceac nequetuten dabela medicu osaguilla, baña labur barriac eguiteco guichi emoten deutsela, au laster osatuten dabela?

120 Eguia au adierazo eutsan angueru batec ermucio batar, bacar edo padar santu bati. Artu eban angueru onec guizon baten antz-irudia, ta joan zan (In vit. S. Arsen. apud Sur. tom. 4 pág. 257) ermutar santu au egoan mendira; escutic oraturic eroan eban <69> baso barrura; eta an eracutsi eutsan guizon bat, egurra ebaguiten cebillela. Carga bat eguinic, estu ebanean, asi zan abiatzen ea jaso al baebanez. Baña ain carga astun pisutsua eguin eban, ece ecin jasoric larga eban. Ichi ebanean, asi zan barriro egur eguiten, ta bere lengo

-
- 6-114 *errazago... osatutea ta sendatutea* < *erraxago... sendatcen eta erremediatcen* (GGero 84).
chiquia < *ttipi* (GGero 84); *aurrean orain*, ezabatua.
- 6-115 *Espiritu Santuaren esatea dala* < *nola erraiten duen Spiritu Sainduac* (GGero 84).
- 6-116 *zar luceac* < *luceac eta çaharrac* (GGero 84).
nequetuten dabela: gainean, *cer eguiña emoten deutse-ren ordez*, < *neccatcen du* (GGero 84).
medicu osaguilla: leh. *medicuar[i]* eta *osaguillari* (cf. aurreko oh.), < *midicua* (GGero 84).
labur barriac < *laburrac eta berriac* (GGero 84).
- 6-117 *deutsela*: leh. *deutse*, < *dio* (GGero 84).
au < *hura* (GGero 84).
laster < *laburzqui* (GGero 84).
dabela: leh. *dau*, < *du* (GGero 84).
- 6-118/119 *ermucio batar... bati* < *lehenago mendietan eta ermitetan bicitcen ciren saindu hetaric bati* (GGero 84). Cf. VB *padarra* (b.) “ermitaño que cuida de la ermita” eta *ermutarra*, *batarra*, *bacarra* (c.) “ermitaño, anacoreta”.
- 6-119 *angueru*: leh. *anguerua*] (*angueruac?*), < *ainguiru harc* (GGero 84).
antz-irudia < *iduria* (GGero 84).
- 6-120 *ermutar santu au egoan mendira* < *mendietaco saindu hetaric batengana* (GGero 84).
- 6-120/121 *escutic* < *eta escutic* (GGero 84).
- 6-121 *baso*: leh. *basoaren*, cf. *oihanean barrena* (GGero 84); ik. § 5.3.4.
an: gainean erantsia, < *han* (GGero 84).
- 6-122 *egurra ebaguiten cebillela* < *hari cela egur eguiten* (GGero 85). *egurra*: *aurrean ceo]-edo (cegoela?)*, ezabatua.
Carga bat < *Eta çama bat* (GGero 85).
estu < *lothu* (GGero 85); *estu / estutu-z* ik. 1-130. oh.
- 6-122/123 *abiatzen* < *enseiatcen* (GGero 85); *lehenago enseiatu* itzultzeko *saiatu*, *dendatu ta zaletu* (2-8) eta *ensaiatu*, *saiatu* (2-125), besteak beste, erabili baditu ere, hemen eta ondoko pare bat agerralditan (ik. 9-50, 11-321. oh.) *abiatu-z* itzultzen du, eta gero-ago *enseiu abiatze-z* (15-220).
- 6-123 *ea jaso al baebanez* < *ea iasan ahal ceçaqueyenz* (GGero 85); ik. § 5.2.7.
Baña... eguin eban < *Baiña hain eguin çuen handi* (GGero 85).
- 6-123/124 *ecin jasoric* < *ecin iasanez* (GGero 85); ik. § 5.2.19.
- 6-124 *barriro* < *berriz bigarreanean* (GGero 85).

- 125 carguea nagusitu ta anditzen. Andiagotu ebanean, artu eban ta asi zan len leguez icusten ea jaso al baebanez. Baña orduan guichiago, cergaitic ce lendaric aciago ta andituago eban. Baña orrez guztiaz, asi zan irugarrenean bere tematuten, egurra eguiten ta bere lengo carguea len leguez ascotuten, uste izanic alan arinduco jacala, ta errazago jaso ta eroango ebala. Ermutar
 130 santuac, au icusi ebanean, itandu eutsan angueruari: Ce zoraqueria da dacuscuna? Uste dau guizon onec egur gueiago eransiric carguea arinduco jacola? Eta andituz, errazago jaso ta eroango dabela? Orduan eranzun eutsan angueruac: Orrela da, bada, munduco eroqueria bere; uste dabe becatariac becatu ascogaz, carga astun pisutsuaz obeto jaguico diriala, arinaz baño.
 135 Esan oi dabe: orain nagui nas; orain escu artean darabiltzadazan gaistaqueriac ecin ichi neiquez. Oraindiño dempora guichi baten euroetan egon bear

- 6-125 *carguea nagusitu ta anditzen*: leh. *cargueari eransi*; *nagusitu ta*: gainean erantsia, < *çamaren handitcen* (GGero 85). Añibarrok bakarrik erabiltzen du *nagusitu* 'handitu' adieran pertsonetz besterekin (cf. *OEH*, s.v. *nagusitu* 3).
Andiagotu: leh. *Anditu*, < *Handitu* (GGero 85).
 6-126 *icusten* < *enseiatcen* (GGero 85).
orduan < *are orduan* (GGero 85).
 6-127 *aciago ta andituago* < *handituago* (GGero 85).
eban: *aurrean egoan*, ezabatua, < *baitçuen* (GGero 85).
 6-128 *tematuten*: *aurrean icusten*, ezabatua, < *lehiatcen* (GGero 85).
egurra eguiten < *egur eguiten* (GGero 85); ik. § 5.1.1.5.
ascotuten: gainean, *andituten*-en ordezt, baina hau ezabatu gabe, < *handitcen* (GGero 85).
 6-129 *uste izanic* < *ustez ecen* (GGero 85).
errazago < *errazquiago* (GGero 85).
jaso ta eroango < *iasanen eta eramanen* (GGero 85); ik. § 5.2.5.
 6-129/130 *Ermutar santuac* < *Saindu hunec* (GGero 85).
 6-130/131 *Ce zoraqueria da dacuscuna? Uste dau...* < *Cer er[h]oqueria da haur, uste baitu...* (GGero 85). *dacuscuna*: gainean, *guizon onena*-ren ordezt.
 6-131 *guizon onec*: *aurrean onec*, ezabatua, < *guizon hunec* (GGero 85).
egur gueiago eransiric < *berretuz* (GGero 85).
 6-132 *errazago* < *erraxquiago* (GGero 85).
jaso ta eroango < *iasanen eta eramanen* (GGero 85).
 6-133 *Orrela da* < *Horrela duc* (GGero 85).
 6-134 *ascogaz* < *anhitzequin* (GGero 85).
carga astun pisutsuaz < *carga pisuarequin* (GGero 85).
arinaz < *arinarequin* (GGero 855).
 6-135 *Esan oi dabe* < *Erraiten baitute* (GGero 85).
nagui nas < *herabe dut* (GGero 85).
escu artean < *escuen artean* (GGero 85).
darabiltzadazan < *darabiltçadan* (GGero 85); cf. *GB 48 darabildaz*: Axularren formari automatikoki mendebaldeko pluralgilea erantsi dio, antza denez; edonola ere, forma pleonastiko hau bakarra da testuan: cf. *darabiltzuz* (7-89), *darabildez* (32-92), *darabilz* (45-207), etab.
 6-135/136 *gaistaqueriac* < *beccatuac* (GGero 85).
 6-136 *dempora guichi baten* < *dembora appur batez* (GGero 85); ik. § 5.1.1.12.
euroetan < *hautan* (GGero 85); ik. § 5.1.2.3.

dot, beste batzuc bere eransiten dodazala. Baña guero dirianac largaco do-
daz; guztietatic jaguico nas. Itsumen itsua, eroqueria zoroa, uste badozu gue-
ro emetic urte bat edo bi barru, orain baño becatu gueiago dozunean, oxine-
140 an barrurago, sartuago ta ondatuago zagozanean, ta orain baño erbalago,
<70> zantarrago, mascarrago ta argalago zagozanean, prestago, errazago ta
arinago jaguico zareala becatutic. Bota eguizu zoraqueria ori burutic, atera
eguizu ceure gogotic ta sinistu eguizu gueroago gachago, nequezago izango
dala. Eta Ovidioc diñon leguez (lib. 1 de remed. amor.): Gaur gai ta prest ez-
145 tana, biar guchiago izango da.

-
- 6-137 *beste batzuc bere < bertceric ere, cenbait (GGero 85).
eransiten dodazala < iratchequitcen der]r[auedala (GGero 85).
dirianac < guztiac (GGero 85).
largaco: leh. lagaco.*
- 6-138 *jaguico < iltquico (GGero 85).
Itsumen itsua, eroqueria zoroa < Itsutasunaren itsua, erhoqueriaren erhoa (GGero
85-86).
uste badozu < uste baituçu ecen (GGero 86).*
- 6-139 *urte bat edo bi barru < urthe baten edo biaren buruan (GGero 86); cf. halaber 13-76
ere. Aterabide hau bururatu zaion lehen aldia: -(r)en buruan onartu ohi du (1-38, 3-
24, 4-51, 4-135, 6-50, 9-107/108, 11-129, etab.), edo bestela ezquero / -ez guero-re-
kin (3-12, 3-14, 9-88/89) edo ondoan-ekin (3-44) ordezkatu.*
- 6-140 *barrurago, sartuago ta ondatuago < barrenago (GGero 86). sartuago: gainean eran-
tsia.*
- 6-140/141 *erbalago, zantarrago, mascarrago ta argalago zagozanean < flacoago çarenean
(GGero 86); ik. § 5.1.3.8. mascar: cf. VB (b.) “alicaído, por flaco, sin fuerzas, acha-
coso”, (c.) “flaco” (azken hau < HH) eta OEH, s.v. 1 maskal.*
- 6-141/142 *prestago, errazago ta arinago < aisequiago eta erraxquiago (GGero 86). errazago:
gainean erantsia.*
- 6-142 *jaguico < ilquitco (GGero 86).
becatutic: Añibarroren eransketa.
Bota eguizu < Iltqui bequiçu (GGero 86).
atera: gainean, quendu-ren ordez, baina hau ezabatu gabe, < egotz (GGero 86).*
- 6-143 *gogotic: gainean, gogotic, buruti[c]-en ordez, < gogotic (GGero 86); errepikatzer
zihoala ohartu zen, nonbait.
gachago, nequezago < gaitzago (GGero 86).*
- 6-144 *gai ta prest < gai (GGero 86).*

7. BURUA

Guerotic guerora ibilteaz artzen da ecandu gaistoa.

1 §.

5 Espiritu Santuac diño (Prov. 22): Gaztetan artuten daben videari darraio
guizonac zartasunean bere. Orduan artzen daben bidea, ecandua, oitura ta
usadioa euquiten dau guero bere; ezta andic muguitu ta aldatuten; ari oratu
ta eransiten jaco; dempora lucean bide bat euqui dabenari, ezta erraz beste-
ra iruli, itzuli, biurtu ta eraguitea. Ibai, erreca batec beti darraio lenengoan
10 artu eban bideari. Ezta erraz bidea ta andic igaroteaz artu daben ecandua,
abiadura ta ibilcuntza galdu eraguitea. Onela bada, ezta erraz izango dem-

-
- 7-1 7. BURUA: aurean *Capitulu*; leh. 8.
7-2 *Guerotic guerora... gaistoa* < *Nola guerotic guerora ibiltceaz coberatcen den usantça gaixtoa* (GGero 86). *gaistoa*: aurean *cha*] (*charra?*), ezabatua.
7-4 *Espiritu Santuac diño* < *Erraiten du Spiritu Sainduac* (GGero 86).
7-4/5 *Gaztetan... zartasunean bere* < *Nor nola gobernatcen baita gaztean, hala comunzqui eguiten ohi da çahartcean ere* (GGero 86). *darraio*: gainean, *darraio g*] eta *jarraitu oi dau* [eta gainean *deutsa*]-ren ordez.
7-5/6 *bidea, ecandua, oitura ta usadioa* < *bidea, plegua eta usantça* (GGero 86).
7-6 *ezta andic mugitu ta aldatuten* < *ezta handic higitcen, ezta handic aldaratcen* (GGero 86).
7-6/7 *oratu ta eransiten* < *itchequitcen* (GGero 86).
7-7 *dempora lucean* < *dembora luceaz* (GGero 86); ik. § 5.1.1.12.
euqui dabenari < *eduqui duen urari* (GGero 86); *ura eta hura* nahasi ditu, antza *de-
nez* (ik. § 5.3.4).
7-8 *iruli, itzuli, biurtu ta eraguitea* < *irioitea eta eraguitea* (GGero 86).
7-8/9 *Ibai, erreca batec... bideari*: gainean erantsia; izan ere, Añibarroren eransketa da, le-
hen egin duen hutsa nolabait zuzentzera datorrena, dirudienez.
7-9 *bidea* < *bide haren* (GGero 86).
7-9/10 *ecandua, abiadura ta ibilcuntza* < *usantçaren, abiaduraren eta lasterraren* (GGero 87).
7-10 *Onela, bada* < *Ez eta, beraz* (GGero 87).

15 pora luceaz artu dan ecandu charra bere ichi, larga ta aldeguitea. Zaldi bat, gaztea danean eciten da. Araguaia, guelia edo oquelea, barria danean gatzituten da ondo. Arecha, landara chiquia danean aldatu lei batetic bestera. Azquenez, gauza guztiac lenengotan artzen dabe euren oitura, ecandua, orma ta moldea, ta bein artu ezquero, nequez ichiten dabe. Gogorturic bein, gach biurtu ta besteratuten dira. Lapicoac lucero euqui oi dau barritan eban usaiña ta ats ondaquiña, diño Oracioc (ep. 2).

20 <71> Licurgoc, eracusteco Lacedemoniac cerichen guizon batzuei ceñ indar andia eucan usadio ta ecandu batec, artu cituen chacurcume gazte bi, ama batenac ta sabel aldi bateco bicochac. Ataric bata, aci eban beti eche barruan, subate, ezcaratza edo socaldeco plater artean; bestea, barriz, aci eban campoan eiza edo cazaco chacurraz batera. Enda guero andi eguin ciria-

- 7-11 artu < coberatu (GGero 87).
ichi, larga ta aldeguitea < utztea eta aldatcea (GGero 87).
Zaldi bat < Çamaria (GGero 87).
- 7-12 gaztea danean < gazte deiño (GGero 87).
Araguia, guelia edo oquelea < Haraguia (GGero 87). guelia: VB (c.) “carne de buey o vaca muerta”.
barria danean < ber[r]i deiño (GGero 87).
- 7-13 ondo: Añibaroren eransketa.
Arecha, landara chiquia danean < Çuhaitça ttipi deiño (GGero 87).
aldatu lei batetic bestera: leh. aldatuten da beste lecu batera, < birlandatcen da (GGero 87).
- 7-13/14 Azquenez < Finean (GGero 87).
- 7-14 lenengotan: aurrean bere, ezabatua; < lehenbician (GGero 87).
- 7-14/15 oitura, ecandua, orma ta moldea < plegua eta ortkhoia (GGero 87).
- 7-15 Gogorturic bein < Gogortuz guero (GGero 87); ik. § 5.2.19.
- 7-15/16 gach biurtu ta besteratuten dira < gaitz da billucatcea (GGero 87). biurtu: aurrean dob] (doblatsu?), ezabatua. besteratuten: cf. HH besteratu “transformar”.
- 7-16 euqui oi dau < eduquitcen du (GGero 87); ik. § 5.1.3.13.
barritan < berrian (GGero 87); ik. § 5.1.1.4.
eban < hartcen duen (GGero 87).
- 7-16/17 usaiña ta ats ondaquiña < usaiña eta cutsua (GGero 87). ats: gainean erantsia.
- 7-17 Oracioc: aurrean Ovidioc, ezabatua.
- 7-18 Lacedemoniac cerichen guizon batzuei < Lacedemoniacoe (GGero 87); ik. § 5.4.2.
- 7-19 usadio ta ecandu batec < usantçac (GGero 87); ik. § 5.1.1.6.
chacurcume gazte bi < bi chacur gazte, bi orcume (GGero 87).
- 7-20 sabel aldi bateco bicochac < sabel aldi batetacoac (GGero 87); ik. § 5.1.1.4.
aci eban < usatu çuen (GGero 87).
- 7-21 subate, ezcaratza edo socaldeco plater artean < cucinaco eta succaldeco eltce-plateren artean (GGero 87). socaldeco: leh. socaldean. Cf. VB “cocina: c. socaldea, suteguia; b. suatea, ezcaratza”.
bestea, barriz < eta berriz bertcea (GGero 87).
- 7-22 eiza edo cazaco < ihicico (GGero 87).
Enda < Eta (GGero 87); ik. § 4.2.12.
andi eguin < handitu (GGero 87).

nean, eroan cituzan esturic biac guizon aen aurrera; ta an ascatu ta larga ci-
 25 tuzan; ta largatzeaz bat-batean, egotzi ta bota eutsen euren aurrera erbi bat ta
 aragui zati bat. Eiza edo cazan oitua bertatic abiatu zan erbiaren atzean ta ja-
 rraian; ta barriz bestea, subatean aciac esetsi ta oratu eutsan aragui zati pus-
 cari. Guero cirautsen aurrean beguira cegoanai: Beguira emen ta icusi be-
 guie, jaunac, cer eguiten daben ecandu batec, cein indar andia dauquen
 30 lenengotic artzen dirian oiturac, jarraiteac, usadioac, acierac ta asierac. Ara
 celan chacur oneetatic batac eguin eutsan aragui zatiari, atara ecanduturic
 aci zalaco; ta besteac jarraitu eutsan eizari, erbiari. Agaitic diño Espiritu
 Santuac (Eccli. 7): Seméac badozuz, escolatu, dotrinatu ta iracasi eguiezue
 chiquitatic; eci ta aci eguizuz ondo seinchoac dirianetic. Cerren bein andi

- 7-23 *esturic biac* < *biac treilla batetan* (GGero 87). *esturic*: gainean erantsia.
guizon < *Lacedemoniaco iende* (GGero 87).
- 7-24 *largatzeaz bat-batean* < *largatcearequin batean* (GGero 87).
egotzi ta bota < *egotci* (GGero 87).
eutsen: aurrean *eban*, ezabatua, < *cerauzten* (GGero 87).
erbi: ondoren *vici*, ezabatua; cf. *erbi bat* (GGero 87).
- 7-25 *Eiza edo cazan* < *Eta ihician* (GGero 87).
bertatic abiatu zan < *abiatu cen berehala* (GGero 87).
- 7-25/26 *atzean ta jarraian* < *ondotic* (GGero 87).
- 7-26 *bestea, subatean aciac esetsi ta oratu eutsan* < *bertcea, cucinan hacia, lothu ceican*
 (GGero 87). Aditz jokoaren aldaketak ergatiboa eskatuta, aposizioan bakarrik jarri du.
- 7-26/27 *zati puscari*: leh. *zatiari*, < *puscari* (GGero 87).
- 7-27 *Guero* < *Eta guero* (GGero 87).
cirautsen < *erran cerauen* (GGero 87-88).
aurrean beguira cegoanai: Añibarroren eransketa. *aurrean*: leh. *aurrecoai*.
- 7-27/28 *Beguira emen ta icusi beguie* < *Iccusaçue* (GGero 88). *beguie*: aurrean *eguizue*, eza-
 batua. Berorika ari da, jakina.
- 7-28 *ecandu batec* < *usantçac* (GGero 88).
dauquen: leh. *daucan*, < *duen* (GGero 88); ik. § 4.2.1.
- 7-29 *lenengotic artzen dirian... asierac* < *hazcuntçac, lehenbico següentçac eta ohicun-
 deac* (GGero 88). *jarraiteac*: leh. *jarraiac*, Axularren *següentçac* itzuli beharrez;
 cf. VB “seguida: c. jarraia, jarraitea” eta ik. § 5.3.4.
- 7-29/30 *Ara celan* < *Nola* (GGero 88).
- 7-30/31 *eguin eutsan... aci zalaco* < *bere hazcuntçaren arauaz, lothu çaicán haraguiari* (GGe-
 ro 88). *eguin*: aurrean *orat*] (*oratu*), ezabatua.
- 7-31 *ta besteac* < *eta berriz bertcea* (GGero 88).
eizari, erbiari < *ihiciari* (GGero 88).
- 7-31/32 *Agaitic diño Espiritu Santuac* < *Dio Salomonec* (GGero 88), latinaren ondoan eta eus-
 karazkoaren aurrean.
- 7-32 *badozuz*: leh. *dozuz*, < *ditutçunean* (GGero 88).
escolatu, dotrinatu ta iracasi eguiezue < *escola itçatçu* (GGero 88).
- 7-33 *chiquitatic* < *haurretic* (GGero 88); ik. § 5.1.1.4.
eci ta aci... dirianetic < *uzcur itçatçu eduqui ttipi direino azpitic* (GGero 88). *diriane-
 tic*: -ria-ko *i* egiatan nato bat baino ez da eskuizkribuan; Urquijok ere (1923: 250)
 irakurketa bera egin du.
Cerren: aurrean *Bada bestela*, ezabatua, < *Ceren* (GGero 88).

35 eguinic, nequez eci, escuratu ta ceure aguindura ta esanera ecarri ta ecanduco dozuz.

2 §.

40 Dempora lucean becatuan egoteaz ta ecandutuaz, beste calteric ezpale-
tor bere, ezpada artzea ecandua, oitura ta aztura charra, ori berori izan bear
liteque asco ta lar becatuan egotetic gordeteco <72> ta len bait len bide one-
an ifini eraguiteco. Bada, ain indar andia dauco usadio batec, ece diño San
Juan Chrisostomoc (advers. vituper. vite monastic. tom. 3): Judeguac ugarit-
45 asun andiaz euquen Mana cerichan ceru-janaria on gozoa, baña ain dau in-
dar andia usantzac ta oiturac, ece etorri cirian esatera au baño gurago citue-
zala Egitoco quipullac ta beracatzac, ta aec jatera biurtu gura ebela. Eta
agaitic diño San Agustinec (in Enchirid. cap. 8, tom. 3): Becatuac andiac ta
izugarriac izan arren, arinac, chiquiac ta ecerezqueria bat iruditen jaco

- 7-33/34 *bein andi eguinic* < *behin handituz guero* (GGero 88); ik. § 5.2.19.
7-34/35 *nequez eci... ta ecanduco dozuz* < *eztitutçu hobequiago manucortuco, escuperaco eta ez plegatuco* (GGero 88). *aguindura ta: tartean ecar]* (*ecarri?*), ezabatua. *ecarri: leh. ecarrico. ta ecanduco: gaínean erantsia. escuratu: cf. VB “domar: c. eci, ecitu, escuratu” eta OEH, s.v. eskuratu 3. ecanduco: VB ecandutu, ecandu* (b.) “acostumbrarse”.
7-37 *Dempora lucean* < *Dembora luceaz* (GGero 88). *becatuan* < *beccatutan* (GGero 88). *egoteaz ta ecandutuaz* < *egoiteaz eta usatceaz* (GGero 88); *-teaz eta -tuaz* (ik. § 5.5.1). *ezpaletor: gaínean, etorrico ezpaltiz-en ordez, < ethor ezpaledi* (GGero 88); ik. § 5.1.3.7.
7-38 *ezpada artzea... aztura charra* < *pleguaren eta aztura gaixtoaren hartcea baicen ere* (GGero 88). Ohartu *ecandua*-k mugatzailea daramala, *charra* berarekin ez bailihoan. Axularren egituraren oihartzun zuzen gisa. *ori berori* < *hura bera* (GGero 88); ik. § 5.1.2.1.
7-38/39 *izan bear liteque* < *behar liçateque* (GGero 88).
7-39 *asco ta lar* < *asco* (GGero 88). *becatuan* < *beccatutan* (GGero 88).
7-39/40 *onean: leh. onera, < onean* (GGero 88).
7-40 *ain indar andia dauco* < *hain du indar handia* (GGero 88); ik. § 5.1.3.9. *usadio batec* < *usantçac* (GGero 88).
7-41 *tom. 3 < cap. 3. tom. 7* (GGero 88, in m.).
7-41/42 *ugaritasun andiaz... gozoa* < *Mana ceritçan ianhari on, ezti, goço hartaric franco çutelaric* (GGero 88); ik. § 5.2.14. *janaria: ik. § 5.1.1.1. Cf. VB “maná, aquel rocío milagroso: cerujanaria, mana”.*
7-42/43 *ain dau indar andia usantzac ta oiturac* < *usantçac hain du indar handia* (GGero 88); ik. § 5.1.3.9.
7-43/44 *ece etorri cirian... gura ebela* < *ecen harc errequerituric, Egiptoco tipula baratçurietara bihurtu nahi baitçuten* (GGero 88). *cituezala: gaínean, ebela-ren ordez. aec jatera: gaínean, ara-ren ordez.*
7-45 *agaitic* < *handic* (GGero 89).
7-45/46 *andiac ta izugarriac* < *handi eta icigarri* (GGero 89).
7-46 *arinac, chiquiac ta ecerezqueria bat* < *ttipi eta ezdeus* (GGero 89).

tan usatu, oitu ta ecanduten danari; ain ecerezqueria, ece guero, andic ara gu-rago dituz estaldu ta ezcutatu baño, aguertu, aguiritu, camporatu ta zabaldu.

50 Erregue Davidi, erreguetu baño len, emon eutsezanean Saul erreguearen armac, ecin gueiagoan onac bacirian bere, on baño calte gueiago eguiten eutsen, lotu ta eragozten eutsen, ecin ibilli zan eurecáz. Cergaitice orduguiño beti arzai ibilli zan [leguez], ez egoan oraindiño armetara eguinic.

55 Eta alan larga cituen, esaten ebala (2 Reg. 5): Arma oneecaz ni ecin ibilli nindeque, cerren onetara eguinic ez nago. Indazue onda mendel locarri bat arri batzucaz: onetan eguiña ta usatua nago; ichozue guichi bat, ce nic egingo dot oneecaz neure eguinbidea. Eta alan eguin bere eban. Bada, lenengo arriaz jo eban becoquien erdian Goliat guizatotzar arerio cubrela, josi

- 7-47 *usatu*: ondoren *danari*, ezabatua; cf. *usatu duenari* (GGero 89).
andic ara < *handic harat* (GGero 89).
- 7-48 *estaldu ta ezcutatu* < *estali* (GGero 89).
aguertu, aguiritu, camporatu ta zabaldu < *aguertu, campatu eta famatu* (GGero 89).
aguiritu: ez dago, dakidalarik, beste lekukotasunik inon (cf. *OEH*, s.vv. *ageri eta agertu*).
- 7-49 *erreguetu baño len*: Añibarroren eransketa.
eutsezanean: leh. *eutsezan*, < *cerautçatenean* (GGero 89).
Saul erreguearen < *Saulen* (GGero 89); ik. § 5.4.2.
- 7-50 *armac*: *aurrean soñ*], ezabatua, < *harmac* (GGero 89).
ecin gueiagoan onac bacirian bere < *bai[t]ciren ecin hobeagoac eta halacoac, guztiarequin ere* (GGero 89); ik. § 5.2.10.
on < *probetchu* (GGero 89).
- 7-51 *lotu ta eragozten eutsen* < *trabatcen çuten* (GGero 89).
ecin ibilli zan eurecáz: Añibarroren eransketa.
- 7-51/52 *orduguiño beti arzai ibilli zan [leguez]* < *nola anarteraiñoocan bethi arçain ibili baitcen* (GGero 89). *beti*: *aurrean ibilli zan leguez*, ezabatua (ik. § 5.2.18).
- 7-52 *ez egoan* < *ezpaitcen* (GGero 89); ik. § 5.1.3.8.
oraindiño: *aurrean orduo*] (*orduguiño?*), ezabatua, < *oraiño* (GGero 89).
armetara eguinic < *harmetan usatua* (GGero 89); ik. § 5.1.3.1.
- 7-54 *onetara eguinic ez nago* < *ez naiz usatua* (GGero 89).
Indazue < *Indaitçue* (GGero 89).
- 7-54/55 *onda mendel locarri bat* < *habailla batçuc* (GGero 89). *onda*: *aurrean* (*Habailla*) eta *gainean onda*, ezer ezabatu gabe. *mendel*: ‘habailla’ adieran ahoz ondo lekukotuta dago bizkaieraz aldaera ezberdinetan; dena dela, *Zelan baista oiala, alakoa mendela* “el orillo” (RS 20) gogoratu behar dugu (ik. *OEH*, s.vv. *mendal* eta *mendel*).
- 7-55 *onetan eguiña ta usatua nago* < *hetan usatua bainaiz* (GGero 89); ik. § 5.1.3.1.
ichozue guichi bat < *atseguin har eçaçue* (GGero 89).
- 7-56/57 *lenengo arriaz... arerio cubrela* < *lehenbico aurthiqui çuen harria fincatu ceraucan bere etsaiari belarraren erdian* (GGero 89).
erdian: *gainean erantsia*; hau eransteke *becoquian zena becoquien* bihurtu du (genitiboaz, ik. § 5.1.1.7).
guizatotzar: cf. *VB* (c.) “gigante” eta *Goliat gizatotzar jigante andiaz* (*MisE* 52, ap. *OEH*, s.v.).
cubrela: *aurrean gog*] (*gogorra?*), ezabatua.

60 eutsan lazquiro ta bota eban lurrera. Baña guero andic dempora guichi barru eguin zan David alaco soldadu famatu ta armatarata usatua, eguiña ta oitua, ece egun baten armaric baga, Saulen iguesi joiala, artu eban Goliat andiaren ezpata andia, esaten <73> ebala, etzala munduan beretzat alangoric, ez berac gurago ebanic. Cer adierazo gura dau onec? Len Saulen armac chiquiagoac ta arinagoac izanic, anditzat ta pisutsu[t]zat ichi cituan; ta orain Goliat andi batenac iruditen jacaz chiqui arinac? Bai. Cerren len etzan usatua, etzan 65 armetara eguiña; baño guero eguin zan, usatu zan, oitu, ecandutu zan; eta atara eguiteac, oituteac, usatuteac len gach zana erraztu eutsan. Bada, bein artara eguiñari lan bear nequeac bere ez jacaz neque iruditzen, eztitu aimbeste sentitzen; eta ez sentitzeco, escuetaco azala bere loditu, gogortu, sor-gortuten jaco. Alacoari ez jacaz ain laster escuetan sarna pustilla edo nar- 70 rru-puxigac eguiten; ta ez jacaz araguiac eten ta eraciten. Bada, San Juan Ch-

- 7-57/58 *josi eutsan lazquiro < landatu ceraucan copetan (GGero 89).*
 7-58 *bota eban lurrera < egotçi çuen ventçuturic lurrera (GGero 89).*
 7-59 *eguin zan David... eguiña ta oitua < hain soldadutu cen eta harmetan usatu, trebatu eta ançatsutu (GGero 89). famatu: leh. famatua.*
armatarata: irakurketa ziurra, Urquijok (1923: 251) armetara eman arren. Añibarrok berac beste agerraldietan armetara dio (7-52, 7-65). Honelako zalantzez, ik. § 5.1.1.4.
 7-60 *egun baten < egun batez (GGero 89).*
andiaren < handi haren (GGero 90).
 7-61 *ezpata andia < ezpata (GGero 90); ik. § 5.4.2.*
esaten ebala < erraiten çuela ecen (GGero 90).
beretzat < harentçat (GGero 90).
 7-61/62 *ez berac < eta ez harc (GGero 90).*
 7-62/63 *chiquiagoac ta arinagoac izanic < ttipiac eta arinac baitciren (GGero 90); ik. § 5.2.10. chiquiagoac: aurean orren, ezabatua.*
 7-63 *anditzat ta pisutsutzat < handiz eta pisuz (GGero 90).*
Goliat < gigan (GGero 90).
 7-64 *chiqui arinac < ttipi eta arin (GGero 90).*
 7-65 *baño: baña-ren orde, < baña (GGero 90). OEH-aren arabera (s.v. baino 3), ez dago baino-ren erabilera honen lekukotasunik Añibarroengan ez ezik, bizkaierazko testuetan ere; eta, halere, itzulpen honetan bada beste agerraldi bat bederen (9-170).*
oitu, ecandutu zan < enseiatu cen, trebatu cen (GGero 90). oitu: ondoren zan, ezabatua; ik. § 5.5.1.
 7-67 *artara: leh. atara.*
neque < hain travaillu (GGero 90).
 7-67/68 *aimbeste sentitzen < hain sentitcen (GGero 90).*
 7-68/69 *loditu, gogortu, sor-gortuten < loditcen, gogortcen eta khaiillutcen (GGero 90).*
 7-69 *Alacoari < Halacoari eta haiñari (GGero 90).*
 7-69/70 *escuetan sarna pustilla edo narru-puxigac eguiten < escuac mascurtcen, iccorcinirac [sic] eguiten (GGero 90). pustilla: VB (c.) “postilla” (<HH). narru-puxigac: leh. babanarruac; cf. VB “ampolla en la carne, tumorcillo, o bejiga: b. puxiga, babanarrua”.*
 7-70 *ta ez jacaz araguiac eten ta eraciten < eta ez haraguiac ethentcen, eta ez minberatcen (GGero 90). eraciten: ondoren (mimberatuten) eta honen gainean dolorido; cf. VB eraci (c.) “despellejar” (oro har, ik. OEH, s.v. eratzi).*

- risostomoc diñon leguez (hom. 3 depœnit. tom. 3): Indar andia dauco usadioac, alan onean, celan gaistoan. Eta diño San Geronimoc (ad Celantiam): Becatuen ecandu deungueac gach ta aldas gora eguiten dau bertutearen bidea. Baña baldin a ecandua biurto bada beste aldera, gaistotasunetic ontasunera, bertutearen bidea idoroco da leun, celai, erraz ta gueure atseguin ta erra. Escrivitzen icasten asiten zareanean, ecin muguitu dozuz atzac, lotuac leguez dozuz. Cerren eztagoz atara eguiñac. Baña guero bere usatu ta oituten dira, adiña ece, azquenean beste aldera beguira zagozala bere, letren erdiac esribituco dozuz. Alan icusico dozu dendari baten echean bere, jostun onac abiadura andiaz, prest, laster ta ondo josten dau. Baña icasbarriac as-

-
- 7-71/72 *Indar andia dauco usadioac < Gauça handia da usantça (GGero 90).*
 7-72 *Eta diño San Geronimoc < Eta badio San Geronimoc ere (GGero 90).*
 7-73 *Becatuen < Beccatuaren (GGero 90); ik. § 5.1.1.7.*
ecandu deungueac < usantçac (GGero 90); ik. § 5.4.2.
gach ta aldas gora eguiten < gaixten (GGero 90). aldas gora: edo aldats gora (7-101)
eguín esapidea Añibarrok bestetan ere erabiltzen du (cf., adib. LoraS 128, ap. OEH,
s.v. aldats).
bertutearen: leh. v-.
 7-74 *biurto bada < itçul badadi (GGero 90).*
 7-75 *bertutearen bidea idoroco da < edirenen da verthutearen bide hura bera (GGero 90);*
ik. § 5.2.1.1. idoroco: aurean bera bere erraz (?), ezabatua.
 7-75/76 *leun, celai, erraz ta gueure atseguin ta erra < erraz, atseguin eta placent (GGero 90).*
 7-76 *Escrivitzen icasten asiten < Esquiribatcen hasten (GGero 90).*
ecin muguitu dozuz < ecin higuí ditçaqueçu (GGero 91).
 7-76/77 *lotuac leguez dozuz < lothuac beçala daude (GGero 91).*
 7-77 *eztagoz atara eguiñac < ezpaitira usatuac (GGero 91).*
 7-77/78 *guero bere usatu ta oituten dira < guero eta guero usatcen eta trebatcen dira (GGero*
91).
 7-78 *adiña ece < hain trebatcen ecen (GGero 91). OEH-ak (s.v. adina) jadanik adierazi du*
Añibarrok (eta berak bakarrik) batzuetan adiña hainbat edo hainbeste-ren esanahi-
kide gisa darabilela, adiña demporan ‘hainbat denboran’ (LoraS 74) edo Eztia go-
zoa da, baña ez adiña osasuntsua ‘baina ez hainbeste osasuntsua’ (ib. 78) bezala-
koetan. Hona hemen beste adibide argi bat (ik. 19-223).
 7-78/79 *letren erdiac < hitcen erdiac (GGero 91). Añibarrok, nonbait, Axularrek baino kon-*
fiantza gutxiago zeukan bere irakurleen trebetasunean (ik. § 5.4.2).
 7-79 *esribituco dozuz < esquiribatcen baitituçtu (GGero 91).*
 7-79/80 *jostun onac < officialeac (GGero 91).*
 7-80 *abiadura andiaz... josten dau < abiadura handia daramala, pontuac hussu eta laster*
emaiteintuela (GGero 91). abiadura: ondoren ta pr] (prest?), ezabatua. Ohartu Añi-
barrok ez duela icusico dozu-ri zor zaion kompletiboa (josten dabela) osatu.
icasbarriac < aprendiça (GGero 91); cf. VB icasbarria (c.) “bisoño” (< HH icasbe-
rria).
 7-80/81 *astro... josquetac < bakhan, baratz eta pontuac contatuz beçala hari dela (GGero 91).*
puntadac: leh. puntuac; cf. VB “puntada: c. puntada, josqueta” (< HH).

tiro, gueldiro, contatuaz leguez daroaz puntadac, josquetac; cerren eztago maissua leguez gai, usaturic, eguiñic ta aurreraturic. Agaitic diño Aristotelese (lib. 2 ethic.): Ez beingoan, ezpada sarri ta ascotan erago ta equinteaz eguiten da oitura, usua ta ecandua; ta bein artu ezquero usadio bat, bein ondo
 85 icasi ezquero, gauza asco eguiten dira gogoa ta vorondatea beragan ifini ez arren, diñonez San Juan Chrisostomoc (hom. 10, tom. 3). Ascotan, atan guichi pensatu arren, ciñatuten zara. Ascotan, cer diñozun eztaquizula, <74> ezarten dozuz erneguac, juramentuac, biraoac ta aienac. Ascotan, beste aldera beguira zagozala, darabiltzuz escuco atzac soñu eguiteco. Eta oneec
 90 guztioc dira ecandu ta usadioaren jocoac, colpeac ta tornuac.

Presondeguian edo carcelan sartzen zaituenean, sartu barri atan usain charra, atsa ta quiratsa asmetan dozu, erraiac nastuten jatzuz, senticor zara. Baña guero, bein atara eguiñic, surrac dempora lucean aec quirats atsituac arturic ta beteric erabilliric, sortuten zara, atara eguiten zara, ondo derichazu.

- 7-81/82 *eztago maissua leguez... aurreraturic < ezpaita aprendiça officialea beçala usatua, ohitua eta trebatua (GGero 91); ik. § 5.1.3.1.*
- 7-82 *Agaitic < Halatan (GGero 91).*
- 7-83 *beingoan < behingoaz (GGero 91); irakurketa zalantzazkoa, Urquijok (1923: 251) beincoaz ematen du; leh. beingoaz, gero beincoan zuzendu duela dirudi, eta geroago gainean [coaz idatzi du berriz. Halere, gainerakoan ez du behin ere beingoaz erabiltzen, eta are gutxiago beinco-: cf. bereziki beingoan < behingoaz (8-45/46. oh.).*
- 7-83/84 *erago ta equinteaz eguiten da: leh. eguiteaz irabazten da, < usatceaz eguiten da (GGero 91). equinteaz: ik. § 4.3.9.*
- 7-84 *artu ezquero usadio bat < aztura hartuz guero (GGero 91).*
- 7-85 *icasi ezquero: leh. icasiric gauza bat, < trebatuz guero (GGero 91). gauza asco eguiten dira < anhitz gauça eguiten da (GGero 91).*
- 7-85/86 *gogoa ta vorondatea beragan ifini ez arren < gogoa pensatcequetan eta vorondatea ere hautatcequetan ibili gabe (GGero 91). beragan: ik. § 5.1.1.3.*
- 7-86 *diñonez San Juan Chrisostomoc < Hala erraiten du San Chrysostomoc (GGero 91).*
- 7-87 *pensatu arren < pensaturic (GGero 91).*
- 7-88 *ezarten dozuz... aienac < arneguac eta iuramentuac eguiteintuçu (GGero 91); ik. § 5.2.1.1.*
- 7-89 *darabiltzuz escuco atzac soñu eguiteco < erhia[c] soiñu eguiteco erabiltceintuçu (GGero 91).*
- 7-90 *dira: aurrean datoz, ezabatua, < dira (GGero 91). ecandu ta usadioaren... tornuac < usantçaren iocoac, trebetasunaren colpeac eta azturaren tornuac (GGero 91).*
- 7-91 *Presondeguian edo carcelan < Garcelean (GGero 91); ik. § 5.3.2.*
- 7-91/92 *usain charra... asmetan dozu < usna on duçu, quiratsa aditcen duçu (GGero 91).*
- 7-92 *senticor zara = GGero 91; ik. § 5.1.1.5.*
- 7-93 *Baña guero, bein atara eguiñic < Baiña barren hartan]o[ohituz guero (GGero 92); ik. § 5.2.19.*
- 7-93/94 *surrac... erabilliric < sudurrac quirats hartçaz cenbait demboraz betheac erabiliz guero (GGero 92). aec: gainean erantsia. atsituac: leh. atsituagaz.*
- 7-94 *atara eguiten zara < ez ansiatcen çara (GGero 92). ondo derichazu < eder-esten duçu (GGero 92).*

95 Eguin zaite goxean gox jaguiten, ta ordu atan irazarrico zara. Eguin zaite asco jaten ta edaten, ta beti alan guraco dozu. Abereac eurac bere eztabe ichi gura lenengo eche usatua, eztabe igaro gura len egon dirian ostatuetatic ta toquitic aurrera. Ain indar andia dau usantzac, ece diño San Agustinec (3 fort. disp. 2 tom. 6): Ascotan, ezaguturic obe litequela ichitea, ausitea ta az-
100 tutea darabilgun ecandua, eztogu orrez guztiaz largatzen, ez austen, cergaitic ce aldats gora, neque ta gach eguiten jacu quendu ta ichitea a ecandua, oitura ta usadioa. Cer gura dozu gueiago? Bada, esan oi da, ta eguiaz, chiquitatic meneno edo edena jatera eguin dana, guero pozoiaz edo edenaz aci ta mantendu litequela.

105 3 §.

Bada, baldin orren indar, al ta irmetasun andia badauco usadioac, cer eguingo dau gaztetatic zartasuneraguiño becatuan zarturic ta usaturic dago-

-
- 7-96 *Abereac eurac bere* < *Are abre mutuec ere* (GGero 92).
7-96/98 *eztabe ichi gura... toquitic aurrera* < *eztute, bere leheneco usatua, edo etsigarri bat bederen içan gabe, lehen içan diren ostatuetaric aïcinat iragan nahi* (GGero 92).
ichi: gainean, *igaro*-ren orde. *lenengo*: *aurrean leng*] (*lengo?*), ezabatua.
7-98 *Ain*: ondoren *dau*, ezabatua; cf. *Hain du indar handia usantçac* (GGero 92).
7-99 *Ascotan* < *Anhitzetan ere* (GGero 92).
ezaguturic < *daquigularic* (GGero 92); ik. § 5.2.14.
7-99/100 *ichitea... darabilgun ecandua* < *darabilagun usantçaren uztea eta hautstea* (GGero 92).
7-100 *largatzen, ez austen* < *utzten, eta ez hautsten* (GGero 92).
7-101/102 *neque ta gach... usadioa* < *aldatce hura, hautsteco eta utzteco berritasun hura, gaitzi baitçaicu* (GGero 92). *quendu*: *aurrean a aldantzea*, ezabatua.
7-102 *Bada, esan oi da* < *Bada erraiten duenic* (GGero 92).
ta eguiaz < *eta eguia* (GGero 92).
7-103 *chiquitatic* < *haurretic* (GGero 92); ik. § 5.1.1.4.
meneno edo edena < *poçoin* (GGero 92).
jatera eguin dana < *iaten usatcen dena* (GGero 92).
7-103/104 *guero pozoiaz... mantendu litequela* < *azquenean poçoiñez haz ditequeyela, eta mantena* (GGero 92).
7-106 *orren* < *hunnen* (GGero 91); ik. § 5.1.2.1.
indar, al ta irmetasun andia badauco < *gauça bortitça eta indartsua bada* (GGero 92).
indar: *aurrean gauza irme*, ezabatua.
7-107 *eguingo dau* < *eguinen du bethiere* (GGero 92). *eguingo*: *aurrean izango da*, ezabatua.
gaztetatic < *gaztetic* (GGero 92); ik. § 5.1.1.4.
zartasuneraguiño: eskuarki *-gino* hutsa erabiltzen duenez (cf. *puntuaguiño* 5-7, *orduguiño* 3-16, *eriotzaguiño* 7-136, etab.; pluralean *azurretaguiño* 7-130, *beguietaguiño* 11-305) oso bakan aurkitzen da *-(e)ragino* atzizki forma: honetaz gainera, *eriotzaraguiño* (15-6) bakarrik. Alatibo zaharraren azken arrastoa izan daiteke beti *-n* bukaerako hitzekin agertzen den *-aguiño* forma (*laugarrenaguiño* 0-33, *biaramonaguiño* 12-242, *zartasunaguiño* 14-22; salbuespen bakarra: *azquenguiño* 43-71).
becatuan < *beccatutan* (GGero 92).

an baten? Celan ichico dau zartzaroan, gaztetan artu eban ecandua? Bildur
 nas ichico eztabela. <75> Bada, San Juan Chrisostomoc diñoalez (hom. 32
 110 tom. 2): Ecandu urte ascotacoa, griña zartua, zaori ta gaissotasun lucea ezta
 bertatico sendagarriaz osatuten, ezta bein bateco visiteaz sendatuten ta ez ain
 laster lengo egoquera ta estadura biurtzen. Bada, celan gaissotasun andiac
 osatu ezquero bere ichiten dituan bere ostean errastuac, ondocoac, empa-
 rauac ta ondorengo ondaquiñac, alan dempora lucean becatuetan egoteac
 115 ichiten dituz bere ondorengo oñatza gaistoac. Jeremias profetac diño (cap.
 13): Moroen errico moro baltzac bere narru baltza ta catamotzac bere colo-
 re nabarrac aldeguin, ichi ta quenduten dituenean, aldatu, ichi ta muguituco
 ditu becatari gaisto batec bere, bere ecandu deungac, gaistaqueric ta beca-
 tuac.

- 7-107/108 *zarturic ta usaturic dagoan baten < usatu denac (GGero 92).*
 7-108 *gaztetan < gaztean (GGero 92).*
artu eban < coberatu duen (GGero 92).
 7-109 *ichico eztabela < utz ezteçan (GGero 92-93).*
 7-110 *Ecandu urte ascotacoa < Arraçadura urthatua (GGero 93).*
griña < narrio (GGero 93).
zaori ta gaissotasun lucea < çauri gaizcoatua (GGero 93). *zaori:* bakanago bada ere
 (cf. honetaz gainera 22-54 bakarrik) *zaori* agertzen da maizeneko *çauri*-ren aldean
 (cf. 9-190, 24-87, etab. eta *çauritu* 16-88, 20-165). Zalantza berbera aurkitzen da
NekeA-n ere bederen (ik. Urgell 1987: 19-19. oh.).
 7-111 *bertatico sendagarriaz < pontu batetaco midicuntçaz (GGero 93).*
bein bateco visiteaz sendatuten < behingo visitaz erremediatcen (GGero 93).
 7-112 *egoquera ta estadura < estantera, estatura eta egoitçara (GGero 93).*
 7-113 *ichiten dituan < utzten ohi baitu (GGero 93); ik. § 5.1.3.13.*
bere ostean < bere ondotic (GGero 93).
 7-113/114 *errastuac... ta ondorengo ondaquiñac < cenbait herru gaixto, cenbait cutsu, narrio eta*
arraçadura (GGero 93).
 7-114/115 *dempora lucean becatuetan egoteac ichiten dituz < utzten du dembora luceaz becca-*
tutan egoiteac ere (GGero 93); ik. §§ 5.2.1.1 eta 5.2.2.
 7-115 *bere ondorengo oñatza gaistoac < bere ondotic cenbait ondore gaixto (GGero 93).*
oñatza: *tz* eta *a* artean nato bat, ziurrenik leh. *oñatzea*; beharbada honek azal leza-
 ke, neurri batean bederen, *-a* itsatsiduna bailitzan erabilia (cf. § 5.1.1.1). *ondore*-ren
 itzulpenaz, ik. § 5.3.4.
Jeremias profetac diño < Dio Ieremias Prophetac (GGero 93), latinezkoaren ondoan
eta euskarazkoaren aurrean.
 7-116 *Moroen:* leh. *Moro* baltzen; cf. *Mahiru* [sic] *herrico mairu beltçac (GGero 93).*
catamotzac: aurrean *tigre*, ezabatua, < *tigre arrac ere (GGero 93).* *VB catamotza* (c.)
 “tigre”.
 7-116/117 *colore nabarrac < nabardurac, colore picardatuac (GGero 93).*
 7-117 *aldeguin, ichi ta quenduten dituenean < alda, utz eta muda di[t]çanean (GGero 93).*
 7-117/118 *aldatu, ichi ta muguituco ditu < aldatuco, utcico eta mudatucoitu (GGero 93).*
 7-118 *becatari gaisto batec < presuna gaixtoa[c] (GGero 93).*
 7-118/119 *ecandu deungac, gaistaqueric ta becatuac < usantçazco gaixtaqueric eta beccatuac*
(GGero 93).

- 120 Alan icusico dozu gazte demporan jarraitu deutsenari becatu bati, oni
beroni darraiola zarreran bere, ecer ecin dabenean bere, gogoaz, verbaz atse-
guin artzeaz baño ezpada bere. Bada, San Agustinec diñoanez (de vit. ere-
mit. ad sororem cap. 28, tom. 10): Zar gaistoac zartuagaitic bere, badau go-
goa, indarra falta jaco. Aoa doi-doi, ozta, nequez idiguiten dozu, ta orrez
125 guztiaz erneguac, biraoac ta juramentuac ezarten dozuz. Gorputza urteacaz
astunduric ta macurturic ecin jaso dozu, baña alambere verba eceac, arinac,
loiac ta ciquiñac esan oi dozuz. Azquenez, len cetan jarraitu dozun, atan gue-
ro bere amesetan ta irazarriric bere idoroten zara. Eta cec eguiten dau au?
Usantzac, ecanduac: gaztetan alan eguin ta jarraitu cenduan, ta guero usa-
130 dioa bera azurretaguiño sartu jatzu. Eta, celan zartu arren azurrac guelditu ja-
tzuzan, alan guelditu, oratu ta eransi jatzuz andic sortzen dirian <76> mu-
guidac, abiadurac, bicioac ta grina char gaisto guztiac. Alan diño Job
santuac (10): Gaistoaren azurrac beteco dira gazte demporaco becatuz, ta

-
- 7-120 gazte demporan: leh. *gaztetan*, < gazte demboran (GGero 93).
7-120/122 jarraitu deutsenari... baño ezpada bere < beccatu batetan usatu duenari, çahartcean
ere, eta deus ecin daidiqueyenean ere, gogoa bedere, eta beccatu hartçaz minça-
tceaz atseguin hartcea bedere, badatchecala (GGero 93). Axularrek anakolutoa
eragin dio: *deutsenari*-ren ordez *deutsenac* (*darraio*-ren subjektua, alegia) beharko
luke. *deutsenari*: gaínean, *dabenari*-ren ordez. *darraiola*: gaínean, *jaxxtuten* (*ja-
rraituten*?) *deutsela*-ren ordez.
7-121 zarrera: VB (c.) “vegez”.
7-123 zartuagaitic bere < çahartuagatic (GGero 93).
7-124 falta jaco < çaica falta (GGero 93).
doi-doi, ozta, nequez < doi (GGero 93).
7-125 erneguac... ezarten dozuz < arnegu eta iuramentu eguiten hari çara (GGero 94).
7-125/126 urteacaz astunduric ta macurturic: Añibarroren eransketa.
7-126/127 verba eceac... esan oi dozuz < amurusiaz mintço çara (GGero 94).
7-127 Azquenez < Finean (GGero 94).
7-128 irazarriric: gaínean, (*eldarnioetan*)-en ordez, baina hau ezabatu gabe, < *eldarnioetan*
(GGero 94). Añibarrok, Larramendik (eta bestek) bezala, eta agian honen laguntza,
gaizki ulertu du *amets* / *eldarnio* ustezko oposaketa: *HH* “despierto y en sueños, *el-
darniotan ta ametsetan*” (cf. *OEH*, s.v. *eldarnio*); oster, ik. 15-371. oh.
cec < *cer* (GGero 94) < *cerc* (Gero 94).
7-129 gaztetan < gaztean (GGero 94).
alan < hala, han eta hetan (GGero 94).
eguin ta jarraitu cenduan < *seguitu eta usatu baituçu* (GGero 94).
guero: Añibarroren eransketa.
7-129/130 usadioa bera: leh. *usadioac berac*, < *usantça hura* (GGero 94); ik. § 5.1.2.3.
7-130 azurretaguiño < *heçurretan barrena* (GGero 94).
7-130/131 azurrac guelditu jatzuzan < *heçurrac guelditu baitçaizquitçu* (GGero 94).
7-131 guelditu, oratu ta eransi < *guelditu* (GGero 94).
7-131/132 andic sortzen dirian... gaisto guztiac < *usantça, aztura eta handic sortcen diren mu-
guidac, abiadurac eta inclinacino gaixto guztiac ere* (GGero 94).
7-132/133 Job santuac < *Iob guiçon saindu hare* (GGero 94).
7-133 becatuz < *beccatuez* (GGero 94); ik. § 5.1.1.10.

135 aecaz batera lurrean bere lo eguingo dabe, eztabe beimbere ichico. Bada, San Gregorioc diñon leguez (lib. 5 cap. 15 moral.): Ecanduzco becatuac jarraitu oi deutse bacochari eriotzaguñio, ta lur barruan sartu arteguñio; eztabe ordura artean, ta ez an bere, gueienetan ichiten.

140 Jangoicoac gorde zaizala usadio char batec zугan ostatic artzetic ta usadio au ecandu biurtzetic. Bada, dan leguez etica deituten dan gaissotasun bat dempora luceco calentura edo sugar luceaz ta guichi-guichica azur barruetan sartuteaz eguiten dana; ta gaissotasun onec eztauco sendaquizunic, milagroaz edo ezpada; ta izatecoz bere guztiz lucero; onela da dempora luceaz gogoan ta biotz barruan sarturic dagoan ecandu gaisto charra bere. Au da etica char zar sartua, atera ta osatuten gach dana. Eta onelacoagaitic diño San
145 Agustinec (serm. 44 de verb. Dñi.), sepulturaco lur barruan sartua ta lurpe-

- 7-134 *aecaz batera* < *harequin batean* (GGero 94). Singularra plural bihurtu duenez, itzulpenean ez dago jakiterik nork norekin lo egingo duen: jatorrizkoan *harequin gaixtoa*-ren erreferentziakidea da eta, beraz, bekatuek egingo dute lo berarekin.
lo eguingo dabe < *lohacartuco dira* (GGero 94).
- 7-135/136 *jarraitu oi deutse* < *iarraiquitcen ohi çaitça* (GGero 94).
- 7-136 *bacochari* < *nehori* (GGero 94).
lur barruan < *lurrean barrena* (GGero 94).
- 7-137 *ordura artean* < *hareraiño* (GGero 94).
ta ez an bere, gueienetan ichiten < *utzten, eta ez comunzqui han ere* (GGero 94).
- 7-138 *gorde: aurean libr]* (*libra(tu)?*), ezabatua, < *beguira* (GGero 94).
usadio char batec < *usantça gaixtoac* (GGero 94).
- 7-138/139 *usadio au* < *usantça hura* (GGero 94).
- 7-139 *ecandu biurtzetic* < *hazcuntça bihurtcetic* (GGero 94).
dan leguez < *nola baita* (GGero 94-95).
deituten dan < *daritçan* (GGero 95); ik. § 5.1.3.7.
- 7-140/141 *dempora luceco calentura... eguiten dana* < *cein eguiten baita succar[r]a dembora luceaz eta appur bana heçurretan barrena sartceaz* (GGero 95). *luceaz*: ondoan *eguiten dana*, ezabatua. *azur: azurre]* idazten hasi zen, baina damutu.
- 7-141 *onec* < *harc* (GGero 95).
eztauco < *ezpaitu* (GGero 95).
sendaquizunic < *erremedioric* (GGero 95).
- 7-142 *izatecoz bere* < *içaitecotz ere* (GGero 95). Itxura "itzuli" dio Iparraldean bakarrik kausitzen den esapide honi (cf. *OEH*, IZATEKOTZ ERE, s.v. *izan*); badago antzeko bakarbat (ik. 14-125. oh. eta § 5.3.3).
onela < *hala* (GGero 95); ik. § 5.1.2.1.
- 7-143 *biotz barruan* < *bihotzean barrena* (GGero 95).
ecandu gaisto charra < *aztura gaiztoaz* (GGero 95) < *aztura gaixtoa* (Gero 95).
Au < *Hura* (GGero 95).
- 7-144 *char zar sartua* < *gaixto sarthua* (GGero 95).
atera ta osatuten gach dana < *atheratcen eta erremediatcen gaitça* (GGero 95).
onelacoagaitic < *halacoagatic* (GGero 95).
- 7-145 *sepulturaco lur barruan* < *thomban barrena* (GGero 95).

tua dagoala; eta ganeco arri estalguia, jaguiten ta arnasa artuten ichiten ezteutsana, usadio deunguea dala.

- Au berau emon eban aditzera gure Salvatzalleac berac, Lazaro, lau eguneco il quirastua, cispuru ta sentimentu asco eguinic viztu ebanean. Beste guztiac erraz ta atseguintasunaz cegoala viztu cituan; baña Lazaro, irudiz nequez. Adietan emoteco cein gach dan dempora lucean becatuan usatua, ecan dutua, oitua, usteldua, quirastua ta atsitua dagoan becataria osatutea, sendatutea ta ondutea. Alacoa, atara elduten dana, Lazaro quirastua leguez da: Jangoicoaren poderio al andiaz baxen, ecin erremedia ditequena.
- 150 <77> Errazoi guzti oneec adierazoten dabe, guerotic guerora ibilteaz artzen dala ecanduzco usanza gaistoa; eta usadio au, orioa oialean leguez, sartzen dala gogoan ta biotz barruan. Eta dala engañamentu andia ta gure galdugarria esatea guero onduco nas, guero obetuco nas, guero vide onean jarrico nas. Cerren gueroaren ondoan guraco dozu beste guero luceago bat.
- 160 Eta, alan, guerotic guerora zabiltzala, usadioaz batean, jazo oi dana, eriotzeac artu ta azquen charra euquico dozu.

-
- 7-146 *eta*: gainean, *enda*-ren orde; ik. § 4.2.12.
arri estalguia < *harri-estalquia* (GGero 95).
- 7-146/147 *jaguiten ta arnasa artuten ichiten ezteutsana* < *iaiquitera eta hats hartcera utzten ez-tuena* (GGero 95).
- 7-149 *emon eban aditzera* < *eman cuen aditcera*; ik. 10-32/33. oh.
- 7-149/150 *lau eguneco* < *laur egunetaco* (GGero 95); ik. § 5.1.1.4.
- 7-151 *erraz ta atseguintasunaz* < *erraxqui eta aise* (GGero 95).
irudiz < *iduriz* (GGero 95); ik. § 5.3.3.
- 7-152 *Adietan*: leh. *Aditzera*, < *Aditcera* (GGero 95).
dempora lucean < *dembora luceaz* (GGero 95).
becatuan < *beccatutan* (GGero 95).
- 7-152/153 *usatua... ta atsitua* < *usatua, usteldua eta quirastua* (GGero 95); ik. § 5.1.3.1. *oitua*: gainean erantsia.
- 7-153/154 *osatutea, sendatutea ta ondutea* < *sendatcea eta erremediatcea* (GGero 95).
- 7-155 *poderio al andiaz* < *bothere handiaz* (GGero 95).
- 7-156 *Errazoi guzti oneec adierazoten dabe* < *Arraçoin hautçaz guztioz emaiten da aditcera* (GGero 95); ik. § 5.1.2.2.
guerotic guerora ibilteaz < *luçamendutan, guerotic guerora ibiltceaz* (GGero 95-96).
- 7-156/157 *artzen dala* < *nola... hartcen den* (GGero 95-96); ik. § 5.2.18.
- 7-157 *ecanduzco usanza* < *usantça* (GGero 96).
usadio au < *usantça hura* (GGero 96).
oialean: gainean, < *oihalean* (GGero 96).
- 7-158 *Eta dala*: leh. *Eta dan leguez*, < *nola den* (GGero 96); ik. § 5.2.18.
- 7-158/159 *galdugarria* < *galga[r]ria* (GGero 96).
- 7-159 *guero obetuco nas*: Añibarroren eransketa.
- 7-160 *gueroaren* < *guero haren* (GGero 96).
guraco < *desiratuco* (GGero 96).
- 7-161 *zabiltzala*: leh. *badirudi zabiltzela jartzen zuela*.
usadioaz batean < *usantçarequin batean* (GGero 96).
jazo oi dana < *comunzqui guerthatcen dena* (GGero 96); ik. § 5.1.3.13.
- 7-161/162 *eriotzeac artu ta azquen charra euquico dozu* < *heriotceac atrapatuic, fin gaitz eguinen duçu* (GGero 96).

8. BURUA

Celan ecandu gaistoac gogortzen ta ardurabaguetuten daben becataria.

1 §.

- 5 Gauza deunguea ta pelligruzcoa da, oraindiño esanic doian leguez, becatuetan egoteaz, irauteaz, jarraitzeaz artuten dan oitura, ecandua, usadioa. Baña orandiño deungago ta pelligruzcoago da usanza onen osteco ondoa: aci atatic sortu, erne, jaiio ta datorren garaua, ac emoten daben frutua, ceñ dan becatuan itsututea, sor-gortutea, gaistoagotutea, ez larritu, ez arduratutea, eta lotsea, ondrea ta prestutasun guztia galduric, deunguero eguiñaz precia-tutea, olguratutea ta gala ta vanidade eguitea.

-
- 8-2 *ta ardurabaguetuten*: gainean, *ta ez antsiatzen*-en ordez, < *ez antsiatcen* (GGero 96).
8-5 *esanic doian*: gainean, *esan dan*-en ordez, < *erran den* (GGero 96).
8-5/6 *becatuetan* < *beccatutan* (GGero 96).
8-6 *egoteaz, irauteaz, jarraitzeaz* < *egoiteaz eta seguitceaz* (GGero 96).
artuten < *coberatcen* (GGero 96).
oitura, ecandua, usadioa < *usantça* (GGero 96).
8-7 *orandiño deungago... da* < *are da gaixtoago eta perilosago* (GGero 96). *orandiño*: ik. 5-8. oh.
usanza onen < *usantça haren* (GGero 96).
osteco ondoa < *ondoco ondorea* (GGero 96); *ondore*-ren itzulpenaz, ik. § 5.3.4.
8-8 *sortu, erne, jaiio ta datorren* < *sortcen* (GGero 96).
8-9 *becatuan* < *beccatutan* (GGero 96).
itsututea, sor-gortutea, gaistoagotutea < *itsutcea, gogortcea* (GGero 96). *gaistoagotu*: VB (c.) “empeorar”.
ez larritu, ez arduratutea: gainean, *ez antsiatzea*-ren ordez; hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago, < *ez ansiatcea* (GGero 96).
8-10 *prestutasun*: leh. *prestutasunic*.
deunguero eguiñaz < *doillorqueriaz* (GGero 96).
8-11 *gala ta vanidade*: gainean, *sendagailla*-ren ordez; hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago, < *sendagailla* (GGero 96).

Inguruan gira-biran dabiltz gaistoac, diño David erregueac (Psal. 11):
 Babiltz, baña inguruca, provechu baga, beti lengo lecura biurtzen diriala.
 Alan dabillenac eguiten daben irabaci guztia da lurra oñazpitutea, estututea,
 15 zapaldutea, gogortutea. Eta, cembat eta gueiago dabillan, aibat zapaldua-
 go ta gogorrigo eguiten dau lurra. Onelan, becatariac bere becatuan ibilteaz,
 usatuaz, sarrituaz gogortzen dau bere conciencia, malluac, gabiác jungudea
 gogortzen daben leguez.

Adietan emoten dau Escritura Santuac, umerriac, aumeac, <78> aunz-
 20 umeac leguez diriala gaistoac, ta azqueneco egunean ezquerreco aldean ifi-
 nico dituela Jangoicoac (Math. 23). Aunzcumea, gaztea dan artean, óna da
 jateco, samur dago, bigun dago; baña galduten dau adinac: guero ta guero
 doa galduaz, gogortuaz, zalduaz. Adinac, urteac aumea eguiten dabe aquer.

-
- 8-12 *Inguruan gira-biran < Inguruca edo ingurunean (GGero 97).
 diño David erregueac < Dio erregue Davitec (GGero 97), latinaren ondoan eta eus-
 karazkoaren aurrean.*
- 8-13 *lengo lecura < leccu berera (GGero 97).*
- 8-14/15 *oñazpitutea, estututea, zapaldutea, gogortutea < aurizquitcea, çapatcea eta gogortcea
 (GGero 97).*
- 8-15/16 *zapalduago ta gogorrigo... lurra < çapatcenago eta gogortcenago du (GGero 97).*
- 8-16 *Onelan < Hala bada (GGero 97).
 becatuan < beccatutan (GGero 97).*
- 8-16/17 *ibilteaz, usatuaz, sarrituaz < ibiltceaz eta usatceaz (GGero 97); ik. § 5.2.15.*
- 8-17 *malluac, gabiác < maillu colpeec (GGero 97).
 jungudea < ingudea (GGero 97); VB “yunque: c. jungudea, ingudea”.*
- 8-18 *leguez: aurrean ant] (antzera?), ezabatua.*
- 8-19/20 *umerriac, aumeac, aunz-umeac < bitaña (GGero 97). aunz-umeac: gainean, lehen ar-
 cumeac eta gero anchumeac-en ordeaz. Cf. VB “cabrito: c. anchumea; b. aumea,
 umerria”. Beheraxeago (8-21), Axularrek auntz-umea dioenean, berak aunzcumea
 zuzendu du.*
- 8-21 *Aunzcumea: leh. Aunzumea, < Bitaña, auntz-umea (GGero 97).
 gaztea dan artean < gazte deiño (GGero 97).
 óna da < on da (GGero 97).*
- 8-22 *samur dago: dago gainean erantsia, < samur da (GGero 97); ik. § 5.1.3.8.
 bigun dago: ondoren uxter, azpimarratua; cf. samur da, uxter da, sasoa da (GGero
 97).
 guero ta guero = GGero 97. Axularren esapide hau (cf. OEH, GERO ETA GERO, s.v. gero)
 ordezkatu egin ohi du, testuinguru konparatiboetan gueroago-rekin (6-11/12 eta
 8-179. oh.); hemen bezala, konparazioa agerian ez denean guero bere (7-77/78. oh.)
 jarri du lehenagoko batean. Jakinarrria da VB-n nola itzuli zuen: (g.n.) “(al) cabo y
 al postre”, (c.) “(al) fin, en fin”.*
- 8-23 *galduaz, gogortuaz, zalduaz < gaixtatuaz, çailduaz eta gogortuaz (GGero 97).
 Adinac... eguiten dabe aquer < Ætas ex hædo asperum facit hircum (GGero 97). dabe:
 leh. dau.*

25 Becatariaac lenengoan, becatu guichi dauquenean, dirudi oraindiño cerbait valio dabela, samur dagoan lecutic, bigun dagoan zatitic atal, parte onic ta gozoric badabela. Eta, alan, orduan sermoiacaz, adivide onacaz, gaissotasunaz, bere lagunac ilten jacozala icusteaz, trumoiaz eta onelaco beste era ascotara icaratuten da, minduten da, senticor eguiten da, ta lotsaturic bere buruaz, etorquizunaz gogoratuten asten da. Baña becatuz bete ezquero,

30 ecandu oiturazcoa artu ezquero, usatu ta atara eguin ezquero, zartu ezquero, gaisto[tu]ten da, deungagotuten da, chartuten da eta ardurabaguea eguiten da; eta aldez angueru gaistoacaz bardindu ta paretsu eguiten da, aen antza artuten dau.

35 Angueruac bere adimentuz erdetsi al eban guztia, ez guc leguez apurca, guichica, zatica ta pensatuz, ezpada beingoan, bat-batean, batera ta osoro erdetsi edo alcanzatu eban; ta lenengoan artu eban videari darroio beti, ta ja-

- 8-24 *dirudi* < *badirudi ecen* (GGero 97); ik. § 5.1.3.6.
- 8-25 *samur dagoan... bigun dagoan... < samur duen... uxter duen... (GGero 97). atal, parte: gainean, endrecera-ren ordez (= GGero 97); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.*
- 8-26 *sermoiacaz < predicariez (GGero 97). adivide onacaz < conseillu onez (GGero 97). adivide: aurrean con] (conseju?), ezabatua.*
- 8-26/27 *gaissotasunaz < eritasunez (GGero 97); ik. § 5.1.1.10.*
- 8-27 *trumoiaz: gainean, igortziriez-en ordez (= GGero 97); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.*
- 8-27/28 *beste era ascotara < bertce peril mueta batçuez (GGero 97).*
- 8-28 *minduten: gainean, mimberatzen-en ordez (= GGero 97); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago. senticor eguiten < senticortcen (GGero 97).*
- 8-28/29 *lotsaturic bere buruaz < bere buruari alhaturic (GGero 97-98).*
- 8-29 *gogoratuten asten da < gogoetan iartcen da (GGero 98).*
- 8-30 *ecandu oiturazcoa < plegua (GGero 98). usatu ta... zartu ezquero < usatuz guero eta usantza çahar[t]uz guero (GGero 98). zartu ezquero: gainean, zaharuz [sic] gero-ren ordez (GGero-ko huts eta guzti, beraz); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.*
- 8-31 *gaisto[tu]ten da... chartuten da < gaixtatcen da (GGero 98). gaisto[tu]ten: cf. gaistotute- (12-158, 13-208/209, etab., eta ik. § 4.3.9).*
- 8-31/32 *eta ardurabaguea eguiten da: gainean, ez antsiatzen da-ren ordez (= GGero 98); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.*
- 8-32 *aldez = GGero 98.*
- 8-32/33 *gaistoacaz... artuten dau < gaixtoen berdin, deabruen paretsu eguiten da (GGero 98). aen antza artuten dau geroago erantsi dela dirudi.*
- 8-34 *Angueruac: aurrean Celan, ezabatua, < Nola ainguiruac... (GGero 98); ik. § 5.2.18. adimentuz < adimenduaz (GGero 98); ik. § 5.1.1.10.*
- 8-34/35 *apurca, guichica, zatica < appurbana (GGero 98).*
- 8-35 *beingoan, bat-batean, batera ta osoro < colpe batez eta ossoqui (GGero 98). beingoan: aurrean erdetsi edo alcanzatu eban, ezabatua. batera: aurrean colpe, ezabatua.*
- 8-35/36 *erdetsi edo alcanzatu < erdietsi (GGero 98).*
- 8-36 *ta lenengoan: Añibarrok ta-rekin biltzen ditu bi ideiak; gogora dezagun (ik. 8-34. oh.) Axularrek nola-z hasi duela esaldia; beraz, lehenbician hartu çuen bidea daduca eta eduquico du seculacotçat haren ondorioa da.*

rraituco deutso betico iraute guztian. Bein macurtu ezquero alde batera, ecin zucendu liteque bestera, ez atzera biurtu. Eta alan jazoten jacu guri bere il-
 40 ten gareanean. Bada, San Juan Damascenoc diñoanez (lib. 2 orth. fid.): Angueruetan becatuac eguin ebana, eguiten dau guban bere eriotzeac. Oneec becatu eguin ezquero, ez euquén erremedioric, ez eta guc bere becatu mortal edo eriozcoan illezquero. Bada angueru gaisto edo deabruen egotaldira urtuten gara gu bere, becatu <79> eriozcoa eguinic, becatuetan gogortzera, itsututera ta ez minic ta larritasunic, ez arduraric artzera gatozanean. Angue-
 45 ru gaistoa beingoan galdu ta gogortu zan betico; alan bada, gu bere, ez beingoan, baña bai ascotan ta becatu asco eguinez, eta eurotan usatuaz ta ecan-
 dutuaz, galdu ta gogortzen gara.

Eta alaco becatu gogortuz guerozcoa deituten da Espiritu Santuaren con-
 traco becatua dala. Cerren artaraz guero maliciazcoa da. Eta celan argalta-
 50 sunez eguiten dan becatua esaten dan Aitaren contra dala; eta jaquinezaz

darroio: eta *darroiozu* (8-181), maizenik *darraio*-erako formak (cf. *darraiodan* 1-30, *darraioe* 4-145, *darraio* 7-4, etab.) erabiltzen baditu ere; *ganeroco* (ik. 12-191. oh.) bezalako formetan ohartzen dugun fenomeno bera ote?

beti: Añibarroren eransketa.

8-37 *betico iraute guztian* < *seculacotçat* (GGero 98).

8-38 *liteque* < *diteque* (GGero 98); ik. § 5.1.3.12.

ez atzera biurtu < *eta ez guibelat bihur* (GGero 98). *atzera*: leh. *atzeratu*.

8-39 *San Juan Damascenoc* < *san Damascenoc* (GGero 98).

8-39/40 *Angueruetan*: leh. *Angueruan*, < *Ainguirue[t]an* (GGero 98).

8-40 *Oneec* < *Hec* (GGero 98).

8-41 *ez euquén* < *eçuten* (GGero 98).

8-41/42 *becatu mortal edo eriozcoan* < *beccatutan* (GGero 98); ik. § 5.4.2. *eriozcoan*: baina *eriotzcoa* (8-43); honelako zalantzez, ik. § 4.2.8.

8-42 *angueru gaisto edo deabruen* < *ainguiru gaixtoen* (GGero 98); ik. § 5.4.2.

8-43 *gara*: gaínean erantsia.

becatu eriozcoa eguinic < *beccatu eguin hutsez* (GGero 98).

becatuetan < *beccatutan* (GGero 98).

8-44 *minic ta...* *artzera*: gaínean, *ez antsiatzera*-ren ordez (= GGero 98).

gatozanean < *ethortcen garenean* (GGero 98); ik. § 5.1.3.7.

8-45/46 *beingoan* < *behingoaz* (GGero 98), bi agerraldietan.

8-46/47 *usatuaz ta ecanutuaz* < *usatuz* (GGero 98).

8-47 *galdu ta gogortzen* < *galtcen eta gogortcen* (GGero 98).

8-48 *becatu*: leh. *becatua*; < *beccatua* (GGero 98).

guerozcoa: leh. *guerocoa*, < *guerozcoa* (GGero 98).

deituten da < *erraiten da* (GGero 98). Ez da oso aldaketa egokia, osagarritzat konpletiboa duela kontuan harturik: aldaketa burutzeko konpletiboa kausal bihur zezakeen, esate baterako.

8-49 *artaraz guero* < *hartaraz guero* (GGero 99). *guero*: leh. *gueroz*.

8-49/50 *argaltasunez* < *flacotasunez* (GGero 99).

8-50/51 *jaquinezaz edo ignoranciaz* < *iaquin gabez eta ignoranciaz* (GGero 99).

edo ignoranciaz eguiten dana, Semearen contra dala; alan maliciaz, gaista-
 queriaz ta deunguetasunez eguiten dana bere, esaten da Espiritu Santuaren
 contra dala. Eta becatu au da ain pelligruzcoa ta icaragarria, ece itanduten
 55 dau Santo Tomasec (22 q. 4 et seq., q. 14, ar. 3) ea parcaquizun, parcagarri
 danez, parca al litequeanez. Eta lenengo eranzuten dau, beintzat merecitze-
 az dan aldetic, ezabela parcaciñoric mereci, maliciazcoa, gaistotasunezcoa
 dalaco. Bigarren eranzuten dau, maliciazcoa dan ezquero, ezala berez ta
 bere eguitez, parcaquizunetaricoa. Bada, oi dirian leguez gaissotasun batzuc
 ain andiac, gorputz guztia argalduric, mascarturic, jausia, adorebaguea ta
 60 ecindua ifinten dabenac, ta gaissoari ain eransiac, oratuac ta eutsiac eguiten
 jacozanac, non bere izatez ta eguitez eztaben erremedioric, eztirian osaga-
 rriac, sendaquizunac: Alan gaisto oquerraren, gogortuaren, itsutuaren, ardu-
 rabaguearen becatua, gacha, gaissotasuna bere ain da andia, non bera danez,
 berez ezta osagarria, ez parcagarria. Cerren osatuteco, sendatu ta sendotute-
 65 co, parcatuteco bear dirian sendagaiac, osagarriac, bitartetasunac, berac bere
 erruz, maliciaz ta vorondate gaistoz, bere nai-guraz ta jaquinen <80> gane-

- 8-51/52 *maliciaz, gaistaqueriaz ta deunguetasunez < maliciaz (GGero 99).*
 8-53 *Eta becatu au da < Cein baita (GGero 99); ik. § 5.2.10.*
pelligruzcoa ta icaragarria < perilosa (GGero 99).
 8-54 *parcaquizun, parcagarri < barccaquičun (GGero 99); ik. § 5.3.3.*
 8-55 *parca al litequeanez < barcca ahal ditequeyenz (GGero 99).*
lenengo eranzuten dau: leh. eranzuten dau lenengo, < inhardesten [sic] du lehenbici-
coric (GGero 99); ik. § 5.2.1.1.
 8-55/56 *merecitzeaz dan aldetic < merecitzeaz denaz beçanbatean (GGero 99); ik. § 5.3.4.*
 8-56/57 *maliciazcoa, gaistotasunezcoa dalaco < ceren maliciazcoa baita (GGero 99); ik. §*
5.2.18. maliciazcoa: leh. maliciaz.
 8-57 *Bigarren eranzuten < Bigarrena ihardesten (GGero 99); ik. § 5.1.1.5.*
dan ezquero: aurrean iz] (izan?), ezabatua, < denaz gueroz (GGero 99).
 8-57/58 *berez ta bere eguitez: leh. berez eguitez, agian, < bere eguitez (GGero 99).*
 8-58 *parcaquizunetaricoa < barccatcecoetaric (GGero 99).*
oi dirian leguez < nola baitira (GGero 99); ik. § 5.2.18.
 8-59/60 *argalduric... ta ecindua < flacatua, vençutua eta ecindua (GGero 99); ik. § 5.5.1.*
 8-60/61 *ain eransiac... eguiten jacozanac < hain iau[n]icen çai[t]çanac (GGero 99).*
 8-61 *bere izatez ta eguitez < bere içanez eta eguitez (GGero 99).*
 8-61/62 *osagarriac, sendaquizunac < sendaquičun (GGero 99).*
 8-62 *gaisto oquerraren < ostinatuaren (GGero 99).*
 8-62/63 *ardurabaguearen: gainean, ez antsiatuaren-en ordezt (= GGero 99); hau azpimarratua*
baina ezabatu gabe dago.
 8-63 *becatua, gacha, gaissotasuna < beccatua eta eritasuna (GGero 99).*
 8-63/64 *bera danez, berez < b[e]renez (GGero 99).*
 8-64 *osagarria, ez parcagarria < sendaquičun, eta ez barccaquičun (GGero 99).*
 8-64/65 *osatuteco, sendatu ta sendotuteco < sendatceco (GGero 99).*
 8-65 *sendagaiac, osagarriac, bitartetasunac < erremedioac (GGero 99).*
 8-65/66 *bere erruz, maliciaz ta vorondate gaistoz < bere faltaz eta bere maliciaz (GGero 99).*
 8-66/67 *bere nai-guraz ta jaquinen ganean < bere placerera eta iaquiara (GGero 99). jaqui-*
nen ganean: cf. VB jaquinaren ganean (c.) “(a) sabiendas”; genitiboaz, ik. § 5.1.1.7.

an ichiten dituz probechu baga igarotera ta galtzera. Eta, alan, alango becatu Espiritu Santuaren contracoa danagaitic diño San Mateoc (12), eztala parcatuco mundu onetan, ez bestean.

- 70 Eguia da, izanic Jangoicoaren misericordia ta ontasuna neurribaguea, mugaric eztabena, jazoten da, alaco becatuac bere batzuetan parcatuten dituela. Baña, Santo Tomasec diñon leguez (*ubi supra*), ez sarri, ez ugaritasunaz, ez ascotan, ezpada guichitan, milagroez leguez. Eta esaten danean alaco becatua eztala parcatuco, aditzen da eztala parcatu, ez Jangoicoac eciñ parcatu leielaco, edo batzuetan parcatuten eztabelaco, ezpada guichitan, meatz,
- 75 ozta, nequez ta gach parquetan dituelaco; bai ta, cerren maliciazcoa dan, ta ez argaltasunecoa, eztabe alacoac berez parcamenic mereci.

2 §.

- Itanduten dabe teologoac, ea cegaitic deituten dirian becatari batzuc bestén artean gogortuac, itsutuac ta Jangoicoac berac bere larga ichiac. Eta Jangoicoaren aldetic danez, ezta erraz jaquitea, ezta erraz errazoia emotea ta

-
- 8-67/68 *becatu... danagaitic < beccatuagatic, cein baita Spiritu Sainduaren contracoa (GGero 99); ik. § 5.2.10. becatu: leh. beccatuagaitic.*
- 8-69 *ez bestean < eta ez bertcean ere (GGero 99).*
- 8-70 *Eguia da < Eguia da, ordea (GGero 100).*
- 8-70/71 *izanic... mugaric eztabena < nola Iaincoaren misericordia baita guztien gainecoa (GGero 100). izanic: aurrean celan, ezabatua; ik. § 5.2.18.*
- 8-71/72 *alaco becatuac... dituela < halaco beccatuetaric ere cenbaiten barccatcera (GGero 100). batzuetan: gainean, ascotan-en ordeez. parcatuten dituela: leh. parcatutea.*
- 8-72 *Santo: leh. San, < San (GGero 100).*
- 8-72/73 *ez sarri, ez ugaritasunaz, ez ascotan < ez maiz (GGero 100). ez ascotan: gainean erantsia.*
- 8-73 *ezpada guichitan, milagroez leguez < gutitan eta miracuilluz beçala (GGero 100).*
- 8-73/74 *alaco becatua eztala parcatuco < eztela halaco beccatua barcatuco (GGero 100).*
- 8-74 *eztala parcatu < eztela barccatuco (GGero 100).*
- 8-74/75 *eciñ parcatu leielaco, edo batzuetan parcatuten eztabelaco < ceren... ecin barcca deçaqueyen, edo eztuen cenbait barccatcen (GGero 100); ik. § 5.2.18.*
- 8-75 *ezpada < baiña (GGero 100).*
- 8-75/76 *guichitan... parquetan dituelaco < bataz, guiran [sic, < gutitan (Gero 100)] barccatcen baitu; eta bertceaz, ceren gaitz baita (GGero 100). meatz: gainean, parc] (parcatu?) ta-ren ordeez; guichitan-en esanahikide honetaz, ik. OEH, s.v. mehats 3.*
- 8-76 *bai ta < eta finean (GGero 100). cerren: aurrean izanic, ezabatua; cf. nola maliciazcoa baita (GGero 100); ik. § 5.2.18.*
- 8-77 *argaltasunecoa < flacotasunecoa (GGero 100). berez < bere eguitez (GGero 100).*
- 8-79 *cegaitic < cer arraçoñez edo cergatic (GGero 100).*
- 8-79/80 *bestén artean < bertceen artetic (GGero 100).*
- 8-80 *gogortuac < ostinatuac, gorgotuac [sic] (GGero 100). larga ichiac < utciac (GGero 100).*
- 8-81 *danez < denaz beçanbatean (GGero 100); ik. § 5.3.4.*

- idorotea. Bada, Jangoico maiteac alan becatuan gogortuai, cein ganeco becatari guztiai emoten deutzéz mundu onetan dirauen artean salvetaco ta becatutic jaguítico bear dituezan graciac, arguiac, laguntza, esquerrac ta mesedeac. Aren aldetic da bear dana, ezta ecer falta, ezta utsic, escasic, urritasunic. Jangoicoac eguzqui argui ederra leguez, argui ta on eguiten deutse onai ta deungai (Mat. 5). Eta San Pabloc diñoanez (2 Timot. 2), guztiaac salva ditecen gura dau; guztiai dei eguiten deutse; guztien biotzetan dago ate-joca, guztiai biotz-quisquetadac <81> biraltzen deutsez, ta gura dau idigui daguioen, diño San Joanec (Apocal. 3).

Baña, orrez guztiaz, lecu ascotan Escritura Santeac diñoan leguez (Exod. 4, Roman. 9, Ysai. 6), becatari batzuc, besten artean dirian leguez gogortuac, itsutuac, Jangoicoac largaric leguez vici dirianac, ta beragaitic Jangoicoac berac faraon leguez sor-gortu ta itsututen dituenac: dirudi bear litequela Jan-

-
- 8-81/82 *ezta erraz jaquitea < ezta erraz iaquiten (GGero 100).
errazoa < arraçoïnaren eta diferenciaren (GGero 100).
emotea ta idorotea < emaiten eta edireiten (GGero 100).*
- 8-82 *Jangoico maiteac < Iaincoac (GGero 100); ik. § 5.4.2.
becatuan < beccatutan (GGero 100).*
- 8-82/83 *ganeco becatari guztiai < gaiñeraco bertce beccatore guztiey (GGero 100-101).*
- 8-83 *dirauen artean < direiño (GGero 101).*
- 8-83/84 *becatutic jaguítico < beccatuetaric ilquitceco (GGero 101).*
- 8-84 *bear dituezan < asco duten beçain bertce (GGero 101); ik. § 5.3.4.*
- 8-84/85 *graciac... ta mesedeac < garacia, laguntça eta fabore (GGero 101). esquerrac ta mesedeac: leh. esquer mesedeac; ik. § 5.3.1.*
- 8-85 *da: aurean ezta, ezabatua, < bada (GGero 101).
ecer falta < handic deusen faltaric (GGero 101).*
- 8-85/86 *ezta utsic, escasic, urritasunic < eta ez escasic (GGero 101).*
- 8-86 *Jangoicoac < Harc (GGero 101).
eguzqui argui ederra < iguzquiac (GGero 101).*
- 8-86/87 *argui ta on... deungai < oney eta gaixtoey, guztiey arguitcen deraue (GGero 101).*
- 8-87/88 *guztiac salva ditecen gura dau < Iaincoac nahi du guztiaac salua ditecin (GGero 101);
ik. § 5.2.1.1.*
- 8-88/89 *guztiai dei eguiten... biraltzen deutsez < Eta halaber guztien athey dagote, guztietan deitzen du (GGero 101).*
- 8-89/90 *ta gura dau idigui daguioen < idequi baliacote nahiz (GGero 101). daguioen: leh. daguion.*
- 8-90 *diño San Joanec: Añibarroren eransketa, Axularrek ertzean dakarren erreferentziaren araberakoa.*
- 8-91 *lecu ascotan... leguez < nola anhitz, leccutan erraiten baitu scritura sainduac (GGero 101).*
- 8-92 *besten artean < bertceen artetic (GGero 101).
dirian leguez < direla (GGero 101). Añibarrok kausa Eskrituran agertzea izatetik (cf. 8-91. oh.) bekatariak halakoak izatera aldarazi du.*
- 8-93 *Jangoicoac largaric leguez vici dirianac < eta Iaincoac ere utziac (GGero 101).*
- 8-93/94 *ta beragaitic... itsututen dituenac < eta are Iaincoac berac itsutcen eta gogortcen dituela (GGero 101). Faraonen aipua Axularren ertzetik atera du: Egon indurabo cor. Phar. Exo. 4 (GGero 101, in m.).*

- 95 goicoaren aldetic billatu ta emon onetara dacartzen errazoi, causa ta videia. Eta idoroteco, jaquin bear dozue ece, dacusenean gure Jangoicoac becatuan jausiric ta sarturic gagozala, vide ta era ascotara valiatzen dala gu becatutic ateratzeco. Maña ta traza ascoz valiatzen dala, gu vide onean ifinteco. Celan gueure vorondatearen jabe garean ta gueure escuan dauquegun; celan nai bado-
 100 dogu baietz, ta gura ezpadogu ezetz esateco libre gagozan, gure vorondate libre onen erara, ecertan bere eragotzi бага, deitu ta gacarz Jangoicoac beragana. Eta, gueienetan, lenengo aldian ezteuscu dedar ta indar andiaz deituten, San Pablori deitu eutsan leguez. Baña dei eguiten deuscu guichica, bigun, gozoro, maiñaz, conciencia saminduaz, gaissotasuna biralduaz,
 105 predicarien esateacaz, ta beste maquina bat era ta moldez. Eta onela, lenengo deituten deuscunean eranzuten badeutsegu, zur zoli irazarriac, prest bagagoz, beraganduten abiatuten bagara, guero bigarren aldian viciago, sendoago, indartsuago deituten deuscu; eta onela irugarrenean, ganerocoan ta

-
- 8-95 *onetara dacartzen errazoi, causa ta videia < cenbait causa, arraçoïn eta diferencia (GGero 101).*
- 8-96 *dacusenean < iccusten duenean (GGero 101); ik. § 5.1.3.7.*
- 8-96/97 *becatuan jausiric ta sarturic gagozala < nola gauden beccatutan sarthuac (GGero 101); ik. §§ 5.1.3.1 eta 5.2.18.*
- 8-97 *vide ta era ascotara valiatzen dala < anhitz enseiu eta pensu eguiten duela (GGero 101).*
- 8-97/98 *gu becatutic ateratzeco < gure beccatu hetaric atheratceco (GGero 101). gu: jat. guc (arg. zuz.).*
- 8-98 *Maña ta traza ascoz < Anhitz mañaz eta traçaz (GGero 101). gu: leh. gure, < gure (GGero 101).*
- 8-99 *gueure vorondatearen... dauquegun < gueure vorondatea gueure escuco baitugu (GGero 101). gueure: aurrean gueure garean, ezabatua. jabe garean: leh. jabeac.*
- 8-100 *libre gagozan < libre baicara (GGero 101); ik. § 5.1.3.8.*
- 8-101 *onen erara < hunen araubaz (GGero 102); ik. § 5.3.4. eragotzi бага < bortchatu gabe (GGero 102). deitu ta gacarz < deitcen eta thiratcen gaitu (GGero 102). gacarz: leh. gacaz. gueienetan < comunzqui (GGero 102).*
- 8-102 *San Pablori < Iondone Paulo bat (GGero 102). eutsan: leh. eutsen.*
- 8-103/104 *bigun < emequi (GGero 102).*
- 8-104 *saminduaz: aurrean lotsa] (lotsatuaz?), ezabatua, < alhatuz (GGero 102).*
- 8-105 *predicarien esateacaz < bere predicarien erranez (GGero 102). beste maquina bat era ta moldez < anhitz bertce moldez (GGero 102).*
- 8-106 *deituten deuscunean < deitcen eta thiratcen gaituenean (GGero 102). deuscunean: gainean, ta beragandu gura gaituenean-en ordez.*
- 8-106/107 *zur zoli irazarriac, prest bagagoz: Añibarroren eransketa.*
- 8-107 *beraganduten abiatuten bagara < hurbiltcen bagatçaitça (GGero 102).*
- 8-107/108 *viciago, sendoago, indartsuago < biciquiago eta sendoquiago (GGero 102); ik. § 5.1.4.*
- 8-108 *deituten deuscu < deitcen eta thiratcen gaitu (GGero 102). onela < hala hala (GGero 102).*
- 8-108/109 *ganerocoan ta andic achina edo aurrera < eta aitcinat ere (GGero 102). ganerocoan: aurrean ta, ezabatua; formaz, ik. 2-24. oh.*

andic achina edo aurrera. Alacoiz ece, non azquenean osoro ta alde guztietara, barrutic ta campotic deituric ta mesedeturic, bere gracion ta adisquidetasun <82> zorionecoan ifinten gaituz gueure erru, uts ta deunguetasun guztiac parcaturic. Baña lenengo deiera, esquer ta mesede gozo maiteaz conturic eguiten ezpadogu, ez jaramon ta enzun-gor eguiten badogu, eurocaz valiatuten ezpagara, biotz onaz ondo artzen ezpadoguz, biurtzen bada bere oraindiño barriz Jangoicoa lenengo mesedetara euretara; ta oraindo orduan deitzen bagaitu bere asco dan beste; eta aurreraco prestic badago bere, beste orrembeste dei ta mesede eguiteco edocein becatari danic gaistoeneri; ez baña orduan, ezta comunqui aurrerago igaroten. Esan gura dot, len leguez bai, baña ezcaitueta orduan len baño indartsuago ta sendoago deituten ta mesedetuten. Eta au gure faltaz ta erruz.

- 8-109 *Alacoiz ece, non <Halaco moldez non (GGero 102). Añibarrok oharkabean lokailu bi jarri ditu Axularren egituraren eraginez; aurreneko batean (ik. 6-57 eta 6-58. oh.) garaiz ohartu eta zuzendu du, bata bestetik urrun bazeuden ere, hemen ez bezala.*
- 8-109/110 *osoro ta alde guztietara <ossoqui eta complituqui (GGero 102).*
- 8-110 *barrutic ta campotic <campotic eta barrenetic (GGero 102). mesedeturic <faboraturic (GGero 102).*
- 8-110/111 *adisquidetasun: ondoren bi letra itsatsi, ezabatuak (ziurrenik adisquidetasunean, = GGero 102); izan ere, zorionecoan Añibarroren eransketa da (ik. § 5.4.2).*
- 8-111/112 *ifinten... guztiac parcaturic <beccatu guztiac barccaturic ibentcen baicaitu (GGero 102); ik. § 5.2.1.1. uts: gainean erantsia.*
- 8-112 *deiera, esquer ta mesede gozo maiteaz <deitce, thiratce eta fabore ezti comun hetçaz (GGero 102). esquer ta: ta gainean erantsia. mesede gozo maiteaz: leh. mesede ta maitetasunez.*
- 8-113 *ezpadogu <eztugunean (GGero 102). ez jaramon ta enzun-gor eguiten badogu: Añibarroren eransketa.*
- 8-113/114 *eurocaz valiatuten ezpagara <hetçaz probetchatcen ezcarenean (GGero 102).*
- 8-114 *biotz onaz ondo artzen ezpadoguz <hec errecibitcen eztitugunean (GGero 102). biotz onaz: gainean erantsia.*
- 8-115 *Jangoicoa: Añibarroren eransketa. mesedetara euretara <fabore comun hetara beretara (GGero 102). mesedetara: leh. mesede aetar[a]; ik. § 5.1.2.3. orduan: ondoren bere, ezabatua, <orduan ere (GGero 102).*
- 8-116 *asco dan beste <asco dan beçainbertce (GGero 102). aurreraco <aicinerat ere (GGero 102).*
- 8-116/117 *beste orrembeste dei ta mesede eguiteco <molde berean, lehen beçala deitceco eta faboratceco (GGero 102).*
- 8-117 *edocein becatari danic gaistoeneri: Añibarroren eransketa.*
- 8-117/118 *ez baña orduan <ez ordea orduan (GGero 102).*
- 8-118 *comunqui <comunzqui (GGero 102).*
- 8-119 *indartsuago ta sendoago <bortizquiago eta sendoquiago (GGero 103).*
- 8-119/120 *mesedetuten <favoratcen (GGero 103).*
- 8-120 *gure <guere (GGero 103) <gueure (Gero 103). faltaz ta erruz <faltaz (GGero 103).*

Alan diño jaquintsu batec: Ezteuscuz emoten gracia bere gañezcoac, goi-goituac ta eraguinguille andicoac, eztoguzalaco ondo artuten comunac, guztirocoac, guztientzacoac. Quenduten deuscuz bigarrenac, donguero usatzen doguzalaco lenengoac. Cerren gauza chiquian ta guichian leiala ta prestua danari ondo emon lequiquioz lan ardurazcoac ta andiac. Gauza guichian contuzcoa, fidela cinialaco, sartu zaite Ceruco gloria andi bete gozoan, diño Jesusec (Mat. 25). Dirudi, bestetic, leiala ta esquer onecoa eztanari, emon jacona bere quendu bear lequiquiola. Ondo mereci ta eguiña da, aurrengo mesede chiquiaz conturic eguiten eztabenari, eztaquiozan emon andiac. Gureac dira erruac. Bada, San Agustinec diñonez (serm. 88 de tempor.): Eztau beimbere Jangoicoac ichiten guizona, baldin guizonac lenic larga ta ichiten ezpadau Jangoicoa. Mesede comunac, guztientzacoac, ta berez asco dirianac emoten deutsez becatari gogortuai, gaistoena bere, baña ez bere ganecoac,

- 8-121 *jaquintsu batec < ene escola nabusi batec (GGero 103). gracia < fabore (GGero 103).*
- 8-121/122 *bere gañezcoac, goi-goituac ta eraguinguille andicoac < bere gaiñezcoez [< gaiñezcoac, Gero 103], abantaillezcoac eta emendailluzcoac (GGero 103). bere gañezcoac: beheraxeago bere ganecoac (8-133), euren ganezcoac (8-136), euren gañezcoric (8-140) eta, azkenik, ganezcoac (8-161); cf. OEH, BEREGAINeko, s.v. be-regain. eraguinguille andicoac: eraguingille izenondo da lehenago (0-50) eta beranduago (8-134), baina hemen argi eta garbi izena da: cf. VB (c.) “fomes”, hots, ‘kausa’.*
- 8-122 *eztoguzalaco < Ceren ezpaititugu (GGero 103). ondo artuten < errecibitcen (GGero 103).*
- 8-122/123 *comunac, guztirocoac, guztientzacoac < comunac eta arduracoac (GGero 103). comunac: ondoan edo, ezabatua. arduraco-ren itzulpenaz, ik. § 5.3.4.*
- 8-124 *Cerren < Ceren baldin (GGero 103).*
- 8-124/125 *leiala ta prestua danari < leyal dena (GGero 103).*
- 8-125 *ondo emon... andiac < arraçoin bada handiangoan ere emplega dadin (GGero 103). lequiquioz lan ardurazcoac ta: gainean, [emon]ac jagocoç emple] (empleatu?)-ren ordeç.*
- 8-125/127 *Gauza guichian... diño Jesusec < Quia in pauca fuisti fidelis, supra multa te constittuam (GGero 103). contuzcoa: gainean erantsia.*
- 8-127 *bestetic < bertce aldera (GGero 103). leiala ta esquer onecoa eztanari < leyal eztenari (GGero 103).*
- 8-127/128 *emon jacona < emanen ceicana (GGero 103).*
- 8-128 *quendu bear lequiquiola < edequi behar çaicala (GGero 103). Ondo mereci ta eguiña da < Ongui da eta merecia da (GGero 103).*
- 8-128/129 *mesede chiquiaz < fabore ttipiez (GGero 103).*
- 8-130 *erruac < faltac (GGero 103).*
- 8-131/132 *larga ta ichiten ezpadau < utz ezpadeça (GGero 103). larga: aurrean ichit] (ichiten?), ezabatua.*
- 8-132 *Mesede < Fabore (GGero 103). comunac, guztientzacoac < comunac, arduracoac (GGero 103); gorago bezala (8-122/123. oh.) arduraco-k ez dauka ordainik itzulpenean. berez asco dirianac < asco diren beçainbertcecoac (GGero 103).*
- 8-133 *becatari gogortuai, gaistoena bere < gogortuey eta ostinatuey ere (GGero 103). gais-toenai: leh. gaistotue] jartzen hasi zen.*

- 135 eraguinguilleac, oi-ezac. Eta aguri da ezetz. Bada, <83> celan doian asco
 graciatic graciara, laguntzatic laguntzera ta mesedetic mesedera, gracia ta
 mesede euren ganezcoac, oi dirianac baño andiagoac dituenac, bertati lenen-
 go ucutuaz senticortuten dira, abiatu ta mugituten dira, vide onean jarten
 dira. Edo beintzat badabe euren barruan atsecaba bat, concienciaren lotsata-
 sun, mintasun, erretasun andi bat, ta ain andia ece ecin ondo euren becatue-
 140 tan egon, ez sosega dira. Baña mesede ta bitartetasun euren gañezcoric, co-
 munac ta oi dirianac baño andiagoric ez dabenac, eztabe alaco concienciaco
 lotsatasunic, biotz-quisquetadaric, bildur icara andiric izaten. Lenago bai so-
 segatuac, epe ta presona seguruac leguez dagoz, ta alan egotea da euren atse-
 guin guztia. Alan diño, alangoacaz verba eguiten dabela, Espiritu Santuac
 145 (Prov. 2): Deunguero eguitean ta eguin ostean, guztietan atseguintasuna ar-

-
- 8-133/134 *bere ganecoac, eraguinguilleac, oi-ezac <bere gañezcoac eta avantaillezcoac (GGero 103). Oro har, cf. 8-121/122. oh. oi-ezac: cf. HH oiteza “insólito”; VB-n oi ezta-
 na dago beti (ik. s.vv. inopinado, insólito eta inusitado).*
- 8-134 *doian asco <anhitz baitoha (GGero 103).*
- 8-135 *laguntzatic laguntzera: honelako zalantzez ik. § 5.1.1.1.*
- 8-135/136 *gracia ta mesede euren ganezcoac <fabore bere gañezcoac (GGero 104). euren: gai-
 nean, bere-ren ordeiz (ik. 8-121/122. oh.). ganezcoac: leh. gañezcoac.*
- 8-136 *oi dirianac <arduracoac (GGero 104); ik. § 5.3.4.*
- 8-137 *ucutuaz <utquitcean (GGero 104).
 abiatu ta mugituten dira: Añibarroren eransketa.*
- 8-138/139 *lotsatasun, mintasun, erretasun <alhadura eta minberadura (GGero 104). mintasun,
 erretasun: gainean, mimberadura-ren ordeiz; hau azpimarratua baina ezabatu gabe
 dago. lotsatasun: cf. VB “vergüenza: b. g. lotsa, lotsea, lotsatasuna”; gogoratu
 alha-ren familia lotsa-renarekin itzuli ohi duela (ik. 6-44, 8-28/29, 8-177, etab.).*
- 8-139 *ta ain andia ece <hain handia non (GGero 104).*
- 8-140 *egon, ez sosega dira <iar baititezque, eta ez sosega (GGero 104). ez: aurrean ta, eza-
 batua. sosega: ik. § 5.1.3.2.
 mesede ta bitartetasun <fabore (GGero 104). bitartetasun: aurrean lag] (laguntza?),
 ezabatua.
 euren gañezcoric <bere gañezcoric (GGero 104); ik. 8-121/122. oh.*
- 8-141 *oi dirianac <arduracoac (GGero 104).
 andiagoric: leh. andiagoac, <handiagoric (GGero 104).
 ez dabenac <içaiten ezutenec (GGero 104); ik. § 5.1.3.7.
 alaco concienciaco <concienciaren halaco (GGero 104); ik. § 5.1.1.8.*
- 8-142 *lotsatasunic... icara andiric <alhadura handiric eta veldurtasunic (GGero 104).
 Lenago bai <Aitcitic (GGero 104).*
- 8-142/143 *sosegatuac <sosegatuqui (GGero 104); ik. § 5.1.4.*
- 8-143 *epe ta: Añibarroren eransketa ulergaitza; baliteke epez-edo jarri nahi izatea, sosega-
 tuac-en esanahikide gisa: cf. adib. epe ta sosegua (21-45) edo sosegu epe andiaz
 nago (EL' 60, ap. OEH, s.v. epe).
 presona: jat. prersona, lehen r gainean erantsia (arg. zuz.).*
- 8-143/144 *atseguin guztia <loria (GGero 104).*
- 8-144 *alangoacaz <halacoez (GGero 104).*
- 8-145 *eguin ostean <eguin ondoan (GGero 104).*

tzen dabe, atan poztuten dira. Beste bein diño (ibi. 18): Gaistoac becatuen oxin ondarrean sartu ezquero, ta aetara lucero eguin ta ecandutu ezquero, ez dau arduraric, conturic, bildurric; ganeco gaistaqueric ecerezqueria bat leguez eguiten dituz. Job santuac bere dino (cap. 15): Presona egartsuac ur
 150 otza leguez, edan ta irunsiten dituez becatuac. Esan gura dau, erraz, ardura baga ta artan atseguin artzen dabela. Alacoai, dirian leguez Jangoicoaren arerioac, ta arerioric andi[en]ac, ezteutse emoten bere adisquideai edo arerio guichiago dirianai emon oi deutsezan irazartasunac, zolitasunac, barruco dei ta berotasunac, ta beste argui, esquer ta mesede ixil ezcutatu batzuc. Eta onec
 155 ec ez emonic, eurac euren erruz itsutu, gogortu, nasai zabartuten dira. Alan

- 8-146 *poztuten < loriatcen (GGero 104).
 Beste bein diño: Añibarroren eransketa; izan ere, Beste-ren aurrean Gaistoac ezabatu-ta dago.*
- 8-147 *oxin ondarrean < hosinean (GGero 104). Ik. 0-133. oh.
 eguin ta ecandutu ezquero < usatuz guero (GGero 104).*
- 8-147/148 *ez dau < eztaduca (GGero 104); ik. § 5.1.3.9.*
- 8-148 *arduraric, conturic, bildurric < conturic (GGero 104).
 ganeco gaistaqueric < gaiñeracoac (GGero 104).*
- 8-148/149 *ecerezqueria bat leguez < sentitu gabe (GGero 104).*
- 8-149 *Job santuac bere dino < Eta badio Iobec ere (GGero 104).
 Presona: jat. presoña (arg. zuz.).
 egartsuac < egarrirac [sic] (GGero 104) < egarriac (Gero 104).*
- 8-150 *edan ta irunsiten < edaten (GGero 104).*
- 8-150/151 *erraz, ardura baga < erraxqui (GGero 104).*
- 8-151 *Alacoai: leh. Alacoac, < Halacoey (GGero 104).*
- 8-151/152 *dirian leguez Jangoicoaren arerioac < nola Iaincoarequin etsai baitira (GGero 104);
 ik. § 5.2.18.*
- 8-152 *arerioric andi[en]ac < etsai ere barrena (GGero 104). Orria hemen urratuta dago, bai-na argi ikusten da -ric gainean erantsi duela; andiac zuzendu gabe utzia, ziurrenik lerro aldaketak erdibituta egoteari egotz dakioko.*
- 8-152/153 *arerio guichiago dirianai < gutiago etsai direney (GGero 105). guichiago: aurrean chi] (chiquiago?), ezabatua. Ezaguna denez, gutxiagotasunezko konparazioa egitea ezinezkoa da euskaraz, Axularrena bezalako bazterreko adibideren bat gorabehera, denak Iparraldekoak eta denak hitz ordena berekoak (ik. orain EGLU V, 274-275; bide batez, ez da adibide hau aipatzen, ez eta haren iturri bide den OEH-an ere: ik. GUTXIAGO, s.v. gutxi). Hortik Añibarroren zalantza, azkenean ordena arruntean ezarriaz konpondua.*
- 8-153 *emon oi deutsezan < emaiten derauzten (GGero 105).
 irazartasunac, zolitasunac < ernetasun, iratçarpentasun (GGero 105).*
- 8-153/154 *barruco dei ta berotasunac < barreneco berotasun (GGero 105).*
- 8-154 *argui, esquer ta mesede ixil ezcutatu batzuc < fabore handi ichil batçuc (GGero 105).
 esquer: aurrean ta m] (ta mesede?), ezabatua. ezcutatu: ostean letra bat, ezabatua;
 ziur aski ezcutatuac jartzera zihoan.*
- 8-154/155 *oneec < hec (GGero 105).*
- 8-155 *emonic < emanez guero (GGero 105); ik. § 5.2.19.
 itsutu, gogortu, nasai zabartuten < itsutcen, gogortcen eta ez antsiatcen dira (GGero 105). nasai zabartuten: gainean, ta ez antsiatzen-en orde; hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago; leh. nasaitu, baina -tu ere ezabatu du (ik. § 5.3.1).*

dino San Agustinec, Faraonez <84> verba eguiten dabela (Serm. 88 de temp.): Jangoicoac becataria larga ta ichitea, itsututea ta gogortutea ezta, ez, Jangoicoac berac a itsumen ta gogortasuna emotea ta ifintea. Baña da Jangoicoac ez arguitutea, ez beratu, bigundu ta samurtutea, ta mesede vici andi ganezcoac, becatariac berac alan bere zorigachez merecituric, ez emotea; ta
 160 beragaitic alan itsu sor-gor gogorturic ichitea. Onela aditu bear da, ta au da Jangoicoaren aldetic emon al litequen errazoia, cegaitic esaten dan, becatari batzuc besten artean diriala itsuac, gogortuac ta Jangoicoac itsutu ta gogortuten dituela. Esan gura dau bigarren mesede andiac bere erruz ezteutsezala
 165 emoten; ta itsu ta gogor ditecen permiti edo laquetuten dabela.

3 §.

Cergaitic esaten dan, becatari batzuc besten artean diriala itsutuac, gogortuac ta Jangoicoac berac bere ichiac, bago gure aldetic bere errazoi bat, oraindiño arguiago ta adietaco errazagoa; ta da becatariac bere becatuetan
 170 lucero irautea, jarraitutea, ecandututea, oitutea ta egotea. Andic, alan egotetic itsutu, arguibaguetu, ilundu ta gogortuten da becataria. Andic onera baño,

-
- 8-157 *larga ta ichitea < utztea (GGero 105).*
 8-158 *Baña da < Baiña hura da (GGero 105).*
 8-159 *beratu, bigundu ta samurtutea < beratcea (GGero 105).*
 8-159/160 *ta mesede vici andi ganezcoac < fabore bici handi]c[bere gaiñezco hequen (GGero 105). vici: gainean erantsia. ganezcoac: leh. ganezcoacaz. Ohartu orain bere (edo euren) ahaztu edo alde batera utzi duela ganezcoac-en aurrean (ik. 8-121/122. oh.).*
 8-160 *berac alan: aurrean alan, ezabatua, < berac hala (GGero 105). bere zorigachez merecituric < causaturic (GGero 105).*
 8-161 *beragaitic < handic (GGero 105). itsu sor-gor gogorturic ichitea < itsutcera eta gogortcera utzte (GGero 105).*
 8-162 *emon al litequen < eman ahal ditequeyen (GGero 105); ik. § 5.1.3.12. ...errazoia, cegaitic esaten dan < ...arraçoiña, cergatic erraiten den (GGero 105).*
 8-163 *besten artean < bertcen artetic (GGero 105). itsuac < itsutuac (GGero 105).*
 8-163/164 *itsutu ta gogortuten < itsutcen eta gogortcen (GGero 105).*
 8-164 *bere erruz < bere faltaz (GGero 105).*
 8-165 *ta itsu ta gogor ditecen < eta itsu eta gogor ditecin (GGero 105); ik. § 5.1.3.2. permiti edo laquetuten < permi[ti]t[en] (GGero 105). dabela: gainean, dituela-ren ordez, < duela (GGero 105).*
 8-167 *Cergaitic esaten dan... < Cergatic erraiten den... (GGero 105). besten artean < bertce[e]n artetic (GGero 105).*
 8-168 *Jangoicoac berac bere < Iaincoac ere (GGero 105); ik. § 5.1.2.3. bago < bada (GGero 105); ik. § 4.3.10.13.*
 8-169 *oraindiño arguiago < are claragoa (GGero 106); ik. § 5.1.1.5. ta da < cein baita (GGero 106); ik. § 5.2.10. becatariac: Añibarroren eransketa.*
 8-169/170 *bere becatuetan... egotea < usantça, següentça, dembora luceaz beccatutan egoitea (GGero 106). ecandututea: aurrean ta oi] (oitutea?), ezabatua.*
 8-171 *itsutu... ta gogortuten < itsutcen eta gogortcen (GGero 106).*

gaistotasunera jausiago, macurtuago ta emonago gueldituten da. Andic sus-
traiac eguiten dituz. Azquenez, andic becatuac beretu ta beraganduten dau,
175 jan ta edan бага baño gueiago, becuric eguin бага ecin egon litequela iru-
dituten jaco.

Eguiten dozu gaur becatu bat, ta becatu onezaz gomutetan zara arratse-
an, lotsatuten zaitu ceure concienciac. Eguiten dozu biar beste bat, ta orduan
bere gogoratuten jatzu. Baña gaur baño biar guichiago gomutetan zara. Le-
180 nengoan senticor, <85> ta gueroago guichiago. Lenengo becatua eguiten do-
zunean, bildur zara, bigarrenean bere bai, baña lenengoan baño guichiago.
Eta aimbat eguiten zara becatura, aimbeste darroiozu, ce alde guztitic bildu-
rra galduten deutzazu: atara eguiña, usatua ta oitua leguez, atan gozatu, poz-
tuten zara; ta andic ara bapere ezpacendu baño gueiago eztozu jaramoten, ez
185 conturic eguiten. Becatu bat baño eztauquena, mimbera da, mintsu da, sen-
ticor da, bildur da, ecin sosega diteque; baña eun dituanac, becatua becatua-

- 8-172 *jausiago, macurtuago ta emonago < eroriagoa, isuriagoa eta emanagoa (GGero 106); ik. § 5.1.1.5.*
- 8-173 *Azquenez < Finean (GGero 106). becatuac beretu ta beraganduten dau < beccatua beretacotcen eta natural beçala errendatcen du (GGero 106).*
- 8-174 *edan бага: artean baño, ezabatua; cf. ian eta edan gabe baiño (GGero 106). eguin бага < eguin gabe ere (GGero 106). egon litequela < dagoqueyela (GGero 106); ik. § 5.1.3.7.*
- 8-175 *jaco: leh. jacala, < baitçaica (GGero 106).*
- 8-176 *gaur < eguin [sic] (GGero 106) < egun (Gero 106). onezaz < hartçaz (GGero 106).*
- 8-177 *lotsatuten zaitu ceure concienciac < alhatcen çaitçu ceure concientcia (GGero 106). ceure: leh. zeure.*
- 8-179 *gueroago < guero eta guero (GGero 106). Lenengo becatua eguiten < Lehenbiciric beccatu eguiten (GGero 106).*
- 8-181 *aimbat eguiten zara becatura < hanbat usatcen duçu beccatu eguitea (GGero 106). aimbeste darroiozu < hanbat seguitcen duçu (GGero 106). aimbeste: gainean, ainbac (sic)-en orde, baina hau ezabatu gabe. darroiozu: ik. 8-36. oh. ce < non (GGero 106). alde guztitic < alde guztiz (GGero 106); ik. § 5.3.3.*
- 8-182 *galduten deutzazu < galtcen baituçu (GGero 106). atara eguiña... leguez < usatuari beçala (GGero 106). oitua: aurean eca] (ecandutua?), ezabatua. atan < hetan (GGero 106).*
- 8-182/183 *gozatu, poztuten zara < laquetcen baitçaitçu (GGero 106). gozatu: gainean erantsia.*
- 8-183 *andic ara < handic harat (GGero 106).*
- 8-183/184 *jaramoten, ez conturic eguiten < conturic eguiten (GGero 106).*
- 8-184 *eztauquena < eztauena (GGero 106). mimbera da, mintsu da < minbera da (GGero 106). mimbera da azpimarratuta dago eta gainean dolorido azalpena agertzen da: ziurrenik ordezkatu behar zuen, bestetan bezala (cf. 7-70 eta 8-138/139. or.).*
- 8-184/185 *senticor da = GGero 106.*
- 8-185 *dituanac: leh. dituenac, < dituenac (GGero 106); ik. § 4.2.1.*

ri batu ta eransiric, becatuz beteric dagoanac ez dau arduraric, ez sentimenturic, ez bildurric, ez conturic. Cerren usatuaz, oituaz, ecandutuaz batean, itsutua, gogortua, ganorabacoa ta sustraiac eguinic, becatuetan barrurago, zaconago, ondatuago ta sartuago gueldituten da.

- 190 Guizon batec, bere sorterritic campora, Indietara edo beste lecu urrin batera urteten dabenean, ta oraindiño bere erri urrean, inguruan, ondoan danean, sarri beguiratuten dau atzera bere jaieterrico mendietara. Baña aurrera igaro ezquero, bere erria ta errico lurrac beguiz galdu ezquero, biurtu ta itzulten da beste aldera, joan bear daben ta doian lecu atara; eta an bere beguiac ta gogoa ifinten ditu. Bada, au berau jazoten jaco len óna ta jangoico-
- 195

- 8-186 *batu ta eransiric* < *iratchequiric* (GGero 106).
arduraric < *antsiaric* (GGero 106).
- 8-186/187 *ez sentimenturic, ez bildurric, ez conturic* < *eztu sentitcen, eztaduca conturic* (GGero 106-107). *ez sentimenturic, ez bildurric*: *ez* biak gainean erantsita daude.
- 8-187 *usatuaz, oituaz, ecandutuaz batean* < *usantçarequin batean* (GGero 107). Aditizena-rekin egitura hau oso arrunta den bitartean, partizipioarekin *OEH*-ak (BATEAN (B), s.v. *bat*) ez du aurkitu XX. mendeko testu bakan batzuetan baizik; esanguratsua izan liteke, dena dela, guztiak bizkaierazkoak izatea.
- 8-188 *itsutua, gogortua, ganorabacoa ta sustraiac eguinic* < *itsutua, gogortua, ezansiatua eta erroac eguinic* (GGero 107). *ganorabacoa*: gainean, *ez antsiatua*-ren orde; hau azpimarratuta baina ezabatu gabe dago.
- 8-188/189 *becatuetan barrurago... gueldituten da* < *beccatutan barrena sarthua baitago* (GGero 107).
barrurago: leh. *barruragoturic*.
zaconago: *z / s* artean zalantzan ibili da idazlea eta, egia esan, ez dakit zeinek irabazi duen. Urquijok (1924: 259) bezala *zaconago* hautatu dut, *VB*-n (eta *HH*-an) *z*-dun formak bakarrik jasotzen direla kontuan harturik (cf. *zacondu* “profundar”, adib.).
ondatuago: gainean erantsia.
- 8-190 *sorterritic*: gainean, *erritic*-en orde, baina hau ezabatu gabe, < *herritic* (GGero 107); ik. 8-192. oh.
- 8-190/191 *batera* < *batetara* (GGero 107).
- 8-191 *urteten dabenean* < *partitcen denean* (GGero 107).
erri urrean, inguruan, ondoan < *herrico aguerrian, comarquetan eta terminoetan* (GGero 107). *erri*: leh. *erriaren mug*] (*mugan?*). *ondoan*: gainean, *mugan*-en orde.
jaieterrico: gainean, *jaieterria*-rekin batera, *errico*-ren orde, baina hau ezabatu gabe, < *herrico* (GGero 107). Honetarako (eta 8-190. oharreko aldaketarako), cf. *VB* “*patria*: c. *erria, sorterria, jaieterria*” (< *HH*, hitzez hitz eta osoki).
- 8-193 *beguiz galdu* < *vistatic galdu* (GGero 107); cf. *VB* “(perderse de) *vista*: c. *beguiz, beguietatic galdu*” (< *HH*).
- 8-193/194 *biurtu ta itzulten* < *itçultcen* (GGero 107). *itzulten*: cf. halaber 12-213; testuan zehar aditizena-formarik arruntena *itzultze*- da (cf. 3-11, 4-64, 14-139, etab.), baina bada *itzulite*- bat ere (22-100); ik. oro har § 4.3.9.
- 8-194 *joan bear daben ta doian* < *ioan behar duen eta dohan* (GGero 107).
eta an < *eta han, aldiz* (GGero 107).
- 8-195 *ta gogoa* < *eta gogoa ere* (GGero 107).
- 8-195/196 *óna ta jangoicotarra izanic* < *iustu içanic* (GGero 107). *jangoicotar*: *VB* (c.) “*devoto*”, etab.

tarra izanic, aspaldi baten becatu baga egonic, becatu eguitera abiatu, pres-
tatu ta doianari. Abiadura ta asiera barri atan, sarri ascotan beguiratuten dau
atzera, ichi daben erri on prestu maiteari; agaz gogoratu ta gomutaturic,
emoten ditu cizpuruac ta arrauciac, artzen dau bere biotzean tristura ta nai-
200 baguea. Baña becatuetan aurrera igaro ezquero, lenagoco aztura, oitura,
ecandu ta eguite onac begui-icustetic galdu, igaro ezquero, gogotic larga ez-
quero, bere gogo, asmo ta biotz guztia ifinten dau orduan darabiltzen beca-
tuetan ta atseguinetan. <86> Eta andic ara, eztau lengo erriaz ta vicitzeaz
205 conturic eguiten; urrin, asago dago; oraingoac daroioz bere gogoa, cenzu-
nac, almenac ta dan guztia.

- 8-196 *aspaldi baten < cenbait demboraz (GGero 107).
becatu baga < beccaturic gabe (GGero 107).*
- 8-196/197 *abiatu, prestatu ta doianari < partitcen eta abiatcen denari ere (GGero 107); abiatu:
ik. 6-122/123. oh.*
- 8-197 *Abiadura ta asiera barri atan < Abiatu berri hartan (GGero 107).
sarri ascotan < maiz (GGero 107).*
- 8-198 *erri on prestu maiteari < bicitce presturat (GGero 107). prestu maiteari: leh. prestu-
ra; aldaketa honekin, aposizioak galdu du aurrekoarekin gorde behar zukeen atziz-
ki kidetasuna.
agaz < hartçaz (GGero 107).
gogoratu ta gomutaturic < orhoituric (GGero 107). gomutaturic: leh. gomutetan dau.
emoten: gainean, eguiten-en orde, < eguiten (GGero 107).*
- 8-199 *cizpuruac ta arrauciac < cenbait hats-beherapen (GGero 107). Cf. VB arraucia eguin
(c.) “bostezar”; izan ere, ez zaio beste adierarik ezagutzen (cf. OEH, s.v. aharrau-
si), baina beherago berrero erabiliko du hatsbeherapen itzultzeko, zalantzarik uzten
ez duen testuinguru batean (ik. 15-226).
artzen < errecibitcen (GGero 107).
bere biotzean < bere baihan (GGero 107); ik. § 5.3.4.*
- 8-199/200 *tristura ta naibaguea < cenbait tristura (GGero 107).*
- 8-200 *becatuetan < beccatutan (GGero 107).*
- 8-200/201 *aztura... ta eguite onac < aztura ona[c] eta verthuteac (GGero 107). ecandu: ondoren
onac, ezabatua.*
- 8-201 *begui-icustetic < begui-vistatic (GGero 107). VB icustea (c.) “vista, acción de ver” (<
HH).
galdu, igaro ezquero < galduz guero (GGero 107). galdu: gainean erantsia.
larga: gainean, ichi-ren orde.*
- 8-202 *bere gogo... ifinten dau < ibentcen du aldiz bere gogoa eta bihotz guztia (GGero 107);
ik. § 5.2.1.1. gogo, asmo ta biotz: jat. gogo ta asmo ta biotz (arg. zuz.): ta biotz gai-
nean erantsi du, gainerakoa konpondu gabe.
orduan darabiltzen < escuen artean darabiltçan (GGero 107); ik. § 4.2.1.*
- 8-203 *atseguinetan < placeretan (GGero 107).
andic ara < handic harat (GGero 107).*
- 8-204 *urrrin, asago dago < urrundu da (GGero 107); cf. VB urrrin, asago (b.) “lejos”.
oraingoac < presentecoac (GGero 107).*
- 8-204/205 *daroioz bere gogoa... ta dan guztia < darama guztia (GGero 107). bere: gainean eran-
tsia. gogoa: ondoren guztia, ezabatua.*

4 §.

- Becatu bat eguiten dozunean, gaissotuten da arimea; bi eguiten dozuzanean, gaissoagotuten da; ta asco eguinez atara eguin, ecanduten zareanean, ta ecanduturic, ecandutua leguez, aetan goza ta poztuten zareanean, orduan gaissoago zagoz, orduan urrinego dabil arimea. Eta alangoac, ez adivide onez, ez predicarien esatez, ez bere lagunac ilten jacazala icustez, ez beste onelaco gauzaz, eztau conturic eguiten, eztau jaramoten, ez onic ateretan, caltea baxen.
- Alacoari jazoten jaco Jangoicoaz, gaisso bati medicuaz guerta oi jacona.
- Medicu osaguillac emoten deutso gaissoari edari bat, purga bat; berez, bere eguitez, beragan danez ona ta gaissoatasunari ondo dagocana. Baña purga ona izanagaitic, gaissoatasuna da ain andia ta indartsua, gaissoa ain dago jausia, argal ta mascartua, igaroa ta usteldua, ece ezteutso purgueac bapere onic eguiten, gach baxen. Osaguilleac ta osagarriac eztabe erruric. Nogan, bada, dago uts eguitea? Barruco gaissoatasunean, barruco usteltasun ta prestaera charrean. Onela bada, gure Jangoicoac Ceruco Medicu Sendaguilleac emo-

-
- 8-208 *gaissoagotuten < eritcenago (GGero 108). atara eguin, ecanduten zareanean < usantça coberatcen duçunean (GGero 108). eguin: leh. eguiten. ecanduten: gainean erantsia.*
- 8-209 *ecanduturic < usantça coberaturic (GGero 108); ik. § 5.3.2. ecandutua: leh. ecandutean-edo, < usaturic [sic] (GGero 108) < usatuari (Gero 108). orduan gaissoago zagoz < are eritcenago da [arima] (GGero 108).*
- 8-209/210 *urrinego dabil < hurrantcen da (GGero 108). dabil: gainean, dago-ren ordez.*
- 8-210 *adivide < conseillu (GGero 108).*
- 8-211 *esatez < erranez (GGero 108).*
- 8-211/212 *ez beste onelaco gauzaz: jat. ez beste onelaco beste gauzaz (arg. zuz.), < eta ez hune-laco bertce gauçaz (GGero 108). Cf. beste onelaco < hunelaco bertce (4-45. oh.).*
- 8-212 *eztau jaramoten: Añibarroren eransketa. ez onic < eta ez probetchuric (GGero 108).*
- 8-213 *caltea baxen < calteric baicen (GGero 108).*
- 8-214 *Jangoicoaz < Iaincoarequin eta medicuaz < midicuarequin (GGero 108). guerta oi jacona < eguiten çaicana (GGero 108). Medicu osaguillac < Midicuac (GGero 108).*
- 8-215 *berez, bere eguitez, beragan danez < bere eguitez (GGero 108).*
- 8-216 *ondo dagocana < dagocana (GGero 108). dagocana: leh. dagoquiona.*
- 8-217 *da ain andia < hain da handia (GGero 108).*
- 8-217/218 *jausia... ta usteldua < ahitua eta usteldua (GGero 108). igaroa: gainean erantsia.*
- 8-219 *gach baxen < gaitcic baicen (GGero 108). Osaguilleac eta osagarriac < Midicuac eta midicinac (GGero 108).*
- 8-219/220 *Nogan, bada, dago uts eguitea? < Norc du bada falta? (GGero 108).*
- 8-220/221 *ta prestaera charrean: Añibarroren eransketa. Cf. VB prestaera (c.) “disposición”.*
- 8-221 *Onela bada < Bada molde hunetan berean (GGero 108). Jangoicoac < Iaugoicoac ere (GGero 108). Medicu Sendaguilleac < midicuac (GGero 108). Medicu: leh. Medicuac.*

ten deutsoz becatari gaissoari edariac, osagaiac, abisuac, deiac, adivide ta era ascotaco sendagaiac. Baña dirian guztiacaz bere ezta osatuten. Gueiago bai, orduan gaissoago eguiten da, urrinego aldeguiten da. Eta noc dau errua? 225 Ez medicuac, <87> ez Jangoicoac. Noc bada? Gaissoac berac, becatariac berac: alde guztiz galdua, loitua, atsitua, quirastua, usteldua ta sustraiac eguinic, becatuz ta ecandu gaistoz beteric egoteac. Eguzquiac beratu ta bigunduten dau arguiceguia, ta gogortu lur lupetza. Eta nondic dator au? Ez eguzquia beraganic: cerren onec biac bardin berotzen ditu. Baña au dator arguiceguia ta lurra euren artean banaac izatea ta era bico izatea euquitetic. 230 San Pedroc ta Judasec, biac eguin eben becatu; ta biac deitu cituan Jangoicoac; biai emon eutsen osagarri, bitartetasun, laguntza ta graciariac asco. Eta onez guztiaz, osatu ta ondu zan bata, ta ez bestea. Osatu zan San Pedro Jan-

- 8-222 *osagaiac* < *midicinac* (GGero 108).
abisuac, deiac < *avisuac* (GGero 108).
adivide < *conseilluac* (GGero 108).
- 8-223 *era ascotaco sendagaiac* < *anhitz erremedio* (GGero 108).
dirian guztiacaz bere < *guztiarequin ere* (GGero 108); ik. § 5.3.4.
- 8-223/224 *Gueiago bai* < *Aitcitic* (GGero 108).
- 8-224 *orduan gaissoago eguiten da, urrinego aldeguiten da* < *orduan eritcenago, orduan hurrantcenago da* (GGero 108-109).
errua < *falta* (GGero 109).
- 8-225/226 *Gaissoac berac, becatariac berac* < *Eriac berac, beccatoreac* (GGero 109).
- 8-226 *alde guztiz* = GGer 109.
galdua... usteldua < *galdua, narriatua, arraçatua* (GGero 109). *loitua*: gainean erantsia.
- 8-226/227 *sustraiac eguinic*: leh. *sustraituric*, < *erroac eguinic* (GGero 109).
- 8-227 *beteric* < *bethea* (GGero 109).
egoteac < *baitago* (GGero 109).
- 8-227/228 *beratu ta bigunduten* < *beratcen* (GGero 109).
- 8-228 *arguiceguia* < *ezcoa*[c] (GGero 109). Cf. VB “cera: c. *arguizaguia*; g. *ezcoa*”.
lur lupetza < *lurra* (GGero 109). *lur*: leh. *lurra*. Cf. VB *lupetza* (c.) “lodazal”; biak izen dira, beraz, eta egin ohi dituen bikote horietako bat osatzen dute (ik. *NekeA* 11-23. oh. eta § 5.3.1).
nondic < *certaric* (GGero 109).
dator < *heldu da* (GGero 109); ik. § 5.3.4.
- 8-229 *eguzquia beraganic* < *iguzquia beraganic* (GGero 109).
onec < *harc* (GGero 109).
bardin < *orobat* (GGero 109).
Baña au dator < *Baiña heldu da* (GGero 109).
- 8-229/230 *arguiceguia ta lurra... euquitetic* < *ezcoaren eta lurraren arteco differentiativ eta naturaleçatic* (GGero 109). *bico*: leh. *bicoa*. Badirudi euren artean banaac izatetic beharko lukeela.
- 8-232 *osagarri... ta graciariac asco* < *anhitz medicina eta erremedio* (GGero 109). *bitartetasun*: *aurrean la*] (*laguntza?*), ezabatua.
- 8-233 *osatu ta ondu* < *sendatu* (GGero 109).

235 goicoaren graciaz, ta guelditu zan osatu baga Judas, bere erruz ta vorondatez; eta bere gacha secula osatuco ezta.

Jangoicoac gorde zaguizala becatua ez sentitzera etortetic, bada alacoai dirautse Jangoicoac berac (Joan 8): Ceuroen becatuan ilgo zára, cerren atan gogortuac ta bildur icara bagueac zagozen. Eta diño Espiritu Santuac (Eccl. 5): Biotz gogorra donguero izango da bere azquenean.

240 Baldin ichico bacendu arri andi bat escuetaric, nora joango ete liteque, gora ala bera? Seguru da bera joango litequela. Bada, arima galdua aimbeste urtean, arria leguez, becatuan urtetua dagoana ta egongo dana, noraco da bere azquenean, Jangoicoac bere escutic larga daguienean? Ezta cer itandu. Zoraqueria andia da, arria bera leguez, becatuan dagoana bere ezta Infernura jausico uste izatea. Bada, arria cein pisutsua dan, ain pisutsuago da becatua.

-
- 8-234/235 *bere erruz ta vorondatez < bere faltaz eta maliciaz (GGero 109).*
- 8-235 *eta bere gacha secula osatuco ezta: Añibarroren eransketa; tintagatik geroago egina dirudi.*
- 8-236 *becatua < beccatuaz (GGero 109) < beccatuac (Gero 109).*
- 8-237 *dirautse < erraiten deraue (GGero 109).*
zára: plural zaharreko forma; cf. halaber etzára (9-208), zareala (9-210), zarean (35-43, 46-107). Azken aldera zaree erabiltzen du (47-113, 52-52, 54-202), eta lehena-go bada zára > záre aldaketa bat ere (ik. 13-38. oh.).
- 8-238 *bildur icara bagueac: gainean, ez antsiatuac-en ordezt (= GGero 109); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.*
Eta diño Espiritu Santuac: Añibarroren eransketa.
- 8-239 *bere azquenean < bere azquen finean (GGero 109).*
- 8-240 *ichico bacendu arri andi bat escuetaric < utz baceneça harri handi bat escuetaric (GGero 109).*
nora joango ete liteque < norat othe lihoaue (GGero 109); ik. § 5.1.3.7.
- 8-241 *gora ala bera < goiti ala beheiti (GGero 109).*
bera joango litequela < beheiti lihoaqueyela (GGero 109).
- 8-241/242 *arima galdua aimbeste urtean < arima galdua hanbat urthez (GGero 109); ik. § 5.1.1.12.*
- 8-242 *becatuan < beccatutan (GGero 109-110).*
urtetua < urthatua (GGero 110); ik. § 5.3.3.
dagoana ta egongo dana < dagoena eta egon dena (GGero 110).
noraco da = GGero 110.
- 8-243 *bere azquenean < bere azquen finean (GGero 110).*
cer itandu < cer galdeguinic (GGero 110); ik. § 5.2.16.
- 8-244 *becatuan < beccatutan (GGero 110).*
- 8-245/246 *cein pisutsua dan, ain pisutsuago da becatua < cein pisu den, are beccatua baita pisuago (GGero 110). Egitura bitxia eratu du Añibarrok, jatorrizkoa ordezkatu beharrez, cein... ain... eskemari atxiki baitzaio, ain berdintasunezko konparazioan bakarrik itxaron daitekeela ohartu gabe.*

Bada zuc, igaro dirian urte guztietan beimbere ondo confesatu baga, becatuan gogorturic ta ardura baga zagozan orrec: certara etorrico zareala uste dozu? Celan dozu esperanza, icharomena salvetaco? <88> Eztaquizu, mundu onetaco aldia daguizunean Infernua zuretzat dagoala? Zu lacoac gaitic esaten dala: jausi cirian arri astun bat leguez ondarrera?

Bada onela, ezta guerotic guerora ibilli bear. Ezta dempora lucean becatuan iraun ta egon bear. Cerren a egotea da gure zorigaistoco galdugarria, ondamentia. Andic erne, sortu, jaioten da usadioa; usantzatic eder-erechitea, eder-erechitic bildurra galtzea; bildur ta ardurea galdutetic ez sentitzea; ez sentietaric itsututea, gogortutea; ta azquenean, lotsea galduric, atan preciatutea, poztutea, eta vaneria ta atseguña erechitea. Eta andic ara, guerorengo agaz conturic ez eguinic, deunguero dago, urrin dago, illaren antzecoa eguiten da.

- 8-247 *guztietan* < *guztiotan* (GGero 110).
 8-247/248 *becatuan* < *beccatutan* (GGero 110).
 8-248 *ardura baga* < *ez ansiaturic* (GGero 110).
 8-248/249 *certara etorrico zareala uste dozu?* < *certan baratu uste duçu?* (GGero 110).
 8-249 *Celan* < *Nolatan* (GGero 110).
esperanza, icharomena < *esperantça* (GGero 110).
Eztaquizu < *Eztacusaçu* (GGero 110).
 8-250/251 *Zu lacoac gaitic esaten dala* < *Çu beçalacoez erraiten da* (GGero 110).
 8-251 *arri astun bat leguez* < *harria beçala* (GGero 110); ik. § 5.4.2.
 8-252 *Bada onela* < *Beraz, hunelatan* (GGero 110).
dempora lucean < *dembora luceaz* (GGero 110).
 8-252/253 *becatuan* < *beccatutan* (GGero 110).
 8-253 *iraun ta egon* < *egon* (GGero 110). *ta egon*: gainean erantsia.
zorigaistoco: Añibarroren eransketa.
 8-253/254 *galdugarria, ondamentia* < *galgarria* (GGero 110).
 8-254 *erne, sortu, jaioten* < *sortcen* (GGero 110). *erne*: aurean *dator ta er]* (*erne?*), ezabatua.
usadioa; usantzatic < *usantça; usantçatic* (GGero 110); ik. § 5.5.1.
erechitea: gainean, *estea*-ren orde; *eder-estea* azpimarratuta dago (= GGero 110).
 8-255 *erechitic*: gainean, *estetic*-en orde; cf. *eder-estetic* (GGero 110).
bildurra galtzea: gainean, *ez antsiatzea*-ren orde (= GGero 110); hau azpimarratua baina ezabatu gabe dago.
bildur ta ardurea galdutetic: gainean, *ez antsiatetic*-en orde (= GGero 110), baina hau ezabatu gabe.
 8-256 *sentietaric*: sic; cf. *sentietea* (20-87, 41-98) eta ik. § 4.3.9.
 8-256/257 *atan preciatutea* < *hartçaz preçatcea* (GGero 110).
 8-257 *poztutea* < *loriatcea* (GGero 110).
eta: gainean erantsia, *ta*-ren orde; ik. § 4.2.12.
vaneria ta atseguña < *sendagailla* (GGero 110).
andic ara < *handic harat* (GGero 110).
 8-257/258 *guerorengo agaz conturic ez eguinic* < *hartaraz guero, eztaquiçula* [< *eztaguiçula, Gero 110*] *hartçaz conturic* (GGero 110). *guerorengo*: ik. 23-37. oh.
 8-258 *deunguero dago, urrin dago* < *gaizqui da, hurran da* (GGero 110); ik. § 5.3.4.
illaren antzecoa < *hillaren pare* (GGero 110).

9. BURUA

*Guerotic guerora gabiltzala, bete diteque becatuen
neurria ta osotu contua.*

1 §.

- 5 Diño Salomonec, Jangoicoaz verba eguiten dabela (Sap. 11): Jauna, zure
gubernua ta ordenamentua ain da andia eta ain aurretic prestatu, eldu ta za-
balduten da, ce munduco gauza guztiac contuan, pisuan ta neurrian eguiten
dozuz. Pisua ta balanza dira Jaunaren juicioac, ezcutapenac ta sentenciac
10 (Eccl. 11). Ez da guichituteric, ez gueiagotuteric; ezta lar gueieguiric, ez es-
cas laburric; ezta jaquinecic, ez ez neban usteric. Guztiac dacus, guztiac da-
quiz, ta guztiac berac bere escuz, bere vorondateaz batera, bear dan leguez

-
- 9-2 *Guerotic... < Nola guerotic... (GGero 111).
gabiltzala: aurrean dabilela, ezabatua, < gabiltçala (GGero 111).
bete diteque < betha ditequeyen (GGero 111).*
- 9-5 *Jangoicoaz < Iaincoarequin (GGero 111).*
- 9-6/7 *aurretic prestatu, eldu ta zabalduen da < aitcina helcten eta hedatcen da (GGero
111); aitcina atxina bailitza itzuli duela dirudi. prestatu: gainean erantsia.*
- 9-7 *ce < non (GGero 111).*
- 9-8 *ezcutapenac: Añibarroren eransketa; cf. VB ezcutapena (c.) “mysterio”.*
- 9-9 *Ez da: leh. Ezta, < Ezta (GGero 111).
ez gueiagotuteric < eta ez berretceric (GGero 111).
lar gueieguiric < soberaniaric (GGero 111).*
- 9-9/10 *ez escas laburric < eta ez escasiaric (GGero 111).*
- 9-10 *jaquinecic < ignorantiaric (GGero 111).
ez ez neban: leh. ez en] (eneban?), < ez ez nuen (GGero 111).
dacus < dacusqui (GGero 111). Lehen begiratuan, aditzak plural marka falta duela di-
rudi (dacusaz?), baina beste lekukotasunik aurkitu ez dudanez (cf. GB 65, non ez
den kontua garbitzen), zalantza utziko nuke ez ote den dacus + plur. -z bilketaren
ondorena, dacutsu (dacus + zu)-ren antzera.*
- 9-11 *vorondateaz batera < ordenamenduaren arauaz (GGero 111).
bear dan leguez < behar beçala (GGero 111).*

zucendu ta disponduten dituz. Ain artez, zucen, banaca, era on, ciur ta men daqui Jangoicoac gauza guztien barria ece, gure buruco ulleac bere contuac ta neurtuac dituz; ta ez jatzu bacho bere ac jaquin baga galduten, <89> 15 ascaturen, ez jausten. Baita baqui cembatera elduco dan Cerura edo Infernura joan dirianen neurria. Eta berac bacarric daqui, ta ez bestec. Dau guztien contua ta neurria, ta neurri ciur segurua. Alan diño ta iracasten dau Santo Tomas Eleasaco Dotore ta argui arguitariac (1 p. q. 2, art. 2).

Becatua ta becatuzco obrac badoguz gueure gueureac ta gueuc eguiñac; 20 alacoz ece, diño Jangoicoac Oseas profeta santuaren aotic (cap. 13): Israel —au da, cristiñaua— ceure galdutea ceuc ceuganic dozu; ondu ta obetutea, barriz, niganic. Becatua ceurea da, parcaciñoa enea.

Baña orrez guztiaz, baqui Jangoicoac gure becatu guztien barria ta neurria; baqui cembat eguingo dogucen ta cembateguiño ichadongo deuscun.

-
- 9-12 *zucendu ta disponduten dituz < quidatceintu (GGero 111). artez... ta men < chehero, bat-banaca, bere gainqui eta bereciqui (GGero 111). ciur ta men: gainean, ta ziurtasunaz-en orde; honek azaltzen du zergatik era on atzizkirik gabe dagoen.*
- 9-13 *barria < berri (GGero 111). ece < non (GGero 111).*
- 9-13/14 *contuac ta neurtuac < contuac (GGero 111).*
- 9-14 *dituz < baitadutça (GGero 111). bacho bere < batere (GGero 111).*
- 9-14/15 *galduten, ascaturen, ez jausten < gaitcen eta ez erortcen (GGero 111).*
- 9-15 *Baita baqui < Are badaqui (GGero 111); ik. § 4.3.10.13.*
- 9-15/16 *cembatera elduco dan... neurria < cenbat parabisuraco diren, eta bai cenbat ifernuraco diren ere (GGero 111). joan: aurrean eldu, ezabatua. dirianen: jat. dirianean (arg. zuz.).*
- 9-16 *berac bacarric daqui < harc berac daqui (GGero 111-112). berac: aurrean ac, ezabatua. Dau < Badu (GGero 112); ik. § 5.1.3.6.*
- 9-17 *contua ta neurria < contua (GGero 112). neurri ciur segurua < contu segura eta guerthua (GGero 112). diño ta iracasten dau < erraiten du (GGero 112).*
- 9-17/18 *Santo Tomas... argui arguitariac < San Thomasec (GGero 112).*
- 9-18 *art. 2 < art. 7 (GGero 112).*
- 9-19 *badoguz < baititugu (GGero 112).*
- 9-20 *alacoz ece < Halaco moldez, ecen (GGero 112). Jangoicoac < Iaincoac berac (GGero 112); ik. § 5.1.2.3. profeta santuaren aotic < propheta baithan (GGero 112).*
- 9-21 *au da, cristiñaua < guiristinoa (GGero 112). ceuc ceuganic dozu < ceureganic (GGero 112); ik. § 5.1.2.5.*
- 9-21/22 *ondu ta obetutea, barriz, niganic < erremediatcea duçu eneganic (GGero 112).*
- 9-22 *ceurea < çurea (GGero 112); ik. § 5.1.2.4. parcaciñoa enea < barcamendua da enea (GGero 112). enea: gainean erantsia, neurea-ren orde; ik. § 4.3.7.*
- 9-23/24 *neurria < contua (GGero 112).*
- 9-24 *ta cembateguiño < eta bai cenbateraiño (GGero 112); ik. § 5.2.6. deuscun < çaitçun ere (GGero 112).*

- 25 Alan iracasten dau San Agustinec (lib. vit. Christian. tom. 9): Jaquin daigun gauza bat, diño, eta da, ichadoten deutsela bacochari Jangoicoaren pacienciac, bere becatuen neurria bete artean, contua cumpli arteraño; ta au cumpli, bete ezquero, eztabela gueiago ichadoten, eztala icharomen, ez parcaciñoric cer erdetsiric. Baqui Jangoicoac cembatera elduco dan gure becatuen
- 30 muga, marra, neurria ta contua; eta bai ce andiac ta celangoac izango dirian bere. Eta ichiten deuscu neurri au betetan, cumpli ta osotuten. Erabaguiric dauco onembesteguiño ichadongo deuscula. Permitti, larga ta laquetuten dau eun edo berreun becatu eguin daguiguzan; edo guichiago, edo gueiago, berac daqui cemat: muga ifiniric dauco; ta eztau gura andic achina edo aurrera igaro gaitecen. Job santuaren aotic <90> emoten dau onen adieranza bat, esanic (Job 38): Inguratu neban ichasoa neure muguez ta mugarriz; ifini neutsan ate-sarrallea ta esan neutsan: Oneguiño, costaraiño etorrico zara, ta ez aurrerago; emen gueldituco zara, emen ausi, istanda ta irardausico dozuz

-
- 9-25 *iracasten dau*: gainean, *diño*-ren orde, < *erraiten du* (GGero 112).
- 9-26 *diño, eta da*: Añibarroren eransketa; tarte honetan *sentitcoa* [sic] irakurtzen da (GGero 112), *sentitcecoa* baita-ren orde (Gero 112).
- 9-27 *bete artean < bethe arteiño* (GGero 112).
cumpli arteraño < compli arteiño (GGero 112).
au < hura (GGero 112).
- 9-27/28 *cumpli, bete ezquero < complituz guero* (GGero 112).
- 9-28 *eztabela gueiago ichadoten < eztela guehiago iguriquitceric* (GGero 112).
- 9-28/29 *eztala icharomen... cer erdetsiric < eta ez barccamendu erdiesteric* (GGero 112); ik. § 5.2.16.
- 9-29/30 *Baqui Jangoicoac cembatera elduco dan... contua < Badaqui laincoac contua, cenbat beccatu eguinen ditugun* (GGero 112). *marra*: gainean, *ta*-ren orde.
- 9-30/31 *eta bai ce andiac ta celangoac izango dirian bere < eta bai cein handiac eta nolacoac ere* (GGero 112-113).
- 9-31 *ichiten deuscu... osotuten < utzten gaitu contu haren complitcera, neurriaren bethatcera eta mucurutcera* (GGero 113).
- 9-31/32 *Erabaguiric dauco < Deliberatua daduca* (GGero 113); ik. § 5.1.3.1.
- 9-32 *onembesteguiño < anarteraño* (GGero 113).
ichadongo deuscula < iguriquitceco (GGero 113).
Permitti, larga ta laquetuten < Permitticen (GGero 113). *larga ta*: gainean erantsia.
- 9-34 *muga < chede*a (GGero 113).
ifiniric dauco < ibenia daduca (GGero 113); ik. § 5.1.3.1.
andic < hartaric (GGero 113).
- 9-34/35 *achina edo aurrera < aitecinago* (GGero 113).
- 9-35/36 *Job santuaren aotic... esanic*: Añibarroren eransketa.
adieranza: VB (c.) “alusión”, “significanza”, etab. (< *HH*).
- 9-36 *neure muguez ta mugarriz < neure muguez eta mugarriez* (GGero 113).
- 9-37 *ate-sarrallea < athe-sarrailla[c]* (GGero 113). VB “cerradura: c. *sarralla*”.
Oneguiño < Huneraiño (GGero 113).
costaraiño: leh. *costaraño*.
- 9-38 *ausi, istanda ta irardausico dozuz < hautsicoituçu* (GGero 113).

40 ceure ecachac, bitzac, bagac, olatu arro andituac. Ichasoac, aserre danean, aldi charra dabenean, goi-berac dituenean, dirudi ta esan lei ito, ondatu ta irunsi gura dabela mundua. Orduan alaco moldez iraquiten dau non, baldin bridaric ta locarriric ezpaleu, Jaunaren aguintaritzaren bean ta azpian ezpalego, lur guztia estalduco leuque. Baña Jeremias profeteac diñon leguez (cap. 5): Bauco ichasoac bere marra, bere mugarri jaquina, cein dan costa, ta 45 costaco area ta lurra. Emen austen da, emen gueldituten da, emen, arro soberbiatsua bada bere, baquetu ta sosegatzen da.

Bada, ichasoari leguez ifini deutso Jangoicoac guizonari bere, beragan danez bere neurria; neurtu ta señalatu deutso noguiño izango dan bere eldutea, bere muga, marra ta neurria. Eta gura baleu bere, ecin ataric aurrera joan ta igaro liteque. Abiatu liteque, gura izan lei, baña alperric. Cerren guizonac 50 libertade ta baimena, gura badau, ondo edo deunguero eguiteco euqui arren,

- 9-39 *ceure ecachac... andituac* < *ceure uhinac eta hola hantu urguilluac* (GGero 113). *bitzac*: cf. VB *bitza*, *-tsa* (b. g.) “espuma”. *bagac*: gainean erantsia. *arro*: aurrean *jas]* (*jaso?*), ezabatua.
- 9-40 *aldi charra dabenean* < *bere gaitz aldiac dituenean* (GGero 113). *goi-berac dituenean*: Añibarroren eransketa. *dirudi ta esan lei* < *badirudi* (GGero 113).
- 9-40/41 *ito, ondatu ta irunsi gura dabela* < *iretsi behar duela* (GGero 113).
- 9-41 *alaco moldez* = GGero 113; cf. halaber 11-335; gainerantzean, *alacoz* itzuli ohi du (ik. 6-57, 8-109 eta 9-20. oh.).
- baldin*: gainean erantsia; cf. *non baldin* (GGero 113).
- 9-42 *bridaric*: ondoren *ez*, ezabatua; cf. *bridaric ezpalu* (GGero 113).
- 9-42/43 *Jaunaren aguintaritzaren bean ta azpian ezpalego* < *manatua ezpalego* (GGero 113).
- 9-43 *estalduco leuque* < *estal bailleçaque* (GGero 113).
- 9-44 *Bauco* < *Badu* (GGero 113); ik. § 4.3.10.13. *bere marra, bere mugarri jaquina* < *bere chedea, bere marra, bere mugarri eta cedarri iaquina* (GGero 113).
- 9-45 *area ta lurra* < *sablea, harea eta legarra* (GGero 113). *Emen* < *Han* (GGero 113); ik. § 5.1.2.1.
- 9-45/46 *arro soberbiatsua bada bere* < *gaitzago eta urguilluago bada ere* (GGero 113).
- 9-46 *baquetu*: aurrean *bigundu*, eta ondoren *gozot]* (*gozotu?*), ezabatuak, < *ematcen* (GGero 113).
- 9-47/48 *beragan danez* < *bere arauaz* (GGero 114).
- 9-48 *neurria* < *cedarria* (GGero 114). *neurtu ta señalatu* < *señalatu* (GGero 114).
- 9-48/49 *noguiño izango dan bere eldutea* < *noreraiño hel* (GGero 114). *noguiño*: ondoren *el]* (*eldu?*), ezabatua.
- 9-49 *bere muga, marra ta neurria* < *bere chedea, bere mugarria eta marra* (GGero 114). *gura baleu bere* < *nahiago badu ere* (GGero 114). *gura*: aurrean *gueiago*, ezabatua.
- 9-49/50 *ecin ataric... igaro liteque* < *eztiteque marra hartaric aitcinago iragan* (GGero 114).
- 9-50 *Abiatu liteque* < *Enseia ahal diteque* (GGero 114). *Abiatu*-ren esanahiaz ik. 6-122/123. oh. *gura izan lei* < *desira ahal deçaque* (GGero 114); ik. § 5.1.3.12. *gura*: aurrean *euqui arren*, ezabatua.
- 9-51 *libertade ta baimena* < *libertatea* (GGero 114).

55 eztator, ez, andic, ezpada becatuac bere vorondatez ta nai-guraz eguiten dituela; baña ez, gura dituzan becatu guztia eguin leiquezala, eta ez libertade ta gura izate ari, gura daben guztia iraunerazo al leiola. Cerren libertade onen
 60 aguintaria ta nagusia da Jangoicoa. Berac libertade oni ta onen iraupenari, guichien uste dabenean becatariac, indarric eguin бага, ichi eraguiten deutso, artu ta daroian vide gaistoari. Asco estuten dau edo lotuten dau beretu batez aurrerago. Eta alan <91> icusico dozuz gende batzuc, neurria beteteaz contu guichi eguinic, becatuac becatuen ganean ardura бага eguiten dituela; eta ain cin-cinez ta vorondatez, ece iruditzen jaque ya an diriala, ta ara eldu-

-
- 9-52 *edo deungero < eta nahi badu gaizqui (GGero 114); ik. § 5.5.1. euqui arren < ičanagatic ere (GGero 114); ik. § 5.1.3.9. eztator, ez, andic < ezta, ez, handic seguitcen (GGero 114); ik. § 5.3.2. eztator: leh. ezta.*
- 9-53 *ezpada becatuac < bai beccatuac (GGero 114). bere vorondatez ta nai-guraz < librequi eta bere nahiz (GGero 114); ik. § 5.1.4. gura dituzan becatu guztia < nahi duen bečanbat beccatu (GGero 114); ik. § 5.3.4. becatu guztia: leh. aimbeste becatu.*
- 9-53/54 *leiquezala < deçaqueyela (GGero 114); ik. § 5.1.3.12. libertade ta gura izate < libertate (GGero 114); ik. 9-51. oh.*
- 9-54 *gura daben guztia < nahi duen bečanbat (GGero 114). iraunerazo al leiola < irauñ araci ahal diaçayola (GGero 114).*
- 9-55 *onen: aurrean aren, ezabatua, < haren (GGero 114); ik. § 5.1.2.1. aguintaria ta nagusia < gaiñeco eta nabusi (GGero 114). da: ganean, da ezabatu, Jangoicoa-ren ondoren ipini eta damututa; Axularrek daka-rren leku berean utzi du azkenik; ik. § 5.2.1.1. Berac < Harc (GGero 114); ik. § 5.1.2.3. oni ta onen < hari eta haren (GGero 114).*
- 9-56 *becatariac: Añibarroren eransketa.*
- 9-56/57 *ichi eraguiten deutso < utzaraci diaçayo, hers eta traba (GGero 114).*
- 9-57 *artu ta daroian < daraman (GGero 114).*
- 9-57/58 *Asco estuten dau... aurrerago: pasarte ustel hau azpimarratuta dago, ziurrenik noiz-bait zuzentzeko asmoz, artean hainbat zuzenketa eginda, eta denak okerrerako: estuten esten-dik abiatuta moldatu du, eta halaber beretu, -tu ganean erantsiaz; lotuten dau-en ere, -ten hitz artean eta dau ganean erantsita daude. Hauxe da jatorrizkoa: Asqui esten du edo sobera esten du, bere batez aiticinago (GGero 114), hots, “Aski dela deritza edo sobera dela, batez ere aurrerantzerako” (cf. Villasantereñ itzulpena, 1976: 126) edo, agian hobeto, “... puntu batetik aurrera”.*
- 9-58 *gende batzuc < iende thailu batçuc (GGero 114).*
- 9-59 *becatuac... eguiten dituela < abiadura handi batequin beccatu guehiago eguitera abiatcen eta erdutcen direla (GGero 114).*
- 9-60 *cin-cinez < cinez (GGero 114). vorondatez < deliberatuqui (GGero 114). ece < non (GGero 114). iruditzen jaque < iduritcen baitçaye ecen (GGero 114). ya: ja edo ia gainidatzia, < ia (GGero 114); cf. 3-140. oh.*
- 9-60/61 *ara eldutea... atzeratuco leicela < deusec ere hara heltcetic ecin guibela ditçaqueyela (GGero 114). ecin: ganean erantsia. leicela: aurrean eztituela, ezabatua, eta gero leiquezala. Esaldia dagoen moduan, eragotzi-k eragin bide duen eldutea < heltcetic aldaketarekin, bi osagarri zuzen daude: eldutea eta leicela-k islatzen duen pluralekoa (gende batzuc).*

tea ecerc ecin eragotzico ta atzeratuco leicela. Baña icusico dozuz alambere, nos eta gogo eguiazcoagoa atan ifini ta atara prestatu ta abiatuten dirianean, ordu berean, dala gaissotasunez, dala jaustez, dala eriotzeac arturic, bere becatua eguitemo gogoaz, bide erdian gueldituten diriala. Alan jazoco jacón
65 Faraon erregueari, Israeleco semeen contra ños baño gogo andiangoaz joiala, esaten ebala: Alcanzatu, atzemon, erdetsico dodaz, vengatuco nas, apurtuco dodaz, dirianac ezpataren ao zorrottic igaroco dodaz (Exod. 5). Bada, ordu berean, onela verba eguiten ebanean, becatuen neurria bete jacan, con-
70 tua osotu ta cumpli jacan, eta berun astuna balitz leguez ichasoco ondarrera jausiric, azquendu cituan bere egunac, bere gogo ta asmo uts ero arrotuac.

-
- 9-61 *alambere*: gainean, *orrez guztiaz*-en ordez, < *halaber* (GGero 114); ik. § 5.3.4.
9-62 *gogo eguiazcoagoa* < *gogoa cinecenic* (GGero 114); ik. § 5.2.8.
atan ifini ta atara prestatu ta abiatuten dirianean < *hartan ibenia baitaducate eta las-
terrenic baitoaci* (GGero 114). *ifini*: leh. *ifinten daben*. *ta atara*: gainean erantsia.
dirianean: leh. *dirian*; honela jatorrizko *noiz eta... bait- nos eta... -nean* egitura
erredundante bilakatu du (ik. § 5.2.9).
9-63 *ordu berean* < *orduan berean* (GGero 114).
dala: aurrean *ed[o]*, ezabatua; Axularrek *edo... edo...* darabil hemen (GGero 114).
dala jaustez < *edo incontruz, edo estropuz* (GGero 114).
arturic < *atrapatuz* (GGero 114-115); ik. § 5.5.1.
9-63/64 *bere becatua eguitemo gogoaz* < *bere beccatu eguitemo gogoarequin* (GGero 115).
9-64 *bide erdian* < *bidatz erditan* (GGero 115); ik. § 5.1.1.4. *bide*: leh. v-.
diriala: gainean *dira*, bata ez bestea ezabatu gabe, < *direla* (GGero 115).
jazoco jacón < *guerthatu ceican* (GGero 115).
9-65 *Faraon erregueari* < *erregue Pharaoni* (GGero 115); ik. § 5.1.1.2.
ños < *egundaiño* (GGero 115).
gogo andiangoaz < *deliberamendu handiangoarequin* (GGero 115).
9-65/66 *joiala* < *cihoanean* (GGero 115); ik. § 5.2.14.
9-66 *Alcanzatu, atzemon, erdetsico dodaz* < *Erdietsicoitut, atrapatuicoitut* (GGero 115). *Al-
canzatu*: aurrean *erd*] (*erdetsico?*), ezabatua.
vengatuco nas < *aspertuco natçaye* (GGero 115).
9-66/67 *apurtuco dodaz*: Añibarroren eransketa.
9-67 *dirianac* < *guztiac* (GGero 115).
ao zorrottic < *ahotic* (GGero 115). *zorrottic*: cf. *biotzco* ere (5-29. oh.).
igaroco dodaz: leh. *igaro bearco dabe*, < *iraganeintut* (GGero 115).
9-68 *ordu berean* < *orduan berean* (GGero 115).
verba eguiten ebanean < *mintço cenean eta cihoane[a]n* (GGero 115).
becatuen: Añibarroren eransketa, lerro gainean egin.
9-69 *cumpli* < *complitu* (GGero 115); ik. § 5.1.3.2.
berun astuna balitz leguez < *veruna beçala* (GGero 115); ik. § 5.4.2.
ichasoco ondarrera < *itsas ondarrera* (GGero 115); ik. § 5.1.1.8.
9-70 *azquendu cituan bere egunac* < *bere egunac accabatu ceitçan* (GGero 115); ik. §
5.2.1.1.
bere gogo... arrotuac: Añibarroren eransketa. *ero*: leh. *eroa[c?]*.

2 §.

Ichasoco ontzi andiac pisu ta carga andia jasoten dau. Erdiguiño beteagaitic, ichas ganean dabil. Iru laurenac bete arren, oraindo icusten da, aguiri da. Guztia bete dedieñean, ondatu ta itoten da, orduan estalduten da. Cerren ezta sobraric, lar gueieguiric ganez eraguin ecin leionic; ezta bere neurria baño gueiago artu ta cabitu leienic. Bada, berberau jazoten jatzu, zure becatuen cargaz astunduric, zuri bere. Eguiten dozuz ogeui becatu mortal edo eriozcoac, ta oraindiño vici zara, ichadoten deutsu Jangoicoac. Eguiten dituzuz berrogeui, ta oraindiñocorren bere ichadoten deutsu. Eguiten dozuz irurogeui ta, orrez guztiaz bere, paciencia dau, sufritzen zaitu. Eguiten dozuz laroguei, ta orduan betetan da neurria, orduan bete-betean dago, orduan ganez eguiñic, ontzia ondarrera leguez, zu bere Infernuco <92> zulora jausi ta ondatuten zara.

Baña eztot, ez, onetan esan gura ichadoten dabela nolana beti Jangoicoac, laroguei becatu eguin artean; eztot esan gura eztala orduguiño neurria beteten, ta ez orduan bere beteten dala. Bada, izanic asco ta lar becatu mor-

- 9-72 *ontzi andiac < untciaic, barcca handiac (GGero 115).
pisu ta carga andia jasoten dau < anhitz daduca, carga handia iasaiten du (GGero 115). pisu: ganean, zabalera-ren ordez. dau: aurrean dabe, ezabatua.
Erdiguiño < Erditaraiño (GGero 115).*
- 9-73 *dabil: leh. dabiltz, < dago (GGero 115).
bete arren < betheagatic ere (GGero 115).*
- 9-73/74 *oraindo icusten da, aguiri da < badabilla, oraiño agueri da (GGero 115).*
- 9-74 *ondatu ta itoten < hondatcen eta ondoratcen (GGero 115).*
- 9-75 *ezta sobraric... ecin leionic < ezta soberaniac ganez eraguin eztiacayonic (GGero 115). Gaizki ulertu edo gaizki adierazi du jatorrizko ideia. leionic: leh. leiquionic.
ezta: ez da ondo irakurtzen, baina cf. ezta (GGero 115); Urquijok ere (1924: 679) halaxe dakar.*
- 9-76 *artu ta cabitu leienic < daducayonic (GGero 115).
zure < ceure (GGero 115); ik. § 5.1.2.4.*
- 9-77 *cargaz astunduric < cargarequin (GGero 115).*
- 9-77/78 *oguei becatu mortal edo eriozcoac < hogoy beccatu mortal (GGero 115).*
- 9-79 *oraindiñocorren: ik. 12-191. oh.
ichadoten deutsu < utzten çaitu (GGero 116).*
- 9-80 *paciencia dau < badu pacientcia (GGero 116); ik. § 5.1.3.6.
sufritzen zaitu < pairatcen derauzquitçu (GGero 116).*
- 9-81 *bete-betean dago: ganean, neurtu [ganean neurri] ten da-ren ordez, < mucurutcen da (GGero 116).*
- 9-82 *ondarrera < ondara 'ondora' (GGero eta Gero 116; cf. Villasante 1976: 126, 44. oh.).
zulora < çolara (GGero 116); ik. § 5.3.4.*
- 9-82/83 *jausi ta ondatuten < erortcen (GGero 116).*
- 9-84 *nolanahi: Añibarroren eransketa.*
- 9-85 *artean < arteiño (GGero 116).
eztala orduguiño < eztelatan [sic] arteraiño (GGero 116) < eztela an arteraiño (Gero 116).*
- 9-86 *beteten: leh. betetan, lerroko bi agerraldietan; ik. § 4.3.9.*

tal bacar bat Infernura joateco, menturaz asco izango dira becatu bacar bate-
 gaitic an dagozanac, beragaz bacarric bete zalaco neurria. Lapur batzuc la-
 purqueria asco eguin ezquero urcatuten dituez ta, barriz, beste batzuc
 90 bertatic bat eguiñic lotuten dituez. Auxe bada, jazo, guertatzen jaque becatu
 asco edo guichigaz Infernura doazanai bere. Batzuei ichadoten deutse Jan-
 goicoac lucero; ta beste batzuei ez aimbeste. Eta cergaitic ez? Danic becatu
 mortal chiquiena bere eguiten, bildur izan gaitecen gaitic; bada beronegaz
 95 neurria bete diteque. Eta, alan, diñodanean larogueti becatuaz neurria bete-
 tzen dala, bardin esan nei lenengoaz, bigarrenaz edo irugarrenaz bete leite-
 quela. Bada nic bacarric bardinza onegaz adierazo gura dot badala becatue-
 tan neurri bat ta aurrera ez igaroteco muga bat, marra bat, contu bat. Eta
 lenengo becatua eguitearena bere bai; baña guztiz bere, andic ara urrengoaz

-
- Bada < Aitcitic (GGero 116).*
izanic asco ta lar < nola asco baita (GGero 116); ik. § 5.2.18.
 9-87 *bacar bat < bat (GGero 116).*
asco izango dira < bada]f cenbait (GGero 116).
 9-87/88 *bacar bategaitic < bat beragatic (GGero 116).*
 9-88 *an < ifernuan (GGero 116).*
dagozanac < dagoenic (GGero 116).
beragaz bacarric < beccatu batez (GGero 116).
bete zalaco neurria < neurria bethe duenic (GGero 116).
 9-88/89 *lapurqueria asco eguin ezquero < anhitz ohoinqueriaren buruan (GGero 116).*
 9-90 *bertatic < berehala (GGero 116).*
bat eguiñic < lehenbicoan (GGero 116).
lotuten dituez < dira atrapatuac (GGero 116).
Auxe < Hala (GGero 116).
bada, jazo, guertatzen jaque < guerthatcen çaye, bada (GGero 116).
 9-91 *asco edo guichigaz < anhitzequin edo gutirequin (GGero 116).*
doazanai < ioaiten direney (GGero 116); ik. § 5.1.3.7.
 9-92 *ez aimbeste < ez hanbat (GGero 116).*
 9-92/93 *Danic becatu mortal chiquiena < Den beccatu mortalic ttipienaren (GGero 116).*
 9-93 *eguiten, bildur izan gaitecen gaitic < eguitera, veldur garen amoreac gatic (GGero*
 116).
 9-93/94 *bada beronegaz neurria bete diteque < hartçaz neurria betha ditequeyenaz gueroztic*
 (GGero 116). *bada beronegaz: gainean, agaz-en orde.*
 9-94 *larogueti becatuaz < lauretan hogoy garren beccatuaz (GGero 116); ik. § 5.1.1.10.*
 9-95 *bardin < orobat (GGero 116).*
esan nei < derraquet (GGero 116); ik. § 5.1.3.7.
 9-95/96 *leitequela < ditequeyela (GGero 116); ik. § 5.1.3.12.*
 9-96 *bacarric: Añibaroren eransketa.*
bardinza: leh. irudinza, < comparaciño (GGero 116).
onegaz < hunetan (GGero 117).
adierazo gura dot < erran nahi dudana da (GGero 117).
 9-97 *ta aurrera ez igaroteco < badela ez aitcinago iragaiteco (GGero 117).*
muga bat, marra bat, contu bat < marra bat eta contu bat (GGero 117).
 9-98 *eguitearena: leh. eguiterena, < eguitera (GGero 117); 'egitearen beldurra', alegia; hu-*
 rrengoan (9-99. oh.) *eguiteco jarri du; ik. § 5.1.1.8.*

eguiteco bildur izan bear gareala: cerren onegaz, lenengoaz eguin eztana,
100 bete liteque neurria.

Eta emetic atera guiñei ta icasi gauza asco. Lenengoa, zu ta ni eguiaz
zordun gareala gueure Jangoicoari. Bada ameneco asco dagoz orain Infer-
nuan, guc orainguiño eguin doguzan becatuac baño guichiagogaz; ta guc
gueureac oraiño, gueiago balira bere, Jangoicoaz batean erremedia guiñeiz.
105 Bigarrena, icasi guiñei emetic beti euqui bear dogula bildurra ta <93> atze-
rapena becatu eguiteco: cerren eztaquigu ceñaz zarratu, erabagui, bete, neur-
tu ta ichico dan contua, lenengo eguiten dogunaz, ala bigarrenaz. Eta guztien
buruan icasi guiñei ta atera onetario, zoraqueria andia dala guc gueure bu-
ruan daroaguna ta esan oi doguna: becatuac ichiten ta obra onac eguiten guero
110 asico gareala. Bada gogoratu bear guenduque badala becatuetan neurri
bat, contu ciur bat, ta guc disponduten dogun guero atara eldu baga, a con-
tua cumpli diteque ta neurria bete.

-
- 9-99 *eguiteco bildur izan bear gareala < eguitera behar dugula içan veldur (GGero 117).
onegaz < hartçaz (GGero 117).
lenengoaz eguin eztana < lehenaz eguin eztena (GGero 117).*
- 9-100 *bete liteque neurria < neurria betha baititeque (GGero 117).*
- 9-101 *emetic < hunetario (GGero 117).
atera guiñei < athera ahal deçaquegu (GGero 117).*
- 9-101/102 *zu ta ni eguiaz zordun gareala gueure Jangoicoari < cinez gatçaitçala çu eta ni ere
çordun gueure laungoicoari (GGero 117); datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).*
- 9-102 *ameneco < venturaz (GGero 117).
asco dagoz < anhitç baitago (GGero 117).*
- 9-103 *eguin doguzan becatuac baño guichiagogaz < eguin dugun baiño beccatu gutiagore-
quin (GGero 117).*
- 9-104 *Jangoicoaz batean < Iaincoarequin batean (GGero 117).
guiñeiz: leh. guiñeiguz, < baititçaquegu (GGero 117).*
- 9-105 *Bigarrena < Halaber, bigarrena (GGero 117).
icasi guiñei < iccas ahal deçaquegu (GGero 117).
emetic < hunetario (GGero 117).
beti < bethi ere (GGero 117).
euqui bear dogula bildurra < behar dugula içan veldur (GGero 117). euqui: aurrean
bildur izan bear gareala, ezabatua.*
- 9-105/106 *atzerapena < herabe (GGero 117).*
- 9-106 *becatu eguiteco < beccatu eguitera (GGero 117).
ceñaz < ceñez (GGero 117).*
- 9-106/107 *zarratu... ta ichico dan contua < cerratcen den contua (GGero 117). erabagui, bete,
neurtu: gainean erantsiak.*
- 9-109 *esan oi doguna < erraiten duguna (GGero 117); ik. § 5.1.3.13.*
- 9-110 *gogoratu < pensatu (GGero 117).*
- 9-111 *ciur: gainean, jaquin-en ordeç (= GGero 117), baina hau ezabatu gabe.
disponduten < destatcen eta ordenatcen (GGero 117).*
- 9-112 *diteque: aurrean leite], ezabatua, < ditequeyela (GGero 117); ik. § 5.1.3.12.*

3 §.

Diño Aristotelesec ta oni darraioan filosofariac (2 ex anim. cap. 4, text.
 115 41) bici dirian gauza guztiac dauquela euren neurria euren anditasunean, ta
 bai chiquitasunean bere. Guizona ecin dateque cigarra adiña chiquia, ez ci-
 garra bere guizona dun beste andi. Eta bici dirian gauza guztiac daben leguez
 euren anditasun ta chiquitasunean euren puntua, gueldiera, para ta neurria,
 alan dauque euren iraupenean bere euren demporea. Dempora bateguiño
 120 irauñ al leie, ta ez gueiago: andic ara doaz jatsiaz, azquenduaz ta euren in-
 darrean argalduaz. Animalia, abere batzuc gueiago irauñten dabe besteac
 baño, ta arechac bere. Baña guztiac dauque euren dempora jaquin bat ta neu-
 rri bat. Onela bada, dauque becatuac ta becatariac bere euren neurria ta con-
 tua, cembatguiño elduco dirian, ta bai dempora bere nos artean irauñ. Eta au

- 9-114 *Diño... filosofariac < Erraiten du Aristotelec, eta hari iarraiQuitcen çaitça bertce philosopho guztiac ere (GGero 118). filosofariac: leh. filosofoac.*
- 9-115 *bici dirian < Biciten diren (GGero 118).
 dauquela: leh. dauque, < badute (GGero 118).*
- 9-116 *ecin dateque = GGero 118.
 adiña chiquia < beçain tipi (GGero 118); adiña-ren erabilera ezohikoa da, 'kantita-
 tea' adierazten baitu, eta ez 'maila' (cf. OEH, s.v., eta EGLU V 327), baina cf. VB
 "tan blanco como la nieve: b. edurra adiña, beste zuria; g. n. elurra bezain churia".
 Bizkaieraz baizen (baxen) esperoko genuke, baina Añibarro berandu (EL²-n) ohar-
 tu bide zen (cf. OEH, s.v. baizen 3 eta ik. § 5.3.4).*
- 9-116/117 *ez cigarra < eta ez cigarra (GGero 118).*
- 9-117 *dun beste andi < beçain handi (GGero 118); adiña-z esana (ik. 9-116. oh.) badagokio
 honi ere; dun beste-z beraz, ik. 0-153. oh.
 dirian gauza guztiac: leh. dirianac, < diren gauça guztiec (GGero 118).
 daben leguez < nola... baitute (GGero 118); ik. § 5.2.18.*
- 9-118 *anditasun ta chiquitasunean < handitasunean eta ttipitasunean (GGero 118). chiqui-
 tasan: leh. chiquitasunaren.
 puntua... ta neurria < pontua eta neurria (GGero 118). gueldiera, para: gainean eran-
 tsiak. gueldiera: VB (c.) "parada, acción de quedarse".*
- 9-119 *dauque < dute (GGero 118); ik. § 5.1.3.9.
 euren iraupenean < iraupenean (GGero 118).*
- 9-120 *irauñ al leie < irauñ ahal deçaquete (GGero 118).
 doaz < guztiac dohaci (GGero 118).
 azquenduaz < ahituaz (GGero 118).*
- 9-120/121 *indarrean argalduaz: leh. indarra galduaz, < indarrean flacatuaz (GGero 118).*
- 9-121 *Animalia, abere < Animalia (GGero 118).
 irauñten < irauten (GGero 118).
 besteac < bertce batçuec (GGero 118).*
- 9-122 *ta arechac bere < eta bai çuhaitzec ere (GGero 118). arechac: leh. arech ar] (arbo-
 lac?).
 dauque < dute (GGero 118).*
- 9-123 *Onela bada, dauque < Hala dute bada (GGero 118).
 euren neurria < bere areuas [sic, arauaz-en ordeç] bere neurria (GGero 118).*
- 9-124 *cembatguiño < cenbatetaraño (GGero 118). Lehenago cembateguiño (9-24).
 elduco dirian < hel (GGero 118).
 nos artean irauñ < noiz arteraño irauñ (GGero 118).*
- 9-124/125 *au demporau < dembora hura (GGero 118).*

- 125 demporau eldu ezquero, neurria bete ezquero, eztau Jangoicoac gueiago ichadoten. Alan adietan emoten dau Escritura santeac, esateaz (Esdræ 4, cap. 4): Zoaz ta itandu eguiozu seindun dan andreari, ea bederatzi ille beteac bete ezquero euqui al leienez seiña sabelean. Eranzungo deutsu ezetz. Ez eta beraz <94> Jangoicoac bere, becatuen neurria osotu, bete ezquero, ecin euqui
- 130 lei, bere justicia beragan danez, bere aserrea aguertu baga. Eta diño Isaias profeteac (cap. 38): Ichadoten dau Jangoicoac, gugaz misericordia euquiteco; adietan da ichadoten dabela baldin neurria bete ezpada, demporea cumplitu, eldu ezpada. Alan esan ta eguin bere eban Jangoicoac berac Noeren demporan araco uriola, urjola, ugolde andiaz mundua ito ta ondatu ebanean
- 135 (Genes. 6): Bete da lurra gaistaqueriaz, gaistotu dira guizacumeac, bete da maliciaz; eztá, bada, cer ichadon gueiago, ondatu ta galdu daiguzan lurraz batera. Eta alan ondatu ta galdu cituzan cirianac.

Lurraz batera ciñoan, bada lurra guelditu bazan bere, baña Glosac diñoenez (Glos. Lyr. cap. 6 genes.): Urjola agaz lurra bere meatua ta argaldua

- 9-125 *eldu*: gainean, lehen *cumpj* eta gero *bete*-ren ordez, < *complituz* (GGero 118).
- 9-126 *santeac* < *sainduac* (GGero 118).
esateaz < *erraiten duenean* (GGero 118).
- 9-127 *eguiozu*: leh. *eguizu*, cf. *galdeguioçu* (GGero 119).
seindun dan andreari < *emazte içorrari* (GGero 119).
- 9-128 *euqui al leienez* < *eduqui ahal deçaqueyenz* (GGero 119); ik. § 5.1.3.12.
deutsu: jat. *deutso* (arg. zuz.), < *deratçu* (GGero 119).
- 9-129 *osotu, bete ezquero* < *bethez guero* (GGero 119). *osotu*: leh. *oso*.
- 9-129/130 *ecin euqui lei* < *ecin daducayo* (GGero 119).
- 9-130 *bere justicia beragan danez* < *bere iusticiaren arauaz* (GGero 119); ik. § 5.3.4.
aserrea < *colera* (GGero 119).
diño < *erraiten badu ere* (GGero 119).
- 9-131 *gugaz* < *gutçaz* (GGero 119).
- 9-131/132 *euquiteco* < *içaiteco* (GGero 119).
- 9-132/133 *cumplitu, eldu* < *complitu* (GGero 119). *cumplitu*: leh. *cumpli*.
- 9-134 *araco uriola, urjola, ugolde andiaz* < *uholde handi harçaz* (GGero 119). *araco*: gainean erantsia. VB *diluvio: c. *ganezco urac*; b. *uriola, urjola*; g.n. *ugoldea*?; ik. § 5.5.3.
ito ta ondatu < *hondatu* (GGero 119).
- 9-135 *gaistotu dira guizacumeac*: Añibarroren eransketa.
- 9-135/136 *bete da maliciaz* < *mucurutu da maliciaz* (GGero 119).
- 9-136 *bada* < *beraz* (GGero 119).
cer ichadon gueiago < *cer guehiago iguriquiric* (GGero 119); ik. § 5.2.16.
- 9-136/137 *ondatu ta galdu daiguzan lurraz batera* < *ditçagun guztiac lurrarequin batean gal eta honda* (GGero 119); ik. § 5.2.1.1. *ondatu*: *aurrean gxj* (*galdu?*), ezabatua. *ta galdu*: gainean erantsia. *batera*: ondoan *galdu*, ezabatua.
- 9-137 *ondatu ta galdu* < *hondatu* (GGero 119).
cirianac: Añibarroren eransketa; c- gainean erantsia, d- (*dirianac*)-en ordez, baina hau ezabatu gabe.
- 9-138 *Lurraz batera* < *Eta lurrarequin batean* (GGero 119).
ciñoan < *erraiten du* (GGero 119); ik. § 5.1.3.7.
bazan: *aurrean balitz*, ezabatua, < *bacen* (GGero 119).
baña < *ordea* (GGero 119).
- 9-139 *Urjola agaz* < *Uholde hartçaz guero* (GGero 119).
meatua ta argaldua < *mehatua eta flacatua* (GGero 119).

- 140 guelditu zan. Gai onetara ezta deunguero eldu San Mateo Evangelariac ifinten daben bardintza bat (cap. 13), ceñaz baieztuten da, becatuetan leguez eguite onetan bere, neurria bete artean, osotu, zoldu ta eldu artean, ichadoten dabela Jangoicoac. Bardintza, irudintza au da era onetara: Guizon batean erein eban bere soloan gari garbi ederra. Baña guero nastuguille gaisto batzuc egotzi ta zabaldu eben ganetic aci, lollo ta bedar charra. Demporaz batean asi cirian aci biac, ona ta deunguea, aguertzen. Aguertu cirianean, esan eutsen servitzariac nagusiari: Jauna, zuc aci ona ta garbia erein cenduan ceurre solo ta lurrean, baña dacusgu onagaz batera erne, sortu ta jaio dala charra bere. Gura dozu, bada, joan, atera ta batu daigun gaisto a? Ez, eranzuten deute, eztot ori gura. Ichozue guichi bat, zagoce oraindiño; larga eguizuez aci biac, ona ta charra, azten, anditzen, elduten; ta orduan iguitatu, ebaguico dozuez guztia. Eta onac ardura onaz ta metac contuz bilduric ta sortan baturic <95> gordeco dozuez, ta gaistoac bere alcaturic surtara botaco dozuez. Ez

-
- 9-140 *Gai < Pontu (GGero 119).
ezta deunguero eldu < ezta gaizqui heldu 'ez dator' (GGero 119); ik. § 5.3.4.*
- 9-141 *bardintza < comparacino (GGero 119).
ceñaz < ceñetçaz (GGero 119-120).
baieztuten < frogatcen (GGero 120).*
- 9-142 *eguite < obra (GGero 120).
artean < arteiño (GGero 120).
osotu, zoldu ta eldu artean < eta çorhi arteiño (GGero 120). zoldu: gainean, zoritur
ren ordez, baina hau ezabatu gabe.*
- 9-143 *Bardintza, irudintza au da era onetara < Eta da comparacinoa (GGero 120).*
- 9-144 *gari garbi ederra < haci ona, ogui bihi garbia (GGero 120).*
- 9-144/145 *nastuguille gaisto batzuc < cenbait nahastecaric (GGero 120).*
- 9-145 *egotzi ta zabaldu < egoici (GGero 120).
eben: leh. ebenen.
aci, lollo ta bedar charra < haci gaixtoa (GGero 120).*
- 9-145/146 *Demporaz batean < Eta demborarequin batean (GGero 120).*
- 9-147 *servitzariac < bere muthilec (GGero 120).*
- 9-148 *solo ta lurrean < landan eta alhorrean (GGero 120).
dacusgu < badacusagu (GGero 120); ik. § 5.1.3.6.
onagaz batera < on [h]arequin batean (GGero 120).
erne, sortu ta jaio < sorthu (GGero 120).*
- 9-149 *joan < goacin (GGero 120); ik. § 5.1.3.7.
atera ta batu daigun gaisto a < eta gaixto hura athera deçagun, vil deçagun (GGero
120); ik. § 5.2.1.1. ta batu: gainean erantsia.*
- 9-150 *zagoce oraindiño < çaudete oraiño, luça eçaçue uztaraiño (GGero 120); ik. § 5.1.3.7.*
- 9-150/151 *larga... azten, anditzen, elduten < utzquitçue... haztera, handitcera eta çoritcera
(GGero 120).*
- 9-151 *iguitatu, ebaguico < ebaquico (GGero 120). iguitatu: gainean erantsia.*
- 9-152/153 *ardura onaz... gordeco dozuez < ongui vilduric eta çamaturic ailtchatuco (GGero
120). ardura: aurrean ondo ta, ezabatua. metac: gainean erantsia.*
- 9-153 *alcaturic < elccarganaric (GGero 120).
surtara < sura (GGero 120); ik. § 5.1.1.4.*

155 eban gura ugazabac bere sasoiara, zoritasunera, mugara ta demporara eldu artean iñoc ucutu leicen, ez eta elduric ta eguinic gueldi citecen.

160 Alan eguiten dau, bada, gure Jangoicoac bere onacaz ta gaistoacaz. Ichatoden deutse guztia zoritu artean, muga ta neurrira eldu artean. Eta guero, orduan, onac bere Gloriarara jasoten ditu, ta gaistoac seculaco penetara botaten ditu. Frutuac ichiten dozuz onduten, umaotuten ta bere sasoiara elduten; alan ichiten ditu, bada, Jangoicoac bere onac ontasunean ta gaistoac gaistotasunean elduten ta neurria betetan.

4 §.

165 Gure Jangoicoac, icusiric jarraioela gaistaqueriari gendeac, esan eban biotz-min andi bateaz, cerren berac gura ez ebana munduco becatuac erazo eraguiten eutsen: Neuc eguin neban guizona neuc deseguin, ecindu, baguetu, galduco dot; quenduco dot lurraren ganetic (Genes. 6). Onetaraco deitu

- 9-154 *ugazabac*: Añibarroren eransketa.
- 9-154/155 *bere sasoiara... eldu artean* < *çorhi arteiño, bere sasoiñera eta mugara hel arteiño* (GGero 120). *bere*: aurrean *eldu artean*, ezabatua. *demporara eldu*: leh. *dempora eldu*.
- 9-155 *leicen*: leh. *leien*.
elduric ta eguinic < *çorhituz guero ere* (GGero 120).
gueldi citecen < *gueldi citecin* (GGero 120); ik. § 5.1.3.2.
- 9-156 *onacaz ta gaistoacaz* < *hala onequin nola gaixtoequin* (GGero 120).
- 9-157 *guztia* < *guztiey* (GGero 120).
muga ta neurrira eldu artean < *bere mugara, sasoiñera eta neurrira hel arteiño* (GGero 120).
- 9-158 *Gloriarara jasoten ditu* < *loriaco altchatceintu* (GGero 121). *jasoten*: aurrean *darro*] (*darroaz?*), ezabatua.
- 9-159 *ichiten dozuz... elduten* < *utzten ditutçu ontcera, umotcera eta bere sasoiñera heltcera* (GGero 121). *umaotuten*: leh. *umotuten*; VB “madurar la fruta después de recogerla: c. *umotu, umaotu*”.
- 9-161 *elduten ta neurria betetan* < *çorhitcera eta neurriaren bethatcera* (GGero 121).
- 9-163 *jarraioela*: leh. *darraioela*; gainean *emon ciriala*, txertatzeko marka -*el*-en parean dagoela eta lerrokoa ezabatu gabe; < *iarri ceitçala* (GGero 121). Adizkiaren formari buruz, gramatikaren arabera *erraiola* behar luke (GB 70), baina bertan esaten du orainaldia ez bezala lehenaldia gutxi erabiltzen dela.
gaistaqueriari: jat. *gaistataqueriari* (arg. zuz.).
- 9-164 *bateaz* < *batequin* (GGero 121); ik. § 5.1.1.11.
- 9-164/165 *erazo eraguiten* < *eraguiten* (GGero 121). *erazo*: gainean erantsia. Itxura guztien arabera, hain maiz osatzen dituen esanahikide elkartuetako bat baino ez dugu (ik. § 5.3.1).
- 9-165/166 *deseguin, ecindu, baguetu, galduco* < *deseguinen* (GGero 121). *ecindu, baguetu, galduco*: gainean erantsiak, txertatzeko marka lehen *deseguingo* zenaren -*go* aurrean dagoenez, hori kendu eta *galdu-ri -co* eranstea erabaki dut, Urquijok (1924: 682) bezalatsu.
- 9-166 *Onetaraco* < *Eta hunetacoçat* (GGero 121).

170 eutsan Noe cerichan guizon bati, cein beste zazpi persona bere echetarracaz idoro zan on ta justua; ta ari esan eutsan: Bete da mundua becatuz [ta] malici-
 ciaz, ganez eguin dau gaistaqueriaz; eta alan, erabagui dot guztia urjola ba-
 tegaz ito ta ondatutea. Baño emon gura deutset asti, epe, dempora ta bitartea
 175 viciteco ta penitencia eguitemo eun ta ogeui urte. Bitarte onetan zuc, dirau-
 tso Noeri, besteai adierazoteco, ceure echecoac salvatzeo ta animalia, abe-
 re ta vicicor guztien vicitzea guelditu dedin, eguingo dozu ontzi bat, caxa,
 ucha, barcu andi bat, esan dirian gauza guztiac artu ta gorde al leiquezan bat.
 175 Eta alan eguin bere eban. Eta an sartu cirianac viciric salvatu ta igues eben,
 ta ez besteric.

<96> Orain emen gogoratu bear da gauza bat, ontzia eguin-eraguitemo
 ganean. Esan eban Jangoicoac ichadongo ebala eun ta ogeui urte. Baña, bal-

- 9-167/168 *cein beste zazpi... on ta justua* < *cein, bera çortcigarren, etchatier guztia guerthatu baitcen on eta iustu* (GGero 121).
- 9-168/169 *becatuz [ta] malici-
 ciaz*: leh. *becatuz, malici-
 ciaz ta gaistaqueriz*, < *beccatuz eta malici-
 ciaz* (GGero 121). Ezabaketaren ondoren ahaztu zaiolakoan erantsi dut *ta*.
- 9-169 *ganez eguin dau* < *gaiñez eguin hurran du* (GGero 121); ik. § 5.3.4.
erabagui < *deliberatu* (GGero 121).
guztia < *guztien* (GGero 121), hots, pluralean.
- 9-169/170 *bategaz* < *batez* (GGero 121); ik. § 5.1.1.11.
- 9-170 *ito ta ondatutea* < *deseguitera eta hondatcera* (GGero 121).
Baño: *baña*-ren orde (ik. 7-65. oh.), < *Ordea* (GGero 121).
asti: = GGer 121, baina leh. *astia*; ik. § 5.1.1.1.
dempora ta bitartea < *termino eta espatio* (GGero 121).
- 9-171 *Bitarte* < *Eta bitarte* (GGero 121).
- 9-171/172 *dirautso* < *erraiten dio* (GGero 121); ik. § 5.1.3.7.
- 9-172 *adierazoteco* < *avisatceco* (GGero 121).
ceure < *eta ceure* (GGero 121), hurrengo oh.eko *halaber* saihesteko (ik. § 5.3.4).
ta < *eta halaber* (GGero 122).
- 9-172/173 *animalia, abere ta vicicor guztien vicitzea* < *aniamalia suerte guztietaric haciaren eta arraçaren* (GGero 122).
- 9-173 *guelditu dedin* < *guelditeco* (GGero 122).
- 9-173/174 *caxa, ucha, barcu andi bat* < *barcca handi bat* (GGero 122). *ucha*: aurrean letra bat (h?), ezabatua.
- 9-174 *esan dirian... leiquezan bat* < *erran den gauçaco asco handi datequeyen beçalacoa* (GGero 122).
- 9-175 *an* < *hartan* (GGero 122).
salvatu: ondoren *cirian*, ezabatua; Axularrek ere *salbatu* bakarrik (GGero 122).
igues eben < *escapatu ciren* (GGero 122).
- 9-177 *gogoratu bear da* < *behar da consideratu* (GGero 122).
gauza < *pontu* (GGero 122).
- 9-177/178 *eguin-eraguitemo ganean* < *eraguiteracoan* (GGero 122); ik. § 5.2.12. *eraguitemo*:
 aurrean *erazate*, ezabatua (ik. § 4.4.2).
- 9-178 *Esan eban* < *Erran cerauen* (GGero 122).
ichadongo ebala < *iguriquico cerauela* (GGero 122).
urte < *urthez* (GGero 122); ik. § 5.1.1.12.

180 din contua ondo ateretan badogu, idoroco dogu ez ebala eun urte baño ichadon. Bada agui da ece, ontzia eguiteco mandatua, aguindua euqui ebanean Noec, bost eun urte cituan, ta guero seireunera eldu zanean etorri zan uriolea. Cer esan gura dau onec? Opa, esquiñi, promestu ichadongo ebala eun ta oguei urte, ta ez ichadon eun baño? Non dira ganecoac? Ce escastasun, ce laburtasun, ce urritasun da au? Cergaitic eztau bere promesa osoro cumplitu, betetan? Eranzuten dau San Juan Chrisostomoc (hom. 25 in genes. 7, tom. 1): Eguia da promestu, esquiñi, aguindu cituzan urteac bete baga biraldu ebala Jangoicoac uriolea. Eta au izan zan misericordia santearen señaleari andi bat. Bada, icusiric gueroago becatu gueiago eguiten ebela, ta aurrerantzean bere alan jarraituco eutsela; ta ichadoteaz, dempora gueiago emoteaz on baño calte gueiago etorrigo jaqueela, becatuen zauriac gordinago, saminduagoco ciriala, loiago eguiten ciriala, erruquituric Jangoicoa, pena guichia-

- 9-179/180 *ez ebala eun urte baño ichadon < etcerauela iguriqui ehunez baicen (GGero 122).*
 9-180 *ontzia < untciaren edo barccaren (GGero 122).*
mandatua, aguindua < manua (GGero 122).
euqui < iñan (GGero 122).
 9-181 *Noec, bost eun urte cituan < bortzetan ehun urthe cituela Noec (GGero 122).* Ordenaz gainera (ik. § 5.2.1.1), Añibarrori agui da-ri zor zaion kompletiboa osatzea ahaztu zaio.
etorri zan < ethorri cela (GGero 122).
 9-182 *onec < bada hunec (GGero 122).*
Opa, esquiñi, promestu < Prometa (GGero 122).
ichadongo ebala < iguriquico cerauela (GGero 122).
 9-183 *urte < urthez (GGero 122).*
eun baño < ehunez baicen (GGero 122).
 9-183/184 *Ce escastasun... ce urritasun < Cer murrizte (GGero 122).*
 9-184 *osoro < osoqui (GGero 122).*
 9-184/185 *cumplitu, betetan < complitcen (GGero 122).* *cumplitu:* leh. *cumpli;* ondoren hitz bat (*ta?*), ezabatua.
 9-186 *promestu, esquiñi, aguindu < prometatu (GGero 122).* *promestu:* ondoren *ebala, ag]* (*aguindu?*), ezabatua. *aguindu:* aurrean *ta* eta ondoren *ebala*, biak ezabatuak.
bete baga < complitu gabe (GGero 122-123).
 9-187 *ebala:* leh. *eban;* cf. *igorri çuen (GGero 123).*
santearen < sacratuaren (GGero 123).
 9-188 *icusiric:* aurrean *celan*, ezabatua; cf. *nola iccusi baitçuen (GGero 123);* ik. § 5.2.18.
gueroago becatu gueiago eguiten ebela < egunoro beccatu eguiten hari cirela (GGero 123).
 9-189 *alan:* gainean erantsia, < *hala (GGero 123).*
jarraituco eutsela < harico cirela (GGero 123); ik. § 5.3.4.
 9-190 *on < probetchu (GGero 123).*
etorrigo jaqueela < heldu ceyela 'zetorkiela' (GGero 123); ik. § 5.3.4.
 9-190/191 *gordinago, saminduagoco ciriala < gordintcenago eta gaizcoatcenago cirela (GGero 123).*
 9-191 *loiago < hobenduriago (GGero 123).*
Jangoicoa: Añibarroren eransketa.

- go letorquien amoreagaitic, guichitu eutsen demporea ta laburtu oguei urtez emon eutsen epea, promesa ta verbea. Alan eranzuten dau San Juan Chrisostomo berac. Eta errazoi ona da au. Baña ez nic darraiodan gaucea adietan emoteco. Onetaraco idoroten da beste bat San Geronimogan, ta ene ustez ez deunguea (*Vid. Jeronim. de ques. hebraic. super hunc loc.*). Eta da errazoia: Esqueñi eutsen ichadongo eutsela eun ta oguei urtean, baña ez eban eun baño ichadon, cerren eun ta ogu[e]i urtean eguin bear cituezan becatuac, edo eguin bear etzituenac, <97> eunean eguin cituezan, eun urtean neurria bete eben. Eta, celan neurria bete ezquero ez cegoan cer gueiago ichadon; alan, celan eurac tematu, porfiatu cirian becatu eguitera ta neurria betetera, erabagui eban Jangoicoac bere, eurai vicitzea laburtutea ta oguei urteen demporea urritu ta guichitutea.
- Onetaric atera guiñei bear guenduquela, vicitzeagaitic baño ezpada bere, becatu eguitetic atzeratu ta onen neurria betetzetic gorde, jagon, igues eguin. Alan cirautsen Jeremias profeteac judeguei: Ceuroen buruen arerioac, Jan-

-
- 9-192 *letorquien amoreagaitic < ethor cequien amoreac gatic (GGero 123); ik. § 5.1.3.7. guichitu: ondoan laburtu, ezabatua, < gutitu (GGero 123).*
- 9-193 *promesa ta verbea < promesa (GGero 123). Alan < Hunela (GGero 123).*
- 9-193/194 *San Juan Chrisostomo berac < San Crisostomoc (GGero 123). Juan-en eransketa ia beti egiten du Añibarrok, interesgarria ez delakoan jaso ez badut ere.*
- 9-194/195 *adietan emoteco < frogatceco (GGero 123).*
- 9-195 *Onetaraco < Hartaracotzat (GGero 123).*
- 9-197 *Esqueñi < Prometatu (GGero 123). eutsela: aurrean ebala, ezabatua, < cerauela (GGero 123). oguei urtean < hogoy urthez (GGero 123); ik. § 5.1.1.12.*
- 9-197/198 *baña ez eban eun baño ichadon < ez ordea iguriqui ehunez baicen (GGero 123).*
- 9-198 *ogu[e]i urtean < hogoy urthez (GGero 123).*
- 9-199 *eunean < ehunez (GGero 123). eun urtean < ehunez (GGero 123). neurria: aurrean oso], ezabatua.*
- 9-200 *ez cegoan < ezpaitcen (GGero 123); ik. § 5.1.3.8. cer gueiago ichadon < cer guehiago iguriquiric (GGero 123); ik. § 5.2.16.*
- 9-201 *tematu, porfiatu cirian < lehiatu baitciren (GGero 123). tematu: ondoan cir] (cirian?) ta, ezabatua.*
- 9-201/202 *erabagui < deliberatu (GGero 123).*
- 9-202 *eurai < hey (GGero 123); ik. § 5.1.2.3. oguei urteen < hogoy urtheren (GGero 123); ik. § 5.1.1.4.*
- 9-203 *urritu ta guichitutea < guticera eta eppaitera (GGero 123).*
- 9-204 *atera guiñei < athera ahal deçaquegu (GGero 123). baño ezpada bere < bedere (GGero 124).*
- 9-205 *onen neurria: aurrean at] (atan?), ezabatua, < hartan neurria (GGero 124). gorde, jagon, igues eguin < escusatu (GGero 124).*
- 9-206 *cirautsen: gainean, cinoen-en orde, < erraiten deraue (GGero 124). Ceuroen buruen < Ceuen buruon (GGero 124).*

goicoagaitic eguin gura ezpadozue bere, cegaitic, ceuroen on probechuagaitic ta gueiago viciteagaitic bada bere, etzára becatuetatic gordeten? Eztaquize becatu eguiteaz ta oneecaz neurria betetuaz vicitzea laburtuten dozuela?
 210 Eta onelan, ilgo cintequezan baño lenago ilgo zareala? Cerren contua, neurria cumplitu ta bete ezquero eztago gueiago vicitzaric.

Esqueñi, opatu ta aguindu eutsan gure Jangoicoac Abrani ta bere ondo-coai, emongo eutsela Judeaco erreinu ta erri ona. Baña ez eutsen esqueñi ta bertati emon. Eta, cergaitic ez? Eranzuten dau Jangoicoac berac (Genes. 15):
 215 Ezteutset berpetatic emoten, oraindo bete ta cumplitu eztirialaco amorreo erri atacoen becatuac. Oneec neurria bete daguienean ta contua osotu daienean, orduan quenduco deutset aei, ta emon Abran ta aren ondorengoai.

Ez eban irudiz ta ustez alan eguin Sodoma ta Gomorra erri becatariacaz.

-
- 9-207/208 *on probechuagaitic < probetchuagaitic (GGero 124).*
 9-208 *bada bere < bedere (GGero 124).*
becatuetatic < beccatu eguitetic (GGero 124).
 9-208/209 *Eztaquize < Eztacusaque (GGero 124).*
 9-209 *oneecaz neurria betetuaz < hequen contuaren complitceaz (GGero 124).* *betetuaz:* aurrean *eguiteaz* gorde arren (ik. § 5.2.15). Bestalde, partizipioa *bete* da Añibarroren idazlanetan, nahiz Zabalak *betetu* erabili (cf. *OEH*, s.v.), eta hemen ere *betetu*-k beste agerraldi bat (9-220) baino ez dauka.
 9-210 *onelan < halatan (GGero 124).*
ilgo cintequezan baño lenago zareala < bertcela hillen cineten baiño lehen hiltcen çaretela (GGero 124).
 9-210/211 *contua, neurria < contua (GGero 124).*
 9-211 *cumplitu ta bete ezquero < complituz guero (GGero 124).*
eztago gueiago vicitzaric < ezpaita guehiago bicitceric (GGero 124). *vicitzaric:* egiturak aditizena eskatzen zuen (ik. § 5.3.4).
 9-212 *Esqueñi, opatu ta aguindu < Prometatu (GGero 124).*
eutsan < cerauen (GGero 124).
 9-212/213 *Abrani ta bere ondo-coai < Abrahami eta haren ondo-coey (GGero 124);* ik. § 5.1.2.4.
 9-213 *erreinu ta erri ona < erresuma on hura (GGero 124).*
esqueñi < prometatu (GGero 124).
 9-214 *bertati < berehala (GGero 124).*
 9-215 *Ezteutset berpetatic emoten < Ezterauet emaiten berehala (GGero 124).*
oraindo bete ta cumplitu eztirialaco < ceren ezpaitira oraiño bethe eta complitu (GGero 124); ik. § 5.2.18.
 9-215/216 *amorreo erri atacoen becatuac < amorreoen beccatuac, ceinec baitaducate herri hura (GGero 124).* *amorreo:* leh. *amorreoen becatuac.*
 9-216 *Oneec < Hec (GGero 124).*
 9-216/217 *bete daguienean ta contua osotu daienean < betha deçatenean, eta contua complitu (GGero 124).*
 9-217 *ta emon < eta emanen (GGero 124);* ik. § 5.2.5.
Abran ta aren ondorengoai < Abrahami eta haren ondo-coey (GGero 124); ik. 9-212/213.
 9-218 *irudiz ta ustez < iduriz (GGero 124).* *ta gainean erantsia.* *irudiz:* ik. § 5.3.3.
Sodoma ta Gomorra erri becatariacaz < Sodomacoequin eta Gomorracoequin (GGero 124); ik. § 5.4.2. *Gomorra:* leh. *Gomorraçaz.*

- 220 Oneec esan ta bertatic, gueiago ichadon baga, Cerutic su ta garra biralduric erre ta auts biurtu cituan. Cergaitic ce orduraco neurria oso betetu eben. Eta onen ganean diño San Agustinec (de vit. christian. tom. 9): Egemplu onegaz adierazoten jacu ta eracutsi arguiro, bacochari, bere becatuac bete dituenean, <98> betetan jacazala bere egunac bere; ordura artean ichadoten jacala, ta ez gueiago.
- 225 Eta, baldin oraindiño esan doguzan gauza guztioac eguiac badira, celambere dirian eguiac: baldin Jangoicoac erabaguiric badauco ichadotea neurria bete artean, ta ez gueiago, cer uste ete dozu zuc, orainguiño buruan ulle dozun baño becatu gueiago eguin dozun orrec? Cer daquizu urren eguiten dozun lenengo becatuan, zuc ceure neurria beteco dozunez? Contua cumplituco dozunez? Cer daquizu lenengo eguingo dozun becatuaren beguira
- 230 dagoanez Jangoicoa, zure egunac acabetaco ta mundutic ateretaco? Ondo gogoratuteco ta beti buruan euquiteco da gai au, gogarte ta puntu au. Baña zuc puntu ta lan onegaz, ta beste onelacoaz bere, contu guichi eguinic, ceu-

-
- 9-219 *Oneec < hec (GGero 124).
bertatic < berehala (GGero 124-125).
su ta garra < su bat (GGero 125).*
- 9-220 *erre ta auts biurtu < erre (GGero 125).
orduraco < ia orducotçat (GGero 125).
oso betetu < bethe (GGero 125); ik. 9-209. oh.*
- 9-221 *onegaz < hunetçaz (GGero 125).*
- 9-222 *ta eracutsi < eta eracusten (GGero 125); ik. § 5.2.5.
arguiro < clarqui (GGero 125).*
- 9-223 *ordura artean < dembora hartaraiño (GGero 125).*
- 9-225 *gauza guztioac < gauça hauc guztioac (GGero 125); ik. § 5.1.2.2. gauza: leh. gauzac.*
- 9-225/226 *celambere dirian eguiac < nola baitira eguiac (GGero 125).*
- 9-226 *erabaguiric < deliberatua (GGero 125); ik. § 5.1.3.1.*
- 9-227 *artean < arteiño (GGero 125).
cer uste ete dozu < Certan pensatcen othe duçu (GGero 125). cer: aurrean cetan, ezabatua.
orainguiño: jat. oroain- (arg. zuz.); -guiño baino lehen -di], ezabatua; < orainocoan ere (GGero 125).*
- 9-228 *dozun orrec < duçunorrec (GGero 125).*
- 9-228/229 *urren eguiten dozun lenengo becatuan < hurran lehenbiccico eguinen duçunaz (GGero 125); ik. § 5.3.4.*
- 9-229 *beteco dozunez < bethatcen duçunz (GGero 125).*
- 9-230 *becatuaren beguira = GGero 125.*
- 9-231/232 *Ondo gogoratuteco < Consideratcecoa (GGero 125).*
- 9-232 *buruan < gogoan (GGero 125).
euquiteco: gainean, erabilteco-ren ordez, < eduquiteco (GGero 125).
da gai au, gogarte ta puntu au < pontua da haur (GGero 125). gogarte: ondoren au, ezabatua.*
- 9-233 *puntu ta lan onegaz < pontu hunez (GGero 125).
onelacoaz < hunelacoez (GGero 125); ik. § 5.1.1.10.*

re guero zorigaistocora laster zoaz; ta beti bere guero onduco zareala ta ceure neurria eztala oraiño beteco esan oi dozu.

Baña cer izango da zure guero ori, etorquizun ori eldu бага, zure becatuen neurria bere neurri betera eldu badedi? ta zure vicitzea bere acaba badedi?

Gogoraciño au berau, beste бага, asco izan bear leuque ez gueiago guerotico guerora ibilteco; eta bai, beintzat, becatu bat eguitera zoazanean, a eguitetic igues eguiteco, gorde ta atzeratuteco. Bada gogoratu bear cenduque eguitera zoazan becatu ori dala, menturaz, zure azqueneco becatua, ta beragaz zuc ceure neurria betetan dozula, bada ez zagoz seguru.

Lar bere asco dira oraindiñoocan eguin dozuzan becatuac, ta orregaitic bere, ichiten zaitu Jangoicoac, ichadoten deutsu oraiño. Beraz, uste izan ciñei, eztozula orainguiño neurria bete. Baña bete ciñei urrengo eguiten dozunaz; bada alan, a eguitetic gorde bear zara.

- 9-234 *zorigaistocora*: gainean, *atara*-ren orde; cf. *guero hartara* (GGero 125) eta ik. § 5.4.2.
laster zoaz < *laster eguiten duçu* (GGero 125-126).
 9-234/235 *ceure* < *çure* (GGero 126); ik. § 5.1.2.4.
 9-235 *oraiño* = GGero 126.
esan oi dozu < *erraiten duçu* (GGero 126); ik. § 5.1.3.13.
 9-236 *guero ori* < *guero hura* (GGero 126); ik. § 5.1.2.1.
etorquizun ori: Añibarroren eransketa.
 9-237 *neurria* < *contua* (GGero 126).
bere neurri betera < *bere contura* (GGero 126).
eldu badedi < *hel badadi* (GGero 126).
 9-237/238 *acaba badedi* < *accaba badadi* (GGero 126); ik. § 5.1.3.2.
 9-239 *Gogoraciño au berau* < *Consideracino haur beror* (GGero 126).
beste бага < *bertceric gabe* (GGero 126).
asco izan bear leuque < *asco behar liçateque* (GGero 126). *leuque*: leh. *liteque*; aldaketa honegatik ere, subjektua lehen bezala utzi du, oharkabeen ziur aski (cf. *OEH*, s.v. *behar izan*, 304. or., eta ik. § 5.2.1.2).
 9-240 *eta bai* < *edo bai* (GGero 126).
 9-240/241 *a eguitetic*: leh. *aren eguitetic*, < *haren eguitetic* (GGero 126); ik. § 5.2.2.
 9-241 *igues eguiteco, gorde ta atzeratuteco* < *ixtitceco eta guibelatceco* (GGero 126).
Bada: aurrean Cerr] (*Cerren*), ezabatua, < *Ceren* (GGero 126).
gogoratu < *pensatu* (GGero 126).
cenduque < *cenduque ecen* (GGero 126).
 9-242 *ori*: gainean, *a*-ren orde, < *hura* (GGero 126); ik. § 5.1.2.1.
 9-242/243 *beragaz* < *hartçaz* (GGero 126).
 9-243 *ez zagoz* < *eççara* (GGero 126); ik. § 5.1.3.8.
 9-244 *Lar bere... becatuac* < *Anhitz becatu eguin duçu oraiñoocan* (GGero 126).
 9-245 *ichiten zaitu... oraiño* < *utzten çaitu oraiño laincoac, iguriquitcen deratçu* (GGero 126).
 9-245/246 *uste izan ciñei* < *esperantça ahal duqueçu* (GGero 126). *uste izan*: gainean, *ichadonen* orde, baina hau ezabatu gabe.
 9-246/247 *urrengo eguiten dozunaz* < *lehenbicico eguinen duçunaz* (GGero 126).
 9-247 *bada alan* < *beraz* (GGero 126).
gorde bear zara < *behar duçu beguiratu* (GGero 126); ik. § 5.2.1.2.

250 <99> Eta alan, igaroac igaroac diriala, eguiñac alic ondoen erremediatu
daguiguzan ta aurrerancean gueiago eguitetic, al baitanez, al daigun guztian
gorde gaitez. Beti bere puntu au, neurria beteteco pelligru au gogoan da-
rabilgula. Eta bici gareala, ez becatuz ta gaistaqueriaz, ezpada ontasunez ta
eguiquera onez neurria beteric, azquenean Ceruco gloria, gozotasuna ta be-
tico atseguintasuna erdetsi al daigun leguez.

-
- 9-248 *igaroac igaroac diriala* < *diren iraganac iragan* (GGero 126); cf. 12-252. oh. eta. ik.
§ 5.1.1.5.
eguiñac < *hec* (GGero 126).
alic ondoen < *ahalic eta hobequierna* (GGero 126); ik. § 5.1.1.5.
- 9-249 *al baitanez, al daigun guztian* < *ahalez* (GGero 126).
9-250/251 *darabilgula* < *eduquitcen dugula* (GGero 126).
9-252 *eguiquera* < *obra* (GGero 126).
9-252/253 *gozotasuna ta betico atseguintasuna*: Añibaroren eransketa.
9-253 *erdetsi al daigun leguez* < *erdiets deçaquegun beçala* (GGero 127).

10. BURUA

*Asco balio dau Jangoicoaren misericordiac; eta celan
bear dan beragan ichadon, fidatu.*

1 §.

- 5 Santo Tomasec diño (v. p. q. 129, art. 6): Fidancia edo confiancea da esperanza sendoa, indartsua, ta ustez ondo irmetua ta segurutua. Dozunean adisquide bat aberatsa, altsua ta ceure eguiteco guztietan leiala, fededuna, mena ta cin fin probatua, alacoaren verba ta esate bat dirutzat artzen dozu; bere esquentza ta opa aguindute bat, emotetzat leguez dozu; aren promesetan, quiñuetan ta adierancetan bere sinismen ta confianza andia dozu. Bada

-
- 10-2 *balio*: leh. v-.
dau < *duela* (GGero 127).
- 10-3 *beragan* < *hartan* (GGero 127); ik. § 5.1.1.3.
ichadon, fidatu < *fidatu* (GGero 127). *ichadon*: gainean erantsia. *fidatu*: leh. *confidatu*.
- 10-5 *Santo Tomasec diño* < *Erraiten du San Thomasec* (GGero 127); ik. § 5.2.1.1.
Fidancia edo confiancea < *Fidancia* (GGero 127). *Fidancia*: Añibarro (cf. *MisE* 34) eta Zabalaz beste Hegoaldeko idazlerengan ez da aurkitzen (cf. *OEH*, s.v.).
- 10-5/6 *esperanza* < *esperantça bat* (GGero 127).
- 10-6 *sendoa* < *bortitztua* eta *indartsua* < *indarztatua* (GGero 127).
irmetua < *fincatua* (GGero 127).
- 10-7 *altsua* < *botheretsua* (GGero 127).
- 10-7/8 *leiala, fededuna, mena ta cin fin probatua* < *bethiere fin eta leyal frogatua* (GGero 127). *mena*: *aurrean fi]* (*fin?*), ezabatua. *cin*: gainean erantsia.
- 10-8 *verba ta esate bat* < *hitça* (GGero 127).
- 10-9 *bere esquentza ta opa aguindute bat* < *escaintcea* (GGero 127). *opa*: gainean erantsia.
emotetzat leguez dozu < *emaitea beçanbat çaitçu* (GGero 127). *emotetzat*: leh. *emotea*.
- 10-10 *adierancetan bere* < *are ayeruetan ere* (GGero 127). *adierancetan*: leh. *adieranza*.
sinismen ta confianza < *fidancia* (GGero 127).
dozu < *daducaçu* (GGero 127); ik. § 5.1.3.9.

orrela, errazoiak euquico dogu guc bere icharomen andia ta esperanza beroa gueure Jangoicoagan ta bere misericordian. Cerren agan idoroco doguz fidatu ta ichadoteco arqitu al ditequezan segurantzari andienac ta eguiazcoenac.

- 15 Lenengo, bera da gure adisquidea, ta ain adisquide, ce Cerutic lurrera jatsiric, izanic gu bere arerioac, beragaz adisquidetuteco, bere vicitzea bere vorondatez emon eban, dirauscun leguez San Pabloc (Rom. 5).

- 20 Baita bere da aberatsa, ondasunduna, al, poderio ta escubide andicoa. Bada, cerua ta lurra, ceruco ta cerupe guztico <100> gauzac bereac, berac eguiñac ta bere escuco ditu, diñoanez Daviden aotic (Psal. 23): Eguin bitez esateaz, eguin cituan; ta baguetu, ecindu, ecereztu bitez esateaz, ecerbereztuco litequez (Psal. 32). Ezta ibilteric, ez mugitzeric, ez irauteric, ez artu-emoteric, esan-eguiteric, aren vorondate, nai-gura izatea baga (Actos 4).

- 10-10/11 *Bada orrela < Beraz hunelatan (GGero 127).*
 10-11 *errazoiak < arraçoinequin (GGero 127).*
icharomen: gainean, fidancia-ren ordez (= GGero 127), baina hau ezabatu gabe.
 10-12 *bere < haren (GGero 127).*
 10-12/13 *fidatu ta ichadoteco < areago abantailatuqui fidatceco eta esperantça içaiteco (GGero 127).*
 10-13 *arqitu al ditequezan < ahal diratezqueyen (GGero 127). ditequezan: leh. ditequezan.*
 10-13/14 *segurantzari andienac ta eguiazcoenac < segurantça guztiac (GGero 127).*
 10-15 *Lenengo < Lehenbicoric (GGero 127).*
bera < hura (GGero 127); ik. § 5.1.2.3.
adisquidea < adisquide (GGero 127).
ce < non (GGero 127).
 10-15/16 *jatsiric: ondoren gugaitic, ezabatua; cf. hurrengo oh.*
 10-16/17 *izanic... vorondatez emon < lurrean guregatic, bere etsai gunituelaric, bere bicia liberalqui eta volondresqui eman (GGero 128); ik. § 5.2.14. gu: leh. gure.*
 10-17 *dirauscun leguez San Pabloc < Hala erraiten du iondone Pauloc (GGero 128).*
 10-18 *Baita bere da < Halaber hura da (GGero 128).*
aberatsa... ta escubide andicoa < aberats eta botheretsu (GGero 128).
 10-19 *cerupe guztico < lurreco (GGero 128).*
gauzac < gauça guztiegin [sic] (GGero eta Gero 128). Villasantek (1976: 141) guztiekin zuzendu du, baina Añibarrok saihestu.
 10-20 *bere escuco = GGero 128; ik. § 5.3.4.*
diñoanez Daviden aotic: Añibarroren eransketa.
 10-21 *esateaz < erraitearequin (GGero 128) < erraiteaz (Gero 128).*
baguetu, ecindu, ecereztu < deseguin (GGero 128).
esateaz < erraitearequin (GGero 128) < erraiteaz (Gero 128).
 10-21/22 *ecerbereztuco litequez < deseguin ditçaque (GGero 128); ik. § 5.1.3.12.*
 10-22 *ez mugitzeric < eta ez higitzeric (GGero 128).*
ez irauteric < ezta irauteric (GGero 128).
 10-22/23 *ez artu-emoteric, esan-eguiteric < eta ez hartceric (GGero 128) < eta ez hats hartceric (Gero 128). artu-emoteric: gainean erantsia; azpian, esan-eguiteric baino lehen, eg], ezabatua.*
 10-23 *vorondate, nai-gura izatea baga < nahia eta vorondate gabe (GGero 128).*

- Bada fintasunaz, bere verban leiala ta jabe izateaz, ezta cer esanic. Eccl. diño: Beguiratu eguizue munduco generaciño guztietara, ta idoroco dozue eztala iños iñor galdu, Jaunagan ichadon dabenic; ta ez bere premiñan, bear dan videan, bera beartu dabenic, bere bear dabena бага guelditu. Agaitic diño Davidec (Psal. 54): Gura badozu zugaz ondo joan dedin, ta ondo urten ta jazo dedin, ifini eguizu ceure esperanza, icharomena, biotza, gogoa ta ar-
 30 dura guztia Jangoicoagan; bere ganera bota ta egotzi eguizu. Cerren munduaren erechian, irudiz ta ustez, erremedioric, sendagairic ez daben eguitecoai bere, berac arquitu, idoro ta emongo deutse buru. Dirudi au adierazotera emoteagaitic, ascotan larga ta ichiten gaituela gueure Jangoicoac esturetan jartera, eguitecotan sartutera ta Cerutic baño erremedioric ecin euqui gui-
 35 ñeien estura ta larritasunetara etorte[r]ja; lurrez, ta lurreco socorru, jabe, bi-

-
- 10-24 *verban leiala ta jabe < hitçaren leyal eta iabe (GGero 128); ik. § 5.1.1.5. verban: leh. verbearen.*
- 10-24/25 *Eccl. diño: Añibarroren eransketa, ertzeko erreferentzian oinarritua (GGero 128, in m.).*
- 10-26 *iños iñor galdu, Jaunagan ichadon dabenic < egundaiño iauna baithan fidatu denic galdu (GGero 128).*
- 10-27 *bera < hura (GGero 128); ik. § 5.1.2.3. bere bear dabena бага < bere behar duena gabe (GGero 128). Agaitic < Halatan (GGero 128).*
- 10-28 *Davidec < erregue Davitec (GGero 128). zugaz ondo joan dedin < çutçaz ongui dohan (GGero 129); ik. § 5.1.3.7.*
- 10-28/29 *urten ta jazo < iltqui (GGero 129).*
- 10-29 *ifini eguizu < ibeintçatçu (GGero 129).*
- 10-29/30 *icharomena, biotza, gogoa ta ardura guztia < fidantcia eta ardura guztic (GGero 129). gogoa: gainean erantsia.*
- 10-30 *bere ganera < haren gaiñera (GGero 129). bota ta egotzi eguizu < egotz itçatçu (GGero 129). bota ta: ta gainean erantsia.*
- 10-30/31 *munduaren erechian, irudiz ta ustez < munduco iduriz (GGero 129); ik. § 5.1.1.8.*
- 10-31 *erremedioric, sendagairic < erremedioric (GGero 129).*
- 10-32 *berac < harc (GGero 129). arquitu, idoro ta emongo deutse buru < edirenen deraue eta emanen buru (GGero 129). Dirudi < Badirudi ecen (GGero 129).*
- 10-32/33 *adierazotera emoteagaitic < aditcera emaitagatic (GGero 129). Aditz esapide honi eman ohi dizkion bi aterabideak nahasita agertzen dira hemen (ik. 46-102. oh. ere): eskuarki adietan emon darabil (adib. 7-152), behin aditzera emon (7-149; cf. aditzera ematen 3-153 ere) eta hiru bider adietara emon (35-68, 44-54 eta 48-140), edo bestela adierazo (adib. 2-7, 7-156).*
- 10-33 *ascotan < anhitzetan ere (GGero 129). larga ta ichiten < utzten (GGero 129). ta: gainean erantsia. gaituela: leh. gaituzala, < gaituela (GGero 129); ik. § 4.3.10.2. esturetan < hersturatan (GGero 129); ik. § 5.1.1.4.*
- 10-34/35 *ecin euqui guiñeien estura ta larritasunetara < ecin duquegun beçalaco pontura (GGero 129). guiñeien: leh. guiñeiean, eta ondoan pun] (puntu), ezabatua. larritasunetara: aurrean zorira, ezabatua.*

tartetasun ta laguntasun guztiaz esperanzabagueturic, etsituric, estuturic, larrituric, Cerura ta Ceruco laguntasunaz balia gaitecen amoreagaitic. Alan diño San Juan Chrisostomoc (hom. [17], tom. [1]): Eguitecoac eguin bear dirianean, galdu aguinean dabilzenezan, orduan euqui eguizu zuc iños baño esperanza gueiago: bada orduan eracutsi ta aguertuco dau Jangoicoac bere al, escubide ta poderio andia; ez eguitecoaren asieran, baña bai estuera ta premiñaric <101> andienezan; ta iñondic erremedioric, iguesbideric eztala dirudienezan. Bada orduan da Jangoicoaren laguntzaren, bitartetasunaren demporea, zoria. Beraz, orduan bear dozu zuc Jangoicoagan ta bere misericordia, ontasun ta prestutasunean ichadon, fidatu, esperanzatu.

Eta alan eguiten dozun demporan eztau, ez, Jangoicoac uts eguiten. Lenago bai, bere ontasuna, leialtasuna, misericordia, escubidea, altasuna ta prestutasuna eracusteagaitic, orduan lasterrago, prestago, arinago eguiten dau; orduan elduten jatzu; orduan zuri, uste bere etzendum videtic, biralduten deutsu erremedioa. Jaquin daguizun beste erremedio guztiac acabatu, az-

- 10-35/36 *socorru, jabe, bitartetasun ta laguntasun < habe, iabe eta fabore (GGero 129). jabe, bitartetasun: bien artean, gainean, ta erantsi du, baina alde batera utzi dut, ta laguntasun ere gainean erantsita baitago, beranduago ziurrenik, ta f] (fabore?)-ren ordez.*
- 10-36 *guztiaz < guztiez (GGero 129); ik. § 5.1.1.10.*
- 10-36/37 *esperanzabagueturic, etsituric, estuturic, larrituric < etsituric (GGero 129).*
- 10-37 *Cerura ta Ceruco laguntasunaz balia gaitecen amoreagaitic < cerura eta cerucoetara fidantzia handiarequin laster daguizun amoreac gatic (GGero 129). Pasarteari egin dion aldaketaren ondoren, Ceruaz ta... behar luke.*
- 10-38/39 *Eguitecoac eguin bear dirianean < Eguitecoac eguitecotan direnean (GGero 129); ik. § 5.3.4.*
- 10-39 *galdu aguinean < galdu [g]ordean (GGero 129). euqui eguizu < educaçu (GGero 129). iños < egundaiño (GGero 129).*
- 10-40 *eracutsi ta aguertuco < eracutsico (GGero 129).*
- 10-40/41 *al, escubide ta poderio < bothere (GGero 129).*
- 10-41/42 *estuera ta premiñaric < premiaric (GGero 129).*
- 10-42 *erremedioric, iguesbideric < erremedioric (GGero 129).*
- 10-43 *laguntzaren, bitartetasunaren < faborearen eta laguntzaren (GGero 129).*
- 10-43/44 *demporea, zoria < sasoiña eta puntada (GGero 129).*
- 10-44 *bere: ezabatuta dagoela dirudi, eta honegatik ez da Urquijoren argitalpenean (1924: 685) ageri; < haren (GGero 129).*
- 10-44/45 *misericordia, ontasun ta prestutasunean < misericordian (GGero 129).*
- 10-45 *ichadon, fidatu, esperanzatu < fidatu eta esperantçatu (GGero 129).*
- 10-46 *uts eguiten < faltatcen (GGero 130).*
- 10-46/47 *Lenago bai < Aitcitic (GGero 130).*
- 10-47/48 *ontasuna... ta prestutasuna < ontasunaren, misericordiaren eta botherearen (GGero 130).*
- 10-48/49 *lasterrago, prestago, arinago eguiten dau < laster eguiten du (GGero 130).*
- 10-49 *zuri: leh. zu; < çuc (GGero 130). uste bere etzendum < pensatu ere etcenduqueyen (GGero 130).*
- 10-49/50 *biralduten deutsu erremedioa < erremedio igortcen deratçu (GGero 130).*

quendu dirianean, bereac asiten diriala. Jaquin daguizun, beste guztiac ecin ecer eguinic ichi zaituezanean, ac al dabela ta orduan favoretuten zaituala.

55 Alan favoretu ta ontartu eban Jonas profetea iru egun ta gaubez ichasoan baleac sabelean viciric erabilli ebanean. Alan faboretu, zaindu, jagon ta gorde cituan Israeleco semeac, ichas-bazterrean, erregue Faraonec alde guztietaric inguratuac ta ecin igues eguin euqueen leguez, ustez artuac ta lotuac cituenean.

60 Alan favoretu eban Susana Legue zarreco andra garbi, on, prestua, bere senarrez campora beste bategaz izan ebala, guzurrez, falsiaz salaturic, arrica iltera eroiela. Azquenez, alan gorde eban Daniel profetea leoi amurratuen artetic, ao ta atzamarretatic osoric, viciric, gachic areambere бага atera ebanean.

-
- 10-50/51 *acabatu, azquendu* < *ahitu* (GGero 130).
 10-51 *bereac* < *harenac* (GGero 130); *aurrean orduan*, ezabatua.
 10-51/52 *ecin ecer eguinic* < *deus ecin eguinez* (GGero 130); ik. § 5.2.19. *ecer*: gainean erantsia.
 10-52 *al dabela* < *badaidiqueyela* (GGero 130).
 10-53 *favoretu ta ontartu* < *faboratu* (GGero 130). *ontartu*: HH “favorecer”.
iru egun ta gaubez < *hirur egunez eta gauetz* (GGero 130). *egun*: leh. *egunean*; ik. § 5.1.1.12.
 10-53/54 *ichasoan*: Añibarroren eransketa.
 10-54/55 *faboretu, zaindu, jagon ta gorde* < *faboratu eta beguiratu* (GGero 130). *zaindu, jagon*: gainean erantsiak.
 10-55 *semeac* < *semeac ere* (GGero 130).
ichas-bazterrean < *itsas-bazterrean* (GGero 130); ik. 10-65. oh.
erregue Faraonec = GGerero 130; ik. § 5.1.1.2.
 10-55/56 *guztietaric*: leh. *guztitic*, *agian*; < *guztietaric* (GGero 130).
 10-56 *ecin igues eguin euqueen leguez* < *ecin ihesic ceidiqueten beçala* (GGero 130). *eguin*: *aurrean ceben*, ezabatua. *euqueen*: gainean, *ceinquien-en* ordez.
lotuac < *atrapatuac* (GGero 130).
 10-57 *cituean* < *cedutçanean* (GGero 130).
 10-58 *garbi, on, prestua* < *prestu hura ere* (GGero 130).
 10-59 *senarrez campora beste bategaz izan ebala* < *senharraz bertcerequin içan çuela* (GGero 130) < *izan cela* (Gero 130). *senarrez*: ik. § 5.1.1.10.
guzurrez, falsiaz < *falsoqui* (GGero 130). *guzurrez*: ondoan *ta*, ezabatua.
salaturic < *accusaturic* (GGero 130).
 10-59/60 *arrica iltera* < *harriz iocatcera* (GGero 130).
 10-60 *eroiela* < *ceramatenean* (GGero 130); ik. § 5.2.14.
Azquenez < *Finean* (GGero 130).
gorde < *faboratu* (GGero 130).
profetea < *propheta ere* (GGero 130).
 10-60/61 *leoi amurratuen artetic, ao ta atzamarretatic* < *lehoinen artetic eta botheretic* (GGero 130).
 10-61 *osoric, viciric, gachic areambere бага* < *ossoric eta salboric* (GGero 130). *bagá*: gainean erantsia.

65 Noc esan euquean guizon batec iru egun ta gau bal[e]aren sabelean ibi-
lli ezquero, viciric leorrera urtengo ebala? Noc sinistu euquean Israeleco se-
meac, ichaso bazterrean ain estura andian egonic, Faraonen escu gogorreta-
tic igues eguingo ebela? Eta Faraon perseguille bera bere equertsitu guztiaz
70 an bertan guelditu, ito <102> ta ondatuco zala? Noc uste euquean Susana
gaistotzat condenaturic ilteco plazara atera ezquero, aimbeste onra ta ala-
banzaz echera biurtuco zala; eta bere salatzalle agure zar malsinac bere le-
cuan bere ordez condenatuac eriotzara izango ciriala? Eta nori gogora etorri
lequiquion Daniel santua leoi goseaquillac euren erdian ta aguindura atza-
mar artean euquiric, gachic eguin бага, apurtu бага ta irunsi бага ichico
ebela? Onec dira Jangoicoaren mirariac, berac bacarric ta ez bestec eguin

- 10-63 *esan euquean < erran çuqueyen (GGero 130).
iru egun ta gau < hirur egunez eta gauez (GGero 130).
bal[e]aren: leh. belaren.*
- 10-64 *sinistu euquean < sinhetsi çuqueyen (GGero 130).*
- 10-65 *ichaso bazterrean < itsas bazterrean (GGero 130); ik. 10-55. oh. eta § 5.3.3.
egonic < içan cirena[c] (GGero 130).*
- 10-65/66 *escu gogorretatic < escuetaric (GGero 131); ik. § 5.4.2.*
- 10-66 *Faraon perseguille bera < Pharaon bera (GGero 131).
equertsitu guztiaz < bothere guztiarequin (GGero 131). VB equersitua “exercito” (<
HH); aldaera bakana: Añibarrok berak ere bestetan ejerzitu darabil (cf. OEH, s.v.
ejerzitu).*
- 10-67 *an bertan guelditu, ito ta ondatuco zala < ithoric han gueldituco cela (GGero 131).
uste euquean < pensatu çuqueyen (GGero 131).*
- 10-68 *ilteco plazara < plaçara galtceco (GGero 131).*
- 10-68/69 *aimbeste onra ta alabanzaz < hanbat ohorerequin (GGero 131).*
- 10-69 *bere < haren (GGero 131); gainean agure, ezabatua.
salatzalle agure zar malsinac < accusatçailleac eta condenatçailleac (GGero 131).
salatzalle: gainean, acusatçalle (leh. acusatçalleac)-en ordez, baina hau ezabatu
gabe: txertatzeko marka hitz honen erdialdean agertzen da. agure zar: gainean eran-
tsia. malsin: Añibarrok sarri erabiltzen duen mailegua (cf. OEH, s.v. malsin), egun
are gaztelaniaz ere zaharkitua; cf. DAut (s.v.): “El chismoso mal intencionado, que
solicita hacer o poner mal a otros”.*
- 10-69/70 *bere lecuana bere ordez < haren leccuan (GGero 131).*
- 10-70 *condenatuac eriotzara izango ciriala < condenatuac eta iustitiatuac içanen cirela
(GGero 131).
Eta < Finean (GGero 131).*
- 10-70/71 *gogora etorri lequiquion < gogora citçaicaion (GGero 131).*
- 10-71 *Daniel santua < Daniel beçalacoa (GGero 131).
goseaquillac < gose-minduec (GGero 131).*
- 10-71/72 *euren erdian ta aguindura atzamar artean < bere menean eta atçaparren artean
(GGero 131). ta aguindura: aurrean euquiric eta honen aurrean, gainean, ta aguin-
dura, dena ezabatua.*
- 10-72 *euquiric < eduquiz guero (GGero 131).
gachic eguin... ta irunsi бага < deseguin gabe eta iretsi gabe (GGero 131). apurtu
baga: gainean erantsia.*
- 10-73/74 *berac bacarric ta ez bestec eguin leicenac < Iaincoac berac eguin ahal citçaqueyenac,
eta ez bertcec (GGero 131).*

75 leicenac. Eta eguin cituan oneen favore, euroc estuera andi-andian ciriane-
 an, eureen esperanza guztia confianza andi bategaz Jangoicoagan ifini ta josi
 ebelaco. Alan ifini ez ebelaco, Israelgo seme Egitoco erbestetic, deserritic
 urten ebenetarin, etzirian Josue ta Calef baño esqueñi jaquen errian sartu.
 Cerren guztien artean, oneec bioc bai, baña ez eban bestec Jangoicoaren pro-
 mesetan ta esanetan bear zan esperanza, icharomena, sinismena ta confian-
 80 zea euqui.

2 §.

Abiatu zan egun baten san Pedro ichaso ganean Jesu Christo bere mais-
 suagana joaten. Eta abiatu ta asi zan bertati oñez, ontzi бага, leorrean baliz
 leguez ur ganean ibilten, segurutasun ta esperanza bategaz, joanic bere jaun
 85 ta jabeagana, bere lagunzaz batera, ichasoac jasoco ebalala, etzala itoco, ta ez

-
- 10-74 *oneen favore* < *iende hequen faboretan* (GGero 131).
euroc < *hec* (GGero 131); ik. § 5.1.2.3.
estuera andi-andian < *herstura hetan* (GGero 131).
- 10-75 *andi bategaz* < *handirequin* (GGero 131); ik. § 5.1.1.6.
- 10-75/76 *ifini ta josi ebelaco* < *Ceren... ibeni baitçuten* (GGero 131); ik. § 5.2.18.
- 10-76 *ifini ez ebelaco* < *ibeni gabez* (GGero 131).
Israelgo < *Israeleco* (GGero 131). Orain artean jatorrizkoa gorde izan du (ik. 1-82, 1-
 145, 9-65, 10-55 eta 10-64); ondoko testuan, berriz, agerraldi bana dute (*-eco* 15-
 284, *-go* 54-94).
Egitoco erbestetic, deserritic < *Egiptotic* (GGero 131). *Egitoco*: leh. *Egitotic*; ondo-
 ren ur] (*urten?*), ezabatua. *erbestetic*: jat. *erbestestic* (arg. zuz.).
- 10-77 *ebenetarin*: leh. *ebenac*, < *cirenetarin* (GGero 131).
esqueñi jaquen errian < *herri prometatuan* (GGero 131); ik. § 5.3.2.
- 10-78 *guztien artean* < *guztien artetic* (GGero 131).
oneec bioc < *hec biac* (GGero 131).
- 10-79 *esperanza, icharomena* < *esperançta* (GGero 131).
- 10-79/80 *confianza euqui* < *fidancia eduqui* (GGero 131). *confianza*: aurrean *fidancia if]* (*ifi-
 ni?*), ezabatua. *euqui*: aurrean *ifini*, ezabatua.
- 10-82 *egun baten* < *egun batez* (GGero 131).
ichaso ganean < *itsas gaiñean* (GGero 131); ik. § 5.3.3.
- 10-82/83 *maissuagana* < *nabusiagana* (GGero 131).
- 10-83 *joaten*: Añibarroren eransketa, *abiatu*-ren erabilerarekin lotua (ik. 6-122/123. oh.).
Eta abiatu ta asi < *Eta abiatu* (GGero 131). *Eta*: aurrean *Abi* (*Abiatu*), ezabatua.
bertati < *berehala* (GGero 131).
ontzi бага < *untciric, eta chaluparic edo batelic gabe* (GGero 131-132); ik. § 5.3.2.
ontzi: aurrean *ibilten uren ganean*, ezabatua (ik. 10-84. oh.).
- 10-83/84 *baliz leguez* < *içan bailliz beçala* (GGero 132); ik. § 5.1.3.8.
- 10-84 *ur ganean ibilten*: Añibarroren eransketa.
segurutasun ta esperanza bategaz < *fidancia handi batequin, esperançta segur bate-
 quin* (GGero 132); ik. § 5.1.1.6.
- 10-84/85 *joanic bere jaun ta jabeagana* < *bere Iainco nabusiagana cihoanaz gueroztic* (GGero
 132); ik. §§ 5.2.1.1 eta 5.2.19. *joanic*: ganean, *joialaco*-ren orde.
- 10-85 *bere lagunzaz batera* < *haren faborearequin batean* (GGero 132). *bere*: ganean, *etza-
 la bere fav]* (*favore?*)-ren orde.

ondatuco. Eta ez zan onetan engañatu. Bada sinisteac ta esperanceac iraun eutsan bitartean jaso eban ichasoac, etzan ondatu, leorreatan adiña seguru, irme ta gogor ifinten cituan uren ganean oñac. Baña axe bat jaguiric, each bat ereguiric, ichasoa anditzen ta areriotuten <103> asi zanean, asi zan San Pedro bere izututen, icaratuten, bildurtzen, dudatzen, esperanza ta confiancea galduten. Eta, celan joian esperanza, sinistea galduaz, alan joian ichaso barrura bere sartuaz, estalduaz ta ondatuaz; alacoz ece, azquenean guztiz onda etzedin, Jesusec escua goian, gañean euquiteco, emon bear izan eutsan, cirautsala (Math. 14): Ha, fede guichicoa, cergaitic dudatu dozu? Cergaitic etzara lenengo gogoan ta sinistean irme egon? Sinistea euqui eban bitartean ondo joan jacan, orduan jasoten eban ichasoac. Baña otz epeldu zanean bere sinistea, fidanciac uts eguin eutsenean, uts eguin eutsan ichasoari bere jasoteco ta bere gañean euquiteco indarra ta poderea. Agaitic diño David erre-

- 10-86 *ez zan onetan engañatu < etcen, ez, enganatu (GGero 132). sinisteac ta esperanceac < fidancia har[c] (GGero 132).*
- 10-87 *etzan ondatu < etcen ondora (GGero 132).*
- 10-87/88 *adiña seguru, irme ta gogor < beçain segurqui eta gogortqui (GGero 132); ik. 9-116. oh.*
- 10-88 *ifinten < fincatcen (GGero 132). uren ganean oñac: jat. gañean onac (arg. zuz.); gañean ezinezkoa ez bada ere (cf. 10-98, adib.), badirudi hemen bataren hutsa bestearekin lotu beharrekoa dela. uren ganean: Añibarroren eransketa. Baña < Baiña guero (GGero 132).*
- 10-88/89 *each bat ereguiric: Añibarroren eransketa.*
- 10-89 *areriotuten < hasserretcen (GGero 132). asi zan < hasi cen halaber (GGero 132).*
- 10-90 *izututen, icaratuten, bildurtzen < icitcen, iccaratcen (GGero 132). izututen: aurrean icaratuten, ezabatua.*
- 10-91 *esperanza, sinistea galduaz < dudatuaz eta fidantciaren galduaz (GGero 132). esperanza: ondoren gal] (galduaz?), ezabatua.*
- 10-92/93 *guztiz onda etzedin = GGero 132; ik. § 5.1.3.2.*
- 10-93 *Jesusec < bere nabusiaco (GGero 132). goian, gañean euquiteco < goiti eduquitceco (GGero 132). goian: leh. goitic.*
- 10-94 *cirautsala < erraiten cioela (GGero 132). fede guichicoa < fede appurretacoa, fidancia gutitacoa (GGero 132); ik. § 5.1.1.4. dozu < duc (GGero 132).*
- 10-95 *etzara < eçaiz (GGero 132). irme egon < fin egotu (GGero 132). Sinistea < Fidancia (GGero 132). euqui < içan (GGero 132).*
- 10-96 *jasoten eban < iasan çuen (GGero 132).*
- 10-96/97 *otz epeldu... eguin eutsenean < fidancia hura faltatu ceicanean (GGero 132).*
- 10-97 *uts eguin eutsan < faltatu ceican (GGero 132).*
- 10-98 *bere gañean euquiteco < sostengatceco (GGero 132); ik. § 5.3.2. poderea < botherea (GGero 132); ik. § 5.3.3. Agaitic < Halatan (GGero 132).*
- 10-98/99 *David erregueac < erregue Davitec (GGero 132).*

100 gueac (Psal.): Jaunagan ichadoten dabenac Siongo basoa ta mendia leguez izango dira: a laimbeste irme, sendo, seguru ta indartsu.

105 Bada orrela, ori danez beraz, asco valio dau esperanza eguiazco batec, indar andia dau ichadote on batec; ain andia ece dirudi asco izango dala esperanza santu au berau bacocharen eguitecoetan ta batez bere bere azquenco orduan, izan arren becatariric gaistoena, salvaciñoco videan ifinteco. Ez orrelacoric. Dirudi, baña ezta alan: ezta esperancea bera asco izango. Eguia da asco balio dabela, indar andia dauquela Jangoicoagan ichadoteac; baña adietan dala eguite onacaz batean ta bere neurrian, lar gueieguia бага. Ceren lar gueiegui guztiac dira gaisto, urrengo buruan esango dan leguez.

- 10-99 *ichadoten dabenac* < *fidatcen direnac* (GGero 133).
- 10-100 *a laimbeste* < *hura beçain* (GGero 133). *laimbeste*: aurrean *dun beste*, ezabatua. *adiña* bezala (ik. 9-116. oh.) *laimbeste* ere ez da hemendik kanpora 'maila' konparazioan aurkitu ohi (cf. *OEH*, s.v.), baina *VB-n* (s.v. *tan*), *bezain* (g.), *adiña* eta *laimbeste* berdinduta daude.
- 10-101 *Bada orrela, ori danez beraz* < *Beraz, hunelatan* (GGero 133). *orrela*: gainean, *one-la-ren* ordez. *ori danez beraz*: *orrela-ren* ondoren txertatzeko, lehenik *esango dozu* idatzi du, ezabatu eta haren gainean honakoa erantsi, zehazki *ori danez (ergo) beraz* itxuran. Urquijok (1924: 687) ez du eransketa hau kontuan hartu. *esperanza eguiazco batec* < *esperantçac* (GGero 133); ik. § 5.4.2.
- 10-102 *ichadote on batec* < *fidantciac* (GGero 133).
- 10-102/103 *esperanza santu au berau* < *fidantcia hura bera* (GGero 133).
- 10-103 *eguitecoetan* < *eguitecotan denean* (GGero 133); ik. §§ 5.1.1.4 eta 5.3.4.
- 10-104 *izan arren becatariric gaistoena*: leh. *lagunduteco becatariric gaistoenari*, < *gaixotago bada ere* (GGero 133). *salvaciñoco videan ifinteco* < *salbatceco eta bide onean ibentceco* (GGero 133). *ifinteco*: leh. *ifintera*.
- 10-105 *Dirudi, baña ezta alan* < *Hala iduriagatic, ezta hala* (GGero 133).
- 10-105/106 *Eguia da* < *Ceren eguia da* (GGero 133).
- 10-106 *asco balio dabela...* *Jangoicoagan ichadoteac* < *anhitz valio du fidantciac, indar handia du esperantçac* (GGero 133).
- 10-107 *eguite onacaz batean ta*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina. *bere neurrian* < *neurriz* (GGero 133). *lar gueieguia бага* < *soberania gabe* (GGero 133). *VB gueieguia* (c.), *larreguia* (b.) "demasia": bi osagaietarako atzizki bakarra daraman Añibarroren tautologietako bat dugu, beraz, *lar gueiegui* (ik. § 5.3.1).
- 10-108 *lar gueiegui guztiac* < *soberania guztiac* (GGero 133). *gueiegui*: leh. *gueieguia*. *urrengo* < *hunen ondoco* (GGero 133). *buruan* < *capituluan* (GGero 133). *esango dan* < *aguerico den* (GGero 133).

11. BURUA

Jangoicoaren misericordian fiatutic ezta penitencia eguitea gueroco ichi bear.

1 §.

- 5 San Agustinec diño (de vera et fals. penit.), Jangoicoaren misericordian
<104> gueiegui fiatuten dirianacaz verba eguiten dabela, onelacoac esan oi
dabela, uste guzurrezcoaz: Erruquiorra da Jangoicoa, misericordiaduna,
biotz-bera, maitetasunez ta ontasunez betea; eta alan, ez dogu cer saiatu, te-
matu ta estu-larritu bearric obra onac eguitera. Eta, bada ez da eceren pelli-
10 gruric, bardin da biar edo guero. Euqui guiñei esperanza, seguridad ta sinis-
tea, vicitza lucea emongo deuscula; eta nosnai, zartasunean, ta ilteco orduan

-
- 11-2 *Jangoicoaren*: jat. *Joangoicoaren* (arg. zuz.).
ezta < eztela (GGero 133).
- 11-5 *San Agustinec diño < Erraiten du San Agustinec* (GGero 133).
Jangoicoaren: jat. *Jaigocoaren* (arg. zuz.).
- 11-6 *dirianacaz < direnez* (GGero 133); 'zertaz' adierazten du, ez 'norekin' (ik. § 5.1.1.11).
- 11-6/7 *onelacoac esan oi dabela < erraiten dutela halacoec* (GGero 133).
- 11-7 *uste guzurrezcoaz*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
Erruquiorra < Misericordios (GGero 133).
misericordiaduna: Añibarroren eransketa.
- 11-8 *maitetasunez < amorioz* (GGero 133).
eta alan < beraz (GGero 133); ik. § 5.3.4.
ez dogu: leh. *eztoqu* idazten hasi zen, baina damutu; hemendik *eztodogu*, Urquijoren irakurketa ezinezkoa (1925: 346).
- 11-8/9 *cer saiatu... bearric < cer lehiatutic* (GGero 133). *saiatu*: gainean, *por]* (*porfiatu?*)-
ren orde. *bearric*: gainean erantsia.
- 11-9/10 *Eta, bada ez da eceren pelligruric < Ceren berdin ezta deusen perlic* (GGero 133).
- 11-10 *bardin da biar edo guero < orobat da bihar, orobat da guero* (GGero 134); ik. § 5.5.1.
Euqui guiñei < Ahal duquegu (GGero 134).
- 11-10/11 *esperanza, seguridad ta sinistea < esperantça, fidantcia eta segurantça* (GGero 134).
- 11-11 *nosnai < noiz nahi den* (GGero 134).
- 11-11/12 *ilteco orduan bere < are hiltceracoan ere* (GGero 134); ik. § 5.2.12.

bere, gure becatuac, gaistaqueric ta deunguero eguiñac, guztia parcatuco deuscuzala. Bada, jaun batec ain onac, ain erruquiorrac, ain bigunac, ain gozoac ta maitegarriac ecin bestela eguin lei, ecin gachic iñori eguin leio.

- 15 Gugaitic Cerutic lurrera jatsi zan; gugaitic vicitzea galdu eban; gugaitic bere odol guztia emon eban; eta odol onegaz bere Aita ta gure arteco aserrea ta areriotasuna quenduric, becatuen zorra oso-osoan quitutu ta ordetu eban; ta catibutasunetic ateraric libertasunean ifini guinduzan. Eta Jangoicoac onelaco gauzaric eguin baño len, legue zarrean bere, gaistoac eurac condenetan cirian, ta ez besteric. Ori danez, orain eztira gaisto guztia condenetan, edo gaistoac erraz obetu, onduten dira. Cergaiti ce, bestela, ce diferencia, ce bestetasun legoque lenagoco demporetaric oraingoetara? Edo ce provechu, ce on guenduque guc Jangoicoa mundu onetan ibiliaz ta nequetuaz? Eta Jangoicoac esan beban bere (Math. [8, 20]) asco diriala deituac, baña guichi au-

-
- 11-12 gure < gueure (GGero 134); ik. § 5.1.2.4.
becatuac, gaistaqueric... guztia < beccatu guztia (GGero 134).
- 11-13 jaun batec ain onac < hain gauça onac (GGero 134).
- 11-13/14 ain erruquiorrac... ta maitegarriac < misericordiosac, bihotz-berac eta amoltsuac (GGero 134).
- 11-14 ecin bestela eguin lei < ez liaquitque bertcela eguiten (GGero 134).
ecin gachic iñori eguin leio < ez liaquitque nehorri gaitzic emaiten (GGero 134).
- 11-15 Gugaitic < Guregatic (GGero 134).
galdu eban: gainean, emon eban-en orde, azken eban hau ezabatu ez badu ere, < eman çuen (GGero 134).
- 11-15/16 gugaitic bere odol guztia emon eban < gorputzeco odol guztia isuri çuen (GGero 134).
- 11-16 onegaz < hartçaz (GGero 134).
- 11-16/17 aserrea ta areriotasuna < traba eta etsaigoa (GGero 134).
- 11-17 oso-osoan: aurean osoro, ezabatua, < ossoqui (GGero 134); ik. § 5.1.4.
quitutu ta ordetu eban < iusticiaren arauaz pagaturic (GGero 134).
- 11-18 catibutasunetic < gathibutasunetic ere (GGero 134).
libertasunean < libertatean (GGero 134).
- 11-20 Ori danez: gainean, Ergo-ren orde, < Beraz (GGero 134); ik. § 5.3.4.
orain: ondoren beré, ezabatua, < orai (GGero 134).
guztia < guztia ere (GGero 134).
- 11-21 erraz < errazqui (GGero 134).
obetu, onduten < ontcen (GGero 134).
Cergaiti: ondoren letra bat (ziurrenik -c), ezabatua.
- 11-21/22 ce diferencia, ce bestetasun < cer differentia (GGero 134). bestetasun: gainean, bannatasun-en orde, baina hau ezabatu gabe; VB bestetasuna (c.) “diferencia”; cf. lehenago diferente ta bestetua (4-122/123).
- 11-22 legoque < liçateque (GGero 134).
demporetaric oraingoetara < demboratic hunetara (GGero 134).
- 11-22/23 ce provechu, ce on < cer probetchu (GGero 134).
- 11-23 nequetuaz < penatuaz (GGero 134).
- 11-23/24 Jangoicoac < laincoac berac (GGero 134).
- 11-24 guichi < gutiac (GGero 134).

- 25 tuac; orregaitic bere, ez dogu guc christiñau fededun sinisleoc cer izutu, cer icaratu, ez bildurtu. Bada christiñauac baño eztira salvetan, <105> eta guichi dira christiñauac, christiñauac eztireanen aldean. Eta alan, esaten danean asco diriala deituac, [baña guichi autuac], adietan da gentil fedebagueac, moroac, turcoac, judeguac, heregeac ta beste, Elessa Santatic campora mundu guztian zabalduac dagozanac diriala deituac. Baña guichi, christinauac eurac diriala autatuac, ta ez besteric.

- Onela diño San Agustinec esan daroela becatari itsu ascoc. Baña parteric gueienean diño deunguero, ta ondo deunguero. Verbacuntza gaisto au gure arerio asmutsuaren buruan pensatua, asmatua ta sortua da, ta andic urtena ta jaioa. Bada orain, Jangoicoaren Semea guizonduric il ezquero, errazago bada bere salvetea ta becatutic urtetea len baño; baña orain bere urten ta jagui bear da becaturic; ezta erraztasun aren esperanza becatuan egon bear.

Arerio gaisto onec, gure Jangoicoari temploaren ganera tentetaco eroan

-
- 11-25 *orregaitic bere < hargatic (GGero 134). christiñau fededun sinisleoc < guiristinoc (GGero 134). cer izutu... ez bildurtu < cer icituric (GGero 134). bildurtu: leh. bildurturic.*
- 11-25/26 *christiñauac baño eztira < guiristinoric baicen ezta (GGero 134).*
- 11-26 *guichi dira < gutiac dira (GGero 134).*
- 11-26/27 *christiñauac eztireanen < guiristino eztirenen (GGero 134). eztireanen: jat. eztireanean (arg. zuz.).*
- 11-27 *[baña guichi autuac] < eta gutiac hautatuac (GGero 135), Añibarrok oharkabean jarri gabe utzia; goiko esapide berbera (11-24/25) erabili dut. gentil fedebagueac < ientilac (GGero 135); ik. § 5.3.1.*
- 11-28 *heregeac < luterac (GGero 135).*
- 11-29 *ta beste... diriala deituac < eta munduco bertce guztiac direla deituac (GGero 135). beste: ik. § 5.2.1.3. campora: ondoren dagozanac, ezabatua.*
- 11-30/31 *christinauac eurac diriala autatuac < guristinoac berac hautatuac (GGero 135).*
- 11-32 *esan daroela < erraiten dutela (GGero 135). daroela: gainean, oi dabela-ren orde (ik. § 4.3.10.6); ezabatuta egon beharrea, eranste marka darama azpian. becatari itsu ascoc < iende suerte batçuec (GGero 135); ik. § 5.4.2.*
- 11-33 *deunguero, ta ondo deunguero < gaizqui eta gaixtoqui (GGero 135). Verbacuntza gaisto au < Minçatce molde haur (GGero 135); ik. § 5.4.2.*
- 11-34 *asmutsuaren < gaixtoaren (GGero 135). pensatua, asmatua ta sortua < pensatua (GGero 135). pensatua: ondoren da, eta honen gainean ta, biak ezabatuta.*
- 11-34/35 *urtena ta jaioa < iltquia (GGero 135).*
- 11-35 *Jangoicoaren Semea guizonduric il ezquero < Iaungoicoac heriotcea errecibituz guero (GGero 135).*
- 11-36 *becatutic < beccatuetaric (GGero 135). baña < ordea (GGero 135). urten ta jagui < iltqui (GGero 135).*
- 11-37 *becaturic: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina. becatuan < beccatutan (GGero 135); ik. § 5.1.1.4.*
- 11-38 *gaisto onec < gaixtoac (GGero 135). Jangoicoari < Iaincoari berari (GGero 135). ganera: leh. ganean, < gaiñera (GGero 135). tentetaco < tentatcera (GGero 135).*

ebanean, esan eutsan leguez bota eguiela andic beera bere burua, cerren an-
 40 gueruac jasoco ebela, minic ta calteric artzetic gordeco ebela (Math. 4). Alan
 dirautsu zuri bere orain: Bota eguizu, ezarri, egotzi eguizu ceure burua, go-
 goan darabiltzun becatu orretan; cumpli eguizu ceure guraria ori; etzaitz
 iñolacoz atzeratu. Bada, izanic Jangoicoa ain ona ta erruquitsua, ez jatzu da-
 45 mutuco, ez jatzu calteric, ez zorigachic etorrigo. Zugaitic vicitzea emon eba-
 nac, aimbeste neque-pen igaro cituenac eztau, ez, oneec guztioac alper galdu
 ditecen guraco, etzaitu galdutera ichico. Bota eguizu, bada orrela, zure bu-
 rua, eguizu becatu, fia zaite, ez eguizu euqui eceren bildurric.

Auxe berberau da deabruaren verba-eguietia, bere escolan, icaslecuan
 iracurria; an ereina ta andic zabaldua. Jangoicoaren <106> ontasunetic ta Pa-
 50 siño Santuco merceduetaric ta valio anditic gura dozu artu videa, oca-
 siñoa ta ausardia becatu eguiteco ta becatuan egoteco. Ain andia da itsutasun

-
- 11-39 *esan eutsan leguez < Nola... erran baitcioen (GGero 135). leguez: gainean erantsia. beera: leh. bera, < behera (GGero 135). cerren < ceren berdin (GGero 135).*
- 11-40 *minic ta calteric artzetic < min hartcetic (GGero 135); ik. § 5.1.1.5.*
- 11-41 *dirautsu < erraiten deratçu (GGero 135); ik. § 5.1.3.7. Bota eguizu, ezarri, egotzi eguizu < Egotzaçu (GGero 135).*
- 11-42 *cumpli eguizu ceure guraria ori < ceure desira compli eçaçu (GGero 135); ik. § 5.2.1.1. cumpli eguizu: aurean eguizu, ezabatua, ziurrenik < obra eçaçu (GGero 135). guraria ori: ik. § 5.1.1.1.*
- 11-42/43 *etzaitz iñolacoz atzeratu < etçaitçala deusec ere guibela (GGero 135).*
- 11-43 *izanic Jangoicoa < berdin nola Iaincoa baita (GGero 135). ain ona ta erruquitsua < hain on eta misericordios (GGero 135).*
- 11-44 *calteric, ez zorigachic < calteric (GGero 135). calteric, ez: bien artean et] (eta?), ezabatua. Zugaitic < Çuregatic (GGero 135).*
- 11-45 *aimbeste neque-pen < hanbat pena eta travaillu (GGero 135). cituenac < çuenac (GGero 135); ik. § 5.1.2.7. oneec guztioac < hec guztiaç (GGero 135-136).*
- 11-45/46 *galdu ditecen < guertha ditecin (GGero 136).*
- 11-46 *bada orrela < beraz (GGero 136); ik. § 5.3.4.*
- 11-46/47 *zure burua < ceure burua (GGero 136); ik. § 5.1.2.5.*
- 11-47 *fia zaite < fida çaiteci (GGero 136); ik. § 5.1.3.2. ez eguizu euqui eceren bildurric < etçarela deusen veldur (GGero 136). eceren: leh. ecerren.*
- 11-48 *Auxe berberau < Haur (GGero 136). bere < haren (GGero 136); ik. § 5.1.2.4. escolan, icaslecuan < escolan (GGero 136).*
- 11-49 *ontasunetic < misericordiatc, ontasunetic (GGero 136).*
- 11-50 *Santuco < sainduaren (GGero 136); ik. § 5.1.1.8. merceduetaric < meritutic (GGero 136). valio anditic < valiostasunetic (GGero 136).*
- 11-50/51 *videa, ocañoa < occasino (GGero 136).*
- 11-51 *becatuan < beccatutan (GGero 136).*
- 11-51/52 *Ain andia da itsutasun au < Hain da itsustasun eta itsutasun handia (GGero 136).*

au ta becatari galduen contu char au, ece gure Salvatzallea quexatu ezpazan bere gugaitic igaro cituen neque, garratzmin, lotsaria ta eriotzaz; baña que-
 xatu zan, mindu, senticortu zan bidebague ta esquerbagnetasun onegaz, esa-
 55 ten ebala (Psal. 128): Ene sorbaldaren gañean eguin eben egur becatariac, an
 euren gaistaqueria landu, lucetu ta zabaldu eben. Esan gura dau: gaistoac eu-
 ren gaistaqueriac eguiteco ta aetan lucero egoteco, artuten dabe cimendutzat
 ta ocasiñotzat nic nire sorbalda ganean artu nituen azoteac, colpeac, penac ta
 60 mintasanac. Eta euroetan fiaturic, euroetan esperantzaturic ta contu eguinic,
 bardin nic eurac gaitic pagatu, quitutu, ordetu nebala, asartu ta aurretuten
 dira becatu eguitera, esan oi dabela: Erruquitsua da Jangoicoa; maite gaitu,
 ondo gura deuscu, bereac ta bere odolaz erosiac gaitu: men-menera, estu-es-
 tura gatozanean uts eguingo ezteuscu, larga ta aztuco ez gaituz; ori danez,

- 11-52 *becatari < iende (GGero 136).
 contu char au < contua haur (GGero 136).
 quexatu: jat. quexetatu (arg. zuz.); ziurrenik leh. quexetan zioen, eta hemendik hutsa;
 < arrencuratu (GGero 136).*
- 11-53 *gugaitic igaro cituen... eriotzaz < bere heriotce penatuaz eta desohorezcoaz (GGero
 136). gugaitic: aurrean orrez guzti] baña bai bere, ezabatua. lotsaria: ik. § 5.1.1.1.*
- 11-53/54 *baña quexatu zan, mindu, senticortu zan < arrencuratu eta senticortu baitcen (GGe-
 ro 136). mindu: gainean erantsia.*
- 11-54 *bidebague ta esquerbagnetasun < bidegabe (GGero 136).
 onegaz < hunetçaz (GGero 136).*
- 11-55 *sorbaldaren < sorbalden (GGero 136).*
- 11-56 *euren: gainean, bere-ren ordez (= GGero 136); ik. § 5.1.2.4.
 landu: gainean, lehen eguin eta guero zabaldu-ren ordez, < hedatu (GGero 136).
 zabaldu: gainean, lehen zabaldu eta gero gueiagotu-ren ordez, < çabaldu (GGero
 136).*
- 11-56/57 *euren: gainean, bere-ren ordez (= GGero 136).*
- 11-57 *artuten dabe < hartcen dituzte (GGero 136); osagarri zuzena plurala da bietan.*
- 11-58 *nic nire < nic neure (GGero 136); ik. § 5.1.2.4.
 sorbalda ganean: aurrean solba] (solbarda?), ezabatua; leh. sorbaldan, < sorbalden
 gañean (GGero 136).
 artu < errecibitu (GGero 136).*
- 11-59 *euroetan < hetan (GGero 136), lerroko bi agerraldietan.
 esperantzaturic: aurrean ich] (icharonic?), ezabatua.*
- 11-60 *eurac gaitic < hequengatic (GGero 136).
 pagatu, quitutu, ordetu < pagatu (GGero 136).
 asartu ta aurretuten < ausarta[t]cen (GGero 136). asartu: leh. asartuten dira.*
- 11-61 *becatu eguitera < beccatu eguitera eta beccatutan egoitera (GGero 136).
 esan oi dabela < erraiten dutela (GGero 136); ik. § 5.1.3.13.
 Erruquitsua < Misericordios (GGero 136).*
- 11-62 *ondo gura deuscu < on derizcu (GGero 136-137).
 bereac ta bere odolaz erosiac < bereac, bere odolaz erosiac (GGero 137).*
- 11-62/63 *men-menera, estu-estura gatozanean < men-menera gaitecinean (GGero 137).*
- 11-63 *uts eguingo ezteuscu < eztiçaigu falta (GGero 137).
 larga ta aztuco ez gaituz: Añibarroren eransketa. larga: leh. largaco. ta aztuco: gai-
 nean erantsia.
 ori danez < beraz (GGero 137); ik. § 5.3.4.*

65 artu guiñei escu ta baimena becatu eguiteco. Baña, ay, contu charra da ateraten daben au. Esan bear da misericordiosua dala gure Jangoicoa onelaco lotsabagueac, onen loi atsiuac sufrietan dituenean.

2 §.

70 San Basilio beste verbacuntza batez valiatuten da gai onen ganean verba eguiten dabenean, esaten dabela (homil. sup. psal. 32): Eztidilla iñor Jangoicoaren misericordiaz gueiegui, lar ascoegui fiatu, <107> cergaitic ce Jangoicoac gure eguite guztiac contuan, pisuan, neurrian contatu, pisetu, neurtu ta mugatuten dituen leguez, alan bere ontasunaz, misericordiaz, erruqitasunaz bere, contuz, pisuz, neurriz, estutasunaz, justiciaren erara valiatzen da. Espiritu Santuac diño (Prov. 28): Idoro dozu ezti? jan eguizu, bada, neurriz, bear-bear dozuna bacarric, ta ez gueiegui ase-bete, errebesatu eztaguizun, aotic biurtu eztaguizun.

Justicia min da ta garratz; eta misericordia gozo ta ezti. Baña ezti ta gozotasun ataric, ezti gozoa izan arren, ezta lar jan bear; ezta, misericordiaren

-
- 11-64 *baimena* < *licentia* (GGero 137).
becatu eguiteco < *cenbait beccaturen eguiteco* (GGero 137).
- 11-64/65 *Baña... ateraten daben au*: Añibaroren eransketa, lerro ganean egina.
- 11-65 *misericordiosua* < *misericordios* (GGero 137).
gure Jangoicoa < *Iaincoa* (GGero 137).
- 11-66 *lotsabagueac*: ganean *ahapaldiac* (= GGero 137), ezabatua.
loi atsiuac < *itsusiac* (GGero 137). *loi*: *aurrean itsu*] (*itsusi?*), ezabatua.
sufrietan < *pairatcen* (GGero 137).
- 11-68 *gai onen ganean* < *gauça hunetçaz* (GGero 137).
- 11-69 *Eztidilla*: ik. § 4.3.10.1.
- 11-70 *misericordiaz gueiegui, lar ascoegui fiatu* < *miserician sobera fida* (GGero 137).
ascoegui: ganean erantsia. *VB ascoegui* (b. g.) “*demasía*” eta “*demasiado*”.
- 11-71 *eguite* < *obra* (GGero 137).
neurrian < *eta neurrian* (GGero 137).
- 11-71/72 *contatu, pisetu, neurtu ta mugatuten* < *contatcen, pisatcen eta neurtcen* (GGero 137).
- 11-72 *dituen leguez* < *nola... baititu* (GGero 137).
- 11-72/73 *ontasunaz, misericordiaz, erruqitasunaz* < *misericordiaz* (GGero 137).
- 11-73 *contuz, pisuz, neurriz, estutasunaz* < *contuz, pisuz eta neurriz* (GGero 137).
erara < *arauaz* (GGero 137).
- 11-74 *Espiritu Santuac diño* < *Dio Spiritu Sainduac* (GGero 137), latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean. *Espiritu*: aurrean *Idoro doz*] *Diño*, ezabatua. *diño*: ganean erantsia.
- 11-74/75 *neurriz*: aurrean *guichi*, ezabatua, < *neurriz* (GGero 137).
- 11-75 *bear-bear dozuna bacarric* < *asco duçun beçain bertce* (GGero 137).
ez gueiegui ase-bete < *ez guehiago asse-eguric* [sic] (GGero 137) < *eguiric* [sic] (Gero 137), *eginik* (Villasante 1976: 153).
- 11-75/76 *errebesatu eztaguizun* < *okha eztaguiçun* (GGero 137).
- 11-76 *aotic biurtu eztaguizun* < *ahotic bihur ezteçaçun* (GGero 137).
- 11-77/78 *ezti ta gozotasun* < *ezti* (GGero 137).
- 11-78 *ezti gozoa izan arren* < *ezti içanagatic* (GGero 137).

80 eztitasunean fiaturic, becatu-ric eguin bear. Bada alan eguitea ezti gueiegui jatea da.

85 Espiritu Santuac berac diño (Eccle. 5): Eztaguizula esan misericordio-tsua dala Jangoicoa, ta ceure becatu guztiac parcatu deutzuzala; cerren misericordia ta justicia ur jagocaz Jangoicoari, alcar baturic dagoz, ta justicia becatari-ai beguira dago. Misericordiaren gozotasunari beguiratuten deutzuzun leguez, beguiratu bear deutzuzu justiciaren garratzasunari bere. Bada Jangoicoagan ain andia da justicia cein misericordia. Misericordia ta justicia bardiñac dira pisuan, balantzan, neurrian.

90 Eguia da, Santo Tomasec diñoan leguez (22 q. 21, art. 2): Berez danez, obeto jatorco Jangoicoari, ta prestago ta macurtuago dago misericordiara, justiciara baño; bai ta parcatutera bere, castiguetara baño. Eta alan, eguiten dau ascotan gugaz misericordia, guc mereci baga, bere ontasun ta erruquitasun beragaitic; baña <108> ez gaitu beimbere castiguetan, eztau gugaz usetan bere justiciaz, arbintasunaz ta aserreaz, guc lenagotic gueure becatuacaz artara beartu baga. Baña izateaz danez, aimbat justicia cein misericordia

-
- 11-81 *Espiritu Santuac berac diño*: Añibarroren eransketa.
Eztaguizula esan < *Ezterraçula* (GGero 138); ik. § 5.1.3.7.
- 11-81/82 *misericiordio-tsua dala* < *misericiordios dela* (GGero 138).
- 11-82 *parcatu deutzuzala* < *barccatuco derauzquitçula* (GGero 138).
- 11-83 *ur jagocaz Jangoicoari, alcar baturic dagoz* < *hurbil dagotça Iaincoari eta elccarri* (GGero 138). *alcar*: ik. § 5.1.2.6.
- 11-86 *Jangoicoagan ain andia da justicia cein misericordia* < *Iaincoa hain da iusticiati nola misericordios* (GGero 138).
- 11-87 *bardiñac dira pisuan, balantzan, neurrian* < *berdin dira pisuan, berdin dira balantçan* (GGero 138); ik. § 5.5.1.
- 11-88 *Berez danez*: Añibarroren eransketa. *Berez*: aurean *Berez danez prestago dago Janga, ta Obeto jatorco* [gainean *Jgri.*, *prestago, macurtuago d*] *misericiordia, justicia baño, ta, dena ezabatua*. Cf. hurrengo oharra.
- 11-89/90 *obeto jatorco... justiciara baño* < *Placentago eta laquetago çaica Iaincoari misericordia, iusticia baiño* (GGero 138). *dago*: gainean erantsia.
- 11-90 *bai ta* < *eta bai* (GGero 138); ik. § 5.2.6.
- 11-90/91 *eguiten dau ascotan gugaz misericordia* < *usatcen du anhitzetan ere bere misericordiaz* (GGero 138).
- 11-91/92 *bere ontasun ta erruquitasun beragaitic* < *bere ontasunagatic beragatic* (GGero 138); ik. § 5.1.2.3.
- 11-92 *ez gaitu beimbere castiguetan*: Añibarroren eransketa.
- 11-92/93 *eztau gugaz usetan bere justiciaz... ta aserreaz* < *ez iusticiaz, eztu behin ere usatcen* (GGero 138). *arbintasunaz*: leh. *arbintasun*; *VB arbintasuna* (b.) “ira”, “saña, indignación, furor”.
- 11-93 *becatuacaz* < *beccatuez* (GGero 138).
- 11-94 *artara*: leh. *atara*.
beartu: leh. *beartuten*, < *behartu* (GGero 138).
izateaz danez < *içaiteaz denaz beçanbatean* (GGero 138).
- 11-94/95 *aimbat justicia... dago Jangoicoagan* < *bada Iaincoa baithan hanbat iusticia nola misericordia* (GGero 138).

95 dago Jangoicoagan, aguertu ta icusico dan leguez beste munduan, emengo misericordiazco dempora au igaro dedinean. Agaitic diño David santuac (Psal. 10): Jauna, misericordia ta justicia cantatu deutsudaz; biac bardin, ain ondo bata cein bestea.

Misericordiaz bacarric, justiciaz conturic eguin baga, verba eguiten da-
 100 benac eztaqui cer esaten dabene; eztau alacoa[c] justiciaren anditasuna icu-
 sten, ezagututen, oartuten. Eta ara celan eztacusen: Zuc diñozu misericordio-
 soa, erruquitsua dala Jangoicoa, ta ondo diñozu ta uste dozu. Baña zuc
 Jangoicoa ontasun ta misericordia andicoa dala autortu ta diñozunean, be-
 guiratu bear dozuz justicia, aserre ta bere gogortasunaren inguruac ta colpe-
 105 ac bere; oneec gogoraturic ta beguiraturic esperanza, icharomen, ichadote
 utsac, zoroac, cimendu ta errazoibagueac larga daguizuzan.

-
- 11-95 *aguertu ta icusico* < *aguerico* (GGero 138).
dan leguez < *Nola... baita* (GGero 138).
emengo: *aurrean emeco*, ezabatua.
- 11-96 *misericordiazco dempora* < *dembora misericordiazco* (GGero 138). *dempora*: gainean
 erantsia.
David santuac < *propheta Davitec* (GGero 139).
- 11-97 *cantatu* < *cantatuco* (GGero 139).
- 11-98 *cein bestea* < *nola bertcea* (GGero 139).
- 11-99 *bacarric* < *soilqui eta baccarric* (GGero 139).
conturic: leh. *contu*, < *conturic* (GGero 139).
- 11-100 *eztau*: zerbait datza azpian, *eztau* honekin zuzendua, agian *ezta* bera (eta hemendik er-
 gatiborik eza), < *eztu* (GGero 139).
- 11-100/101 *icusten, ezagututen, oartuten* < *iccusten* (GGero 139).
- 11-101 *Eta ara celan eztacusen* < *Eta iccusaçu nola eztuen iccusten* (GGero 139); ik. §
 5.1.3.7.
- 11-101/102 *misericordiosoa, erruquitsua dala* < *misericordios dela* (GGero 139).
- 11-102 *Jangoicoa*: jat. *Jangoa*. Hemendik aurrera honela eta bestela laburtua agertzen da sa-
 rri, baina laburdurok guztiok zabaldu ditut, ohi den bezala.
ta uste dozu: Añibarroren eransketa.
- 11-103 *Jangoicoa*: leh. *Jangoicoaren*.
ontasun ta misericordia andicoa dala < *misericordios dela* (GGero 139). *ontasun*: leh.
ontasuna.
autortu ta diñozunean < *dioçunorrec* (GGero 139). *autortu*: *aurrean di* (*diñozu?*),
 ezabatua.
- 11-103/104 *beguiratu bear dozuz* < *aditu behar ditutçu appurbat* (GGero 139).
- 11-104 *justicia, aserre ta bere gogortasunaren* < *iusticiaren* (GGero 139).
inguruac < *tornuac* (GGero 139).
- 11-105 *oneec* < *hec* (GGero 139); ik. § 5.1.2.1.
gogoraturic ta beguiraturic < *adituric* (GGero 139). *beguiraturic*: *aurrean icu*] (*icu-
 siric?*), ezabatua.
esperanza, icharomen, ichadote < *fidantcia* (GGero 139).
- 11-106 *utsac, zoroac* < *erhoac* (GGero 139). *utsac*: leh. *uts*.
cimendu ta errazoibagueac: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
larga daguizuzan < *utz ditçatçun amoreac gatic* (GGero 139); ik. § 5.3.4.

3 §.

Justiciaren lenengo colpea, descarga, goiberatutea izan zan goian, Ceruco angueruetan, Lucifer soberbiotsu ta bere lagun gaistoen ganean. Ceruco
 110 angueruric ederrena, aurrengoena ta Jangoicoaren adisquideric andiena bota
 ta ondatu eban justiciac soberbia, andiuste, goitura, arrotasuneco becatu ba-
 tegaitic betiraun guztico seculaco Infernuco necaldi garratzetara. Eta angue-
 ru guztien lenengoa, nagusiena, aurreratuena ta aguintaria eguin zan deabru,
 115 ta deabru guztien buru, aurreratzalle ta capitai. Zanic <109> ederrena, poli-
 tena, galantena, arguiena, eguin zan ezainena, itsusiena, baltz, ilun, izuga-
 rriena ta gaistoena. Maitegarriena gorrotogarriena, ta goiena beerena. Ala-
 coz ece, Isaias profeta santuac, ain jausquera andiaz mirarituric, itanduten
 deutso Lucifer berari (Isai. 14): Celan orrela jausi cinean, Lucifer? Celan
 120 jausi cinean egunsentico izarra, izarric arguiena, goxean gox, egunsentian
 sortu, jagui oi ciniana? Ain gora cengozana? Andia ta icaragarria izan zan
 Ceruan justiciac eguin eban colpe ta castigu bildurgarri au.

Baña eguin eban lurrean bere beste bat, ez chiquiagoa, baldin erremedioric ordenatu ezpalichaco; eta zan Adanen becatuari emon jacon castigua.

-
- 11-108 *colpea, descarga, goiberatutea < colpea eta desarra (GGero 139).*
 11-109 *Lucifer soberbiotsu < Luciferren (GGero 139); lehenago soberbiotsu (9-45/46). bere < haren (GGero 139). lagun gaistoen < lagun (GGero 139); ik. § 5.4.2.*
 11-110/111 *bota ta ondatu < egotci (GGero 139).*
 11-111 *soberbia, andiuste, goitura, arrotasuneco < urguillutasuneco (GGero 139).*
 11-112 *betiraun guztico... garratzetara < secula fīngabecotçat infernuco peneetara [sic] (GGero 139).*
 11-113 *lenengoa, nagusiena, aurreratuena ta aguintaria < lehena, aitecindaria eta aguintaria (GGero 139).*
 11-114 *Zanic: aurrean Danic, ezabatua, < Cen (GGero 139).*
 11-114/115 *ederrena, politena, galantena, arguiena < ederrena (GGero 139).*
 11-115/116 *ezainena... ta gaistoena < itsusienic, bere gogarena gaizquienic (GGero 139). Azken zatia ez bide zuen ulertu (cf. 4-89. oh.).*
 11-116 *Maitegarriena gorrotogarriena < Onhetsiena gaitcetsienic (GGero 139-140). goiena beerena < gorena beherenic (GGero 140).*
 11-117 *profeta santuac < prophetac (GGero 140). jausquera < iautsapen (GGero 140). VB (b.) “caída”.*
 11-118 *orrela: Añibarroren eransketa.*
 11-119 *egunsentico izarra, izarric arguiena < artiçarra (GGero 140). egunsentico izarra: ganean erantsia. izarric arguiena: leh. izar arguia. Cf. VB egunsentico izarra (c.), artizarra (n.) “lucero, estrella”.*
 11-120 *sortu, jagui oi ciniana < sortcen eta ilquitcen ohi cinena (GGero 140). sortu: leh. sortuten ta.*
 11-121 *colpe ta castigu bildurgarri au < colpe hura (GGero 140); ik. § 5.4.2.*
 11-122 *ez chiquiagoa < ez bere arauaz atseguinagoa (GGero 140).*
 11-123 *ezpalichaco: baina lichaquion (19-201), hala nola lichaquio gramatikan (GB 35). eta zan < cein baita (GGero 140); ik. § 5.2.10.*

125 Ceruan Luciferrec berac eguin eban becatu; eta ezta miresteco baco-chac bere becatua paguetea, norberac eguinico becatuagaitic penatutea. Baña lurrean besteren becatuagaitic, Adanenagaitic, aren ondorengo guztiaz, oraindo jaio baño len, euren amaren sabelean sortu ta biztuten dirian potian, unean, bertatic gueldituten dira eguinico becatari loi ezainduac. Eta aimbeste urteen buruan echacola aztu Jangoicoari a becatua, nor eztau mirarrituten?
130 Non emon lei justicia gogorragoric?

Erruquiorra, misericordiatsua da Jangoicoa, ta bere misericordia ta ontasun guztiaz, beguira jagoco Infernuan dagoan bati: icusten dau, ta icusico dau, celan milla urtean, ta amar millan, penatzen dagoan. Eta orregaitic bere, alan icusiagaitic bere, an bere lecuan ichiten dau. Echaco bapere biotzic austen; eztau areambere alan dagoanaren on-bearrac erruquituten. Lenago bai poztuten da, atseguin artzen dau, alan penatuten <110> icustez; ta gura dau pena dedin; baita andic jagui ta urteteco esperantzazic baga pena dedin. Gogortasunaren andia! Justiciaren gogorra! Zuc diñozu erruquiorra dala Jan-

- 11-124 *berac* < *berac bedere* (GGero 140).
11-124/125 *baco-chac bere becatua... penatutea* < *nor bere beccatuagaitic penatcea* (GGero 140).
norberac: aurrean berac egui] (eguinico?), ezabatua.
11-126/127 *oraindo* < *are* (GGero 140); ik. § 5.3.4.
11-127 *jaio*: gainean, *sortu*-ren ordez (= GGero 140).
sortu ta biztuten < *pitzten* (GGero 140).
11-127/128 *potian, unean* < *pontuan* (GGero 140). *unean*: ondoren *ordu]* (*orduan?*), ezabatua. *potian*: VB *potian-potian* (b.) “instante, momento, cada punto”.
11-128 *bertatic... loi ezainduac* < *diren beccatore eta hobenduri* (GGero 140). *bertatic*: ondoren *dira beca]* (*becatari?*), ezabatua.
11-128/129 *aimbeste urteen buruan* < *hanbat urtheren buruan* (GGero 140); ik. § 5.1.1.4.
11-129 *echacola* < *eztaquion* (GGero 140); cf. hurrengo oh.
nor eztau mirarrituten < *norc eztu miretsico* (GGero 140). Aldaketarekin, Añibarrorean NORC-en papera perpaus kompletiboak betetzen du.
11-130 *Non emon lei* < *Cer ahal dateque* (GGero 140).
11-131 *Erruquiorra, misericordiatsua* < *Misericordios* (GGero 140).
11-131/132 *misericordia ta ontasun* < *misericordia* (GGero 140).
11-132 *guztiaz* < *guztiarequin* (GGero 140).
11-133 *milla urtean, ta amar millan* < *milla urthez, eta hamar millaz* (GGero 140); ik. § 5.1.1.12.
dagoan < *den* (GGero 140); ik. § 5.1.3.8.
orregaitic bere: aurrean *orrez guztiaz*, ezabatua, < *guztiarequin ere* (GGero 140).
11-135 *eztau areambere... erruquituten* < *etcaica bat ere hala dagoen on-beharra urricaltcen* (GGero 140-141). *on-bearrac*: aurrean *onbearrac*, ezabatua; ohartu itzulpenean izen abstraktu bilakatua dela.
Lenago bai < *Aitcitic* (GGero 141).
poztuten da: Añibarroren eransketa.
11-136 *alan penatuten icustez* < *ceren hala penatcen den* (GGero 141).
11-137 *pena dedin* < *pena dadin* (GGero 141); ik. § 5.1.3.2.
baita < *eta are* (GGero 141); ik. § 5.3.4.
jagui ta urteteco < *ilquitceco* (GGero 141).
11-138 *erruquiorra*: aurrean *misericioso*, ezabatua; < *misericios* (GGero 141).

140 goicoa. Baña onetan dirudi justiciadunago dala; ta justiciac goiartu, azpitu, venzututen dabela misericordia. Eta errazoiac dirudi alan, cerren ezta beste munduan izango gaistoentzat misericordiariac.

Misericordiatsua da Jangoicoa, baña esan bear da justiciatia bere dala. Cerren munduari parcatutera ecin ecerberec bigundu ta macurtu eban; ez ecarri maitetutera, ezpada bere Semearen eriotzeac.

145 Misericordiaduna ta erruquitsua da Jangoicoa, eta orrez guztiaz, Noeren demporan zortzi presona ez beste guztiaç uriola bategaz ondatu ta ito cituan. Bardin Sodoma ta Gomorra inguru ta auzoco beste erri batzuecaç, su ta garra Cerutic biralduric, erre cituan. Bardin Datan ta Abiron lurrac euren lagun gaistoacaz irunsi cituan. Eta orduan oneec guztioç infernura jatsi cirian. Eta
150 orain bere infernuratuten dira christiñau eztirianac. Eta bildur nas christiñauetaric bere guei[e]nac araco videan dabiltzela, bada gueienac deunguero vici dira, deunguero confesatu.

Eta esaten danean asco diriala deituac ta guichi autuac, christiñauacaitic bardin adietan da. Bada, non da christiñauric, christiñaua leguez vici danic?
155 Bear dan leguez Jangoicoa maitetu ta servitzen dabenic? Bere mandamentu

-
- 11-139 *justiciadunago < iusticiatiago (GGero 141); ik. § 5.3.3.*
 11-139/140 *goiartu, azpitu, venzututen < garaitcen (GGero 141). azpitu: gainean erantsia.*
 11-140 *errazoiac < arraçoinequin (GGero 141).*
 11-142 *Misericordiatsua: leh. ziurrenik Misericordiotsua, < Misericordios (GGero 141). justiciatia < iusticiati (GGero 141); cf. 11-139. oh.*
 11-143 *ecerberec < deusec ere (GGero 141). bigundu ta macurtu < balacatu (GGero 141). bigundu: ondoren ecarri, ezabatua. ez ecarri maitetutera < eta ez amoratu (GGero 141); ik. § 5.3.4.*
 11-145 *Misericordiaduna ta erruquitsua < Misericordios (GGero 141).*
 11-146 *zortzi presona ez beste guztiaç < çortçi presunaz bertce guztiaç (GGero 141). bategaz < batez (GGero 141); ik. § 5.1.1.11.*
 11-147 *Bardin < Halaber (GGero 141). Gomorra: ondoan bes] (beste?), ezabatua. inguru ta auzoco < inguruneco (GGero 141).*
 11-147/148 *su ta garra < su bat (GGero 141).*
 11-148 *Bardin < Halaber (GGero 141).*
 11-148/149 *lagun gaistoacaz < lagunequin (GGero 141).*
 11-149 *oneec guztioç < hec guztiaç (GGero 141). infernura jatsi cirian < ifernura ciren (GGero 141).*
 11-151 *araco videan dabiltzela < bide hura bera hartcen duten (GGero 141).*
 11-151/152 *bada gueienac... deunguero confesatu: Añibarroren eransketa; deunguero confesatu herren honek letragatik geroago erantsia dirudi, gainera.*
 11-153/154 *christiñauacaitic bardin adietan da < guiristinoez ere orobat aditcen den (GGero 141).*
 11-154 *christiñaua leguez < guristino beçala (GGero 141-142).*
 11-155 *Bear dan leguez < Behar den bidean (GGero 142). maitetu ta servitzen < laudatcen eta cerbitçatcen (GGero 142). Bere < Haren (GGero 142).*

- edo aguindu santuac gordetan dabenic? Bear dan prestaeraz sacramentu santuac artuten dituenic? Edo bere naicunde, deseo, gurari char bat eguitetic Jangoicoagaitic <111> atzeratuten danic? Ete dago munduan bat alacoric? Bai, bagoz batzuc, cerren Elessa Ama Santa ecin legoque alacoac бага. Baña
- 160 guichi. Eta onegaitic Escritura Santuan bardinduten dira christiñau onac arri preciatuaz, adierazoteco arri preciatu leguez, christiñau on guichi dala ta neurri chiquicoac diriala onac. Eta, celan beste arriac preciatuen aldean ascozaz gueiago dirian, alan gueiago diriala condenetan dirianac, salvetan dirianac baño; alacoz ece, Salomonec diño ero gaistoen neurria azquen ta
- 165 mugabaguea dala; neurtu ecin leizala condenetan dirianac.

Bada asco condenetan badira christiñau fededunetari bere, cegaitic zu

-
- 11-155/156 *mandamentu edo aguindu < manamendu (GGero 142).*
- 11-156 *dabenic: NOR plurala bada ere, < dituenic (GGero 142).*
- 11-156/157 *Bear dan prestaeraz... dituenic?: Añibaroren eransketa; gaiaren aldetik bat dator gorragoko eransketarekin (ik. 11-151/152. oh.).*
- 11-157 *naicunde, deseo, gurari < nahicunde (GGero 142).*
- eguitetic < complitetic (GGero 142).*
- 11-158 *Ete dago < Othe da (GGero 142).*
- bat alacoric < bat ere halacoric (GGero 142).*
- 11-159 *bagoz batzuc < bada cenbait (GGero 142). batzuc: gainean, asco-ren ordez.*
- Elessa Ama Santa < eliça (GGero 142).*
- ecin legoque alacoac бага < ecin dateque gabe (GGero 142).*
- 11-160 *onegaitic < halatan (GGero 142).*
- Escritura: leh. Escritu.*
- Santuan: jat. S.an; Santuan zein Santan, biak posible dira: cf. E. Santuac (8-19), santuac (8-91, 9-126), santuan (11-217); hanbatik hanbatean, buru honetako beste lekukotasunaren arabera zabaltzea hobetsi dut.*
- bardinduten < comparatcen (GGero 142).*
- 11-160/161 *arri preciatuaz < harri preciatuequin (GGero 142); ik. § 5.1.1.11.*
- 11-161 *adierazoteco < aditcera emateagaitic (GGero 142).*
- christiñau on guichi < guiristino on ere guti (GGero 142).*
- 11-161/162 *ta neurri chiquicoac diriala onac < batat beçain bertceac, direla gaitz edireiten (GGero 142).*
- 11-162/163 *beste arriac... gueiago dirian < bertce harrietaric baita, preciatuetaric baiño francoago (GGero 142).*
- 11-163/164 *alan gueiago diriala... salvetan dirianac baño < hala dela halaber condenatuetaric ere salbatuetaric baiño guehiago (GGero 142).*
- 11-164 *alacoz ece, Salomonec diño < Salomonec dioen beçala (GGero 142). alacoz: aurrean Salo] (Salomonec), ezabatua.*
- ero gaistoen < Erhoen (GGero 142).*
- neurria: aurrean con] (contua), ezabatua, < contua (GGero 142).*
- 11-164/165 *azquen ta mugabaguea < infinitu (GGero 142).*
- 11-165 *neurtu ecin leizala condenetan dirianac < infinituqui]n[anhitz condenatcen da (GGero 142).*
- 11-166 *asco < baldin anhitz (GGero 142).*
- badira < bada (GGero 142).*
- christiñau fededunetari < guiristinoetari (GGero 142). fededunetari: leh. fededunen ar] (artean?).*

bere, christiñau sinislea izan arren, etzara bildur izango, condenatuco dirianetaric izango ete zarean? Oraindiño asco bota ditu Jangoicoac Infernura; cegaitic, bada, etzaitu zu bere ezarrico, botaco, egotzico, baldin ara bota dituzan[en] antzera vici bazara? Uste dozu zuretzat legue barriren bat ifinico dala? Uste dozu Jangoicoa an goian zu baga ecin egon ditequela? Edo zu ara ez eroateaz bere gloria galduco dabela edo guichituco jacala? Ce aurre-vide, burupe, ce privilegio, ce merecimendu gueiago dozu zuc orain, Infernuan dagozanac euren demporan euquena baño, baldin aec leguez vici bazara, ez aec leguez condenetaco ta an egoteco iñora urten baga? Eta Jangoicoaren misericordian fiatuten bazara, eztozu gogoratuten orain Infernuan dagozan zorigaistoac euren demporan zu orain leguez fiatuten ciriala? Jaquin eguizu ece, misericordiac <112> onai gloria leguez, justiciac bere gaistoai infernuia emoten deusela.

180 4 §.

Izanagaitic Jangoicoa biotz beraa, erruquiorra, misericordiatsua, ezta, ez, emetic artu bear bideric, ez ocasiñoric, ez ausardiaric, ez atrebenciaric

-
- 11-167 *christiñau sinislea < guiristino (GGero 142).*
 11-167/168 *condenatuco dirianetaric izango ete zarean < condenatuetaric bat guertha çaitecin (GGero 142).*
 11-168 *asco bota ditu < anhitz egotci du (GGero 142).*
 11-169 *ezarrico, botaco, egotzico < egotcico (GGero 142).*
ara: Añibarroren eransketa.
 11-169/170 *bota dituzan[en] antzera < egotci dituen hec beçala (GGero 142).*
 11-170 *barriren bat < berri bat (GGero 142).*
 11-172 *bere gloria... guichituco jacala < bere loriatic galduco duela (GGero 142).*
 11-172/173 *Ce aurre-vide... ce merecimendu gueiago < Cer burupe, cer privilegio edo abantail (GGero 142). aurre-vide: leh. igues-vide. burupe: gainean erantsia (ik. § 5.3.3). ce merecimendu gueiago: gainean erantsia.*
 11-174 *euquena baño < çuten baiño guehiago (GGero 142-143). Añibarrok gueiago aurrera igaro du.*
 11-175 *condenetaco ta an egoteco iñora urten baga < haratceco, edo handic escapatceco (GGero 143). condenetaco ta: gainean erantsia.*
Eta < Eta baldin (GGero 143).
 11-176 *eztozu gogoratuten < eztuçu uste (GGero 143).*
 11-176/177 *Infernuan dagozan zorigaistoac < ifernuan diren hec ere (GGero 143).*
 11-177 *zu orain leguez: Añibarroren eransketa.*
Jaquin eguizu < laquiçu (GGero 143).
 11-178 *onai < iustuey (GGero 143).*
 11-181 *Izanagaitic Jangoicoa < Ceren Iaincoa den (GGero 143).*
biotz beraa, erruquiorra, misericordiatsua < bihotz bera eta misericordios (GGero 143).
 11-182 *emetic < hunetaric (GGero 143).*
bideric, ez ocasiñoric < occasinoric (GGero 143). bideric: leh. bidea.
ez ausardiaric, ez atrebenciaric < eta ez escudantciaric (GGero 143). VB atrevencia (c.) “atrevimiento”, atrebencia (c.) “osadía”; liburu honetakoak (ik. 0-71, 11-311,

becatu gueiago eguiteco. Bada au liteque contra-menenoa, eden edo pozoia,
 185 eden edo veneno eguitea; Jangoicoaren misericordiaz ta ontasunaz contrara
 usatutea; eta bai misericordiaric eztan lecuan bere, oña irmetutea, pelligru
 galgarrian ifintea. Badira biderio batzuc, begui-orde batzuc, gauzac dirian
 baño andiago irudi erazoten dabenac. Eta jazo daitequen gauza da, alaco be-
 gui-ordeacaz zubi batetic igaroten zareala, zubia dan baño zabalago iruditur-
 190 ric ta zubiric eztan lecuan oñac ifiniric, jaustea zubi azpico oxinera, ta an-
 datu ta itotea. Bada Ceruco Gloriara igaroteco zubia misericordia da; ta
 baldin misericordiaren zubi onetatic igaro gura badozu zuc, ausardia gueie-
 guiaz fiaturic, esperanza zoro uts baten begui-ordeac ifiniric, eta irudituric
 christiñau zarealaco ta Jangoicoaren ontasuna andi zabala dalaco, ori bera-
 gaitic beste бага salvatuco zareala, engaña cintequez, uts eguin ciñei, ta mi-
 195 sericordiaren zubiric eztan lecuan esperanzaren oñac ifiniric, justiciaren
 oxinean jausi cintequez. Bada, Jangoicoaren ontasuna ecin gueiagoan andia,
 neurri ta mugabaguea izanagaitic, ezta, ez, adituten ta ez orregaitic adiera-
 zoten <113> anditasun ac zuri becatu eguiteco videa ta ocasiñoa emon bear

-
- 24-19 eta 26-27) bizkaierazko lehen lekukotasunak dira, eta ia-ia Hegoaldeko lehe-
 nak (cf. *OEH*, s.v.).
- 11-183 *liteque* < *liçateque* (*GGero* 143).
contra-menenoa, eden edo pozoia < *contra-poçoinaren* (*GGero* 143).
- 11-184 *eden edo veneno* < *poçoin* (*GGero* 143).
- 11-185/186 *oña irmetutea, pelligru galgarrian ifintea* < *oiñen permatceco perilean iartcea* (*GGe-*
ro 143). *pelligru*: leh. *pelligruan*.
- 11-186 *biderio* < *bisera* (*GGero* 143). *VB biderioa* (c.) “crystal”; ik. 11-192. oh.
begui-orde: leh. *begui-ordeac-edo*, < *begui-ordethaillu* (*GGero* 143).
- 11-187 *irudi erazoten dabenac* < *ceiñec... iduri aracitcen baitituzte* (*GGero* 143). *dabenac*:
 osagarri zuzena plurala izan arren.
gauza < *casua* (*GGero* 143).
- 11-189 *jaustea*: leh. *jausi cintequez*, < *eror baitcinezque* (*GGero* 143).
- 11-189/190 *ta an ondatu ta itotea* < *eta han itho eta honda* (*GGero* 143).
- 11-191/192 *ausardia gueieguiaz fiaturic* < *ausartquiegui, fidatuquiegui* (*GGero* 143); ik. § 5.1.4.
- 11-192 *zoro uts* < *erho* (*GGero* 143).
begui-ordeac: *aurrean biderioac*, *ezabatua*, < *biserac* (*GGero* 143).
- 11-193 *christiñau zarealaco* < *ceren çaren guiristino* (*GGero* 144). *zarealaco*: ondoan *beste*
*bag*a, *ezabatua*.
Jangoicoaren ontasuna andi zabala dalaco < *Iaincoa ere den misericordios* (*GGero*
 144). *ontasuna*: *aurrean miseri]* (*miseri*cordia), *ezabatua*.
- 11-193/194 *ori beragaitic beste бага* < *hargatic beragaitic ere* (*GGero* 144); ik. § 5.1.2.3.
- 11-194 *engaña cintequez* < *engana ahal cindezque* (*GGero* 144); ik. § 5.1.3.2.
uts eguin ciñei: Añibarroren eransketa.
- 11-196 *jausi cintequez* < *eror ahal cindezque* (*GGero* 144). *jausi*: leh. *jauci*.
ontasuna < *miseri*cordia (*GGero* 144).
- 11-196/197 *ecin gueiagoan andia, neurri ta mugabaguea* < *infinituqui handia* (*GGero* 144).
- 11-197/198 *orregaitic adierazoten* < *handic seguiccen* (*GGero* 144).
- 11-198 *video ta ocasiñoa* < *occasinoric* (*GGero* 144).

200 deusula. San Agustinec diño (in Psal. 39): Ezta Jangoicoa alaco moduz misericordioso, non justiciari bidebagueric eguingo deusana.

205 San Agustinec berac diño (in Psal. 58): Castigatu daiguzan gueure becatuac, eguin daigun aen penitencia, baldin gura badogu erdetsi Jangoicoaren misericordia. Cerren ecin Jangoicoac parcatu leio becatariari becatuetan dagoan artean, euroetan atseguin artzen daben bitartean, euroetatic alde eguitera abiatuten eztan artean. Ezta Jangoicoaren misericordia orrembesteraño elduten, ez zabalduten. Eta ez ain aurrera eldu ta lucetute au, eztator bere misericordiaren escastasunetic, urritasunetic, laburtasunetic, ezpada gauzaren ecinquizunetic. Ezta esaten misericordioso dala Jangoicoa, becatuan dabilenari, alan dabilenean ta ibilteco gogoa dabenean, laquetu ta parquetan
210 deuselaco. Baña esaten da misericordioso ta erruquiorra dala, araco bere becatuac bear dan bidean ichiric, demporaz beragana etorriric ta aleguin guztia eguiten dabenari ucatuten ezteuselaco bere gracia, parcamendua ta adisquidetasuna. Eta asco da au ta onela eguitea misericordioso izateco.

-
- 11-199 *San Agustinec diño < Dio San Agustinec (GGero 144), latinaren ondoren eta euskarazkoaren aurrean.*
- 11-200 *eguingo deusana < eguin diaçon (GGero 144).*
- 11-201 *San Agustinec berac diño < Badio halaber San Agustinec (GGero 144).*
- 11-202 *eguin daigun < daguegun (GGero 144).*
aen penitencia < hetçaz penitencia (GGero 144).
- 11-203 *ecin Jangoicoac parcatu leio < Iaincoac ecin barcca diaçαιο (GGero 144).*
becatuetan: leh. becatuan, < beccatutan (GGero 144); ik. § 5.1.1.4.
- 11-203/204 *dagoan artean < dagoeiño (GGero 144); ik. § 5.2.13.*
- 11-204 *euroetan < hetan (GGero 144).*
daben bitartean < dueiño (GGero 144).
euroetatic < hetaric (GGero 144).
- 11-204/205 *alde eguitera < apartatcera (GGero 144).*
- 11-205 *abiatuten eztan artean < delibera arteiño (GGero 144).*
- 11-205/206 *orrembesteraño elduten < hain aiticina helcen (GGero 144).*
- 11-206 *ez zabalduten < eta ez hedatcen (GGero 144); ik. § 5.2.6.*
ez ain aurrera eldu ta lucetute au < ez hedatce haur (GGero 144); ik. § 5.2.2. eldu: leh. eldute.
- 11-206/208 *eztator... gauzaren ecinquizunetic < gauçaren ecinquizunetic heldu da, eta ez misericordiaren escastasunetic (GGero 144).*
- 11-208 *becatuan < beccatutan (GGero 144).*
- 11-209 *dabilenean... gogoa dabenean < dabilaino... gogo dueiño (GGero 144); ik. § 5.2.13.*
laquetu ta parquetan < lausengatcen eta barccatcen (GGero 144-145).
- 11-210 *deuselaco < ceren... dioen (GGero 144-145).*
Baña: aurrean Ezpada, ezabatua.
misericordioso ta erruquiorra < misericordios (GGero 145).
araco: Añibaroren eransketa.
- 11-211 *demporaz beragana etorriric < behar den bidean ethortcen çaicinari (GGero 145).*
demporaz: ondoan eldu, ezabatua.
- 11-211/212 *aleguin guztia < bere ahala (GGero 145).*
- 11-212 *eguiten: leh. eguin-edo, < eguiten (GGero 145).*
- 11-212/213 *ucatuten ezteuselaco... adisquidetasuna < ezpaitio faltatcen, eta ez barccamenduric ucatcen (GGero 145).*

Enzuten dozunean, biotz beraa, erruquiorra ta misericordiosua dala Jan-
 215 goicoa, poztuten zara, atseguña artzen dozu; ta enzunagaitic ciurra, castiga-
 tzallea, gogorra ta justiciatia bere dala, eztozu arduraric artuten. Bada, Es-
 critura Santuan Jangoicoac esqueñiten dituan mesede andi, gozo,
 misericordiazcoac justuentzat, santugaiantzat, ondo, artez, zucen, prestuta-
 220 <114> justiciaren garratzasuna, gogortade, aserre ta castiguac gaistoentzat,
 zu ta zu lacoentzat dira. Ce zoraqueria, bada, da au: zuretzat dirian cemai,
 menazu ta castiguaz ez conturic, ez arduraric, ez bildurric artzea; eta zure-
 tzat eztirian misericordiazcoac solasez, gozotasunez, atseguinaz artutea?
 Misericordia santugaiai, justuai, zu ez leguezcoai dagoquie. Ez dozu zuc, be-
 225 catuan zagozan artean, atan parteletasunic, ez icusquizunic; ez dozu orduan,

-
- 11-214 *biotz beraa, erruquiorra ta misericordiosua < bihotz bera eta misericordios (GGero 145).*
- 11-215 *poztuten zara: Añibarroren eransketa.*
atseguña artzen < atseguin hartcen (GGero 145); ik. § 5.1.1.5.
- 11-215/216 *ciurra... ta justiciatia < gaitz, gogor eta iusticiati (GGero 145).*
- 11-216 *bere dala < ere badela (GGero 145); ik. § 5.1.3.6. bere: gainean erantsia.*
arduraric artuten < conturic eguiten (GGero 145).
- 11-217 *esqueñiten < prometatcen (GGero 145).*
mesede < fabore (GGero 145).
gozo < ezti, goço (GGero 145).
- 11-218 *justuentzat, santugaiantzat < iustuentçat (GGero 145).*
artez, zucen < artez (GGero 145).
- 11-218/219 *prestutasunean < eta prestuqui (GGero 145); ik. § 5.1.4.*
- 11-219 *bici: leh. v-.*
eta barriz < eta (GGero 145). barriz: gainean erantsia.
*cemaiac, menazuac < mehatchuac (GGero 145). menazu: VB (c.) “amenaza” vs ce-
 maia (b.).*
- 11-220 *garratzasuna, gogortade, aserre ta castiguac < garratzasuna eta gaztiguac (GGero 145).*
- 11-221 *zu ta zu lacoentzat < çure eta çu beçalacoentçat (GGero 145).*
dira: Añibarroren eransketa.
bada, da au < da, bada, haur (GGero 145).
- 11-221/222 *cemai, menazu ta castiguaz < mehatchuez eta gaztiguez (GGero 145). cemai: leh. ce-
 maia-edo.*
- 11-222 *ez conturic... artzea < eztaguiçun conturic (GGero 145).*
- 11-223 *misericordiazcoac... artutea < misericordiazco solhasez har deçaçun atseguin (GGero 145). misericordiazcoac: leh. misericordiazco. atseguinaz: leh. atseguin. Bi al-
 daketa hauek, dirudienez, jatorrizko testua ikusi gabe egindakoak dira. solasez: jat.
 solatsez (arg. zuz.); ik. 4-35. oh.*
- 11-224 *santugaiai, justuai < iustuey (GGero 145).*
leguezcoai: leh. leguezcoentzat, < beçalacoey (GGero 145).
dagoquie < dagote (GGero 145).
- 11-224/225 *becatuan zagozan artean < beccatutan çaudeiño (GGero 145).*
- 11-225 *parteletasunic < parteric (GGero 145).*
ez icusquizunic < eta ez icusquizunic (GGero 145); ik. § 5.2.6.

230 Jangoicoa misericordiosoa dala enzun arren, cer pozturic. Bada orduan, justiciac bai, baña misericordiac eztau zugaz verba eguiten, ezta orduan zurea. Aparta zaite becatutic, alde eguin zaite vide deungue orretatic, urten eguizu egotaldi bildurgarri orretatic, ta izango da zurea; igues eguizu becatutic, ta izango dozu parte. Baña bitartean, justicia euqui eguizu zuretzat, ta ichi eguizu misericordia euren becatuetatic alde eguiten dirianentzat. Cerren bes-tela, eragotzian gura dozuz escuac sartu, bestearena gura dozu ceuretu, jabetu.

5 §.

235 Esango dozu beti dala on esperancea, beti bear dala ichadon. Eta ondo diñozu, eguia da, alan da. Baña, nos ta celan beti? Becatu eguiñ ezquero, baña ez eguitorduan.

240 Ezta Jangoicoaren ontasunean fiaturic becatutic eguin bear. Susana andra santeac gurago eban gende gaisto batzuen escuetan jausi, Jangoicoaren misericordiaren mendean baño (Dan 13). Baña David erregueac gurago eban guizonacaz baño Jangoicoaz disputatu, contuac emon ta beragaz bere deunguero eguiñac igaro (2 Reg 24). Eta biac, alan Davidec celan Susanac, eroien contu ona. Bada Susana zan becatu eguin baguea, ta David <115> becatu eguiña. Eta becatu eguin ezquero, Jangoicoaz contutu bear gara; ara laster,

-
- 11-226 *misericordiosoa < misericordios (GGero 145).*
 11-227 *zurea < çure (GGero 145).*
 11-228 *Aparta zaite = GGero 145.*
 11-228/229 *alde eguin zaite... egotaldi bildurgarri orretatic: Añibarroren eransketa.*
 11-229 *zurea < çure (GGero 145).*
igues eguizu < aparta çaitte (GGero 145).
 11-230 *bitartean < anarteraiño, bitartean (GGero 146).*
euqui eguizu < educaçu (GGero 146).
zuretzat < ceuretçat (GGero 146).
 11-231 *alde eguiten < apartatcen (GGero 146).*
 11-232 *eragotzian < debecuan (GGero 146).*
bestearena < bertceren çuçena (GGero 146); ik. § 5.1.1.4.
 11-232/233 *ceuretu, jabetu < ceuretu eta goratu (GGero 146).*
 11-235 *beti dala on < beti dela on (GGero 146); ik. § 5.1.1.5.*
ichadon < eduqui fidancia (GGero 146).
 11-236 *ezquero: gainean, ezqueroz guero-ren ordez, < eguinez guero (GGero 146).*
 11-237 *eguitorduan < eguiteracoan (GGero 146); ik. § 5.2.12.*
 11-238 *ontasunean < misericordian (GGero 146).*
 11-240 *David erregueac < erregue Davitec (GGero 146); ik. § 5.1.1.2.*
 11-241 *disputatu < iharduqui (GGero 146).*
 11-241/242 *contuac emon ta beragaz bere deunguero eguiñac igaro < nahiago cituen bere ongaitzac harequin iragan (GGero 146).*
 11-244 *Jangoicoaz: leh. Jangoicoagana, < Iaincoarequin (GGero 146).*
contutu bear gara < behar da iharduqui (GGero 146). contutu: cf. contuac emon (11-241) testuinguru beretsuan.

245 an confiatu, aren misericordiaz valiatu bear da. Celan Cesar edo erregueac
condenatuac apelatu eban Cesar beragana, Cesar aserratuaganic, Cesar ez
aserratuagana; alan becatariac bere bear dau apelatu Jangoicoaganic Jangoi-
coagana: Jangoico justiciazcoaganic Jangoico misericordiazcoagana. Beca-
250 tu eguin ezquero, ezta beste videric, ezta beste erremedioric. Baña iñor be-
catu eguin baguea danean, Susana leguez, obe da eguitecoac alde onetariac
eguitea, obe da guizonacaz disputac euquitea ta aetatic etorri al daquiozan
calteac ichadotea, ece ez Jangoicoagan ta aren misericordian fiaturic becatu
eguitea.

255 Baña guc contrara, oquerretara eguiten dogu. Conturic euqui baga gue-
roco etorquizonaz, uste dogu guero Jangoicoaren misericordiara igues
eguingo dogula. Orain gueure escuan daucagun dempora oneta[n] eztogu,
becaturic ez eguite arren, atseguinic ichi gura ta ez penaric, nequeric artu;
gurago dogu etorquizoneco pelligru ta gach gogorrai jarraitu, oraingo neque
apur bati baño. Eta cec eguiten dau au? Fiatzeac, contu eguiteac bardin gue-

-
- 11-245 *confiatu*: aurrean *fia*] (*fiatu*?), ezabatua, < *fia* (GGero 146).
aren misericordiaz valiatu bear da < *haren misericordiatu behar da erremedio* (GGero 146-147).
Cesar edo erregueac < *Cesarec* (GGero 147); ik. § 5.4.2. *erregueac*: leh. *erregue*; ondoan *aserr*] (*aserratuac*?).
- 11-246 *apelatu eban* < *apellatu baitcen* (GGero 147).
11-250 *baguea*: leh. *baguean*, < *gabea* (GGero 147).
Susana leguez < *nola baitcen Susana* (GGero 147).
- 11-251 *guizonacaz*: leh. *guizonaz*, < *guiçonequin* (GGero 147); ik. § 5.1.1.11.
disputac euquitea < *iharduquitcea* (GGero 147).
aetatic: aurrean *an*] (*andic*?), ezabatua, < *hetari[c]* (GGero 147).
etorri al daquiozan < *ethor ahal daquidicaion* (GGero 147).
- 11-252 *fiaturic*: leh. *fiatutic*, < *fidaturic* (GGero 147).
11-254 *contrara, oquerretara* < *contrara* (GGero 147).
11-254/255 *Conturic euqui baga guero* < *Cer içanen baita ere ethorquizonaz* (GGero 147).
- 11-255/256 *uste dogu... igues eguingo dogula* < *guero Iaincoaren misericordiara ihes eguinen badugu ere* (GGero 147). *uste dogu*: *gainean, ichadoten dogu-ren orde*.
11-256 *gueure escuan daucagun dempora oneta[n]*: *gainean erantsia*, < *escuen gaiñean presentean* (GGero 147).
- 11-256/257 *eztogu, becatuic ez eguite arren*: leh. *becaturic ez eguite arren, eztogu... < eztugu, beccaturic ez eguiteagatic* (GGero 147); ik. § 5.2.1.
11-257 *atseguinic* < *placeric* (GGero 147).
penaric, nequeric < *penaric* (GGero 147).
- 11-258 *gurago dogu* < *nahiago gaitçaitça* (GGero 147); datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).
pelligru ta gach gogorrai < *peril handiari eta gaitz bortitçari* (GGero 147). *gach gogorrai*: leh. *gachai*.
jarraitu < *iarri* (GGero 147).
oraingo neque < *presenteco travaillu* (GGero 147).
- 11-259 *apur bati* < *appurrari* (GGero 147).

260 ro Jangoicoaren misericordiac guztia parcatuco deuscula ta erremediatuco gareala. Contu charra! esperanza eroa!

Fiatzen zara becatu eguin ezquerozco calteac erremediatuco dituala Jangoicoac, eta etzara fiatuten ta ez gomutetan, erremedia al leiquezala bardin, zuc becuric ez eguin arren, etorri al lichaquezuzan atsecabac ta eguitecoac. Bear eztanean fiatzen zara, ta ez bear danean. Bear eztanean iruditzen jatzu andia Jangoicoaren misericordia, ta ez bear danean. Amar ezcuto bear dozuzanean edo beste premina ta estura bat dozunean, etzara fiatuten, eztozu uste, baldin ondo vici bazara, becuric eguiten ezpozu, Jangoicoac zure premina ta beartasun ori estaldu al leizula. Eta alan, ceure esperanzabagueaz eguiten dozu becatu, ostuten dozu, eguiten dozu lapurqueria bat. Eta eguiten dozu lapurreria ori esperanzaz guero bardin <116> Jangoico erruquitsuac parcatuco deuscula orrelaco becatua. Itsutasunaren andia! Orain Jangoicoaren adisquide zareanean, becatu бага zagozanean, ez dozu esperanzaric Jangoicoac zugatic ecer al daiqueala, zure beartasuna estaldu al lei-

-
- 11-260/261 *parcatuco deuscula ta erremediatuco gareala < barccatuco derauzquigula, eta erremediatuco (GGero 147).*
- 11-261 *Contu charra! esperanza eroa! < Contuaren gaixtoa, fidantciaren erhoa (GGero 147).
esperanza: gainean, fiatze-ren orde, baina hau ezabatu gabe.*
- 11-263 *erremedia al leiquezala < erremedia ahal ditçaqueyela (GGero 148).
bardin < halaber (GGero 148).*
- 11-264 *zuc: Añibaroren eransketa (ik. § 5.4.2).
etorri al lichaquezuzan < ethor ahal daquidizquetçun (GGero 148). lichaquezuzan:
leh. litequezuzan.*
- 11-264/265 *eguitecoac: aurean calteac, ezabatua.*
- 11-266 *andia Jangoicoaren misericordia < Iaincoaren misericordia handi (GGero 148).*
- 11-266/267 *Amar ezcuto bear dozuzanean < Hamar ezcuturen behar çarenean (GGero 148). ezcuto: aldaera ezezaguna da (ik. OEH, s.v. 1 ezkutu), cf. VB “escudo, moneda: c. ezcutura” eta escutu (19-337), ostera.*
- 11-267 *premina ta estura bat < premia bat eta escastasun bat (GGero 148).*
- 11-267/268 *eztozu uste: leh. ez icharoten, < eztuçu ezperantçaric (GGero 148).*
- 11-268 *baldin ondo vici bazara < prestuqui bicitcen çarelaric (GGero 148). baldin: gainean erantsia.
becuric eguiten ezpozu < eta beccaturic eguin gabe egoiten çarelaric (GGero 148).*
- 11-268/269 *Jangoicoac... estaldu al leizula < ceure premia eta escastasuna estal ahal diaçaiçula Iaincoac (GGero 148); ik. § 5.2.1.1.*
- 11-269/270 *esperanzabagueaz < esperantça gabearequin (GGero 148).*
- 11-271 *ori < hura (GGero 148); ik. § 5.1.2.1.*
- 11-271/272 *erruquitsuac: aurean mis] (misericordiosoac?), ezabatua, < misericordiosac (GGero 148).*
- 11-272 *orrelaco < hartaco (GGero 148).*
- 11-273 *Jangoicoaren adisquide zareanean < Iaincoarequin adisquide çarenean (GGero 148).
becatu бага < beccaturic gabe (GGero 148).*
- 11-274 *zugatic < çuregatic (GGero 148).
ecer al daiqueala < deus daidiqueyela (GGero 148).
beartasuna < premia (GGero 148).*
- 11-274/275 *estaldu al leiqueala < estal deçaqueyela (GGero 148).*

- 275 queala; eta guero, arerioa zareanean, becatuz betea zagozanean, uste dozu, guztiac parcaturic, bere gracia ta gloria, ain gauza andiac, valiotsuac ta erdetsiteco gachac, emongo deutzuzala. Gauza erracean etzara fiatuten; gachean, barriz, bai. Becatu eguiten dabenentzat daucazu Jangoicoa andi, zabal, prestutzat; eta becatu eguin baga ondo vici dirianentzat uste dozu dala
- 280 estua, cequena, urria, prestubaguea. Guztian zabiltz ta gabiltz nastuac, itsutuac, uts eguiñac.

6 §.

- Ez uts eguiteco, ta bear dan leguez esperanza euquiteco, cer eguin bear da? David erregueac eranzuten dau (Psal. 4): Eguizu on, al daizun eguite
- 285 onetan emon zaite, ta orduan icharon eguizu Jangoicoagan. Cerren bestelaco esperanzac guichi valio dabe.

-
- 11-275 *arerioa < etsai (GGero 148).
becatuz < eta beccatuz (GGero 148).
uste dozu < duçu fidancia (GGero 148).*
- 11-276 *valiotsuac < valiosac (GGero 148).*
- 11-277 *Gauza erracean: aurean EJ (Erracean?), ezabatua, < Gauça erracean (GGero 148).*
- 11-277/278 *gachean, barriz, bai < eta bai gaitcean (GGero 148); ik. § 5.2.6.*
- 11-278 *dabenentzat < duenarentçat (GGero 148).*
- 11-278/279 *andi, zabal, prestutzat < handi, çabal, franco, liberal (GGero 148-149).*
- 11-279 *becatu eguin baga < beccaturic eguin gabe (GGero 149).
ondo < prestuqui (GGero 149).
dirianentzat < denarentçat (GGero 149).
uste dozu < estimatcen duçu (GGero 149).*
- 11-280 *estua, cequena, urria, prestubaguea < hertsi, mehar, escas eta avaricios (GGero 149).
prestubaguea: cf. VB prestueza, prestutasun baguea (c.) "ruin, mezquino".
Guztian < Guztietan (GGero 149).*
- 11-280/281 *nastuac, itsutuac, uts eguiñac < nahasiac, errebelatuac eta huts eguinac (GGero 149).*
- 11-283 *ta bear dan leguez < behar beçala (GGero 149).
esperanza < esperantça eta fidancia (GGero 149).
euquiteco < içaiteco (GGero 149).*
- 11-284 *Davic erregueac eranzuten dau < Ihardesten du erregue Davitec (GGero 149); ik. § 5.2.1.1.
Eguizu on < Eguiçue ongui (GGero 149).
al daizun < ahalez (GGero 149). NOR singularra, nahiz eguite onetan-ekin komunztatu.
eguite < obra (GGero 149).*
- 11-285 *emon < emplega (GGero 149).
orduan < guero orduan (GGero 149).
icharon eguizu Jangoicoagan < duçuen Iauna baithan esperantça (GGero 149) < euçue... (Gero 149). icharon: orain artean beti ichadon; hemendik aurrera biak erabiliko ditu, baina ichadon azken aldera utziko du (azken adibidea: 29-13), icharon bakarrik erabiltzeko (42-182, 42-213/214, 45-166, 46-46, 46-355, etab.).*
- 11-286 *guichi < deus guti (GGero 149).
dabe < du (GGero 149).*

Egun baten etorri jacazan Frai Gil santuari cardenal batzuc visitetara. Eta bere bisita azquenduric, joate orduan esan eutsen, arren, escatu leguiola Jangoicoari eurecaitic. Eranzun eutsen Frai Gilec: Jaunac, euroc nigaitic
 290 eguin bear dabe; cerren nic baño euroen mesedeoc siniste ta esperanza gueiago dauquee. Baña, celan al diteque ori orrela? cirautsen cardenalac.

Cerren gu gabiltz munduaren barruan sarturic, aberastasunez beteric, ondasunez, atseguñez ta zorionez ganez eguiñac; zu, barriz, penitencietan, eguite onetan, munduco cereguinetatic campoan ta, orrez guztiaz bere, di-
 295 ñozu siniste, icharomen, esperanza gueiago dauquegula zuc baño? Bai, dirautse. Bada, <117> biciric zuen mesedeoc bici dirian leguez pocic, eceren bildur бага, salvetaco esperanza ta segurutasun andiaz dabiltz. Baña ni nabil bildurturic, icaraturic, ea cer becatari andi onegaz jazoco dan; ta beragaitic euroc nic baño esperanza ta siniste gueiago dabe.

- 11-287 *Egun baten < Egun batez (GGero 149).*
 11-288 *azquenduric < accabaturic (GGero 149).*
joate orduan < partitceracoan (GGero 149); ik. § 5.2.12.
 11-288/289 *escatu leguiola Jangoicoari eurecaitic < ceguiola Iaincoari hetçaz othoitz (GGero 149).*
 11-289 *Jaunac < Aitcitic, launac (GGero 149); ik. § 5.3.4.*
 11-289/290 *euroc nigaitic eguin bear dabe < çuec eguiçoue nitçaz (GGero 149); euroc da bizkaieraz, Azkueren arabera (1923-1925: § 641), gip. berok eta naf. oriek-en kidea berorika pluralean aritzerakoan.*
 11-290 *euroen mesedeoc < çuec (GGero 149).* Hegoaldeko lekukotasun zahar anitz ditu kal-ko honek (cf. *OEH*, s.v. *mesede* 2), gehienak singularrean; cf. *VB* “vuesa merced: c. (...) zu, o berorren mesede”, eta *zuen mesedeoc* (11-296).
 11-291 *dauquee < duçue (GGero 149).*
celan al diteque < nolatan ahal dateque (GGero 149). *al:* gainean erantsia. *cirautsen:* *aurrean di]* (*dirautse?*), ezabatua, < *diotsate (GGero 149); ik. § 5.1.3.7.*
 11-292 *munduaren barruan < munduan barrera (GGero 149); ik. § 5.3.4.*
sarturic... beteric < sarthuac... betheac (GGero 149); ik. § 5.1.3.1.
 11-292/293 *ondasunez, atseguñez ta zorionez < atseguinez eta placerez (GGero 149).*
 11-293 *ganez eguiñac < gainez eguinac (GGero 149).*
zu, barriz < eta çu (GGero 149).
penitencietan = GGero 149 < penitenciatan (Gero 149).
 11-294 *eguite < obra (GGero 149).*
 11-295 *siniste, icharomen, esperanza < sinheste eta esperantça (GGero 150).*
dauquegula < dugula (GGero 150).
 11-295/296 *dirautse < ihardesten deraue (GGero 150).*
 11-296 *Bada: ondoko orrialdea hutsik dago, gurutze batez baliogabetuta; ik. § 3.2.*
biciric zuen mesedeoc bici dirian leguez < çuec bicitcen çaretan beçala, bicitcen çaretelaric ere (GGero 150); ik. § 5.2.14. biciric eta bici: leh. v-.
pocic < alegueraqui (GGero 150); ik. § 5.1.4.
 11-297 *segurutasun < esportçu (GGero 150).*
andiaz < handi batequin (GGero 150).
 11-297/298 *ni nabil bildurturic < ni veldur naicela (GGero 150).* *ni nabil:* leh. *ni celan nabillen.*
 11-298 *icaraturic < iccara diraquidala (GGero 150).*
ea cer... jazoco dan < ceren beccatore bainaiz (GGero 150).
 11-298/299 *ta beragaitic < Beraz hunelatan (GGero 150).*
 11-299 *gueiago: jat. gueiagu (arg. zuz.).*

- 300 Icusico dozu persona batzuc malicia, malsintasuna, engaño ta guzur utsa
 baño eztirianac, dan santuenac baño buruac gogorago dituztela ta salvetaco
 esperanza gueiago dabela; alacoz ece, zatozanean aecaz verba eguitera,
 esango deusue ez leuquela euren esperancea zureaz trucatu; eztauquela
 305 iñor bere euren buruac baño santuago, ez prestuagotzat; beste edoceinec bes-
 te ondo Jangoicoari esqueñiten diriala. Eta bitartean beguietagiño becatua-
 ren oxin ondarrean sartuac dagoz. Itsutasunaren andia! deabruaren engaña-
 mentua! Uste badabe, ta uste badozu, becatuetan zagozala Cerua emongo
 jatzula, misericordia eguingo jatzula, ori da Jangoicoaz ta Jangoicoaren on-
 tasunaren barre ta mezprecio eguitea; ori da esperanza esperanzabaguea,
 310 confianza eroa, icharomen gañez eguiña, larreguia. Eta ezta ori esperancea
 bere, ezpada ausardia, atrebencia, uste utsa, presunciñoa, nai-gura eroa; eta

-
- 11-300 *persona batzuc < iende thaillu batçuec (GGero 150).
 malicia, malsintasuna, engaño ta guzur utsa < maliciaric eta enganamenduric (GGe-
 ro 150). malsintasun: ik. 10-69. oh.*
- 11-301 *gogorago = GGero 150 eta Gero 150; Villasantek (1976: 167) gogorrigo zuzendu du,
 baina testuinguruari begira, baderitzat gorago egiantzekoago dela.
 dituztela = GGero 150; leh. dituzenac.*
- 11-302 *zatozanean < ethortcen çarenean (GGero 150); ik. § 5.1.3.7.*
- 11-303 *ez leuquela < ezteçaquetela (GGero 150).
 zureaz trucatu < çurearequin truca (GGero 150).*
- 11-304 *ez prestuagotzat < eta ez prestuago (GGero 150); ik. § 5.2.6.*
- 11-304/305 *beste edoceinec beste ondo < nor nahi den beçain ongui (GGero 150); ergatiboa so-
 beran dago, esqueñi aditzak berez eska zezakeela aurreikusit bide zuen arren.*
- 11-305 *Jangoicoari esqueñiten diriala < Iaincoari gomendatcen çaitçala (GGero 150); dati-
 borik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).
 beguietagiño < beharrietaraiño (GGero 150).*
- 11-305/306 *becatuaren oxin ondarrean < beccatutan barren (GGero 150).*
- 11-306 *sartuac dagoz < sarthuac egon (GGero 150).*
- 11-307 *Uste badabe, ta uste badozu < Uste baitute, eta uste baituçu (GGero 150).
 becatuetan < beccatutan (GGero 150).
 zagozala < çaudelaric (GGero 150) < çaudela (GGero 150).
 Cerua < parabisua (GGero 150).*
- 11-308/309 *Jangoicoaz... mezprecio eguitea < Iaincoaz eta Iaincoaren misericordiaz escarniatcea
 (GGero 150). Añibarrok bitara jarri ditu barre ta mezprecio eguitea-ri dagozkion la-
 gunak: instrumentalean lehena, jatorrizkoan bezala, eta genitiboan bigarrena; barre
 egin-ekin ZERI edo gehienera jota ZERTAZ itxarongo genuke (cf. OEH, FARRE EGIN,
 s.v. farre), eta ZERTAZ mezprecio egin-ekin (cf. OEH, s.v. mesprezio). Cf. VB mez-
 precioa (g.) “desprecio”; honako hau testuko agerraldi bakarra dugu, baina cf. 19-
 174. oh.*
- 11-309 *esperanza esperanzabaguea < esperantça esperantça gabea (GGero 150); ik. § 5.5.2.*
- 11-310 *confianza eroa, icharomen gañez eguiña < fidantcia erhoa, gaiñez eguina (GGero
 150).
 larreguia < soberaniazcoa (GGero 150).*
- 11-311 *ezpada < Baiña hori da (GGero 150).
 ausardia, atrebencia < ausartcia (GGero 150).
 uste utsa, presunciñoa < presuncionea (GGero 150).*

- misericordia elduten dan baño aurrerago zure desoea lucetutea. Orrez guei-
go, ori da Espiritu Santuaren contra dirian becatuetatic bat. Eta alan, miseri-
cordiaren esperanzan becatu eguiten dabenac eztau misericordiaric merci.
- 315 Cerren alangoa misericordia beraren contra dabil. Alan adierazoten dau San
Basilio, penitenciaz verbatuten dala (tom. 25 de pœnit.): Penitenciaric es-
peranzan becatu eguiten dabenac eztau bide ona artuten, eztau penitenciac
valio daion merci. Eta era onetara esan lei misericordiaren esperanzan be-
catu eguiten dabenaz bere, ezabela onec bere misericordiaric merci.
- 320 Gura bogu erruqitu daquigun gueure Jangoico maitea, enzun gaguizan,
lagun daguigun ta equi daguian gugaz erruquia, abia gaitazan gu bere gure
aldetic, presta gaitazan gueure eguinvidea eguitera, becatutic alde eguitera
ta mandamentu <118> santuac contuz ta gogoz gordetera. Onela bai, baña
bestela, bestelaco esperanza guztiac eztira esperanzac, uts alperrac dira, zo-
raqueria dira.
- 325 Bada onela, eztogu misericordiaren esperanzan becuric eguin bear; ta
ez aren ustean penitencia eguitea ta ecandu charrac ichitea gueroco lucetu

-
- 11-312/313 *Orrez gueiago <Are guehiago (GGero 151); ik. § 5.3.4.*
- 11-315 *misericordia beraren <misericordiaren beraren (GGero 151); ik. § 5.1.2.3.*
- 11-316 *verbatuten dala <mintço dela (GGero 151); VB verbatu (b.) "hablar".*
- 11-317/318 *penitenciac valio daion <penitenciaric valia daquion (GGero 151).*
- 11-318 *era onetara <molde berean (GGero 151).*
esan lei <erran ahal diteque (GGero 151); ik. § 5.1.3.12.
- 11-319 *ezabela <eztu (GGero 151).*
onec bere <harc ere (GGero 151); ik. § 5.1.2.1.
- 11-320 *erruqitu daquigun gueure Jangoico maitea <urricall gaquitçan gueure Iaincoari (GGero 151).*
enzun gaguizan <entçun gaitçan (GGero 151).
- 11-321 *lagun daguigun <lagun daquigun (GGero 151). daquigun: aurrean daigun, ezabatua (ik. § 4.3.10.3).*
gugaz <gutçaz (GGero 151).
erruquia: aurrean miserico] (misericordia), ezabatua, <misericordia (GGero 151).
abia gaitazan <enseia gaitecin (GGero 151); ik. 6-122/123. oh.
gu: aurrean presta, ezabatua.
- 11-321/322 *gure aldetic <gueure aldetic (GGero 151); ik. § 5.1.2.4.*
- 11-322 *presta gaitazan: Añibarroren eransketa.*
becatutic <beccatuetaric (GGero 151).
alde eguitera <apparatçera (GGero 151).
- 11-323 *contuz ta gogoz: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.*
Onela bai <Ceren halatan bai (GGero 151).
- 11-324 *eztira esperanzac <eztira esperantça (GGero 151).*
uts alperrac dira <alfer dira (GGero 151).
- 11-324/325 *zoraqueria dira <erhoquerira [sic] dira (GGero 151) <erhoqueriac dira (Gero 151).*
- 11-326 *Bada onela <Beraz hunelatan (GGero 151).*
- 11-327 *aren ustean <fidantcia hartan (GGero 151). ustean: ondoan lucet] (lucetu?), ezabatu.*

bear. Lenagotic bai, cerren Jangoicoa dan ain ona, biotz beraa ta erruquiorra; cerren ain maite gaituen; cerren becatu eguin ta bertatic ezcaituen castiguetan; cerren icharoten deuscun; ta azquenic, cerren aimbeste on, esquer ta mesede eguiten deuscuzan, agaitic beragaitic, ataric ocasiño ta vide arturic, bear guenduque bestela eguingo guenduan baño obetoago eguin aren vorondate ta nai santua; eta, baldin becatu ta gaistaquerietan orainguño ibilli bagara, onec guztioac largaric, prestuac ta leialac izatera abiatu ta prestatu; ta alaco moldez, taiuz ta moduz aurrerantzean gobernatu non, azquenean, Jangoicoaren misericordiaz batera erdetsi daigun guretzat ordenaturic, aguin-duric, esqueñiric ta prestaturic dagoan pozcaria gozoa, cein dan Ceruco gloria.

-
- 11-328 *Lenagotic bai < Aitcitic (GGero 151).
ain ona, biotz beraa ta erruquiorra < hain on, bihotz bera eta misericordios (GGero 151-152).*
- 11-329 *bertatic: aurrean ain laster; ezabatua, < berehala (GGero 152).
ezcaituen: -c- gainean, -g-ren orde, baina hau ezabatu gabe, < ezcaituen (GGero 152).*
- 11-330 *azquenic < finean (GGero 152).*
- 11-330/331 *aimbeste on, esquer ta mesede < hanbat ongui eta ontasun (GGero 152).*
- 11-331 *deuscuzan: leh. deuscun, < deracun (GGero 152); ik. § 5.1.2.7.
agaitic beragaitic < hargatic beragatic ere (GGero 152).
ocasiño ta vide < occasino (GGero 152).*
- 11-332 *bestela < are bercela (GGero 152); ik. § 5.3.4.
obetoago < hobequiago (GGero 152).*
- 11-332/333 *eguin aren vorondate ta nai santua < haren vorondatearen eguitera enseiatu (GGero 152).*
- 11-333/334 *baldin becatu... ibilli bagara < cerere beccatu eta gaixtaqueria oraiñoocoan erabilli baitugu (GGero 152).*
- 11-334 *onec guztioac < hec guztioac (GGero 152).
prestuac ta leialac izatera abiatu ta prestatu < prestutasun bat[e]an iartcera delibe-ratu (GGero 152). prestuac: leh. prestutasun. prestatu: gainean, erabagui-ren orde, baina hau ezabatu gabe.*
- 11-335 *alaco moldez, taiuz ta moduz < halaco moldez, thailluz eta suertez (GGero 152).
azquenean < azquen finean (GGero 152).*
- 11-336 *misericordiaz batera < misericordiarequin batean (GGero 152); ik. § 5.1.1.11.*
- 11-336/337 *ordenaturic, aguin-duric, esqueñiric ta prestaturic < ordenaturic eta prestaturic (GGero 152).*
- 11-337 *pozcaria gozoa < bozcarioa (GGero 152), pozcaria: ik. § 5.1.1.1.*

12. BURUA

Guerotic guerora ibilteaz galduten dogu demporea.

1 §.

5 Guerotic guerora zabiltz; aurten gaisto izanic, urrengo urtean ondu ta
obetuco zareala diñozu. Izan bedi, bada, alan; zuc diñozun leguez, uste do-
zun leguez ta gogoan darabiltzun leguez jazo daquizula, guerta dedilla ta,
aurten gaisto izanic, zure guero orretan, etorquizunean obetu zaitezala. Ori
orrela balitz bere, non da, batetic, urte onetan eguin al ciñaiquean irabacia ta
10 <119> aurreratzearen meritua? Bada cristiñau on batec urte batean obra on asco
<119> eguiten ditu, ta bai bear-saria, merecimendu ta arimazco ondasun an-
diac irabaci ta erdetsi. Cristiñau onac urte baten aurreratuten dira; baña zu,

-
- 12-2 *Guerotic...galduten dogu < Nola guerotic guerora ibilceaz galcen dugun (GGero 152).*
- 12-4 *aurten < urthe hunetan (GGero 152).*
urrengo urtean < dathorquyenean (GGero 152).
- 12-4/5 *ondu ta obetuco < onduco eta prestutuco (GGero 152); ik. § 5.2.5.*
- 12-5 *Izan bedi, bada < Bada biz (GGero 152); ik. § 5.1.3.7.*
- 12-5/6 *uste dozun leguez: Añibarroren eransketa.*
- 12-6 *jazo daquizula, guerta dedilla < guertha daquiçun (GGero 152).*
- 12-7 *aurten < urthe hunetan (GGero 152-153).*
obetu zaitezala < prestu çaitecin (GGero 153).
- 12-8 *batetic < bataz (GGero 153).*
eguin al ciñaiquean < eguin ahal cenduqueyen (GGero 153).
- 12-9 *aurreratzearen meritua: leh. aurreratzea, < aiccinamendua (GGero 153).*
on batec < onec (GGero 153). on: gainean erantsia.
urte batean < urthe batez (GGero 153); ik. § 5.1.1.12.
- 12-10 *eguiten ditu < eguiten dute (GGero 153); ik. § 5.1.2.7.*
- 12-10/11 *bear-saria, merecimendu ta arimazco ondasun andiac < meritu ere (GGero 153).*
bear-saria: ik. § 5.1.1.1.
- 12-11 *irabaci ta erdetsi < erdiesten (GGero 153); ik. § 5.2.5.*
urte baten < urthe batez (GGero 153); ik. § 5.1.1.12.

aurreratu bearrean atzeratuten zara, becatu ta gaistaqueria asco eguiten dozuzala. Eta, bestetic, non da bitartean, urte onetan, zure guero orretara eldu artean galduten dozun demporea? Ene semea, gorde eguizu demporea, diño
 15 Espiritu Santuac (Ecl. 4). Aurrean dauquezunean, zaquioz: cerren, bein joanic, ezta biurtzeric ta erdetsiteric. Ocasiañoa becoquian, aurreco aldean, ulletsu da; baña atzean, cocotean motz, soil, erbal, ulleguea, ullebaguea. Aurrean bauco nondic lotu, nondic oratu, baña ez atzean. Beraz, aurrean dozunean probecha ta valia zaite; cerren atzeraturic joan ezquero ez dau escu-toquiric,
 20 ez lotu ta oratuteco quirteñic. Bada ocasiañoa leguez da demporea bere. Beragatic dirautsu Espiritu Santuac (Eccl. 9): Orain, demporea escuan daucazun artean, eguizu al daizuna; eta ori prest, orain, laster; cerren guero, zuc joan bear dozun infernuco lecu atan ezteutsue valioco ez errazoiac, ez jaqui-

-
- 12-12 *aurreratu bearrean atzeratuten zara < nola aitcinatuco çaren ecen guibelatcen çara (GGero 153).*
- 12-12/13 *eguiten dozuzala < eguiten duçula (GGero 153); ik. § 5.1.2.7.*
- 12-13 *bestetic < berriz bertcea (GGero 153).
non da < non da halaber (GGero 153); ik. § 5.3.4.*
- 12-13/14 *eldu artean < hel arteraiñoocan (GGero 153).*
- 12-14 *Ene semea < Ene seme (GGero 153); ik. § 5.1.1.5.*
- 12-15 *dauquezunean < duçuiño (GGero 153); ik. § 5.2.13.
zaquioz < çaquitça (GGero 153).*
- 12-15/16 *bein joanic < behin ioanez guero (GGero 153).*
- 12-16 *ta erdetsiteric < eta ez erdiesteric (GGero 153); ik. § 5.2.6.
becoquian < copetan, belarrean (GGero 153).
aurreco aldean < aitcin aldean (GGero 153).*
- 12-16/17 *ulletsu da < illetsu da, eta cherlotsu (GGero 153).*
- 12-17 *atzean, cocotean < garhaitcan, garcetan, guibel aldean (GGero 153).
motz, soil, erbal, ulleguea, ullebaguea < motz, soil, garbal, carsoil eta ille gabe (GGero 153). Cf. VB ullebaguea, ulleguea (b.) “calvo”.*
- 12-18 *bauco < badu (GGero 153); ik. §§ 4.3.10.13 eta 5.1.3.9.
nondic lotu, nondic oratu < nondic lot (GGero 153).
dozunean < duçuiño (GGero 153); ik. § 5.2.13.*
- 12-19 *probecha ta valia zaite < probetcha çaquitça (GGero 153). probecha: gainean valia eta ondoan zai] (zaite?), ezabatuak.
atzeraturic joan ezquero < guibeleraz guero (GGero 153); ik. § 5.3.4.*
- 12-20 *ez lotu ta oratuteco quirteñic < eta ez lotceco quirthaiñic (GGero 153). quirteñic: Axularren formak eragindako aldaera (cf. halaber 54-45. oh.), ziur aski iratxo bat baino ez, Añibarrok bestela quirten bakarrik ezagutzen baitu (cf. VB, s.v. asa, etab., eta OEH, s.v. kirten, oro har Hegoaldeko aldaerarako).*
- 12-20/21 *Beragatic dirautsu Espiritu Santuac < Beraz humelatan (GGero 153).*
- 12-21 *demporea: leh. dempora.*
- 12-21/22 *escuan daucazun artean < aitcinean duçuiño (GGero 153-154); ik. § 5.2.13.*
- 12-22 *eta ori prest, orain, laster < eta orai ere Instanter, fite presenteon (GGero 154).
cerren guero < Ceren iaquin behar duçu ecen eztela guero (GGero 154).*
- 12-23 *infernuco: Añibarroren eransketa.*
- 12-23/24 *ezteutsue valioco... ez aleguiñic andienac < eztela... arraçoin alegatceric, eta ez iaquintasunaz probetchatceric içanen (GGero 154).*

25 turiac, ez aleguiñic andienac. Ichiten badozu, celan eztaquizula, orain escu artean dozun demporea igaroten, eguin da, galdu da, ezta gueiago biurtuco. Agatic diño San Pabloc (Galat. 6): Dempora dogun artean, daguigun ondo.

Esan begui Aristotelec (4. Phisico) nai dabena demporeagaitic; baña, gure conturaco, demporea da len, orain ta guero gauzac ibiltea, igarotea, ta igaroaz batera igartutea ta acabetea. Dempora beti doa. Senecac diño (libr. 30 6. natural. q. 8): Dempora igaroa ta etorquizuneco[a] eztira gureac. Joana joan; etorquizunecoa etorquizun, oraingo au da gurea, ta ez besteric.

Eta or[a]ingo demporea au bere ain guichia, laburra ta pitia da ece, diño Santo Tomasec (1 p. q. 66. a. 4. ad 4 et 5): Demporatic ez dogu ecer bere, orain bat baxen, iraute apur bat, puntu bat, ta ez gueiago. Eguia da, baña, ce- 35 lan puntu onec, orain onec batu, bildu, lotu, alcartu ta josi leguez eguiten dituan alcarregaz igaroa ta etorquizuna, <120> joste onec gomuterazoten deuscu igaroa; ta etorquizunaz bere esperanza ta icharomena emoten deuscu. Eta alan, gomute ta acordu onegaz, icharomen ta esperanza onegaz bate-

-
- 12-24/25 *escu artean < escuen artean (GGero 154).*
- 12-25 *igaroten < iragaitera (GGero 154).*
ezta gueiago biurtuco < ezta guehiago bihurtceric (GGero 154).
- 12-26 *dogun artean < duguiño (GGero 154); ik. § 5.2.13.*
daguigun ondo < daguigun ongui (GGero 154); ik. § 5.3.4.
- 12-27 *(4. Phisico): gainean, non erantsi behar den zehaztu gabe.*
demporeagaitic < demboraz (GGero 154); ik. § 5.1.1.13.
- 12-28 *conturaco < contuco (GGero 154); ik. § 5.1.1.9.*
- 12-29 *igaroz batera < iragaitearequin batean (GGero 154); ik. § 5.1.1.11.*
Senecac diño < Dio Senecac (GGero 154), latinaren ondoan eta euskarazkoa baino lehen.
- 12-30 *natural. q. 8: badirudi Añibarrok q. 8 letraldatu duela jatorrizkoan agertzen den quæstio S. (GGero 154, in m.), egiatan S. Tho., hots, Santo Thomas zena; hurrengo aipuren hasiera, alegia.*
Dempora igaroa ta etorquizuneco[a] < Iragana eta ethorquiçuna (GGero 154).
- 12-31 *etorquizunecoa etorquizun < ethorquizuna ethorquiçun (GGero 154).*
oraingo au: leh. oraingoa, < presentecoa (GGero 154).
gurea < gure (GGero 154); ik. § 5.1.1.5.
- 12-32 *or[a]ingo demporea au bere < presenteco haur (GGero 154).*
ain: ondoan da, ezabatua; cf. hain da (GGero 154); ik. § 5.2.1.1.
guichia, laburra ta pitia < guti (GGero 154). pitia: cf. VB pitian-pitian (b.) “instante, momento, cada punto”.
- 12-34 *apur bat, puntu bat < appurra, pontutsu bat (GGero 154).*
- 12-35 *puntu < pontutsu (GGero 154).*
- 12-35/36 *batu, bildu, lotu, alcartu ta josi leguez eguiten dituan < iuntatcen eta iosten beçala baititu (GGero 154). lotu: gainean erantsia. josi: aurrean josten, ezabatua; ik. § 5.2.11.*
- 12-37/38 *esperanza ta icharomena emoten deuscu < esperantça emaiten (GGero 154).*
- 12-38 *gomute ta acordu < orhoitce (GGero 154-155).*
- 12-38/39 *icharomen ta esperanza onegaz batean < eta esperantça hunequin batean (GGero 155); ik. § 5.3.2.*

40 an, igaroa ta etorquizunecoa oraingoaz loturic ta bat eguiñic, ez jacu oraingoa, presentecoa ain labur erechiten ta iruditen. Cerren guztia alcarturic leguez ta bat balira leguez artuten doguz, ta onela uste eraguiten dabe vicitza lucea, diño Senecac (de brevit. vitæ c. 13).

45 Baña, dana dan leguez ta bear dan leguez demporea artu arren, idoroco dogu ecerez bat dala, guichi bat, argal mee labur bat dala. Oraingo au gozatu guiñei, etorquizunecoa deseatu ta igaroa alabatu, mezpreciatu edo aitatu ta icentatu. Igaroac eztau erremedioric: á joan zan; etorquizunecoa eztaquigu emongo jacunez; presentecoa, oraingoa ain da chiquia, guichia, laburra ta igarocorra ece, orain bere, bigarren verbea asi dodaneco, igaro da lenengoa ta lenengoaren demporea.

50 Izan da esan dabenic demporea ezatala ecer, bere gomuteric, acorduric, gogoric ez danean. Eta alan, lo datzanari ez jacala orduco demporea ecer irudituten, ezabela sentitzen, ezpalitz leguez igaroten jacala. Cerren orduan eztau atan pensetan, ez gogoric euquiten.

- 12-39 *igaroa ta etorquizunecoa < iragana eta ethorquicuna (GGero 155). oraingoaz < presentecoarequin (GGero 155); ik. § 5.1.1.11.*
- 12-39/40 *oraingoa, presentecoa < presentecoa (GGero 155); ik. § 5.3.2.*
- 12-40 *erechiten ta iruditen < iduritcen (GGero 155). alcarturic < elcarrequin (GGero 155).*
- 12-41/42 *ta onela uste eraguiten dabe vicitza lucea < Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio (GGero 155); ik. § 4.4.2.*
- 12-42 *diño Senecac < Hala erraiten du Senecac (GGero 155), latinezkoaren aurrean; euskarazkorik ez Axularrean.*
- 12-43 *dana dan leguez < den beçala (GGero 155). dan: gainean, dala-ren orde. artu arren < hartcera (GGero 155). Lehenago (ik. 4-14/15. oh.) -tzeko-rekin itzuli du egitura berbera.*
- 12-44 *ecerez bat dala, guichi bat, argal mee labur bat dala < deus guti dela, mehar dela eta labur (GGero 155). dala: gainean erantsia. Ohartu bat segidari (ik. § 5.1.1.5). Oraingo au < Presentecoa (GGero 155); ik. § 5.3.2.*
- 12-44/45 *gozatu guiñei < goça deçaquegu (GGero 155).*
- 12-45/46 *alabatu, mezpreciatu edo aitatu ta icentatu < lauda edo auhen eta deithora (GGero 155). deithora-k eragin bide ditu aitatu ta icentatu harrigarri horiek, deitu-rekin lotu bazuen (ik. § 5.3.4).*
- 12-46 *joan zan < ioan da (GGero 155); ondoan igaro zan, ezabatua.*
- 12-47 *jacunez < çaicun (GGero 155) < çaicunz (GGero 155). presentecoa, oraingoa < presentecoa (GGero 155). ain da: da gainean erantsia, < hain da (GGero 155); cf. 12-32. oh.*
- 12-47/48 *chiquia, guichia, laburra ta igarocorra < guti, labur eta ez deus (GGero 155); ik. § 5.1.1.5. igarocor: VB (c.) “caduco, perecedero”.*
- 12-48 *asi: gainean, atera-ren orde, < hasi (GGero 155). dodaneco: leh. dodanaco-edo, < dudaneco (GGero 155); ik. § 5.1.1.9. igaro da < iragan baitateque (GGero 155).*
- 12-50/51 *bere gomuteric, acorduric, gogoric ez danean < hartçaz orhoitçapenic edo pensatçeric eztenean (GGero 155).*
- 12-53 *ez gogoric < eta ez gogoric (GGero 155); ik. § 5.2.6.*

55 Uragaz gura nenduque bardindu ta comparatu demporea. Bada demporeac ta urac alcarren antza, irudia dauque. Ura beti doa, batat besteari darraio. Igaroa aurrera doa, ta etorquizunecoa atzera dago, ta aurrean dagoanac guichi iraunten dau. Eztau iñoc igaro dan uretic artuten, ez etorteco dagoanetic bere: aurrecotic, igaraitean, aurrean dagoanean artu bear da. Alan da, bada, ta alan eguin bear da demporeaz bere: aurrean daucazunetic artu ta
60 aprobecha zaitte. Bada bestela, axe ona danean vela eguin bago guelditzen dan ontzia leguez, guelditu cintequezu zu bere.

2 §.

65 Demporatic gauza labur chiquia, *orain* au dogu, ta ez besteric. Baña, norc esango dau cembat balio daben *orain* onec? Iraute, iraupen, bitarte ta asti chiqui labur onec? Aibat balio dau ece, baldin <121> orain Infernuan dagoan bati emongo baleusquioe auquera, ea cer gueiago gurago leuquean bere escuan: ala mundu guzti au bere ondasun guztiacaz, ala ordu baten dempora ta bitartea, seguru da, ez ordu baten dempora, ezpada beguiac gora

- 12-54 *gura nenduque* < *nahi nuque* (GGero 155). *nenduque*: testuko agerraldi bakarra; grammatikan (GB 24) *ceunque* eta *cenduque* ematen ditu 2. pertsonarako, baina *neuque* bakarrik lehenerako: cf. *gura neuque* (15-17, 19-319, 35-38, 35-55 eta 44-9).
12-55 *alcarren antza, irudia dauque* < *elcarren idurica handi baitute* (GGero 155); ik. § 5.1.3.9.
12-55/56 *darraio*: aurrean *jarraica*, ezabatua, < *darraica* (GGero 155); ik. 1-108/109. oh.
12-56 *aurrera doa* < *aicina da* (GGero 155).
ta etorquizunecoa < *ethorquizunecoa* (GGero 155-156).
12-56/57 *aurrean dagoanac guichi iraunten dau* < *aicinecoac aicinean guti irauten du* (GGero 156).
12-57 *ez etorteco* < *eta ez ethortceco* (GGero 156); ik. § 5.2.6.
12-58 *igaraitean* < *iragaitean* (GGero 156). Axularren formak eragina: Añibarrorengan *igarrotean* esperoko genuke (cf. 1-83, 3-155, 4-25, 9-97 eta 12-25. oh., adib.).
aurrean dagoanean < *presentean denean* (GGero 156); ik. § 5.3.2.
artu bear da < *behar da atrapatu* (GGero 156); ik. § 5.2.1.
12-59/60 *aurrean daucazunetic artu ta aprobecha zaitte* < *presentecoari lot çaquitça, hari probetcha çaquitça* (GGero 156); ik. § 5.3.2.
12-61 *guelditu cintequezu* < *gueldi ahal cindezque* (GGero 156). *cintequezu*: pluraleko marka bi-koitza, ziurrenik Axularren formak eragina, ohiko *cintequezu*-en ordezt (ik. § 4.3.10.1).
12-63 *labur chiquia* < *appurra* (GGero 156).
12-64/65 *Iraute, iraupen, bitarte ta asti* < *iraute, iraupe eta bitarte* (GGero 156).
12-65 *Aibat* < *Hanbat* (GGero 156).
ece < *non* (GGero 156).
12-66 *emongo baleusquioe* < *eman balequio* (GGero 156).
auquera: aurrean *auta*] (*autatzera?*), ezabatua, < *hautatcera* (GGero 156).
cer gueiago gurago leuquean < *cein luqueyen nahiago* (GGero 156); ik. § 5.2.1.
12-67 *bere escuan* < *bere escuco* (GGero 156); ik. § 5.3.4.
guzti au < *haur guztior* (GGero 156); ik. § 5.1.2.2.
12-68 *ezpada* < *baiña are* (GGero 156); ik. § 5.3.4.
12-68/69 *beguiac gora jasote baten bitartea* < *beguien goiti ailtchatceco asco luqueyen bitartea* (GGero 156); ik. § 5.2.2.

70 jasote baten bitartea bere len autu ta guraco leuquela, ta obetzat euquico leuquela, munduco andiqueria, atseguintasun ta dan guztia baño.

Cergaitic ce a apurra, danic chiquiena bere, ondo emon, bete ta empleaturic, asco leuque orduguñoco falta ta uts eguite guztia erremediatuteco, osotu, quitututeco, ta Ceruco Gloria irabaci ta erdetsiteco.

75 Esan oi da gauza bat preciatua ta valiotsua dala pusca guichi bat izan arren, beste andiago batec baño gueiago balio dabenean; eta alan esaten da gauza preciatua dala urrea. Beraz, eguiatz da gauza preciatua, estimagarria ta baliotsua demporea, cerren dan guichiena, biotzeco damu oso eguiatzco bat, asco da salvaciñoa irabazteco. Eta ezpabere itandu eguiozu bere azqueneco orduan ain laburqui ta laster Cerua irabaci eban Lapur Santuari, ea cer erechi jacan demporeaz. Ea gauza estimagarria ta ecertan euqui ta maitetuco danez. Eta ac, probatuac leguez, esango deutsu baiéz, estimagarria dala, valiotsua dala, ezabela munduan bere pareric.

-
- 12-69/70 *autu ta guraco leuquela, ta obetzat euquico leuquela < hauta leçaqueyela, nahiago luqueyela, eta bai hobeago ere (GGero 156).*
- 12-70 *munduco andiqueria, atseguintasun ta dan guztia baño < mundu guztia baño (GGero 156).*
- 12-71 *a apurra < dembora appur hura (GGero 156).
danic chiquiena bere < den appurrena ere (GGero 156).*
- 12-71/72 *ondo emon, bete ta empleaturic < ongui emplegatcen luela (GGero 156); ik. § 5.2.14.*
- 12-72 *falta ta uts eguite < falta (GGero 156). uts: jat. ust (arg. zuz.).*
- 12-72/73 *erremediatuteco, osotu, quitututeco < erremediatceco (GGero 156-157).*
- 12-73 *irabaci ta erdetsiteco < erdiesteco (GGero 157).*
- 12-74 *Esan oi da < Erraiten da (GGero 157); ik. § 5.1.3.13.
preciatua ta valiotsua < preciatua (GGero 157).
dala: gainean, danean-en orde, < dela (GGero 157).*
- 12-74/75 *pusca guichi bat izan arren < hartaric pusca ttipiac (GGero 157). pusca: aurean artaric, ezabatua.*
- 12-75 *beste andiago batec < bertcetaric handia[c] (GGero 157).*
- 12-76/77 *preciatua, estimagarria ta baliotsua < preciatua eta valiossa (GGero 157).*
- 12-77/78 *cerren dan guichiena... asco da < ceren den gutiena bihotcezo urriquimendu batequin, asco baita (GGero 157). bat: leh. bategaz. Axularren testua aurean ez duela egindakoa diruditen aldaketetako bat (ik. § 3.2).*
- 12-78 *salvacinoa irabazteco < salbamenduaren eguiteco (GGero 157). salvaciñoa: aurean salvetaco, ezabatua.*
- 12-79 *laburqui ta laster < laburzqui (GGero 157).
Cerua < parabisua (GGero 157).
Lapur Santuari < ohoiñari (GGero 157); ik. § 5.4.2.*
- 12-80/81 *estimagarria... danez < estimatcecoa eta ecertan eduquitcecoa denz (GGero 157).*
- 12-81 *leguez: gainean, < beçala (GGero 157).
estimagarria dala < ecertan eduquitcecoa dala (GGero 157).*
- 12-81/82 *valiotsua < valiossa (GGero 157).*

Ain da gauza andia ta aberatsa orain escu artean dogun demporaren orain
 au ece, Purgatorioco penac, mundu onetaco neque guztiac alcar loturic, ora-
 85 turic ta erantsiric baño andiagoac izanic, gueiago valio dau, gueiago eguin ta
 quitu-saritutun dau Jangoicoaren aurreraco orain emen munduan obra one-
 tan emoteac, guero Purgatorioan urte batean penatzen egoteac baño, diño
 doctore batec (Lodulphus ex Saxonia 1. p. cap. 20). Oraingo egunac balioco
 90 dau orduco urtea. Alan adierazoten dau Ecequiel profeteac (cap. 4): Emon
 neutsun eguna urtetzat. Esan gura dau: Emon deusudaz, emoten bere deu-
 tsudaz egun asco, ain aberatsac, valiotsuac ta precio andicoac ece, aetaric ba-
 tec balio dau ta balioco dau urte bat. Bada, guero urte bategaz eguin daite-
 quena ta eguingo dana, eguin liteque orain egun batean. Eta errazoia da,
 95 cergaitic ce guero izango ezтана orain dago merccietaco, aberastuteco, zo-
 rionduteco ta ondasunac aurreratuteco aala, indarra, auquera ta libertadea.
 Eta bardin, cergaitic ce era bico penac dira: bata da *bestec emoten deuscuna*,

- 12-83 *escu artean* < *escuen artean* (GGero 157).
 12-84 *Purgatorioco* < *Purgatorioetaco* (GGero 157). Aldaketa bera hainbat bider egin behar
 du hemendik aurrerako pasartean; jakintzat emango dut.
neque guztiac: leh. *nequeac*, < *pena guztiac* (GGero 157).
 12-84/85 *alcar loturic, oraturic ta erantsiric* < *elccarri iratchequiric* (GGero 157). *alcar*: ik. § 5.1.2.6.
 12-85 *izanic* < *direlaric* (GGero 157); ik. § 5.2.14. Ondoren Axularrek *guztiarequin ere*
erraiten du doctor batec dakar; Añibarrok bukaera beherago jarri du (12-87/88),
guztiarequin ere janda.
 12-85/86 *gueiago eguin ta quitu-saritutun dau* < *eta guehiago eguiten du* (GGero 157). *eguin*:
 leh. *eguiten dau*.
 12-86 *Jangoicoaren aurreraco*: Añibarroren eransketa.
orain emen munduan < *orai hemen egun batez* (GGero 157).
 12-86/87 *obra onetan emoteac* < *obra onetan empletatceac* (GGero 157).
 12-87 *urte batean* < *urthe batez* (GGero 157); ik. § 5.1.1.12.
 12-87/88 *diño doctore batec*: cf. 12-85. oharrean esanda.
 12-90 *eguna urtetzat* < *egunac* [sic] *urthetçat* (GGero 157) < *eguna* (Gero 157).
Emon deusudaz < *Eman deratçut* (GGero 158); ik. § 5.1.2.7.
 12-90/91 *emoten bere deusudaz* < *emaiten eta* [sic] *deratçut* (GGero 158) < *eta emaiten dera-*
tzut (Gero 158). Añibarrok *eta ere*-ren ordezt dagoela pentsatu bide du.
 12-91 *ain aberatsac, valiotsuac ta precio andicoac* < *hain aberatsic, valiosic eta precio han-*
ditacoric (GGero 158); ik. § 5.1.1.5.
ece < *non* (GGero 158).
 12-92 *urte bategaz* < *urthe batez* (GGero 158); ik. § 5.1.1.11.
 12-93 *egun batean* < *egun batez* (GGero 158); ik. § 5.1.1.12.
 12-93/94 *Eta errazoia da, cergaitic ce* < *Eta arraçoia. Ceren* (GGero 158).
 12-94 *dago* < *baita* (GGero 158); ik. § 5.1.3.8.
 12-94/95 *merccietaco, aberastuteco, zorionduteco* < *merccitceco* (GGero 158).
 12-95 *ondasunac aurreratuteco* < *ontasunean aitcinatceco* (GGero 158). *ondasunak eta on-*
tasuna nahasi ditu Añibarrok (ik. § 5.3.4).
aala, indarra, auquera ta libertadea < *ahala, indarra eta libertatea* (GGero 158).
 12-96 *bardin* < *halaber* (GGero 158); ik. § 5.3.4.
era bico penac < *bi pena suerte* (GGero 158).
deuscuna: aurrean *dabena*, ezabatua.

bestetatic eldu ta etorri jacuna; celan dan Purgatorioco penea ta jatorcuzan gaissotasunac.

- <122> Beste bat da *pena artua*, gueuc gueure borondatez artzen doguna, celan dan eguiten dogun penitencia, baraututea, oraciñoan egotea, erromeria santuac ondo ibiltea. Eta pena onec, gueuc gueure borondatez artzen dogun onec, eroaten deutso aurea beste peneari, bestec emoten deuscunari, pacienciaz artua izanagaitic bere. Cerren Purgatori[o]an dagoanac gura leuque andic urten ta libratu, ta bai gaissoac bere osatu, sendatu ta sendotu.
- 100
- 105 Baña, orain gueuc gure borondatez eguiten dogun penitencia ta artzen dogun nequea, alde guztiz da borondatezcoa, baliotsua ta Jangoicoari eder jagocana. Eta alan, onec daroio Purgatorioco peneari, ta gaissotasunecoari bere, urreac beste diru guztiai daroien aurea ta baliotasuna. Cerren, Jangoicoac beguiratuten badau bere igaroten dogun penara, baña are gueiago beguiratuten dau artaraco borondatera. Bada alan, orain penatu, barautu ta penitencia eguin bear da. Cergaitic ce oraingo pena chiquiac, gueuc borondatez artuten dogunac, gueiago balioco dau Purgatorioco ta gaissotasuneco neque
- 110

-
- 12-97 *eldu ta etorri jacuna* < *heldu çaicuna* 'datorkiguna' (GGero 158); ik. § 5.3.4.
- 12-97/98 *ta jatorcuzan gaissotasunac* < *eritasun batetacoa* (GGero 158).
- 12-99 *Beste bat da* < *Bertcea da* (GGero 158).
pena artua < *pæna assumpta* (GGero 158).
- 12-100 *oraciñoan egotea* < *oracinotan egoitea* (GGero 158); ik. § 5.1.1.4.
- 12-100/101 *erromeria santuac ondo ibiltea* < *erromerian ibiltcea* (GGero 158). Bistan da *erromeria* ezberdinetan pentsatzen ari zirela, eta batez ere Añibarrok oso kontuan duela gaizki ere ibil daitezkeela. *ibiltea*: *aurrean eguitea*, ezabatua.
- 12-101 *pena onec* < *pena harc* (GGero 158); ik. § 5.1.2.1.
- 12-102 *dogun onec* < *dugunac* (GGero 158).
eroaten deutso aurea < *eramaiten dio aitcin aldea* (GGero 158).
- 12-103 *pacienciaz* < *patientqui* (GGero 158); ik. § 5.1.4.
- 12-104 *urten ta libratu* < *libratu* (GGero 158); ik. § 5.3.2.
osatu, sendatu ta sendotu < *sendatu* (GGero 158).
- 12-105 *gueuc gure* < *gueroc gueure* (GGero 158); ik. § 5.1.2.4.
- 12-106 *nequea* < *pena* (GGero 158).
alde guztiz = GGero 158; ik. § 5.3.3.
baliotsua < *valiossa* (GGero 158).
- 12-106/107 *eder jagocana* < *eder çaicana* (GGero 158).
- 12-107 *daroio* < *eramaiten deraue* (GGero 158); ik. § 5.1.3.7.
- 12-108 *guztiai*: jat. *guztiac* (arg. zuz.).
daroien < *eramaiten derauen* (GGero 158); ik. § 5.1.3.7.
aurea ta baliotasuna < *abantaila* (GGero 158); ik. § 5.3.2.
- 12-109 *are gueiago* < *areago* (GGero 159); ik. § 5.3.4.
- 12-110 *artaraco* < *hartaco* (GGero 159); ik. § 5.1.1.9.
Bada alan < *Beraz* (GGero 159); ik. § 5.3.4.
- 12-110/111 *orain penatu... eguin bear da* < *orai pena, orai barur, cilicioa har* (GGero 159).
- 12-111 *borondatez* < *librequi, gueure vorondatez* (GGero 159).
- 12-112 *Purgatorioco ta* < *purgatorioetaco edo* (GGero 159).
gaissotasuneco: leh. *gaissotasunecoac*.

115 andi latz gogorrac baño. Eta alan, dirudi Purgatorioan dagozanac ezabela ecerberez damu andiagoric, nola demporea galdu izanaz, deunguero emonaz, ta euren buruac euren borondatez guichi bat baño ezpada bere ez penatu izanaz munduan egocenean. Orregaitic esaten dau San Juan Chrisostomoc (hom. 57. in Joan. 9): Eztozu beguiratuten beste gauza guztiac len ichi bear diriala galtzera, demporea baño? Cerren urrea ta cillarra cobratu litequez galduagaitic, baña ez dempora.

120 3 §.

Ezta munduan gauza balio andiagoric, diño San Bernardoc (ad scolast.), demporea baño; baña, ai, ezta gaurco egunean gauza ecer bere ezagoric idoroten. Eztozu ecerez ain contu guichi eguiten, cein demporaz. Nor da, itanduten dau Senecac, demporeari zor jacon precioa emoten deutsenic?
125 Eguna mereciten daben leguez estimetan dabenic? Bitzaren bardin, ecerezaren pare daucagu demporea. Dirudi gura guenduquela ascotan ezpaliz bere,

-
- 12-112/113 *neque andi latz gogorrac < pena handiac (GGero 159).*
12-113 *dirudi < badirudi ecen (GGero 159); ik. § 5.1.3.6.*
dagozanac: -ac hitz artean erantsia, < daudenec (GGero 159).
12-114 *ecerberez < deusez ere (GGero 159).*
damu andiagoric < hanbat damu eta atsecabe (GGero 159); ik. § 5.1.2.8.
galdu izanaz < galduaz (GGero 159).
12-114/115 *emonaz < emplegatuz (GGero 159).*
12-115 *guichi bat < appur bat (GGero 159).*
baño ezpada bere < bedere (GGero 159).
12-115/116 *ez penatu izanaz < ez penatuaz (GGero 159).*
12-116 *munduan egocenean: Añibarroren eransketa.*
Orregaitic < Arraçoiñequin (GGero 159).
12-117 *beguiratuten < aditcen (GGero 159); latinari (Neque intelligis...) begiratu gabe itzuli du.*
12-118 *cobratu litequez < cobera ditezque (GGero 159); ik. § 5.1.3.12.*
12-121 *balio andiagoric < preciatuagoric (GGero 159); ik. § 5.3.2.*
diño San Bernardoc < Dio San Bernardoc (GGero 159), latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean.
12-122/123 *ecerbere ezagoric < eztheusagoric (GGero 159).*
12-123 *ecerez: aurrean ecerg] (ecergaz?), < deusez ere (GGero 159); ik. § 5.1.1.11.*
eguiten: aurrean cein, ezabatua.
cein demporaz < nola demboraz (GGero 159).
12-123/124 *Nor da... emoten deutsenic? < Nor emanen derautacu, galdeguiten du Senecac, demborari precio dioenic? (GGero 160).*
12-125 *mereciten daben leguez < mereci beçala (GGero 160).*
Bitzaren: aurrean (fitsaren) parentesi artean (= GGero 160). Bitzaren bera letra-tinta ezberdinez erantsita dagoela dirudi. Gogora dezagun bitza 'aparra' dela (ik. 9-39. oh.) Añibarrorentzat; Hegoaldean adiera honetan erabili duten idazle zahar bakanek pits aldaera dakarte (cf. OEH, s.v. 1 fits).
12-125/126 *ecerezaren < ez deusen (GGero 160).*
12-126 *Dirudi gura guenduquela ascotan ezpaliz bere < Badirudi trabatcen gaituela, anhitzetan ere, ezpaguendu nahi guenduqueyela (GGero 160); ik. § 5.1.3.6.*

130 bada gabiltz jaquin бага certain igaro. Ordu baten gagozanean, bigarreanean baguiña desetan dogu. Esan bear da aberats gagozala, munduan dan gauzaric aberatsena ta baliotsu[en]a orren francu ta guichitan darabilgunean. Bada alan, zuc eta nic bere demporea galtze onegaz, probechu бага igarotera ichiaz, <123> ondo contu estua emon bearco deutsagu Jangoicoari.

135 Iru era, modu edo guisara esan al liteque galduten dala dempora. Lenengo, becatu eguiteaz ta becatuan egoteaz. Becatu eguiten zagozanean, eguin ezquero ta aetan zagozala igaroten dozun dempora, emozu galdutzat. Ac demporac eztau ecer bere balio zuretzat. Lenagotic bai, aetan ceure arimea ta arimaco ondasun guztiac, eta comunqui gorputzeacoac bere galduten dozuz, ura beera leguez joatzuz. A da demporaric galduena ta galgarriena, negargarriena.

Bigarren, galtzen da dempora gogoeta ero, zoro, uts, arro, bapere balio

- 12-127 *bada gabiltz jaquin бага certain igaro < ez iaquinez certain iragan gabiltçala (GGero 160). gagozanean < garenean (GGero 160); ik. § 5.1.3.8.*
- 12-128 *dogu < dugula (GGero 160). aberats gagozala < aberats garela (GGero 160); ik. § 5.1.3.8.*
- 12-129 *orren francu ta guichitan < hain francoqui (GGero 160). francu: ondoan dar] (darabilgunean?), ezabatua. Eransketa bitxia: ia-ia esan daiteke francu eta guichitan antonimoak direla.*
- 12-130 *alan < ala (GGero 160). Cf. Villasanteren oharra (1976: 178, 61. oh.), interjekzioa dirudiela esanez (OEH-ak, s.v. 4 ala 4, ez du Axularren adibiderik jaso). Añibarrok bere erara ulertu du, beraz, h-rik ezari erreparatu gabe (ik. § 5.3.4). demporea galtze onegaz < demboraren galtze hunetçaz (GGero 160); ik. § 5.2.2. probechu бага < probetchatu gabe (GGero 160).*
- 12-131 *ichiaz < utzteaz (GGero 160); ik. § 5.2.15. ondo contu estua < contu hertsia (GGero 160).*
- 12-132 *Iru era, modu edo guisara < Hirur moldez (GGero 160). esan al liteque < erran ahal diteque (GGero 160); ik. § 5.1.3.12.*
- 12-132/133 *Lenengo < Lehenbicicoa (GGero 160).*
- 12-133 *becatua < beccatua (GGero 160); ik. § 5.1.1.4. zagozanean < hari çarela (GGero 160); ik. § 5.3.4.*
- 12-133/134 *eguin ezquero ta aetan zagozala < eta eguinez guero, hetan çaudela (GGero 160); ik. § 5.2.14. eguin: aurrean ta, ezabatua.*
- 12-134 *igaroten dozun < iragaiten çaitçun (GGero 160). igaroten: aurrean em] (emoten?), ezabatua.*
- 12-135 *Lenagotic bai < Aitcitic (GGero 160); ik. § 5.3.4. aetan < hartan (GGero 160). Axular denborari dagokio, noski, eta Añibarrok bekatuei, antza denez.*
- 12-137 *joatzuz: aurrean biraldute[n], ezabatua, < egorteintuçu [sic] (GGero 160) < egorzteintuçu [sic] (Gero 160); cf. egotzteintuzu (Villasante 1976: 179). Añibarrok egozri zela uste izan bide zuen. A da: bitartean demporea, ezabatua; cf. Dembora hura da (GGero 160); ik. § 5.5.1. negargarriena: Añibarrok eransketa.*
- 12-137/138 *Bigarren < Bigarrena (GGero 160). ero, zoro, uts, arro < erho, vano (GGero 160). vano bitara ulertu du: cf. VB utsa “vano, hueco” vs arroa “vano, soberbio”.*
- 12-139 *bapere < deus (GGero 160).*

- 140 eztaben batzuetan egoteaz. Ceu bacarric, alperric, ceure erara, eguitecoric
baga, ondo jana ta obeto edana zagozanean, eta batez bere oean loz aseric,
arduratic baga zatzazanean, eguiten dozuz ceure artean milla asmo ta go-
goeta, milla torre ta gaztelu. Eguiten zara Aita Santu, eguiten zara erregue,
145 aberastuten zara, eguiten dozuz pamparroitasun ta balentia asco. Jatortzu
joco eder bat, irabazten dozu. Onela darabiltzuz ceure buruan ta gogoan,
alan balira leguez, gura cenduquezan gauza batzuc. Eta secula alan izan,
jazo ta guertatuco ezpadira bere, orrez guztiaz, alan pensatzeaz beragaz,
gogoraciño uts ero onetan egoteaz atsegiñña artzen dozu. Eta bitartean ez-
tozu gogoratuten zuc ateratzen dozun probechua dempora galtzea dala, ta
150 ez besteric.

Irugarren, galtzen dabe demporea gorputzeco atsegiññetan ta gustu ci-
quiññetan ibilteaz. Esan oi dozu: igaro daguigun demporea, jocatu daigun,
dantzatu, josta ta diberti gaitzezan. Eta, barriz, ez jatzu gogoratuten bitartean

-
- 12-140 *alperric* < *alfer* (GGero 160).
ceure erara < *aise* (GGero 160).
- 12-142 *eguiten dozuz* < *eguiten duçu* (GGero 161); ik. § 5.1.2.7.
ceure artean < *ceure baithan barrena* (GGero 161); ik. § 5.3.4.
- 12-144 *eguiten dozuz* < *eguiten duçu* (GGero 161); ik. § 5.1.2.7.
pamparroitasun ta balentia asco < *anhitz valentia* (GGero 161). VB “valentía: c. *pam-
parroitasuna, valentia*”; ik. § 5.3.2.
Jatortzu < *Ethortcen çaitçu* (GGero 161); ik. § 5.1.3.7.
- 12-145 *Onela* < *Finean* (GGero 161).
darabiltzuz < *erabilteintuçu* (GGero 161); ik. § 5.1.3.7.
ceure buruan ta gogoan < *ceure gogoan* (GGero 161); ik. § 5.5.3.
- 12-146 *alan balira leguez* < *hala balira* (GGero 161).
- 12-146/147 *izan, jazo ta guertatuco* < *ıçanen* (GGero 161); ik. § 5.5.3.
- 12-147 *ezpadira bere*: ondoren Axularrek hauxe dakar: *eta eztirela ıçanen badaquiçu ere*
(GGero 161).
pensatzeaz beragaz < *pensatceaz beraz ere* (GGero 161); ik. § 5.1.1.11.
- 12-148 *uts ero onetan* < *erho hetan* (GGero 161). *ero onetan*: leh. *eroetan*; ik. § 5.1.2.1.
atsegiñña artzen < *atsegin hartcen* (GGero 161); ik. § 5.1.1.5.
- 12-149 *gogoratuten* < *consideratcen* (GGero 161); ik. § 5.3.2.
ateratzen < *handic atheratcen* (GGero 161).
- 12-151 *Irugarren* < *Hirurgarrena* (GGero 161).
galtzen dabe < *galtcen da* (GGero 161).
- 12-151/152 *gorputzeco atsegiññetan ta gustu ciquiññetan* < *gorputzaren placeretan* (GGero 161);
ik. § 5.1.1.8.
- 12-152 *Esan oi dozu* < *Erraiten duçu* (GGero 161); ik. § 5.1.3.13.
igaro daguigun demporea, jocatu daigun < *deçagun dembora iragan, gaitecin ioca*
(GGero 161); ik. § 5.2.1.
- 12-153 *dantzatu, josta ta diberti gaitzezan* < *gaitecin dantça eta dosta* (GGero 161).
Eta, barriz < *Eta* (GGero 161).

155 demporea galduten dozula. Bada, San Bernardoc diño (in medit. c. 6): Jan-
goicoagan pensatzen eztozula igaroten jatzun dempora guztia, eguizu contu
galdu dozula. Alan diño San Geronimoc bere (ad Eust.): Obetu ta onduten,
ta gauza onen bat eguin бага igaroten jatzun demporea, uste eguizu galdu
dozula. Ezta asco gauza deungueric ez eguitea; ezta asco ez gaistotutea, ez-
160 pada ce ondu bear da, on eguin bear da; ez aurreratutea atzeratutea da, cerren
bitartean, beste calteric ezpada bere, demporea galdu ta probechatu бага iga-
roten da.

Contu eguizu ece orain dozuzala berroquei urte. <124> Eta contu egui-
zu bere ta gogoratu zaite ceimbat obra on eguin dozuzan berroquei urte orre-
etan; ta aurquituco dozu ece, baldin cin-cinez ta gogo oso guztiaz abiatu ta
165 emon izan baciña, berroquei urte orreetan eguin dozuzan eguiquera ta obra
on guztiaz eguin ciñeiquezala urte batean. Bada, orrela galdu dozuz beste
urte guztiaz, berroqueietatic ogueta emeretziaz. Ce contu emongo dozu,
bada, urte aena? Verba alper guztien contua emon bearco bada, cer aimb-
este urte galduena ta alperric emonena? Errazoiiaz diño Jeremias profetac

-
- 12-154 *San Bernardoc diño < erraiten du San Bernardoc (GGero 161); ik. § 5.2.1.1.*
12-155 *igaroten jatzun < iragan çaitçun (GGero 161).*
dempora guztia: leh. demporea, < dembora guztia (GGero 161).
12-156/157 *Obetu ta onduten, ta gauza onen bat eguin бага < Hobetu çarenz sentitu gabe eta cer-
bait ontasun eguin gabe (GGero 161). onduten: ondoan etzarean, ezabatua.*
12-157 *uste eguizu < estima eçaçu (GGero 161); ik. § 5.3.2.*
12-158/159 *ezpada ce < baiña (GGero 162).*
12-159 *on eguin < eta ongui eguin (GGero 162); ik. § 5.3.4.*
12-160/161 *galdu ta probechatu бага igaroten < galtcen eta probetchatu gabe iragaiten (GGero
162); ik. § 5.2.5.*
12-162/163 *Eta contu eguizu bere ta gogoratu zaite < Eta eguiçu halaber contu eta gogoeta (GGe-
ro 162). Eta: ondoan bai ta, ezabatua; ik. § 5.3.4.*
12-163 *ceimbat obra on < cenbat ongui eta obra on (GGero 162).*
12-164 *ece: Añibarroren eransketa, gainean egina.*
*cin-cinez ta gogo oso guztiaz < cin-cinez, fintqui eta debotqui (GGero 162). cin-cinez:
ondoan zucen ta eguiáz, ezabatua; ik. § 5.1.4.*
12-164/165 *abiatu ta emon izan baciña < manaiatu eta emplegatu bacina (GGero 162).*
12-165/166 *eguiquera ta obra on guztiaz < onguia[c], ontasunac eta obra on guztiaz (GGero
162). eguiquera: ondoan on, ezabatua.*
12-166 *eguin ciñeiquezala < eguin cinituzqueyela (GGero 162).*
urte batean < urthe batez (GGero 162); ik. § 5.1.1.12.
Bada, orrela < Beraz, hunelatan (GGero 162); ik. § 5.3.4.
12-167 *berroqueietatic: leh. berroqueitatic, < berrogoietaric (GGero 162); ik. § 5.1.1.4.*
12-168 *bada: gainean erantsia, = GGero 162.*
aena: aurrean aezaz, ezabatua; cf. urthe galdu hetçaz (GGero 162).
guztien contua emon bearco bada < guztiez eman behar da contu (GGero 162).
12-168/169 *cer aimbeste urte galduena ta alperric emonena? < cer içanen da, bada, hanbat dem-
bora galduz eta alfer iraganez? (GGero 162). alperric: gainean, deunguero-ren or-
dez.*
12-169 *Errazoiiaz < Arraçoiñequin (GGero 162); ik. § 5.1.1.11.*

170 (Tren. 1): Deitu eban demporea nire contra. Guc galtzen dogun dempora berac salatuten gaitu, a bera jaguiten da gure contra.

Beste gauza guztiac besterenac dira, baña ez demporea: au gurea da, diño Senecac (Epist. 4). Orain escu artean dogun demporea prestatuten deuscu Jangoicoac, emoten deuscu ta ichiten deuscu gueuretzat. Eta gura dau
 175 provecha gaitecen, eguite onetan emon daguigun ta, alan emonic bere, escatuco jacu contu ta errazoia: baldin meza enzun badogu, ea ondo ta atan pen-
 setan dogula enzun dogunez. Baldin barau eguin badogu, oraciñoan egon ba-
 gara, pobre esquecoari limosna emon badeutsagu (oneec obra onac dira),
 180 gauza guztioen contua escatuco jacu, ea vaneriaz ta eder erechite arren,
 munduagaitic ala Jangoicoagatic, eta gogo onagaz ta bear dan leguez eguin
 doguzanez. Alan dirauscu David profetac Jangoicoaren icenean verbatuten
 dala (Psal. 74): Dempora neure aldetic artzen dodanean, eriotzaco orduan,

-
- 12-170 *demporea nire contra* < *ene contra dembora* (GGero 162). *demporea*: jat. *demporeac* (arg. zuz.); badirudi lehen *dempora* zioela, eta *-ea-* zuzentzerakoan ergatiboa ere oharkabeen erantsi zuela.
- 12-170/171 *Guc galtzen dogun dempora berac* < *Demborac berac*, *guc galtcen dugunac* (GGero 162). *Guc*: aurean *Dempora berac gJ* (*guc?*), ezabatua, hasieran Axularren erara jartzera zihoalako seinale.
- 12-171 *salatuten* < *accusatcen* (GGero 162); ik. § 5.3.2.
- 12-172 *au* < *hura* (GGero 162); ik. § 5.1.2.1.
- 12-173 *diño Senecac* < *dio Senecac* (GGero 162), latinaren ondoan eta euskarazkoaren aurrean.
- escu artean* < *escuen artean* (GGero 162).
- 12-174 *Jangoicoac* < *gueure laungoicoac* (GGero 162).
emoten deuscu: *deuscu* gainean erantsia; aurean hitz irakurgaitz bat dago, ezabatua. Añibarroren eransketa da oro har.
- gueuretzat* < *gueure escuco* (GGero 163); ik. § 5.3.4.
- 12-175 *provecha gaitecen* < *probetcha gaquitçan* (GGero 163); ik. § 5.1.3.2.
eguite < *obra* (GGero 163).
emon... emonic < *emplega... emplegaturic* (GGero 163); ik. § 5.3.2.
- 12-176 *contu ta errazoia* < *contu* (GGero 163); ik. § 5.1.1.5.
- 12-177 *oraciñoan* < *oracinotan* (GGero 163); ik. § 5.1.1.4.
- 12-178 *pobre esquecoari* < *probeari* (GGero 163); ik. § 5.3.1.
dira < *baitira* (GGero 163); ik. § 5.2.10.
- 12-179 *gauza guztioen contua escatuco jacu* < *hautçaz guztioz escatuco çaicu contu* (GGero 163). *guztioen*: leh. *guztien*; testuko agerraldi bakarra da, beti *guztien* darabil eta, baina cf., adib., *guztioentzat* (EL¹ 175, ap. OEH, GUZTIOK, s.v. *guzti*).
vaneriaz ta eder erechite arren < *edergaillu* (GGero 163).
- 12-180 *munduagaitic*: leh. *munduari-edo*, < *munduagatic* (GGero 163).
gogo onagaz < *intencione onez* (GGero 163); ik. § 5.3.2.
ta bear dan leguez < *vanaloriaric gabe* (GGero 163).
- 12-181 *dirauscu* < *erraiten du* (GGero 163); ik. § 5.1.3.7.
David profetac < *propheta Davitec* (GGero 163); ik. § 5.1.1.2.
icenean: aurean *partJ* (*partez?*), ezabatua, < *partez* (GGero 163); ik. § 5.3.2.
- 12-182 *neure aldetic artzen dodanean* < *neuregana deçadanean* (GGero 163).

- ain estu contu artuco dot ece, eguite onac bere ea ondo, men-menean ta bear
 zan leguez eguinac cirianez essaminatu, aracatu, icusi ta juzgatuco dodaz.
 185 Obra onac bere, baldin ondo ta gogo onaz eguiñac ezpadira, gaistotzat emo-
 nic condenatuco ditu Jangoicoac.

4 §.

- Baldin oraingo demporau, orain escuen artean doguna, ondo emoten ez-
 padogu, guerta liteque etorquizunecoa quendu ta ucatutea. Eta, orrez guz-
 190 tiaz, ain da andia gure zoraqueria ta itsutasuna, ece uste dogu lengo dempo-
 rea deunguero emon arren, aurrerocean bere ucatu ez jacula demporea.
 Baldin mercatari batec emongo baleusquio bere semeari diru pilo andi bat,
 maneatu ta emon leguian tratuan ta merquetarintzan; ta alan tratua icasiric,

-
- 12-183 *ain estu < hain herst[u]qui (GGero 163); ik. § 5.1.4.*
contu artuco dot < escatuco naiz contu (GGero 163).
ece < non (GGero 163).
eguite < obra (GGero 163).
men-menean < iustuqui (GGero 163).
- 12-183/184 *bear zan leguez < behar beçala (GGero 163).*
- 12-184 *cirianez < direnz (GGero 163).*
essaminatu, aracatu, icusi ta juzgatuco < examinatuco eta iuzgatuco (GGero 163); ik.
§ 5.3.2. juzgatuco: leh. juzgauco; ik. § 4.3.9.
- 12-185 *ta gogo onaz: gainean erantsia, < eta intencione onez (GGero 163); ik. § 5.3.2.*
- 12-188 *oraingo demporau < presenteco dembora haur (GGero 163); ik. § 5.3.2.*
doguna: leh. dogun au, < duguna (GGero 163).
- 12-188/189 *ondo emoten ezpadogu < emplegatcen ezpadugu ongui (GGero 163); ik. § 5.2.1.1.*
- 12-189 *guerta liteque etorquizunecoa quendu ta ucatutea < peril da edequi daquigun ethor-
 quiçunecoa (GGero 163).*
- 12-190 *ain da andia < haur da (GGero 163).*
zoraqueria ta itsutasuna < erhoqueria edo itsutasuna (GGero 163).
ece uste dogu < uste baitugu (GGero 163).
- 12-190/191 *lengo demporea deunguero emon arren < gueure lehenecoa gaizqui emplegatu guz-
 tiarequin ere (GGero 163); ik. § 5.1.3.1.*
- 12-191 *aurrerocean: cf. aurreroacoac (18-72) eta aurrerocean ezabatua (16-51. oh.). Cf. VB*
aurrerocean (b. g.) “(en lo) sucesivo, en adelante”, forma bakarra, OEH-ak (AU-
RRERAKOAN, s.v. aurre) bestela aditzera ematen badu ere. Hiztegi honek
aurrera(g)oko-tik datorkeela dio, baina azalpen honek ez du balio ganeroco (ik.
2-24. oh.), darroio (ik. 8-36. oh.) eta oraindi(ñ)ocorren (9-79, 47-39) formetarako:
aitzitik, badirudi asimilazioaz mintzatu beharko ginatekeela.
ucatu ez jacula demporea < orobat emanen çaicula dembora (GGero 163-164).
- 12-192 *emongo baleusquio < eman baliço (GGero 164).*
diru pilo andi bat < diru suma bat bere escuco (GGero 164); ik. § 5.3.4.
- 12-193 *maneatu ta emon leguian < manaia leçan, emplega leçan (GGero 164). maneatu ta:*
ta gainean erantsia.
tratuan ta merquetarintzan < tratuan eta mercatalgoan erabil leçan (GGero 164).
merquetarintzan: cf., ordea, mercataritza (55-72, eta VB (c.) “comercio”); hemen-
go forma aguitarintzaren (sic, ik. 20-105. oh.) baino azalgaitzagoa da, ez agian oi-
narriaren aldetik (ik. § 5.3.3): -intza hutsa ez bada, lot liteke VB mercatariquintza

berac berez cerbait <125> irabaci leguian. Eta orduan, seme onec bere aitac
 195 emonico diru guztiac urtucobalitu jocoan, jan-edanean, gaistaquerian ta ar-
 loterian, errazoiacz liteque seme au bildur, ez leusquiola beste bein bere aitac
 diruric emongo, ez fiatucob, ta len emonac bere quendu ez leguiozan. Alan
 bada, errazoiacz gu bere bildur izan bear gara, quendu eztaigun gueure Jan-
 goicoac etorquizunecob demporea, igaroa ain donguero emon ezquero. Alan,
 200 Noe santuaren demporan, eun ta oguei urte bicitecob esqueñi ta promestu
 arren, quendu eutsézan azquenecob ogueiac, lenagocob eun urteac deunguero
 emon cituezala[co] orducob guizonac. Au adierazoten dau Davidec, diñoanean
 (Psal. 54): Guizon gaisto odol-issurleac, guizon iltzalleac, guerraguillac,
 maliciadunac ta engañatzalleac eztituez euren egúnac erdizcatucob, erdibitu-
 205 cob, ezтира beste alacoac ezтиrianen erdia bicicob.

-
- (c.) “mercancía”-rekin (<HH>, -intza-z, -kintza-ren alomorfo larramenditarraz (cf. Urgell 2000), eraturakoa dela eginez.
- 12-194 *berez < bere buruz (GGero 164).
 Eta orduan < Ordea, baldin (GGero 164).
 onec < harc (GGero 164); ik. § 5.1.2.1.*
- 12-194/195 *bere aitac emonico diru guztiac < bere aitaren eman hec guztiac (GGero 164); ik. § 5.1.3.1.*
- 12-195/196 *urtucob balitu... arloterian < iocoan, ian-edanean eta arloterian gasta balitça (GGero 164); ik. § 5.2.1.1.*
- 12-196 *errazoiacz < arraçoñequin (GGero 164).
 liteque < liçateque (GGero 164).
 seme au < seme hura (GGero 164); ik. § 5.1.2.1.*
- 12-196/197 *ez leusquiola beste bein... fiatucob < ez liaçon bere aitac aiticinarat guehiago eman eta ez fida (GGero 164).*
- 12-197 *ta len emonac < eta are lehen emanac (GGero 164).
 quendu ez leguiozan < edequi liatçon (GGero 164); ik. § 5.2.3.*
- 12-198 *errazoiacz < arraçoñequin (GGero 164).
 gu bere bildur izan bear gara < içanen gara gu ere veldur (GGero 164).
 quendu eztaigun < edequi diaçagun (GGero 164); ik. § 5.2.3.*
- 12-199 *donguero: aurrean dongaro, ezabatua.
 emon ezquero < emplegatu dugunaz gueroztic (GGero 164).
 Noe santuaren < Noeren (GGero 164); ik. § 5.4.2.*
- 12-200 *esqueñi ta promestu arren < prometatur guero (GGero 164).*
- 12-201/202 *lenagocob eun urteac deunguero emon cituezala[co] < ceren lehenecob ehunac gaizqui emplegatu baitcituzten (GGero 164).*
- 12-202 *orducob: aurrean gu] (guizonac?), ezabatua; orducob guizonac Añibarroren eransketa da.
 Davidec < erregue Davitec ere (GGero 164).*
- 12-203/204 *odol-issurleac... engañatzalleac < odol-isurle, guerlati, maliciati eta enganatiec (GGero 164).*
- 12-204/205 *erdizcatucob, erdibitucob < erdizcatucob (GGero 164).*
- 12-205 *ezтира... erdia bicicob < ezтира halacoac bertcela bicicob cirenaren erdia bicicob (GGero 164).*

Batzuc euren gazte demporan, odol beroa dauquenean, biciten dira Jan-goicoric, eriotzaric, infernuric, contu emon bearric ezpalego leguez, liberta-de andian, milla becatu, gaistaqueria, engañamendu eguiten dituezala, gorputzari al dituezan atseguñac ta gozarotasunac emoten deutsezala. Baña
 210 guero zartzaroan, odola otzten asten jaquenean, asten dira etorquizunaz gomutetan; ill bear dabela, ilcorrac diriala ta ilte-orduan contu estua emon bearco dabela gogoratu ta oartuten. Eta, andic ara alan euren buruari oartu ezquero, itzulten dabe planea, iruli ta biurtzen dabe orria beste aldera; eta len gaistoac baciran, guero onac, prestuac, zurrac, beguiratuac, contuzcoac ta ardurazcoac eguiten dira. Alangoac *zati bitan erdibituten dituez euren egunac*.
 215 Bada, erdi bata, gaztetasuna, deunguero ta charqui emon baeben bere, beste erdia, zartasuna, ondo azquenduten dabe. Eta au da azquenean ondo erdibitea; gaisto izatea ichiric ona eguitea, San Pablo batec leguez eguitea.

- 12-206 *odol beroa dauquenean* < *odola bero dutenean* (GGero 164).
biciten dira < *bicitcen dira* (GGero 164). Orain artean beti *bici dira* (ik., adib., 1-189, 4-149, 4-185, 9-115 eta 11-296. oh.) aurkitu dugu bizkaieraz.
- 12-207 *infernuric*: Añibarroren eransketa.
contu emon bearric < *edo contu errendatceric* (GGero 164).
ezpalego < *ezpailliz* (GGero 164).
- 12-208 *gaistaqueria* < *malicia eta* (GGero 164).
eguiten dituezala < *eguiten dutela* (GGero 164); ik. § 5.1.2.7.
- 12-209 *al dituezan atseguñac ta gozarotasunac* < *ahal beçanbat placer* (GGero 165). *gozarotasun*: cf. VB *gozorotasun* (c.) “deleite”; bietara agertzen da hemen: ik. 46-73. oh. *deutsezala*: leh. *deutsela*.
- 12-210 *asten dira* < *hasten dira halaber* (GGero 165); ik. § 5.3.4.
- 12-211 *ilcorrac diriala*: Añibarroren eransketa.
ilte-orduan < *hil ondoan* (GGero 165).
- 12-211/212 *contu estua emon bearco dabela* < *contu errendatu behar dutela* (GGero 165). *contu*: leh. *contua*.
- 12-212 *gogoratu ta oartuten* < *ohartcen eta pensatcen* (GGero 165).
euren buruari < *bere buruey* (GGero 165); ik. § 5.1.2.5.
- 12-213 *itzulten dabe... orria beste aldera* < *plama eta orria bertce aldera* (GGero 165). *itzulten*: ik. 8-193/194. oh. *planea*: VB “plana, página: c. *plana, orria*”.
- 12-213/215 *len gaistoac baciran, guero... eguiten dira* < *lehen gaixto beçain eguiten dira guero on eta prestu* (GGero 165); ik. § 5.3.4.
- 12-214 *baciran*: eta ez *cirean* edo *cirian* (ik. § 4.3.10.10); badu forma honek agerraldi gehiago (ik. 16-65/66, 43-271 eta 47-47; *diran*-ez ik. 16-46. oh.).
- 12-215 *zati bitan erdibituten dituez euren egunac* < *dimidiant dies suos, bere egunac erdizcatceintuzte, bi erdi eguiteintuzte* (GGero 165).
- 12-216 *deunguero ta charqui* < *gaizqui* (GGero 165). *charqui*: VB (c.) “mal, malamente”.
emon < *emplegatu* (GGero 165).
- 12-217 *azquenduten dabe* < *accabatu baitçuten* (GGero 165).
azquenean < *azquenecotz* (GGero 165).
- 12-218 *gaisto izatea ichiric ona eguitea* < *gaixtoa utciric onaren hartcea* (GGero 165); ik. § 5.3.4.

220 Baña, barriz, beste batzuc gaztetasunean dira onac, prestuac, <126> debotoac, vertutera emonac, eta zartzean gaistoac, oquerrac, dongueac. Asitean on ta acabatzean gaisto, Judas izan zan leguez. Onelacoac erdibituten dituez euren egunac, zati ta erdi bi eguiten dituez. Bada, zartasunean gai[s]toac badira bere, gazte demporan onac izan cirian. Baña au da deungaro ta char-to egunac erdizcatutea, cerren onetic gaistora aldatuten dira. Eta aimbatic
225 aimbatean, deungago ta pelligruzcoago da zartzaroan gaisto izatea, gaztetasunean baño.

Baña, azquenez, beste batzuc eztituez iños erdibituten euren egunac. Bada, alan zarreran celan gaztetan dagoz buruz sarturic gaistaquerian ta becatuan. Eta, alacoac dacusenean euren egunac laburtuaz ta acabatuaz doazala, eriotzea urtu ta elduten jaquela, contua emon bear dabela: orduan, celan
230 igaroaz contu charra emon daben, eztira comunqui enzunac izango; ez jaque euren verbai sinisteric emongo, ezta euren esanetan iñor fiatuco. Alan esan eban angueru batec onelacoacaz verba eguiten ebala, etzala izango gueiago demporaric, acabatuco ciriala gueroco guero guztiac (Apocal. 10).

- 12-219/220 *onac, prestuac, debotoac, vertutera emonac < on, prestu eta debocinotsu (GGero 165).*
 12-220 *gaistoac, oquerrac, dongueac < gaixto eta maliciatsu (GGero 165).*
 12-221 *Onelacoac < Halacoec (GGero 165); ik. § 5.1.2.1.*
 12-222 *zati ta erdi bi < erdi bi (GGero 165).*
 12-222/223 *gai[s]toac badira < gaixto badira (GGero 165).*
 12-223 *gazte demporan < gaztean (GGero 165).*
onac < on (GGero 165).
au da: da gaínean erantsia; < hura da (GGero 165).
deungaro ta: leh. deungago da; cf. gaizqui eta gaixtoqui (GGero 165).
 12-224/225 *aimbatic aimbatean < hanbatic hanbatean (GGero 165); ik. § 5.3.3.*
 12-227 *azquenez < finean berriz (GGero 165).*
iños: gaínean erantsia, < nehoiz ere (GGero 166).
 12-228 *zarreran celan gaztetan < çahartcean nola gaztean (GGero 165); ik. § 5.1.1.4.*
 12-228/229 *dagoz buruz sarturic... becatuan < arront baitira bat, bethiere baitira maliciatz eta gaixtaqueriaz orobat (GGero 166).*
 12-229 *dacusenean < iccusten dutenean (GGero 166); ik. § 5.1.3.7.*
 12-229/230 *laburtuaz ta acabatuaz doazala < laburtu hurran çaitzela (GGero 166); ik. § 5.3.4.*
 12-230 *eriotzea urtu ta elduten jaquela < heriotcera hurbiltcen direla (GGero 166).*
contua emon < contu eman (GGero 166); ik. § 5.1.1.5.
orduan: beharbada Orduan-etik Ordea-ra oharkabean igaroaz, Añibarrok perpaus oso bat jan du: Orduan, pagatçaille gaixtoec eguiten dutena, escatuco dira epepe eta luçamendu gueiago. Ordea... (GGero 166).
 12-231 *emon daben < eman baituquete (GGero 166).*
comunqui: Añibarroren eransketa.
 12-232 *euren verbai < hequen promesey (GGero 166).*
euren < hequen (GGero 166); ik. § 5.1.2.4.
iñor fiatuco < nehor guehiago fidatuco (GGero 166).
 12-233 *angueru batec < ainguiruac ere (GGero 166).*
onelacoacaz verba eguiten ebala < gainecoaz cin eguinic (GGero 166). Esan gabe doa itzuliak eta itzulpenak ez dutela zerikusirik, eta agian cin eguin ez ulertzeagatik izan daiteke (ik. 19-51. oh.).

- 235 Eguin ta asmatu guiñeiz milla gogoeta, itzul-inguru, iguesbide ta asmo; baña, guero ta guero bere, ecin igues eguin guiñeiquian ordura, demporara ta puntura eldu ta bildu bearco gara. San Gregorioc dacar onetaraco jazoera edo guertaldi bat, eta diño (Hom. 12. sup. Evang. et 4. dialog. c. 38) Cris-orio cerichan guizon gaisto batec bere azqueneco orduan cegoala, munduan
- 240 eguin al cirian erregu ta escariac eguiñagaitic, ecin erdetsi ebala biaramone-co lucemendua. Estutu ta larritu zanean, gura eban apur bat lucetu; gura eban biaramonaguiñoco dempora irabaci; verba eder asco aotic atera cituan; promes, esquentza ta dedar asco eguiten cituan; ascotan egun bateco epea ta astia escatuten eban. Baña guztia alperric. Dedarrez, oioz ta promesetan cegoala, bere egunac acabatu cituzan, arimac urten eutsan, ta betico ondatu zan Infernuan.
- 245

<127>

- 12-235 *Eguin ta asmatu guiñeiz < Eguin ahal deçaquegu (GGero 166). milla gogoeta, itzul-inguru, iguesbide ta asmo < nahi beçanbat edo ahal beçanbat enseiu eta itçul-inguru (GGero 166).*
- 12-236 *guero ta guero bere < azquenean ere (GGero 166); cf. VB guero ta guero bere (c.) “(al fin de, al acabar de”. ecin igues eguin guiñeiquian < eçin ihesic daidiquegun (GGero 166). guiñeiquian: ik. 15-17. oh.*
- 12-236/237 *ordura, demporara ta puntura < demborara eta pontura (GGero 166). ordura: leh. ordurara. demporara: jat. bemporara (arg. zuz.).*
- 12-237 *eldu ta bildu bearco gara < herstu eta vildu beharco dugu (GGero 166). Lehen begiratuan bestela badirudi ere, herstu ongi itzulita dago: cf. Villasanteren oharra (1976: 184, 63. oh.), AxH-n gaizki itzuli zuela aitortuaz. Halaz ere, OEH-ak (s.v. herstu 2), ‘instar, empujar a; obligar, compeler’ adiera iragankorraren barruan kokatu du adibidea, beharbada dugu-k engainatuta.*
- 12-237/238 *San Gregorioc dacar... eta diño < Hala contatcen du San Gregorioc, ecen (GGero 166).*
- 12-239 *azqueneco orduan cegoala < azquen orenera cenean (GGero 166).*
- 12-240 *eguin al cirian < eguin ahal citçan (GGero 166). eguin: aurrean cirian, ezabatua. erregu ta escariac < othoitz guztic (GGero 166).*
- 12-241 *Estutu ta larritu < Herstu (GGero 167). gura eban < nahi çuqueyen (GGero 167).*
- 12-242 *biaramonaguiñoco < biharamun arteraiñoco (GGero 167). atera cituan < athera çuen (GGero 167).*
- 12-242/243 *promes, esquentza ta dedar asco < anhitç othoitz eta oihu (GGero 167).*
- 12-243 *eguiten cituan < eguin çuen (GGero 167). egun bateco < egun baten (GGero 167); ik. § 5.1.1.8.*
- 12-243/244 *epea ta astia < tregoaren, epearean eta espatioaren (GGero 167).*
- 12-244 *escatuten eban < escatu cen (GGero 167). Dedarrez, oioz ta promesetan < Oihuz eta othoitçez (GGero 167). oioz: cf. halaber oioac (53-120) eta VB oioa (c.) “grito”.*
- 12-245 *acabatu cituzan < accabatu ceitçan [sic] (GGero 167) < ceitçan (Gero 167). arimac urten eutsan < arimac eguin ceraucan (GGero 167).*
- 12-245/246 *ondatu zan Infernuan < condenatu cen (GGero 167).*

5 §.

Bada onela, bapere cenzunic badogu, ezcara guerotic guerora ibilli bear;
 250 eztoigu aurreracoan demporaric galdu bear. Lenago bai, len galdu doguna
 bear dogu orain irabaci, obratu ta sendatu. Baña, celan edo ce moldez ira-
 baci ta obratu al liteque? Bada joana joan da; igarua igaro da; ezta aren biur-
 tzeric, ta ez escuratuteric. Erantzuten dau San Gregorioc verba guichitan ta
 255 bicitza gaisto igarua, barrea ta pozcaria charretan galdu dogua, negarrez,
 neque ta penitencia eguiazcoacaz erosi, obratu ta irabazten doguean. Esan
 gura dau: Dempora igarua, deunguero emon guenduena, escu artetic joan ja-
 cuna erdetsiten dogu, orduco atseguintasunen ordean, orain neque-pena bi-
 bidertuac artuten doguzanean. Orduan eguin bear guenduzan eguite onac eta
 260 orain eguin bear doguzanac orainche eguiten doguzanean. Au berau da San-
 to Tomasec bere, satisfaciñoaren ganean verba eguiten dabela, dirauscuna
 (in addit. q. 15. a. 1. ad 4): Guizonac dempora igarua ecin osotu ta obratu

- 12-249 *Bada onela < Beraz hunelatan (GGero 167); ik. § 5.3.4.*
cenzunic < sentimenduric (GGero 167).
ezcara... ibilli bear < eztugu... ibili behar (GGero 167); ik. § 5.2.1.2.
- 12-250 *demporaric < guehiago demboraric (GGero 167).*
Lenago bai < Aitcitic (GGero 167).
- 12-251 *irabaci, obratu ta sendatu < obratu eta erremediatu (GGero 167); ik. § 5.3.4.*
 12-251/252 *irabaci ta obratu al liteque < erremedia ahal diteque eta obrera (GGero 167).*
 12-252 *igarua igaro da: Añibarroren eransketa.*
 12-252/253 *aren biurteric = GGero 167; ik. § 5.2.2.*
 12-253 *verba guichitan < hitz gutiz (GGero 167); ik. § 5.1.1.12.*
 12-254 *laburqui < laburzqui (GGero 167).*
erosi ta gueuretuten da < rescatatcen eta gueuretacotcen dugu (GGero 167).
*nos eta: perpausa irabazten doguean-ekin amaitzen da (ik. § 5.2.9), < noiz eta... bai-
 tugu (GGero 167).*
- 12-255 *pozcaria charretan < placerez (GGero 167). pozcaria: ik. § 5.1.1.1. charretan: aurre-
 an ga] (gaistoetan?).*
galdu dogua < galdu guenduena (GGero 167).
- 12-255/256 *negarrez, neque ta penitencia eguiazcoacaz < nigarrez eta desplacer (GGero 167).*
 12-256 *erosi, obratu ta irabazten < obratcen eta erreparatcen (GGero 167); ik. § 5.3.4.*
 12-257 *emon: leh. emona, < emplegatu (GGero 167).*
escu artetic < escuetaric (GGero 168).
- 12-258 *atseguintasunen ordean < placeren ordain (GGero 168).*
neque-pena < desplacer (GGero 168).
- 12-258/259 *bidertuac < dobleac (GGero 168).*
 12-259 *eguite onac < onguiac (GGero 168); ik. § 5.3.4.*
 12-260 *orainche: leh. orain, < orai (GGero 168).*
Au berau da < Haur da (GGero 168).
- 12-261 *satisfaciñoaren ganean < satisfacioneaz (GGero 168).*
dirauscuna < erraiten duena (GGero 168); ik. § 5.1.3.7.
- 12-262/263 *ecin osotu ta obratu badau bere < ecin obrera badeaque ere, eta ez bihur (GGero
 168).*

- badau bere, baña orrez guztiaz erremediatu lei, lenagoco utsac ta len eguin
 bear cituan gauza onac eguiten dituzala etorquizunean. Baldin len meza bat
 265 enzun bear cendu[a]lla, ichi bacenduan, confesatu uts eguite ori, ta guero
 etorquizunean bi enzun. Baldin lengo dempora igaroan egun baten barau
 eguin bear bacenduan ta ecenduan eguin, lenic confesatu becatu ori, ta etor-
 quizunean barau bi atera. Onela dempora igaroa donguero emona erosi, erre-
 mediatu, quitutu, ordetu ta irabazten dozu nolabait edo moduren baten.
- 270 Ordu bico bidea igaroteco dozunean, ta ordu atatic bata alperquerian,
 jan-edanean ta arloterian igaro dozunean, ce bitarteco ceure bidea demporaz,
 ilundu, berandutu ta gaubetu baga azquenduteco? Jazo jatzun utsa bete ta es-
 talduteco? Cer? Guelditzen jatzun ordu atan ain cinez, gogoz, eguiatz ta biz-
 cor lastertu ta abiatuten zara non, ordu bico bidea, baten eguiten dozu; ta
 275 onela bete ta estalduten dozu lengo utseguitea ta alperqueria. Bada onetara

-
- 12-263 *baña orrez guztiaz < ordea (GGero 168).*
- 12-263/264 *erremediatu lei... eguiten dituzala etorquizunean < erremedia deçaque, iraganeco fal-
 ta, iraganean eguin behar çuen onguia eguiten duela ethorquičunean (GGero 168).
 Axularren puntuazioak nahasi du Añibarro: erremediatu leiz lenagoco utsac behar-
 ko luke.*
- 12-264 *len < iraganean (GGero 168).*
- 12-265 *enzun bear cendu[a]lla, ichi bacenduan < ençun behar bacenduen, eta ez hura ençun
 (GGero 168). cendu[a]lla: cf. cenduala (17-57, 27-90), eta ugariago cenduan (0-
 119, 6-9, etab., eta hemen bertan, hala nola 12-267n bi aldiz ere).
 uts eguite ori < hartaco beccatua (GGero 168).*
- 12-266 *bi enzun < dobla, ençun bia (GGero 168).
 lengo dempora igaroan < iraganean (GGero 168).
 egun baten < egun batez (GGero 168).*
- 12-267 *ta ecenduan eguin < eta ez baru[r]tu (GGero 168). ecenduan: sic, cf. etzenduan (10-
 49), besteak beste.
 becatu ori < hartaco beccatua (GGero 168).*
- 12-267/268 *etorquizunean < guero ethorquičunean (GGero 168).*
- 12-268 *barau bi atera < dobla, barur bi egunez (GGero 168).
 dempora igaroa donguero emona < dembora iragan gaizqui empletatua (GGero
 168); ik. § 5.1.3.1.*
- 12-268/269 *erosi... moduren baten < eguin ahal ditequeyen moldean rescatatcen, coberatcen eta
 erremediatcen da (GGero 168). dozu: gainean erantsia.*
- 12-270 *Ordu bico bidea < Bi orenen bidea (GGero 168); ik. § 5.1.1.8.*
- 12-271 *ce bitarteco < cer erremedio (GGero 168).*
- 12-272 *ilundu, berandutu ta gaubetu baga < ilundu gabe (GGero 168). ilundu: aurean ta,
 ezabatua. berandutu: gainean erantsia. gaubetu: cf. VB gautu (c.) "anohecer".
 azquenduteco: aurean elduteco, ezabatua, < erdiesteco (GGero 168).*
- 12-272/273 *utsa bete ta estalduteco < faltaren estalceco (GGero 168). bete: leh. beteteco.*
- 12-273/274 *cinez, gogoz, eguiatz ta bizcor < cinez eta laster (GGero 168).*
- 12-274 *lastertu ta abiatuten zara < abiatcen çara (GGero 168).
 ordu bico bidea < bi orenen bidea (GGero 168); ik. § 5.1.1.8.
 baten < batez (GGero 168); ik. § 5.1.1.12.*
- 12-275 *onela < halatan (GGero 169); ik. § 5.1.2.1.
 bete ta estalduten dozu < erremediatcen eta estaltcen (GGero 169).*

- <128> guc bere gure dempora, orainguiño alpe[r]querian ta gaistaquerian deunguero emon doguna, orain ontasunean bibiderturic ta laster eguiñaz bear dogu cobratu ta erdetsi. Alan esaten da ardiac bere, arrats aldean arinago ta lasterrago janez bere goxeco guichi jana erremedietan dabela. Orregaitic, mastiaren jabeac bere, arratsaldean bear eguiten asi cirian languillai ta achurlariai emon eutsen aibat aloguera ta bear-sari, cein goxetic bear eguin ebenai. Cerren arrats aldean asi cirianac ain ciñez ta gogotic emon cirian escu bearrera ta lanera, ece oneec dempora guichian besteac ascoan laimbeste lan eguin eben.
- 280
- 285 Bada, au berau eguin bear dogu guc bere orain arrats aldean, zartzaroan, gueure egunoc acabetara doazanean. Orain badacusgu ia adinara ta urte andietara sartuaz, zartzeaz goazala, eriotzaco portura urtuten gareala, emengoaz eguiteco urrean gabiltzala. Orain bada, orain estutu bear gara, orain bear deutsegu escuai eraguin. Orain bacochari berea biurtu, orain arerioaz baquetu, adisquidatu ta verba eguin. Orain vicitza barri on bat asi, eci gueure griña gaistoac, jarraitu Ceruco videari, maitetu vertutea ta zaletu Jangoicoa-
- 290

-
- lengo < ceure leheneco (GGero 169).
utseguitea < falta (GGero 169).
onetara < molde hunetan berean (GGero 169).
- 12-276 guc bere gure < guc ere gueure (GGero 169); ik. § 5.1.2.4.
orainguiño < humeraiñoocoan (GGero 169).
- 12-277 emon: leh. emona, < emplegatu (GGero 169).
bibiderturic ta laster eguiñaz < doblatuz eta laster eguinez (GGero 169); ik. § 5.5.1.
- 12-278/279 arinago ta lasterrago < fitetzago (GGero 169).
12-279 erremedietan dabela < erdiesten duela (GGero 169).
12-279/280 Orregaitic < Halatan (GGero 169); ik. § 5.1.2.1.
- 12-280/281 asi cirian languillai ta achurlariai < hasi cireney (GGero 169).
12-281 aibat... cein < hanbat... nola (GGero 169).
aloguera ta bear-sari < iornal ta alacairu [sic] (GGero 169) < alocairu (Gero 169).
- 12-282/283 emon cirian escu bearrera ta lanera < hariçan ciren (GGero 169); ik. § 5.3.4.
12-283 ece < non (GGero 169).
dempora guichian < dembora gutiz (GGero 169); ik. § 5.1.1.12.
- 12-283/284 besteac ascoan laimbeste lan eguin eben < bertceac anhitzez beçanbat eguin baitçuten (GGero 169). ascoan: ik. § 5.1.1.4.
- 12-285/286 arrats aldean, zartzaroan, gueure egunoc acabetara doazanean < arrats aldeon, çahartceon, gueure egunon accabatceon (GGero 169).
12-286 badacusgu < baitacusagu ecen (GGero 169).
- 12-286/287 ia adinara ta urte andietara sartuaz, zartzeaz goazala < ia adinaren arauaz (GGero 169). adinara: ik. § 5.1.1.1. sartuaz, zartzeaz: ik. § 5.2.15.
- 12-287/288 emengoaz eguiteco urrean gabiltzala < hemengoaz eguin hurran dugula (GGero 169); ik. § 5.3.4.
- 12-288 orain estutu bear gara < orai behar dugu permatu (GGero 169).
12-289 bacochari berea < nori berea (GGero 169).
biurtu < errenda (GGero 169).
- 12-289/290 arerioaz baquetu, adisquidatu ta verba eguin < etsaigoatic iltqui (GGero 169).
12-290/292 Orain vicitza... Jangoicoaren gauçetara: Añibarroren eransketa.

ren gaucetara. Orain etorquizunean, guerocean pensatu. Orain eguia guztiaz, biotzezco damu benetaco bategaz ta gueiago becuric ez eguiteco borondate irme sendo bategaz, lenagotic conciencia ondo essaminaturic, arguiro, 295 osoro ta eguiaz confesatu; confesatu ezquero, aldeguin becatuzco ocasiñoe-tatic, lagun charretatic; ta proposituaz ez gueiago aetara biurtu. Onela, dem-pora igaroa, ain gauza estimagarri ta balio andicoa, guerotic guerora ibilte-az galdu doguna, al dan ondoen erremediatu, cobratu, erosi ta irabacico dogu.

-
- 12-292 *etorquizunean, guerocean pensatu < etorquizunean pensa (GGero 169). eguia guztiaz < cin-cinez (GGero 169).*
- 12-293 *damu benetaco < urriquemendu (GGero 169). becuric: Añibarroren eransketa.*
- 12-293/294 *borondate irme sendo bategaz < vorondatearequin (GGero 169). borondate: leh. v-. 12-294* *essaminaturic < iratioric eta examinaturic (GGero 169).*
- 12-294/295 *arguiro, osoro ta eguiaz < osoqui eta eguiazqui (GGero 169).*
- 12-295 *confesatu ezquero < coffesatu ondoan (GGero 169).*
- 12-295/296 *aldeguin becatuzco ocasiñoe-tatic < leheneco occasinoetaric aparta (GGero 169-170); ik. § 5.2.1.*
- 12-296 *lagun charretatic: Añibarroren eransketa. ta proposituaz ez gueiago aetara biurtu < ez guehiago hetara, eta ez bertce halacoe-tara itçul (GGero 170). proposituaz: gainean erantsia, propontuaz ere irakur daite-keen moduan; irakurketa zuzena —dudagabekoa, orain nik uste— Urquijori (1925: 364) zor zaio. Onela < Halatan (GGero 170); ik. § 5.1.2.1.*
- 12-297 *estimagarri ta balio andicoa < handia eta valiosa (GGero 170).*
- 12-298 *al dan ondoen < erremedia ahal ditequeyen moldean (GGero 170). erremediatu, cobratu, erosi ta irabacico < erremediatuco, coberatuco eta erdietsico (GGero 170). erosi: gainean erantsia.*

13. BURUA

Gaztetic zartasunera penitencia lucetuten dabenaz.

1 §.

- 5 Espiritu Santuac diño (Eccl. 12): Gomutatu zaite, acorda zaite ceure
Jaungoicoaz gazte demporan, zartzaroco atsecaba ta nequeetara eldu baño
len, ceintzuec gaitic datozanean esango dozu: Eztira nire gogoraco, <129>
eztira nire gustucoac, eztira gai prestu. Gazte zarean artean, aala, indarra,
osasuna dozun artean bear eguizu, orduan zaquioz lanari. Cerren, zartu ez-
quero, zartasunac berac emongo deutsu eguitecoric asco.
- 10 Aibat aimbatean, ederragoac dira Jangoicoarentzat gaztetasuneco
eguite onac, zartzarocoac baño. Cergaitic ce gaztetasunecoac berez obeac ta
ederragoac dira. Aguiduten eban Jangoicoac Legue zarrean frutu guztietaric
emon ta esqueñi leguiola primicia len-jaioa edo sortua; guztietatic parte
bat, eta parteric onena, principalena, estimatuena, celan oi dan comunqui le-
15 nengoa. Jangoicoac berac aguiduten eban usoetaric, ez uso aciac, andiac,
zarrac, ezipada usacumeac ecarri leguioezala. Gazteac gura cituan, ta ez za-

-
- 13-5 *Jaungoicoaz*: cf. halaber 16-117, maizenik erabiltzen duen *Jangoicoa*-ren ordez.
13-6 *ceintzuec*: gainean, *ceñeac*-en ordez; < *ceñen gatic* (GGero 170).
nire gogoraco < *ene gogaraco* (GGero 170); honen azalpen modura erantsi du hurren
datorrena: *eztira nire gustucoac, eztira gai prestu* (ik. § 5.3.3).
13-7 *artean*: leh. *bitartean*.
13-10 *Aibat aimbatean* < *Hanbatic hanbatean* (GGero 170); esapidea honela itxuraldatu
duen aldi bakarra (ik. § 5.3.3), ziurrenik oharkabea.
13-11 *eguite onac*: leh. *eguiteac*, < *obra onac* (GGero 170).
13-13 *emon ta esqueñi leguiola*: gainean erantsia, < *eman ciatotela* (GGero 171).
primicia len-jaioa edo sortua < *primicia* (GGero 171). *lehen-jaio* eta *lehensortu* tra-
dizioz seme-alabei dagozkie: cf. *VB len jaioa* "primogénito" eta ik. *OEH*, s.vv.
13-16 *ecarri leguioezala* < *eccar ciatotela* (GGero 171).

rrac. Cerren usoac, ceimbat gazteago aimbat bigunago, samurrago, obeago, gozoago. Onela bada dira gaztetasuneco obra onac bere, zartasunecoac baño
 20 gaiagoac, estimagarriagoac, obeagoac, valiosagoac. Eta alan da gure Jangoicoa bere aezaz guticiago, naiago, zaleago. Alan diño Miqueas profetaren zazpigarren buruan (Miche. cap. 7): Gox eldu ta onduten dirian icoac gura cituan nire arimeac. Presona gazteen lenengo eguite onac gura nituzque, aetaric nas zale ta gura, aec eguiten jataz on ta gozo.

Agaitic da teologoen esana, guizona adimentura elduten danean, ordu be-
 25 rean dagoala bearturic biotza Jangoicoaga[na] jasotera, aren aguindu santuac gordetera, gogoan artzera, fede, esperanza ta caridadeco eguicaiac eguitera; eta errazoi naturalac ta argui berezcoac eracusten deutesen erara bicitera.

Pintatzalle batec eguingo baleu imagiña eder bat, alde guztiz galanta, po-
 30 lita ta apaindua; imagiña onec, baldin ezaguera ta adimenturic baleu, nori lenic beguiratu bear ete leusquio? Seguru da pintatzalleari berari, bere eguilleari. Bada onela, guizonac bere, Jangoicoac berac bere imagiñara, antzera, irudira ain ederto eguiña dan ezquero, adimentura, adinara, ezagueraren murgara elduten danean, orduan bertati bere Eguilleari berari, izatea emon deutesenari beguiratu bear deutso, aren servicioan, aren esanac ta aguinduac gor-
 35 detera emon bear da bereala. Onegatic ciñoan San Pabloc (2 Timot. 2): Errazoi da, ondo icusia ta eguiña da, bear eguiten daben languilleac, berac lenen bere frutuetic probatu ta jatea. <130> Eta San Pablo berac diñoanez

-
- 13-19 *gaiagoac*: leh. *gaiago*, < *gaiago* (GGero 171).
valiosagoac < *valiosago* (GGero 171). Iparraldeko forma hemen bakarrik itzuri zaio; gainerantzean *balioso* (15-69 eta 15-265), *balio andico* (12-297) eta batez ere *baliosu* (12-74, 12-77, 12-81/82, etab.) erabiltzen ditu.
- 13-19/20 *Eta alan da... aezaz guticiago, naiago, zaleago* < *Eta halatan da gure Iaincoa ere hetic guticiosago, desirosago eta çaleago* (GGero 171). *aezaz*: hurrengo agerraldian (ik. 13-22/23. oh.) adizlaguna zegoen-zegoenean utzi du. *guticiago*: leh. *guticiagoa*.
naiago: leh. *naiagoa*.
- 13-22/23 *aetaric nas zale ta gura* = GGero 171.
- 13-23 *on ta: ta* gainean erantsia; cf. *on, goço eta ezti* (GGero 171).
- 13-26 *gordetera, gogoan artzera* < *compliteco gogo hartcera* (GGero 171). *gordetera*: leh. *gordeteco*. *gogoan artzera*: gainean erantsia.
fede, esperanza ta caridadeco eguicaiac eguitera: Añibarroren eransketa.
- 13-28 *alde guztiz* = GGero 171; ik. § 5.3.3.
- 13-29 *adimenturic*: leh. *adimentua*; cf. *baldin eçagutçaric balu* (GGero 172).
- 13-32 *adinara*: ik. § 5.1.1.1.
- 13-33 *bertati*: leh. *bertatic*.
- 13-34/35 *aren esanac ta aguinduac gordetera*: Añibarroren eransketa.
- 13-36 *Errazoi da* < *Arraçoin da* (GGero 172); eta berriz *Errazoia izango da* (13-39) < *Arraçoin içanen da* (*ibid.*).
ondo icusia ta eguiña da: Añibarroren eransketa.
languilleac < *laborariac* (GGero 172); ik. § 5.3.4.

(1 Corint. 3): Zuec záre ta gu gara Jangoicoaren lur-lana, apaindua ta landua. Errazoia izango da, bada, Jangoicoac berac, languilla ta bearguilla ona le-
 40 guez, bere lan-bearra lenic proba daguien; eta adimentura edo errazoiaren arguira elduten garean ordu atatic, gure eguite on guztien primicia ta lenen-
 goa probatu daguien.

Baña ai, ai, ai, ta millatan ai! Nor da bere lenengo fruetaric, bere egui-
 teen asieratic Jangoicoari gustatu eraguiten deutsenic? Non da cristiñau gox-
 45 tarric? Goxetic ondu, umatu ta elduten danic? Gaztedanic Jangoicoa serbi-
 tzen dabenic? Ai ene erruquitasuna (diño Miqueas profetac), cerren ni eldu
 nas ude-azquenean, besteac batu ta bildu ezquero, mats ondar-mondac ta on-
 daquin emparaubac billa dabillena leguez. Onenac bestec eroan ta jan ditu.
 Ezteuste mats-morda bat bere, ez eta garau bacar bat bere aora eroan nei-
 50 quenic ichi. Bada, auxe berberau esan lei gure Jangoico onac bere. Cerren
 gure gaztetasuna bestec daroa; lenengo obrac bestec bilduten ditu. Ecer
 guelditzen baiaco bere, bill-ondoac, ondarrac, azquenac, emparatuac, onda-
 quiñac, guerorengoac, zartasunecoac gueldituten jacaz. Eta deungago dana,
 oneetatic bere charrenac, ustelenac.

- 13-38 *záre*: leh. *zára*; ik. 8-237. oh.
lur-lana: aurrean *lan*], ezabatua; cf. *lur-landua*, *appaindua eta travaillatua* (GGero 172).
- 13-39 *languilla ta bearguilla* < *laborari* (GGero 172). *ta bearguilla*: gainean erantsia.
- 13-42 *probatu*: -tu hitz artean erantsia dagoela dirudi; cf. *dasta deçan* (GGero 172).
- 13-44/45 *goxtarric* < *goiztiarric* (GGero 172).
- 13-45 *umatu*: gainean erantsia.
- 13-46 *Ai ene erruquitasuna* < *Ai ene urricalquiçuna* (GGero 173).
eldu: gainean, *eguin*-en ordez (= GGero 173), baina hau ezabatu gabe.
- 13-47 *ude-azquenean* < *udaren finean* (GGero 173).
- 13-47/48 *ondar-mondac ta ondaquin emparaubac* < *hondar-mondarren* (GGero 173).
- 13-49 *mats-morda* < *morcoxta* (GGero 173).
ez eta: *eta* gainean erantsia, < *eta ez* (GGero 173); ik. § 5.2.6.
- 13-51 *daroa*: aurrean *eroaten*, ezabatua, < *ioaiten du* (GGero 173).
- 13-52 *baiaco*: ezohiko idazkera; cf. *bajaco* (17-115, 35-97, 35-98, 54-54), *bajacon* (39-13),
bajacan (1-213), *bajacuz* (56-100), etab.
bill-ondoac < *bil ondoac* (GGero 173).
emparatuac: cf. *emparaubac* lehentxeago (13-48); halere, liburu honetan bederen *em-
 parauac* da erabiliena (ik. 1-19/20, 7-113/114 eta 20-230), *OEH*-ak (s.v. 2 *enpara-
 tu* 2) Añibarroengan *emparaduac* (EL² 217) soilik aurkitu badu ere.
- 13-53 *guerorengoac*: ik. 23-37. oh.
- 13-53/54 *Eta deungago dana, oneetatic bere charrenac, ustelenac* < *Eta gaixtoeneco contuan,
 aillequitça hec ere, edo hec bedere gueldi* (GGero 173). *dana*: -na gero erantsia dela
 dirudi.

Dirudi ece desonra lotsagarritzat dauquela oraingo gente gazteac ondo bicitea, becuric eguin бага egotea. Euren eguin-bidea, Jangoicoari zor deutsen serbitasuna, gueroco, zartasuneraco larga ta ichiten dabe, esanic: E, oraindiño ezta ilteco pelligruric, sendo nago, osasuna dot, gaztea nas; eta gaztea, gazte antzu; gaztea leguez bici ta gobernatu bear dau. Cer esango leuque munduac, ta mundutarrac eurac bere, baldin orainganich ichi ta agur eguingo baneusquio? Or elduco da zartzarora, dempora gueldia, umoa, zoraqueriac ichiteco. Orduan bai, orduan onduco nas; orduan munduari atzea emongo deusat ta debociñoan sartuco nas. Baña ordura artean, dibertitu nadin, poztu nadin, atseguin artu daguidan, munduari jarraitu daguiodan, naquion gogotic, goza daguidan, <131> barriz beragana biurtzeco gogoric eztauquen bat leguez; ase, bete, aspertu nadin, quen orric pensamentu triste, ilun, itsal, gogaicariac; gueldi zaitete beste dempora bateraco. Au da oraingo presona gazteen gogo ta asmoa; eta au da bicitza guztian gazte izatea, ero zoro utsa izatea; ta azquenean, azquen charra euquiteco pelligruan, arriscuan ta zorian ifintea.

Baldin baceunco esperanza ta segurutasunic, emendic urte bete barru erdetsico cenduquezala jaun andi bateganic ondasun, aberastasun, cargu ta errenta andiac: ez liteque zoraqueria andia bitartean, orduguñoco demporan, jaun onen contra ibiltea? Bada au baño andiago da zuc eguiten dozun eroqueria. Bada, zuc gura dozu emetic urte bete barru edo gueroago, ceure zartasunean ondu, obetu; zuc gura dozu orduan Jangoicoaz adisquidetu ta

- 13-58 *serbitasuna*: gainean, *serbitzua*-ren ordez, < *cerbitçua* (GGero 173).
 13-59 *osasuna dot*: Añibarroren eransketa, gainean egina.
 13-60 *gazte antzu* = GGero 173.
 13-61 *munduac, ta mundutarrac eurac bere* < *munduac berac ere* (GGero 173).
 13-62 *elduco da* < *heldu da* 'dator' (GGero 173); ik. § 5.3.4.
 13-66 *barriz*: bukaera iluna, *barriro* ere izan liteke; argi dirudi bietako bat bestearen ordez jarri nahi izan duela, < *berriz* (GGero 174). Urquijok (1926: 24) *barrite* irakurketa ezinezkoa demaigu.
 13-66/67 *beragana biurtzeco gogoric eztauquen bat leguez* < *bihurtceco desiraric eztauquedan beçala* (GGero 174).
 13-67/68 *quen orric pensamentu triste... beste dempora bateraco*: Añibarroren eransketa. *orric*: itzulpeneko agerraldi bakarra; cf. *ortic* (0-156, 5-48, 15-314, 16-218, etab.). *gogaicariac*: -ac bukaera ez da ondo irakurtzen, txiki-txiki erantsi baitu. *gueldi zaitete*: aditzoina, Axularren eraginpean ez egon arren (ik. § 5.1.3.2).
 13-69 *au da bicitza guztian gazte izatea* < *haur da adinean beçala, gaiñeracoan ere gazte içaitea* (GGero 174).
 13-69/70 *ero zoro utsa izatea*: Añibarroren eransketa.
 13-70 *arriscuan*: gainean erantsia.
 13-73 *bateganic*: leh. *baten ganic* (= GGero 174).
 13-76 *emetic*: ondoan *aurrera*, ezabatua; cf. *hemendic urthe baten buruan* (GGero 174).

80 aganic esquer mesedeac erdetsi; eta alambere, bitartean, orduguiño[co] dempora guztian, ceure gaztetasunean, Jangoicoaren contra zabiltz, agaz arerioturic zagoz, ta arerioa leguez bidebague asco, naibague ta iraina asco eguiten deutsezula bici zara. A ce bidea, ce bitartecoa, ce moldea ta ce modu ona, aganic zartzaroan erremedioa, mesedeac, graciac ta gura dozuna erdet-siteco!

85 Zartasunean cerbait balioco dabenac, gaztetic bear dau adierazo ta agui-ri. Fruturic izango daben arbolac, lenagotic loratu bear dau. Jaquintsua ta letradun andia izango dan guizonac, aurretic bear dau escolatu. Gazte demporan armaric escu artean erabilli eztabena, celan zarreran capitaituco da? Espiritu Santuac diño (Eccle. 25): Gaztetasunean bildu eztozuna, celan idoroco dozu zartasunean? Gaztetan lucero gaistoa izan bazara, celan beingo baten ta laster onduco zara zartasunean? Bada Espirituaren esana da: Gaztetasunean guizonac artzen daben bideari darraio guero bere zartzean. Gazteta-90 caco ecanduac, oiturac, usadioac, mañac jarraituten deutse bati zartasunean bere; ta orduan jausiago, macurtuago ifinten dabe bat, ta len baño biciroago esetsiten deutse. Bada dirudi ece deabrua bere orduan irmeago, indartsuago guelditzen dala aren contra. Alan adierazoten <132> dau San Juan Evange-95 listac, diñoala (Apocal. 12): Beguiratu eguizue zuec lurra ta ichasoa; deunguero doa zuecaz, cerren jatsi da deabrua zuetara aserre andian, jaquinic dempora guichi daucala. Guztiac tentetan ditu deabruac; baña gueiago, obe-100 to ta irmeago zarrac. Bada, celan oneec, lucénaz bere, ecin asco iraun leiquean, dempora guichi laburra dabe, acabetaco urrean dagoz; eta acabeta atan dago betico ondo edo deunguero izateco zoria ta gorabera; agaitic deabruac bere acabatze atan biciroago daragoioe; orduan iños baño gueiago eu-

-
- 13-78 *orduguiño[co]*: aurrean *art*], ezabatua, < *an arteraiñooco* (GGero 174).
 13-80 *iraina asco*: ik. § 5.1.1.1.
 13-84 *cerbait* < *anhitz* (GGero 175).
adierazo ta: ta gainean erantsia; cf. *eçagun eta agueri* (GGero 175).
 13-85/86 *letradun andia*: leh. *letraduna*; cf. *Doctor handi içanen denac* (GGero 175).
 13-86 *aurretic* < *haurretic* (GGero 175); ik. § 5.3.4.
 13-87 *erabilli*: aurrean *ucu*] (*ucutu?*); cf. *harmaric utquitu eztuena* (GGero 175).
capitaituco < *capitainduco* (GGero 175).
 13-88 *Espiritu Santuac diño*: Añibaroren eransketa.
 13-96 *diñoala*: egiatan ez zuen berak esaten; cf. *erraiten duenean, aditu çuela cerutic mintço bat, cioela...* (GGero 175).
 13-96/97 *deunguero doa zuecaz* < *gaizqui doha çuetçaz* (GGero 175).
 13-99/100 *leiquean*: ez dago singular eta pluraleko formen artean ezberdintasunik (ik. § 4.2.1); cf. *leiqueezala* (17-37), *ostera*.
 13-100 *acabetaco urrean*: aurrean *acabateco ur*]; ezabatua; cf. *accabatu hurran baitçaye* (GGero 175); ik. § 5.3.4.
 13-100/101 *acabeta atan* < *accabatce hartan* (GGero 175-176); berehala *acabatze atan* (13-102).
 13-102 *biciroago daragoioe* < *escuey eraguiten deraue* (GGero 176).

ren artez, mañaz, asmuz ta al guztiaz valiatzen dira. Orduan zacuco trampa
asmutsuac ateretan dituez; daquiezan jocoac jocatuten dituez; eta, icusiric
105 dempora guichi dauqueela tentetaco, guichi onéz al daguien guztiaz valiatu-
ten dira.

Bada onela, pelligru andian jarri gura dau zartasuneraño becatuetan egon
gura dabenac. Eta, barriz, cer izango da, ascori jazo jaquena, zartuco dirian
ustean, zartu baga bere adinaric onenean il badadi? Eta alan, ilten ezpada
110 bere, ce gauza on eguin lei zartzaroan, edade edo adin argal atan? Eta ordu-
co ondo eguiteac cer valio al lei? Izugarria da San Basilioc onen gañean di-
ñoana (Orat. 4 de pœnit.): Zartasuneco templanza edo beguiramentua, ezta
beguiramentua; ecina da, ez besteric: indarraren escastasuna da, al izanaren
faltea; ecin eguinez egotea; nai ta naiez guelditzea; adinac uco eguitea; gura
115 izanaren ecin eguiña; becatua bera aurreratutea; ez guc becatua, baña bai be-
catuac gu ichitea. Gaissotasunean guichi jatea, ezta guichi jatea; orduco ba-
rautzea, ezta baraua, cerren baliz ganaric, bago borondatea. Alan da, bada,
gueienetan zartzeco beguiramentua, becatuac ichitea ta baraututea bere: eci-
nezcoa da, ta ez borondatezcoa. Orregaitic diño San Crisostomoc (homil. 50.
120 in Math. 24): Eztot uste presona zarrac merecimendu asco izango dabela
bere zar demporan onestua, garbia, moduzcoa, sosegatua izateaz: cerren
adinac berac artara lagunduten deutso, edadeac <133> eta urte ascoac eurac
atarata dacarde; gurago badau bere, ecin lei bestela. Ce esquer uste dozu izan-
go dabela ta ce merecimendu, zar ecinduac arerioari bidera armaturic ez ur-

-
- 13-103 *Orduan: aurrean orduan azpisapo asmutsu oneec ateraten dituez, eu] daquiezan, eza-
batua.*
- 13-103/104 *zacuco trampa asmutsuac < çacucoac (GGero 176).*
- 13-105/106 *guichi onéz al daguien guztiaz valiatuten dira < guti hari ahal daguien guztia valia
aracitcen derauca (GGero 176). onéz: Añibarrok onezaz (8-176 eta 14-15) zein
onez (5-30, < Ax hunez) erabiltzen ditu gaurko honetaz-en ordez.*
- 13-108 *Eta, barriz, cer izango da < Ceren arraçoïñ haur ere eman deçadan, cer içanen da...
(GGero 176). barriz: gainean erantsia.*
- 13-109 *adinaric < adinic (GGero 176); ik. § 5.1.1.1.
il badadi = GGero 176.*
- 13-110 *lei: leh. leique.*
- 13-111 *cer valio al lei? < cer valia ahal daquidicayo? (GGero 176).*
- 13-112 *templanza edo beguiramentua < pairua eta pairatcea (GGero 176).*
- 13-115 *becatua bera aurreratutea < beccatuac berac aïtcintcea (GGero 176).*
- 13-117 *baliz ganaric, bago borondatea < baliz appetituric, bada vorondate (GGero 176). ba-
liz: aurrean balego, ezabatua. bago: leh. bada; ik. § 5.5.1.*
- 13-118 *beguiramentua: aurrean (templanza) parentesi artean, tartean hutsune handi bat dago-
ela; < pairamendua, beguiramendua; cf. 13-112. oh.
becatuac ichitea ta baraututea bere < beccatuetic eta barurtcea ere (GGero 177) <
eta beccatuetic barurtcea ere (Gero 177).*
- 13-122 *ascoac: ik. § 5.1.1.4.*
- 13-123 *dacarde: -de gainean erantsia, agian -daz-en ordez.*

125 teteaz? Arratsean gox, demporaz ta ordu onean echeratuteaz? Amorentasunean ta desonesqueriaco ibillera char ciquiñetan gaztea leguez ez ibiltean? Danzan ta olguran ez ibilteaz?

Gai onen ganean bere, beste guztietan leguez, ederto esaten dau San Agustinec (ad fratres serm. 6): Batzuc gura dabe bere gazte demporan bici euren gogora, becatu ta gaistaqueria asco, guztiz bere desonesqueriatic eguiten dituela. Eta guero, baldin zartuten badira, gloriatu ta alabetan dira esanic: Gu gende garbiac, onestuac, castoac, beguiratuac ta contuzcoac gara; eztoqu, Jangoicoari esquer, desonesqueriatic eguiten, ez bear eztan presona loiacaz lagunduten. Baña, cegatic eztozue eguiten? Ecin dozuelaco. Bada orrela, ecinari esquerrac, ta ez zuen borondateari.

Orain zuec uste dozue ece gende garbiac, onestuac ta castuac zareala, ta castidade orregatic Jangoicoaren beguietan sari andia euquico dozuela. Gauza oneec onac dira, merecimenduzcoac dira, sarituco ditu Jangoicoac. Baña sari ta pagamentu oso betea izango dabenac ichi bear dau becatua becatu eguin al daiquean demporan; ta ordu berean artu vertutea. Bada, San Crisostomoc diñoan leguez (in Math. 3): Eztira, ez, adina edo edade guztiac era guztico becatueteraco on, ez eta gai. Ez dagoco zartasunari amorentasuna, eta ez comunqui gaztetasunari abaricia, cuticia, cequentasuna. Gauza guz-

-
- 13-125 *gox: aurrean ech] (echera?) eta ondoan echeratuteaz, biak ezabatuta; azken honen gainean ta ordu onean ta demp] (demporaz?), hau ere ezabatuta; cf. Arratsean etcherat goiz viltceaz eta bihurtceaz? (GGero 177).*
- 13-125/127 *echeratuteaz? ...ibiltean? ...ibilteaz? < bihurtceaz? ...ioaiteaz? ...ibiltceaz? (GGero 177); ik. § 5.5.1.*
- 13-129 *bere = GGero 177, eta ez euren, ohi bezala; ik. § 5.1.2.4.*
- 13-130 *asco: ondoan eguiten, ezabatua.*
- guztiz bere desonesqueriatic < guztiz ere emazteequin (GGero 177).*
- 13-132 *gende: leh. iende (= GGero 178); gente / gende zalantzaz, ik. § 5.3.3.*
- 13-133/134 *bear eztan presona loiacaz lagunduten < emazteetaco beccaturic eguiten (GGero 178). loiacaz: aditza singularrean badago ere.*
- 13-136 *zuec: aurrean uste dozue, ezabatua; cf. Orai uste duçue çuec (GGero 178).*
- castuac: gorago castoac (13-132).*
- 13-137/138 *Gauza oneec... sarituco ditu Jangoicoac: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina, Axularren Baiña enganatcen çarete (GGero 178) erabatekoaren orde zezarria. merecimenduzcoac: leh. merecimenducoac.*
- 13-138 *Baña: ondoan engañatuten zára; cerren], dena ezabatua (cf. aurreko oharra).*
- 13-139 *sari ta pagamentu oso betea: leh. saria ta pagamentua, < pagamendua (GGero 178).*
- 13-139/140 *becatu eguin: gainean, ichi-ren orde; cf. beccatu ahal daidiqueyen demboran (GGero 178).*
- 13-140 *ordu berean: leh. orduan, < orduan berean (GGero 178); ik. § 5.1.2.3.*
- 13-141 *adina: leh. adiña; ik. § 5.1.1.1.*
- 13-141/142 *era guztico becatueteraco: aurrean becatu, ezabatua, < beccatu suerte guztietaco (GGero 178); ik. § 5.1.1.4.*
- 13-142 *on: aurrean gai, ezabatua; cf. on eta ez gai (GGero 178).*

145 tiac dituez euren erac, demporac, sasoiac. Da ereinteco dempora, ta bai bilduteco bere. Eta ero-zoro andia da, bildu ta batu bear dan demporan, ereintera doiana. Gaztetan bear da erein, landu ta bear eguin, ta zartzean bildu, artu, gozatu ta probechatu. Alperric eguingo doc choria, baldin gaztedanic ezpadaguic abia, diño esaquera euscaldun batec. Zuc gura badozu gaztetan alper egon, ta guero zartzean lan bearrac eguiten asi, ori da cenzun baga ibiltea, 150 gobernu ona austeia, bildu <134> bear danean ereitea, ta guelditu bear danean bear eguiten astea.

155 Gobernu ta ordea ohea dabe erleac euren artean. Erle gazteac gazteac dirian artean campoan dabiltz ta bear eguiten dabe. Baña zartu ezquero, eche barruan, erlautsean dagoz, eztabe campora urteten ezpada atseguña artzen, an guelditzen dira. Cerren zartzaroa ataco da, soseguetaco, gueldi egoteco.

3 §.

160 Eguia da edocein dempora dala ona Jangoicoa servitzeco; edocein urte, edade ta ordutan dago prest gure Jangoico maitea parcatuteco becatuac becatariric andienari, nai dala gazte demporan, nai zartasunean, nai eriotzaco orduan, baldin becatariac penitencia eguiazcoa eguiten badau. Nosnai, diño, prest egongo dala parcatuteco ondo prestatzen danari; ta alan aditu bear da len esan dogun guztia. Baña ezteutso Jangoicoac iñori penitencia eguiteco biaramonic promestuten, aguinduten, esqueñiten, ez opatuten, ez ataraco segurantzaric emoten. Alan diño San Agustinec (de verbis Dni. serm. 6): Zartzean penitencia eguiazco eguiten badozu, on da. Baña contua, lana ta puntua da, ea zartuco zareanez; eta zartuten bazara bere, ea zartasun atan penitenciaric eguingo dozunez. Ea lengo urte sendo gazteetan asi eztozuna, guero edade argal erbalean acabatuco dozunez.

- 13-144/145 *Da ereinteco dempora, ta bai bilduteco bere <Bada eraiteco dembora, eta bai viltcecoa ere (GGero 178); ik. § 5.1.3.6.*
- 13-145 *ero-zoro andia: leh. ero-zoroa, <erho handia (GGero 178).*
- 13-147/148 *Alperric eguingo doc choria, baldin... abia <Fin gaitz eguinen duc choria, baldin gaztedanic ezpadaguic caña (GGero 178).*
- 13-148 *diño esaquera euscaldun batec: aurean esan oi dabe eu] (euscaldunac?), ezabatua, <dio errefranac (GGero 178).*
- 13-153/154 *eche barruan: ondoan dagoz, ezabatua; cf. etchean daude (GGero 179).*
- 13-154 *erlautsean <cofauean (GGero 179). VB erlautza (b.) "colmena".*
- 13-157/162 *Eguia da... len esan dogun guztia: Axularren esaldi bakar honen amplificatio da: Eguia da, laincoac prometaten dio bere beccatuen barccamendua noiz nahi den, çahartcean ere, penitencia eguiten duenari (GGero 179).*
- 13-157 *edocoin: ondoan ordu ta, ezabatua.*
- 13-158 *parcatuteco: leh. barcatuteco.*
- 13-162 *esan: leh. esana.*
- 13-165 *penitencia eguiazco eguiten <penitencia eguiten (GGero 179). on da = GGero 179. contua: ondoan da, ezabatua.*

- 170 Ea gaur baño emonago, oratuago, eransiago ta josiago zagozanean sosegura, atseguñetara, mundutasunera, ceure gustu ta nai-guretara, ea orduan burua neque-penatuco dozunez. Ea orduan leneco ecanduac, usadioac ta oitura char gaistoac ichiric, ecandu on batzuc artuco dozuzanez. Eztaquit: nic beintzat dudatzen dot. Eta, noc eztau dudatuco? Cergatic ce, sendo indartsuac jasoten eztabena, argalac celan maneatuco dau? Baldin baceuncaz abere, zamari edo zaldi bi ta carga bi, ez liteque izango zoraqueria, cargaric astunena argalenari emotea? Au berau eguiten dau, bada, penitenciaren carguea zartzaroari egozten deutsenac. Gaztetasuna sendoa da, indartsua da, gaia da on eguiteco, bear eguiteco ta Jangoicozco gauzetara emoteco. Baña zarrera argala da, on-bearra <135> da; berac dau bere buruaz eguitecoric asco. Zarra eztago barau andietaraco, belaunico oraciñoan lucero egoteco, ibilte nequetsuac erromeria santuetara eguiteco, necaldiac ta laztasun nequezcoac igaroteco. Zarrac bere zartasuneco gaisotasunaz ta argaltasunaz penitenciazco lan gogorric nequez eguin lei. Celan, bada, orduan egongo da gai eguite onac maitetuteco?
- 185 Guichi dagoz zartzaroan gaztetan baño zalago, arinago, zoliago. Elefantea derichan animalia andi batec bere gazte demporan belaunac ta gañeraco iuntura ta locazurrac zal ditu; erraz biurtzen da ta batuten da; baña zartu ez-

- 13-169 *gaur* < egundaiño (GGero 179).
- 13-169/170 *emonago... nai-guretara*: asko erraztu du Axularren pasartea, azken ideia bakarrik bere eginez: *ongui nahiago, adinaren arauaz hobequi beharrago, eta placerey ere emanagoa çarenean* (GGero 179-180). *mundutasunera*: gainean, *ta-ren* ordez. *nai-guretara*: gainean, *convenencietara-ren* ordez.
- 13-170 *ea*: Añibarrok birritan errepikatua, esaldi hasieran, Axularrek dakarren lekuan (GGero 179) eta hemen, galde-perpauaren aurre-aurrean, hain zuzen.
- 13-171 *burua* < *ceure burua* (GGero 180); cf. halaber *burua icustea* (2-112), *burua gordetara* (21-52/53), *burua eracusten* (37-32) eta *buruarentzat* (41-57). Idazle zaharrenan eta anitzez luzaroago bizkaitarren artean, aski maiz aurkitzen da bihurkaria ize-nordainik gabe (cf. *OEH*, s.v. *buru*, 673. or.).
usadioac: leh. *usadio*; cf. *leheneco aztura çahar gaixtoac* (GGero 180).
char: leh. *charra*] (*charrac*?).
- 13-174 *maneatuco* < *manaiatuco* (GGero 180).
- 13-175 *zamari*: gainean erantsia; cf. *bi abre eta bi carga* (GGero 180).
- 13-178 *emoteco*: leh. *emotera*.
- 13-179 *bere buruaz* < *bere buruarequin eta bere buruaren sostengatcen* (GGero 180).
- 13-181 *nequetsuac*: aurrean *luce*, ezabatua; cf. *erromerian ecin dabilque* (GGero 180).
- 13-181/182 *necaldiac ta laztasun nequezcoac igaroteco*: Añibarroren eransketa. *igaroteco*: aurrean *egui*] (*eguiteco*?), ezabatua.
- 13-183 *nequez*: gainean, *ecin-en* ordez; cf. *ecin daidique* (GGero 180).
egongo da < *içanen da* (GGero 180); ik. § 5.1.3.8.
- 13-184 *maitetuteco*: aurrean *eg*] (*eguiteco*?), ezabatua, < *eguiteco* (GGero 180); errepikapena (*eguite onac eguiteco*) saihesteko egindako aldaketa (ik. § 5.5.1).
- 13-185 *zalago, arinago, zoliago* < *çalhuiago, arinago eta iauzcalari handiago* (GGero 180).
- 13-187 *iuntura ta locazurrac* < *iunturac* (GGero 180). *VB locazurra* (c.) “coyuntura de cuerpo” (< *HH*).

190 quero, gogortu ta osotuten jacaz, alacoz ece, baldin orduan jausten, etzaten edo echuten bada, ecin jagui da, ecin zutic oñen ganean ifini da. Eta bein gogortu ezquero ta atara eguiñic, lo eguingo badau, ifinten da zutic arech baten contra, ta onela sostenduten da. Bada, elefante gazte ta zarraren artean arqituten [dan] banaa edo diferencia, idoroten da presona zar ta gaztearen artean bere: gaztea zal, bizcor, arin dago; zarra barriz, gogor, necor, astun, echuna, aricatu ta jausia.

195 4 §.

200 Baña onelaco diferenciaric edo baanic ezipaliz bere, ezta zartasunera be-
guira egon bear. Cerren zartzeco dempora eldu baño len, ta gaztea zarean ar-
tean bere, mesede asco eguiten deitsu Jangoico maiteac: azten zaitu, man-
tendu, janci ta biciric zaucaz. Ezta, bada, errazoia zuc bere bitarte atan, ceure
205 gazte demporan, esquer-mesede mugabagueac bere escu prestutic artzen do-
zuzanean, berari esquer onac biurtzea, bera alabatu, onratu ta serbitzea? Zuri
Jangoicoac beti eguiten deitsu on; cergaitic, bada, zu bere ezachacaz esquer
oncoea eracutsico dempora guztietan? Zuretzat Jangoicoa beti da francoa,
ugaria, prestua, escu zabalecoa; celan, bada, zu ain dollorra, cequena, esca-
205 sa, urria eta escu ichi laburrecoa beragaz, ceure gaztetasuna, urteric onenac
berari ucatu-ric, gaistoena, deunguena, charrena, ondarrac, ondaquiñac, zar-
tasuna emoten deutsezula? Onena, uruna munduari; gaistoena, lausoa, zaia

-
- erraz biurtzen da ta batuten da < erraxqui doblatcen eta plegatcentu (GGero 180), iunturak, noski.
- 13-188 *gogortu ta osotuten jacaz* < *gogortcen eta osatcen çaitça* (GGero 180), hots, “se le endurecen y anquilosan”, Villasanteren itzulpenaren arabera (1976: 200).
- 13-189/190 *bein gogortu ezquero ta atara eguiñic* < *hartaraz guero* (GGero 181); osagai ezberdineko sintagma elkartuez, ik. § 5.5.1.
- 13-191 *onela sostenduten da* < *hec sostengu harturic* (GGero 181).
artean: aurrean *diferencia*, ezabatua.
- 13-192 *arqituten [dan] banaa edo diferencia* < *edireiten den differentcia* (GGero 181). *banaa edo*: gainean erantsia; *banaa* izenondoa izaten da (cf. *banaac* 0-39 eta 8-230, *VB bana, baanac* [sic] “diferente” (*HH band*), *banaac* “distintos” eta *OEH*, s.v. *bana* 2).
necor: *VB* (c.) “lerdo, tardu, pesado”.
- 13-193 *aricatu*: jat. *ascatu* (arg. zuz.), *as-* ondoko letra bat nahita marra sendo batez ezabatua. Urquijok ere (1926: 27) *ascatu* irakurri du, baina testuinguruari nekez egokitzen zaiola etsita, zuzenketa proposatu nahiago dut, *ope ingenii* bada ere. Axularrek *gogor eta çurrun* (GGero 181) baino ez dakar.
- 13-196 *baanic*: sic, leh. *banic*; cf. 13-192. oh., non ikusi berri dugun *a* bikoitzaren kokapenarekin batzuetan arazoak izan zituela.
ezipaliz: leh. *ezipalego*; < *ezipaliz* (GGero 181); ik. § 5.1.3.8.
- 13-199 *zaucaz* < *eduquitcen çaitu* (GGero 181); ik. § 5.1.3.7.
- 13-202 *ezachacaz*: aurrean *ez j*], ezabatua; *eza-*, eta *ez etza-*.
- 13-205/206 *urteric onenac berari ucatu-ric* < *adinic hoberena sobera etsiric* (GGero 181).
- 13-207 *Onena, uruna munduari* < *Gaiñac, picaiñac eta hautuac bertceren* (GGero 181).
- 13-207/208 *gaistoena, lausoa, zaia Jangoicoari* < *hondarrac eta arbuyoac Iaincoaren* (GGero 181). *lausoa*: gainean erantsia; cf. *VB* “salvado de arina: c. *zaia*; b. *lausoa*” eta *Iri-nik adina lauso izango du esaera* (G-azp; *A Apend*, ap. *OEH*, s.v. *lausoa* II, 2).

Jangoicoari. Ondaquiñera, ondarrera datorrenean gauza bat, guichitu ta gais-
 totuten da, diño Senecac (Ep. 2). Ondarra guichia da, ta a guichia bere char-
 210 rra. Urun-lorea, onena, gaztetasuna daroa arerio gaistoac; eta guero gura
 dozu contenta dedin <136> Jangoicoa zaiaz, zartasuneco ondarracaz? Ase-
 rretuten zan Jangoicoa animalia itsuac, errenac, gaissoac ta indar-jausiac opa
 ta esqueniten eutsézanean. Bada alan, errazoi gueiagoaz aserratuco da zugaz
 bere, cerren zartasuna da itsua, gaisoa, argala, indarbagea, eta zuc orixe opa
 215 deutzazu.

Zartasunean beguietaco icustea laburtuten da, belarrietan gorrieria egui-
 ten da, belaunetan azurrac gaisotuten dira, indarra guichituten da, jateco
 gustua galduten da, loac igues eguiten dau, icarea etorten da, azala chimur-
 tuten da, ullea urdinduten da, burua ullebagnetuten da, arnasea atsituten da.
 220 Eta, azquenez, presona zar bat otz-beratu, min-beratu, ezaindu, aserratu,
 alde guztitic erruquigarria ta on-beartua gueldituten da; eta, baldin lenago
 gach estalduric euqui badau, orduan guztiac aguertuten dira. Onetarico ba-
 tec, bada, gogo guichi izan oi dau penitencia eguiteco; eta edocein dempo-
 retan artuco badau bere Jangoicoac onduric datorrena, danic zarrena ta gais-
 225 toena len izan arren; baña gach da lengo dempora guztia, Jangoicoa azturic,
 deunguero emon dabenac zartasunean bear dan penitencia eguiatzcoa egui-

-
- 13-209/210 *guichia da, ta a guichia bere charra < guti da, eta guti hura ere gaixto (GGero 182).*
 13-210 *Urun-lorea: aurrean Lore, ezabatua; cf. Florea irina (GGero eta Gero 182), komarik gabe.*
 13-211 *contenta dedin < contenta dadin (GGero 182); ik. § 5.1.3.2.*
 13-212 *indar-jausiac < hebaiñac (GGero 182).*
 13-213 *eutsézanean: leh. eutselaco; cf. ceren... cerautçaten (GGero 182).*
 13-214 *gaisoa: cf. halaber gaisotasun (0-109/110 eta 19-230), gaisotu (13-217) eta guizagai- so (16-176), maizenik erabiltzen duen gaisso- idazkeraren ordezt (ik. § 4.1.1).*
 13-216 *gorrieria = GGero 182.*
 13-217 *azurrac gaisotuten dira < heçueria iartcen da (GGero 182). gaisotuten: ik. 13-214. oh.*
 13-219 *atsituten: gainean, quirastuten-en ordezt, baina hau ezabatu gabe, < khiratsten (GGero 182).*
 13-220 *otz-beratu, min-beratu, ezaindu, aserratu: gainean, guelditzen da-ren ordezt; atzera igaro du aditza (ik. § 5.2.1.1); cf. presuna çaharra hotz beratcen, minberatcen, iduricortcen, haserrecortcen (GGero 182).*
 13-221 *ta on-beartua gueldituten da: gainean erantsia; cf. eta alde guztiz on-behartcen eta urricalkiçun eguiten da (GGero 182).*
 13-222/230 *Onetarico batec...: hemendik hasi eta lerrokada bukaerainoko guztia Añibarrorena da (cf. 13-230. oh.).*
 13-223/224 *edocein demporetan: ik. § 5.1.1.4.*
 13-224 *zarrena: aurrean zar gaisto], ezabatua.*
 13-225 *len izan arren: gainean erantsia.*
Jangoicoa azturic: gainean erantsia.
 13-226 *bear: aurrean gauza, ezabatua.*

230 tea. Eguin lei Jangoicoaren graziaz lagunduric; Evangelio santuan dacuscu bicitza char bat eguinic, azqueneco orduan Cerua irabaci eban Dimas lapur santua. Baña nic esan gura dodana da, eztala orren erraz: guichitan au jazoten dala; eta gueienetan bicitza gaistoari darraio eriotza charra.

Bada, au onela izanic, gaztetasunetic asi bear da Jangoicoa serbitzen, penitencia eguin, ecandu onac artuten, lagun gaistoetarie igues eguin, sarritu sacramentu santuac, contuz bici, ta ez guerotic guerora, gaztetatic zartasunera lucetu penitencia.

-
- 13-227 *dacuscu*: aurrean *daucagu*, ezabatua.
- 13-230 *charra*: "Faltan aquí m[ucha]s cosas. Vid. pág. [*GGero*] 183. Son algo ridículas para la gravedad que pide el Púlpito: en todo tiempo y edad admite Dios al hombre arrepentido" (egilearen oharra). Egiatan 182. orrialdeko azken lerrokadan hasi eta 184.ean *Beraz humelatan...* hasten den lerrokadaraino, dena kendu du, 13-222/230. oharrean seinalatu dudan ordezeko pasartea bakarrik jarririk, Axularrek San Agustin, Climaco saindua eta San Matheoren bermeak dakartzan arren (ik. § 3.3).
- 13-231 *asi bear da Jangoicoa serbitzen*: Axularrek *behar da Iaincoa cerbitçatu...* (*GGero* 184) motako egitura erabiltzen du hemen; honi zor bide zaio Añibarrok ondoko aditzetan ia beti partizipioa erabiltzea, *-tzen*-en ordez.
- 13-232/233 *ecandu onac artuten...* *contuz bici* < *beccatuetarie apartatu* (*GGero* 184). *artuten*: leh. *artu*; cf. 13-231. oh.

14. BURUA

Zartasunean bere penitenciaric eguiten eztabenaz.

1 §.

5 Escritura Santuac diño (Reg. 13): Urte bateco seiña zala Saul erreguetu zanean, ta urte bian izan zan erregue Jerusalenen gañean. Baña, celan au dateque onela? Bada seguru da urte bat baño <137> gueiago euquela Saulec erreguetu zanean; bai ta gauza jaquiña da urte bi baño [gueiago] egon zala bere erreguetasunean. Eguia da: alan da. Baña, celan asieran zan maliciabaguea, urte bateco seiñaren edo umearen antzera; eta egote onetan iraun eban urte 10 bitan, ta ez gueiago; eta Jangoicoaren aurrean eztira contuan artuten onean emoten direan urteac baxen; beragatic esaten da urte bateco seiña zala Saul erregue sartu zanean, ta urte biz egon zala barru atan, ta ez gueiago. Bada urte bian baño etzan egon becatu-ric eguin baga.

15 Senecac diño (Epist. 23): Gente batzuc asten dira biciten bicitza ichi bear dabenean; eta, baldin onezaz miraritut-zen bazara, esango deusut beste mirestecoago dan gauza bat; bada, beste batzuc biciten asi baño len ichiten dabe bicitza: cerren obra onac asi baño len acabetan jaque bicitza. Cer da gauza ezainagoric, diño Seneca berac (Epist. 13), biciten asten dan zarra baño? Len bear da asi, lenago bear da icasi, prestatu, abiatu. Eta, celan zarra

14-4 *seiña*: leh. *seña*.

14-5/6 *celan au dateque* < nolatan ahal dateque (GGero 184).

14-7 *urte bi baño [gueiago]* < bi urthe baiño guehiago (GGero 184).

14-9/10 *urte bitan*: aurrean *bi*, ezabatua.

14-12 *erregue sartu zanean* = GGero 185.

14-14 *ichi*: gainean, *larga*-ren ordez.

14-15/16 *mirestecoago*: jat. *miresticoago* (arg. zuz.), < *miretsicoago* (GGero 185); cf. *miresteko izan* (4-171, 11-124, 14-94, etab.).

- 20 ecin asi leitequean biciten, agui da obra ta eguitecoac gaitic verba eguiten dabela Senecac lecu onetan, ta ez adina edo edadeagatic.

Ezaina da zartasunaguiño Jangoicoa serbitzen ez astea; ezainago orduan bere ez astea; ta are gueiago ezainago, itsusiago ta deunguego orduan gais-
 ta[que]rietara emotea ta lotutea, ta deunguetasun barrura sartutea. Batzuc
 25 zartzean asten dira onduten, obetuten ta bertuteari jarraituten; eta obe da iños
 baño, nos; baña ori da, bidea igaroric echean egon bear leuquenean, abiatu-
 tea, asitea; andi eguinic, aprendiz icasle eguitea; urdinduric, escolara joatea.
 Eta oneec guztioac dira gauza ezainac, deunguero irudiac, demporatic cam-
 pocoac.

- 30 Gazte demporan ibilli cinian gazte zoro, buru arin, debociño guichiaz;
 beti promestu ta gogoan cerabillan zartzaroan mirariac eguingo cenducela,
 orduan santutuco ciniala. Bada <138> orain zartu zara, ceure promes, pro-
 positu ta verba andien epean ta mugan zagoz; nos, bada, onduco zara? Nos
 35 cumpli ta beteco dozuz lengo verba ta gogo ederrac, nos penitencia eguingo
 dozu? Baña, ay, zuc orain bere itzulpideac, achaquiac, igues-bideac idoroten
 dozuz; lucementuac aurquituten dozuz; ta, azqueneco urte ta adinean zago-
 zala guichi gogoraturic, gaztea baciña leguez zabiltz ta vici zara. Ez eban

14-20 *eguitecoac gaitic*: leh. *eguitecoen g.*, < *obrez* (GGero 185).
verba: leh. *berba*.

14-22 *zartasunaguiño*: *zartasuna* gainean, *zartzana*-ren (?) ordez.

14-23 *ta are gueiago ezainago, itsusiago ta deunguego* < *eta guztietaco itsusiena eta gaix-
 toena* (GGero 185). *deunguego*: cf. halaber 15-198 eta 24-55/56, nahiz eta forma-
 rik erabiliena *deungago* izan (8-7, 12-225, 13-53, 22-52, 23-89, 28-22 eta 43-223;
 ik. § 4.2.1).

14-23/24 *gaista[que]rietara emotea ta lotutea* < *gaixtaqueriari berriro lotcea* (GGero 185).

14-24 *ta deunguetasun barrura sartutea* < *eta malician barrenago sartcea* (GGero 185).
deunguetasun: leh. *deunguetasunean*; *barren*-en itzulpenaz, ik. § 5.3.4.

14-25/26 *obe da iños baño, nos* < *hobe da orduan ere, ez nehoiz baiño* (GGero 185-186). Cf.
VB obe da iños baño nos “(más vale) tarde que nunca” (< *HH obe da noiz, ezen ez
 iñoiz*) eta *OEH*, s.v. *noiz* 2.

14-27 *aprendiz icasle eguitea* < *aprehendizcoan* [sic] *iartcea* (GGero 186).

14-28/29 *oneec guztioac dira... demporatic campocoac* < *hauc guztioac dira itsusi sasoiñetic cam-
 poan eta muga gaitcean* (GGero 186). *irudiac*: ik. 1-82. oh.

14-30 *ibilli cinian gazte zoro, buru arin, debociño guichiaz* < *ibili cinen gazte antçu, arint-
 qui, debocino gutirequin* (GGero 186).

14-31 *cerabillan*: leh. *cerabillala*; cf. *GB* 48 *cerabillan* (zuk) vs *erabillan* (hark). Itzulpe-
 nean ez dago honen kiderik, baina beste *cerabillan* bakarra (31-71) 3. pertsonari da-
 gokio, bestetan z- gabe erabiltzen badu ere (*erabillenic* 40-32, *erabillala* 46-287).
 Cf. *bethi prometatcen cenduela, eta gogoan erabiltcen* (GGero 186).

14-33/35 *nos, bada... nos penitencia eguingo dozu?*: Añibarroren eransketa. *cumpli*: aurean
bet] (*bete?*), ezabatua. *nos penitencia eguingo dozu?*: gainean erantsia.

14-35 *ay*: Añibarroren eransketa.
itzulpideac < *itçurpideac* (GGero 186); ik. 3-92/93. oh.

onela eguiten Senecac, gentil fedebague bat bazan bere, esaten ebanean (Epist. 6): Zartu baño len abiatu nintzan ondo bicitera; ta zartu ezquero ondo iltera. Gaztetan euqui neban contu bicitzeaz, ta zartzean ilteaz. Zartu ezquero, ichi bear da bicitzea ta biciteco gogoa; eriotzeaz bear da disputan ta auctitan ibilli; ta onetaraco equin al guztiac prestatu.

2 §.

Zartzea, atso-aguretutea, urte ascoan bicitea, au berez ona da, Jangoicoaren esquer-mesedea da. Bada, San Pabloc diñon leguez (1 Corint. 4): Gure gorputz au, arimaren campoco ta gañeco estalgui au zartuteaz ezaindu ta banatuten bada bere, arima obetu ta barrerotuten da egunetic egunera. Presona zarrac, berac icusi, ezagutu ta daquizan leguez mundu zoro onetaco eroqueria, joan-etorri, gorabéraren barriac, ordu dau gaztetasuneco maña ta ecandu charrac ichiteco, ta bere buruaz gomutatu ta oartuteco. Baña gaztea dana zori, pelligru ta arriscu andian bici da. Eta orregaitic Davidec cirautsan Jangoicoari (Psal. 101): Ez eguidazu deitu, Jauna, neure egunén erdian. Ichi eguidazu, arren, zartutera, urdindutera, aguretutera ta azqueneco urte betétara eldutera. Zartasuna, beste gauza ascotaraco bere bai, baña guztiz bere emoten da gaztetasuneco uts-eguiteac bete ta sendotuteco. Eta orretaraco orduan lengo odol bici-bero erexeguiña otzitzen da; sosegua ta epetasuna etorten da; eta adimentu ta cenzunduna bada, etorquizunaz <139> ta guero-coaz gogoratzen asten da. Dan presonaric nasaiena, ardurabaguenac bere arratsean echeco atead ichi ta zarratuten ditu; erri andietan gaubaz demporaz genteac sartu ta atarteac ichiten dira; ardiac iluntzean arinago jaten dau; cisneac iltera doianean bere soñua biciroago eguiten dau. Alan daguiela presona zarrac, adierazoten dau San Pabloc (Hebr. 10): Ceimbatez icusten dozuen

- 14-38 *bazan: aurrean iza] (izan?), ezabatua; cf. ientil bacen ere (GGero 186).*
 14-40 *ilteaz: aurrean eriotzeaz, ezabatua, < hiltceaz (GGero 186).*
 14-44 *ascoan: ik. § 5.1.1.4.*
 14-47 *arima: jat. ariman (arg. zuz.), < arima (GGero 187); baliteke arimau zuzendu ahal izatea ere. obetu ta barrerotuten da egunetic egunera < hobetcen eta erraberritcen da (GGero 187). barrerotu: VB (b.) "renovar".*
 14-48/49 *eroqueria, joan-etorri: leh. eroqueriac, joan-etorriac; ik. § 5.2.5.*
 14-49 *ordu dau = GGero 187.*
 14-50/51 *Baña gaztea... bici da < Baiña gaztea perilos da (GGero 187).*
 14-53 *zartutera: ondoan urte betétara eldutera, ezabatua; beranduago jarrita dago.*
 14-57 *etorquizunaz: leh. etorquizunean; cf. ethorquizunean pensatcen (GGero 187).*
 14-59/60 *erri andietan gaubaz... atarteac ichiten dira < portaleen mugan hirietan munduac laster eguiten du (GGero 187). Aurreko ideiaeren tankerara ulertu edo eratu du.*
 14-62 *adierazoten dau < conseillatceintu (GGero 187-188).*
 14-62/63 *Ceimbatez... aimbatez... < Cenbatenez eta... hanbatenez... (GGero 188). Iparraldekoa omen da (cf. OEH, HAINBATE(NA)Z... ZENBATE(NA)Z, s.v. hainbat) eta testuko agerrialdi bakarra, gainerakoetan ce(i)mbat... aimbat... Hegoaldeko egitura arrunta (cf. OEH, HAINBAT... ZENBAT, s.v. hainbat) erabiltzen duen bitartean.*

azquen eguna urreratuten jatzuela, aimbatez lasterrago abiatu, prestatu, es-
 tutu ta arduratu zaitece. Gorde zaitece orduan naguitzetic, zabartzetic, ardu-
 65 rabaguetasunetic. Bada orduan da mena, mina, azquen adina ta pelligru guz-
 tien gañeco pelligrua. Eta, celan aimbatic aimbatean ederrago dirian
 Jangoicoarentzat gaztetasuneco serbitzuac, eguiteac ta obra onac zartasune-
 coac baño; alan, bestera, eguiten jacaz ezainago, itsusiago ta gorrotogarria-
 go zartasuneco uts eguiñac ta gaistaquericac gaztetasunecoac baño. Cerren
 70 zartzarocoac eztira jaquinezaz, ezautu baguez ta ignoranciaz eguiñac; ezpa-
 da maliciaz, nai izanaz, borondatez ta gogoz, beguiac itsuturic leguez egui-
 ñac.

Ezta gai onetara deunguero eldu Espiritu Santuac diñoana (Eccle. 25):
 Iru eraco becatu edo becatari gorrotatu ta icusi ecin dodaz bestén gañetic; eta
 75 dira pobre andigurea, aberats guzurtia eta zar zoro cenzunbaguea edo zar
 amorantea.

Dacuscun bada orain, ea cergaitic derichazan Jangoicoari deunguero iru
 becatu modu oneec; bada dirudi ece badala oneec baño becatu andiagoric.
 Eta alan, pobrea soberbioa edo andiuste goitua izatea, dirudi becatu arina
 80 dala; eta gueiago dirudi zoraqueria ta adimentuaren falta, malicia baño. Ce-
 rren pobrea cec soberbiatuco dau? Aberatsa bere guzurtia izatea, dirudi be-
 catu arina dala; beintzat asco da andiagoric. Bada, guizon zarra bere arrotu
 ta bere burua andizcatu ta alabetea, ta gazte demporaco zoraquerietara biur-

-
- 14-63 *jatzuela*: gainean, *dala*-ren orde; cf. *hurbiltcenago çaitçuela* (GGero 188).
abiatu: leh. *abia zaitece*; cf. *hanbatenaz lasterrago abia* (GGero 188).
- 14-65 *orduan da mena, mina, azquen adina* < *orduan da mena, orduan da mina, orduan da azquen adina* (GGero 188); ik. § 5.5.1.
- 14-66 *aimbatic aimbatean* < *hanbatic hanbatean* (GGero 188); ik. § 5.3.3.
- 14-73 *Ezta... deunguero eldu* < *Ezta... gaixqui heldu* ‘ez dator gaizki’ (GGero 188); ik. § 5.3.4.
- 14-75 *andigurea*: gainean, *soberbioa*-ren orde; baina hau ezabatu gabe; cf. *probe urguillua* (GGero 188); cf. *VB andigurea* (c.) “orgulloso”.
- 14-77 *derichazan*: leh. *derichen*, < *darizten* (GGero 189). ‘hari hauek deungero iritzi’ jokoia erabiltzen du, Axularrek ez bezala (ik. § 5.1.3.11).
- 14-78 *modu oneec* < *suerte haur* [sic, *hau*-ren orde; cf. *Gero* 189]: *probearen urguillutasunari, aberatsaren gueçurrari eta çaharraren erhotasunari* (GGero 189). Errepi-kapena saihesten (ik. § 5.5.1).
bada: *aurrean eta baldin bad*] [*bada?*] *danez euroc baño becatu andiagoric*, ezabatua; cf. *Baldinba bada hauc baiño beccatu handiagoric* (GGero 189). *Baldinba*-k aztoratu zuen, beraz.
- 14-79 *alan*: ondoan *dirudi*, ezabatua.
becatu: leh. *pecatu*.
- 14-80 *zoraqueria*: *aurrean er*] (*eroqueria?*), ezabatua, < *erhoqueria* (GGero 189).
malicia baño: Añibarroren eransketa; cf. *lehen dirudi erhoqueria eta adimendu falta* (GGero 189).

85 tutea, guizonari guerta lequiquiona da; bago becatu andiagoric. Cergaitic <140> bada, oneec onela izanic, diño orrez guztiaz Espiritu Santuac iru becatu oneec gorrotatzen dituela? Ezta gach eranzutea.

90 Baldin iru eraco becatu onei beguiratzen badeutsegu campotic, gañetic, azaletic, badira euroc baño andiagoac ta Jangoicoac bere gorrotoago dituenic. Baña, baldin barrutic, mamitic artuten badogu Espiritu Santuac onetan cer esan gura deuscun, idoroco dogu maliciaz, premia бага, gulleriaz, bere nai-guraz, bideric, ocasiñoric ta tentamendu бага eguiten dirian becatuac diriala gaistoagoac, ezainagoac; eta onelacoac dira iru mueta onetaco becatuac, ceiñen gomutea orain eguiten dogun.

95 Probea, esquecoa guzurtia izatea ezta ain miresteco: bada bearrac gauza asco eraguin leiz. Aberatsa bere soberbioa, artoa ta andigurea izatea oi dana da; bada, eztaben leguez iñoren bearric, ta euquitea ondasunac ugari, onec soberbiatu, anditu, axetu, arrotuten dau. Bada, presona gazte bat bere eguiteetan ta joan-etorrietan arina eta zoroa izatea ezta on, baña dirudi, guichi bat bada bere, adinac, edadeac, gaztetasunac estalpetuten dabela. Baña probeac
100 ce bide dau soberbiatuteco? Aberatsac guzurtia izateco? Presona zarrac gazte demporaco gira-bira ta zoraquerietara biurtuteco? Becatuoc, ta guztiz bere zartasunecoac, ez dabe escusaric, achaquiatic, igues-bideric, eta ez edertzece bere bideric; eta agaitic ditu ain gorroto Jangoicoac.

-
- 14-84 *andiagoric: aurean eza]* (ezainagoric?), ezabatua; cf. *anhitz da beccatu handiagoric* (GGero 189).
- 14-86 *gorrotatzen: aurean eguiten*, ezabatua; cf. *hirur beccatu hauc çaitçala gaitcienic eta itsusienic* (GGero 189).
- 14-88/89 *baño andiagoac ta... gorrotoago dituenic < baiño handiagoric, eta Iaincoz ere gaitzetsiagoric* (GGero 189). Osagai ezberdineko sintagmez, ik. § 5.5.1.
- 14-89 *baldin: ondoan artuten badoguz beguiratuten deutsegu*, dena ezabatua; cf. *baldin har badeçagu barrera, mamia* (GGero 189).
- 14-90 *gulleriaz < golotoniaz* (GGero 189). Cf. *VB guleria* (c.) “gulleria”, baina *gulleria* (MisE 78, ap. OEH, s.v. *guleria*).
- 14-94 *Probea: aldaera hau darabilen lehen aldia* (cf. *pobre* 2-82, 12-178, 14-75, etab.); *hemendik aurrera pobre* eta *probe*, biak aurkituko ditugu. *ezta ain miresteco* = GGero 189-190. *ain: gainean erantsia*.
- 14-95 *arroa: aurean edo*, ezabatua.
- 14-96 *eztaben leguez... ondasunac ugari: perpaus zati hau traketsa da; cf. ceren nola neho-*
ren men gabe, berac baitu bere dina eta behar duena (GGero 190).
- 14-98 *ezta on < ezta ongui* (GGero 190); ik. § 5.3.4.
- 14-99 *estalpetuten < desencusatcen* (GGero 190).
- 14-102 *escusaric: jat. escuraric* (arg. zuz.), < *desencusaric* (GGero 190).
- 14-102/103 *edertzece bere bideric < edertzatceco bideric* (GGero 190).

3 §.

105 Aldi baten laquetu eban Jangoicoac banatu ta apurtu leguiela arerioac Je-
 rusalen uri eder famatua; ichi ta permiti eutsén agaz gura eben guztia eguin
 leguiela. Eta, celan Jangoicoac eztaben iñor iños castiguetan bide-baguez,
 emoten dau errazoa Jeremias profetac, ea au cegatic eguin eban Jaunac, esa-
 nic (Jerem. 1): Jerusalem erri becatariac cituzan oñac lupetz loiz ciquinduric;
 110 eta etzan bere azquenaz gomutetan. Esan baleu leguez: oñac cituan loituric,
 lupezturic, ciquinduric, ta orregaitic galdu dot erriau. Baña, izanic oi dan
 gauza, lurrean dabiltzen oñac loituric ibiltea: cer esan <141> gura dau orrec?
 Baldin arpeguia euqui baleu loituric, dirudi errazoa eucala eguin ebana
 eguiteco; baña, oñac gaitic cer antsi da, ce ardua da, cer esan gura dau?
 115 Bada ori beragaitic diño, oiñetaco loiagaitic galdu zala; bada, celan zartasu-
 na da azqueneco adina, edadea ta bicitzaren bazterra, marra, muga, ondarra;
 alan dira oñac bere gorputzaren azquena ta cabua. Eta alan, oiñetan loi izate-
 ac esan gura dau zartasunean zala loa, ciquiña, gaisto oquerra; eta etzala
 bere azquenaz bere gomutatu, eta agaitic galdu zala. Cerren zartzaroan gais-
 120 toa dana eta orduan bere salbamentuaz ta arimaz gomutetan eztana, gach
 dala galdu bago igues eguiea.

San Ciprianoc diño (de 12 abusion. 2): Celan arbola bat dan alperra, utsa,
 orri eta lorearen ondoan fruturic eztacarrean, alan da guizona bere guizon
 alperra, balio guichicoa, bere gaztetasuneco lorea, berde edo ecetasuna iga-
 125 ro ezquero, eguite onen fruturic bago dagoana. Guizonac, iños bere izatecoz,
 bear leuque oguei urteetan izan bicia, bizcorra, arina; ogueta amar urteetan
 indartsua, zala, sendoa; berroguetian cenzun ta adimentuduna; berrogueta
 amarreetan diruduna, ondasunduna; eta iruroguetian debotoa, bertuoso,
 conciencia onecoa. Andic aurrera concienciaric eztabenaz, bere griña cha-
 130 rrac eciten eztituenaz, bere gaistaquerietatic atzeratuten eztaez ez eguizu
 conturic euqui; euqui eguizu galdutzat. Eta euqui eguizu galduagotzat, or-

14-105/106 *Jerusalen uri < Ierusalemeco hiri (GGero 190).*
 14-109 *Jerusalen erri becatariac:* Añibaroren eransketa.
 14-110 *azquenaz:* gainean, *finaz*-en orde, baina hau ezabatu gabe, < *finaz* (GGero 190).
 14-111 *lupeztu:* VB “embarrar”, “enlodar” (b. bietan).
 14-113 *euqui:* aurrean *iza*] (*izan?*), ezabatua, < *içan* (GGero 191); ik. § 5.1.3.9.
eucala: leh. *euquel[a]* idazten hasi eta damutu.
 14-115 *Bada ori beragaitic diño < Eta alabaiña hargatic, oiñetaco liquitsqueriagatic, errai-*
ten da (GGero 191). *Bada:* aurrean *Eta*, ezabatua.
 14-120 *ta arimaz:* Añibaroren eransketa.
 14-120/121 *gach dala:* sic, beharbada aurreko konpletiboen eraginez, < *gaitz da* (GGero 191).
 14-122 *dan:* gainean erantsia; zalantzan egon zen: leh. *da-* (lerro bukaeran) jarri zuen, gero
 hurrengo lerroan *bada* jarri zuen, eta azkenik biak ezabatu.
 14-125 *iños bere izatecoz < nehoiz ere içaitecotz* (GGero 191); cf. 7-142. oh.
 14-128 *amarreetan:* ik. § 4.2.4.
iruroguetian: leh. *iruroguetian*, < *hirur hogoyetan* (GGero 191).
 14-131 *euqui eguizu galdutzat:* Añibaroren eransketa.

duan barriro zaletu ta emoten bada gaistaquerietara ta becatuetara; azaz etsitu edo esperanza galdu eguizu: eztau gaur gueiago gauza onic eguingo.

135 Alacoac menazatu edo cemaituten ditu Jeremias profeteac verba estaldu batzuen azpian, esanic (Jerem. 6): Ay, gure zorigaistocoac! galduac gara, eguin dau gureac: cerren acabetaco urrean dago eguna; eguzquia beeratu da ta guericea bere lucetuago da arratsaldean. Adietan emoten da onegaz, galduac goazala, <142> ez eguzquiac arrasteguian gueriza andiagioa ta luceagoa eguiten dabelaco; ezpada gure arratsaldean, zartzaroan, adina itzultzen
140 ta beeratuten doianean, ta joacunean, orduan becatu eguiteco ta biciteco nai-gurea gueitu ta lucetuten jaculaco; eta zarrago gaistoago eguiten garealaco, agaitic diño galduac gareala.

Ondo daquigu Ceruan sartuco danac eztabela euqui bear becuric, orbanic, mancharic, chimurric (Ephes. 9). Baquigu larga ta ichi be[a]r diriala
145 lenagotic ecandu ta oitura deungueac. Eta zuc, gaztea ciñanean, ciñozun etzala orduan lecuric, ez astiric penitencia eguiteco, ez gaistaqueric ichiteco, eta zartasunean, falta baga, guztiac largaco cenducela. Bada orain an zara; aror non eldu zarean; zartu zara; ta orrez guztiaz iños baño barrurago

-
- Eta euqui eguizu galduagotzat < Eta are gutiago (GGero 192).
14-132 zaletu: aurean emo] (emoten?), ezabatua.*
14-133 *eztau gaur gueiago gauza onic eguingo < hura emacu galdutcat (GGero 192). Axularrena gorago erabili du (14-131). gaur gueiago: VB (b.) “(en) adelante, en lo sucesivo”.*
14-134 *menazatu: leh. menazatuten dit[u].*
14-136 *acabetaco urrean < accabatu hurran (GGero 192); ik. § 5.3.4.*
14-137 *lucetuago da < luçatuago da (GGero 192).
Adietan emoten da onegaz: jauzi handi bat egin du Axularren testuan, agian oharkabean, hurrengo guztia janez: Cer erran nahi du mintçatce molde hunec? Baldinba iguzquiac, bethiere agueri den beçala, luceago eguin behar du itçala arratsaldean eguerdian baño. Ceren eguerdian gaindic behera artez, eta arratsaldean saihetsetic, soslay emaiten baitu. Ordea guztiarequin ere, ceren haur hunela guerthatcenden, erraiten çaicu beguira dugula galduac goacilla. Nola aditcen da bada haur? (GGero 192).*
14-139 *itzultzen: ondoan danean, ezabatua; cf. irauliaz eta behehituaz dohanean (GGero 192).*
14-141 *eta: gainean, cerren-en orde; cf. ceren çaharrago eta gaixtoago... (GGero 193).*
14-145 *ciñanean, ciñozun < cirenean [sic; cf. cinenean, Gero 193], erraiten cenduen (GGero 193). leh. ciriaciñoan, lerro aldaketak ciria-/ciñoan zatikatuta; ciria-ren gainean ciñanean zuzenduta. Urquijok (1926: 33) ciriaciñoan (ciñanean) irakurtzen du, aditz bakarra bailitza. Baderitzat, oster, ciria- hasiera argi eta garbi cirenean hutsari erantzuten diola eta, beraz, ciriaciñoan delakoa bi aditzen nahastetik sorturiko kopia hutsa baino ez dela. Azalgaitzago da ciñoan, cirian bezala hirugarren pertsonakoa, baina hura ez bezala, singularrekoa baita; Añibarrok oharkabean zuzendu gabe utzi duelakoan, gramatikako (GB 61) formarekin zuzendu dut.*
14-146/147 *penitencia eguiteco, ez gaistaqueric ichiteco: Añibarroren eransketa.*
14-148 *aror non eldu zarean: Añibarrorena, Axularren bazterrean çara-ren orde (GGero 193).*

150 sartuten zara becatuetan; etzara bapere obetu; len baxen gaistoago ta oquer-
rrago eguiten zara. Ce gogo dozu, bada? Certan zagoz? Ceren beguira za-
goz? Zartasunaren? An zara. Epearen, demporaren? Beté da; cumplitu da.
Cumpli eguizu, bada, zuc bere ceure verbea eta promesa, zartuten ciñianeco
emon cenduana.

155 Esango dozu: badot orandiño beste epe bat, beste asti bat, beste dempo-
ra ta eraldi bat bere; eztira oraindo dempora guztiac igaro. Eguia da esan ne-
bala zartzean onduco nintzala, orduraco zan lengo astia ta epea. Baña artu
nei bigarren bat bere. Bada, oraindiño zartu nasanagaitic bici niteque gueia-
go bere. Eta alan, azqueneco urtean, ilteco aurrean, falta бага, falta ta uts
160 guztiac atara ta beteco dodaz. Orduan neure verbac gordeco dodaz, promes
guztiac beteco dodaz. Ordura artean ezta lecuric, ezta cer verbatu bear, ezta
cer arduraric artu bear.

Au da presona zoro galduen contua; ta urrenco capitulu edo buruan agui-
rico dan leguez, azquen char bat euquiteco señaleac ditu.

14-149 *becatuetan; etzara bapere obetu*: Añibarroren eransketa.

14-149/150 *len baxen gaistoago ta oquerrago eguiten zara < lehen beçain gaixto edo gaixtoago çara* (GGero 193). Axularren mailakatzea galdu du, *baxen* konparatiboa ere izan daitekeela profitatuaz (cf. *OEH*, s.v. *baizen* 4); *bezain*-en itzulpenaz, ik. § 5.3.4.

14-150 *Ce gogo dozu < Cer eguin gogo duçu* (GGero 193).
Certan zagoz?: Añibarroren eransketa.

14-151 *Zartasunaren? < Çahartcearen?* (GGero 193).
Epearen, demporaren? < Epearen? (GGero 193).

14-152 *zartuten ciñianeco < çahar cindeciñeco* (GGero 193); ik. § 5.1.1.9.

14-154 *orandiño*: ik. 5-8. oh.

14-157 *niteque < naiteque* (GGero 193); agerraldi bakarra: bestetan *nindeque* (7-54) eta batez ere *ninteque* (0-134, 20-227 eta 33-22) erabiltzen du (ik. § 4.3.10.1).

14-158 *ilteco aurrean < hiltceraco aiticinean* (GGero 193).

14-159 *atara*: leh. *ataraco doda[z]*, < *erremediatuçoitut* (GGero 193).

14-160 *ezta cer verbatu bear < ezta cer mintçaturic* (GGero 194).

14-160/161 *ezta cer arduraric artu bear*: Añibarroren eransketa.

15. BURUA

Eriotzaco orduguiño becatuan egoteco gogoa dauquenaz.

1 §.

5 Senecac diño (Epist. 27): Il bitez zu baño len zure becatuac. Oneec le-
netic, zu guero. Ez eguizuz eriotzaraguiño zugaz euqui. Bada bestela, pelli-
gruan jarri cintequez, cerori illic, aec biciric guelditu ez titecen. Zartasunara-
ño becatuan dabillena perill andian dabil; cer izango [da], bada, zartu
10 ezqueroz, andic achina eriotzaco orduguiño beti barrurago sartzen dala, beti
alan dabillanaz ta ibilteco gogoa, asmoa, borondatea ta ustea dabenaz?

Ez neunque esan gura cein pellibru andiac dirian eriotzaco ordu atan;
bada gura ez neunque iñori bildurtuteco, icaratuteco, izututeco, larrituteco,
esperanza ta icharomena galduteco bideric emon gura. Baña ecin nengoque
cerbait esan baga. Bada orduco esperantzac asco galduten ditu. Eta dacust
15 ece, nic orain emen emon neiquezan bildurtasunac baño, orduco pelligrua-
ren barriric ez euquiteac calte gueiago eguin leiquezala.

15-7 *cerori* = *GGero* 194; ik. 17-26. oh.

aec: aurrean *biciric*, ezabatua; cf. *hec biciric gueldi litecin* (*GGero* 194).

15-7/8 *Zartasunaraño*: ik. § 5.1.1.1.

15-12 *gura ez neunque iñori* < *ezpaneraucayo nehor* (*GGero* 194); datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).

15-13 *emon gura*: *gura* perpausaren hasieran (*gura ez neunque*, 15-12) eta bukaeran, birri-
tan agertzen da, bigarrena Axularren ordenari jarraiki: *occasinoric eman nahi*
(*GGero* 194). Antzeko aldaketengatik (cf. adib. 1-32, 2-67, 3-46 eta 7-96/98) susma
dezakegu Añibarrok, okerra ohartzera, hasierakoa hautatuko zukeela.

Baña, lan onetan sartu baño len gura neuque jaquin ceinquian gauza bat, eta da: Celan eguiazco penitencia dan Jangoicoaren doia ta mesede eguite bat, Jangoicoac berac nai dabenean emon leiena; alan eguiazco penitencia á,
 20 nosnai dan dala, eriotzaco azqueneco orduan bada bere, salvatzeasco da. Eta alan, salvatu zan Dimas lapur santua bere azquen orduan, orduguño becatuan egon ta ibilli ezquero. Orainguiño, bidezcoac gara ta, garean bitartean, igaro guintequez aurrera, baita biurtu bere atzera; eguin guiñei on, ta bai deunguero bere. Cerren borondatea, naia, gura izatea libre gueure escuan
 25 dogu. <144> Eta alan diño San Agustinec (Serm. 11 de Verb. Dni.): Ezta iñogaz etsitu edo desesperatu bear; ezta iñor bere galdutzat euqui bear, Jangoicoaren paciencia ta ontasunac penitencia eguiteco ichadoten deutesen artean, mundu onetan dauquen artean. Beste lecu baten diño San Agustinec berac (de Eccles. dogmat. cap. 80): Seguru daquigu, duda бага sinisten dogu, azqueneco arnasan aurquituten danean bere, penitencia eguiazcoac becatuac parcatuten dituela. Eta Jangoicoac berac diño Ezequiel profetaren aotic (cap. 13): Ezteutso becatariari becatuac calteric eguingo, becatutic urten ta jaguiten dan egunetic aurrera. Itzuli bedi becataria, biurtu bedi Jangoicoagana, nai dala azqueneco orduan, nai acaberaco arnasan dagoanean; eta orduan
 30 bere, enzuna izango da. Biciric dagoan artean, arnasea beragan dauquen bitartean, baldin oraindiño adimentua, cenzuna, burua on badauco, ezagueran, gomutean, acorduan badago, aserretu ta etsituten ezpada, biotz-biotzetic Jangoicoagana biurtzen bada, badauco bere becatuen damu osoa: onela izan
 35 ez dau cer etsitu, eztau desespera bear, eztau cer esperanzaric galdu bear, cergatic ce eztago oraindiño orduan erremediotic campora.
 40

-
- 15-17 *ceinquian*: izan aditzetik kanpora (§ 4.3.10.10) oso bakanak dira halako bukaerako adizkiak (*guiñeiquian* 12-236, *leiquian* 49-56), baita oro har *ea > ia* aldaketaren lekukotasunak ere (*iñudia* 2-83, *iraquiñian* 2-19, *ciquiñian* 16-44, *issilian* 46-29); cf., adib., *leiquean* (5-149), *ciñaiquean* (12-8) edo *daiqueala* (11-274).
- 15-20 *nosnai dan dala* < *noiznahi den dela* (GGero 195).
- 15-21 *Dimas lapur santua* < *ohoiña* (GGero 195); ik. § 5.4.2.
- 15-24 *gueure escuan* < *gueure escuco* (GGero 195); ik. § 5.3.4.
- 15-25 *Eta*: ertzean erantsia; lehen *Alan* hasten zen esaldia, < *Halatan* (GGero 195).
- 15-28 *dauquen*: *aurrean ich]* (*ichi?*), ezabatua; cf. *mundu hunetan utzten dueiño* (GGero 195).
- 15-29/30 *azqueneco arnasan aurquituten danean* < *azquen hatçaren aurthiquitcean* (GGero 196).
- 15-37/38 *biotz-biotzetic Jangoicoagana biurtzen bada*: Añibarroren eransketa.
- 15-38 *badauco bere becatuen damu osoa* < *baduque bere beccatuaz behar den urriquimendua, damua eta dolorea* (GGero 196).
- 15-39 *eztau desespera bear, eztau cer esperanzaric galdu bear* < *eztu cer esperança galdu-ric* (GGero 196).
- 15-40 *oraindiño*: *aurrean ordu]* (*orduan?*), ezabatua; cf. *oraiño orduan* (GGero 196). *erremediotic campora* < *erremediotic campoan* (GGero 196).

Becatuen parcaciñoa erdetsiteco eguin bear da penitencia; eta penitencia eguiteco asco da puntu bat, buru itzultze bat, begui ichi-idiguite baten bitartea, Jangoicoaren graciaz batera. Becatu mortalean bere zorigachez jausi dana ecin salva liteque penitencia eguin baga, au da, al badedi confesatu bear da; baña ecin confesatu bada, asco da salbetaco contriciño eguiazco bat; eta da euquitea damu eta biotz min eguiazco bat, Jangoico ain ona ta maitegarria ofenditu dabelaco, proposituaz guero al daienean confesetaco; eta besteric ecin danean, au da asco salbetaco.

Erremedio au dauque ichasoan, bide bacar baten edo sacerdoteric ezta goan beste edoecin lecutan confesatu baga ilten <145> dirianac: contriciño eguiazcoa, biotzezco damua ta dolorea. Au dabe asco, baldin bear dan leguez ifinten badabe damu oso au; baña au bere ezta ain erraz eguiten celan batzuc uste daben: Jangoicoaren gracia, laguntza ta cia andiac bear dira acto contriciño oso eguiazco bat eguiteco; eta, beragaitic, izango da on, sarri contriciñozco eguicaiaic eguitea, lenagotic atara oitu ta ecandutea.

Penitencia oni, biotzezco damu oni, dolore oni dericha latinez *contritio a verbo contero*, ceñec esan gura dau zatitzea, puscatzea, samindutea; cergaitic ece becatuz arritu ta gogortu zan biotza, damuaz, doloreaz, erruquiaz ceatu, beraatu ta zatitzen da; eta Jangoicoaren laguntzaz euqui ta irabaci lei becatariric andienac demporaric laburrenean ta instanteric chiquienean. Ce-

- 15-41 *erdetsiteco*: leh. *erdetsituteco*.
 15-42 *buru itzultze bat* = GGero 196.
 15-42/43 *begui ichi-idiguite baten bitartea* < *begui herts-idequi baten bitartea* (GGero 196).
 15-43 *Jangoicoaren graciaz batera*: Añibarroren eransketa.
 15-43/48 *Becatu mortalean... au da asco salbetaco*: Añibarrok bere kasa laburtu eta aldatu du Axularren lerrokada eta erdi (GGero 196-197), dotrinaren aldetik askegia irudituz, nonbait. Jatorrizkoa hitzaurrean (§ 3.3) irakur daiteke.
 15-44 *al badedi*: adizki hau beste bi aldiz agertzen da, batean Axularren eraginez (9-237) eta bestean Añibarrok bere kabuz erabilia, jatorrizko *posible bada*-ren ordez (20-45. oh.). Bagenekien Mogel eta Astarloak oraindik erabiltzen zutela tankera honetako baldintza, baina Añibarrorengan jaso gabe zegoen (cf. *OEH*, s.v. 1 *ba*- I, 4), gramatika "futuro condicional" izenez (*GB* 21 eta 25) agertzen bada ere.
 15-47 *ofenditu*: leh. *ofendidu*.
 15-49/50 *ichasoan, bide bacar baten... edoecin lecutan* < *itsasoan edo handic campoan* (GGero 197).
 15-52/55 *baña au bere ezta ain erraz... oitu ta ecandutea*: Añibarroren eransketa.
 15-52 *erraz*: ondoan *nola*, ezabatua.
celan: leh. *nola*.
 15-53 *cia andiac*: aurrean *bita*] (*bitartetasuna?*), ezabatua; ik. § 5.1.1.1.
 15-57 *zatitzea, puscatzea, samindutea* < *chehatcea, çathitcea, porrosatcea* (GGero 197).
 15-57/58 *cergaitic ece*: oharkabean, zalantzarik gabe, *cergaitic ce*-ren ordez dago, agerraldi baskarra baita, dakidalarik, ez soilik hemen, baita Añibarroren idazlanetan oro har ere (ik. § 4.4.5).
 15-59 *Jangoicoaren laguntzaz*: Añibarroren eransketa.
 15-60 *becatariric andienac* < *nehorc* (GGero 197).

rren San Basilioc diñoan leguez (Orat. 4 de pœnit.): Penitenciaren indarra ta balioa borondatearen erabaguian dago, eta ez demporaren lucetasunean. Alan diño San Agustinec bere (in Enchirid. cap. 6): Penitencia eguitean, ezta aimbeste beguiratu bear demporaren neurria, celan dolorearena. Damu
65 eguiazcoac, biotz-biotzetic onduteac, garbai fin bero batec gueiago eguin lei dempora guichian, dolore nasai otz epelac dempora ascoan baño. Dolorea bear da neurtu ta consideratu, ta ez demporea. Au berau oraindiño adierazoten dau San Agustinec, esanic (Serm. 67 de tempor.): Penitencia ezta, ez, urteen contuaz eguiazcoa ta valioosa eguiten, ezpada biotz barruco doloreaz,
70 damuaz, erruquiaz, garbaiaz, atsecabeaz ta minaz.

Celan becatua arimetic quenduteco ta atarateco gauza bi bear dirian: bata Jangoicoaren aldetic, aren gracia ta laguntza; ta bestea guretic, gure naia, gura izatea ta borondatea; eta gauza guztioac, gure aldetic bear dirianac bere, ceintzuc Jangoicoac lagundu baga ecin eguin guiñeiz; alan Jangoicoac bere
75 gracia emotea, guc graciau artutea eta onezaz batean becatua quendutera prestatutea eguin ditequete <146> laburqui, eriotzaco azqueneco cabuan bere. Bada, becatu eguiteco asco dan leguez istante bat, asti ta dempora guichi bat, borondatezco gura izate bat; onela asco izango da, becatu a bera erremediatzeco bere puntu bat, istante bat, gogoa beste aldera itzultze bat ta irmetasunaz Jangoicoagaitic becatua larga ta ichite bat. Cerren misericordiosoago ta erruquiorra[go] da Jangoicoa, justiciatia baño: parca-
80 tzera prestago, macurtuago dago, castiguetara baño. Onela bada, eriotzaco cabuan, azqueneco orduan bere, eguin lei Jangoicoaren laguntzaz batean eguiazco penitencia, ta erdetsi becatuen parcaciñoa. Au eguia da, ta eguia onetan eztago dudaric, bada ezpadaric.
85

15-66 *ascoan*: ik. § 5.1.1.4.

15-73/74 *eta gauza guztioac... ecin eguin guiñeiz*: joskera ulergaitzeko perpausa, < *eta gauça hauc guztioac, are gure aldetic behar direnac ere, principalqui Iaincoac eguiten baititu* (GGero 198). Antza denez, Añibarrok erlatibozkotzat hartu du Axularren *baititu*, *Nola... bi gauça behar baitira*-rekin (> *Celan... gauza bi bear dirian*, 15-71) elkartuta zegoela ohartu gabe (ik. § 5.2.10).

15-76 *ditequete*: sic, *ditequez-en* ordez (cf. 10-13, 16-42, 28-90), < *ditezque* (GGero 199).

15-76/77 *eriotzaco azqueneco cabuan bere* < *heriotceco azquen articuluan* (GGero 199).

15-77 *asti*: ondoan *gu*] (*guichi?*), ezabatua.

15-78/79 *becatu a bera erremediatzeco bere*: jat. *becatu a bere erremediatzeco bere* (arg. zuz.), < *beccatu haren beraren erremediatceco ere* (GGero 199).

15-79 *gogoa beste aldera itzultze bat* < *gogoaren bertce aldera itçultce bat* (GGero 199); ik. § 5.2.2.

15-80 *becatua larga ta ichite bat* < *beccatuaren utzte bat, eta gaitceste bat* (GGero 199); ik. § 5.2.2.

15-81 *misericordiosoago ta erruquiorra[go] da* < *misericordiosago da* (GGero 199).

15-83 *eguin lei* < *eguin diteque* (GGero 199); ik. § 5.1.3.12.

2 §.

Bai, baña bada duda, ta duda andia, ea azqueneco ordu atan eguiazco penitenciaric, bear dan damuric izango dabenez becatariac. Autortuten deusut euqui leiela orduan bere. Baña contua da, ea izango dabenez. Eta ezta munduan, eriotzaco orduguiño becatuetan dagoanaren salbaciñoaz dudatuten eztabenic, segurutasunic emoten dabenic. Lenago bai, Escritura Santa ta Elessaco Doctore jaquintsu guztiac ain estu ta bildurquiro verba eguiten dabe orduco penitenciaz, ece dirudi aen esatez ta ustez eztala bat bere salbetan, ordura artean becatuan iraun dabenetatic.

90 San Mateo Evangelistac diño (14): Erregutu eguizue, eztedilla zuen iguesa jazo neguan edo zapatuan, cein orduan zan domeca. Cergaitic ce, ce-lan neguan dirian euriac, laprasturac, loiac ta lupetzac, ezta ona bidean ibil-teco. Eta jaiegunean bere eragotziric egoan bide luceac ibiltea, urrin joatea. Bada eriotzaco ordua da negua ta jaia. Da negua, guztia dagoalaco penaz, ne-
100 quez, eguitemoz betea. Da jaia, orduan lan bearrac ichi bear dirialaco, ta astegunetaco nequetaric atseguindu, ta aste guztico eguite <147> onez gozatu. Beraz, onela len bear da arerio gaistoen escuetatic igues eguin, ta ez orduguiño egon ta lucetu.

105 Soñeco jancierera barriac Pazcoaraco eguin gura dituenac, lenagotic bear dau prestatzen asi, lenagotic bear dau oiala ecarri, neurria artu ta jostera emon. Zoraqueria andia liteque gox beraguiño dendariari deitu baga ta beste gauzac zucendu, maneatu ta abiatu baga egotea. Bada eroqueria andiagoa da eriotzaco orduraño arimearen bicitzeaz ez conturic euquitea, ta uste zoro utsa euquitea ordu larri estu bildurgarri atan, ain dempora laburrean presta-
110 tu ta apainduco dala. Agatic Alexandro andiac bota eban soldadu bat bere la-

-
- 15-89 *contua*: ondoan *ta lan*, ezabatua; cf. *Ordea pontua da* (GGero 199).
Eta: ondoan *munduan*, ezabatua; cf. *Eta ezta munduan* (GGero 199).
- 15-91 *emoten*: leh. *emongo*; cf. *segurantçaric emaiten duenic* (GGero 199).
- 15-92 *bildurquiro* < *icigarriqui* (GGero 200); cf. *HH bildurquiro* “úmidamente”.
- 15-93/94 *ordura artean becatuan iraun dabenetatic*: Añibarroren eransketa. *becatuan*: aurrean *alan*, ezabatua.
- 15-96 *cein orduan zan domeca* < *cein baitcen orduan besta* (GGero 200).
- 15-97 *dirian*: leh. *dan*; *euriac*: leh. *euritsua*. Cf. *nola negua baita limburi, leun istilsu eta lohitsu* (GGero 200).
laprasturac: VB *laprasturia* (b.) “resbalón”.
lupetzac: jat. *lupepetzac* (arg. zuz.).
- 15-99 *Da*: aurrean *Negua*, ezabaturik; cf. *Negu, ceren...* (GGero 200).
- 15-107 *maneatu*: gaínean erantsia.
- 15-108 *arimearen bicitzeaz* < *arimaren beztitceaz* (GGero 200). Irakurketa hutsa, ziurrenik, bestela *janciaz* edo *jancieraz* itxarongo baikenuke.
- 15-109 *larri*: ondoan *atan*, ezabatua; cf. *herstura hartan* (GGero 200).
- 15-110 *soldadu*: aurrean *bere*, ezabatua; cf. *egotci çuen soldadu bat* (GGero 201).
- 15-110/111 *bere laguntzatic* < *bere compañiatc* (GGero 201).

guntzatic: cerren arerioac urreratu cirianean, pelea asi bear zanean, asi zan armac garbitzen ta prestatzen.

115 Dempora estua ta cereguin andicoa da eriotzaco dempora: gach da orduan eguiazco penitencia eguitea ta izatea, guztiz bere len debociñoan ecan-dutu eztanarentzat edo ordura artean beti gaistoa izan danarentzat.

120 Eta celan dan gach, errazoi ascogaz ontzatu edo probatu lei. Lenengoa: orduan munduco eguitecoac, cereguiñac, zor-artzeacoac, artu-emonac, seme-alabac, seiñac, ondocoac ta, guztiac baño gueiago, gaissoatasunac berac, orduco doloreac, neque-penac ta minac eragozgarri andiac ifinico deutsuez, nastu, samindu, zorabiatuco zaitue; ceri lotu eztaquizula, ceure buruaz ta eguin-bideaz azturic iminico zaitue.

125 Sucar edo calentura andi bategaz, inca edo alboco min bici andi bategaz edo beste gaissoatasun andi bategaz minduric zagozanean, dolore ac berac emoten deutsu cereguiñic asco, ezteutsu bestetan pensetaco bere astiric emoten.

130 Cer izango da, bada, dolore guztien gañeco doloreac, arimea gorputzetic aterateco asco danac, eriotzeac artzen zaituenean? Ce valentia, fanfarrerria ta gauza andi uste dozu eguitea orduan? <148> Eguiazco penitencia, izanic ain gauza andia, eguitecotsua, ta osasundunari bere lanic ta cereguinic asco emoten deutsana, gura dozu zuc danic demporaric estueneraco, gacheneraco, gaissooric zagozanaco, bai ta eriotzeco azquen orduraco lucetu?

Orretan adietan emoten dozu, eztozula iños bere penitenciaric eguin gura. Bada, osasuna dozunean, aala dozunean, eztozu eguiten. Alan diño

-
- 15-115 *eztanarentzat*: jat. *eztanerentzat* (arg. zuz.); cf. hurrengo oh.
danarentzat: leh. *danerentzat*.
- 15-116 *ontzatu edo probatu lei* <froga ahal diteque (GGero 201). VB *ontzatu* (c.) “abonar, dar por bueno” (<HH).
- 15-117 *zor-artzeacoac* <çor-hartcecoec (GGero 201).
- 15-118 *seiñac* < *sehiec* (GGero 201); bestetan (ik. *otseñai* 19-128 eta 19-168) ongi itzuli du (ik. § 5.3.4).
- 15-122 *inca edo alboco min bici andi bategaz* < *saihetseco punta batequin* (GGero 201). *alboco*: gainean, *saihetseco*-ren ordez. *bici*: gainean erantsia. *inca edo alboco min*: VB *inca*, *inquea* (b.), *alboco miña* (c.) “(dolor de) costado”.
- 15-123 *dolore ac berac*: ondoren Axularrek hau dakar: *are escapatcen çarenean ere* (GGero 201).
- 15-124 *asco*: aurrean *gueiago*, ezabatua; cf. *eguitecoric asco* (GGero 201).
- 15-127 *eriotzeac artzen zaituenean* < *heriotcecoac har çaitçanean* (GGero 201), hots, ‘heriotzeko doloreak’.
- 15-127/128 *Ce valentia... eguitea orduan?* < *Cer valentia eguin uste duçu çuc orduan?* (GGero 201). *fanfarrerria*: gainean erantsia; cf. VB *fanfarrerria* (c.) “fanfarria”, eta lehenago *pamparroitasun* (12-144).
- 15-131 *gaissooric zagozanaco* < *eri çareneco* (GGero 202); ik. § 5.1.1.9.
bai ta: aurrean *ta gueia*] (*gueiago?*), ezabatua; cf. *eta are* (GGero 202); ik. § 5.3.4.

135 doctore batec (Hugo, de sacram. p. 4, c. 5). Agaitic diño San Agustinec (serm. 17, ad fratr. in erem.): Bacochar bear dau ceimbat lasterren biurtu ta urtu Jangoicoagana al daguienean: Cerren al dabenean gura eztabenac, gura dabenean eztau al izango. Beintzat ifinten da ez izateco pelligruan.

140 Bada onela, len bait len prestatu ta abiatu bear da; bada bestela, gach izango da eriotzaco orduan, gaisotasunaz ta minaz astunduric, ganorabagueturic ta adore bago zagozanean, penitencia eguitea, bear dan gogo ta berotasunaz Jangoicoagana biurtzea ta emotea. Cerren orduan, dana dala, gaisotasunac emongo deutsu eguitecoric asco.

3 §.

145 Orrez gueiago, gach izango da eriotzaco orduan bear dan bidean penitencia eguitea. Cergaitic ce penitenciac, eta beste edocein obra onac bere, eguiazcoa ta baliocoa izateco, eguin bear da gogoz, amorez, borondatez, onez ta libertadeaz, eta ez premiaturic, ecinbestez edo bildurrez. Eta, barriz, azquen orduco penitenciac dirudi borondatearen contracoa, ecin gueiagocoa, nai ta nai ez eguina; ta ez bear dan lacoa, ta ez bear dan leguezco librea
150 ta borondatezcoa. Alan diño San Agustinec (serm. 57 de tempor.): Gaissoaren penitencia, penitencia gaissoa da: bildur nas il dedin, iltean baño eguiten ezтана.

155 <149> Eta David santuac diñonez (Psal. 6): Ezta iñorbere eriotzaco orduan Jangoicoaz gogoratzen. Baña, cer esan gura dau verba eguicune onec, ezтala iñor eriotzan Jangoicoaz gogoratu ta gomutatzen? Bada gu orduco esperanzac bici gaitu; ta esperanza onegaz eztoгу orduguiño gaistaqueria baño eguiten; eztoгу orduraño Jangoicoaren acorduric, gomuteric. Baña orduan,

-
- 15-134 *Hugo, de sacram...: Axularrek latinezko bertsioa baizik ez du ematen: Si non facis dum potes, manifeste ostendis quod non vis (Gero 202). Honegatik ez dago ezer hemen, baina gogoratu bestetan (0-14/15, 2-23, 3-73, 15-190/192, 16-66/67, etab.) Añibarrok latinezkoa itzuli duela.*
- 15-136/137 *gura dabenean < venturaz guero, nahia duenean (GGero 202).*
- 15-138 *len bait len < lehen (GGero 202).*
- 15-141 *Jangoicoagana biurtzea ta emotea < Iaincoari gomendatcea (GGero 202). dana dala < bertceac bertce direla (GGero 202); lehenago bertceac bertce kalkatu egin du (ik. 1-7. oh.).*
- 15-144 *Orrez gueiago < Are guehiago (GGero 203); ik. § 5.3.4. Orrez: leh. Orrezaz, nahiz Urquijok (1926: 520) bere hartan utzi; orrezaz ez da ezinezkoa (cf. 27-50), baina esapidea beti-beti orrez gueiago da testu honetan (cf. 11-312/313, 16-206, 17-20, 17-31, 17-61, etab.).*
- 15-149 *bear dan leguezco librea < behar beçain librea (GGero 203); ik. § 5.3.4.*
- 15-152 *ezтана: ondoan Axularrek hau dakar: Lehen behar da lehen eguin (GGero 203).*
- 15-156 *baño: jat. bano (arg. zuz.).*

160 danic gaistoenac bere asten dira concienciaco gauzai beguiratzen, bateri ta besteari parquesca ta, beste gauza guztiac ichiric, al guztiaz Jangoicoagan pensetan.

165 Au onela izanic, celan diteque eguia erregue Davidec diñoana, eztala iñor eriotzan Jangoicoaz gomutatzen? Ezta gach eranzutea. Cergaitic ce, batatz, len esan dan leguez, orduan gaissotasunac berac, gorputzeco gachac emoten deutso bacochari eguitecoric asco; eta barriz, bestea, cerren pelligrua dan, orduco gomutatzea ta gogoratutea, gomutatzen bada bere, ez gomutatzea leguez, bildurrezcoa ta nai ta naiezcoa izango dan, ta ez bear dan leguezcoa. Bada, San Agustinec diñonez (serm. 10 de sanct.): Bici izan dan artean Jangoicoaz azturic egon danac, mereci dau bera bere buruaz aztu dedin iltean; eta, gomutetan bada bere, ac gomuteac eztaguion ecer balio. Eta 170 irudi bere bau ezteutsela ecer baliatzen, bada gueienetan, alacoac igues eguiten dabenean gaissotasunetic, lenagoco becatuetara biurtzen oi da.

175 Onelacoaz verba eguiten dabela, David erregueac diño (psal. 65): Ceure bertutearen ascotasunean guzurra esango deusue ceure arerioac. Cer esan gure dau esaquera onegaz? Ara, irudintza oneecaz adituco dozue. Zaldun bic alcarren artean areriotasuna, gorrotoa, icusi ecina dabenean, ta alcar desafiaturic ta peleaco lecura deituric, comunqui sendoenac ta indartsuenac goiartuten dau bestea, azpiratuten dau, lurrera botaten dau, oñazpituten dau ta ezpateaz an bertan igaro gura dau. Orduan <150> lurrean datzanac, icusiric bere burua ta bicitzea ilteco zorian, pelligruan ta estura andian, dirautso

-
- 15-158/159 *bateri ta besteari < batari eta bertceari (GGero 204); cf. halaber 37-31 eta 46-239, baina batari eta besteari beste hainbeste aldiz erabiltzen du (ik. 4-68, 15-225, 15-261).*
- 15-164/167 *eta barriz... ez bear dan leguezcoa: Axularren esaldiaren kalkoa da: eta berriz bertcea, ceren peril baita, orduco orhoitcea, orhoitcen bada ere, ez orhoitcea beçala, veldurrezcoa, edo borchazcoa içanen den, eta ez behar beçalacoa (GGero 204); peril da esapidea ez du beti berdin itzuli: cf. guerta liteque (12-189) edo arriscuan dabil (37-32), baina baita pelligru da ere (15-268), esaterako.*
- 15-165 *ez: leh. ezta; cf. ez orhoitcea beçala (GGero 204).*
- 15-169/170 *Eta irudi bere bau < Eta iduri ere badu (GGero 204); cf. 1-82. oh.*
- 15-170 *baliatzen: leh. v-.*
- 15-171 *biurtzen oi da = GGero 204. oi: gainean erantsia; ik. § 5.1.3.13.*
- 15-173 *ascotasunean < multçutasunean (GGero 204).*
- 15-174 *gure: agerraldi bakarra, gura-ren orde; hutsa izan liteke, besterik gabe, baina cf. § 4.2.1. esaquera: aurrean esan on, ezabatua.*
- 15-176 *deituric: aurrean elduric, ezabatua; cf. combatera eta gudura deituric (GGero 205). Ondoan Axularrek colpeca hasten direnean dakar, Añibarrok alde batera utzia. sendoenac ta indartsuenac < sendoenac edo antçatsuenac (GGero 205).*
- 15-178/179 *icusiric bere burua... estura andian < herstura handian baitago (GGero 205); ik. § 5.1.2.5.*

180 bere arerioari: Ai, jauna, erregutzen deusut, arren bada, parcatu daguidazula, bicitzea quendu eztaguidazula, euqui daguizula nire erruquia.

Orainche dazaut zugaz deunguero eguin dodala, uts eguin dodala, dolloweriaz portatu nasala; baña verbea emoten deusut, emendic aurrera zure servitzaria izango nasala. Onela humiltasunaz verba eguiten deutso; 185 onela erregututen deutso. Eta besteari, ustezco erregu erruquigarrioc enzunic, biotza austen jaco, erruquitzen jaco, parcatuten deutso, ichiten deutso jaguitera. Baña jagui ta bertatic, emon dituen promesaz ta eguin jacan mese-deaz contu guichi eguinic, bere lengo gorrotora ta areriotasunera biurtzen da. Onelacoari bere arerioaren indarrac, nagusitasunac ta gueiago al izateac guzurra esan eraguin deutso, ta promesarazo cumplitzen eztabena. Bada orre- 190 gaitic diño David[ec]: Ceure vertutearen ascotasunean guzurra esango deusue ceure arerioac.

Alan, gaisso batec bere gaisotasunean ta marinalac ichasoco ecachetan estu-estuan dabiltzenean, promes asco eder eguiten dabe, santutu, ondu ta 195 obetuteco gogoa artzen dabe, debociño vici eguiazco bat eracusten dabe. Baña, au guztiau bildurrez eguiten daben leguez, gaisotasuna, ecacha, esturea, pelligrua igaroten danean, joan zan aen devociñoa, ausi cirian aen esquentzac; ta, deunguego dana, andic ara len baño gaistoago eguiten dira. Onelacoai gaisotasunaren ta pelligruaren indarrac guzurra esan erazoten 200 deutse, ta promesa erazo cumplitzen eztabena.

-
- 15-180 *deusut*: jat. *deusuc* (arg. zuz.).
 15-181 *bicitzea quendu eztaguidazula* < *bicia indaçu* (GGero 205).
euqui daguizula nire erruquia: Añibaroren eransketa.
 15-182/183 *Orainche dazaut... portatu nasala* < *Eçagutcen dut orainocoan çure alderacoçat faltatu dudala, gaizqui eguin dudala* (GGero 205); ik. § 5.1.3.7.
 15-184 *humiltasunaz*: Añibaroren eransketa.
 15-185 *ustezco erregu erruquigarrioc* < *othoitz hauc* (GGero 205). *erregu*: leh. *erreguoc*.
 15-187 *emon dituen promesaz* < *eman duen promesaz* (GGero 205); ik. § 5.1.1.10.
 15-190 *cumplitzen*: jat. *cumplintzen* (arg. zuz.).
 15-190/192 *Bada... ceure arerioac*: Axularrek latinez bakarrik: *In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui* (GGero 205).
 15-193 *marinalac*: cf. halaber 23-31 eta 47-109, < *marinel tormentatuec* (GGero 205).
ichasoco ecachetan < *bere tormentetan* (GGero 205).
 15-194 *estu-estuan dabiltzenean*: Añibaroren eransketa.
promes asco eder < *anhitz promes eder* (GGero 205); *promes eder asco* behar luke, noski; ik. § 5.1.2.7.
 15-197/198 *ausi cirian aen esquentzac*: Añibaroren eransketa.
 15-198 *deunguego*: ik. 14-23. oh.
len baño gaistoago eguiten dira < *lehen beçain gaixto, edo gaixtoago eguiten dira* (GGero 206); ik. § 5.3.4.
 15-200 *promesa erazo*: *eraguin-en ordeç* (ik. § 4.4.2), < *prometa araci* (GGero 206).

205 Carcelan edo presondeguian dagoanac eguiten daben ordenuac ta testamentuac ezabela ecer valio diño legueac (ff. de eo qui metu). Alan bada, eztabe asco valioco gaissotasunean ta eriotzaren carcelan ta esturan dagoanac gura ta gurez, ecin gueiagoan, azalezco nai bategaz eguiten dituzan promesac ta penitenciac bere. Cerren <151> oneec guztioac dirudie diriala borondate бага eguiñac, ta ez amorioz ta biotzez.

4 §.

210 Antioco erregue gaistoagaitic diño Escritura Santeac (2 Macab.) eriotzaco ordura eldu zanean, damu andi bat eracutsi ebala, promesa ta esquentza eder asco eguin cituala; aimbat ece cirudian santu bat bere verbetan; bada, santu balitzan leguez, ciñoan beste gauza ascoren artean: Justua ta errazoizcoa da Jangoicoaren mendearen azpian egotea; eta guizonac Jangoicoaz bardin bere burua ez euquitea.

215 Eta, orrez guztiaz, onela verbatuten bazan bere, diño Escritura santa berac lecu berean: Gaisto au erreguca egocan Jangoicoari, baña alperric, bada ez egoan parcamena erdetsiteco demporan. Cerren erregu oc ta Jangoicoaz gogoratute au eriotzaren bildurrac eraguin ta erasoten eutsazan. Onen ganean diño Soto jaquindunac (4. sentent. d. 15, q. 3, a. 6): Ez eban Antioco erregueac parcamenduric erdetsi, cergaitic ce ez eban bear zan demporan penitenciaric eguin. Baña ac bere azquenean eguin eban abiatzea ta
220 penitenciaren irudipena ifinten jacu gueure beguien aurrean adibidetzat ta

-
- 15-202 *ff. de eo qui metu < ff. de eo qui merus lausa l. qui in carcere (GGero 206, in m. = Gero), cf. ...qui metus causa legat in carcere (Villasantek zuzendua eta osatua, 1976: 231).*
- 15-202/203 *eztabe asco valioco < eztu deus valioco (GGero 206).*
- 15-203 *gaissotasunean ta eriotzaren carcelan < eritasunaren eta heriotcearen garcelean (GGero 206).*
- 15-204 *gura ta gurez... azalezco nai bategaz: Añibaroren eransketa.*
- 15-206 *biotzez: jat. biotzec (arg. zuz.).*
- 15-212 *Jangoicoaren mendearen azpian egotea < Iaincoari errendaturic egoitea (GGero 206); cf. HH zure mendearen azpian “debaxo de tu protección, dominio, &c.”.*
- 15-214 *santa: leh. santeac; cf. escritura sainduac berac (GGero 206); ik. § 5.1.2.3.*
- 15-215 *berean: aurrean baten, ezabatua, < berean (GGero 207). Jangoicoari: jat. Jangoicoaren (arg. zuz.); adizkiak ez du dudarik uzten, eta cf. othoitzez cegocan Iaincoari (GGero 207), baina aitortu behar da oso huts berezia dela, agian kopia-lan itsuan baino azal ezin daitekeena.*
- 15-216 *erregu oc < othoitze hec (GGero 207).*
- 15-216/217 *Jangoicoaz gogoratute au < Iaincoaz orhoitze hec (GGero 207); ik. § 5.2.2. au: leh. onec; ondoan bildurrac, ezabatua.*
- 15-217 *erasoten: esanarazten (cf. OEH, s.v. 2 eraso).*
- 15-220 *eban: leh. cituzan.*
- 15-221 *abiatzea < enseiua (GGero 207); ik. 6-122/123. oh. penitenciaren irudipena < penitencia itchurapena (GGero 207).*

- espillutzat, jaquin daguigun gaissotasunaren ta eriotzaren estutasunetic sor-
tzen dan penitencia, ascotan dala utsa, alperra, guzurtia ta balio guichicoa.
Dacutsunean bere dempora guztian gaistoa izan dan bat, gaissotu danean eta
225 ia iltera doianean, asten dala batari ta besteari parquesca, bacochari berea
biurtzen, bere ondasunac zatitzen eta arrausi andi batzucac beguiac Cerura
irulten, Jangoicoari esquentzen, ez eguizu, ez, orregaitic uste izan, seguru ta
ciur-ciur dabela alacoac bere salvaciñoa. <152> Lenagotic lenagotic, gais-
sotu baño len ta eriotzaco estura baño len bear da larga becatua ta gauza one-
230 tara emon. Bada bestela, gaissotu ezquerozco debociñoan eztago cer fiatu,
ez da segurantzatic. Eriotzaco debociñoa gueienetan eriotzaren bildurretic
erne, jaio, sortu ta elduten da, ta ez Jangoicoaren maitetasunetic. Gaissotu ta
chartu ezpaciña lengo otzaran, echaguntzan ta bici lecuan egongo cinian.
- Baldin lenagotic, gaissotu baño len, becatua ichiten badozu, gogo óna
235 artzen bozu ta al baitenez ceure lenagoco uts eguiteac sendatzen zabiltzane-
an eriotzeac artzen bazaitu, jaquin eguizu orduan, munduco becatariric an-
diena izan bazara bere, salbatzeco bidean zagozala, ta salbatzeco esperanza
andi bat euqui ciñaiquela.
- Baña bestela, Jangoicoac gorde zaizala, becatuan ta becatu eguiteco go-
240 goan ta borondatean zabiltzala, ceure azqueneco gaissotasunac idoroten ba-

-
- 15-222 *gaissotasunaren*: aurrean *eriotzaren*, ezabatua; cf. *eritasunaren eta heriotcearen* (GGero 207).
- 15-225 *ia iltera doianean < ia hiltcera etsitu duenean* (GGero 207).
- 15-225/226 *bacochari berea biurtzen*: Añibarroren eransketa.
- 15-226 *arrausi < hatsbeherapen* (GGero 207); ik. 8-199. oh.
- 15-226/227 *Cerura irulten < cerura irauliric* (GGero 207). Axularren perpausac ñabardura gehia-
go ditu.
- 15-228 *Lenagotic lenagotic < Aitcineitic, aiticineitic* (GGero 207).
- 15-229 *becatua*: leh. *pecatua*.
- 15-230 *gaissotu ezquerozco < erituz guerozco* (GGero 208).
- 15-231 *Eriotzaco debociñoa < Eritasuneco debocinoa* (GGero 208).
- 15-232 *erne, jaio, sortu ta elduten da < heldu da 'dator'* (GGero 208); ik. § 5.3.4.
Jangoicoaren maitetasunetic < Iaincoaganaco amoriotic (GGero 208); cf. ordea -ga-
naco (31-106 eta 45-43, adib.).
- 15-233 *lengo otzaran, echaguntzan ta bici lecuan < lehen beçala, ceure leheneco beccatuen*
chisteran, etçauntçan eta toquian (GGero 208). *echaguntzan*: aurrean *bici]* (*bicile-*
cuan?), ezabatua. *otzaran*: *chistera* berak ezagutzen zuen adieraren arabera itzuli
du: cf. *VB otzarea* (b.), *cestera* (n.) “banasta”; ik. § 5.3.4.
- 15-234 *ichiten*: jat. *echiten* (arg. zuz.).
- 15-235 *sendatzen*: ondoan *asten bazara*, ezabatua; cf. *erremediatcen hari çarela* (GGero
208); ik. § 5.3.4.
- 15-236 *eriotzeac < ceure azquen eritasunac* (GGero 208).
- 15-239/240 *gogoan*: ondoan *zabiltzala*, ezabatua; cf. *gogoan eta vorondatean çaudela* (GGero 208).
- 15-240 *idoroten*: gainean, *artzen-en ordez*; cf. *Iaincoac beguira çaitçala... ceure azquen eri-*
tasunac edireitetic (GGero 208).

zaitu. Bada, baldin onelaco egoeran arkitzen bazaitu, pelligruzcoac dira zure ondorengo confeseteac, erruquimenduac, debociñoac ta eguiten dozu-zan beste onelaco eguicaiac bere, guztiz guichi balio eztaguien, indar guichicoac izan eztecen.

- 245 Eztot neure burutic verba eguiten; alan diño San Agustin batec (Homil. 41, de vera et fals. pœnit.): Osasuna dabela, bere becatuac confesatu ta penitencia eguiten dabena[c] eta andic aurrera ondo bici dana[c], ondo ta seguru urteten dau emendic. Baña bere azqueneraco ta azqueneco gaissotasuneraco gauza oneec eguitera ichadoten dabena[c], ez nas seguru, ez nago
- 250 ciur, ea ondo ta seguru urteten dabenez. Seguru nagoanean, esaten dot seguru nagoala; eta ez nasanean, ez nasala. Esan nei orduan bere <153> eguin leiela penitencia, baña ecin emon nei ciurtasunic. Eztiñot condenatuco dala; eta ez salvatuco dala bere. Ez nas fiatuten, ez nago seguru, eztaquit. Onela verba eguiten dau San Agustinec. Eta oraindiño esaten dau gueiago bere:
- 255 Nazu, diño, dudatic urten? Gurozu seguruan jocatu? Eguizu penitencia sendo zagozanean; ichi eguizu becatua larga al dozunean. Bada bestela, baldin zuc eguin gura badozu penitencia gaissorric zagozanean, iltera zoazanean; becatua bere ichiten badozu ecin eguin dozunean; eztozuz zuc orduan ichiten becatuac, ezpada becatuac zu ichiten zaituce.

-
- 15-241 *pelligruzcoac dira*: leh. *pelligruzcoa da*, < *peril da* (GGero 208). Gaizki ulertze honek kolokan uzten du gainerakoaren joskera, jatorrizkoan subjuntiboak (*balio eztaguien eta izan ezteceen*, 15-243/244) *peril da*-ren mendean baitaude; esapide honetaz, ik. 15-164/167. oh.
- 15-242 *erruquimenduac*: leh. *erruquitasunac*, < *urriquimenduac* (GGero 208).
- 15-243 *guztiz guichi* < *deus guti* (GGero 208).
- 15-247 *dabena[c]*: ergatiboa izan behar zuen letra ezabatuta dago, oharkabeen. Cf. ondoko bi aditzak ere: guztietan Axularrek nominatiboa dakar, *ilqui* aditzari dagokionez (GGero 209).
- andic aurrera* < *handic harat* (GGero 209); ik. § 5.3.3.
- 15-249 *dabena[c]*: hemen ere ergatiboa nato baten azpian ezkutatuta dagoke.
- 15-250/251 *nagoanean... nagoala; ...nasanean, ez nasala* < *naicenean... naicela, eta ez naicenean, ez naicela* (GGero 209); ik. § 5.5.1.
- 15-252 *nei*: jat. *nai* (arg. zuz.).
- ciurtasunic*: *aurrean seguru*] (*segurutasunic?*), ezabatua, < *segurantçaric* (GGero 209).
- 15-255 *Nazu...? Gurozu...? < Nahi duçu...? Nahi duçu...?* (GGero 209); ik. § 5.5.1. Cf. *VB nazu, gurozu* (b.) “quíéslo” (s.v. *querer*), eta gogora dezagun *nazu* jadanik *RS* 113n lekukotuta dagoela (cf. *OEH*, s.v. *nahi izan*, 682. or.).
- 15-256 *larga*: *aurrean al d]* (*al dozunean?*), ezabatua; cf. *Eguiçu penitencia sendo çareño, beccatu ere ahal daidiçuiño* (GGero 209).
- 15-259 *zaituce*: ‘haiek zu’, baina *bazaituce* ‘haiek zuek’ (43-258); ia beti *zaitue* erabiltzen du, gramatikan dioenari jarraiki (*GB* 31-32), bai ‘haiek zu’ (7-91, 15-120), bai ‘hark zuek’ (20-112) adierazteko, baina hasiera aldera *zaituez* ‘haiek zu’ (10-52) eta ‘haiek zuek’ (1-97) aurkitzen da, eta pasarte batean baita *zaituzte* ere bi aldiz (19-256 eta 19-261), beti ‘haiek zu’ adieran, jakina. Ik. § 4.3.10.2.

- 260 Ce esquer edo merecimendu uste dozu izango dozula, ia ecin gueiago ciñeieanean ta iltera zoazanean, tratu gaistoac ichiteaz, batari ta besteari ceure ondasunac ichiteaz ta zatitzeaz? Bada ecin eroan daiquezuz. Baldin gauza on guzti orreec eguin bacenduz osasuna cenduanean ta ceure burua alan oneraco cein gaistoraco ceure naiguran cenduanean, dirudi indar gueiago euqui[co] ebéla, baliosoagoac izan[go] ciriala, segurutasun andi bat emon[go] eutsuela ta zugaz ondo joango zala. Baña ceure azquen ondarrean, ia ecin gueiago iraun ciñeieela icusiric ta estuturic eguiten dozun obra onean ta penitencian, ezta cer lar fiatu. Bada pelligru da orduco obra on á ta penitencia izan eztidin bear litequen cindoa ta eguiazcoa.
- 270 Ezpedi, bada, iñor egon penitenciaric eguin бага ta becatuac ichi бага ecin daiquean demporaguño; eguin begui bacoachac berari dagocana bere borondatearen jabe dan artean, demporaz, orduz ta gox. Bada, San Agustinec diñoanez (de vera et fals pœnit.): Asco engañatu ditu arrasteguico erruquimenduac, penitencia belucoac, damu beranducorrac.
- 275 Arbola batzuc dagoz udaren azquenean, demporatic campora <154> asten dirianac loratuten edo bigarrenez loratzen. Baña lora aetatic guichi lora-

-
- 15-260/261 *ciñeieanean*: leh. *ciñeieanean*; cf. *ia ecin guehiago daidiçunean* (GGero 210).
- 15-261 *iltera zoazanean* < *hiltcera etsitu duçunean* (GGero 210); cf. 15-225. oh. *tratu*: jat. *tralu* (arg. zuz.).
ceure: *aurrean ond*] (*ondasunac*?), ezabatua; cf. *ceure onen hutzteaz* (GGero 210).
- 15-264 *cein*: *gainean*, *celan*-en orde; cf. *hala oneco*, *nola gaixtoco* (GGero 210). Idazlan honetan askoz maizago aurkitzen da *alan... celan...* egitura (ik. 7-72, 35-61, 41-59/60, 52-84, etab.), *alan... cein...* baino (hemengoaz gainera, 8-82 bakarrik), baina kontuan har bedi biak direla tradiziokoak bizkaierazko literaturan (ik. *OEH*, ALAN... ZELAN, s.v. *hala*).
cenduanean: *aurrean ceuncazanean*, ezabatua; cf. *cenduenean* (GGero 210); ik. § 5.1.3.9.
- 15-264/266 *euqui[co] ebéla... izan[go] ciriala... emon[go] eutsuela ta zugaz ondo joango zala*: lehenengo bi aditzak leh. *euquico* eta *izango* ziren, nahasteren bategatik Añibarrok berariaz zuzenduak. Axularrek, noski, *içanen çutela... içanen cirela... emanen ceratçutela... ioanen cela dakar* (GGero 210).
- 15-268 *pelligru da* < *peril baita* (GGero 210); ik. 15-164/167. oh.
on á: leh. *ona*; cf. *obra on hura* (GGero 210).
- 15-269 *bear litequen cindoa ta eguiazcoa* < *behar beçain fin eta eguiazco* (GGero 210); ik. § 5.3.4.
- 15-271 *demporaguño*: Axularrek hauxe gaineratzen du: *eztagoela bortcharen beguira* (GGero 210).
- 15-273 *engañatu*: jat. *enganatu* (arg. zuz.); cf. *enganatcen ohi du* (GGero 210) vs *engañatu* (2-121, 4-173, 10-86, etab.).
- 15-274 *penitencia belucoac*, *damu beranducorrac* < *penitencia berancorrac* (GGero 211).
- 15-275 *Arbola batzuc dagoz*: *aurrean Badira*, ezabatua, eta *dagoz* *gainean erantsia*, < *Badira çuhaitz batçuc* (GGero 211); ik. § 5.1.3.8.
udaren azquenean < *udaren finean* (GGero 211).
- 15-276 *bigarrenez loratzen* < *bir-loratcen* (GGero 211).
- 15-276/277 *loratu* < *lotcen* (GGero 211). Gaizki irakurria?

tu ta guelditzen oi dira: guichi eldu, eransi, oratu ta frutatuten dira; noc celan eztaquiala, igartu, cimeldu ta galdu oi dira. Alan, bada, dira bere vicitzaren azquenean, gaissotasunean ta iltean, deseo onez betetzen asten dirianac
 280 bere. Orduco deseoac, nai izateac, gurariac neguco lorac dira, dempora charrecoac, artu, oratu, eransibagueac, fruturic eztacardenac, deseo bacar utsetan igartu, macaldu ta amatetan dirianac.

5 §.

Faraon erregueac, Israeleco semeen atzean, eurac ilteco gogoaz, joan zanean, icusiric urac beragana cetozala, esan eban (Exod. 14): Igues eguin duguigun, biurtu gaitezcan atzera, eztaguigun gura dogunic; cerren Jangoicoa euren aldetic dabe gendeoc. Abiatu zan, bada, atzera, emon eban iguesari, baña alperric, berandu gomutatu zan; Faraon arin, agudo, prest ebillan, baña urac lasterrago; an bere lagun guztiacaz ito ta ondatu zan. Alan jazoten jaque, bada, gueienetan gueienai, eriotzaco orduan euren gaistaquerietatic
 290 atzera biurtu ta igues eguin gura dabenai. Abiatu ta asten dira, eguiten dituez aleguin batzuc, baña ez asco, ez bear dirianac, ezpada otz epelac, argal erbalac, eta onela artzen ditue eriotzaco ur corrontac.

Joab eta Abner capitai biac guerra andi bat cerebillen alcarren artean. Eta
 295 azquenean, icusiric Abnerec deunguero joacola, venzutu urrean zala, esan eutsan Joab bere arerioari (2 Reg. 2): Cer da au, Joab capitai famaduna? Ce-

-
- 15-277 *guelditzen oi dira* < *eratchequitcen ohi da* (GGero 211). *oi*: gainean erantsia; ik. § 5.1.3.13.
guichi eldu: aurrean *aetatic*, ezabatua; cf. *hequen fruitutic guti umotcen eta ontcen da* (GGero 211).
eransi, oratu: gainean erantsiak; berez aurreko perpausari hobeto dagozkio (cf. 15-276/277. oh.).
- 15-279 *azquenean... iltean*: bi hitz hauen ondoan *bere*, bietan ezabatua; cf. *bere adinaren finean, eritasunean eta hiltceracoan* (GGero 211).
- 15-281 *artu, oratu*: biak gainean erantsiak; cf. *eratchequi gabe* (GGero 211).
- 15-285 *beragana*: leh. *beregana*.
- 15-286 *eztaguigun gura dogunic* < *eztaidiquegu nahi dugunic* (GGero 211). Añibarrok aurreko aditzen arabera (*daguigun, bihur gaitecin*), aginterazkotzat hartu du.
- 15-287 *emon eban iguesari* < *eman cioen ihesari* (GGero 211); datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).
- 15-288 *alperric* < *alferric, probetchu gutitan* (GGero 211).
- 15-290 *gueienai*: Añibarroren eransketa.
- 15-291 *atzera biurtu*: leh. *atzeratu*-edo, < *guibelat bihurtu* (GGero 212).
- 15-292 *aleguin batzuc* < *cenbait enseiu* (GGero 212).
- 15-294 *cerebillen* < *erabili çuten* (GGero 212); cf. *erabillén* (49-10/11), *erabilleen* (GB 48) eta ik. § 5.1.3.4.
- 15-295 *joacola*: leh. *joacala*; Urquijok (1926: 524) *joacoala* irakurketa ezinezkoa demaigu. *venzutu urrean zala* < *vençutu hurran cela* (GGero 212); ik. § 5.3.4.

ren billa ta cer eguiteco gogo ta asmo artu dozu? Acabatu gura ete nozu? Asco eguin dozu, ni baño gueiago zara, ichi eguidazu bicitzea. Orduan eran-
 zun eutsan Joabec: Eguiaz dirautsut ece, baldin goxean verba eguin baceus-
 300 tan, gentea zabalduco zala, baquean guztia gueldituco zala, ta enzuna izan-
 go ciniala. Esan baleutso leguez: Eta cer? egun guztian, orain artean ene
 contra ibilli zara, atan ceure soldaduac, ceure indarrac, al ta asmo guztia
 emon dozuz; eta guero orain arratsaldean, <155> ia artua zagozanean, gueia-
 305 go ecin dozunean, gura dozu baquetu ta adisquidetu? Bada ez, ez: belu da,
 berandu da, ezta orain dempora, alperric verba eguiten dozu; orain ene aldia
 da, len zurea zan leguez. Orra emen non dozun arguiro adierazoric, becatari
 bati, bere vicitza guztian becatuetan Jangoicoaren contra guerran ibilliric,
 eriotzaco orduan, ia jausi danean, Jangoicoaz guertatzen jacona.

Alacoari ta alacoai esango deutse Jangoicoac, Abimelec erregueari ta be-
 310 ragaz cirian lagunai Isac patriarcac edo aitaurrenac esan eutseena (Genes
 26): Cetara etorri zara orain nigana, len icusi ecinic, gorrotaturic ta zuganic
 botaric erabilli dozun guizon bategana? Alangoai esango deutse Evangelio-
 co bost virgiña nagui alperrai esan jaquena (Math. 25): Zoace, quendu zai-
 tece ortic, etzaituedaz ezagututen. Ichi da atea; ezta idiguiteric; berandu za-
 315 toce ta ordu charrean. Alacoai esango deutse: Zuec al izan dozuenean,
 etzenduen onic eguin gura izan; cegaitic bada orain, ecin dozuenean, nic zuei
 jaramongo deusuet? Azquenez esango deutse: Non dira orainguiño serbitu
 dozuezan jaunac, ugazabac, nagusiac, jabeac? Maitetu dozuezan becatuac,
 atseguintasunac, olgurac ta gaistaqueric? (Deut. 32). Zoace aetara, aec la-
 320 gundu daiezuela, ta ichi naguizue ni orain bere, orainguiño ichi, aztu, oñaz-
 pitu, despreciatu nozuen leguez. Compon zaitece, balia zaitece aezaz. Zuec
 len eguiten ceusten barre ta burla; alan bada, aldiz, nic bere orain eguiten dot
 zuecaz. Zuen eriotzan barre eguingo dot.

-
- 15-297 *ete*: gainean, *al*-en ordez; cf. *Accabatu nahi othe gaituçu?* (GGero 212).
 15-300 *baquean guztia gueldituco zala*: Añibarroren eransketa.
 15-302 *indarrac*: aurrean *al*, ezabatua.
 15-304 *baquetu ta*: ta gainean erantsia; cf. *baquetu eta adisquidetu* (GGero 212).
 15-307 *ibilliric*: aurrean *eguiten*, ezabatua.
 15-311 *gorrotaturic*: jat. *gorrataturic* (arg. zuz.).
 15-312 *Alangoai*: jat. *Alangoai* (arg. zuz.).
 15-316 *nic*: aurrean *jaramon*, ezabatua; cf. *eguin behar deratsuet nic çuey?* (GGero 213).
 15-317 *serbitu*: aurrean *maitetu ta*, ezabatua, < *cerbitçatu* (GGero 213).
 15-318 *jaunac*: ondoan *eta*, ezabatua; cf. *iaunac eta nabusiatic* (GGero 213).
 15-321 *Compon*: aurrean *Zuec*, ezabatua. Hurrengo perpausaren hasiera bera da, zeren eta
 Compon zaitece, balia zaitece aezaz Añibarroren eransketa baita.
 15-322 *barre ta*: ta gainean erantsia.
 15-323 *Zuen eriotzan barre eguingo dot* < *Ego quoque in interitu vestro ridebo* (GGero 213).

325 Onela esango deutse, eriotzaco orduguiño becatuetan ibilliric, ordu atan euren becatuac erremediatu gura dituezanai penitencia guzurti bategaz. Eta errazoi az onela esango deusé: bada orduan gura ta gurez, ta ecinbestez datoz atara; eta nai ta naiezco eguite onac guztiz guichi balio dabe.

330 <156> Onelacoac gura dabe bici dirañõ deabrua serbietan egon; guero, barriz, ilteracoan Jangoi[co]agana aldatu. Baña ori da leguearen contra, curren legueac diño (Leg. si plures in ff. nov. lib. 5): Arbola bat bere dempora guztian bere ondo ta sustraiz zure ortuan edo lurrean egon dana, azquenean besteren ortu edo lurrera macurtuagaitic; eta ebaguiten dabenean besteren lur artara jausiagaitic, zurea izango dala, ta ez jausiric datzaneco lurreco jabearena. Alan, bici dan artean deabruaren servitzuan sustraiac eguinic egon
335 dana bere, izan daroa gueienetan deabruarena, ta ez Jangoicoarena, orduan beragana macurtuteagaitic.

340 Eta arech bat zutic eta õnean dagoanean, macurturic dagoan aldera jausi oi dan leguez ebaguiten dabenean, alan zu bere, bici zorean artean nora zagozan macurtua, ara jausico zara ilten zareanean. Eztozu, bada, uste izan bear, ez jatzu iruditu bear, baldin bicitzan sendo, indartsu ta osasunaz zagozanean, ezquerrera macurtua ta alderditua bazagoz, guero gaissotasunean ta eriotzan escoatara biurtu, jarri, macurtu ta zucenduco zareala. Bicitzeari darraio eriotzeac: nolaco bicitza, alaco eriotza.

345 Ur guztiaç urteten dabe ichasotic. Iturriac, erretenac, errecac, ibai guztiaç dauque ama bat. Baña, orrez guztiaç, ur aetatic batzuc dira gaciaç, guesalac, beste batzuc gazac; batzuc gogor astunac, beste batzuc bigun arinac. Eta erra-

-
- 15-325 *euren*: gainean, *bere*-ren ordeç (= *GGero* 213); ik. § 5.1.2.4.
penitencia guzurti bategaz: Añibarroren eransketa.
- 15-326 *gura*: *aurrean nai*, ezabatua; hurrengo lerroan *nai ta naiezco* (cf. halaber 13-114, 18-142, 46-200/201, etab.); Axularrek *bortchaz eta ecinbercez* dio lehen zatian, eta *borchazco* bigarreanean (*GGero* 214).
- 15-327 *guztiz guichi* < *deus guti* (*GGero* 214); cf. halaber 15-243. oh.
- 15-328 *dirañõ* < *direiño* (*GGero* 214); ik. § 5.2.13.
- 15-329 *ilteracoan*: leh. *iltecoan*, < *hiliceracoan* (*GGero* 214); ik. § 5.2.12.
- 15-333 *lur artara*: leh. *lurrera*, < *lur hartara* (*GGero* 214).
- 15-333/334 *datzaneco*: *aurrean dag*] (*dagoaneco?*), ezabatua, < *datçaneco* (*GGero* 214).
- 15-334 *lurreco jabearena* < *lurraren iabearen* (*GGero* 214); ik. § 5.1.1.8.
- 15-334 *Alan*: ondoan *izan oi da gueienetan daroa, bada, gueienetan*, ezabatua. Ahaleginok Axularren ordenaren arabekoak dira: cf. *Hala comunzqui içanen da, bada halaber, bici deiño...* (*GGero* 214).
- 15-335 *izan daroa*: *izan doa*-ren ordeç, < *içanen da* (*GGero* 214); ik. § 4.3.10.6.
- 15-340 *iruditu*: leh. *irudi*; cf. *ezaquičula iduri* (*GGero* 214).
- indartsu*: jat. *indartsun* (arg. zuz.).
- 15-341 *macurtua ta alderditua* = *GGero* 214.
- 15-344/345 *Iturriac... dauque ama bat*: Añibarroren eransketa. *erretenac*: gainean erantsia.
- 15-345 *guesalac*: gainean erantsia; cf. *batçuc dira gaci* (*GGero* 215).
- 15-346 *gazac* < *gueça* (*GGero* 215).

zoia da, cergaitic ce, celacoa dan lurra nondic igaroten dan ura, alaco gustua oratuten jaco urari. Lurrac gozotasuna edo a baguetasuna emoten deutso. Lurrac ondu edo deunguetuten dau. Alan eriotzea bere, celan bicitzatic igaroten dan, bicitzeac ondu edo gaistotuten dau. Celacoa dan eoten dan euna, miesea ta oiala, alacoa izango da oialaren albiñua, ertza ta cabuco altsiac bere. Bada onela, celangoa dan bicitza, alangoa izango da bardin bicitzaren <157> ertza, marra, bazterra, azquena, ondoa ta cabua, cein dan eriotzea. Ondo bici dana, ondo il daroa; donguero bici dana, deunguero il oi da.

355 6 §.

Jazo diteque, guerta ta icusi diteque Jangoicoaren secretu estalduz ta ordenamendu veneragarriz, ondo bici izan dana deunguero iltea, azquenean becatuari lecu emon ta galtzera etortea, ontzi bat orduguiño ondo ibilliric, portuan sartzean galduten dan leguez. Bai ta guerta diteque bere bicitza guztian gaistoa izan dana, azquenean ondu ta salbetea, Dimas lapur santua leguez. Baña onelacoric orainguiño guichitan jazo da, eta menturaz ezta secula guertatuco. Gueienetan, edo beti, ondo bici dana ondo ilten da; eta deunguero bici izan dana donguero ilten da. Au da bide arteza, erreala, zuzena ta segurua. Beste guztiac dira bide cearrac, estuac, gachac, ondamentiac, galdugarriac, utscorrac, laban-laprastgarriac ta pelligruz beteac.

San Agustinec diño (de discipl. christian. lib. unic.): Deunguero iltearen bildur zara, ta ez deunguero bicitearena. Bada ecin deunguero il leiteque ondo bici izan dana. Eta jaquiteco au alan dala, bago señale andi bat. Bada,

- 15-347 *alaco gustua*: jat. *alacoa gustua* (arg. zuz.); cf. *halaco guerthatcen baita ura ere* (GGero 215).
- 15-348 *baguetasuna*: jat. *beguetasuna* (arg. zuz.).
- 15-350 *eoten dan euna < cheiten [sic] den ehuna* (GGero 215) < *ehaiten* (Gero 215). Añibarrok ongi itzuli arren, ez da hortik atera behar nahitaez hutsaz ohartu zenik, Larramendik ere ongi itzuli baitzuen, nahiz forma zuzentzat hartu (*HH cheitu* “texer”).
- 15-351 *albiñua*: aurean *ertza*, ezabatua; cf. *oihalaren albenia eta bazterra ere* (GGero 215). Forma antzekotasunak nahasita, Añibarrok *albiñua* (VB “hebra”) eta *albenia* (cf. *HH* “orillo, en el paño”) berdindu ditu (ik. § 5.3.4).
- cabuco altsiac*: VB *altsia* (c.) “hilacha”, “mota” (bietan < *HH*).
- 15-354 *il daroa*: sic, *il doa*-ren orde; ik. § 4.3.10.6.
- 15-357 *veneragarriz*: leh. *adoragarriz*; cf. *cenbait sequeretuz eta ordenamendu estaliz* (GGero 215).
- 15-361/362 *guichitan... ezta secula guertatuco < gutitan guerthatu da, eta venturaz ez seculan guehiago eguinen* (GGero 215).
- 15-362 *Gueienetan, edo beti < Comunzqui* (GGero 215). *edo*: aurean *ondo*, ezabatua.
- 15-363 *izan*: gainean erantsia; cf. *gaizqui bicitcen dena* (GGero 216).
- 15-365 *utscorrac*: cf. VB *usgarria, uscorra* “falibilidad, falible” (*HH usgarria* soilik).
- laban-laprastgarriac*: gainean erantsia; ik. § 5.3.1.
- 15-366/367 *Deunguero iltearen bildur zara < Gaizqui hiltcearen çara veldur* (GGero 216); ik. § 5.2.2.

370 bacocho bere osasunean dagoanean, cetan daucan gogoia, atan oi dau ta azaz
 verba eguin oi dau gaissotasunean ta eriotzaracoan bere: atan idoroten da
 amesetan ta buru-caletan bere; au da asco adietan emoteco, bici dan leguez
 il bere eguiten dala. San Pabloc diño (Galat. 6): Guizonac cer ereiten daben,
 a bera bilduco dau. Eta itanduten dau San Mateo Evangelariac (cap. 7): Ete
 da iñor arancetatic matsac edo elorrietatic icoric bilduten dabenic? Bici izan
 375 dan artean gaistaqueria <158> zabalduen ta ereinten ibilli danac, guero bar-
 rriz, bere azquenean santu bat leguez ill uste dabenac, arancetatic matsac ta
 arretatic icoac, gaistaquerietatic on eder gozoac bildu ta artu gura ditu: ecin
 datequen gauza deseatu ta gura dau.

380 Bere dempora guztian galduric ta bidea uts eguinic ibilliric, eriotzaco or-
 duan, ilunduten asten danean, bide onera ta artecera, zucenera biurtuco dala
 uste dabenac, uts eguiten dau. Len bear da, len. Cergaitic ce, eriotzaco ordua
 ordu iluna, itsala, añotsua, guerizatua, nastua ta ecachez betea da. Ezta icha-
 soco ecachic ontzico capitai bati lan, ardura, bildur ta cereguin gueiago emo-
 ten deutzanic. Orduan, len erraza zana bere, gacha ta nequetsua eguiten jaco.
 385 Ontzia ichaso zabalean dempora ederraz erara dabil, alde batera ta bestera,
 or-emen, ara ta ona erraz timoiaz (lemaz) itzuli gira-bira erabilten da, go-

-
- 15-369 *bere*: aurrean *osas*] (*osasunean?*), ezabatua; cf. *bat bederac sendo ceiño* (GGero 216).
 15-370 *verba eguin oi*: leh. *verba eguiten*, < *minçatcen ohi* (GGero 216); ik. § 5.1.3.13.
eriotzaracoan: leh. *eriotzacoan*, < *hiltceracoan* (GGero 216); ik. § 5.2.12.
 15-371 *amesetan ta buru-caletan* < *ametsetan eta eldarnioetan* (GGero 216). *eldarnioetan*:
 lehen *irazarriric* itzuli badu ere (7-128. oh.), hemen ageri da azkenik egiazko esa-
 nahiaz jabetu zela: cf. *VB buru-cala* (c.) “desvanecimiento de cabeza”, “ilusión”.
 15-373 *San Mateo Evangelariac*: Axularrek *ezetzco contuan beçala* dakar ondoan (GGero
 216).
 15-374 *matsac... icoric bilduten* < *mahats... fico viltcen* (GGero 216); ik. § 5.5.1.
elorrietatic: gainean *tribulis* (latinezko ordaina), Axularren *sappar-laharretaric* itzul-
 tzeke zalantzak izan zituelako seinale.
 15-377 *arretatic* < *sappar-laharretaric* (GGero 216); cf. *VB arra* (b.), *larra* (c.) “espina”,
arrac (b.) “zarza”, eta *OEH*, s.v. 2 ar.
 15-377/378 *ecin datequen* < *ecin datequeyen* (GGero 216).
 15-378 *deseatu*: aurrean *desetan d]* (*dau?*), ezabatua, < *desiratcen* (GGero 216).
 15-381 *uts*: jat. *ust* (arg. zuz.).
 15-382 *guerizatua*: ez da ondo irakurtzen *gueriztua* ala *guerizatua* den; Urquijok (1926: 527)
gueriztua irakurri arren, badago nato irakurgaitz bat z eta t artean, zuzenketa dirudie-
 na eta, nire ustez, *guerizatua* irakurtzea zilegi egiten duena (cf. *OEH*, s.v. *gerizatu*).
 15-382/383 *ichasoco ecachic* < *tormenta* (GGero 217); itzulpen berbera 15-193an.
 15-383 *ontzico capitai bati*: egiatan Axularrek *Ezta tormenta capitaiñic* dakar (GGero 217),
 eta Añibarrok, morfosintaxiari jaramon gutxi eginik, hitzen puzzlea bere erara anto-
 latu du. Ez zen askatzen erraza, dena den: zalantzaz azaldu zuen Villasantek *AxH*-an
 (“extraordinario, grande (?)”); cf., arazoa saihestuaz, “No hay tormenta”, 1976:
 242), eta alde honetatik ez da ezer aurreratu *OEH*-an (bietan s.v.).
 15-386 (*lemaz*): Axularrena da, noski (GGero 217); pentsa liteke argitaratzekotan kenduko
 zukeela (ik. § 3.2).

- bernatzen da. Baña bazterra, marrara, costara jo ezquero, ezta gobernatzeric, ez eta nolana abiateric, ez maneatuteric. Demporea argui dagoan artean, edade edo adin onean ta osasunean zagozanean, ontzia ichasoan eguraldi
 390 onaz leguez, ceure gogo onean zagozan artean, escuai eraguin eguiezu, abia zaite, orduan lastertu, maneatu ta estutu zaite. Bada bestela, eguraldi charrac, gaisotasuneco minac ta eriotzaco gachac ta ecachac artu ezquero, costara, bicitzaren bazterrera, eriotzea urtu ezquero, galdua zara, eguin da zurea, miraria bat izango da zu salbeta.
- 395 Ichi eguizu, bada arren, burutic, buruan darabiltzun zoraqueria ori: egu- netic egunera, guerotic guerora, eriotzaguño lucetuz ta epe artuz, orduan erremediatuco zarealaco uste utsaz, orduguño becatuetan egote ori. Bada ondo daquizu ecach andi batez costaco achetara jotera doian ontzi cargetua, ez dala <159> pelligru baga; lenago bai, galdutzat daucazu alaco ontzia.
- 400 Alan, euqui eguizu, bada, galdutzat zuc bere ceure burua, becatuz beteric ta astunduric eriotzaco costara jotera zoazanean; beti-beti guero ondu ta obetuco zareala diñozunean; eta becatu eguiteco gogoaz, usteaz ta borondateaz zagozala, eriotzaco azquenac aurquituten zaituanean. Cergaitic ce, artara ezquero guichi dira ondo libratuten dirianac, galdu ta ondatu baga igues egui-
 405 ten dabenac.

-
- 15-387 *itzuli gira-bira erabilten da < itçultcen (GGero 217). itzuli: antzeko esapide batean itzul ere aurkitzen da (ik. 31-109. oh.).*
- 15-390 *bazterra, marrara, costara jo < bazterrera guero, costa ioz guero (GGero 217). Oker eratutako sintagma: ohikoena bazterra, marra, costa jo izango litzateke (cf. OEH, s.v. 1 jo I, 1), baina, behin alatiboaz eginez gero, bazterrera behar luke.*
- 15-392 *eraguin: gainean, erabilli-ren ordez; cf. escuey eraguieçu (GGero 217). eguiezu: leh. eguizuz.*
- 15-392 *gachac ta: gainean erantsia; Añibarroren hitz jokoa da gachac ta ecachac hori, Axularren heriotcearen tormentac-en ordez (GGero 217).*
- 15-392/393 *costara, bicitzaren bazterrera, eriotzea urtu ezquero < costaraz guero, bicitcearen bazterrera [sic] heriotceac uquituz guero (GGero 217) < bicitcearen bazterra heriotceac uquituz guero (Gero 217). Añibarroren bertsioa ulertzeko modu erraz bakararra, bazterrera eta eriotzea-ren arteko koma ezabatzea badateke ere, Axularrena ikusita baderitzat nolabait hitzez hitz aritu zela, esanahi orokorrari begiratu gabe, beste pasarte gaitz batzuetan bezala.*
- 15-394 *miraria bat: ik. § 5.1.1.1.*
- 15-396 *guerotic guerora: Añibarroren eransketa; bere egin du, beraz, Axularren esapidea.*
- 15-397 *orduguño becatuetan egote ori < an arteraiño beccatutan egoite hori (GGero 217); ik. § 5.2.2.*
- 15-398 *achetara: jat. achetera (arg. zuz.); cf. costan ioitera (GGero 217).*
- 15-400 *Alan, euqui eguizu, bada < Hala educaçu, bada (GGero 218); ik. § 5.1.3.7. bada: gainean erantsia.*
- 15-401/402 *obetuco: jat. obetuteco (arg. zuz.); cf. guero onduco çarela (GGero 218).*
- 15-403/404 *artara ezquero: aurrean ata] (atara?), ezabatua, < hartaraz guero (GGero 218).*

Bada onela, orain badozu osasuna, indarra, cenzuna, adimentua, ta ceure burua ceure escuan. Orain ezpazara oraindiño gaisotu, ez eriotzaco esturan jarri. Orain bazagoz libre eta, gura badozu, ondo edo deunguero eguin ciñaien demporan. Orain bada, orain, men-menean jarri baga, gachac nastu
 410 ta artu baño len, gaisotasuna jaundu ta jabetu baño len, eguizuz guero eguiteco gogoa dozuzan gauza onac. Eta orain diñot; cerren, celan orain eguiten dozun guztia, gaisotu baga, eriotzaco esturan ifini baga ta iñoc beartu baga, eraz, gustoz, borondatez eguiten dozu: Ori izango da gauza andia, estimatua, indartsua, eraguillea, baliocoa, Jangoicoari eder erechico jacana, ta mereci-
 415 mendu andia azquenean Ceruco gloria ta betico zoriontasunac erdetsiteco.

-
- 15-407 *ezpazara... gaisotu*: leh. *ezpazagoz... gaisoric*, < *ezpaitçara oraiño eri* (GGero 218); ik. § 5.1.3.8.
 15-409 *men-menean jarri baga* = GGero 218.
 15-410 *jaundu ta jabetu* < *iaundu* (GGero 218).
 15-410/411 *eguiteco gogoa dozuzan gauza onac* < *eguin gogo ditutçun onguiac eta descarguac* (GGero 218). *eguiteco*: jat. *eguitecoa* (arg. zuz.), leh. *eguing[o]*. *gauza*: aurrean *onac*, ezabatua; ik. § 5.3.4.
 15-415 *ta betico zoriontasunac*: Añibarroren eransketa.

16. BURUA

Limosna eguiteaz, ta andic sortuten dirian zoriontasunac.

1 §.

5 Espiritu Santuac diño (Eccl. 3): Urac amatetan dau sua, ta limosneac
esetsiten deutse becatuai. Urac sua leguez, limosneac ilten, amatetan dau be-
catua. Bardin diño San Mateoc (cap. 5): Zorionecoac dira erruquiorrac, ce-
rren oneec erdetsico dabe misericordia edo erruquia. Onegaitic diño Davi-
dec bere (Psal. 40): Zorionecoa da beartsuaren, esquecoaren, probearen
10 erruquia dauquena, cerren au egun charrean, eriotzaco orduan, gorde <160>
ta libratuco dau Jangoicoac. Eta diño beste bein Espiritu Santuac (Eccl. 29):
Gorde eguizu limosnea probearen biotzean, ta ac zugaitic erregutu ta esca-
tucoc deutso Jangoicoari gach guztietatic gorde zaizala. Azquenez, gauza ala-
bagarriac esaten dira limosnagaitic, eta salbetaco ta arimea seguratuteco da
15 bitarteco ecin gueiagoan andia biotz biguna, erruquiorra ta limosnaguilla
izatea.

-
- 16-2 *eguiteaz... zoriontasunac < eguiteaz... probetchuaz (GGero 219). Añibarroren sintag-
ma elkartu bitxietako bat (ik. § 5.5.1), idorogarrian gordea (ik. A-24).*
- 16-5 *esetsiten deutse becatuai < eguiten deraue beccatuey contra (GGero 219).
ilten: gainean erantsia; cf. iraunguitcen du beccatua (GGero 219).*
- 16-9 *erruquia dauquena: gainean, ganean ezarten dana-ren orde, < gaiñean empletatcen
dena (GGero 219).*
- 16-12/15 *Azquenez... limosnaguilla izatea: Añibarrok ez bide zeritzan oso ondo Axularrenari
puntu honetan, zeren eta honek honela baitio: Finean, hanbat gauça erraiten da
erremusinaz, non baitirudi ecen, bat bederaren salbatceco eta arimaren seguratce-
co, asco içanen dela, bertce gauçaric gabe, bihotz bera eta erremusinalari içaita.
Ceren handia baita erremusinaren indarra eta botherea (GGero 219-220). Badira
honen arrastoak, halere, eskuizkribuan antzeman daitezkeen bi aldaketatan: eta (16-
13): ondoan dirudi, ezabatua; eta da (ib.): leh. dala.*

Eguia da, alan da, andia da celambere limosnea eta, Glosac diñon le-
guez, San Agustinganic ateraric (Glos. Lirana in eccle. 29): Misericordia
bera da, ta ez besteric, illai lagunduten deutsena, arima joanai arinduten deu-
tsezana euren Purgatorioco neque-penac.

20 Baña eztozu, ez, uste izan bear limosneac berac, sacramentu batec le-
guez, bere indarrez ta berez becatua il ta parcatuten dabela. Eztau berac orre-
taraco indarric asco. Da, bai, bitarteco andi bat Jaunac prestatzeco zure bio-
tza, urteteco becatutic ta eguiteco eguiazco penitencia.

25 Alde batetic, dozun guztia probéai emonagatic, baldin, bestetic, beca-
tuan bazagoz eta artan azquentzen bazara, ecer valioco ezteutsu zure limos-
nac, on-eguiteac ta erruquiorra izateac. Alan diño San Pabloc (1 Corint. 13):
Dodan guztia probeai emoten badeutset bere, eta neure burua erretan ichiten
badot bere, ecer valioco ezteuste, baldin caridaderic ezpadot. Esan gura dau
30 limosna ta beste eguite on misericordiazcoac bere, entero guichi probecha-
tuc deutsela becatuetan dagoanari.

Baña orrez guztiaz bere, asco ta andiac dira limosnari emoten jacazan
alabanza, onra ta andizcac. Eta errazoiac ta ondo mereciric emoten jacaz.
Bada limosneac berac indar asco ezpadau bere becatutic ateretaco, baña bai
bauco atera eraguiteco. Cergatic ce, dirudi Jangoicoac bere ontasunagaitic
35 artuco dabela ocasiñoa ta videa, erruquiorra danari, cerren erruquiorra dan,

-
- 16-16 *diñon*: leh. *diñoan*.
16-17 *Lirana* < *yrana* [sic] (*GGero* 220, *in m.*); *Gero* 220n ez da irakurtzen y aurreko letra,
eskuz zuzenduta baitago. Añibarrok ongi osatu zuen, dena dela.
16-18/19 *deutsezana*: jat. *deutsezanic* (arg. zuz.); cf. *arima ioaney laguntçen çayena* (*GGero*
220); ondoan Axularrek *erremusinac eduquitçen du bethiere on dakar*.
16-21 *il*: gainean, *amatatu*-ren orde, baina hau ezabatu gabe, < *iraunguitçen* (*GGero* 220).
Lehen ere (16-5) zalantza berean murgildu da.
16-22/23 *Da, bai... eguiazco penitencia*: Añibarroren eransketa; ohartu aditza perpaus guztietan
aurrean dagoela (ik. § 5.2.1).
16-28 *ecer*: aurrean *ez jataz*, ezabatua; cf. *eçaizquit hec guztiac deus valiatuco* (*GGero* 220).
16-29 *eguite*: aurrean, bi bider (lehen *ta* ondoan, gero *beste* ondoan) *obr[a]* ipintzen hasi ba-
zen ere.
misericordiazcoac: aurrean *guztiac*, ezabatua; cf. *bertce obra misericordiazcoac ere*
(*GGero* 221).
entero guichi < *deus guti* (*GGero* 221), zati batean erabili duen *gutziz guichi*-ren or-
dez (ik. 15-243 eta 15-327. oh.); lehenago *guichi* (11-286) eta *ecerez bat + guichi*
(12-44) aurkitu ditugu haren itzulpen gisa.
16-31 *orrez*: aurrean *gu*] (*guztiaz?*), ezabatua; cf. *guztiarequin ere* (*GGero* 221).
16-32 *andizcac*: laudorioak; cf. *VB* (c.) “ponderación, encarecimiento” (< *HH*).
mereciric < *merecituric* (*GGero* 221); ik. § 4.3.9.
16-33 *baña bai* < *bai ordea* (*GGero* 221); ik. § 5.2.9.
16-34 *Cergatic ce*: leh. *Cerren*, < *Ceren* (*GGero* 221).
16-35 *erruquiorra dan*: aurrean *miseri]* (*misericiotiotsua?*), ezabatua; < *misericiodios*
(*GGero* 221).

- misericordia eguiteco. Zure limosnac, zure biotz-beratasunac beratu, bigundu ta austen deutso Jangoicoari biotza, ta emoten deutso videa zuri <161> mesedeac eguiteco. Ceure erruquiortasunaz ta misericordiaz gaituten zara, abiatu ta prestatu, Jangoicoaganic misericordia irabazteco ta artzeco; ta Jangoicoa bere andic asten da zuri on eguiten, ta bere gracia emoten. Onetara-
- 40 co, eguia au baieztuteco egemplo ta guertaldi adigarri asco ta miragarriac idoro ditequez; baña nic oraingoan ezto bat baxen ecarrico. San Bonifacio martira dempora baten ibilli zan andracume eder aberats bategaz galdua, ta aragui-zco becatu loi ciquiñian ciquinduric ta itsuturic. Eta bacituan Bonifacio onec beste ecandu gaisto asco bere: edalea zan, jocolaria zan, biraogui-
- 45 lla zan, alangoac oi diran leguez. Gauza bat eucan óna: biotz beraa, erruquiorra, onguilla, prestua ta limosnaguilla zan. Alde batetic becatu asco eguiten bacituen, bestetic probe esquecoai escua zabalduten equian. Eta onela, bera bere Jangoicoac mesedet, ontartu ta favorecitu eban, biotzean ucutu eban, argui santu batzuc, gogoeta on batzuc emon eutsezan. Eta guero oneecaz batean biurtu eban beragana, andic aurrera eguite onetara emontzan, ta azquenean martir iltzan. Icusi eguizu cer eguiten edo eraguiten daben limosneac, erruquiorra ta misericordiosua izateac. Ain jaco eder Jangoicoari erruquitasuna, ta bearturic ta premiñaturic dagoanari on eguitea,
- 55 non berari bere andic erruquituten jaco á on-eguilla; eta orain edo guero eracusten deutso ta emoten vide onean jartzeco videa, San Bonifaciori emon eutsan leguez.

-
- 16-38 *erruquiortasunaz*: jat. *erruquiortasuraz* (arg. zuz.).
- 16-39 *irabazteco*: aurrean *alca*] (*alcanzatzeco?*), ezabatua, < *erdiesteco* (*GGero* 221).
- 16-40 *andic... eguiten... emoten*: leh. *agaz... eguiteco... emoteco*; cf. *eta Iaincoa ere hartçaz iratçartcen eta ernatcen beçala da, çuri ongui eguiteco eta bere garaciaren emaiteco* (*GGero* 221).
- 16-41 *baieztuteco*: aurrean *baiztuteco*-edo, ezabatua, < *frogatceco* (*GGero* 221). *egemplo ta guertaldi adigarri asco ta miragarriac* < *anhitz exemplo* (*GGero* 221).
- 16-44 *aragui-zco becatu loi ciquiñian ciquinduric ta itsuturic* < *haragui-zco beccatuan barrera sarthua* (*GGero* 221). Honek azaltzen du *galdua... ciquinduric ta itsuturic* al-daketa (ik. § 5.5.1). *ciquiñian*: ik. 15-17. oh.
- 16-45 *jocolaria* < *iocari* (*GGero* 222); *VB joca-*, *jocolaria* (c.) “jugador”.
- 16-46 *diran*: eta ez *direan* edo *dirian* (ik. § 4.3.10.10); noizbehinka itzuri zaio (ik. 37-9, 39-82, 45-146 eta 52-105 ere); *ciran*-ez ik. 12-214. oh.
- 16-48 *zabalduten equian*: *jakin* aditza, ‘ohikotasuna’ adieraziaz (cf. *OEH*, s.v. 1 *jakin* I, 5); badu egitura honek agerraldi gehiago testuan zehar (ik. 16-241, 18-113 eta 32-27, adib.).
- 16-51 *andic aurrera*: aurrean *aurrerocoa[n]*, ezabatua; cf. *aitcinerat* (*GGero* 222).
- 16-51/52 *emontzan... iltzan*: ik. § 4.2.7.
- 16-55 *a on-eguilla* < *ongui eguille hura* (*GGero* 222). *orain edo guero* < *lehen edo guero* (*GGero* 222).

Abia gaitezan, bada, erruquiorrac, biotz beraac ta limosnaguillac izate-
 60 ra; bada asco ta andiac dira andic ta ataric jaioten dirian probechuac, onda-
 sunac, zorionac, irabaciac ta aberastasunac.

Eta beste ascoen artean iru dira limosnaren provechuric andienac. Le-
 nengoa: becatu baga dagoala, Jangoicoagaitic eguiten dan limosneac mere-
 citen dau Ceruco Gloria ta gueituten dau Jangoicoaren gracia. Bigarren pro-
 65 vechua da: limosneac quitutu, ordetu ta pagatzen ditu becatu parcatuen pena
 demporazcoac, guztiac edo zati bat, emen edo Purgatorioan pagatu bear ci-
 ranac. Eta Escritu[ra] Santuac esaten dabena Daniel[en] aotic: Becatuac li-
 mosnagaz quitutu <162> edo erredimitu eguizuz.

Irugarrena da: limosneac ondasun asco alcancetan dituz Jangoicoaganic.
 Zorionecoac dira erruquiorrac, cerren arquituco daben misericordia edo
 70 erruquia (Math. 5). Eta, alan, zure limosneac aci ta gueiagotuten dau zure-
 tzat Ceruco saria, ta anditu gracia ta merecimendua; guichituten dau Purga-
 torioco neque-pena; ta erdetsi Jangoicoaganic esquer mesede ta ondasun
 asco. Jaquin bear dogu ce limosnaguillari, biotz bigun ta erruquitsua danari
 eguingo jacola misericordia. Eta cerbait emoten badeutsegu orain emen Jan-
 75 goicoaren esquean dabillenari, edo beste edocein obra on eguiten badogu,
 ori guero idoroco dogula beste munduan, ta ez besteric.

2 §.

Jaquin daguigun ezteutsagula esquecoari aguiracarin, oñoterico, verba
 gogorric, eranzuterico, cargurico eguin bear, ez eta gauza charric esan bear.
 80 Baldin emoteco gaiian bagara edo devociñoric badogu, emon daguigun, ta

-
- 16-58 *biotz beraac*: gainean, *onguillac*-en orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *miseri- cordios eta erremusinalari* (GGero 222).
 16-59 *andic ta ataric* < *handic eta hartaric* (GGero 222).
jaioten: *aurrean sortut[en]*, ezabatua, < *sortcen* (GGero 222).
 16-61 *ascoen*: ik. § 5.1.1.4.
 16-65/66 *ciranac*: ik. 12-214. oh.
 16-66 *Eta Escritu[ra] Santuac esaten dabena Daniel[en] aotic* < *Eta haur da escritura sain- duac erraiten duena* (GGero 223). *aotic*: gainean erantsia. Axularrek ez dakar inon, ez eta ertzean ere, Danielen aipurik.
 16-66/67 *Becatuac... erredimitu eguizuz*: Axularrek latinez bakarrik: *Peccata tua eleemosynis redime* (GGero 223). *quitutu*: ondoan egui] (*eguizuz?*), ezabatua.
 16-72/73 *mesede ta ondasun asco* < *anhitz fabore eta ontasun* (GGero 223). *ta*: gainean eran- tsia. *ondasun / ontasun* nahasketarako, ik. 12-95. oh.
 16-74/75 *emen Jangoicoaren esquean dabillenari* < *hemen probeari* (GGero 223). *emen*: gai- nean, *esque*] (*esquecoari?*)-ren orde. Cf. *VB esquean dabillena, Jangoicoaren es- quecoa* (c.) “pordiosero”.
 16-78/79 *aguiracarin, oñoterico, verba gogorric, eranzuterico, cargurico* < *liscarric edo erançute- ric* (GGero 223). *aguiracarin, oñoterico*: gainean, *aserreric*-en orde, baina hau eza- batu gabe. *eranzuterico*: ik. § 5.3.4.
 16-80 *emoteco gaiian bagara* < *emaiteco gaietan bagara* (GGero 223).

ganeracoan ichi daigun. Bada probea, ondoen dana bere, on bear da, premi-
ñaduna ta erruquigarria. Billosic dago, oñutsean ta ortocic dabil, soñeco zar
zatar eten adobatuaz dabil, eztau aldatuteco alcondararic eta ez etzateco oe-
ric; eztaqui jataldi ta bazcari on baten barriric. Asco dau bere laceria, esca-
85 sia, beartasuna ta miseria. Beraz, ez jaco alangoari aserreric, eranzuteric,
oñoteric, ez erriertaric eguin bear. Bada alan eguiteaz, batean ezpada beste-
an, peligruan jarri cintequez uts eguiteco, eta probea bere probetasunez ga-
nera, bere gogoan ta biotzean zauritua, mindua, gogaituric ta tristetua biral-
tzeco. Eztot uste itanduco deuscula Jangoicoac probe onari ala gaistoari
90 emon deutsegunez, ezpada ea emon badeutsegu. *Daigun ongui, ta ez begui-
ratu nori; eguizu on ta ez beguira non.*

Aberatsac leguez, probeac bere Jangoicoac eguiñac dira. <163> Abera-
tsa ain billosic jaio zan cein probea. Eta Jangoicoac gura izan baleu, eguin
leiquean probea aberats, ta bai aberatsa bere probe beartsua. Eta alan, orain
95 bere ascotan adu, suerte ta fortuna trucatu ta aldatuten dau, pobreac aberas-
tu ta aberatsac pobretuten dituela.

Pobreac sufrituaz, paciencia izanaz ta onguillacaitic oraciño eguiñaz
bear dau salbatu; eta aberatsac bere, bere ondasunetaric zabalduaz, zatituaz,
probeari emonaz prestatuten dau Ceruco videa. On gueiago eguiten deuscu
100 pobreac guri, escatuaz ta guganic artuaz, guc ari emoteaz eguiten deusagu-
na baiño; cerren guc ari labore guichi bat, ogui otzur bat, arto zati bat, marai
bat edo beste onelaco gauza apur bat emoten deusagu, baña guc andic Ce-
ruco gloria irabazten dogu.

-
- 16-81 *on bear da* = GGero 224.
16-82/83 *soñeco zar zatar eten adobatuaz dabil*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina.
16-84 *jataldi*: ondoan *on b]* (*baten?*), ezabatua; cf. *othuruntça on baten* (GGero 224).
16-84/85 *laceria, escasia* = GGero 224.
16-88 *bere gogoan ta biotzean*: gainean erantsia, < *bere gogoan eta bihotcean* (GGero 224).
gogaituric: Añibarroren eransketa; hein batean, honek azal lezake *gogaitua* ez izatea
(ik. § 5.5.1); cf. *çaurtua, gaizcoatua eta tristetua* (GGero 224).
16-89 *deuscula*: leh. *deusula*, < *deracula* (GGero 224).
16-90 *ezpada ea emon badeutsegu* < *eman diogunz baicen* (GGero 224); ik. § 4.4.7.
16-90/91 *Daigun ongui... ta ez beguira non*: errefrau beraren bi bertsio hauetarik lehena Axula-
rrena da, egokituta badago ere: *Daguigun ongui, eta ezteçagula beha nori* (GGero
224). Bigarrena, berriz, Larramendik hiztegian jaso zuenaren antzekoa: *eguizu on,
ta ez jaquin non* (HH, s.v. bien).
16-98 *salbatu*: leh. *salvatu*.
16-99 *prestatuten dau Ceruco videa*: Añibarroren eransketa.
16-100 *escatuaz ta guganic artuaz... emoteaz* < *escatceaz eta gureganic errecibitceaz, guc
hari emaitceaz* (GGero 225); ik. § 5.5.1.
16-101 *labore guichi bat* < *labore pochin bat* (GGero 225). Ondo ulertu duelako seinale, hor
ditugu *ogui otzur bat, arto zati bat*, azalpen modura erantsiak (ik. § 5.3.3).
ogui otzur: VB (b.) “mendrugo”.

105 Are gueiago, probeari emonaz gueure descargua ta zorra ordetu ta qui-
tututen dogu: bada, Jangoicoac orain guri emoten deuscuzan onac, ondasu-
nac ta aberastasuna, eurocaz ta euroetaric gueure buru ta echeocoac manten-
duteco ta estaduco igaroipide onean euquiteco bear doguna artu, ta
ganeracoac pobre bearrenai zor jaque.

110 Eztituz iñolacoz Jangoicoac larga, ez ichi pobreac mundu onetan deslai,
azturic ta sustentu baga: aberatsén ardurara larga ditu. Eta agaiti emon da-
roioe aberatsai eurentzat bear dabena baño gueiago, gueiago ori pobreai za-
baldu, emon <164> ta aldatu daguien. Orregaiti diño San Juan Chrisostomoc
(hom. 77 in cap. 15 Joan.) laquetu edo permitietan dituela Jangoicoac mun-
115 duan direan pobreac, onei on eguiñaz salva ditecen aberátsac; limosnaren bi-
tartz bezatuac garbitu daguiezan. Bada Jangoicoaren ontasuna ta prestuta-
suna ain da andia, non orain zuc dozuzan ondasun orreec, Jangoico
berarenac ta Jaungoicoac emonac izan arren, orrez guztiaz, zuc orreetatic
probeari emoten deutzazunean, ceuretatic emongo beceunsquio leguez esti-
metan deutsu Jangoico maiteac: bai ta orretaric bere burua zure alderacotzat
120 zordun eracusten dau; ain zordun ece, diño Espiritu Santuac (Prov. 19), pro-

-
- 16-104 *gueure descargua ta zorra: ta zorra gainean erantsia, < gueure descargua (GGero 225).*
- 16-105 *Jangoicoac: aurrean orain, ezabatua; Axularren ordena berreraiki du: Ceren Iaincoac orai guri... (GGero 225).*
- 16-106/107 *gueure buru ta echeocoac mantenduteco < gueure maiñadaren mantenatceco (GGero 225). gueure buru-z, ik. § 5.1.2.5.*
- 16-107 *estaduco igaroipide onean euquiteco < estatuaren eduquitceco (GGero 225). igaroi- pide onean: zalantzarik gabe, gazt. un buen pasar esapidearen kalko antzekoa; cf. DAut (s.v. *passar*): “Modo de hablar con que se explica que alguno mantiene una suficiente medianía, para su manutención”. Formaren aldetik, berriz, *igaropide* dugu ia beti (1-250; *LoraS* 124 eta 161, ap. *OEH*, s.v.; *VB igaropidea* (c.) “paso”), baina cf. *igoroipede* akastuna (4-101/102. oh.); gainera, ez litzateke erabat ezinez-koa izango, *igaroite-* oinarrian pentsa bageneza.*
- 16-108 *bearrenai: leh. bearrenac eta ondoan dJ (dira?); cf. probe beharrenac (GGero 225) < probe beharrenac dira (Gero 225).*
- 16-110/111 *emon daroioe: leh. emoten deutzé, < emaiten deraue (GGero 225); ik. § 4.3.10.6.*
- 16-111 *gueiago ori < guehiagoco hura (GGero 225).*
- 16-111/112 *pobrei zabaldu, emon ta aldatu daguien < probetara parti deçaten amoreac gatic (GGero 225); ik. § 5.3.4.*
- 16-113/114 *munduan: aurrean pobreac, ezabatua; cf. munduan diren probeac (GGero 225).*
- 16-114/115 *limosnaren bitartez becatuac garbitu daguiezan: Añibarroren eransketa.*
- 16-115 *ontasuna: ondoan ta liberaltasun, ezabatua; cf. Iaincoaren ontasuna eta liberaltasu- na (GGero 225).*
- 16-117 *Jaungoicoac: ik. 13-5. oh.*
- 16-118 *beceunsquio: leh. baceusquio.*
- 16-119/120 *bere burua zure alderacotzat zordun eracusten dau = GGero 226. zure: leh. zu. zure alderacotzat: lehenagokoetan, edo -en alderaco (0-68. oh.), edo -(g)az (5-32/33 eta 15-182) erabili ditu itzultzeko, baina beste behin bederen (ik. 20-43. oh.) onartuko du.*

beari emoten deutsanac, Jangoicoari emoten deutsalā. Eta emon bere, celan? *Fæneratur*: Censuan, interesean, irabacian, bearturic ta obligarazoric leguez, principala irabaciācaz biurtuco deutsalā. Eta emengo irabacia chiqui laburra da, ezta seguraturic euneco bat bere; baña Jangoicoarena andia da,
 125 gueiāgo da euneco eun baño.

Cer gura dozu gueiāgo? probeari emoten deutzazunean Jangoicoaren icenean, berari emongo baceunsequio leguez estimetan dau Jangoicoac, ain ascoan dauco. Eta au ezta miresteco, bada, orain emen gure artean bere dācuscunean guizon batec gure aide edo adisquide bati mesederen bat gure
 130 amoreagaiti eguiten deutsalā, urrengo ocasiānoan esquer onac guizon ari berari emoten deutzaguz; bitartean eztoġu onic, orduguiño gueure buruac zordun deutzaguz. Cer eguingo deutzé, bada, Jangoicoac bere maitetasunagaiti pobreac socorridu ta mesedetuten dituenai? ce esquer ta sari, ce pagamentu emongo deutse onelāngo erruquiorrai?

135 <165> San Martinec bere caparen erdia pobreari emon eutsanean, aguer-tu ta eracutsi zan Jangoicoa gau artan berean, capa āgaz estalduric, ciñoala vanidadez edo alabanzaz leguez: Icusi eguizue, icusi eguizue ce valentia eguin daben Martinec, celan capa onegaz estaldu naben, cer emon deustan. Bada San Martinec a capea esquecoari emon eutsan, ta ez Jangoicoari.
 140 orrez guztiaz, Jangoicoac, cergaiti ce bere icenean emon eutsan, diño berberari emon deutsalā.

Alan esāngo deutse azquen juicioco egunean bere, escoatara dagozanai, doazala seculaco gloriara; ezquerrecoai, barriz, betico peneetara. Cerren escoacoac gosetu zanean jaten emon eutseen, ta egarri zanean edatecoa. Baña

-
- 16-122 *Censuan, interesean, irabacian* = *GGero* 226.
bearturic ta obligarazoric < *obliga araciric* (*GGero* 226).
 16-124 *ezta seguraturic euneco bat bere* = *GGero* 226.
 16-125 *euneco eun* = *GGero* 226.
 16-127 *baceunsequio*: leh. *baceuntzo*; cf. *emaiten baitcinio* (*GGero* 226).
 16-127/128 *ain ascoan dauco* < *hain ecertan eduquitcen du* (*GGero* 226). *ascoan*: ik. § 5.1.1.4. *dauco*: *aurrean euquit[zen]*, ezabatua.
 16-129 *mesederen*: leh. *mesede*; cf. *cenbait ongui* (*GGero* 226).
 16-129/130 *gure amoreagaiti* < *gure amoreac gatic* (*GGero* 226); ik. § 5.3.4.2.
 16-130 *eguiten deutsalā*: gainean erantsia; ordena aldaketagatik ahaztu bide zuen lehenengon, ezen Axularren perpausa honela baita: *gure ahaide edo adisquide bati eguiten dioela gure amoreac gatic cenbait ongui* (*GGero* 226); ik. § 5.2.1.1.
 16-131/132 *gueure buruac zordun deutzaguz* < *gueure buruac çordun dadutçagu* (*GGero* 226); ik. § 5.1.2.5.
 16-132 *bere maitetasunagaiti* < *haren amoreac gatic* (*GGero* 226); ik. § 5.3.4.
 16-140/141 *berberari*: *aurrean bera*] (*berari?*), ezabatua, < *berari* (*GGero* 227).
 16-144 *jaten... edatecoa*: cf. *gosetu cenean eman baitcioten iatera eta egarritu cenean edate-ra* (*GGero* 227); ik. § 5.5.1.
Baña: *aurrean Eta, Jauna, itanduco deutzé*, ezabatua. Ondoko esaldiaren hasiera da.

145 ez ezquerreco esquer gaisto gogor erruquibagueac. Eta, Jauna, itanduco deutse orduan guztia: nos idoro, aurquitu ta icusi cenduguzan guc zu gose-egarririac illic? Eranzungo deutse: Pobre esquecoac ateetara etorri jatzuezanean. Orduan aen artean, aecaz batera, ni nintzan an.

150 Eta alan, pobreac escatuten deutsunean, contu eguizu á pobre esquecoa dala Jangoicoa bera, bada aren icenean escatuten deutsu, bere icenean emoten deutzazu, ta Jangoico berac bere, berari emongo baceunsquio leguez estimetan deutsu. Alan diño San Juan Crisostomoc: Ezta antsi edo importa, ala pobreari, ala Jesu Cristori emon jaconez; eztau batac baño besteac gueiago monta, ez valio: guztia da bat, ta bardin da, aimbat da.

155 <166> Eta oraindiño San Crisostomo berac, contuan imini ezquero eztedilla iñor agaitic miraritu, diño bardin ez, ece gueiago dala nolabait, ta merituago, pobreari Jangoicoaren icenean emotea, Jangoicoari berari bere presonan baño: cergaiti ce, presonac berac ta presonaren presenciac obeto dacar ta beartuten dau bacocho, presente eztagoanaren esanac ta aguinduac
160 baño. Eta alan, aldez gueiago [da] Jangoicoac aguinduten daben pobreari emotea, Jangoico berari emotea baño.

3 §.

Beragaitic, bada, ezta pobre esqueco ta Jangoicoaren icenecoa ecer baga bota bear, ez eta atean lucero dedarrez gogaituric euqui bear. Bada, esqueco-

-
- 16-145 *ezquerreco*: leh. *ezquerrecoac*; cf. *Baiña ez ezquerrecoec* (GGero 227); ik. § 5.4.2.
 16-146 *cenduguzan guc zu* < *cinitugun guc çu* (GGero 227).
 16-147 *jatzuezanean*: leh. *jatzuzanean*. Axularren testuan ere oker dago: *ceizquitçunean* (GGero 227) < *ceizquitçunean* (Gero 227), eta honek nahasi zuen hasieran, antza denez.
 16-150 *aren icenean... bere icenean*: Axularrek bietan *haren icenean* dakar (GGero 227); ik. § 5.1.2.4.
 16-151 *deutzazu*: *aurrean dozu*, ezabatua, < *dioçu* (GGero 227).
 16-152 *Ezta antsi edo importa* < *Ezta antsia* (GGero 227).
 16-154 *monta, ez valio* < *monta, eta ez valio* (GGero 227).
guztia da bat, ta bardin da, aimbat da < *guztia da orobat* (GGero 227). *baridin da*: da gainean erantsia.
 16-155/156 *contuan imini ezquero eztedilla* < *aitcinecic avisaturic eztedilla* (GGero 228).
 16-156/157 *ta merituago* = GGero 228.
 16-157/158 *Jangoicoari berari bere presonan* < *Iaincoari berari bere presunan* (GGero 228).
 16-158 *presonaren presenciac* = GGero 228.
 16-158/159 *obeto dacar ta beartuten dau bacocho* < *hobequi uquitcen du bat bedera* (GGero 228).
ta beartuten dau: gainean erantsia.
 16-160 *aldez gueiago [da]* = GGero 228.
 16-160/161 *Jangoicoac aguinduten daben pobreari emotea* < *ceren Iaincoac manatcen duen, probeari emaita* (GGero 228).
 16-163 *Jangoicoaren icenecoa* < *probearen* (GGero 228); VB *Jaincoaren icenecoa* (g. b.) “pordiosero”; cf. 16-74/75. oh.
 16-164 *bota*: *aurrean laga*, ezabatua; cf. *ezta probearen gabe egotzteric* (GGero 228).

- 165 aren dedarrac ta deiac, eta ascotan berariaz bere buruaren argal jausteac, coitac, negar soñuac, erren eguiteac, eridac eracusteac, adorebaguetasuna, gose ta premiñac adierazoteac, gure biotzaren gogortasuna, otzatasuna ta erruquibaguetasun[a] acusatu ta salatuten dabe. Gu baguiña emoteco prest, prestuac, escu zabalac, contuzcoac ta borondatetsuac, ez leuque esquecoac alango pensuric, asmuric ta arteric asmatuco. Baldin pobrea bada maliciatia, bere bearez ta gure erruz da maliciatia, asmaguilla; ac baño, guc artan falta gueiago dogu; bere vicitza ataretaco aimbeste asmu ta itzulpide eguitera beartuten dogu. Alan diño San Juan Chrisostomoc (hom. 57 ad popul.), zure erruquitasun, misericordia ta caridade guichiac, zu biotz gogor ta escu ichia izateac
- 170 emoten deutsalada videapobreari alango fingimentuac eguiteco, bada bestela, ecin ecarri zaitu limosna eguitera esqueco erruquigarri guizagaisoari.

Pobreari emongo deutzazunean, guichi edo asco, emoiozu bereala, prest, laster. Baldin doi-doian bazagoz, guichi badozu, guichi ori gogo onaz emon eguiozu; ta, baldin <167> aberats bazagoz, ganez, ugari, abundo badozu, emoizu asco. Jerusalengo templua eguitean, ta eguiñez guero bere, bacebi-

-
- gogaituric*: aurrean *euqui*], ezabatua; cf. *athean oihuz eduquitceric ere* (GGero 228). *Bada*: ondoan *ascotan*, ezabatua; Axularren ordenari atxiki zaio azkenean: *Ceren probearen oihuec, eta anhitzetan...* (GGero 228).
- 16-165/167 *bere buruaren... ta premiñac adierazoteac* < *bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri eguiteac* (GGero 228). *argal jausteac*: gainean erantsia. *adorebaguetasuna*: gainean, *argaltasun-en* ordez.
- 16-169/170 *alango pensuric, asmuric ta arteric asmatuco* < *halaco pensuric eguin eta ez arteric bilha* (GGero 228). *pensuric*: ik. 1-86. oh.
- 16-170/171 *maliciatia... maliciatia, asmaguilla* < *maliciati... maliciati* (GGero 228); ik. § 5.1.1.5.
- 16-172 *ataretaco*: cf. *atareagaiti* (16-238/239) eta *atarea* (20-158); oso bakana, beraz. Añibarrorengan aditz honek daukan forma aniztasunaren barruan, aditzizenak nagusiki *atereta-* erako formak ditu, lehen buruetan *ateratze-* zenbait eta handik aurrera *aterate-* ugari badaude ere (ik. § 4.3.9). *asmu ta itzulpide* < *enseiuren* (GGero 229). *itzulpide*: ik. 3-92/93. oh.
- 16-173 *Alan*: gainean, *Beragaitic-en* ordez, < *Hala* (GGero 229). 57 = GGero 229 < 37 (Gero 229).
- 16-173/176 *zure erruquitasun... guizagaisoari*: Axularrek latinez bakarrik dakar pasartea: *Nam si simulat ex necessitate simulat & egestate, propter savitatem, & inhumanitatem tuam, quæ talibus personis supplicantibus ad misericordiam non flectitur* (GGero 229). Al-daketa batzuk egiten ditu tartean: *zure* (16-173): aurrean *baldin*, ezabatua; *erruquitasun* (16-173/174): ondoan *gu*] (*guichia*?) eta *ta*, biak ezabaturik; eta *zu biotz gogor ta escu ichia izateac* (16-174): gainean erantsia. *guizagaiso*: ik. 13-214. oh.
- 16-177 *emongo*: leh. *emoten*, < *emanen* (GGero 229).
- 16-178 *doi-doian* < *doiez* (GGero 229); ondoan *adiñondo*, ezabatua. *VB doi-doian* (c.) “ten con ten” (*HH doi-doi*).
- 16-179 *aberats*: jat. *aberast* (arg. zuz.). *ganez, ugari, abundo badozu* < *gaiñez eguina baçaude* (GGero 229). *ganez*: leh. *gaiñez*. *abundo*: *VB* “ricamente, opulentamente: c. *ugari, abundo*”.
- 16-180 *emoizu*: aurrekoetan *emoiozu* eta *emon eguiozu* erabili arren; halaz ere, kontuan hartzekoa da Axularrek *emoçu* dakarrela hiruretan (GGero 229).
- 16-180/181 *bacebillan obraren esquea* = GGero 229.

llan obraren esquee; ta bazan atearen aldean bere ucha bat, limosnea gorde-
taco toqui, cepo ta ontzi bat, an bacochar vorondatez gura ebana emoteco,
orain bere gure elexetan oi dan leguez.

Bada temploco ucha, caxa edo ontzi (*Gazofilacio* cerichan) onetan abe-
185 ratsac asco emoten eben, batac amar, besteac oguei, ta bacochar al ebana ta
celan eucan; eta oneen artean eldu zan andra pobre bat, ta onec marai bi ba-
carric emon cituan. Jesu Cristo gure Salvatzalleac au icusiric, esan eutsen
elexan egozanai, andra pobrecho ac gueiago emon ebala, aberats guztiac
190 baño. Cerren andra onec beretzat bear ebanetic emon eban, baña aberatsai,
emonac emonic bere, franco guelditute[n] jaque. Emon eguizu, bada, dozu-
naren erara: bada agaz da contentu Jangoicoa; baldin ezpadozu emotecoric,
euqui eguizu damu, ez dozulaco gueiago; ta damu agaz batean, euqui egui-
zu vorondatea, baldin bacendu emoteco. Cergaiti ce, Jangoicoac beguiratu-
195 cumplietan dau; baña dabenac, vorondateaz batera bear dau cumplitu, bete
ta eguin. Eta eguin bere, celan? ez eder erechiteagaiti, ez vaneriaz ta ez mun-
duagaiti, ezpada Jangoicoagaiti. Eta orduan bere, issil secretoan, iñoc ezta-
quiela, aalic ezcutuena; escoiac emoten dabela ezquerrac jaquin eztagui-
moduan, Evangelio Santuac dirauscun leguez. Eta, al baliz, limosnea artuten
200 dabenac bere, ez leuque jaquin <168> bear nondic jatorcan ta nondic eldu ja-
can a ondasun edo mesedea. Bada orduan, Jangoicoac berac azqueneco egu-
nean guztiac, zure onra anditan, mundu guztiaren aurrean aguertu, eracutsi ta
camporatuco ditu. Eta zuc bere orduan, orain dozun deseoa ta nai gura, zuc
eguiten dozuzan limosna ta obra onac munduac jaquin daguizan, cumplitu-
205 co dozu. Bada orduan guztiac jaquingo ta aguertuco dira.

-
- 16-182 *cepo*: gainean erantsia; cf. *erremusinaren eduhitceco untci bat* (GGero 229).
16-183 *gure elexetan* < *gure elicetan*, *crucificaren aldean* (GGero 229).
16-185/186 *bacochar al ebana ta celan eucan* < *bat bederac bere iñanaren, ahalaren eta deboci-
noaren arauaz* (GGero 229).
16-186/187 *bacarric*: aurrean emon ci] (*emon cituan?*), ezabatua; cf. *eman cituen bi cornadu*
(GGero 229); ik. § 5.2.1.1.
16-187 *eutsen*: gainean, eban-en orde; cf. Axularren azalpen laburragoa, Añibarrok nahikoa
apaindua: *Eta guero haren gainean erran çuen gure salbatçailleac* (GGero 229).
16-190 *emonac emonic bere, franco* = GGero 229.
16-190/191 *dozunaren erara* < *duzunaren arauaz* (GGero 229).
16-194 *emotea*: leh. *emotera*; cf. *emaitçara, ordea areago vorondatera* (GGero 230).
16-196 *eder*: aurrean on, ezabatua; cf. *ez edergaillu* (GGero 230).
16-197 *issil secretoan* < *sequeretuqui* (GGero 230); ik. § 5.3.1.
16-200/201 *nondic jatorcan ta nondic eldu jacan* < *nondic heldu çaicán* (GGero 230); ik. §
5.3.4.
16-202 *zure onra anditan* < *çure ohore handitan* (GGero 230); ik. § 5.1.1.4.

230 teac emonaz aberastuten diriala, garia ereinten dabenac leguez: ereina baño asco gueiago artzen dabe.

Amac umeari ugatza emotea leguez da esquecoari emotea bere. Ama seiñari ugatza emonaz eznetuten da; ez emonaz antzutu ta leortuten jaco bularra. Esan lei ereitea leguez dala limosna emotea. Garauca ereinten da, ta escu
 235 betean piloca batu ta bilduten da. Ereintean garau aci bacoachac, ta batutean buru beteac: bota iru edo lau garau, ta dacarz guero eunca. Baita bere da au urpuzuac leguez: ur puzu batzuc dira berariaz eguiñac, bean, ondoan, cimenduan iturria dabenac; gauza jaquiña da onetarico pozuetic uric ez ataregaiti, eztala ura gueiago anditu ta aciten; eta atara arren bere, eztala guichituten, cerren ateraten adiña edo dun beste sortu ta jaioten da. Alan, bada,
 240 dira pobrei <170> emoten daquienac bere: emoten daben beste orrenbeste emoten jaquee. Eta emoten ezpadabe, escu estu ta biotz gogorrac badira, ez tira agaiti aberatsago eguiten, pobreago baxen. Cerren aserraturen da Jan-goicoa, berac ain escu prestuaz zuri emonetic emon gura eztozunean.

245 Alan aserratu zan Evangelio aberats cequen cuticiosoaren contra. Aberats au, diño Evangelio Santuac (Luc. 16), ederric janci ta apainduten zan, ta jan-edan andi beteac eguiten cituan; ecin esan lei onegaiti bacarric joan zala infernura; bada, ederric jancitea ta mai ona euquitea, dirudi berez eztala becatu andia, beintzat munduac eztauco alangotzat. Bestetic, Evangelioac ezтирауссu aberats onec beste faltaric eucala. Cergaiti, bada, condenatu
 250 zan? Adietan da condenatu zala atartera esque etorri jacon pobre gose, billos, premian egoanari ez eutsalaco bere mai ase beteric, asetutecoric, janariric, bear ebanic emon, ez eta jaramon bere. Andic bere burua ta bere ondasúnac

-
- 16-230/231 *garia ereinten dabenac... artzen dabe*: Añibaroren eransketa; gariaz Axularrek beranduxeago hitz egiten du, hurren ikusiko dugunez (ik. § 5.4.3). *asco gueiago*: ik. 16-206/207. oh.
- 16-233 *eznetuten < esnatcen (GGero 232)*.
- 16-235 *batu ta*: gainean erantsia; cf. *viltcen (GGero 232)*.
garau aci bacoachac < bihi baccotchac (GGero 232).
- 16-236 *bota iru edo lau garau, ta dacarz guero eunca < botean hirur laurac cituztenac (GGero 232)*; *botean eta bota lotu bide ditu*, ik. § 5.3.4.
- 16-238 *pozuetic*: lehentxeago *puzu* bi aldiz (16-237).
- 16-239 *atara arren bere < athera agatic ere, ongui atheratcera (GGero 232)*.
- 16-240 *ateraten adiña edo dun beste < atheratcen den beçanbat (GGero 233)*; ik. § 5.3.4.
jaioten da: *da*-k tinta nato bat dauka atzean, letra bat (*n?*) ezabatu delako seinale; cf. *sortcen baita (GGero 233)*.
- 16-241 *pobrei emoten daquienac < beharrey emaileac (GGero 233)*. *jakin*-en erabilera honetaz, ik. 16-48. oh.
- 16-244 *emonetic*: leh. *emonic*; cf. *berac emanetic (GGero 233)*; ik. § 5.1.3.1.
emon: leh. *emoten*; cf. *eman nahi eztozunean (GGero 233)*.
- 16-246 *ederric < ongui (GGero 233)*.
- 16-251 *Adietan*: gainean, *Emoten*-en ordeztu, < *Aditcen (GGero 233)*.
etorri jacon: aurrean *etozan*, ezabatua, < *ethorri ceican (GGero 233)*.

255 galdu cituan. Andic beartu ta probetu zan, ta ain premiña andira etorri zan non, azquenean, bere aoco miña ecetu ta bustiteco ur tanta chorta bat bere ecin euquiteco pobretasun ta beartasunera etorri zan.

260 Celan eguiten dituan galtzaera ta atzerapen andiac pobreaki atzea emoteac, alan eguin daroaz gorapen ta zorion miragarriac probe beardunari bere beartasun ta premiña estalduteco <171> escua lucetuteac. Eta goragotute au, ta andic datorren irabacia galduten dau biotz gogorrac, limosna eguiteco gogo ta vorondateric ez dabenac. Eta eguiteco gogo daucanac bere, baldin berac bere escuz, vici dan artean, eguiten ezpadau, gauza jaquina da irabaci aren parte andi bat, edo zatiric gueiena, galduten dabela, onen ondoco urrengo buruan aguertu, azaldau, eracutsi ta adierazoco dan leguez.

16-255 *ur tanta chorta bat < ur-chorta bat (GGero 233).*

16-256 *ecin euquiteco... beartasunera < ecin içanezco probetasunera (GGero 233).*

16-257 *galtzaera: cf. VB galtzaiera (c.) "pérdida".*

16-258 *eguin daroaz: ik. § 4.3.10.6.*

16-259 *premiña: leh. premiñan; cf. bere beharraren estaltceco (GGero 234).*

goragotute au: aurean irabazte au, ezabatua, < goratçapen au (GGero 234).

16-263/264 *onen ondoco urrengo buruan < hunen ondoco capituluan (GGero 234).*

17. BURUA

*Celan limosnac ta beste eguite on borondatezcoac bere,
ceuc ceure escuz edo bestearenaz, ceu bici zareala,
ondorengoai ichi бага eguin bear dozuzan.*

5

1 §.

Gauza ciur, seguru, jaquiña ta bapere dudaric eztaucana da obe, on ta probechuago, ta meritu gueiagocoa izango dozula orain ceuc, bici zareala ta osasuna dozula, ceure escuz pobreaki emoten deutzazunaz, guero ilteracoan edo eriotzaco orduan agunduaz baño. Baña zuc, oraingo ta guero euqui arren ondasun andiac, orain bapere ez, ta guero, iltera zoazanean, prestutasun andiac eguiteco gogoa dozu. Aberats zagoz, ondasunduna zara, ascoren jabe zara, eta baucazu, bai, vorondatea, ondasun orreetaric pobreaki ichi ta zaituteco.

-
- 17-2 *on*: leh. *onac*; cf. *obra on vorondatezcoac* (GGero 234).
borondatezcoac: leh. *v-*.
- 17-3 *bestearenaz* < *bertcerenez* (GGero 234); ik. § 5.1.1.4.
bici: leh. *vici*.
- 17-6 *jaquiña*: ondoan *da*, ezabatua; cf. *Gauça segura da, eta bat ere dudaric eztena* (GGero 234).
- 17-6/7 *obe*, *on ta probechuago*, *ta meritu gueiagocoa* < *probetchuago eta merituago* (GGero 234). *obe*: gainean erantsia. *probechuago ta meritu gueiagocoa*: bietako bat baka-
rrik “normaldu” du Añibarrok; cf. *merituago* (16-156/157 eta 17-103/104).
- 17-7 *dozula*: aurrean *dala*, ezabatua; cf. *içanen duçula* (GGero 234).
- 17-8 *ilteracoan*: aurrean *ill ezquero*, ezabatua, < *hiltceracoan* (GGero 234); ik. § 5.2.12.
- 17-9 *oraingo ta guero* < *oraico eta guero* (GGero 234).
- 17-10/11 *prestutasun andiac eguiteco gogoa dozu*: leh. *eguingo dozuz prestutasun andiac* < *eguin gogoitutçu liberaltasun handiac* (GGero 234-235). *prestutasun*: cf. VB *libe-
raltasuna, prestutasuna* (c.) “liberalidad”.
- 17-11 *Aberats zagoz* < *Aberats çara* (GGero 235); ik. § 5.1.3.8.
ondasunduna zara: leh. *ondasun andiac dozuz*, < *on handiac ditutçu* (GGero 235).

- 15 Baña nos? Guero, iltera zoazanean; guztia <172> emen nai ta naiez, ecinbestez, ecin gueiagoan larga bear dozunean. Bitartean diñozu: Neure ondasunac neuc gura dodaz gozatu, zaindu, maneatu ta gorde; eztot oraindiño baguetu gura; eztot euroc бага guelditu, ez billostu gura. Baña guero, erioztzaco demporan, azqueneco ordenamentuan ta testamentuan, aguinduco deustat neure ondocoari, nire ondasunén jabe izango danari, eguin daguizala nire descargu guztia. Eta, orrez gueiago, aguinduco deustat, onembeste señalatu ta icentaturic, pobreai emon daguioentzat. Eta, baldin Purgatoriora banoa bere (bada guichi doaz Cerura an sartu бага), bertatic bertati ta laster urteteco, onembeste meza aterazo daguizala, ta beste obra on asco ene ice-
nean nire ondasuneetatic eguin daguizala aguinduco deustat.
- 25 Onelan diñozu eguingo dozula: bestearen bitartez ta escuz, ta ondocoaren contura, ta ceuc cerorrec bapere ez. Baña, ez liteque obe eguite on guzti orreec, bici zarean artean ceure escuz eguitea, ta orreen bidez ta bitartez Purgatorioco lexi gorieta ra joan бага egotea, ece ez guero ara zoazanean erre-
mediao, ordea ta quitusaria eguitea? Preso zareaneco erremedioac billatuten
30 dozuz, ta preso sartutetic gordetan etzara.
- Orrez gueiago, limosna, obra onac ta ondasunac guero coen contura ichiric, adierazoten dozu atzetic ta urrinetic gura dozula argui eguin daizuen. Cer

-
- 17-14/15 *guztia emen... larga bear dozunean*: Añibarroren eransketa; izan ere, *guztia*-ren aurrean *Bitart[ean]* (hots, hurrengo esaldiaren hasiera) dago, ezabatua. *emen*: ondoan *larga bear dozunean*, ezabatua. *ecinbestez, ecin gueiagoan*: gainean erantsiak.
- 17-16 *zaindu*: gainean erantsia.
maneatu < manaiatu (GGero 235); ik. § 5.3.4.
- 17-18 *ordenamentuan < ordenuan (GGero 235)*.
- 17-19 *deustat*: jat. *deustac* (arg. zuz.).
- 17-22/23 *bertatic bertati ta laster urteteco < berehala handic atheratceco (GGero 235)*. *bertatic bertati*: biak erabiltzen, eta inoiz (ik. 1-13 eta 13-33. oh.) bata besteaz zuzendu baditu ere, hemen forma aldaketa esanahi aldaketarekin lotuta dago: *bertatic < handic* eta *bertati ta laster < berehala. ta laster*: gainean, *andic*-en orde; azken aldaketa honek erakusten digu, dena dela, ziurrenik hasieran hutsa baino ez zela izan: baliteke *bertati bertara* (43-164) esapidearen usteldura izatea?
- 17-23 *aterazo*: gainean erantsia.
daguizala: leh. *daguiala*; ik. § 5.1.2.7.
- 17-24 *ondasuneetatic*: ik. § 4.2.4.
- 17-26 *ceuc cerorrec < ceurc (GGero 235)*. Ohi ez bezala, bi izenordain indartuk osatzen dute esapidea. Tankera beretsuko bi *ceu ceuc* (17-104 eta 18-123) daude beherago. Cf. *VB* “tu mismo: c. *zu cerori, zu ceu, zuc cerorrec*”. Gainerantzean, *cerori* izenordaina Axularrek dakarrenetako batzuetan baino ez da agertzen (ik. 15-7 eta 19-265. oh.).
- 17-27/28 *Purgatorioco lexi gorieta ra < purgatorioetara (GGero 235)*. Cf. *VB lexia* (c.) “lexia”.
- 17-29 *zareaneco < çareneco (GGero 235)*; ik. § 5.1.1.9.
- 17-30 *preso*: aurrean ez, ezabatua; cf. *eta ez preso sartetic beguiratcecoac (GGero 235)*.
sartutetic: jat. *sartututetic* (arg. zuz.).
- 17-31 *obra*: jat. *obrac* (arg. zuz.).
- 17-31/32 *guero coen contura ichiric*: leh. *guero coai ichiric, < ondocoetara utzteaz (GGero 236)*.

35 esango cenduque, gau arrats ilun baten, pausu estu, gach, arriscu pelligrusco baten igaro <173> bear daben batec esango baleusquio bere otseñari, dabilella atzetic, ta atzetic ta urrinitic argui eguin daguiola? Alan dira, bada, euren limosnac, eguicai ónac ta obra misericordiazcoac, eurac euren escuz eguin leiqueezala, bere ondoan, urrinitic ta illezquero bestei eguinerazoteco gogo, asmo ta vorondatea dabeenac. Ori da, esan oi dan leguez, *usoac joan ta saréac an ifintea leguez.*

40 San Basilioc diño (orat. 14 de mort. et homil. 7 in divit.) eztabela iñoc, il ondoco limosneaz limos[na]guillea izan dalaco, alabanzaric izango. Obe-
to ciñaique, eta seguruago jocatu ciñei, baldin guero besteren escuz eguingo
45 dozuna, orain ceurez, ceuc dacusula eguingo bacendu. Bada, San Basilio be-
rac diñon leguez, ceure ondasun guztiac edo zati bat eriotza osteraco ichi
gura izan arren probeai, nondic jaquingo dozu, edo noc oartuco deutsu, nos
eta celan ilgo zarean? Nor dozu ataco fiatzalle? Ceimbat dacusgu uste baga,
bat-batean, beingoan, verbacho bat eguin baga, Jesus bat esan baga ilten di-
50 riala? Baita bere, sucarrac edo calentura andi batec zorabiatuic, euren testa-
mentu, manda ta aguinguac asi ta acabatu baga gueldituten diriala? Cergai-
ti, bada, gura dozu zuc bere, menturaz ceure adimentuan egongo etzarean
demporaraco eta astiric bere, gogoric, ezaugueraric, cenzunic, ez bururic
izango eztozun demporaraco ceure eguitecoa euqui ta lucetu?

2 §.

55 Aurrerago goazan. Baldin orduan, eriotza aurrean, cenzuna, <174> as-
tia, demporea, beta ta epea baceunca bere, esan nei zure orduco limosnac en-
tero guichi valio dabeela. Bada dirudi ta esan lei, gura ta gura ezcoa dala, ta
ez borondatezcoa; batez bere, len al cenduala, berariaz orduguño luzatu do-

-
- 17-33 *gau arrats ilun baten < gau ilhunean (GGero 236).*
17-33/34 *arriscu pelligrusco <perilos (GGero 236). arriscu: gainean erantsia, Añibaroren tau-
tologietako bat osatuaz (ik. § 5.3.1).*
17-34/35 *dabilella atzetic < daudela guibelat (GGero 236). dabilella: jat. dabilella (arg. zuz.);
ik. § 5.1.3.7.*
17-37/38 *eguinerazoteco < eraguiteco (GGero 236), nahiz bestetan eraguin erabili (ik. § 4.4.2).*
17-38/39 *usoac joan ta saréac an < Usoac ioan, sareac heda (GGero 236). Larramendik (HH,
s.vv. asno eta conejo), usoac joan (e)ta sareac eda bertsioa bakarrik jaso zuen; ba-
liteke Añibarrok bere kasa puntua bilatua, errefrauak beti halakoak direlako uste
oker bezain hedatuagatik. Esan gabe doa ifintea leguez Añibaroren eransketa dela.*
17-41/42 *Obeto ciñaique < Hobequi ceneidique (GGero 236).*
17-46 *fiatzalle < fiadore (GGero 237). VB fiatzallea (c.) “fiador” (< HH).*
17-49 *gueldituten: gainean, ilten-en orde, < guelditcen (GGero 237).*
17-51 *cenzunic: aurrean ez bu] (bururic?), ezabatua.*
17-54 *Aurrerago goazan < Goacin aitcinago (GGero 237). Aditza atzean jartzeko legea
aginterara ere iristen da, dakusgunez (ik. § 5.2.1.1).*
17-55 *beta: gainean erantsia.*

zunean. Cerren orain ceure ondasunac eztozuz guichitu gura, ecin dispondu
 ciñeiz ataraco; bada dirudi, guero bere ilteco ustea, il bearra ezpacendu,
 60 etzenduqueezala ichico, ez euretaric emongo.

Orrez gueiago, zure gueroco, azqueneco orduco, guerorengo demporaco
 ondasun emoteac dirudi guztiz guichi valio dabela zuretzat. Bada, zure on-
 dasunetic ta zure icenean eguiten badira bere aec gauza ónac ta limosnac,
 baña ascotan eztozuz ceuc eguiten. Gaissotasuna jatorzunean, celan estura
 65 andian, larritasun, bildur icara ta pausu gachean igaro ta icusten zarean, eta
 orduco doloreac bere andiac direan, orduan ceure ondasun ta escu arteco
 gauzaz contu guichi eguiten dozu; cergaiti ce andiagoac aztu erazoten deu-
 tsue besteez. Orduan ceure ondocoac ta an bertan aurean dagozanac cerbait
 guraco dabe, eta celan bear dan, alan eguin daguiela ichiten deutseezu. Ain
 70 nequez ta penaz batu ta bildu cenduzan ondasunac, eta ain ardura andiaz ta
 ain contuz gorde ta zaindu cenduzan aberastasunac ta irabaciác, guero ain
 nasaitasun ta ardura guichiaz larguetan dozuz; len gorde ecinic, orain zabal-
 du ecinic; len estua, cequena, escu laburrecoa ta ichia; orain, barriz, prestua,
 <175> emollea, zabaltzallea ta onguille andia. Orduan ñoc ecer badirautsu,
 75 au alabetan dozu; ta ascotan, cer diñozun bere eztaquizula, baiez esaten
 dozu. Neure demporan onelangoa icusi dot. Eta alan, dirudi orduan eguiten
 dozun guztia, bestec eguiten dabela, ta ez zuc. Icusi eguizu, bada, ea ce pro-
 bechu, sari, merecimendu irabacico dozun bestec eguiten daben onagaz.

Errazoiáz diño Espiritu Santuac (Eccli. 14): Eriotzea baño len eguiozu
 80 on ceure adisquideari, ta dozun indarraren erara lucetu eguiozu cerue escua

-
- 17-59 *ataraco*: gainean, *orduraco*-ren orde; cf. *ecin delibera deçaqueçu hartara* (GGero 237).
- 17-61 *Orrez gueiago* < *are guehiago* (GGero 237); ik. § 5.3.4.
gueroco: gainean, *orduco*-ren orde; cf. *çure orduco, azquen oreneco* (GGero 237).
orduco... demporaco: leh. *orduraco... demporaraco*; ik. § 5.1.1.9.
- 17-62 *ondasun emoteac* < *onen emaite eta errepartitce harc* (GGero 237); ik. § 5.2.2.
- 17-64 *celan*: gainean erantsia.
- 17-65 *igaro ta icusten zarean* < *iragan behar baituçu* (GGero 238). *igaro*: aurean *ido*] (*ido-ro?*), ezabatuta.
- 17-67 *gauzaz*: plurala (ik. § 5.1.1.10); cf. *orduan ceure onez contu guti eguiten duçu* (GGero 238).
- 17-68/69 *cerbait guraco dabe, eta... ichiten deutseezu*: *guraco dabe*-ren ondoan *eta celan bear dala, icusi daben*, ezabatua; zalantzok ez dute besterik adierazten, ezpada Añibarrok ez duela erabat zuzen ulertu: *cer ere nahi baitute eta nola behar dela iccusico baitute, hala daguitela utzten deraueçu* (GGero 238), hots, ‘nahi dutena eta nahi duten bezala egiten uzten diezu’.
- 17-76 *onelangoa*: leh. *onelango*; cf. *Neure mendean anhitz iccusi dut halacori[c]* (GGero 238).
- 17-78 *irabacico*: gainean, *alco*-ren orde; cf. *cer probetchu eta merecimendu ahal duqueçun* (GGero 238).
- 17-80 *indarraren erara* < *indarraren arauaz* (GGero 238).

- pobreari. Bein baten Santa Luciac erregutu eutsan bere amari (Surio in vit. S. Luciae), guero eguingo ebana, gueroco beguira egon baga, egun beretic eguin eguiala, gaisoric ta eriotzaco esturan jarri baga, osasundun ta sendo egoala, berac bere escuz bere ondasúnac emon eguioezala pobreai. Baña
- 85 eranzun eutsan amac, orain oi dan leguez: Ene alaba, ichozu oraindiño pusca apur bat; ni zartu nas, laster ilgo nas; eta orduan zuri dodan guztia largaco deusut; ceuc eguingo dozu gura dozuna. Eranzute au bere amac emon eutsanean, erago eutsan barriro bere alabac, cirautsala: Ene ama maitea, uste dot, dirudi ta esan lei eztala Jangoicoaren aurrean orren eder, gustu, gogoco
- 90 ta ondo erechia, norberac ecin gozatu daben gauza bat emotea ta esquiñitea. Alan bada, emon eguizu, ama, sendo ta osasuna dozun artean, ceure ondasunetan aguintaritzta ta escuvidea dozun artea[n], esan edo eranzun eztaizuen, ilteracoan emoten dozuna gura ta gurez ta premiñaturic emoten dozula. Errazoi, conseju ta <176> adivide au enzunic, eguin eban amac alabeac
- 95 gura eban guztia; ta berpetatic, gueroco beguira egon baga, berac bere escuz zatitu cituan bere ondasunac probeetara.

Orain menturaz emen esango dabe batzuc: au onela izanic, gaisso batec bere gaisotasunean ta azqueneco ordenamentu edo testamentuan eguiten dituzan aguintzeac, mandac, esqueñac, limosnac ta beste eguite onac eztabe

100 ecer valioco, utsac izango dira, alperric eguingo dira. Eguia da valioco dabela orducoac bere; baña lenagocoac ascozaz obeac dira, valiotsuago, sari-gai ta mercedimentu gueiagocoac dira. Alan iracasten dau San Juan Chrisostomoc (homil. 10. in cap. 81 ad Doma. tom. 4), ceñec diño, obeago, merituago ta biotzeco prestutasun guei[a]go bazan bere, ceu ceuc ceure escuz,

-
- 17-82 *guero*: aurrean *ama*], ezabatua. *ebana*: gainean, *dozuna*-ren ordez. Bi zuzenketok aditzera ematen dute alabaren hitzak zuzenean ematen hasi zela.
baga: jat. *bada* (arg. zuz.).
- 17-83 *eguiala*: letra bat ezabatu du hitzaren hasieran (*ceguiala?*; ik. § 5.1.3.4).
osasundun ta: ta gainean erantsia; cf. *sendo cela* (GGero 239).
- 17-84 *berac bere escuz bere...* = GGero 239.
- 17-90 *daben*: aurrean *dituan*, ezabatua; leh. *dabena*-edo; cf. *ecin goça deçaquyen gauçaren emaita* (GGero 239).
- 17-91/92 *ceure ondasunetan aguintaritzta ta escuvidea dozun artea[n]*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egin.
- 17-92/93 *eztaizuen*: gainean erantsia; cf. *eztiaguiçuten erançute, edo erran eztiaçaçuten* (GGero 239).
- 17-93 *ilteracoan* < *hiltceracoan* (GGero 239); ik. § 5.2.12.
- 17-94 *amac*: gainean erantsia.
- 17-99 *mandac*: ondoan *limosnac*, ezabatua.
esqueñac < *esquentcec* (GGero 240).
- 17-103/104 *obeago, merituago ta biotzeco prestutasun guei[a]go*: gauza ezberdinak elkartuta daude (ik. halaber 17-6/7. oh.); zergatia Axularrengan aurkitzen dugu: *Hobeago, merituago eta bihotz ezportçagarriago* (GGero 240).
- 17-104 *ceu ceuc*: sic, *zuc ceuc*-en ordez, < *cerorrec* (GGero 240); ik. 17-26. oh.

105 vici ciniala ta osasun oso sendoan cengozala pobrea socorrietea; baña, orrez guztiaz bere, len uts eguin badozu bere, eztaizula edolabere eriot[z]aco orduan ichi limosnac eguitea edo aguindutea; bada orduan eguiten danac bere, ez asco, baña cerbait valioco dau, Jangoicoaz gomutetan zareala adietan emongo dau.

110 Osasuna dogun artean gueure escuz aleguiña eguin daigun; baña guero eguiteco gure urrengoan ta besteen escuz daguigun cerbait. Mundu au videzcoen ostatua da, ta igaroaz goaz emen.

Gure secula betico ostatua, erria ta echea beste munduan dago. Eta bacoachac bere errira ta betico <177> euquico daben eche ta vici-lecura biraldu
115 daroa al daguiana aurretic; eta bai guero ecer gueldituten bajaco, bera doianean, beragaz batera daroa. Alan guc bere eguin bear dogu. Orain osasunean gareala gueiena, eta guero, gaisso demporan ta eriotzaco orduan bere, al daguiguna eguin bear dogu. Biraldu ta aldatu daigun aurretic, demporaz ta lenagotic, ta daroagun gueugaz bere.

120 Baña orain limosnac ta beste misericordiazco edo erruquizco obrac ta vorondatezcoac ichiric, eztagoalaco euroetan ain pelligru andiric, verba egingo dogu urrengo buruan obra justiciazco, premiñazco, concenciaczcoen ganean; eta eracutsico dogu ce obligaturic ta bearturic gagozan gueuc gueure escuz eguitera, ondocoen contu ta ardurara larga baga.

17-108 *gomutetan*: leh. *gomutatan*.

17-110/111 *baña guero eguiteco... daguigun cerbait* < *baña guero, ondotic ere, eta bertceren escuz ere daguigun ahal dagui[gu]na* (GGero 240).

17-113 *Gure*: ondoan *beti*] (*betico?*), ezabatua; cf. *Gure seculaco ostatua* (GGero 240).

17-119 *daroagun* < *daramagun* (GGero 241); ik. § 5.1.3.7.

17-120 *obrac*: ondoan *ichiric*, ezabatua; cf. *beste obra on misericordiazcoac eta vorondatezcoac utciric* (GGero 241).

17-121 *ain pelligru andiric* < *hanbat peril* (GGero 241); ik. § 5.1.2.8.

17-122 *justiciazco*: jat. *jzticiazco* (arg. zuz.).

18. BURUA

*Obra justiciazcoac, concienziacz zor dozuzanac ondocoai
ichi бага, ceuc eguin bear dozuz.*

1 §.

5 Baldin obra misericordiazcoac, caridadezcoac, celangoac direan pobre-
ai on eguitea, billosac jancitea, gose-egarri danari jatea ta edatea emotea, ba-
cochac eta norberac bere escuz, bici dala, irabaci andiric euquiteco eguin
bear baditu: ceimbatenaz bacoachac bere escuz, urrengo ondocoai ichi бага,
10 eguin bearco ditu obra obligaciñozcoac, justiciazcoac, con[cien]ciacz zor di-
tuanac? Celan dirian gauza ostua biurtutea, zorrac quitututea, <178> eregui
dituan testimonio guzurrezcoac osotutea, eraguin dituzan calte ta gaistaque-
riac erremedietea?

Baldin obra misericordiazcoac ta borondatezcoac ceuc ceure escuz egui-
ten ezpadozuz, ez besteai eguin eraguin, eguia da eztozula orduan mereci-
15 menduric izango, baña ez becatu mortalic bere. Bada obra misericordiazco
edo erruquizcoac, agaiti deituten dira misericordiazcoac, ta ez justiciazcoac,
cerren dempora beartuan, ordu estu ta premiñazcoan baño, ez gagoz beartu-

-
- 18-2 *concienciaz*: leh. *concienciazcoac*; cf. *concienciaz çor ditutçunac* (GGero 241).
18-6 *jatea ta edatea emotea* < *iatera eta edatera emaita* (GGero 241). Normalean *jaten ta edaten* jarriko zukeen (ik. § 4.4.1); *jatea ta edatea* izen modura ulertu beharko ditugu, beraz.
18-6/7 *bacoachac eta norberac* < *bat bederac berac* (GGero 241).
18-7 *euquiteco*: aurrean *egu*] (*eguiteco?*), ezabatua; cf. *irabaci handiric eguitectoz* (GGero 241).
18-14 *eguin eraguin*: *eraguin* soilaren ordez (ik. § 4.4.2); cf. *eta ez bertceri ere eraguiten* (GGero 242).
18-15 *izango*: aurrean *euquico*, ezabatua, < *içanen* (GGero 242); ik. § 5.1.3.9.
18-17 *dempora beartuan, ordu estu ta premiñazcoan* < *cenbait behar ordu hestutan* (GGero 242). *ordu*: aurrean *ta*, ezabatua.

20 ric aec eguitera. Baña obra justicia[z]coetan, bear-bearrac dirianetan, beste-
la verbatu bear dogu. Bada euroc cumplitu ta betetara bearturic gagoz beca-
tu mortalen pena pean.

25 Eta eztozu, ez, uste izan bear, ondocoen contura ichiaz cumpletan do-
zula, ceuc orain badozu cegaz. Ez eta urrengoai cegaz pagatu seinalaturic,
icentaturic ta apartaturic. Bada, esan oi dan leguez, *jan leiz otsoac ardi con-*
tatuac; alan, zure urrengoac, ostecoac, atzerengoac bere artu lei beretzat zuc
señalatu deutzazunetic. Eta, cegaiti ibilli bear zara señaquizunetan ta bes-
teai concienciaco cargu carga emoten? Ori liteque ceu condenetea, ta beste-
ri condenetaco videa emotea. Ceuc zor dozuna, ceuc pagau eguizu. Ceuc
eguin gura ezpadozu, celan bestec eguingo dau zugaiti?

30 Esango dozu: ez dot, baña, cegaz pagau. Baldin ezpadozu, ecinac eztau
legueric: orduan etzagoz bearturic pagatzera, ecinac dirauan artean. Ez eta
ez zagoz obligaturic pagatzen, baldin artzecodunac berac quitu parcatuten
<179> badeutsu. Orrez gueiago, zor deutzazunac berac, ez ecinbestez, gura
ta gurez, ezpada bere nai guraz ta borondatez ichadon ta epea emoten deutz-
sunean, orduan luzatu ciñei pagamentua, epe edo dempora artaraño, baña ez
35 gueiago. Pagatu al daizula, pagatu baga jabearen vorondatearen contra on-
dasuna euquitea, becatu da. Eta au bardin adietan da zor jaquinagaiti, eta au-

-
- 18-19 *dogu*: aurrean *gara*, ezabatua.
18-19/20 *becatu mortalen pena pean*: singularrari ohikoago baderitzakegu ere, < *beccatu mor-*
talen penan (GGero 242).
18-22 *ceuc orain badozu cegaz*: Añibarroren eransketa.
urrengoai: jat. *urrengoiai* (arg. zuz.).
18-22/23 *señalaturic, icentaturic ta apartaturic*: Axularrek luzeago dakar: *Ez eta ondoco hey,*
certçaz paga esleituric, bereciric eta seinalaturic utzten baderauçu ere (GGero
242). Beharbada oharkabean janda.
18-23/24 *jan leiz otsoac ardi contatuac* < *otsoac ian baiteçaque ardi con[ta]tuetaric* (GGero
242). Cf. HH “(De lo) contado come el lobo, *contatutic otsoac jan oi dic*. Lat. *Non*
curat numerum lupus”, eta DAut-en azalpena (s.v. *contar*): “Refr. que enseña, que
por mas que se cuente alguna cosa para resguardarla mejor, no por esso se suele lo-
grar su seguridad”.
18-24 *ostecoac, atzerengoac*: gainean erantsia; < *ondocoac* bakarrik (GGero 242). *atzeren-*
go: ezohiko adieran erabilia; cf. VB (c.) “último” (eta ik. OEH, s.v. *atzeren*).
18-25 *señalaquizunetan* < *señalatce-quetan* (GGero 242).
18-26 *concienciaco*: Añibarroren eransketa.
18-26/27 *Ori liteque... videa emotea*: Añibarroren eransketa.
18-27/28 *Ceuc eguin gura... zugaiti?*: Añibarroren eransketa. *eguin gura*: leh. *eguiten*.
18-29 *baña* < *ordea* (GGero 242); ik. § 5.2.9.
18-31/32 *quitu parcatuten badeutsu* < *quitatcen baçaitu edo barccatcen baderatçu* (GGero
243). Añibarroren elkartu berezietako bat (ik. § 5.3.1), oraingoan jatorrizkoan jun-
tagailuz lotutako itemetan oinarritua.
18-32 *Orrez gueiago*: gainean, *ez eta*-ren ordez. Nahasteren bat izan da, ziurrenik aurreko
perpauasara bihurtu izanaz; < *Are guehiago* (GGero 243), ohi bezala (ik. § 5.3.4).
18-36/37 *zor jaquinagaiti, eta autortu, declaratu edo aguertuaz* < *çor iaquinaz eta aithortuaz*
(GGero 243); ik. § 5.5.1.

tortu, declaratu edo aguertuaz, cein gauza ostuaz, ixilic eroanaz, consejuz edo lagunduz besteai lapurreta eguiteco videa emonaz. Eta cein batean, cein bestean, pagatu bear da iñori quendu jacona.

- 40 Eta ezta, ez, asco autortu ta aguertutea zorra; ez eta guero ceure ordenuan edo testamentuan, ilteracoan ta azquenean biurtuteco, quitutu ta paguetaco gogo ta vorondatea euquitea. Bada, baldin al badaizu, ceuc vici zarea la aalic lasterren ta bertatic pagatu bear dozu ceure zorra; bai ta biurtu bere gauza ostua ta vide baguez artua, ezcutatua, quendua ta deunguero erona,
- 45 dala tratuan, dala saldu-erostean, dala pisuan, neurrian, trampac jocoan eguiñaz, ta beste olango gaistoz calte eguiñeetan: gai onetan ezta asco ondocoi cargu ichitea.

- 50 Navarro doctoreac diño (Manual. restit. cap. 17): Ilte orduan, berac pagau al daguiala, pagau бага bere urrengoai testamentuan zorrai eranzuteco ta ostua biurtuteco ordenamentua ichiten deutsanac, deunguero eguiten dau, ta eztoa seguru bere conciencian mundu onetaric bestera. Beste bein diño jaquitun onec: Zordun dala daquienac ta justiciac biurtutera beartu artean pagau gura eztabena, becatu mortalean vici da.

- 55 <180> Batzuc becatutzat badauquee bere gauza ostua paga zaga euquitea, baña ezteriche ta eztauquee becatutzat zor jaquina ta autortua lucututea. Esan daroe: Baquit, ta baqui jabeac bere, zor deutsadala; autortuten deutsat, ezteutsat ucatuten, ta badot paguetaco bere gogoa ta vorondatea. Derichazu,

-
- 18-37/38 *consejuz... videa emonaz*: Añibarroren eransketa. *lagunduz*: jat. *langunduz* (arg. zuz.). *videa*: gainean erantsia.
- 18-38/39 *cein bestean*: gainean erantsia; cf. *Haiñ ongui pagatu behar da bata, nola bertcea* (GGero 243).
- 18-40 *ezta*: gainean erantsia; cf. *Eta ezta, ez, asco* (GGero 243).
- 18-40/41 *ordenuan* = GGero 243; lehenago (17-18) *ordenamentuan* erabili du.
- 18-41 *ilteracoan* < *hiltceracoan* (GGero 243); ik. § 5.2.12.
- 18-44/46 *vide baguez artua... calte eguiñeetan*: Añibarroren eransketa; Axularrek *gauça ebatsia eta gaixqui eramana* (GGero 243) baino ez dakar. *dala saldu-erostean*: *dala* gainean erantsia.
- beste olango gaistoz calte eguiñeetan*: egitura gaitza da, *beste olango calte eguiñeetan* ‘kalteetan’ (cf. *OEH*, KALTE EGIN c, s.v. *kalte*) sintagma arruntari *gaistoz* erantsi dionez gero, *kalte egin*-en izen eta aditzasuna aldi berean baliaraziaz. *eguiñeetan*: leh. *eguiñaetan* (ik. § 4.2.4).
- 18-48 *Ilte orduan* < *Hiltceracoan* (GGero 243); ik. § 5.2.12.
- 18-49 *pagau*: aurrean *paguetan*, ezabatua. Añibarrok astindu ederra eman dio Axularren esaldiari, ondo ulertuaz eta ulertaraziaz: *Hiltceracoan, berec paga ahal deçaqueteraric, pagatcen eztutenec, baiña bere testamenteretara, ordeneretara eta ondocoetara utzten dutenec, eztute ongui eguiten* (GGero 243-244).
- 18-53 *eztabena*: jat. *eztabenac* (arg. zuz.); cf. *pagatu nahi eztuenac, beccatu mortal eguiten du* (GGero 244).
- 18-54 *paga zaga* < *pagatu gabe* (GGero 244).
- 18-55 *ezteriche*: ondoan *becatu*, ezabatua; cf. *eztaritçate beccatu* (GGero 244).

autorturic ta paguetaco gogoa euquiric, aimbestegaz cumplietan dozula. Baña engañetan zara; bada, bataz, gogoa bera ezta asco, ez autormena bere; 60 cerren zure gogo ta vorondate onagaz probechu guichi izango dau jabeac, pagamenduric eztanean. Eta, besteti, osasun sendoan pagau al dabenac, gais-sotu edo il arteraño eguin gura eztabenac aditzera emoten dau, baldin gais-sotasunic ezpaliz, ez eriotzaric, contu guichi artuco ebalá. Eta au dacusgu alangoetan: bada, gaissotasunetic igues eguiten badabe, eztabe jaramoten, ta 65 uste dabe aldi atan, ta barriro gaissotu artean, libre ta seguru dagozala.

2 §.

Zuc gura dozu ceuc eguin bear cenduan descargua, ta eguin eztozuna, zure ondocoac eguin daiela. Baña, uste dozu zure dirua edo ondasuna, zuc ceure ondocoari ceure zorrac ta obligaciñoac paguetaco ichiten deutzazuna, 70 ez jacola zure ondocoari bere, zuri laimbeste on, gozo, eder erechico? Eztozu uste? Eztozu gogoratuten zuc leguez ac bere bere demporan gozatu guraco dabela? Eta esan bere bai bere artean: Niri neure aurreroacoac ta lengo igaroac ichi eustan ondasun au, vide baguez ta deunguero beretu eban ta, orregaitic bere, ez eban biurtu, ez quitutu, beti berac euqui eban. Bada ez nas 75 <181> ni bere a baño beartuago biurtutera. Eguia da ac niri, bere ondocoari leguez, aguindu eustala biurtu neguiala; bada nic bere alanche aguinduco deutzat nire urrengoari, seniparte euquico dabenari. Baña bitartean, nire urrengoac leguez, nic bere gozatu gura dot, ta euqui neure demporan. Beguira emen celan batác besteari ichiric, eztan paguric, ez biurreraric secula

-
- 18-61 *osasun sendoan*: ondoan *dagoala*, ezabatua, < *sendo dela* (GGero 244).
 18-61/62 *pagau al dabenac... gura eztabenac*: hala-holako joskera hau Axularrena aldatzetik dator: *pagamendua eguin ahal deçaqueyellaric, eri arteiño eguin nahi eztuenac* (GGero 244).
 18-63 *ez eriotzaric*: aurrean *ta*, ezabatua; cf. *eritasunic ezpaliz, eta eritasunac ondoreric ezpalu* (GGero 244). Axularrek iradoki baino ez duena, Añibarrok agerian jarri behar (ik. § 5.4.2).
 18-64 *eztabe jaramoten*: Añibarroren eransketa.
 18-68 *edo*: gainean erantsia; cf. *çure dirua edo hacienda* (GGero 245).
 18-69 *ondocoari*: leh. *ondoari*, < *ondocoari* (GGero 245).
 18-72/73 *aurrerocoac ta lengo igaroac* < *neure aiticine]a[coac* (GGero 245). *aurrerocoac*: ik. 12-191. oh. *lengo igaroac*: cf. *VB lengoac* (c.) “antepassados”; erdal hitzaren kal-koa egiten saiatu dela dirudi.
 18-73 *eustan*: leh. *eusten* (ik. § 4.2.1).
ta deunguero: *ta* gainean erantsia.
 18-77 *deutzat*: jat. *deutzac* (arg. zuz.).
seniparte euquico dabenari: Añibarroren eransketa. *seniparte*: jat. *semiparte* (arg. zuz.); oso huts polita da, herri-etimologia tartean ibili ote den hausnartzeko beta ematen baitu, baina cf. *seniparte* (49-94 eta 52-145) eta *VB* s.v. *herencia*.
 18-79 *biurreraric*: *VB biurrera* (b. n.) “restitución”.

80 eguiten; bai ta andic ara, celan ceure burua galduten dozun, ta ceure ondo-
coa bere galduteco pelligruan ta videan iminten dozun. Bada pelligrua da, ac
bere zuc baño gueiago jaramon ta quitutuco ezabela. Ay, eta cembat meza,
ceimbat sufragio ta arima-cari, ceimbat bederatziurrun ta urtebeteco, ceim-
bat onra, memoria ta testamentuco aguinduac dagozan eguin ta bete baga,
85 batac besteari ichiric ta dirianac larga eguinic!

Emen dator ederto San Antonino Florenciacoac San Pedro Damianogaz
dirauscuna (Damian ep. 5. c. 8. S. Antonin. 2 part. sum. c. 1. § 5); diño, bada,
bein guizon santu batec icusi ebalá bere espirituaz infernuco suaren erdian
escalera bat; ta escaleraco lenengo mallan edo pausuan conde bat, jaun andi
90 bat. Eta guero icusi cituala beste zazpi conde etorqui berecoac, bata bestea-
ren semeac, ondocoac edo urrengo herederuac, escalera atan egozala. Eta ce-
lan lenengo condeac bere condetasuna, maiorazguia ta ondasuna vide ba-
guez ta deunguero eroanic ta bereturic eucan, ta il zan biurtu baga egoquion
jabeari, beste orrenbeste eguin eban bere urrengoac, bigarrenac, irugarrenac
95 ta zazpigarrenac; batec bere ez eban satisfaciñoric, descarguric eguin; eta
alan, guztiac batac besteen atzean ta jarraian condenatu cirian.

Auxe berberau jazoten da egunean-egunean gente <182> batzuen arte-
an. Eguiten dozuz lapurretac; vide baguez eroanic ta ceureturic dozuz onda-

- 18-80 *andic ara*: bere egin du Añibarrok (ik. § 5.3.3), < *handic eta halatan* (GGero 245).
celan: gainean erantsia.
- 18-82 *eta*: gainean erantsia; cf. *Ha cenbat meça* (GGero 246).
- 18-83 *ceimbat sufragio ta arima-cari* < *cenbat arima-cari* (GGero 246); cf. 18-115. oh. eta
ik. § 5.3.3.
- 18-83/84 *ceimbat bederatziurrun... ta testamentuco aguinduac*: Añibarroren *amplificatio* da (ik.
§ 5.5.3); Axularrek *cenbat descargu* baino ez dakar (GGero 246). *bederatziurrun ta*:
ta gainean erantsia. *memoria*: ondoan *cargu*, ezabatua. *aguinduac*: gainean, *carga*
ta cargu-ren orde; azken orduko zuzenketa honetan huts egin du, mugatuan jarriaz
(ik. § 5.1.1.4).
urtebeteco: cf. *Etzi doguz ama zanaren urtebeteak* “el funeral de aniversario” (Moco-
roa 1990, II, 47837. zb.); Azkuek ere *urtebeteak* (B-d) jaso zuen, gehi *urtebetea*
(AN-b, B-mond, G-bet) eta *urtebetetze* (AN-b).
- 18-88 *bere espirituaz* < *bere espirituan, ametsetan beçala* (GGero 246).
- 18-89 *mallan edo pausuan* < *pausuan eta maillean* (GGero 246).
- 18-90 *etorqui berecoac*: aurrean *bere*, ezabatua, = GGero 246.
- 18-91 *semeac*: lerrotik lerrorako igarobidean erantsia; Axularrek *bata bertcearen ondoan*
baino ez dakar (GGero 246), baina gero eransten du Añibarrok hemen tartekatu
duen azalpena: *Ceren bata bertcearen heredero, ondoco eta elccarren onen primu*
eta iabe baitciren (*ibid.*).
- 18-91/92 *celan*: gainean erantsia.
- 18-93 *eroanic ta*: *ta* gainean, *eucan*-en orde; Axularren azalpena ez da hain zehatza: *Eta lehen-*
bicoac gaizqui eta bidegabequi beretacotu çuena eta satisfatu gabe utci (GGero 246).
- 18-96 *batac besteen atzean ta jarraian* < *bata bertceari cerraitçala condenatu ciren* (GGe-
ro 246). *batac besteen*: sic, ik. § 5.1.2.6.
- 18-97 *egunean-egunean*: gaizki ez badator ere, *egungo egunean*-en orde (GGero 246)
dago.

100 sunac; eta zuc, edo eztozu jaramoten, edo ichiten dozuz paga zague ceure seme edo ondocoen esperanzan; eta bai ac bere besterenean, eta alan beste urrengoac bere; eta andic ara, batac besteari ichiric ta guztiac largaric, ichi oi dira iños cumplidu ta quitutu baga.

105 Ez eban, ez, ori eguin Zaqueo aberatsac, ciñoanean (Luc. 15): Jauna, neure ondasunen erdiac emoten deutedaz pobreai, eta baldin iñor engañatu badot, biurtuten dot lau bider gueiago. Eztiño *emongo dot*, *ezpada emoten dot*, orain, bertati, gueroco ichi baga. Eta iñori ecer quendu badeutsat, ori bere neure escuz, vici nasala, gaissotu baño len, neure ondoco ta urrengoai ichi baga, *biurtuten dot*. Nai vorondatezco obrac, nai concienzazcoac, berac bere escuz eguiten cituan. Eta alan eguin bear dau bacoachac etorquizunetan
110 ibilli baga, baldin gura badau merecimendu andiric erdetsi ta irabaci, ta bere conciencia segurantzaz segurutu.

Iracurri dot bein guizon batec cituala iru egazti aztore, *azor* derichanac, beste egaztiac escura ecarten equien eiztari guztizcoac. Bere azqueneco orduan aetaric bata ichi eban zor batzuc paguetaco, bigarrena bere seme batentzat ta irugarrena arimarentzat mezac aterateco. Aror non guero andic laster egazti oneetaric batac igues eguin eban egaz ta etzan gueiago biurtu, icusi, ez aguerutu; orduan esan eban semeac, igues joan zan egaztia zala bere aitac mezac aterateco ichi ebana. Cein guichi esan eban beretzat ichi ebana zala. Etzaita ceure ondocoen esperanzan, icharomen ta ac eguingo daben ustean fiatu; bada, baldin ceuc, vici <183> zareala, ceure arimaz conturic orain
120 ezpadozu, ta ceuc eguinico utsac ta videbagueac ceuc erremediatu, quitutu, ordetu ta osotuten ezpadozuz, ez eguizu uste izan, ez sinistu, guero zure ondocoac, urrengoac ta gueroacoac ceu ceuc baño obeto eguingo dabela.

125 Guztioac gura dogu salvatu, guztioac nai dogu Cerura joan; ta guztioac dogu icharomena; baña icharomen utsa, esperanza alperra ta, ustez, probe-

-
- 18-99 *paga zague* < *pagatu gabe* (GGero 247); goraxeago *paga zaga* (18-54).
 18-101 *andic ara* < *handic eta halatan* (GGero 247); ik. § 5.3.3.
 18-104 *deutedaz*: leh. *deutsadaz* (ik. § 4.2.1).
 18-108 *berac*: gainean, *bacoachac*-en orde; nahasteren bat izan da: cf. *berac bere escuz eguiten cituen* (GGero 247).
 18-109/110 *etorquizunetan ibilli baga*: Añibarroren eransketa.
 18-112/113 *iru egazti aztore... eiztari guztizcoac* < *hirur aztore onac eta famatuac* (GGero 247). *aztore*: gainean erantsia. *beste*: aurrean *eizt* (*eiztari?*), ezabatua. *Jakin* aditzaren erabilera, ik. 16-48. oh.
 18-114/115 *bere seme batentzat* < *seme bat baitquen, harendaco* (GGero 248). Bakarra zena, zehazgabe bihurtu da Añibarrorean.
 18-115 *arimarentzat*: jat. *arimarentzac* (arg. zuz.); cf. *eta hirugarrena, arima-cari, meçatan emplegatceco* (GGero 248); cf. 18-83. oh.
 18-116 *oneetaric batac* < *hetaric bata* (GGero 248).
 18-123 *ceu ceuc*: sic, *zuc ceuc*-en orde, < *çuc cerorrec* (GGero 248); ik. 17-26. oh.
 18-125/126 *probechu guichitacoa* < *probetchu gutitacoa* (GGero 248), noski (ik. § 5.1.1.4).

chu guichitacoa dabe araco, euquiric cegaz, eranzun bague zorrai ta gauza ostuai, eguin бага ondocoen contura largatzen dabénac. Bat dogunean, bi gura doguz; bi ditugunean, iru. Ondo edo deunguero, artez edo oquer, zucen edo macur, atseguin ta gozo eguiten jacu artutea, aci ta gueitutea ondasuna; 130 baña gach, neque ta aldas gora guichitu, laburtu ta biurtutea: onetan min artuten da, garratz derichagu, atzerapen andia emoten dau. Baña min ta pena artuco bada bere, biurtu bear da, quitu bete bear da. Eta obe da bategaz Cerrura joatea, amarregaz infernura baño.

135 Eta obe bere da, ceure umeari edo ondocoari ichitea guichi ta on, ece ez asco ta deunguero. Guichi onec, ondo irabaci onec, bacochari zor jacona emonic ta osoturic, gueldituco dan apur zati guichi au aci, gueiagotu ta ascotuco da; baña, bestela, guztia galdu, laburtu ta guichituco da; irugarren belaunecoetara guichi edo ecer bere elduco ezta; cerren gauza ostua da sitsa edo sagar ustela leguez, ceñec alboco oial ta sagar on osoac galdu daroaz.

140 Beguira, bada, orain, ta gogoratu eguizu, ea zorric edo besteren gauza deunguero eroanic dozunez; bada oneec eztira vorondatezcoac, <184> ezpada justiciazcoac, bear-bearrac, nai ta naiezcoac, concienciazcoac; eta ceuc ceure escuz orain demporaz ta mugonez besteen beguira egon бага, pagatu eguizu, amatau eguizu. Onelan eguinic, ceure umeac ta ondocoac arriscu andiric ateraco dozuz; eta ceu bere, lenagotic descarguac eguinic, atseguin andi 145 baten ta salvamentuco videan oraingan jarrico zara.

Ez eguizu aztu San Agustinen esate au: *ezta parcatuten becatua, ezpada biurtuten gauza ostua*. Beste becatuac ondo confesaturic parquetan dira;

-
- 18-131 garratz derichagu, atzerapen andia emoten dau: Añibarroren eransketa.
 18-134 *Eta obe bere da* < *Eta hobe da halaber* (GGero 249); ik. § 5.3.4.
 18-134/135 *guichi ta on... asco ta deunguero* < *guti eta on... anhitz eta gaixto* (GGero 249); ik. § 5.5.1.
 18-135 *Guichi onec, ondo irabaci onec*: anakolutua egin du Añibarrok, gero *apur zati guichi au... ascotuco da* amaitzen baitu esaldia, beharbada Axularren erakusleek engainatuta: < *Guti hec, ongui irabaci hec... appur hec, sumatuco dira* (GGero 249). *bacochari*: *aurrean Descar]* (*descargua?*), ezabatua; cf. *descarguac eguinic eta nori berea errendaturic* (GGero 249).
 18-136 *gueldituco dan*: *dan* gainean, *jacon*-en ordeztu, < *gueldituco çaitçan* (GGero 249). *au*: *aurrean onec*, ezabatua; gogoratu goraxeago esana (18-135. oh.). *gueiagotu*: leh. *gueitu*.
 18-137/138 *belaunecoetara*: leh. *belaunecoeta*; ondoan *elduten baldin bada*, ezabatua; cf. *hetaric, hirugarren belhaunecoec guti goçatuco dute* (GGero 249).
 18-138/139 *cerren gauza ostua... galdu daroaz*: Añibarroren eransketa. *ceñec alboco*: gainean erantsia. *galdu*: leh. *galduten* (ik. § 4.3.10.6).
 18-143 *ta mugonez*: gainean erantsia; egia esan, *demporaz ta mugonez* osorik Añibarroren eransketa da.
 18-144/145 *arriscu andiric* < *peril handi batetaric* (GGero 249); ik. § 5.1.1.6.
 18-147/163 *Ez eguizu aztu...*: lerrokada osoa Añibarrorena da.
 18-148 *ondo*: *aurrean conf]* (*confesaturic?*), ezabatua.

- baña au bere oñean gueldituten da, al daizula, biurtuten eztozun artean.
- 150 *Errestituciñoa edo condenaciñoa*: milla bider dei au enzuten da pulpitic, baña gueienetan alper-alperric; ostuten da, baña marai baten valio biurtuten ezta. Emon oi dan iguesbide ta achauia da esatea: Jauna, ecin dot. Baña, celan alco dozu, zu[c] darabiltuzan vaneria, soñeco eder costotsuac, jan-edan gueieguiac, jocoac, obra barri bear-bearrac eztirianac, ta beste milla onelaco? O, ceimbat arima sartuten dituan deabru gaistoac sare, amu ta laquio onetan! O, ceimbat arima irunsi dituan infernuac, bacochari berea ez biurtuteagaiti! Eztabe valio errezu luceac, mezenzuteac, limosnac, barauac; utsac ta guzurrezcoac dira confesiño ta comuniñoac, ta eguin arren penitenciaric arrigarrienac, eztago zuretzat salvaciñoric, al daizula biurtzen ezpadozu vide
- 155
- 160 baguez quendua ta ostua. Biurrera au eguin bear dozu, ez ceuc gura dozunen, ezpada ceimbat lasterren ta prest. Ecin badozu beingoan guztia, zatica, al daizuna, ta guero ganecoa. Bestela, conciencia charrean ta condenetaco ondamentuan zagoz.

18-151 *gueienetan*: aurrean *al*] (*alperric?*), ezabatua.

18-157 *barauac*: aurrean *ta best*] (*beste?*), ezabatua.

18-159 *biurtzen*: aurrean *egu*] (*eguiten?*), ezabatua.

18-160 *Biurrera*: aurrean *Erre*] (*Errestituciño?*), ezabatua.

<185>

19. BURUA

*Ceimbat calte eguiten daben juramentuac ta juramentu
eguiteco ecanduac; eta celan bear dan ceimbat
len oituzco usadio au larga.*

5

1 §.

Celan gure lenengo aitac gure naturaleza au bere becatuaz orbandu, ezaindu, arrazatu ta gaisotu eban, andic gara aserreccorrac, senticorrac ta on bearrac. Andic gara ontasunera baño gaistaqueriara ta donguetasunera jau-siangoac, macurtuagoac ta emonagoac. Andic dogu adimentuan itsutasuna, 10 memorian argaltasuna, vorondatean malicia. Andic eldu bere da guzurrac esatea, alcar ez sinistutea, batac besteagan segurantzatic, confiantzatic ez

-
- 19-4/5 *ceimbat len* < *lehen baiño lehen* (GGero 250). Gisa bereko beste esapide bakarra, askoz maizago erabilia, *ce(i)mbat lasterren* dugu (ik. 0-14/15. oh.). Lehen begiratuan *lenen* beharko lukeela badirudi ere (cf. *albait lenen* 48-144), cf. *VB albait len* baina *alic lenen* “quanto antes”. Añibarrorentzat *len*-ek berak superlatibo balioa zeukala (edo gordetzen zuela, Uhlenbecken etimologiaren arabera; ik. Mitxelena *SHLV* I, 194) adierazten du honek.
- 19-5 *oituzco usadio au larga*: aurrean *oitura usadiozco au ichi*, ezabatua; < *usantça hura utci* (GGero 250).
- 19-7 *aitac*: aurrean *gurasoac*, ezabatua, < *aita harc* (GGero 250).
- 19-7/8 *orbandu, ezaindu, arrazatu ta gaisotu* < *narriatu, arraçatu eta eritoquitu* (GGero 250). *orbandu*: cf. *VB orbana* (b.) “mancha” baina *iñor loitu, orbandu* “(tener) cópula carnal”, *andrea loitu, orbandu* “acceso, acto carnal” bakarrik.
- 19-11 *eldu bere da* < *heldu da halaber* ‘dator’ (GGero 250); ik. § 5.3.4.
- 19-12 *alcar ez sinistutea* < *elccarren ez sinhesta* (GGero 250); baita *sinistu zaguicen* ere (19-17) baina *ezteusuela sinistu gura* (19-16/17). Bietara erabiltzen du beste idazlanetan ere, baina maizago datiboaz (ik. Ciarrusta 1991: 100).

15 euquitea, ta beti sospecha ta bildurrean ibiltea. Eta au calte andia da alcarren artean vici bear dabenentzat; eta ain andia non, beti alan segurutasun, fidancia baga vicitea, ezta vicitea. Bada, calte andi au erremedietaco idoro eban Jangoicoac vide bat, cein dan juramentua. Dacutsunean ezteutsuela sinistugura, ta bear danean sinistu zaguicen, eguin ciñei orduan juramentu eguiatz ta premiñaz: ecarri ciñei ceure esanaren aguertzalle edo testigutzat Jangoicoa, guzurric esan ecin leiquena ta gauza guztien barria daquiana. Eta onelan, testigu onegaz batera emon daguien fedea ta sinistea diñozun esanari. 20 Onetaraco esan eban Jangoicoac (Deuter. 6): Ceure Jangoicoaz bildur izan gozara, eta eguingo dozu aren icenaz juramentu.

25 Eztozu eguin bear juramentu jainco falso uts guzurrezcoaz; cerren atan videbaguea eguin ciñeio Jangoico eguiatzcoari, <186> beroni dagocan onra besteri emonaz. Bada, juramentu eguiten dozunean dacartzu Jangoicoa ceure esanaren testigutzat; ta onetan adierazoten dozu Jangoicoa dala eguiatia, mena, arteza, guztia daiqueana ta daquiana, eta izanic au onra andia Jangoicoarentzat, eztator ondo alango onreric besteri emotea. Eguia da eguin leitequela juramentua Ceruaz, lurraz, santuaz ta beste criaturaz bere: aei ez jaque 30 Jangoicoari dagocan onreric emoten, alango agurric eguiten; ta eguiten bada aec aitaturic ta icentaturic juramentu, ori da Jangoicoaren criatura miragarriac direan aldetic.

Dirudi orain legue barrian ecin juramenturic eguin leitequela iñolacoz, ez iñogaz; bada, Jesu Cristoc dirauscu evangelioan (Math. 7): Esan beguie 35 besteac gura dabena, baña nic dirautsuet iñoscotan juramenturic eztaguizuela. Onen antzera ta erara diño Santiago Apostoluac (Jacob. 7): Guztien gañetic erregututen deuntsuet, neure anaje maitéac, juramenturic bapere ezta-

19-13/14 *alcarren artean vici* = GGero 250.

19-17/18 *eguin ciñei orduan juramentu eguiatz ta premiñaz < daguiçun orduan iuramentu, daguiçun cin* (GGero 251). Ik. 12-233. oh.

19-18 *aguertzalle edo*: gainean erantsia; cf. *ceure erranaren leccuco* (GGero 251). Cf. halaber *aguertzalle edo testigu* (VMg 4, ap. OEH, s.v.), vs VB “testigo: c. *testigua*; n. *leccuco*”.

19-23 *jainco*: aurrean *Jango[ico]*, ezabatua; itzulpen guztian zehar “gezurrezkoak” *jainco* dira, eta ez *Jangoico* (ik. 20-107, 31-44, 32-17 eta 42-101).

19-25 *dacartzu*: leh. *celan dacartzun*; cf. *Ceren nola iuramentu eguiten duçunean, eccartcen baituçu* (GGero 251).

19-28 *emotea*: ondoan Axularrek honako hau dakar: *Eta hala iuramenturic eguitecotz, eguiatzco Iaincoaz eguin behar da, eta ez bertcela, eta ez bertcez* (GGero 251).

19-29 *santuaz ta beste criaturaz < sainduez eta bertce creaturez* (GGero 251); ik. § 5.1.1.10. *aei*: aurrean *baña*, ezabatua; cf. *ez, ordea, hey Iaincoari dagocan ohoreric emaiten çayela* (GGero 252).

19-31 *aec aitaturic*: leh. *aen icenej* (*icenean?*) idazten hasi eta damutu zen. *criatura*: leh. *criaturac*.

19-35 *iñoscotan < neholatan ere* (GGero 252); VB (b.) “jamás”.

guizuela, ez ceruaz, ez lurraz, ez bestez; eta izan bedi zuen verba-eguiçuna:
 40 ez, ez; bai, bai; ez edo bai. Bada orrela, dirudi eztala iños juramenturic eguin
 bear. Alan da, eguia da ta alan dirudi. Ezta juramenturic bapere eguin bear,
 premia eguiazcoa eztanean ta eguia bestela probau al ditequenean. Baña pre-
 miña danean ta eguia probau ta baieztuteco beste videric eztanean, eguin di-
 teque juramentu. Bada, juramentua bere etorquiz, berez ta izanez, Jangoicoa
 45 onratuteco ichi zan; ta bere finez ta zucen vitez ordenatu zan eguiari indarra
 ta valioa emoteco; auciac aldeguiteco; diferenciãc, dudac, bada ezpadac era-
 baguiteco, acabatuteco <187>; baquea sortu ta sartuteco; ta aserreac ebagui-
 teco. Orregaitic diño David santuac (Psal. 52): Alabatuac izango dira Jan-
 goicoaz juramentu eguiten dabeenac. Enda San Pablo Apostoluac diño
 (Hebre. 6): Guizónac, eurac baño andiagoaz eguiten dabe juramentu, ta orre-
 50 gaz acabetan dira euren arteco disputac, diferenciãc ta auciac, juramentua-
 ren bitartez. Cerren juramentu emon ezquero, eguiaztu ezquero, auciraco le-
 curic eztago.

Beragaiti gauza ona ta santua, ta Jangoicoac berac ordenatua da jura-
 mentua. Baña, orrez guztiaz, eguin lei becatu juramentuan. Bada, gauza óna
 55 ta ecin gueiãgoan santua bada bere comuniño veneragarria artutea, baña
 adietan da ondo ta santuro errecivietea, eta ez bestela. Alan da, bada, gauza
 santua ta óna juramentua bere, baña ori, ondo eguiten danean, eguiãz, gauza
 onaren ganean ta premiãaz eguiten danean.

2 §.

60 Juramentuac ondo, zucen ta bear dan leguez eguiña izateco, iru gauza,
 iru lagun ta condiçio bear ditu; eta dira: eguia, premia ta ona edo zucena.
 Alan diño Jeremias profetac (cap. 4). Lenengo, juramentua bear da eguin

19-39 *ez edo bai*: Añibarroren eransketa, *ez, ez; bai, bai*-ren azalpen gisa; ik. § 5.4.2.
 19-40 *bapere*: leh. *bat bere*, < *bat ere* (GGero 252).
 19-42/43 *eguin diteque juramentu* < *eguin diteque eta eguin behar da iuramentu* (GGero 252).
 19-43 *izanez* = GGero 253.
 19-44 *zucen vitez* < *intencionez* (GGero 253).
 19-46/47 *baquea sortu... ebaguiteco*: Añibarroren eransketa. *sortu*: leh. *sortuteco*.
 19-50/51 *juramentuaren bitartez*: Añibarroren eransketa.
 19-51 *eguiãztu ezquero* < *cin eraguinez g[u]ero* (GGero 253); *cin e(ra)gin* ulertzen ez zue-
 lako beste aztarna bat (ik. 12-233. oh.).
auciraco: aurrean *eztago*, ezabatua; cf. *ecin dateque guehiago hauciric* (GGero 253).
 19-53 *santua*: ondoan *da*, ezabatua.
 19-55 *artutea*: aurrean *errecivi]* (*errecivietea?*), ezabatua, < *errecibitcea* (GGero 253).
 19-57/58 *eguiãz... eguiten danean*: Añibarroren eransketa.
 19-60 *eguiña izateco*: aurrean *eguiteco*, ezabatua, < *eguiña içaiteco* (GGero 254).
 19-61 *premia ta*: gainean erantsia; leh. *zucena*-ren ondoren zegoen, hirukotearen bukaeran,
 alegia; cf. *Eguia, premia eta çucena* (GGero 254). *ona edo zucena*: jatorrizkoan *zu-
 zena* (lat. *justitia*) izena da, baina Añibarrok ez du honela ulertu, agi denez.

65 eguiaz, ciur ta seguruzco eguiaz, eta ez dudan. Bada, bestela eguiten dan juramentua, dan gauzaric chiquer ecer ecen baten ganean izanagaiti bere, becatu mortala izango da.

70 Guzurraz juramentu bat eguitea, munduac alangotzat ezpadau bere, becatu andiagoa da, lagunaren ondasuna ostutea <188> baño, desonesqueria bat eguitea baño; bada, juramentuac Jangoico bera bere presonan ucututen dau, eta beste becatuoc ez jacoiz aimbeste eldu ta urreratuten. Imini balegui erregue batec leguea, viciaren penan eztaguiola iñoc iñori belarrondocoric emon; ta orrez guztiaz, jazoco balitz emotea; alangoac bidebaguea eguingo leusquio Erregueri, bere legue edo aguindua ausi ebalaco. Baña oraindiño andiago eguingo leusquio, erregue berari bere presonan emonic. Alan da, bada, guzurrez juramentu eguitea; atan Jangoicoa bera bere personan ucututen da. Bada, Jangoicoa aitatu ta icentatuaz, guzurraren aitor, aguertzalle ta 75 testigutzat ecartea da; eta au da becatu andia, ezaina ta lotsabaguea. Bera-gaiti, bada, juramentu eguitean contuz ta ondo beguiraturic eguin beozu; eta beti eguiaz, beti ceure ustez ciur-ciur daquizula, dudaric бага zagozala.

80 Bigarren bear dana da, premiaz ta bearturic baño ez juramentutea: ezta asco eguiaz ta eguiaren ganean eguitea; orrez gueiago, beguiratu bear da eztedilla eguin alperric, utsean, ecerezqueriaren ganean, aurrera ta atzera beguiratu бага, aidean ta ganora бага. Juramentuaz valiatu bear da purgaz leguez. Purga garratz mina ecinbestez, gaissoric zagozanean, premiña

-
- 19-63 *eguiaz, ciur ta seguruzco eguiaz < eguiaz, eta segurqui eguiaz (GGero 254).*
 19-64 *dan gauzaric: dan leh. danic zen. Gero honi darraioken superlatiboa estalixe dago, ecer ecenaren ganean-en ordeiz; cf. den gauçaric eztheuseenaren ganean (GGero 254).*
baten ganean: leh. batean.
 19-66 *Guzurraz: leh. Guzurraren (G. ganean jartzeko? cf. 19-225), < Gueçurrez (GGero 254); ik. § 5.1.1.10.*
 19-67/68 *desonesqueria bat eguitea < edoecin emazterequin parte içaitea (GGero 254). desonesqueria: jat. desonezqueria (arg. zuz.).*
 19-69 *beste becatuoc < bertce beccatu hauc (GGero 254).*
urreratuten: leh. urtuten; halere, biak erabiltzen ditu: urtu-z ik. 4-152. oh.; urreratu-z 3-25, 14-63, 15-111, etab.; eta biez cf. VB urreratu, urtu (b.) "acercarse".
 19-70 *belarrondocoric: leh. belarondocoric, < behar-ondocoric (GGero 254).*
 19-72 *Erregueri = GGero 254.*
 19-73 *errege: aurrean bere, ezabatua.*
berari: jat. barari (arg. zuz.).
 19-75/76 *guzurraren aitor, aguertzalle ta testigutzat < gueçurraren aithor eta leccuco (GGero 255). guzurraren: jat. guezuraren (arg. zuz.). aguertzalle: ganean erantsia.*
 19-76 *becatu andia: leh. becatua, < beccatu handia (GGero 255).*
 19-77 *contuz: aurrean begui] (beguiraturic?), ezabatua.*
beozu: honelako formez, ik. § 4.3.10.13.
 19-81/82 *aurrera ta atzera beguiratu бага < aïcin-guibel behatu gabe (GGero 255). ik. § 5.3.4.*

85 dozunean baxen artuten eztozu; ta orduan bere, álic guichiena; eta baldin bera бага igaro al badaizu, eztozu artuten. Alan eguin bear da, bada, juramentuaz bere: ecin gueiagoan, premiaz, bearturic, ceure fama ta onrea joatzunean, justiciac atara beartu ta zacartzanean. Cergaitic ce, bestela, ez edo bai asco danean, esate bacarrac valio dabenean <189> juramentu eguiten badozu, eguiaren ganean balitz bere, becatu veniala edolabere edo guichienez

90 eguingo dozu. Ezta idoroten eguin ebalá San Pabloc eguño juramenturic, ezpada escribituz edo paperean. Cerren escribietan dan gauza obeto pensatuaz ta gogoratuaz ifinten da, bereala solasean esaten dana baño; bai ta bere atan eguiaz ta premiaz eguin bear dozu juramentua.

95 Irugarrena: ezta, ez, asco eguiaz ta premiaz juramentu eguitea; bada, orrez gueiago, eguin bear da gauza onaren ta justuaren ganean, ta ez gach ta deunguero eguiteco asmoan. Eguiten dozunean juramentu, ausi bear deutzazula persona bati burua, edo beste gaistaqueria bat eguin bear deutzazula, gai onetan becatu eguiten dozu alango juramentua eguiteaz, ta beste becatu bat a juramentua cumplieteaz; juramentu char au eztozu cumplitu bear. Bardin,

100 juramentu eguiten dozunean gauza on batzuc ez eguiteco: pobreak ecer ez emoteco, iñori ez ecer ordeaz emoteco, Elexa Santeac beartuten zaituenean baño ez barauric eguiteco, edo astegunean mezaric ez enzuteco, becatu eguiten dozu onetarico juramentua eguinaz, ta etzagoz cumplietara bearturic, ta obe da ez cumplietea.

- 19-84 *álic guichiena < ahalic eta gutiena eta berantena (GGero 255).*
- 19-85 *eztozu artuten < ez luque harc bere pareric, are hura hobeago (GGero 255).*
- 19-86 *fama: aurrean on] (onrea?), ezabatua; cf. ceure ohoreaz dihoatçunean (GGero 255).*
- 19-87 *beartu: aurrean zac] (zacartzanean?), ezabatua; cf. çucentqui behartcen eta errequeritcen çaituenean (GGero 255).*
- 19-88 *esate bacarrac valio dabenean: Añibarroren eransketa, ez edo bai asco danean-en azalpen gisa (ik. § 5.4.2), < ez eta bai asco den leccuan (GGero 255).*
- juramentu: aurrean eguite[n], ezabatua; cf. eguiten baduçu iuramentu (GGero 255).*
- 19-91 *escribituz edo paperean < esquiribuz (GGero 256).*
- 19-92/93 *bai ta bere atan eguiaz ta premiaz eguin bear dozu juramentua: ez du zentzu handirik honek. Inolako dudarik gabe, oharkabean lerro oso bat jan du Añibarrok, jatorrizkoan eta bai halaber, halatan bukatzen den lerrotik (= baita bere atan), eguiaz eta premiaz-ekin hasten den hurrengo bigarrean zuzenean jarraituaz; pasarte osorik honela da: eta bai halaber, halatan huts ere gutiago eguiten. Ustez bedere, eguiaz eta premiaz behar duçu eguin iuramentua (GGero 256). atan: aurrean oneta[n], ezabatua; aurreko bertsio baten kopia balitz, uste dudanez (ik. § 3.2), han alan (< halatan) jarriko zukeen.*
- 19-99 *juramentu char au eztozu cumplitu bear: Añibarroren eransketa, gainean egina, eta oso argigarria, bestalde, itzultzaileak bere irakurle gaiez zeukan inpresioaz jabetzeko (ik. § 5.4.2). Axularrek honela dio, haren ordeaz: Eta baldin uste baduçu edo sinhesten baduçu obligatu çarela complitcera, hirugarren batez cargatcen çara (GGero 256).*
- 19-101 *ordeaz emoteco < prestatceco (GGero 256).*
- 19-102 *edo astegunean mezaric ez enzuteco: Añibarroren eransketa.*
- 19-103 *onetarico juramentua eguinaz: Axularrek venial bedere (GGero 256) gaineratzen du.*

105 Baita bere juramentu eguiten badozu ecer bere valio eztaben gauceen ganean, ta euretaric ezpadator calteric, ez eta cumplituaz probechuric, celan dirian: maian jarritean, etzareala lenengo jarrico; echean sartutean, etzareala aurrezco sartuco; edatean, eztozula lenengo edango; onelango juramentua eguiteaz eztago <190> becuric, beintzat mortalic, ez eta ez cumplitzeaz
 110 bere. San Pedroc esan eutsan bene-benetan, juramentu eguinic leguez, Jesu Cristori (Joan. 13): Ezteustazuz secula niri oñac garbituco. Eta, orrez guztiaz, ichi eutsan garbituten; ta ez eban onetan becuric eguin. Bada, onelango juramentuetan emoten da aditzera, gueure aldetic dagoanaz, cortesiaz, alan gura guenduquela. Baña ichi guiñei gueure burua venzututera becuric
 115 baza, San Pedroc ichi eban leguez.

Eta juramentu batzuc beguiratuten daben leguez orain presenteco gauzai, ta beste batzuc etorquizunecoai ta gueroecoai, guztietan bear da eguia. Eta etorquizunecoac eguin bear dira gauza onaz, malicia бага, engaño бага, eta cumplitaco usteaz, gogoaz, vorondateaz, baldin cumplitzeaz calteren
 120 batzuc, iñoc len uste eztabenic, sortu ta aguertuten ezpada, Herodesec juramentu eguin ebanean aguertu, jazo ta guerta zan leguez.

Herodesec, venturaz gogoan gachic ez ceucala, esquiñi, opa, aguindu ta promestu eutsan nescacha dantzari bati, emongo eutsala escatuten eutsan guztia. Eta orduraño ondo egoan juramentua. Baña, aror non guero, escatu
 125 eutsanean San Juan Bautistaren burua, galdu eban juramentuac indarra; etzan bete ta cumplidu bear. Dira beste juramentu asco, batzuc cemaituzcoac edo menazuac eguinic; beste batzuc maldiciño edo biraozcoac, gurasoac

-
- 19-105 *juramentu*: aurrean eg] (*eguiten?*), ezabatua; cf. *Halaber eguiten baititutçu...* (GGero 256). *gauceen*: ik. § 4.2.4.
- 19-106 *euretaric ezpadator calteric, ez eta cumplituaz probechuric < ezpaita hequen haustez az calteric eta ez cumplitceaz probe[t]churic* (GGero 257); ik. § 5.5.1.
- 19-108 *aurrezco sartuco < aiticinean sarthuco* (GGero 257). Cf. “Berbetan ezta aurrezkoa, no se anticipa en hablar (V-arr)” A *Apend* (ap. *OEH*, s.v. 2 *aurrezko*).
- 19-120 *aguertuten ezpada*: pluralean hasi eta singularrean bukatu du esaldia. Arrazoia Axularren testua hitzez hitz itzultzean datza: *baldin complitceaz cenbait calte, nehorc lehen uste etçuenic, sortcen eta aguertcen ezpada* (GGero 257); *cenbait calte < calteren batzuc* aldaketan dago koxka, noski.
Herodesec: ondoan *aguertu eban leguez*, ezabatua; cf. *nola aguertu baitcen, [H]erodesec eguin çuen iuramentuan* (GGero 257).
- 19-123 *promestu eutsan*: Axularrek gaineratzen du: *iuramentu eguinic* (GGero 258), ez baita garrantzi gutxikoa, ari garen gaiaz ari garela.
- 19-126 *Dira*: aurrean *Onela*, ezabatua; cf. *Halaber badira...* (GGero 258).
- 19-126/127 *beste juramentu asco, batzuc... beste batzuc... < Halaber badira bertce iuramentu, batçuc mehatchuzcoac, eta bai maradicinozcoac ere, aita amec...* (GGero 258) < *Halaber badira bertce iuramentuac, batçuc...* (Gero 258). *asco*: aurrean *batzuc*, ezabatua.
cemaituzcoac edo menazuac eguinic: *mehatchuzcoac*-en itzulpena; sintagma bitxia, bai bi osagaiak taiu berekoak ez izateagatik, baita *cemaituzcoac*-en oinarriarengatik, *cemaituzcoac*-edo espero baikenuke.

euren umeai, nagusiac euren otseñai eguin daroaqueezanac. Guraso ta nagusien birao oneec beti dira becatu, adivide charra, escandaloa ta becuraco
 130 videa emoten deutseelaco. Bada, andic icasten dabe umeac <191> bere biraoac, añenac, madaricaciñoac ta infernuco verbacuntzac esaten; ta are gueiago, gurasoen biraoac gueienetan edo beti elduten dira umeetara, gueldituten dirialaco madaricaturic, Noeren lloba Canaan madaricaturic guelditu zan leguez.

135 3 §.

Juramentuan dan gauzaric char deunguena, galdugarriena, arriscu ta pelligruzcoena da, onetaraco artuten dan usadio ta ecandua: premiña бага, eguia ala guzurra dan beguiratu бага, maquilla bat edocein jo ta astinduteco escuan beti darabillana leguez, aoan juramentua, verba guztietan juramentua
 140 erabiltea. Ez eta bai asco dan lecuan, verba bat esan ta enzuteaz guztia eguinic egoana, nor ezta larritu, bildurtu, icaratuten enzunic: Cristoren pasiñoa, Cristoren gorputza, Jangoicoaren odola, ta beste onetaricoac? Nori ez jacaz buruco ulleac laztuten? Espirituac berac diño (Eccle. 25): Juramentu asco eguiteac, beti biraoca egoteac laztuten ditu buruco ulleac; eta cristiñau onac
 145 alangoric ez enzuteagaiti, belarriac ichiten dituez, burua beste aldera biurtuten dabe.

Juramentu asco eguitea, beti biraoca ta erneguan egotea <192> infernuco usantza da, ta infernuan eguin oi dan verbacuntza madaricatu da. Baco-

-
- 19-128 *eguin daroaqueezanac < eguiten derausteçatenac (GGero 258); ik. § 4.3.10.6.*
 19-128/129 *Guraso ta nagusien birao oneec beti dira becatu: berdinetik berdinerako jauzia (Hec guztiac dira beccatu-tik Ordea guztiarequin ere guztiac dira beccatu-ra) dago itzulpe-
 nean, honako guztia jaso gabe utzita: Eta anhitzetan ere mehatchuzcoec, complitceco vorondateric gabe eguiten badituzte ere, eta maradicioneac ere ez hitzez baicen, ce-
 ren ezpailuquete nahi halacoric, guztiz ere hequen uney guertha lequien (GGero 258).*
 19-129/130 *adivide charra... emoten deutseelaco: Añibarroren eransketa.*
 19-132/133 *gueldituten dirialaco madaricaturic < eta guelditcen dira maradicatuac (GGero 258);
 ik. § 5.1.3.1.*
 19-133 *madaricaturic: leh. madaricatu, < maradicatu (GGero 258).*
 19-136 *char: aurrean deu] (deunguena?), ezabatua.*
 19-138/139 *maquilla bat... aoan juramentua: Axularren metafora oso bestelakoa da: maquillaren
 permatceco eta pordoincatceco urrats guztiaz, escuan beçala iuramentuaren ere
 ahoan, hitz guztiaz minçatceco, erabiltcea (GGero 259). Hemendik dator, bestek
 beste, escuan leguez non sartu dudatan aritu izana: hasieran maquilla bat-en ondoan
 jarri zuen.*
 19-140/141 *verba bat... egoana: Añibarroren eransketa.*
 19-141/142 *Cristoren pasiñoa... ta beste onetaricoac?: Añibarrok Axularren birao-zerrenda luza-
 tu du: bai Iaincoaren pasionea, ez Iaincoaren odola (GGero 259).*
 19-143 *Eccle. 25: Axularrek 27 dio (GGero eta Gero 259, in m.).*
 19-147 *Juramentu asco eguitea: aurreko lerroan bestelako hasierak saiatu zituen: Beti biraoca
 egotea, lehenik, eta gero, ertz aldera, Juramentu asco, < Juramentu anhitz egui-
 tea (GGero 259).*

150 cha bere verba-eguiten ezagututen da nongoa dan: frances verba eguiten badau, Franciacoa dala; espaiñolez verba eguiten badau, espaiñarra dala. Onelan, bada, bacocho bere madaricaciño, birao ta añeneetan da ezagun nongoa dan, infernucoa dala. Eta San Pedrori, bere Maissua ucatu ebanean, cirautseen leguez (Math. 16): Eztozu cer ucatu, Jesusen discipuluetarico zara, zure verba eguitean aguiri dozu, ezagun zara. Alan esan lequiquio bi-
155 raoguille bati, ernegari bati, juramentu ta madaricaciñoa darion bati: Zu aetaricoa zara, infernucoa zara, erneguan ta biraoan adierazoten dozu, ezagun zara. Bada, ori da infernuco verbacuntza, betico soñua, an ta angoen artean usatzen dana. Infernuan dagozanac, ecin sufrituric ango min andi garratzac, pena ta naibague latz arrigarriac, beti dagoz ernegaturic, gogaituric, birao ta
160 maldi[ci]ñoca; alan dirauscu San Joan Evangelistac (Apocal. 8): Pena ta nequeac estuturic, gau ta egun dagoz biraoca Jangoicoaren contra.

Cristiñau onac, virtutetsuac, jangoicotiac oitu ta ecanduten dirian leguez orainganic emen lurrean, guero Ceruan eguingo daben officioa eguiten ta icasten, Jangoicoa alabatzen, ceruzco verbac esaten; alan infernuraco vide-
165 an dabilzanac bere asten dira orainganic infernuco officioa eguiten, erneguac, biraoc ta madaricaciñoac egozten ta ezarten.

<193> Icusicozuz guraso ta ugazaba ascoc laquetu edo ichiten deutsee-
la euren seme alabai, otseñai, servitzariai, gura dituezan birao ta añen guz-
tiac esaten, artan damuric, lotsaric artu baga, arpegui ilun itsal bat eracutsi
170 baga, ta ascotan ontzat artu ta enzuten dituezala, castiguric emon baga eta eragotzi baga. Oneec ta onelangoac dira escrivau fariseoac leguez, ceintzuc laquetu ta gura izan eben eguin eguioezala Jesus gure Salvatzalleari, ta aren icen santuari, echecoac ta beste guztiac gura cituezan injuriac, irainac, bur-
lac ta mensprecio guztiac. Fin gaistoaz eguin eben oneec, ta alan eguingo
175 dabe alangoac dirianac bere.

19-149/150 *frances verba eguiten badau* <francesez mintço dena (GGero 259), nahiz gero espaiñolez, = GGero ib.

19-150 *Franciacoa... espaiñarra* <Franciaco... Espaiñiaco (GGero 259).

19-151 *añeneetan*: ik. § 4.2.4.

19-160/161 *Pena ta nequeac... Jangoicoaren contra*: Axularrek latinez bakarrik dakar: *Blasphemaverunt Deum cæli præ doloribus & vulneribus* (GGero 260). *gau*: jat. *jau* (arg. zuz.); *aurrean beti*, ezabatua.

19-162 *jangoicotiac: VB Jangoicotia* (c.) “siervo de Dios”; cf. *Eta nola parabisuratcen direnac...* (GGero 260).
oitu ta: gainean erantsia.

19-167 *Icusicozuz*: kompletiboaren subjektuarekin egiten du komuntzadura, *ad sensum*; ez Axularrean: *Iccusico duçu...* (GGero 260). Formari buruz, ik. § 4.3.10.13.

19-170 *ontzat artu*: leh. *ontzat artuten d]* (dituezala?).

19-172 *laquetu ta*: ta gainean erantsia.

eguioezala: gainean, *lequiquioezala*-ren ordez; cf. *eguin ciaçoten* (GGero 261).

19-174 *mensprecio*: sic. Urquijok (1928: 444) *menosprecio* irakurri du; ez da ezinezkoa, baina ez eta lehenago erabili duen eta Hegoaldean ezohikoa den *mezprecio*-ren beste aldaera bat izatea ere (ik. 11-308/309. oh.).

Fin gaistoaz eguin eben <Fin gaitz eguin çuten (GGero 261). Gaizki ulertu du oraingoan (ik. 3-114. oh.), ‘xede txarraz’ bagenio bezala, alegia.

Infernura joateco señale andienetic bat da juramentu ta biraoac eguiteco ecandu ta usadioa euquitea. Usantza au dauquenac badauque bere lotsea beste becatuac confesetaco, baña ez papere lotsaric, atzerapenic, ez arduratic biraoac esan dituela confesetaco, aitortu ta aguertuteco. Alangoac, confesetara datozanean, ta itanduten jaquenean ea ce becatu eguin daben, bertati, vaneriaz leguez ta onra balitz leguez, juramentu ta biraoac iminten dituez aurrez aur lenengo asitean. O, Jangoico maitea, zuc begui onez beguiratu eguiezu, ta erremediatu eguizuz alangoac; ucutu eguizu euren biotza, ta arguitu euren adimentua, ezagutu daguien bein edo bein euren ecandu charra, bada bestela, eguin dau aenac, galduac izango dira.

4 §.

Jangoico beraren onra ta bere icen santuarena ain dabiltz <194> batera alcarturic, baturic ta ur ce, baldin Jangoicoaren onra ifinten bada legueco lenengo aguinduan edo mandamentuan, bere icen santuari dagocanaz verba eguiten da bigarreanean. Andia da Jangoicoaren icen santu adoragarriari zor jacan onrea, eguin bear jacan agur, buru macurte ta beguiramentua, eta eguin bear jacan alabanza ta andizqueta veneragarria. Beraz, onela, andia, ezaina ta lotsagarria izango da bere icen santua utsic, alperric, premiña бага, ganorra ta lotsa бага, eguiatz ala guzurrez dan conturic eguin бага erabilteaz eguiten dan becatua.

- 19-177 *badauque bere* < *aguian badute* (GGero 261); *aguian*-ez, ik. 22-25. oh.
 19-178 *becatuac*: leh. *pecatuac*.
papere: beste bi agerraldi baino ez ditu testuan, bata hemen bezalatsu testuinguruak eragin dezakeen moduan (42-57), eta bestea testuinguru egokirik gabe (19-260). Edonola ere, gainerakoan *bapere* edozein testuingurutan erabiltzen du, buru hone-tatik atera gabe (ik. 19-37, 19-40 edo 19-288) ikus daitekeen bezala, eta behin *papere* > *bapere* zuzendu du (5-106. oh.).
 19-180 *ce*: leh. *cer*.
 19-182 *aurrez aur*: aurrean *guztien*, ezabatua; cf. *ibenceintuzte brancan, lehenbico hastean* (GGero 261).
 19-183 *eguiezu*: leh. *eguizue* edo *eguizuz*, azken letra tinta nato batez ezabatu du.
 19-184 *ezagutu daguien... euren ecandu charra*: Añibarroren eransketa; oro har *begui onez*-etik hasi (19-182) eta lerrokada bukaeraraino, bere *amplificatio*-a da, < *Ha laincoa, çuc uquitçatçu, çuc erremedia i[t]çatçu halacoac, çeren bertcela eguin du hequenac* (GGero 261).
 19-188 *legueco*: aurrean *lenengo*, ezabatua; cf. *lehenbico manamendua* (GGero 261).
 19-189 *dagocanaz* = GGero 261.
 19-191 *agur, buru macurte ta beguiramentua* < *agurra* (GGero 262). *buru macurte*: VB (c.) “cortesía”. *beguiramentua*: gainean, *erreverencia*-ren ordezt, baina hau ezabatu gabe.
 19-192 *andizqueta*: ‘laudorioa’; lehenago (16-32) *andizca* erabili du esanahi berarekin.
 19-194 *guzurrez*: ondoan *aitatu ta icentatutea*, ezabatua; cf. *eguiatz ala gueçurrez mintço den conturic eguin gabe* (GGero 262).
 19-195 *becatua*: Axularrek *beccatua eta descortesia* dakar (GGero 262).

Bacencus guizon batec, mezaco caliza aldaretic arturic, bertan edoceini, aguiiri dirian arlote, prestuez, billau, esquean dabilztanai ta beste era guztico genteai emoten deutseela cantoi ta ardantegui guztietan edaten, cer esango ete cenduca? Bertati suac arturic, esango cenduque ori zala luterotasuna ta
 200 heregiaren antzeco, gauza deungue ezaina, ta eztaquizula ce castigu ordenatu bear lichaquion alangoari. Bada, caliza baño gauza andiango ta onra gueiango zor jacona da Jangoicoaren icen santua. Eta caliz bat orrela darabil-
 205 lenac castigu latza mereci badau, cer zorco jaco Jangoicoaren icen santua ain sarri, ain ardura ta lotsa guichiaz, ain alper utsic ta contu guichi eguinic erabilteco ecandu deunguea dabenari?

Juramentu eguitea da, diñogun gauzaren bat sinisterazoteco ta baieztuteco <195> Jangoicoari deitutea, icentatutea, aitatutea, Jangoicoa aguertzalle, testigutzat ecartea, ifintea. Eta baldin diñozuzan verba simple, alper, ece-
 210 rezqueria guztietan deituco bacendu erregue edo beste jaun andi errespetagarri bat testigutzat, merceduco bacenduque emon eguizun edocein castigu, darabilzulaco alango persona ain estimaciño ta contu guichian: cer mercecico dozu, eta ce castigu ondo etorrico da, orretaraco ta gomutaciño, aitatze ta icentaciño guztietaraco Jangoicoa bera, erregue guztien erre-
 215 guea, testigutzat dacartzunean juramentu eguiten dozun bacochean?

Ecín esan lei ce andia ta ezaina dan atan Jangoicoari eguiten jacon bide-
 220 baguea, iraina ta ofensa; eta becatariac berac bere buruari dacarquion calte ta zorigacha. Agaiti diño Espiritu Santuac (Ecl. 25): Etzaitze oitu, ez ecandutu, ceure aoan sarri erabilten juramentua, bada, jauste asco, beaztopa ta arriscu dago orretan. Verba ta barriqueta asco eguin daroanac equi oi di-
 220 tuan leguez peligruc, batean ezpada bestean, bere verba larretan uts eguiteco ta vitez campora ibilteco; alan juramentu asco eguiten dituanac bere, be-

-
- 19-198 *cantoi ta ardantegui guztietan* < *cantoin guztietan* (GGero 262). *ardantegui*: <t> oso markatuta dago, <d> zuzendu izan balu bezala.
- 19-199 *Bertati suac arturic*: Añibarroren eransketa; cf. *Gutienean bacenerraque...* (GGero 262).
luterotasuna ta: gainean erantsia; cf. *hura dela luthertasun handia* (GGero 262), Azkuek ere "heregia" itzulia (ik. *OEH*, s.v.).
- 19-206/207 *ta baieztuteco*: gainean erantsia; cf. *sinhetzaracitceco* bakarrik (GGero 262).
- 19-208 *simple*: aurrean *alper*, ezabatua; cf. *hitz erguel guztietan* (GGero 262).
- 19-210 *merceduco bacenduque* < *mereci bacenduque* (GGero 262).
- 19-213 *aitatze ta icentaciño*: gainean erantsia; cf. *aippamen guztietaco* (GGero 263).
- 19-216 *dacarquion*: eta *dacarquiozanac* (40-83), baina *dacarco* (40-80), hala nola *dacarcuran* (43-104); cf. halaber *dacarco* (GB 47).
- 19-218/219 *jauste asco, beaztopa ta arriscu* < *anhitz casu, behatztopa eta peril* (GGero 263). *anhitz*-en eremua gaizki erabakia (ik. § 5.1.2.7).
- 19-219 *Verba*: ondoan *asj* (*asco?*), ezabatua.
- 19-221/222 *beguiratu бага, ardura ta conturic бага*: Añibarroren eransketa.

guiratu baga, ardura ta conturic baga, dauco pelligrua juramentu batzuc don-
guero eguiteco. Adña pelligru ta arriscu dauque ece, onelango ecandua da-
benac, beguiratu baga eguiatz ala guzurraz dan, prest ta erabaguiac dagoz
225 eguiaren ganean leguez, guzuraren ganean juramentu eguiteco: onelangoac
juramentu eguiten dabena bacochean becatu eguiten dau, ta infernuco videan
ta ondandian bere burua ifinten dau.

<196> Orregaiti Salomonec, ondo equizanac leguez juramentu eguiteco
ecandu ta usadioari darraiozan calteac, esan eban (Eccles. 23): Juramentu
230 asco eguiten dabena gachez, gaisotasunez, zorigachez, becatuz ta gaistaque-
riaz beteco da, eta ezta aren echetic alde eguingo zorigacha, an izango da ja-
zoera ta guertaldi charra, idoro ta aurquituco da bear eztana. Eta alan, con-
tuan bagagoz ta baldin ondo oartuten badogu, enzun ta icusico dogu persona
ernegariac, biraoguillac mundu onetan bere jazoera deungue asco euqui da-
235 roela; ta ernegu oneec dacardezala beste becatu ta donguetasuneetan jausi ta
ondatutera, eta azquen adu gaistoco bat euquitera.

5 §.

Becatu andia, ta ondo andia, ezaina ta provechubaguea da juramentua, ta
juramentu eguiteco ecandua ta usadio citela. Oraindiño ostutea ta desones-
240 queria baño bere ezainago dirudi: becatu oneec eztira ain mirarituteco, ce-
rren euroetan atseguinen bat, gustu ta provechuren bat aurquituten da. Bai-
ña juramentuan ezta provechuric, atseguintasunic, ez gusturic.

Baita bere gauza desonragarria ta lotsagarria da juramentua. Bada, ver-
ba guztietan juramentu eguiten dabena, adietan emoten dau guzurtia dala,
245 ta bere esana, testigu baga, sinisteric ecin emon lequiquioela. Guizon bati,
diñozan verba guztietan esetsi ta contra emongo baleusquio batec, eta
[e]sango baleusquio, ezteutsugu sinistuten, <197> alperric zagoz verbaz,
ecazuz testiguac baldin gura badozu sinistu daizugun, gai onetan desonra lo-

-
- 19-223 *Adña pelligru ta arriscu dauque ece < Hain peril ecen (GGero 263). dauque: gaine-*
an erantsia. Adña... ece...: ik. 7-78. oh.
- 19-228 *equizanac: leh. equianac; cf. ciaquienac beçala cenbat calte... (GGero 264).*
- 19-230 *gaisotasunez: ik. 13-214. oh.*
- 19-231/232 *jazoera: ondoan charra, ezabatua.*
- 19-232/233 *contuan bagagoz... oartuten badogu < baldin contua ongui eduquitcen badugu (GGe-*
ro 264).
- 19-235 *donguetasuneetan: ik. § 4.2.4.*
- 19-239/240 *desonesqueria < emazte batequin parte içaitea (GGero 264), beti bezala (ik. § 5.4.4).*
- 19-245 *lequiquioela: leh. lequiquiola.*
- 19-246 *contra emongo baleusquio batec < nehor contra balequio (GGero 265); nehor > bat*
aldaketa gehiago dago (ik. 42-49. oh. eta, gauzatu ez badu ere, 22-109. oh.).
- 19-248 *baldin gura badozu sinistu daizugun: Añibarroren eransketa.*

250 tsagarria emongo ceunsequio. Era onetara, verba guztietan juramentuten da-
benac, ta juramentuaz bere verba guztiac probatu, baieztu, sinisterazo ta on-
tzatu gura dituanac, bere buruari desonra emoten deutso: bada, icusiric ez-
teutséla sinisten, dacarz testiguac, au da juramentúac, eurocaz batean sinistu
daguiontzat.

255 Gente prestuac, eguiatiac ta menac damu artuten dabe euren verba bacar
bati sinistu gura ezteutsenean, ta juramentu eguitera beartuten dituenean.
Eta, baldin zu alan beartuten bazaituzte, ceuc daucazu errua, ceuc orretara-
co bidea emoten dozu; alan diño San Juan Crisostomoc (homil. 9. act.
apost.), cerren ain prest ta erraz juramentu eguinic, beragaiti ain sarri artara
beartuten zaitue. Munduac balecus, diño San Crisostomo berac (ibi 5), ezto-
260 zula papere juramenturic eguiten, ta ez guzurric esaten, eta beti eguiaz, con-
tuz ta ciur berba eguiten dozula, ta fama onean bazaituzte, sinistu eguidazu
orduan zure berba uts bacar bati, ta quiñu ta siñu bati bere, siniste gueiago
emon leusquioela juramentu, birao ta ernegu asco eguiten dituzanari baño.
Baña, celan zarean guzurtia, guzur utsa, faulerua, barrichua ta berba-lapico
265 bat, beragaitic ezteutsue sinisten; ta orregaiti, cerorrec bere, ceure guzurrac
sinisterazo gura izanic, juramentuac ta madaricaciñoac esan oi dozuz.

-
- 19-249 *ceunsequio*: aipu zuzenaren 2. pertsonarekin jarraitzen du, jadanik 3.ean beharko lukeen
arren: cf. *desohore eman bailliaçaiote* (GGero 265).
- 19-250 *sinisterazo*: gainean erantsia; Axularrek *frogatu* bakarrik (GGero 265).
- 19-252/253 *sinistu daguiontzat* < *sinhetz deçaten amoreac gatic* (GGero 265); ik. 5.3.4.
- 19-256 *bazaituzte* = GGero 265; ik. 15-259. oh.
- 19-257 *bidea*: leh. *videa*.
- 19-258 *cerren... eguinic*: ez du lehengo perpausarekiko lotura sintaktikoa apurtu, nonbait; cf.,
berriz, *Ceren hain prestuqui eta erraxqui eguiten baituçu iuramentu, halatan...*
(GGero 265).
- artara*: aurrean *atara*, ezabatua, < *hartara* (GGero 265).
- 19-260 *papere*: sic, testuinguru egokirik gabe (ik. 19-178. oh.).
- 19-261 *berba*: leh. *verba*.
fama onean bazaituzte < *fama hartan baceneunde* (GGero 265). Aurreko zatian irrea-
lean dabil bera ere, baina ez hemen (cf. gero 19-263. oh.); berebat, subjektua sin-
gularra (*munduac*) da, hemengo aditzean pluralean islatzen bada ere.
- 19-262 *berba*: leh. *verba*.
ta quiñu ta siñu bati bere: leh. *ta quiñu bati / bati*, bigarrena ezabatua eta *ta siñu bati*
haren gainean zuzendua; beste *bati* ere kentzea nire erabakia da, lerro aldaketak ez-
kutatu diolakoan; cf. *eta are kheinuari eta aieruari ere* (GGero 265).
- 19-263 *leusquioela*: leh. *leusquiola*.
- 19-264 *guzur utsa*: gainean erantsia. Edonola ere, izenondo segida ia guztia Añibarrarena da,
baina ezabatu egin du bereziki interesatzen zaigun osagarri bat (cf. 19-261): *nola*
baitçara gueçurti eta fama hartan baitçaude (GGero 266).
- faulerua*: VB (c.) "fabulador".
- 19-265 *orregaiti*: leh. *orregaitic*.
cerorrec = GGero 266; ik. 17-26. oh.
- 19-266 *juramentuac*: aurrean *egui*] (*eguiten?*), ezabatua; cf. *hanbat arnegu eta iuramentu*
eguiten duçu (GGero 266).

Baña, ceimbat eta zuc juramentu gueiago, aimbat eta nic guichiago sinistuco deutsut. Bada, guzurra gorroto eztabenac eztau gorroto izango juramentu guzurrezcoa; eta guzurra esateco atzerapena eztabena, guzurraren ganean bere juramentu eguitera ezta atzeratuco. <198> Eta bein guzurrean probau ezquero, jazo oi dan leguez gente juramentutsuacaz, ez jaque andic achina alangoai sinisteric emoten. Eta au da guzurtien castigua, eguia diñonean bere, ez iñoc sinistea; eta eztau mereci bere sinistu daquion. Bada, esan oi dan leguez: otzara, cesto, otarra bat eguiten dabenac, eguin leiz eun bere; guzur bat diñoanac, esan leiz gueiago bere. Eguiatiari guztia sinisten jaco, guzurtiari arean bere ez.

San Pablo Apostolua ain eguiaz biurtu bazan bere ta santutasun andiaz prediquetan asi bazan bere, orrez guztiaz, Jerusalemenera joan zan lenengo aldian iguesca ebiltzen beraganic bere lagun Apostolúac, ez jacazan fietan, cergaiti ce, uste eben lengoa zala ta le[n] leguez euren contra ebillela. Alan da, bada, guzurtia, bein guzurrean artu dana, eta bai beste edocein faltatan topatu dana bere. Ez jaco andic aurrera alangoari belu beranduguiño, pusca baten, aspaldi baten probau arteraño sinisteric emoten, ta emon bere bear ez jaco.

Ez eta ez jaco absolviciñoric eta parcamenduric emon bear bein, bitan ta gueiagotan juramentu eguiteco ecandu charra quenduco dabela confesoreari verba emonic, bariro confesetara biurtzen danean bapere ondu baga, aleguiñic eguin baga, ecandu ta usadio deunguea quendu baga. Celan amorentasun ta ocasiño desonestuan sarturic [dagoana] edo iñoren gauza osturic

-
- 19-269/270 *guzurra gorroto eztabenac... guzurrezcoa*: ganean erantsia. Perpau hau eta hurrengo, Axularren bakar bati dagozkio: *Ceren gueçurraren erraitera herabe eztuenac, eztu geçurraren gaiñean iuramentu eguitera ere herabe içanen* (GGero 266).
- 19-270 *eztabena*: jat. *eztabenac* (arg. zuz.); cf. aurreko oharra, arrazoia jatorrizko testuan baitago.
- 19-272 *juramentutsuacaz < iuramentu[t]suac* (GGero 266).
- 19-272/273 *andic achina < handic harat* (GGero 266); ik. § 5.3.3.
- 19-274 *daquion*: leh. *g-z* hasten den aditzen bat idazten hasi zen, *d* eta *g* elkarren ganean baitaude; *gu(k)* barneratu behar zuen aditzen bat, agian? Axularrek bederen ez dio biderik ematen: *eztu mereci ere sinhetz dadin* (GGero 266).
- 19-275 *cesto*: ganean erantsia; cf. *otharre bat* (GGero 266).
- 19-276 *diñoanac*: jat. *diñoac nac* (arg. zuz.).
- 19-276/277 *Eguiatiari... arean bere ez*: Añibaroren eransketa.
- 19-283 *andic aurrera < handic harat* (GGero 266).
- 19-283/284 *pusca baten, aspaldi baten probau arteraño < appur bat froga arteiño* (GGero 267).
Añibarrok *apur bati* gutxitxo bide zeritzan honelako zerbait frogatutzat emateko.
- 19-286 *parcamenduric*: leh. *barcamenduric*, < *barccamenduric* (GGero 267).
- 19-288 *bariro*: aurrean *urre*] (*urangoan?*), ezabatua, < *berriz* (GGero 267).
- 19-289/290 *amorentasun ta ocasiño desonestuan sarturic [dagoana] < amorentearquin dagoena* (GGero 267). *amorentasun*: VB (c.) “amancebamiento”, “enamoramamiento”.

dauquena ecin absolvitu leiz, adisquidetasun charra alde eguin artean ta gauza ostua al badai biurtu arteraño; alan, juramentu eguiteco ecandu gaistoa dabena bere, ecin absolvitu leiz usadio deungueac dir[a]juan bitartean ta quenduteco pruebac eguiten eztituan artean. <199> Bada, orduan becatuaren
 295 estaduan, egotaldian ta toquian dago. Au gogoratu bear dabe confesoreac, alangoac belaunetara datorcazanean, bada eurai au dagoquie.

Eta dirudi onena izango litequeala bein eracustea, iracastea ta adierazotea alango juramentuguillai, cein arriscu ta pelligru andian dagozan; eta guero guichi baten absolviciñoa luzatutea: doazala orduan, ta datozala barriro
 300 obeto prestaturic ta obeturic andic amost egunen epean, ta bitartean, abiatu ditecela euren ecandu gaistoa larga ta quendutera. Guero, barriz, biurtuten dirianean, badacus obetu diriala, aleguin ta ardura andiaz edo quendu, edo guichitu dabela usadio charra, gai onetan absolvitu leiz, bestela ez.

6 §.

O, neure Jangoico maitea! cer izango da nigaz? nire min guztia dago juramentura oitua, ecandu onetan sartua ta zartua, guztia artara emona, eztaquit bestela verba eguiten. Cer eguingo dot bada? Celan erremediatu ta osatuco nas gach zorigaistoco onetatic? Quendutera gach au eguin gaitezcan, dirauscu San Juan Crisostomoc; betico bota daigun aotic oituzco, ecanduzco
 310 usadio gaisto au, eci daigun miña, laburtu verbac, contuz verba eguin ta, gura badogu, quendu guiñei. Bada orretaraco, diño santuac berac, arean bere gasturic ezta bear, ez neque latzic artu bearriac, ez dempora luceric emon bearriac, ez aldats andiric igaro bearriac. Gogo sendo on bat artutea, eguiac ta bene-benetan gura izatea <200> da asco; orrembestegaz dago eguinic; auxe

19-291 *adisquidetasun charra* < amorantea (GGero 267).

19-293 *deungueac*: leh. *deungac*.

19-294 *quenduteco pruebac eguiten* < haren utztera enseia (GGero 267).

eztituan: baina aurreko aditz guztiak (*dabena*, *leiz*) pluralekoak izan dira; *eztituen* behar luke. Arazoa izan liteke Axular beti singularrean ari dela (*duena*, *diteque*, *dago-eiño*, *ditequeyen*), baina baita hiperzuzenketa ere, Añibarrok *ak dituen* eta *ae* *dituen* egiteko joera handia baitu (cf. § 4.2.1).

19-300 *obeto prestaturic ta obeturic*: Añibarroren eransketa.

andic amost egunen < *handic amorz egunen* (GGero 267).

19-301 *larga ta quendutera*: aurrean *ichitera*, ezabatua, < *utztera* (GGero 267).

19-308 *Quendutera gach au...*: esaldi honetan aldaketa handiak egin ditu Añibarrok; cf. *Adi eçaçu cer erraiten duen pontu hunen gaiñean San Crisostomoc*. [latinezko testua]. *Juramentu eguiteco usantça ahotic khen deçagun, mihia brida deçagun: eta nahi badugu, badaidigu* (GGero 268).

19-309 *oituzco*: gainean erantsia.

19-309/310 *ecanduzco usadio*: leh. *ecandu*.

19-313 *ez aldats andiric igaro bearriac*: Añibarroren eransketa.

19-314/315 *auxe da asco...* *deungau*: ezer berririk eransten ez duen perpaus hau, Axularren *ceren eguiteco haur usantçatic heldu da* (GGero 268)-ren orde zarrita dago. *deungau*: leh. *deunga au*.

315 da asco aldeguiteco ecandu deungau. Oitu zara verba asco esaten, ecandutu zara verba guztietan juramentuac ezarten? Oitu ta eguin zaitte orainganic esaca gaistooc aldeguiten. Gura bozu, eguin ciñei; ta baldin eguiten ezpozu, adigarri da eztozula gura.

Esango deustazu: Gura neuque, bada, erbestetu ta urrindu niganic ecandu oituzco au, ta indazuz sendagarri batzuc orretaraco. Ona emen: lenengo erremedio osagarria da, artutea goxean gogo, asmo ta vorondate eguiazco sendo bat, egun atan juramenturic ez eguiteco, miñaz contu euquiteco; eta, baldin jazoten bajatzu orrez guztiaz jaustea, emon ceure buruari pena edo castiguren bat, dala bularra jotea, dala lurra mun eguitea, limosna eguitea, 325 jatecoa guichitutea, dempora luce baten issilic verbatu baga egotea, *Jesus* ascotan esatea, Maria santisimari cerbait errecetea, ta onelaco neque ta laztasunen bat eguitea. Eta orduan onelan saiatu ta abiatuten zareanean, zure nai gura baga, ecanduac goiarturic jausten bazara juramentuetan ta uts eguiten badozu, eztozu onetan erruric, ez becururic. Bada, au jazo liteque ta izan diteque ecanduaren indarraz, ustecabean, vorondatearen contra ta erru baga. 330

Bigarren erremedio edo osocaia juramentu eguiteco usadioa ichiteco da esatea juramentuaren orde, juramentuaren lecuan verba-eguiacun au: bai seguru, ez seguru; alan da, ezta onelan; eguia dirautsut, sinistu eguidazu, ez nauizu gueiagora beartu. Onelan gure Salvatzalleac verba eguin oi eban: 335 *eguiaz, eguiaz esaten deusuet*. Onelan verba eguizu, bada, zuc bere; ta <201> zagoz juramenturic eguin baga. Egongo cindeque eguin baga, baldin juramenturic eguiten eztozun egunean, amar escutu irabazteco segurantza

-
- 19-316/317 *esaca gaistooc*: cf. *Murmuraziño, esaka gaisto, madarikaziño (...)* ta beste berba egikune lotsagarriakaz (*MisE* 17, ap. *OEH*, s.v. *esaka*).
- 19-317/318 *adigarri da < seiñale da* (*GGero* 268).
- 19-319/320 *erbestetu... ecandu oituzco au*: Añibarroren eransketa; cf. *Erranen duçu: nahi nuque, bada* (*GGero* 268). ta *urrindu niganic*: gainean erantsia.
- 19-321 *erremedio osagarria < erremedioa* (*GGero* 268); ik. § 5.3.1. *goxean*: aurreen *goxero*-edo, ezabatua, < *goicean* (*GGero* 268).
- 19-322 *sendo bat*: ondoan Axularrek *deliberamendu deliberatu bat dakar* (*GGero* 268).
- 19-323/324 *pena edo castiguren bat*: ondoren datozen penak, gehienak Añibarrok proposatutakok dira; cf. *bulharrac io, erran Jesus edo eguin cenbait obra on* (*GGero* 269). Dakusgunez, Añibarrok *obra onak* baino, *nekeak eta laztasunak* hobetsi ditu.
- 19-327 *saiatu*: leh. *saiaturic*; cf. *hala enseiatcen çarenean* (*GGero* 269).
- 19-329/330 *jazo liteque ta izan diteque < dateque* (*GGero* 269).
- 19-331 *osocaia*: ondoan *da*, ezabatua; utzi duen hurrenkera Axularrena da: *Bigarren erremedioa, iuramentu eguiteco usantçaren utzteco, da erraitea...* (*GGero* 269). *osocai* aldaeraren adibide bakarra dugu, ugariago darabilen *osacai*-ren aldean (ik. 21-2, 21-13, 24-6); cf. halaber *VB oscaia, osacaia* (c.) “remedio” (*oscaia < HH*), baina *osotu* “remediar”.
- 19-332 *juramentuaren orde, juramentuaren lecuan < iuramentuaren orde, iuramentuaren leccuan* (*GGero* 269).
- 19-335/336 *ta zagoz < eta çaude* (*GGero* 269).

ciurra baceunco. Bada, amar escutu baño ascozaz gueiago balio dau zure arima Jesusen odolaz irabaciac.

- 340 Bijoia bada orrela, urrin juramentua, ta berau eguiteco ecandu gaistoa, infernuco verbacuntza igar ezain gozobague au; arimea galduteco baxen ecer valio eztaben au. Eta betor gaurganic, gueroco lucetu бага, eguiatz verba eguiteco ta, juramentu guztiac ichiric, ez eta bai, ez seguru, bai seguru esateco usadio ta ecandua. Bestela verba eguiten dozun bitartean, jaquinic
- 345 zagoz arriscu bildurgarrian vici zareala, infernuco vide zabalari darraiozula, ta azqueneco orduan estura larrian aurquituco zareala.

19-338 *balio*: leh. *valio*.

19-338/339 *zure arima Jesusen odolaz irabaciac* < *çure arimac* (GGero 269); ik. § 5.1.3.1.

19-340 *ecandu*: gainean, *usadio*-ren ordez, baina hau ezabatu gabe, < *usantça* (GGero 269).

19-341 *igar*: gainean erantsia, < *idorra* (GGero 269).

gozobague < *goçogabea* (GGero 269).

19-346 Geratzen den orrialde zatian, hurrengo buruaren izena agertzen da, ezabaturik, eta gero hauxe dio: "Pasa al 2º quaderno o cartap[acio], fol. 202".

<202>

20. BURUA

*Ceimbat calte eguiten dituan aserreac ta areriotasunac,
eta celan bear dan len bait len
areriotasunetic urten.*

5

1 §.

Beti bere lenengotic artu dogun lana bota edo aldeguiten dogula, baña al-
baitanez darraiogula, ta artara dispondu, dendatu, prestatu, abiatu ta biurtu-
ten gareala, idoroco dogu gure guero onec persona arerioticsuen, erriertatsuen
10 ta aserrecorrén artean bere badabela bere ostatua, toquia, jarlecuca; oneetan
bere calte andiac eguiten dituala. Bada, adisquide bategaz austen dozunean,
baldin bertati osotutera, alcartu ta bat eguitera abiatuten ezpazara, jaquin
eguizu guero ta gueroago gachago eguingo jatzula, atzerago, urrinduago ta
ardurabagueago iraungo dozula bere aserrean, icusi ecinean; alangoz ece,
15 diño San Agustinec: Arech landara arech andi gogorra eguitera datorren le-
guez, aserretasuna bere dator gorroto andia izatera.

-
- 20-1 Orrialde buruan honela dio: “Véanse los capítulos anteriores en el 1.º quaderno”; ko-
aderno aldaketaz, ik. § 3.2.
- 20-7/8 *artu dogun lana... darraiogula*: Añibarrok oker ulertu du jatorrizkoa: *hartu dugun
chedeari, ahal beçanbat aurthiquitcen diogueta, hari iarraitquitcen gatçaitçala*
(GGero 270); eskuizkribuan ongi antzematen da leh. *lanari* jarrita zegoela.
- 20-8 *dendatu*: gainean erantsia.
- 20-8/9 *biurtuten*: leh. *biurten*.
- 20-12 *osotutera < osatcera* (GGero 270).
- 20-13 *guero ta gueroago gachago < guero eta guero gaitciago* (GGero 270); ik. § 5.3.4.
- 20-14 *aserrean, icusi ecinean*: gainean, *areriotasunean*-en ordez, baina hau ezabatu gabe.
- 20-15 *Arech landara*: azpimarratuta dago, arazoren bat balu bezala (ik. § 3.2); cf. Axularren
aipu laburra: *Landarea çuhaitz beçala, hasserretasuna ere...* (GGero 270).

Orregaitic diño Senecac (lib. 1. de ira, c. 8): Gauza óna da aserrearen len-
 nengo suari, muguidari ta abiadurari contuz beguiratutea, aci gaisto au aci,
 sortu ta garautu baño len atera edo ebaguitea. Beragaitic dirauscu San Pabloc
 20 (Ephes. 4): Eztedilla eguzquia sartu zure aserretasunaren ganean; au da, ez-
 taguizula iraun eguzquia sartu artean ceure aserrean, etzaitela joan oera ven-
 guetaco deseoaz, etzaitetzala artu gaberorteac baquetu baga: acaba dedilla
 aserrea, <203> demandea, errierte ta aucia eguzquiz eguzqui. Bada beste-
 la, su chatar chiquia andituten dan leguez, aserrea, icusiecina ta gorrotoa
 25 bere gueiagotuco da; ta bein andituz guero, nequez guichitu ta amatauco da.

Celan gueure gogo ta gustuco gauzac gogoz ta pocic artu ta atseguíña
 emoten deuscuen, alan gogo contracoeetan tristetu ta aserratuten gara. Eta ain
 deunguero daroagu ce, ecin egon gara orduan, beintzat araguiaren aldetic,
 aserratu baga, gorrotau baga, senticortu baga ta venguetaco guraria baga.
 30 Ardi bat otsoa icusteaz latztu, larritu, bildurtu, izutu ta icaratuten dan leguez,
 alan eguiten gara gu bere arerioa icusteaz, beragaz aurquitu ta idorroteaz. Or-
 duan araguiaren aldetic ecin egon gara aserratu baga, min artu baga, barrua
 iraquin baga, su ta garrac artu baga. Beragaitic diño San Juan Crisostomoc
 (hom. 13, tom. 2): Araguia ecin arerio gaisquiña maitetu lei; ez eta sentidu
 35 baga ichi eguiten jacan videbagea, dollorqueria, billautasuna, iraina ta az-
 pizapotasuna. Baña bai arimeac amatu, maitetu lei: cerren arimeac liberta-
 dea dau, bere jabe da, bere burua bere escuan dau. Araguia, barriz, ez dau
 libertaderic, ez bere burua bere escuan, bere aguinduren azpian.

2 §.

40 Celan dirian gorroto modu bi, bata naturala, berezcoa, araguiarena, eta
 bestea librea, vorondatezcoa; alan dira bi maitetasun ta <204> amorio, bata

20-20 zure < çuen (lat. *vestram*) (GGero 271).
 20-20/21 *eztaguizula*: leh. *eztaguiala*; Añibarrok subjektua aldatu du: cf. *Ezteçala iraun* [hase-
 rretasunak] *iguzquia sar arteiño* (GGero 271).
 20-22 *etzaitetzala artu gaberorteac baquetu baga*: Añibarroren eransketa. *etzaitetzala*: leh.
etzaizala; cf. *zaizala* 'hark zu' vs *zaiézala* 'hark zuek' (GB 31).
 20-23 *eguzquiz eguzqui* < *iguzquiz iguzqui* (GGero 271).
 20-25 *guichitu*: aurrean *chi*] (*chiquitu?*), ezabatua, < *ttipituco* (GGero 271).
 20-26 *pocic*: ondoan *ta atse*] (*ta atseguíña?*), ezabatua.
 20-27 *gogo contracoeetan* < *desgogaracoequin eta contracoequin* (GGero 271).
 20-34 *ez eta*: aurrean *ta*, ezabatua, < *eta ez* (GGero 272); ik. § 5.2.6.
 20-37 *bere jabe da*: ondoan *bere escuco da*, ezabatua: ondoren doana ulertu behar da ezaba-
 tutakoaren orde zarrita dagoela (ik. § 5.3.4); cf. *Ceren arimac libertatea du, bere*
burua bere escuco du (GGero 272).
 20-38 *bere escuan, bere aguinduren azpian*: beste horrenbeste; cf. *eta ez bere burua bere*
escuco (GGero 272).

naturala, araguiarena, ta bestea librea, naizcoa, vorondatearena. Jesus gure Salvatzalleac euqui eban eriotzaren alderacotzat atzerapen au edo ez gura au: naturalqui edo araguiaren aldetic gach eguiten jacan eriotzea; ta orregaiti cirauntsan Aitari: Nire aita, al badedi, igaro bedi niganic caliz garratz min au; eztaguidala nic eriotzaric artu. Baña onegaz batera izan eban amorio librea; ta alan, bere nai guraz ta vorondatez iltzan.

Eta onetan da aguiari egon litequezala alcarregaz gorroto naturala ta amore librea. Euqui guiñei arerioaren alderaco gorrotozcoa, amorezcoaz batera. Eta gorroto naturala edo araguiarena becatu ezpada bere, baña bai comunqui librea, vorondatezcoa. Gaisto batec ceure aita il deutsu, ceuri bere eguin deutsuz billauqueria, prestueztasun ta laburtasun asco; asmau deutsuz guzurrezco falsiatasunac ta gaistaqueric; gai onetan ecin cengoquez sentimentu, gorroto ta griña natural edo araguiarico baga. Baña gorroto natural berezco onec ezteutsu amore librea quenduten, eztau vorondatez gorrotoz beartuten, eta ez arerio gaisquilleari parcatu ta on eguiten eragozten, agaiti libre da zure vorondatez.

Eta, agaiti, ascotan on ta mesedeac eguiten deutsaguz guri deunguero ta esquer gaistoz eranzun deuscun arerioari. Eta beragaiti arerio perseguilla gaisquiña maitetu ta ametaco mandamentua, leguea ta aguindua emon eutsan Jangoicoac arimeari, vorondatez librea berac <205> gura dabendaraco daucanari; eta ez araguiari, araguiaren gurariari, naiari. Eta alan, bidebague bat eguiten deutsu[e]nean, bajatorzu alde batetic venguetaco ta ordea biur-tuteco muguida bat, nai bat, griña char bat, guraria andi bat; eta barriz, bes-

- 20-42 *librea, naizcoa, vorondatearena* < *librea, vorondatearena* (GGero 272).
 20-43 *alderacotzat* = GGero 272; ik. 16-119/120. oh.
 20-44 *araguiaren*: jat. *araguiarearen* (arg. zuz.).
aldetic: ondoan ez eb] (ez eban?), ezabatua; cf. *naturalqui gaitzesten çuen heriotcea, haraguiaren arauaz etçuen hil nahi* (GGero 272).
 20-45 *al badedi* < *posible bada* (GGero 272); ik. 15-44. oh.
 20-45/46 *caliz garratz min au* < *caliça hori* (GGero 272).
 20-47 *iltzan*: honelakoez, ik. § 4.2.7.
 20-49 *gorrotozcoa, amorezcoaz batera*: Axularren *gaitzerizcoa* eta *onherizcoa* (GGero 273) kalkatu ditu itzultzaileak, oraindaino *gaitzerizkoa gorroto-z* ongi ordezkatu badu ere (ik. § 5.3.4).
 20-56 *arerio*: aurrean g] (*gaisquilleari?*), ezabatua; cf. *eta ez gaizqui eguille hari* (GGero 273).
gaisquilleari: leh. *gaisquillari*.
 20-61 *arimeari*: aurrean *guizonari*, ezabatua, < *arimari* (GGero 273).
vorondatez librea berac gura dabendaraco daucanari < *eta arimaren bothere libreari, vorondateari* (GGero 273). *dabendaraco*: ik. § 5.1.1.1.
 20-63 *eguiten deutsu[e]nean* < *eguiten deratçutenean* (GGero 273).
 20-63/64 *biurtuteco*: aurrean *emoteco*, ezabatua; cf. *ordainaren bihurtceco muguida bat* (GGero 273).
 20-64 *guraria andi bat*: ik. § 5.1.1.1.

65 te aldetic, gaucea ondo ta astiro pensaturic, aurrecoa ta atzeco, igarua ta
 etorquizuna ondo gogoraturic, atzeratuten bazara venganza artutetic, orduan
 araguaia aserretuten da, ta ez arimea, diño San Crisostomoc (hom. 13, tom.
 2). Eta au da arimaren eta gorputzaren, espirituaren ta araguiaren arteco gue-
 rra arriscu ta pelligruzcoa, ta vitoria gloriosoa: batac gorrotatuten dabena,
 70 besteac maitetuten dau; batac favore, besteac contra eguiten dabena.

Araguiaren gorroto naturala, berezcoa, araguiaren lenengo muguida ta
 griña, araguiaren aserretutera ta venguetara bat-batean, prest ta consideraci-
 ño бага esetsi ta abiatutea, au berau bacarric, uste бага, gura ta gurez leguez
 jazotea, ezta becatu. Becatu izateco errazoiac euqui bear dau lecu ta parte,
 75 adimentuac ezagutu, vorondateac erabagui ta guratu.

Oraindiño esan gura deutsut, batzuetan eztagoala erru edo becatuic vo-
 rondatezco aserrean, aserretu baldin bear danean. Eta alan, aserretuteaz leguez,
 ez aserretuteaz bere eguin leiteque becatu. Errazoiaren contra ta bide baguez
 aserratutea, vengantzaren billa ibiltea dan leguez becatu, alan aserratu bear
 80 danean ta aserretuteco ocasiñoa danean, ez aserretutea izango da becatu;
 alan iracasten dau San Juan Crisostomoc (hom. 12, tom. 2), cergaiti ce, bear
 danean ez aserratuteac, paciencia ta epetasun gueiegui <206> euquiteac, uts
 eguiñai ez jaramoteac, enzun-gor ta ez-icusi eguiteac ta ez castigatuteac
 emoten dau ocasiñoa ta videa falta gueiago eguiteco, vicio ta gaistaqueriac
 85 burua goratuteco ta gueituteco, eta ez bacarric gaistoac, baita bere onac gais-
 taqueriara convidetaco.

Aserratu bear danean ez aserratutea, senticortu bear danean ez sentietea,
 beti bat, beti euli macala, gueldoa, gueldia, mamuquioa, bigun beraa izatea
 ecerbereztasuna da, ez guizontasuna. Santo Tomas eracusle andiac diño (2.

-
- 20-65 *gaucea*: leh. *gauza*.
 20-65/66 *aurrecoa ta atzeco, igarua ta etorquizuna ondo gogoraturic* < *aitzin guibel behaturic* (GGero 273). *aitzin-gibel*-en itzulpenaz, ik. § 5.3.4.
 20-69 *arriscu ta pelligruzcoa* < *perilosa* (GGero 274); atzizki bakarrek hitz bikoteetako bat, ta erdian duela, ohi ez bezala (ik. § 5.3.1).
 20-69/70 *gorrotatuten dabena, besteac*: leh. *batac gorrotatu ta besteac*; cf. *batac gaitzesten duena, bertceac onhesten baitu* (GGero 274).
 20-70 *batac favore, besteac contra eguiten dabena*: Añibarroren eransketa.
 20-72/73 *araguiaren aserretutera... abiatutea* < *haraguiaren hasserrercera eta mendecatcera laburzqui eta consideracinoric gabe oldartce eta abiatce hura* (GGero 274).
 20-73/74 *uste бага, gura ta gurez leguez jazotea*: Añibarroren eransketa.
 20-75 *guratu* < *consentitu* (GGero 274). VB “assentir”.
 20-77 *aserretu baldin bear danean*: perpaus azalgaitz honek, bere txikian ere, bi gogoeta ezberdinen gurutzamendutik sortua dirudi; haatik, honen jatorria ez da zuzenean aurkitzen Axularren testuan: *Are guehiago erran nahi deratçut, vorondatearen deliberamenduarequin eta consentimenduarequin ere, hasserrercera ezela bethi ere beccatu* (GGero 274). Aitzitik, okerra daraman perpaustxoarekin ondoren datorrena aurreratu nahiz sortu da.
 20-79 *vengantzaren*: aurrean *venguetea*, ezabatua; cf. *mendecu bilha ibiltea* (GGero 274).
 20-88 *euli macala, gueldoa, gueldia, mamuquioa, bigun beraa* < *uli, lolo, malba eta bare* (GGero 275). *mamuquioa*: VB (c.) “malva, yerba”.

90 2, q. 158, a. 8): Gueiegui aserretutea dan leguez becatu, guichiegui edo bapere ez eguitea bear danean, ezta becatu baga. Bere demporan modu onean, justutasunac escatuten dabenean aserratutea, ta alan aserraturic cemaitutea ta neurri onez castiguetea, gauza ona da ta santua. Ain santua non, diño San Basilioc (hom. 9, de ira): Aserratu baga, apur bat edolabere coleran sartu
95 baga ta beragan biztu baga, eztira gaistaqueriac zucen castiguetan, ez vicioac sustraitic ateretan, eta ez obra onac benetan eguiten.

Eta diño San Agustinec (hom. 16, de verb. Dni): Eztau aitac bere semea ondo zucenduco, guichi bat vicitu ta aserratuten ezpada. Aita batec bere soseguan dagoala, cerbait estutu ta viztu baga, aserre pusca bat eracutsi baga,
100 eztau ondo castigauco bere semea; ezteutso iracasico cer eguin bear dabenean. Bear danean, bear da gar guichi bat, arpegui ilun bat, begui biurtze bat eracutsi, zorro[t]z verba eguin, cerbait sumindu ta aserratu, batez bere onez onera ondu gura eztabenean semeac. Onetaraco dauco aitac escu ta escubidea semeari gogor verba eguiteco, eta bai eche ta errietaco buruac ta cargudunac
105 bere aguintaritzaren azpian dagozanen contra jagui ta aserratuteco, uts <207> eguiteac jagui ta jarraituten direanean. Alan aserratu cirian Moyses ta Matatias (Exod. 31, Machab. 2) idolo edo jainco falsoac adoratzanen contra. Alan Jesus gure Salvatzalleac bere, viztu zanean illén artetic, gogor verba eguin eutseen bere discipulu batzuei, deituten cituela adimentubagueac, sinist gogorrac ta sinistuteco atzeratuac (Luc. ultimo).
110

Alan San Pablo Apostoluac bere cemaitu cituen Galaciaco genteac (Galat. 5), cirautsela: O, galatar cenzunbagueac, noc erotu ta zorabiatu zaitue, len leguez orain bere eguia ez obeditu ta sinistuteco? Verboc desonragarriac,

-
- 20-91 *ezta becatu baga < ezta hoben gabe (GGero 275).*
20-95 *beragan biztu baga < bere baithan pitztu gabe (Gero 275); ik. § 5.3.4.*
20-95/96 *ez vicioac sustraitic ateretan: Añibarroren eransketa.*
20-96 *eta ez obra onac benetan eguiten < eta ez obra onac ere asco cintqui eguiten (GGero 275).*
20-97/98 *Eztau aitac... aserratuten ezpada: latinezko pasartearen itzulpena da, gero Axularren glosa ere eman arren: Neque damus aliter disciplinam filiis, nisi aliquantum irascendo (GGero 275). vicitu: eta ondoan viztu (20-99), adiera berberean.*
20-101/102 *begui biurtze bat eracutsi: ideia hau, Axularren aurreko esalditik hartu du: eztio beguia bihurritu gabe... (GGero 276).*
20-102/103 *batez bere onez onera ondu gura eztabenean semeac: Añibarroren eransketa.*
20-105 *aguintaritzaren: jat. aguitaritzaren (arg. zuz.).*
20-105/106 *dagozanen contra... jarraituten direanean < bere cargucoen contra, huts eguinac dohacinean iaiquitceco eta hasserretceco (GGero 276). huts eguinac gaizki ulertu du, beraz.*
20-107 *idolo edo jainco falsoac < idoloac (GGero 276); ik. 19-23. oh.*
20-109 *deituten cituela: aurrean deitzen, ezabatua, < deitzen cituela (GGero 276).*
20-110 *ta sinistuteco atzeratuac: Añibarroren eransketa, agian sinist gogorrac (< sinhets gogorrac, GGero 276) azaltzeko (ik. § 5.4.2).*
20-112 *cenzunbagueac: jat. -bagueac (arg. zuz.).*

garratz miñac cirian galatarrentzat; baña cirialaco biotz onez ta vorondate
 115 obeaz esanac, ez eban orretan becuric eguin. Au berau da San Agustinec
 bere diñoana (lib. eterod. cap. 19): Ezta anajaren contra aserratuten, anajac
 daben becatuaren contra aserratuten dana. Alangoac becatua gorro[ta]tuten
 dabe, ez becataria. Gorroto dogu suac emoten daben quea, eta maite dogu
 120 oi dogu medicuac, barberuac, osaguille batec gaissoaz eguin daroana. Onec
 penatuten dabe gaissoa, minduna; ebaguiten dabe, odol ustu ardura бага,
 quendu aragui zatiac, emon edaria garratz samiñac: arerio batec leguez ta
 gaisquin baten erara darabilde gaisso guizagaixoa. Baña, guzti au eguiten
 dabelaco gacharen contra, ta ez gaissoaren contra; ez gogo deungueaz, ez-
 125 pada maitetasunaz ta osatuteco vorondate onaz; beragaitic eguiten dabe[n]
 guztia ontzat eroaten, maitetuten da, eta lecu onera ezarten da. Alanche bear
 dira, bada, errazoiac batera vorondate on bategaz eguin, falta ta uts eguiteac
 erremedietaco, <208> vicio charrac quemuteco ta becatuac aldeguiteco,
 eguiten dirian erriertac, aserreac, cemaiaac, oñoteac, dedarrac ta aguiricac
 130 bere estimatu, maitetu ta ontzat artu.

-
- 20-116 *lib. eterod.*: sic, jatorrizko *lib. rhetor*-en ordez (GGero eta Gero 276, in m.).
anajaren: eta hurren *anajac*; salbuespen dira testuan, maizenik *anaje* (19-37, 28-138,
 36-66, etab., nondik *anajeaz* (5-50), *anajea* (22-23), *anajearen* (25-13), *anajeac*
 (28-132), etab.) erabiltzen baitu; badago norabide berean doan aldaketa bat ere (ik.
 25-10. oh.).
- 20-117 *gorro[ta]tuten*: beste bi aldiz (46-82 eta 47-89) errepikatzen da hutsa, beti haplogra-
 fia (-tatu-) eginez; cf. *gorrotateco* < *gorrotauteco* aldaketa (21-38/39. oh.).
- 20-118/119 *Gorroto dogu... baña bai gaissoa bera*: Añibarroren eransketa.
- 20-120 *medicuac, barberuac, osaguille batec*: < *midicu batec edo barber batec* (GGero 277);
 ik. § 5.5.1.
- 20-122 *quendu aragui zatiac, emon edaria garratz samiñac*: Añibarroren eransketa. *edaria*:
 ik. § 5.1.1.1.
- 20-126 *ontzat eroaten, maitetuten da* < *estimacen da* (GGero 277).
eta lecu onera ezarten da < *eta hartcen parte onera* (GGero 277).
- 20-127 *vorondate on bategaz eguin*: *eguin* hau soberan dago, *bear dira*-ri dagozkion partizi-
 pioak bukaeran datozen *estimatu, maitetu ta ontzat artu* dira eta; cf. *Hala behar dira*
bada halaber arraçoinare arauaz, intencione onarequin, faltan erremediateco
eta beccatuen eritasunetic sendateco vorondatearequin, eguiten diren liscarrac,
ahacarrac, mehatchuac eta erançuteac ere estimatu eta parte onera hartu (GGero
 277). Aditz sintagma erdibituta egoteak eragin duen errepikapen bat ere aurkitu
 dugu lehenago (ik. 15-13. oh.).
- 20-129 *eguiten*: leh. *eguin bear*.
aguiricac: bestetan *aguiraca* (cf. 20-146, ondo hurbil); aldaera hau ere ongi lekuko-
 tuta dago, baita Añibarroren ere (*LoraS* 169, adib.; ik. *OEH*, s.v. *agiraka*).

3 §.

Baña beguiratu ta gorde bear da bacocho becatuen contra esetsi, eraso ta aserratuten danean, larregui aserratu[te]tic, gueiegui coleratu[te]tic; maitetasunez, amarez, gozotasunez ta vorondate onez eguin bear dabena, colera gogorrez, venganzaz, su ta garrez eguitetic. Gurasoac, predicariac, ugazabac
 135 ta besteai iracasteco, zaindu ta gobernetaco cargua dabena, eztabe orrembeste quexatu ta iraquin bear non, ganez eguinic, gueiagora igaroric, amorea gorrotora biurtu leien. Beragaitic diño profeta santuac (Psal. 4): Aserre zaitece, ta ez eguizue becuric. Aserratu bai, baña bere neurrian, mugonez, pacienciaren muga ta marra igaro bague; falteari bai, baña faltadunari gorrotoric, malsintasunic euqui bague.

Ceure umea, otseña, oguipecoa edo cargucoa zucendu, arteztu ta cenzundu gura dozunean, ascotan ceu jarten zara cenzun bearrago. Ceure umea cenzundu ta zucendu gura dozunean, ain aserre, colera ta su andian sartuten
 145 zara, ain itsuturic, cenzunbagneturic ta pacienciatic camporaturic ta urtenic ifinten zara, ain ernegaturic, ta aimbeste birao, añen, aguiraca ta dedar eguiten dozu, ce eche guztia darabiltzu goicoaz bera; ta azquenean ceure ume ta otseñen faltea baño, ceurea andiagoo eguiten da, <209> eta ceu erruquigarriago, erremediaquizunago ta cenzun bearrago jarten zara.

150 Bada, ez bestela, baiña errazoiiaz ta modu onean falta ta faltaduna erremedietegaitic neurritz aserratutea gauza óna da, ta santua. Eta onelan ase-

-
- 20-132 *ta gorde bear da*: gainean erantsia; *beguiratu*-ko *-tu* bera ere erantsia dela dirudi; cf. *Ordea*, *beguira beu bat bederac* (GGero 277).
eraso: gainean erantsia.
- 20-133 *aserratu[te]tic... coleratu[te]tic*: cf. *sobera hasserretcetic* (GGero 277), eta ik. § 4.3.9.
- 20-137/138 *amorea gorrotora biurtu leien < amorioa desamorio eta gaitcerizcoa bihur daquien* (GGero 277-278); ik. § 5.2.4.
- 20-139 *mugonez*: Añibarroren eransketa; *VB* (g.) “oportunamente”.
- 20-142 *oguipecoa*: gainean erantsia; cf. *VB oguipecoa* (c.), *otseña* (b.) “criado, sirviente”.
- 20-143 *cenzun bearrago < cença beharreanago* (GGero 278).
- 20-146 *aguiraca ta*: gainean erantsia.
- 20-147 *ce eche guztia darabiltzu goicoaz bera*: Añibarroren eransketa. Oro har, *Ceure umeatik* (20-142) hasten den esaldia trebeki aldatu eta zabaldu du, Axularrenak honela baitio: *Ceren cençatce hartan ceure umeari eracustean, hain asserretcen, coleracten eta ceure cençutic eta patientciatic ilquitcen çara, non anhitz arnegu eta iuramentu eguinic, azquenean çure umearen eta cerbitçariaren falta baino, çurea handiago guerthatcen baita* (GGero 278).
- 20-149 *erremediaquizunago* = GGero 278.
cenzun bearrago < cença beharrago (GGero 278); ik. 20-143. oh.
- 20-150 *errazoiiaz*: jat. *errozoiiaz* (arg. zuz.). Asimilazioa ezinezkoa ez bada ere (cf. *arrozoin* aldaera ezaguna, ik. *OEH*, s.v. *arrazoi*), *errozoi* ezezaguna da, bai testuan, baita hemendik kanpo ere, dakidalarik.

rratuteari dericho *celo onezco aserrea*, amorezco ta ondo gurazco aserrea. Beste aserre bat da, vorondate gaistozcoa, vengantzazcoa, gorrotozcoa, icusi ecinezcoa, ez becatua erremedietaco, ezpada becatari berari gach emote-
 155 co euqui oi dana; eta oni dericho *viciozco aserrea*, becatuzco aserrea, errazoiaren contracoa, intenciño deunguecoa, vorondate charrecoa, lar-gueiegua, ganez eguiña, neurritic urtena, marratic camporatua, mugatic atarea.

Onetatic, onelan ganez eguitetic, larregui aserratu[te]tic sortu, jaio ta er-
 160 netan dira calte andiac, erriertac, verba deungac, juramentuac, biraoac, mardacaciñoac, diferenciac, auciac, gorrotoac, eriotzac, eta bere buruaren ta besteen calte gogor zorigaistocoac, galduerac ta maquina bat gauza char negargariac. Gauza ascoc calte eguiten deutse cristiñauari; eta euretatic bat, ta
 165 ondo andia ta besteen buru ta sustraia, da ira, colera, aserretasuna, venguetaco guraria citela. Onec arima ta gorputza zaurituten ditu, onec biac gaixotuten ditu, egunac laburtuten ditu, osasuna guichitu, norbera macaldu, ta dempora baño len burua zuritu ta ulleac urdinduten ditu. Alan adietan emoten dau Espiritu Santuac (Eccl. 30). Eta Senecac <210> iracasten dau (par. 18) gorde bear dala bacochoa gueiegui aserratuteric, alde eguin bear dala coleratic, contu euqui bear jacola aserracuntzeari; ta au ez bacarric vicitzaren maitetasun prestuagaitic, baita gorputzeco osasunagaitic bere. Cergaitic ce
 170 aserracuntzac, venguetaco griñac, barruco gorrotoac, errencoretasunac, colerac ta suac arimeari ta gorputzari calte eguiten deutso, bieie sentierazoten deutso, biac mimberatuten ditu, biac gaissotuten ditu.

175 Eta alan, persona coleran sartuac, vicieguiac, erreac, aldi charrecoac, su-gartuac ta aserracorrac ez oi dau begui ordecoen bearric, eztitu bere ume-

-
- 20-152 *amorezco ta ondo gurazco aserrea* < *amoriozco hasserrea, ongui nahizcoa* (GGero 278).
 20-159 *aserratu[te]tic* < *hasserretcetic* (GGero 279); cf. 20-133. oh. eta ik. § 4.3.9.
 20-161/162 *bere buruaren ta besteen calte gogor zorigaistocoac, galduerac* < *bere buruen eta bertceren galtceac* (GGero 279); ik. § 5.2.2.
 20-162/163 *maquina bat gauza char negargariac*: izen sintagma mugatuarekin, ohi ez bezala (cf. OEH, s.v.), beharbada haren luzerak eta izenondoak egoteak hartaratuta (ik. § 5.1.1.4).
 20-165 *guraria citela*: ik. § 5.1.1.1.
 20-168/169 (*par. 18*): egiatan *ep. 18* da jatorrizkoan (GGero 279, *in m.*).
 20-170/171 *ez bacarric vicitzaren maitetasun prestuagaitic, baita...*: bitxia da erkaketa hau, *vicitzaren maitetasuna* eta *osasuna* taiu bereko ideiak baitira; zergatia jatorrizko testuan daukagu: *eta ez, ez, prestuqui eta onhetsqui bicitceagaitic beragaitic, baiña bai gorputzeco osasunagaitic ere* (GGero 279).
 20-173/174 *deutso... deutso*: nahiz eta *arimeari ta gorputzari* izan batean, eta *bieie* bestean; cf., ostera, *arimari eta gorputzari eguiten deraue calte, bieie senti araciten deraue* (GGero 280).
 20-175 *coleran sartuac eta aldi charrecoac*: gainean erantsiak; cf. *presuna hirosac, erreac eta hasserrecorrac* (GGero 280).
 20-176 *ez oi dau* = GGero 280.
ordecoen bearric: leh. *ordecoric*; cf. *ez ohi du begui orde anhitz higatcen* (GGero 280). VB *beguiordecoac* (c.) “gafas, anteojos”.

en umeac bere inguruan icusten, ta guichi onetaricoric zartuten da. Bere barruco coleraren suac ta iraqiñac errai guztiac erreten deutzaz, egosi, quiscortu ta ustelduten deutzaz. Eta alan, icusico dozu bere eguitez exetuac ta
 180 vengatzalleac dirian personac, baldin berpetatic bereaz urteten ezpadabe, venguetan ezpadira, egosten ta deseguiten diriala. Eta, baldin venguetan badira, eureagaz urteten badabe, escuac odolotea jazoten bada bere, guero damutuac, penatuac, gogaituac, naibaguetuac ta minuac dabiltz. Alangoz ece, nolana, nai vengaturic, nai vengatu bague, nai bere gogoaz cumplitu, nai ez
 185 bereaz urten, ezta alangoentzat, ezpada damua, sentimendua, naibaguea, atsecabea, pena, gogaitasuna ta mintasuna.

Eta ezpabere, beguira eguiozu aserraturic, arerioturic dabillan bati: celan verba eguiten daben, celan aotic bitza darion, celan beguiac su charar bi eguinic dituan; ecin azalac artu dau; lurra osticoca joten dau; jatorcazanacaz verba eguiten, eztau jaramoten; <211> ezteutso iñori errespetoric, beguiramenturic, ez lotsaric. Ero, zoro bat dirudi: aurrera, ez atzera beguiratu baga, etorquizunen conturic eguin baga; guztiac guzurtuten ditu, desonretan ditu, mesprecietan ditu, il ta ondatu gura ditu. Beguiratu eguiozu, bada, alango bati, ta icasi; ta cenzundu zaite beragan. Eta jaquin eguizu ceu bere, asserre zareanean, alan zagozala, a dirudizula, zoraturic, burubagueturic, cenzun baga, conorte baga ta itsuturic ifinten zareala, ordi baten antzera barregarria zareala.
 190
 195

4 §.

Aserre dan persona batec eztirudi lengoa. Agaitic cirautsen Platonec bere icasleai (Fulgen. l. 7, c. 2), aserre cirianean ifini eguiela aurrean espillu bat, ta an ondo icusi eguezala euren buruac. Eta Senecac diño (l. 2 de ira,
 200

-
- 20-177 *ta guichi onetaricoric zartuten da*: Añibarroren eransketa, aurrekoetan iradokia agerian jartzeko, bistan denez (ik. § 5.4.2). *guichi*: ondoan *zartu*, ezabatua.
- 20-178/179 *egosi, quiscortu ta ustelduten deutzaz*: honela atera da atakatik, Axularrek *elccortcen eta idortcen baiterautça* (GGero 280) baitakar. Jada somatu dugu *idor*-ekin arazokak izan bide zituela (ik. 19-341. oh.).
- 20-179/180 *exetuac ta vengatzalleac* < *iauzcor eta mendecos* (GGero 280).
- 20-183 *naibaguetuac*: gainean, *atsecabetuac*-en ordeztu, < *atsecabeztatuac* (GGero 280).
- 20-186 *gogaitasuna ta mintasuna*: letragatik, esango nuke geroago erantsia dela; cf. *damuric, atsecaberis eta assalduric baicen* (GGero 280).
- 20-189 *ecin azalac artu dau*: Añibarroren eransketa, lerro gainean egina; 'egonezinik dagoe-la' adierazten du; ik. 53-163/164 ere (eta cf. *OEH, AZALAK HARTU, s.v. azal*).
- 20-189/190 *jatorcazanacaz verba eguiten, eztau jaramoten*: joskera ez oso txukuneko esaldia, < *ethortcen çaitçan arartecoez eztiuen conturic eguiten* (GGero 280).
- 20-190/191 *beguiramenturic*: gainean erantsia.
- 20-192 *etorquizunen conturic eguin baga* < *ethorquicunaz conturic eguin gabe* (GGero 280). *guzurtuten* < *guezurtatcen* (GGero 280).
- 20-193 *ta ondatu*: gainean erantsia.

- cap. 36) batzuei on eguin daroioela, aserre dirianean, euren buruac espilluan beguiratuteac. An icusten da, an da aguiri, an arguiro aguertu ta ezagututen da ce aldatuic, ce besteturi, ce echurabaguea, ce ezainduric ifinten dan aserrearaz aserreduna. San Juan Crisostomoc diño (hom. 25 in 3 Joan. tom. 3):
- 205 Balcus bere burua aserre dan personac, aserre danean, ez leuque, ez, barriz ez aserratuteco beste adivideric bear. Bada, orduan ain dago ezaindua, ce ezaintasun ac berac gorde lei aurrerantzean ez gueiago aserretuteri. Coleran dagoanac aimbete eroqueria ta umequeria esan ta eguiten dau, ce berari beguira dagozanac lotsatuten dira bera icusteaz ta berari enzuteaz.
- 210 <212> Eta alangoac eurac bere, beragan biurtuten dirianean (bada coleran dagoana eztago beragan), noc esan lei ceimbat damu, garbai ta naibague artuten daben? Ce azquen ondo gaistoa idoroten daben? Ce on bear, triste, jausia gueldituten dan? Orduan oartu ta gogoratuten jaco bere adisqueideac icusi dabela, eta bai bere arerioac bere; guztiac beguira egon jacazala; eta berac bere aldi charrean ta coleran eguin dituzan eroqueria zoragarriacaz, adisqueideac damu ta naibaguea artu dabela, eta arerioac atseguina, gozo ta poza.
- 215 Orduan erretan jaco bere barrua, tristetu, mindu ta lotsatuten da. Eta guztiz bere, baldin bere aserrean gachic inori eguin badeutso, colperic emon badau, barberuen bearrean inor imini badau, edo bere verbeetan inoc preñaric artu badau; emen dira cinac eta minac, an dira quexac, gogaitzeac, larritzeac, erneguac, aguiracac, birao ta aienac. Orduan jarten da bere buruaz gogoetan, esaten dabela San Juan Crisostomoc diñoana (hom. 4, tom. 5): Cer neban nic eguiteco atan sartuteco? inor injurietan ta ofendietan ibilteco? Esamesa ta verba zorrotz astun minduac esateco? Deunguero verba eguiteco? Colpeac
- 220 emoteco? Ondatuco al dira, azquenecoac eguingo al dituez onelango eguite-
- 225

-
- 20-201 *daroioela*: leh. *daroela*; cf. *Batçuey on eguin içan deraue* (GGero 281); ik. § 4.3.10.6.
- 20-205 *aserre dan personac*: leh. *aserre danac*, < *presuna haserreac* (GGero 281).
- 20-212 *Ce... Ce...: biak leh. Cein*, < *Cein* (GGero 282).
azquen ondo gaistoa: *gaistoa* gainean erantsia, < *ondore gaixtoa* (GGero 282); ik. § 5.3.4.
- 20-214 *jacazala*: irakurketa gaitzekoa, bokala ikututa dagoelako; Urquijok (1929: 420) *jacozala* irakurtzen du, baina neuk zuzenketa *a*-ren aldekoa dela egingo nuke.
- 20-216 *ta naibaguea*: gainean erantsia; cf. *damu eta atsecabe* (GGero 282).
- 20-219/220 *bere verbeetan inoc preñaric artu badau* < *bere hitcetan nehorc bahiric hartu badio* (GGero 282); ez dirudi Villasanteren itzulpena (1976: 316) kasu honetan lagungarri denik: “si es que alguien le ha tomado algo en hipoteca atendiendo a sus palabras”; argigarriagoa da, inondik ere, Harrietena: “si quelqu’un le prend en ses paroles, se prévaut de son dire” (ap. *OEH*, s.v. *bahi*).
- 20-220 *emen dira..., an dira...* < *Han dira..., han dira...* (GGero 282).
cinac eta minac = GGero 282.
- 20-221 *jarten*: leh. *jarriten*.
- 20-225/226 *Ondatuco al dira... onelango eguitecóc* < *Fin gaitz daguitela humelaco eguitecoec* (GGero 283). *dituez*: leh. *dabe*.

- cóac, ni onelango eguitecoan ifini nabenac, onembestera ecarri nabenac. Baldin ez nagoanean banengo, gordeco ninteque barriz onelaco itsumendiric, zorabiatasunic, aserracuntzatic. Onela esan daroa beragan biurtuten danean, oztu danean, aserrea emetu ta amatau dabenean. Onexec dira aserracuntzaren errastuac, oñatzac, emparauac, ondorengo ondaquiñac; oneec dira disputa, demanda, errierta ta gorrotoen frutuac: <213> arimea galtzea, gorputza nequetutea ta tristura andi baten azpian damuturic ifintea ta ichitea.
- 230 Guizon aserratua, sucarra edo calentura dabenean pulsua leguez da, quexatua dago, eztau soseguric. Gau ilun bat dirudi: gau ilunean dabillenc eztau ezaututen ce colore dabén gauzac, cein dan verdea, ta cein gorria edo urdiña; alan, guizon coleratuac bere eztau ezagututen nos verba ondo eguiten dabén, ta nos deungero; nos doian artez, ta nos macur: conorte baga, itsutua, itsumuca dabil; ilunetan dabillena leguez, or-emen, bateric bestera, estropezu, beaztopa guztiaz eguiten dau, videtic camporaturic dabil.
- 235 Onelangoetan deabru gaisto asmutsuac bere eguiten ditu orduan bereac. Lapurrac dabilizan leguez gau ilun ta axetsuen beguira ostuteco; eta otsoa dempora char, euritsu ta mudatuen billa, artaldeco ariai esetsiteco; ta arrainzallea ur loi nastuen billa, arraiñac artuteco; alan deabru lapur finac, otso
- 240

- 20-227 *Baldin ez nagoanean banengo* = *GGero* 283.
- 20-227/228 *onelaco itsumendiric, zorabiatasunic, aserracuntzatic* < *hunela itsutcetic, erhotcetic, minçatcetic, eta eguin naicen beçala iauztetic eta coleratcetic* (*GGero* 283).
- 20-233 *sucarra: aurean cal]* (*calentura?*), ezabatua, < *sucarra* (*GGero* 283) eta ik. 4-109. oh.
- pulsua leguez da: da* gainean erantsia, < *polsua beçala da* (*GGero* 283).
- 20-234 *quexatua dago* < *quecho da* (*GGero* 283).
- 20-235 *verdea: gainean, zuria-ren orde;* cf. *cein den verde, eta cein more* (*GGero* 283). Babiliteke kolore izen jatorragorik erabili nahi izatea (ik. § 5.3.2), baina egiatan *zuria* ez da, ohartu bide zenez, gauez ez antzemateko egokiena.
- 20-237 *doian: Urquijok* (1929: 420) *dojan* irakurtzen du, baina ezohikoa izateaz gainera (cf. 37-28. oh.), ene ustetan argi dago <j> antzeko zerbaiten gainean <i> zuzenduta dagoela.
- 20-238 *itsumuca* < *haztamuca* (*GGero* 283); cf. *HH aztamuca, itsumuca* “(a) tiento”.
- 20-240 *Onelangoetan* < *Halatan* (*GGero* 283), ohi ez bezala: cf., zenbait adibide bakarrik aipatuta, *onela* (2-43, 4-184, 5-29, 12-275), *onelan* (9-210) edo *alan* (13-19/20), alde batetik, eta *agaitic* (7-82, 10-27, 10-98), *onegaitic* (11-160) edo *orregaitic* (12-279/280) bestetik.
- eguiten ditu orduan bereac:* eta jarraitzen du Axularrek: *orduan bethatceintu bere çacuac* (*GGero* 283).
- 20-242 *mudatuen: jatorrizkoaren igorciritsua-ren orde;* (*GGero* 283).
- artaldeco ariai* < *artaldeari* (*GGero* 283-284). Orrialde aldatetak jatorrizkoan *artaldeco-/ari* zatikatzeak baduke zerikusirik Añibaroren aldatetarekin; ik. § 5.3.4.
- 20-243 *deabru lapur finac:* eskuizkribuan leh. *deabruac* jar zitekeen, azken bi letrak ezabatuta baitaude; jatorrizko testua aurean izan gabe egindako zuzenketa bide da: cf. *Deabruac ere, ohoin finac, otso goseac eta arrantçale iaqui[n]sunac beçala* (*GGero* 284), lehen aipatutako guztiak banan-banan gogoratuz.

245 goseauillac ta arraintzalle jaquitunac leguez, billatu, aurquitu, idoroten ditu
erac bere gaistaqueric eguiteco; ta celataca dago, nos dirian colera, gorro-
to, icusiecin ta aserrearen iluntzac, ecachac, ur loiac, ocasiño ta eraldiac.

Persona areriotu, aserratu en artean bere gogara, gusto ta atseguin andian
dago deabrua: an dago bere erara, auqueran, an idoroten dau ondo-nagoa; an
dau bere ostatua; an bide batez mandatu bi eguiten dituz; cerren aserretza-
250 llea ta aserratua, biac baten beretuten dituz. Eta au ezta mirarituteco; bada,
ezta becuric coleran <214> itsutua, sutua, sor-gortua dagoan batec ezta-
queanic. Eta ezta zurtasuna alangoacaz, alan daragoienean, batutea, alcartu-
tea, lagundutea ta sartutea. Batez bere aen artean ordirc edo zure arerioric
bada, orduan urrindu zaite, igues eguizu, gorde zaite; ez beragana urreratu,
255 alde eguizu, larga eguizu, bego, ta betor bere ganera etorrico dan ocasiñoa,
galvidea ta caltea; bada, bestela, peligrua da, zure ganera etorri eztidin. Or-
diac eztaqui ceri daragoion; ta arerioac bere besteri emon gura deutsan mina,
zuri emongo deutsu. Beragaitic, etzaite alangoacaz sartu, ez lagundu, ondo
beguiratu baga ta ceure burua contuz gorde baga. Bada, aserrea itsua da, or-
260 dia da, ta arerioa bere ocasiñoaz valiatuten da.

Bada, baldin colereac ta venguetao deseo ta naigura ordenubagueac ta
errazoitic camporatuac aimbete calte eguiten badau, alan itsutu, izutu, zora-
tu, cenzun ta adimentutic ateraten badau; eta deabruac bere orduan, coleratu en
arte en danen, bere jocoac jocatuten baditu, contu andia colerari euqui bear

-
- 20-246 *iluntzac* < *ilhunbeac* (GGero 284).
20-247 *areriotu*: *aurrean aser*] (*aserratu en?*), ezabatua; cf. *Presuna hasserretuen artean* (GGero 284).
bere gogara = GGero 284; *lehen aldiz onartua, ondokoez* (*gusto ta atseguin andian*)
azaltzen badu ere (ik. 13-6. oh.).
20-248 *auqueran*: gainean erantsia.
an idoroten dau ondo-nagoa < *han edireiten da ongui* (GGero 284).
20-249/250 *aserretzallea*: *aurrean aserratu*], ezabatua; cf. *asserretçaillea eta aserretua* (GGero 284).
20-251 *itsutua, sutua, sor-gortua dagoan batec*: *jat. itsutuac, sutuac, sor gortuac dagoan batec* (arg. zuz.), < *itsutua dagoen batec* (GGero 284).
20-252 *alan daragoienean* < *halacoec diharducatenean* (GGero 284).
20-253 *zure*: gainean erantsia; cf. *hordirc edo çure etsairic* (GGero 284).
20-257 *ceri daragoion* < *cer hari den* (GGero 284); ik. § 5.3.4.
20-257/258 *besteri emon gura deutsan mina, zuri...*: ahal bezala atera da Añibarro ondoko ataka honetatik: *alea harc bertceri eman nahi, çuri emanen deratçu* (GGero 284). Ezin nezake aipatu gabe utzi Villasantek (1976: 318), zuzen bezain aske, eman zion itzulpena: "aparentando querer dar a otro, te dará a ti el quantazo".
20-261 *ordenubagueac* < *desordenatuac* (GGero 285).
20-262 *errazoitic camporatuac* < *arraçoinaz campocoac* (GGero 285).
20-262/263 *itsutu, izutu, zoratu* < *itsutcen, çoratcen* (GGero 285). Balirudike *izutu itsutu-ren* oihartzuna den aldetik sartua dela (ik. § 5.5.2).

GUEROCO GUERO

- 265 jaco, eguin bear jaco guardia, billatu bear jaco osagarria, abiatu ta dendatu bear da laster medicinac, sendagarriac, erremedioac artzera. Eta nos? Len bait len, ceimbat lasterren, gueroco lucetu baga. Bada, suaren antzecoa da colera, ta ondo daquizu sua chiqui pusca dan artean errazago dala amatautea eta iltea.

20-265 *eguin bear jaco guardia = GGero 285.*

21. BURUA

*Aserrea amatetaco ta ilteco lenengo osacaia edo erremedio[a]
da bacochac, bere ecandu aserreorra ezaguturic,
agaz contu euquitea.*

5 1 §.

<215> Gorputzeco medicuac eta sendaguilleac medicina, osagarri ta erremedio asco icasi, billatu ta aurquituten dituezan leguez gorputzeco gaitoxotasunac osatuteco, alan arimaco medicuac bere, dazauenac cer dan colera ta aserrearen ondorengoac, cein dan arimeco gaisotasuna, billatu, idoro ta
10 aguertu ditue conseju, avisu, adivide ta osagarri asco arimaco eritasun au sendatuteco, aserracuntzac biztuten daben sua ilteco, eta bai biztu, isio ta erressequin eztidin contu euquiteco.

15 Lenengo erremedioa, osacaia edo bitartecoa da, noberac bere burua, condi-
ciñoa, ecandua ta griña charra ezagututea; bere buruaz gogoeta eguitea aserre-
corra danez; coleratsua, vengatzallea dan ala ez; jauscor danez vicio onetan. Eta

21-2 *osacaia*: ondoan *da*, ezabatua; cf. *lehenbico erremedioa da* (GGero 285).

21-3 *bere ecandu aserreorra* < *bere condicino haserreorra* (GGero 285).

21-8/9 *cer dan colera ta aserrearen ondorengoac* < *cer den colera, eta coleraren ondorea* (GGero 285). *ondorengoac*: ondoan *ta errastuac*, ezabatua; bistan da pluralean tematu zela, aditza singularrekoa bada ere; *ondore*-ren itzulpenaren gorabeherez, ik. § 5.3.4.

21-9 *cein dan arimeco gaisotasuna* < *cein baita arimaco eritasuna* (GGero 285/286). Bes-tetan ere Axularren erlatibozkoak honela itzuli dituen arren (ik. 6-58, baina cf. § 5.2.10), testuinguru honetan galde perpaustzat hartzeko arriskuaz ez bide da ohartu.

21-10 *aguertu ditue*: baina gorago *aurquituten dituezan...* (21-7); ik. § 4.3.10.2.

21-11/12 *biztu, isio ta erressequin*: cf. *VB erressequin* (b.), *isio* (c.) “encender”; cf. *eta bai pitzte-tic eta iratchequitcetic ere beguiratceco* (GGero 286).

21-15 *jauscor danez vicio onetan* < *iauzcor denz* (GGero 286). Itxurak engainatu du, noski: cf. *VB jauscorra* (b.) “caedizo”, *jausicorra* (b.) “frágil, fácil en caer”; ik. § 5.3.4.

baldin alan bada, peligrua badazau, senticorra bada, paciencia guichicoa bada, igues eguin ta gorde alango ocasiño ta laguneetatic, presentetan dirian peligrue-tatic, gente artera urten ta joateric, eta bai cereguinetan ta cargüetan sartzetic.

20 Batzuei ocasiño danic chiquiñean, sua oratuten jaque; suzcoac diriala-co, chatarrac, chingarrac, garra dirialaco. Onen ganean ederto diño Senecac (cap. 18): Egur eceari ta sendoari su andiac bere nequez eresseguiten deutso, baña igarrari, arroari, charar batec bere erexeguiten deutso, ataraco eguiña, prestatua, gaitua, abiatua dagoalaco. Alan colera ta aserratasunean bere jazo oi da. Icusico dozu gueienetan gauza chiquer bategaiti, ocasiño chiqui bate-
25 gaiti, ecerezqueria bategaitic aserratuten diriala asco; bai ta eriotzac bere eguin ta jazoten diriala; <216> cergaiti ce, aserratutea eztago aimbeste egui-tecoaren valioan, cein personaren condiciñoan. Batac arduraric eztabenaz, bestea jausten ta aserratuten da.

30 Antioco Sofista deituten zan ac, bere condiciñoa ezaguturic, ez eban bein bere lagun artean ibilli gura eta ez, ataraco bazan bere, errico carguetan sartu gura. Guizon gaisquin bat leguez, izu zan, bildur zan; iguesca leguez, basotua, erbestetua leguez ebillan. Eta itanduten eutsenean, ea cegaiti ta ce-
ren bildur zan, edo cegaiti uxaturic igues eguiten eban, eranzun eban: Igues eguiten dot, dazaudalaco neure condiciñoa; ez nasalaco prestu ta gai gente
35 arteraco; eztodalaco ocasiñoan sartu ezquero neure burua neure aguinduan;

- 21-17 *ta gorde alango ocasiño ta laguneetatic*: baina ez du *alangoric* oraindik aipatu; cf. *beguira differentiaric ahal datequeyen occasino guztietaric* (GGero 286), hots, ‘gorde auzirik egon daitekeen okasio guztietatik’. *laguneetatic*: ik. § 4.2.4.
- 21-19/20 *suzcoac dirialaco, chatarrac, chingarrac, garra dirialaco < succoi baitira, ihar baitira* (GGero 286). *chatarrac*: aurrean *gar ta*, ezabatua. Añibarrok ere, Villasantek bezala (AxH, s.v. *inhar*; eta 1976: 320), izentzat hartu eta itzuli du *ihar*; beste ulerkerak baterako, ik. *OEH*, s.v. 1 *inar*. Cf. *VB chatarra* (b.), *chingarra* (g.) “chispa”.
- 21-21 *cap. 18*: egiatan *ep. 18* da (GGero eta Gero 286). Ez dirudi azkenotan honelako erreferentziei arreta handirik jartzen dienik (ik. 20-116, 20-168/169. oh. eta § 3.2).
- 21-21/22 *eresseguiten deutso... erexeguiten deutso < eraguiten dio... iratchequiten dio* (GGero 286). *erexegin* NORK-NOR aditza izaten da, bai Añibarrorengan (ik. 1-97 eta 49-26), baita aldaera hau zein bestelakoak erabiltzen dituztenengan (cf. *OEH*, s.v. 1 *irazeki*), *RS-n* (519), besteak beste, NORK-NORI bada ere. Kasu honetan, erregimena Axularrek eragin du, dudarik gabe.
- 21-28 *jausten < iauzten* (GGero 287); *iauzcor* eta *jauscor* bezala (21-15. oh.; ik. § 5.3.4).
- 21-31 *gaisquin bat*: aurrean *gaisto bat*, ezabatua; cf. *Guiçon gaizquin bat beçala* (GGero 287).
izu zan < ici cen (GGero 287).
iguesca leguez < ihicia beçala (GGero 287); aldaketa edo gaizki ulertze honek eragin du gero berriz *leguez* eranstea: cf. *ihicia beçala, basotua eta ihes eguina cebillan* (GGero 287).
- 21-32 *basotua < basatua* (GGero 287).
- 21-33 *edo cegaiti uxaturic igues eguiten eban < edo cergatic ihes eguiten çuen* (GGero 287).
uxaturic: ondoan *ta*, ezabatua. *eguiten*: aurrean *ebillan*, ezabatua.
- 21-35 *neure burua neure aguinduan < neure burua neure escuco* (GGero 287); ik. § 5.3.4.

ez nasalaco neure buruaren jaun, ta ez jabe; bertatic izutu, conortebaguetu ta aserraten nasalaco; errea, ernegaria, jauscorra nasalaco; danic ocasiñoric chiquerrena, quiñu siñuric chiquiena gorrotauteco, muturtuteco, maquertuteco, ernegu gogaicarrian jarteco asco dodalaco.

- 40 Ez nauco, ez, besteren bildurrac igues eguiña: neure bildurrac, neure buruaz fiatu ecinac nacar aec carguac ez artutera, besten laguntzac ichi eraguitera. Onelan eranzun eban Antioco onec. Beragaitic diño Platon jaquitunac, persona aserreccorrac, sutuac, coleratsuac adimentutsuac direala, ta gai onecoac gauza on asco icasteco, baña ez erriac gornetaco ta ez escola euquitecto. Bada, orretaraco paciencia bear da, epe ta sosegua bear da; ta ascotan, 45 icusia ez icusia leguez, enzuna ez enzuna ta aditua leguez irudirazo bear da.

- Alan Cotis Traciaco erregueac bere, icusiric ta ezaguturic onetan argala zala, bereala lenengo ocasiñoran colera ta aserreac burura igon, nagusitu, jaso ta goratuten jacala; sufrimenturic <217>, eroampenic, pacienciaric bapere ez 50 eucala; senticorreguia, vicieguia zala; eta beragan paciencia euquitera eguinagaiti bere, bertati lenengo guertaldian ta ocasiñoran jausi ta laprastuten zala, abiatu zan aleguin guztiaz aserraldi guztietatic igues eguitera, burua gordetara. Eta alan, diño Plutarcoc, egun baten Cotis erregue oni ecarri eutseela presente estimagarri bat, maiontzi eder valio andico bat, baña bideriozcoa.

-
- 21-36 *ta ez jabe: ez gainean erantsia, < eta ez iabe (GGero 287).*
- 21-36/37 *izutu, conortebaguetu ta aserraten < limburcenc eta quillatcen (GGero 287). Itsuka itzulua, antza denez.*
- 21-37 *errea, ernegaria, jauscorra nasalaco < errea naicela, iauzcor naicela (GGero 287). jauscorra: ik. 21-15. oh.*
- 21-38/39 *gorrotauteco, muturtuteco, maquertuteco, ernegu gogaicarrian jarteco < gorrotateco eta muthurtua iarteco (GGero 287). gorrotauteco: leh. gorrotateco. ernegu: leh. ernegauta; Urquijok (1931: 271) ernegau irakurtzen du, baina, -a- tatxatuta dagoela emateaz gainera, ez dirudi izenondoarekin ondo datorrenik. gogaicarrian: jat. gogaicarrean (arg. zuz.).*
- 21-41/42 *ichi eraguitera: testuinguruak eguitera eskatzen duela dirudi, baina Axularren ereduak indar gehiago izan du: neure veldurrac, neure buruaz fidea [sic] iñan gabeac naduca, harc carguac eta compaiñiac ere utz aracitcen derauzquit (GGero 287).*
- 21-46 *irudirazo bear da: cf. iccussia ez iccussi, eta aditua ere, ez aditu iduri eguin behar da (GGero 288).*
- 21-49 *sufrimenturic, eroampenic, pacienciaric < pairuric (GGero 288); cf. VB eroapena, paciencia (c.) “paciencia” eta sufrimentua, eroampena (c.) “sufrimiento”.*
- 21-50/51 *beragan paciencia euquitera eguinagaiti bere < bere baithan aiticnetic paciencia igaitera deliberatuagatic ere (GGero 288). bere baithan-en itzulpenaz, ik. § 5.3.4.*
- 21-52 *aserraldi: aurrean aserret], ezabatua; cf. coleraren occasino guztietaric (GGero 288).*
- 21-54 *maiontzi < vachera (GGero 288); VB “vaxilla, vasos, platos, etc. que sirven a la mesa: c. maiontziac” (< HH). Honezaz gainerako ondoko agerraldietan vachera ontzi bihurtuta agertzen da, eta hemen bezala beti singularrean. andico bat, baña: leh. andicoa, baña; cf. ...vachera eder bat. Ordea hautscorra, lurrezcoa eta beiraquizcoa (GGero 288).*

55 Artu eban ontzi polit au ecarlearen escutic estimaciño andiaz; emon bere
 eutsazan esquer onac ecarleari ta biraltzalleari edo emolle onguillari. Baña
 bertati ecarlearen aurrean berac bere escuz ta guztia ecusela, urratu ta apur-
 tu eban ontzi eder valiotsu au, ciñoala: Baquit, dazaut ta dacust egun guichi
 60 barru nire otseñac ta servitzariac ausico dabela presente eder au; eta izanic
 ni ain vicia, errea ta condiciño charrecoa, menturaz gueiegui aserratu ta la-
 rregui sutuco nas; eta neurri baga ta bear baño gueiago castigatu neiz neure
 otseñac. Bada, lenagotic erremedioa ifini daidan, aldeguin daidan ocasiño
 etorquizun au; apurtu daidan, zatitu, puscatu ta ausi daguidan orain ontzi
 65 eder au neure escuz coleratu baga, guero ez aserratuteagaitic. Celan esan,
 alan eguin eban, barreca egoala, guztia berac bere escuz ausi eban. Ascoc
 alabatu ta andizcatuten dabe erregue onen eguite au, baña guichic jarraitu.
 Au zan cer jazo al lequiquion lenagotic, aurretic beguiratutea, bere burua
 ezagututea, etorquizuneco peligrutic gordetea, colera ta aserracuntza amatau
 ta ilteco lenengo erremedioa.

21-56 *eutsazan*: leh. *bacituan*; cf. *eta bai esquerrac ere eman eccarley eta igorley* (GGero 288).
 21-59/60 *izanic ni*: *ni* gainean erantsia; cf. *ni naicenarequin eta neure condicino errearequin* (GGero 288-289).
 21-62/63 *aldeguin daidan ocasiño etorquizun au* < *deçadan occasionoa aparta* (GGero 289).
 21-67 *lequiquion*: leh. *daquiquion*; cf. *cer guertha ahal daquidicaton* (GGero 289). Ik. § 5.1.3.12.

22. BURUA

*Colera ta asserrea ilteco bigarren erremedioa da, diraquien
lapicoari eguiten jacana aserracuntzari
bere eguitea.*

5

<218>

1 §.

Guizon aserratua diraquian lapicoa leguez da; eta iraquin ataric jaguiten da que bat, laño bat, ceinec, Poetac diñoan leguez, adimentua itsutu ta ilunduten dau. Bada, lapicoari lar diraquienean, ganez doianean, iru moduz emoten jaco erremedioa. Lenengoa da sutic atera, alderatu ta urrindutea. Bigarrena, egurra quendu edo guichitutea. Irugarrena, ur otza ganetic emotea, bota ta egoztea. Onela bada, aserrez, icusiecinez, gorrotoz bere arerio[a]ren contra diraquianari bere, iru erremedio ta bitarteco oneec emon bear jacaz; eta euroc artu bear ditu bere aserretasuna ta gorrotoa amatau ta oztuteco, ta euroc gorde bear ditu contuz.

Lenengoa, sutic atzeratu: au da, aserratuteco ocasiño, arriscu, vide ta pelligruetaric aldeguin, igues eguin, urrindu. Bada, celan ez erretaco bitarteric onena dan sutic urrindutea, alan erriertac, aserreac ta guertaldi charrac alde

22-7 *iraquin ataric* = GGero 289.

22-13 *emon bear jacaz*: bai, baina ez edozelan, Axularren esanetan: *hirur erremedio hauc, bat baillira beçala eta hautçaz bat eguinic, eman behar çaitça* (GGero 290).

22-14 *aserretasuna*: gainean, *aserracuntza*-ren ordez, baina hau ezabatu gabe.

22-17 *urrindu*: aurean *apar*] (*apartatu?*), ezabatua; cf. *aldara, aparta eta ihes eguin* (GGero 290).

bitarteric: cf. halaber 27-96 eta 47-109; askoz maizago *bitarteco* erabiltzen du adiera honetan (ik., adib., 21-13, 22-13 edo 22-19).

20 eguiteco bitartecoric onena da gente aserreacor, puntoso ta bideriozcoetatic
 igues eguin ta gordetea. Persona aserreacorac aranza elorria leguez dira; ezti-
 ra onac escuaz erabilteco, min eguiten dabe oratuten badira. Su-arria dirudie,
 barruen dauque su-gueia, asco da calzaiduaz jotea. Agaiti esan eutsan Rebe-
 cac Jacob bere semeari: Ene semea, aserre da Esau zure anajea, zure contra
 25 egun batzuetan aguertu, eta bitartean oztuco da, sosegatuco da, joango jaco
 aldi charra. Bada, esan oi da: Icusten eztaben beguiac eztau minic. Alan, Je-
 sus seincho chiquiac bere igues eguin eban Herodes persequilla gogorranic.

<219> San Pablo Apostoluac dirauscu (Rom. 12) emon daiogula icha-
 dote, epe, asti, lecu ta amore irari, aserreari. Adierazo gura dau, gorde gait-
 30 ceta persona aserreacorretatic, aserratuteuco vide ta ocasiñoetati, aucitan sar-
 tutetic, errierta, quimera ta aserraldietatic. Bada, bein sarturic ta estropezu
 eguinic, calopean lau oinca doian zaldia leguez coleran sartu ta berotu ez-
 quero, gach da guelditutea, gach da aurrerago igaro baga, gorrotoan sartu
 baga guelditutea. Beraz, onelan diraquian lapicoari, bere iraquian guelditu-
 35 teuco emoten jacan erremedioa, emoiozu zuc bere ceure buruari, ceure ven-

-
- 22-19 *gente aserreacor, puntoso ta bideriozcoetatic < guizon haserreacorretatic eta etsaieta-
 ric (GGero 290). puntoso: cf. DAut (s.v.): “Vale también lo que contiene en si pun-
 to de honra, o que procura conservar la buena opinión y fama”. bideriozcoetatic:
 metonimia Añibarrena da, Cotis erregearen istorioa (21-47 t. hur.) buruan, non-
 bait.*
- 22-20 *aranza elorria leguez < çuhaitz arancetsuac beçala (GGero 290).*
- 22-21 *erabilteco: aurrean pala] (palagatu?), ezabatua; cf. ezтира ferecatceco on (GGero
 290).*
*Su-arria dirudie < Harri muguerraren pare dira (GGero 290); cf. VB su arria (b.),
 arri muguerra (g., < HH) “pedernal”.*
- 22-22 *barruen: fonetikoki ezinezkoa ez bada ere (ik. § 4.2.1), aitortu behar da egiatan Añi-
 barrok (eta ez bestek; cf. OEH, BARRUAN, s.v. barru) ez duela, ez hemen eta ez inon,
 dakidalarik, barruan baizik (cf. 1-249, 7-20/21, 13-154, 23-60, etab. etab.).*
asco da calzaiduaz jotea < asco dute uquitcea (GGero 290).
- 22-25 *eta bitartean < eta aguian bitartean (GGero 290). Hirugarren aldiz aguian agertu (ik.
 lehenago 1-244 eta 19-177. oh.), eta hirugarrenez Añibarrok ez ikusi egin dio.*
- 22-28 *Rom. 12: azken aipu guztiak erreferentziarik gabe eman dituen arren.*
- 22-30 *aserreacorretatic: jat. aserreacor etatic (arg. zuz.), < haserreacor etatic (GGero 291).*
- 22-31 *errierta, quimera ta aserraldietatic < liscartetic eta behaztopa guztietaric (GGero
 291). behaztopa hemen saihestu duen arren (cf. 6-15. oh.), ik. hurrengo oharra.*
- 22-31/32 *bein sarturic ta estropezu eguinic < behin behaztopatuz guero (GGero 291).*
- 22-32 *calopean lau oinca: cf. çaldia beçala laur oinca, aldapa behera, coleran abiatuz gue-
 ro (GGero 291). oinca: aurrean oiña, ezabatua. Ziurrenik hemendixe dator Azkuek
 ematen duen “Añ. ms.” erreferentzia, OEH-ak alferrik VB-n bilatua (biek s.v.
 lauoinka).*
- 22-32/33 *sartu ta berotu ezquero: leh. sartuaz leg[uez] alde batetik, eta berotuaz leguez, beste-
 tik; nahasteren bat izan zen: cf. coleran abiatuz guero (GGero 291).*
- 22-34/35 *bere iraquian gueldituteuco < bere iraquinaren gueldituteuco (GGero 291). Aldaketa
 bera egiten du beharaxeago (ik. 22-39. oh.). Formari dagokionez, cf. halaber iraa-*

guetaco guraria ta aserreco iraquina oztu ta amatetaco. Sutic atzeratu zaite, ocasiñotic aparta ta igues eguizu.

2 §.

Bigarren erremedioa lapicoari bere iraaquian gueldierazoteco da egurra
 40 quendutea, sua guichitutea. Alan da, bada, colera ta aserredurearen iraquina
 oztuteco ta amatetaco erremedioa, verba deungac ez ataratea, gogor ta astun
 eracusten jatzunari eme ta bigun eracustea, ixilic ichitea, enzun-gor eguitea,
 ez jaramotea. Sua egurra gueituteaz gueitu, aci ta andituten dan leguez, eta
 45 quenduteaz guichitu ta chiquertu, alan gorrotoa ta aserrea bere berba asco,
 gaisto ta gogorrac irausiric <220> gueitu ta biztuten da; ta ez eranzuteaz chi-
 quitu ta amatauten da. Zuri ceure arerioac gauza asco dirautsu: lapur bat za-
 reala, engañatzalle bat zareala. Ta guero azquenean, San Basilioc diñoan le-
 guez, sayetac botatzen dagoana leguez, buruan dituanac dirauen artean,

-
- 22-36 *quian* (22-39), baina *n* gabeko formok bakarrak dira *iraquin* aditzaren (cf. 20-33, 20-137, etab.) zein izenaren (cf. 20-178, 22-7, 22-36, etab.) aldean; cf. *VB* “hervor: c. *iraquiña*; b. *iriquina*” ere. *iraki* edo *eraki* bezalako aldaerak oso ekialdekoak direnez (cf. *OEH*, s.v. *irakin*), Añibarroren hutsa ez ote den nago, eta gainera, ez ote dagoen lotua inesiboa izatearekin, hain zuzen (cf. *iraquiñian* 2-19, *iraquinean* 53-35).
aserreco iraquina < *hasserretasuneco iraquinaren* (*GGero* 291).
atzeratu: aurrean *aparta*], ezabatua; cf. *Sutic guibela, occasionetaric aparta* (*GGero* 291).
- 22-37 *ta igues eguizu* < *etsaietaric ihes eguin* (*GGero* 291). Zati honetan lehenago ere (ik. 22-19. oh.) alde batera utzi du etsaien aipua: zer ote?
- 22-39 *iraaquian*: *iraquin* ongi lekukotuta dago idazle markinarrengan, besteak beste (cf. *OEH*, s.v. *irakin*, batere garrantzirik ematen ez badio ere; hotsen alderditik, ik. *FHV* 111 t. hur.) eta cf. *iraaquin* eta *diraaquit* (*GB* 68) ere; *n* gabekotasunaz, ik. 22-34/35. oh.
- 22-40 *sua guichitutea*: burua gehiegi hautsi gabe saihestu ditu *succain gutitcea*-k (*GGero* 291) ematen dituen arazoak, < *succaien gutitcea* (*Gero* 291); Larramendik, ordea, pasarte beretik *sucaina* “pábulo del fuego” iratxoa (*Erans* 476) atera zuen.
colera ta aserredurearen < *coleraren eta hasserreduraren* (*GGero* 291).
- 22-44 *chiquertu*: leh. *chiquertuten dan leg[uez]*.
asco: leh. *ascoz diarduric; diardu* partizipio gisara erabiltzeko joeraz, ik. 1-108/109. oh.
- 22-45 *irausiric*: aurrean *di*] (*diarduric* berriz? cf. aurreko oh.), ezabatua; cf. *alde batetic eta bertetic hitz gaixtoen eta gogorren erraiteaz* (*GGero* 291). Zalantzarik gabe, *erausi* eta *irauntsi*-ren arteko forma (cf. *OEH*, s.vv. *erausi* eta *erauntsi* 6), beste lekukotasunik gabekoa; baliteke, agian, nahastetik sortua edo *dirauscu* bezalako formetatik buruz aterea izatea: cf. *VB irauñsi* (b.), *erausi* (g. n.) “hablar mucho, demasiado” eta *erauntsi* (b.), *erausi* (g.) “parlar”, eta *iraunsi* “hablar mucho, demasiado: corresponde a *erausi* guipuzcoano” (*GB* 68).
- 22-47 *bat*: jat. *bat bat* (arg. zuz.).
- 22-48 *sayetac botatzen dagoana leguez* < *Tragaça colpeca hari dena beçala* (*GGero* 292). Cf. *VB sayeta* “saeta” (< *HH*) eta *Erans* “saeta, tragaza”.
- buruan dituanac dirauen artean* < *buiracan edo buruan direnec dirauteiño* (*GGero* 292) < *buiracan direnec dirauteiño* (*Gero* 292). Añibarrok, *GGero*-aren zuzentzailak bezala, ‘etsaiak buruan dituen esateko guztiak’ ulerkera hobetsi du, *buiraka*

pensa alac edo daquizanac esan arteraño, ezta issilduten.

50 Orduan ac deunguero berba eguiten dau; ta zuri bere derichazu dongue-
ro berba eguiten dabela. Ta alambere, zuc ari beste orrembeste edo gueiago
ta dongago dirautsazu. Ceuc deungago eranzunaz gura dozu erremediatu.
Baña engañetan zara. Bada, ori da arriaz arria jotea, bioen su ta garra biztu-
tea, llaga zaoria gueiago zabaltzea, ta areriotasunean ta aserrean barrurago
55 sartzea. Zuri beguia ateretan deutsunari, ceuc bere arena aterateaz, ezta an-
dic zurea osatu, ez osotuten, ez bere lecura biurtzen. Colpe bat emoten deu-
tsunari, beste bat zuc berari emonaz, ezteutsazu onela ceure buruari quendu-
ten besteac emona.

60 Lapur bat zareala dirautsunari eranzuteaz ordi bat dala, eztacust irabaz-
te andiric eguiten dala. Baldin beti guelditu gura badozu azqueneco berbea
ceuc esanaz; ta ez beimbere largatu, ez amore emon ta ceureaz urten, orduan
ezta acabatuco guerrea ta aserrea. Lenago bai, ordia asco edateaz egartsua-
go dagoan leguez, cerren ardoac berotu ta erretan daben, alan arerioac bere,
alcar eranzuteaz gueiago areriotuten dira.

65 Nai badozu issildu dedin arerioa, zagoz ixilic; gura badozu guelditu de-
din, gueldi zagoz, sosega zaite. Nai bozu atsemon ta amatau dedin sua, egu-
rrac quendu eguiozuz. Bada, au da bigarren erremedioa diraquian lapicoa
gueldi erazoteco, aserrea amatetaco: egurra quendutea, bideric ez emotea, is-
silic largatzea, enzun-gor, ez-icusi eguitea.

70 3 §.

Irugarren erremedioa, diraquian lapicoa ganez eguinic doanean gueratu-
teco <221> ta beeratuteco da ur otza botatzea. Onela, aserrezco colera atse-
moteco ta sosegatzeco da berba gozoa, emea, biguna esatea ta eranzuera
umildea emotea. Bada, Espiritu Santuac diño, eranzuera eme gozo bigunác

tragazak edo *saietak* gordetzeko zorroa bada ere (hitz honen gorabeherez, ik. *OEH*, s.v.). Bide batez, *hapax* usteko hau, ez ote *buriaça* irakurri behar, hots, *burjaka* (cf. *OEH*, s.v. *burujaka* 2)?

22-49 *pensa alac edo daquizanac* < *pensa ahalac edo daquizquienac* (*GGero* 292).

22-53/54 *arriaz arria jotea, bioen su ta garra biztutea*: balirudike hemen *bioen* hori zu eta *are-
rioaren* artean osatzen dela; cf., osterá, *harriac harria ioitea, bietaric suaren pitz-
tea* (*GGero* 292), hots, “hacer saltar fuego de ambas” (Villasante 1976: 326).

22-54 *llaga zaoria* < *çauriaren* (*GGero* 292). *zaoria*: ik. 7-110. oh.

gueiago zabaltzea < *gaizcoatcea* (*GGero* 292).

22-64 *alcar eranzuteaz* < *iharduquiz* (*GGero* 292); ik. § 5.1.2.6.

22-66 *bozu*: honelako formez, ik. § 4.3.10.13.

atsemon ta amatau < *iraungui* (*GGero* 293). *VB atsemon* (b.) “apagar” (< *HH*).

22-74 *emotea*: leh. *eguitea*; cf. *hitz ona, errepuesta emea eta eztia* (*GGero* 293).

eranzuera: gainean, *errepuesta*-ren ordeaz, baina hau ezabatu gabe, < *errepuesta* (*GGero* 293).

75 gozotu, eztitu, beraatu ta austen dabela bengatzallearen aserrea; baña berba latz gogor min garratzac biztuten dabela aserrea. Gauza miragarria da bigunac bigundutea gogorra; gozoro ta mee berba eguiteac mansotu, sosegatu ta beraatutea aserrea ta colera.

80 Espiritu Santu berac diño, miñaren escuan dagoala eriotzea ta bicitzea, guerrea ta baquea. Nai bozu, adisquidetu ciñei ceure arerioa; eta bai gueiango areriotu bere. Emon eiozu ura, berba eguiozu bigun ta gozoro: sua amatauco da, gorrotoa ta icusi ecina acabatuco da. San Juan Crisostomoc diño guizon baquetsua, mansoa, sosegatua ta berba onetacoa, gozoa dala beretzat ta besterentzat atseguinezcoa; alacoaz guztiac gura dabe tratatu, guztiac gura dabe ibilli ta egon. Baña aserracorra, senticorra, jauscorra, beretzat ta bes-

85 tentzat da galgarria: alangoaganic guztiac igues eguiten dabe, guztiac aldeguiten dira, iñoc icusi ecin dau.

Nic uste dot munduan danic eztabela alan palagutuco, ez sosegatuco, ez bigunduco ceure arerioa, nola ceuc. Bañan, celan edo cegaz? Berba onacaz, beguirarte pozaz, chera ta moduzcotasunaz, agur biotzezcoaz, ondo berba eguiñaz; ta, guztien ganetic, era danean, ocasiñoa aguertzen danean on eguiteaz. Alan diño San Pabloc: Emon eguiozu ceure arerioari jaten gose danean, ta egarri danean edaten; ta onela bilduco dozuz icatz beroac aren buruaren ganean. Esan gura dau: icatz biciac alcartuten dirianean, sua eguin,

-
- 22-78 *beraatutea*: aurrean *gu bigundut*] (*bigundutea?*), ezabatua; cf. *ematcen eta sosegatcen baitu colera* (GGero 293).
- 22-79 *miñaren escuan* = GGero 293.
- 22-82 *acabatuco da* < *iabalduco da* (GGero 294). Itsuka itzulia.
- 22-83 *berba onetacoa* < *hitz onetacoa* (GGero 294); ik. § 5.1.1.4.
- 22-83/84 *beretzat ta besterentzat* < *beretçat eta bertcerentçat* (GGero 294).
- 22-85 *jauscorra* < *iauzcorra* (GGero 294); ik. 21-15. oh.
- 22-88 *munduan danic eztabela*: subjektua partitiboan (ik. 31-88/89. oh.); cf. *...munduco ararteco guztieac ezteçaquetela...* (GGero 294).
palagutuco < *balaca* (GGero 294). Cf. *VB palagua* (b.) “halago” baina *palagatu* (b.) “halagar”, eta *palaguetaco* (31-26): hutsa izan liteke, baina baita buruz eraturako forma, Añibarrok osagaiak agerian jartzeko joera handia daukanez gero (ik. § 5.3.3).
- 22-88/89 *ez sosegatuco, ez bigunduco*: gainean erantsia; cf. *hala balaca, eta ez sosega* (GGero 294).
- 22-90 *beguirarte* < *beguitarte* (GGero 294). xx. mendera arte ez dago *begitarte* erabiltzen duen Añibarroz beste bizkaitarrik, ez eta *begirarte* aldaeraren beste lekukotasunik, *VB*-ko *beguirarte*a (c.) “mirada” eta *begirarte ona, gozoa* (c.) “agrado” baizik (OEH, s.v. *begitarte*). GGero-n bada gehiago, denak Axularren *beguitarte*-ren lekuan (ik. 0-147, 0-150, 34-62/63, eta 41-41). Berariazko “zuzenketa” ote, ala tematsu eutsi zion irakurketa txarra? Edonola ere, gero tradiziozko forma onartu zuen (cf. *EL*² 194).
pozaz < *alegueraz* (GGero 294).
agur biotzezcoaz < *salutantcia arraiaz* (GGero 294).

95 biztuten direan leguez, alan arerioari eguiten deutzazuzan esquer mesedeac
 ta serbicioac biztu ta eguiten dabe beragan amorioaren sua, baquea, adisqui-
 detasuna. Eta batez bere ceu aurreratuten bazara berari egun onac emotera,
 <222> berba eguitera, presente bat biraldutera. Onec arerioari biotza ausi,
 irabaci ta ostuten deutso; onec beguia maitetuten deutso; onec beartuten dau
 100 bere bengatzeco gogo ta asmoa beste aldera itzulitera.

Eta, baldin faltac zureac badira, ceu bazara errudun, orduan zu zagoz
 obligaturic aurreratutera, berba eguitera, parcaciño escatutera, baquetutera.
 Eta uts eguiteac bere bestearenac badira, ondo eguingo dozu, ta gente pres-
 tu debotoen artean ondo aitatu izango zara, euren artean onra izango dozu
 105 ta ceure arimaraco asco irabacico dozu, achaquia bat billaturic edo antz
 ir[u]dina eguinic, gachic arean bere eracusi бага, len leguez berba eguitea[z] ta
 arerioagana joateaz. Onela atzeratu, otzitu ta amatetan dira aserreat ta go-
 rrotoac. Baña zu andi ni andi gogorturic egoteac, anditasunetan ibilteac,
 amoreric ez eracusteac atzeratuten dau bestea eguin gura deutzan ona egui-
 110 tetic, ta ichiten, zarratuten dau adisquidetuteco bidea ta atea.

4 §.

Orain onen ganean esango dozu: Baldin eranzun bague ichiten badot, or-
 dea biurtzera eguiten ezpanas edo neu agur eguitera aurreratuten banas,
 esango dabe ecerez bat nasala, bildur nasala, eguiac esan deustazala; ta alan

-
- 22-95 *direan*: gainean, *dan-en* ordez, baina hau ezabatu gabe. Zalantza, Axularren ordena eta aditzaren erregimena aldatzetik dator: *iccatz bicieci, elccarganacen ditutçunean, sua pitzen eta eguiten baitute* (GGero 294).
- 22-97 *egun onac emotera* < *salutatcera* (GGero 294).
- 22-98/99 *ausi, irabaci ta ostuten*: jat. *ausi, ta irabaci ta ostuten* (arg. zuz.) < *hautsten eta arrobacen* (GGero 295). Sinonimoak eranstetik inoiz edo behin sortzen zaion oharkabeko polisindetona (ik. halaber 41-304. oh.).
- 22-99 *onec beguia maitetuten deutso* < *harc beguia arraitcen dio* (GGero 295). Añibarrok ez bide zuen *arrai(tu)* ongi ezagutzen (cf. halaber 22-90. oh.).
- 22-105/106 *edo antz ir[u]dina eguinic* < *edo ahantz iduri eguinic* (GGero 295); ik. § 5.3.4.
- 22-106 *berba eguitea[z]*: cf. *mintçatceaz eta etsaiagana ioaiteaz* (GGero 295).
- 22-107 *arerioagana*: jat. *ararioagana* (arg. zuz.).
- 22-108 *zu andi ni handi gogorturic* < *hi handi ni handi hissicaturic* (GGero 295). *anditasunetan ibilteac* < *handirasunetan ibiltceac* (GGero 295).
- 22-109 *amoreric ez eracusteac*: *eracusteac* gainean, *emoteac-en* ordez, < *amoreric ez emaitceac* (GGero 295). Añibarrok ez bide zuen esapidea ezagutzen (1850 arte ez dago Hegoaldeko lekukotasunik; cf. *OEH*, AMORE EMAN, s.v. *amore*), aurreko agerraldietan (22-29 eta 22-61) nola edo hala gorde badu ere.
- 22-109/110 *bestea*: gainean, *bat eg]* (*eguin?*)-en ordez; cf. *guibelatcen du nehorc...* (GGero 295). *deutzan ona eguitetic*: gainean, *daben ontasunetic-en* ordez; cf. *eguin nahi duen ontasuna* (GGero 295).
- 22-110 *zarratuten*: gainean, *ichiten* eta *dau-ren* artean; eranstekoa dela jakintzat eman dut, markarik egon ez arren, Urquijok (1931: 275) bezala.

115 neure buruaz fiatu izan baguez, berba esque nabillala. Baña, baldin bein cerbait badirautsat, berac niri baño gogorrago berba eguiten badeutsat, esango dabe guizona nasala, neure onraz preciatzen nasala ta galanto eguin dodala. Sinisten dot batzuc alan esango dabeela. Baña ori diñoanac izango dira cristiñau gaistoac, Jangoicoaz baño, munduaz contu gueiago dauqueenac.

120 Eta munduco contua bere eztabe alacoac ondo ateretan. Bada, munduraco bere, onra andiago da arerioari ondo eguitea, deunguero eguitea baño; ez eranzutea, eranzutea baño. Bada, ez eranzuteaz, ez jaramoteaz, emoten dozu adietan ez dozula erruric; ta arerioac ganora bague berba <223> eguiten dabela. Alan diño San Crisostomoc: Cegaiti uste dozu, diño, aberatsac barre eguiten dabela pobre esqueco bat dala dirautsenean? Daquialaco eztala alan esqueco pobrea. Alan, bada, zuc bere barre eguiteaz arerioaren esanai, ez ecer eranzuteaz, ez jaramoteaz, adietan emoten dozu eztaquiala cer diñoan, eguiatic campora dabillala.

130 Eta, are gueiago, San Crisostomo berac diño: Eztozu obeto lotsatuco ceure arerio gaisquillea, celan sufrituaz, sentimenturic ez eracusteez, baquean largatzeaz. Celan arri gogor bati edo sentimenturic ez daben beste gauza bati colpeac emoten deutzazanac, emoten deutzan bere buruari calte gueiago, ta atan probechu bague nequetu ta zatitzen dan, alan arduraric ez daben bati edo conturic eguiten eztabenari, bere maliciaz daragoionac bere, emoten deutso bere buruari min ta gach gueiago.

140 Egun baten itandu eutseen Dionisio filosofoari, ea cegaz eguin leion guizon batec bere arerioari damuric ta naibagueric andiena. Eta eranzun eban berba guichiz ta laburraz: Prestua beragaz izateaz. Arerioac gura leuque beti bere idoro zupan uts eguiteren bat; ta idoroten dabenean, atseguin artzen dau; ta idoroten eztabenean, damu. Ta andic esan oi da oquer dabillanac, utseguiteetan jausten danac atseguin emoten deutzala bere arerioari.

22-115/116 *baldin bein cerbait badirautsat*: honekin honako hau saihestu du: *baldin baten bia bihur badiatçot* (GGero 296).

22-126 *eguiteaz*: leh. *egueizu*; cf. *irri eguiteaz* (GGero 296).

22-130/131 *sufrituaz... eracusteez... largatzeaz*: cf. *nola pairatceaz, sentimenturic ez eguiteaz, erastera utzteaz* (GGero 297). Atzizki txandakatzerako, ik. § 5.5.1. Ohartu, halaber, azkena nola itzuli duen.

22-133 *arduraric*: gainean, *ansiaric*-en ordeaz, baina hau ezabatu gabe, < *ansiaric* (GGero 297).

22-134 *bere maliciaz daragoionac* < *bere maliciaz darauntsanac* (GGero 297). Cf. *colpeac emoten deutzazanac* (22-132) < *colpeca darauntsanac* (GGero 297), honi egiten baitio erreferentzia hemengoak.

22-138 *berba guichiz ta laburraz* < *hitz gutiz eta laburzqui* (GGero 297); sintagma bitxia (ik. § 5.5.1).

Prestua beragaz izateaz < *Prestu içaiteaz* (GGero 297); hurren ikusten da eransketa ez dela inondik ere beharrezkoa.

145 Bada orrela, zucen ibilli zaita, ondo bici zaita, ez ceure burua arrotu ta aurreratu; prestutasunez porta zaita, ez porfiatu, ez tematu, ez jaramon. Cerrren, ur otza dan leguez lapico iraquinac ganez ez eguiteco erremedioa, bai ta sutic aldeguitea ta egurra quendutea, alan da aserracuntza ta gorrotoa oz-tuteco ta atsemoteco bigarren erremedioa, diraquian lapicoari eguiten deutzazuna, ceure colereari bere eguitea.

<224>

23. BURUA

5 *Aserrea ta gorrotoa amatetaco irugarren erremedioa da, ez
orduan porfiatu, tematutea, colera igaro artean
issillic egotea.*

1 §.

10 Irugarren erremedioa ez aserratutea ta colera amatauteco da Livio filosofoac bere dicipulu icastle Teodosio emperadore aguintariari emon eutsana, cirautsala: Baquit, aguintari jaun andia, aldi ascotan aserratu ta coleran sartuco zareala. Bada, orduraco adibide on bat emon gura deusut. Alan zagozanean, ez eguizu porfiatu, ez tematu, ez quejatu, ez bertati abiatu: ichozu pusca bat, ez albaitanez ecer eguin, ez esan, ez aurreratu ecertara, A. B. C. ta onei darraioen letrac esan artean edo aec esateco demporea[c], bitartea[c] ta astia[c] dirauan artean, al dozun paciencia, epetasuna euquiric.

15 Onetara diño Espiritu Santuac, errierta demporan, eztaizula aotic chitic atera laster. Conseju ta adibide berau emon eutsan Atenedoro filosofoac Oc-

-
- 23-8 *dicipulu icastle* < *discipulu* (GGero 298); ik. § 5.3.1.
emperadore aguintariari < *emperadoreari* (GGero 298); Añibaroren hitz bikoteetako bat (§ 5.3.1); segidan *aguintari jaun andia* (23-9), < *emperadore handia*.
23-10 *adibide* < *conseillu* (GGero 298).
23-11 *porfiatu*: jat. *profiatu* (arg. zuz.); ik. 23-23. oh.
23-13 *edo aec*: gainean erantsia; cf. *edo hartaco espatioa, bitartea eta dembora iragan arteiño* (GGero 298). Bide batez, honek azal lezake ondoko ergatiboak zergatik falta diren.
23-14 *al dozun*: aurrean *albadozu*, ezabatua.
23-16 *eutsan*: ondoan *bere*, ezabatua; cf. *eman ceraucan bere nabusi Atenedoro filosofoac* (GGero 298); hots, 'bere maisua', baina kasu honetan Añibarro atzeratu da, lehenago (19-152) Jesus eta San Pedroren kasuan durduzatu gabe *maissu* itzuli arren.

tavio Augusto emperadoreari, beronen echeric urteteco egoala. Eta emperadoreac ain gogoz artu eban adibide au, ce urte bat gueiago euqui eban bere jaureguian ta laguntzan bere consegerutzat. Beste ascoc bere gorde dabe adibide au, idoro dabe aserrearen contraco osagarritzat, eracusi dabe esatez ta eguitez, ona dala colera demporan apur bat ichadotea, balanzan leguez guelditzea, ez beingoan ebaguitea, ez ecer esatea. Consejari charrac dira colera ta forfia.

Senecac bere diño aserrea eci ta goiartuteco, errierte ebaguiteco erremedio andia ta segurua dala pisca bat soseguetea, icharotea, ez porfiatzea, ez eragotea. Bada, Ciceronec diñoanez, eztau guizon aserratuac beimbere euquico bear dan neurria contuan egoteco; arriscuan dago guichi edo ascotan uts eguiteco. Eta alan, aserre zareanean, bildur izan zaite, etzaite aurreratu; ez eguizu orduan eguin, gogoac emoten <225> deusun gauzaric. Bada, orduan itsu edo zoro adimentubaguea zagoz: deserrazoia bere, arrazoizco irudituco jatzu. Marinalac dempora ona danean bide eguiten dau; baña ecach demporan gueldi dago. Alan, zu bere, aserre zagozanean, dempora charrean zagoz, ecach dempora da, ta orduan zagoz gueldi, zagoz caian edo portuan, zagoz echean, sosega zaite, ez ecer eguin, ez esan, dempora ederra eldu arteraño, aserrearen ecachac dirauan bitartean.

Bada, Menandroc diñoan leguez, aserraturic eguiten dozun guztia idoroco dozu guerorengo, deunguero eguin dala. Bai ta Senecac bere badiño, aserrearen ta erriertaren azquena ta acaberea dala damuzco negarraren asierea.

filosofoac: ondoan *echetic urte*] (*urteteco?*), ezabatua; Axularren ordena zen; cf., goikoaz gainera: *etchetic partitceracoan, Octavio Augusto Emperadoreari* (GGero 298). -*tzerakoan* atzizkiaren itzulpenaz, ik. § 5.2.12.

23-20/21 *esatez ta eguitez < hitcez eta obraz* (GGero 299).

23-21/22 *balanzan leguez guelditzea < balantçan beçala eduquitcea* (GGero 299).

23-23 *forfia*: VB *forfia, porfia* (c.) “porfia”; honetaz gainerakoetan *porfia* (23-87) eta *porfiatu* (3-132, 9-201, 22-143, etab.) erabiltzen ditu.

23-24 *errierte*: leh. *errierta*.

23-25 *andia*: *aurrean dala*, ezabatua; cf. *erremedio handia da* (GGero 299).

23-27 *contuan egoteco*: cf. *Ezta behin ere guizon hasserretuac behar den neurria beguiratuco* (GGero 299); agian *beguiratuco beguiratceco* irakurri zuen.

guichi edo ascotan < gutiz edo soberaz (GGero 299); cf. Villasanteren itzulpena (1976: 336) “por defecto o por exceso”; aldiz, Añibaroren bertsiok maiztasuna baino ezin adieraz dezake, oso oker ez banago.

23-30/31 *deserrazoia bere, arrazoizco irudituco jatzu < desarraçoïna ere, arrazoïñ iduritzen çaitçu* (GGero 299).

23-31 *Marinalac*: ik. 15-193. oh.

23-32 *zu*: jat. *zuc* (arg. *zuz.*); cf. *Hala bada, çu ere* (GGero 299).

23-37 *guerorengo < ondoan* (GGero 300); gainerako agerraldi guztietan (8-257, 13-53, 17-61, 43-7 eta 47-168) izenlaguna da, *azkeneko*-ren esanahikidea, *OEH*-ak (s.v.) jaso dituen adibide gehienak (ia denak Añibarorenak) bezala; *Viva Jesus*-en bakarrik aurkitu du *geroengo* aditzondo gisa, ‘azken aldiz, azkenik’ esanahiarekin.

40 Herodes icen onetaco lenengo erregue gentilac il eban Mariamnes bere emaztea coleran celoac gaiti, gogoac emon ta berpetati, ta ain laster, laburqui ta arin ce, munduac jaquin ebaneco, eguin zan colpea. Baña guero, aserrea ozturic ta obeto informaturic, jaquin ebanean eguia, ta erru bague il ebala, ain min ta damu bicia artu eban, ce etorri zan erotuteco puntura, ta echeco bazter guztietan ebillan zorabi[a]turic, negarrez ta deadarrez bere emazte[a]ri deiez ta bere billa, onetan bere lengo zoraqueriaren ganera beste andiagoa eguiten ebala.

50 Aserrean ta coleran zagozanean, eguiten dozuz eroqueria asco, ta guero, aserrea igaro jatzunean, jatortzu eraqueria orren damua, ta nai cenduque eguin ezpacendu. Eta alan, len bestearen contra aserratzen ciñean ori, zatoz ceure buruaren contra aserratutera, diño Senecac. Aserrearen eguiteac ez tira beimbere onac ta osoac: beti datoz cerbait escas, urri, artzaren ta chacurraren umeac direan leguez. Bada, amac coleratsuac direan leguez, alan dira umeac bere faltatsuac: artzaren umeac illac leguez gogorrac, ta chacurrarenac itsuac sortuten dira.

55 <226> Andizcatua da Archita Tarentino, bere burua coleratua ezaguturic, esan eutsalaco bere lagun bati: Ceatu, manatu, apurtuco cinduquedaz, baldin aserre ezpanengo. Esquer onac emon eiozuz ene coleran egonari ce, bestela, artuco cinduan ceure egunac. Bai ta alabetan da Platon famatua, ce-

-
- 23-39 *erregue*: leh. *erregueac*; cf. *lehenbico erregue ientil harc* (GGero 300).
 23-41 *jaquin ebaneco* < *iaquin çueneco* (GGero 300); ik. § 5.1.1.9.
 23-42/43 *jaquin ebanean eguia, ta erru bague il ebala*: bukaerako sintagma zertxobait hankamotz honen jatorrian, Axularren testuko pare bat hitz ahaztu edo kendu izana dago: *iaquin çuenean eguia, eta içan segurantça hoben gabe hil çuela* (GGero 300).
 23-45 *deiez*: jat. *deiaz* (arg. zuz.); cf. *bere etheco çocco guztietan, bere icenaz deitzen çuela, bere emaztearen bilha, oihuz baitcebillan* (GGero 300) eta ik. *OEH*, DEIEZ, s.v. *dei*.
 23-45/46 *beste andiagoa* < *bertce bat, are handiagoa* (GGero 300). *beste*-ren erabileraz, ik. § 5.2.1.3.
 23-47 *Aserrean*: azken letra ez da batera ondo irakurtzen, baina jarri dudana besterik nola izan litekeen ezin dut asmatu; cf. *Coleran çarenean* (GGero 300). Urquijok (1931: 277) ere irakurketa bera ematen du.
 23-51/52 *beti datoz cerbait escas... umeac direan leguez* < *bethi dira cerbaiten escas, hartçaren eta oraren umeac diren beçala* (GGero 300); hots, *datoz eta direan leguez vs dira eta diren beçala* (ik. § 5.5.1).
 23-53 *artzaren umeac illac leguez gogorrac* < *hartçarenac, tronço bat beçala* (GGero 301) < *tronco* (Gero 301). Erka bedi Añibarroren azalpena Villasanteren itzulpenarekin (1976: 338): “las del oso son como un tarugo”.
 23-55/56 *bere burua coleratua ezaguturic* = GGero 301.
 23-56 *Ceatu, manatu, apurtuco cinduquedaz* < *Ceha intçaquet* (GGero 301). *manatu*: “ponerse paralítico (V-ple)” A *Apend* (ap. *OEH*, s.v. 3 *manatu*).
 23-57 *ene coleran egonari* = GGero 301.
 23-58 *artuco cinduan ceure egunac*: ez dakit esapidea izan, baden, baina ez da Axularrena bederen, eta bai aitzitik harena gaizki ulertua: *hartuco ituen egun heureac* (GGero 301), hots, ‘gaur’ (ik. § 5.3.4).

60 rren bere adisquide bati, bere coleran bere mutila ceatu eutsana castigatu ez eguian bildurrez, barruan sartu cituan escuac. Beguira celan filosofo jaquitun, zur, adimentudun oneec gordeten cirian euren aserreetan: bildurtasun andiaz gobernetan cirian euren aserraldietan. Bada, bacequien guizon coleran sutua, zoro baten antzecoa zala, ez egoala beragan, etzala guizon.

65 Orregaiti diño San Basilioc, zoraqueria labur bat zala aserrezco ira ta colerea. Eta uste eban Platonec bere, guizon aserratuaren ta adimenturic jausiaren eroqueriac ez ebeela beste diferenciaric, ezpada batec guichiago ta besteac gueiago irautea baño. Bada, aserratuari lasterrago igaroten jaco bere aserretasuna, zoro-zoroari bere erotasuna baño. Baña ganeracoan, bata aserre ta bestea ero direan bitartean, ain ondo lotu, estu leie bata cein bestea.

70 Bada, orduan biac dira bardinac, biac dira ero zoroac.

Eta celan dan eroqueria andia, zoraturic, adimentua galduric dagoanari prediquetea, conseju emotea ta polito berba eguitea; alan da bardin eroqueria ez chiquia, aserre andian itsutua, sutua ta errea dagoanari, alan dagoanean, moduzcotasunaz berba eguitea; bere arerioari parcatu daiola esatea.

75 Bada, bere bero atan, coleraren lenengo oratutean, abiaduran ta indarrean, ezta bere buruaren jaun, ez jabe. San Agustinec diño: Aserrez beteric ta itsuturic dagoana, eztago prestaturic conseju onac artzeco. Contrara bai, orduan alaco gauzaric iñoc adirazo ta aitatzen badeutso, aitetute berac ernegarazoten deutso, erneguz erre ta biraoca asten da. Eta alan, baldin aserre dirianen

80 edo aucitan dabiltzanen artean onic atera, baqueac eguin edo adibide onic

-
- 23-59/60 *bere coleran... barruan sartu cituan escuac*: ez da ezer ulertzen, Añibarro, eskuizkribuan aldaketa zenbait eginez (*eutsana castigatu*: gainean erantsia; *cituan*: gainean, *eutsazan*-en ordezt) hobetzen saiatu bazen ere. Hauxe da jatorrizkoa: *ceren bere adisquide bati, ceha araci baitceraucan bere muthila, veldurrez, berac bere coleran, barrenegui sar citçan escuac* (Gero 301), hots, 'beldurrez, ez ote zuen neurritz gainetik zigortuko'.
- 23-60/61 *jaquitun*: ondoan *oneec*, ezabatua; cf. *philosopho hec, guiçon çuhur adimendutsu hec* (GGero 301).
- 23-63 *ez egoala beragan, etzala guizon* < *etcegoela bere baithan* (GGero 301); ik. § 5.3.4.
- 23-65/66 *adimenturic jausiaren* < *adimendutic iauciaren* (GGero 301). Ez daukat daturik *adimendutic jauzi*-ri buruz, baina cf. *VB burutic jauzi* (c.) "(perder el) juicio, salir de juicio" (< *HH burutic jauzi*), nahiz eta, lekukotasunen arabera, esapide hau gehienara jota erdialdekoa izan (cf. *OEH*, BURUTIK JAUZI, s.v. *buru*). Ondoko agerraldietan (ik. 23-71 eta 25-11. oh.) bestela esaten saiatzen da.
- 23-67 *gueiago irautea*: jat. *gueiago irauteac* (arg. zuz.), < *guehiago irautea* (GGero 301).
- 23-67/68 *bere aserretasuna*: *bere* gainean erantsia, < *bere hasserretasuna* (GGero 301).
- 23-68 *zoro-zoroari* < *erho-erhoari* (GGero 301).
- 23-71 *adimentua galduric dagoanari* < *adimendutic iaucia dagoenari* (GGero 302); ik. 23-65/66. oh.
- 23-72 *polito berba eguitea* < *çuhurtciatz mintçatcea* (GGero 302).
- 23-77 *Contrara bai* < *Aiticitic* (GGero 302); lehenengoz, ohiko *lenago bai*-ren ordezt (ik. § 5.3.4).

emon gura badozu, ez bereala lenengo egunean equin: ichozu, larga eguizu, baldin gura bozu colpe segurua emon, pusca bat otziterera, alcar batutera ta bat eguitera. Medicuac bere ezteutso gaissoari, gorarengo puntuan dagoanean, ecinbestez baño purgaric emoten.

- 85 <227> Onegaiti, bada, ondo da onelacoetan Livio filosofoac emon eban adibidea artutea: aserre danean, apur bat icharotea, pisca baten ecer eguin baga igaro, larga ta ichitea. Cerren, Stacio poeteac diñon leguez, porfiac, tema, aserreac eztau gauzaric ondo eguiten, guztia asten dau donguero, ta acabetan dau deungago. Larga bear da, bada, pisca bat oztú ta igaroten.
- 90 Bada, au da aserrea amatetaco irugarren erremedioa, ac dirauan artean ez ecer eguitea, ez esatea, ez aurreratutea; ta gueldi ta issilic egotea.

-
- 23-81 *equin*: aurrean *eguín*, ezabatua, < *equin* (GGero 302).
larga eguizu < *utzquitçu* (GGero 302).
- 23-82/83 *alcar batutera ta bat eguitera*: Axularrek alderantzizko ideia ematen du: *unhatcera eta elcarren bippiltcera* (GGero 302), hots, Villasantek (1976: 340) itzuli bezala, “que se cansen y se desplumen mutuamente”.
- 23-83 *gaissoari* < *eritasunari* (GGero 302).
gorarengo puntuan < *goren pontuan* (GGero 302). *gorarengo*: ez dut inon beste lekukotasunik aurkitu, baina cf. *barrurengo* (53-42), *guerorengo* (ik. 23-37. oh.), *ondorengo* (0-75, 1-19, etab.) eta *atzereng*o (18-24, 43-43, etab.) kideak, azkena *aurreng*o-rekin batean bizkaierazko tradizioan aski ezaguna (cf. *OEH*, s.vv. *atzeren* eta *aurreren*), *aurreng*o (0-81, 0-112, etab.) eta, noski, *urreng*o-ren aldean. Gure *gorareng*o honen oinarriak sortzen du zalantza, ez ote den analogikoa. Edonola ere, kontuan har bedi *goien* (edo aldaerak: *goen*, *guen*) itxarongo genukeela garai honetako Hegoaldeko testu batean, eta ez ia bakarrik Iparraldekoa den *goren* (cf. *OEH*, s.vv., eta bertan *goiena* < *gorena* 11-116, baina *goienengo* < *goren* 54-89).
- 23-87 *igaro, larga ta ichitea* < *iragaitera utzte*a (GGero 302).
- 23-87/88 *porfiac, tema, aserreac* < *lehiac, colerac* (GGero 302-303).

24. BURUA

*Aserrea amatetaco laugarren erremedioa da gogoratutea,
arerioác eguiten deuscuezan bidebagueac
Jangoicoaren castiguac direala.*

5 1 §.

Laugarren erremedioa, osacaia, bitartecoa colera ta enquina, gorrotoa, icusi ecina ta aserrea atsemon ta amatetaco, ta arerioac eguiten deusun bidebaguea, laburtasuna, iraina ta ofensa sufritu, irunsi ta eroateco, da gogoratutea Jangoicoaren ordenamentua ta baimenac direala, ta bere escutic datozala arerioac eguiten deusuzan atsecabeac, gachac, naibagueac: berac laquetu ta permititu dituala aren purgac. Onegaiti gure Salbaguilleac esan eutsan bere eriotza aurrean San Pedrori: Eztozu gura neure Aitac emon deustan caliza edan daidan? Eriotzea artu daidan? Ac aguindu ta ordenatu dituan neque-penac sufritu daizadan?

15 Jangoicoaren ordenamentu oni beguiratuten eutsan David erregue santuác, madaricaciñoac ta biraoc egozten eutseezanean; ta alan, esan eutsan

24-6 *enquina*: cf. VB (b.) “rencor” (< HH-ko Erans).

24-8/9 *gogoratutea*: ondoan *dala*, ezabatua.

24-9 *Jangoicoaren ordenamentua ta baimenac direala*: ta gainean erantsia; cf. ...*da Iaincoaren ordenamenduaren consideratcea* (GGero 303). Añibarrok aurreratzen du Axularrek ondoko lerroetan azalduko duen ideia.

24-10/11 *berac laquetu ta permititu dituala aren purgac* < *harc permititcen dituela, haren purgac direla* (GGero 303; koma nik ezarritakoa da).

24-12 *bere eriotza aurrean* < *heriotce errecibitceracoan* (GGero 303); -*tzerakoan* atzizkiaren itzulpenaz, ik. § 5.2.12.

24-14 *daizadan*: *daidazan* itxarongo genuke: cf. *daguidazan* (0-137), *daguizuzan* (11-106), *daizuzan* (30-23), etab.; *ditçadan*-ek (GGero 303) eragina?

24-16 *egozten eutseezanean*: inpersonalean, hurren *biraoagillea*, bakarra, aipatzen badu ere; baina Axularrek biraogile hura nor zen esana utzi zuen: *Semey ceritçan batec maradicinoac egozten cerautçanean* (GGero 303).

20 Abisairi, biraoguillea castigatu gura ebanean: Ichi eguiozu, madaricatu ta biraotu naguian Jangoicoaren aguinduaren erara. Bada, euquico ez leuca guizon biraoti orrec orrelaco atrebencia azartasunic, Jangoicoac laquetu ta es-cua emongo ezpaleutso; larga, bada, esan daian gura daben guztia, cumpli ta bete daian Jangoicoaren aguindua <228> ta naia.

25 Arerioac Jangoicoaren azoteac, zartac, cigorrac dira. Arerioac Jangoicoaren mandatariac, bidalduac, borreroac dira. Beraz, ezcara aen contra aserratu bear. Bada, ce erru dauco azoteac? Ce erru berduguac? Baldin persona batec austen badeutsu arri bateaz burua, arriac ce erru dauca? cegaiti joco dozu arria? Chacurrac eguin daroa ori, largaric presonea, arriari esetsitea.

30 Job santuari esan eutsenean aren ardiac, cameluac, abereac ta beste ondasunac quendu eutseezala lapúrrac, ez zan bapere aserretu, ez eta gorrotoric artu lapurren contra. Cergaiti ce bacequian lapurroc Jangoicoaren justiciaco mandatariac ta prebosteac ciriala; ta Jangoicoac alan laqueturic ostu eutseezala bere ardiac ta ganeraco ondasúnac. Eta alan, lapurren contu guichi eguinic, esan eban: Jaunac emon, Jaunác quendu, Jaunac gura izan daben leguez eguin da: izan bedi, bada, Jaunaren icena bedeincatua.

35 Dacusanean ume batec bere amaren escuan cigorra edo zartea, ta agaz jo gura dabela, gueiago beguiratuten deutso amari, cigorrari baño: bada ondo daqui, baldin amac nai ezpadau, ezteutsala cigorrac minic eguingo. Alan bada, guc bere arerioac ditugunean, ta aec calteac ta bidebagueac eguin edo eguin gura deuscuezanean, gueiago beguiratu bear deutsagu Jangoicoari ta aren misericordiari, arerioai baño. Bada arerioac, Jangoicoac laquetu edo 40 permititzen ezpadeutse, edo atzeratu gura baditu, ezteuscue calteric, min ez gachic eguingo. Ta onegaiti, gure Salbatzalleac esan eutsan Pilatosi: Etzen-duce nire ganean escuric, baldin ezpaletorzu an goitic.

Ceure arerioac bidebague asco eguiten deuntsue, ta bacusaz Jangoicoac bidebague oneec; baquiz ta, gura baleu, ez leuquizue orrelacoric eguingo;

24-20 *bada*: leh. *ba*; ik. 36-39. oh.

24-22 *azoteac, zartac, cigorrac* < *açoteac eta cigorrac* (GGero 304).

24-22/23 *Jangoicoaren mandatariac, bidalduac, borreroac* < *Iaincoaren iusticiaren muthilac eta borreroac* (GGero 304). *bidalduac*: aldaera honen agerraldi bakarra (cf. *VB biral-* edo *bidaldua* “legado, embajador”), gainerako guztietan erabiltzen duen *biral-* du-ren ordez (ik. 1-106/107, 5-50/51, 8-89, etab.).

24-27 *cameluac* = GGero 304.

24-29/30 *justiciaco mandatariac ta prebosteac* < *iusticiaren muthilac* (GGero 304); ik. § 5.1.1.8.

24-34 *cigorra edo zartea* < *cigorra* (GGero 305).

24-37/38 *eguin edo eguin gura*: gainean, *eguiten*-en ordez; cf. *eguiten edo eguin nahi derauz-* *quigutenean* (GGero 305).

24-42 *ezpaletorzu*: leh. *ezpalichazu*-edo, ezabatua; cf. *baldin eman ezpalitçaitçu* (GGero 305). *an goitic* < *han goititic* (GGero 305).

- 45 baña eztitu eragozten. Bada, San Agustinec diñoalez, ceure arerioac eguiten
deutsuezan injuria ta bidebagueacaz, edo gura dau Jangoicoac probatu, icu-
si ta esaminatu finac ta eguiazcoac direanez zure eguiteac ta merecimentuac,
edo zure pecatuac emen castigatu, beste munduan ez castigatzeagaiti; edo,
50 azquenez, <229> oneec pacienciaz ta gogo onez sufritu ta eroanic, sari andi
bat ceruan emoteco.

2 §.

- Arerioac, fortuna charrac ta munduco gora-berac dozuzanean, ta bide-
bagueac eta irainac eguiten deutsuezanean, orduan Jangoicoari beguiratu
bear deutzazu, azaz gomutatu, agaz consolatu; ta ceure artean pensatu, one-
55 ec guztioac Jangoicoac biralduten deutsuzala; eta nos eta mundu onetan deun-
guego igaroten dozun, aibat eta obeto joatzula beste munduraco, zu nor ba-
zara. Eta Jangoicoac uste baleu etzareala beretzat izango, alaco penaric ta
naibagueric ez leusquizula emongo: lenago bai, largaco cenduquez gura do-
zun guztia eguiten, ta ceure gustura biciten.

- 60 Medicuac esperanza guztia galduten dabenean, ichiten deutso gaissoari
nai dabena eguiten, jaten, edaten; ezteutso ecer eragozten, etsituric ta espe-
ranzabagueturic dacusala gaissoa. Baña, osatuco dalaco esperanza daucanean,
eragozten deutzazu gauza asco, gauza zalegarri asco quentzen deutzazu.
Onela gure Jangoicoac bere, dacusanean pecatari gaissoa salbatu ta osatuco
65 dala, eragozten deutzazu gauza asco, ezteutzazu laquetuten atseguiniac ta gustu
charrac; emoten deutzazu purgac ta naibagueac; gura dau euqui daizan are-
rioiac, ta oneec eguin daioezala bidebagueac. Ta au guztiau da señale ona.

-
- 24-45 *baña eztitu eragozten < debeca litçaque; ordea eztu debecatcen (GGero 305).*
24-48 *pecatuac: orain artean becatu eta becatari erabili ditu, baina hemendik aurrera aldae-
ra ahoskabea izango da nagusi, bestearen hondakinak geratzen badira ere (ik. beca-
tu 32-45, 33-57, 35-13, 35-40, 35-62, 38-82, 41-194, etab. eta becatari 46-217 edo
49-110, adib.). Aurretiaz, aldaketa iragartzen zuten zalantza zenbait jaso ditugu (ik.
14-79, 15-229 eta 19-178. oh.).*
24- 50 *emoteco: ohartu gura dau... probatu... castigatu... emoteco anakolutuari; Axularrek
honela dakar azkena: pagamendu handi bat, ceruco loria eman (GGero 306).*
24-55/56 *deunguego: ik. 14-23. oh.*
24-56/57 *zu nor bazara < cerori nor baçara (GGero 306).*
24-58 *largaco cenduquez < utz ciniçaqueyela (GGero 306); cf. cinduquez 'hark zu', baina
cen- edo cinduquedaz 'nik zu' (GB 31).*
24-61 *eguiten, jaten, edaten < nahi duenaren eguitera, nahi duen beçanbat, nahi duenetic
iatera eta edatera (GGero 306).*
etsituric: -turic hitz artean erantsirik dago; cf. ceren etsitu baitu (GGero 306).
24-62/63 *osatuco dalaco esperanza daucanean < duenean esperantiça sendatuco dela (GGero 306).*
24-63 *gauza asco < erdi gauçac (GGero 306).*
24-65/66 *ezteutzazu laquetuten atseguiniac ta gustu charrac < ezterautça bere placer guztia
complitera utzten (GGero 307).*
24-67 *daioezala: leh. daiozala.*

Bada, onetan aguri da eztabela Jangoicoac larga ta desamparatu pecataria, eztabela esperanza galdu.

70 Eta au da atseguin andia arerioac dituanentzat ta bidebagueac eroaten dituanentzat, jaquitea ta gogoratutea oneec guztioac direala Jangoicoaren purgac ta azoteac, ta guztiac bere oneraco. Eta alan, arerioaganic bai, baña Jangoicoaganic, adisquide guztien ganeco adisquideaganic datozanac leguez, gogo ta borondate onaz artu bear doguz. Alan gogoratu ta artuco baguenduz,
75 ez guintequez oi dogun leguez jasoco arerioen contra; ez guintequez orrela egosi, erre ta minduco gueure barruan.

 <230> Esango dozu etzarella, ez, aserraturen arerioaren contra, esan edo eguiten deusun injuriagaiti; ezteutsazula orregaiti gachic gura; bada, baquizula oneec guztioac Jangoicoac laquetu edo permititen dituala. Baña deunguerotzat daroazula, bere gogo ta borondate citel gaistoagaiti. Bada, zuc ari bideric emon бага ta bidebagueic eguin бага, orrez guztiaz, alan esetsi ta gach gura deusun. Onela diñozu, baña ez ondo. Bada, zuc ezteutsazu beguiratu bear arerioaren borondate gaistoari, ezpada ceure Jangoicoaren borondate borondatetsuari. Bada, aren borondate da, arerioac eguiten deusuzan gachacaz zuri on eguitea; eurocaz gura zaitu orain mindu emen, bestean ez castiguetaco.
80

 Llaga zauri gaisto bat burdiña goriaz jo бага ecin osatu danean, etzara jaguiten burriñaren contra, erretzen zaitualaco ta min eguiten deusulaco; etzara orren zoroa izango. Pacenciiaz daroazu, daquizulaco burdiña ori darabillan barberuaren intenciño ta borondate ona dala. Alan da, bada, zure Jangoicoaren gogoa ta borondate bere ona ta onera emona, zure arerioarena charra, deunguea ta oquerra bada bere. Beragaiti, Jangoicoaren borondateari beguiratu bear deusazu, ta ez arerioenari.
90

 Eta baldin au onela estimatu ta gogoratuten badogu bear dogun leguez,
95 erremedio andi bat idoroco dogu gueure barruan sosegatzeco, ta ez aserratuteco gueure arerioac eguiten deuscuzan calte, injuria ta gaistaqueriac gaiti.

24-70/71 *dituanentzat*: bi bider jarraian; cf. *dituenarentzat* (GGero 307) eta ik. § 5.1.1.7.

eroaten: aurrean *artuten*, ezabatua, < *errecibitcen* (GGero 307).

24-72/73 *arerioaganic bai, baña Jangoicoaganic*: ederto atera da Añibarro bigarren argitalpenaren segada honetatik: *Eta hala, eta* [sic] *etsaiaganic, baiña laincoaganic* (GGero 307) < *Eta hala, ez etsaiaganic* (Gero 307).

24-82 *deusun*: ez da batere ohikoa, *Bada-z* hasten den esaldian, Añibarrok aditzean *-n* jar-tzea (ik. § 4.4.5); cf. *Ceren... hala darraitçun eta gaitz nahi deratçun* (GGero 307).
ezteutsazu: leh. *eztozu*; cf. *eztuçu behatu behar ceure etsiaren vorondate gaixtora* (GGero 307-308).

24-83/84 *borondate borondatetsuari* < *vorondate vorondatetsura* (GGero 308); ik. § 5.5.2.

24-87 *burdiña*: baina berehala (24-88) *burriña*; cf. *VB burriña, burdiña* (b.) "hierro".

24-94 *bear dogun leguez*: eta eransten du Axularrek: *ceren hala baita eguia* (GGero 308).

25. BURUA

*Aserreari lecuric ez emoteco boscarren erremedioa da
gogoratutea celan dagoan zure arerioa aserre
danean.*

- 5 Aserrea, colera ta gorrotoa amatetaco, arerioaren contra ez ifinteco, ben-
ganzatic atzeratuteco erremedio ona da gogoratutea celan, ce moldez, ce
egoqueran dagoan zure arerioa aserraturic dagoanean, bengatu gura danean,
zugaiti donguero esaten dagoanean. Eta icusico dozu, aserrean dagoan are-
rio ori, celan dagoan itsuturic, zoraturic leguez, cenzun baga, adimenturic
10 campora urtenic. Baceunca ta bacencus ceure anaje bat burua galduric, co-
norte bague, zoraturic ta adimenturic camporaturic, ceuri ta bere buruari col-
peca eguin ta esaten dituala <231> burura jatorcazan eroqueria ta gaistaque-
riac, damuago izango cenduca ceure anajearen calteaz ta aren alan izateaz,

-
- 25-2 *Aserreari lecuric ez emoteco < Coleraren iraunguitceco (GGero 309). Oraindaino hitzez hitzeko itzulpena egin izan du sorta honetako izenburuetan, eta hartara itzuliko da ondokoetan ere.*
- 25-6/7 *ce egoqueran < cer estatutan (GGero 309).*
- 25-8 *Eta icusico dozu: Axularrek, parentesi artean, honako hau gaineratzen dio: lehen ere aditcera eman den beçala (GGero 309).*
- 25-10 *campora: aurean urt] (urtenic?), ezabatua; cf. adimenturic campoan dela (GGero 309).
Baceunca ta bacencus: cf. baldin bacendu anaia bat erhoa... (GGero 309).
anaje: leh. anaja; ik. 20-116. oh.*
- 25-11 *adimenturic camporaturic < adimenturic iaucia (GGero 309); ik. 23-65/66. oh.*
- 25-11/12 *ceuri ta bere buruari colpeca eguin: colpeca gainean erantsia; cf. harc anhitz gaizqui eguin eta erran baliachaçu, eta bere buruari ere cenbait colpe gaixto eman baliacho (GGero 309).*
- 25-12 *dituala: gainean, deutzaza] hasiera izan behar zuen, baina orrialde aldaketan osatu gabe geratu den adizkiaren ordez (deutzazala?).*
- 25-13 *damuago izango cenduca < damuago baitcenducque (GGero 309).
ta aren alan izateaz = GGero 309; ik. § 5.2.2.*

15 zuri esan ta eguiten deitsuzan bidebague ta injuriaz baño. Onela bada, bear dozu euqui damu gueiago zure arerioac coleran suturic ta itsuturic bere buruari eguiten deitsan calteaz, zuri eguiten deitsunaz baño.

20 Ume batec, edo calentura sucarrean beroturic dagoan batec, edocein gauza esan arren, etzara bapere gogaituten, ez ceure sosegua galduten. Bada, baquizu ta dazauzu eztaquiala cer diñoan, ez cer eguiten daben. [Alan, bada, 20 coleran dagoanac bere eztaqui cer diñoan, ez cer eguiten daben.] Eta orregaiti, onelacoac gaiti escatu eutsan Jesu Cristoc bere Aitari, cirautsala: Aita, parcatu eiezu, bada eztaquie cer eguiten daben. Coleran dagoanagaiti pensatu eguizu, diño San Crisostomoc, eztagoala beragan, eztala bere buruaren jabe, buru-cala daucala; ta baldin alan pensetan badozu, erraz eroango dozuz 25 eguiten deitsuzan ofensac.

30 Persona aserrean sartuac ta sutuac eztatza bere burua, eztatcus iñor, eztanzu ecer, itsuturic dago, eztaqui cer diñoan, ez cer darabillan. Eta itsua jaustea, or-emen jo ta estropezu eguitea, ezta mirarituteco; ezta orregaitic bat aserratu bear, mindu bear. Eta aserratuco bazara, ceure buruaren contra aserra zaite, ta ez itsuaren contra, ta ez coleran sarturic dagoanaren contra. Bada, zu zagoz arguituric, ta bestea itsu; zu zur zoli, ta á zoro eroturic, zu ceure cenzonean ta adimentuan, ta á andic campora ateraric. Alan bada, sufritu begui zur cenrundunac eroa, arguituac itsutua, ta aserre eztagoanac aserre dana. Beragaiti, erremedio ona da arerioari parcatuteco, sufrituteco, aren 35 esan-eguiteai ez jaramoteco, consideratutea celan ta ce modutan dagoan coleran dirauan artean.

25-19/20 [Alan, bada... ez cer eguiten daben]: berdinetik berdinerako jauzia: ...eta ez cer hari diren. Hala bada, coleran dagoenac ere, eztaqui cer mintço den, eta ez cer hari den (GGero 310). Ulerpena errazteko egindako eransketa da, noski, eta Añibarroren idazkera errespetatuaz; estiloa gordetzea ezinezkoa izan da, berriz, berak ziurrenik aurreko esaldiaren osagaiak errepikatu baino, aldatu nahiago baitzukeen (ik. § 5.5.1).

cer eguiten daben: eta ondoan eransten du Axularrek: *Ceren coleran baitaude* (GGero 310). Ohargarria da Añibarrok *Coleran dagoanagaiti* jarri duela hurrengo esaldiaren buruan (25-22), alde batera utzitakoaren antzera, Axularrenean *eztagoala beragan*, eta abarren subjektua, berak ez jasoa, *gaizqui erraiten hari dena* (*ibid.*) den bitartean.

25-24 *buru-cala daucala < adimentutic campoan dela* (GGero 310).

25-28/29 *ezta orregaitic bat aserratu bear < etçara hargatic hasserretu behar* (GGero 310). Hemendik aurrera, zehazgabetasuna adierazten duen *bat* hau nahiko sarri aurkituko dugu (ik. adib. 27-20, 38-10 edo 40-60). Ik. § 5.1.1.6.

25-33/34 *aserre eztagoanac aserre dana < coleraric eztauenac coleran dagoena* (GGero 311); ik. §§ 5.1.3.8 eta 5.5.1.

26. BURUA

Aserrea amatetaco seigarren erremedio[a] da ez jaquin gura izatea cer diñoen gugaiti gentéac.

5 Baquean, soseguan ta aserratu bague egoteco, ezta bide gaistoa gugaiti <232> genteac cer diñoaren billa ta itanduten ez ibiltea. Senecac diño: ezta on, ezta conveni guztia jaquitea, icustea eta enzutea; igaro bitez gauza asco guc jaquin baga; bada, eztaquienac eztau damuric artzen. Gura badozu sosegu ta epetasun onean, ta aserratu baga egon, ez gueiegui itandu, ez gueiegui aracatu ta billatu. Billa dabillanac idoroco dau; ta batean ezpada bestean, bere burua eguitecotan sartuco dau, arduraren baten ifinico dau.

10 Ezta on barrendari izatea; ezta on celataca egotea, ez eta eguiten dirian gauza guztiac jaquin gura izatea. Ascotan ecarten deuscuez contu barriac, esa-mesac, urliac au diñoala, urliceac bestea diñoala, onelacoac ta alacoac esan direala; ta gueu bere gogoz gagoz enzuten. Baña guero, jaquin dogunetan, idoroten dogu gura eztoguna; ta andic gatoz jaustera aserrean; coleratu ta minduten gara. Emendic gatoz gauza asco eguin bear izatera, osotuteco gueure onrea, eguin bearrac etzirianac, alaco gauzac enzun ezpagueunduz. Eta alan, obe da gauza asco ez jaquitea. Eta daquigunean bere, ondo da issilic igarotea, ezpagenquiz leguez egotea; ez jabetutea esanaz, ez-icusi eguitea, ez jaramotea, issilic igarotea, gueure barruan egostea camporatu baga.

26-5 *cer diñoaren billa*: ez da oso irtenbide ortodoxoa, baina nahita urrundu da Axularrek eskaintzen zion eredu sintaktiko arruntetik: *gutçaz iendec cer erraiten duten ez bilhatcea eta ez galdeguitea* (GGero 311).

26-11 *Ezta on barrendari izatea* = GGero 311.

26-12 *contu barriac < elha-berriac* (GGero 312).

26-13/14 *urliac... urliceac...*, *onelacoac ta alacoac esan direala*: cf. *ençuten dugu cer dioten urliac eta sandiac, hunelacoc eta halacoc* (GGero 312). *urliceac*: cf. VB “fulano: c. *urlia*; zutano: b. *urlicia*; g. *sandia, berendia*”.

26-20 *igarotea*: jat. *igarotean* (arg. zuz.); dena dela, *issilic igarotea* birritan dago Añibarren zerrendaketan; cf. *on da dissimulatcea, ez iaquin iduri eguitea, ez iabetcea, ez bere gainera hartcea, edo desencusatcea* (GGero 312).

Erregue Saulgaiti erreguetu barrian deunguero berba eguiten eben gente batzuc; ta ori ain ur ta arguiro, ce erregue berac enzuten cituan. Baña burua beste aldera biurtu ta disimulatu eban, enzun-gor eguinic. Ta andic biztu al citequean su guztia amatau eban. Egun baten Arquelao erregueari, calean
 25 igaroten zala, bota eutsen ura burutic bera: e[z]taquigu ala berariaz, ala us-
 tecabez zan. Baña bere laguntzan joiazanac asi cirian esaten, ori zala azarta-
 sun andia, atrebencia ta lotsabaguetasun ezaina; ta, baldin castiguetan ezpa-
 zan, urrengoan beste orrembeste eguingo ebeela. Baña bertati erregueac
 30 sosega cituen, esanic: Zagoce baquean ta gueldi; ezta ecer eguin. Ur au bota
 dabenac ez nau ni busti, ez equialaco ni nintzala. Ez eban bere ganera artu,
 ta onela obeto ta errazago erremediatu zan ta amatau zan biztutera <233>
 joian sua.

Vespasiano emperadoreac ain condiciño ona ta onera emona eucan, ce gura ez eban leguez edo personari ez egocan leguez, iñoc deunguero berba
 35 eguiten ebanean, disimuletan eban, edo berba joculariz, chanchaz, irri-barre
 solasezcoz edertuten eban; ta onela, berari egoquion onregaz gueldituten
 zan, ecer galdu bague. Alan erregue Antigono bere idoro zan egun baten be-
 ragaiti deunguero berba eguiten eben gente pilo baten ondoan; ta esan eu-
 tseen: Zoace urrinago, erregueac enzun eztaizuen. Beragaiti ta bere contra
 40 berba eguiten egozan, ta berac aparta citecela esan eutseen; ta andic bera ala-
 batua ta bestéac lotsatuac guelditu cirian.

Jaquin ezquero, enzun ezquero, beragan artu ezquero, gach da aserratu bague, sutu bague, benganzara abiatu bague, colperic eguin bague, edo au-
 citan edo erriertan sartu bague guelditzea. Ce erremedio, bada, ce bide, ce
 45 bitarteco gach guzti oneetatic igues eguiteco? Ez ecer itandu, ez billatu, ez
 jaquin gura izan; ta jaquiten danean bere, egon ezpalequi leguez, ez jabetu
 esan danaz beragaiti, ez beragan artu; ta eguin bere burua itsu, gor, mutu. Au
 da erremedioa aserreric ez erneteco, erriertatic ez biztuteco, bestegaz en-
 contru charric ez euquiteco, ta biciteco baquean, pocic, consolaturic, biotze-
 50 co erretasun bague.

26-32 *joian*: jat. *joaian* (arg. zuz.); cf. *joian* (0-109, 10-91, edo *joianean* 0-99/100, *joiala* 7-60, 9-65/66, etab.)
 26-35 *berba joculariz, chanchaz* < *hitz ioculariz eta dostailuz* (GGero 313).
 26-35/36 *irri-barre solasezcoz* < *cenbait irri eguiteco solhasez* (GGero 313).
 26-38 *gente pilo baten ondoan* < *compaiñia batetan* (GGero 313).
 26-39 *enzun eztaizuen*: leh. *enzungo ezteutsuen*, < *adi etçaitçaten* (GGero 313).
 26-46/47 *ez jabetu esan danaz beragaiti* < *ez eguitecoari tabe* (GGero 314).
 26-48 *erriertatic*: jat. *erriartatic* (arg. zuz.).

27. BURUA

Aserrea amatetaco beste erremedio batzuc, laburrago ifiniac.

1 §.

5 Sufrirentua ta paciencia euquiteco, bata besteaz ez aserratuteco ta ba-
quean biciteco, consideratu daigun, Adanen seme guztioç, batez bere cristi-
ñauc, bat gareala, ta gorputz onen burua Jesu Cristo gure Salbaguillea dala.
Alan diño San Pabloc: Gorputz bat gara guztioç Jesu Cristogan, <234> ta
10 bata bestearen zatia. Bada onela, alcar maite izan bear dogu, gorputzeco za-
tiac alcar ondo artu, alcartu ta maitetuten direan leguez.

 Gorputzeco zatietan ez da embidiaric, icusi ecinic, benganzaric. Oñac
serbituten dau escua, ta escuac oña. Oñac beaztopa edo estropezua [egui-
na]gaiti, ezteutso escuac colperic emoten. Aguiñac miña useguiteagaiti, noc
agaiti ateretan ditu aguinac? Beguiac lecu goragoan dagoz oñac baño; baña,
15 orrez guztiaz, beguiac maite ditue oñac, eztitue desprecietan: al daien guztian

27-5 *Sufrirentua ta paciencia < Pairu eta pacientia (GGero 314). Sufrirentua: jat. Su-
frimientua (arg. zuz.): bi bokalak elkarren ondo-ondoan daude, baina batak bestea
estaltzera iritsi gabe; cf. sufrimenturic < pairuric (21-49).*

27-9 *bata bestearen zatia < bata bertcearen miembro eta parte (GGero 315).*

27-10 *alcar... maitetuten direan leguez < elccar onhesten duten beçala (GGero 315); berbera
gertatzen da beheraxeago (27-16/17, 27-22); ik. § 5.1.2.6.*

27-12/13 *Oñac beaztopa edo estropezua [eguina]gaiti < behaztopatuagatic (GGero 315); es-
tropezua-n lerroa bukatzen denez, oso erraz ahantz zezakeen aditza.*

27-13 *useguiteagaiti < ausiquitcen dutenean (GGero 315); cf. VB utseguin, useguin (b.)
“morder”. Ohartu kausazko edo helburuzkoa izan ohi den -teagaiti dakarrela, ez
useginagaiti kontzesiboa, gainerakoan bi egiturak zein bere aldetik ongi erabiltzen
badaki ere (cf. euquiagaiti 27-23 edo izanagaiti 28-99, adib., eta Ciarrusta 1991:
137, 145 eta 153).*

27-15 *ditue: jat. dituen (arg. zuz.); cf. beguieç ecertan dadutçate oñac, eztimatceintuzte
(GGero 315).*

alcarri lagunduten deutsee; eta, baldin alcar ondo artuco ezpadira, euren caltera etorrigo liteque. Beguiac arguituten ezpadituez oñac, oñac estropezuaz minduco dira, ta beguiac negartu.

20 Sabelac jaten ezpadau, zancóac argalduco dira; eta bai sabela bera bere chimurtu. Ez laguntzeaz, ez compondu, ez ondo artuteaz batec bere buruari calte eguiten deutso. Eta beragaiti, au icusiric, gorputzeco cenzun ta zati guztiac alcar ondo artu, lagundu ta maitetuten dira. Eta batac edo besteac uts eguiteren bat euquiagaiti, alcarri parcatu, sufrituten deusé. Onela guc bere, bada, alcarri sufritu ta parcatu bear deusagu; ta amorea euqui ta eracusi; ga-
25 realaco gorputz bateco zatiac ta parteac.

2 §.

30 Baita aserre ta gorrotoa oztuteco on da escu-lan bat eguitea, bearrari eguitea; beste gauza baten pensetea, ta gogoa aldatu ta zabaltzea. Alan eguin eroiala diño, Climas cerichon batec. Coleraren gaissotasunaz ucaturic asmetan zanean, aldatuten zan beste eguitecoetara; asten zan canta-soñuca; ta onela, bere gacha ta aserrea aztuten jacazan; ta soseguan guelditu.

35 Bai ta erremedio ona da aserrea atzeratuteco, gogoratutea ceu bere uts eguite ascotan jausten zareala; ta orregaiti eztozula ceure buruaren contra emoten. Erremedio au gogoan eucan Senecac, esan ebanean: Egon diteque aserratu bague injuria ta bidebagueac artzen dituana, baldin ordu berean badirautso issilic bere artean bere buruari: Nic bere eguin dot nosbait beste onembeste. San Gregorioc diño: Ura suaz <235> amatetan dan leguez, alan

- 27-16/17 *baldin alcar ondo artuco ezpadira, euren caltera etorrigo liteque < baldin eguiten ezpaçaitça, bere caltetan faltatcen dute (GGero 315). Añibaroren esaldian ez dago egokitasunik baldintzaren aurrekariaren eta ondokoaren artean, jatorrizkoaren denbora eta aspektua aldatu duten bi aldaketa hauen kariaz: artuco: leh. artuten, eta etorrigo liteque: aurrean dator, ezabatua.*
- 27-17/18 *oñac estropezuaz minduco dira, ta beguiac negartu < oiñac behaztopatuco dira, eta beguiac iracico (GGero 315); irazi ziurrenik 'iragazi' adieran baino ez zuen ezagutzen (cf. OEH, s.v., eta ik. 47-139. oh.).*
- 27-19 *zancóac < çangoac (GGero 315); cf. VB "pierna: c. bernea, zancoa, caderea".*
- 27-20 *chimurtu < ihartu (GGero 315).*
- 27-22 *alcar ondo artu, lagundu ta maitetuten dira < elccar daducate, elccarri laguntcen çaitça, elccar onhesten dute (GGero 315); ik. § 5.1.2.6.*
- 27-27 *on da = GGero 316; leh. ona da, eta aurrean ondo d] (ondo da ala ondo dago?), ezabatua.*
- 27-28/29 *eguin eroiala: ik. § 4.3.10.6.*
- 27-30 *beste eguitecoetara < bertce eguitecotara (GGero 316); ik. § 5.1.1.4.*
- 27-31 *ta soseguan guelditu < eta sosegatua guelditcen cela (GGero 316).*
- 27-36 *bere artean bere buruari < bere baithan bere buruari (GGero 316); ik. § 5.3.4.*
- 27-37 *Ura suaz amatetan dan leguez: ideia harrigarri hau Axularren testukoa da: Ura suaz iraunguicden den beçala (GGero 316). Latinez Quasi aqua ignis extinguitur dio, behar bezala. Villasanteri ere (1976: 356-357) itzuri zaio Axularren huts nabari hau, bai testuan, baita itzulpenean ere.*

gorroto ta aserrea, bacochar bere utseguiteac gogoratuaz. Bada, lotsatuten da, edo lotsatu bear liteque, besteri ez parcatuteaz, berac parcaquizun edo
 40 parcabear gueiago edo aimbeste dabenac. Ezta zurtasuna, faltetan jausten danac faltetan uts eguiten dabena estutu ta castiguetea. Cerren, bestela, berac bere bere burua gorrotatu ta castigatu bearco leuca.

3 §.

Bai ta aserrea ta gorrotoa quenduteco on da adisqueide bat, Mecenas bat
 45 alboan euquitea. Ac, iluntzera ta jaustera zoazanean, aserrear itsuturic zoraqueriaren bat eguitera zaroazanean, soñecotic tiratu leizu, abisatu cifei, esan leizu jausteric gorde zaitezala. Guizon bat joian bein gogo ta asmo guztiaz prestaturic beste bat iltera; ta, icusiric bere adisqueide batec celan joian, itandu eutsan: Nora zoaz orrela armaturic? Eranzun eutsan: Urlia iltera. Eta, cer
 50 izango da baldin ac zu ilten bazaitu? Ez nintzan orrezaz gomutatu. Adisqueideac onela atzeratu ta biurtu erazo eutsan.

Ascotan eguin eutsan oficio au Cesar Augusto emperadoreari Mecenas bere adisqueideac. Eta guztiz bere egun baten aguintari onec coleran itsuturic emon eban sententia gaisto bat, ta bere aguinduz gente andia eroien galdu-
 55 tera; orduan Mecenas bere adisqueideac escribidu eutsan, ta biraldu eutsan cartea escutic escura, bera gente artean urrin egoala, ta bacarric cirautsazan berba laburroc: *surge carnifex*: jagui zaite carnicerua, icusi eguizu cer eguiten dozun berdugu orrec. Emperadoreac, artu ebanean a carta ain laburra ta ain zucena, noc eguina zan, icenic ezpaceucan bere, ezagutu eban bere adisqueidearen letrea ta escua. Artu eban parte onera, ta bertati, bere falta ezaguturic, aserrear eraguin eutsala icusiric, parcatu eutseen guztiai.

Asco balio dau adisqueide leial on bat bere alboan euquitea, ac eguiac

- 27-39/40 *parcaquizun edo parcabear* < *barccaquiçun* (GGero 317).
 27-40 *dabenac*: ohartu *berac*... *dabenac* egitura bitxiari; cf. *berac barccaquiçun guehiago edo hainbertce duenean* (GGero 317).
 27-41 *faltetan uts eguiten dabena*: perpau bitxia, errepikapena saihestu nahiz sortua (ik. § 5.5.1); *faltetan erortcen denac, faltetan erortcen denaren gaitzestea* (GGero 317). *estutu ta castiguetea* < *gaitz estea eta gaitzigatzea* (GGero 317); *estea* bakarrik kontuan hartu duela dirudi; cf., *ostera, gorrotatu ta castigatu* (27-42) < *gaitcetsi eta gaitzigatu*.
 27-45 *iluntzera ta jaustera zoazanean* < *limburtcera çohacinean* (GGero 317).
 27-52 *Mecenas*: *aurrean be*] (*bere?*), ezabatua; cf. *Mecenas bere adisqueideac* (GGero 317); ik. § 5.1.1.2.
 27-54 *gente andia* = GGero 318.
 27-55 *Mecenas*: *aurrean bere*, ezabatua; ik. 27-52. oh.
 27-58 *berdugu orrec*: *aurrean borr*] (*borreru?*), ezabatua, < *borreroa* (GGero 318).
 27-59 *zan*: *aurrean eban*, ezabatua; cf. *norc eguina cen* (GGero 318).
 27-62 *Asco balio dau... euquitea* < *Anhitz valio du adisqueide leyal baten bere compainian içaiteac* (GGero 318). Gaur okertzat joko bagenuke ere, cf. *Zer balio dau esatea...?* (LoraS 136, ap. OEH, BALIO IZAN, s.v. *balio*); bertan aurki daitezke antzerako adibideak are Duvoisinengan ere, adibidez.

65 esan daiozan; ta ecer esan baga bere, uconduaz ucutu ta beguiaz queñu <236> eguin daguion. Bada, batzuetan gueiago eguiten dau quiñu siñu batec, miñac baño. Gauza bat eguitera zoazanean, eta ceure adisqueideac dirautsunean eztaguizula eguin bear ezpada, atzera zaite a eguiteric. Bada, orduan obeto dacus zure adisqueideac zuc baño; bada, zu zagoz atara erabaguiric, pasiñoturic, itsuturic, ta eztozu dan guztia icusten. Baña zure adisqueideac eztauco pasiñoric, argui ditu beguiac, ta dacus dan leguez ta bear dan leguez.

70 Ez jat eguño neure adisqueidearen abisuaren contra eguin dodan gauzaric ondo jazo. Medicuac bere, munduco onena bada bere, gaissoric dagoanean beste medicuen escuetan ichiten dau bere burua; bestez baliatu ta gobernetan da, bere buruaz fiatu bague. Coleran dagoan bat, gaissoric dago. Bada, osatu gura badau, beguiratu ta obeditu beguio bere adisqueideari; goberna
75 bedi aren consejuz, adibidez ta abisuz; bada, atan idoroco dau ona, ta ez bestela.

Azquenez, da erremedio ona ez aserratuteco ta aserreac dirauscun gauzaric ez eguitemo, gogoratutea eta gueure artean pensetea ce gauza ona, gozoa ta baliotsua dan ez disputan sartzea, ez benganzaren billa ibiltea ta baquean egotea. Ce neque da arerioari parcatutea? Ez bapere, diño San Juan Crisostomoc: bada, ezta orretaraco ichasoric igaro bearric, ez bide luceric ibilli, ez mendi ganera igon, ez diruric gastatu, ez gorputza zatitu, ez beste nequeric bear, ezpada gura izate bat, borondatezco nai bat, ta ez besteric. Baña lan andia ta pena nequegarri latz garratz mina da ez parcatutea, ea non-

-
- 27-63 *uconduaz < ucondoaz (GGero 318), eta cf. VB “codo: c. ucondoa; g. ucalondoa”*. Ez du Añibarrok *oa > ua*-rik egin ohi (cf. 15-17. oh.).
- 27-64 *siñu*: gainean erantsia; cf. *guehiago eguiten du kheinuac (GGero 318)*.
- 27-66 *eztaguizula eguin bear ezpada, atzera zaite a eguiteric*: cf. *ceure adisqueideac eztaguizula erraiten deratçunean, ez albaitcenegui, guibela albaitcindeci (GGero 318)*, hots, “no la hagas, si es que puedes excusarte de hacerla”, Villasanteren (1976: 358) itzulpenaren arabera. Baina ez da erraza, bistan denez.
- 27-67 *erabaguiric*: jat. *erabagaric* (arg. zuz.); cf. *çu nola baitçau de deliberatua (GGero 318)*.
- 27-70/71 *Ez jat eguño... ondo jazo < Etçait egundaiño... ongui guertatu (GGero 318)*.
- 27-72/73 *gobernetan da: da* gainean erantsia; *gobernetan*-en aurrean *baliatzen da*, ezabatua; cf. *bertceren avisuz eta ordenantçaz midicinatcen eta errecaitatcen da (GGero 319)*.
- 27-73 *bere buruaz fiatu bague*: Añibarroren eransketa.
- 27-74 *beguiratu*: ondoan *beg*] (*beguio?*), ezabatua; cf. *beha bequio bere adisqueideari (GGero 319)*.
- 27-75 *idoroco dau ona < edirenen da ongui (GGero 319)*. *on* eta *ondo*-ren artean erabaki ezinik dabil sarri Añibarro, hain dira eta ezberdinak Axular eta bien ohiturak (ik. § 5.3.4).
- 27-79 *disputan sartzea*: aurrean *eran*] (*erantzutea?*), ezabatua, < *ez iharduquitcea (GGero 319)*.
- 27-81 *ezta*: leh. *eztago*; cf. *Ceren ezta hartaracotçat (GGero 319)*.

- 85 dic eta celan bengauco dan beti asmetan ibiltea. Eta ezpabere, gogoratu egui-
zu ta gomuta zaite araco alcar icusi ecinic, aserraturic, arerioturic ta benga-
tu ecinic ibilli zarean demporaz; eta guero baquean, areriotasun bague egon
zarean edo zagozanaz; ta icusico dozu ce diferencia dan bien artean, ceimbat
90 doian bataganic bestera. Icusico dozu len aldi ascotan laguntza batzuetaric
alderatu bear cenduala, an cegoalaco zure arerioa. Bai ta icusico dozu len
cengozala guerran eta orain, bictoria irabaciric, baquean. Bada, San Crisostomoc
diñoan leguez, areriotasuneco bitoria <237> eztago benguetean, ez
orde quitua biurtzean ta bibidertutean, ezpada parcatutean ta injuriac biotz
onez sufrietean. Bada, orduan zure arerioa, ceure burua ta deabruac goiartu-
95 ten dozuz; eta arimea ta gorputza bere baquean, soseguan, seguruan ifinten
dozuz. Eta au da erremedio, bitarte ta bide ona, andia ta alabagarria, ceimbat
lasterren, guerora beguira egon бага, areriotasuna larguetaco, baquean bici-
teco ta ez aserratuteco.

-
- 27-88 *zarean*: jat. *zareanean*, leh. *zarean edo*; *edo* berariaz estali du zuzenketa egiteko, eta
berriz urrunago idatzi; halaz ere, zuzenkizun iritzi diot. Nahaste guztia Axularren
esaldiaren hasierako aditzak aldatzetik dator: *Eta ezpere comparaitçatçu eta co-
munzta elccarrequin...* (GGero 320); dena ondo zihoan, baina bukaeran *baquean*
egon çarena, *edo çaudena* aurkitu eta nolabait gorde nahi.
zagozanaz: leh. *zagozanez*; ik. § 5.1.1.10.
- 27-89 *bataganic bestera* < *batetic bertcera* (GGero 320); ik. § 5.1.1.3. *bestera*: aurrean *ta*,
ezabatua.
- 27-90 *alderatu* < *aldaratu* (GGero 320); cf. *OEH*, s.v. *alderatu* II.
- 27-93 *orde quitua*: leh. *ordea*, < *ordaiñaren* (GGero 320).
ta bibidertutean: cf. *ez ordaiñaren bihurtcean edo doblearen* (GGero 320).
- 27-96/97 *ceimbat lasterren*: aurrean *eta*, ezabatua, < *eta lehen baiño lehen*.

28. BURUA

Lenengo errazoia arerioari parcatu ta maite izateco da Jangoicoac aguinduten dabelaco.

1 §.

5 Esan dogu ceimbat calte eguiten daben benguetaco deseo charrac; ta andic sortu, erne ta jaioten direan gorrotóac. Bai ta ifini doguz osagarriac, erre-
medioac, sendagaiac ta gogarteac ez aserratuteco, ez benguetaco, aserretasunean ez irauteco ta colera amatetaco. Bada, orain jaquin ta gogoratu bear
10 da onen ganean gauzaric bearrena: ea celan bear garean gueure arerioaz go-
bernatu, ea bear dogunez arerioa amatu ala gorrotatu. Eta, baldin amatu bear
badogu, ea cegaiti, ce bidez, ce aguinduz au alan eguin bear dogun.

15 Lenago, Legue zarrean, leguea deunguero adituric, ez euqueen pecatutzat arerioa gorroto izatea. Bada, celan legueac aguinduten eban adisquideac maite izatea, ta ez eban ecer esaten arerioac gaiti, ez conturic artuten onen ganean, andic ateretan eben ez egoala arerio[a]c amatu bearric. Baña Cerutic lurrera jatsi zanean Jangoicoaren Semea, eracusi eban cer eguin bear zan onetan, ciñoala: Adisquideac maitetuteaz ce irabaci ta ce esquer, merecimentu ta sari uste dozue izango dozuela? Gentil fedebagueac, Jangoicoric ezagututen eztabenac ta gente gaistóac bere ori eguin daroe; oneec bere maite ditue euren adisquidac ta onguillac.

20 Arerioac, arerioac amatu bear dozuez; donguero eguiten deutsuenai on eguin bear deutsezue. Ceimbat eta gueiago deungago aec zuei eranzuten

28-2 *arerioari parcatu ta: -ri parcatu ta ganean erantsia; cf. Cergatic behar diogun gueure etsaiari barccatu eta amorio eduqui (GGero 321).*

28-8 *ez irauteco: ez ganean erantsia, aserretasunean-en aurrean zegoena ezabatu eta gero. amatetaco: jat. ametetaco (arg. zuz.).*

28-22 *deutsezue: leh. deutzazue.*

28-22/23 *Ceimbat eta gueiago deungago... aimbat eta gueiago ondo... < Eta cenbatenez eta hec çuey gaizquiago, hanbatenez çuec hey onguiago (GGero 322).*

deutsuen, aimbat eta gueiago ondo eguiezue aei. On eguiñaz donguero egui-
 ña goiartu ta benzutu bear da. Au da Jesu Cristoc emoten deuscun leguea ta
 25 aguindu barria. Baña esango deustazue: Cegaiti on eguin bear deuségu
 deunguero eguiten deuscuenai? Cegaiti maite izan bear dogu <238> arerioa?
 Errazoi ascogaiti.

Lenengo errazoia, alde guztiz lenena, bearrena, ecez ecin esan guiñeien
 leguez escu ta oñez estu ta lotuten gaituana arerioac ametaco da, Jangoicoa-
 30 ren aguindua ta borondatea dalaco, alan guc eguitea. Nai dabenac gura da-
 bena esan begui; baña nic aguinduten deusuet zuei onetsi, maitetu, amatu
 daizuezala ceuroen arerioac, perseguillac, gaisquillac, diño Jesusec.

Pitagoras filosofo andiaren icasléac ez eben beste aguinduaren bearric,
 ez beste errazoiric gauza bat eguiteco, ezpada jaquitea euren nagusiac aguin-
 35 du eutseela. Nagusiac esan dau, nagusiac aguindu dau; bada, alanche eguin
 bear da. Au zan euren berba eguicunea. Eta guretzat, guc gueure arerioac
 maite izateco, ezta asco izango jaquitea Jangoicoac aguinduten dabela are-
 rioac amatzea?

Presona batec ofensa, bidebague bat eguiten deusunean, jazoten da bes-
 40 te batzuc bitartecotzat sartutea, baqueac eguiteco ta compontzeco. Lenengo
 jatortzu ceure lagun bat, ceure ideco bardin bat, ceure adisquide bat, ta ac di-
 rautsu: Baquit urliac injuriatu zaituana, baña damuturic, erruquituric dago,
 ondo dazau deunguero eguiña ta esana; eta alan, neure amoreagaiti parcatu
 bear deusazu, arren, adisquidetu, baquetu bear zara agaz. Onela dirautsu
 45 ceure adisquide lagunac. Baña zuc ari erraz esaten deusazu ezetz, gura ez-
 tozula; bitarteco ori ceure satisfaciñocoa dalaco, ucatuten lotsa etzarealaco,
 ceure bardiña dalaco.

-
- 28-23 *eguiezue: aurrean eguin be] (eguin bear?), ezabatua; Axularrek aditzik ez, ordea (cf. aurreko oh.).*
- 28-23/24 *On eguiñaz donguero eguiña < Onguiaz gaizquia (GGero 322).*
- 28-24 *benzutu: leh. v-.*
- 28-24/25 *Au da... Baña esango deustazue: Añibarroren eransketa.*
- 28-27 *Errazoi ascogaiti: Axular ez da hain erabatekoa: Dugun iaquin, dugun bilha cenbait arraçoïn (GGero 322).*
- 28-28 *Lenengo: aurreko lerroan Lenengo errazoia beartuten gaituana arerioa amatutera da, ezabatua. Orain dagoen bezala Axularrek dioenari jarraitzen dio: Lehenbico arraçoïna, alde guztiz lehenbicoa, ezetz ecin derraquegun beçala... (GGero 322).*
- 28-33 *beste aguinduaren bearric < bertce manuric behar (GGero 322); ik. § 5.1.1.4.*
- 28-34 *ez beste errazoiric: beste-ren aurrean er] (errazoiric?), ezabatua, < eta ez arraçoïnic (GGero 322-323).*
- 28-43 *neure amoreagaiti < ene amoreac gatic (GGero 323).*
- 28-46/47 *ceure satisfaciñocoa... ceure bardiña dalaco < ezpatçatçaitça ahalque, ezpaitaduçaçu ceure burua baino guehiagoren (GGero 323).*

50 Lagun adisquide bitarteco orren ondoan, ac ecer atera ez dabenean, ja-
tortzu andiago bat, beguirune, errespeto ta lotsa gueiago deutzazun andiqui
bat. Eta ez ain erraz cein lenagocoari, baña colera ta aserrean suturic zago-
zalaco, oni bere dirautsazu eztaizula orren ganean berba eguin, ez erregutu,
bada, sobra errea, sumindua ta guiarran ucutua zagozala aren contra. Az-
quenean jatortzu erreguea bera; ta onec bere alan bigundu ta beraatuten zaitu
55 parcatzera arerioari, ta zuc eztozu arpeguiric ucatuteco, lotsa zara ezetz esa-
tera ta zatoz bere esanera.

60 Bada orain, lurreco zati baten erregue bati, gaur bada, biar izango ezta-
nari, azartuten ezpazara ezetz esatera, mundu ta ceru guztico <239> Erre-
gueari, Jangoico berari, ce arpeguiaz eranzungo deutzazu ezetz, aguinduten
deutsunean maitetuteco ceure arerioa, ezteutsazula parcatu gura, eztozula
bere aguindua cumplitu nai?

2 §.

65 Esango dozu esan daroena arerioturic dagozanac edertuteco ta estaldu-
teco euren areriotasuna: Nic parquetan deutzat, ezteutsat gachic gura, ez or-
dea biurtu nai. Nic neuretzat gura dodan ona, gura deutzat Jangoicoac emon
daiola. Baña ezteutsat barbaric eguingo; eztot gura berac bere eguin daidan;
eztot beragaz traturic, ez laguntzaric euqui gura. Onela esaten dozu, baña ez-
taquit ondo diñozunez. Bada dirudi, onela alcarregaz berba eguiten eztabe-
nac, eztagozala borondate gaisto бага. Ezagunac dira euren berbetan, sola-
setan, eztabela alcarren amudioric, satisfaciñoric, ez bear dan maitetasunic.

70 Bada eurac dazaie, eurac dira testigu ta daquie ondo, cer igaroten dan
euren gogoan, borondatean, biotzean, ta alcarren alderaco dauqueen otzta-
suna. Eta, baldin ondo beguiratuten badabe, icusico dabe bauqueela an eu-

-
- 28-52 *sobra < sobera (GGero 323).*
guiarran ucutua < guiharran uquitua (GGero 323).
- 28-53 *bere alan:* Añibarrok gaizki ulertu du jatorrizko *bere hala (GGero 324)*, behingo ho-
netan baino ez bada ere; ik. § 5.3.4.
- 28-54 *parcatzera arerioari:* Añibarroren eransketa.
- 28-57 *azartuten ezpazara < ausartcen ezpaçatçaitça (GGero 324).*
- 28-58 *ce arpeguiaz < nolatan (GGero 324);* ik. § 5.1.1.4.
- 28-62/63 *ta estalduteco:* gainean erantsia.
- 28-63/64 *ez ordea biurtu nai:* cf. *eztiot gaitcic desiratcen, eta ez ordenatcen (GGero 324).*
- 28-64 *gura dodan ona:* leh. *gura dodana;* cf. *nic neuretzat nahi nuqueyen beçanbat ontasun (GGero 324).*
- 28-68 *eztagozala borondate gaisto бага < eztirela vorondate gaixto gabe (GGero 324).*
- 28-68/69 *Ezagunac dira...:* cf. *Eçagun dira bere hitzetan eta solhasetan. Ceren ezterraquete el-
carrez onguiric, itchurapenez edo baicen; obretan ere elccarren behartcen eta me-
neratcen direnean, elccarri ahalez heltcen çaitça (GGero 324-325).*

75 ren barruan ecetasunen bat, guerra, gorroto, erretasunen bat, ta ez dabela euren gogoia ta biotza garbi ta amorezco berotasunaz. Olan ta errementarico suteguian auspoac axe emotetic gueldituten direanean, dirudi eztagoala suric. Bada, bertati icatzac ilunduten dira, gueldo doz estalduten dira. Baña erabili eguizuz pusca baten pusca auspóac, ta icusico dozu celan bereala barriz sua aguertzen dan. Alan aguertzen da, bada, alcarregaz berba eguiten eztaben[en] arteco borondate gaistoaren sua bere, dan ocasiñoric chiquiñean idoroten direanean.

80 Baña orain jaquin guraco dozu, ea pecatu dan, borondate gaistoric eztañean, ez berba eguitea, ez combersaciñoric euquitea, ez agurric eguitea areñoria izan dozunaz. Baldin comunqui ta oi dan leguez cristiñauac cristiñauacaz, aideac aideacaz, erricoac erricoacaz leguez bidean topetan dozunean, 85 cerbait itanduten deuntsunean edo onelaco ocasiñoetan erantzuten badeutsazu, berba eguiten badeutsazu ta ezipazagoz borondate gaistoan; ta ganeracoan labur, ta ez beste adisquide maite bategaz leguez <240> berba eguiteaz, edo berba urri escas guichi esateaz, edo adisquide entero maite bategaz leguez ez

-
- 28-73 *ecetasunen bat* < *cenbait uherdura* (GGero 325); “cierta animosidad” itzultzen du Villasantek (1976: 366); *ur uherra* (GGero 284), ostera, ongi itzuli du, *ur loi nastu* erabiliz (20-243).
guerra, gorroto < *herra eta gorrotu* (GGero 325); ik. § 5.3.4.
- 28-73/74 *ez dabela... amorezco berotasunaz*: barrua eta azalaren arteko ageriko bereizkuntza galdu du, Axularren esaldi (beharbada) ilun bat dela medio: *eta ez dioten beçain bere gogoia eta bihotzac garbi eta clar* (GGero 325), hots, ‘eta ez esaten duten bezain...’.
- 28-74/75 *Olan ta errementarico suteguian* < *Errementaldeguian, harotçaren suteguian* (GGero 325). Hainbatetan ikusi dugu Añibarrok -ko jartzen duela, Axularrek -ren zekarren tokian (cf. § 5.1.1.8). Lehengoan aldean, hau gehiegizkoa ez ote? Bada, baliteke itxura baino ez izatea: cf. “*Sakristauko y errementariko llaman en Elgeta, Azpeitia, Mondragón y Bergara a las moradas del sacristán y herrero: sakristaukoan en casa del sacristán, errementarikora a casa del herrero*” A Morf 122 (ap. OEH, ERREMENTARIKO, s.v. *errementari*); baina cf. bestalde *olan edo errementarian* (53-49), hitza gaizki ezagutzen zuelako lekuko argiagoa, ziurrenik.
- 28-76 *Bada, bertati... estalduten dira* < *Ceren berehala iccatçac ilhaunez estaltcen baitira* (GGero 325). Cf. VB “pavesa: c. *gueldo*”. Deigarria da, *ilhaun* (hiztegian jasota egon ez arren) *gueldo*-z ezin hobeki itzulita ere, *ilhaun* eta *ilundu*-ren artean egin duen lotura.
- 28-77 *pusca baten pusca* < *appur bat* (GGero 325).
- 28-79 *ocasiñoric*: jat. *ocasiñoaren* (arg. zuz.), < *occasinoric* (GGero 325); cf. huts berbera (43-135. oh.).
- 28-82 *euquitea*: aurrean *egui* (*eguitea?*), ezabatua; cf. *edo ez conversatcea* (GGero 325).
- 28-87 *ta ez*: ez gainean erantsia; kontua da hemendik hasi eta *ez ibilliaz* arte (28-88/89) Axularren ideia nahikoa zabaldu duela, eta hein batean errepikatu; berak hauxe bakarrik dio: *berce gaineracoan laburzqui utciagatic, adisquide mami batequin beçala, harequin ez ibiliagatic* (GGero 325-326); beraz, hasi, berdin hasi zen, baina bidetik aldaratzerakoan, ez horren beharrean jarri zen. Ohartu, bestalde, *eguiteaz... esateaz... ibilliaz-i* (cf. § 5.5.1).

90 ibilliaz, dirudi eztala orduan pecaturic. Batez bere uste badozu sarri berba eguiñaz ta alcarregaz jarraituaz etorri ditequecela calteac ta oquerrac, etorri oi direan leguez. Bada, asco dira ain ocasiñotsuac, senticorrac, bideriozcoac, genio gaistocoac ta aldi charrecoac, ce obe da alacoetaric aldeguitea, ez batutea, igues eguitea, alcar idorotea baño.

95 Baña, celan aldeguinic ibilteac, alcarganic igues eguiteac eta azalezco achaquia ta irudipenaz baño ez berba eguiteac adirazotera emoten daben cerbait dala bitartean, areriotasun edo borondate deungueren bat dala bien artean: cer esana emoten dalaco, aserre-fama aguertuten dalaco, eta escandalo ta gach bidea besteai emoten dalaco, baldin cer esan ori, aserre fama ta escandalo ori quentzen ezpadozu, borondate charric ez izanagaiti, etzagoz libre concian; bada, guztioac gagoz bearturic ta premiñaturic, cristiñautzat 100 preciatzen bagara barruan, aguirian bere cristiñauac gareala eracustera ta adietan emotera.

105 Ez gagoz bearturic adisquideacaz leguez arerioaz gueure secretoac, bideac ta eguitecoac aguertutera, ez euretara adisquidetara leguez ascotan joster. Asco izango da bere demporan agur ta berba eguitea, munduac areriotzat euqui ez gaizan leguez bicitea, tratatzea, escandalo ta cer esanic ez emotea. Ganeracoan norberac bere eguitecócac eguin daizala, bear dana bear dabenaz solastu dedilla.

110 Baña eguia da, santu izateco, cristiñau comunari aurea eroateco, eztala asco agur otz epel bat eguitea, borondate charric ez euquitea, escandalo deungueric ez emotea, ezpada guztiacaz izan bear da bardiña, moduzcoa, tratu gozocoa, chera arguicoa, alegrea, maitetsua. Eta, are gueiago, ezta asco deunguero eguiten deuscunari gachic ez eguitea, bada, ondo eguin bear deustagu. Bada, au da santutasuna, prestutasuna, debociñoan cumplitua izatea ta 115 Jangoicoac aguinduten deuscun caridade, maitetasuna betetzea.

-
- 28-94 *eguiteac*: gainean, *ibilteac*-en orde; cf. *elccarren incontruetic ihes eguiteac* (GGero 326).
- 28-94/95 *azalezco achaquia ta irudipenaz baño* < *edergaillu baicen* (GGero 326).
- 28-98 *besteai emoten dalaco*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5); cf. *eta hartan emaiten den escandaluagatic* (GGero 326).
- 28-99 *escandalo ori*: leh. *escandaloa*; cf. *erraitte hura, etsai fama hura eta escandalua* (GGero 326).
- 28-107 *Ganeracoan*: jat. *Ganeracoac* (arg. zuz.), < *Gaineracoan* (GGero 327).
- 28-107/108 *bear dana bear dabenaz solastu dedilla* < *behar duena behar duenarequin solhastu dadilla* (GGero 327). Ohartu *bear dana / bear dabena* aldaketari (ik. § 5.5.1). *solastu*: honelaxe itzuli ohi du jatorrizko *solhastu* (ik. 35-66 eta 49-9), behin bederen *berba egin* badarabil ere (38-20).
- 28-110/111 *escandalo deungueric*: jat. *escandaloric deungueric* (arg. zuz.); cf. *escandaluric ere ez emaita* (GGero 327).

3 §.

Esan dogu parcatu bear deutsagula gueure arerioari, ta amorea equi,
<241> alan Jangoicoac aguinduten dabelaco. Baña, nos aguindu ete eban?
Egienguren santuco arratsean, il bear eban egun aurrean, bere azqueneco
120 demporan, candela escuan arturic leguez ilteco egon zanean. Emazte batec
gogoan daucaz bere senarrac eriotzaco orduan esan eutsazan azqueneco ber-
bac; eta seme batec bere, orduco bere aitaren adibideac.

Bada, Jesu Cristo gure Aita maiteac bere azqueneco gauban, mundu one-
taric bestera igaro bear zanean, esan eutseen bere icasle Apostolu maiteai, ta
125 eurecaz batean guri: Ene dicipulu ta seme maiteac, bacusue celan nagoan,
celan eriotzea urtu jatan; laster il bear dodala, ta neure testamentua ta az-
queneco ordenamentua eguin bear dodala. Bada, nire azqueneco manda-
mentua, ordenua, aguindua ta borondatea da, alcar amatu zaitcecela; arerio-
ai parcatu deiezuela. Onetan eracusico dozue zareala nire semeac,
130 adisqueideac, icasleac, ta nire escolan ta lagunzan aciac ta icasiac zareala.

Adibide santu au icasi eban Jose Egitocoac Jesu Cristo munduan aguer-
tu baño len. Jose patriarca aita-aurren andi oni eguin eutseezan bere anajeac
injuria, bidebague ta ofensa andiac; gorroto eben, saldu ebeen egitoar bati.
Guero, dempora asco igaroric, guichi usteric, euren anajearen bearrera ta
135 aguindu azpira etorri cirian anajeoc; estura andian icusi cirian, ta ain andian
ce, guero euren aita Jacob il zanean, bildurrean sartu cirian, ta alcarri cirau-
tseen: Cer izango da orain gugaz? Il da gure aita prestua, ona ta santua; guc
saldu guenduan anaje au erregue ordecotzat escubide ta aguintaritza osoan
dago. Aita bici zala ondo guengozan, seguru guñean; bada, aren amorez ta
140 beguiramentuz gueure anaje onec parcatu euscun.

-
- 28-119 *egun aurrean* < *bezperan* (GGero 327); *VB egun aurea* (c.) “vispera del día”.
28-127 *eguin bear dodala*: jat. *eguin bear dodan* (arg. zuz.). Hasierako modura (*celan nagoan*, etab.) itzuli da, tartean *il bear dodala* sartu duela oharu gabe; Axularri jarraitzeak ere zerikusiren bat izan zukeen: *nola nagoen... eta neure testamentaren eta azquen ordenuaren eguiteco ordua dudan* (GGero 328).
28-128 *alcar amatu zaitcecela* < *Elccar onhets deçaçuela* (GGero 328); ik. § 5.1.2.6.
28-129 *deiezuela*: orain artean beti *da(g)i-* erako formak erabili ditu bai bi pertsonako, baita hiru pertsonako adizkietarako (ik. § 4.3.10.3).
28-131/132 *Adibide santu au... aguertu baño len*: Añibarroren eransketa; Axular zuzenean hasten da: *Badaquiçue cenbat bidegabe...* (GGero 328).
28-133 *saldu ebeen egitoar bati*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5), < *saldu çuten* (GGero 328).
28-134 *guchi usteric* < *guti usteric* (GGero 328).
euren: aurrean *bere*, ezabatua, < *bere* (GGero 328); ik. § 5.1.2.4.
28-137/139 *guc saldu guenduan... osoan dago*: Añibarroren eransketa.
28-139/140 *aren amorez ta beguiramentuz* < *haren amoreac gatic* (GGero 328).

Baña orain, nor baliatuco jacu? Nogaz baliatuco gara? Nor izango da gure bitarteco? Bildur ta icara andian icusten cirian dempora onetan esan eben alcarren artean: Len gueure aitaren amoreagaiti parcatu euscun anajeac, orain bere a beragaiti parcatuco deuscu. Onetaraco goazan aitaren <242>
 145 partez berari berba eguitera, ta umiltasun andiaz esan daiogun onela: Jauna, baquizu zure aita ta gurea il dala; ta ondo ta santuro bici zan leguez, eriotza on santu bat euqui dabela. Iltean zure gomute eguin eban; ta cizpuru ta arnasa andi bat eguinic esan eban: Non da Jose, nire seme maite biotzeco? Esaiozue bera icusteco min andi bategaz ilten nasala, ta nire bendiciñoa
 150 emoten deusadala nagoan lecutic.

Bai ta esaiozue oraindiño seme ona leguez beti nire borondatea eguin dabela, ta orain bere eguin daiala. Eta nire borondatea ta nire azqueneco adio, agur ta borondatea dala, gomutau eztidilla zuec eguin ceuntseen bidebagueaz ta traiciñoaz; parcatu deizuela, ta alacoric igaro ezpaliz leguez, anajetasun on batean euqui ta maitetu zaiezala. Au dala nire azqueneco escaria, gomendaciñoa, ta ez besteric; au dala nire azqueneco agurra, encargua, ta ac nire amoreagaiti eguin bear dabena.

Onela, bere aitaren partez Joseri bere anajeac berba eguin eutseanean, erruquitu zan Jose; busti jacozan bere beguiac; negarra cerion; ta ez bacarric bengatu etzan, bai ta asi zan besarca laztanca bere amaca anajeacaz, esten eutseela: Aitac aguinduten deust parcatu deizuedala; bada, alango aitaren aguindua, esana, escaria, ta alango demporan ta eriotzaco orduan emona, noc eztau cumplituco? Cumplitu eban: guztiai parcatu eutseen.

Alan bada, gure Aita maite Jesu Cristoc bere azqueneco demporan, eriotzea eldu jaconean esan euscun: Neure seme maiteac, bacusue nagoala neure azqueneco despedidan ta eriotza aurrean; iltera noiala; bada, baldin maite banozue, mesederen bat niganic artu badozue, atseguin emon gura badeustazue, gauza bat eguin bear dozue nigaiti, ta orregaz quitu gueldituco gara. Ay, Jauna, esazu cer, bada biotz gogor arrizcoa euquico dau, zu leguezco aita
 165 onaren aguindua ta ordu estu orretan emona eguiten eztabenac. Cer da, bada, Jauna, aguinduten deusczuna? Alcar amatu zaiteceela, arerioai nire amore-
 170

28-141 *nor baliatuco jacu? Nogaz baliatuco gara? < nor valiatuco çaicu? Norgatic valiatuco deracu? (GGero 328).*

28-143 *aitaren amoreagaiti < aitaren amoreac gatic (GGero 329).*

28-145 *umiltasun andiaz: honen orde, Axularren testuan harketz 'haren partez' ulergaitza dago.*

28-152/153 *nire borondatea ta nire azqueneco adio, agur ta borondatea: cf. ene vorondatea, ene azquen adioa eta othoitça dela (GGero 329).*

28-160 *besarca laztanca < besarca (GGero 330).*

28-162 *demporan: aurrean orduan ta eta ondoan esana, dena ezabatua; cf. halaco puntadan eta demboran arimac eguiteracoan emana (GGero 330).*

28-171 *Alcar amatu zaiteceela < Elccar onhets deçaçuela (GGero 330); ik. § 5.1.2.6.*

agaiti parcatu deiezuela. Au da nire azqueneco borondatea, aguindua, ta guztien ganera gomendatuten deutsuedana.

175 <243> Beraz, ezta ezetz esateric: parcatu bear deutsalgu gure arerioari, on eguin bear deutsalgu, maite izan bear dogu. Bada, alan aguinduten deusalgu gure Jangoico maiteac, ez nosnai, ezpada bere biciaren azquenean, edoceini bere barbaric ta aguinduric chiquiena bere bere biotzean sartu bear lequiquion demporan. Emon daiogun, bada, Jesusi atseguin au: parcatu daiogun bere amoreagaiti gure arerio perseguilleari.

28-178/179 *Emon daiogun... gure arerio perseguilleari*: Añibaroren eransketa.

29. BURUA

Bigarren errazoa cegaiti arerioari parcatu bear deutsalun da Jangoicoac beretzat ta bere contura benguetea gordeten dabelaco.

- 5 Iñoc injuriaric, irainic, bidebageric, laburtasunic, billauqueria[ri]c, ofensaric eguiten deutsalun, eztau gura Jangoicoac zuc ordea biurtu daiozun; berac bere contura artzen dau benguetea ta justicia eguita. Alan dirauscu Deuteronomioco libruan, ta San Pabloc erromatarrai esribitu eutsenean. Arerioac gaistaqueria bat eguiten deutsalun, zuri baño gueiago eguiten deutso Jangoicoari, orretan bere aguindua austen dabelaco. Baña eztau orregaiti Jangoicoac bertati castiguetan; icharoten deutso, ta icharotegaiti ez dau desonraric. Bada, eguiatz zuc bere ez dozu desonraric izango beste munduraño ichadoteaz, orduguiño ez bengatzeaz. Baldin orain paciencia badozu, Jangoicoaren escuetan ichiten badozu, berac daguienzat largatzen
- 10 badeutsazu, zagoz seguru berac berari ta zuri eguin jatzun injuria, beingoan, colpe baten, batera, escas bague ta mercei daben leguez castigatuco dabela, ta zor jacon castigua zure arerioari emongo deutsalun. Larga, bada, berari.

- Ceuc ceure escuz castigatu gura badozu, penatu ta mindu bear zara, ta ascotan ecer eguin ecin dozula gueldituco zara. Bada, menturaz arerioa izango da zu baño indartsuago, al eta escubide gueiagocoa. <244> Eta Livio di-
- 20

29-7/9 *Alan dirauscu... esribitu eutsenean*: Añibarroren eransketa, Axularrek ertzean ematen dituen erreferentzietan oinarritua: *Deut. 32* eta *Roma. 12*, hain zuzen (*GGero 331, in m.*).

29-13 *bengatzeaz*: jat. *benganceaz* (arg. zuz.), < *mendecatceaz* (*GGero 331*).

29-14 *berac daguienzat* < *berac daguiela* (*GGero 331*).

29-15 *berari ta zuri eguin jatzun injuria* < *berari eguin çaicán bidegabea, eta çuri ere eguin deratçutena* (*GGero 331*).

29-16 *escas*: jat. *escaz* (arg. zuz.), < *escaz* (*GGero* eta *Gero 331*).

29-17 *Larga, bada, berari*: Añibarroren eransketa.

ñolez: Indarbageco colera, aserrea ta benguetaco gogo ori eguin ecin dabenena utsa da, alperra da, guichi balio dau. Senecac bere diño: Dana dala, gorde bear da arerioari eranzun ta bengatzetic, nai dala zure bardina arerioa, nai dala andiagoo, nai chiquiagoo. Bada, bardinaz esetsi ta peleetea dudoso
25 ta arriscuoa da; andiagooz, zoraqueria; ta chiquerragoaz, billauqueria, zantarqueria, prestueztasuna.

Eta au onela dala ezaguturic, benganzan bazabiltz, señaile da maite eztozula ta parcatu gura ezteutsazula ceure arerioari. Ta onetan ceure burua galitzen dozu. Eta ceure buruari arerioari baño calte gueiago eguiten deutzazu.
30 Alan adietan emoten dau David erregueac, esaten dabenean: Inguratu nabe arerioac, erleac leguez. Erleac iñori useguiten badeutso, galduago ifinten dau bere burua. Bada, bere eztena, izpia ta bicitzea an ichiten dau. Alan zuri bere jazoco jatzu, arerioari useguiten badeutzazu, parcatu gura ezpadeutzazu, injuriatzen badozu, benguetan bazara; bada, ari baño ceuc ceuri gach
35 gueiago eguiten deutzazu.

Eta onen ganean [gauza bat] esan gura deutzut, eta da: zuc ceure arerioari parcatu gura ezpadeutzazu, ta bai berac zuri, orduan eztau Jangoicoac aren benganzaric artuco, baña bai zure contra. Jangoicoac eztau ichiten, ez ichico bere, castigatu baga faltaric chiquerrena: ta zuc baño obeto castigatuco dau zure arerioa. Eta aita batec bere seme[a] jo daben zarta cigorra surtara botatzen daben leguez, alan zu ceatu, ofenditu, penatu, perseguitu zaituan arerioa castigatu, erre ta infernura botaco dau Jangoicoac, obetuten ezpada, fama quendua biurtzen ezpadau, bere areriotasunean ilten bada.

29-21 *gogo ori*: leh. *gogoo*; cf. *mendecatceco desira* (GGero 332).

29-21/22 *eguin ecin dabenena* < *parric ecin iragan deçaqueyenarena* (GGero 332).

29-24/25 *dudoso ta arriscuoa da* < *dudos da eta perilos* (GGero 332).

29-27 *Eta*: ondoan *gutziz bere*, ezabatua; okerren bat izan zuen, Axularrek *Eta guztiarequin ere* (GGero 332) baitio.

dala: aurrean *izanic*, ezabatua; cf. *haur hunela delaric, eta dela daquiçularic ere* (GGero 332).

29-32 *eztena, izpia* < *eztena* (GGero 332).

29-34 *ceuc ceuri* < *ceure buruari* (GGero 333); ik. § 5.1.2.5.

[*gauza bat*]: cf. *Eta pontu hunen gaiñean gauça bat erran nahi deratçut* (GGero 333).

29-36/38 *zuc ceure arerioari... baña bai zure contra*: esaldi labur hau Axularren pasarte luzeago honen ordezt dago: *çuc ceure etsaiari ez barccatuagatic, eztela handic seguitcen, baldin harc bere aldetic bere eguin bidea eguiten badu, eztioela hari Iaincoac barccatuco. Orduan ez barccatceaz, ceure buruari eguiten dioçu calte, eta ez ceure etsaiari. // Eta hala bethi ere bai, baina guztiz ere cerori ecin mendeca çaitetzqueyenean, consola çaitte eta iaquiçu ecen, Iaincoa mendecatuco dela* (GGero 333).

29-39 *chiquerrena*: ondoan *castigatu bague*, ezabatua, aurrean jarrita zeukan eta; cf. *eta ez utcico ere faltaric gaztigatu gabe* (GGero 333).

29-41 *alan*: ondoan *zure arerioa*, ezabatua; cf. *Hala çure etsaia, çure cehatçaillea eta penatçaillea ere çathituco du Iaincoac* (GGero 333).

29-42/43 *obetuten ezpada... ilten bada*: Añibaroren eransketa. *quendua*: gainean, *galdua*-ren ordezt.

- 45 Eta alan, persona batec injuriatzen bazaitu esatez edo eguitez, esaiozu Jangoicoari: Jauna, bacusu cer eguin deustan urliac; ceure escuetan ichiten dot guztia; ezta ondo eguiña zu zagozan lecuan nic escuric artutea. Nic parquetan deusat biotz guztiric; escatuten deusut castigatu eztaizula, salbatu dedilla; ceuc nai dozuna eguizu <245> beragaz. Eta, onembestez, ceuc eguizu nai dozuna. Orainganic largatzen dot benganza ar[tu]tea; parquetan deusat eguin deustan injuria; neure buruari deseatuten deusadan ona, ari deseatzen deusat. Au esanic guelditu zaite baquean ta soseguan.

-
- 29-44 *esatez edo eguitez*: cf. *bidegabe bat eguiten, erraiten edo pensatcen deratçunean* (GGero 333).
 29-46 *ezta*: leh. *eztago*; cf. *ezta, beraz, arraçoin, çu çaren leccuan nic escuric har deçadan* (GGero 333).
 29-49 *ar[tu]tea*: *art[z]ea* ere zuzen zitekeen, noski, baina errazago dirudi haplologia izatea; cf. *mendecatutçat daducat neure burua* (GGero 334).
 29-51 *baquean*: leh. *paquean*.

30. BURUA

*Irugarren ta azqueneco errazoia parcatuteco arerioari da
Jangoicoac guri bere parcatu deguigun.*

1 §.

5 Parcatu bear deutsagu gure arerioari, guri bere Jangoicoac parcatu dai-
gun. Jangoico berac diño San Materoren aotic, guc parquetan badeutsagu
gueure arerioari, berac bere guri parcatuco deuscula, baña ez bestela. Eta
ondo gagoz, guc gueure arerioari parcatuaz Jangoicoac guri parquetan deus-
cunean: esan ala ezta, ceimbat onetan irabazten dogun. Bada, gauza guichi
10 bat da guri eguiten deuscuen bidebagea ta injuria; ta neurri ta mugabagea
da guc Jangoicoari eguiten deutsaguna: gure parcaciñoa ecer ezta Jangoico-
arenaren aldean.

Gauza batzuc dira eurac berez, euren eguitez, gach nequezcoac direanac,
baña beste bategaz lagunduric, baturic, alcar arturic, errazac direanac. Odo-
15 la ateretea, purga loi atsitu bat artzea, edari samin bat edatea, gauza nequez-
cócac, penagarriac, latzac dira; baña osasunaz bilduric, errazac dira. Alan,

30-3 *deguigun*: berehala *daigun* (30-5/6) badio ere; ik. 28-129. oh.

30-6 *San Mateoren aotic*: Axularren erreferentzia hutsari dagokio: *Math. 16* (GGero 334, in m.).

30-9 *esan ala ezta < ecin erran diteque* (GGero 334).

gauza: aurrean *da*, ezabatua; cf. *Ceren nola gauça appurra baita* (GGero 334).

30-14/15 *Odola ateretea*: ondoan Axularrek *copatcea* dakar (GGero 335), Añibarrok ez hartua
eta ziurrenik ez ulertua; Villasante bera (1976: 378 eta *AxH*, s.v.) zalantzan dago,
testuinguruagatik ‘sajar’ ote den, eta agian fr. *couper*-eta buruan izanik; *OEH* (s.v.)
Pouvrearen lekukotasunari (“ventouser”, hots, ‘bentosak ipintzea’) atxiki zaio, Vi-
llasanterena aipatu ere gabe, eta Pouvreaux ere pasarte beretik aieruz itzul zezake-
ela kontuan hartu edo bederen eztabaidatu gabe.

30-15 *atsitu*: gainean erantsia.

30-16 *errazac dira*: ondoan Axularrek hau dakar: *Sendatceagatic, gogotic errecibitcen eta
pairatcen dira* (GGero 335).

arerioari bere parcatutea eguin deuntsun iraina ta bidebagea, bera bacarric, berez beguiraturic gach da; baña, beguiraturic orregaiti Jangoicoac bere zuri parcatuco deuntsula, erraza, gozoa, eroapena, sufrigarria da.

- 20 Gente galduac, cenzunbageac izango gara, gueure onagaiti ezpada bere, parcatuten ezpadeutsagu arerioari. Eguizu contu ea ceimbat pecatu ta gaistaqueria eguin dozun oraindiño, eta ceasco ta andiac direan; bada, gura badozu Jangoicoac parcatu daizuzan, ceuc bere parcatu eiozuz arerioari zure contra eguiten dituanac. <246> Presona batec iraindu ta bidebage edo laburtasun bat eguiten deuntsunean, esan daroazu parcatu gura ezteutsazula, beintzat laster: bada, desonra dala bereala parcatutea. Ori da Jangoicoaren contraco birao ta berba char bat. Bada, onrabaguetzat, gauza ezaintzat artzen dozu Jangoicoaren aguindua betetzea, ofensac parcatzea.

- 30 Parcatu bear deuntsazu, bada, arerioari; eta parcatu bere, ez nolantai, ez edocein moldez, ez berbaz bacarric, irudipenaz, campotic, azaletic, edergarritz; ezpada eguiatz, benetan, gogoz, asmoz, biotzez, borondate osoaz. Bada, bestela ezteutsu Jangoicoac parcatu[co]. Confesa zaiteque, comulga zaiteque, oraciño lucean egon, dozun guztia esquecoai emon ta eguin penitenciaric gogor, arrigarri, latzenac; baña oneec guztioac ezteutsue ecer balioco, baldin ceure biotzean badozu gorrotoric, icusiecinic, ondamuraic, borondate gaistoric ceure arerioaren contra.

- 40 Llaga zauria ezta osatuco, aranza, elorria edo brinza bat barruan sarturic dagoan bitartean; ezta pecatua bere parcatuco, borondate gaistoac dirauan artean. Barberu osaguilleac buruco llaguetan, lenetic alderatuten dau aragua; ta aguertu azurra, bitartean odol ustelic gueratu eztidin. Bada, baldin gueldituco balitz, ac medicina osagarriari indarra ta birtutea argaldu ta guichitu leusquio. Alan, arimaco zaurietan bere, lenengo quendu ta garbitu bear da odol ustela, ta atera areriotasun ta gorroto atsitu edendu caltetsua. Bestela ezta osatuco; eztabe onic eguingo artuten direan sendagaiac, erremedioac, 45 ta eguiten direan limosnac, barauac, errezuac ta beste eguitecoric miragarrienac.

-
- 30-19 *eroapena*: okerren bati zor bide zaio izen hau izenondoen pare agertzea; Axularrek erraz baino ez dakar (GGero 335).
sufrigarria da: ondoan Axularrek hau dakar: *Errazqui barccatuco dioçu ceure etsaiari, Iaincoac çuri barcca diaçaçun gatic* (GGero 335).
 30-22 *eta ceasco ta andiac direan < eta cein handiac* (GGero 335).
 30-24 *batec*: jat. *baten* (arg. zuz.); cf. *Presuna batec* (GGero 335).
 30-27 *onrabaguetzat < desohore* (GGero 335).
 30-30 *edocein moldez = GGero 335.*
irudipenaz < itchurapenez (GGero 335).
 30-30/31 *edergarritz < edergailluz* (GGero 335).
 30-37 *aranza, elorria edo brinza < elhorria* (GGero 336).
 30-41 *medicina osagarriari < midicinari* (GGero 336); ik. § 5.3.1.
 30-45/46 *ta beste eguitecoric miragarrienac < eta bertce obra onec* (GGero 336); ik. § 5.2.1.3.

2 §.

Bere arerioari, bere gaisquillari, bere perseguillari parcatu gura ezteutsanac, eztau idoroco bere orduan bitartecoric, escaleric, beragaitic erregutuco dabenic. Bada, Espiritu Santuac diño: Noc erregutu ta escatuco dau
50 bere lagun urcoaz, bere bardin antzeco bategaz misericordiaric, erruquiric eztabenagaiti? Ez iñoc: ez santúac, ez angueruac, ez misericordiaren Amac bere. Bada, Santiago Apostoluac <247> diñoan leguez: Erruquibagueco justicia eguingo da, besteagaz erruquiric eztaben gogorragaz. Ez jaco parcatuco,
55 parcatu gura eztabenari. Eta alangoac berac bere gura eztau parcatu daioen. Bada, *Aita gureco* oraciñoa diñoan bacochean, escatuten deutso Jangoicoari: Jauna, parcatu eiguzuz gueure zorrac, guc gure zordunai parquetan deutsaguzan leguez.

Esan gura dau: Jauna, parcatu eiguzuz zure contra eguin doguzan peccatuac, oquerrac, utseguiteac, gaistaqueriatic, guc gure arerioai parcatuten deutsaguzan leguez gure contra esan ta eguin dituezan injuriatic, irainac, billauqueriatic ta oquertasunac. Bada, zuc parcatu gura ezpadeutseezu ceure arerioai eguin deutsuen bidebagea, aditzera emoten dozu gura eztozula zuri bere Jangoicoac parcatu daizun bere contra eguin dozuna. Bada, dirautsazu
60 Jangoicoari, zuc ceure arerioari eguiten deutsazun beste orrembeste, ta ori berori zugaz bere eguin daijala.

Donguetasun bat iñoc eguiten deutsunean, esan daroazu biotz guztiaz: Cer, nic ari parcatu? Lenago bicitzea galduco neuque. Eta gogoratuten etzara zuc Jangoicoari uts eguite astunagoac, sentigarriagoac eguin arren, gura
70 dozula, orrez guztiaz, bere Ontasunac zuri guztia parcatu daizun. Gogoratu eguizu, zuc ceure arerioari parcatu nai ezteutsazun orrec, Jesu Cristo zure Jaunac parcatu eutseela bere arerioai crutzean egoala; ta, are gueiago, escatu eutsala biotzetic bere Aitari eurac gaiti; eta zuri ceure arerioac ezteutsuela eguin berari aimbeste min ta gogortade.

Bai ta gogoratu zaite, Espiritu Santuac dirautsula: Gomute zaite ceure azqueneco ordu estuaz, ilteco egongo zarean dempora larriaz, orduan emon
75 bearco dozun contu ciur artez zucenz, ta largaco dozu areriotasuna ta gorroto ori. Gomute zaite, celan guraco dozun azqueneco ordu bildurgarri atan Jangoicoac parcatu daizun; eguizu, bada, zuc ori berori orain ceure arerioaz.
80 Bada, au da Jangoicoaren aguindua; au da berac gura dabena; au da beti, baña guztiz bere azqueneco egunean, Jesus maiteac gomendatu euscuna.

30-49 *bere orduan* < *bere hehar orduan* (GGero 336) < *bere behar orduan* (Gero 336).

30-56 *oraciñoa*: jat. *oraciñoan* (arg. zuz.).

30-67 *deutsunean*: jat. *dozunean* (arg. zuz.); cf. *Falta bat nehorc eguiten deratçunean* (GGero 337).

30-74 *berari aimbeste min* < *halaco minic* (GGero 338). *berari*: leh. *bera*.

30-75 *Gomute*: leh. *Gomuta*.

85 <248> Bijo, bada, aparta bedi gaurganic, gueroco lucetu baga, benguetaco deseo gaistoa. Onetan izango gara ezagunac, ta adietan emongo dogu Jesu Cristoren escolaco icasleac gareala. Eta bicico gara biotzeco erretasun, gorroto bague; bici dan leguez baquean, benguetaco gogo baga ta guztiacaz adisquidetasun onean dagoan bat.

30-84/85 *biotzeco erretasun, gorroto bague < bihotz uccaldiric, assalduric eta iccar]r]aric gabe (GGero 338-339).*

ADIBIDEA

Urrengo buruetan Axularrec ifini cituan gauza batzuc laburtuco dira, ta larga beste batzuc, euren iracurtzatic ascoc on baño calte gueiago ateraco leuqueelaco; ta lenago bere onen ganean esa-mesac izan direalaco.

5

31. BURUA

Araguizco pecatuác dacartzan caltéac ta itsutasuna.

1 §.

10 Beste bicioetan aimbeste calte eguiten badau lucementuetan ibilteac, gueroco penitencia ta erremedioac largueteac, cer eguingo dau desonesque-riaco pecatuan? Bicio onetan guelditu zan gure naturaleza argalago, gaisso-ago, gachera jausiago ta macurtuago, beste bicioetan baño, pecatu jatorriz-coen ondoan. Ta, baldin sustraiac ta erroac ezarten baditu biotzean, gach izango da atera ta camporatutea.

15 Esaquizun asco dago bicio onen ganean: lenengo esango dira eguiten dituan calte negargarriac, emoten dituan cereguinac ta lanac, ta dacartzan burucomin, atsecabe ta negarrac. Eta guero gach andi au osatuteco sendagarrac, purgac, erremedioac, bide ta bitartecóac.

31-1 *ADIBIDEA*: Añibarroren zentsuraz, ik. § 3.3.

31-10 *pecatuan*: jat. *pecatuac* (arg. zuz.). cf. *emaztetaco beccatuan* (GGero 339).

31-11/12 *jatorrizcoen*: ik. § 5.1.1.7. Esaldi osoa Añibarrorena da, Axularren galdera “arriskutsu” hauen ordeiz: *Haraguiari hain placer çaicán placerean? Bat bederac natural-qui desiratcen duenean?* (GGero 339).

- 20 Ezta eztaquianic gure arimaco arerioac direala iru: mundua, deabrua, araguaia. Iruroetic gaistoena, azartuena, arriscatuena, lotsabaguena da araguaia. Au da echecho lapurra, barruco arerioa, beti gugaz dagoana, cedena zulean, sitsa oialean, arra urdaian ta araguiian leguez, gau ta egun gueugan dagoana, beti gu tentatzen, beimbere gueuganic bota ecin dogula. Errazago da pecatu onen ganean berba eguitea, ta gorde bear gareala esatea, gordetea baño, diño Valerioc.
- 25 Araguaia argala da, ta sendoa. Argala defendietaco; sendoa tentatzeco ta palaguetaco. Abe ta eutsigarri asco, gracia ta ceruco laguntza ta escua bear da ez jausteco, ez laprast eguiteco <249> bicio madaricatu gogaicari citel tentaguille onetan. Edocein gauza, ta ocasiñoric chiquiena, da asco jausi eraguiteco. Agaiti ciñoan San Agustinec, cristiñauaren guerraric andiena ta gogorrena castidadearen guerrea zala. Bada, onetan beti dirau, eguneangoa da; 30 baña bitoria ta bencimentua guichitan, banaquetan, urri, meatz. San Agustin berac diño: Deabruac sare asco baditu bere arimac cogietaco; baña, orrez guztiaz, eztau aimbeste arima galduten, celan bicio onegaz: emen ifinten ditu bere sareac, amuac, laquioac, asmu ta asmoric andienac. Beste bicioetan banacac artzen ditu; baña emen piloca, andizca, eunca.
- 35

2 §.

Andiac dira araguiac, ta araguiaren naigura oquer erabagueac eguiten di-tuan caltéac. Eta calte principalenetic bat, lenengoa ezpada bere, da adimentua ilundu ta itsututea. Amoreturic dagoan batec eztacus, eztaqui cer da-

-
- 31-18 *Ezta eztaquianic*: honen aurrean, honela ematen dio hasiera Axularrek gaiari: *Eta itsas hondar gabe hunetan sartcen naicela, eztut uste dela eztaquienic...* (GGero 339-340).
- 31-19 *Iruroetic* < *Eta hirur hautaric* (GGero 340).
- 31-20/21 *cedena zulean... leguez*: interesgarria da nola aldatzen diren testu batetik bestera zomoroen izenak: *Çurari pipia, oihalari cerrena, urdaiari cedena eta haraguiari harra beçala* (GGero 340).
- 31-26 *Abe*: ondoan *asco*, ezabatua. *asco*: ondoan *bear*, ezabatua. Cf. *Anhitz habe, fabore eta sostengu behar du* (GGero 340); ik. § 5.4.2.
- 31-27 *citel*: ganean erantsia.
- 31-30 *eguneangoa da* < *egunoro* (GGero 340).
- 31-32 *baña*: aurrean *ta*, ezabatua; izan ere, hemen ez du *ba... ere, baña...* egitura bitxia Axularren eraginez egiten (ik. § 5.2.9), bere kasa baizik: cf. *Deabruac anhitz sare badu ere arimaren atcemaiteco, eztu batez ere hanbat atrapatcen...* (GGero 341).
- 31-33 *celan bicio onegaz* < *nola emazte gaixtoez, eta hec hedatcen eta paratcen dituzten artez, sare, lachioez eta segadez* (GGero 341). Hemen bukatzen da Axularren azpiburua; beraz, ondoko guztia, Añibarrok egokitua da (emazteen lanak deabruari egozte bezala) edota erantsia.
- 31-34 *asmu ta asmoric*: ik. 1-86. oh.
- 31-38 *principalenetic*: ondoan *lenengoa da*, ezabatua; cf. *Eta calte principalenetic bat, principalena ezpada ere* (GGero 341).

40 rabillan; bere gogo guztia araguiian dauca; jatean, edatean, oean datzanean, atan dago pensetan; eztauco bestetan gogoric; bere solasac, bere amesac bere an ditu; eztau gura beste batec beste gauzaric esan daguion; itsuturic dago, ero zoraturic, cenzun bague, errazoitic ateraric. Agaiti lenagoco poetac pintetan eben Cupido, amorentasuneco jainco guzurrezcoa, ume chiqui
45 ta itsuturic. Itsu, ez ecusalaco. Seiña, adimenturic ez eucalaco. Eta Plutarcoc diño gach dala amorentea izatea ta cenzunean egotea.

Alangoa, ez desonreac, ez genteen esateac, ez ondasunac ondatuteac, ez fama charrean gueldituteac, ez loa galtzeac, ez ecerc bere, eztabe atzeratuten pecaturic. Basa-asto amurutsua leguez, beguiac itsuturic, eiztarien artetic igaroten da; edocein arriscuetan sartzen da. Bere amudio errazoibagueaz
50 bai, bere amorentasunaz bai, baña ganecoaz ez dau conturic.

Usoa leguez da alacoa. Usoac eztau beste egaztiac leguez <250> edatean burua gora jasoten. Edango dabena, abereac leguez, arnasaric artu bague, burua goratu baga, beingoan edaten dau. Beste egaztiac edaten daben guztian burua gora jasoten dabe. Eta esan lei naturaleza berac alan eracusten
55 deutséla. Bada, orduan dauquee pelligruric andiena, orduan dagoalaco guel-diric urera beguira; bai ta orduan dagoz eiztariac celatan, beguira, ezcutaturic, zain; ta abereac bere dagoz irazarriric, zur ta contuan; ta edaten daben ur

31-42 *an ditu < hartçaz eguiteintu (GGero 341).*

31-44 *Cupido: aurean amorea, ezabatua; cf. Cupido, amurusiaren Iaincoa (GGero 341). jainco guzurrezcoa: ik. 19-23. oh.*

31-44/45 *ume chiqui ta itsuturic < haur eta itsu (GGero 341).*

31-46 *amorentea < amurus (GGero 341). Izen abstraktua beti amorentasun bada ere (cf. 13-125/126, 13-142, 19-289/290, 31-44, 31-51, etab.; eta cf. amorentia 46-294), amorente beste behin bakarrik (32-18) aurki daiteke, eskuarki amorante itxuran agertzen baita (14-76, 32-93, 35-39, 45-112, 46-308, etab.), eta behin bederen amorente amorante zuzendua (35-20. oh.).*

31-47 *ondatuteac: gainean, galduteac-en orde; cf. ez onen gastatceac (GGero 341).*

31-49 *pecaturic: leh. becaturic.*

Basa-asto = GGero 342.

amurutsua < amurusa (GGero 342).

31-50 *edocein arriscuetan < edocein periletan (GGero 342); ik. § 5.1.1.4.*

errazoibagueaz < desordenatuaz (GGero 342).

31-54/55 *edaten daben guztian < edateco curca gustietan, ahartara [sic, ahatararen orde] baccotchean (GGero 342). Añibarrok, ongi itzuli badu ere, saihestu egin ditu curca eta ahartara izenak, pasarte honetatik Larramendik “bocanada, sorbo, ahartara” (Erans 99) eta “inclinación, curea [sic]” (ib. 335) atera bazituen ere (cf. Urgell 2000).*

31-56 *orduan dagoalaco: singularrera igaro da, oharkabean, nahiz egaztiei buruz diharduen.*

31-57 *urera beguira < urera beha (GGero 342); ik. § 5.1.1.4.*

31-58 *abereac: jatorrizko testuaren arabera, hegaztiak eurak; cf. halatan daude hec ere iratçarriac orduan (GGero 342). Gorago (31-53) Axularrek bezala erabili du, hots, lau hankakoak bakarrik kontuan hartuaz.*

50 chorta bacochean, ingurura, batera ta bestera beguiratuten dabe ta burua goratuten dabe, guardia eguiteco balegoz leguez, ta beguira ea iñor aguiiri dan.

Baña usoac eztau alacoric eguiten, auspaz dago ase artean; eztau bitartean bururic jasoten, ez alboetara beguiratuten. Eta onetan da aguiiri usoaren inocencia ta simpletasuna; bada, arriscuric gueienez dago ardurabagueturic, zabarturic. Au berau jazoten da desonestu bategaz. Arerioa celataca dagoanean, tentaguille asmutsua zainago dagoanean, orduan dago ardura, contu ta bildur guichiagoaz, bere atseguñaz baño beste gauzaren conturic eztaucalaco.

70 Ciro emperadore aguintaria ain itsuturic ifini eban Apama emacume desonestuac, ce eguiten eban beragaz gura eban guztia. Belarrondocoac alde bietan emoten eutsazan; batean bizarretic, bestean belarriti tiratuten eutsan; ume chiqui bat leguez cerabillan solasca. Eta emperadore andi au guztira etorren ero bat eguinic; aguiñac irrituric ta barreca egocan beguira; espillura leguez egoan ari beguira: a poztuten zanean, bera bere poztuten zan; ta triste icusiric, tristetu. Eta emacume gaistoac bere burua batzuetan berariaz 75 aserraturic leguez ifinten eban; ta orduan emperadore zoroac eguiten cituan asmu ta palagu guztiac berari contentu emoteco. Amorioa zan nagusia; *no* zan *to*; emacumea guizon; olloa ollar. Emen da aguiiri ce itsu, sor, gortua ta itsutua ifinten daben persona bat desonesqueriaco pecatuac, alango emperadorea orrembestera eldu bazan.

80 3 §.

Zalengo Greciaco parte batzuetaco erregue batec, icusiric desonesqueriaco pecatuac eguiten cituan calte andiac, ta batez bere ilundu, erotu, itsu-

- 31-63 *simpletasuna* < *erguelqueria* (GGero 342).
 31-64 *desonestu*: familia honetako hitzik agertzen denean, ia aurrez egin dezakegu Axularranean emakumeak aipatu direla (ik. § 5.4.4); cf. *Hala da, bada, bere gogo guztia emaztetan ibenia daducana ere* (GGero 342).
 31-65 *zainago dagoanean*: Añibarrena da; Axularrek hauxe dio: *Etsaia celatan dagocanean, perilic guehien duenean* (GGero 342-343).
 31-68/69 *emacume desonestuac* < *bere amorangeac* (GGero 343).
 31-71 *solasca*: cf. *haur batequin beçala, harequin dostatcen cen* (GGero 343).
 31-72 *aguiñac irrituric* < *hortçac hirrituric* (GGero 343), hots, hitzez hitz, 'hortzak erakutsirik'-edo (cf. AxH eta OEH, s.v. 1 *irritu*), baina egiatan ondoko *irriz*-en esanahikidea. Añibarrok aterabide hobea ematen dio aurrerago (ik. 40-58/59. oh.).
 31-73 *a poztuten zanean...*: aurrean *a alegraturic bera poz] bere poz]*, ezabatua.
 31-76 *Amorioa zan nagusia* < *Amorangea cen nabusi* (GGero 343).
 31-76/77 *no zan to* = GGero 343.
 31-77/79 *Emen da aguiiri...*: emakumearen aipu guztiak ezabatu ditu (ik. § 5.4.4); cf. *Erran behar da escu handia hartcen duela emazteac amurus itsutuaren gainean, halaco emperadore bat, ema-eztheus batec hala errendatcen duenean* (GGero 343).
 31-81 *Zalengo Greciaco parte batzuetaco erregue batec* < *Zalenco Greciaco parte batçuetaco erregueac* (GGero 346) < *Zaleuco* (Gero 346). Istorio honen aurrean, Axularrek Semiramisena dakar (GGero 344-346).

tuten ebalá <251> guizonaren cen-zuna, errazoia, adimentua ta arguia, guztia au ezagutu eguientzat ifini eban legue estu bat: baldin iñor jausten ba-
 85 zan pecatu onetan, beguiac atera eguioezala; barruan pecatuaren bildur ba-
 gue itsutu cireanac, campotic bere peneagaz itsuac guelditu citecen guztien
 aurrean. Ain estua zan legue au, ce ez eben balio libretaco, ez empeñuric an-
 dienac, ez bitartecoac, ez aide ta adisquideen erregüac, ez urreac, ez onda-
 súnac, ez munduan zan gauzaric. Uts eguiten ebanac igues eguin euquean, al
 90 baeban, baña bein escuratu ezquero, ez egoan parcaciñoric, beguiac galdu
 bear cituan.

Erregue onec legue au orren irme gorde eraguiten eban demporan, jazo
 zan erregue onen semea jaustea pecatu onetan. Erregueac bere semearen uts
 eguite au jaquin ebanean, Jangoicoac daqui ce damu andia artu eban. Alde
 95 bateric bere aitetasunac, semeari eutsan maitetasunac atzeratzen eban, es-
 cuac estuten eutsazan, ta esaten eutsan etzala ondo icusia aita batec bere se-
 meari beguiac ateretea. Besteti, barriz, justiciac eracusten eutsan leguea gor-
 de bear zala, ta bati parcatuaz beste batec azartasuna artuco ebalá. Eta
 erechiric indartsuago zala justiciaren errazoi au, semea galduco baeban bere,
 100 erabagui ta aguindu eban justicia eguin cedilla ta bere semeari beguiac ate-
 ra eguioezala.

Erreinuac jaquin ebanean bere erreguearen aguindu au, guztia batu, ta
 batera joan cirian erregututera erregueari, arren, parcatu eguiola bere seme-
 ari. Bada á leguea comunagaiti eguina zala; ta comunac ain erregue justu
 105 onaren amoreagaiti, aldi atan bere zucena quendu ta quitutu gura ebalá. Co-
 munaren erreguac ta semeaganaco asco-naiac estura andian ifini eben; baña
 gueiago leguea austeac. Uste eban ta iruditen jacon ez ebalá bere coroiá se-
 guru izango, baldin chiquientzat leguez andientzat bere justicia eguiten ez-
 paeban. Eta alan, gira, bira, itzul, pensamentu ta gogoeta bere artean egui-

31-85 *pecatu onetan*: zehaztasunik gabe; cf., ordea, *nor ere erorico baitcen adulterioan, eta norc ere behar etcen emaztearequin huts eguinen baitçuen* (GGero 346).
 31-86 *peneagaz*: leh. *penagaz*.
 31-89 *ez munduan zan gauzaric*: ergatibotik partitibora igaro da; cf. *non ezpaitcen faboreric, ahaideric, adisquideric, eta ez urrerice, eta ez cilharric hautsaraci ahal ciaçationic* (GGero 346). Ik. halaber 42-149. oh.
 31-89 *euquean*: ondoan *baña*, ezabatua; cf. *ihes ahal ceidiqueyen, albaceguien, baina...* (GGero 346).
 31-100 *erabagui*: ondoan *eban*, ezabatua; cf. *deliberatu çuen, eta manatu* (GGero 347).
 31-105 *quendu*: aurrean *quitutzen*, ezabatua; cf. *aldi hartacotz bere zucena quitatcen çuela* (GGero 347).
 31-106 *semeaganaco asco-naiac* < *semeaganaco amorioac* (GGero 347).
 31-109 *gira, bira, itzul* < *anhitz itçulinguru* (GGero 347); cf. *itzuli gira-bira erabilten* (15-386).
bere artean < *bere baithan* (GGero 347); ik. § 5.3.4.

110 nic, azquenean idoro eban bide bat bere caltecoa, baña semearen castigua arinduteco ona. *Oquer obe, itsu baño.*

Aguindu eban barriro, alango pecatuan iñor aurrerantzean jausten <252> bazan, atera eguioela aitari bere beguetaric bata, ta semeari beste bat. Eta alan, bien artean caltea jasoric, leguea cumpli cedilla. Celan aguindu, alan
115 cumplitu zan. Aitac eta semeac euren beguetaric bana galdu ebeen. Eta guero andic ara gueratu zan leguea baiezturic, semea castigaturic, erreinu guztia arrituric; ta alango utseguiteetara jausten zana, parcaciñoa erdetsiteco esperanzaren ate guztia ichiric.

Alabagarria zan erregue au, ta bai ifini eban leguea bere: cerren gaisso-
120 tasunari egoquiona zan. Dempora gaisto onetan bere oñean ta indarrean balego legue au, edo beronen antzeco bat, ez litequez icusico echeetan ta errietan aibeste calte negargarri. Itsutasunaz itsutasuna osatuco liteque; gorputzezcoaz arimacoea sendatuco liteque; ta bacoachac gordeco leuca bere burua, alacoric ez eguitemo. Bada, desonesqueriac eguiten daben lenengo
125 caltea ta colpea da, adimentua itsutu, ilundu, nastu ta zoraturic ifintea.

31-110 *bere caltecoa* < *bere caltetacoa* (GGero 347); ik. § 5.1.1.4.

31-120/122 *Dempora gaisto onetan... calte negargarri*: Añibarroren eransketa.

31-123 *gorputzezcoaz arimacoea* < *gorputcecoaz arimacoea* (GGero 348).

31-125 *colpea*: aurrean *go*] (*golpea?*), ezabatua; cf. *caltea eta colpea* (GGero 348).

32. BURUA

Araguizco pecatuac dacartzan beste calte batzuc.

1 §.

5 Desonesqueria, lujuriazco edo araguizco pecatua ain da gauza itsua ta
itsugarria, ce ezteutso beguirunic, ez errespetoric aidetasunari, urcotasunari,
icusi zan leguez Amnon ta Absalon Daviden semeacaz, Neron emperadore
ta beste aguintari ascogaz. Ezta erneguric, juramenturic, biraoric, guzurric,
falsiaric desonestu batec eguingo eztabenic. Bein bicio onetan itsutu ezque-
10 guero, lenago eguiatiac, finac, berba onecoac, moduzcoac, lotsatiac cirianac,
guero eguiten dira guzurtiac, azartuac, lotsabagueac, ernegatuac, citelac, bi-
raoti ac, juramentuguillac.

Bada, euren guraria ta deseoa cumplitzeagaiti esqueñiten dabe asco,
baña cumplitu guichi; eguiten dituez milla juramentu, promes ta esquentza,
emon eun berba; baña eurena eguin ezquero, eztabe eceren conturic; eztabe
15 berbaric, esanic, juramenturic betetan; guztia austen <253> dabe; eztazaue
adisquideric; eztauque lotsaric; chanchetaco gauzatzat artzen ditue juramen-

32-5 *beguirunic*: cf., ostera, *verbaeguicune* (0-39) edo *beguiracune* (2-34), eta batez ere *beguirune* (28-49 eta 34-62).

32-6/7 *icusi zan leguez Amnon ta Absalon... ta beste aguintari ascogaz*: aipu labur honekin kito egiten ditu Añibarrok Absalonen istorioa (*GGero* 349), San Pablok korintiarrei egin zien errierta (*ibid.*), Neronen aldrebeskeriak eta, hau dela eta, Axularrek kastitateari buruz egiten dituen gogoetak (*ib.* 349-350), baita Ingalaterrako Henrico zortzigarrenaren adibidea ere (*ib.* 351); ik. § 3.3.

32-7 *Ezta erneguric...*: jauzi handiaren ondoren, Axularren honako honi darraio: *Hirurgarren caltea da. Ezta arneguric...* (*GGero* 351).
guzurric: gainean erantsia.

32-9 *berba onecoac < hitz onetaco* (*GGero* 351); ik. § 5.1.1.4.

32-13 *dituez*: gainean, *dabe*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *eguiten dute milla iuramentu* (*GGero* 351) eta ik. § 5.1.2.7.

tu beneragarrienac. Alacoz ece, etorri zan Platon esatera, euren jainco utsac bere disimulatzen cituela amurutsu amorenteen juramentuac eta promesac. Eta gaurco egunean ezta cer fiatu alacoen juramentuetan. Bada, amancebatúac euren atseguíñen billa dabilz, ta ez euren juramentu ta promesen cumplitzeaz.

2 §.

Desonesqueriaco bicioaz itsutu ezquero, len pacienciadunac, maite-tsuac, baquezaleac cireanac bere, guero eureena eguiteagaiti datoz izatera traidoreac, biotz gogorrecoac, crubelac, gogorrac, iltzalleac ta citelac. David erreguea zan len ain santua, ona, biguna, biotz-beraa ta erruquiorra, eta bere arerioric andienai beti on eguiten ta parcatuten equiana; jausi ezquero desonesqueriaco pecatuan, beste bat cirudian; ta etorri zan il eraguitera Urias bere adisquide maitea ta capitai leiala, bere emazteaz ezcontzeagaiti.

Jacobo ermutar penitente santua, urte ascotaco penitencia latz arrigarrriac eguin ezquero, deabru ta araguiaren tentamentuac benzutu ezquero dempora luceetan, milagro miragarriac eguin ezquero, azquenean jausi zan pecatuan berac osatu eban emacume bategaz; ta bere pecatu lotsagarria esaltzeagaiti, il eban andracume au; baña guelditu zan ain damuturic pecatu eguiñaz ce, sarturic sepultura baten, igaro cituan zazpi urte, zulo batic jateco pusca bat emoten eutseela nosic bein.

Emen esan guíñei Jesu Cristo gure Salbaguille maiteac Calvarioco bidean Jerusalengo alabai esan eutseena: Au jazoten bada egur eceaz, arbola frutudunaz, cer guertaco da egur igarraz? Baldin David erreguea ta beste santu asco, aimbeste demporan egon izan cirianac <254> benzuten euren gríña charrac, goiartuten araguiaren tentamentuac, eciten euren gurari gaistoac, eguiten penitencia nequezcoac, gau ta egun oraciñoan, oneec guztioac araguiac itsuturic ta zoraturic jausi bacirian pecatuan: cer jazoco da Jangoico-

32-17 *jainco*: leh. *jaincoac berac g*], ezabatua; cf. *Iaincoec ere dissimulatcen cituztela* (GGero 352); *jainco* formaren erabilera bereziaz, ik. 19-23. oh.

32-18 *amurutsu amorenteen* < *amurusen* (GGero 352).

32-19/20 *amancebatúac* < *amurus itsutuac* (GGero 352).

32-20/21 *atseguíñen billa dabilz, ta ez... cumplitzeaz*: cf. *bere placeren ondoan dabilzta, eta ez bere promesen edo iuramentuen complimenduaren* (GGero 352).

32-23/24 *pacienciadunac, maitetsuac, baquezaleac* < *amoltsu eta baquezco* (GGero 352).

32-27 *parcatuten equiana* < *barccatcen hari ceyena* (GGero 352); ik. 16-48. oh.

32-34 *andracume*: *aurrean ema*] (*emacume?*), ezabatua.

32-34/36 *baña guelditu zan... nosic bein*: Añibarroren eransketa, Axularrek ez bezala, haren geroko bihurketaren kontu eman beharrez (ik. § 5.4).

32-35 *batic*: ik. § 4.3.1.

32-36 *bein*: ondoan *zazpi oñeco sepultura baten*, ezabatua, geroko eransketa badirudi ere.

32-38/39 *Au jazoten bada... egur igarraz?*: Axularrek latinez bakarrik: *Si in viridi ligno hæc fiunt, in arido quid fiet?* (Luc 23; GGero 353).

45 az, munduaz, concienziar conturic euqui baga, debociño apur baga ta nai daben erara bici direanacaz? Eta cer, becatu eguiteco ocasiñoaren billa edo bertan sarturic dagozanacaz?

50 Ecin gueiangoan andia da aita batec bere semeari deusian amorio naturala; eta, orrez guztiaz, etorri dira guraso ascio euren semeac iltera, edo beste bategaz ezcontzeagaiti, edo besteaz pecatu onetan jausteagaiti. Catilina Erromaco guizon gaisto batec ez eucan seme batar baño; ta ori bere ya adinara eldua, obedillea, bere aguintuoa, ona, prestua ta ondo acia. Orrez guztiaz, betetzeagaiti bere gustu charra Aurelia erichon andra loi bategaz, il eraguin eban bere seme au. Cerren au bici zan artean, etzan beragaz batu gura Aurelia. Beste onemeste diño Elianoc jazo zala Lenilla erichan andra
55 andiquiaz. Emacume gaisto onec pecatu eguiteagaiti bere otsein serbitzari bategaz, salatu cituan bere seme propioac erreguearen aurrera, esanic bere traidoreac ciriala; ta andic eguiac edo guzurrez probanzac eguinic, il cituezan; ta guero, iñoren bildur baga gueldituric, amore itsuaz itsuturic bici zan amorentasunean bere otsein mutilaz.

60 Onegaiti diño Aristotelesec, ondo eguin ebeela lengo poetac, Marte ta Venus alcarregaz ezconduric; bada, Marte zan guizon guerraria, ta Venus emacumea, amorentasunaren erreguiña. Guerra ta amoreaz eguin cituezan senar-emazteac. Bada, amorentasunetic beti edo gueienetan erne, sortu ta jaioten dira guerrac, erriertac, icusi ecinac, auciac, testigantza guzurrezcoac,
65 gorrotoac ta enredoac. Amoreaz asten da, ta gorrotoaz azquendu: adisquidetasunetic areriotasuna jaioten da; amoreaganic, amorebagnetasuna. Emen da aguiri ce andia dan deabru gaistoaren asmua; bada, izanic ain contracorrac amoreta ta gorrotoa, adisquidetasuna ta areriotasuna, alcarregaz batu, bildu ta ezconduten ditu; bata besteaganic ateretan dau.

70 <255> Araguizco atseguin ta amorentasunean ezta icusten, ezpada danzea, barrea, jan-edatea, solasa; ta, orrez guztiaz, deabru asmutsuac gauza

32-50 *bacar bat*: aurean *bat bacarra*, ezabatua; cf. *seme bat baicen* (GGero 354).

32-51 *adinara* < *adinetara* (GGero 354); ik. § 5.1.1.1.

bere aguintuoa < *bere manuoa* (GGero 354).

32-55 *andiquiaz*: leh. *andiquia gaiti*.

32-56 *bere seme propioac* = GGero 354.

32-62/63 *Guerra ta amoreaz eguin cituezan senar-emazteac* < *Guerla eta amurusia ezcondu cituzten elcarrequin* (GGero 354).

32-65/66 *adisquidetasunetic* < *adisquidetasunetic* (GGero 355); ik. § 5.1.1.1.

32-66 *areriotasuna*: leh. *areriotasunera*, < *etsaitasuna* (GGero 355).

amoreaganic < *amoriotic* (GGero 355); ik. § 5.1.1.3.

amorebagnetasuna: aurean *d]* (*desamoreta?*), ezabatua, < *desamorioa* (GGero 355).

32-67 *contracorrac* < *differentac* (GGero 355). Cf. *VB contracorra* (c.) "contrario, opuesto"; beste bi agerraldi ditu hemen: izen gisa (41-138) eta izenondo gisa (53-83), beti 'kontrakoa' adieran; ik. § 5.3.3.

32-69 *bata besteaganic*: ik. § 5.1.1.3.

32-70/71 *danzea*: leh. *danza*.

- 75 guztioac moldean leguez aldatuten ditu bere aldera: amorea gorrotora, baquea guerrara, barrea negarrera, dantzea erriertara ta jolasa ta dantzatic, Herodesegaz eguin eban leguez, ateretan dau eriotzea. Onegaiti ciñoan Salomonec, atseguiniñaren ondo ta azquena zala atsecabea, naibaguea ta negarra. Amore mundutarrac berea eguiten dabenean, deseguiten da, gorrotoan biurtzen da. Au da aci onetatic sortuten [dan] garau ta frutua; bada, pecatu onec eguiten ditu aserrecorrac, gogorrac, guerrariac, len mansoac, umillac, bigunac, baquetiac cirianac.
- 80 Esaquizun ezta desonesqueriaco pecatuari darraiozan calteac. Eureetaric bat, ta ondo negargarria ta mina, da quendutea sosegua ta barruco baquea. Noc esan lei ceimbat naibague, atsecabe, ta ceimbat gau ta egun char igaroten dituan desonestu batec? Beti dabil tristeric, gogaituric, iguesca bere lagun prestuetaric; azturic bere eguin bearrac, loa galduric, bere artean erreric, aserraturic, beste guztiraco gogo bague. Beti darabil gogoan ea cer diñoen besteac beragaiti, icusi ete daben araco galaiaren echean sartuten, edo araco pecaturaco daucan lagunaz berba eguiten. Eta cerbait bere contra esan dabela enzuten badau, quiscaldu ta erreten da bere artean, gorrotoan sartuten da bategaz ta besteaz. Bada, gura leuque besteac bere itsuac bera leguez izango balira; eta iñoc ez ezagutu ta ez esan, ez oartu, ez icustea bere gauzaric.
- 90

- 32-72 *moldean leguez* < *imprentçua*z beçala (GGero 356) < *imprentsua*z (Gero 356). Añibarrok “belarriz” itzulia (ik. § 5.3.4), *inprenta*-rekin lotuaz (cf. OEH, s.v. *molde* 6); *inprentzua* ‘binperra, atzeko alde’ da, eta esapideak ‘alderantziz’ esan nahi du.
- 32-73 *dantzea erriertara*: Añibarroren eransketa, eta ez oso zoriontsua, zeren hurren dantza berriz aipatu beharra baitu, Axularrek bezala.
dantzatic: ez da ondo ikusten, *dantzetic* ere izan liteke (cf. § 5.1.1.1), baina irakurketarik arruntena hobetsi dut, Urquijok (1931: 618) bezala: cf. *dantzatic* (40-25).
- 32-75 *ondo ta azquena* < *fina eta ondorea* (GGero 356); ik. § 5.3.4.
- 32-76 *gorrotoan biurtzen* < *desamorio bihurtzen* (GGero 356); ik. § 5.2.4.
- 32-78/79 *baquetiac* < *baquezcoen* (GGero 356).
- 32-79 *cirianac*: puntu eta aparte honen ondoren, lehenbizi atal zenbakia (3.§.), eta gero *BU-
RUA*, biak ezabatuta. Ertzean ageri den orrialde zenbakia (357), Axularren XXXIV. kapituluaren hasierarekin bat dator, baita ondoko testua ere (ik. § 3.3).
- 32-80 *Esaquizun ezta*: Añibarrok erabili ohi duen esapidea (cf. *MisE* 84, ap. OEH, s.v. *esan-
kizun*).
pecatuari: *becatuari* ere irakur daiteke, Urquijok (1931: 618) egin bezala, goranzko eta beheranzko buztanak baititu, baina zati honetan berariac darabilen aldaera (ik. 24-48. oh.) hobetsi dut.
- 32-81 *quendutea sosegua ta barruco baquea*: nori kentzen zaion, Axularrek agerian zioen: *ecen emazte guiçacoiac eta guiçon emacoiac, presuna putanerac eztuela deusetan ere soseguric* (GGero 357).
- 32-85 *darabil*: aurrean *dabil*, ezabatua.
- 32-86/87 *icusi ete daben araco... berba eguiten*: Añibarroren eransketa; Axularrek *Iccussi othe
naute?* baino ez dakar (GGero 357).
- 32-87/88 *esan dabela*: gainean erantsia.
- 32-90 *esan*: leh. *esatea*.

Guztia darabilde aotan, guztiai deriche deungaro aren bicimodu escandaloso; batat alde batic, besteac bestetic salsa nastuac, esamesac darabildez aren contra. Bere amoranteac bere ecarten deutzaz barri charrac: noc cer esan daben, celan ta cer diñoen; errian dabillan otsa ta cer esana; eta onela,

 95 direanac ta eztirianac dirautsaz bere <256> lagunác; bada, onelacoac ataraco dira obeac, ta ez bestetaco. Ce bicitza gaisto gogaituago, au baño? Atseguin labur arin bati ceimbat negar ta naibaguec darraioen! Emen infernua, ta guero beste munduan infernua. Larga, bada, pecataria, bicitza gaisto orri,

 100 larga lagun char ori, biurtu zaite bein edo bein Jangoico maiteagana, eguizu lengo gaistaquerien penitencia, issildu eguizuz ceure conciencia orren deardarrac, deiac, quisquetadac confesiño general guztiroco baten bitartez, ta artu eguizu gogoan orain urrengo buruetan emotera noatzuzan erremedioac urteiteco bicio ezain lotsagarrizco orretaric.

-
- 32-91/93 *Guztiac darabilde... aren contra:* ikuspuntu ezezkorra Añibarrorena da; Axularrek neutroago kontatzen du: *Guztiac, batat alde batetic eta bertcea bertetic, saltsa nahasten eta iratioicen dute, guztia hariçaz miniço dira* (GGero 358).
- 32-92 *batic:* ik. § 4.3.1.
- 32-93 *barri charrac:* lehengo bidetik (ik. 32-91/93. oh.); Axularrek *berri franco* dio (GGero 358).
- 32-95 *direanac ta eztirianac < direnac eta eztirenac* (GGero 358).
- 32-95/96 *ataraco... bestetaco < hartaco... bertcetaco* (GGero 358); ik. § 5.1.1.9.
- 32-96/103 *Ce bicitza...:* hemendik hasi eta lerrokada bukaeraino, dena Añibarroren burutik aterra da. Axularrek ataltxo honen bukaeran (GGero 358) gizon ezkonduak emaztea utzi eta beste batekin ibiltzea gaitzesten du.
- 32-101 *general guztiroco:* esanahikideak dira (ik. § 5.3.1).
- 32-102 *noatzuzan:* hiru pertsonakoa, erlatibozkoaren burua (*erremedioac*) barneratu beharrez.
- 32-103 *urteiteco:* cf. *urteite-* (43-184, 50-72, 50-104, 51-43, 54-4 eta 54-73), askoz maizago darabilen *urtete-*ren aldean (6-2, 8-191, 11-36, 50-62, 50-108, 54-189, etab.).

33. BURUA

Lenengo erremedioa, bidea ta bitartecoa araguzco pecatuaren contra da oraciñoa.

5 Desonesqueriaco pecatuaren contraco erremedio ta osagarriac emotera
asi baño len, esan gura dot gauza bat, ta ifini ta para eguiazco cimendu sen-
do bat. Eta da, lujuriazco pecatu desonestuan ez jausteco, bicio onetari-
c igues eguiteco, araguzco pecaturic aldeguiteco, gorputz ta arimeco castida-
de edo garbitasuna gordeteco ta garbi irauteco, Jangoicoaren bearra dogula
10 ta bere doia, emoitza, gracia ta mesedea dala. Eta gracia ta laguntasun au ba-
gue, alperrac ta utsac direala gure aleguin ta indar guztiac.

San Ambrosioc diño: Ezta, ez, doncellatasuna, virgindadea diruaren pi-
suz ta balioz erosten dan doea, ez eta gure indarrez, al ta birtutez irabazten
dan gauza; bada, araguiac aragua benzututea, naturalezac naturaltasuna az-
piratu ta goiartutea gach da, lan andi nequezcoa da. Onetaraco besteren la-
15 guntza, naturalezaren ganean escua, escubidea, aguintaritzta dabenaren bea-
rra dogu. Eta alan, jaquinic bego edocein, ezabela araguiaren contra bitoria
osoric irabacico, berac <257> beragan bere indarretan fiatuten dabenac.
Ezagutu bear dau, bera baño bere arerio au indartsuago dala; ta Jangoicoari

33-4 *erremedio ta: ta gainean erantsia.*

33-4/5 *emotera asi < emaiten hasi (GGero 363).*

33-5 *ifini ta para < ibeni eta pausatatu (GGero 363).*

33-12 *doea: eta doia (cf. 33-9, 33-23), biak erabiltzen ditu.*

33-13 *benzututea: leh. benzutea.*

naturalezac naturaltasuna < naturaleçac naturaleçaren (GGero 363); ik. § 5.5.1.

33-16 *bego edocein: gainean, zagoz-en orde; cf. iaquin ahal deçaque bat bederac (GGero 364).*

33-17 *berac beragan... fiatuten dabenac < bere ahalean fidatcen deino (GGero 364); fiatuten
ez da inoiz inon adiera honetan iragankorra izan (cf. OEH, s.v. fidatu): Añibarroren
oharkabeko hutsa bide da.*

20 escatuten ezpadeutso bere laguntasuna, faborea, gracia, calteturic gueratuco dala, goiarturic, benzuturic gueldituco dala.

25 Au da eguia garbia; ta egui au ezaguturic, esan eban Salomonec: Jaquin, oartu ta ezagutu nebanean ecin egon nintequeala jausi baga, Jangoicoac eutsi ta gordeten ezpaninduan; ta au jaquitea Jangoicoaren mesede ta doia zala; joan nintzan bertati berari erregutu ta escatutera, esaten neutsala bere escuric euqui nenguiala, jaustetic gorde nenguiala ta bitoriaz guelditzeco emon eguidala indarra ta gracia. Onela, eguiaren barria equian leguez, San Agustinec Jangoicoari eguin eutsan oraciño, esaten eutsala: Jauna, zuc diñozu gorde daigula castidadea, garbitasuna; indazu, bada, aguinduten dozuna, ta guero aguindu eidazu gura dozuna; aguindua leguez, emoizu aguindua cumpli, betetzeco ta gordeteco indarra; bada, alan bai, baña bestela ecin cumplitu, ecin gorde nei.

35 Bada, araguizco pecatuan bein edo bein, aldez edo moldez, eguitez, icustez, esatez, gogoz, escuz edo bestela jausi ta loitu bague egotea, Jangoicoaren doia, emoitza, mesede ta gracia bacarra da; gueuc gueure indarrez ecin alcanzau guiñei, ta beragaiti contuan, irazarric, zur, zoliric egon bear gara; ta ez jausteco aleguin guztiac eguin bear doguz; abe, cimentu, sostengu ta erremedio bitartecóac artu bear doguz.

40 Eta lenengoa izan bedi oraciñoa. Gueugan danez indarric ez dogula ezaguturic, Jangoico maiteari escatu bear deutsalagu lagundu daigula ta esana emon, jausi ez gaitez. Onetaraco baliatu bear gara Ama Virgiña castidade ta garbitasunaren Erreguiñaren bitartetasunaz. Bada, Dotore Santu batzuc diñoen leguez, Virgiña Ama Mariac, munduan bici zanean bere, beragaz baliatzen cirianai, quenduric <258> euren pensamentu ta gogoeta charrac, aren lecuana emoten eutseezan gogoraciño ta pensamentu garbiac, ta garbi biciteco gurari ta naicunde andi batzuc. Munduan bici zala au eguiten baeban Ama Virgiñac, cer eguingo eztau orain, Ceruan dagoala gloria ta escubide andiaz bere debotoacaz, berari escatu ta erregututen deutseen debotoacaz? O zu, munduco ichaso bildurgarri onetan bici zareana, diño San Bernardoc, ceure

33-19 *calteturic* < *caltiar guertatu* (GGero 364).

33-20 *benzuturic*: jat. *benzututuric* (arg. zuz.); hutsa lerro artean gertatzen da: *benzutu/-turric*, alegia.

33-32 *aldez edo moldez* = GGero 365.

33-34 *gracia bacarra*: cf. *Iaincoaren donua eta emaitça* (GGero 365).

33-40 *jausi ez gaitez*: lerro artean Añibarrok hauxe dio: “dic: consider^{on} de la Pasión de Jesus Sacram^{do}, petición del Pater ntr. et ne non inducas in tentationem”; Urquijok (1931: 620) *ne nos inducas* irakurtzen du: ez da eskuizkribuak dioena, baina bai esan behar lukeena, oso oker ez banago.

33-47/61 *O zu, munduco ichaso...*: hemendik eta buruaren bukaerarainoko guztia Añibarrok da, Axularrek betiko laburbiltzea egiten duen bitartean (cf. GGero 366, azken bi letrorakadak).

50 tentamentu deungueetan, deitu Maria Santisimari; araguiac tentetan zaitue-
nean, gorputzeco griña gaistoac esetsiten deuntsuean, deabruac galdu gura
zaituanean, beguira Maria Santisimari, deitu eguiozu biotz-biotzeti, bai ta
bere esposo San Jose maiteari; ta ondo enzuna izango zara: enzungo deuntsue,
lagunduco deuntsue, escua lucetuco deuntsue. Escaria berau eguiezu ceure An-
55 gueru Zainari, San Miguel ta angueru ta Ceruco santuai, ta ateraco zaitue
loitu, ezaindu, jausi bague desonesqueriaco pecatuan.

Baña ezta asco oraciño eguitea Jangoicoari ta santuai; oraciñoari lagun-
du bear deutso bicitza on garbi batec: aldeguin bear dira becatuzco ocasiño-
ac, lagunac, bideac, arriscuac; ez joan len jausi zarean eche zorigaistocora;
ez batu len pecaturaco euqui dozun adisquide gaisto tentaguilleaz. Orduan
60 Jangoicoac enzungo ditu zure oraciñoac; orduan libratu ta ateraco zaitu gal-
bidetic; orduan gordeco dozu garbitasuna ta castidade lora eder preciatua.

34. BURUA

*Bigarren erremedio[a] ez jausteco araguzco pecatuan, da
pensamentu ta gogoraciño gaistoai lecuric
ez emotea.*

5 1 §.

Bigarren erremedioa, ta erremedio ona, autua ta segurua jausi gura eztabenentzat lujuriazco pecatu desonestuan da artaraco pensamentuac, gogoraciñoac, gurariac ta tentaciñoac datozanean, atea ichitea, pensamentuari lecuric, ez ostaturic, ez emotea. Sua biztu barria edo chiquia danean, erraz da amatau ta atsemotea; eta bai landara bat bere chiquerra danean birlandatu, aldatu edo ateratea. Pensamentu, gogoeta deungue edo tentamentu <259> gaisto bat, lenengoan erraz laster quendu lei; baña indarra arturic, belu, berandu edo nequez.

15 Gogoraciñoetaric, pensetan egoteric etorri dira pecatu guztiac, ta guztiz bere araguiarenac. Andic asi, sortu, erne, jaioten dira; arec dira sustraiac, erroac, mentuac, landarac, esate-eguite guztien ugazamac. Beragaitic euren asieran, jaiotzean, biztuten direanean ebagui bear dira, anditu, aci ta gueitu

34-6 *autua* = *GGero* 367.

34-10 *birlandatu*: gainean erantsia, < *birlandatceco* (*GGero* 367).

34-11/13 *Pensamentu... edo nequez*: Añibarroren eransketa.

34-14 *etorri dira* < *heldu dira* 'datoz' (*GGero* 367); ik. § 5.3.4.

34-15 *arec*: ez da ezinezkoa, baina bai ezohikoa Añibarroengan; itzulpen honetan, zehazkiago, gainerako guztietan *aec* forma erabiltzen du (ik., adib., 0-42, 7-44, 13-23, 19-31 edo 28-22).

34-16 *esate-eguite guztien ugazamac*: Añibarroren eransketa.

euren: aurrean *bere a]* (*asieran?*), ezabatua; halaz ere, oraingoan ez da Axularren eraginez (ik. § 5.1.2.4), honen esaldia aski ezberdina baita: *Hec, beraz, behar dira handitetic beguiratu* (*GGero* 367).

34-17 *direanean*: jat. *direaneac* (arg. zuz.).

20 baño len. Soldaduac erri edo eche baten bein sartu ezquero, gura dabena eguiten dabe; au berau jazoten da pensamentu, deseo edo gogoeta desonestu batec gogoan ostatu artu ezquero, an bein sartu ta guelditu ezquero, lecuá segurutu ezquero.

25 Su chatar chingar bat lenengo laster amatetan da, ta batzuetan bera berez; baña bein indarra artu ezquero su ta garrac, ez zu, ez erri guztia, ezta asco amatetaco. Alan, zuri bere jatortzunean araguzco tentamentu, griña, gogoraciño bat, bereala bota, urrindu, aldeguin ta ceuganic egotzi bear dozu; bada, bestela lana izango dozu quentzeco.

30 Egun baten itandu eutseen Frai Gil Aita San Franciscoren lagun santu bati, ea celan quenduten cituan araguzco tentaciñoac, deseoac ta pensamentuac. Eta eranzun eban: Nire borondatearen ateac joten dituenean pensamentu gaistoac, dirautseet: Ea tentaciñoac ta tentaguilleac, zoace aurrera; eztago emen zuentzat ostaturic, ez gueldilecuric; gura eztot zuec citeloc nire eche barruan sartutea; zoace campora ordu gachean; icusi, ez beguiratu, ez zuecaz egon gura eztot. Onela igues erazoten deutseet: ez nabe ni goiartu ta benzututen, baña bai nic eurac Jangoicoaren laguntzaz.

35 Datortzunean pensamentu gaisto bat, badazazu pensamentu char orretan zagozala, ta eguin baga aleguin guztia quentzeco, gueldituten bazara borondatez ta jaquinaren ganean pensamentu desonestu orretan, artan atseguiña artu edo gogoá darabiltzula, gai onetan pecatu mortala eguiten dozu, pecatu eguitezcora igaroteco gogoric edo deseoric ez euqui arren. Bada, pensamentua bera bacarric da asco pecatu eguiteco, gueiagora elduteco gogo ta
40 boronda[te]ric ez euqui arren, teologuac iracasten daben leguez.

45 Orregaiti diño San Geronimoc, galtzen dala gogoz bere doncellatasun <260> edo virgindadea, gorputzecoá ezpada bere, baña bai arimacoa. Eta Casianoc ciñoan: Eztaquit emacumaren barriric, baña alambere ez nago doncella. Bada, Jesu Cristoc San Mateoren aotic diñoalez: Andracumeari deseo charraz beguiratuten deusnac, beragaz pecatu eguiteco, ya pecatu eguin dau bere gogoan, bere biotzean. Au alan consideraturic ta oni erremedioa emon gura izanic, diño San Gregorioc: Gogoraciño loi gaistoac aldeguiteco

34-18 *dabena*: jat. *debena* (arg. zuz.).

34-30 *tentaciñoac ta tentaguilleac* < *tentagarriac* (GGero 368).

34-31 *gueldilecuric* < *pausa leccuric* (GGero 368).

34-33 *igues erazoten*: *erazo eraguin*-en ordez (ik. § 4.4.2).

34-35 *Datortzunean pensamentu gaisto bat...*: Axular zehatzagoa da: *Ethortcen çaitçu gogora behar ezten emaztea eta berequico placera...* (GGero 368).

34-42 *doncellatasun*: *don*- orripeko oinean bakarrik agertzen da.

34-43 *gorputzecoá ezpada bere, baña bai arimacoa*: Añibarroren eransketa.

34-44 *emacumaren*: leh. *emacumeren*; cf. *emazteren berriric* (GGero 369); ik. § 5.1.1.4.

34-44/45 *ez nago doncella* < *ez naiz virgina* (GGero 369).

50 ta areen bitoria irabazteco bideric onena, lasterrena da ez eurai lecuric emotea lenengotic; eta gogoa beste gauza batera zabaldu ta eroatea.

55 Gure gogoa ecin egon diteque certan edo artan pensatu baga. Contuan, bada, egon bear gara icusteco, oartu ta beguiratuteco ea cetan dan gure gogoa; eta, baldin badago bururatu ta gogoratuten gauza deungac, ichi ta larga orreec, eta artu beste gauza on batzuc. Gorde eguizu, bada, ceure gogoa araguizco pecatuac pensatuteric; bada bestela, ataric etorrico jatzu atseguin artzea; atseguin artzetic deseoa; ta deseotic, esate-eguite gaistoetara igarotea. Calte guztioac dauque asierea, lenengoan pensamentuari lecu emoteric; emendic pecatuari ostatu emotea, ta pecatuac sustraiac bota ta andiago eguitea.

60 Artu eguizu, bada, bigarren erremediotzat, pensamentu deungai ez lecuric emotea; asmetan dozuzanean ceuganic bertati ezartea; ez bicilecuric ceure biotzean emotea; beguirune charraz beguiratutea; arpegui onic, ez beguirarteric ez eracustea; ordu gachean botatzea, atea betico ichitea.

34-49 *areen bitoria irabazteco* < *harenganic victoria erdiesteco* (GGero 369).

34-61 *dozuzanean*: leh. *dozunean*.

ezartea: botatzea.

34-62/63 *beguirarteric ez eracustea* < *beguitarteric ez eguitea* (GGero 370); *beguirarte*: ik. 22-90. oh.

34-63 *betico*: aurrean *ichi*] (*ichitea?*), ezabatua; bukaerako *ichitea* puntuaren ondoren erantsi da; beraz, hasieran *atea ichi betico* zioen.

35. BURUA

Irugarren erremedioa araguzco pecatuaren contra da borondate oso bat euquitea, ez alacoric eguiteco.

5

1 §.

Ez jausteco desonesqueriaco pecatu loian ta, jausi ezquero bere, jaguiteco bide ta bitarteco ona ta ecin gueiagoan ohea da, artutea gogo, asmo, borondate ta propositu irme sendo eguiazco bat, ez alacoric eguiteco beimbere. Erremedio ta osagarri au da ain andia ta ain bearra, ce berau bague alperrac, utsac, baliobagueac dira beste guztiac. Jangoicoaren aldetic bear da bere gracia ta laguntasuna; ta guretic gure gogoa ta borondatea, ez pecaturic <261> eguiteco.

10

Becatu onetan sarturic zagozanean, arriscu andia dozu condenetaco; ta eztago beste bideric seguruan ifinteco ceure salbaciñoa, ezpada artzea borondate eguiazco bat, aldeguiteco pecaturaco dozun lagun gaisto orreganic. Datorrenean jubileo bat, edo jai andi bat, edo garizumea, icusiric galdua zareala orrela biciric, eguiten dozu confesiño general bat uts eguite guztiena, propositu sendo bategaz, lengo pecatura ta lagunagana ez biurtzeco. Eta andic aurrera alan cumplietan dozu; etzara gueiago biurtzen. Au ondo dago.

15

20

Baña, ichite au, amorangeanic aldeguite au, celan edo ce modutan eguingo dozu? Onez onera, areriotu baga, ala aserraturic, arerioturic? Baldin

35-10

alperrac, utsac, baliobagueac < alfer (GGero 370). utsac: jat. utsat (arg. zuz.).

35-13

Becatu onetan sarturic zagozanean < Emazte batequin beccatutan çaudenean (GGero 371). Lerrokada bukaeraraino jatorrizkoan emakumeari buruz diren aipu guztiak, edo ezabaturik, edo lagun-ez ordezkaturik daude (§ 5.4.4).

35-16

jubileo < iubilio (GGero 371).

35-20

ichite au, amorangeanic aldeguite au < utzte haur, amorangeanic apartatce haur (GGero 371); ik. § 5.2.2. amorangeanic: leh. amoreteaganic (ik. 31-46. oh.).

areriotuten bazara, aror non dozuzan bertati amorantearen aldetic milla bi-
 rao, madaricaciño, esa-mesa, burla, desonra ta cer esan andiac; zorroztuco
 25 dau zure contra bere miña, dedar ta negar eguingo dau, eztau iñoc issilduco.
 Eta, baldin areriotu bague, ta gorroto ta aserrea etorri bague, onez onera lar-
 gatzan badozu, lanac, gachac, pelligruac, aldatsac datoz. Bada, gach da le-
 nago adisquide gaistoaz ibilli ezquero amorentasunean, irautea lengo pecar-
 tura biurtu bague. Ezta ori ain erraz nola zuc uste dozun.

Onen ganean, gauza bi esan gura ditut. Lenengoa: baldin aserratu bague,
 30 areriotu bague ecin apartau bazara ceure lagun desonestu orretaric, gai one-
 tan ausi eguizu bere adisquidetasuna, ebagui eguizu bere tratua, areriotu zai-
 te ordu onean. Eta orduan, icusi arren emacume edo guizacume ori gorroto-
 an sartzen dala zure contra edo gaissotuten dala, ez eguizu jaramon, ez dozu
 35 cer icusiric ceure conciencian. Bada, aren gorrotoa, icusiecina ta gacha bere
 ganean izango da, ez zurean. Zugaiti deunguero badiño, irunsi ta sufritu
 eguizu, cerren alan mereci dozun. Alaco eztegiuetan alaco zopea; alango
 eguiteac alango ondaquinac; atseguin igaroac naibagueac dacardez.

<262> Bigarren esan gura neuqueana da: baldin ceure lagun gaisto orre-
 ganic, ceure galai edo amorante orreganic adisquidetasun onean, areriotu ba-
 40 gue, gorrotoric artu bague, baquea ausi bague ta becatuari bide guztiac ichi-
 ric aparta al bazaite, alan eguin daizula. Baña eranzungo deustazu: Celan
 aldeguingo nas areriotu bague? Ezta gach, ezta ecin daitequen lana, baldin
 bioc, gaistaqueriaraco lagundu ta alcartu zarean leguez, gogoz artzen bado-
 zue ontasunean bere laguntzea; ecinbestez baño bata besteaz ez icusiric ta al
 45 dan guztian alcarreganic alde eguinic.

35-22 aror non < horra non (GGero 372).

35-23 esa-mesa: leh. esan edo, < erran-merran (GGero 372).

35-26/28 Bada, gach da...: lerrokada bukaeraraino, Añibarroena da gehiena; Axularrek hau
 dio: *Ceren lehen trebatuac içan, eroriac içan; lehen beçala elccarrequin egoiten,*
ibiltcen, minçatcen; occasinoac ere lehen beçala edo maiçago presentatcen eta
guerthatcen; gogo urri, aldatcen erraz; eta emazteac ere behin guerthatuz guero,
ez falta equidin. Bada eguiteco, bada certan pensa. Badirudi hobe liçatequeyela,
gaitcetaric [sic] eta hasserreturic partitcea eta elccar utzteca (GGero 372).

35-28 nola: ik. 1-80. oh.

35-32 emacume edo guizacume ori < emazte hura (GGero 372); ik. § 5.4.4.

35-33 edo gaissotuten dala < edo gaitcez iartcen dela (GGero 372); ik. § 5.3.4.

35-36 Alaco eztegiuetan alaco zopea < Halaco ezteyetan halaco çopac (GGero 372).

35-38 neuqueana: leh. neuquena.

35-43 bioc: aurrean *bi lagun*], ezabatua; cf. *baldin partiba bioc (GGero 373)* < *partida (Gero*
 373).

zarean: ik. 8-237. oh.

35-44 laguntzea: jat. *laguntzen* (arg. zuz.). Axularren esaldia bestelakoa da: *gaixtaquerian*
içan çareten beçala, ontasunean accort baçarete, nola içaiteco baituçue (GGero
 373).

35-44/45 ecinbestez baño... alde eguinic: Añibarroren eransketa.

- 50 Ceure gogo ta biotzean erabagui dozunean debociñora, birtutera, Jangoicoaren gauza onetara emotea, pecatu guztietaric ta batez bere desonesquericoric igues eguitea, esaiozu zure lagun orri: Acabatu dira gure ibillera gaisto guztiac; erabagui dot neure Jangoico maitea serbiete. Berandu bada bere, ezagutu dot zu ta ni galduac goazala lengo pecatuari jarraituric; eriotza char bat eguiteco bidean gabiliz. Eta alan, gueure arteco ezagutza ta tratua alde eguin bear dogu; apartau bear gara; ta emendic aurrera (ganeracoan adisquide gueldituten gareala) alaco traturic bague, garbi ta ondo bici bear gara.
- 55 Nic alan gura neuque; alan erabagui dot; gogo artu dot; zuc bere artuizu. Eta jaquin eguizu, ez dozula emendic aurrera cer gueiago berba eguin alaco eguitecoz nigaz: bada, nic orainganic betico adio ta despedidaco agurra eguiten deutseet lengo gauza charrai, ta bai zuri bere. Au guc eguiten badogu, beste ascori bere egemplu ona ta bidea emongo deutseegu, guc leguez largatzeco adisquidetasun desonestua. Aramen non dozun erremedio on bat,
- 60 alan arimaraco, celan gorputzeraco ta munduraco; alcarregaz gomutauric ta berba eguinic, ta aserratu baga, alcarreganic apartetaco, ta ez becuraco langundeteco. Batez bere iñoc ezpadaqui zuen lenago[co] tratu gaistoa.
- 65 Baña, len munduac daquiela pecatuan egon direanac, icusiric orain larga dabela pecatua, eztabe andic aurrera len leguez alcarregaz ibilli, jan, edan, solastu ta lagundu bear, ezpada premiñac bearturic. Batetic, ocasiñoc ocasiño barria biztu eztaian; ta, bestetic, escandaloric emon eztidin; ta mun-

-
- 35-47/48 *desonesquericoric*: jat. *desonezquericoric* (arg. zuz.).
- 35-48 *eguitea*: jat. *eguitera*, leh. *eguitea* (arg. zuz.).
esaiozu: leh. *esaizu*, < *erran behar dioçu* (GGero 373).
- 35-48/50 *Acabatu dira... Berandu bada bere*: Añibarroren bertsioa; Axularrek kontu gehiagorekin esango ziokeen: *Iaincoac daqui nola, nahia baicen ezpaliz, nahi nuqueyen oraino beçala, hemendic aicina ere çurequin egon, ibili, bici eta seguitu. Baina humela içaitera, badacusat ecen...* (GGero 373). Hemendik aurrera berdintsu jarraitzen dute biek.
- 35-56/57 *alaco eguitecoz* = GGero 373.
- 35-57/58 *adio ta despedidaco agurra eguiten < adio erraiten* (GGero 373).
- 35-58 *deutseet*: jat. *deutseec* (arg. zuz.).
- 35-58/60 *Au guc eguiten badogu... adisquidetasun desonestua*: Axularrek oso bestelako kontua aipatzen du hemen: *Eta orduan bertceac* [hots, zure amoranteak] *ere, çuc beçala erraiteco luque eta eguiteco. Eta uste dut gutic falta leçaqueyela, baldin alde batic edo bertetic, humelaco bidetic molde onez idequi baledi* (GGero 373-374).
- 35-61 *alcarregaz gomutauric < elccarrequin accordaturic* (GGero 374), baina 'ados jarri' adieran darabil Axularrek; ik. § 5.3.4.
- 35-63 *Batez bere... gaistoa*: Añibarroren eransketa.
- 35-64 *direanac*: jat. *direanac eta* (arg. zuz.); *eta* hau Axularren perpausaren hondakina baino ez da: *Ordea lehen munduac daquiela beccatutan egon direnec, eta beccatuaz denaz beçanbatean elccar utci dutenec, eztute handic harat lehen beçala...* (GGero 374).

duari adietara emoteco ez dala aen artean lengo conturic, ez pecaturic. Bada,
 bearturic gagoz egemplu ona emotera guztiai; ta eracustera munduari cristi-
 70 ñau fededunac gareala; ta ori ez zure santutasuna aguertu dedin, ezpada, zure
 bicitza garbia icusiric, bestéac Jangoico[a] alabatu daientzat. Baita, bada
 iñor zu leguez donguero bici <263> izan danic, arturic zure egemplu ona,
 ichi ta larga daizan bere tratu charrac, adisquidetasunac ta lagun gaistoac; ta
 75 animatu dedin bera bere, zuc artu dozun gogo ta borondate ona artutera; ta
 zuc leguez largatzera pecatuzco ocasiñoac, arriscuac, bideac ta gaistaque-
 riac.

2 §.

Desonesqueriaco pecatu loi lotsagarriaganic aldeguiteco gogo ta boron-
 datea ain bearra da zartasunean, cein gaztetasunean. Bada, gogoaren aldetic
 80 ain urrean, ain arriscu ta peligru andian dago zarra, cei[n] gaztea. Persona bat
 danean ordia, prestueguia, gastatzallea, jan-edanera ta desonesqueriara emona,
 esan oi da alangoagaiti, ichico dituela demporaz araguzco gaistaqueric,
 baña ez ardao[a]ren aficiñoa ta bicioa. Bada, urteacaz oztuten da odola, argaldu
 gorputza, baña ez onela edatea. Baña, jaquin eguizu, gaztetan deso-
 85 nesqueriari emona zana, bicio onetan zartu ta oitu dana, zartzaroan bere
 gueienetan orretara emoten dala: ez obraz, baña bai gogoz. Gogoa ezta agur-
 ratuten, atsotuten, beti da gaztea; ta gazte demporaco ecanduac zartasunean
 bere biztuten dabe, zaletuten dabe gogoa.

Zarrac pecatu guichiago eguiten badau bere obraz, baña guichiago ori
 90 eguiteco gogoa beragaz dau. Eta au da, San Gregorioc diñoan leguez, dea-

-
- 35-68 *adietara emoteco*: ik. 10-32/33. oh.
 35-72 *donguero*: *aurrean bi] (bici?)*, ezabatua; cf. *baldin bada nehor, çu ceneunden beçala dagoenic* (GGero 374).
 35-78 *Desonesqueriaco pecatu loi lotsagarriaganic < Emaztetaric* (GGero 375); ik. § 5.1.1.3.
 35-78/79 *borondatea*: *ondoan ez bacarric*, ezabatua; cf. *hain ongui hartu behar da çahartcean, nola gaztean* (GGero 375).
 35-80 *ain urrean*: cf. *bada hurran-hurran hanbat peril çahartcean nola gaztean* (GGero 375), hots, 'ia-ia'; ik. § 5.3.4.
 35-81 *jan-edanera*: *ondoan emona*, ezabatua; Axularrek hauxe dio: *...denean hordi eta emacoi, ian-edanera eta emaztetara emana* (GGero 375), hots, bi zati, bata bestearen azalpen. Itzulpenean ez da bikoiztasun hau antzematen, geroko ideiarako ezinbestekoa izan arren.
 35-83 *baña ez ardao[a]ren aficiñoa ta bicioa < baina ez edatea* (GGero 375).
 35-84 *baña ez onela edatea*: Añibarrok izentzat hartu du jatorrizko *edatecoa*, testuinguruan 'edateko indarra' bada ere: *Ceren emaztetaco indarra flacatuco baitçaica, baina ez edatecoa hala* (GGero 375).
 35-86/87 *ezta aguratuten, atsotuten*: Añibarroren eransketa; cf. *Ceren gogoa bethi da gazte* (GGero 375).
 35-89/90 *guichiago ori eguiteco < guti haren eguiteco* (GGero 375).

95 bruaren asmua: obraz ecin eraguin dabenari, gogoz baño ezpada bere, pecatura eraguin ta ecartea. Zarra izanagaiti, baldin bere biotzean ecetasunic, aficiñoric badauca desonesqueriaraco, laster aguertuco da bere berbeetan, bere esate ta eguiteetan. Pecatu onetan ez jausteco, ezta asco adimentu ona ta indarrac euquitea; ezpada gogo ta borondate sendo bat ifintea, Jangoicoaren graziaz batera, ez alaco pecaturic eguiteco. Zorionecoa izango da, bicio onetaraco indarra joaten jaconean, ataraco gogoa bere joaten bajaco, otztu ta quenduten bajaco.

100 Eguia da zaartu ezquero, edade jausira eldu ezquero, odola oztu ta gorputza argalduten dala; baña ori beragaiti da ezainago ta gaistoago zartasuneco amorentasuna: dalaco gogoarena, naturaleza naibaguetuarena, forzatua, ocasiñobaguecoa, condenetaco señale adigarria ta Espiritu Santuaren contraco pecatuetaric bat. Alacoari esan leiquio Udo erichan bati esan jacona: Asco jocatu dozu, <264> desonesqueria asco eguin dozu; larga, bada, joco
105 gaisto ori, zartu zara, ez gueiago biurtu. Acaba jocoa, ceu acabatu ta condenatu baño len; larga zuc a, ac zu ichi baño len. Baña Udoc ez eban larga gura: eriotza char bateaz acabatu eban; ta zuri bere au berau jazoco jatzu, zartasunecan edolabere bicio onetaric alderatuten ezpazara.

110 Gogo artze au izan bear da sendoa, eraguin guillea; cerren bestela, ezteutsue ecer balioco, ez limosnac, ez barauac, ez eguite onac, ez urtez astundu-

- 35-91/92 *obraz ecin eraguin dabenari... ecartea < obraz ecin eraguin deçaqueyenean, gogoz bedere eraguitea (GGero 375). Ohartu dabenari horri, eraguin aditza batean NOR-NORK eta bestean NORI-NORK izatea eskatuko luke eta; anakolutua baino ez bide da, ostera.*
- 35-92/93 *ecetasunic, aficiñoric badauca desonesqueriaraco: cf. gogoa emaztetan badaduca (GGero 375-376).*
- 35-94/95 *ezta asco adimentu ona ta indarrac euquitea: cf. Eta hala beccatu hunetaric beguiratcea, eztago ez guztia adinean, eta ez indarrean (GGero 376), jorratzen ari zen ideiarene haritik, Añibarronean ez bezala. euquitea: leh. euquitean, Axularren joskerarekin bat.*
- 35-96/97 *bicio onetaraco: gainean erantsia, emacumeetaraco edo guizacumetaraco-ren orde; cf. emaztetaco indarra (GGero 376).*
- 35-97 *jaconean: jat. jacona (arg. zuz.). jaconari ere zuzen zitekeen, baina Axularren bidea hobetsi dut: ioaiten çaicanean, hartaco gogoa ere ioaiten çaicana (GGero 376).*
- 35-99 *zaartu: aurrean zartu, ezabatua; eta, halaz ere, forma honek ez du beste agerraldirik testuan (ik. § 4.2.2).
edade jausira < adin batera (GGero 376); cf. VB jausi (b.) “decaer”.*
- 35-100 *ori beragaiti: ik. § 5.1.2.3.*
- 35-101 *naturaleza naibaguetuarena, forzatua < naturaleça bortchatu nahizcoarena (GGero 376); beraz, naibaguetua ez da ‘atsekabetua’ kasu honetan.*
- 35-102 *señale adigarria < seinala (GGero 376); ik. § 5.3.1.*
- 35-105 *Acaba jocoa = GGero 376.*
- 35-107 *eriotza char bateaz acabatu eban < fin gaitz eguin çuen (GGero 376).*
- 35-109/113 *Gogo artze au...: hemendik eta bukaerainoko guztia aski aldatu du Añibarrok, ideia gehienak gorde arren; halaz ere, Axularrek bukaera aldera azpimarratzen duen ideia*

ric, zarturic, indarbagueturic egoteac. Gogo santu au ain bearra da ez jausteco pecatu onetan, ce bestela utsac izango dira aleguin guztiac, ardura guztiac: ta au da irugarren erremedioa.

nagusia alde batera utzi du. Honela dio, bada, gutxi gorabehera Añibarrok *ardura guztiac* (35-112/113) jarri duenetik aurrera: *Sinets eçaçu ecen Iaincoarequin batean, guztia gogoan dagoela. // Haur da hirugarren erremedioa, emaztetaric beguiratececo, hequin ez cutsatececo, eta cutsatuz guero ere, garbitceco, gogoaren deliberramendua, vorondatearen bertce aldera deliberratuqui itçuliric iartcea eta egoitea* (GGero 377).

36. BURUA

*Araguiaren peccaturic gordeteco laugarren erremedioa da
ez alperric egotea.*

1 §.

5 Bear eguizu, lanen bati zaquioz, cerbait eguiten ibilli zaitte, eguitecoren
batera emon zaitte, etzaitte alperric egon, ta onela gordeco zara desonesque-
riaco peccatuan jausi baga. Alperqueriatic eldu dira amorentasuna, pensa-
mentu, gogo ta eguite char guztiac. Orregaiti diño Aristoteleseco, necazari,
10 languille, bearguillac baño eztagozan erria dala erriric onena. Necatzalleac
euren nequeaz, lanaz, cereguiñaz dauquee contu, ta ez amorentasunaz ta de-
sonesquerian ibilteaz. Bear eguiten dabenac, bearraz eta lanaz nequetuten
danac, eztau orrembeste araguzco tentaciño. Nequepean beti ibilteac emon
deutse cereguin asco.

15 Au alan dala eracusteco ta adirazoteco dacar San Geronimoc guertaldi
au. Egitoco conventu baten zan fraide gazte bat, araguiac biciro tentatzen
ebana; ta ain lazqui, ce ecin quendu cituan bere gogotic pensamentu loiac,
eguin arren barauac, latztasunac, nequegarriac, azoteac ta gogortadeac. Co-

36-8/9 *necazari, languille, bearguillac* < *Neccaçaleric eta laborariric* (GGero 377); ik. § 5.3.4.

36-9 *eztagozan: aurrean bici]* (*bici eztirian?*), ezabatua; cf. ...*baicen ezten herria* (GGero 377).

Necatzalleac < *neccaçaleac* (GGero 377); cf. halaber VB *necatzalle* (g.n.) “labrador” (eta *LoraS* 124 edo *MisE* 176, ap. *OEH*, s.v.).

36-12 *eztau orrembeste araguzco tentaciño*: leh. *eztau orrembeste tentetan araguiac*, < *Eztu haraguiac tentatcen handi* (GGero 378).

36-15 *baten*: leh. *batean*; cf. 3-110. oh.

36-17 *gogortadeac*: ondoan *nequegarriac*, ezabatua.

20 mentu ataco buru nagusi aguintariac, onen barria euquiric ta icusiric a frai-
dea galduteco arriscuan egoala, asi zan asmatu ta gogoratuten, ea ce bidez ta
bitartecoz ateraco eban pelligru onetariac.

25 Ezaguturic aren tentaciñoac etozala alperqueriatic, eguiteco bague, bere
atseguin ta gustura, nequebagnetasun, olgura ta naibague bague <265> ego-
tetic, jaso eutsan berariac testimonio falso gaisto andi bat. Onetaraco alcar
adituric, fraide bic salatu eben nagusiaren aurrean, alan zala. Salatuac ciño-
an guztia zala guzurra, embusteria, etzala alacoric, asmu utsa zala, ez euca-
la erruric. Salatzalleac baietz, alan zala. Onela cebiltzan, batec baietz, bestea[c]
ezetz; ta nagusia bere sententia emoteric atzeratuten zan berariac.

30 Onetan igaro zan urte bete. Urtearen buruan itandu eutsan nagusiac frai-
de ari, ea celan joacon bere araguzco tentaciñoacaz. Eta eranzun eutsan: Ce
tentaciño? Eztacus, bada, celan nabillan ta celan narabillen testimonio gu-
zurrezco onegaz? Eztacus ce nequez, ce estu bici nasan? Loric bere ecin
eguin dodala? Ai, aita, joan cirian nire tentaciñoac ta lengo gogoraciñoac.
Orain beste gauzac daroat gogoa. Eztaquit celan biciric bere nagoan. Orra
emen ce bide ona asmau eban nagusiac, bere fraidearen burutic quentzeco
35 tentamentu citelac: alperqueria quenduaz, nequea emonaz, quendu eutsazan
araguiaren tentaciñoac.

40 San Juan Crisostomoc diño amore desonestua presona alperrean idoro-
ten dala; an dauco bere ostatua, bere bicilecua, bere janaria ta atseguina.
Onegaiti pintetan eben Venus desonesteja jarriric. Bada, araguzco amoreja ta
amorentasuna alperqueriac ta gueldi egoteaz aci ta mantenduten da. Eta diño

-
- 36-18 *buru nagusi aguintariac < abadeac (GGero 378).*
36-18/19 *a fraideja: a gainean erantsia, fraideja-ren ondolik zegoena kendu eta gero; < fraide
hura (GGero 378).*
36-20 *pelligru: aurrean arri] (arriscu?), ezabatua, < peril (GGero 378); aurrekoa (arriscuan,
36-19), berriz, < periletan (ibid.).*
36-21/22 *eguiteco bague... ta naibague bague < eguiteco gabe, aise, bere gogara, placerera eta
atseccaberico gabe (GGero 378). Dagoen bezala, nequebagnetasun eta olgura bague
ateratzen da, behar ez bezala; ziurrenik gutxienez olguran (cf. 4-92 eta 13-127) be-
harko litzateke.*
36-28 *urte bete: leh. urtea, < urthe bat (GGero 379).*
36-31 *ecin: aurrean eguin, ezabatua; cf. Loric ere ecin daidiquedala? (GGero 379); ik. § 4.4.3.*
36-33 *beste gauzac daroat gogoa < bertec deraut gogoeta eta eguiteco (GGero 379); ik. §
5.1.1.4.*
*Eztaquit celan biciric bere nagoan: Añibarroren eransketa. bere: leh. be; ik. hurrengo
oh.*
36-39 *Bada: -da ezabatuta dagoela dirudi; cf. halaber be > bere (36-33. oh.) eta ba > bada
(24-20, 36-72 eta 50-6. oh.). OEH-ak (s.v. bada eta ere) ez du ba ez be XIX. men-
dearen bukaeraino aurkitu, baina eskuizkribu honen lekukotasunak adieraz deza-
ke hein batean bederen forma idatziekiko atxikimendu hutsa izan zitekeela jadanik
mende beraren hasiera aldera.*
36-39/40 *araguzco amoreja ta amorentasuna < amorioa edo amurusia (GGero 379).*

Ovidioc: Quendu eguizu alperqueria, ta quenduco dozu Cupidoren indarra, galduco da desonesqueria.

2 §.

45 Comunquei alperrac jan-edanean, solasetan dauco gogo. Alan diño Casianoc: Alperraren gogo ta solasac dira jan-edanaz eta sabelaz; eztau beste pensamenturic. Onegaiti dirautso San Geronimoc Rusticori: Amatu eguizu estudioa, ta eztozu araguiaren pecatuan atseguinic artuco, ta ez orretan gogoric euquico. Artzen badozu gogoz estudioa, aztuco dozu amore desonestua; Jangoicoac Ezequiel profetaren aotic cirautsan Jerusalengo erriari: Jerusalen, Sodoma zure aiztearen pecatua ta galdugarria izan zan subergia, asea ta alperqueria. Alperqueriaren bidez eguin cituan Sodomaco erriac ain utseguite andiac ta ain pecatu ezain atsituac, ce igon eben Jangoicoaren aurrera ta <266> equi ezpaleu leguez lurric estaltzeco eta ez uric itoteco a erri pecataria, cerutic biraldu eban su ta garra, guztia erre ta castiguetaco.

55 David erregueac lan bearrean ebillanean, guerrara joaten zanean, contu guichi eucan emacumeacaz. Baña guelditu zanean cereguin bague, alperric ta sosegaturic bere jaureguian, orduan jausi zan pecatuan. Salomon bere, Jerusalengo templu andi zabal miragarria eguiten ocupaturic ebillanean, ez-togu iracurten andracumeac engañatu ebenic; baña templua azquenduric, 60 alperqueriara emon zanean, laster jausi zan pecatuan. Sanson indartsua guerran ebillanean filistioen contra peleetan, ecin eguño goiartu eben bere arerioac; baña lanac ta guerrac acabaturic ichi cituanean, bere emazte[a]ren besartean bere gustura etzan zanean, emazte berac salatu, engañatu, saldu

36-41/42 *Cupidoren indarra, galduco da desonesqueria*: Axularrek, oster, Ovidioren irudia gordetzen eta luzatzen du: *Baldin quen baitçatçu alferqueric, galdu dirataque Cupidoren arcuac, eztu nehor]c[bere tragacez çaurtuco* (GGero 379); cf. latinez *Otia si tollas, periere Cupidinis arcus* (ibid.).

36-44 *alperrac*: gainean, *desonestua*-ren orde, < *alferrac* (GGero 380). *solasetan*: ondoan *dantza fiestetan*, ezabatua, < *ian-edanean eta emaztetan* (GGero 380).

36-47 *pecatuan*: leh. *becatuan*.

36-49 *Jangoicoac*: *aurrean Jeru]* (*Jerusalen?*), ezabatua; kontua da Axular zuzenean hasten dela: *Ierusalem, çure aizpa Sodomaren beccatua...* (GGero 380).

36-50 *subergia*: leh. *superbia*, < *urguillutasuna*, lat. *superbia* (GGero 380). Orain artean beti *soberbia* (cf. 11-111, *soberbiatu* 1-84, 14-81, 14-97, 14-100, *soberbiatsu* 9-45/46, *soberbiotsu* 11-109 eta *soberbio* 14-79, 14-95), baina hemendik aurrera *superbia* (40-82), *subergia* (44-69) eta *suberio* (53-182) baino ez dugu idoroko; cf. *soberbioa* > *andigurea* aldaketa ere (14-75. oh.).

36-61 *filistioen contra peleetan*: Añibarroren eransketa.

36-63 *besartean*: gainean, *altzoan*-en orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *emazte baten altçoan* (GGero 381).

65 ta entregatu eban arerioai; ta guero oneec eguin ebeen beragaz gura ebeen guztia.

Zagoce zur zoli irazarriac, ene anaje maiteac, diño San Agustinec, bada eztacust zareala David baño santuagoac, Salomon baño jaquintsuagoac, Sanson baño indartsuagoac. Guizon andioc jausi bacirian, nor bildur izango ezta? nor bicico da ardura baga? noc aldeguingo eztituz desonesqueriara daroacen bideac, ocasiñoac, lagunac ta arriscuac? Eta, cer izango da onei lagunduric alperqueriatic? Itanduten da ea cegaiti jausi zan Egisto araguzco pecatuan. Prest eta beguietara dator errazoia: bada alperra zan. Bada, onela esan liteque David, Salomon, Sansongaiti: jausi ciriala, beste asco leguez, alperqueriagaiti; onec galdu edo galduteco arriscuan ifini cituan. Eta oneec leguez zu bere galdu ta jausico zara, alperric bazagoz; lan bearren bati ezpa-
75 zaquioz; beti ezpazagoz cer edo cer eguiten, edo oraciñoan.

36-64 *entregatu eban arerioai*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5); cf. *emazte harc berac enganatu çuen* (GGero 381).

eben: jat. *eban* (arg. zuz.); cf. *eta guero etsaiec hartçaz nahi çutena eguin çuten* (GGero 381).

36-68/71 *Guizon andioc... lagunduric alperqueriatic?*: Añibarroren eransketa.

36-69/70 *daroacen*: inolaz ere *daroen* beharko luke.

36-71/72 *araguzco pecatuan < adulterioan* (GGero 381). Esaldia Ovidioren itzulpena da (GGero 381, *in m.*).

36-72 *bada*: -*da* txiki-txiki erantsi du; ik. 36-39. oh.

36-74/76 *Eta oneec leguez...*: bukaerarainoko guztia aski aldatuta dago itzulpenean; cf. *Beraz hunelatan, cenbaitetan* [sic, *cerbaitetan*-en ordez; Gero 381] *emplega çaitte, trabaila çaitte, alferqueriatic beguira çaitte. Ceren halatan emaztetaric ere beguiratucõ çara* (GGero 381-382).

37. BURUA

*Araguizco pecaturic gordeteco boscarren erremedioa da
bost cenzunacaz, batez bere beguiacaz, contu
euquitea.*

5

1 §.

Bere buruaz contu ona emon ta bere conciencia garbi euqui gura dabena gorde, zaindu, jagon bear ditu ardura andiaz bere gorputzeco bost cenzun edo sentiduac: beguiac, belarriac, escu-ucutzeac, aoa ta sur-usain gais-toac. Onec dira leioac, bentanac, atead, ceñetariac sartuten diran biotzera era guztico <267> gaistaqueriac, batez bere araguiarenac. Ateoc bear doguz ichi, zarratu; ta eurocaz contu euqui, gueure arimeco arerioa sartu eztidin gure arimaco gazteluan, ta jabetu eztidin guztiaz.

Lenengo atea, ta atarte principalena, dira beguiac. Onec beste cenzun guztiai daroioe aurea. Onec dempora guichian eguiten dituz calte asco. Urrinetic

- 37-2 *boscarren erremedioa*: Axularren liburuan zazpigarrena, Añibarrok bost-seigarrenak osorik utzi baititu itzulpenetik kanpo (ik. § 3.3).
- 37-7/8 *cenzun edo sentiduac < censuac* (GGero 391).
- 37-8/9 *beguiac, belarriac... gaistoac < iccusteac, dastatcea, ençutea, usnatcea eta utquitcea* (GGero 391). Ezin ezberdinago, ordenan eta itxuran. Itxurari dagokionez, Axularren ekintza-izenak Añibarrok organoekin ordezkatu ditu, birritan izan ezik: jatorrizkoaren gisako *escu-ucutzeac*, eta handik besteak baino are urrunago dagoen *sur-usain* hori, *gaistoac* izenondoa lagun, Axular ez bezala aurretiaz epaitu beharrez.
- 37-9 *ceñetariac* = GGero 391.
diran: ik. 16-46. oh.
- 37-10 *gaistaqueriac*: ondoan *gachac*, ezabatua; cf. *beccatu guztia* (GGero 391).
- 37-11 *ichi, zarratu*: tartean *ta*, ezabatua, < *hersi* (GGero 391).
- 37-11/12 *gueure arimeco arerioa... gure arimaco gazteluan < baldin etsaia gueure arimaco gazteluan sartetic nahi badugu beguiratu* (GGero 391).
- 37-13 *Lenengo atea, ta atarte principalena < Lehenbicico athea eta portale principalena* (GGero 391).
beguiac < beguietaco vista (GGero 391).

15 dacus, ta dacusana, gogo barruan sartzen dau, ta gogoac gogoz artzen dau. Baldin beguiari eragozten ezpajaco icustea, calte andiac jazoco dira. Evac icusi eban sagarra, ta andic etorri zan beretzat ta gureztat calte andi negargarria. David erregueari, ce calteac etorri ez jacozan andra bati beguiratzetic?

20 Comunqui edo gueienetan amorea beguietaric sartuten da, andic asi ta biztuten da. Eiztari andiac dira beguiac, ta gogoco eizaric aguertu ta ereguiten dabenean, eztira cogitu artean gueldituten. Beguietaco icuste bat, beingo bateco beguirada bat, ta ascotan iragote ustebagueco arin batec ostuten dau biotza. Cer eguingo dau, bada, barriro luzaro ta ascotan beguiratuteac? Bigarren beguiratuteac, barriro biurtzeac, gogo osoaz ta cer eguiten daben da-
25 quiala beguiac ifini ta jositeac, emacumeai, edertasunari, besteen gorputzari edo bere gauza indecenteai beguira egoteac sua biztuten dau, ta azquenean erretan dau.

Orregaiti diño Espiritu Santuac, eztajozula beguiratu emacume buru arin, arrotu, apainduari; bein icusi ezquero ustecabez, ez beguiratu barriz bigarrenez. Bada, biurtuten bazara beguiratuten, aren sareetan jausteco peligruan ifinten zara. Lotsa бага, bateri ta besteari beguira, leioan edo bentanan burua eracusten, caleric cale dabillen andrea, arriscuan dabil jausteco, edo laster jausico da.

-
- 37-15 *gogoac gogoz artzen dau*: Añibarroren hitz jokoa, < *gogoac ere errecibitcen du* (GGero 391).
- 37-16 *Baldin beguiari eragozten ezpajaco icustea*: hemen, berriz, Axularren hitz jokoa galdu du: *Baldin beguiari eduquitcen ezaçaica beguia* (GGero 391).
- 37-18 *David*: leh. *Davidec*; cf. *Dauitec behatu cioen behar etcen emazteari...* (GGero 392).
- 37-19 *Comunqui edo gueienetan* < *Comunzqui* (GGero 392).
- 37-20 *aguertu*: leh. *aguertuten*; cf. *bere gogaraco ihiciric eraiquitcen dutenean* (GGero 392).
- 37-21/22 *bat,... bat, ...batec*: ez dirudi oso ortodoxoa denik; cf. *Beguietaco vista batec, behingo behatceac, eta are anhitcetan ere, iragaitçaz eta uste cabean behatceac* (GGero 392). Bide batez, ohartu nondik datorren Añibarroren *iragote ustebagueco arin batec* hori. *iragote*-rako, ik. 3-108. oh.
- 37-25/26 *emacumeai, edertasunari... bere gauza indecenteai* < *emastearen beguiey, beguitarte-ari, gorputçari, edertasunari eta ibilguneari* (GGero 392).
- 37-26/27 *sua biztuten dau, ta azquenean erretan dau*: bitarteko urratsa alde batera utzi du: *aicinatcen du* (GGero 392).
- 37-28 *eztajozula*: ezohiko idazkera, ziurrenik zuzentzekoa, ohartu balitz (ik. 20-237. oh.).
- 37-28/29 *emacume buru arin, arrotu, apainduari* < *emazte arin, airatu, leihariari*, eta latinez *mulierem multivolum* (GGero 392); *leihari* honek eman dituen esanahi arazoetarako, ik. *OEH*, s.v. *lehiari*; hiztegi honek “provocador” itzulpena hobesten du.
- 37-31 *bateri ta besteari beguira* < *cantoin guztietara beguiac darabilçala* (GGero 392). *bateri ta besteari*: ik. 15-158/159. oh.
- 37-31/32 *leioan edo bentanan burua eracusten, caleric cale*: Añibarroren eransketa.
- 37-32 *arriscuan dabil jausteco* < *peril da eroria den* (GGero 392).

35 Ez eguizue esan, diño San Agustinec, biotz garbiac ta onestuac dozue-
zala, baldin begui desonestuac ta lotsabagueac badozuez. Bada, begui deso-
nestua, lotsabaguea, or-emen beguira dabillana, edoceini ta edocain lecura
beguira dabillanac adirazoten dau desonesqueriaren mandataria ta señalea
dala. Emacumeetaric gorde gura dabenac, gorde bear dituz beguiac aei be-
40 guiratu eztaioen; beintzat bai badazau andic calteren bat, tentaciño charren
bat gogoratuco jacola.

<268> Gauza ederra da, ta arimaraco entero ona, onestasunaz batera be-
guiac bera beguira egotea. Guido Cartusianoc diño, Hugo obispo santuac eu-
cala ain contu andia bere beguien eguinbideaz, ce andra bategaz berba egui-
45 ten ebanean, lotsaturic leguez biurtzen ebala beste aldera burua. Eta ciñoan,
ondo zala alan eguitea; bada bestela, gach zala arpeguia icusi ezquero, ez de-
seo charric gogoratutea edo emacume atan pensatu bague egotea.

Cioren soldadúac artu cituenean asirioen gentéac eta ondasunac, idoro
eeben beste presoen artean Pantea ederra, erreguearen emaztea. Bertati
emon eutseen adietan Ciro erregueari andrearen edertasuna. Baña erregueac
50 ez eutsén jaramoten, enzun-gor leguez eguiten eban. Arraspas erichon bere
adisquide andi batec esan eutsan: Erregue jauna, eguño lurraren ganean icu-
si ezta a baño andra ederragoric; merci dau aimbete onra emon daiozun,
merci dau zuc bein bera icustea; baldin bein icusten badozu, eztozu bi-
gar[r]en mandatariric bearco.

55 Orduan erregueac eranzun eutsan alan cirautsonari: Bada, ori berorigaiti
eztot icusi gura; cerren bein icusten badot libertadeaz, bildur nas bigarre-
naco catigatu nadin ta neure griña charrac bear eztana eguitera beartu ez na-
guian. Eranzute galantau emon eban erregue gentil onec, ondo equialaco
ceimbat calte etozan gauza eragotzia icusteric. Alan iracurten dogu Alexan-

-
- 37-35/37 *desonestua, lotsabaguea, ...dabillana, ...dabillanac...: berriz ere ergatiboa azkenekoan bakarririk (ik. 37-21/22. oh.); hemen arrazoia izan daiteke Axularrek, joskera ezberdinagatik (cf. hurrengo oh.), absolutua erabiltzea: Ceren begui deshonestu, ahalquegabea eta campoan soseguric eztuena (GGero 393).*
- 37-37/38 *adirazoten dau desonesqueriaren mandataria ta señalea dala < barren gaixtoaren, sosegu gabearen eta deshonestaren mandataria da eta seinalea (GGero 393).*
- 37-39 *eztaioen: leh. eztaien; da(g)ioen hemen bezala 'hark haiei' izan daiteke (17-21), baina sarrienik 'haiek hari' da (8-90, 30-55/56, 38-114 eta 42-132); hirugarren pertsona marken arazoez, ik. § 4.2.1.*
- 37-41 *onestasunaz batera < onhetstasun batetan (GGero 393).*
- 37-43 *bere beguien eguinbideaz = GGero 393.*
- 37-45 *arpeguia icusi ezquero < bere gogoraco [sic, gogaraco-ren orde; cf. Gero 393] gauça iccusiz guero (GGero 393).*
- 37-53/54 *bigar[r]en mandatariric < bigarrean gonvidatçailleric (GGero 394).*
- 37-55 *ori berorigaiti < arraçoin horren beronen gatic (GGero 394); ik. § 5.1.2.3.*
- 37-57 *catigatu nadin < gathiba nadin (GGero 394).*
- 37-58 *ondo equialaco: aurrean bac] (bacequialaco?), ezabatua, < Ceren baitciaquien (GGero 394).*

60 dro andiac bere, araco bitoria famatua erregue Darioren ganean izan ebanean ta onen alaba ederrac beste presoen artean artu cituanean, ez ebalá nai aetaric ecartea bere aurrera, bildurrez icusi ezquero bear eztana eraguingo eutseela.

Onetarico egemplu asco iracurten da libruetan; ta onetaric atera bear dogu, baldin gura ezpadogu bear eztan amoreá sartu dedin gure gogo ta biotzean, contu andi bat euqui daigula, ez lucetuteco beguiac bear eztirean persona ta gauceetara; ondo zarraturic euqui daigula beguietaco ate au; bestela galduac gara; jausico gara; segurutasunic izango eztogu, garbitasunic gordeco eztogu; ta, leioac idiguiric dagoan sala bat edo estalgui baga dagoan lapico bat leguez, sastamar loiz beteco da gure biotza.

37-60 *erregue Darioren ganean* = GGero 394.

37-61 *ez ebalá*: jat. *ez eban* (arg. zuz.), hauxe baita *iracurten dogu*-ren kompletiboa; cf. *etçuela nahi içatu* (GGero 395).

aetaric < *hetaric bat ere* (GGero 395).

37-65/69 *contu andi bat euqui daigula...*: hemendik eta bukaerarainokoa Añibarroren erara moldatua dago; Axularrek hauxe dio: *cenbait aldiz beguiac behehitu eta hertsí behar ditugula; beguietaco vistaren portale hunez, cein baita lehenbícico censua, contu eduqui behar dugula. Ceren haur da erremedio ona haraguiaren beccatutic beguiratceco hartu behar dena* (GGero 395). Edonola ere, ohartu *euqui daigula*, ohi ez bezala, *atera bear dogu*-ren objektua dela, *euqui bear dogula*-ren ordez, demagun.

37-66 *gauceetara*: ik. § 4.2.4.

37-69 *sastamar*: VB *sastamarrac* (b.) “barreduras, broza”.

38. BURUA

Desonesqueriaco pecaturic gordeteco seigarren erremedioa da miñagaz contu euquitea.

1 §.

- 5 Baldin beguietaco ateaz contu andia euqui bear bada, seguru bere ezta guichiago bear aoaz, miñaz, berba eguiteaz. Lenengo gorde bear gara berba ece, loi, ciquin, desonestu, zantarrac esatetic. San Pablo Apostoluac diño solasa loiac, berba, canta, soñu, ipuin ciquiñac galdu ta ezainduten dituezala eguite onac. Bada, filosofoac iracasten dabé, miñac eracusten dabela cer
10 daucan batec bere barruan, bere biotzean, bere gogoan. Nor dan bacocha eracusten dau bere miñac. Norberac gogoan daucana, ori aitatu gura dau besteen artean; miña da biotzaren mandataria; miñean ta berba eguicunean aguertuten da nor dan bacocha, baita nongoa dan, San Pedro ezagutu eben leguez.

-
- 38-6 *aoaz, miñaz, berba eguiteaz*: Axularrek *vistaren portalean* dio Añibarrok *beguietaco ateaz* dioenean (38-5) eta, berriz, *gustuarenari* goiko hitzen orde. Aldaketaz gainera, ondoko hau guztiau ere alde batera utzi du: *Hain ongui eduqui behar da contu bataz, nola bertceaz. Eta gustuaz mintço naicenean, mintço naiz ahoari uquitcen çaitçan gauça guztiez: hala mihiaz eta minçatceaz, nola ianaz eta edanaz* (GGero 395-396). Honen arabera, badirudi Añibarrok ez duela bigarrenaz mintzatzeko asmorik, baina azkenik egingo du, 39. buruan.
- 38-7/8 *solasa loiac* < *solhas gaixtoec* (GGero 396); ik. § 5.1.1.1.
- 38-8 *berba, canta, soñu, ipuin ciquiñac*: Añibarroren eransketa; latinez *colloquia mala* baino ez dio San Pablok ere (GGero 396).
galdu: leh. *galduten*; cf. *galtcen dituzte* (GGero 396).
- 38-9 *eguite onac* < *aztura onac*, lat. *bonos mores* (GGero 396).
- 38-10 *Nor dan bacocha*: jat. *Nor nor dan bacocha* (arg. zuz.); cf. berehala *nor dan bacocha* (38-13). Egiatan bi egitura baliokide (cf. *nor nor zan* 1-156 eta *nor nor dan* 40-57/58) bildu ditu, oharkabea, jatorrizkoa nahikoa aldatuta: *Nor nola mintço baita campoan, hala ohi da barrenean* (GGero 396).
- 38-11/12 *besteen artean* < *iendartean* (GGero 396).
- 38-13 *nongoa*: leh. *nongoar-edo*; cf. *eta bai nongo den ere* (GGero 396).

- 15 Eztira esan bear berba alperrac, arinac, cenzunbagueac, jocolariac, solasecoac, chanchetacoac, ta guztiz bere desonestuac, loiac ta zantarrac. Bada, oneec irazarten dabe lo dagoana, ereguiten dabe eiza ta dacarde bear eztana eguitera. Oneec dira suaren biztugarriac, ta alcarregaz lotuteco bideac ta sareac. Onelaco berba ta esate loi gaistoetaric gorde bear zara, gorde gura badozu ceure burua araguizco pecaturic.
- 20 Bai ta gorde bear zara emacumeacaz berba gueiegui eguiteric, conbersaciño luceac, barriqueriac, solasac, chancha burlac ta eraqueriac esateric. Bada bestela, laster eransico da adisquidetasun amorezcoa, alcarren afecto eragotzia ta gogoraciño pecatuzcoac. Emacumeacaz dabillan guizonac, edo guizon artean dabillan andreac, dibersiño, solasa, llaneza gueieguietan ta,
- 25 orrez guztiaz, asmetan ezpaditu tentamentu desonestuac, ta uste badau eztala jausico pecatuan, sinistu eraguin gura dau eztala araguiz eguina, eztala guizona, eztabela griña charric, edo sua colcoan sarturic darabillala soñecoa erre baga; edo icatz gorien ganean dabillala ortosic, oñutsean, oñazpia erre baga.
- 30 Baña Espiritu Santuac bestela esaten dau: ecin datequen gauza dala diño, emacumeen artean ibilli ta ez calteric artutea; suan erre bague egotea leguez dala ori. Nornai dan, dana dala, zareana zareala; nai andia <270> zareala, nai chiquia; nai debotoa ta intenciño onez betea; ta, bazara bere ceure ustez arria baño gogorra, urrea baño finagoa, baldin andracumeacaz batu, bildu, la-

-
- 38-14 *jocolariac* = GGero 396.
- 38-14/15 *solasecoac, chanchetacoac* < *dostailuac* (GGero 396).
- 38-17 *suaren biztugarriac* < *su pitzgarriac* (GGero 396).
- 38-19 *araguizco pecaturic*: puntu eta aparte honen ondoan, Axularrek atal berri bat (lehenengoa, bere zenbakuntzan) irekitzen du, Añibarrok ez bezala.
- 38-22/23 *Bada bestela... gogoraciño pecatuzcoac*: Añibarroren erara; Axularrek hauxe dakar: *Ceren hequen conversacioneac eta solhasac berequin du eztia, berequin du balacua, linburtceco occasinoa, eta bai elccarri lotceco cola, visca eta lequeda ere* (GGero 397). Gizonaren bekatuaren errua emakumeari botatzetik gorde ohi da Añibarro (ik. § 5.4.4).
- 38-23/24 *edo guizon artean dabillan andreac*: Añibarroren eransketa. Beraz, emakumeek berez eta berariaz bekatuak ezin egin dezaketela jakintzat ematetik ere gordetzen da (§ 5.4.4).
- 38-28 *oñutsean*: gainean erantsia; non sartu behar den adierazteko markarik ez izan arren, *ortosic*-en erdialdetik ezkererantz idatzita dago; cf. *orthusic* (GGero 397).
oñazpia < *oin-çolac* (GGero 397).
- 38-31 *ibilli*: leh. *ibilliric*; cf. *Emaztequin ibiltcea, eta calteric ez errecibitcea* (GGero 397).
- 38-32 *Nornai dan, dana dala, zareana zareala* < *Nor nahi den, eta nolacoa nahi den çareala* (GGero 397).
- 38-33 *ta, bazara bere*: aurrean *nai*, ezabatua; Axularrek, *çaren handi edo ttipi* (GGero 397) egitura erabiliaz, erraz barneratu du *finean çaren ceure ustez harria baiño gogorra* (ib. 397-398), Añibarrok hala-hola lotu dituen bitartean.
- 38-34/36 *baldin andracumeacaz... pecaturen baten*: Añibarroren betiko joera, emakumeei errua ez egozte (§ 5.4.4); Axularrek hauxe dio: *baiña emazteac bere hitz leunaz, solhas*

- 35 gunduten bazara, eztozu onean asco iraungo; itsutu, amoretu, zoratu ta jausico zara pecaturen baten. Errotan sarri dabillanari uruna eransico jaco; olan dabillanari, autsa: onela nesca-mutilen artean dabillanari, cerbait eransico jaco.
- Onegaiti diño San Pablo Apostoluac: *Igues eguizu araguizco peccaturic*. Igues eguizu emacumeetic; ifini eguizu zure ta ocasiñoaren artean muralla
- 40 andi bat; ez alcargana eldu premiña bague; eta ori santu debotoac badira bere; cerren esan oi da: santu santaren artean, arrizco orma bat bitartean. Eztiño San Pabloc, beste peccatuetan leguez, defenditu gaitezala desonesqueriaco peccatuan; eztiño esetsi ta erasoteco escuz escu armacaz; baña diño *igues daigula*; ez aurrez aur ifinteco: alde eguitemo.
- 45 Esango baleu leguez: beste peccatui esetsico badeutsegu bere contraraturic, eurt atzera eguinic, baña desonesqueriaco ari *igues eguinic*. Alan goiartu benzutuco dogu; bestela ez. Bada, urreraturic, alcaturic, solasca jostatzen ibilliric, alcarregana elduric, gach da jausi bague gueratutea, sarean sartu baga egotea. Ezta zurtasuna peste izurri gaisotasuna dagoan lecura
- 50 erremedioetan fiaturic joatea. Etzaitte eldu; aldeguin zaitte: au da erremedioeric onena ta seguruena. Desonesqueriaco peccatua gorputz-gaisotasunaren antzecoa da: asco da eransiteco gach au edocein ucitze, beragandute bat, berba, arnasa, escuca bat. Artu daigun, bada, San Pablaren adibidea, *igues eguitema* ocasiño deunguetaric, peccatuzco laguntasun ta bideetic.
- 55 Elessa Ama Santaren persecuciñoetan igues eguiten ebanac emperadore ta erregue tirano gogorretaric, galduten eban martirioco palma, corioia ta sa-

-
- garaciatsuz, eztiáz eta emeaz, beretacotuco çaitu, centçutic atheraco, liluratuco eta bertce aldera itçulico çaitu (GGero 398).
- 38-36/37 Errotan sarri... eransico jaco < Çabiltça errota hartara, irina lothuco çaitçu; hurbil çaquitça, cutsatuco çaitu (GGero 398).
- 38-36 dabillanari: jat. babillanari (arg. zuz.).
- 38-38 *Igues eguizu araguizco peccaturic* < *Ihes eguicue emaztetaric, haraguiaren beccatutic* (GGero 398). Itzulpena Axularren iturriarekin, San Pablarekin, ondo dator: *Fugite fornicationem* (*ibid.*), eta haren eransketa bigarren lekuan utzi du Añibarrok.
- 38-39 zure: leh. zuen; cf. çuen eta occasionaren artean (GGero 398); Axular pluralean ari da, Añibarro ez bezala (cf. aurreko oh.).
- 38-40/41 premiña bague; eta ori... arrizco orma bat bitartean: Añibarroren eransketa.
- 38-45/46 contraraturic, eurt atzera eguinic: cf. behar gatçaitze... contratu eta deffendatu (GGero 398).
- 38-47/48 solasca jostatzen ibilliric < *solhasean baccarric iarriz guero* (GGero 398). jostatzen: gainean erantsia, non erantsi behar den esan gabe; solasca-ren erdialdetik ezkerretarantz idatzia, halere.
- 38-49 peste izurri gaisotasuna < *içurria* (GGero 398); cf. VB gaisotasuna (b.), izurria (c.) "peste".
- 38-51 gorputz-gaisotasunaren < *içurriaren* (GGero 398).
- 38-52 edocein ucitze: ondoan bat, ezabatua; cf. asco du uquitcea, asco du hurbiltcea (GGero 398).
- 38-53 adibidea < *conseillua* (GGero 399).

ria. Coroi au irabacico ebanac, zorion au euquico ebanac, ez eban igues eguin bear. Baña contrara da castidadea ez galduteagaiti igues eguitea: igues eguite au, ocasiñotic alde eguin ta ceure burua gordete au da martirioa ta
60 martir izatea. Onegaiti diño San Agustinec, eztaguiala iñoc esan, gure dem-
pora onetan ez tala martir santuric: badira orain bere martirac; bada, araguia-
ren griña ta gurari gaistoac <271> benzutu, azpitu ta goiartutea, ta pecatu
onetaric igues eguitea, balentia andia da, ta martir izatea.

2 §.

65 Baña, cegaiti esaten da beste pecatuac defendituaz, contra eguiñaz benzu-
tu bear direala, eta araguiarena igues eguinic? Errazoi ascogaiti. Lenengoa da,
guizona ta andrea sua ta amucoa leguez direalaco: alcarren ondoan ifiniric, ez-
tago segurantzaric; aldeguinic egotea obe. Bigarren errazoa da, ez talaco on
70 urreratuaz indar artzen daben arerioetara eldutea. Gure aragua len gueldi ta
baquean egoana, ta sosegu onean, beste aragui edo personagana urreraturic,
biztuten da, errebelatzen da, indarrean sartzen da, arerio biurtzen da.

Erregue bat atzeratu ta bildurtuco liteque bere arerioen contra guerra ta
combatea emoten, balequi bere soldadu propioac, bere traidore dituela, bere
contra jaguico direala. Onela, gu bere bildur izan bear gara araguiac dispu-
75 tan ta pelean sartzeco, gure aragui au traidore bat leguez gure contra jaguico
dalaco.

Errazoi au adietan emoten dau Santo Tomasec, diñoanean: Pecaturic beti
igues eguin bear da; baña pecatu baten tentaciñoa ta esetsitasuna batzuetan
benzutu bear da igues eguiñaz, aldeguñaz, apartatuaz; ta beste batzuetan de-
80 fendituaz, contra eguiñaz, burruca eguiñaz. Baldin defenditzeaz, esetsi, era-
so ta contra eguiñaz guichituten bada tentamentua, jazoten dan leguez ara-
guizco becatua ez beste guztiacaz: orduan obe da defendietea ta pecatuaren

-
- 38-58 *contrara da < different da (GGero 399).*
38-58/59 *igues eguite au... gordete au < ihes eguite hura, occasinotan çarenean ceure buruaren beguiratce eta bortchatce hura (GGero 399); ik. § 5.2.2.*
38-65/66 *defendituaz... eguiñaz... eguinic < deffendatuz... iarritz... ihes eguinez (GGero 399-400); ik. § 5.5.1.*
38-66 *Errazoi ascogaiti: Añibaroren eransketa.*
38-67 *amucoa < istupa (GGero 400); VB “estopa: b. amucoa, amilua; c. quirrua; g.n. mullua”.*
38-69 *urreratuaz: aurrean eldu] (elduteaz?), ezabatua, gero datorren eldutea dela eta; cf. hurbiltceaz indar hartcen duen etsaiari alderatcea (GGero 400).
Gure aragua: honen aurrean, hauxe dakar Axularrek: Hala da, bada, haragua eta haraguiaren beccatua (GGero 400).*
38-70 *aragui: leh. aragua; cf. bertce haraguiagana hurbiltceaz (GGero 400).*
38-73 *bere soldadu propioac, bere traidore dituela = GGero 400.*
38-78 *tentaciñoa ta esetsitasuna < accometamendua, nar[r]itamendua eta tentamendua (GGero 401).*

85 contra esetsitea. Baña defenditu eta peleatuaz gueiago biztu, aci ta gueia[go]tuten bada tentaciñoa, araguizco pecatuan jazoten dan leguez, orduan bear da igues eguin; ta ez ifini gogoratuten, ea <272> celan defenditu edo escudatuco dan; bada, gogoeta ori berori da sua biztutea edo su-biztugarria.

90 Igues eguiteagaiti pecaturic adirazoten da, aldeguitea pecatuzco ocasiñoetic, lagun gaistoetic, idorote deunguetaric, solasa, dibersiño, barriqueta amorezoetic ta bide char guztietaric. Bada, dirua eztago seguru lapurrac direan lecuan; ez ardia otso artean; ez amuco amilua, liñoa ta polborea suaren alboan. Gauza peligruzcoa ta arriscatua da guizon ta emacumeac batera, alcarren artean ta sarri batu, bildu, lagundutea.

3 §.

95 Baña oraindiño alcar egoteaz alaco peligruric ezpaliz bere, bago beste errazoi bat guizacume ta emacumeac alcarregaz ez ibilteco, ez ascotan ta sarri batuteco, ez solasa ta combersaciño gueieguian ta lucean egoteco; eta da iñori cer esanic ta gach-bideric edo escandalaric ez emotea; bada, gueienetan emon daroe gazteac badira, lenago fama charrecoac badira, bide bacarretan, 100 lecu ezcutuetan, gaubez edo bear eztirian echeetara batuten direanean.

Ezta asco ceure conciençian, ceure barruan garbia, castua, onestua izatea; campotic bere, munduaren beguetan, alan bear dozu izan, aguertu, eracusi, San Pabloc diñoan leguez. Emen dator ondo Espiritu Santuac emazte prestuagaiti diñoana. Billatu cituan, diño, lana ta liñoa; ta biac bere escuz

-
- 38-86/87 *sua biztutea edo su-biztugarria < su pitzgarri (GGero 401).*
 38-89 *idorote deunguetaric < incontruetaric (GGero 401).*
 38-91 *amuco amilua: esanahikideak, < istupa (GGero 401); cf. 38-67. oh.*
 38-91/92 *liñoa ta polborea: Añibarroren eransketa; goiko adibidean (38-67) istupa / amukoa bakarrik aipatzen dute Axularrek eta biok.*
 38-92 *peligruzcoa ta arriscatua < perilosac (GGero 401). Axularrek lehenik adibideari egiten dio erreferentzia (Gauça perilosac dira hauc elcarrequico), eta gero igarotzen da muinera (eta bai guičona eta emaztea ere, berac bacarric, bi-bian egoiteco).*
 38-96 *guizacume ta emacumeac alcarregaz ez ibilteco < emaztetaric apartatceco (GGero 402). Lehengo lepotik burua biek (ik. § 5.4.4).*
 38-97 *solasa ta combersaciño gueieguian ta lucean < solhasean ez sobera egoiteco (GGero 402). solasa: ik. § 5.1.1.1.*
 38-98/100 *bada, gueienetan... batuten direanean: Añibarroren eransketa.*
 38-100 *eztirian: leh. eztirean.*
 38-103 *San Pabloc diñoan leguez: Añibarrok aurreko esaldiarekin lotuta ematen du, eta ez da zeharo gezurra, baina egiatan San Pablaren pasartearen itzulpena (Rom. 12) Axularrek ondoan ematen du, eta hauxe da: Bere arauaz, Iaincoaz beçala, munduaz ere, barrenecoaz beçala, campocoaz ere eguin behar da contu (GGero 402).*
 38-104 *lana ta liñoa < illea eta lihoa, lat. lanam & linum (GGero 402).*

105 landu ta irun cituan: lana ullea campoco ta liñoa barruco. Legue zarreco ucha famatu á urre finez campotic ta barrutic urrezturic egoan. Ceruco esposoac bietan deituten dau ederra bere esposea. Adietan emoteco cristiñau ona izango danac, campotic ta barrutic izan bear dabela ona: bietara euqui bear dabela contu ta ardura.

110 Guizon bat ascotan bacarric, bacarrean ta premiña bague andra bategaz egoteac emoten dau bidea besteac uste izateco ta sospecha eguiteco, euren artean bear eztan gauza charren bat, maitetasun gaistoren bat edo cerbait dala. Gura eztabenac esaquizunic, ezpegui emon ocasiñoric. Nai eztabenac deitu daioen otsoa, ezpegui janci otso-narruric. Gura eztabenac queric jagui
115 dedin, ezpegui suric.

Legue zucenean aguinduric dago probantzaric asco dala <273> andra bat gaistotzat euquiteco, guizonaz bacarric, bear eztan orduan edo lecuan icustea. Bada, siñu, quiñu, esate, ibilte, egote aec dira asco bidea besteai emoteco, an euren artean cerbait igaroten dala. Beragaiti, ezta asco zuc orretan intenciño, ez tratu charric ez euquitea; bada, quendu bear dozuz besteen
120 cer esanac, sospechac, juicioac ta escandalo emotec.

Naturelezaren aldetic danaz bere, eztagoz iños seguru guizona ta emacumea alcarregaz. Asco da guizon ta andrea izatea peligruan ifinteco; deabru tentatzallea bere ezatza beimbere lo; onec ereguiten dau erbia, biztuten
125 dau sua, gogoratuten dau pecatua, irazartzen dau araguaia. Eta bein irazarri ezquero, gach da loac artzen; gogoa aidean jaso ezquero, ezta erraz sosegatzen ta bere lecura biurtzen.

Zurtasun andia da emacumeaz ez adisquidetasunic, cariñuric, maitetasunic artzea; aetaric igues eguitea; aecaz ez lagundutea. Bada, bein alcargana

-
- 38-105 *lana ullea campoco ta liñoa barruco* < *illea campoco, eta lihoa barreneco* (GGero 402).
ucha < *arca* (GGero 402).
38-106 *urrezturic* < *urraztatua* (GGero 402).
38-107 *bietan* < *biatan* (GGero 402); *bietan* Iparraldean bakarrik dago lekukotuta, eta hemen Axularren formaren “zuzenketa” gisa bakarrik ulertu behar dugu; Añibarrok berez ez luke ez eta *bitan* ere erabiliko, *birritan* baizik, bizkaitar gehienek bezala (ik. *OEH*, s.v. *birritan*, eta *BITAN*, s.v. *bi*).
38-108 *bietara*: cf. *biez behar duela eduqui contu eta ardura* (GGero 403).
38-113 *esaquizunic* < *erraiçunic* (GGero 403).
38-114 *daioen*: leh. *daien*; cf. *dei deçaten otso* (GGero 403).
38-115 *ezpegui suric* < *eztaguiela suric* (GGero 403).
38-116 *Legue zucenean* = GGero 403. *zucenean*: *aurrean na*] (*naturalean?*), ezabatua.
38-117 *guizonaz*: leh. *guizonez*, < *guiçonarequin* (GGero 403).
38-118 *siñu, quiñu, esate, ibilte, egote aec* < *aieru hec, itçalgaiçca ibiltce hec* (GGero 403).
38-122 *aldetic danaz bere* < *aldetic denaz beçanbatean* (GGero 403).
38-126 *gogoa aidean jaso ezquero* < *gogoa airatuz guero* (GGero 404).
38-129 *aetaric*: jat. *aec taric* (arg. zuz.).

- 130 abiatu ezquero, gach nequezcoa da andic biztuten dan sua atsemon, amate-
tea; ta genteari cer esanic ez emotea. Lenengoan erraz da andreagaz adis-
quidetasunic, llanezaric, traturic ez artzea, alcarregaz ez bildutea, maitetasun
gueieguiric ez euquitea. Baña, bein adisquidetu ezquero, lagundu ezquero,
135 berbaquetan, alcarregaz solasean, presenteac ta bisitac eguiten asi ezquero,
peligru andian ifinten dira euren arimea galduteco ta genteari egemplo cha-
rra emoteco.

Onegaiti, bada, desonesqueriaco pecaturic gorde gura dabenac, ez bacar-
ric euqui bear dau contu andia beguiacaz, bai ta miñagaz bere; eta bai com-
bersaciño luce zoragarrietaric igues eguiteco.

38-134 *berbaquetan, alcarregaz solasean < elccarrequin solhasean, hitzquetan, ellequetan*
(GGero 404).

38-137/139 *ez bacarric euqui...: hemendik bukaerarainokoa Añibarrorena da, Axularren ohiko la-
burbiltzearen orde: nola behar baitu bere mihia edocein hitcen erraitetic guibela-
tu, hala behar du halaber, emaztequin trebatcetic, ibiltcetic eta hitcetan eta eça-
gutçatan sobera barrena sartcetic escusatu* (GGero 404). Bidenabar, *eta bai*
combersaciño... hasten den zatiak joskeraren aldetik betatxu itxura dauka, baina ez
letra-tinten aldetik.

39. BURUA

*Araguizco pecaturic gordeteco zazpigarren erremedioa da
sabelari gueiegui ez emotea, jan-edanean
beguiratua izatea.*

5 Bere buruaz contu ona emon gura dabenac araguizco bicioan, gorde bear
da sabel darraiotasunatic, jateco ta edateco naicunde gueieguitic. Gorde
<274> bear dau neurria jatean, edatean, jan-edan zalegarri gustosoetan, con-
tuz gorderic aoco atea. Terencioc diño: Oguiric ta ardaoric eztan lecuan, otz
da Venus; ezta an amorentasunic ta araguizco atseguintasunic. Jaquiña da
10 araguizco amore desordenatua sua leguez dala; ta su ta gar onen egurrac,
ilintiac, jan-edanac direala. Quendu eiozu egurra, jan eguizu guichi ta edan
guichiago; eta orduan ezta sua biztucio; ta biztuten bada, laster amatauco da.

Ordenatu eban Solonec, baldin errico cargudun bati guertatzen bajacon
lar edatea, ta andic miña moteldu edo zancoac oquertutea, quendu eguioela
15 berpetati bere cargua, oficio ta aguintaritzta. Eta errazoiiaz alan aguindu eban.
Bada, bere burua ecin gobernatu ebanac, celan besteenac? Beretzat ona ez-
tana, diño Espiritu Santuác, norentzaco izango da ona?

39-2 *zazpigarren*: aurrean *zortzi*] (*zortzigarren?*), ezabatua; Axularrek *bederatcigarren* dio
(*GGero* 405), baina gogora dezagun itzulpenean bi buru alde batera utziak izan di-
rela.

39-6 *sabel darraiotasunatic*: ik. § 5.1.1.1. Axularrek erabili baino lehenago agertzen da he-
men (ik. 39-70. oh.); cf. *behar du ian-edanetic ere beguiratu* (*GGero* 405).

39-9 *amorentasunic ta araguizco atseguintasunic* < *amurusiatic, eta ez emazte guticiatic*
(*GGero* 405).

39-11 *ilintiac*: Añibarroren eransketa.
jan eguizu: gainean, *edazu*-ren orde; cf. *jan eçaçu guti, eta edan guti*ago (*GGero*
405).

39-14 *zancoac oquertutea* < *çangoen cordocatcera* (*GGero* 405).

20 Corintioarrac euren erreguea icentatuten ebenean, ta coroitu eguiten ebén ceremonietaric bat zan, ecartea bere aurrera basu bat ur, adietan emoteco ez ebala andic aurrera ardaoric edan bear; edo edango ebana ondo urtsuric edan bearco ebala. Lenagoco demporetan Erromaco emacumeac ez ebén bapere ardaoric edaten.

25 Federico icen onetaco irugarren emperadoreac ez eban bere demporan ardaoric edan, asco bazan bere au aleman batentzat. Eta, celan berac ez eban edaten, begui charraz beguiratuten eutseen ardaora emonac cirian guizon edaleai. Emperadore onec, ezcondua bazan bere, ez eucan umeric. Medicúac alcar baturic ta conseju arturic, esan eutseen emperadorearen emazteari, edan eguiala ardao pisca bat, ta alan euquico cituala seméac. Emperadoreac jaquin ebanean medicuen conseju au, deseo andia baeucan bere semeac euquiteco, orrez guztiaz, esan eutsan bere emazteari, artu ez eguiala alaco erremedioric, ez eguiala ardaoric edan umeac izateagaiti. Gurago ebala icusi bere emazte semebague, seinguea, antzia ta basoan alza frutubaguea leguez, ece ez ordia, ardao-edalea, ardaoari emona <275> ta zaletua. Contuzco berbac dira oneec, ondo esanac seguru bere, andiac dirialaco ardaoac eguiten
30 dituan calteac, batez bere emacumeetan: bada, eztago cer fiatu andra edaleetan, ez guizon ordietan.
35

Lapur bat, jocolari bat, ernegari bat, biraoti bat, desonestu bat gauza charra da; baña guizona da: bere adimentu ta cenzunean dago; cerbaiteco gai ca-

-
- 39-18/19 *icentatuten ebenean, ta coroitu eguiten ebén ceremonietaric bat zan: ez da oso joskera garbia; cf. icendatcean eta corooatcean, usatcen çuten cirimonietaric bat cen (GGero 406).*
- 39-20/21 *ondo urtsuric < ongui ematuric eta urtçuturic (GGero eta Gero 406). Añibarrok jatorrizko formaren txistikaria zuzenkizuntzat jo du, aldeak alde Larramendik bezalaxe (cf. Erans “aguar, urtsatu”). Villasantek, berriz, urtzutu dakar (1976: 457, eta AxH, s.v.), azalpenik edo iruzkinik gabe.*
- 39-22 *ardaoric edaten: honen ondoan azalpen hau dakar Axularrek: Ceren bertcerentçat ere itsusi da sobera edatea, baiña emaztentçat are itsusiago eta perilosago. Handic uste dut ethorri cela usantiça, arrotz calean, campotic ethortcean, guiçonec emaztey pot eguitea, mussu emaitea, iaquiteco ea arno usainic baçutenz (GGero 406).*
- 39-27 *emperadorearen emazteari < emperatriçari (GGero 406).*
- 39-28 *seméac < cenbait haur (GGero 406).*
- 39-29/30 *semeac euquiteco < bere ondotic cenbait umeren utzteco (GGero 407).*
- 39-32 *semebague, seinguea, antzia < haur gabea, esterila, defota, antçua (GGero 407). Cf., alde batetik, VB “estéril: c. ume baguea; b. seinguea; g.n. aurgabea, aurguea”, eta bestetik, “oveja que ya no pare: c. ardi anzua, ancia” eta “pecho enjuto, que no da leche: c. bular antzua, antzutua; b. antzia”. basoan alza frutubaguea leguez < haltça oihanaren vista beçala, fruitu gabea (GGero 407).*
- 39-33 *ardao-edalea < arno edalea (GGero 407).*
- 39-37 *jocolari < iocari (GGero 407); ik. 38-14. oh.*
- 39-38/39 *cerbaiteco gai capaza da < cerbaitetaco gai da (GGero 407); ik. § 5.1.1.4.*

40 paza da. Baña ordia, moscortua, ardaoan jausia abere bat da: ezta guizona. Bada, guizon izatea da adimentuan egotea, errazoian egotea. Orrela, ordia ordituric dagoan demporan ezta guizona: eztauco juicioric, eztauco abere batec baño gueiago adimentuaren usuric, baliatzeric. Beragaiti guizonac bere guizontasunean ecin euqui lei falta andiagoric, ez desonra ezainagoric (munduac alan uste ezpadau bere) orditutea, adimentua ilundutea, fama atan jarrea baño.

45 Noe patriarca santua orditu zan beimbaten; eta arena ezta mirarituteco, lenengo edan aldia zalaco; ta orduan ez cequialaco ce indar eucan ardaoac; bada, jaquin ezquero, gorde zan edateric. Baña miresteco da, zuc orain jaquinic ta esperiencia euquiric neurri batera eldu ezquero ardaoac igaroten zaituala, moscorturic, ordiric ifinten zaituala, ez largatzea edate gueiegui ori, 50 ta barriro orditutea.

Licurgo Traciaco erregueac uste eban ta irudituten jacon etzala asco ardaoac eguiten cituan calteac erremediatzeco, leguez ta ordenanzaz ardaoac eragozte, cerren ori zala erroac largaric, adarrai oratutea; eta alan, aguindu eban mastiac ondotic atera ta zatitu bear ciriala. Bere erreinuco guztiac atera eraguin cituan, areambere ichi бага; eta aguindu eban bicitzaren azpian, andic achina iñor azartu etzidilla matstuiric ifinten. Bide onegaz erregue onec moldatu cituan ardaoac bere erreinuan eguiten cituan calte guztiac.

60 Sabel betea, janariz ta edariz ganez eguitea ecertaco bere ezta on, jocatzeco, berba lar eguiteco, zoraqueriac esan ta eguiteco baño. Etzaitete orditu, diño San Pabloc, etzaitete edanean igaro, cerren ardaoac dan lecuac ezta uts eguingo desonesqueria. Orregaiti diño San Geronimoc, araguaia jatea, ardaoac edate, sabela lar betetea cuticiaren <276> aci-lecuac, minteguiac dala.

-
- 39-39 *ordia, moscortua, ardaoan jausia* < *hordia, ardancoia* (GGero 407). *moscortua*: gainean erantsia.
- 39-42 *adimentuaren usuric, baliatzeric*: cf. *ezpaita orduan, abrea baino guehiago, arraçoiz naz valiatcen* (GGero 407).
- 39-47 *edan aldia* = GGero 408.
- 39-49 *ardaoac igaroten* < *arnoac iragaiten* (GGero 408).
- 39-52 *etzala*: jat. *etzalaco* (arg. zuz.), < *etcela* (GGero 408).
- 39-54 *cerren ori zala* < *ceren hura cela* (GGero 408); ik. § 5.1.2.1.
- 39-54/55 *aguindu eban*: gainean, *mastiac*-en orde; cf. *Baina mahastiac behar cirela ebaqui eta picatu* (GGero 408).
- 39-56 *areambere*: leh. *areambaga*, < *bat ere* (GGero 408).
- 39-58 *moldatu* < *erremediatu* (GGero 408).
- 39-59 *Sabel betea... eguitea* < *Sabel bethea, ianhariz eta edariz ganez eguina* (GGero 408); ik. § 5.1.3.1.
- 39-61/62 *ezta uts eguingo desonesqueria* < *da haraguiaren desira desordenatua* (GGero 408). Ohartu zein adieratan eta zein jokorekin darabilen *huts eguin* hemen.
- 39-63 *aci-lecuac, minteguiac dala* < *haz-leccua da, eta mindeguiac* (GGero 409).

65 Minteguian sortu, erne, jaioten direan leguez landara aldagarriac, alan jan-edanean bere aci, biztu ta eguiten dira atseguñac artzeco naicundeac, guriac, pensamentuac ta gogoraciño gaistoac. Gach da ase bete, olgura, solasa, alperqueria ta atseguñac euquitea, eta araguzco pecaturic igues eguitea.

70 Gueienetan gente aberatsac, andiquiac, jan-edanetan dabilteenac, pobre beartsu goseac illac baño emonagoac dira lujuriara, desonesqueriara. Aberastasunetic, jan-edanetic, gulleriativ, sabeldarraiotasunetic sortuten dira araguiaren atseguintasunac, nai-gura loiac ta pecatuac. Eta guichi jatetic, barautic, jan-edanean beguiratua izatetic ta bere neurri ona gordetetic datoz pensamentu garbiac, debociñoa, castidadea, santutasuna. San Juan Climacoc diño: Gura izatea izan casto garbi onestua, ardaoturic, ase bete eguinic, ori
75 da orioaz sua amatatu ta chacur bati beraganic aldeguiteco ogui zati bat botatea leguez. Bada, sua orioaz gueiago biztuten da; chacurra oguiaz gueiago gueuganatuten da; alan, araguzco gurari gaistoa bere asco jan-edanaz biztuago, aciago, andiago eguiten da.

80 Beragaiti, gorde gura dana desonesqueriaco pecaturic, gorde bear da gueiegui jan ta edateric, sabelari nai daben guztia emoteric, ta batez bere ardaoan ez neurria igaroteric. Contu andia euqui bear dau gordeteaz aoa, gus-tua, miña, ceinetaric ernetan diran desonesqueriaco pecatu loi, ciquin, atsi-tu, quirastu, ezain, lotsagarri, caltegarriac.

39-64 *landara aldagarriac* < *birlandatceco landarea[c]* (GGero 409).

39-66/67 *Gach da ase bete, olgura, solasa, alperqueria ta atseguñac euquitea* < *Gaitz da alfer, aise eta asse eguitea* (GGero 409).

39-67 *igues eguitea*: puntu eta aparte honen ondoan Axularrek atal berri bat (lehena, bere zenbakuntzan) irekitzen du, Añibarrok ez bezala. Berehala ikusiko dugu oso-oso laburtuta dagoela jatorrizkoaren edukia.

39-69 *desonesqueriara*: honen ondoan, Axularrek Sesostriis Egiptoko erregearen istorioa kontatzen du (GGero 409-410), Añibarrok zentsuratua. Hura bukatu bezain laster (410. orrialdearen azken lerroan) berriz lotzen zaio Axularren jardunari.

39-70 *gulleriativ*: jat. *gullariatic* (arg. zuz.), < *gulatic* (GGero 410). Cf. *gulleria* (14-90, 53-187; baita *MisE* 78, ap. *OEH*, s.v. *guleria*) eta *guleria* (44-71).

sabeldarraiotasunetic = GGero 411; ik. 44-71. oh.

39-74 *Gura izatea izan casto* < *Nahi dena ičan casto* (GGero 411).

39-75 *beraganic aldeguiteco* < *bereganic hastantceco* (GGero 411), baina aurreko oharrean aipatutako aldaketa dela eta, Añibarronean bakarrik suertatzen da bitxi.

39-76/77 *gueiago gueuganatuten da*: pertsona aldatu du, < *hurbiltcenago baita* (GGero 411).

39-82 *diran*: ik. 16-46. oh.

40. BURUA

*Araguizco peccaturic igues eguiteco lengoen ganeraco
erremedioac: enzutea, usain eguitea, ucututea.*

1 §.

5 Desonetsqueriaco peccatuan jausi gura eztabenac, ez bacarric euqui bear
dau contu ardurazcoa icusteaz ta gustuaz, beguiacaz ta aoaz, bai ta ganeraco
cenzun guztiacaz bere. Euqui bear dau contu andia enzuteaz, belarriacaz:
<277> bada, enzun bear eztirian gauza asco enzuten dira. Iñorc diñozanean
berba loi zantarrac, ez ernaturic egon, ez gogoz enzun, ichi belarriac, itzuli
10 burua, ez aetan atseguinic artu. Bada, San Isidoroc diñoan leguez: Erraz
eguiten da, gogoz enzuten dana.

Castidadea, garbitasuna gorde gura dabenac igues eguin bear dau dan-
tzetartic, soñuac direan lecuetic. Lengo gentilen artean desonratzat euque-
en dantzan eguitea; etzan gente onraduric, contuzcoric dantzetan icusten. Ci-
15 ceronen esana da: Guichic dantzetan dabe edanic eztagozanean, adimentuan
dagozanean. Oñac arin darabiltzenac, burua bere arina euqui daroe. Gente

-
- 40-2 *igues eguiteco*: aurrean *go*] (*gordetzeco?*), ezabatua, < *beguiratceco* (*GGero* 412).
40-3 *enzutea, usain eguitea, ucututea*: Añibarroren eransketa, zehazki hauek *erremedioak*
ez badira ere.
40-5 *desonetsqueriaco*: cf. halaber 40-56, 40-86 eta 40-111, nahiz gainerantzean (baita
buru honetan bertan ere: ik. 40-29, 40-101 eta 40-107) *desonesqueria* idatzi; <ts>
bitxi hau, antzeko grafia ustez etimologizale anitz bezala, Axularri zor zaio, ezagu-
na denez, baina honek adibide bakarra du, atal honetan hain zuzen (*deshonetsque-*
ria, *GGero* 415), usuenik <s> baitago (edo <z> haren ordez): *deshonezqueria* (*ib.*
178), *deshonesqui* (*ib.* 396 eta, bi aldiz, 418), etab.
40-9 *ez ernaturic egon* = *GGero* 412.
40-16 *Oñac arin... euqui daroe*: Añibarroren eransketa.
darabiltzenac: leh. *darabiltzanac*.

gazte zoro arinen, cenzunez baño zancoz sendoago direanen lana da dantzea. An lotsea galduten da; an bear eztan ezaguera ta adisquidetasuna artzen da; an solasac, escucac, alcar joteac, cirriac, albocadac icusten dira; an issil mandatuac eguiten dira; an amorentasunaraco bidea asten da; an bear ezteriorian gaistaqueriac jazoten dira.

Iñolacoz bere, gauza charra, gaistoa, ocasiñotsua, arriscatua da dantzea; bada, diño San Agustinec: Obe da, pecatu chiquiagoa da, domeca ta jai osoetan achurraz lur lanac ta bear eguitea, dantzan ibiltea baño. Eta au diño onela, ez dantzea bera ain gauza gaistoa dalaco, ezpada dantzatic datoizan ocasiño ta gaistaqueriac gaiti.

2 §.

Bada, gorde bear da usaiñaren atez bere; contu equi bear da surraz bere. Andic bere sartu liteque lapurra, lujuria, desonesqueria. Ezta ibilli bear balsamuz ta gauza usaingarriz usainduric. Alan ibilteac ez dau usain onic. Orregaiti aguindu eban Solonec, ibilli etzidilla iñor gauza usaingarriac saldu-erosten. Zenon filosofoac ecin icusi eban alango usainic erabilienic. Alango usain eransia darabillanac fama charra emoten deutso bere buruari; bada, adirazoten dau berac berez usain gaistoa daucalaco darabiltzala beste usaiquizunac.

Gauza batzuc dira icusi bague, surraz beragaz, usain eguiteaz ezagututen direanac non dagozan ta cer direan. Alan, usain onez <278> betheric dabilzénac usainduten dira, ta icusi bague icusten dira celacoac, ce ecanduetacoac, ce cenzunecoac direan. Onegaiti Marcial poetac esan eutsan bein

-
- 40-17 *direanen: aurrean dag] (dagozanen?)*, ezabatua; cf. *çangoz fidago direnen (GGero 413)*.
- 40-19 *albocadac: Azkue* “(B-a, G), incitamiento”; cf. *escuztatcen da (GGero 413)*.
- 40-19/20 *an issil mandatuac eguiten dira < mandatua eguiten da (GGero 413)*.
- 40-20 *amorentasunaraco: ik. § 5.1.1.1.*
- 40-22 *ocasiñotsua: aurrean da dantzea*, ezabatua; cf. *gauça gaixtoa eta occasinotsua dela dantça (GGero 413)*.
- 40-24 *lur: leh. lurra-edo; cf. lur lanetan haritcea (GGero 413)*.
- 40-25/26 *ocasiño: leh. ocasiñoac.*
- 40-30 *balsamuz: aurrean lo-edo*, ezabatua; cf. *Ezta musquetaz, balsamoz eta halaco bertce usain onez usainztaturic ibili behar (GGero 414) < usainzturic (Gero 414)*.
- 40-33 *Alango: aurrean Usain*, ezabatua. Axularren pasartetxo bat ahaztu edo kendu egin du honen aurretik (ik. § 5.4.4): *Eta hala egun batez bere compainiaco bati usaina adituric, eta bere baithan hasserreturic, galdeguin çuen. Quis hic mulierem olet? Norc du hemen emazte urrina? Bide gabe handia eguiten derauca bere buruari, emaztequi bat beçala, urrinztaturic eta usain onez betheric dabillan guiçonac (GGero 414)*.
- 40-34/35 *bada, adirazoten dau... beste usaiquizunac: azalpen hau Añibarroren eransketa da.*
- 40-37 *onez: leh. onaz; cf. usain onez betheric (GGero 414); ik. § 5.1.1.10.*
- 40-38/39 *ce ecanduetacoac < cer azturatacoac (GGero 414); ik. § 5.1.1.4.*

- 40 Postumo bere adisquideari: Gogo charra emoten deust, Postumo, zure beti
usain onez beteric ibilteac. Bada, eztauco usain onic beragan, usain eransi
campocoaren bearra daucanac. Usainic onena da usainic bapere ez emotea.
Andreagaiti ciñoan Ciceronec, usainic ez dabenean daucala usain ona: usai-
nic eztaucalaco dauco usain ona. Balsamúac ta onelaco usain onac gentea
45 engañatzeco, beraganduteco, bere zale eguiteco, amiora ecarteco; bera
alabatu daien, araguzco pecatura eraguiteco ta gauza dongueraco bideac ta
señale adigarriac dira. Eta ez guichitan erabilten dira onetarico usaiñac es-
talduteco euren gorputzeco gaissotasun quirats, atsitu, lotsagarritzcoren bat,
ezeztuteco ta uste eraguiteco besteai, alaco gachic ez dauqueela. Erre quira-
50 tsa, usain char bat edo gaissotasun atsituac dagozan eche baten erre oi da
gauza usaintsu bat, usain gozoaz quenduteco usain charra. Au berau eguin
daroe usainez beteric, untaturic, beraturic, apainduric dabilztenac.

3 §.

- 55 Eztau ecer balio usain onez beteric ez ibilteac, baldin contu andi bat ifin-
ten ezpada, berari dagocana baño soñeco ederragoac ez erabilteco. Au guzti
au da arrotasuna, baneria, desonetsqueriaren señalea. Jaquintsuac diño gor-
putzeco apaindureac, aguinetaco barreac ta ibillereac eracusten dabela nor
nor dan. Non quea dan, sua da an: alan soseguric bague aoa zabalac barra
60 irrica egotean, apaindura arroacaz janciric ibiltan da aguiri ta ezagututen
da, ero zoro adimentu guichicoa, buru arina dala bat.

- Euquiric cer jan, cer janci, cegaz gosea il ta cegaz gorputza estaldu, con-
tentu gagoz onembestez, ciñoan San Pablo Apostoluac. Eztogu gura jan-
edan ta soñeco gueieguiric; bear-bearraz gagoz contenu, igarogarri bat dogu
asco. Cenzun guichiaren señalea da, berari dagoquion janciera baño ederra-
65 goa, costotsuago, arroagoa erabiltea; <279> ta soñeco apaindura ederracaz
janciric dabillanean, bere buruari gogo onaz beguiratutea. Onelaco bati issi-

-
- 40-40 *charra*: leh. *charrac*; cf. *Gogan behar gaixtoa emaiten deraut* (GGero 414).
40-40/41 *zure beti usain onez beteric ibilteac* = GGero 414; ik. § 5.2.2.
40-45 *eguiteco*: gainean, *ta-ren* ordez.
40-46/47 *bideac ta señale adigarriac < bideac eta seinaleac* (GGero 415); ik. § 5.3.1.
40-49/52 *Erre quiratsa...*: hemendik hasi eta bukaerarainokoa Añibarroren eransketa da.
40-52 *beraturic*: lehen bi letrak ez dira argiak; Urquijok (1933: 206) *loraturic* dakar, baina,
erabat ezinezkoa ez izan arren, egiantzekoago deritzat besteari, letragatik ez eze,
esanahiagatik ere: cf. *VB beraatu* (c.) “empaparse”, adibidez.
40-57 *aguinetaco barreac*: cf. *Soineco arropetan, irrian eta ibiltcean* (GGero 415); ik. 40-
58/59. oh.
40-58 *Non quea dan, sua da an < Nola khea den leccuan, agueri baita badela sua* (GGero
415). Cf. *HH* “(Donde) fuego se haze, humo sale, non sua dan, quea bada an”.
40-58/59 *aoa zabalac barra irrica egotean < hortçac hirrituric, bethi irriz egoitean* (GGero
415).
40-63 *igarogarri*: cf. *doiaz elicatcen, iragaiten eta contentatcen gara* (GGero 416).

70 Ilic belarrira esaten eutsan egun baten Demonacte cerichan filosofo batec:
Ola, ola adisquidea, orain zuc soñean daucazu[n] janci ori, zuc baño len era-
billi cituan bere bizcarrean ardiac, bada aren ulleaz eguinac dira; ez dozu cer
orregaz arrotu bear. Eta bestela bere, soñeco erropac pecatuaren estalgarriac
leguez, ta pecatu eguin dogunaren señaleac dira.

75 Ederto berba eguiten da[u] onen ganean Santo Tomasec. Gura dozu ja-
quin, diño, cer dan bere soñeco apainduraz andiustetan dana? Bada da, azo-
tatu ezquero, justiciac sorbaldan burdiña goriaz emoten deutsan marca ta si-
lluaz preciatuten dan lapurra leguez. Marca á bere gaistaqueriac gaiti eguiten
deutsé lapurrari; eta bai guri bere soñeco jancia Adan gure aita lenengoaren
pecatuagaiti. Pecaturic izan ezpalitz, soñeco bearric ezquenduan euquico;
eztogu, bada, euqui bear baneria preciatu arroturic beragaiti.

80 Bacocho janci bear da dagoquion erara, ta ez gueiago. Gueiagoaz onra-
tu baño, desonra gueiago dacarco bere buruari. Erregue janci bedi soñeco
obearenaz; zaldun bat erdicoaz; necazaria beragocoaz. Ganeraco guztiac
dira superbia, arrotasuna, baneria, pecatu eguiteco ta eraguiteco bideac, gal-
dugarriac, gorputz eta arimeari calte asco dacarquiozanac.

4 §.

85 Baña beste cenzunai baño, contu gueiago escuz ucututeaz, escucac, es-
cutusun loiac euquiteaz. Au da desonetsqueriaco pe[ca]tuaren lapurreen ca-

-
- 40-69 *cituan*: pluralean, baita ondokoan ere (*eguinac dira*), objektua singularra bada ere;
Axularren testuak azaltzen du hutsa: *orai çuc soiñean darabiltçatçun arropa ho-
riec...* (GGero 416).
- 40-70 *estalgarriac* = GGero 416.
- 40-71 *dogunaren*: leh. *dogun*; cf. *beccatu eguin dugulaco seiñaleac* (GGero 416); ik. §
5.1.1.8.
- 40-72 *da[u]*: hutsaz gainera, lerro gaineen erantsita dago.
- 40-73 *andiustetan* < *preçatcen eta loriatcen* (GGero 416); cf. *VB andiustetu, antustetu* (c.)
“presumir” (*antustetu* < *HH*).
- 40-76 *Adan gure aita lenengoaren* < *Adan gure lehenbico aitaren* (GGero 417).
- 40-78 *euqui bear baneria preciatu arroturic beragaiti* < *hetçaz, cer vanaloriaturic* (GGero
417).
- 40-80 *Erregue* = GGero 417.
- 40-80/81 *soñeco obearenaz* < *oihalic hoberenaz* (GGero 417).
- 40-81 *necazaria*: jat. *necatzaria* (arg. zuz.), < *neccaçalea* (GGero 417); cf. *necazari* (36-8,
45-168 eta 49-60) vs *necatzalle* (36-9).
- 40-82 *superbia*: ik. 36-50. oh.
- 40-82/83 *galdugarriac* < *castitatearen galgarriac* (GGero 417).
- 40-83 *gorputz eta arimeari... dacarquiozanac*: Añibaroren eransketa. *dacarquiozanac*: ik.
19-216. oh.
- 40-85/86 *cenzunai baño... ucututeaz, ...euquiteaz*: lehen datiboa, eta gero instrumentala; cf. *Bai-
na guztien gaitetic borzgarren censu corporalari, cein baita Tactus, uquitea, es-
cutzatcea eta hazcatcea, eduqui behar çaiça beguia* (GGero 417).

pitaia, burua, aguintari nagusia; bestee[n] lapurquerietan bere parte daucana. Icusteaz, berba eguiteaz, enzuteaz, usain eguiteaz eguiten da pecatu, baña ez ucutuaz leguez. Beste cenzunac urrinitic, baña ucututeac urretic esetsi, erasoten dau. Beguiac, miñac ereguiten dabe erbia, baña ucututeac cogidu, atzemon. Gaistoeneco puntuan, desonesqui berba eguin ta beguiratzeagaiti, arrerago igaroten ezpada, ez da obrazco peccaturic; <280> baña ucutu ezquero, eldu da azqueneco peccatura. Gauza desonestu bati beguiratutea, erituteco señaleara da, baña ucututea iltecoa. Pensamentu edo beguira[tu]teac orrembeste calte eguiten badau, cer izango da escuca, laztanca, besarca ibiltea? Urrinitic suac berotuten badau, cer urreratuten danean? Eztago ondo amucoa, suac ucututen deusanean. Gatza uragaz eguina izanic, ez dau ura baño arerio andiagoric. Araguia bere eztauca araguia baño contrario ta arerio andiagoric. Alcar ucututea da asco galduteco. Beragaiti, apartatu, aldeguin bear dira, batez bere gazteac alcarreganic.

Azquenez, erremedio guztien ganecoa desonesqueriaco peccaturic gorde-teco da gogora[tu]tea Jangoicoac icusten gaituala, guri beguira dagoala lecu guztietan. Eta, baldin danic persona prestuez[en]aren aurean onelaco peccatu loi bat eguiten lotsa bagara, errazoia izango da atzeratutea peccatu eguiteric Jangoicoac gacusalaco, gure gogo ta eguite guztiai beguira dagoalaco,

-
- escucac*: ez dakit azken -c ezabatu nahi izan zuen ala ez.
escutasun: cf. VB “tocamiento de manos (...)”. Si son impúdicos: *escuca loiac* (...), *escutasun loiac*”.
- 40-86 *lapurreen*: gainean erantsia; cf. *Ceren hura da ohoinen capitaina* (GGero 417); formaz ik. § 4.2.4.
- 40-88/89 *baña ez ucutuaz leguez < ez ordea uquitceaz beçala* (GGero 417); aditzizenetik partizipiora (ik. § 5.5.1).
- 40-91 *Gaistoeneco puntuan* = GGero 418.
- 40-93 *Gauza desonestu bati beguiratutea < Desonhesqui behatcea* (GGero 418).
- 40-94 *erituteco < eritceco* (GGero 418).
- 40-94/95 *Pensamentu edo beguira[tu]teac orrembeste calte eguiten badau < Oraino solhascatceaz [sic] eta behatceaz beraz ere, quilicatcen da, orhoitcen da* (GGero 418).
- 40-96/97 *Eztago ondo amucoa < Gaixqui doha iztupaz* (GGero 418).
- 40-97 *suac ucututen deusanean < suac utqui deçanean* (GGero 418); *ucutu*-ren erregimenaz, ik. 4-25/26. oh.
- Gatza*: honen aurean hauxe dakar Axularrek: *Bertce ioco guztia ametsetacoac beçala dira, utquitcea da iratçarriricoa, fina eta segura* (GGero 418).
- 40-100 *batez bere gazteac alcarreganic*: Añibarroren eransketa. Honen ordeaz, hauxe dakar Axularrek: *Beraz, aparta, ez hurbil, ez utqui. Ceren nola uquitceac pitzen baitu sua, hala ez uquitceac, hastantceac eta aldaraturic egoiteac beguiratcen du castitate eta garbitasuna* (GGero 418).
- 40-101 *desonesqueriaco*: aurean *gogora*] (*gogoratutea?*), ezabatua.
- 40-105/109 *gure gogo ta eguite guztiai...*: hemendik hasi eta punturainoko guztia Añibarroren burutik jaulki da. Axularrek bestela zioen: *nola içanen da arraçoïn guibela gaitçan, gueldi gaitçan eta beguira gaitçan, Iaincoac iccusten gaituela, eta aldacan beha dagocula iaquiteac eta pensatceac* (GGero 418-419).

berac eguiñac garealaco, bere aotic beti-betico sententia enzun bearco dogulaco, desonesqueriari gorroto andia deutsalaco, pecatu onegaiti castigu andiac eguiten ditualaco, orain pecatuac eguiten dituanac infernuco su ta garraz erretzen, berotzen, quiscaltzen secula betico euquico dituala[co].

- 110 Onec dira (ta Jangoicoac indarra emon daiola) erremedio, bitartecoac
 gordeteco bat desonetsqueriaco pecaturic. Eta baldin contuz ta gogoz artzen
 badozuz, ecarrico deutsue atseguin andia arimaraco ta gorputzaraco; ta ben-
 zutu, goiartu, azpituco dozu munduan dozun arerioric andiena: ceure ara-
115 guia, ceinec aimbeste arima eroan dituan infernura; ta erbestetu ditu Ceruco
 gloriatic.

40-110 (*ta Jangoicoac indarra emon daiola*) < (*eta Iaincoac ailliotza liren asco*) (GGero 419).

40-112 *gorputzaraco*: ik. § 5.1.1.1.

40-113 *munduan*: *aurrean aragui*], ezabatua.

40-114/115 *ceinec aimbeste arima... gloriatic*: Añibarroren eransketa.

41. BURUA

*Guerotic guerora dabiltzénac salatuten ditu euren
conciencia gaistoac.*

1 §.

5 Santo Tomasec diño, ta gueuc dacuscu ta dazaugu, Jangoicoac gure barruan ereinic ta landaturic daucala jaquin bear doguna jaquiteco ta eguin bear doguna eguiteco bear dogun arguia ta acia. Norberac bere barruan ta beragan dauco Jangoicoac emonico zucenguille, guidari <281> ta arguiguille bat. Onec daracuscu cer dagocun ondo eta cer donguero, nos goazan oquer
10 ta nos zucen. Bai ta al guztiaz aurreratuten gaitu ta muguitu on eguitera, ta atzeratu pecaturic.

Dotoreac *Sinderesis* deituten daben argui natural ta arguiguille au da gure *conciencia* edo errazoi gueurezco naturala. Ez da munduan berau baño guidari, eracusle, argui-eguille oberic. Naturalezaren erara, leguez ta etorquizunez jatorcu conciencia au; bacoachac gueugan dogu; ta guztioac muguitu, abiatu, consejatu, zucendu ta arguituten gaituz ezagututeco cer eguin bear dogun, cer larga bear dogun. San Juan Crisostomoc diño Jangoicoac guizona sortu ta eguin eban ordutic emon eutsala legue naturala. Eta, cer da legue

41-2 *dabiltzénac*: leh. *dabiltzánac*.

41-7 *arguia ta acia* < *hacia eta landarea* (GGero 419).

41-8 *zucenguille* < *aicindari* (GGero 420).

arguiguille < *argui eguille* (GGero 420), baina beheraxeago (41-14) *argui-eguille* dagoen-dagoenean gorde du.

41-13 *errazoi gueurezco naturala* < *arraçoin naturala* (GGero 420); cf. VB “razón natural: c. *argui naturala, errazoi gueurezcoa*”.

41-14/15 *etorquizunez*: nahasteren bat izan du Añibarrok: cf. *naturaren arauaz, leguez eta ethorquiz* (GGero 420).

41-18 *sortu ta*: ta gainean erantsia; cf. *eguin çuetic beretic* (GGero 420).

20 naturala? Da bacocharen conciencia, norberac bere barruan daucan ezague-
ra ta argui bat, jaquiteco cer dan zucena ta cer oquerra, cer ona, cer deun-
guea; alacoz ece, conciencia onegaz arguiro ezagututen da gauza gaistoa
dala pecatua, ta gauza ona birtutea; au alan daquigu dala, iracasiric gueure
buruac, gueure adimentuac, legue naturalac ta concienciac.

2 §.

25 Onetan da aguiro maite gaituela gueure Jangoicoac. Bada, gueugan,
gueure eche barruan, besteetara itundu, itaundu, consejatzera joateco premiña
bague emoten deuscu consejaria, maissua, eracuslea, guidaria, cein dan
conciencia. Eta onegaiti, condenetan dira legue natural onen erara bici ezti-
rian gentil fedebagueac. Mercatariac, tratudunac eguiten ditue saldu-erosi
30 nastuac, tratu gaisto bidebagueac, lucreriac, engañuac pisuan, neurrian, pre-
cioan. Guero doaz confesore edo besteetara itandutera, ea tratu aec justuac
direanez, eguin al balitequez. Eta doaz motibu ta premia guichiaz. Bada, ain
arguiro ezagutzen da tratu char eragotziac direala, ce besteren billa ibilli ba-
gue, itanduco baleusquioe euren concienciari, onec eracusico leusquioe
35 eguia. Ta andic condenatuco leuque euren burua; bada, euren conciencian
idoroco leuquee, escripturic balego leguez, itanduten daben guztiaren eran-
zuera.

Adituten badeutsagu concienciari, bera da asco ez uts eguiteco, artez ta
zucen ibilteco, daquialaco bear dana, ta bere eguitez <282> guztia [dalaco]
40 onera emona. Eta Santo Tomasec diñon leguez, onari eguiten deutso arpegui
ona, beguirarte gozoa; baña gaistotasunari arpegui iluna ta aserratua. One-
gaiti, concienciari jarraituric, onen buruz ta adibidez gobernatu ta guidatu-
ten dana ondo doa, zucen dabil, eztau utsegingo. Baña bestela, bere con-
cienciaren contra dabillana oquer dabil, triste, ilun ta barruco baque bague.

45 Ta errazoiac da alan. Bada, celan zancoa, besoa edo gorputzeco zati bat
bere lecutic ta iunturatic locaturic, ateraric, aldaturic, macurturic dagoanean,

-
- 41-20 *oquerra*: aurrean *macur*-edo, ezabatua; cf. *cein den çu[c]en eta cein maccur* (GGero 420).
41-22/23 *gueure buruac*: ergatiboan (ik. § 5.1.2.5); cf. *ceren badaquigu haur gueroc ere gueu-
re burutic, legue naturalac berac, concientciac eracutsiric* (GGero 421).
41-31/32 *justuac direanez, eguin al balitequez < iustu direnz, eguin ahal ditezqueyenz* (GGero
421); *ba-* galdegileaz, ik. § 4.4.7.
41-33 *arguiro*: aurrean *cla]* (*claro?*), ezabatua, < *clar* (GGero 421).
41-39/40 *guztia [dalaco] onera emona*: cf. *Ceren badaqui behar dena, eta bere eguitez guztia
da onera emana* (GGero 422).
41-41 *ona*: gainean *chera* dago, baina ez dakit non eransteke zen; cf. *ontasunari eguiten dio
besta eta beguitarte* (GGero 422).
beguirarte: ik. 22-90. oh.
41-42 *onen buruz ta adibidez < haren buruz eta conseilluz* (GGero 422).
41-45 *zati*: gainean, *parte*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *edo gorputceco bertce par-
te bat* (GGero 422).
41-46 *iunturatic* = GGero 422.

50 eztauco batec soseguric bere toquira biurtu arteraño; alan, bere concienciari atzea emonic, ez jaramonic, ez jarraituric pecatuan dagoanean bere, orduan dago bat bere lecutic camporaturic, ateraric bere concienciatic eracusten deutsan bidetic; eta ecin sosegatu da alan dagoan bitartean. Bere bide ta toquian dagoanean, celan dagoan pecaturic ez dabenean, orduan dago bat pocic, contentu, baquean, bere gustura.

3 §.

55 Ez da conciencia donguea baño gauza gaistoagoric, ez erregarriagoric; bera da azote, cigor ta borreruric gogorrena. Alan diño San Agustinec, Jan-goicoaz berba eguiten dabela: Aguinu cenduan, Jauna, ta alan da: conciencia charra, bera da buruarentzat pena ta castiguric andiena. Eztago ibairic ta ez urjolaric lurra alan daroanic; ez da cedenic zula alan deseguiten dabenic; ez da arric urdaia ta araguaia alan jaten dabenic; ez sitsic oiala alan zatitzen
60 dabenic, celan conciencia gaistoac noberaren burua.

Arra da conciencia barruan dagoan pecatua; ta arrac leguez, gau ta egun dago ausica, dedarca ta jaten gueure barrua. Eta ain gose da, ce ezta beimbere ase betetzen, ez aspertuten, ez bere faltac gogora ecartzetic gueldituten. David erregueac besteren emazteaz uts eguin [e]banean, aleguin guztiac,
65 itzul-inguruac, iguesbideac eguiten cituan uts eguite a estalduteco. Eta ez ori, iñoren bildurric eucalaco, bada erregue zan; ezpada bere concienciatic sa-

-
- aldaturic*: cf. *ilquitcen*, *maccurtzen*, *aldaratcen edo enhardatcen denean* (GGero 422); ik. § 5.3.4.
- 41-54 *erregarriagoric* < *erragarriric* (GGero 423).
- 41-57 *buruarentzat* < *bere buruarentzat* (GGero 423); ik. § 5.1.2.5.
- 41-58 *ez da cedenic*: Axularrenean zura *pipiak* desegiten du, urdaia *zedenak*, oihala *zerrenak* eta haragia *harrak* (GGero 423).
deseguiten: gainean, *jaten*-en orde; ohartu hurrengoan ere *jaten* erabili beharrekoa zela. Beraz, azkenean Axularrenekin geratu zen: *deseguiten... iaten* (GGero 423).
- 41-60 *noberaren burua* < *bere burua* (GGero 423); ik. § 5.1.2.5.
- 41-62 *ausica*, *dedarca ta jaten gueure barrua* < *autsiquitcen du*, *iaten du*, *larrutcen du* (GGero 423). *ausica*: *autsiqui*-rekin belarriz lot zezakeen arren, ez dira familiakide, noski: cf. *VB ausica* (b.) “ladrido”; susma daiteke nahita aldatu zukeela, zeren eta lehenago, testuinguru argi batean, *autsiki usegin*-ekin itzuli baitu (27-13), kontzientziaz ari dela beti *ausicada* (3-122, 53-235) erabiltzen duen bitartean.
- 41-63 *ez bere faltac gogora ecartzetic gueldituten* < *eta bere faltan gogora eccartcetic guelditcen* (GGero 423).
- 41-64 *David*: aurrean *Err*] (*Erregue Davidec* jartzeko?), ezabatua; cf. *Erregue Dauitec* (GGero 423); ik. § 5.1.1.2.
[e]banean: lerrotik lerroa igarotzean *e-* ahaztu zaio; beharbada zerikusiren bat izan du aurreko lerroaren bukaera ere *e-* izateak.
- 41-64/65 *aleguin guztiac*, *itzul-inguruac*, *iguesbideac* < *anhitz enseiu eta itçul-inguru* (GGero 423).
- 41-66 *iñoren*: leh. *iñorren*.

latuten ebalaco, bere barruac <283> cicadac, quisquetadac, dedarrac emoten eutsazalaco.

70 Concienciac ezteutso parcatuten, ez Aita Santuari, ez emperadoreari, ez erreguari, ez beste munduan dani. Eta guzti au eguiten dau gure oneraco, gu pecaturic atzeratuteco. Gueure gurasoac baño maiteago gaitu gueure concienci-
75 ac. Aita batec bere semea bein, bitan, irutan, amar bider cemaitu dabenean, badacus eztabela fruturic ateretan, eztala onduten, eztala cenzunduten, larguetan dau, ezteutso jaramoten. Baña ez concienci-
75 ac, eztau beimbere largatzen, ichiten, etsiten.

Guerra andia eguiten deuscu gueure concienci-
deuscu, ta onela pusca bat atzeratuten gaitu pecaturic; bestela galduac guiñean, eguingo eban gureac. Orregaiti dino San Crisostomoc: Concienciaren cemaia, menazua, deadarra, deia, eranzuera da ancla angura bat, ta aingura
80 santua ta ona, pecatuen ondarretic ta an itotzetic gordeten gaituana; ta ichasoan anclac ontzia leguez gaucazana.

4 §.

Baña diferencia andia dago concien-
ciencien artean; asco doa bateric bestera. Conciencia batzuc dira irazarriac, senticorrac, mimberaac, estuac, contuzco-
85 ac; ta beste batzuc lotiac, illac, nasai zabalac, ardurabagueac. Zapata bat dozunean neurri justu doi estuan, ecin sufrituco dozu barruan arearic chiquiena; baño, baldin oñetacoa badago zabal, lecu fra[n]cua dauco, oña mindu bague, ez bacarric area, bai ta arrichoac, oialac bere euquiteco.

41-73/74 *cen-zunduten < cençatcen (GGero 424).*

41-79 *eranzuera: cf. Concienciaren erançutea eta mehatchua (GGero 424), eta ik. § 5.3.4.*

41-79/80 *ancla angura bat, ta aingura santua: hiru forma segidan, Axularren aingura-ren lekuan (GGero 424); ik. § 5.5.1.*

41-80/81 *ta ichasoan anclac ontzia leguez gaucazana: Añibaroren eransketa, metafora argitzeko (ik. § 5.4.2).*

41-85 *lotiac < loti (GGero 425).*

41-86 *neurri justu doi estuan < neurri, iustu, doi (GGero 425). Añibarrok izen gisa darabil, eta agian baita izentzat hartu ere, Axularren neurri adizlaguna.*

41-86/87 *arearic chiquiena < legarric ttipiena (GGero 425); area 'harea bikorra' adieran erabilia, ohi ez bezala (cf. OEH, s.v.).*

41-87 *oñetacoa badago zabal < çapata baquetazco handi çabalac, eztira hain perilos; hec badute... (GGero 425).*

fra[n]cua: lerrotik lerrorako aldaketan zatituta dago hitza; cf. leccu franco (GGero 425).

41-88 *bai ta: ta gainean erantsia.*

oialac: halaxe irakurtzen da (cf. halaber Urquijo 1933: 210), eransketa ulergaitza bada ere: cf. ez legarraren, baiña harrizcoen ere eduhitceco (GGero 425). Ez, ordea, erabat ulertezina: ziurrenik hanketan lotzen diren oihalak (azpantarren modura) zeuzkan buruan.

90 Diferencia berau dago conciencia onaren ta gaistoaren artean bere. Con-
ciencia onac, justuac ecin sufritu dau pecatu benial bat bere; baña gaistoac,
zabalac, nasaiac eztauco mortalacaz bere conturic. Ascoc, diño San Ambro-
sioc, aimbeste pecatu eguiteaz, pecatuan beti egoteaz, atara eanduteaz, oi-
tuaz ta atan gogortuaz, lo-zorroac arturic egonaz, eztituez euren conciencia-
95 co pecatúac sentitzen. Espiritu Santuac diño: Gaistoac, pecatuen oxin
ondarrean sartu ezquero, galduten dau sentimentua, eztauco antsiaric, ardu-
rarric, bildurric.

Señale ona da pecatuaren zauria, llaguea sentitzea; ta señale charra ez
sentietea, diño San Ambrosio berac. Bada, sentimentua galdu ezquero, diño
santuac berac, dolorea ill ezquero, araguaia atara eguin ezquero ta usteldu ez-
100 quero, ez da erremedioric, eztago osagarriric, utsac ta alperrac dira medici-
na sendagai guztiac. Au berau <284> da mundu onetan pecatariac equi
leian zorigachic andiena, castiguric gogorrena, estaduric peligruzcoena,
egoteric gaistoena: pecatuan egonic ez sentitzea, Jangoicoaren arerio izanic,
ez bildurric equitea. Alacoac concienciaren ausica guichi enzuten dau, lo
105 guichi orregaiti galduten dau. Baña eztago, ez, onelacoa alde guztiz quezca
bague: danic gaistoenari bere, nosic bein baño ezpada bere, salatuten dau
bere conciencia gaistoac. Eta San Juan Crisostomoc diñoan leguez: Gura ba-
leu bere, concienciac ecin parcatu lei; bere dedarrac ta saladurac eracusten
ditu. Bada, San Ambrosioren esatez: Conciencia eztagoanean oituric berba
110 eguiten, eztaqui alambere issilic egoten, beti daragoio, beti da iñardun; eta
campoan ta aguirian berba eguiten ezpadau bere, baña bai an bere barruan.

Conciencia da beimbere loac artuten eztaben serbitzari bat, catarrotu ta
motelduten eztan predicari bat; ta beti onera garoazan guidari zucenguilla

- 41-92/93 *egoteaz... eanduteaz, oitua... gogortuaz... egonaz*: aditizenetik partizipiora (ik. § 5.5.1); cf. *beccatu eguin hutsen botherez, ez tute bere concientciaco beccatua*[cf sentitzen (GGero 425).
- 41-100/101 *medicina sendagai*: esanahikide bikotea (ik. § 5.3.1); cf. *ezta sendagai, ezta senda-quiçun, eta ez midicuntçatan ibiltceaz probetchuric* (GGero 425).
- 41-102 *leian*: *aurrean al*, ezabatua; cf. *ahal duqueyen* (GGero 426).
- 41-103 *egoteric* < *egoitçaric* (GGero 426).
- 41-105 *alde guztiz* = GGero 426; ik. § 5.3.3.
- 41-106 *salatuten dau*: datiboa (*gaistoenari*) zintzilik geratu da edo, hobeto esanda, datiborik ez zen behar, Axularren egituraren arrastoa baino ez baita: *den gaixtoenari ere, noi-ziç behin bedere alhatcen çaica bere conciencia* (GGero 426).
- 41-110 *beti daragoio, beti da iñardun*: Añibarroren eransketa. Erreparatu *iñardun*-en erregimenari: *OEH*-ak (s.v. *jardun*) ez du XIX. mendearen azken aldera arte adibide irangaitzik aurkitu; halaz ere, nabarmena da Añibarrok ez duela aditz hau behar bezain ongi ezagutzen, bakan erabiltzeaz gainera, *diardu* partizipio gisa erabiltzeko joera ere bai baitu (ik. 1-108/109. oh.): cf. gramatikan dioskuna: “Más usual que este verbo [*jardun* o *iñardun*] está en Bizcaya *erago*, oni, orri daragoiot” (GB 70); ik. § 4.3.10.14.
- 41-112/113 *catarrotu ta motelduten* < *marrantatcen edo erlasten* (GGero 426); cf. VB “enronquecer, ponerse ronco: n. *marrangatu*; c. *catarrotu*” eta *moteldu* (c.) “trabarse la lengua”.
- 41-113 *guidari zucenguilla* < *quidari* (GGero 426); esanahikide bikotea (ik. § 5.3.1).

bat. Concienciac ezteuscu igues eguiten: beti darraigu, guericeac gorputzari
 115 leguez. Eztago iños alperric; errepreñsiñoac emoten deuscuz; aguiraca jagocu,
 ausica eranzuten dagocu. Batez bere pecatu eguin ezquero, orduan jagu-
 iten da, orduan atzamarca eguiten dau, orduan dira chilioac, deadarrac, que-
 jac eta minac, orduan emoten ditu otsac, olesac, colperic andienac.

Bada, San Crisostomoc diñoanez: Celan ordiac ardaoa irunsiten dabene-
 120 an eztau sentitzen andic eldu jacan caltea, orduco gozotasunac, edatean ar-
 tuten daben atseguñac itsututen deusalaco adimentua; baña guero, mosco-
 rra joan jaconean, dazau bere utseguña, falta ta desonrea. Alan, pecatariac
 pecatu eguiten dabenean eztacus, eztazau andic eldu jacon calte icaragarria,
 125 pecatuaren atseguñac ilundu dabelaco, itsutu, conortebaguetu dabelaco, ta
 aimbeste, ce ezta orduan gachez gomutetan. Baña guero, igaro danean peca-
 tua, jaguiten da conciencia, ta ain biciro ta latzqui salatu ta aserratuten jaco,
 ce atseguin guztia azturic, ifinten dau pecataria damuz ta naibaguez beteric.

5 §.

San Agustinec diño iru gauzac ateraten dabéla guizona bere echeric; eta
 130 dira emazte gaisto oñolaria, itoxura ta quea; eta onela, conciencia gaistoac
 bere ateretan dabela pecataria bere sosegutic. Andra <285> gaisto ernegaria,
 itossura edo itoguiña ta quea dan lecuan eztago gusturic, ez atseguinic, ez
 baqueric; ez eta conciencia charra daucanen biotzean onic. Pecataria sartu-
 ten bada bere barruan, bere consideraciñoan, bertati ango queac ateraco dau
 135 campora, azpituco dau tristurac.

Campoan arerioac, pelligruac, arriscuac, persecuciñoac dituana laster
 doa echera, segurura, bere burua gordetera. Baña echean dituanac arerioac,
 naibagueac, contracorrac, perseguillac, itossura, quea, andra gogaicarria, cer
 eguingo dau? Nora joango da? Non izango dau consueluric? Campoan are-

-
- 41-116 *Batez bere...: honen aurrean honako hau dakar Axularrek: Beccatua eguin baino lehen, eguñtean eta eguñez guero ere, erasten da, avisatcen du, accusatcen du (GGero 426).*
- 41-118 *orduan emoten ditu otsac, olesac, colperic andienac < orduan dira ezproin colperic handienac (GGero 427).*
- 41-120 *eldu jacan < heldu çaicán 'datorkion' (GGero 427); ik. § 5.3.4.*
- 41-123 *eldu jacon < heldu çaicán 'datorkion' (GGero 427). Ohartu jacan / jacon bikoiztasunari.*
- 41-130 *emazte gaisto oñolaria < emazte gaixtoac (GGero 427). oñolaria: cf. VB "marmeador: oñolaria"; bide batez, Añibarroren hiztegiko marmear eta marmeador-ek euskaldunen gaztelanian sartutako euskal hitzak dirudite, ez baititut ezagutzen, ez eta ohiko hiztegietan aurkitzen.*
- 41-133 *daucanen: genitibo singularra (ik. § 5.1.1.7); cf. duena baithan (GGero 428).*
- 41-138 *contracorrac: cf. etchean ere etsaiac, atsecabeac, ithaiçura, khea eta emazte gaixtoa dituenac (GGero 428) eta ik. 32-67. oh.*

- 140 rioac, echean guerrea daucanac, non idoroco dau baquea? Non? Bere barruco camaran, bere conciancian, an bear dau guelditu, gorde, consolatu, arindu, gozotu, poztu. Baña, baldin bere barruco camaran, echecho barruenean, bere conciancian bere idoroten badau arerioa, itossura, quea ta saladurea, cer eguingo dau orduan? Noraco da? Sartu arren bere concianciaco barruan, eztau aurquituco baqueric, soseguric. An bertan batuten jaco bere arerioa; ta arerioric andiena, echetarra dana. Arerioaren igues dabillala, topatzen dau bere arerioa, diño San Agustinec. An alde guztietaric esetsi, lotu ta catibututen dau. Bere burua bere arerio dau; berac [bera]ganic ecin igues eguin dau. Ondo diño, bada, San Agustin berac, eztagoala conciencia gaistoa baño gauza penagarriagoric, arerio gogorragoric. Bada, an ez egonic Jangoicoric, ecin egon liteque zorionic, baqueric, gozotasunic, consolamenturic, pocic.

- Gaissoric, minduric, barrua gaissoric daucan persona bat, poztu liteque dempora labur batean campoco genteen artean; baña guichi alan iraungo dau; bereala barruco gachac esetsiten deutso, triste ta jausia ifinten dau. Alan tristetuten dau pecatuan dagoana bere concianciac, barruco arrac, gaissotasunac. Dacusunean pecatari bat, diño San Ambrosioc, dagoanean pecatu eguiten, jan-edanetan, solasan, gorputzari nai dituan atseguinac, olgurac, pozcariac, gozotasunac emoten, usteco dozu an dagoala gloria, paraisua, ase betea, ta eztagoala cer gueiago deseatu. Baña, baldin itanduten badeutsazu ea celan joacon bere barruan, bere conciancian, esango deutsu deunguero dagoala, eztagoala contentu, ezteutsala baqueric emoten bere concianciac, <286> sepultu[ra] atsitú bat baño quirastuago daucala bere barrua. Bada, Isaias profeta santuac diñoan leguez: Gaistoac ichaso amurratu iraquin bat dirudie; eztabe baqueric, ez soseguric; aimbeste ola, бага, ecach ta ur co-

-
- 41-142 *camaran* < *ganbaran* (GGero 428).
echecho barruenean: Añibarrok erantsia.
- 41-143 *saladurea* < *erançutea* (GGero 428); ik. § 5.3.4.
- 41-144 *Noraco da?* = GGero 428.
bere concianciaco barruan < *bere barreneco gambaran* (GGero 428); ik. § 5.1.1.8.
- 41-146 *echetarra dana* < *etche barren[e]coa* (GGero 428).
Arerioaren igues dabillala < *Etsaiaren ihesi dabillala* (GGero 428).
- 41-148 *berac [bera]ganic*: cf. *berac bereganic ecin baitaidique ihesic* (GGero 428). Tartean lerro aldaketa dago, Añibarrok egin dituen hainbat kopia hutsetan bezala. *beraganic* formarako, cf., adibidez, 39-75 edo 42-199.
- 41-152 *Gaissoric, minduric, barrua gaissoric daucan persona bat* < *Eri den presunac, barrenean min duenac* (GGero 429). Zerbait eskas du Añibarroren itzulpenak, hala nola *minduric dagoen* edo.
- 41-155 *arrac*: gainean erantsia; cf. *bere barreneco eritasunac* (GGero 429).
- 41-156/157 *Dacusunean... dagoanean pecatu eguiten*: ez zaio oso dotore irten; cf. *Iccusten duçu beccatutan dagoenaren gonbitea, ian-edana, bonbacia eta banquencia, baitirudi ecen...* (GGero 429).
- 41-157 *solasan*: ik. § 5.1.1.1.

165 rrontac emoten deutsé, ce ganez eguiten dau, estu, larri, icara dabil bere artean.

Salomonec diño, gaistoaren conciencia ta barru aldea burdiaren chirritola leguez dala. Burdi carginua beti doa chirrinca, bere carga andia ecin jasoric leguez quexaca; alan, pecataria bere quejatzan da bere conciencian, bere
170 pecatuen carga pisu astuna ecin jasoric leguez; onec nequetu, azpitu, zapalduten dau; onec bere soñuaz, otsabarras, erreprentsiñoaz tristetu, mindu, lotsatu, penatuten dau.

Beimbaten filosofo batec, diño Senecac, erosi cituan zapata batzuc fiaturic ta dempora guichi barru zapatariari paguetaco. Eta abiatu zan bere berbea cumpliera epea eldu zanean. Baña aror non, bidean enzunic il zala diruac bear cituan zapataguillea, biurtu zan pocic bere diruaz echera, uste izanic orrembestez quitutu cituala; ta euqui cituan diruac beragan dempora baten. Baña bitarte orretan aimbete erre, jan, estutu ta salatuten eban bere concienciac ce, ecin sufrituric, joan zan bere diruac arturic zapatari difunturen echera; ta an egotzi cituan zapata-diruac, ciñoala zapatari beragaz berba eguiten baleban leguez: Beste guztientzat il bazará bere, oraindiño bici zara niretzat; artu eguizuz, bada, ceure zapateen diruac, ta ichi eguidazu baquean. Pagu quitua eguin artean ez eban baquean ichi bere concienciac: guerra eguin eutsan. Oraingo gentea ezta orren senticorra, ez orren conciencia-
180 duna, ez orren beguiratua ta ardurazcoa bacochari berea biurtzeco. Urteac doaz, confesiñoac doaz aurrera, concienciaren cicadai jaramoten ez jaco, dedar eguiten da pulpitan ta confesonarioa[n] *errestituciñoa edo condenaciñoa*; ezta *parcatuten pecatua, ezpada biurtzen gauza ostua*, baña guichic eguin daroe, ta asco condenetan dira onegaiti.

-
- 41-165 *ganez eguiten dau... dabil*: pluraletik singularrera igaro da; cf. *ganez eguiten baitute* (GGero 429).
 41-167/168 *chirritola*: cf. VB “rueda: b. *errotea*; de carro: *chirritola*”; cf. *orgaren edo gurdiaeren arroda* (GGero 429-430).
 41-168 *Burdi carginua beti doa chirrinca* < *Gurdi carginuac badarasa* (GGero 430).
 41-171 *otsabarras*: VB (c.) “gresca” (< HH), < *habarrotsaz* (GGero 430).
 41-173 *diño Senecac*: gainean erantsia. Izan ere, Axularrek ertzean bakarrik aipatzen du (GGero 430).
 41-173/174 *fiaturic*: gainean, *prestaturic*-en orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *prometaturic çapataguilleari dempora gutiren barreanean pagatuco cerautçala* (GGero 430).
 41-177 *beragan* < *berequin* (GGero 430); *beragaz*-en orde, hutsa ez ote?
 41-182 *zapateen*: ik. § 4.2.4.
 41-184/185 *concienciaduna* < *concienciatsu* (GGero 431).
 41-185/189 *ez orren beguiratua...*: hemendik hasi eta bukaerainoko guztia Añibarroren eransketata da.
 41-186 *cicadai...* *ez jaco*: *ez jaque* behar luke.

190

6 §.

Gaistoa, beste arerioric bague, bere concienciac berac salatuten <287> dau, penatu, estutu ta castiguetan dau. Igaro danean atseguña, gustua, contentua, an da bereala concienciaren naibaguea, nequea, atseguinbaguesuna. Becatua, llaga edo sarna atz-eguillea leguez [da]: atz eguitean atseguin artuten da, ta guero min. Alan guelditzen da, bada, pecatuaren atseguña igaro danean bere, concienciaren mina ta naibaguea. Calentura sucra andiaz zagozanean, atseguin artzen dozu ur otza edateaz, baña guero, edan ondoan gacha gueituric, izaten dozu atseguñaren atsecabea. Au da fruta ondo eldubaguearen jateac aguinetan ichiten daben garratz min samina.

195

200

Presondegüan dagoanari emoizu gura daben guztia jaten ta edaten; egüoizu al dan guztia bera poztuteco, baña ezta beimbere agaiti osoro poztuten; eztaquialaco ceren begüira dagoan. Bada, San Juan Crisostomoc diñoan leguez: Carcelan dagoana eztau ichiten gueroco castiguaren bildurrac atseguin artuten, ez aurrean dituen gauza gozoetan gusturic artzen.

205

Urcamendira condenaturic dagoana ascozaz lenagotic penatzen da; urcamendiaz gogoratuten dan guztian icaratuten leguez da. Au berau jazoten jaco pecatuzco conciencia gaistoa daucan bati. Nos eta asten dan bere gogoa poztuten lagunacaz solasca, ordu berean gomutetan da bere pecatuaz; orduan salatuten dau bere concienciac; alacoz ece, ecin dateque atseguin osoric, consuelu beteric euquitea pecatari batec bere pecatuan dirauan artean.

210

Onelacoac peligruric eztagoanean bere, uste dau dagoala. Icusico dozu ascotan lapur edo guizon-iltzalle batec, asmetan dabenean justicia, bereala bere buruz, iñor bere atzean ez bere billa ez ibilli arren, bere concienciac salaturic, igues eguiten dau, ezcutatzen da, bildurtzen da, uste dau bere billa dabiltzela.

215

-
- 41-193/194 *naibaguea, nequea, atseguinbaguesuna < desplazera (GGero 431).*
 41-194 *atz-eguillea < hatz-guillea (GGero 431).*
 41-195 *ta guero min < Ordea, hatz gordin egüinic, guelditcen çaitçu ondotic errasumina (GGero 431).*
 41-198 *atseguñaren atsecabea < atseguin haren atsecabea (GGero 431).*
 41-200 *emoizu: datiborik gabe, beharbada Axularren formaren erruz: emoçu (GGero 431).*
jaten ta edaten: leh. jatera ta edatera < iatera eta edatera (GGero 431).
 41-201 *agaiti: leh. agaitic.*
 41-202 *begüira dagoan: honen ondoan hauxe dakar Axularrek: Alegueraquiago bici da athez athe dabillan errumesa (GGero 431).*
 41-206 *icaratuten leguez da: nahasteren bat izan du: cf. urccatcen beçala da (GGero 432). leguez: aurrean da, ezabatua (ik. § 5.2.11).*
 41-211 *eztagoanean: aurrean ezp] (ezpadago?), ezabatua; cf. perlic eztuenean ere (GGero 432).*
 41-214/215 *igues... dabiltzela < ihesi itçalgaiçca abiatcen dela; eta handic nabarbenduric gaiçqui ere heltcen dela (GGero 432). Axularren testua ulertzeko eta ongi itzultzeko oztopo bat baino gehiago aurkitzeaz gainera, Icusico dozu-ri dagozkion kompletibo markak (igues eguiten dabela, ezcutatzen dala, etab.) ahaztu zaizkio.*

Gaistoac uste dau, bere acorduric eztagoanean bere, beragaiti berba eguiten dabela, bere gaistaqueric esaten dagozala. Gaistoa beti dago sospechan, beti da bildur, beti dago lotsaturic. Gau ilunean bacarric dabillana, peligruric ez izan arren, latz, bildur, izu, icara da. Alan da gaistoa bere, eceren
 220 peligruric ez izanagaiti, bere conc[enci]ac, bere <288> barruac salaturic, dago icaraturic, bildurturic, izuturic.

Lauoñeco edo charria, beste abereac eguiten eztabena, oraindiño minic artu baga, ucututeaz bereaz asten da irrincica quejatzen. Eta au da, bere urdai guicena baño beste gauzaric, ez ulleric, ez lumaric, ez narruric, ez beste
 225 defensaric eztaucalaco; bere izatez ta naturalez da bildur, ta oratuten deutse-
 nean, uste dau ilteco artuten dabéla. Onela bada, conciencia charra daucanac bere, sentitzen dabenean gach guichi bat, buruco min bat, bildur da il ezti-
 din, bicitzea quendu eztaion Jangoicoac. Bada, eztacus beragan ecer balio daben defensaric, ezpada bere bicitza argal ilcorra, ta au galdu ezquero, be-
 230 tico galdua ta condenatua da.

7 §.

Job santu andiac diño: Gaistoac beti dauca bere belarrietan bildurraren soñua, concienciaren latztasuna ta saladura; baquean danean bere, uste dau guerran dagoala, arerioac dabiltzala celatan bere billa, bera preso artzeco.
 235 Au da mundu onetan bere, beste munducoaz ganera, pecatariaren castigua, bildurtasuna, segurutasun bague beti ibiltea. Castigu onegaz cemaitu ta menazatu cituan Jangoicoac bere mandamentuen ausitzalleac, cirautseela: Bal-
 din enzuten ezpanozue, nire esanac bete, nire aguinduc contuz gordeten ezpadozue, jaquingo dozue, beste iñoc zuec perseguitu bague, jarraitu bague,
 240 peligruric ta arerioric euqui bague igues eguingo dozueta, bildurrez beteco zarea, baqueric ceuroen barruan beimbere izango eztozuela.

Alan eguin jacon icara andi bat Cain gaistoari, Abel anaje ona il ebanean. Abiatu ta asi zan Cain igues eguiten munduaganic, esaten ebala: Eguin da enea, galdua nas, ez dot iguesic, topetan naben guztiac ilgo nabe. Cer di-
 245 ñozu, Cain? Noren bildurra dozu? Noc ilgo zaitu? Ez Adanec, ez Evac, bada, orreec ceure aita ta ama dira; ta beste iñor bere eztago oraindiño munduan.

41-222 *Lauoñeco edo charria < Urdeac (GGero 432); cf. VB charria, lauoñecoa, belarlucea (b.) "cerdo".*

beste abereac eguiten eztabena < bertce abrec eguiten ezutena (GGero 432).

41-223 *ucututeaz bereaz < uquitceaz beraz (GGero 432); cf. § 5.1.2.3.*

41-233 *latztasuna = GGero 433.*

41-237 *ausitzalleac < hautsailleac (GGero 433).*

41-242 *Alan eguin jacon icara andi bat Cain gaistoari < Hala eguin ceican iccara handia Caini (GGero 434).*

41-243 *munduaganic < mundutic (GGero 434); ik. § 5.1.1.3.*

41-243/244 *Eguin da enea < Eguin du eneac (GGero 434).*

Noren bildur zará, bada? Ez besteren, ezpada ceure buruaren, ceure concienziaren baño. Conciencia bera beste arerioric bague da asco, bildur icara andiaz ibilteco.

250 Adanec, pecatu eguin ebanean ta asmau ebanean Jangoicoac deitu gura eutsala, igues eguin eban, gorde ta ezcutatu zan. Eta, cegaiti <289> ori? Ete equian cer gura eutsan Jangoicoac? Bequian, diño San Agustinec. Eta nondic equian? Bere concienziac adirazoric. Ez eucan beste testiguric, ez beste salatzalleric, bere concienzia baxen; baña ori eban asco. Eta alan, berac bere
255 buruz ta berez bere utseguña ezaguturic ta errudun zala jaquinic, iguesbidea bilatu eban.

Agaiti diño San Isidoro obispo ta dotore andiac: Persona erruduna, faltatsua, eztago beimbere seguru; bada, bere concienziaren cicadac, aculluac beti darabil colpeca. Onen ganean diño San Ambrosioc: Eztot idoroten iñoc
260 condenatu ebala Judas Jesu Cristoren saltzalle traidore gaisto; ez Pilatosec, ez erriac, ez bestec; baña gaistoagotzat idoroten dot, berac bere burua condenatu ebala. Bada, sententia guztien ganeco sententia, beste guztiac igaro ta aztuten dituana da, norberac bere buruari emoten deutsana, bere concienziac benzuturic ta condenaturic.

265 Eta emen da aguiri eztala antsi, eztala importa beste iñoc ez jaquitea zure utseguite ta pecatua; baldin ceuc badaquizu, concienzia bera da testiguric asco. Ezta arentzat lecu issilic, ezcuturic, estalduric. Bada, Senecac diñoiez: Ce probechu da gordetea, ezcutatzea, genteen beguietaric igues eguitea? Conciencia onac aguirian, ta guztien aurrean ta beguietan ibilli gura dau; se-
270 guru ta fidaturic dago an bere. Baña concienzia gaistoac eztau iñon bere segurantzaric idoroten, ez echean, ez campoan, ez bacarric dagoanean, ez bes-teen laguntzan dagoanean. Zure obrac, eguitecoac onac badira, zucenac eta prestuac, jaquin beguiez guztiac; baña gaisto oquerrac badira, desonracoac ta desonragarriac badira, cer doa bestec ez jaquitean, baldin ceuc badaqui-
275 zuz? Ceure burua, ceure concienzia da testiguric seguruena, artezena, eguiazcoena. Beste guztiac uts eguinagaiti, ac ecin uts eguin lei, ecin enga-ña diteque, zucen esango dau daquiana, artez eta leguez salatuco dau.

Onegaiti diño Seneca berac, ceure buruaren bildur gueiago izango dozu-
la, beste zure pecatuac daquiza[na]rena baño: besteataric igues eguin ciñei-

41-247/248 *Ez besteren... ceure concienziaren baño <Ez nehoren bertceren: ceure buruaren, ceure concientciaren (GGero 434); ik. § 5.1.1.4.*

41-250 *eguin: gainean erantsia; cf. beccatu eguin çuenean (GGero 434).*

41-257/258 *faltatsua = GGero 435.*

41-261/262 *baña gaistoagotzat... condenatu ebala <baina, gaixtoago baita, edireiten dut berac bere burua condenatu çuela (GGero 435). Gaizki itzuli du, bistan denez, edireiten dut... edireiten dut... paralelismoa antzeman gabez.*

41-275 *Ceure burua, ceure concienzia da < Cerori çara, çure concienzia da (GGero 436); bihurkaria subjektu gisa (ik. § 5.1.2.5).*

41-278 *Onegaiti: leh. Onegaitic.*

280 que, baña ez ceuganic. Cerren pecatua bera da <290> bere buruarentzat pena
ta castigu. Job santuari jazo jacazan calte, galdute, zorigach guztietan, bat
edo batec igues eguiten eban abisetaco, ta barriren baten contua berari emo-
tera. Alan igues eguiten dau, bada, pecatariagan bere concienciac ta con-
cienciaren mandatariac, barriac ecartera, abisetaco ta esateco ceimbat calte
285 etorri jacazan ta ceimbat on galdu daben pecatu eguiteaz.

8 §.

Concienciac oficio asco ditu: bera da alcate, bera da testigu, bera da sa-
latalle, bera da defensaria. Eta ain da fina ta eguiatia, ce berac milla testi-
gutzat balio dau. Ain da arteza, ciurra, justua, leiala, ce ecin mundu guztiac
290 irabaci, nastu, guzurtu, engañatu ta ez beste aldera itzuli lei. Eztago diruric,
ez faboreric, ez empeñuric, ez interesic, ez bitartecoric, ez adisquideric, con-
ciencia bere eguiatic macurtu, oquertuco dabenic.

Onen ganean, beti leguez, ederto berba eguiten dau San Juan Crisosto-
moren urrezco miñac, diñoala: Munduco tribunalac, justiciac nastuten dira;
295 testiguac ucatuten dabe, escribauac irabazten dabe, alcatea diruz itsututen
da, justiciacoac, letraduac gobernetan dira mesedeacaz, interesaz, escupeco-
az; eta, uste dozunean euracaz ondo zagozala, orduan zagoz euretaric cam-
poraturic; uste dozunean irabacico dozula, galduten dozu. Baña conciencia-
ren tribunalean, audiencian, adizainean ezta alango bidebageric eguiten;
300 zucen dabil guztia, eztago oquerric, uts eguiteric, erracuntzaric, engañuric.
Bada, beste guztiac uts eguin arren, bere favore ta aldera emon arren, con-
cienciac berac autortuten dau erruduna culpante dala; concienciac berac bere
burua salatuten dau, ta bai bere contra sententia emon bere.

Campoan eguin leiz milla trampa, engaño ta probantza eguiaren con-
305 tracoac: errudunac esan lei erruric eztaucala, ucatu lei eguia, ta esan alaco

- 41-280 *ceuganic* < *ceureganic* (GGero 436).
41-281 *galdute* < *gallice* (GGero 436).
41-282/283 *abisetaco, ta... emotera* < *avisatceco eta berriaren eccartceco* (GGero 436); ik. §
5.5.1. *berari*: gainean erantsia.
41-284 *barriac ecartera, abisetaco ta esateco...*: nahiz hain bitxi suertatu ez, hemen ere Axu-
larrek beti forma bera dakar: *berri eccartceco, avisatceco eta erraiteco* (GGero
437); ik. § 5.5.1.
41-284/285 *ceimbat calte etorri jacazan ta ceimbat on galdu daben*: Axularrek beti singularrean:
cenbat calte ethorri çaicán eta cenbat ontasun galdu duen (GGero 437); ik. § 5.1.2.7.
41-288 *defensaria* < *deffendatçaille* (GGero 437).
41-295 *escribauac irabazten dabe* < *notaria irabazten da* (GGero 438), oso ezberdina baita.
41-297/298 *orduan zagoz euretaric camporaturic*: cf. *barreanean çarela uste duçunean, campoan*
edireiten çara (GGero 438).
41-302 *erruduna culpante dala*: cf. *culpantac berac, concientciac berac accusatcen du bere*
burua, eta bai condenatcen ere (GGero 438).
41-304 *trampa, engaño ta probantza*: jat. *trampa ta engaño ta probantza* (arg. zuz.); ta pro-
bantza gainean erantsi du, aurreko ta ezabatzea ahazturik; cf. *eguiaren contraco en-*
seiuac eta frogantça falsoac (GGero 438).

gauza gaistoric eguin ezabela; guztia dala guzurra, falsia, embustea; baña an bere barruan, bere conciencia beti eguien egongo da. Testiguac uts eguin lei ta guzurra esan, baña ez concienciac. Oni itandu eiozu, onegaz berba egui-
 310 zuz, beragaz itundu <291> zaitte, ta beronec esango deutsu nor zarean; emen espillu baten leguez ceure burua icusico dozu; etzaitu engañatu[co], ta ez zuc bera bere.

Gachen bat[ec] artzen zaituanean, an da bereala zure conciencia; eta bici guztian eguin dozuzan pecatu guztiac dacartzuz gogora; guztiac ditu presente aurrean. Bai ta esango deutsu ceimbat calte etorri jatzuzan eurac egui-
 315 teagaiti. Onela, Joseran anajeac Egitora joan cirianean ta ango estura andian icusi cirianean, bertati gomutatu cirian oguei urte lenago eguin eben pecatuaz; ta alcarri cirautsen: Ondo merecituric doguz gach guztioc, justu da, errazoa da gueiago bere sufrietea, eguin guenduan pecatu esquergueagaiti gueure anajea salduric.

Gogortade andia, billauqueria dollor prestueza, traición ezaina eguin guenduan gueure anajeaz. Berein erregu eguin euscun; berein negar eguin cituan; euroc cirian asco biotzic gogorrena samurtu ta bigunduteco; baña gu-
 320 reac etzirian bigundu, etzirian erruquitu, ezquenduan enzun; saldu guenduan gure anaje maitea. Agaiti gabiliz, bada, gu bere emen Egiton estuturic, sala-
 325 turic, naibagueturic ta arriscu andian. Onelan cirautsen alcar batac besteari; onela salatuten cituan euren concienciac.

Eta guztiz bere, Ruben anaje nagusiac eguin eutseen besteai cargu andia, esaten eutseela: Ez neutsuen nic orduan esaten, etzenguiela orrelaco gogor-
 330 taderic, orrelaco peccaturic, ez traiciónoric anaje gaztearen contra? Etzenguiela saldu? Etzenduen enzun gura; orra bada, non dozuen orain zuec bere ceuroen mercedua, ceuroen ordea, castigua ta pagua. A pecatu agaiti etorri gara onetara; a eldu ta etorri jacu gueure ganera. Ocasióna eldu zan ordu berean, jagui zan anaje oneen conciencia, an aguertu zan, ez eban faltatu, salatu ci-
 335 tuyen, arpeguian emon eutseen euren gaistaqueriaz. Eta ori, San Juan Crisostomoc diñolez, iñoc orretara beartu baga; conciencia berac bere borondatez aguertu, atera, camporatu ta autortu eban aimbete urtean estalduric, ezcutaturic, issilic equi eben peccatua.

41-310/311 *etzaitu engañatu[co], ta ez zuc bera bere*: Añibarroren eransketa.

41-312 *Gachen bat[ec] artzen zaituanean*: gainean, *Gaistaqueria bat eguiten dozunean*-en orde, < *Eguitico batec]hac[hartcen çaituenean* (GGero 438).

41-322 *samurtu*: gainean, *ausi*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; cf. *hautsteco eta beratceco* (GGero 439).

41-325 *alcar batac besteari* < *elccarri* (GGero 439); ik. § 5.1.2.6.

41-330/331 *ceuroen mercedua* < *ceuen mercedia* (GGero 439).

41-332 *eldu ta etorri jacu* < *heldu çaicu* 'datorkigu' (GGero 440); ik. § 5.3.4.

41-336 *aimbete urtean* < *hanbat demboraz* (GGero 440); ik. § 5.1.1.4.

Au da concienciaren officioa: aztua gomuterazoten dau; <292> dempora
340 lucea igaro arren castiguetan dau, min ta naibaguea emoten dau; eta erago-
ten dau len baño gueiago, gueroco lucementuetan ibilli baga, bide on baten
jarri gaitela. Bai ta dirauscu, au eguin arteraño ezteuscula baquean ichico,
ta ez gaitu ichiten bere.

Aror bada, non conciencia berac eguiten deuscun guerreagaiti, ta eche
345 barruan dagoan queric, itossuratic ta peleagaiti, bereala gauganic bear do-
gun, guerora beguira egon bague, abiatu quentzera gueure concienciatie pe-
catu, erru ta utseguite guztiac; ta onela guelditu baquean, soseguan, seguru-
tasunean.

41-340 *len baño gueiago < lehen baino lehen (GGero 440).*

41-343/344 *eche barruan dagoan queric, itossuratic ta peleagaiti < etchean barrena beccatuaren
kheric, ithaiçuric eta liscarric ez içaiteagatic ere (GGero 440); nahasteren bat izan
du, beraz. peleagaiti: leh. peleagaitic.*

42. BURUA

*Guerotic guerora ibilteac galduten dau conciencia onaren
baquea ta sosegua.*

1 §.

5 Gauza jaquiña, segurua, arguia ta gueure beguiz dacusguna da, concien-
cia gaistoaren cicadac, aculluac, deadarrac, quisquetadac, aserre, guerra,
otsac eta colpeac, colpe gogorrac direala; ta alaco conciencia charra dauca-
nac gusturic, atseguinic, baqueric, poz gozo oso beteric ecin euqui leiala,
10 alan dirauan bitartean. Baña bai ta gauza jaquiña, arguia ta dacuscuna da,
conciencia onaren baquea ta sosegua gauza gozo consolagarri atseguñezcoa
dala. Eta, celan mundu onetaco infernua conciencia gaistoa dan, alan mundu
onetaco gloria conciencia ona da.

Gozotasun espiritualera, arimaco pozara combidatu gura zaituet gaurco
egunean, neure anaje maiteac, diño San Agustinec. Eta pozcaria, gozotasun,
15 olgura, atseguintasun au eztatcarde, eztabe emoten ez munduco onrac, ez
aberastasunac, ez seme-alabadun izateac, ez gorputzeco osasunac bere. Cec
emoten dau, bada? Concienciaren garbitasunac, pecatu bague ta Jangoicoa-
ren gracian egoteac. Onec dacar eguiazco poza, onec min guztietaric osatu-
ten dau arimea; onec atera, camporatu ta quenduten dau con[cien]cian da-
20 goan arra, tristurea ta arancea.

42-13 *pozara* < *alegriantçara* (GGero 440); ik. § 5.1.1.1.

42-14 *pozcaria*: -a itsatsiduna bailitzan (ik. § 5.1.1.1).

42-15 *olgura*: gainean erantsia.

eztatcarde, eztabe: leh. *eztacar, eztau*; cf. *eztu ez eguiten, eta ez emaiten* (GGero 442).

42-19 *camporatu*: ondoan *erbestetu, ezabatua*; cf. *camporat ere atheratcen du* (GGero 442).

<293> San Ambrosioci diño: Obra eguite gaistoan idoroten dan leguez tristura, naibaguea, alan eguite onean ta ondutean arqituten da poza, consuelua, atseguña. Gura dozu, dino, ez beimbere egon triste? Ondu eguizu ceure bicitza gaistoa, gorde eguizu conciencia garbi; arima garbia beti dago pocic, eztau sentitzen campotic jatorcon tristura ta penea. Bicitza onac bera-gaz dau beti olgura, poza, alegrancia, gozotasuna. Agaiti ciñoan San Pablo Apostoluac ez ebillala iños bere triste; triste leguez bai, baña beti pocic. Apostolu miragarri au beti ebillan nequez inguraturic, perseguituric, arerio-ac beguitan arturic, ocasiño ta bideric asco emoten eutsén triste egoteco; 30 baña oneec guztioac conciencia onaren pozac arindu, gozatu, deseguiten ci-tuan, eguzquiac lañoa leguez.

2 §.

Gaistoac guzurrez ta azalez dira alegreac, eta eguiatz triste; onac barriz, contrara: eguiatz dira alegreac, pozac, ta guzurrez tristeac. Benetan ta eguiatz esateco, oneec dauque alegrantzaren icena ta izana; eta gaistoac icena bai, 35 baña ez izatea. Gure poz ta atseguin guztiac minduteco ta gozoa garraztute-co, asco da conciencia gaistoa; ta bai gure neque pena, naibague ta garratz-tasun guztiac gozotuteco conciencia ona.

San Agustinec diño: Dagoanean guizon bat tristuraz, atsecabez, minez 40 beteric, baldin bere barruan ezpadauca llagaric, aranzaric, bere conciencia garbi ta sendo badauca, ara laster joaten da, an Jangoicoa topetan dau ta, onegaz batera, idoroten ditu on guztiac, consuelua ta baquea. Arotz zulgui-ñac zula edo ol bat landuten dabenean, aurqitu arren gane aldean azalean cerbait galduric, ustelduric, brintzaturic, eztau orregaiti arduraric, baldin 45 biotza, barru aldea sendoa, osoa, ona, fina badago. Guizonaren azala, gane aldea gorputza da; barrua, mamiña, biotza conciencia da; au ondo badago, ez da ganecoaz, campocoaz arduraric, antsiaric, conturic, barruco concien-cia bearrena dalaco.

Onegaiti diño San Ambrosioci: Ezta uste izan bear bat dagoala poz ta 50 contentuz beteric, campotic dirudianagaiti, ez bere ondasun, aberastasun,

42-22 *ondutean: aurrean eme] (emendatzean?), ezabatua; cf. hala onean, onera emanean eta emendatcean (GGero 442).*
 42-28/29 *arerioac: aurrean guzti] (guztiac?), ezabatua.*
 42-30 *conciencia: leh. concienciaren; cf. conciencia onaren alegriantçac (GGero 442).*
 42-35/36 *izana... izatea < içana... içana (GGero 443); ik. § 5.5.1.*
 42-36/37 *gozoa garraztuteco < goço gaitzteco (GGero 443); hitzez hitz itzulia, beraz.*
 42-42/43 *Arotz zulguiñac < Çurquinac (GGero 443).*
 42-44 *galduric, ustelduric, brintzaturic < arraçatua eta pipiztatua (GGero 443).*
 42-45 *barru aldea: leh. barrua, < barren aldea (GGero 443-444).*
 42-49 *bat < nehor (GGero 444).*

55 jan-edan andiac gaiti; baña orduan esan lei bere gogora dagoala, <294> pocic ta gozaldi oso betean, baldin bere conciencia badago garbi, ondo, sendo, pecatu baga. Espiritu Santuac diño Proberbioetan, danic gauza charrenac, munduco goraberac ta jazoerac eztabela justua tristetuco; baña gaistoac be-
teco direala zorigachez, gaistaqueriz ta naibaguez.

60 Elessa Ama Santeac diño atsecabeac, persecuciñoac calteric eguingo ez-
teutsala pecuric papere eztaucanari. Ceure pecatuac eta gaistaqueric egui-
ten deutsue guerra ta calte; onec tristetuten zaitu. Quendu eguizuz oneec, ta
egongo zara pocic; larga eizuz oneec, ta bicico zara baquean, pocic ta ceure
gogora. Alan diño David erregue santuac: Baque andia dau conciencia onac,
Jangoicoaren aguindu santuac gordeten dituanac. San Ambrosioc diño: Cer
da ondo ta justoro bicitea, ezpada baquean ta soseguan bicitea? Esan gura
dau, conciencia ona euquitea ta baquean bicitea, guztia dala bat.

65 Justuac, campotic guerra ta naibaguea euqui arren, barruan beti dau ba-
quea, beragaz dau onelangoac munduan euqui al leian gloria ta atseguña.
Alacoac ez dau arduraric munduco esa-mesac gaiti. Testimonio guzurrezco
bat, gauza char bat ereguiten deutesenean, batac eta besteac aotan artuten da-
benean, tratu gaistoa emoten deutesenean, laster doa bere concienciara; eta,
70 icusiric ez dabela an alaco jaso deutesen faltaric, poztuten da, consoletan da,
sendotu ta berotuten da. Errazoiiaz diño San Ambrosioc, utseguiteric, oque-
rric, faltaric eztaucala daquien personeac, eztabela jaramoten besteen deun-
guero esateari; ta ez pensatu bere, besteen guzurrac beraren eguiac baño in-
dar gueiago daucala.

75 Esan ta eguiten doguzan gauza guztietan, diño San Gregorioc, beguiratu
bear deusagu gure concienciari, ta onec eracutsi, adirazo, aguertu ta esaten
deuscunaz contu euqui, ta ez gentearen esa-mesacaz, ondo edo donguero,
zucen edo oquer diñoanaz. Bada, San Agustinec diñoan leguez, conciencia
gaistoa, oquerra, gaissotua eztau osatuten besteren alabanzac; eta conciencia
ona, sendoa, garbia eztau gaissotuco, loituco, ezainduco bestearen deungue-
80 ro esateac: beti izango da dana.

42-51 *andiac gaiti*: leh. *andiac*] idazten hasi, eta damututa.
42-55 *gaiztaqueriz* < *gaixtaqueric* (GGero 444); ik. § 5.1.1.1.
42-57 *papere*: leherkari ahoskabearen ondoan (ik. 19-178. oh.).
42-58 *zaitu*: leh. *zaitue*; cf. *hec tristetcen çaituzte* (GGero 444-445).
42-62 *justoro* < *iustuqui* (GGero 445).
42-67 *deutesenean*: leh. *badeutse*; cf. *erauzten diotenean* (GGero 445).
42-71/72 *eztabela... esateari*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).
42-72 *besteen*: aurrean *guzurrac*, ezabatua; cf. *bertceren gueçurrac* (GGero 445-446); ik. § 5.1.1.4.

3 §.

Batec edo batec esango dau: Ori alan da, eguia da; baña damu artuten dot <295> besteac esateaz nigan eztagoan erruric, pecaturic, oquerric; eta bai batzuetan daucadana bere aguertuaz, zabalduaz, aotan artzeaz. Sinisten dot
 85 damu artuten dozula; baña paciencia bear dozu. Bada, besteren miñac ta esanac ecin lotu ciñeiz, eztagoz zure escuan. Larga eguizuz oneec, gaistoac badira; ta on prestuen esanaz ta ceure concienziaz contu equi eguizu. Bada, San Bernardoc diñolez, jaquitea zuc gente gaistoen aotan zabiltzala da asco, gente onen alderaco fama onean egotea, conciencia onaren testigantzaz.

90 Ecerberec eztau alan arinduten, sendatuten, gozotuten gente gaistoac gugaiti deunguero esanic emoten deuscuen pena, damua, mina ta naibaguea, celan icusteac ta jaquiteac ez dogula erruric; eta gente prestu onraduac bere eztabela uste, ez sinisten, gugaiti alaco gaistaqueriaric, orbanic, faltaric, uts eguiteric, erruric. Mundu guztiac zugaiti deunguero badiño bere, baldin gente prestuac ondo badiñoegaiti ta concienziaz salatuten ezpazaitu, eguizu
 95 lo ardura baga, etzaita antsiatu, estutu, gaistoen cer esanagaiti. Poztu zaita bai, atseguin artu eguizu, consola zaita; bada, orretan da aguirri etzareala aec leguez.

Egui au ezagutu eban ondo Antitenes filosofoac. Onec, enzun ebanean
 100 presona gaisto batzuc alabatu ta andizcatuten ebeela, esan eban tristura andiaz: A, ene jaincóac, cer eguin ete dot nic? Cetan uts eguin ete dot? Bildur nas cerbaiten uts eguin ete dodan, lendanic gaistotu ete nasan. Bada, gente gaisto batzuc, len nigaiti donguero berba eguiten ebén batzuc, orain ondo diñoegaiti. Señale charra da au. Bada, alacoac eztabe ondo berba eguiten,
 105 ezpada gaistoac gaiti, gaistaqueriac gaiti, eurac leguez bici direanac gaiti.

-
- 42-82 *Batec edo batec*: ohiko erabileraren arabera, *bat edo batec* beharko luke (cf. *OEH*, BAT EDO BAT, s.v. *bat*).
- 42-83 *besteac*: aurreko orrialdearen oinean *gen*] (*genteac*?) iragarrita bazegoen ere; < *ien-dec* (*GGero* 447).
- 42-84 *artzeaz*: jat. *artzeac* (arg. zuz.); honela *esateaz... aguertuaz, zabalduaz, aotan artzeaz* lortzen dugu, hots, ohiko *variatio*-a (ik. § 5.5.1); cf. *erraitiaz... aguertceaz eta banatceaz* (*GGero* 447).
- 42-86/87 *gaistoac badira* < *gaixtoac baitira* (*GGero* 447).
- 42-89 *egotea*: aurrean *zagozala, ezabatua*. Dena dela, zuzenketa ez da zuzena: *egoteco* behar lukeela dirudi. Baliteke Axularren pasarteaz ez ulertua: *Asco da mihi gaixtoen contraco, iende onen alderacotçat fama onean egoitea, concientcia onaren leccucotasunarequin* (*GGero* 447).
- 42-97 *etzareala*: aurrean *aec, ezabatua*; cf. *etçarela hec beçala* (*GGero* 448).
- 42-99 *Egui au* < *Eguia haur* (*GGero* 448).
Antitenes = *GGero* 448 < *Antistenes* (*Gero* 446).
- 42-101 *ene jaincóac*: ik. 19-23. oh.
- 42-103 *orain*: aurrean *ondo, ezabatua*; cf. *erraiten omen dute orai ongui* (*GGero* 448).

Onela ciñoan filosofo onec, gaistoen condiciñoa ezaguturic. Gueldi bitez, bada, ta begoz orrelacoac orrela; ez eguezu jaramon, ez aetara bururic biurtu, ez aei beguiratu, ez aecaz conturic, ez arduraric euqui. Consola zaitte, poztu zaitte ceure conciencia garbiaz. Alan eguiten eban San Pablo Apostoluac, ciñoanean: Au da mundu onetan gure gloria ta atseguña: conciencia garbi euquitea, barru onetan erruric, saladureric ez idorotea.

Esan baleu leguez: Batzuen contentua ta gloria dago aberatsac, ondasundunac <296> izatean, errenta andiac, eche ederrac, diru asco euquitean, andiquiacaz lagundutean, jan-edanean, desonesqueria ta lureco atseguñetan demporea igarotean; baña ez gurea, diño San Pabloc. Guc eztoqu orreecaz conturic, ezpada concienciaz ta barruaz contentetan gara.

Conciencia ona, diño San Ambrosioc, bere ondo eguiñaz, berac bere barruan ta bere artean idoroten daben sariaz da contentu; onec dericho asco; eztabil besteren billa; eztau besteric gura. Bada, San Ambrosio berac diñoan leguez: Ce frutu dago conciencia onaren garbitasuna baño gozoagoric? Ce jateco dago gustoso zalegarriagoric, nola jaquitea Jangoicoaren beguietan ondo dagoala, erruric eztaucala bere ustez? Eztago conciencia on, garbi, inocente bat baño gauza gozo, doatsu, zorionecoagoric, dino San Gregorioc: ez dau eceren bildurric. Irudituten jaco alacoari, bere conciencia ona dala gaztelu ta torre seguru bat; eta berac besteri eguiten ezteutsana, berari bere bes-tec eguingo ezteutsala.

Baña conciencia gaisto, maliciaduna, citel, fede gaistocoaz dabillana, beti dago nequez beteric, beti gogo charraz, irudicor, atzera, bildurti, sosegu бага; bada, celan daucan bere biotza edenduric, gaisto ta oquer, uste dau besteac bere alan direala. Eta berac deunguero eguin ta deunguero juzgatzen dituan leguez besteac, alan uste dau ta bildur da, beste orrembeste berari eguin eztaioen; moneda berean pagatu eztaioen, berac besteac neurriten dituan neurriaz bera neurtu eztaien.

4 §.

135 Bias filosofoari itandu eutseen egun baten, ea ete cegoan munduan eceren bildurric ez eucanic. Eta eranzun eban baietz; ta ori zala conciencia ona.

42-107 *orrelacoac*: aurrean *onela*] (*onelacoac*?), ezabatua.

42-111 *saladureric*: ik. § 4.2.1.

42-117/118 *bere barruan ta bere artean* < *bere baithan barrena* (GGero 449); ik. § 5.3.4.

42-118 *onec dericho asco* < *hura daritça asco* (GGero 449); ik. § 5.1.3.11.

42-127 *conciencia gaisto, maliciaduna, citel, fede gaistocoaz dabillana* < *conciencia gai[x]toa, maliciatia eta fede gaiztoz dabillana* (GGero 450). *konziencia* da fede gaiztoz dabilena, beraz.

42-128 *irudicor* < *iduricor* (GGero 450).

atzera, bildurti < *guibel veldurti* (GGero 450); ik. § 5.3.4.

Conciencia onac ez dau eceren, ez iñoren bildurric; ta ez beragan icararic, quezcaric. Onegaiti Jesus gure Salbaguille maiteac itandu eutseen fariseo ta
 140 leit niri cargu pecaturen bategaz? Noc salatu, topatu, idoroco dau nigan faltaric? Noc esan lei pecatuan nagoala? Badaquizue, esan eidazue.

Cer diñozu, Jangoicoaren semea? Celan ori itanduten deutzézu ceure arerioric andienai? zure contra berba eguitemo ocasino ta bide billa dabiltzenai? Celan bildur etzara zure arerio malsin gaistoac zure contra emongo dabela, ta eguin ez, ta eguin ecin cenduanaz arpeguian lotsa bague emon <297>
 145 eztaizuen? Ez dot bildurric, diño Jesusec. Eztot ecertan uts eguin; eztaucat ecertan faltaric; conciencia garbi ta ona daucat. Onec sendotu, animatu, segurututen nau; bildur bague ifinten nau. Gura bozu egon bildur baga, egon zaitte conciencia garbiaz; ta munduan danic etzaitu bildurtuco; eztozu arerioen arduraric euquico.
 150

Baña contrara conciencia gaistoac: bada, peligruric, arriscuric, laprastgarriric, jausteco ocasiñoric eztagoanean bere, uste dau peligrua dagoala; onac, barriz, peligruric dagoanean bere, bere burua segurutzat dauco, animetan da orduan bere; beste guztiac desesperatu arren, berac ez. Susana le-
 155 gue zarreco andra prestua, garbia, onesta, bere senarra ez zan beste bategaz pecatu eguin ebalu falsiaz salaturic ta arrica iltera eroianean, galdutzat eucan mundu guztiac. Baña berac esperanza andia eucan Jangoicoagan. Bada, ez eucan erruric, ta bere errubaguetasunac, bere conciencia onac emoten eutsan segurutasuna. Eta alan, milagrozu aguerturic eregui eutsen guzurrezco testimonioa, libratu zan.
 160

San Juan Evangelisteac diño: Baldin gure concienciac salatuten ezpa-
 gaitu, esperanza dogu, fidancia, icharomena gueure Jangoicoagan. Eta andic San Pabloc bere, Timoteo bere icasleari escribidu eutsan cartan, ifini eban
 165 esperanzaren lecuan conciencia ona. Adirazoteagaiti conciencia onaren izatea ta esperanzarena, guztia dala bat. Bada, San Agustinec diño: Conciencia ona daucanac, esperanza bere euquico dau. Eta cer, conciencia gaisto charra daucanac ez ete dau esperanzaric? Bai, baucanac esperanza, baña ez esperanza eguiacoa, bicia, fina, ezpada esperanza utsa, alperra, illa.

42-149 *danic*: gainean erantsia; ohartu NOR-NORK aditz baten subjektutzat balio duela (ik. 31-88/89. oh.); cf. ...*eta ez munduan den bertce perilen ere, etçara veldur içanen* (GGero 451).

42-151/152 *peligruric, arriscuric, laprastgarriric, jausteco ocasiñoric* < *perilic* (GGero 451).

42-154 *berac ez: bera ez [da desesperatzen]* behar lukeela dirudi, baina cf. *eztu berac etsitcen* (GGero 451).

42-164/165 *conciencia onaren izatea ta esperanzarena* < *conciencia onaren içaitea eta esperantça ere içaitea* (GGero 452), hots, berac *conciencia ona eta esperanza euquitea* esango zukeena (ik. § 5.2.2).

170 Bada, dirian leguez bi fede modu, bata bicia, bestea illa, alan dira esperanza bi; pecatuan dagoanaren esperancea da esperanza utsa, illa, on guichicoa. Conciencia gaistoac oztu, moteldu, epeldu, ilten dau gogo; baña conciencia onac poztu, bizcortu, aizartu, sendotu ta esperantza emoten dau. Guizon bati ceure bicitza guztian gorrotoa eracusi badeutsazu, ta beti bere contra ta berari gach eguiten ibilli bazara, ce esperanza euqui ciñei berac serbituco zaituala aren bearra dozunean? Eguiaz, ez asco. Eta iñoc esan arren, 175 eztala orretaco guizona, prestua dala, ona dala, serbituco zaituala, beragaz balia zaiteala, eta zuc [ari] <298> deunguero eguin arren, ac orri beguiratu bague ondo eranzun ta eguingo deutsula zuri, eztozu sinisten: cerren zure concienciac atzeratuten zaitu; onec gogo oztu, ilten deutsu; esperanza galdu 180 eraguiten deutsu.

Baña beste guizon bat beti maite izan badozu, beti serbitu badozu, beti bere fabore ta aldera eracusi bazara, orduan icharoten dozu berac bere zu serbitu, lagunduco zaituala bere bearra dozunean. Eta iñoc esanagaiti ezetz, ezteutsula lagunduco, eztozu sinisten. Bada agan dozun confianza, amorio, 185 adisquidetasunac ta zuc berari eguin deutzazuzan mesedeac animetan zaitue beragaz baliatutera.

Auxe berau jazoten jaco concienciari Jangoicoaz. Conciencia onac esperanza andia dau beragan; baña gaistoac guichi edo baperez. Eta ezta miraritzeco ez euquitea bere; beintzat esperanza fina, leiala, cerbait balio dabena. Berac bere lenago Jangoicoari jaramon ezteutsalaco, azturic euqui 190 dabelaco, amore guichi eracusi deutsalaco, bildur da enzungo ezteutsala.

5 §.

Cristiñau eguiazcoa danac, batean ezpada bestean, nosic bein baño ezpada bere, beguiratu ta bisitetan dau bere conciencia. Eta pecatuan dagoan 195 ean irudituten jaco dagoala ilumpean, ta an barruan daucala oropilla, mata-sa nastu, carga edo zama astun bat. Baña pecatu bague dagoanean, idoroten dau bere burua garbi, argui, pocic, libre, atseguinduric.

Ondo confesaturic echera biurtzen danean, irudituten jaco carga sorta andi bat beraganic bota dabela; poz arren poz, consolaturic, arinduric, gozoturic 200 gueldituten da. Eta errazoiiaz alan uste dau. Bada, cer da munduan gau-

42-169/170 *esperanza*: aurrean *bi*, ezabatua; aurreneko agerraldian ere *bi* ezabatu eta gero, damutu eta berriz aurrean jarri du.

42-172 *aizartu* < *ausartu* (GGero 452); cf. VB (b) “atreverse”.

42-177 *[ari]*: orrialdearen oinean ageri da, baina ez hurrengoaren hasieran; cf. *eta çuc hari gaizqui eguin agatic* (GGero 453).

42-195 *oropilla* < *coropillo* (GGero 454). Baliteke Añibarrorena hutsa baino ez izatea, zeren berak *orapilo* erabili ohi baitu (cf. OEH, s.v. *korapilo*): cf. VB “nudo: c. *orapilla*, -llo; b. *moropilla*; g. *orapilloa*, *corapilloa*”.

za consolagarriagoric, icustea baño bere arimea garbituric, Jangoicoaz adis-
quideturic ta ondo confesaturic? Graciazco estaduan dagoanac bildur guichi
dauco eriotzeaz.

205 Conciencia ona, esperanza andiz betea, bildurtasun baguea, eguiazco
pozaren jabea baño, ce gauza oberic equi lei batec munduan? Itsutasun an-
dia da ceruco gloriáz contu guichi euquitea. Baña ezta guichiago ain contu
guichi euquitea conciencia onaz, izanic au mundu onetaco gloria, poza ta
atseguña. Beste munduco glorian sinisten dogu, baña orainguiño icusi ezto-
210 gu; baña mundu onetacoa, conciencia onaren baguea, consuelua, sosegua,
nosic bein, pecatu bague gagozanean, icusi ta probatzen <299> dogu. Ta,
orrez guztiaz, zorion au, beste asco leguez, galdutera largatzen dogu.

Conciencia onaren baguea baño beste sari paguric ezpaleuca bere birtu-
teac, bicitza onac, ori berorigaiti bear guenduque len bait len, guerora icha-
ron бага, guerotic guerora ibilli бага, orainganic asi bicitza santu garbi bat
215 eguiten. Orduan gutaric bacochari esan leigüe Salomonec diñoana: Lo ba-
zagoz bere, etzara bildur izango, seguru egongo zara, lo gozoa eguingo
dozu.

42-209 *conciencia*: jat. *conciencia* (arg. zuz.).

42-215 *bacochari*: jat. *bacochari* (arg. zuz.).

43. BURUA

*Gueroco larga baga, orainganic eguin bear gara ontasunean
irautera, peccatura ez biurtzera.*

1 §.

5 Beimbere oquertu, macurtu, atzeratu, alderatu bague, bide artez zucen
onari jarraituteari ta ontasunean, birtutean, eguite santuetan irauteari azque-
neco orduraño dericho irautza, iraupena edo perseberancia. Guerorengo
ta azqueneco orduraño gracian iraute au da Jangoicoaren doia, emaitza, me-
sede; Jangoico beraganic baño, bestetarie ecin irabaci gueinqueana, diño
10 Trentoco Batzar santuac.

Onen errazoia emoten dau Santo Tomas jaquitunac: Guizonaren boron-
datea librea dalaco; batera ta bestera biurtuteco, nai dabena eguita bere es-
cuan daucalaco; beragaiti, borondate libre au contraco aldera itzuli eztidin,
peccatura oquertu eztidin, bear dau Jangoicoaren laguntza, escua, gracia,
15 doia, irauñ daian onean. Osoro ta duda bague sinistu bear dogu, dino San
Agustinec, ecin batec berez goiartu ta benzutu leizala deabru ta araguiaren
tentamentuac, Jangoico berac egunero lagundu bague.

43-2 *Gueroco*: aurreko lerroan *Guerora beguiratu baga, orain*, ezabatua; cf. *Nola oraidan-
nic behar dugun, gueroco beguira egon gabe...* (GGero 456).

43-3 *peccatura ez biurtzera*: Añibaroren eransketa, letra eta tintagatik ziurrenik geroago
egina.

43-7 *irauntza, iraupena edo perseberancia*: cf. VB “perseverancia: c. *irauntza, irautea,
iraupena, beti irautea*” (cf. HH *irauntza, irautea, irauñdea, iraupena*). Axularrek
honela dio: *deitzen da guehien herrietan eta hitzcuntcetan Perseveratcea* (GGero
456).

43-8 *azqueneco orduraño gracian iraute au < perseveratce haur, verthutean eta ontasunean
fineraino eta finean iraute haur* (GGero 456); ik. § 5.2.2.

Arerioac, mundua, deabrua, araguaia indartsuac dira, naturaleza argala da, erbala, jausicorra, borondatea onera ta gachera libre, ta gachera macurtuagoa, gaissoagoa, echunagoa, emonagoa. Ecin, bada, iraun guñei jausi bague, Jangoicoac lagundu, sostendu, indartu bague bere escuaz, bere graciaz, bere bitartetasunaz.

2 §.

Iraute era bicoac idoroten dira gure artean. Bata da, dempora lucean <300> iraun ezquero onean ta pecatu eguin bague, guero azquenean uts eguiten dabena. Au da arriaren ganean ereinten dan acia leguez: ernetan da ondo, baña eztabelaco sustrairic ezarten, laster igartuten da. Alan, asco ondo asten dira, baña eztira aurreratuten ontasunean; dan ocasiño ta tentaciñoric chiquienac cañabera mea leguez macurtuten ditu; ta azquenean, nos eta sendoago egon bear leuqueanean, orduan jausten dira, ausiten dira, galduten dira.

Bibora derichon sugue modu bat oi da, diño Plinioc, negu otzean bere eden guztia lurrera egozten dabena; baña guero udan meneno barriaz ta len baño gaistoagoaz aguertzen dana. Au berau jazoten da pecatari ascogaz: onduten dira pusca bat, largatzen dituez pecatuzco ocasiñoac ta lagunac gaissotuten direanean, garizuma demporan, gach edo calte andiren baten icusten direanean. Osatu arteraño, garizuma, pazcoa edo estura igaro artean larguetan dabe edena, pecatua, bicitza gaistoa. Baña guero barriro biurtzen dira lengo gaistaquerietara, lengo pozoi edena edatera. Au biurrera charra da, iraute laburra da, balio guichicoa da.

-
- 43-19 *borondatea onera ta gachera libre < vorondatea onera eta gaixtora libre (GGero 457).*
 43-19/20 *ta gachera... emonagoa: Axularren honen ordez: bietara iocatcen, eta haraguiaren arauaz gaixtora iocatcenago (GGero 457).*
- 43-24 *Iraute era bicoac < Bi perseveratce molde, bi iraute suerte (GGero 458).*
dempora lucean: Cf. Bata da cenbait demboratacoa, cenbait demboraz ontasunean iraunez guero... (GGero 458).
- 43-25/26 *uts eguiten dabena: leh. uts eguitea. Cf. azquen finean edo finera hurbiltcean faltatcen duena (GGero 458).*
- 43-29 *macurtuten ditu: Axularrek irudi gehiago ematen: den traburic ttipianean behaztopa, canabera beçala, malgu eta plega, camaleona beçanbatetan muda, finean firmetasunic ez, hoberenean falta (GGero 458). Hauxe da lerrokadaren bukaera; beraz, ta azquenean-dik hasita bukaeraraino, Añibarroren burutik jalgi da.*
- 43-29/30 *nos... leuqueanean: ik. § 5.2.9.*
- 43-32/34 *Bibora... aguertzen dana: joskera latzeko pasarte; hona Axularrena: Edireiten da Vipe-ra daritçan sierpe bat, gaixtoa eta poçointsua. Eta hartçaz erraiten du Plinioc, egotzten duela neguan bere poçoina eta lurrean barrena ehortzten duela. Baina guero udan poçoin berriarequin, are lehena baino gaixtoagoarequin aguertcen dela (GGero 458).*
- 43-39 *pozoi: gainean erantsia.*
- 43-40 *iraute laburra da, balio guichicoa da: taiu ezberdineko gauzak bilduta; cf. Haur da bihurtune gaixtoa, dembora gutiz ontasunean irautea eta perseveratcea; eta guztia ongüi contatcera, deus guti valio duena (GGero 459).*

Bigarren irauntza da onean irautea il arteraño; ta len bicitza gaistoa eguin badau bere, azquenean ondo acabatzea. San Agustinec eztau conturic eguiten lenago irauteaz, baldin azquenean ondo azquenduten ezpada. Atzerengo urtean, eriotza aurreco dempora pisca batean ondo bici danac ta guero onean ta gracion ilten danac segurutzen dau cerua; baña ez, len urte ascoan ondo bici izan arren, guero ilteco demporan irauten ezpadau gracion. Eriotzaguiño ondo irauten dabena bacarric salbatuco da, diño Jesu Cristoc Evangelio Santuan.

Aaron sacerdote andiaren soñecoac beco egal ertza azquenean cituan granada pintatuac. Granada edo mingranac beste frutac ez dabene coroi bat dauco. Coroi au gura eban Jangoicoac emon cequion ta ifini sacerdotearen jaztecoari, ez asieran, ez goian, ez erdian, ezpa[da] bazterrean, oñetan, beco egalean, azqueneco ertzan. Bada, azquenean ondo ilteari jatorco coroa, ez asiteari.

Itandu eutsen bein Diogenes filosofo andiari ea cegaiti aimbete urtez zartu eta aguretu ezquero, ez eban descansu atseguinic artuten, cegaiti orrembeste iracurri, icasi ta burua berotu ta nequetuten eban. Eta eranzun eban: Daragoionac ardurazco lan bati, eztau <301> larga bear acabarera dagoanean; orduan obeto ta biciroago equin bear deutso; orduan obeto pealeatu bear dau ta esetsi, bestec bitoria irabaci eztaion ta lengo eguinac galdu eztaizan. Onegaiti, bada, nic bere, ciñoan Diogenesec, orain zartu nasanean,

- 43-43 *azquenean ondo azquenduten ezpada*: zertxobait geratu da Axularren aliterazio indartsutik: *finera baino lehen, edo finean berean, fina finatu gabe finatcen denaz* (GGero 459).
- 43-45 *ascoan*: ik. § 5.1.1.4.
- 43-46 *irauten ezpadau*: aurreko perpausarekiko paralelismoa gordez gero, honek *irauten ez duenac* beharko luke; cf. *eta ez aiticinetic anhitz urthez ongui eta prestuqui bici ičan denac, baldin hiltceracoan edo hiltcen denean faltatcen badu* (GGero 459).
- 43-46/48 *Eriotzaguiño... Evangelio Santuan*: Añibarroren eransketa.
- 43-49 *beco egal ertza azquenean < behereco bazterr[e]an inguru* (GGero 460). *ertza*: ik. § 5.1.1.1.
- 43-50 *granada < mingrana* (GGero 460), hurrengo agerraldian *edo mingranac* erantsi arren. Cf. VB “granada: *mingrana, pillaltuna*” (<HH).
- 43-51 *emon cequion < eman cequion* (GGero 460); ik. § 5.1.3.4.
- 43-52 *ezpa[da]*: lerro bukaeran dago, eta hurrengoan osatzea ahaztu bide zitzaion. *bazterrean < basterrean* (GGero 460) < *bazterrean* (Gero 458).
- 43-53 *ertzan*: hala behar ere, goian (43-49) mugagabea *ertza* jarri duenez gero (ik. § 5.1.1.1).
- 43-53/54 *azquenean ondo ilteari...*: Axularrek hauxe baino ez dio: *Ceren accabatceari dagoca coroa, eta ez hasteari* (GGero 460).
- 43-54 *asiteari*: leh. *asteari*.
- 43-55 *filosofo andiari*: leh. *filosofoari*, < *philosopho handi hari* (GGero 460).
- 43-58/59 *Daragoionac... dagoanean*: Añibarrok ez bide du *thema* ulertu, besteak beste: *Thema bateja[n] gainean, garaicarrean, laster eguiten duenac, ezta chedera eta marrara hurbildu hurran denean, ezansiatu behar eta ez baratu* (GGero 460).

azquenera eldu nasanean, gogo gueiagoaz jarraitu bear deusat lanari; eztot guelditu gura; len baño beartuago nago dempora labur au ondo emotera. Cerren bestela, benturaz lengo irabaci ta aurreratu guztia galdu nei. San Pablo
65 Apostoluac diño: Arin eguizu cogitu ez zaiezan.

Baña, esan dan leguez, iraute au azqueneco istanterañño Jangoicoaren gracia ta mesedea da: berac bacarric daqui, diño San Agustinec, nori eguin ta nori emongo ez jacan gracia au. Eta beragaiti, bildur andiaz bici bear gara, contuz ta ardura andiaz ibilli; umiltasun andiaz escatu Jaunari, ez gaizala
70 ichi bere escutic, gorde gaizala pecatuan jaustetic ta, bere gracia ta adisquidetasunean gagozanean, beragana garoazala. Cergaiti ce, azquenguñoco iraute au Jangoicoaren doea bada bere, iñoc berez irabaci ecin leiquean gracia bada bere, orrez guztiaz, bacoachac eguin bear dau bere aldetic dagoana, ta dagocana, mereci al balei leguez, beragan balego leguez.

Bada, gure escaera, erregu ta oraciñoac enzutera ta cumplietara bearturic ezpadago bere Jangoicoa, baña ganeracoan prestic dago alan eguiten dabenari elduteco, jabetuteco, escua emoteco. David santuac diño: Ur dago Jangoicoa, eguiatz ta demporaz deituten deusenetaric. Eta gura dau escatu daiogun; ta pusca baten ucatuten badeuscu escatua, eztogu desesperanzatu
80 bear; ezpada beste bein ta gueiagotan escatu bear deusagu, ateco escalea leguez, erdetsi artean. Eta ori edocein ordu ta demporetan; cerren Jangoicoagan ez da ordu charric, ez da beranduric, ez aldi gaistoric, munduco genteen artean leguez. Agan ordu ta dempora guztiaz dira bardinac; beti da bat ondo etorria, ondo artua, ondo enzuna, baldin demporaz, adiontzaz badator peccataria.
85

Beragaiti, bada, beti ta benetan, biotz guztiaz ta sarri escatu bear deusagu Jangoico maiteari gracia, azquen-iraupena au emon daiguntzat. Bada,

-
- 43-64 *lengo irabaci ta aurreratu guztia galdu nei < thema gal neçaque (GGero 460).*
43-65 *Arin eguizu cogitu ez zaiezan: alderantzizko ideia Axularrengan, eta San Pablarengan: Eguiçue laster, atrapa deçaqueçuen beçala (GGero 461), eta latinez: Sic currite ut comprehendatis. Dena dela, ohargarria da hauze izatea laster egin zuzen ulertu duen lehen aldia, latina lagun, beharbada: orain artekoan eskuarki laster joan eta antzekoen bitartez itzuli izan du (ik. 2-32. oh.).*
43-66 *iraute au azqueneco istanterañño: ezagun du ez dela zuzenean Axularrengandik hartua; cf. laster eguite eta atrapatce haur, fineraino eta finean, azquen pontuan eta partitcean beccaturic gabe guerthatce haur (GGero 461).*
43-67/68 *nori eguin ta nori emongo ez jacan < nori emanen çaicán eta nori ez (GGero 461).*
43-71 *azquenguñoco: leh. azqueneraco-edo, ezabatua, < azquen fineraino (GGero 461).*
43-76 *prestic dago = GGero 461.*
43-76/77 *alan eguiten dabenari < ahala eguiten duenari (GGero 461). Lapsus izan da, dudarik gabe (ik. § 5.3.4).*
43-82 *ez da beranduric: Añibarrori zor zaio ausardia hau hartua.*
43-84/85 *ondo artua... peccataria: Añibarroren eransketa.*
43-87 *azquen-iraupena au: ik. § 5.1.1.1; cf. azquen fineco iraupenaren (GGero 462) eta berago azquen-iraute (43-99).*

90 onetan dago gure zoriona, dicha, suertea, gorabera guztia; onetan dago ben-
zuera ta bitoria guztia. Berau bague lenagoco <302> eguite on guztia dira
utsac, alperrac, baliobagueac. Jangoicoac eztau beguiratuten len cer izan ga-
rean, ezpada cer garean eriotzaco orduan; eta orduan garean erara emoten
dau sententia betiraun guztiraco.

95 Ontasunean iraute au orainganic artu, autu ta euqui bear dogu, ta ez gue-
roco esperanzan ichi, largatu, benturatu. Bada, azquenengo demporea baño
lenago ondo bici dana, ondo irauten dau azquenean bere comunqui edo
gueienetan; contu ta joco seguruen da ondo bici, ondo ilteco; bada, nolaco
bicitza, alaco eriotza.

3 §.

100 Edocein neque eroan bear dogu gogo onaz; azquen-iraute au ta ceruco
gloria irabazteagaiti ez gaitu ecerc bildurtu ta atzeratu bear. San Pabloc diño
emengo neque pena bici, latz, gogorrenac gueiago balira bere, eztireala diña
ceruco gloria irabazteco; eztira asco, eztireala ecer agaz bardinduric. Bera-
gaiti ezcara aspertu ta gogaitu bear, eztoguz lartzat, gueieguitzat euqui bear
onembeste gloria dacarcuzan nequeac ta penitenciac. Lenago bai, deseatu
105 bear guenduque andiagoac ta luceagoac izatea.

Alan escatu ta deseatuten eben lenagoco santúac; ta orregaiti Jangoico-
ac emon eutseen ain gloria andia. Onetarico batez berba eguiten dabela, diño
Espiritu Santuac: Dempora labur guichian bici izan bazan bere, guichi atan
eguin ta mercedu eban asco. Cerren beragan izan balitz, gueiago ta lucero-
110 ago bici izan balitz, aurrerantzean bere zucen ta ondo biciteco borondatea
eucan, ta borondate eta gogo on onegaz il zan. Berberau esan lei gaistoac
gaiti bere, dempora guichian asco eguin ebéla; ta dempora guichi laburrean
eguin cituen pecatuac gaiti emon jaquéla castigu luce seculacoa; cerren dem-
pora laburrean egon bacirian bere pecatuan, lucea zan pecatu eguiteco euqui
115 eben borondatea; ta jarraituco eutsén pecatuari, demporeac iraun baleu
gueiago, eriotzeac laburtu ezpaleutsé bicia.

Gaistoac dauqué leguez gogoa, asmoa, borondatea, aurrerantzean bere
gaistaquerian egoteco ta biciteco, alan onac bere dauqué borondatea ontasu-

emon daiguntzat: honen ondoan, hauxe eransten du Axularrek: *eta hunetan gueure
ahal guztiaz permatu eta bulharca iarri* (GGero 462).
43-88/89 *benzuera ta bitoria < garaitia eta victoria* (GGero 462).
43-96/97 *contu ta joco... alaco eriotza*: Añibarroren eransketa, letragatik batez ere geroago egi-
na dirudiena. Azken esapiderako, cf. *Nolakua bizitzia, alakua eriotzia* (CrIc 31, ap.
OEI, NOLAKO... HALAKO, s.v. *nola*), besteak beste.
43-109 *eguin*: ondoan *eban*, ezabatua; cf. *guti hartan eguin çuen anhitz* (GGero 463).
43-111 *eucan*: *aurrean euq]* (*euquen?*), ezabatua.
43-115/116 *ta jarraituco... ezpaleutsé bicia*: Añibarroren eransketa.

nean aurrera igaroteco; ta artan azqueneco arnasa emon artean irauteco.
 120 Iraute santu au eztoгу larga bear gure contra ifini arren mundua, deabrua ta aragui gaistoa; orduan bear dogu contu gueiago euqui. Ichasoan dabilztenac ecach andiac artu arren, axeac jo arren, ura amurratu arren, eztira bereala deseperatuten, <303> biotz-jausten; portu edo caian sartu artean jarraituten dabe, aleguin guztia eguiten dabe.

125 Alan, guc bere eguin bear dogu ceruco bidean gabiltzan artean gure contra jaguiten direan nequetan, tentamentuetan, gaissotasunean, persecuciñoetan, ez mirutu, ez bildurtu, ez ichi bide onari. Eztoгу eguin bear chiminoac leguez: inchaurra jan gura izanic, ichiten dau jan bague campoco azala austeco nequeagaiti, ta galduten dau barruco mamiña. Cristiñau ona ezta lenengo ocasiñoan ta tentaciñoan jausten, izutu ta itsututen; orduan obeto defenditu, biztu, sendotuten da.

Su chiquia, candela arguia axe guichi batec amatetan dau; baña sutegui andia, icaztoгуia axe andiaz andiagotu, biztu ta gueiagotuten da. Alan, debociño chiquia, epela, gogo ta birtute argala amatetan da edocein tentaciño, 135 ocasiño, axe ta gauzaric guichianaz. Baña debociño ta birtute andia, fina, sendoa, sustrai indartsuac bota dituana, aci ta gueituten da tentaciñoric andienetan, persecuciñoric latzenetan.

Esatea cristiñau eguiazcoac ta onac eztiriala gueldituten, zabartuten, aspertuten, naguituten azqueneco orduraño, ezta aditzen pecaturic areambere 140 eguin бага egoten direala asieratic azquenguño, chiquitaric zartasuneraño. Bada, Salomonec diño zazpi bider egunean jausten dala danic justuena pecatu chiquer arinetan. Esan gura dau, bada, pecatu baten jausten danean, ataric bereala, artan guelditu bague jaguiten dala; ta guero ardurazco contua ifinten dabela, ez barriro jausteco ta azqueneraño ondo irauteco.

145 Batzuc artuten dabe gogoа dempora baten ez pecaturic eguiteco; danic gaistoенac bere nosic bein artzen ditu ondu ta obetuteco asmoac, bicitza ba-

43-123 *biotz-jausten*: cf. *eztira berehala errendatcen, eta ez bihotz hilduac eta etsituac iartcen* (GGero 464).

43-127 *mirutu*: cf. *eta ez anarteraino errendatu, eta ez amainatu* (GGero 464). *OEH*-ak, Añibarroren beste adibide batean bakarrik oinarrituta (*bildurtu, izutu, mirutu, indarbaguetu, MisE* 123s), “enflaquecer, debilitarse” itzuli du, zalantzekin bada ere. Hala ere, nabarmena iruditzen zait gazt. *amilanarse*-ren kalkoa dela eta, beraz, *bildurtu* eta *izutu*-ren esanahikidea.

chiminoac = GGero 464; leh. *chinoac*.

guichi batec: leh. *guichic*; cf. *haice gutic* (GGero 465).

icaztoгуia < *iccatztobia* (GGero 465).

43-135 *gauzaric guichianaz*: jat. *gauzaren guichianaz* (arg. zuz.); ik. huts berbera 28-79. oh.; cf. *occasino gutirequin, haice appur batequin iraunguitcen da* (GGero 465).

43-139 *ezta aditzen*: ohartu goiko *Esatea* dela honen osagarria; Axularrek honela egiten du: *Ordea erraiten denean ecen..., ezta ez aditcen...* (GGero 465).

rri bat eguitemo deseoa. Baña pecaturic bapere ez eguitemo gogoa, onean irauteco borondatea gueroco ichiten dabe. Bauca gure [guero] onec bere emen bere bicilecua, echea ta ostatua. Bada, gueroco irautasuna sendoa
 150 izango bada, orainganic abiatu bear gara orretara, gueroco arriscatu bague. Jagui ta jausi dabilla[na]ren bicitzea peligrutsua da; batez bere jaguiric baño, dempora gueiago badabil jausiric pecatuan, gueienetan ta gueienacaz dacuscun leguez. Asco dagoz aste baten edo bitan pecatuan jausi bague; baña guero emoten dabe urte bat, edo amar, pecatuan sarturic. San Agustinec diño,
 155 pecatu eguite berac baño, gueiago aserratuten dabela Jangoicoa <304> pecatuan bertan lucero irauteac, damutu, confesatu, penitencia eguin bague dempora lucean egoteac.

4 §.

Ebagui ezquero arech bat, ataric barriro sortuten badira erroac, umeac,
 160 chirpia, sustraiac, adarrac, señale da, aguiri da etzenduala atera osoro ta ondotic, guelditu zala sustrairen bat. Zauri llaga bat bein osatutzat larga ezquero, bereala gaistotuten bada, adigarri da etzala ondo osatu, cerbait sendatu baga guelditu zala.

Alan bada, bein pecaturic osatu ezquero, bertati bertara biurtzen bada,
 165 esan lei etzala ondo osatu; etzala ondo confesatu; etzala eguiatzoa bere penitencia; pecatuaren sustrairen bat biotzean guelditu zala; etzala artu gogo sendoa pecatura ez biurtzeco, pecatuaren ocasiñoac, bideac, lagunac, echeac, arriscu ta peligruc aldeguiteco. Eguia da, ondo confesatu ta garbitu ezquero bere, jazo litequela barriro jaustea ta pecatu eguitea; bada, pecatuaren

-
- 43-148/149 *Bauca gure [guero] onec bere emen < Badu gure Guero hunec hemen ere (GGero 466).*
- 43-149/150 *gueroco irautasuna sendoa izango bada < baldin içanen bada firmetasunic guero (GGero 466); cf. VB irautasuna (c.) "firmeza" (cf. HH iraundera).*
- 43-151 *Jagui ta jausi dabilla[na]ren < laiqui eta eror dabillanaren (GGero 466). Honen aurrean hauxe dio Axularrek: Aitcineco obra onac eta perseverancia, dira ondoco fin onaren eta perseveranciaren bidea eta seinalea (GGero 466).*
- 43-154 *pecatuan sarturic: eta hau gaineratzen du Axularrek: Badaquigu gaixtaquerian pensatcen, irauten eta perseveratcen, baina ez ontasunean (GGero 466).*
- 43-155 *pecatu eguite berac < beccatu eguiteac berac (GGero 466); ik. § 5.1.2.3.*
- 43-156/157 *damutu, confesatu... egoteac: Añibarroren azalpen moduko eransketa (ik. § 5.4.2).*
- 43-159/160 *erroac, umeac, chirpia, sustraiac, adarrac: cf. eta berriz hartaric urt-umeac edo adarrac sorcen direnean (GGero 467). chirpia: cf. Azkue "txirpi (B-a-g-o-tx), almáciga, vivero de plantas. Var. de txerpi", baina testuinguru honetan, 'mintegia' baino 'ernamuina'-edo izateari egiantzekoago deritzat.*
- 43-161/162 *osatutzat larga ezquero: leh. osatu ezquero, < sendatutzat utciz guero (GGero 467).*
- 43-162 *gaistotuten < gaizcoatcen (GGero 467). adigarri da: cf. goraxeago señale da (43-160).*
- 43-164 *bertati bertara < berehala (GGero 467).*
- 43-169 *bada: ondoan izanic, ezabatua; cf. Ceren beccatuaren erroa eta cimendua libertatea da (GGero 467).*

170 sustraia ta cimendua izanic libertadea, onec barriro artu ta maitetu lei len ichi ebana, len gorroto ebana.

Baña, orrez guztiaz, bein jausi, bein jagui ibiltea señalearra da, ta gure galdugarria. Cer balio dau orain eche bat eguitea, guero deseguin ta banatuten bada? Cer balio dau orain pecaturic jaguitea, andic laster barriro jausten
175 bada, ta jausi ezquero bertan guelditu ta lozorroac artuten badau? Cer balio dau erri bateraco bide lucea ibiltea, gogoa daben lecura elduten ezpada, bide erdian gueratuten bada edo atzera biurtzen bada? Cer balioco dau ontzi ondasun batec igaro izanaz ichaso lucea, ecach ta arriscu bildurgarri[a]c, baldin portuaren aurrean edo portuan bertan ito ta ondatuten bada? Cer dogu
180 echea asteaz, azquenduten ezpada?

Ezta asco ondo astea, acabatu bear da, jarraitu bear jaco lanari, ezta lar- ga bear ceruco bidea. Judas Apostolua ondo asi zan, ta donguero acabatu eban. Loten emaztea bere ondo asi zan angueruaren aguindua cumplitzen, esan eutsanean Sodomaco erri gaistotic urteiteco; baña guztia galdu eban
185 atzera beguiraturic, ta onegaiti gatz biurtu zan. Eta gatz biurtze onen ganean diño Glosac: Gatzac dauca indarra ta birtutea araguiari iraun eraguiteco ta janariari gustua emoteco. Ta orregaiti atzera beguiratuaz gatz biurtu zan. Andra <305> gatz biurtu onec, ta oni emon jacon castigu andiac, daracuscuz- togula lengo bicitza gaistora biurtu bear, ez len euqui doguzan lagun gaisto-
190 etara ta pecatuetara gogoa itzuli bear. Jesusec San Lucasen aotic dirauscu gomute gaitetzala Lot-en emazteaz, icasi daigula aren buruan ta agan, ari jazo jacona guertatu ez daquigun; ta aren gatzaz gatzituric leguez, pecatuan us- telduteaz gorde gaitezan.

5 §.

195 Ezta atzera beguiratu bear; bada, alan beguiratuaz izan da oquerra etor- tea. Egemplu edo contu bat dago alcar il gura eben[en] artean jazona. Guizon

-
- 43-172 *bein jausi, bein jagui ibiltea < behin eror, eta berriz iaiqui ibiltzea (GGero 468).*
43-173 *Cer balio dau orain eche bat eguitea... < Batec eguin, eta batec deseguin, cer probe- tchu, trabailua baicen? (GGero 468); baina cf. latinez Unus edificans & unus des- truens... (Eccl 34), non oinarri har zezakeen Añibarrok.*
43-177/178 *ontzi ondasun batec: ez da erraza zuzentzen, zerbait oker dagoela agerian bada ere; cf. unciac betheric eta cargaturic vela ongui eguiteaz, baldin portura baino lehen... (GGero 468).*
43-181/182 *jarraitu bear jaco... ceruco bidea: Añibarroren eransketa.*
43-184 *urteiteco: ik. 32-103. oh.*
43-185 *gatz biurtze = GGero 468.*
43-188 *daracuscuz < eracusten deracu (GGero 468); ik. § 5.1.3.7.*
43-191 *aren buruan ta agan < haren baithan (GGero 469); ik. § 5.3.4.*
43-192 *pecatuan: leh. becatuan.*
43-192/193 *ustelduteaz gorde gaitezan < ustelcetic beguira gaitecin (GGero 469). Berak ere ha- laxe ohi du, noski: cf. 0-109/110, 1-28, 7-39, 14-64, etab.*
43-195/196 *izan da oquerra etortea < icatu da gaizqui heldu denic (GGero 469).*

aserratu bi asi cirian ezpataca; eta batat maliciat esan eutsan besteari: Ola, ola, bioa ortic zure atzean dagoan guizon ori; ez nas ni bien contra ifini. Orduan, ustez eguia ciñoala, beguiratu eban atzera; ta bitarte atan jo ta sartu eutsan ezpatea. Alan eguin daroioe deabru asmutsuác, atzera ta lengo bicitza gaistora beguiratu ta biurtuten direanai.

Ezta ceruraco gai, diño Jesu Cristoc, lurra goldeaz landuten ibilliric, atzera beguiratuten dabena. Goldeaz, bostortzaz, achurraz lurra landuten dabillanac atzera beguiratuten badau, oquer eguingo dau; ezta izango goldelari, languille, achurlari ona. Lan bear batzuc bagoz atzera, albora, noranai beguiratu arren eguin litequezanac, celan direan jatea, edatea, berba eguitea. Baña badira beste batzuc, celan direan escribitzea, pintatzea, jostea, ondo ta artez eguiten eztirianac albora edo atzera beguira. Alan da, bada, ceruco bidea bere: baldin contuz ezpagabilz, aurrera beguiratuten ezpadogu, lengo bide oquer pecatuzcoa ichiten ezpadogu, lengo ocasiño ta arriscuetaric igues eguiten ezpadogu, ezcara beimbere cerura elduco; lan eguin guztia lenago galduco dogu. Cerren ceruco bidean aurrera eztoana, atzera dabil; eztau baliu gueldi egoteac.

Ero zoro burubaguea da, bein presondeguitic igues eguin ezquero, ara biurtzen dana. Eta bai bide baten lapurrac ostu ezquero, <306> euretara biurtuten dana. Alangoac animalia abere adimenturic eztabenac baño adimentu ta cenzun guichiago dauqué. Bada, abereac bere adimentubagueaz biurtzen eztira len deunguero erabili dituezan lecura: ardi bat, zaldi bat eztoa len otsoac gach eguin deutsén lecura.

Onen ganean diño San Pedro Apostoluac: Obe leuquean eguiazco bidea ez jaquitea, jaquin ezquero atzera biurtu baño. Alan aditzera emoten dau San

43-198 *bioa < bihoa (GGero 469).*

43-200 *eguin daroioe: ik. § 4.3.10.6; leh. eguin daroa-edo; cf. Hala eguiten deraue, bada, de-abruac ere (GGero 469).*

43-202 *ceruraco: jat. ceruraraco (arg. zuz.).*

43-203 *Goldeaz, bostortzaz, achurraz lurra landuten < Golde nabarretan edo golde picoetan lur lantcen (GGero 470). Cf. VB “arado de muchos dientes: c. bostortza”.*

43-204/205 *goldelari = GGero 470.*

43-207 *jostea: adibideen artean Axularrek honako hau eransten du: golde nabarren eta arhen ere haritcea (GGero 470), Añibarrok ez jasoa, area ongi ezagutzen zuen arren: VB-n definizio luze honen azpian agertzen da: “Arado cuadrado y plano que tiene muchos más dientes [bostortzak baino], y sirve para quitar la broza, e igualar la tierra”.*

43-208/209 *ceruco bidea: Axularrenean ceruco erresuma da, baldin erdietsico bada (GGero 470). Baina gaia aurrera joatea denez...*

43-212/213 *Cerren ceruco bidean... gueldi egoteac: ederki esana, baina aske itzulia, < Cerren bihurtcecotz probetchu guti da, lehen eguin den guztiaz (GGero 470).*

43-217 *bere adimentugabeaz < bere adimendu gabearequin ere (GGero 471).*

43-218/219 *ardi bat, zaldi bat... lecura: Añibarroren eransketa.*

43-221 *ez jaquitea... biurtu baño: Axularrek partizipioa dakar bietan: Hobe çuqueyen eguiazco bidea iaquin gabe egon, iaquinez guero guibelat bihurtu baino (GGero 471).*

Lucasec bere, diñoanean: Bein bota ezquero arimatic edo gorputzetic dea-
brua, bere erruz barriro sartzen ichiten deusanean, deungago dago orduan
225 bigarren atan, lenengoan baño; peligruzcoago da bigarren sarrera lenengoa
baño; azquenecoac lengoa aztuten dau. Onegaitic Jesu Cristoc esan eutsan
osatu eban perlesiadunari: Bacusu osatu zareala; beguira, bada, biurtu etzai-
tezan gachera, len baño charrago ifini etzaitzan. Donguea da gaisotasuna,
baña gaistoago barriro gaisotasunera biurtutea. Charra da lllaga zauria, baña
230 charrago barriztautea. Deunguero da confesatu бага egotea, baña aldez gais-
toago confesatu dan pecatura ostera ta ostera bere biurtutea. Bigarren biu-
rrera ta jauste au injuria ezainago da Jangoicoaren contra.

Ezagerabaguetasun ta esquerbaguetasun andiago da, confesatu pecatua,
Jangoicoac parcatu, eguin promesa ta esquentza andiac, emon berbea ez
pecatu gueiago eguiteco, ta guero ausi promesac, aztu propositu onac, ta
235 biurtu lengo gaistaquerietara ta barriro Jangoicoa ofendietara.

6 §.

Ain da andia, ezaina, itsusia ta gorrotogarria bigarren pecatua, bein parcatu
dana barriro eguitea, ce onec beronec len parcatu cirianac bere, biurtu
leguez eguiten ditu. Eta ezta mirari. Bada, bigarren biurtze ac lengo pecatu
240 parcatuac bere barrirotuten leguez ditu, gogora ecarri ta biztuten ditu modu-
ren baten. Eta alan Justiciac bere, bein azotatua ta marcatua artuten badau,
gogorrigo castiguetan dau.

Bein ichi eban pecatura barriro biurtzen dana bardinduten dau Espiritu
Santuac, bere gomitu errebesua jatera biurtzen dan chacurrac. Eta San Pe-
245 droc bardinduten dau bere loi ciquin atsitura biurtzen <307> dan charri be-

43-226 *perlesiadunari < paralitico (GGero 471).*

43-229/230 *aldez gaistoago = GGero 471.*

43-232 *Ezagerabaguetasun < Eçagutçagabetasun (GGero 472).
andiago da: zer baino? cf. handia da (GGero 472).*

43-232/235 *confesatu..., parcatu, eguin..., emon, ta guero ausi... aztu... ta biurtu: ez da hori Axu-
larren joskera: Iaincoari cofessatcen eta handic campoan (...) hanbat promes egui-
nez guero, eta hequin batean ceure beccatuen barcamendua (...) erdietsiz guero,
promesac hautsirc, berriz leheneco maina gaixtoetara bihurtcea... (GGero 472).*

43-237 *bein: aurean barriro, ezabatua. parcatu dana: leh. parcatuac. Cf. behin barccatuz
guero, berriz eguiten dena (GGero 472).*

43-238/239 *biurtu leguez eguiten ditu < bihurtcen beçala baititu (GGero 472). egin indartzaila
erabili duen lehen aldia, testuinguru honetan bederen (ik. § 5.2.11). Bestalde, Axu-
larrek artean bigarren bekatuak bere ingratisunaz egiten duela azaltzen du.*

43-239 *ezta mirari < ezta miresteco (GGero 472).*

43-244 *gomitu errebesua < okha eguina (GGero 472).*

chacurrac: leh. chacurrari, < orarequin (GGero 472).

43-245 *bere loi ciquin atsitura biurtzen < lohira hidoiztatcera bihurtcen (GGero 473).*

250 larluce lauoñeco urdeaz. Ain gauza loi, ciquin, quirats, atsitu, nazcagarria da chacur batec bere aotic bota daben errebesua barriro jan ta irunsiten icustea, ce Espiritu Santuac berac usatu eta ifini ezpaleu irudintza au, ez nintzan ni aurreratuco aitetu ta icentatutera. Eta, bada alan gomutetan dau Espiritu Santuac, guc bere esan daigun beste orrembeste dala pecatu confesatua aotic aterea ta errebesatua barriro irunsitea, ostera bere a jatera biurtzea. Bada, chacurraren errebesu gomitua baño loi ciquiñago da pecatua.

255 Nor, bada, biurtuco da, lengo pecatuaren eden nazcagarria larga ezquero, beste bein edatera? Esan daigun Canticoetan esposeagaz: Oñac garbitu dodaz, celan barriro loituco dodaz? Alcondara loia eranci ta quendu dot; celan, bada, jancico dot? Ondo confesatu ezquero, pecatua ta pecatuzco ocasiñoac, bideac, lagun gaistoac quendu ezquero, baldin munduac, deabruac, araguiac tentetan bazaituce barriro pecatu eguitera, lengo pecatura biurtutera, eranzun eguezue: Celan nic ori eguin nei? Garbitu dodaz oñac, apaindu dot neure arimea: celan, bada, loituco dodaz? Eranci dot alcondara ciquiña, 260 bota dot niganic pecatua: celan barriro jancico dot? Billostu nas oitura, ecan-du, bicio gaistoetic: celan, bada, neugana biurtuco dodaz? Larga ta ichi nituan betico: celan beste bein artuco ditut? Barriro maitetuteco, cetaco ichi nituan? San Agustinec diño: Baldin damuturic, garbaituric bazagoz lengo 265 eguiñaz, eztozu gueiago eguin bear; ta eguiten badozu, aguir da eztozula lengo deunguero eguiñaren damuric.

270 Diferencia andia dago salbetan dirianen ta salbatzen ez tireanen artean; eta diferencia au eztago guztia, pecatu eguitean edo ez eguitean. Bada, salbatu direanetic batzuc jausi cirian pecatuan, dacuscun leguez San Pedrogan, Santa Maria Madalena ta beste ascotan. Baña diferencia dago, santuac nosbait pecatuan jausi baciran, laster larga eben, eguiaz damutu cirian, benetan ondu ta obetu cirian, ta bein pecatua ichiric, etzirian atara biurtzen.

-
- 43-245/246 *charri belarluce lauoñeco urdeaz*: txerriaren lau izen jarraian; cf. VB “cerdo, marra-no: b. *charria*, *lau[o]ñecoa*, *belarlucea*”. *urdeaz*: jat. *urdeari* (arg. zuz.), < *urdearequin* (GGero 473); cf. zuzenketa bera, baina egileak eгина, 43-244. oh.
- 43-250/251 *beste orrenbeste dala... aterea ta... irunsitea* < *behin beccatua cofessatu, ahotic egotci eta berriz hartara bihurtcea, bere okha eguinaren beraren iretstea beçala dela* (GGero 473).
- 43-258 *bazaituce*: ik. 15-259. oh.
- 43-262/263 *nituan*: aurrean *dod[az]*, ezabatua; cf. *Ueci ditut behin, nola bada berriz hartucoitut?* (GGero 474).
- 43-271 *baciran*: ik. 12-214. oh.
- 43-272 *etzirian atara biurtzen*: eta jarraitzen du Axularrek: *Hala edireiten da, lehenagoco sainduac, cenbait beccatutan erori baciren ere, fite iaiqui cirela, eta behin iaiquiz guero, etcirela guehiago erori, eta ez bere leheneco beccatuetara, eta ez bertcetara bihurtu* (GGero 474). Beharbada aurrekoaren errepikapen hutsala zela iritzi zion (ik. § 3.3).

Au da, bada, guc bere eguin bear doguna. Oraindiño jarraitu badeutségu
 275 santuai pecatu eguitean, jarraitu daieguen penitencian, pecatura <308> ez
 biurtutean. Azqueneraño ta azquenean ondo irauten dabenac irabacico dau
 cerua, ta izango da coroitua, saritua, doatsutua. Eztago conturic len eguiñaz,
 baldin atzerengo orduan galtzen badau len irabacia.

Beragaiti, gueure contu ta ardura guztia ifini bear dogu ondo irautean
 eriotzaraño; onetaraco gaur asi bear gara, guerora beguira egon бага; gue-
 280 roco benturan arriscatu бага; largaric bein betico pecatua ta bicitza char
 gaistoa. Orretaraco, artu daigun orainganic damu andi bici bat lengo pecatu
 eguiñaz; gogo ta propositu sendo eguiazco bat ez pecatura secula biurtzeco;
 aguertu lotsa bague confesiñoan gueure pecatuac; jarraitu biciera santu bati;
 escatu onetaraco Jangoicoari bere escua, laguntasuna, gracia ta irautasuna
 285 bere adisquidetasunean, ta guero bere ceruco gloria.

43-274 *daieguen*: ez da oso irakurketa ziurra, leh. *daioguen* jartzen zuen, baina zuzenduta da-
 goela uste dut eta, nolana ere, behar luke.

43-276/277 *Eztago conturic... len irabacia*: Añibarroren burutik; honen orde, Axularrek hauze
 dio: *Bertce guztia deus guti dira, azquen finac darama coroa, accabatcean can-*
tatcen da loria (GGero 475).

43-279 *guerora*: leh. *guero*; cf. *gueroco beguira* (GGero 475).

43-281/285 *Orretaraco, artu daigun...*: hemendik hasi eta bukaerainokoa ia guztia Añibarrore-
 na da; Axularren esaldia oso bestelakoa da, berdintsu hasten bada ere: *Hartara-*
cotçat, orai escuen artean darabiltçagun beccatuac urriquimendu handi batequin
cofessaturic eta utciric, aiticinerat guehiago eguitetic beguiratcen garela. Ceren ha-
latan erdietsico dugu orai perseverantciaren donua, eta guero azquen finean ari-
men salbamendua, seculaco loria (GGero 475).

44. BURUA

*Icusiric infernuco bidea dala gachago Cerucoa baño,
bear dogu larga guerotic guerora ibiltea.*

1 §.

5 Ascotan egon nas neure buruaz gogoetan, ta derichat gogoraciño ardu-
razcoa dala, ea cein dan gachago, nequezcoago: ala Jangoicoa serbiete, ala
deabrua; cerura joatea ala infernura. Era bitaco presonac dagoz beste mun-
duan: batzuc ceruan ta beste batzuc infernuan. Bi oetaric, ceinec igaro ete
10 eban munduan neque eta pena gueiago? Au jaquin gura neuque, au itandu,
au da nire gogoeta.

Ustez esan lei ta dirudi, neque, latztasun, aldats gueiago igaro bear da-
bela cerura doianac ceruratuteco, infernura doanac infernuratuteco baño.
Bada, ceruco bideac gachago dirudi infernucoac baño, beguiraturic Jesu
15 Cristoc diñoala Evangelioan, cerura doian bidea estua, bedarra dala, ta gui-
chi direala bide au topauten dabenac. Onegaz adirazoten dau gach dala ce-
ruco glorian sartzea, asco costa bear jacula an sartutea, au irabaztea, Jangoi-
coaren mandamentúac gordetea. Bada, <309> eztago bide bat baño, ta ori
nequezcoa, aldats gora, buruz gora, araguiaren ta gogoaren contracoa, aran-
zaz, elorritz ereina: indar ta aleguin andiac eguin bear dira ceruan sartzeco.

44-6 *nequezcoago*: jat. *nequezqueago* (arg. zuz.); cf. *nequezcoa* (44-18), adibidez, baina hi-
tza oso sarri agertzen da buru guztian zehar. Axularrek *gaitzago* bakarrik (*GGero*
476).

44-7 *Era bitaco presonac < Bi presuna* (*GGero* 476); ik. § 5.1.1.4.

44-8 *batzuc... beste batzuc...*: leh. *bata... bestea*, < *bata... eta bertcea...* (*GGero* 476).

44-12 *doianac... doanac*: eta hurrengo lerroan berriz *doian*.

44-18 *buruz gora* = *GGero* 477.

ta gogoaren: gáinean erantsia; cf. *haraguiaren contra eta desgogara* (*GGero* 477).

44-18/19 *aranaz elorritz ereina... ceruan sartzeco*: Añibaroren eransketa.

20 Eta, orrez gueiago, ezta bide artan cearretara ibilli bear, ez atzera ta albora beguiratu bear: mandamentuac gorde bear dira.

Baña infernura joateco, eztago ausi bearric mandamentu guztiac: asco da batean gauza andian uts eguitea. Santiago Apostoluac diño Jangoicoaren legue santuco agundu guztiac cumplitu arren, batean uts eguiten bada, guztietan errudun eguiten dala. Eta au adietan da, Glosac diñoan leguez, guztietan eguiten dala pecatuduna; ez pecatu ascori leguez, pecatu bacar bati dagoquiolaco pena ta castigu bardiña, ezpada pecatu bacar bat[ec], ain ciur cein amar pecatuc daroelaco infernura; eguia da amar edo eun pecatu eguin dituanac euquico dituala infernuan pena andiangoac, bat bacarra eguin ebanac baño; baña batat eta besteac sartzen dabe infernuan: mortal bat da asco ara joateco.

Beraz, gachago dirudi ceruan sartzeac, onetaraco mandamentu guztiac gorde bear badira, bide bat baño ezpadago, ta ori estua, latza, gogorra ta nequezcoa. Eta alan, San Pablo Apostoluac bere santutasun guztiaz bere, au gogoraturic esan eban: Ay, ene dichabaguea, ene zorigaistocoa ta erruquigarria, noc librauco nau gorputz ilcor ustel onetaric? Bada, ni nas araguzcoa ta leguea espirituala. Ce icusquizun dau, bada, espirituac, arimeac gorputzaz? Celan compondu, alcartu ta ondo artuco dabe batat bestea?

Nequezco lana da au, ta ain andia, ce ondo esan eban Salomonec: Buzterri astuna ta carga andia darabilde Adanen semeac, jaioten direan egunetic eriotzaguiño; euren amaren sabeletic urteten dabenetic sepulturaco lur, guztien amagana biurtu arteraño. Onegaiti diño Jesu Cristoc San Mateoren ao-

44-23 *gauza andian*: Añibaroren eransketa.

44-25 *Glosac diñoan leguez*: Glosak ez dio Añibarrok dioena, *De pœna damni & non de pœna sensus* baizik (GGero 477). *Guztietan eguiten da hobenduri (ibid.)*, aipuaeren ondoan Axularrek berriz badio ere, ez da, bistan denez, haren itzulpena.

44-26/27 *ez pecatu ascori leguez... castigu bardiña* < *Ez ceren beccatu bat baicen eztuenac, hanbat pena mereci duen, nola hamar dituenac* (GGero 477).

44-27/28 *ezpada pecatu bacar bat[ec]... daroelaco infernura* < *baina ceren bat baicen eztuena ere, ifernuraco baita, hamar dituena beçain ongui* (GGero 477). *infernura*: jat. *infirmitura* (arg. zuz.).

44-30 *sartzen dabe infernuan*: *dabe*-ren gainean *dira* dago aukeran; pasartea Añibaroren egokitapena denez, Axularrek ez digu hautua egiten laguntzen; halaz ere, *batat* erगतiboia izanik, irakurketa iragankorra hobetsi dut, *dira* iragaitzaz egindako zuzenketa baino ez delakoan.

44-34/35 *au gogoraturic* < *ecin bururic eguiñez beçala* (GGero 478).

44-35 *dichabaguea* < *titchagabea* (GGero 478).

44-36 *ilcor ustel* < *mortal* (GGero 478).

44-37 *Ce icusquizun dau* = GGero 478.

44-39/40 *Buzterri* < *Uztarri* (GGero 478).

44-41/42 *sepulturaco lur, guztien amagana* < *hobira, guztien amagana* (GGero 478). *lur*: leh. *lurrean*.

tic, ceruco erreinuan sartzeco indar ta aleguin andiac eguin bear direala; an sartuco danac eguiaz, benetan, gogo ta asmo guztiaz arduratu bear dala.

- 45 Job santuac bere diño, cerua irabacico dabenac, guerran dabilizan <310> soldaduac beste neque igaro bear dituala. Bada, izanic gure bicitzea guerra bici jarraitu bat, gu ta soldadu guerrariac bat gara. San Juanen esana da, icu-
 50 si cituala justuen escuetan palmac; palma adarrac, erramu, ereñotza erabilli oi da bitoriaren señalear adigarritzat. Bitoriaric eztago, lenago guerra izan ezpada, ta guerreak berez ta beragaz dacarz neque ta penac. San Pabloc diño ez tala coroitua izango, ez bitoriadun gueliditico, biciro peleatzen eztabena.

- Ceimbat eta bat dan cristiñau ohea, Jangoicoa serbitu ta deabruaren contra eguiten dabena, aibat gueiago ta gogorrigo esetsico deusé bere arerriac. Alan adietara emoten dau Espiritu Santuac, diñoanean: Ene semea, asten
 55 zareanean Jangoicoa serbietan, zagoz contuan ta presta zaite tentamentuen contra emoteco. Bada, orduan iños baño tentatuago, perseguituago izango zará. San Pabloc diño: Jesu Cristogan bici gura dabena[c], bere aguindu santuac gorde ta bicitza santu garbi on bat eguin gura dabenac persecuciñoac, naibagueac ta neque andiac igaro bearco dituala. Oni jasoco deutsez testi-
 60 monio guzurrezcoac, oni barre ta burla, oni munduac contra eguin ta gogor artuco dau.

- Eta jazo baledi bere izatea munduan persona batzuc ain santuac, justuac, onac, artezac eta zorioneco doatsutuac, ceinec gaiti iñoc deunguero esaten, ez euren onra ta faman ucututen; orrez guztiaz, eguia izango da San Pabloc
 65 diñoana: tentatuac, perseguituac izango direala onac. Cerren, campotic guerraric ez euqui arren, euquico dabe euren barruan, dala griña gaistoa, dala araguiaren tentaciñoa, dala naigura citela, edo beste bicioren guerra.

-
- 44-47 *soldadu guerrariac*: bi izen, ohi bezala, ez izena gehi izenondoa (ik. § 5.3.1).
 44-48 *erramu, ereñotza*: Añibarroren eransketa.
 44-49 *señalear adigarritzat*: bi izen (ik. § 5.3.1); cf. *victoriaren seinaleac* (GGero 479).
 44-51 *bitoriadun < victorios* (GGero 479).
 44-54 *adietara emoten*: ik. 10-32/33. oh.
 44-57 *Jesu Cristogan bici < Sainduqui eta prestuqui, Jesu-Christoc manatcen duen beçala, bici* (GGero 479-480), baina cf. latinez: *Qui pie vivere volunt in Christo Jesu* (ib. 479).
dabena[c]: ergatibo marka egon badago, baina ezabatuta.
 44-62/64 *Eta jazo baledi bere izatea munduan... ucututen*: esaldia hankamotz geratu da; cf. *Eta guertha baledi ere munduan cenbait presuna hain sainduric, iusturic, fama handitacoric edo dohatsuric, non ez ledin nehor ausart haren baithan mihiric ibentcera, eta ez haren ohorearen uquitcera* (GGero 480). *ceinec*: aurrean *non*, ezabatua.
 44-65/66 *campotic guerraric ez euqui arren*: Añibarroren eransketa.
 44-66 *euren*: jat. *eurren* (arg. zuz.).
dala griña gaistoa: aurrean *edo*, ezabatua.
 44-67 *beste bicioren*: ik. § 5.1.1.4; pasartea oso aldatuta dago; cf. *Ceren bere baithan barren bedere, bere haraguiaren muguidez eta desira desordenatuez tentatuac eta frogatuac içanen baitira* (GGero 480).

Guerra, contratasuna, icusi ecina dauqué alcarren artean birtuteac ta bicioac. Subergia, andiuste, arrotasunac guerra eguiten deutso umiltasunari; abaricia edo cequentasunac, prestutasunari; lujuria edo loiqueriac, castidade edo garbitasunari; aserracuntzeac pacienciari; guleriac edo sabel-darroiac, jan-edanean beguiratua izateari; embidia edo icusi-ecinac, caridade edo maitetasunari; naguitasunac prestasunari. Bicio oneetariac bategaz edo besteaz dira perseguituac, tentatuac justuac, onac, santuac euren barruan. Ta beti izango da eguia pena, <311> neque, crutze, aldats gora-bera latzac igaro bear direala ceruco glorian sartuteco; ta crutze baga iñor eztagoala.

2 §.

Besteti, barriz, dirudi infernucac bideari darraionac eztauquela igaro bearric orrembeste neque, persecuciño, crutze ta guerra; bere gogora dabillalaco, buruac emoten deutsan guztia eguiten dabelaco, araguiac dirautsan era-ra bici dalaco, bide zabal atseguinezcoan dabillalaco. San Mateoc diño andia, zabala dala infernuraco bidea ta atea; asco igaroten direala beraganic. Oñatza ta laguntza asco topetan da bide gaisto onetan.

Gaistoac darraioen infernucac bidea deituten da zabala ta andia, an dabil-tzenac dabilzelaco zucembide baga, ordea baga, nolana. Ez dabé euren bo-rondatea baño beste zucembideric; eztabe leguepean egon gura; leguea dau-

-
- 44-69 *Subergia*: ik. 36-50. oh.
 44-70 *lujuria edo loiqueriac < haraguiac (GGero 480); cf., adib., luxuria edo lohikeria (CatLav 173) eta lujuria edo loikeria (Gco II 40; biak ap. OEH, s.vv. lujuria eta lohikeria).*
 44-71 *guleriac*: ik. 39-70. oh.
*sabel-darroiac < gulac (GGero 480). Birritan erabili du lehenago sabeldarraiotasun, batean bere kasa (39-6. oh.) eta bestean Axularri hartuta (39-70. oh.). Forman tematuko da (cf. *sabel-darroia < sabel-darraio, 53-187. oh., vs VB eta HH sabeldarraioa* “tragón”), baina hemen bakarrik dugu izen abstraktua, eta ez izenondoa.*
 44-72 *jan-edanean beguiratua izateari < abstinenciari (GGero 480); cf. Tenplanza edo begiratua izatea (Añ CatAN 61, ap. OEH, s.v. begiratu), besteak beste.*
 44-73 *prestasunari*: ohar bekio *prestasun (< Ax diligencia) eta prestutasun (< Ax liberaltasun) hitzen artean egiten duen bereizkuntzari.*
Bicio: aurrean *Oneet] (Oneetariac?)*, ezabatua; cf. *Eta hunen batenarequin iustu guztiac dira perseguituac (GGero 480).*
 44-76 *ta crutze baga iñor eztagoala*: Añibarroren eransketa.
 44-78 *darraionac*: leh. *darraioenac*.
 44-82 *beraganic*: ik. § 5.1.1.3; cf. *eta anhitz ibiltcen da bide hartan, eta bai athean ere sartcen (GGero 481).*
 44-83 *Oñatza ta laguntza asco topetan da < bada han oinhatça franco, eta ez compainia es-casic (GGero 481). Oñatza*: -a itsatsiduna bailitzan (ik. § 5.1.1.1), agian Axularren egiturak engainatuta.
 44-85 *zucembide baga, ordea baga*: cf. *ezpaitira erreguelaz bici eta ez ordenantçaz (GGero 481).*
 44-86 *zucembideric < erreguelaric (GGero 481).*

que euren azpian. Bide uts eguinac dabilz, bide onetic campora, nondic nai, guztia da eurentzat bidea, ta bide zabala. Eta, celan zabal dabiltzan, lagun ascoren artean, euren gustura dabilz.

- 90 Atseguin da, juramentuac, biraoac, erneguac ta aora datorren guztia esanic, gura daben guztia eguitea; nai dabena lotsatu ta iraindutea. Atseguin da domeca ta jaiac emotea solasean, jan-edanean, joco lucean, danzan, conturic euqui bague mezaz, bezperacaz, errosario santuaz, Jangoicoaren gauzaz. Atseguin da araguiaren griña charrai jarraitutea, naicunde guraria gaistoac
95 cumplietea. Atseguin da injuria, bidebague, laburtasun edo zantarqueria bat eguiten deusuenean bengatutea, ordeaz ordetutea, moneda berean paguetea.

- Atseguin da bidebaguezco saldu-erosietan lapurqueriac, trampa ta engañuac eguinic ta aberasturic, besteen lepora bicitza gozo bat igarotea. Atseguin da oe onean ta bigunean etzatea, gorputzari gozorotasuna ta olgura
100 emotea. Atseguin da ez barauric eguitea, ez nequeric ta latztasunic igarotea; ondo jan, obeto edan; bazcari onagaiti afaria ez galdutea. Azquenez, atseguin da bere gogoac, bere buruac, bere griñac dirautsen erara bide zabalean ibiltea.

- <312> Baña ezta atseguin, ezpada gacha ta nequezcoa, ceruco bide estu
105 bedarrari jarraitutea; mandamenturic ausi бага beti zucen ibiltea ta bicitea. Gach da miña artz goberneta, jausi бага ibiltea, ceure burua leguez besteac maite izatea, besteac zugaiti deunguero berba eztaguian, gura dozun leguez, zuc bere aec gaiti ondo esatea. Gach da injuria, bidebague bat eguiten deusunari parcatutea; donguero berba eguiten deusunari ez eranzutea; ceure
110 escuan euquiric, ez bengatutea. Gach da, araguiac tentatzen zaituenean, ta era izanic, ez pecatuan jaustea.

Gach da tratuetan, saldu-erosietan beti eguiatz ta zucen ibiltea; besteren ondasuna ceure escuan ceure contura erabilliric, ez oquerric eguitea; errotan

-
- 44-87 *Bide uts eguinac dabilz < Bidea huts eguinac... dabilzta (GGero 481).*
44-88 *celan: aurrean izani] (izanic?), ezabatua; cf. Eta nola çabal baitira (GGero 481).*
44-92 *solasean = GGero 482.*
44-93 *bezperacaz: leh. v-.*
gauzaz: pluralez (ik. § 5.1.1.10); cf. meçaz, bezperaz eta oracinoz conturic eguin gabe (GGero 482).
44-94 *guraria gaistoac: ik. § 5.1.1.1.*
44-96 *ordeaz ordetutea: hitz jokoa Añibarrorena da; cf. ordainez ordain, moneda berean pagatcea (GGero 482).*
44-102 *bere gogoac, bere buruac, bere griñac < bere gogoac eta appetituac (GGero 482); buru-ren erabilera honetaz, ik. § 5.1.2.5.*
44-105 *mandamenturic: leh. mandamentuac, < manamenduric (GGero 482).*
44-106/107 *ceure burua leguez besteac maite izatea: Añibarroren eransketa.*
44-113/114 *errotan urunic, olan autsic ez eransitea < errotan irinic ez lotcea (GGero 483). Añibarrok irinaren metafora agertzen den aurreko pasartean (38-36/37. oh.) egindako eransketa bera egin du hemen.*

115 urunic, olan autsic ez eransitea. Gach da ol edo lur gogorraren ganean, ceure oe biguna largaric, lo eguitea; cilicio edo ulle latzezco nequegarri cerdazco bat araguiaren ondoan erabiltea, odolezco azoteac eroatea. Gach da barau eguitea, jateco ta edate ona dozunean, Jangoicoagaiti ichitea; gauza zalegarri gozoac largatzea. Eta azquenez, gach da ta nequezcoa, munduan egonic, munduan ezpaguegoz leguez bicitea, lurreco ondasun ta gozotasunetan
120 biotza josiric ez euquitea; guizonen esa-mesai ez jaramotea; arerioai parcatutea, perseguillac gaiti oraciño eguitea; gueure burua ucatu, griña gaistoac eci, guztian ta beti Jangoicoaren borondate santua eguitea, bere aguindu santuac gordetea; araguizcoac ezpaguiña leguez angueruen antzera bicitea.

Bide onec gachago badirudi bere, eztago besteric cerura daroanic: au da
125 ceruco bidea, au da an sartuteco atea. Eracusiric, bada, bide bioc, erraz da orain eranzutea lenengoan eguin dogun itaunari: ea cein dan gachago, cerura joatea ala infernura; ceruco bidea ala infernucoa. Bada, esan dogunetic ateretan da arguiro errazago dala, leunago, gustosoago, ceruco bidea, infernucoa baño. Eta infernura doianac pena, neque, crutze andiagoac, latzagoac,
130 gogorragoac igaro bear dituala emen munduan bere infernura joateco, <313> onac, justuac, santuac, jangoicotiac cerura joateco baño.

Urrengo buruetan eracusico da arguiroago, ceago, errazago dala ceruco bidea infernucoa baño; guichiago costetan dala salbetea, condenetea baño; gozoago, arinago, eroanquizunago dala Jesu Cristoren buztarria, deabruarena baño.
135

-
- 44-115 *nequegarri*: ondoan bat, ezabatua; cf. *cilicio bat, cerdazco guerrico bat* (GGero 483).
44-116 *ondoan*: gainean, *contra*-ren orde; cf. *larru arras* (GGero 483).
odolezco azoteac eroatea: Añibaroren eransketa.
44-117 *jateco ta edate ona dozunean < ianhari ona, edari hobea eta appetitu ere duçularic* (GGero 483).
44-119/122 *lurreco ondasun... griña gaistoac eci*: Axularren ondoko perpaus laburraren *amplificatio*-a: *munduaz conturic eguin gabe* (GGero 483).
44-120 *josiric*: aurrean ez, ezabatua.
44-127 *ala*: jat. *alan* (arg. zuz.).
44-127/129 *Bada, esan dogunetic ateretan da arguiro...*: Añibarrok Axularren itzulinguru erretoriko guztiei jarraitzeko pazientziarik aski ez du izan hemen, zeren *argiro atera dena* alderantzizkoa baita, *iduriz* baino ez bada ere: *Ceren iduriz frogatu baitugu asco clarqui, errazago eta placentago dela ifernuco bidea, parabisucoa baino, parabisucoa hain gaitz denaz gueroztic. // Baina guztiarequin ere, aihertcen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuco bidea errazago, plaunago eta placentago dela, ifernucoa baino* (GGero 483-484).
44-132/135 *Urrengo buruetan...*: Añibarrok dioenaren orde, hauxe da Axularren asmoa: *Eta har taracotçat froga deçagun lehenic, erraz dela parabisuco bidea, eta guero frogatuco dugu errazago dela ifernucoa baino* (GGero 484).

45. BURUA

Ceruco bidea ce erraza dan.

1 §.

5 Egui au, ceruco bidea erraza dala, era ascotara ta errazoi ascogaz baieztu lei. Lenengoa da San Juan Evangelisteac diñoana: Jangoicoaren aguin-
duac eta legue santua eztala astuna, eztala gacha, eztala nequezcoa. Espiritu
Santu berac diño: Mandamentu santuac gordeten dituanac eztau gachic icu-
sico; alangoa pocic, atseguñez beteric bicico da. Jesu Cristo eguiac berac
10 diño: Erdue nigana nequeturic, aricaturic, astunduric zagozan guztio; ta nic
arindu, gozotu, nequebagnetuco zaituedaz. Artu eguizue nire buztarria zuen
ganean, ta icasi eizue niganic ta ni nasan leguez umillac izaten, ta idoroco
dozue zuen arimentzat baquea, sosegua, consuelua ta atseguña.

15 Icasbide onec, diño San Hilarioc, berba eguiten dau batez bere legue za-
rreco cirimoniaz cargaturic ta pecatuaren pisuaz astunduric bici cirian mun-
dutarracaz. Onei dirautsé Jesu Cristoc, leguez aldaturic, lengo legue zarra

45-4/5 *baieztu lei* < *froga ahal diteque* (GGero 484).

45-6 *eztala... eztala... eztala: legue santua*-rekin bakarrik komunztatzen dute; cf. *Iaincoaren manamenduac eztira pisu, eta ez gaitz* (GGero 484).

45-7/8 *icusico: aurrean probatu, ezabatua*, < *eztu gaitcic frogatuco* (GGero 484).

45-10 *arindu, gozotu, nequebagnetuco* < *arinduco eta aise ibenico* (GGero 485). Cf. *VB nequebagnetu* (c.) “descansar” (< *HH*).

45-11 *niganic ta ni nasan leguez umillac izaten* < *eneganic ni naicen beçala eme eta humil içaiten* (GGero 485).

45-13 *Icasbide onec... batez bere: Añibarroren* eransketa. Axularrek Hilarioren latina eta euskal glosa zuzenean, aurkezpenik gabe, ematen ditu.
berba: leh. verba.

45-14 *cirimoniaz* < *cirimonez* (GGero 485); ik. § 5.1.1.10.

cirian: aurrean direan, ezabatua; cf. *cargaturic daudecinac* (GGero 485).

45-14/15 *mundutarracaz: nahiz haietaz berba egin, ez haiekin* (ik. § 5.1.1.11).

largaric ta pecatuen carga astuna ichiric, artu daiela beste carga modu bat, buztarri leun arinago bat, bicitza molde errazago bat, legue gozoagoa ta aguindu barri batzuc lengoac baño obeagoac, celan dan Evangelio santua; ta onen moldera biciric, icusico dabela ce gozo, ce arin, ce pocic aurquituco di-
 20 rean; ta gogo onaz ce erraz, ce neque guichiz serbituco daben Jangoico mai-
 tea; ta ce leuna ta arina eguingo jaquen bere legue ta buztarri santua jasotea, ceruco bidean ibiltea, pecaturic igues eguitea, cerua irabaztea.

<314> Jesu Cristoc esan ezquero arina, gozoa ta jasoquizuna dala bere buztarria, bere leguea, alacotzat euqui bear dogu, cerren Jangoicoac ecin
 25 esan lei guzurric. Baña au berau diñoanac berac dirauscu, ceruco bidea es-
 tua ta bedarra dala, gacha ta nequezcoa dala; ta guichi dabiltzela bide one-
 tan. Eta, barriz, infernuraco bidea andi zabal gustoso dala, ta ascoc igaro-
 ten dabela. Batean adirazoten dau erraza ta zabala dala ceruco bidea, ta
 30 bestean gacha ta gogorra dala. Batec esan guraco dau: Celan liteque au? Ce-
 lan erraza ta gacha, estua ta zabala? Orra emen non eracusico deutsudan.

2 §.

Gai oni eranzuteco, jaquin bear da ce, baldin alde batetic Jangoicoaren legue santuari berari beguiratuten badeutsagu, ta ce zucen ta osoro gorde bear dogun; ta bestetic gueure aragui argal erbal jausicorrari, irudico jacu
 35 gach ta latz dala Jangoicoa serbiete, ta onen legue ta aguindu santuac gor-
 detea. Baña gogoratuten badogu Jangoicoaren laguntza, etorquizuneco icha-
 romena, sariaren segurantz, gogo on ta borondate amorezco baten indarra;
 ta, guztien genetic, ontasunean dabillanari Espiritu Santuac emoten deutsan
 indarra, berotasuna, biotz ta gogoa, espiritu ta laguntasunari beguiratuten ba-
 40 deutsagu, idoroco dogu eztala gach, ezpada erraz; ez estua, ezpada zabala;
 ez astuna, ezpada arina ta gozoa dala Jangoicoa serbiete ta aren legue san-
 tua gorde, cumplitu ta betetea.

45-17 *leun*: gainean erantsia; cf. *uztarri leunago bat* (GGero 485).

45-17/18 *bicitza molde... baño obeagoac*: Añibarroren eransketa.

45-18 *celan dan < cein baita* (GGero 485).

45-23 *Jesu Cristoc*: halere, aurreko orrialdearen oinean *Jangoi-* dio; cf. *Iaincoac berac erraiten du* (GGero 485).

jasoquizuna: cf. *placent dela haren uztarria eta carga ere arin* (GGero 485).

45-29 *Batec esan guraco dau*: Añibarroren eransketa.

45-30 *Orra emen non eracusico deutsudan*: Añibarroren eransketa.

45-34 *irudico*: ik. 1-82. oh.

45-36/37 *etorquizuneco icharomena < ethorquiçuneco esperantça* (GGero 486).

45-39 *gogoa*: jat. *goggoa* (arg. zuz.).

45-39/40 *espiritu ta laguntasunari beguiratuten badeutsagu*: Añibarroren eransketa; honegatik ez bide dute datibo markarik aurreko izenek.

Gacha dirudi Jangoicoaganaco bidea ta bere aguindu santuac gordetea. Baña, norentzat dira gach? Barrientzat, oitubagueentzat, naguientzat, na-
 45 saientzat, epelentzat, gogoz ta borondatez abiatuten eztiriantzat, aurrera ta
 guerocora beguiratu bague, etorquizunaz conturic euqui bague, araguiac es-
 catu ta buruac emoten deutsena eguiten dabentzat, Jangoicoaren amoreric
 eztabentzat. Baña ezta gacha, ezta latza, ezta gogorra, ezta nequezcoa ara-
 guiari jaramon bage, errazoiac baliatu ta gobernetan direanentzat, etorqui-
 50 zunari beguiratuten deutsenentzat, gogoz, amorez ta eguiac abiatuten diria-
 nentzat.

<315> Baldin Jesu Cristoren Evangelioa, leguea, buztarria, carga dala
 enzuteaz larritu, laztu, bildurtu, atzeratuten bazara, diño San Juan Crisosto-
 moc, ceure otztasunari, naguitasunari, ceure buruari errua bota eguiozu, ta
 55 ez besteri. Bada, gogoz ta borondate on batez prestaturic abiatuco bacinte-
 quez, ez lichaquezu irudico gach nequezcoa, ezpada gozoa, arina, erraza.
 Bada, San Crisostomo berac diñon leguez, berez gacha, astuna, nequegarria
 dan gauza bat, erraz, arina, gozoa eguiten da gogoz ta pocic artuten danean.
 Mandamentu guztiac dira errazac amorea dabentzat, diño San Agustinec.
 60 Dan gauzaric erracena eguin bedi gogo gaistoz, ta gacha izango da; danic
 gachena eguin bedi gogo onaz, ta erraza izango da.

Onegaiti San Juan Evangelisteac, amorea dabenez ta eztabenaz berba
 eguiten dabela, diño: Amorea dabinari mandamentu guztiac irudituten jacaz
 bat. Baña amudioric ez dabinari mandamentu bat bacarra iruditzen jaco asco
 65 mandamentu. San Agustinec diño amoreac daroala bacocha gura dabene-
 cura, pisuac balanza daroian leguez. Guztia dago gogoan, guztia dago bo-
 rondatean ta amorioan.

Mandamentu guztiac amoriotic ta maitetasunetic asten dira, cumplitzen
 dira, gordeten dira; ta maitetasunera, euren toquir, lecura, azquenera, eche-
 70 ra leguez bildu, batu ta biurtzen dira. Bada, au alan izanic, maitetasuna, ca-
 ridadea daucanentzat erraz izango da mandamentu guztiac gordetea. Amo-

45-43 *Gacha dirudi... bidea ta... gordetea*: bestetan ergatiboa badarabil ere (ik. § 5.1.3.10);
 cf. *Gaitz da Iaincoaganaco bidea, haren manamenduen complitcea* (GGero 487).
 45-44 *oitubagueentzat < usatugabeentzat* (GGero 487).
 45-45 *aurrera ta: ta* gainean erantsia; cf. *aicitinarat behatu gabe* (GGero 487).
 45-46/47 *escatu*: leh. *escatuten*; ik. § 5.2.5.
 45-55/56 *abiatuco bacintequz < abia bacindeci* (GGero 487).
 45-64/65 *asco mandamentu < anhitz manamendu* (GGero 488); ohartu hurrenkerari (ik. §
 5.1.2.7).
 45-68/69 *cumplitzen dira, gordeten dira*: cf., aldiz: *...eta caritatic hasten dira, amorioaz eta*
caritateaz complitcen dira, eta amoriora... (GGero 488); kopian ahantzia ala nahi-
 ta kendua?
 45-70/71 *maitetasuna, caridadea daucanentzat < amorio duenarentzat* (GGero 488-489). *maitetasuna*:
 aurrean amore, ezabatua. *daucanentzat*: ik. § 5.1.1.7.

reac mandamentuai euren garratztasuna gozotuten deutse; mintasuna eztitu ta gozorotu; gachtasuna erraztu, astuntasuna arindu.

75 David erreguea egoan amorez suturic ta, Jangoicoaren mandamentuac errazac irudituric, esan eban: O, Jauna, zure aguinduen bidea ain da bide gozo atseguñez eztitua, ce onetan ibilteaz atseguin gueiago artzen dot, munduco aberastasun, ondasun ta olgura guztietan baño. Ecin esan nei, ce gozotasuna emoten deusten nire aoan ta saman zure mandamentu santuac: eztia baño gozoago eguiten jataz. Amoreac beroturic ta sendoturic eguiten cituezan lenago santuac Jangoicoaren serbicioan aimbeste balentia; igaroten cituezan neque ta penaric gogorrenac, eriotza [ta] <316> martirio latz arrigarriac.

85 Celan ta cegaiti Jacob aita aurren santuari iruditu jacazan laburrac ta dempora guichicoac Raquel ederraz ezcontzeagaiti igaro cituan zazpi urteco neque ta serbicioac? Maite ebalaco, asco gura eutsalaco, amorioz beteric biotza eucalaco. Amudioac aldats guztia goiartu, benzututen ditu. Agaiti santuai erichen entero guichi Jangoicoagaiti eguiten ebén guztia, maite ebélaco. Apostolu santuac nos eta persecuciño, desonra, carcela, neque gueiago euqueen, orduan egoten cirian pozago, contentuago; gozotasunez betetzen 90 cirian, cecusenean euren buruac perseguituric, azotaturic; Jangoicoaren amorez beteric egozalaco; Jaunac berac indartu, sendotuten cituan gogortadeac, nequeric andienac igaroteco.

95 Orregaiti diño San Agustinec: Amorioz ta gogoz dabiltzanen nequeac ezтира nequezcoac: aetan atseguin artzen da. Eiztariac, arraintzalleac, pelotariac, danzariac necatzen dira; baña, orrez guztiaz, neque guzti a solasa, olgura, dibersiño, fiestatzat artuten dabe. Maite dan gauzan, edo ezta nequeric, edo maite da nequea; edo ezta lan latzic edo, baldin bada bere, atan olgura artuten da.

100 Icusico dozu ceimbat neque igaroten dituan ama batec bere ume chiquiaz; ta alambere, umechoa gaissoric, minduric, erreric, negarrez, ernegaturic, gogaituric, ciquinduric dagoanean; ta bere loa, sosegua, jana eragoz-

-
- 45-73 *astuntasuna: aurrean arin] (arindu?)*, ezabatua; azken ataltxo hau Añibaroren eransketa da.
- 45-81 *eriotza [ta]: ta orrialdearen oinean bai, baina hurrengoan ez jarria; cf. heriotce eta martirio (GGero 489).*
- 45-81/82 *arrigarriac: aurrean mira] (miragarriac?)*, ezabatua; jatorrizkoan ez dago izenondorik.
- 45-85/86 *amorioz beteric... benzututen ditu: Añibaroren eransketa.*
- 45-87 *erichen: ondoan jaquen, ezabatua, < iduritzen çaye (GGero 489); erregimenaz, ik. § 5.1.3.11.*
- 45-94 *Eiztariac: jat. Eeiztariac (arg. zuz.).*
- 45-95/96 *olgura: gainean erantsia.*

ten deusanean bere, ari daragoio, zaindu ta contuz darabil gau ta egun. Bai ta onetan atseguin artzen dau; ta seinchoaz, milla eroqueria esaten dituala, jostatu, jolastu, poztuten da. Eta au guztiau maite dabelaco, bere biotzeco
 105 cutuntzat daucalaco. Maitetasun, asco-gura onec aztu eraguiten deutzaz neque guztiac, poztu, gozotu ta ecerzat emon gauzaric gogaicarrienac.

Onela bada, cristiñau fededun bati bere arindu, erraztu, gozotuten deutzaz neque pena guztiac; aztu erazoten deutzaz Jangoicoaren legue santua gordeteco igaro bearco dituan nequeac, berari deutzan maitetasunagaiti. San
 110 Agustinec diño amorioac leundu, eztitu, arinduten dituala gauzaric latzenac, gogorrenac, nequegarrienac. Ezta gauzaric <317> amorearen indarrac bigundu, eci, beraatu, goiartuco eztabenic. Amorante batec, amorez beteric ta itsuturic dagoan batec, nequeric andienac daroaz gogo onez; gau ta egun char asco igaroten ditu bere adisquide maiteagaiti. Guztia eguiten jaco utsa
 115 ta eroanquizuna, amoreac itsuturic daucalaco.

Munduco amudio araguzcoac au eguiten badau, cer eguingo dau Espiritu Santuaren suaz, amoreaz, graciaz ucuturic, beroturic, garturic dagoan arima batec? Ceimbat guichiago sentituco eztitu munduco nequeac; eta ceimbat errazago eroango eztitu Jangoico maitearen serbicioan idoroten dituan aldats gorac, crutzeac, naibagueac ta nequeac? Bada, amudio garbiac,
 120 ceruzcoac, Jangoicoaganic datorrenac indar gueiago dauca ta euqui bear dau, deabruaganic datorren amore nazcagarri, loi, ciquin, quirats atsituac baño. Eta onegaiti, errazoiac diño gure Jesus maiteac, bere Evangelioco buztarria leun erraza dala, ta bere carga edo zamaia arina dala.

125 3 §.

Gogozco gauza gozo, arin, erraz, maitegarria da Jangoicoa serbietea ta bere aguindu santuac gordetea, ez asieran, ez lenengoan, cerren aragui gais-toac, griña charrac, usadio, ecandu ta oitura deungueac contra andia eguiten dabélaco. Baña, atara eguin ezquero, probatu ezquero ta espiritua araguiari

45-106 *ecerzat*: lerro artean banatuta dago, eta goikoan leh. *ecere*-] idatzia zeukan, azken *e* ezabatuta dagoela badirudi ere; cf. *Eta amorioac trabaillu guztiac arintcen, goçatcen, çapporatcen eta ezeztatcen baïterautça* (GGero 491).
 45-121/122 *dauca ta euqui bear dau < behar luque, eta du ere* (GGero 491).
 45-124 *zamaia*: cf. halaber *carga edo zamaia* (45-221) eta *zamai* (53-201), baina *carga edo zama* (42-196). Ez dut beste lekukotasunik idoro: Añibarrok *zama* bera ondo eza-gutzen ez zuela eginik (cf. VB “carga: n. *zama*; c. *carguea*”), baliteke *zamaia*-rekin kutsatuta egotea, agian.
arina dala: honela jarraitzen du Axularrek: *Ceren hala baita, arin eta placent baita, gogotic dagoenarentçat, vorondatez eta amorioz hartcen duenarentçat* (GGero 491).
 45-127/129 *cerren... dabélaco < ceren... baitute* (GGero 492); ik. § 5.2.9.
 45-129 *eguin*: leh. *eguinic*; cf. *behin usatuz guero* (GGero 492).
 45-129/130 *espiritua araguiari jaundu ezquero* = GGero 492.

130 jaundu ezquero, ez da munduan Jangoicoa serbitzea baño gauza gozo zale-
garrigoric. Zapatac, oñetacoac janci barrian estutu ta min eguiten dabe;
baña egun batzuetan erabilli ezquero, moldatu, bigundu, oñaren neurrira da-
toz. Oña sorturic, loac arturic dagoanean ta gorputza gogor, nagui dagoz ibil-
teco ta jaguiteco; baña bein jagui ezquero, pisca bat muguitu ezquero, berta-
135 ti sendotu, indartu, irazarri ta bizcortuten dira. Presona jatun batec, matralla
andituaz, aguinetaco minaz dagoanean, eztau gusturic artzen jaten asten da-
nean, lenengo copauan; baña bein asi ezquero, andic ara jaten dabena ona ta
gozoa idoroten dau.

Berberau jazoten da Jangoicoaren serbicio santuan ibilli gura dabenez:
140 <317bis> lenengoan icusten da nagui, epel, gogor, agor, leor, atzeraturic;
baña, artara eguin ezquero, abiatu, zaletu ta oitu ezquero, berotuten da; go-
goz darraio Jangoicoari, ezta aspertuten, ezta ase betetzen. Beste janariac il-
ten dabe gosea, diño San Gregorioc, baña Jangoicoaren serbicio jateco on
onec gueitu ta biztuten dau. Cerren barrurago obeago ta gozoago idoroten
145 dan.

Munduco atseguñac, diran andienac bere, demporeaz aspertuten dabe;
baña Jangoicoarenac gueroago ta gueiago biztu ta gueituten dabe gustua. Eta
andic ara, ecandutu ezquero, atseguin andia da Jangoicoaren bidean ta se-
rbicioan ibiltea, bere aguintu santuac gordetea, bicitza on bat eguita.

150 4 §.

Bai ta atseguin andia da Jangoicoa serbitzea, emendic datorren probe-
chu, sari, irabazte ta onagaiti, baldin ifinten baditu gogoa ta beguiac ceruan

45-133/134 *Oña sorturic... jaguiteco < Oinac lohacartua dagoanean, eta gorputçac eta [sic, ere-ren orde; cf. Gero 490] çurrundua, manaiu guti dute, iaiquitcera eta ibiltcera herabe dute (GGero 492).*

45-135/136 *Presuna jatun batec, matralla andituaz, aguinetaco minaz dagoanean: Axular, berriz, aspaldi barurik dagoenaz mintzo da: presuna iançaharrac, mathela gogortuac eta horzquitua dagoenac (GGero 492).*

45-137 *copauan < pochinean eta ahamenean (GGero 492).*

45-140 *agor: gainean erantsia.*

45-143 *jateco: leh. jatecoac; cf. ianhari hunec (GGero 493).*

45-146 *diran: ik. 16-46. oh.*

aspertuten dabe: eta eransten du Axularrek: bere batez aitzinago, higuinça emaiten dute (GGero 493). bere batez aitzinago, Añibarrorentzat ez eze, gureztat ere uler- gaitza (cf. Villasanteren itzulpen okerra, 1976: 552; AxH-n ere bere batez "sobre todo"), "pasado un límite" itzuli dute OEH-an (BERE BATEZ AITZINAGO, s.v. bere), Duvoisini jarraituz.

45-152 *ifinten baditu gogoa ta beguiac: inpersoneletik pertsonalera igaro da bat-batean Añi- barro; cf. complice hartaric heldu den probetchuari eta irabaciari behatcen dioe- narentçat, hartan gogoa eta beguiac ibentcen dituenarentçat (GGero 493).*

emongo deutsen sari ugari gozo betean. San Juan Crisostomoc diño, gau-
 zatic gach nequezcoenac eguiten direala erraz, gozo, arinac etorquizuneco
 155 bicitzaren icharomenaz. San Agustinec diño, dan lanic andiena chiquituten
 dala, cargatic astunena arindu, andic etorrigo dan irabaciari beguiraturic.
 Lan bearraren consolagarria dala sariaren esperancea. Gura badozu, diño
 santuac berac, iraun lanean, gogoratu eguiozu oni darraion sari ta irabazte-
 ari.

160 Jatecoaren guisua, diño San Ambrosioc, dala baraua ta gosea. Ceimbat
 gose gosetiago, aibat janaria gozoago, zaleago. Celan gosea dan janari
 guztien salsea, jambidea, guisua; neque guztien consolagarria, zalegarria,
 atseguin emollea ta arintzallea da nequeari datorcan saria ta pagua. Onegai-
 tic ciñoan David erregue santuac: Erabagui neban, Jauna, zure mandamen-
 165 tuac contuz gor[de]tea, emetic elduco jatan sari, on, probechuagaiti. Iñoc
 ecer icharoten eztaben lecuan, nagui dago; oiña astun dauco, gogoia illic;
 baña irabaztearen icharomena dabenac, oñac arin ta bizcor ditu.

Necazariac frutuen esperanza gogo onez igaroten ditu lur lanetaco ne-
 queac, gose-egarriac, otz-beroac, eguraldi charrac. Mercatari batec ondasu-
 170 nac irabazteco deseoz, ichasoz ta leorrez, gau ta egun, iños aspertu baga
 eguiten ditu joan-etorriac, or-emen ibilteac, <318> bide-inguruac. Irabazte-
 aren esperanza onec biztu, abiatu, irazartzen dau mundu guztia. Ta ori ala-
 coz ece, esperanza onegaz eguiten jaquez udac negu, gaubac egun, euria ate-
 rri, minac gozo, nequea atseguin, naibaguea poza, pozcarria, gozotasuna.

45-157 *consolagarria* < *consolamendua* (GGero 494).

45-158 *eguiozu*: leh. *eguizu*; aldaketa beharrezkoa, baina hausnartu gabe egina, antza denez,
 hobe baitzukeen datiboa ezabatu izan balu, noski; cf. *pensa eçaçu pagamenduan eta*
irabacian (GGero 494). Bestalde, Añibarrok ez du itzuli Axularren hurrengo esal-
 dia: *Den eguitecoric gaitzenari ere, gogotic lotcen çatçaitça, ongui pagatua içanen*
çarela segur çarenean (*ibid.*).

45-160 *Jatecoaren guisua* < *Ianhariaren iaquia* (GGero 494), eta latinez *Condimentum cibi*.

45-160/161 *Ceimbat gose gosetiago*: hitz jokoia Añibarrorena da, < *Cenbatenaz gosea handiago*
 (GGero 494).

45-162 *salsea, jambidea, guisua* < *saltsa eta iaquia* (GGero 494).

45-162/163 *consolagarria, zalegarria, atseguin emollea ta arintzallea* < *consolagarria, çappora-*
garria eta arintcarria (GGero 494).

45-165 *elduco jatan* < *heldu ceitan* ‘zetorkidan’ (GGero 494); cf. § 5.3.4.

45-167 *baña irabaztearen icharomena... bizcor ditu*: Axularren erretrauaren orde: *baina ira-*
baciac oinac arin (GGero 494).

45-168 *Necazariac* < *Laborariac* (GGero 494); ik. § 5.3.4.

45-171 *bide-inguruac*: cf. *hanbat bide, itçul inguru eta ioan-ethorri* (GGero 495).

45-172 *esperanza onec*: leh. *esperanzac*, < *esperantça hunec* (GGero 495).

45-173 *eguiten jaquez*: Axularrek denok ere sartzen gaitu honetan: *iduritcen baitçaiçquigu*
 (GGero 495).

udac negu: gainerako bikoteetan txarra onaren aurretik dator; izan ere, *neguac uda*
 (GGero 495) dio Axularrek.

175 Bada, baldin mundu onetaco irabaci labur uts baten esperanceac, ta ascotan engañaturic ichiten gaituenac, ain gogoz, ain arinduric, ain gozoro bear eraguiten badeuscu, cer eguin bear eztoгу ceruco esperanza, uste, sari ta etorquizunagaiti? Irabazte guztien ganeco irabaciagaiti? Au gogoratuten dabenari irudituten jaco erraza ta gozo[a] oraciñoan egotea, arerioari parca-
180 tutea, araguiaren nai-gura gaistoac ichitea, barau eguitea, sarri confesetea, ceruco gaucetara emotea. Cerren daucan esperanza, oraingo neque laburrac gaiti emongo deutsela ceruco gloria, betico saria.

Agaiti diño San Agustinec: Gogoratuten badozu ce sari andia, ce zorio-
nezco ondasunac emongo deutsuezan oraingo neque guichiac gaiti, esango
185 dozu ez dozula orrembeste mereci ain guichigaiti.

5 §.

Bai ta idoroco dogu erraz ta arin Jangoicoaren legue santua, gogoratuten badogu legueco buztarri au bien artean jasoten dogula: Jangoicoaren laguntzaz gueuc. Onegaiti cirautsen Jesu Cristoc bere icasleai Gesemanico ortuan:
190 Sufritu eguizue orain emen pusca bat, ichozue apur bat, zagoce pisca baten irazarriric oraciñoan nigaz batera, nire laguntzan. San Pablo Apostoluac ciñoan: Nic besteac baño bear gueiago eguin dot, baña ez neuc bacarric, ezpada Jangoicoaren gracia lagunduric; ez da gauzaric nire lagun on onegaz eguin ez neiquenic.

195 Consuelu andia da gueure lan, bear, estura, premiñetan lagun on bat euquitea. Consolatu ta poztu gaitезan, bada, icusiric guztian lagunduten deuscula Jesu Cristo gueure laguntzalle maiteac. Eguiteco on baten zabiltzanean, etzagoz iños bere bacarric; zugaz dago Jangoicoa; <319> lagundu, zucendu, guidatuten zaitu. Ta onegaiti da erraza ta arina Jangoicoaren legue santua:
200 berac parteric gueiena, astunena jaso ta daroalaco.

45-185 *ain guichigaiti*: eta jarraitzen du Axularrek: *Ceren travaillua baita ttipi, labur eta temporal, eta pagamendua handi, luce eta seculaco. // Considera deçagun, beraz, pagamendua, eta edirenen dugu erraz laincoaren legue saindua* (GGero 496).

45-188/189 *Jancoicoaren laguntzaz gueuc*: Añibarroren eransketa. Bestetan bezala, Axularren ideiarri aurea hartu dio (ik. § 5.4.3), berak orain hauxe bakarrik azaltzen du eta: *Ceren legue haur uztarri baita, eta uztarria, biac iasaiten eta eramaiten baitute* (GGero 496), edozein uztarri, alegia.

45-189 *Gesemanico ortuan*: Añibarroren eransketa, irakurlea kokatu nahiz, beti bezala (ik. § 5.4.2).

45-191 *nigaz batera, nire laguntzan*: hau da ideia nagusia Axularrenean, hartu duen hariari dagokion bezala: *çaudete appur bat iratçarriric; eta ez ceroc, ez, baina mecum, enequin, ni laguntcen natçaitçuela* (GGero 496).

Jangoicoaren mandamentuac dira idien adarrac leguez; barcuaren erre-
mu edo arraunac leguez; ontziaren bela[c] ta egaztien egoac leguez. Adarrac
carga dira; baña idiac carga onegaz carga gueiago daroe. Dirudi cargueac
205 carga eroaten laguntzen deutseela. Erremuac ta belac carga dira; baña eura-
caz batera, arinago ta lasterrago doa ontzia. Egaztien egoac bere badabe pi-
suren bat; baña pisu onec eztau astunduten carguea, ezpada arindu ta goratu.
Bada, San Agustinec diñoalez, egaztiac darabilz lurrean bere egoac, ta euroc
jasoten dabe aidean egaztia bera: daroaz egoac ta egoac daroe gora. Esan lei,
210 on baño calte gueiago eguingo gueu[n]squiola egazti bati, erruquituric bere ga-
nean daroian egoa cargueaz, quenduco bagueunsquioz egoac. Cerren aidean
egaz pocic ebillana, lurrean bacarric ibilli bearco leuque.

Beraz, carga badira bere, on dira adarrac, belac, erremuac, egoac ta bai
Jangoicoaren legue santuaren buztarria bere. Bada, buztarri au carga izan
arren, onegaz batera obeto, errazago, arinago igaroten dira munduco neque-
215 ac, atsecaba ta naibagueac. Jangoico legue emolleac lagunduten deuscu le-
guea gordeten; ta onetaraco buztertu leguez eguiten da gugaz batera.

Au ezaguturic cirautsan San Agustinec Jangoicoari berba labur baña
ederracaz: *Jauna, emoizu aguinduten dozuna, ta guero aguindu eguizu gura*
dozuna. Ezta antsi carga izatea, indar andia ta lagun ona danean. Jangoico
220 berac lagunduten badeutsu jasoten, esan ciñei erraza, leuna dala bere buzta-
rria, ta arina bere carga edo zamaia.

-
- 45-201 *idien adarrac* < *idien orgac* (GGero 497), nahiz eta *burdiaren* (41-167, < *orgaren edo gurdiaren*) izan lehenago. Halaz ere, pentsatu behar dugu ez dela itzulpen okerrik hemen, egokitapena baizik: baserriko bizitzaz kaletar honek baino anitzez gehiago dakienak azaldu didan bezala, zenbat eta adar hobeak izan, estimatuagoa da idia, adar puntaraino zama baitaiteke, adarra falta duen idia gutxiesten den bitartean.
- 45-202 *bela[c]*: singularrean ez gramatikak, ez logikak kalterik hartzen ez badute ere. Axularrek pluralean dakar (GGero 497), bai eta Añibarrok berak ere ondoko aipamen guztietan.
- 45-209 *gueu[n]squiola*: cf. *bagueunsquioz* (45-210), eta *gueunsquio* (54-113, 56-19), eta batez ere egilearen *baceusquio* < *baceunsquio* zuzenketa (16-118. oh.).
- 45-210 *egoa cargueaz*: ez dakit *ego cargueaz* (elkartua) ala *egoaz cargueaz* (bata bestearen azalpena) zuzendu behar den. Axularrek bestelatsu dio: *Hegaztina haur trabatcen eta cargatcen dute bere hegalec, eta urricalduric, edequi baciniatço...* (GGero 497).
- 45-211 *bearco*: gainean erantsia; cf. *lurrean gueldi bailliteque* (GGero 497).
- 45-215 *Jangoico legue emolleac* < *Iaincoa bera, leguearen emaillea* (GGero 498).
- 45-216 *buztertu leguez eguiten da* < *uztartcen beçala baita* (GGero 498); ik. § 5.2.11.
- 45-219 *izatea*: ondoan *baldin*, ezabatua; cf. *Ceren indarra franco denean, eta laguna ere ona, ezta cargagatic antsia* (GGero 498).
- 45-221 *zamaia*: ik. 45-124. oh.

6 §.

Gure legue santu ta aguinuaren carguea, ez bacarric da arina, baita arin-
 225 garria. Alde bateric cargatzen, astunduten bagaitu, bestetic arindu ta atera-
 tzen gaitu beste carga, premiña, pisu ascoren azpitic. Teologuac itanduten
 dabe, ea guc gueure pecatuac gaiti Jangoicoari satisfaci[ño]ric, quitugarriric,
 ordearic emon guiñeiquion. Dirudi ezetz. Bada, <320> Santo Tomasec diño
 satisfaciñoa, lema, ordetasuna edo quitu-saria dala, bestela zor eztoguzan
 obracaz, gueure escu ta naian doguzanacaz, gura badoguz baño eguitera be-
 230 arturic ez gagozanacaz, zor doguna pagatu, quitutu, ordetutea. Bada orrela,
 dirudi ecin e[guin] guiñeiquiola Jangoicoari quitutasunic, paguric. Cerren
 dan Jangoicoa guztien ganeco onguillea, emollea, eguillea, jabea; ta dogun
 guztia bere ontasun prestuari zor deutsegun; aganic dogu guztia, berac emo-
 na da. Ta au alan izanic, esan lei ez jacula ecer gueure escuan guelditzen, ez-
 235 togula eguite libreric berac aguinuric eztanic; ceini teologuac deituten deu-
 tse obra gurez ganecoac, borondatezcoac, gura badoguz baño eguitera
 premiñaturic ez gagozanac. Nolabait dirudi ez dala onelaco obraric; eta bal-
 din ezpada, seguru da ecin quitutu guiñeiola Jangoicoari zor deutseguna.

Baña, orrez guztiaz, eranzun ta eracusten dabe teologuac, alde guztietara
 240 zordunac bagara bere Jangoicoari, orrez guztiaz, obra asco direala gueure
 nai-gura libre borondatezcoan dagozanac, gura bagodu baño eguitera bear-
 turic ez gagozanac; celan direan baricu guztietan barau eguitea, astegunetan

-
- 45-223/224 *ez bacarric da arina, baita aringarria* < arin da, eta are arintcarri da (GGero 498);
 ik. § 5.3.4.
- 45-226 *satisfaci[ño]ric*: hainbatetan bezala, hutsunea lerrotik lerrorako igarobidean gertatu
 da.
- 45-227 *ordearic*: gainerakoetan, *ordea* ‘ordena’ (cf. 0-11, 13-152 edo 44-85) eta *orde* ‘ordai-
 na’ (cf. *orde quitua* 27-93, *ordetzat* 54-132) ongi bereizi ohi ditu, hemen ez bezala
 (cf. § 5.1.1.1).
guiñeiquion: aurrean *al*, ezabatua; cf. *eguin ahal diaçaiogunz* (GGero 499).
- 45-228 *lema*: cf. VB (b.) “satisfacción” (ik. OEH, s.v. 2 *lema*).
- 45-229 *eguitera*: leh. *eguiten doguzanacaz*-edo; cf. *nahi badugu baicen eguitera obligatu ez-
 carenez* (GGero 499). Esaldi luze zail honetan hertsiki lotu zaio Axularri.
- 45-230 *quitutu*: aurrean *bi*] (*biurtu*?), ezabatua; cf. *pagatcea eta bihurtcea* (GGero 499).
- 45-231 *e[guin] guiñeiquiola*: jat. *eguiñeiquiola* (arg. zuz.); cf. *ecin eguin diaçaiogu* (GGero
 499) eta *goraxeago guiñeiquion* (45-227).
- 45-236 *obra gurez ganecoac, borondatezcoac* < opera super erogationis, *obra emendailluz-
 coac, emanen gainecoac, gure escuco direnac, libreach* (GGero 499). *gurez ganeco-
 ac*: ez da erraza azaltzen; baliteke *gura* ‘nahia’ izatea, baina egiantzekoago deritzat
bereganezko eta aldaeren egokitzapena izateari (cf. 8-121/122. oh.).
- 45-239/240 *alde guztietara* < *alde guztiz* (GGero 499); ik. § 5.3.3.
orrez guztiaz... orrez guztiaz: halaxe Axularrenean ere: *guztiarequin ere... guztiare-
 quin ere* (GGero 499).
- 45-240 *zordunac bagara bere Jangoicoari*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5), < *çordun ba-
 gaçaitça ere gueure laungoicoari* (GGero 499).

meza enzutea, gauberdiraño oraciñoan egotea, lur edo ol baten ganean lo eguitea, gorputzean cilicio, latztasun edo nequegarri bat erabiltea. Gauzoc
 245 eguitera ezcagoz premiñaturic, borondatezcoac dira, g[u]eure auqueran ta escuan dagoz. Bada, Jangoicoari zordun bagara bere, ta gue[u]re aleguin, indar ta gogo guztiaz serbidu bear badogu bere, baña Jangoicoaren ontasuna ta prestutasuna da ain andia, ce contentu dago guc bere mandamentu santu guztiac gordeteaz, guc pecaturic ez eguiteaz; ta ganeco eguiteac gueure escu ta
 250 borondatean larguetan ditu. Eta alan, mandamentuen neurria ifinteaz ta señaletzeaz guichitu ta laburtu euscuzan mandamentuac ta carguea arindu euscun. Cegaiti ce, mandamentu señaletuac ta neurtuac ifini ezpaleuscuz, gauza guztiac izango cirian mandamentu.

<321> Onetan, bada, da aguiari, errazoiac esan ebala Jesu Cristoc: Ene
 255 buztarria leuna ta erraza da, ta nire carguea arina, eroanquizuna ta jasogarria. Alan da eguiaz; ta carga izanic, da beste carga astunen aringarria, guichigarria. Emeti atera lei, ceruco bidea zucen artez dabilla[na]rentzat dala leuna, gozoa, erraza, neque guichicoa, atsegunez betea.

45-243/244 *lur edo ol... erabiltea*: Añibarroren eransketa.
 45-246 *Jangoicoari zordun bagara bere* < *Iaincoari... çordun bagatçaitça ere* (GGero 500); datiborik ez, berriz (ik. 45-240. oh.).
 45-252/253 *gauza guztiac*: *aurrean guztiac*, ezabatua, < *guztiac* (GGero 500).
 45-256/257 *aringarria, guichigarria* < *arintgarri eta gutigarri* (GGero 500).
 45-257 *Emeti*: leh. *Emetic*.

46. BURUA

Ceruco bidea errazago da infernucoa baño.

1 §.

5 Onen aurreco buruan esan danaz aguiari da Jangoicoaren legue santuaren
carguea arina dala, ta jasoteco erraza. Baña carguea da, ta carga izanic segu-
rubere nequeren batzuc euquico ditu; eta, barriz, infernuco bidean dabiltze-
nac idoroco ditue atseguinac, gozorotasunac. Orain, bada, dacusgun ea cei-
nec daben gozo, poz, atseguin edo neque pena, naibague gueiago, ceruco
10 bidean dabillanac ala infernucoan. Baña, duda baga, infernuco bideari da-
rraionac neque gueiago, carga astunago darabil. Eta orrembeste ce, carga as-
tun au ecin jasoric, ciñoan David profeta santuac: Ene pecatuac igaro, erdi-
bitu ta mindu dabe nire burua; ta carga astun batec leguez zapaldu, beeratu,
azpitu nabe guztiau.

15 Onegaiti dirautse Jangoicoac carga onegaz astunduric, aricaturic, gogai-
turic dabiltzenai: Erdue nigana nequepeturic, astunduric zagozan guztioac, ta
nic arinduco zaituedaz; nic, carga astun ori quenduric, beste arinago bat
emongo deusuet. Onetan esan gura dau, San Agustinen ustez: Quenduco
deusuet carguea; baña etzaituet carga baga ichico. Quenduco deusuet car-
ga gaistoa, ta emon ona; quenduco deusuet munducoa, ta emon cerucoa.

46-8 *gozo, poz, atseguin edo neque pena, naibague gueiago: edo zein eta irakur daiteke es-
kuizkribuan, ziurrenik aurretiaz ta jarri eta gero edo zuzendu zuelako; cf. ceinec
duen atseguin eta placer, edo travaillu guehiago (GGero 501).*

46-8/9 *ceruco bidean dabillanac ala infernucoan < parabisuco bidean ala ifernucoan dabi-
llanac (GGero 501).*

46-12 *nire burua < ene burua (GGero 501).*

46-17 *Onetan esan gura dau, San Agustinen ustez: Añibarroren eransketa; Axularrek zuzen-
nean ematen du latinezko aipua, eta saindua ertzean bakarrik aipatzen (GGero 502).*

46-19 *quenduco deusuet munducoa...: bukaerarainokoa Añibarroren eransketa da.*

20 Birtuteac, Jangoicoa serbieteac baucaz bere neque ta aldats gorac; ta bai
 pecatuac bere bere atseguñac, gustuac, contenuac. Baña, alambere, birtute-
 aren neque penac gozoagoac dira, pecatuaren atseguñac baño. Alan diño
 San Agustin berac: Gozoago, eztitsuago dira, diño, oraciñoan izan oi direan
 negarrac, comedian, dantzetan, solasetan, <322> munduco olgura atsegui-
 25 nezcoetan dabilzananen barreac baño. Icusico dozu persona deboto bat oquelu
 ezcutu batean negarrez ta cizpuruca oraciñoan dagoala. Bai ta icusico
 dozu oraciñoric, debociñoric, gauza onetaraco gogo apur bat eztaucan bat,
 beti jente artean, barriquetan, jocoan, dantzan, olguretan dabillan bat. Bada,
 orain zuri erechico jatzu ezetz; baña bere issilian ta ezcutuan oraciñoan da-
 30 goana beroago, pozago, contenuago dago bere barruan, munduco atsegui-
 ñetan dabillana baño. Jangoicoac bere graciaz ta mesedez gozotu, eztituten
 ditu debociñoan dagoanaren negarrac; ta persona berac bere asmetan ditu
 gozotasun ceruzcoac negarren ondoan. Dolorez dago, ta doloreac emoten
 deutso atseguña, diño San Agustinec.

35 Dacusunean arima bat negarrez urtuten bere pecatuen damu eguiazcoaz,
 usteco dozu triste jausia dagoala; baña ezta alan; bada pocic dago, poz arren
 poz negar eguiten dau. Eztira, ez, negar guztiac doloretic datozan[ac]; badi-
 ra gozotasunetic jaioten direanac bere, diño San Ambrosioc. Arima deboto-
 en cizpuruac oraciñoan ta penitenciazco nequeetaco negarrac, pozetic, atse-
 40 guinetic etorri dira. Onetarico negarrac dira larrosa lorac aranza artean. Egur

-
- 46-23 *Gozoago, eztitsuago dira <Eztiago eta goçoago dira (GGero 502); ezti izenondoa gozo-z
 itzuli du orain artean (cf. 1-252, 7-41/42 eta 8-112. oh., adib.), OEH-ak hartaz dioe-
 narekin (alegia, Mendebalean, eta guztiz bizkaieraz, gutxi erabilia dela) bat etorriaz.*
- 46-23/25 *izan oi direan negarrac... dabilzananen barreac baño < daudecinen nigarrac... da-
 biltzanen irriac baino (GGero 502). Dagoen bezala ezinezkoa ez bada ere, baliteke
 direanen zuzendu behar izatea, beraz.*
- 46-25/26 *oquelu ezcutu batean < çocco batean (GGero 502); cf. VB oquelua (b.), zocoa (g. n.)
 “rincón”.*
- 46-27 *oraciñoric, debociñoric, gauza onetaraco gogo apur bat eztaucan bat < oracinoz eta
 debocinoz conturic eguiten eztuen bat (GGero 502).*
- 46-28 *jente: <ç>-z, ohi ez bezala.
 dabillan bat: debotoarekiko paralelismoa joskeran gordetzeko, hemen dabillala be-
 harko luke, Axularrek dakarren bezala (GGero 502).*
- 46-29 *zuri erechico jatzu < çuri idurituco çaitçu (GGero 502); ik. § 5.1.3.11.
 issilian: ik. 15-17. oh.*
- 46-37 *datozan[ac]: zuzenketa beharrezkoa dela agerian dago, baina ez nahitaez egin dugu-
 na, errazena bada ere: cf. Eztira, ez, nigar guztiac doloretic heldu (GGero 503),
 hots, ‘ez datoz’. Gogora ditzagun heldu-rekin dituen arazoak (§ 5.3.4).*
- 46-38/39 *Arima debotoen... nequeetaco negarrac: gaizki lotu ditu jatorrizko bi osagaiak: Presuna
 iustuen hatsbeherapenac, oracinotan eta penitencietan daudenen nigarrac (GGero 503).*
- 46-40 *etorri dira < heldu dira ‘datoz’ (GGero 503); ik. § 5.3.4.*

45 eceac eguiten dau negar ta eguiten dau garra; sua dachaca ta ura dario. One-
la, presona on garbi deboto jangoicoti batec nasturic ta batera euqiten ditu
negarra ta barrea, nequea ta atseguña, tristura ta poza; campoan triste, ba-
rruan poz; eta barruco pozac goituten dau campoco tristetasuna. Cerren tris-
tura á bere naiaz ta borondatez, bere oneraco artuten dau; ta aren ondoren
icharoten dau pozcaria.

50 Alacoagaiti diño Elessa santeac, nequean descansua, beroan frescura,
negarrean atseguña emoten dabela Espiritu Santuac. Alangoagaitic diño
David santuac, bere escuetaco nequeac jango dituala. Lan bear bat eguiten
dabenac andic jatorcan irabacia jaten dau, ta ez lana bera. Ta onegaiti diño
Davidec, arima justuac bere escuetaco nequea, bearra ta lana jaten dabela.
Errazoiac diño ori; bada, justu men batec neque atan, janari gozo bat jatean
leguez, artzen dau atseguña ta gustua.

55 Cristiñau on batec jaten ditu mundu onetan bere nequeac, <323> lan, be-
arrac; ta beste munduan oneec dacarren irabacia, saria, frutua. Cergaiti ce,
neque aetan, barau eguitean, oraciñoan egotean, negar eguitean, eperra jate-
an baño gozotasun andiagoa artzen dau. Davidec ciñoan: Nire gaubeco ta
egunezco oguia, negarrac izan dira. Oguiz ase betetzean baño, atseguin
gueiago artuten neban negar eguitean.

60 San Agustinec diño: Pecatari gaistoac munduco andiquerietan, arrotasun-
ean, apaindura banerizcoetan, ondasunetan artzen dabe atseguña; baño
Jangoicoaren serbitzari onac carceletan, presondeguietan, nequeetan, gache-
etan. Ta santuac gozotasun ta poz gueiago ta beteago artzen dabe Jangoico-
agaiti igaroten dituezan neque, crutze, minetan, gaistoac lurreco gozorota-
65 sunetan baño. Bada, San Agustinen esatez, andiagoa da arimaren
consolamentua, gorputzarena baño; barrucoa, campocoa baño; adimentu ta
gogoarena, sabelarena baño.

-
- 46-41 *eguiten dau negar ta eguiten dau garra*: jatorrizko hitz jokoa galdu da: *eguiten du gar, eta eguiten du nigar* (GGero 503).
sua dachaca ta ura dario < *sua datcheca eta ura dario* (GGero 503).
- 46-48 *emoten dabela Espiritu Santuac*: Añibarroren eransketa.
- 46-49 *escuetaco nequeac* < *escuen trabailluac* (GGero 504); ik. § 5.1.1.8.
- 46-50 *andic*: *aurrean bere*, ezabatua; cf. *Trabaillatcen denac, bere trabailluaz içaiten duen irabacia iaten ohi du* (GGero 504).
- 46-50/51 *Ta onegaiti diño Davidec* < *Eta halabaiña erraiten du Errege Davitec* (GGero 504), hots, arraroa badirudi ere, hala dio Dabidek, eta oraintxe emango digu Axularrek haren esanaren arrazoia.
- 46-52 *men*: gainean erantsia; cf. *Ceren iustuac* (GGero 504).
- 46-56/57 *eperra jatean* < *epperqui iatean* (GGero 504).
- 46-57/58 *gaubeco ta egunezco* < *gauazco eta egunazco* (GGero 504).
- 46-61 *banerizcoetan*: ik. § 5.1.1.1.
- 46-62/63 *gacheetan*: baliteke Añibarroren irakurketa txarra izatea: cf. *gartcelean, trabailluetan eta gathean* (GGero 504), non *gathean gachean* irakur zezakeen. *-etan*-ez ik. § 4.2.4.

2 §.

70 Celan gaistoac, munduco atseguintasunetan, dancetan, amorentasunean, jan-edanean ta beste pozcarietan dabiltzenac, eztaben icusten barauaren, oraciñoaren, birtutearen barruco mamiña, campoco azala baño, eztabe probatuten penitenciazco gauceetan estalduric, barruturic, gorderic, ezcutaturic dagoan atseguña, ona ta gozarotasuna.

75 Desonesquerian itsuturic dabillanac eztau uste bicio onetara emon бага bici al leitequela. Eta badirauntsazu asco direala pecatu oni ezarraioenac, eztau sinistu gura. Jocolari batec, biraoguille, aucilari, edale, dantzalari ta beste onetarioac uste dabe, aetan dala atseguin guztia. Eta birtuteac, santutasunac, Jangoicoa serbitzeac, mandamentuac gordeteac ez dabela bapere gusturic, ezpada naibaguea, tristura, atsecabea. Baña engañetan dira: eztaque cer diñoen. Eztabe eguño probatu, eztabe iños Jangoicoa serbitu; ta onegaiti diño gach dala ori eguitea, bicitza garbi on bati jarraitutea. Probatu eztaben janaria gorro[ta]tuten dabe; ez dazauen gauza despreciaten dabe. Gach da itsu batec colorearen barria euquitea; gorria bada, zuria, baltza, narra bada erabaguitea.

85 Santu guztiac esan, eracusi ta escribitu dabe, Jangoicoaren buztarri santua arina dala, aren leguea erraza dala. Beraz, <324> onei, probatu ebenai leguez sinistu bear deutsegu, ta ez onen barriric, pruebaric equi bague, deunguero berba eguiten dabena. Jangoicoaren legue santua contuz gorde daben guztiac diño ez milla alabanza leguearen fabore.

46-72 *gauceetan*: ik. § 4.2.4.

gorderic: gainean erantsia.

46-73 *gozarotasuna* < *goçatassuna* (GGero 505) < *goçotassuna* (Gero 503); cf. 12-209 ere, sarriago *gozorotasun* (44-99, 46-7, 46-64/65, 46-160, etab.) erabili arren. Bestalde, honen ondoren Axularrek dakarren azalpen luzea Añibarrok alde batera utzi du, gaiztoen gogoetak ez barraiatu nahiz, dirudienez (GGero 505-506; ik. ezabatutako pasarte § 3.3).

46-75/76 *eztau sinistu gura*: Axularrek hauxe dio: *eztu sinhesten* (GGero 506), eta jarraitzen du: *Ceren ezpaita bera egoiten*.

46-76 *Jocolari* < *Iocari* (GGero 506).

edale: gainean erantsia; badator Axularren zerrendan, baina ez *aucilari*.

dantzalari < *dantçari* (GGero 506).

46-77 *aetan*: zertan? bada, *bicio hetan* (GGero 506).

46-82 *gorro[ta]tuten*: lerrotik lerrorako igarobidean ahantzia, agian; ik. 20-116. oh.

despreciaten: ik. § 4.3.9.

46-83/84 *bada... bada*: *ba*- zehar-galderan (ik. § 4.4.7); cf. *gorri ala more den eçagutcea, hartan sententia emaita* (GGero 506).

46-86 *ebenai*: ez da ondo ikusten *ebanai* ala *ebenai* jartzen duen.

46-89 *leguearen fabore*: Añibarroren esapidea; cf. *Eztu egundaino nehorc iaincoaren legue saindua escuztatu eta frogatu, non ezpaitu milla ontasun eta laudorio legue hartçaz erran eta contatu* (GGero 506).

90 Deabruac emoten deutseez bere serbitzari gaistoai atseguin ta contentu-
ren batzuc. Cer, bada, Jangoicoa izango [da] ain gogorra, escasa, laburra,
prestueza, bere serbitzari maiteai gozotasun, atseguintasun, olgurazco poz-
cariren bat ucatuco deutseena? Deabru madaricatuac bere adisquide zori-
95 gaistocoai baño, atseguin andiangoac, beteangoac emongo ez al deutzaz Jan-
goicoac bere adisquide fiel maiteari?

Eta eztot orain berba eguiten beste munducoaz: angoaz ez da dudaric.
Bada, an gaistoac izango dira seculaco penatuac, castigatuac, minduac;
onac, barriz, betico zorionduac, sarituac, gloriatuac. Bacarric diñot orain
100 mundu onetacoaz; eta diñot, mundu onetan bere onac atseguin gozoangoac,
ugariangoac dituela, gaistoac baño, deabrua ta pecatua serbietan dabenac
baño.

Eguiau emon eutseen adirazotera Jangoicoac Malaquias profetaren aotic
gente batzuei, cirautseela: Biurtu zaitece nigana, bide onean ifini zaitece, ta
icusico dozue ce diferencia andia dagoan onaren ta gaistoaren artean; Jan-
105 goicoa serbitzen dabenaren ta deabrua serbietan dabenaren artean. Esan ba-
leu leguez: Beste mundura igaro baño len, ango sari ona artu baño len, orain
emen mundu onetan onduten zarean ordu berean ezagutuco dozue onaren ta
gaistoaren diferencia; bataren poza ta bestearan tristura; bataren baquea ta
bestearan guerrea; bataren atseguña, consuelua, contentua ta gozotasuna; ta
110 bestearan naibaguea, atsecabea, biotz-jausia, gogaitasuna; bataren amorea,
gustua, biotz zabala, ta bestearan atzerapena, ernegua ta baquebaguetasuna.
Bai ta ezagutuco dozue gaistoac baño zorion, poz ta atseguintasun gueiango
dabela onac munduan bertan.

-
- 46-93 *ucatuco deutseena*: Axularren egitura bestelakoa da: *non utcico baititu...* (GGero 507). Bide batez, honen jarraian galdera hauek egiten ditu: *Cein parte estimatcen duçu hobe, Iaincoarena ala Deabruarena? Baldinba Iaincoarena?* (*ibid.*); Añibarrrok itzuli ez, eta erantzuna bere aldetik galdera bihurtu du (46-93/95): *Beraz, Iaincoaren atseguinac eta placerac ere hobeangoac eta handiangoac içanen dira Deabruarenac baino* (*ibid.*).
- 46-98/99 *Bacarric diñot orain mundu onetacoaz* < *Baina mintço naiz mundu hunetacoaz* (GGero 507).
- 46-102 *adirazotera*: leh. *adiratutera*; cf. *eman cerauen aditcera* (GGero 507); ik. halaber 10-32/33. oh.
- 46-103 *gente batzuei* < *hartçaz arrencuratcen ciren iende batçuey* (GGero 507).
- 46-107 *zarean*: zuek (ik. 8-237. oh.).
- 46-107/108 *onaren ta gaistoaren diferencia* < *onaren eta gaixtoaren arteco differentcia* (GGero 508). Dagoen bezala ezinezkoa ez bada ere, agian *arteco* kopian galdu egin zen.
- 46-108 *poza*: ondoan *atseguña*, ezabatua; behingoz paralelismoaren alde egin duela badirudi ere (ik. § 5.5.1), ohar bedi berehala (46-109) *atseguña* erabili behar duela. Axularrek hartaratuta: *bataren atseguina, eta bertcearen atsecabea* (GGero 508), eta han ez dela batere lotsatu.
- 46-112 *zorion*: leh. *zorionecoangoac*; cf. *nola diren onac, are mundu hunetan ere, gaixtoec uste duten baino aiseago eta bere gogarago* (GGero 508).

Egun baten itandu eutsen Apostoluac Jesu Cristori: Jauna, guc ichi ta lar-
 115 ga ditugu gauza guztiac zure amoreagaiti, ta jarraitu deutsugu; cer emongo
 deuscuzu, ce sari izango da gurea, onembestegaiti? <325> Eranzun eutsan
 Jesus maiteac: Eguiaz dirautsuet, segurutzen zaituet, nigaiti ichiten dituanac
 bere echea, bere anajea, arrebea, aita ta ama, artuco dituala emen munduan,
 120 larga dituan gauzac gaiti eun bider gueiago; ta guero beste munduan betico
 bicitzea ta gloria. Aramen celan aitetuten daben mundu onetaco saria ta etor-
 quizunecoa; eta celan, batatz ta besteaz diferencia eguinic, esaten daben Jan-
 goicoac bere amore, bere Evangelioagaiti cerbait ichiten dabenari, emongo
 deutsalala mundu onetan bertan bere eun bider gueiago, ta guero ceruan secu-
 laco gloria. Emen da aguiari, mundu onetan bere Jangoicoaren serbitzariac
 125 daucala saria, aloguera, pagua, atseguina ta zoriona.

3 §.

Batec jaquin guraco dau, ea au celan jazo litequean. Bada, ezta cuscu
 Jangoicoac emen mundu onetan onai, justuai, santuai orrelaco gauza andiric
 emoten deutseela; ez eta carguric, onraric, andiqueriaric, aberastasunic ta
 130 ondasun ugariric. Eta ascotan contrara, dacusguz onac gaistoac baño pobre-
 ago, beartsuago, preminaz, minez, gaisotasunez beteric. Celan, bada, aditu-
 co da emongo jaqueela mundu onetan bere, larga dabeena baño eun bider
 gueiago? Ezta gach eranzutea. Adietan da Jangoicoac onai emoten deutsee-
 zala alaco doeac, graciac, mesedeac, ondasunac ta aberastasun espiritual ari-
 135 mazcoac ece, euroc dira munduco atseguin gorputzezco guztiac alcar batera
 baturic baño andiagoac, eguiacoagoac, balio gueiacoacoac.

Jangoicoaren esquer, mesede, atseguin ta gozotasunac arima barrucoac
 dira. Eta barruco atseguinac preciatuagoac, estimagarriagoac, beteagoac
 dira, campotic gorputzac dituenac baño. Santu guztiac zoriondu, doatsutu,
 140 lagundu, mesedetuten ditu Jangoicoac, diño San Agustinec. Baña non? Ba-
 rruan, biotzean, ariman, iñoc ezta cusan lecuan.

Baldin ichiten badozuz campoco atseguinac, lureco gauzac, gorputze-
 olgurac, emongo jatuzan arima barrucoac izango dira eun biderturic gueia-
 gotuac, ascotuac, andiagoac, gozoagoac. Eta, baldin gorputzarenac largaric,

46-117 *segurutzen zaituet < seguracen çaituztet (GGero 508).*

46-125 *daucala: aurean dituala, ezabatua.*

46-128 *mundu onetan: leh. munduan, < mundu hunetan (GGero 509).*

46-135/136 *alcar batera baturic < elccarri iratchequiric (GGero 510); ik. § 5.1.2.6.*

46-143/144 *eun biderturic gueiagotuac, ascotuac...: cf. içanen baitira ehunetan gorputzarenac
 baino handiagoac, eztiagoac eta abantaillatuagoac (GGero 510).*

145 probatuco bacenduz arimarenac, nazcagarriac irudingo lichaquezuz gorpu-
tzarenac. Andic ara, len on ta gozo eguiten jatzun atseguña ta gustua etzen-
duque gura izango, ez icusi, ez aitetu bere: gorroto artuco ceunsequio. <326>
Bada orduan, alangoz arguituco liteque zure adimentua ta aldatu zure lengo
150 gogoa, ce irudituco lichaquezu, usteco cenduque lenic cireanetic beste colo-
re bat artu dabéla gauza guztiac.

Jangoicoaren serbitzariac dirudie campotic pobre, despreciagarriac,
ece[re]zac, atsecabetuac, erdi illac. Baña, San Pabloc diñoan leguez, barruan
darabilde gorderic bicitzea, cein dan Jesu Cristo; illic leguez dagoz, baña bi-
cero bici dira Jesu Cristogan. Eta Jesu Cristoc eucan leguez bere jangoicotat-
155 suna barruan estalduric, ta campotic cirudian pobre beartu chiqui bat, alan
aren serbitzariac ta adisquideac bere euren Jaunari darraioela, dirudie cam-
potic gauza guichi ta ilun tristeac, baña euren barruan pocic ta gozotasunez
beteric dagoz.

O ce andia dan, ciñoan Davidec, Jangoicoac cristiñau fiel ta berari bil-
160 dur deutesenentzat gorderic, ezcutaturic, estalduric daucazan gozorotasunac,
maitetasun ta zorionac. Ain andiac ce, probatu dabenac baño ecin ezagutu ta
jaquin lei celacoac direan. Icusu eguizue, diño David berac, ce gozoa, ce mai-
tegarria dan Jangoicoa: bada, ezta ascori dirudien beste latz eta gach. Orain-
diño emon zarean leguez deabrua serbitzen, emon zaite emendic aurrera Jan-
165 goicoa serbietara, ta orduan icusico dozu ce gozoa, ce zalegarria, ce eztsua,
ce atseguinez betea dan gure Jangoico maitea.

Birtuteac, prestutasunac, ondo biciteac dacarren leguez poza, contentua,
gozotasuna, baquea, alan pecatuac, bicioac, gaistaqueriac dacardez euracaz
naibaguea, tristura, disgustu, atsecabe andiac, gogaicarriac, minduac; eta,

- 46-145 *irudingo*: cf. halaber *irudingo* (56-20) eta, bestalde, bai *irudin* (iz.; 47-8), baita *irudin* ere (ik. 6-4. oh.).
- 46-146 *Andic ara* < *Handic harat* (GGero 510); ik. § 5.3.3.
- 46-147 *gorroto artuco ceunsequio*: Añibarroren eransketa.
- 46-152 *ece[re]zac*: cf. *ecerez* (12-44, 22-114, 51-83 eta 52-119).
- 46-153 *erdi illac* < *hil hurranac* (GGero 510); *hurran* itzultzeko aterabide berri bat (ik. § 5.3.4).
- 46-153 *gorderic*: aurrean *bicitza*, ezabatua; gero datorren erlatibozkoak aldarazi bide dio hurrenkera: cf. *barrean darabillate gorderic bicitzea, cein baita Iesu Christo* (GGero 510).
- 46-153/154 *illic leguez dagoz... Cristogan* < *Mortui enim estis, & vita vestra abscondita est cum Christo in Deo* (GGero 510-511), aurreko esaldiaren jatorri berbera.
- 46-159 *O ce andia dan* < *A cein handia den* (GGero 511), baina Añibarrok azkenean anakolutua egin du: *estalduric daucazan gozorotasunac... Ain andiac ce...* (46-160/161), Axularrek singularrean jarraitzen duen bitartean: *estaliric daducan eztitasunaren multcutasuna! Hain da handia ecen...* (GGero 511).
- 46-162/163 *ce gozoa, ce maitegarria dan Jangoicoa* < *quoniam suavis est Dominus* (GGero 511).
- 46-163 *ascori dirudien beste latz eta gach* < *dirudien beçain latz eta gaitz* (GGero 511); *adiñã-z esana* (ik. 9-116. oh.) errepikatu behar da hemen *beste-ri dagokionez. ascori dirudien*: ik. § 5.1.3.10.

170 ain andiac eta latzac ece, baldin infernuric ezpalego bere, pecatua bera berez da ain ezaina, itsusia, bere buruarentzat ain penagarria ta castigua; ta onegaiti gorde bear guindequez pecatu eguiteric.

Jocolari batec interes baga, chanchetan, irabazteaz probechuric eztabean bere, ez [galduteaz] calteric, orrez guztiaz atseguin artzen dau irabazteaz ta naibaguea galduteaz. Cerren irabazteac berez dacarren atseguña, ta
175 galtzeac damua. Onela, bicitza ona eguiteac, ceruric ezipaliz bere, berez dacar contentua ta atseguña; ta gaistoa izateac, infernuric ezpalego <327> bere, berez dacar nequea, naibaguea, bildurra.

4 §.

180 Batzuc uste dabe pecatua gozoa dala, gustu onez beteric dagoala; baña ezta alan. Bada, batetic, aren atseguintasuna ezta eguiazcoa, ezipada uts ustecoa, engañuzcoa; ta au bere ezta ez pecatuarena, ez pecatutic jaioten dana; ezipada pecatariarena, pecatari beraganic ta pecatuaren eraguinguille deabruaganic datorrena. Chacurrac bidean idoroten daben azur gogor leorra go-
185 zoro darabil aoan, ez azurrac beragaz dabelaco maminic edo coiperic, ezipada erabilli utsez, chacur berari aotic odola erionic, guero odol agaz batean azur sicu á on gozo iruditen jacolaco. Alan bada, pecatariari bere iruditen jaco bere pecatu leorra on, gozo ta ece, ez cerren pecatuac berac beragan ontasunic, gozotasunic daucan, ezipada pecatariac daucalaco bere gogoa ta bio-
190 tza pecatu atan ifinia; eta deseo ac emoten deutso gogo ta gustua pecatari ari.

-
- 46-171 *bere buruarentzat ain penagarria ta castigua < bere buruarentzat penagarri eta gaztigu (GGero 512).*
- 46-171/172 *ta onegaiti...: hona iristean, susmoa hartzen da joskera bitxia dela; hau da jatorrizkoa: hain handia non, baldin infernuric ezipaliz ere, ceren beccatua bera bere baithan baita hain itsusi, eta bera bere buruarentzat penagarri eta gaztigu, hargatic beragatic ere, behar baiquenduque beccatu eguitetic beguiratu (GGero 511-512).*
- 46-174 *ez [galduteaz] calteric: cf. eztuen bat ere irabazteaz probetchuric, eta ez galtzeaz calteric (GGero 512). Formarako, esaldi bereko beste agerraldia hartu dut kontuan, nahiz galtzeaz ere ezinezkoa ez izan (cf. § 4.3.9).*
- 46-176 *ezipaliz: leh. ezpalego, < ezipaliz (GGero 512). Dena dela, bigarren zatian ezpalego darabil Añibarrok (46-177), Axularrek ez bezala.*
- 46-181/182 *ezipada uts ustecoa, engañuzcoa < baina da enganamendu (GGero 512).*
- 46-183 *eraguinguille < eraguille (GGero 512).*
- 46-186 *erabilli utsez = GGero 512.*
- erionic < iarieten baitçaica (GGero 512).*
- 46-189 *ezipada: ondoan cerren, ezabatua; cf. ceren beccatoreac baitaduca (GGero 513). Ezabaketa honekin zerren...-lako egitura erredundantea, inoiz itzuri zaiona (ik. § 5.2.9), saihestu du.*
- 46-190 *pecatari ari: jatorrizkoan beccatuari ematen dio goço eta çappore (GGero 513), eta ez bekatariari.*

- Beimbaten israeltarrac egon cirian ain egarriac illic ta igaroric, ce Jan-goicoac, aen premiña icusiric, emon eutsen arri ach bateric ateraric, iturri-ur fresco bat. Eta guero, ataric edan ebenean, esan ebén a ura etzala ez ura, ezpada ura baño obea ta munduco ardao guztiaac baño gozoagoa, ta eztiaren parecoa. Eta, cec emon eutsa[n] ur ari gozotasun, eztitasun zalegarri á? Euren deseoc ta egarriac, egartsuric egoteac; cerren, bestela, beste urac leguez zan a ura. Onela bada, emoten deutso pecatuari bere gozotasuna gure gogoac, naiac, deseoc, egarriac ta deabruac. Ez dau pecatuac beragan ezpada ustezco, irudipenazco, engañoazco gozotasunic.
- 200 Eta deabruac pecatuari emoten deutasun gozorotasun azalezcoa bere, nai ta nai ez emoten deutso, ez borondatez. Baldin bestela eraguin al balei pecatu, ez leusquio emongo munduan dan atseguinic chiqui, izpi, apurrena. Arraintzalleac egotzen dau amua uretara, edo cañaberaz, edo butroietan jateco batzucuz; baño ez ori arraiñaren <328> erruquiz, ez ari jaten emoteagaiti, ezpada ecin bestela engañoatu, atzitu, escuratu ta beragandu leizalaco.
- 205 Alanche deabru asmutsu gaistoac bere emoten deutasun pecatariari atseguin ta gozaldi batzuc, ez emon naiz, ez gogo onez, ezpada ecinbestez, ecin bestela atzemon, achitu, segurutu dituelaco pecatariac.
- 210 Eta deabruac emon daroan engañoamentuzco gozotasun ac bere, danic andienac bere, guichi irauten dau, baño asco ondoco pena ta atsecabeac. Pecatuaren atseguinaz berba eguiten ebala, Sofar Job santuaren adisquideac ciñoan: Mundua danetic ona, guizon[ac] guizon direanetic oraindiño, dacust ta daquit gauza bat, eta da: gaistoen alabancea laburra dala; ta oraindiño la-

-
- 46-192 *arri ach* < *harri-muguer* (GGero 513).
- 46-196 *egartsuric egoteac*: orain arteko pasartean Añibarrok *egarri* ipini du Axularrek *egartsu* zekarren lekuan, behar ere bezala; hona hemen non adierazten digun, eransketa txiki honen bitartez, bere ustetan *egartsu*-k zer esan nahi duen; erants bedi, bera dela XX. mendera arte *egartsu* adiera honetan erabiltzen duen bakarra (cf. *OEH*, s.v. 2 *egartsu*).
- 46-199 *irudipenazco* < *itchurapenezco* (GGero 513); ik. § 5.1.1.10.
- 46-202 *chiqui, izpi, apurrena* < *ttipiena* (GGero 513); *apur*-ek sortarazia bide da *izpi*-ren ezohiko erabilera.
- 46-203/204 *edo cañaberaz, edo butroietan jateco batzucuz*: cf. *egotzten du amua urera beitarequin, cenbait iateco eta bazcarequin* (GGero 513).
- 46-204 *arraiñaren erruquiz* < *arrainaren urricariz* (GGero 513-514).
- 46-205 *escuratu*: gainean erantsia.
leizalaco: nahiz *arrañaren* eta *ari* singularrean egon, eta cf. *ecin engana baiteçaque* (GGero 514).
- 46-206 *emoten deutasun pecatariari*: goraxeago bezala (46-190. oh.), hemen ere Axularrek *beccatuari* ematen zaiola dio (GGero 514), bekatariak harrapatzeko, hain zuzen, Añibarrok ere jarraitzen duen bezala.
- 46-210 *atsecabeac*: leh. *atsegabac*.
- 46-212 *guizon[ac] guizon direanetic oraindiño* < *iendeac iende direnaz gueroztic* (GGero 514).

215 burrago, ta izpi chiqui bat leguez, ipocrita falsoen poza ta atseguña. Ipocritaren santutasuna leguez da pecatariaren atseguña ta poza. Ipocritac campotic dirudian leguez santua, debotoa, baña barrutic da gaistoa, arrotua, maliciatia; alan becatariac bere campotic, azaletic dirudi dagoala pocic, contentu, atseguinez betea, baña barruan triste dago, ilun ta jausia.

5 §.

220 Gaistaquerian dabillanác, mundu onetan bere, atseguin baño naibague ta neque gueiago igaro ta irunsi bear dau. Lapur batec ceimbat neque, bildur ta icara igaro bear eztitu, bere lapurqueria eguiteco? Arerioturic dagoan batec ceimbat naibague, ceimbat gogo triste igaro bear eztitu, bere arerioaz benguetaco? Engañatzalle falso batec ceimbat gogoraciño, asmu, itzul-inguru
225 eguin bear eztitu, bere falsiaz baliatzeco? Desonestu batec ceimbat egun triste, gau char, ceimbat lotsaria irunsi bear eztitu, amorentasunean dabillan bitartean? Guzurtiac ceimbat guzur, ceimbat labanqueria, ceimbat berba eder saldu bear eztitu, bere guzurra estalduteco, edertuteco, eguiatzat emoteco?

Beti leguez, emen bere ederto berba eguiten dau San Juan Crisostomoc:
230 Persona ederrac ta echura onecoac ez dau campoco edergarri <329> ta apainduraren bearric ondo erechiteco; bada, bera beragan da ederric asco ondo iruditeco. Baña echura charrecoac, ezainac, itsusiac bear ditu estalgarri asco, bernizadura, soñeco eder galantac; ta oneec guztiocaz bere, obeto eguingo leuca echean egotea; an legoque edertoenic. Ala jazoten da birtuteaz ta bicioaz, santutasunaz ta donguetasunaz, eguiatz ta guzurraz.
235

Eguiac, birtuteac ez dau apaingarriren bearric: bera da ederric asco. Guzurrac bai: onec edergarri ta estalgarri asco bear ditu; ta, orrez guztiaz, ezta beimbere ondo edertuten, estalduten. Baldin guzurtiac bere guzurra eguiatzat igaroco badau, asco nequetu bear da: bateri ta besteari cer eranzungo daben asmatu bear dau lenagotic; gogo, acordu, gomute onean egon bear da.
240 Cerren esan oi dan: Errena baño, guzurtia lenago cojietan da; guzurrac oñac eta zanic labur ditu.

-
- 46-214 *ta atseguña*: honen ondolik honako azalpen hau dakar Axularrek: *Beccatorea deitzen da hipocrita* (GGero 514).
46-224 *gogoraciño, asmu, itzul-inguru < pensu eta itçul-inguru* (GGero 515).
46-225/227 *Desonestu batec... bitartean?*: Añibarroren eransketa.
46-233 *bernizadura = GGero 515.*
oneec guztiocaz: leh. *oneecaz guztiocaz, < hequin guztiequin* (GGero 515); ik. § 5.1.2.2.
46-239 *bateri ta besteari < batari eta besteari* (GGero 516); ik. 15-158/159. oh.
46-239/240 *cer eranzungo daben*: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5), < *cer ihardetsico dioen* (GGero 516).
46-241/242 *Cerren esan oi dan...*: ondoko bi erretrauetatik lehena gaztelaniaz ez eze, euskaraz ere ezaguna da (ik. Garate 1998: 5647), baina jatorrizkoan bigarrena bakarrik dugu, Añibarrok bere erara moldatu badu ere: *Cerren erran comuna da, gueçurrac çainac labur dituela* (GGero 516).

Cer esango dogu, bada, desonesqueriaco becatuan sarturic dabillanaz?
 Becatu loi ciquin lotsagarritzco onetan artzen dan atseguña, eguia esateco,
 245 ezta atseguña, ezpada naibaguea, atsecabe ta penea. Icusico dozu guizon
 gazte bat ta batzuetan, gaistoago dana, zar bat bere bai, gaubac galduric, on-
 dasunac urturic, gorputza argalduric, biotza jausiric, bere onra ta creditua
 guichituric, emacume galdu bati darraiola. Bai ta icusico dozu beste perso-
 na on garbi onestu bat, onelaco pecatu ezainetaric iguesca dabillan bat.
 250 Orain, bada, bi oetaric cein uste dozu dagoala pozago, contentuago, atse-
 guinduago? Ceinec igaroten ete ditu gaubac ta egunac gueldiago, tristura
 guichiagoaz? Eztago ori itandu bearric. Ceuc autortuco dozu mundu onetan
 equi dozuzan gach eta naibague guztiac, edo beintzat gueienac, batera edo
 bestera, aldez edo moldez etorri jatzuzala desone[s]queriaco pecaturic. Eta,
 255 baldin eguia esan gura badozu, pecatu aetan atseguin baño, naibague ta dis-
 gustu gueiago equi cenduan. Eta au berau jazoten da beste era guztico pe-
 catuetan.

Ez da gaistaqueria baño gauza nequezcoagoric; eta ez artan artuten dan
 nequea baño gauza galduagoric. Bada, ezta neque atan [beste] <330> frutu-
 260 ric bilduten, ezpada caltea, desonrea, atsecabea. Orregaiti San Pabloc itan-
 duten eutseen bicio onetan ibilli cirian batzuei: Ce frutu, ce irabaci equi
 cenduen orduan, orain aitetutera bere lotsa zaréan pecatu loi atan?

Becatuaren castigu andienetaric bat da lotsea. Artuten dozu deabru gais-
 toa nagusizat, ugazabatzat, ta lotsa zara esaten aren aguinpecoa zareala.
 265 Gaistoa zara, baño gura eztozu gaistotzat equi zaiezan. Ceuc eguin dozun
 pecatua eztozu aitatu gura; desonratzat dozu a icentatzea. Erruquigarria[c] ta
 on bearrac dira gaisto oquerrac. Bada, euren adisquideac bere, aguirian ez-
 pada bere, bere contra berba eguiten dabe issilca, capapetic, ezcutuan. Baña
 guizon prestu, on, garbi, zucen bategaiti guztiac, bere arerioguiñoacoac bere,
 270 euren biotzetan bada bere, ondo berba eguiten dabe.

46-248 *Bai ta:* aurean *Eta*, ezabatua; cf. *Eta berriz iccussico duçu...* (GGero 516).
 46-250/251 *atseguinduago:* jat. *atseguinduago* (arg. zuz.), cf. *atseguinduric* (46-333), eta *aiseago*
eta bere gogarago (GGero 516).
 46-254 *aldez edo moldez* = GGero 517; *batera edo bestera* Añibarrok azalpen modura eran-
 tsitako esanahikidea da (ik. § 5.3.3).
 46-256/257 *era guztico pecatuetan < beccatu suerte guztietan* (GGero 517); ik. § 5.1.1.4.
 46-259 [*beste*]: orrialdearen oinean bai, baina ez hurrengoaren buruan. Bukaeran marratxo
daramanez, baliteke hasieran *bestetik*-edo jartzeko asmoa izatea, baina cf. *bertce*
fruituric viltcen (GGero 517).
 46-268 *capapetic* = GGero 517; *issilca* eta *ezcutuan* Añibarrok erantsitako esanahikideak dira
 (ik. § 5.4.2).
 46-269 *arerioguiñoacoac < are etsaiec ere* (GGero 517).

Baña, orrez guztiaz, alan bada bere, gura[go] dabe gaistoac euren lotsa, de-
 sonra ta neque guztiaz contraco bidean ibilli, bide onean, artez ta zucenean
 neque bague baño. Gauza asco eguin leiz Jangoicoaren serbicioan neque la-
 bur arin guichiaz. Ce neque dago eguiatz berba eguitean? Testimonio falso
 275 guzurrezcoric ez ereguitean? Cristiñau lagunari parcatutean? Juramentu, bi-
 rao, erneguric ez eguitean? Contra[ra] bai, bestela eguitean neque andia
 dago. Bada, guzurrac, testimonio falsoac, biraoac ta arerioaz benganza artu-
 teac maquina bat buruco min, ocasiño ta errierta biztu, erne, sortuten ditu.
 Eta, alambere, gurago dogu infernutic infernura joan, cerutic cerura baño.
 280 Mandamentu santuac cumpli, bete ta gordeteco eztoqu nequetu bearriac, ez
 beintzat austeco laimbeste; ta orrez guztiaz, neque, latztasun, gach guztiacaz
 bere, naiago dogu infernura joan, neque bague cerura baño.

Ez eban bein santu batec deunguero esan, ascotan infernura joateco ar-
 tzen dogun neque erdiaz irabaci guiñeiquela ceruco gloria. Santu beronec
 285 icusiric, nescacha bat bere becoquia zabaldu, arguitu ta edertuteco ulleac
 goitic tiraturic ta ateraric min asco artuten ebalá; eta bere garria bedartuteco
 estu-estuan erabillala, esan eban: Bidebague <331> ta injuria eguingo leus-
 quio Jangoicoac nescato oni, baldin eraqueria onetan artuten daben neque ta
 minagaiti emoten ezpadeutso infernua. Bada, persona batzuc nequetu ta pe-
 290 natuten direan leguez cerura joateco, alan beste batzuc aricatu, nequetuago-
 ten dira infernua irabazteco.

Eta pecatuaren ta infernuco pena ta neque gogor ori ez jaque pena irudi-
 ten; baña bai ceruco bidecoa: au asco sentitzen dabe; au gach, nequezcoa ta
 entero latza eguiten jaque. Amorentian, adisquidetasun charrean, lapurque-
 295 rian, jocoan, gau ta egunac arin erraz, guichi sentitu bague igaroten dozuz;
 demporaric luceena labur eguiten jatzu; gozoro, pocic, gogo onaz daroazu;
 onetaraco etzagoz gaisoric; ataraco badozu osasuna, indarra, gogoa. Baña
 barau eguiteco, oraciñoan edo elessan egoteco, gaissoac icustera joateco,

46-271 *gura[go] dabe* < *nahiago dute* (GGero 518).

46-272 *contraco bidean* = GGero 518.

46-274 *falso*: jat. *falsoio* (arg. zuz.); badirudi *Testimonio*-k kutsatu duela, “duplografia” deri-
 tzan hutsa eraginez.

46-276 *Contra[ra] bai*: cf. 23-77. oh.

46-286 *bedartuteco* < *lerdentceco* (GGero 518).

46-289/290 *nequetu ta penatuten*: leh. *neque penatuten*.

46-290/291 *aricatu, nequetuagoten dira* < *are penatcenago eta traillaatcenago dira* (GGero 519).

46-292 *pecatuaren*: aurrean *in*] (*infernuco?*), ezabatua; izan ere, *pecatuaren* Añibarroren
 eransketa da: cf. *Eta ifernuco pena hura* (GGero 519).

46-292/293 *iruditen*: aurrean *iduriten*, ezabatua, < *iduritzen* (GGero 519).

46-294 *Amorentian* < *Amorantian* (GGero 519); *adisquidetasun charrean*, hari Añibarrok
 ematen dion azalbidea da (§ 5.4.2). Formaz, ik. 31-46. oh.

46-295 *guichi sentitu bague* < *guti sentituric* (GGero 519).

- 300 sermoi bat enzuteco, libru deboto bat iracurteco, latztasun chiqui bat gorputzean erabilteco argala zara, gaissorric zagoz, buruan min dozu, eztozu astiric. Jangoicoagaiti danic nequeric arin chiquerrena igaroteco, bertati gogaituten zara, aserratzzen zara; baña deabruagaiti errazac, gozoac, sufrigarriac eguiten jatzuz gaubac galdutea, otz-beroac, gose-egarria, neque pena guztia.
- 305 Icusico dozu andre gaisto bat asten dala aguiraca, chilioca, dedarrez, negarrez, biraoca, erneguca, atzamarca bere senarrac, gueiegui ganez eguinita aserraturic, belarrondoco bat emon deutsalaco. Baña au berau, edo burua austen badeutso bere galai amorante desonestu maite dabenac, issilic igaroten dau; jausiric edo bestela a mina artu dabela edertu ta estalduten dau. Senarraren colpe chiquiaz aguiraca asten da, ta ez amorantearen andiaz, contrara dabillala. Alan gu bere gabiliz contrara, ta irainduten gara Jangoicoaren serbicio santuan igaroten dogun neque apurraz, barau batez, injuria batez; ta ez deabruaren serbicioan igaro, irunsi ta artuten dogun neque gogor, astun, gogaicariac: au ecer ezta; onec ecer eztirudi; arin ta gozo eguiten jacu.
- 310
- 315 <332> Au alan uste [do]gu, diño San Juan Crisostomoc, deabruac carguea jasoten lagunduten deusculaco. Baña etorrico da dempora, ceinetan deabruac laguntzaric eguingo ezteuscun ta ceinetan ezagutu[co] dogun, ta bai probatu bere, ce astun ta andia dan infernucobidean igaroten dan carguea. Zul bat andi, astun, pisuduna bada bere, oxin edo ibai bateco uretan erraz muguitu, meneatzen da, arin ta escuz alde batera ta bestera iruli, itzuli ta erabilten da. Baña uretic campora, leorreatan, ecin ori eguin ciñei; emen da aguiri, emen probatu ta ezagutzen da cein andia, astuna, pisutsua dan. Au berau jazoco da bicitzaren bazterreatan, leorreatan, azquenean: orduan icusi ta jaquin-go da celacoa dan pecatuaren carga ta astuntasuna, ce andia dan deabruaren
- 325 serbitzuan ta infernucobidean igaroten dan nequea ta latztasuna.

- 46-299/300 *sermoi bat enzuteco... gorputzean erabilteco*: Añibarroren eransketa. *gorputzean*: jat. *gorputzean* (arg. zuz.).
- 46-307/308 *Baña au berau, edo burua austen badeutso bere*: *Baña au berau* Añibarroren eransketa da, baina badirudi *au berau egiten badeutso* hobeto datorkeela.
- 46-308 *desonestu*: leh. *desonestuac*; cf. *bere amoranteac, bere placereco daducan guizon gaixto batec* (GGero 519).
- 46-311 *irainduten gara < arrencuratcen gara* (GGero 519), orain artean ongi itzuli badu ere; cf., adibidez, *gogaituten zara, aserratzzen zara* (46-301/302) edo *aguiraca asten da* (46-310).
- 46-314 *arin*: leh. *arina*.
- 46-315 *Au alan*: aurreko orrialdearen oinean *Bada* dago iragarrita, baina gero ez du erabili; cf. *Ceren San Chrisostomoc dioen beçala* (GGero 520).
- 46-316/317 *uste [do]gu*: jat. *ustegu* (arg. zuz.).
- 46-316/317 *ceinetan... ezteuscun < ...dembora, Deabruac laguntzaric eguinen ezteracuna* (GGero 520).
- 46-320 *meneatzen < manaiatcen* (GGero 520); bestetan, ordea, *maneatu*-rekin itzuli ohi du (ik. § 5.3.4): hutsa ote?

6 §.

Jangoicoaren serbitzucó bidea, gogo onez dagoanarentzat izanic leuna, gozoa, erraza, zabala, deabru gaisto asmutsuac gura eztau zabaltasun on oni beguiratu daiogun; bacarric nai dau beguiratu daiogun an dagozan neque, al-
 330 dasgora, gachtasun guichiai. Eta barriz, beste aldera, celan deabrua serbitze-
 ac dituan neque asco, eztau gura deabruac aei beguiratu daiogun; eta bai
 atan dagozan atseguinai. Onela judeguac Egitoco catibutasunetic urten ebe-
 nean, libre, pocic, atseguinduric, ceruco janari gozoz gozoturic, ase beteric
 ebiltzenean, cerren etorri jaquéen araguaia jateco nai-gura zalegarri bat, asi ci-
 335 rean esaten biurtu gura ebéla Egitora, bere lenagoco catigutasunera, an ara-
 guiz, porruz, quipullaz, beracatzéz ase betetzeco.

Ez eben gogoratuten cautibutasun atan igaro cituezan gogortadeac, mem-
 petasuna, neque andiac; ezpada bai escu artean euqueen escastasun urri apu-
 rra edo deseo erabaguecoa. Bada, au da deabruaren malicia ta asmua: ifinten
 340 deuscu beguien aurean pecatuaren gozorotasuna, baña ez emendic datorren
 naibaguea. Pintatzen deuscu birtutearen <333> nequea, baña ez irabacia ta
 sari ona, ez bere edertasun polita.

Baldin birtutea ta bicioa, birtutearen ta bicioaren joan-etorriac, gorabé-
 rac, onac eta gachac ifinico baguenduquez balanza bitan, ta gogoratu bear
 345 dan leguez, eztot uste idoroco litequeanic munduan, pecatu eguin leiquenic.

Esango dozu, badituela birtuteac ta Jangoicoa serbitzeac bere pena ta ne-
 queac, ta bai pecatuac ta pecatuan ibilteac bere gustu, olgura ta atseguiniac;
 ta orrela obe dala pecatuaren atseguiniá, birtutearen atseguinbaguesuna
 baño. Ez orrelacoric. Bada, San Agustinec diñoanez: Birtutearen neque pe-
 350 nac laburrac dira; eta bai pecatuaren atseguiniac bere. Baña birtutearen neque
 laburrac ondoan dau gloria lucea ta seculacoa; eta bai pecatuaren gustu la-
 burrac bere castigu andia, lucea, seculacoa. Beraz, obe da birtutearen atse-
 guinbaguesuna, pecatuaren atseguiniá baño.

46-333 *gozoz gozoturic*: Añibarroren hitz jokoa; cf. *ceruco ianhariz assetcen cirela cebiltçanean* (GGero 521).
 46-334 *zalegarri bat*: ondoan hauxe gehitzen du Axularrek: *eta guticia hura etçuten nahi beçain fite complitcen* (GGero 521).
 46-335 *catigutasunera*: lehenago *catibutasun* (46-332) eta geroago *cautibutasun* (46-337), Axularren *gathibutasun*-en orde; cf. *VB cautibutasuna* (c.) “cautiverio” eta *catigutasuna* (c.) “cautividad”.
 46-335/336 *araguiz*: Añibarroren eransketa, nahiz jatorrizkoan barazkiak bakarrik aipatu (GGero 521).
 46-337 *cautibutasun*: aurean *cati*] (*catibutasun?*), ezabatua; cf. 46-335. oh.
 46-338 *escastasun* < *escassia* (GGero 521).
 46-342 *ez bere edertasun polita*: Añibarroren eransketa.
 46-348 *atseguinbaguesuna* < *desplacera* (GGero 522).

355 Neque penaz aricaturic, inguraturic, beteric dagoan batec, baldin guero,
 bat, ecer bere sentitzen eztituan leguez neque guztioç: alan atseguinetan da-
 billanac bere, baldin oneen azquenean ta ondoan icharoten badau castigu an-
 diren bat dagoala beretzat gorderic, ecin dateque atseguin aetan atseguin
 360 oso, bete, eguiazcoric euquitea. Lenagotic bai, orduan atseguña atsecabe
 biurtzen da.

Urcamendira daroen guizon bat, janaria onac, edari obeac equiagaiti; ta
 urcamendiraco bidea leuna, ederra, erraza, zabalaa, ederturic, apainduric, bi-
 chituric icusiagaiti, ce atseguin artu lei aetan guztietan? Alacoari esan leio
 San Agustinegaz: O guizon guissagaissoa, ez eguizu beguiratu nondic igaro
 365 bear dozun, ezpada nora zoazan. Ez eiozu beguiratu urcamendico bide ede-
 rrari; baña beguiratu eguiozu urcamendi berari, guelditu ta il bear dozun le-
 cuari.

Alan bada, zuc bere pecatu bat eguitera zoazanean, ez eiozu beguiratu
 pecatu eguiteman artzen dozun atseguñari, ezpada pecatuari darraion castigu
 370 ta inferuari, atseguin onec zaroazan lecuari, ta emongo deusun naibaguear-
 ri. Becatu eguitera doian batec gogoratuco baleu ce neque, pena ta castigua
 igaro bearco daben aren ondoan, ostein ta jarraian, ce gozotasun, <334> ce
 gustu, ce atseguin artu leio pecatuari?

Birtuteác, santutasunác, Jangoicoa serbitzeac, bicitza on bat eguiteac on-
 375 doren ona dau; ta neque guichi bat badau bere, laburra ta arina da; ta labur
 au bere arindu, guichitu, gozotu, erraztuten dau gueroco sari onac, irabazte-
 ac, ondasun ugariac, segurutasunac, gloria beticoac; pocic, gogoz, maiteta-
 sunaz ta borondate onaz egoteac; ta batez bere Jangoicoa serbitzetic datocen
 mesedeac, laguntza ta poztasunac. Baña pecatuetan, ta pecatuen olgura ta
 380 atseguñetan ibilliric, oneec guztioç datoz contrara: euroetan atseguin chiqui
 ta laburra; ta guero naibague ta neque andi, latz, garratz, luce ta seculacoac.

Eta alan, errazoi guztioç ondo beguiraturic, pensaturic, gogoraturic, ba-
 cocha bere balanza ta neurrian ifiniric, arguiro eracusten da errazago dala ce-
 ruco bidea, infernucoa baño; ta infernuratuco danac neque pena gueiago iga-
 385 ro bear dituala, ceruratuco danac baño. Au alan izanic, cerutic cerura, bicitza

46-358 *ecin dateque < ezta posible (GGero 522).*

46-361 *janaria onac, edari obeac < ianhari onac eta edari hobeac (GGero 523); janaria: ik. § 5.1.1.1.*

46-371 *ce: leh. cer.*

46-374 *serbitzeac: leh. serbieteac.*

46-374/375 *ondoren ona < ondore ona (GGero 523); cf. § 5.3.4.*

46-385/386 *cerutic cerura, bicitza on batic beste obeagora < parabisutic parabisura, bicitce on batetatic hobeagora (GGero 524). batic: ik. § 4.3.1.*

390 on batic beste obeagora joateagaiti bere, bear guenduque gaurganic asi bicitza on garbi santu bat eguitera; ta Jangoicoaren legue santuco buztarri ta carga arin leun erraza gueure gogo ta biotz guztiaz artu, autu, besartu, laztandu, maitetu, jarraitu ta jaso; ta guero damutu ta garbaituco ez jacun leguez, bicitza on barri ceruzco bat eguitera abiatu, prestatu, equin, eragon aspertu baga, naguitu, otztu, epeldu, atzeratu baga.

46-386 *joateagaiti*: leh. -*gaitic*.

46-388 *besartu* < *besarcatu* (GGero 524).

47. BURUA

Confesiñoa guerotic guerora lucetu bear ezta.

1 §.

5 Baldin Escritura santea ondo iracurten badozu ta contuz gogoratuten ba-
dozu, icusico dozu eztala eguño pecatu mortala eguin dabenetic salbatu, ez
salbatuco bere, aldez edo moldez, nolabait confesatu bague. Mundua danic
ona, legue ta dempora guztietan usatu da ta usatuten da confesetea. Legue
naturaleco confesetea zan oraingoaren gueriza, antz irudin adigarri bat. Le-
gue naturalean asco zan biotz-damuaz batera, ta gogoa arturic ez beste bein
10 pecatura borondatez biurtuteco, au eracustea campoco señaleren bategaz,
celan zan beguiac jasotea, belaunico ifintea, <335> colpeac bularrean emonic,
Jangoico berari confesetea ta parcaciñoa umiltasunaz escatutea.

15 Jangoicoac deitu eutsan Adani, pecatu eguin ebanean; ta itandu eutsan ea
non cegoan. Itandute au ez eban eguin Jangoicoac jaquinezaz, ezpada Adanec
bere pecatua ezaguturic, confesatu edo autortu eguientzat. Eta ez ebalaco
arguiro ta artez autortu; achaquia ta itzulbidez bere pecatua edertu ebalaco,
bere emazteari errua egotziric, ta onec deabruari; osoro ta arguiro aguertu

-
- 47-5 *pecatu mortala eguin dabenetic < nehor (GGero 525).*
47-6 *aldez edo moldez = GGero 525; nolabait Añibarrok erantsitako esanahikidea da (ik. § 5.3.3).*
47-7 *usatuten da confesetea: eta Axularrek gaineratzen du: Differentqui, ordea, ez berdin (GGero 525).*
47-8 *oraingoaren gueriza, antz irudin adigarri bat < oraico cofesatcearen itçala beçala cen. Orducoa cen oraicoaren seinale bat, figura bat, pintura bat eta significantça bat (GGero 525). irudin: ik. 46-144. oh.*
47-11/12 *colpeac bularrean emonic: Añibarroren eransketa.*
47-13 *pecatu eguin ebanean: Añibarroren eransketa.*
47-16 *itzulbidez: ik. 3-92/93. oh.*
47-17 *ta onec deabruari: Añibarroren eransketa.*

20 ta autortu ez ebalaco, castigatu eban Jangoicoac, gachez, caltez bera ta bere ondorengoac beteten cituela; baña nolabait, inguruca bazan bere, confesatu ebalaco bere uts eguitea, parcatu eutsan; eta arguiroago autortu baleu, bear-bada castigu guichiago emongo eutsan.

25 Molde ta era onetara iracurten da itandu eutsala Jangoicoac Cain gaistorari, Abel bere anaje ona il ebanean, cirautsala: Cain, non da Abel zure ana-jea? Eta cergaiti itandu eutsan onela? Bere pecatua gogoratu eguienzat; ta gogoraturic, confesatu eguienzat. Baña confesatu ez ebalaco, ucatu ebalaco, guelditu zan zorigachez beteric, erruquigarria ta on-bear eguinic, mundutic erbesteturic ta genteen arteric iguesca ibilliric, ta azquenean condenaturic. Bada, Adan ta Cain bere seme au, legue naturaleco demporacoac cirian; legue escribituric, ez iracasleric ez oi zan demporan bici cirian.

30 Baña naturaleza beraren arguiac eracusten dabelaco errazoiac daracus-cun erara bici bear gareala; donguero eguitea largaric, Jangoicoa ta lagun urcoa maite izan bear dogula, ta Jangoicoari gueure utseguiteac, oquertasun, gaistaqueriatic autortu bear deusaguzala; onegaiti etzan legue natural, berezco, errazoizcoan bere iñor salbetan, nolabait edo eraren batez, campoco se-
35 ñaleacaz ta barruco damuaz pecatuac confesatu, autortu bague. Eguia da ez egoala orduan oraindiño confesatzeco cirimonia señaleturic, Santo Tomasec eracusten daben leguez. Bada, asco zan biotzeco <336> damu eguiazcoaz, ta damu ta garbai onen señaletu adigarriren bat campotic eracustea ta adierazotea. Etzan orduan oraindiocorren beste confesiño molderic, ez erremedio es-
40 cribituz ifiniric.

Baña guero, mundua pusca bat gueitu ta ascotu zanean, legue naturaletic legue escribitura Moisesen demporan eldu zanean, asi zan beste confesi-

47-17/21 *osoro ta arguiro... emongo eutsan*: pasarte hau guztiau Añibarroren bermoldaketa da; ohartu hasiera goragoko zati baten errepikapena dela (47-15/16). Izan ere, Axularrek dena (edo ia dena, ideia batzuk itzultzailearenak baitira) esaldi bakarrean esaten du: *Eta ceren ez baitçuen behar cen bidean cofesatu, baina desencusatu eta ederztatu nahi içatu baitçuen, erraiten çuela ecen bere emazteac eraguin ceucala, halatan parte bat bedere, hanbat calte eta damu errecibitu çuen* (GGero 526).

47-23 *Cain*: aurrean *non da Abel*, ezabatua; cf. *Non da çure anaia Abel?* (GGero 526).

47-31/32 *Jangoicoa ta lagun urcoa maite izan bear dogula* < Iaincoarequin eduqui (GGero 526). Hala-holako itzulpena, eta hala-holako eransketa, gaiarekin bat ez etortzeaz gainera, joskeraren haria bera ere oztopatzen baitu, jatorrizkoan ez bezala (...*eta hari bere faltac aithortu*), hurren *Jangoicoari* berriz aipatu beharra sortuaz.

47-37/39 *asco zan... eguiazcoaz... adierazotea* < *Asco cen barreneco urriquemendua, eta urriquemendu haren, bat bederari bere baithan iduritcen ceican campoco ceinbat seinalerequin aguertcea eta significatcea* (GGero 527). Itzulpena hankamotz geratu da: ziurrenik zuzenketarik errazena *eracustez ta adierazoteaz* izango litzateke.

47-39 *oraindiocorren*: ik. 12-191. oh.

47-39/40 *ez erremedio escribituz ifiniric* < *ez erremedio esquiribuz eçarriric eta ibeniric* (GGero 527).

47-41 *gueitu ta ascotu zanean* < *aiccinago iragan cenean* (GGero 527).

ño era bat. Etzan orduan asco baco-chac bere barruan eucan damua gura eban seña-leaz camporatu, eracusi ta aguertutea. Eracusi ta adietan emon bear zan barruco damua ofrenda, esqueintza ta sacrificioacaz; ta ez nolana ta baco-chac gura cituanacaz, ezpada orretaraco legue escriptuac icentatu ta seña-latzen cituanacaz. Baciran legue zar escriptu onetan sacerdoteac ta Elessaco cargudunac. Eta pecatuan jausten zana bear eban pecatu ágaiti, damutu ta guei-ago ez eguiteco borondateaz sacerdoteen aurean esqueñi ofrenda ta sa-crificio, ta onegaz adirazo peccataria zala. Alan aguinduten zan Levitico[aren] capitulu batzuetan; bai ta euroetan icentatzen cirian pecatuai egoquien pena, ofrenda ta sacrificioa.

Etzan orduan orain leguez pecatuac confesatuteco aguinduric, ez celan autortu bear cirian, ez nos, ez ceimbat pecatu eguin ebén esateco premiña-ric. Asco zan orduan, damu eguiatzco bategaz legueac aguinduten eban le-guez ofrenda ta sacrificioa eguitea; au zan orduco confesiñoa. David erre-gueac eguin cituanean desonesqueriaco peccatua ta guizon on bat iltea, lotsaz ta bere burua ez aguertzeagaiti, Glosac diñoan leguez, etztuan eguin legue-ac aguinduten cituan sacrificioac eta penitenciac, aric eta Natan profeta san-tuac cemaitu ta arpeguian bere beccatuaz emon arteraño. Baña beragan biur-tu, damutu ta lotsea quendu ebanean, eguin eban legueac aguinduric eucana umiltasun andiaz; ta onembestez irabaci eban parcaciñoa.

2 §.

Orain legue barrian, Evangelioa ta cristiñau fedea zabaldu danean, ga-goz bearturic, premiñaturic confesetara gueure pecatu mortal guztiac, euren neurri ta circunstancia guztiac sacerdote confesore bati. Confesiño au <337>

- 47-46 *icentatu*: leh. *icentadu* ipintzen zuela dirudi.
 47-47 *Baciran*: ik. 12-214. oh.
 47-48 *damutu*: leh. *damu*; cf. *urriquimendu batequin, eta guehiago ez eguiteco vorondatearequin* (GGero 527).
 47-49/50 *esqueñi ofrenda ta sacrificio < eguin cenbait offerenda eta sacrificio* (GGero 528); *ziurrenik batzuc falta du*: ik. § 5.1.1.5.
 47-51 *Levitico[aren] capitulu batzuetan*: hala dio Axularrek (GGero 528).
 47-54 *autortu*: aurean con] (*confesatu?*), ezabatua.
 47-57 *eguin cituanean... peccatua ta... iltea*: ezohiko komunztadura; cf. *bertceren emaztearequin beccatu eguin çuenean, eta beccatu haren estalcea gatic, emazte haren senharra hil araci çuenean* (GGero 528). Zentsurak-edo eragin dio, beraz.
 47-62 *irabaci eban parcaciñoa*: eta ondoan dio Axularrek: *Ceren orduan ere, legue çahar esquiribatuan ere, eguin behar ciren beccatuen erremediateco ordenaturic ceuden offerendac eta sacrificioac; eta hura cen orduco cofesatce molde* (GGero 529).
 47-64 *Evangelioa*: ondoan zaba] (*zabaldu?*), ezabatua; cf. *Evangelio saindua declaratuz guero* (GGero 529).
 47-64/66 *gagoz bearturic...*: hemendik hasi eta punturainoko guztia Añibarroena da, zeren Axularrek hauze bakarrik esaten baitu: *usatcen da guiristinoen artean bertce cofesatce molde bat, appeçaren aitcinean eguiten dena* (GGero 529). Bide batez, *mortal guztiac*-en osteko koma neuk ezarri dut, esaldia ulertarazteko, baina baliteke *euren neurri ta circunstancia guztiac[az]*-edo izatea irakurketa zuzena.
 47-66 *confesore*: jat. *confesori* (arg. zuz.).

70 legue zarrecoa baño santuagoa, obea, seguruago, indartsuagoa, balio gueiagocoa da. Bada, oraingo confesiñoco absolbiciñoco berba guichi bat[z]uei emoten deutse indarra ta gracia Jesu Cristoren merecimentu, pasiño ta eriotza santuac. Damu eguiazcoaz, propositu sendoaz ta arguirotasunaz confesatu ta sacerdoteac absoluciñoa emoten dabenean, an da bereala Jesu Cristoren bicitza ta eriotzaco merecimentu guztia, balioa, gracia, mesedea ta pecatu guztien paracaiño osoa.

75 Gauza bigaitic batez bere esan lei oraingo confesiñoac birtute, gracia, indar ta baliotasun gueiago daucala, legue zarrecoac baño. Lenengo, oraingo confesiñoa izanic sacramentu eguiazcoa, berac berez beragan dauca indarra gracia emoteco. Ez alan legue zarrecoac: bada, onec emoten eban gracia zan, celan ceucan prestaerea, debociñoa, disposiciñoa batec. Baña oraingo confesiñoac eta sacramentuac emoten deutse gure prestamentuari dagocan gracia, eurac euretan dauquén graciagaiti, Jesu Cristoren merecimentuetaric datorquioena, baldin gu ondo prestatzen bagara.

85 Bigarren errazoia da, cerren orduco confesiñoac, baldin emongo baeban gracia, euqui bear eban batec *contriciño* fiña, eguiazcoa; celan dan artuten dan damua pecatu eguiñaz ta ofendituaz Jangoicoa bere ontasun maitegarriagaiti. Baña oraingo confesiñoco sacramentuan, obea bada bere *contriciño* au, asco da *atricciñoa* edo bildur damua, celan dan damua artzea pecatu

47-68 *oraingo confesiñoco absolbiciñoco berba guichi batzuei...*: Añibarrok bere erara ulertu ditu Axularren hitzok: *Ceren hitz batez erraitera, oraico cofesatcean...* (GGero 529), hots, 'zeren, hitz batean esanda...'.
 47-78 *celan ceucan... batec < errecibitcen cituenac çuen disposicionearen, debocinoaren eta aparailuaren arauaz. Nola prestatcen baitciren errecibitceco, hala errecibitcen çuten* (GGero 529-530).

disposiciñoa: jat. *disposiciciñoa* (arg. zuz.).
 47-78/81 *Baña oraingo confesiñoac...*: erka bedi hemendik eta punturainokoa jatorrizko bertsioarekin: *Baina oraico cofesatceac eta sacramentuec emaiten dute gure disposicioneari eta prestatceari dagocan garacia eta faborea, eta are guehiago. Sacramentuec berec bere baithan dutenetic ere errepaitcen dute; eta errecibitcen duguguc ere parte hura, baldin gueroc gueure aldetic, traburic ibentcen ezipadugu* (GGero 530).

47-82 *Bigarren errazoia da, cerren...*: Axularrek gehiago luzatzen du kontua: *Bigarren arraçoina eman ahal diteque, frogatceco oraico cofesatceac indar guehiago duela legue çaharrecoac baino. Ceren...* (GGero 530); ik. § 3.3.
 47-82/83 *baldin emongo baeban gracia < baldin erdietsico bacen barcamenduric* (GGero 530). Lehen graziaz eztabaidatu denarekin, ez dirudi aldaketa erabat zuzena denik. Baina badu Elizak... Dena dela, oro har *kontrizio* eta *atriczio*-ari buruzko pasartea nahikoa aldatu du Añibarrok, gauza batzuk laburtuaz eta berak ere bere aldetik zer esana bazuela erakutsiaz. Axularren haria Jeremiasekin (47-95) berrartzen du.

eguiñaz, beragaz cerua galdu ta infernua irabaci dabelaco, infernucio penac gaiti, pecatuaren ezaintasun ta calteac gaiti; emendic asten dala peccataria Jangoicoa amatzen, pecatua gorro[ta]tuten ta beste bein peccatura ez biurtze-
90 co gogoia ta borondatea artuten.

Ez dau cer icusi lengo confesinoac oraingoaz. Eta asco osatu ta garbituten ezpadira euren arimaco pecatu, gach ta gaissotasunetaric da, ondo pres-
tatzan eztierealaco sacramentu onetaraco; ta ez beronec birtutea, gracia ta in-
darra eztaucalaco edocean pecatu parcatuteo, edocean peccatari santututeo.
95 Onegaiti itandu lei, Jeremias profeteac bere demporan leguez: Cer da au? Ez
ete da errechinari, triarcaric, osagarriric Galadco errian, edo medicuric an
bertan? Celan, bada, ene errico alabaren llaga zauria osatuten ezta? Esan
gura dau: Cristiñau errian arimeco gaissotasuna osatu ta sendatuteo <338>
ain erremedio andia, osagarri ain eguiazcoa eta medicu osaguille au, ta con-
fesiño ta confesore dan errian, celan orrez guztiaz idoroten dira aimbeste lla-
100 ga, zauri, gaissotasun? aimbeste pecatu ta gaistaqueria? Eta, celan eztira le-
nago sendatu ta osatuten? Celan urteric gueiencan edo osoan, ta bearbada
gueiagotan, peccatuen gaissotasunecan ustelduric, atsituric, quiratsturic irau-
ten dabe? Glosac eranzuten dau: Eztira osatuten, abiatuten eztierealaco, orre-
105 taraco gogoric artuten eztaucalaco, confesiñoric iguesca dabiltzelaco, confe-
sore medicuaren osagarriac, adibide santuac artutera joaten eztierealaco, bear
dan prestaeraz confesetan eztierealaco.

Arimaco gacheric osatuteo erremedio sendagaia da confesiñoa. Ontzia
galdu ezquero ichasoan, ce bide, bitarte, erremedio izan lei marinal batec?
110 Ol edo zul zati bati oratutea, ta agaz baliaturic ta lagunduric, igueri leorrera
eldutea. Ontzia galdu ezquero oratuten dan ol aren eracoa da confesetea, pe-
ccatuan ito aguecan dabillan peccatarienzat. San Lucasen aotic diño Jesusec:
Baldin penitencia eguiten ezpadozue, guztioac galdu ta ondatuco zaree. Bada,
penitenciaran parteetaric lenena ta bearrena da confesiño santua: beragaiti,
115 galdu ta condenatu etzaitezcan, bearturic zagoz ondo confesetera.

47-89 gorro[ta]tuten: ik. 20-116. oh.

47-96 errechinari, triarcaric, osagarriric < arrochinari edo atriacaric (GGero 531). Axu-
larrek lat. *resina atriaca*-rekin azaldu zuen, eta Añibarrok *osagarri* ere erantsi; ha-
lere *triarca* dio, *triac*-ren orde: kopia hutsa ote, ala hitza doi-doi ezagutzen zue-
lako seinale?

47-99 osagarri: aurrean *ain*, ezabatua.

47-99/100 ta confesiño ta confesore dan errian: pasarte hau ilun geratu da itzulpenecan; cf. ...*hain
erremedio handia eta medicina escuarra den leccuan, cein baita cofesionea; eta ha-
laber hanbat barber eta midicu, cein baitira cofesorac* (GGero 531).

47-109 marinal: ik. 15-193. oh.

47-114 parteetaric lenena ta bearrena < partetaric bat (GGero 532).

47-115 galdu: aurrean *ez*], ezabatua; cf. *beraz, ez fin gaitz eguitecotz* (GGero 532).

Becatua da arimaren zauria, llaga, anditua. Anditua, zaldarra, sustarra irazten danean, campora istanda eguiten danean, esperanza da osatuco dala. Baña barruan gueratuten danean, materia edo zorna gogorturic, peligruzcoa da. Alan izango da, bada, peligrutsua, lotsaz ta borondatez confesatu bague
 120 barruan gueratu ta gogortuten dan pecatua bere. Onegaiti itandu ta eranzuten dau San Gregorio andiac: Cer da pecatuac confesatu ta autortutea, zauria ta zaldarra istandatu ta iracitea baxen? Eta, cer eguiten dogu pecatua confeseteaz, ezpada barruan egoan gacha ta gaisotasuna aguertutea?

Pecatuan jausi ezquero, lenengo erremedioa confesetea da. Cerren, ecin
 125 dateque contriciñoric, damuric, garbairic confesatu bague; edo ecin confesaturic, confesetaco borondate ta gogoia bague. San Agustinec diño: Obra onaren asierea, obra gaistoa[c] confesetea da.

3 §.

Obra onaren asiera, baldin bada obra gaistoac confesetea; confesiño au
 130 <339> celan, ce erara eguin bear ete da? Itandu eguiozu Jeremias profeta santuari; bada, onec Jerusalengo erriaren ganean eguin cituan negar, cispu-ruen bigarren capituluan daracus, esaten dabela: Issuri, zabaldu ta egotzi eguizu ceure biotza ura leguez Jangoicoaren aurrean.

Adirazoten dau: Lenagoco pecatuen damuaz ta gueiago ez eguiteco bo-
 135 rondateaz, Jangoicoac bere lecuan ifiniric daucan confesorearen aurrean confesa zaite, egotzi, bota, issuri eguizuz an esan, eguin ta pensatu dozuzan pecatu guztia. Eztiño egotzi daizuzala ceure pecatuac orioa leguez, coipea leguez, ezti leguez edo ardaoa leguez. Celan, bada? Ura leguez. Bada, eztago jatecoric, edatecoric ura baño garbiago ta osoago iraci, ustu ta egozten
 140 danic. Ezti ustu edo iraciten dozunean, edo orioa, cerbait gueldituten jaco ontziari. Ardao[a] ustuten dozunean, alic ondoen eguin arren, cer edo cer gueldituten da, usaiña ta colorea baño ezpada bere. Baña uretic ezta guera-

47-116 *Anditua, zaldarra, sustarra* < *Handitsua* (GGero 532); cf. VB “divieso, maior: c. *zaldarra*; n. *pissica*; si es menor: *susterra*; b. *zulderra*”.

47-117 *irazten* = GGero 532.
campora istanda eguiten danean < *eta camporat lehertcen* (GGero 532).

47-120 *barruan*: aurrean *gueldit*], ezabatua; cf. *barrean guelditcen* (GGero 532).

47-122 *istandatu ta iracitea* < *lehertcea* (GGero 532).

47-124 *confesetea da*: aurrean *da*, ezabatua, < *cofesatcea da* (GGero 533).

47-127 *obra gaistoa[c]*: cf. *Obra onen hastea, obra gaixtoen cofesatcea da* (GGero 533). Dagoen bezala ere ondo legoke, baina ohartu hurrengo lerrokadaren hasieran pluralean doala.

47-139 *iraci, ustu ta egozten* < *hutsten, isurtcen eta chutcatcen* (GGero 534). Balirudike Axularrek erabiltzeak (cf. 47-117) gogora ekarri diola *irazi*-ren beste adiera bat (ik. 47-140 eta 47-145 ere), agian ezagunago zuena: cf. *mats garau irazietatik* (LoraS 55, ap. OEH, s.v. 1 *irazi*).

tuten, ez usaiñic, ez coloreric, ez loiric: dan guztia ustu, garbitu ta ateretan da. Alan bada, guc bere pecatuac confesetan doguzanean, bear dogu gueure
 145 gogoa, borondatea ta biotza gaistaqueria guztietaric ustu, utsitu, iraci, garbitu, ura egon dan ontzia leguez, ondaquinic, arearic, ondarric, pecatuen usaiñic, ez atsic bapere baga guelditu.

Bai baña, confesiño au ceimbateric ceimbatera eguin bear ete da? Asco ete da gueroco luzaturic, urtean bein confesetea? Dudaric, bada ezpadaric
 150 eztago, bearturic, premiñaturic gagozala confesetara: Jesu Cristoren aguintea da; bada, ichiric bere Elessa santan sacramentu confesinoco au, ta emon ezquero pecatuac parcatuteco escubidea sacerdote confesoreai, esanic dago onei autortu, aguertu, confesatu bear badeutséguzala pecatuac. Confesatu bear gara, bada, edonos bere. Jaquina da, confesatu bear gareala eriotza orduan, eriotzaco peligruan icusten gareanean, daquigunean ecin confesatu
 155 izango gareala dempora lucean, edo secula. Bai ta dirudi, bein Jesu Cristoc ifini ezquero confesiñoco aguindua, euqui ebala intenciñoa ta borondatea confesa guindecela batzuetan, eriot[z]aco peligruan ez guengozanean bere, confesiñoti etocen on ta ondasunac gaiti. Onegaiti Elessa Ama Santeac euqui dau onetan beti contu andia; <340> eta artu ditu bere neurriac, bai ta aguindu bere, confesa gaitezala, eriotzaco peligruan ez egon arren; celan demporac, alan emon ditu ordenamentu diferenteac.

Lenago, Apostoluen demporan ta oneec il ezquero lenengo fededunen demporetan, ain debociño andia, sutua, beroa zan, ce egunero comulguetan
 165 cirian; ta orretaraco, peccaturic euqueenac egunoro confesetan cirian. Baña guero, debociñoa oztuten asi zanean, aguindu eban San Fabian Aita Santuac, sarriago ta gueiagotan izango ezpazan bere, urtean iru bider iru Pazcoetan confesaturic, comuniño santua artu guenguiala. Guerorengo demporetan orrembeste otzitu, epeldu, guichitu, amatau zan debociñoa, non Inocencio
 170 irugarrenac aguindu bear izan eban urtean bein edolabere edo guichienez confesatu guindecela, ta artu comuniño santua Garizumaco Pazcoa loratuan. Eta beragaiti orain, eriotzaco arriscuan ezpagagoz bere, bearturic gagoz urtean bein edolabere confesetara. Eta urteango confesiño au eguin oi da comunqui Garizuma ondoco Pazcoan edo lenagoco egunetan, celan dan usanza. Cerren orduan artu bear dogu comuniño santua, ta Jesu Cristoren
 175

47-145 *ustu, utsitu* < *husttu* (GGero 534); cf. *VB ustu, utsitu* “vaciar” (< *HH*).

47-146 *arearic*: bitxi suertatzen da hemen, *ondarric*-ek burura ekarria, nonbait; cf. *bat ere hondarric, cutsuric eta beccatuaren usainic eta urrinic gabe* (GGero 534).

47-151/153 *bada, ichiric... pecatuac*: Añibarroren eransketa.

47-155/156 *ecin confesatu izango gareala* < *ezcaitezqueyela secular confesa* (GGero 534).

47-160 *onetan*: gainean erantsia.

47-174/175 *Garizuma ondoco Pazcoan edo lenagoco egunetan, celan dan usanza*: cf. *eguiten ohi da comunzqui bazco garizumacoz* (GGero 536).

Gorputz beneragarria artuco dabena, baldin badago pecatuan, lenic confesatu bear da.

Baña nor izango da cristiñau artean, urtean bein bacarric baño confesatuco eztanic? Urte osoan egongo danic bisitatu bague bere conciencia; icusi
 180 baga celan dagoan bere arimea, artu bague sacramentu santu onec emoten dituan graciac, osasuna, indarra ta arimazco ondasun ugari ceruzcoac? Edo zara cristiñau ona, edo gaistoa. Ona bazara, celan iraungo dozu onean confesatu bague? Gaistoa bazara, celan ondu ta peccaturic urtengo dozu confesatu bague? Esango dozu: Elessa santeac ezteust aguinduten, ezpada urtean
 185 bein baño confesetea; bada, orrela ondo nabil, ez gueiagotan edo sarriago confesatuagaiti. Eguia da Elessa Ama Santeac aguindu, premiatu, beartuten etzaituela gueiagotan; baña ezteutsu eragozten. Lenago bai, gura leuca gueiagotan confesatuco baciña. Eta onegaitic diño *urtean bein guichienez*;
 guichienez, edolabere diño, adietan emoteco gura leuqueala gueiagotan, sarriago bere eguingo bacendu. Bada, andiac dira confesiño ondo eguiñetic
 190 datozan onac, probechuac, irabazteac; bai ta bere meatz, belu, berandu, guichitan confeseteaganic sortuten direan calteac, atzerapenac ta zorigachac, urrengo buruan eracusico direan leguez.

47-180/184 *artu bague... confesatu bague?*: Añibarroren eransketa.

47-184/185 *ezpada urtean bein baño confesetea* < *urthean behin baicen cofesa nadilla* (GGero 536). Añibarroren pasartea eskasa da: *ezpada* eta *baño* biltzeaz gainera, erreparatu *aguinduten osagarria confesetea* dela.

47-187 *leuca*: leh. *leuque*.

47-190 *confesiño ondo eguiñetic* < *maiz cofesatcetic* (GGero 536), hariari eutsiaz, Añibarrok ez bezala.

47-192 *confeseteaganic*: ik. § 5.1.1.3.

47-193 *eracusico direan leguez* < *aguerico den beçala* (GGero 536); *ad sensum*-eko komunztadura.

48. BURUA

Sarri confesatzeac dacartzan ónac.

1 §.

- 5 Icusiric persona asco direala naguiac, atzeratuac, lotuac, gogo guichicoac sarri confesetaco, berba eguingo dot buru onetan, ta eracusi, ceimbat on ta ondasun dacartzan ascotan ta sarri confeseteac; eta ceimbat calte, guichitan, meatz eguiteac; au ondo gogoraturic, abiatu, aurreratu, prestatu ta oitu dedin bacochoa, sarri ta ondo confesetara.
- 10 1. *Lene[n]go errazoia* sarri confesetaco da, confesinoac pecatuan dagoanari bere pecatu guztiac parcatuten deutsezalaco; gracion eztagoanari gracia, ta gracion dagoanari ta santua dagoanari gueituten deutsalaco gracia, birtutea ta santutasuna. Onetara eranzungo dau batec: Celan ori alan izan diteque? Celan confeseteac aci, ascotu, andiagotu lei gracia ta santutasuna le-
- 15 nagocoaren ganean? Bada, confesiñora elduten dana pecatuan dago, pecaturen bat dau; eta ezpaleu secula eguin, ez leuca confesatu bearric. Baña, orrez

48-5 *lotuac*: ez da ezinezkoa (cf. *OEH*, s.v. *lotu* 8), baina bai zalantzakoa, jatorrizkoan *loti* baitago (*GGero* 537).

48-11/12 *gracion eztagoanari gracia*: *emoten*-edo falta du, Añibarroren aldaketa burutugabe bategatik: cf. *cofesatceac emaiten dio beccatutan dagoenari bere beccatuen barccamendua*; *garaciaric eztuenari, garacia* (*GGero* 537). *eztagoanari*: aurrean *dagoanari*, ezabatua.

48-12 *santua dagoanari* < *saindu denari* (*GGero* 537); ik. § 5.1.3.8.

48-15 *elduten dana* < *heldu dena* 'datorrena' (*GGero* 537); ik. § 5.3.4.

48-16 *secula eguin*: gainean erantsia; cf. *ceren hala ezpalego* (*GGero* 537-538). *confesatu bearric*: aurrean *cer*, ezabatua; cf. *ez luque cer cofesaturic* (*GGero* 538).
Ondoan hauxe dio Axularrek: *Beraz, etçuen lehen garaciaric, eta ez saindutasunic, eta baldin ezpaçuen, erran ahal diteque, cofesatceac emaiçten dioela garacia. Baina ecin erran diteque berretcen dioela* (*GGero* 538).

guztiaz, esan lei aci ta gueituten dabela gracia, len euca[na]ren ganera. Bada, presona asco datoz confesetara pecatu mortalic baga, pecatu benial edo chiquerracaz; bai ta asco datoz lenagoco confesiñoric oraingora pecatu borondatezcoric arean bague eguin eztabenac. Batzuei ta besteai gueituten jaque gracia; eta pecatu mortalean dagoanari emoten badeutso gracia, edertasuna, parcaciñoa, cer eguingo eztau graciazco estaduan dagoan bati? Ce gracia ta ondasunac emongo ezteutsaz arima bati, Jesu Cristoren odol, merecimentuacaz nasturic dagoan sacramentu santu onec? Emen emoten dan graciari chiquienac, munduco ondasun guztiac baño gueiago balio dau; ta beste munduan bere, emendic gracia gueiagoaz doianari gloria gueiago emoten deutsé.

2. *Bigarren errazoia* sarri confesetara abiatuteco da, ascotan confesetear arindu, guichitu, laburtuten dabelaco Purgatorioco pena, ta pena aetan egon bear dan demporea. Ondo confesetan danari parcatuten jaco ta guichitu zor daben penaric zati bat. Eta aimbeste bider confesa liteque bat, ta ain ondo, non eldu liteque santua izatera ta <342> zor guztia quitutu ta ordetutera.

Purgatorioco neque-pena, laztasun ta suan ondo pensetan dabena zaletuco da sarri confesetara; ceruzco garbitegui onetan bere faltaric chiquienac icuztera, lembait len confesetara. Bada, mundu onetaco penaric icaragarrienac eztabe cer icusi, Purgatorioan igaroten dan penaric chiquienaz. Orregaiti bada, oitu ta ecandutu bear gara sarri ta contuz confe[se]tara.

3. *Iruugarren errazoia* da, sarri ta ondo confeseteac aserreraozoten deustalaco deabruari, quendu bere indarrac, ebagui bere sareac, amuac, laquioac; igues eraguiten deutso deabruari; ifinten dau zorabiaturic, cer eguin eztaquiala. Becatuan egonic, dempora lucean confesatu bague dagoan ariman escu andia dau deabruac: an bici da; aren jabe, nagusi, aguintari ta gobernari da. Baña becatu eguin ta bertati confesetan danari bildur andia deutso; aldeguiten da beraganic; ezta agaz fiatzen.

Ceuc bere ezteutsazu ceure secreto bat fiatzen persona barrichu, min luce, ao zabal, erausle, berba asco diñozan bati. Bada, Espiritu Santuac di-

48-17 euca[na]ren: aurean ceuq] (ceuquenaren?), ezabatua.

48-18 pecatu benial: aurean ta, ezabatua. Hemendik hasi eta Emen emoten dan graciari chiquienac... hasten den esaldiraino (48-24), Añibarroren burutik ateratakoa da. Axularrek honen ordez dioena ikusi nahi duenak eta beccatu mortalic eztuena, Iaincoaren gracion dago esaldi bukaeratik aurrera, non hartaric den graduric ttipienac ere, mundu guztiac baino gueiago valio baitu zatiraino (GGero 538) kontuan hartu behar du.

48-20 arean bague eguin eztabenac: bague soberan dagoela dirudi; ik. 39-56. oh.

48-22 cer eguingo eztau... dagoan bati: datiborik ez aditzean (ik. § 5.1.3.5).

48-26 emoten deutsé: ondoan hauxe dio Axularrek: Beraz, maiz behar da cofesatu (GGero 538).

48-45/46 barrichu, min luce, ao zabal, erausle < erasle handi, minçatçaille, aha-çabal, hitz mitzti, elhaberriti eta salhati (GGero 540).

ñolez: Adisquidearen secretoa zabaldu, camporatu, aguertu, salatu ta eracusten dabenac galduten dau ñoc agan daben sinistea, eztau mereci ñoc gauza ezcutaturic fiatu daguion. Alan bada, deabruac bere dacusanean zuc
 50 ceure biotzeco pecatu ezcutatua aguertuten deutzazula confesoreari, ezta zuzgaz fiatzen, galtzen dau zugar daucan fidantzea ta sinistea. Icusiric ceure burua salatu ta aguertuten dozula confesiñoan, largatzen zaitu; etzaitu andic achina len beste bider tentatzen pecaturaco; dacusalaco ezabela probechuric ateraco, ta ac eguiten deutzun guztia confesoreari aguertuten deutzazula.

55 Guichitan confesetan direanac dira deabruaren egoquiac, adisquideac ta serbitzari fielac, leialac; oneec dira bere secretario secretoac, issilac ta dempora lucean euren biotzean pecatua ezcutaturic ta gorderic equi daroenac. Beragaiti bada, bear cenduque ceimbait lasterren confesatu, alango ugazaba gaistoaren secretario secreto-gordeguilla ta serbitzaria ez izateagaiti, ari damua ta naibaguea emoteagaiti, ari ernegarazo ta gogaierazoteagaiti.
 60

<343> 4. *Laugarren errazoia* cegaiti sarri confesatu bear dan da, osoro ascotan confesetan danaren biotzean eztirialaco pecatuac gogortuten, sus-traituten, barruregui errotu ta sartuten. Esango dozu: Asco dacusguz sarri confesetan, bai ta lenagoco gaistaqueriara biurtzen; jausi ta jagui dabilz; garbitu ta andic laster loituten dira. Cetaraco da, bada, sarri confesetea, garbitu ta ezainduten ibiltea? Ce probechu dan, diñozu? Bada, dirautsut andia dala. Bada, sarri jausten badira, laster jaguiten dira; ascotan gaissotuten badira pecatuaz, ascotan osatuten dira. Eta osaturic, sendaturic, indarturic dagozan bi-tartean, jaguiac, garbituac dagozanean, dei eguin leie Jangoicoac; il leitez-quez orduan; eta bai salbatu. Eta alan, batean jausi, bestean jagui dabillanac,
 70 arriscua badauca bere galduteco, baña ez beti jausiric dagoanac laimbeste.

Eguia da confesetan zareanean equi bear dozula ez barriro pecatura biurtzeco gogo ta borondate sendo eguiazcoa. Baña alan confesatu ta bere,

- 48-53 *len beste: aurrean orre] (orrenbeste?)*, ezabatua; cf. *etçaitu handic aiticina hanbatetan tentatcen* (GGero 540).
- 48-55 *deabruaren egoquiac < deabruaren gogaracoac* (GGero 540). Cf. “Egokijak, (en varios oficios) los parroquianos” (Mg *PAbVoc*, ap. *OEH*, s.v. 2 *egoki* 3; ez dago Mg *PAb* 63z beste adibiderik inon).
- 48-56 *secretario secretoac*: hitz jokoa Añibarrorena da, Axularrek bestela jokatzen baitu hitzarekin: cf. *hec dira haren secretariac, haren beccatu sequeretuac, sequeretu, dem-bora luceaz eduquitcen dituztenac* (GGero 540).
- 48-58 *ceimbait*: ia beti *ceimbat* erabili arren (cf., adib. 45-99, 47-54, 51-61 edo 54-115/116), azkenalde honetan beste hiru agerraldi ditu *ceimbait*-ek (54-120, 56-124 eta A-31).
- 48-59 *secretario secreto-gordeguilla < secretari* (GGero 541). Hitz joko etimologikoa.
- 48-61/62 *osoro ascotan: osoro* gainean erantsia, < *maiz* (GGero 541).
- 48-65 *garbitu*: aurrean *loitu*, ezabatua.
- 48-73 *eguiazcoa*: leh. *eguiazcoaz confesatu*; cf. *behar duçu ez berri bihurtceco vorondate-arequin cofesatu* (GGero 541).
alan confesatu ta bere < hala cofesaturic ere (GGero 541). Hau izan liteque *-ta* parti-zipioaren lehen agerradi argia (ik. § 4.3.8).

75 ceure argaltasun [ta] griña gaistoz biurtuten bazara pecatura, eztozu orregai-
ti atzeratu bear confesiñoric. Bada, onela etzara gogortuco, ustelduco, arri-
tucoco pecatuan. Sarri garbitu ta erabilten dan ezpatea, prest dago arin garbi-
tuteco. Baña guichitan dabillana, lurrean edo ezcotasunean datzana,
uguertuten da, maguiñan josiric ta oraturic leguez dago; alangoz ece, nos
80 guero bear dozunean, ecin ateraric zabilz; arerioac zugaz gura dabena eguin
lei. Au berau jazoten jaco dempora lucean confesatu baga dagoanari, peca-
tuan uguertua, artua, oratua, josia, gogortua, eransia dagoanari. Gaissotasu-
na jatorconeanean, eriotzea aurrez aur ifinten jaconean, arerioaz batuten danean
eztago oituric, eztago prestaturic; ta prestatu ta abiatuten dan bitartean, egui-
ten dau arerioac berea, ta gura dabena.

85 David profeta santuac diño: Gaubaz eguin ta ateretan nituan nire peca-
tuen contuac ta gogoetac; ta guero iñarreaz, izuzquiaz igaroten neban neure
conciencia. Bada, iñarreaz sarri igaroten dan echea, erraz garbituten dan le-
guez; eta urtean bein baño garbitzen eztana, nequez ta gach garbituten dan
leguez, dituan sastamarra, auts, amaraun ta loiqueriac gaiti: alan, sarri con-
90 fesetan dana laster, arin, erraz garbituten da; baña nequez <345> guichitan
eguiten dana; cerren lucecor ta beranducor, nagui, nasai, epelai pecatu ta loi-
queria asco eransi, oratuten jacazan. Beraz, sarri ascotan garbitu eta confe-
satu bear da.

95 5. *Boscarren errazoia* sarri confesetaco da, confesiñoaren bitartez biztu
ta cobretaco graciazco egoeran cengozanean eguin cenduzan gauza ónac,

-
- 48-74 *argaltasun [ta] griña gaistoz*: ondoan *ta arg*] ezabatua; hau jarri beharrak lehen *argaltasun* eta *griña* artean zegoen *ta* ezabarazi dio, baina damutzerakoan ez da hartaz gogoratu.
- 48-76/77 *prest dago arin garbituteco*: pasarte buruan duenak gogoratuko du Axularrek ez dioela Añibarrok bezala, hauxe baizik: *prest da, manucor da* (GGero 542).
- 48-77 *lurrean edo ezcotasunean datzana*: beste horrenbeste hemen, Axularrek hauxe baitio: *çoccoan datçana* (GGero 542). Añibarrok *garbitasuna* eta *ugertasuna* erkatzen dituen bitartean, Axularrek erabilgarritasunaz hitz egiten du.
- 48-78/79 *nos guero bear dozunean*: ik. § 5.2.9.
- 48-86 *iñarreaz, izuzquiaz igaroten < isatsaz iragaiten* (GGero 542); cf. *VB iñarrea* (b.), *isatsa* (n.) “escoba” eta *izuzquia* (c.) “escoba hecha de otras matas”.
- 48-87 *Bada, iñarreaz*: ondoan *garbituten dan echea sarri*, ezabatua; cf. *Bada, nola isatsaz maiz iragaiten den etchea* (GGero 542).
- 48-87/88 *dan leguez*: ondoan hauxe dio Axularrek: *ceren harc fits-mits eta liquitsqueria guti baitu* (GGero 542).
- 48-89 *sastamarra*: ik. § 5.1.1.1.
- 48-91 *cerren*: ondoan *oni*-edo, ezabatua; cf. *Ceren hari...* (GGero 543).
- 48-92 *garbitu*: ondoan *bear da*, ezabatua; cf. *maiz behar da garbitu, maiz behar da cofesatu* (GGero 543).

ceintzuec cirian ordu atan obra biciac, meritugarriac, eta guero pecatu eguiñaz il ta amatau cirean. Au ondo adituteco, jaquin bear dozu lau eraco, moldeco edo suerteco obra idoroten direala, orain gure conturaco ondo datoce-nac.

100 Lenengoac dira *obra* edo eguite *biciac*; eta dira graciazco egotaldian edo pecatu mortal bague cengozanean eguin cenduzan obra onac. Bigarrenac dira *obra iltzalleac*, eriotzea-emolleac, arimea ilten dabenac, eta dira pecatu mortalac. Irugarrenac dira *obra illerazoac*, ilduac, ilduratuac, loac artuac, sortuac; eta dira araco graciazco estaduan eguin cirean obra on guztiac, pe-
105 catu mortalean guero jausi ezquero, gueldituten direanac illic leguez, bicitzaric ezpaleucan leguez, ta ceruco gloriara eroien bidetic camporaturic, alderaturic gueldituten direanac; esturic, loturic leguez. Bada, obra illeratu, lotu, loac artu oneec biztu, bizcortu, barrerotuten dira ondo confeseteaz. Confesiño santuac quendu ta ebaguiten deutsee pecatuac ifini eutsezan lo-
110 carriac, cateac, eragozgarriac.

Laugarren obrac dira *eguite illac*: eta dira pecatu mortal eriotsuan zagozala eguiten dozuzanac. Pecatu mortalean zagozanean eguin daroazuz gauza on asco: barauac, oraciñoac, limosnac ta beste obra misericordiazcoac. Oneec guztioac berez, bere eguitez ta izatez dira obra onac. Baña presona il
115 batec ecin leiquean leguez obra biciric, ta zu orduan illic zagozalaco gracia-
ren bicitzea бага, gai onetan zure eguite on guztioac dira illac, balio guichicoac ta ceruan sarituco eztireanac. Eta alan, erruquigarria da peccataria bere alper-eguiteagaiti bere: <346> bada, pecatu mortalean dagoanean, bicitzaric eztabé bere lan eguite onenac. Beste calteric ezpalego bere, onegaiti bear
120 cenduque ceimbat lasterren confesatu.

Onetara esango dau batec: Ori orrela bada, pecatuan nagoan bitartean ez dot atera bearric barauric, ta utsac izango dira nire oraciñoac, debociñoac, errosarioac, mecenzutea ta beste eguite onac. Ez, eztira orduan bere larga bear; orduan dira bearragoac, Jangoicoac lagundu daizun peccaturic urteten;

-
- 48-96 *meritugarriac*: Añibarroren eransketa; cf. halaber *sentimentugarri* (53-266).
48-102 *eriotzea-emolleac*: sic, cf. *eriotza-emolle* (53-224) eta *eriotz-emollea* (*MisE* 148, ap. *OEH*); ez dauka kiderik Axularrenean; antzeko baterako, ik. 12-130. oh.
48-103/104 *illerazoac, ilduac, ilduratuac, loac artuac, sortuac* < Opera mortificata. *Obra hilduac, hildumatuac, lohacartuac* (*GGero* 543). Cf. *VB* “mortificar: c. *illerazo, ilduratu*” (< *HH*).
48-106 *ezpaleucan*: eta ez *ezpaleuquen* (ik. § 4.2.1).
48-107/108 *illeratu, lotu, loac artu* < *hildu, hebaindu, lohacartu eta trabatu* (*GGero* 544). *illeratu* hapaxa da, dakidalarik.
48-114 *Oneec guztioac*: aurrean *Bada direanac*, ezabatua, < *Eta hauc guztioac* (*GGero* 544).
48-116/117 *guichicoac*: aurrean *baguecoa[c]*, ezabatua; < *deus guti valio dutenac* (*GGero* 544).
48-117 *peccataria*: jat. *peccataria* (arg. zuz.), < *beccatorea* (*GGero* 544).
48-118 *alper-eguiteagaiti* < *alfer travaillua gatic* (*GGero* 544).

125 orduan bere cerbait balio dabe, ceruraco ta ceruan sarituteco ezpadira bere, baña bai lagunduteco biotza bigunduten, munduco ondasunac erdetsiteco, graciaco bidera ecarteco, pecatu guichiago eguiteco, pecatuan ez gogortu ta ez ustelduteco, ecandu onetara eguiteco, ta beste maquina bat gauzaraco. Alan eracusten dau Santo Tomas dotoreac. Jangoicoac bere ontasunagaiti
130 aetaric artuten dau bidea, obra onac eguiten dituanari, pecataria ta pecatuan datzana bada bere, on eguiteco, escua emoteco, arguiac biraltzeco, bide onera ecarteco, falta jacana betetzeco. Eta bitartetasun ta laguntza onegaz abiatu, asi ta prestatzen da pecataria gracia irabazteco.

Orregaiti bada, dana dala, ta pecatuan bazagoz bere, eguizu on, ez larga
135 oraciñoac ta debociñoac; bada, aldez edo moldez cerbait balioco deutsue; baña ez confesatu baciña leguez. Eta alan, obe da dempora alic guichienean bere pecatuan ez egotea ta sarri confesetea.

6. *Seigarren errazoia* cegaiti sarri confesatu bear dogun da, cerren urtean bein baño confesetan eztanac, dirudi nai ta nai ez, bearturic, premiñaturic, borondatearen contra confesetan dala; ta adietara emoten dau, bearturic ezpalego, ez litequela orduan bere confesatuco; eta onelacoen confesiñoac entero guichi balio dau. Comunqui pecataria pecatu eguin barrian bildurrago, estuago, larriago, antsiatuago dago, andic urte bete baño. Becatu baten jausten zareanean, albait lenen ta ordu berean confesatu bear
140 cintequez. Bada, lucetuten badozu, aztuteco peligruan ifinten zara; eta ez bacarric ori, baña bai ta pecatu gueiagotan jausteco arriscuan, diño San Gregorio dotoreac.
145

Itanduco baceunsqiuo luzaro gaisoric dagoan bati, ea celan eztan osatuten. Eta eranzungo baleusquizu alan dagoala osagarri bat ez artuteagaiti,
150 osaguille bati ez deituteagaiti, mirarituco cintequez, ta errazoiaz esango ceunsqiuo ero zoro burubague <347> bat dala. Alan da, bada, cenzunbaguea, confesoreagana, arimeco medicuagana ez joateagaiti urte guztian, ain dem-

48-128 *onetara*: leh. *onetaraco*.

48-129 *Santo Tomas dotoreac*: orain artekoan aski aske ibilita, hemen ondoko zati hau itzuli gabe uzten du: *Beccatoreac beccatutan dagoenean, eguiten dituen obra onec, valio ezpadute ere deus ceruco loriaren erdiesteco; eta obra on hequen gatic beccatore harc, laincoaren alderacoçat buruperic ecin baduque ere: ceren obra on hec bere baithan hillac baitira, ezpaitira deusen merecient* (GGero 545-546).

48-134 *bazagoz bere*: aurrean *badago bere*, ezabatua; cf. *beccatutan egon agatic ere* (GGero 546).

48-135 *aldez edo moldez* = GGero 546.

48-136/137 *obe da... ez egotea < hobe da bethiere ahalic eta gutiena beccatutan egoitea* (GGero 546). Ideia aldaketa egiteko, *dempora, bere eta ez gainean erantsi ditu*.

48-140 *adietara emoten*: ik. 10-32/33. oh.

48-143 *andic urte bete baño < handic urthe baten edo biaren buruan baino* (GGero 546).

48-150 *cintequez*: ondoan ta *uste izan*, ezabatua; cf. *miretz ceneçaque, eta arraçoinequin erran ciniçaio...* (GGero 547).

155 pora lucean, garizuma edo aste santuguño arimaco gaisotasunean dagoana bere. Buruco min batec, calentura sucár andi batec edo beste gaisotasun bici contraco batec artzen zaituanean, bertati, bereala, lembait len zoaz erremedioaren billa, osaguilleric onenari deituten deutzazu. Cegaiti, bada, gorputzeco gaisotasunean eguiten dozuna eztozu arimeagaiti eguingo? Orren guichi balio dau ta orren guichitan dozu ceure arimea?

160 Zorrac dituana, baldin prestua, contuzcoa bada, poztuten da aec quitutzeaz, ceimbat lasterren pagatzeaz. Pecatuac zorrac dira; ta onegaiti egunero dirautsagu Jangoicoari: *Parcatu eiguzuz gure zorrac*. Eta, celan mayordomo edo otsein batec, baldin contu onac, zucenac, garbiac emon gura badeutzaz bere ugazabari, eztan egoten urtearen buru ta azqueneraño contuac icusi baga ta bere nagusiaz berba eguin bague: alan guc bere, baldin gure arimeco contuac emon gura badoguz contuz, ciur, artez, ondo ta zorrotz atera ta
165 quitutu, eztozu urtearen cabuguño, garizumaguño larga, ichi ta lucetu bear. Confesiñoa da Jangoicoaz berbatu, contuac emon ta pagatzea.

170 Eta zuc, esan ta uste izanagaiti garizuman edo Pazcoan confesatuco zareala; orduan contuac atera ta emongo dozuzala, orduan zorrac quitutuco dozu[za]lla, engaña cindequez, uts eguin ciñei uste uts orretan. Cer daquizu iraungo dozunez biciric garizumaguño? Orain zuc gura eztozu; eta guero Jangoicoac guraco zaituanez? Jangoicoac esqueñi ta promestuten deutzazu ceure pecatuen parcañoa, baldin ondo confesetan bazara, nosnai, edocein demporan, garizuma ondoan bada bere; baña ezteutsu promestuten, ez segurantzaz ta baiezcoric emoten, icharongo deutzazu garizumaguño.

Gauza arrigarria, ta zoraqueria guztien [ganeco] eroqueria da, pecatu mortalean egonic, gau bat igarotera benturatutea, arriscatutea. Bada, asco doaz arratsean sendoric oera, ta eztira biciric goxean jaguiten. Peligran ibi-

-
- 48-157/158 *Orren guichi... ceure arimea?*: Añibarroren eransketa. *ceure*: leh. *ceurea*.
 48-159 *dituana*: jat. *dituanac* (arg. zuz.); cf. *Çorrac dituenac... atseguin hartcen du* (GGero 547).
 48-161/162 *mayordomo edo otsein*: *edo*-ren ondoan *serbitz*] (*serbitzari?*), ezabatua, < *muthila* (GGero 547).
 48-162 *batec*: leh. *bat*; eta ondoan *eztan egoten*, ezabatua; cf. *muthila, ezpaita... egoiten* (GGero 547-548).
 48-163 *urtearen buru ta azqueneraño* < *urthearen bururaino* (GGero 548).
 48-166 *eztozu*: leh. *eztoguz*; cf. *eztugu urthe guztian, garicumaraino cofesatu gabe egon behar* (GGero 548).
 48-171/172 *Orain... zaituanez?*: Añibarroren eransketa.
 48-173/174 *edocein demporan*: ik. § 5.1.1.4.
 48-176 *zoraqueria guztien [ganeco] eroqueria* < *erhoqueria guztien gaineco erhoqueria* (GGero 548); ziurrenik kopiaketan egindako jauzia: cf. egitura berbera (2-114, 14-65/66, 15-126, 24-73, 41-262, 45-178, 52-106 eta 52-153/154) eta antzeko jauzi bat (52-14/15. oh.).
 48-178 *goxean*: *aurrean goix*] (*goixean?*), ezabatua.

180 Ili gura dabena, peligruan galduco da, diño Espiritu Santuac. Bada orrela, se-
guruan jocatuteco, ezta urte osoan pecatuan egon bear, ezpada lembait len,
laster ta sarri confesatu.

185 7. *Zazpigarren errazoia* sarri confesatuteco da, alan <348> confeseteac
biotzari emoten deutsan atseguin, consolamentu, poz ta zabaltasunagaiti.
Meatz, guichitan, berandu confesetan danari, gach nequezcoa eguiten jaco
confesetea; lotsa da, bildur da, estura larrituan icusten da. Alangoac egune-
tic egunera, gari[zu]maren asieratic azquenera lucetuten dabe confesetea;
eta batzuetan dempora ori bere largatzen dabe. Eta au berau eguin daroe
gaissotuten direanean bere: egun bateric bestera luzatuten dabe; beti guero-
co uste falso engañagarriaz: guero Jangoicoac gogoa ta astia emongo deu-
tseela; guero burua obeto euquico dabela; egun batzuetan larga leguiela; epe
190 ta dempora obe bat etorrigo dala. Eta onelaco lucementuetan dabilzteela,
ceimbat eta ceimbat confesiño bague ilten eztira?

195 Guichitan orraztuten danac, lenengo orraztutean, lenengo aldian orracia
nequez igaroten dau, min eguiten deutso; ulleac nasturic, izurturic, alcar ora-
turic daucazalaco. Baña sarri orraztuten danac eztau gachic idoroten, eztau
minic artuten, erraz orraztuten da. Onela bada, erraz orraztuten da bere ari-
man, urtearen buruan sarri ta demporaz confesetan dana: pecatuac ditu go-
goan; guztiaz gomutetan da; laster concienciaco billacuntza eguiten dau;
guztiac aguertuten ditu confesiñoan; guztiez salatuten da; eztau eragozpena-
200 ric aurquituten; guztia jatorco eraz ta erraz; eztau minic artzen; dendatuten
da pocic confesetara.

205 Enzutea, jaquitea ta icustea bera, sarri confesetan dala bat, asco da bes-
teac á euquiteco ontzat, prestutzat; eta bai uste izateco, guichitan confesetan
dana eztaala cristiñau debotoa, contuzcoa, beguiratua. Bada, bere buruaz ta
bere arimaz contu ona emon gura dabena, ondu ta obetu bere bicia, jadetsi
bere pecatuen parcaciñoa, seguratu bere salbaciñoa, gueitu gracia, igues
eguin Purgatoriotic, goiartu deabrua, benzutu tentaciñoac, ez gogortu peca-
tuan, ez galdu bere eguite onen saria, ta irabaci baquea, pozcarria ta cerua,

48-179/180 *seguruan jocatuteco* < *segurean iocatceco* (GGero 548); cf. *seguruan jocatu*
(5-107/108). *jocatuteco*: jat. *jocotuteco* (arg. zuz.); forma ez da ezinezkoa oro har,
baina *OEH*-ak (s.v.) *CatLan*-en bakarrik aurkitu du, Añibarrok *jokatu* oso sarri
erabiltzen duen bitartean (cf. 4-179, 5-15, etab.).

48-186 *gari[zu]maren*: leh. *garimazumaren*, gaizki zuzendua.
asieratic azquenera: eta eransten du Axularrek: *accabatcetic bazco çaharrera, azquen*
eppera (GGero 549). Ba ote zekien Añibarrok zer den *bazko zaharra*?

48-193 *lenengo orraztutean* < *lehenbiccico orratzta aldian* (GGero 549).

48-194 *ulleac*: aurrean *ill*] (*illeac*?), ezabatua.

nasturic, izurturic < *nahasiac eta içurtuac* (GGero 549).

48-194/195 *alcar oraturic*: ik. § 5.1.2.6.

48-199/200 *eragozpenaric*: ik. § 5.1.1.1.

- 210 confesatu bedi sarri, ta ondo prestatu; larga baga confesiñoa guerotic guerora; lucetu baga garizuma osterá; ta batez bere confesetan dala iru Pazcoetan, Ama Virgiña Abustucoan ta Domnus Santuetan. Au, naguien naguienac; baña persona contuzcoac, illero; birtuosoac, amabostean bein; espiritualac, astero; edo confesariac dirautsén demporan.

-
- 48-209/210 *guerotic guerora*: ondoko guztia, puntu eta aparteraino, Añibarrok erantsia da, Axularren honen orde: *urtheco besta buruetan bedere, Iaincoarequin mintça bedi, contutan iar bedi. Ceren halatan emanen du orai presenteon contu ona, eta guero azquen finean erdietsico du bere arimaren salbamendua (GGero 550).*
- 48-211 *Abustucoan*: leh. *Abustoan*.

<349>

49. BURUA

*Guerotic guerora luzamentuetan dabillanac eguiten deutso
bidebagea Jangoicoari.*

5

1 §.

Santo Tomasec diño, guizonac pecaturic eguin ezpaleu, etzala Jangoicoaren Semea guizon eguingo; ta agui da ezetz: bada, guizondu ezquero, beti ebillan pecatariacaz; euroen laguntzan ebillan; euroen echeetara, bilcun ta maira joaten zan; eurocaz jan, edan, solastu ta berba eguiten eban, guztiac beraganduteco. Orrembestez, ece escriba ta fariseo mali[ci]otsuac aotan erabillén, deunguero esaten ebén, ciñoela: Cer da au? Celan da au? Eztirudi ondo, onelaco presona errespetagarria lagundutea pecatariacaz, guizon gais-to galdu concienciabaguecoacaz; beti dabil euroen artean; eztau beste iño-gaz traturic; galdua izatea da asco, bere adisquide izateco.

15

Eta orrembestera eldu zan fariseoen murmuriau, ce Jesu Cristoc esan bear eutsén ta adirazo irudintza batzuc, eracusteco cegaiti ebillan pecatariacaz, berba eguiten eutseela onela: Zuec diñozue pecatariacaz nabillala, euracaz jan, edan ta berba eguiten dodala. Eta ondo diñozue: alan da, eguia da. Baña etzaitetece miraritu. Eun ardi dituan arzain batec, eunetariac bat galduten jaconeane, larogueta emeretziac larga ta doa galdu bacar aren billa; ta idoroten dabenean, atseguin ta poztasun andiago emoten deutso ardi galdu topatu onec, beste guztiac icustea baño. Jaquin eguizue, bada, pozcari andiagoo artuten dala ceruan bere, penitencia eguiten dabenean pecatari batez, larogueta emeretzi justu penitenciaren premiaric ez dabenez baño.

49-24

ez dabenez baño: honen ondoan hauze dakar Axularrek: Ceren hura baita ardi errebelatuaren edireitea. Hala erraiten du San Lucas evangelistac. Gaudium erit in

25 Bai ta amar diru dituan andra batec, euroetaric bat galduten dabenean, arguia erexeguiten dau, eche guztia aracatuten dau; guero barriz topetan dabenean poztuten da; asten da bere auzoai barri on au emoten, ta oneec dirautsee atseguin dabela, izan dedilla ordu onean: beragaz batera poztuten dira. Jaquin eizue, bada, Ceruco angueruac bere poztuten direala asco, peccatari baten biurrereaz, penitencia eguiteaz, diru galdu au idoroteaz.

<350> Antz, irudintza, bardintza onecaz eracusi ta adierazoten dau Jesus maiteac, andia dala gure Jangoicoac daucan deseoa gu salbetaco; ta onetan artuten dabela atseguña ta poza. Au daracus diñoanean, contentu gueiago dabela peccatari baten penitenciaz, larogueta emeretzi justuen justutasunaz baño.

35 2 §.

Eguia da, bentaja ta aurre andia daroiola justuac peccatariari, onac gais-toari, garbiac ezain loi ciquñari; eta obe dala soñeco barri osoa, zar zatartu zatitu adobatu guelguela baño. Cegaiti, bada, esaten da, orrez guztiaz, atseguñago dabela Jangoicoac peccatariaren penitenciaz, justuaren justutasunaz baño? Onetara onela eranzuten dau Santo Tomasec: Aimbatic aimbatean, ta nolabait ta berez, obe da inocencia edo errubaguetasuna, ta beimbere ezaindu ta loitu bague egotea, loitu ezqueroco garbitasuna baño. Baña, orrez guztiaz bere, diño Jangoicoac atseguñago dabela peccatari beragana biurtuaz, penitenciaz garbituaz, jausi ezquero jaguiaz, beste beimbere jausi eztanaz baño. Bada, onelacoa comunqui gueiago ta cindoago abiatuten da onera, beti justua, mena ta ona izan dana baño. Becaturic eguin eztabenac, ez dau eceren bildurric; baña bere peccatuen penitencia eguiten ta erremediatzen dabilana, beti da bildur, estututen da, arduratuten da, gogoz ta beroz premiñatzen da, contuz dabil; ta alan dabilala, igaroten da ascotan, beti justua izan dana baño aurrerago. Au icusi zan David santuaz, San Pedro ta San Paulo-

-
- 49-27/29 *ta oneec dirautsee... poztuten dira < eta erraiten eguin diatçotela bozcarioac (GGero 552). izan dedilla: aurrean dala, ezabatua.*
- 49-31 *Antz, irudintza, bardintza < Comparacino (GGero 552); puntuazioa Añibarrarena da.*
- 49-37/38 *zar zatartu zatitu adobatu guelguela < çahar pedaçatua (GGero 552). guelguela hapax da, dakidalarik; cf., agian, Azkuek jasotako “gelge (G), enclenque” eta “gelgetu (G), hacerse enclenque”, azkena Lardizabalek erabilia (ik. OEH, s.vv.).*
- 49-40 *Aimbatic aimbatean < Hanbatic hanbatean (GGero 552); ta nolabait ta berez Añibarroren eransketa da, esapidea argitu nahian, nonbait (ik. § 5.3.3).*
- 49-43 *peccatari beragana biurtuaz < beccatore convertituaz (GGero 553); ik. § 5.1.3.1.*
- 49-44 *penitenciaz: aurrean beste, ezabatua; cf. hurrengo oharra.*
- 49-44/45 *beste beimbere jausi eztanaz baño < behin ere erori eztenaz baino (GGero 553); beste-ren erabileraz, ik. § 5.2.1.3.*
- 49-50/51 *David santuaz... ta beste ascogaz: Axularrek Iondone Paulo bat, Magdalena bat eta bertceric anhitz baino ez dio (GGero 553).*

gaz, Santa Maria Madalenaz ta beste ascogaz; ta eguin cirean beste beti justuac izan cireanac baño santuagoac, ta etorri pecatuan jausi baño len izan cireanac baño obeac izatera.

55 Aimbatic aimbatean, ohea da soñeco osoa, zatitu zartua baño. Baña alango zatia, apaindura, atala ta zabalera emon leiquio, ce guero zabalera, gueiera ta zati ac, soñeco barriac baño balio gueiago euqui leiquian. Onegaiti diño San Gregorioc: Capitai batec gueiago estimatu ta preciatuten dau, guerraric igues <351> eguin ezquero, barriro biurturic, balentia andiac eguiten dituan soldadu bat, beimbere igues eguin eztabena ta balentiaric iños eguin eztabena baño. Onela, necazari batec bere gurago dau, maiteago dau bedar charasco euqui cituan lurra, ta guero garbitu ezquero frutu asco dacarrena, iños bedar gaistoric euqui eztabena ta fruturic bere eztacartzana baño.

60 Era onetara, bada, gure Jangoico maiteac bere maiteago dau, pecatu eguin ezquero, gogo osoaz ta borondate sutuaz eguite on santuetara emoten dana, pecatu eguin eztabena, ta obra onac bere otz, epel, nasai eguiten dituana baño. Eta diño, maiteago dabela alaco pecatari eguiatz, finqui ta gogoz penitencia eguiten dabena, beste penitencia bearric ez daben larogueta emertziaz baiño. Ta ori da, len pecatari galdu gaistoa izan zana, eguiten dalaco guero penitenciaren bitartez justuago, sutuago, santuago, maitetsuago, beti onac izan direanac baño.

3 §.

75 Bai ta bere maiteago, estimatuago dau Jangoicoac penitencia eguiten dabena pecataria, penitenciaren premiñaric eztabena baño, cerren peligruan, arriscuan, galdu ta ausi aguinian ibilli direan gauzac idoroteaz, atseguin, contentu ta poz gueiago artzen dan, beti seguruan seguraturic, gorderic, peligru bague egon direan gauzac icusteaz baño.

- 49-51/52 *beste beti justuac izan cireanac < bethi iustu eta saindu ičan ciren batçuc (GGero 553).*
 49-52/53 *ta etorri... izatera: Añibarroren eransketa. etorri: gainean erantsia.*
 49-54 *Aimbatic aimbatean < Hanbatic hanbatean (GGero 553); ik. § 5.3.3.*
 49-55 *zattia, apaindura, atala ta zabalera < pedaçua, appaindura eta berretura (GGero 553). zabalera berretura-ri dagokio, hurrengo agerraldian argixeago ikusten denez: zabalera, gueiera ta zati ac < berretura harc eta pedaçuac (GGero 553). Gogora dezagun berretu gueitu-rekin itzuli ohi duela (ik. 5-72/73, 6-57 edo 6-63. oh., adib.), eta gueiera dela eta, gorago berretura gueitura-rekin ordezkakuta dagoela (ik. 5-73. oh.).*
 49-56 *leiquian: ik. 15-17. oh.*
 49-62 *fruturic bere eztacartzana: partitiboa eta aditzean plurala, < fruituric ere emaiten ez-tuena (GGero 554); ik. halaber 6-102/103. oh.*
 49-69 *penitenciaren bitartez: jat. penitenciaz bitartez (arg. zuz.), < penitenciarequin batean (GGero 554). Kopia hutsa izan liteke, baina baita Axularren egiturak eragindakoa ere. Edonola cf. -en bitartez egitura (4-22, 5-52/53, 16-114/115, 17-25, etab.).*
 49-75 *seguruan seguraturic: Añibarroren hitz jokoia; cf. segureen eta peril gabe egon (GGero 554).*

- Guerraren ostean estimetan da baquea; ecacha igaro danean preciatuten da eguraldi ederra; gaissotasuna joan danean maitatzen da osasuna; otzaren ondoan beroa. Eta, ceimbat eta gueiago, andiago, nequezcoago izan dan gue-
 80 rrea, ecacha, gaissotasuna ta nequea, aimbat eta gozoago, preciatuago, esti-
 magarriago guero ondoco atseguña, poza, gozotasuna. Cer gura dozu
 gueiago? San Agustinec dino. Baldin atseguña atseguin izango bada,
 gozorotasuna gozo, lenagotic bear da apur bat nequetu, aricatu, mindu. Ga-
 85 charen barriric ez dabenac, eztaqui osasuna preciatzen. Lo-gura eztanari, ez
 jaco loa gozo eguiten; ez eta jan-edana bere, ase bete aspertua dagoanari. Ta
 onegaiti edale on batzuc billatuten <352> dituez jate gatzituac egarria biztu-
 teco; ta bizturic, galantoago, gustosoago edateco. Orregaiti ordenatu zan,
 etzeguiola esposo barriari bereala ta egun batzuetan bere esposa emon; ne-
 quez izana obeto estimatu eguiantzat, edo laster emona gorrotau ez egui-
 90 Arzain bat gueiago poztuten da ardi galdua idorroteaz, talde osoan, segu-
 ruan, onean alan dagoala jaquiteaz ta icustez baño. Aita batec pozcari an-
 diago artuten dau, dempora lucean mututuric egon dan seme baten aotic ver-
 ba bat enzuteaz, bere seme guztiac ederto berba eguiten enzuteaz baño.
 Onegaiti, Evangelioco bere ondasun, diru ta senipartea jan-edanetan, deso-
 95 nesqueria ta gaistaquerian urturic ta ondaturic, galdua, ecindua, deseguiña
 biurtu zan seme gaisto gastalari ondatzalleari, eguin eutsan bere aitac fiesta
 andiago, beti bere echean, bere laguntzan, bere aguindura egon zan beste se-
 meari baño. Echecoa beti seguruan ecusalaco, baña bestea galdutzat icusiric,
 cobratu ebalaco. Auxe berau eguiten dau gure Jangoico maiteac, artuten da-
 100 bela consuelu ta atseguin andia damuturic, onduric beragana biurtzen dan

-
- 49-78 *joan*: gainean, *igaro*-ren ordeaz, < *ioan* (GGero 555).
 49-82 *San Agustinec dino*: aurean *diño*, ezabatua; ondokoa gainean erantsi du, < *Dio San Agustinec* (GGero 555).
 49-83 *mindu*: ondoan hauxe dio Axularrek: *Iaquinen bada cer den placera, frogatu behar da lehenic cer den desplacera* (GGero 555).
 49-83/84 *Gacharen... osasuna* < *Gaitcen... ontasuna* (GGero 555). Añibarrok *gach* adiera es-
 tuan ulertu nahi izan du.
 49-85 *jan-edana*: jat. *jana edana* (arg. zuz.), < *ian edanean* (GGero 555).
 49-91 *alan dagoala*: Añibarroren ulerpen txar batetik dator: *...artalde ossoaren, larre onean, alha dela, iaquiteaz baino* (GGero 556). Cf. 4-92. oh.
 49-92/93 *seme baten aotic verba bat*: leh. *seme baten verbea* < *semearen ahotic hitz baten* (GGero 556).
 49-93 *bere seme guztiac* < *bertce seme guztiac* (GGero 556); irakurketa txarra edo kopia hu-
 tsa ez ote?
 49-94 *Evangelioco*: Añibarroren eransketa (ik. § 5.4.2), dagokion izenetik urruntxo kokatua, urrunegi nonbait.
 49-96 *seme gaisto gastalari ondatzalleari* < *semeari* (GGero 556).
 49-96/97 *fiesta andiago*: gainean erantsia, < *besta guehiago* (GGero 556).

pecatariaz; galdu ezquero idoroten dabelaco; peligruan, ondaquizunean, arriscu ta bide oquerrean ebillana segurutzen dabelaco.

4 §.

105 Pecatariaren penitenciaz atseguin andia artzen dau gure Jangoicoac; ta
ori dator pecatariaganaco daucan amoreagaiti. Eta Terencioc diñoalez: Maite-
maite direan personen arteco aserreac, erremuscadac, erriertac izan oi dira
ascotan, lengo maitetasun ta adisquidetasunean sendoago, barrurago, irri-
meago gueldituteco. Alcarregaz berbatu baga, icusi baga egon direan dem-
110 pora atan bere, alcartuteco deseo[a] aci ta gueiagotuten jaque. Alan bada, no-
labait guc aditzeco moduan, Jangoicoari bere aciten jaco, becataria
beragandu ta beretuteco desea ta borondatea, pecataria beraganic aldegui-
nic ta iguesca dagocan bitartean. Eta dirudi ta esan lei, eztagoala contentu,
ez dabela onic, berea eguin artean. Bada, bitarte atan atetara etorriric leguez
115 beti deiez olesca jagoco; ta ori lucero ta beimbere esperanza galdu bague,
Isaias profeta santuac diñoan leguez. Urte batean, bitan ta amarrean ate on-
doan icharoten dago.

Ta alambere, bere burua sor ta gor eguiten dau; gueroco bere <353>
eguin-bidea luzatuten dau. Gauza ezaina, itsusia, sentigarria da, adisquidea-
ri deiez dagotzunean, ez eranzutea, ez jaramotea, ateetan icharoten gogaitu-
120 ric euquitea; eta bereala emon ceunskuion eranzuera ta eguin ciñaiquion me-
sede, gueroco lucetutea.

Bada orrela, gauza ezaina ta donguero eguina izango da, ain maite zaituan
Jangoicoari ta adisquideari, zure penitencia eguiteaz, zu beragana biurtzeaz
ta etorriaz aimbeste atseguin artuten dabenari; beti zure billa ta deiez dabilla-
125 la daquizunari, ez jaramotea, ez eranzutea, ichedoten euquitea, enzun-gor
eguitea, gueroco lucetuaz ta ez bertati eranzuteaz. Dirudi, baldin Jangoicoac
ecergaz euqui ta artu al balei sentimentua, onegaz artuco leucala.

Au alan izanic, esan bear da, andia dala luzamentuetan dabillan pecata-
riac, alan ibilte atan ta bitartean, Jangoico maiteari eguiten deusnan bideba-

-
- 49-101/102 *peligruan, ondaquizunean, arriscu ta bide oquerrean <peril (GGero 556). Cf. VB on-
daquizuna (b.) “peligro”.*
- 49-105/106 *Maite-maite direan < Cinez eta eguiatz elccar maite dutenen (GGero 556); ik. §
5.1.2.6.*
- 49-123 *zure penitencia eguiteaz = GGero 557, gero zu beragana biurtzeaz-en (< eta bide one-
ratceaz, ibid.) egitura normaldu badu ere (ik. § 5.2.2).*
- 49-123/124 *eguiteaz... biurtzeaz ta etorriaz: ik. § 5.5.1.*
- 49-126 *lucetuaz... eranzuteaz: berriz (ik. § 5.5.1); cf. gueroco luçatcea]z[, ez berehala ihar-
destea (GGero 557; cf. Gero 555). Añibarrok GGero-ko hutsa onartu, eta bigarre-
nera zabaldu du.*
- 49-129 *ibilte: aurrean dabil, ezabatua; cf. hala ibiltce hartan eta bitarte hartan (GGero 558).*

- 130 guea, iraina, esquerbaguetasuna ta billauqueria. Eta alaco bidebagueric ez eguiteagaiti bere, eleuque becatariac ibilli bear lucentuetan, guerotic guerora largaric Jaunagana biurtzea.

49-130 *bidebagueric*: leh. *bidebagaric*.

50. BURUA

*Gueroco luzamentuetan dabillan peccatariac eguiten deutsee
bidebagea angueru santuai.*

1 §.

- 5 Espiritu Santuaren esana da, luzatuten dan esperantzeac necatzen dabe-
la gogoa ta larritu arimea. Bada orrela, andia da eguiaz, angueruai lucemen-
tuetan ibilliric eguiten deutseeegun bidebagea. Cerren deseo ta egarri andiaz
dagoz beguira ta zain, ea nos penitenciaren bidez gatozan Jangoicoagana;
eta, barriz, damu artzen dabe luzatu, belutu, beranduteaz. Alan eracusten dau
10 San Agustinec, esanic ondo eguiten dogun guztian poztuten direala angue-
ruac; ta gogaitu, aserratu, damutu deabruac. Esaten danean angueruac poztu
ta deabruac naibaguetuten direala, adietan da gueure aldetic dagoanez poztu
edo tristetuten direala; eta guc eguiten <354> dogunaz onetaraco bidea emoten
deutseeegula. Bada ganerocoan, ceruan gloriaturic dagozan angueruac
15 ecin tristetu litequez; eta ez poztu bere infernuan betico neque gogorretan
dagozan deabru madaricatu zorigachez minduac.

Jangoicoac emonic dauco guizon bacochari bere angueru gordeguilla,
zaina, beguiraguillea. Angueru onec besteen ganetic dauco bere contura da-
goanaren beguiramentu, ardurea ta contua; ta beti dauco aren salbamentua-

50-6 *Bada*: leh. *Ba*; ik. 36-39. oh.

50-7 *deseo*: ondoan *anJ* (*andiaz?*), ezabatua; cf. *desira handi batequin* (GGero 558).

50-14 *ganerocoan*: ik. 2-24. oh.

50-17/18 *angueru gordeguilla, zaina, beguiraguillea* < *Ainguru beguiraillea* (GGero 559). Cf.
VB “Angel de la Guarda: c. *Angueru Guardaco, -datzallea, zaitzalea, beguiralea;*
b. *jaola, zaina*”, eta *Angeru zain, jagola, gordegilla* (MisE 29, ap. OEH, s.v. *gorde-*
gile). *beguiraguillea* Axularren formaren berranalititik sortua bide da.

50-18/19 *bere contura dagoanaren beguiramentu, ardurea ta contua* < *bere cargucoaz contu*
(GGero 559).

20 ren nai gura andia. Jangoicoac ontasunean eguiten daben leguez guizonaren
fabore, alan deabruac bere gaistotasunean gura leuque eguin bere mendean
daucan pecatariaz, diño Santo Tomasec. Lucifer deabruen aguintari, buru ta
capitaiac icentatzen ditu deabru gaisto batzuc, contu euqui daien guizonaz,
25 tentatu, beragandu ta becatu eguitera ecarri daizentzat. Eta onegaiti esan gui-
ñei, angueru on bat dogun leguez gu zaindu ta gordeteco, alan dogula dea-
bru gaisto bat bere, gu tentatu, galdu ta ondatuteco: angueru ona, Jangoico-
ac emonic; ta gaistoa, deabruac biralduric.

Esaquizun ezta angueru bioc euren artean dauqueen guerra ta errierta an-
dia gure arimaren ganean. Biac abiatzen dira, biac equin ta daragoioe lan ar-
30 durazco ta contuzco oni; ta batez bere eriotzaco orduan: bada, orduan da pe-
learic indartsuena, orduan arimearen gorabera guztia, ta neurria alde batera
edo bestera jausteco puntua. Orduan alcar adituric ta arturic batu ta lagun-
duten dira deabruac, esaten dabela: Larga ta ichi dau au Jangoicoac; artu dai-
gun bada guc, daroagun, cerren gurea dan, eta bacochari berea ecin iñoc
35 quendu leio. Inguratuten dabe, esetsiten deutse, tentatu ta desesperaciño
puntura dacardé; ta asco orduan galduten dira.

Azqueneco ordu onetan jatorcoz arima tristeari gogora, bicitza guztian
eguin dituan gaistaqueria guztia; ta icusiric andiac ta asco direala, biotza es-
tutu, jausi ta ilten jaco; gogoeta char tristeac jatorcaz burura; ta diño bere ar-
40 tean: Cer izango da orain nigaz? Ce sentencia emongo deuste? Salbatuco ete
nas? Puntu latza, pausu gacha, lan ardurazcoa, estura bildurgarria, arriscu
izugarria! Cer eguingo dau orduan arima guissagaissoac? Nori deituco deu-
tso bere fabore? Noc escua emongo deutso? Nogaz baliatuco da? Nor eto-
rrico jaco laguntzera? <355> Nor? Bere a[n]gueru gordeguille maitea. Au
45 orduan adisquide ona leguez elduten jaco; onec lagundu ta escua emoten
deutso; onec an inguruan batera ta bestera dagozan deabruac aldeguin, uxa-
tu ta urrinduten ditu. Eta guero dirautso arimeari: Ea arima bildurtua, animu,
biotz artu eguizu; ez bildurric euqui, ez galdu esperanza. Bada, zure peca-
tuac asco ta andiac badira bere, andiago da Jangoicoaren ontasuna ta miser-
50 cordia; zure salbaciñoa gura dau, ez zure condenaciñoa; oraindiño salbaci-
ño bidean zagoz; damutu zaite pecatu eguiñaz.

Orduan Elessa Ama Santeac bere escatu ta erregututen dau, diñoala: Ea
Ceruco angueruac, Jangoicoaren aurrean zagozanac, orain da ordua, orain

50-20 *daben leguez*: leh. *dabena*; azken hau Axularren arrasto izan liteke, egitura aski ez-berdina baita: *Eta nola Iaincoac ontasunean eguiten duena, nahi bailluque Deabruac ere gaixtasunean eguin: halatan Luciferrec...* (GGero 559).

50-33 *deabruac*: gainean erantsia; cf. *Orduan viltcen dira Deabruac eta laguntcen çaitça elccarri* (GGero 560).

50-34 *daroagun* < *daramagun* (GGero 560).

50-44 *Au*: gainean, *Onec*-en orde; cf. *harc orduan...* (GGero 561).

50-46/47 *uxatu*: gainean erantsia; cf. *alde batera eta bertcera bulccatceintu* (GGero 561).

55 bear zaitue arima triste onec; estura andian dago, lagundu eiozue, escua emon eguiozue, eldu zaitece. Orduan arima ac bere barruan segurutasunen bat artzen dau; eguin dituan gauza onac animatzen dabe; ta bere aide ta adisquideac beraganic aldeguiten direanean bere, anche bere alboan berari lagun eguiten, beragaiti erregututen dago bere Angueru Gordecoa; eztau bein bere largatzen, arimea gorputzean dagoan artean.

60 2 §.

Baldin arima au ontasunean, fedean, esperanza firme badago, ta bere uts eguiteac penitenciaz quituturic, urteten badau mundu onetari Jangoicoaren gracia ta adisquidetasunean, noc esan lei ce andia dan orduan Angueru Guardacoac artzen daben atseguña ta poza? Ce burla ta barreac eguingo ezteutsaz arima aren ondoan ta billa ebiltzeen deabru gaisto asmutsu citelai? 65 Onetan artuten dau angueru santuac arima zorioneco au bere besartean; daroa Jangoicoaren aurrera, dirautsala: Jauna, aramen non dacardan nire contura ta ardurara ichi cenduan arimea; aguindu ceustan gorde, escudatu, zaindu, jagon, guidatu neguiala; gorde dot, zure aguindua bete dot; sendoric ta 70 onic biurtuten deusut. Artu eguizu, bada; emoiozu oni ceure gloria; ta niri neure nequearen saria, pagamentua.

Baña, baldin arima ac jagui ta urteiten badau gorputzetic pecatu <356> mortalean dagoala, baldin condenetan bada, orduan deslai largatzen dau bere angueru jagoleac; aldeguiten dau beraganic, dirautsala: A gaisto desleial esquer-gaistocoa, ta nire nequegarria ta gogaicarria! Ce deunguero 75 eranzun dozun, ta ce deunguero emon, zugaz eguin dodazan aleguiñac! Amaren sabeletic urten cenduanetic orainguiño beti zure darraian ta alboan bein bere uts eguin бага ibilli nas. Aleguin asco ta luceac eguin dodaz, zu

-
- 50-55 *eldu zaitece* < *hel çaquitçate* (GGero 561), hots, 'lagun egiozue'.
- 50-58 *Gordecoa*: tradiziorik gabekoa, dakidalarik; cf. *ostera VB Guardaco* (s.vv. *ángel* eta *guarda*), baita 50-64 eta 50-103 ere.
- 50-61 *badago*: gainean, *egonic*-en ordez, < *egonic* (GGero 562).
- 50-62 *penitenciaz*: aurrean *q*] (*quituturic*?), ezabatua; cf. *bere faltac erremediaturic* (GGero 562).
- 50-68 *escudatu*: aurrean *def*] (*defendatu*?), ezabatua; cf. *manatu nenduçun beguira neçala* (GGero 562).
- 50-70 *onic*: leh. *ondo*; cf. *sendoric eta salboric bihurtcen deratçut* (GGero 562).
- 50-72 *urteiten*: ik. 32-103. oh.
gorputzetic: gainean erantsia; cf. *ilquitcen bada, beccatutan dagoela, gorputcetic* (GGero 562).
- 50-74 *aldeguiten dau*: *dau* gainean erantsia, < *apartatcen çaica* (GGero 562).
- 50-75 *nire nequegarria ta gogaicarria* < *ene necagarria* (GGero 562).
- 50-77 *zure darraian*: cf. *bethi ere iarraiçain natçain* (GGero 562), eta, adibidez, *zure jarraian* (EL' 196-197, ap. OEH, s.v. *jarrai*). Trinkoak partizipio gisa erabiltzeko joeraz, ik. 1-108/109. oh.

80 arerio orretaric gordeteco ta orain zaroacen bide gaisto orretaric aldeguiteco. Baña guztia alperric.

Bada, beti eguin dozu ceure borondatea, ez nire esana; ondo azturic euqui nozu; eztozu nigaz conturic euqui; etzara nire adibideaz gobernatu. Galdu dot nire neque ta lan guztia; baña bai zuc bere seculaco ceure burua. Baldin angueru á tristetu ta lotsatu al baledi, uste dot ce alan eguingo litequeala, 85 arima aren galtzeaz ta arerio gaistoac daroela icusteaz. Eta dirudi, lotsaturic leguez dirautseela bere lagun angueruai, Jeremias profeta santuac Babiloniaco erriari cirautsana: Nic eguin dot aleguiña ta nire aldetic dagoana osatuteco Babilonia, biurtzeco Jangoicoagana. Galdu da erriau, galdu da arima au; ta ez dau bestec nic baño damu andiagoric. Baña berac dauca errua: bera 90 galdu da. Niri sinistu, obeditu, jarraitu baleust, ezquinian onetara etorrico; ez neban nic onembeste damu ta naibague orain euquico; ez eta berac bere orrembeste calte, zorigach ta pena orain euquico.

Baña, celan da au? Celan galdu da arima au? Ez eban Jangoicoaren Se-meac onen salbaciñoagaiti emon bere odola ta artu bere eriotza? Etzituan 95 gaissotuten zaneco ordenatu osagarriac, erremedioac, sacramentu santuac? Ez utsan angueru santu bat bere eracusle, guidari, gordetzalletzat emon? Celan, bada, galdu da? Celan condenatu da? Baña angueru santuac eranzuten dau: Eguiac dira oneec guztiac: nire contura egoan, bitarteco andiac cituan; baña etzan baperez baliatu. Batetic, gaissotasun ta gach andia eucan, ta 100 deseo guichia osatuteco; ta bestetic, bere buruz baliatu da, bere gogo uts ta borondate oquerraz gobernatu ta guidatu da, ta ez nire consejuz, adibidez ta esanaz.

Eguiaz damu ta naibague andia emoten jaco Angueru Guardacoari bere cargura dagoan arima bat pecaturic urteiteco luzamentuetan dabillanean; ta 105 oraindiño andiagoa, condenetan jacola dacusanean. Bai ta beste angueru guztiac bere naibague andia emoten jaquee. <357> Bada, guztiac gure salbamentua, ta ceimbat lasterren pecaturic urtenic icustea deseatuten dabe; ta urteten dogunean, poz ta atseguin andia artzen dabe.

Beragaiti, bada, angueruai bai atseguiniña, ta naibagueric ez emoteagaiti, 110 bear guenduque egun beretic, gaurganic, gueroco luzatu bague, eragozgarri guztiac quenduric, salbaciñoco bidea artu, penitencia eguin, Jangoicoagana biurtu, pecatuzco bide ta lagun guztiac ebagui, bicitza on garbi deboto bat asi, guelditzen jacun dempora labur arriscatu au ondo emon.

50-92 *zorigach*: leh. *zorich*] (*zorichar?*); cf. *hunenbat calte eta atsecabe* (GGero 563).

50-95 *gaissotuten zaneco* < *eritcen ceneco* (GGero 563); ik. § 5.1.1.9.

50-99 *baliatu*: *aurrean aprob*] (*aprobechatu?*), ezabatua; cf. *etçaitça deus probetchatu* (GGero 564).

50-104 *urteiteco*: ik. 32-103. oh.

50-107 *lasterren*: jat. *lasterrenen* (arg. zuz.).

51. BURUA

*Guerotic guerora luzamentuetan dabillanac eguiten deutso
bidebagea bere buruari, lagunari
ta munduco gauza guztiai.*

5 1 §.

Baldin luzaro pecatuan egoteaz, irauteaz ta guerotic guerora ibilteaz eguiten badeutségu bidebagea ta injuria Jangoicoari ta angueru santuai; jaquina da, alan eguiten deutsegula gueure buruari bere bidebagea ta caltea. Bada orduan, pecatu mortalean gagozanean, baldin ilgo baguintequez, secu-
10 la betico galduac ta condenatuac izango guintequez.

Guc dogun arerioric andiena gueure burua da. Ezteuscu gueure buruac baño beste ñnoc calte ta bidebage andiagoric eguiten. Gueuc gueure buruac galduten doguz, infernura botetan doguz. Ez dogu ñnogaz aserraturteco errazoi andiagoric, celan gueure buruaz; ez dogu besteri cer erruric ezarri: gueurea da errua, gueu galtzen gara.
15

Eztaquit non dogun gueure adimentua ta cenzuna, eta cetan pensetan dogun; bada, doguzan beste gauza guztia, gura dogu onac izan ditecen; eta baccarric gueure bicitzea, conciencia ta arimea gura dogu gaisto ta charra. Esaidazu, diño San Agustinec, cer da gaistoa, charra ta donguea gura cenduqueana? Ez eguiaz ecer. Nai etzenduque euqui emazte gaistoa, seme-
20

51-9/10 *ilgo baguintequez... izango guintequez < hiltcen bagara... penatu behar baicara (GGero 565).*

51-11 *gueure buruac: ergatiboan (ik. § 5.1.2.5); cf. Ezteracu nehore ere hanbat calte eta bidebage eguiten, nola gueroc eguiten baitiogu gueure buruari (GGero 565).*

51-14 *cer erruric ezarri < cer atchaquia emanic (GGero 565).*

51-17 *dogu: leh. doguz; cf. nahi dugularic diren onac (GGero 566).*

51-20/21 *seme-alaba gaistoa < seme gaixtoa (GGero 566); singularraz ik. 4-169. oh.*

alaba gaistoa, otsein serbitzari gaistoa, ez alcandora charra, ez soñecoa, ez oñecoa. Celan, bada, gura dozu bicitza ta conciencia gaistoa? Edolabere oñetaco caltzerdi edo zapa[ta] baten baño, contu ta ardura <358> gueiago euqui eguizu ceure arimeaz. Celan, bada, dozu ain guichitan, ain azturic ceure arimea? Celan, gura izanic gauza guztiac onac, dozu bicitza gaistoa, conciencia gaistoa, arima pecatuan illa?

Baldin zure echean dagozan gauza guztiac berba eguin al baleguie, zure contra deadar ta chilioa eguingo leuquee, diño San Agustin berac. Zure soñecoac, zure zapatac, zure gauza guztiac esango leusquize: Ceure arimea baño maiteago gozuz; zuc gura dozu gu onac izatea; alan guc bere nai dogu zu ona izatea. Zuc gura dozu ceure eheco guztiac, ceure serbitzariac ónac izan ditecen; guc bere gura dogu zu ona izan zaitezcan; nagusi ugazaba ta ugazabandre onac euquitea. Baldin ceuc dozuzan gauza guztiai itanduten badeutsazue, cer dan zuc dozun gauzaric preciatuena, baliodu[ne]na, maiteena, eranzungo deuntsue, ceure bicitzea ta arimea dala; bada, biciagaiti munduan dan guztia largaco cenduque. Celan, bada, gura izanic beste gauza guztiac ónac, nai dozu, dozun gauzaric maite preciatuena gaistoa izatea? Ecin emon ciñei beste errazoi, achaquia ta iguesbideric, ezpada deabruac itsutu, ilundu, engañatu, zorabiatu zaituala; eta zu zareala ceinegaitic Sofonias profeta santuac esan eban: Itsuturic ibilli cirian, pecatuan jausi ciriala, Jangoicoa aztu ebeelaco.

Guzti onegaiti, egunetic eguneraco lucrementuetan zabiltzan bitartean, pecaturic urteiteco, ceure buruaren arerio cubrela zara. Bada, ondo ta garbiero bici ceintequezala, deunguero bici zara; ta ori, ceure erruz, ceure naguitasunez; ta onetan bidebagea ta caltea ceure buruari eguiten deuntsazu; ceure burua galduten dozu; ceu ceuretzat eguiten zara arerioric gogorrena, gaistoen, caltetsuena, citelena.

-
- 51-22 *oñecoa* < çapata (GGero 566), *soñeko* / *oñeko* hitz jokoari bide emateko, antza denez.
 51-22/25 *Edolabere... ain azturic ceure arimea?*: Añibaroren eransketa.
 51-24 *euqui eguizu*: badirudi *euqui bear dozu* hariari hobeto datorkiokeela.
 51-32 *zaitezcan*: -zan bukaera zuzenduta dago, *zaitecan*-en edo *zaitecen*-en gainean.
 51-32/33 *ugazababa ta ugazabandre* < *nabusi* (GGero 566); ik. § 5.4.4.
 51-34 *badeutsazue*: ohartu subjektua *ceuc* dela hasieran, eta gero zuka jarraitzen duela. Dena dela, Axularrek oso bestela dio: *Baldin galdeguin baliagaçute, cer den çuc duçun gauçaric maitena, ihardets ceneçaque çure bicia dela* (GGero 566).
 51-40 *cirian... ciriala*: cf. Axularren bertsioa: *Ambulaverunt cæci, quia peccaverunt Domino. Itsutuac ibili ciren, ceren beccatutan erori baitciren* (GGero 567).
 51-42 *egunetic eguneraco lucrementuetan* < *Egunetic egunera beccatutaric ilquitceco luçamendutan* (GGero 567).
 51-43 *urteiteco*: ik. 32-103. oh.
 51-45/46 *ceure burua galduten dozu* < *Ceren cerorrec ceure burua galtcen baituçu* (GGero 567). Hemendik eta punturainokoa Añibaroren eransketa da.

2 §.

Onela bada, guerotíc guerora ibilteaz ta egoteaz pecatuan, bidebaguea
 50 eguiten deutzazu ceure lagun progimuari bere. Ascoc esan daroe: Baldin
 gaistoa banas, neuretzat nas gaistoa; eztabe ene pecatuac iñor infernuratuco:
 bacochar bereac jasoco ditu. Eguia da, bacochar bereac jasoco dituala. Baña
 eztiñozu ondo, etzareala ceuretzat baxen gaistoa; ez jatorcola ortíc iñori ga-
 55 chíc, ez calteríc. Bada, celan óna ascorentzat dan on, alan gaistoa bere asco-
 entzat da gaisto ta caltegarri. Ceure bicítza gaistoaz, egemplu ta adibide
 deunguea emonaz, besteri bere, pecaturaco zucembidea emoten deutzazu.
 San Agustíne <359> diño: Besteen aurrean, aguirian ta genteac dacusala ta
 dazauela deunguero bici danac, bere alderíc, beragan danez, aurrean dago-
 60 zan icusle beguiratzalle guztíac ílten ditu, pecatura dacarz. Beragaiti bada,
 ceure buruari ez ece, besteai bere ceure pecatuaz ta bicítza charraz caltea ta
 bidebaguea eguiten deutseezu. Ceímbat bider zure pecatuac gaiti etorri ezti-
 ra beste asco lapurqueríac, desonesqueríac, biraoc ta gaistaqueríac eguite-
 ra? Ceímbat bider castígatzen eztitu Jangoicoac beste inocente justu erruba-
 65 gueac ta erri guztía zure pecatuac gaiti, ez infernuco castiguaz, ezpada
 munducoaz?

Lagun urcoari ez ece, bai ta calte eguiten deutzazu munduco criatura
 errazoiríc eztauquenai bere, bidebague ta injuria eguiten deutseezu, peca-
 70 tuan dirauzun bitartean. Echeco jaunari bidebaguea eguiteaz ta desonratze-
 az, echetar guztíac sentitzen dabe, familia guztía desonretan da. Pecatuan
 egoteaz, Jangoico mundu guztíco echeco jauna ofenditu, desobeditu, lotsatu
 ta desonraturíc, desonretan dozuz bere eche onetaco criatura guztíac, arri-
 guíñocoac: bada, guztíac díra jaun andi onen echetarrac, familiacoac eta cer-
 baíteraco serbietan dabenac, gauzaríc chíqui pítíñenac badíra bere. Zure pe-
 catuaz guztíac ucutu ta jotén díra; guztíac injuriaturíc gueratuten díra.

75 Bada, David erregue ta profeteac diñoan leguez: Zure serbícíoraco orde-
 natuac, sortuac díra; ta zure aguindura ta zure oñeen azpíco ífíníac. Pecatuan

51-51 *neuretzat nas gaistoa < neuretçat naiz gaixto (GGero 567).*
 51-52 *jasoco ditu < iasaneintu (GGero 567).*
 51-54/55 *ascoentzat: ík. § 5.1.1.4 eta cf. ascorentzat (51-54).*
 51-56 *pecaturaco zucembidea < beccatu eraguiteco occasino (GGero 568).*
 51-59 *icusle beguiratzalle guztíac < beha daudenac (GGero 568).*
 51-66 *eguiten deutzazu: gainean erantsía; cf. berriz eguiten deutseezu (51-67), eta Axularre-
 na: baina are munduco bertce creatura arraçoínaz usatcen ez tuten guztíey ere, bide
 gabe eguiten deraueçu (GGero 568).*
 51-74 *gueratuten díra: ondoan hauxe dakar Axularrek: Halaber beccatutan egoíteaz, bide
 gabe eguiten deraueçu sentímenturíc ez tuten creatura guztíey. Ceren guztíac baítíra,
 Erregue Davítec díoen beçala... (GGero 569); bukaeran jadaník Añíbarro lotzen zaío.
 51-76/81 *Pecatuan... zure contra jaguíco lítequez: Ez dago honelakorík Axularrenean, ondoko
 hau baízík: Ordea eztuçu merecí cerbíçuríc, beccatutan çauden bitartean: orduan
 etçara íaten duçun oguíaren ere merecíent (GGero 569).**

zagozan bitartean, direanac zure contra ta euren eguillearen fabore jaguico
 litequez, Jaunac licencia emongo baleutsee. Eguzquiac, illarguiac ta izarrac
 ez leusquizue arguiric emongo, ez ichasoac arraiñic, ez lurrac fruturic; ez
 80 animaliac narru, ezne ta ulleric zu janci ta janarituteco; guizónac, abereac,
 criatura guztiac zure contra jaguico litequez. Cerren egoera gaisto orretan
 zagozan bitartean, zara Jangoicoaren arerio, deabruaren serbitzaria, pecatua-
 tuaren azpicoa, munduan dan criaturaric billauena, chiquerrena, ecerezena.
 Eta eztator ondo, ecer bere eztana cerbait danac serbiete; ta chiqui pitin do-
 85 llorrenac andiagoa bere azpian euqui ta erabiltea.

Bai ta bere bidebaguea eguiten deutseegu munduco criatura guztiai pe-
 catuan egonaz, cerren guztiac gure pecatuac gaiti Jangoicoac <360> casti-
 gatu cituan ta castiguetan ditu. Aimbete castigatzen ditu ce, diño dotore ba-
 tec, eguzquiac, illarguiac ta munduco beste criatura guztiac galdu eben
 90 guizonaren pecatuagaiti bere bertute, izate ta balioaren zazpigarren partea ta
 zatia. Eta alan, errazoiac aserratu liteque eguzquia pecatariaren contra, di-
 rautsala: Ni zugaiti ilundu ta itsaltu ninduan Eguilleac. Bada, orain argui ba-
 nago bere, len neucan argui arguitsuago. Abereac ta animalia adimentuba-
 gueac esan leioe: Zugaiti Noeren demporaco urjola andian ondatu, guichitu,
 95 ito guinduzan. Lurrac esan leio: Len garbia nintzan, frutu ta fruta eder gozo
 ugariac emoten nituan, ta zure pecatuac gaiti aranzaz, elorritz, sasiz, bedar
 charrez bete nas, meatu, erbaldu, indarbagnetu nas. Eta Abacuc profeta san-
 tuac diñolez: Orman josiric ta oraturic dagozan arriac prest dagoz pecataria-
 ren contra emon, esetsi, eraso, jaurt eguin ta jaguiteco. Espiritu Santuac Sa-
 100 lomonen aotic eracusten dau, egunen baten ta azqueneco demporan alan
 eguingo dabela; lurrean direan guztiac pecatarien contra jaguico direala.
 Orain bere eguingo leuque, baleuqué Jangoicoaren licencia, baimena ta es-
 cubidea orretaraco, zu astinduteco, goiberatu ta castiguetaco.

Pecatariac orain guztiai eguiten deutesén leguez guerra, alan orduan pe-
 105 catariari direanac emongo deutse ordea, pagu ta saria bera; moneda berean

51-77 *direanac*: jat. *direaranac* (arg. zuz.).
 51-84 *ecer bere eztana cerbait danac serbiete*: jat. *ecerbere eztanac cerbait dana serbiete*
 (arg. zuz.), < *deusagoac eztheusagoa cerbitça deçan* (GGero 569).
 51-90 *bere* = GGero 569, ohiko *euren*-en ordez.
 51-93 *len neucan argui arguitsuago < are lehen ninduan arguiago eta clarago* (GGero 570);
 Axular hika ari denez, *len nintzan* genuke, noski.
 51-94/95 *ondatu, guichitu, ito < hondatu eta itho* (GGero 570).
 51-95 *guinduzan*: leh. *guinduan*, < *guinituan* (GGero 570) hitanoko forma.
 51-97 *meatu, erbaldu, indarbagnetu < flacatu eta mehatu* (GGero 570).
 51-101 *direan*: *gainean, dan*-en ordez.
 51-102/103 *Orain bere eguingo leuque...*: hemendik eta punturainokoa Añibarroren eransketa da.
 51-103 *astinduteco*: jat. *astindututeco* (arg. zuz.); egiatan *-teco* gainean erantsia da, zuzenke-
 ta modura, azpiko *-tu* ezabatzea ahaztuta.

biurtuco deutsé pagamentu ta quitutasuna; ta galanto bengatuco dira, ta quitutu, orain eguiten jaqueen injuriaz, bidebaguetasunez.

110 Onegaiti bada, ta aimbeste bidebague ta ofensa eguiten jaqueelaco Jangoicoari, noberac bere buruari, lagun progimuari, angueruai, cerupe guztian dagozan criatura guztiai, bear guenduque urrindu pecaturic, ez jausi bertan, negartu len eguinac, biurtu Jangoicoagana, gorde bere legue santua, contuz bici, artu bildur andi bat pecatuari, ez ibilli luçementuetan, ez larga guerotic guerora penitencia, urten len bait len pecaturic, bide onean jarri, ta erabagui biotz-biotzetic ez beste bein pecaturic eguitea.

51-109 *cerupe*: aurrean *ta*, ezabatua; cf. *eta munduco bertce creatura guztiey ere* (GGero 570).

51-110/114 *bear guenduque...*: hemendik eta bukaerarainokoa Añibarrorena da gehiena, honen ordez: *behar dugu ernatu, abiatu; eta luçamenduac utciric, eguin behar denaren, lehen baino lehen eguitera, bide onean iartcera, eta hartan egoitera deliberatu* (GGero 570-571).

51-111 *len*: leh. *lengo*.

<361>

52. BURUA

*Infernucio penac gogoratuteac laburtuten ditu guerotico
guerora ibilteco luzamentuac.*

5 1 §.

Gure Jangoicoac eracusi eban leguez bere al, poderio, aguintaritzta ta es-
cubidea mundua sortu ta eguiteman, jaquituria gobernatzean ta ontasuna erre-
dimitu, erositeman: alan eracusi dau, daracus ta eracusico dau bere justicia
castigatzean. Errazoi eztan leguez, gueldi dedin birtutea bere sari ta paga-
10 mentu baga; ezta on eguiña, igaro dedin pecatua bere, castigu baga. Ain
ondo dagoquio gaistoari infernua, celan justuari cerua.

Asco ta andiac dira (len aditzera emon dan leguez) gure guero onec, lu-
zaeretan ibilteac eguiten dituan calteac, dacartzan damuac, emoten dituan
naibagueac, ernetan dituan zorigachac. Baña zorigaistotasun [guztien] gane-
15 co zorigacha, calteric negargarriena, atsecaberico minena, galduera damuga-
rriena, ta beste guztiac aztuerazo, chiquertu, igaroten dituana da bota, ezarri,
egozten dabelaco azquenbagueco guerora, seculaco nequeetara, betico nai-
bagueetara, ondarric eztaben oxinera, caburic ez daben lecera, amatauco ez-
tan suteguira, iraute guztico infernu icaragarriera.

20 O zu, sarturic zagozana pecatu mortalean, areriotasunean, desonesque-
rian, fama ta ondasun quendua ta ostua biurto bague, pecatuac lotsaz confe-
satu bague, cristiñau fededunaren señaile onic emon bague! Nos urtengo
dozu egoera bildurgarri orretaric? Nos erabaguico dozu eguiatz ta biotzez

52-12/13 luzaeretan < luçamendutan (GGero 571).

52-14/15 zorigaistotasun [guztien] ganeco zorigacha < damu guztien gaineco danua [sic]
(GGero 571); lehenago antzeko jauzi bat ikusiak gara (48-176. oh.).

25 Jangoicoagana biurtzea? Bearbada beti zagoz gogo ta borondateaz ondute-
co. Baña, nos izango da ori? Ez orain, ez gaur: biar, guero. Eta beti gaurre-
retic biarrera, egunetic egunera zabiltzala, gachac artu, eriotzea etorri ta infer-
nura bazoaz?

30 Uste falso uts au zuganic nic aldeguiteco, ecin dot erremedio oberic, osa-
garri sendoagoric, medicina seguruagoric, zure beguien aurrean ifintea
baño, guero ero zoro onec eguiten dituan calteen consideraciñoa. Chacurra-
ren useguina chacur beraren ulleac osatu bear dau; infernuco sua <362> in-
fernuco suaz amatau bear da. Guero eriotza ondoan infernura joan gura ez-
tabena, jatsi bedi orain bicitzan gogoaz. Orain bear ditu ango penac emen,
35 ara бага, gogoratu, gogoan erabilli; ta onela andic igues eguingo dau; ezta
ara joango; ezta pecatuan jausico.

40 Esan oi da, ezpateac ezpatea sartu eraguiten dabela bere maguiñan, bere
toquian. Amorez ta onez onera, gogoz ta borondatez on eguin gura eztabe-
nari, nai ta naiez, gura ta gurez, castiguaren bildurrez eraguiten deusé. La-
purra cec atzeratuten dau, largatzen dabenean ostutea? Ez lotseac, ez beste-
45 en esamesac, ez iñorentzat daucan amoreac. Cec, bada? Bildurrac. Alan
Jangoicoaganaco maitetasun ta beguiramentuac pecatu eguiteric atzeratuten
eztabena bere, infernuco peneen bildurrac atzeratu bear dau.

45 Eta au da dempora guztietan, gure Jangoico maiteac pecatari biotz go-
gorrari bere gogortasuna ausi, beraatu, bigundu, samurtuteco idoroten daben
bide andietaric bat; cemaitu, esan ta gogora ecartea, beguiratu, icusi, gogo-
ratu daguiala arentzat prestaturic ta gorderic daucan castigu parebague bat,
pena latz andi bici icaragarri bat.

50 Onela San Juan Bautistac, cequiana leguez, bere lenengo predicuan ai-
tatu ta icentatu cituan infernuco su ta gar, ta neque arrigarriac. Eguizue pe-
nitencia, ciñoan, ta eguizue ceuroen pecatuai dagoquiena: pecatu andiac gai-
ti, penitencia andia; pecatu ascogaiti, lucea. Bada, jaquin bear dozue,
contuan egon bear zaree, arech arbolaren ondoan azcorea prest ifiniric da-
goala, queñu señalea eguinic dagoala ebaguiteco, surtara botateco, baldin

-
- 52-25/26 *Eta beti gaurretic biarrera, egunetic egunera zabiltzala < Eta bethi guero, bethi bihar, horrela çaudela (GGero 572).*
- 52-31 *beraren: jat. bararen (arg. zuz.).*
- 52-32 *amatau bear da: ondoan hauxe gehitzen du Axularrek: Ezta halaco erremedioric ez guero ifernuratceco, nola orai ifernuratcea (GGero 572).*
- 52-32/33 *eztabena: jat. eztabenac (arg. zuz.); cf. Guero ifernura ioan nahi eztuenac, orai behar du ioan ifernura (GGero 572).*
- 52-34 *ara бага < hara gabe (GGero 572).*
- 52-50 *dagoquiena: jat. dagoquiona (arg. zuz.); cf. dagoquie (11-224, 19-296, 55-63) eta eguin ditutçuen beccatuen arauaz (GGero 573).*
- 52-53 *queñu señalea eguinic dagoala: cf. haizcora çuhaitçaren erroari kheinatua dagocala (GGero 573).*

55 frutu onic ezpadacar. Au da San Juan Bautistaren lenengo sermoia. Au da etorri zanean emon eban lenengo barria, eguin eban lenengo cemaia, oartu eban lenengo adibidea.

60 Eta barri ta cemaia onegaz, onelaco castigua, infernucua sua gaistoentzat egoala enzunic, ain larri bildurturic guelditu cirian an egozan enzuleac, ce gaistoac bacirian bere, etorri cirian itandutera: Ori orrela bada, cer eguingo dogu? Cer izango da gugaz? Celan edo cer eguiñaz igues eguingo dogu, zuc diñozun pena latz andiric, infernucua suaganic? Bautista predicari santu andiac bere enzule aditzalleai orduan cirautseena, dirautsuegu guc bere orain. Eguia da, ez ac leguezco santutasunaz, baña ac cirautsuen eguia bera dirautsuegu guc bere zuei.

65 <363> Ac eracusten ta iracasten eban leguea, fedea, eguiac ta Jangoicoa berbera, guc bere predicatu ta eracusten dogu; eztago onetan diferenciaric. Guc bere dirautsugüe ac leguez, beguiratu daizuela azcorea arbolaren ondoan ifiniric dagoala; eriotzaren codaiñea, sega ta ayotza zorrotzuric, abiaturic, prestaturic dagoala bizitzea ebaguiteco. Garau onac ceruco garauteguira jasoco direala; ta barriz, garau charrac ta lastoa, au da pecatariac, infernucua laba gorian erreac izango direala. Secula betico sutuac, gorituac, quiscalduac ta erreac izango direala.

75 Au da eguia; oneec dira Jangoicoac orainganic eguiten deuscun cemaia, menazua; ta bere predicarien aotic emoten deuscuzan abisuac, eurocaz batean bildurtu gaitezcan; ta icaraturic, asi gaitezcan orain berpetatic eguiten, guero eguiteco ustea doguna; guero luzaumentuetan benturatu bague; bada, eztaquigu guero algo badogu.

2 §.

80 Eguia da, ceruco gloriaren esperanzac, icharomenac, gomuteac, ango atseguintasun, poz ta gozotasunac gogoan erabilteac poztuten dabela cristiñaua; ta bai ondo ta prestuqui bicitzeco bere abiatu ta ifini. Baña comunqui,

52-61 *suaganic* < *sutic* (GGero 574); ik. § 5.1.1.3.

52-67 *dirautsugüe* < *Erraiten deratçuegu* (GGero 574); lehenago *dirautsuegu* (52-62, 52-63/64) erabili arren, forma ziurra da, berariaz jarritako dieresiaz gainera, gorago kideko bat aurkitu eta egiaztatu ahal izan dugulako (ik. 5-19. oh.).

52-68 *eriotzaren codaiñea, sega ta ayotza* < *heriotcearen sega, onen eta gaixtoen arrontateco haiotça* (GGero 574).

52-69 *garauteguira* < *bihiteguiian* (GGero 574).

52-76/77 *bada, eztaquigu guero algo badogu*: geroko eransketa bide da, tinta eta letragatik. Izan ere, *guero luzaumentuetan benturatu bague* bera ere ez dator Axularrenean, hone-la amaitzen baita: *eta icaraturic, guero eguinen dugula diogun ontasuna, presenton daguigun amoreac gatic* (GGero 575).

badogu: *ba-* zehar-galderan (ik. § 4.4.7).

85 obeto ta biciroago eraguiten deutso infernuco bildurtasunac, ceruco gloria-
ren esperanceac baño. Ez gaitu pagamentuac, sariac ta sariaren esperanceac
alan aurreratu, animatu, indartu, bizcortuten ta poztuten, celan tristetu, atze-
ratu castiguac ta castiguaren bildurtasunac. Orregaiti diño San Juan Crisotomoc:
Gomutatu bear gara ceruaz ta ango gloria andi bete miragarriaz; baño are
gueiago infernuaz, ta emen igaroten direan pena ta neque garratz minaz.

90 Bada, osasunac baño, gaissotasunac obeto eraguiten gaituzan leguez, ta
bai etorquizunean bere pensaerazo: alan infernuco gaissotasunac, ango do-
lorezco minac gogoratuteac, obeto ucututen gaitu, beguiratu eraguin ta eza-
guerazo, ceren beguira gagozan, ceruco gloria ta gozorotasun <364> zorio-
necoac baño.

95 Eta au ezta mirarituteco: bada, andiac, cubrelac, luceac, izugarriac, la-
tzac eta gogorrac dira infernuco neque pena oneec. Euroc gaiti esan lei bere
moduan, San Pauloc ceruco gloriagaiti esan ebana. Au da, ezabela iñoc iños
icusi, ez enzun, ez gogotic igaro, celangoac direan. Celan onai emongo ja-
queen saria izango dan neurri bete osoan, guztien ganeco, mugabague ta ecin
gueiagoan miragarria: alan gaistoac euquico daben castigua ta penea izango
da parebaguea, bardinic ez dabena, alde guztiz andia; ain andia ce, izango
100 eztan leguez gustu, consolamentu, atseguinic salbatzen dan batec gozatuco
eztabenic, alan ezta idoroco, ez asmatuco penaric, atsecaberico, naibagueric,
nequegarriric condenatu batec sufritu bearco eztabenic. Onac on guztia,
gaistoac gach guztia. Onac beti ondo, deungueac beti deunguero.

105 Eta eguiteco oni, lan oni bere cimendu ta sustraitic asiera emoteco, ora-
tuteco, escua ifinteco, bai ta bere jaquiteco celacoac diran infernuco penac,
eta cegaiti esan oi dan, oneec direala pena guztien ganeco penac, artu daigun
guidari ta zucen-bidetzat Santo Tomas dotore andia; bada, onegaz batera
izango gara ondo guidatuac, zucenduac, arguituac ta berba eguingo dogu
bear dan leguez.

110 3 §.

Infernuco beste neque-pena ascoen artean bi dira, diño Santo Tomasec,
andienac, icaragarrienac. Bata da *caltepena*, Jangoicoa secula ez icusteco

52-82 *infernuco bildurtasunac*: bitartean *neque* ezabatuta dago, < *infernuco penen veldurtasunac* (GGero 575); ik. § 5.1.1.8.

52-90/91 *beguiratu eraguin ta ezaguerazo, ceren beguira gagozan* < *eta aitcin guibel beha araciten deracu* (GGero 576); *aitzin-gibel*-en itzulpenaz, ik. § 5.3.4.

52-99 *alde guztiz* = GGero 576 (ik. § 5.3.3).

52-105 *bai ta bere jaquiteco*: aurrean *eta*, ezabatua, < *eta halaber iaquiteco* (GGero 576).
diran: ik. 16-46. oh.

52-111 *Infernuco*: gainean erantsia. Kontuan har bedi hemendik hasi eta *Pena bioc* hasten den
esaldiraino (52-114) Añibarrok erantsia dela, gutxi gorabehera Santo Tomasen lati-

penea; bestea da *gorputz-pena*, gorputzac eta arimeac bere cenzun ta almen guztietan igaro bear dituan neque minac ta arrigarriac. Pena bioc dagocaz
 115 persona batec pecatu mortal baten jausten danean eguiten dituan bi gauzari. Lenengo, ichi ta largatzen dau bere eguillea, onguillea, aita ta jabea; ta bigarren, artuten dau criaturea; ta au arturic, beragan ifinten dau bere gogoa, biotza, cariñua, maitetasuna. Atzea emoten deutso Jangoicoari, ta aurrea criatura ecerez bati. Gauza bioc eguinic, era bico penac mereci ditu, castigu
 120 bicocha dagoquoio.

Lenengo mereci dau, berac larga daben leguez Jangoico maitea, onec bere bera largatzea, bere laguntzaric aldeguitea, bere arpegiaren aurretic seculaco botatzea. Pena oni deituten deutso Santo Tomasec *caltepena*, <365> au da, Jangoicoa ez icustea; aren laguntza ta gloriaric beti-betico erbesteturic, arerioturic, icusi ecinic egotea. Eta au da, diño santuac berac, infernutar batec infernuan igaroten daben penaric andiena, sentigarriena, tristeena ta tristegarriena. Bada, ceruan dagoan bati, Jangoicoa icustetic ta bere aurrean ta bere laguntzan egoteric jatorcon leguez on guztia, atseguin betea, gloria osoa: alan infernuan dagoanari bere, Jangoicoa bague egoteric, bere edertasun, laguntza gozoric a[l]deguinic egoteric jatorco bere naibague ta nequeric andiena.
 125
 130

Gauza bat galduten dozunean, damu sentigarria artuten dozu. Eta ceimbat eta ohea, andiagoa, balio preciatuagocoa dan, aimbat eta gueiago ta andiagoa da zure mina. Izanic, bada, Jangoicoa dan gauzaric preciatuena, maitegarriena, gozoena, miragarri[en]a ta zuc bearren dozuna, andia ta bicia izango da, bera galtzeaz artzen dan penea. Andia bada beguiac, escuac, oñac, osasuna ta ondasun guztia galdutea, cer izango da euroc eta beste dogun guztia emon euscuzan Jangoicoa galdutea? Andia ta andiena izango da, bada, Jangoicoa bera galtzeaz artzen dan pena: ecin euqui lei batec calte andiagoric.
 135

nezko pasarteari dagokiola; cf. *Erraiten du San Thomasec*: Poena damnatorum in duo genera dividuntur, quae sunt poena damni & poena sensus. Poena damni respondet aversioni a Deo, & poena sensus conversioni ad creaturam. *Erran nahi du. Presuna batec eguiten duenean beccatu mortal bat, bi gauça eguiteintu* (GGero 577).

- ascoen: ik. § 5.1.1.4.
- 52-115 *mortal baten jausten danean*: leh. *mortal bat eguiten dabenean*; Axularren bertsiorako, ik. aurreko oharra.
- 52-119 *era bico*: aurrean *bi pe] (bi pena?)*, ezabatua; cf. *halatan ditu mereci ere bi pena eta gaztigu* (GGero 577).
- 52-123 *caltepena*: Axularrek latinez bakarrik ematen du: *Poena damni* (GGero 577); cf. VB *caltepena* “pena de daño” (< HH).
- 52-126/127 *tristeena ta tristegarriena*: cf. *penaric handiena eta malenconiaric malenconiagarriena* (GGero 577).
- 52-133 *balio preciatuagocoa* < *valiosago* (GGero 578).
- 52-134/135 *maitegarriena*: jat. *maitegarriarena* (arg. zuz.).
- 52-138 *ta andiena*: gainean erantsia; cf. *beraz, cinez içanen da calte handia* (GGero 578).

140 Erreguearen seme len-jaioc, etorquiz, zucenez erreguetasuna ta errei-
nucu jaun izatea dagoquionac, damu sentigarria artuco leuque, erregue icen-
tatu, erreguetzat coroatu ta artu bear eben egunean, despreciatu, ordu gais-
toan bota ta erreinuric erbestetu, deserritu, camporatu ta ateraco balebe. Ce
damuturic, bada, ce gogaituric, ce ernegaturic, ce minduric, ce desesperatu-
145 ric egongo ezta cristiñau bat, ceruco erreinuco senipartea artuteco dempora
eldu ezquero, an sartu bear zan egunean, ango atea ichi, sarrera eragotzi ta
campora botaten dabela dacusanean? O, ce pena andia artuco daben! O, ce
negarrac emongo dituan! O, ce gogaituric, tristeric, biotz-jausiric ta ausiric
gueratuco dan!

150 Adisquide bati, ceure estura baten, premiña premiñazcoan, bear-bearra
dozun gauza bat escatuten deutzazunean, sentimentua artzen dozu, dabela
daquizunean, utsic, ecer emon bague despeditzen bazaitu; ezetz badirautsu.
Bada, ceure biciaren azquenean, ceure eriotzaco orduan, bear ordu guztien
ganeco bear orduan ta premiñean, ce sentimentu, ce damu, ce tristura, ce
155 biotz-mina artuco dozu; ce pena sentituco dozu, Jangoicoac utsic, ecer ba-
gue, bear dozuna bague <366> campora bota zaizanean? Cer, esaten deutzun-
nean Evangelio[co] virgiña nagui alper eroai leguez: *Ezauzadaz*; etzaituela
ezagututen, berandu zatozala, eztala ordua orduan etorteco, ez dozula erre-
medioric, eztagoala zuretzat ceruric? Eta onela esanic, atzea emon, atea ichi
160 ta despedietan zaituela bere gloriaric? Au gogoratuteac berac laztuten ditu
ulleac, icara ifini belaunac, estu-larritu biotza.

Errazoiaz diño San Juan Crisostomoc: Batzuc infernuaren bildurra dau-
quee, ta ez besteren: baña ni gueiago bildurtu, izutu ta icaratuten nau ceruco
gloria galduteac; a baño au gach andiagoa, gogorrangoa, minagoa da. Onec
165 adietan emoten dau David profeta santuaren esate bat: Sua, azufrea, tor-
menta ecach ta beste pena asco emongo deutseela Jangoicoac pecatariari;
baña guztioac eztiriala izango, ezipada bere justiciaren zati chiqui bat. Bada,

-
- 52-140 *seme len-jaioc < lehenbi[ci]co semeac (GGero 578).
etorquiz: jat. etorquiza (arg. zuz.); cf. çucenez eta ethorquiz (GGero 578).
erreguetasuna: ondoan datorquiona, ezabatua; cf. erresuma guztico iaun eta erregue
heldu denac (GGero 578).*
- 52-147/149 *O, ce pena... gueratuco dan!:* Añibarroren eransketa.
- 52-150 *premiña premiñazcoan = GGero 578.*
- 52-154 *premiñean:* ik. § 5.1.1.1.
- 52-157 *nagui:* gainean erantsia. Bestalde, Axularrek ez du agerian esaten pasartea zeri dago-
kion, honela zuzenean baizik: Nescio vos. *Etçaituela eçagutcen, verandu duçula...*
(GGero 579); ik. § 5.4.2.
- 52-163 *ta ez besteren = GGero 579.*
- 52-166 *emongo deutseela Jangoicoac pecatariari:* NOR eta NORI, biak singular izan arren
(ik. § 4.3.10.2).

guztioc baño andiagoa izango da Jangoicoaren arpegui ta izate miragarritic, laguntza ta erreinuric aldeguinic, camporaturic seculaco irauteetan egotea.

- 170 Onetara esango dau batec: Orrela nic uste neban penea baño andiago da Limboan bateatu bague il cirian seiñac an dauqueen penea; bada, eztabe icusi, ez icusico secula Jangoicoaren arpegui ederra; beti dagoz ta egongo dira ceruco gloriaric erbesteturic. Eta, orrez guztiaz, dotore jaquitunac esan daroe eztabela aec ez penaric, ez gloriaric. Celan bada diñogu, Jangoicoa ez
- 175 icustea, aren laguntzaric aldeguinic egotea dala penaric andiena? Ezta gach eranzutea. Limboco seiñac eztagoz an euren erruz, euren pecatuac gaiti; ta onegaiti gura eztau Jangoicoac, euqui daien penaric, nequeric, tristuraric, minic. Baña infernuan dagozanac, euren erruz, euren maliciaz ta gaistaque-riac gaiti dagoz an, Jangoicoaren laguntzatic ateraric; ta onegaiti, Jangoico-
- 180 ac alan ordenaturic, dabe tristura ta pena ecin gueiagooan andia bera ez icusteaz. Au da lenengo pena ta castigua; urrengo buruan eracusico da bigarren penea: *gorputz-pena*, gorputz ta ariman igaroten direan nequeac.

52-169 *seculaco irauteetan < seculacotçat (GGero 579).*

52-174 *eztabela aec ez penaric, ez gloriaric < ezutela hec penaric iça[i]ten, eta ez tristuraric errecibitcen, eta ez errecibituco ere (GGero 580).*

52-181/182 *Au da lenengo pena ta castigua...: honen orde, Axularrek beti bezala esandakoaren laburpena egiten du: Eta haur da beccatuaren lehenbicio pena eta gatzigua, beccatoreac içanen duena, Iaincoaren ez icustea, haren compainiatic eta adisquideta-
suntic seculacotçat campoan guelditcea (GGero 580).*

53. BURUA

*Infernuan igaroten dan bigarren penea da gorputz-pena,
arimaco almenetan ta gorputzeco cenzunetan
euquico dana.*

5

<367>

1 §.

10 Eguia da, ta alan da, andia dala Jangoicoaren gloriaric erbesteturic ta bere arpegui eder miragarria icusi bague seculaco egoteac dacarrela penaric andiena. Baña dirudi, alan egon arren euqui leiela pecatari batec consueluren bat; eta ez litequela orrembeste estutu, damutu ta naibaguetuco, baldin ezpaleu iñon minic, doloreric. Baña orretaraco dago bigarren pena bat, beste castigu bat pecatariac mereci dabena, eta au da *gorputz-pena* derichona, cenzunaren pena, ariman ta gorputz guztian igaro bearco dabena: betico sua, garra, mina, atsecabea ta nequea.

15 Bigarren pena latz gogor au emoten jaco pecatari gaistoari, diño Santo Tomasec, cerren Jangoicoa largaric, ichiric, despreciaturic, biurtu zan criatureetara; eta Jangoicoaz ta onen legue santuaz baño, contu gueiago eucalaco bere buruaz, munduaz, munduco atseguin uts labur billauacaz. Pena au aitetu eban Jesu Cristoc, ciñoanean: Zoaze madaricatuac su ta gar beticora. Ta
20 beste bein esan eban: Onac joango dira betico gloriara; gaistoac, barriz, beti

53-2 *gorputz-pena*: Axularrek, latinari atxikita (*Poena sensus*), *sensuaren pena* deritza (GGero 581); cf. VB *gorpuzpena* “pena de sentido” (<HH).

53-7/9 *Eguia da... andiena* < *Eguia da, handia da Iaincoaren loriatic eta compainiatic campoan egoitetic heldu den damua eta caltea* (GGero 581). Anakolutua, beraz.

53-16/17 *criatureetara*: ik. § 4.2.4.

53-19/25 *Ta beste bein... su icaragarri au*: gehiena Añibarrena da, Axularrek hauxe bakarrik baitakar: *Halaber erraiten du San Matheoc berac*. Excidentur & in ignem mittetur. *Ebaquico da, eta sura egotcico da* (GGero 582).

iraungo dabe[n] castigu ta nequetara. Bai ta esan eban beste sermoi baten, fruturic eztaarren arbola surtara botaco dala; adirazoten ebala, penitenciaz-co frutu santuac emoten etzituana, ezarrico ebala infernuco suteguira. Evan-gelio Santuac beste lecu ascotan aitetu ta icentatuten dau infernuco su icara-garri au.

25 Eta eztozu uste bear, infernuco sua emengo sua leguez dala. Ango sua Jangoicoac berac biztuten dau; berac asmatua da, castiguetaco bere arerio deslealac; berac emoten deutso indarra, ez bacarric erreteco gorputzac, bai ta arima espirituac bere. Emengo sua emoten deuscu gure erregaloraco, gu
30 berotuteco, gu baliatuteco jatecoa egosi edo erreteaz; baña infernucoa, gu castiguetaco. Emeco sua ágaz bardinduric, su pintatua leguez dirudi, diñoe San Agustin ta San Crisostomoc. Emengo sutegui guztiac erabatera baño, ango izpi chatar bacar batec lazquiroago erre, berotu, quiscaldu, gorituten dau. Emengo suetan bere diferencia andia dacuscu: egurrezco sua beroagoa,
35 indartsuagoa, biciagoa da, lastozcoa baño; berun edo estañu iraquinean erretea, su bigun baten baño. Alan da, bada, diferentea, bestelacoa infernuco sua ta garra bere emengoaren aurrean.

<368>

2 §.

40 Fedeac daracuscu dagoala infernua. Ezta cristiñau fededuna, egui au sinistuten eztabena. Infernua da lurraren barruan ta biotzean, gure azpian, lurrac daucan lecu ta toquiric barrurengoan dagoan lece andi bat, laba gori bat, carobi erexeguin bat, berotasun guztia beragan daben bat, bein bere oztu, guichitu, epeldu, amatetan eztan bat. Alde guztiric dago ichiric, zarraturic,
45 esituric; eztauca ateric, ez leio bentanaric; condenatu guztiac, deabru ta guizon guztiac artu ta cabitzeco asco dana.

Infernu onetara joaten dira pecatu mortalean ilten direan guztiac; an egongo dira secula betico erretan; alde guztietara, campotic, barrutic suz inguratuac, sutuac, gartuac, erreac, gorituac, olan edo errementarian burdiña

53-21 *nequetara*: leh. *nequeetara* (ik. § 4.2.4).

53-27/31 *berac asmatua da... gu castiguetaco*: Añibarroren eransketa; Axularrek hauxe baka-
rrik dio: *Baina hura, nola iñanen baita Iaincoa[c] berac pitzua eta eguina, hala iñanen da hemengo suac baino beroago eta goriago* (GGero 582).

53-31/34 *diñoe... gorituten dau*: Añibarroren eransketa.

53-42 *barrurengoan*: ik. 23-83. oh.; cf. *lurraren hondarrea* (GGero 582).

53-45/46 *guizon guztiac*: leh. *guizonac*, < *condenatu guztien* (GGero 582).

53-47 *onetara*: jat. *onetera* (arg. zuz.).

53-49 *olan edo errementarian*: Añibarroren eransketa; ik. 28-74/75. oh.

50 gorituten dan leguez. Guztia alcarregaz estuturic ta su baten dagoz. Lecu ta su baten guztia batera badagoz bere, eztira bardinac guztien penac. Pecatu asco ta andiac eguin dituenac, pena ta bero gueiago dauquee, guichi eguin cituenac baño. Cristiñau batec andiagoo, gentil fedebague batec baño. Atseguin gueiago munduan bere gorputzari emon eutsanac, an bere necaldi

55 gueiago ta andiago. Alan daracuscus Escriura Santuac Deuteronomio ta Apocalisisco libruetan.

Sua bat bada bere, bata baño bestea gueiago erretan dau, diño Santo Tomasec. Berez su bat danari, diño santuac berac, emoten deutso Jangoicoac indarra, berac gura dabena biciago erreteco. Su au Jangoicoaren justiciaren

60 ministroa, mandataria, borreroa, alguacila, azotea ta aguindua da. Nagusiaguinduten deutan erara, suac obedituten deutso. Onegaiti diño San Geronimoc, infernuco su onec era guztico tormentuac ta minac emoten dituala, bera bat izanic.

Eguia da batera ta sutegui baten alcarturic ta sarturic dagozala pecatu asco ta pecatu guichi eguin ebenac. Baña gueiago eguin cituana mimerago, senticorrigo ta sua sufrietaco gaissoago, argalago, meago, bigunago, erbalago dago. Persona bi dagozanean eguzquitan, beroa bientzat da bat; ta, orrez guztiaz, batari ezteutso sentieraguiten, ezteutso gachic eguiten; baña besteari bereala buruco mina eguiten deutso, igaroten dau, gaisotuten dau, icerditan ifinten dau, ta ortic ascori etorri jaqué eriotzea. Eta, <369> cegaiti ori?

70 Bata baño bestea argalago, samurrigo, gaisotiago, senticorrigo dalaco. Onela bada, infernuan bere, pecatu gueiago ta andiagoo dituana guichi dituana baño senticorrigo, min-beraago ta sua sufrietaco argalago dago. Eta onegaiti, biac bardin su baten egon arren, eztira biac bardin erretzen, berotzen, penatzen: bacochari dagoquion erara suac erretan dau.

75

Beste gauza miragarri bat jazoten da su onegaz; eta da, beroa ez ece, otza bere, ta otz edur, lei ta izotz guztia baño otzago emoten dabela. Dotore guz-

-
- 53-50/56 *Lecu ta su baten... Apocalisisco libruetan*: Añibarroren erara esana. Axularren bertsioa, luzeagoa, erkatu nahi duenak, kontuan har beza *Ordea, venturaz...* hasten den lerrokada San Thomasen aipuraino (GGero 583).
- 53-57/63 *Sua bat bada bere... bera bat izanic*: lerrokada hau ere Añibarrok ia erabat bere erara antolatua da; Axularren bertsiorako cf. *Erran nahi du... hala nahi baitu* (GGero 584).
- 53-59 *justiciaren*: jat. *justiciriaren* (arg. zuz.).
- 53-68 *batari ezteutso sentieraguiten* < *eztio batari deus sentiaraciten* (GGero 584).
- 53-69 *buruco*: aurrean *min*, ezabatua; cf. *burua minberatcen dio* (GGero 584).
- 53-70 *ta ortic ascori etorri jaqué eriotzea*: Añibarroren eransketa.
- 53-76/86 *Beste gauza miragarri bat...*: lerrokada honetara mugatu da jatorrizkoan bi orrialde pasa (GGero 585-588) betetzen duen atala; tartean, aita Domingo Sotoren ustean oinarrিতuta Axularrek dioena desagertu da, besteak beste. *Su ta gar au...* hasten deneetik bukaeraraino (53-84/86) Axularren pasartearen bukaerari dagokio (GGero 588).
- 53-77 *dabela*: jat. *dau* (arg. zuz.), *dabela*-ren gainean zuzendua: zorigaiztoko zuzenketa, horratik.

tiac onetan batera ezpadabilz bere, batzuc alan iracasten dabe. Onela uste
 izateco, artuten dabe bidea Job santuac diñozan berba oneetatic: Bero andi-
 80 ra igaroco da pecataria, edur ur otzean sartuco dabe, ta infernuraño elduco
 da aren pecatua. Infernuan dagozanac aldatuco dituez bateric bestera: bero
 anditic otz andira, otz anditic bero andira. Baña aldantza onetan dabiltzala,
 ez bacarric ez jaquez arinduco penac, ezpada gueitu aldizca contracor one-
 gaz. Su ta gar au ezta iños guichituten, ez amatetan. Eztau egurric bere bear,
 85 ez aurreratzalleric. Su onec iraungo dau Jangoicoac dirauan artean, secula
 betico, betiraute luce beticoan.

3 §.

Arimeac bere penac leguez, arimaren almenac edo potenciac, gomutea,
 adimentua ta borondateac euquico ditu bere pena bacoachac, bere-bereac,
 90 apartecoac. Gomutea penatuco da, gomutaturic bere erruz, bere naiaz an sar-
 tu ta ondatu dala; cerura joateco equi cituan ocasiño ederrac, sacramentuac,
 Jangoicoaren deiac. Adimentua egosico da, urtucoc da, gogaituco da bere ba-
 rruan, gogoraturic aimbeste pena, ain andietan, ain latz gogorretan ta ain lu-
 ceetan egon bear ta bearco dabela; gogoa beste gauza batera aldatuteco asti-
 95 ric bague, beti egongo da neque oneetan pensetan, penatuten, ernegatzen.
 Borondatea ibillico da aserraturic, erreric, saminduric Jangoicoaren contra,
 alan castigatu, penatu, nequetu, erretan dabelaco; gorroto, amurru, icusi ecin
 au zabalduco da bere buruaren contra, bere lagunen contra, batez bere an sar-
 tuteco bidea emon ta para eutsenén contra.

100 Arimeac ta arimaren almenac leguez, izango dabe euren <370> pena ba-
 carra gorputzac ta gorputzaren cenzunac: icusteac, enzuteac, usain eguiteac,
 ucututeac. *Beguiac* izango dira castigatuac, penatuac, icusten ezabela lecu

53-83 *contracor*: ik. 32-67. oh.

53-85 *aurreratzalleric* < *aitecinatçaileric* (GGero 588).

53-89 *euquico ditu*: *ditue* edo *dituez* behar luke, < *ičanen dituzte* (GGero 588).

53-89/90 *bere pena bacoachac, bere-bereac, apartecoac* < *bere pena moldeac, bere-bereac eta bereciac* (GGero 588).

53-91/92 *cerura joateco... deiac*: Añibarroren eransketa. *Gomutea* aurrenik ipini du, goiko zerrrendari ez eze (*gomutea, adimentua ta borondateac*, 53-88/89) hirukotearen ohiko ordenari dagokiola, baina Axularren hurrenkera (*adimendua, vorondatea eta memoria*, GGero 588) aldatuaz.

53-94 *egon bear ta bearco dabela*: Añibarrorena da; cf. *hanbat pena eta hain handiac pairatu behar dituela* (GGero 588).

53-97/99 *gorroto... para eutsenén contra*: Añibarroren eransketa.

53-100/101 *pena bacarra*: cf. *lehen pena bacoachac* (53-89).

53-101/102 *icusteac, enzuteac, usain eguiteac, ucututeac*: lau baino ez ditu aipatzen eskuizkribuak, Axularrenetarik laugarrena, *gustua* (GGero 588), ahazturik.

105 icaragarri atan, ezpada iluntasun itsal odoitua. Suan ta su bician dago, ta suac berez arguitzea badau bere munduan, ez infernuan. Munduan bere azufrezco arguiac eztau argui arguitsuric emoten, ezpada que ilun ta arguirotasun itsal baltz triste bat. A da lecu bat lur barruan sarturic dagoana, alde guztiric ichia, leio ta ate bague axea ta arnasea artuteco, ta arguiric sartuteco bideric eztaucana.

110 Baña ezta orregaiti entero edo guztiz iluna. Bear dan arguia bago, lece, lurruspe, cueba baten leguez, ango lagunac, deabruac ta gauza icaragarriac icusteco. Alan emoten dau adietan San Gregorioc, esanic: Infernuco suac arguituten ezpadau bere consolatzeco, baña bai penatuteco. Icusico ditu, bada, bere alboan bere lagunac, ceinecaz munduan batuten zan gaistaqueriaco, Jangoicoa ofendietaco. Icusico ditu bertaco espiritu madaricatuac, ta mundutic ara etorri cirian guizon gaisto, gogor, dongueenac. Icusico dau infernuan dan guztia, sua, garra, quea, iluntasuna. Emen beguiac artu eben atseguinagaiti bear etzana icusten, edertasunai beguira, an artuco dabe ordea ta castigua gauza ezain, itsusi, nazcagarriai beguira.

120 *Belarriac* izango dira castigatuac, eztanzuela ezpada berba astunac, esaca gogorrac, madaricacifioac, biraoac, erneguac, chilioac, deadarrac, oioac, negarrac. Ango cantac, leloac, soñuac, musicac izango dira ay tristeac, cizpuruac, chotenac, quejac, aserreac, burlac, cerutar guztien contraco madaricacifioac.

125 *Surrac* izango dira penatuac, minduac, castigatuac usain gaisto char quirats atsitu gogaicarriaz. Ascoren ustez ta erechian, juicioco egun azquenean jausico dira infernura, infernutarracaz batera, lurrean izan direan gauza atsitu guztia. Ceruan dagozanac euquico daben leguez ceruzco usain gozo, on, ederra, alan infernucoac danic atsitu charrena; eta usain gaisto onegaz beteric ta quirasturic egongo dira surrac secula betico.

130 *Aoac* euquico dau pena andia, munduan euqui cituan gustu zalegarriac gaiti, esan cituan berba gaistoac gaiti, deunguero artu cituan comuniño san-

53-104 *arguitzea badau bere* < *arguitcen badu ere* (GGero 589); kopia hutsa ote?
 53-105 *argui arguitsuric* < *argui claric* (GGero 589).
 53-110 *cueba*: gainean, *cobao*-ren orde; cf. VB “cueva: c. *luruspea, lecea*; b. *cobaoa*”. Dena dela, Axularrek ez dio hala: *lanhope batean beçala* (GGero 589) baizik.
 53-113 *gaistaqueriaco*: sic (ik. § 5.1.1.9); jatorrizkoan ez dauka kiderik.
 53-120 *oioac* < *oihuric* (GGero 590); formaz ik. 12-244. oh.
 53-121 *leloac* = GGero 590.
 53-122 *chotenac*: cf. VB *chotena* (b.) “hipo”, < *nigar-chopinac* (GGero 590).
 53-125 *gogaicarriaz*: jat. *gogaigarriaz* (arg. zuz.).
egun azquenean < *azquen egunean* (GGero 590); cf. 53-186. oh.
 53-130/132 *munduan euqui cituan...* *zantarrac gaiti*: Añibaroren eransketa.
 53-131 *gaiti*: leh. *gaitic*.

tuac gaiti, birao, murmuraciño, berba loi zantarrac gaiti. Batetic gosea ta egarria; bestetic janari ustel, atsitu, birrindu, urdindu, gustu charrecoac; edari garratz, gaci, minac, atsituac, edenduac, beztunaz ta berun <371> urtuaz
 135 nastuac. Emen emengoac leguez, an bere dira jateco, edateco nazcagarri atsituac. Ango mintasunac ta jan-edan charrac aztu eraguiten dituez emen euqui cirian gozo, gustozcoac.

Ucututea. Escuac ez ece, gorputz guztiac pagatu bear ditu galanto infernuan, lurrean euqui cirian gorputz-atseguiniac, gozotasunac, erregaloac, mizqueriac, escuca loiac, oi bigunac, soñeco ederrac, apaindura bichigarriac,
 140 arrotasunac, descansu ta alperqueria. Ceimbat atseguin gueiago artu eban gorputzac munduan, aimbat tormentu gueiago infernuan. O, desonestuac! O edaleac, o jatunac, o eder apainduric orain zabiltzenac! Orain gorputz ustel lurrezco gaistoari emoten deutzazuen contu ta atseguiniagaiti, icusico dozue
 145 egunen baten sua dariola, suz inguraturic, suturic, erreric, chiscorturic, goriuric, garturic; eztau ucutuco, ezpada su ta garra. Bai nosbait pagatu bear cirian gorputzari emonico contentamentu pecatuzcoac; Jangoicoari eguin jacozan ofensac, irainac, desobedenciac, esquerbaguetasunac ta naibague lotsagarriac.

Orain emen munduan gorputz-zati guztiac artuten dituezan leguez euren atseguintasunac, olgurac, gozotasunac, pozcariac; alan guero infernuan igaro bear dituez euren naibagueac, atsecabeac, penac, nequeac, minac, lazta-
 150 sun gogor arrigarriac. Dolore ta min guztiac batera batu, bilduco jaqueez. Buruco mina, beguietacoa, belarrietan, aoan, aguietan, biotzean, bularrean, sabelean, escuetan, oñetan; zati guztietan euquico dabe gaisotasuna, gota,
 155 arri-mina, sucarra, calentura, zorigacha. Orrembestez ece, dolorearen minac dolore utsean biurtuco ditu, doloretuac ta erruigarriac eguingo ditu.

-
- 53-133 *urdindu*: aurrean *ugertu*, ezabatua; cf. *ianhari urdindu*z eta *edari çurminduz* (GGero 590-591).
- 53-134 *berun*: *be-* orrialdearen oinean bai, baina ez hurrengoaren hasieran.
- 53-135 *Emen emengoac leguez, an bere* < *Hemen hemengoac beçala, han ere hangoec* (GGero 591); *hemengo* eta *hango* jatekoek, alegia.
- 53-136 *jan-edan*: leh. *janaria*, < *vianda* (GGero 591).
- 53-138/149 *Ucututea*: lerrokada osoa Añibarrok egina da; Axularrek sarrera txiki hau baino ez dakar: *Halaber. Tactus, uquitcea, presuna guztia içanen da penatua. Ceren eztu nehore han, suric, kharric eta gauça liquits nardagarriric baicen utquituco* (GGero 591).
- 53-140 *oi*: bestetan *oe* (cf. 44-99, 53-258, 54-59 edo 54-99, adib.).
- 53-154/155 *Buruco mina, beguietacoa, belarrietan...* < *Han içanen du condenatu on beharrac buruan min handia, hortz-haguietan oiñhace bortiça...* (GGero 591).
- 53-155/156 *gota, arri-mina* < *cota, harri* (GGero 591).
- 53-156/157 *dolorearen minac dolore utsean biurtuco* < *dolore hutsez dolore bihurtuco* (GGero 591).

Munduco gaissotasunac, gachac, minac comunqui eztira beimbere gorputz baten guztia batera ta osoro icusten, ez idoroten; baña infernuan bai.
 160 Emen bein dozu beguico mina, ta ez orduan belarrietan; beste bein escuan, baña ez oñeetan. Eta onela lecu batean min dozunean, eztozu bestean minic; ez dozu dolore osoa, betea, guztirocoa. Eta, orrez guztiaz, zati bateco min batec berac, aguin bateco minac ain mimberaturic ifinten zaitu, ce ecin azalac artu zaitu; ez dozu soseguric; ecin jan dozu; ez dozu gogoric solastuteco;
 165 gau guztian loric eguin bague zaucaz. Bada, cer izango da infernuan gach guztia batera egotea?

<372> Cer izango liteque, bada, gorputz guztian ta bere zati guztietan, araguietan, azurretan, junturetan, zanetan, lecu guztietan bacendu min osoa, andia, latza, bardina? O, ce erruquigarria izan cindequean egoera negargarri
 170 onetan icusico bacintequen! Bada, ascozaz erruquigarriagoa da infernuan dagoana. Ango mina guztia batera, baten, betico, guztietan ta oso betean idoroten da, secula arindu bage, iños atara oitu bage, ta ondo merecituric; bada, munduan ibilli zan, Jangoicoac eragotzi eutsazan gustuac, atseguintasunac, gorputz guztiari emoten. Errazoi da, bada, gorputz guztia paguetea, lecu
 175 guztietan doloz bete egotea, secula contenturic ez euquitea, zati bacochean bere min bacarra igarotea. O pecataria, ondo ta biciro au gogoratu eguizu, pecatu eguitera abiatuten zareanean; penitencia ta confesiñoaren icen berac icaratuten zaituanean; ceure gogoac edo gorputzac atseguin gozoren bat escatuten deusunean.

180 4 §.

Min minezco oneec eztira bardinac guztientzat. Pecatari ta pecatu bacochari dagoquiona emoten jaco. Suberbio, andinai, arrotu, andiqui gogorra izan zana, lotsatuten dabe, goiberatu, desonratu, osticopetu, oñazpitu, umildu. Abarientoa, cequena, eutsia, escu estucoa, diruz ta ondasunez beteric
 185 egonic, limosnaric eguiten ez ebana, icusten da infernuan guztiz premiñaturic, on bearturic, pobreza azquenecoan, munduco beartuana baño beartua-

-
- 53-159 *batera*: ondoan *icusten*, ezabatua; cf. *eztute comunzqui behin ere gorputz guztia ossoqui hartcen* (GGero 591).
 53-161 *oñeetan*: ik. § 4.2.4.
 53-162 *osoa, betea, guztirocoa* < *ossoa eta ez guztietacoa* (GGero 592).
 53-168 *junturetan*: cf. *gorputceco endrecera, aurquientça, iuntura eta parte guztietan* (GGero 592).
 53-176/179 *O pecataria... escatuten deusunean*: Añibarroren eransketa.
 53-181 *Min minezco oneec < dolozco dolore hec* (GGero 592).
 53-182 *Suberbio*: ik. 36-50. oh.
 53-184 *Abarientoa, cequena, eutsia, escu estucoa* < *Avariciosa* (GGero 592).
 53-186 *pobreza azquenecoan*: goraxeago *azquen* bera erabili du izenondo gisa (53-125. oh.). *beartuana*: ez da ezinezkoa, baina ezta ohikoa ere; cf. *munduco beharric beharrena baino* (GGero 593).

goa. Sabeldarroia, gulleria, jan-edanera emona, ibillico da infernuan goseac illic, egarriac igaroric, ur tanta bat non artu, noc emon eztaucala, argalduric, jausiric, indarbagneturic. Biraoguillea, murmuratzallea, berba loi ece ciqui-
 190 ñac esaten cituana, bere miñ madaricatutic esqueguiric dindilica ifintan dabe. Emacume-guizacumezalea, desonesqueria, lujuria, araguizco pecatu loian sarturic bici izan zanz eguiten ditue deabruac gogortaderic andienac; gorputz guztian atseguindu zan leguez, gorputz guztia ebagui, zatitu, atzamar-
 195 tu ta erretan deutsee arrabio gogaituaz. Eta onetara beste becatari guztiac.

Orrez ostean ta orretaraco, batera bilduric batzar batean dagoz peccariac an: cuticiotsuac cuticiadun cequenacaz, lapurrac lapurracaz, biraoguilleac biraoti-
 200 acaz, desonestuac desonestuacaz, ordiac ordiacaz, bengatzalleac bengatzalle gogorracaz, idecoac idecoacaz. Au alan emon eban adietan Jesu Cristoc, ciñoala, aguinduco dala orduan batu ta bilduteco batera sorta, carga, zamai baten alcarregaz bedar charrac. Sorta alcar <373> lotuoc, diño San Gregorioc, adietan dabela peccariac alcar esturic, estuturic, baturic, bilduric egongo direala infernuan, bedar edo gari sorta, meta, cargac leguez baco-
 205 cha bere ide ta lagunacaz. Peccatun lagunac cirian leguez, castiguan bere izan ditecen bardinac.

Infernuan dagozanac gaiti diño David santuac, talde bateco ardiac leguez bilduric egongo direala; eriotzeac janarituco dituala; eriotzea izango dala euren bazcaria, ta eurac bere eriotzarenac. Condenatuen penea bardin-
 210 duten da ardiaren bedar jateaz, diño San Gregorio berac. Bada, celan ardiac bein bere eztaben acabetan osoro bedarra, ta ez atera sustrairic; ta bacarric campoco orria jaten daben, beti an largaric sustraia, erroa, zana, barriro orria erner-
 215 ic, jaioric, urtenic, barriz cer jan euquiteco: alan eriotzeac, doloreac, mintasunac, suac eta garrac jaten dituez condenatuac, iños sustraia atera baga, bicia quendu baga. Orregaiti dagoz beti biciric ta beti erretzen.

-
- 53-187 *Sabeldarroia* < *sabel-darraio* (GGero 593); formarako, ik. 44-71. oh.
gulleria, jan-edanera emona < *ian-edanera emana, gulara eroria* (GGero 593).
 53-191 *Emacume-guizacumezalea* < *emaccoia* (GGero 593); ik. § 5.4.4.
 53-197 *cuticiotsuac cuticiadun cequenacaz* < *avariciosac avariciosoequin* (GGero 593).
 53-197/198 *biraoguilleac biraoti-*acaz** < *arnegariac arnegariequin* (GGero 593).
 53-198/199 *bengatzalle*: jat. *bengantzalle* (arg. zuz.).
 53-199 *idecoac idecoacaz* < *quideac quidequin* (GGero 593).
 53-201 *zamai*: ik. 45-124. oh.
 53-201/202 *alcar lotuoc...* *alcar esturic*: *alcar-en erabileraz*, ik. § 5.1.2.6; cf. *Belhar gaixto çamac, multçuac, escumenac edo escutarac elccarrequin erratceco viltcea eta lotcea...* (GGero 593-594).
 53-206/207 *talde bateco ardiac leguez* < *Ardi artaldeac beçala* (GGero 594).
 53-208 *Condenatuen*: leh. *Condenatu*, < *Condenatuaren* (GGero 594).
 53-209 *ardiaren bedar jateaz* < *ardiaren belhar iatearequin* (GGero 594); ik. § 5.2.2.

215 Enda esan lei, euren bicitzea eztala bicitzea, ez eriotzea [eriotza]. Ezta
 bicitza, ez dabelaco onic, ez osasunic, ez atseguintasunic; ezta eriotza, ez da-
 belaco azquenic, ilteric. Errazoi az esan lei alacoac gaiti, Jesu Cristoc bere
 azqueneco gauban Judasgaiti esan eban[a]: *Obe eban jaio ezpaliz onelacoa;*
 obe zan sortu ta bereala il baliz, urtu, deseguin, ondatu ta ecerezera biurtu
 220 baliz pecatari tristea condenatu baño len. Bada, Santo Tomasec diñolez: Obe
 da ez izatea, gaistoa izatea baño. Onegaiti diño San Juan Evangelistecac
 Apo[ca]lisisco libruan: Egun aetan guraco dabe pecatariac il, baño eriotzeac
 igues eguingo dau euretaric; eriotzaren billa ibillico dira, baño alperric:
 bada, eztabe idoroco ez eriotzatic, ez eriotza-emolle iltzalleric. Orain guc
 225 gura eztogun eriotzea, izango da gauzaric deseatuena infernuan.

5 §.

Andia, icaragarria da nonbait infernuco miseria, pena ta nequea; bada,
 guc emen gorrotoago dogun gauza, cein dan eriotzea, da an gueien billatu,
 maitetu, desetan dana. Eta ez gaitu onec miraritu bear. Bada, dagoz su bician
 230 sarturic, gogaituric, ernegaturic, esperanzabagueturic, nequez aricaturic,
 erreac, egosiac, alde guztiric penac igaroric. Campoan suac erretzen ditu;
 barruan concienciaco arrac salatuten ditu. Ar onegaiti diño Isaias profeteac,
 condenatuen arra eztala iños ilten. Ar au ezta emengo arra leguez araguiz
 eguiña, biciric dabillana. Ar au da conciencia gaistoaren saladura, ausicada,
 235 chaucada, cemaia, menazua, <374> cicada, acullu, quisquetada, aranza, elo-
 rria ta aguiracada, eranzute lotsagarri bat. Ar au biztuten dau gomutatzeac,
 euren escuan euquéla igues eguitea edo ez sartutea infernuetan; bitartetasun,
 gracia, indar, escubide ta libertadea euqui ebela cerua irabazteco; euren
 erruz, nai guraz ara etorri direala, galdu ta condenatu direala; ocasiño eder
 240 asco, sacramentu ta bear zan guztia euqui ebéla salbetaco; baño alper guztia
 galdu ebéla.

- 53-215 [eriotza]: jatorrizko testuan ezabatuta dago, baina azalezko irakurketa baten ondorio
 dirudi: cf. *Eta hala hequen bicitcea ezta bicitce, eta ez heriotcea heriotce* (GGero
 595).
- 53-216 *bicitza*: leh. *bicitzea*; cf. *Ezta bicitce...* (GGero 595).
- 53-219 *zan*: gainean, *eban-en* ordez.
- 53-219/220 *ecerezera biurtu baliz* < *ez deus bihurtu baliz* (GGero 595).
- 53-224/225 *Orain guc... infernuan*: Añibarroren eransketa. Honen ordez, honela bukatzen du Axu-
 larrek: *...halatan bethiere bicitcen cirela, bethiere penatceco. Ceren penatcea hil-*
tcea baita (GGero 595).
- 53-229 *dana*: *aurrean dabe*] (*dabena?*), ezabatua; cf. *desiratcen dutenean* (GGero 595).
- 53-235 *chaucada*: cf. *VB chauca* (b.) “ladrido”, *chauca egon, eguin* (b.) “ladrar”; cf. *accusa-*
mendua, autsiquia, alhadura, chimicoa... (GGero 596), eta ik. 41-62. oh.
- 53-236 *eranzute*: gainean erantsia, < *erançutea* (GGero 596); ik. § 5.3.4.
- 53-238 *escubide*: leh. *escubidea*.
- ebela*: jat. *ebala* (arg. zuz.).
- 53-239 *direala... direala*: leh. *diriala... diriala*.

- Onela, gomute ta acordu onec minduten ditu, salatuten ditu, deseguiten ditu; ta esan eraguiten deutse negarrez ta erneguz: Ay, ene galdua, ene zorigaistocoa, zoro buru ta cenzunbaguea! Cer eguin dot? Cer jazo, guerta jat?
- 245 Celan galdu nas? Ceri beguira nengoan, munduan bici nintzan dempora zorionecoan? Celan itsutu ninduen lurreco atseguñac, olgurac, lagunac, ondasun uts laburrac? Bost bider esan eustén nire concienciac, confesoreac, predicariac gauza ostua ta fama quendua bere jabeari biurtzeco; arerioaz adisquidetu, baquetu, berba eguitemo; biraoric, berba loiric, juramentu guzurrezcoric ez eguitemo; araco fiesta, erromeria, dantza nastu gaistoetara ez elduteco; araco pecatuzco echea, laguna ta bidea aztuteco; Jangoicoaren legue santua gordeteco; sarri confesetaco; cristiñau-bicitza garbi on ceruzco bat eguitemo; eta bestela condenatuco nintzala. Baña ni zorigaistoco au guztira gortuten nintzan, enzungor eguiten neban; ez neban jaramoten, barre ta bur-
- 250 la eguiten neban guztira; ez neban sinisten. Baña orain paguetan dot. Emen nago dolorezco lecuan, su ta garrez inguraturic, lagun gaistoz beteric, sua emon ta sua irunsiten dodala, egarriac illic, minac arturic ta igaroric, iñoc nire erruquiric eztaucala, burdiñazco oe gorietan echunic; ta onela egon bearco dot betico irauteetan.
- 260 Onexec dira infernuan ateraten direan contuac; oneec ango canta, soñu ta solasac. Gogaitu, ernegatu, mindu, damu[tu]ten dira, gogoraturic euren erruz dagozala an; ta gomute onec emoten deusé biotzeco erretasuna, tristura, milincolia, naibaguea. Au da gau ta egun, inos ase ta aspertu bague euren biotza jango deusén arra ta mina; baña min ta damu probechubaguea;
- 265 negar utsa, alperra, baliobaguea. Au da infernuan igaroten direan pena andietaric bat. Bada, ce neque penagarriagoric, sentimentugarriagoric, biotz erditzalleagoric, icustea baño euren buruac seculaco galduric, ta euren erruz ori? O, gomute ta acordu triste samiña! O, tristura penagarria! O, zorigaistocoa infernuan bein sartuten dana!

53-247 *Bost bider* < *Anhitzetan* (GGero 596).

53-248 *quendua*: gainean, *galdua*-ren orde, baina hau ezabatu gabe; ik. 29-42/43. oh.

53-259 *betico irauteetan*: eta ondoan hauxe dio Axularrek: *Ceren hala dut mereci. Ez nuen erein, ezta arraçoïn vil deçadan. Ez nuen irabaci, ezta arraçoïn goça deçadan. Eta neurc dut falta, eztu bertec parteric: ecin demaiot bertceri atchaquiaric, neurc neure burua galdu dut* (GGero 597).

53-263 *milincolia*: VB *milincolia* "melancolía"-ren aldaera izan liteke, baina baita haren ordeko hutsa ere (aldaera ezberdinetarako, cf. OEH, s.v. *melankonia*); cf. *malenconia* (GGero 597).

53-264 *damu probechubaguea* < *probetchu gabeco urriquia* (GGero 597).

53-266 *sentimentugarriagoric*: baita *meritugarri* ere (48-96); cf. *Ceren cer ahal dateque pena penagarriagoric* (GGero 597).

53-266/267 *biotz erditzalleagoric* < *bihotz erdiragari erdiragarriagoric* (GGero 597); cf. *Neke nere bihotz minbere onen erdiratzallea* (Mb *OtGai* III 84, ap. OEH, s.v. *erdiratzalle*).

<375>

54. BURUA

*Infernuan dagozanac eztaque esperanzaric
andic urteiteco.*

5

1 §.

Andiac, biciac, izugarriac dira infernuco penac. Baña, orrez guztiaz, dirudi ta esan lei, pisca bat arindu ta cerbait consolamentu euquico leucala infernutar batec, nos edo nos, iñosco demporan acabatu, laburtu, arinduteco esperanza edo icharomena baldin baleuca. Baña aimbeste pena, ain andiac, ain latzac, secula azquenic izango eztabela gogoratutea, au da jasoten dabena bere pena ecin gueiagoco puntura. Cerren esperanza ez dabena, oraingo peneac leguez, etorquizunecoac bere penatzen dau; a bere orain leguez, bere aurrean, bere ganean, beretzat leguez dacus, dauca, dazau. Baqui beretzat dagoala, berac igaro bearco dabela.

10

15

Orain emen munduan dolorez, minez inguraturic zagozanean, idoroten dozu bideren bat consolatzeco. Gaissoric zagozanean, adisquideren bat jatortzu icustera; cerbait arinduten zaitu; jatortzu osaguillea; onec bere indartuten zaitu; echecoac lagunduten deuntsue. Eta besteric eztozunean bere, beti edo gueienetan zagoz esperanzaz, gacha arinduco dala, osatuco zareala, ta

20

54-3 *dagozanac*: leh. *dagoanac*, < *daudenec* (GGero 598).

54-4

urteiteco: ik. 32-103. oh.

54-7

cerbait consolamentu < *cenbait consolamendu* (GGero 598).

54-10

gogoratutea: jat. *gogoratuteac* (arg. zuz.); anakolutuaren ondorioa dirudi: *gogoratuteac jasoten dau* buruan izanarena, alegia.

infernuco gaisotasunean, ango neque ta gachétan, alde guztie[ta]ra dagoz ichiric esperanzaco atead, portuac ta bideac; ez dabe iñondic bere pocic, consueluric, ez arguiric icusten. Zarraturic, ichiric dago aentzat misericordiaren atea, erruquiarena, merecimentu, gracia, parcaciñoarena, ontasun guztiena; ta iños idigui ta zabalduco ez jaqué.

Evangelioco aberats cequen cuticioso abariciosua infernutic, erretan egoan lecutic asi zan negarrez, deadarrez, deiez, ta esaten Abran santuari: Aita Abran, badacusu celan nagoan su onetan errea, quiscaldua, egartsua; euqui eguizu, arren, nire erruquia; eta biraldu eguidazu Lazaro, ac bere escuco atz chiquiaz, urean bustiric, aoco miñean ucutu deidan, pisca bat busti, frescatu, ezcotu deidan; bada, emengo bero andiaz egarriac ito gura nau. Escari au eguiten deutsut, au da nire erregua.

<376> Ce escari labur, escas, chiquerragoric, edo erregu chiquiagoric eguin euquean? Etzan azartu, ez aurreratu escatutera biraldu eiola pichar bat ur, edo escu guztia uretan sartu eguiala; ez eta atz chiqui guztia urean sartua. Bere escaria ta deseo guztia zan, atz puntea uretan sartu, ta agaz miña busti eiola, mesede au eguin eguiola. Gauza apurra zan, deseo pitina zan; baña laburra bazan bere, ez eutsen emon, ucatu eutsen; secula emongo ezteutse. Emen da aguiari, infernuan dagoanari mesede ta consueluric chiquiena bere emongo ezteutséla: atead alde guztitic ichiric dituala. O, castigu arrigarria!

Ichaso zabalean jausten direanac, dabilz cerbaiti lotu ta oratu naiz: escuac lucetu, estutu, or-emen darabilz, baña alperric; bada, eztau idoroten ceri oratu, ezpada ur engañagarria. Alan jazoten jaque, bada, infernu zabal, ondarbaguean jausten direanai bere. Eztabe topetan non oña ifini, ceri lotu, ceri oratu; eztabe idoroten quirrtanic, escu-toquiric, sostenguric, ta ez poztuteco bideric, ez esperanzaric.

54-21 *alde guztie[ta]ra*: ik. 45-239 edo 53-48, esaterako; cf. *halaco moldez daude esperantçaren atheac hertsiac* (GGero 599).

54-26 *cuticioso*: gainean erantsia.

54-29/30 *escuco atz chiquiaz* < *erhi puntaz* (GGero 599).

54-30 *aoco miñean*: *aurrean mi]* (*miñean?*), ezabatua, < *mihian* (GGero 599).

ucutu deidan: ik. 4-25/26. oh.

54-31 *ezcotu deidan* < *heça naçan* (GGero 599).

54-35 *ez eta*: *aurrean ta*, ezabatua; ik. § 5.2.6.

atz chiqui guztia urean sartua: cf. *escu guztia urean sar ceçala, eta ez are erhi guztia ere* (GGero 599). *urean*: cf. *uretan* (54-35 eta 54-36) vs *urean* (baita 54-30 ere); ik. § 5.1.1.4.

54-36 *uretan*: leh. *urtan*.

54-45 *quirrtanic* < *guirthanic* (GGero 600) < *guirthaiñic* (Gero 598). GGero-ko formak eragindako aldaera baino ez bide da: ik. halaber 12-20. oh.

escu-toquiric = GGero 600.

Consuelubagueco, azquenbagueco, caburic izateco esperanzaric ba-
 gueco puntu onetan gau ta egun consideratu bear guenduqué; emen ifini be-
 guiac, emen josi gueure biotza ta gogo. Onetaraco ecartzu gogora, gaisso
 50 batec gau luce baten igaro daroan nequea, batez bere gaissoatasuna bicia, zo-
 rrotza danean: gau guztian dabil iraulca, itzulca; orduac cembatetan ditu; or-
 duac egunac eguiten jacaz; gau lucea iruditzen jaco; beti dago egunsentiaren
 beguira. Bada, baldin gaisso bati emengo gauba, ain laster igaroten dana,
 orren luce eguiten bajaco, cer irudico jaco infernuan dagoanari, ango gau
 55 luce seculaco irauteetan azquenic euquico eztabena? O gau lucea, arrats ilun
 itsal icaragarria, arguisentico izarric, ez eguzquiric izango eztabena, secula
 arguitu, egundu ta acabatuco eztana!

Ce pena, ce neque izango da, arguituco eztan arrats atan, ez munduco
 gaissoac leguez oe onean ta bigunean, ezpada laba gori beroan, sutegui gar-
 60 tuan, oe gogorrean, ilinti ta plancha gorien ganean betico etzatea ta egotea?
 Noc zuetaric, diño Isaias profeta santuac, noc zuetaric euquico dau biotza
 egoteco buruz sarturic ta ondaturic infernuco su ta bero beticoan? Alango le-
 cuan, ain su beroan, betico garrean nor egongo da? nor bicico da? noc iraun-
 go dau? noc euquico dau sorbaldaric ta indarric jasoteco, sufrietaco, igaro-
 65 teco? Emen munduan dan nequeric <377> chiquerrenac, su gar, chatar,
 chingar batec orrembeste min emoten badeuscu: cer izango da, suz ta garrez
 campoan ta barruan, ariman ta gorputzean artua, inguratua, ta burriña goria
 leguez goritua ta sutua egotea? Eta seculaco alan egon bearra? Non da gure
 cenzuna? Celan galdu dogu adimentua? Ipuñac, amesac edo guzurrac ete
 70 dira oneec? Gugaz edo besteacaz berba eguiten ete dabe eguia oneec? Fed-
 ac iracasten deuscu, gugaz berba eguiten dabela; guri dagoquiguz; gureac ta
 gureztat dira. Eztira, ez, ipuiñac, amesa[c], guzurrac, ezpada eguiac; ta
 eguiac igaro bearco ditugunac, baldin pecaturic urteiten ezpadogu, bicitza

-
- 54-48 *puntu onetan... consideratu: cf. pontu hunetan, nahi nuke iben bacinitça beguiac, huni
 beha baciniço, haur considera baceneça (GGero 600); ik. orobat 54-187.*
- 54-49 *biotza ta gogo: eta jarraitzen du Axularrek: eta animalia suerte batçuec gauaz haus-
 naur eguiten duten beçala, çuc ere gauça hunetçaz, cenbait aldiz bedere, hausnaur
 eta gogoeta eguin baceneça (GGero 600).*
- 53-51 *iraulca, itzulca: cf. nola iraulcatcen den (GGero 600).*
- 54-52 *jacaz: aurrean jaq] (jaquez?), ezabatua.*
- 54-54 *irudico: ik. § 4.3.9.*
- 54-55 *seculaco irauteetan azquenic euquico eztabena < eterno fingabeco hura (GGero 601).*
- 54-56 *arguisentico izarric, ez eguzquiric izango eztabena < argui-urrategabee, oillariteric
 içanen eztuena (GGero 601).*
- 54-59/60 *sutegui gartuan < suguina gogorrean (GGero 601); cf. Pouvreauren itzulpena: “place
 de foyer, sucaldearen sola” (ap. Mitxelena 1970: 133), vs Larramendirena: “vol-
 cán” (Erans 681).*
- 54-65 *Emen: leh. Emengo; cf. Orai hemen den penaric ttipienac (GGero 601).*
- 54-70 *Gugaz: aurrean Edo gu, ezabatua; cf. Edo gurequin mintço othe dira? (GGero 601).*
- 54-73 *urteiten: ik. 32-103. oh.*

75 gaistoa obetuten ezpadogu: gu gueu icusico gara infernu icaragarri onetan, ilten bagara pecatu mortalean.

Infernucio penac, beste nequeen artean, euquico dabe pena au bere gueiago: egotea beti estadu batean, egoera batean, modu batean, beti berde, ece, zartubagueac. Eztira igartuten, ez guichituten, ez aldatuten. Munduco gauzac eztagoz beti egotaldi batean: igoten ta jausten dira, eguiten ta eguinbagnetuten dira, guichitu ta aci, mudatu, aldatu; baña infernuan ez. Ichasoac bere goraberac ditu, bere mareac, aldantzac. Guizonac, abereac, ondasunac, echeac ta gaisotasunac eztagoz beti egontza batean. Eztago calentura edo sucar ain andiric, demporeaz beetu ta goituten eztanic; ez minic ain bici zorrotzic, goienean dagoanean, arinduten eztanic. Mundu onetaco neque guztiac demporeaz batean austen dira, amatetan dira, ecereztu ta azquenduten dira; baña ez infernucio sua ta nequea. Beti da bat, berbera, beti ecea ta barria, egoera baten dirauana, iños aldatu baga.

Ango su ta garra, ango beroa ezta bein bere indarbaguetuten, ezta beeratuten; beti dago goienengo mallan ta lenengo puntuan. Eta, ce neque andiagoric, nequegarriagoric, beti lecu batean, era berean, secula muguitu bague, aldatu bague, arritua leguez pena baten gueldi egotea baño? Munduco jatecoric gozoena, preciatuena, zalegarriena, beti jaten danean, bestera aldatu bague, gorrotatzen da; ase bete, aspertu, nazcagarria eguiten da. Ecin zatequean janaria gozo obeagoric, Jangoicoac ermu bacarrean Israelgo semeai cerutic biraltzen eutseen mana ceru-janaria baño. Baña, celan ataric beretic egunero, besteric probatu baga, beti jaten ebén, aimbeste <378> aspertu ta nazcatu cituen, ce batzuc etorri cirian errebesatu ta ganez eguitera, ta Egitoco porru ta quimpullac jan naiago izatera.

- 54-79/80 *eguinbaguetuten < deseguiten (GGero 602).*
 54-80 *baña infernuan ez:* Añibarroren eransketa; Axularrek gerorako uzten du (ik. 54-86).
 54-81 *aldantzac < muthantçac (GGero 602).*
 54-82 *eztagoz beti egontza batean < eztaude behin ere batetan (GGero 602).*
 54-83 *demporeaz beetu ta goituten eztanic:* honek ez du zentzu handirik; cf. *non pontu batetara iganez guero, ezpaita beheititcen eta ttipitcen (GGero 602).*
 54-84 *goienean dagoanean < goienera denean (GGero 602).*
 54-85 *austen dira = GGero 602.*
 54-88 *Ango su ta garra < Hango succarra (GGero 603); ik. 4-109. oh.*
 54-89 *goienengo mallan ta lenengo puntuan < goren pontuan eta leheneco contuan (GGero 603).* Ohartu *goienengo* superlatibo bikoitzari (ik. 23-83. oh.), eta *leheneco* 'lehen-go' > *lenengo* aldaketari.
 54-92/93 *bestera aldatu bague < bertcetara aldatu gabe (GGero 603).*
 54-94 *janaria gozo obeagoric < ianhari hobeagoric (GGero 603); -a* itsatsiduna bailitzan (ik. § 5.1.1.1).
 54-95 *ataric beretic < hartaric beretic (GGero 603).*
 54-97/98 *ta Egitoco...:* bukaera hau Añibarroren eransketa da. *naiago:* leh. *naiá.* *quimpullac:* aurreko agerraldietan *quipulla* erabili du (7-44 eta 46-336); cf. *VB quipulla* (b.) "cebolla"; Azkuek hau (B-l-m)-tzat markatzen du, eta hura (B-o-tx)-tzat.

beti dago osoric, bere oñean. Bada, dagozan leguez borondate gaistoan, malician gogortuac ta itsutuac; ta igaroten daben penea bere, ez borondatez, ez
 130 gogo onez, ezpada ecinbestez, gura ta gurez; eta pagatzeco ta merecimentua irabazteco dempora igaro zan leguez; guzti onegaiti Jangoicoac ecer bere artuten ezteutse <379> contutan, saritzat, ordetzat, pagutzat. Len ecer igaro ezpalebe leguez, asten jaque penea. Eun milla milloi urteen buruan ta cabuan, ain urrin egongo dira quitutasunetic, cein lenengo an sartu cirian egu-
 135 nean ta orduan.

Orain emen bici garean bitartean, erraz pagatu guiñei pecatuen zorra, neque pusca bat quitusaritzat igaroric, pena apur bategaz, biotz-damu eguiazco bategaz, confesiño on benetaco bategaz. Bada, orain Jangoicoaren ontasun ta misericordiaren atea idiguiric ta zabalic dagoz ordu guztietan ta
 140 pecatari guztientzat; orain gueure borondatea libre dogu, aldatu guindequez gaistotic onera. Baña infernuan sartu ezquero, galdu dau libertadeac bere indarra, itsutu da adimentua, gogortu borondatea, acabatu arimaco feria, zarratu misericordiazco atea ta erruquia euquiteco demporac.

Angueru gaistoac pecatuan jausi cirianean, gueratu cirian leguez gaistotasunean itsutuac, gogortuac, erremedio bago seculaco condenatuac ta galduac: alan gueldituten dira guizonac bere, pecatu mortalean ilten direanean, betico infernuan ondatuac. Arech bat jausten dan lecuan, edo escoatara, edo ezquerretara, an betico gueldituten dan leguez: alan arima bat bere eriotzeac ebaguiten dabenean, jausten dan aldera, an datz, anche egongo da seculaco,
 150 muguitu bague, jagui bague, aldatu bague, ta jaguite[co] icharomen bague.

Baldin angueru batec esango baleusquie Jangoicoaren partez infernuan dagozanai: Ea, gente penatuac, poztu zaitece, barri on bat ta pozcari bat dcartzuet. A Jauna, esaizu cer; bada, orren bearra dogu, gagozan lecu triste onetan. Jaquin bear dozue, bada, berandu elduco bada bere, aguertuco jatzuela pena gogor latz min andioc acabatuco jatzuezan eguna. Cerupe ta
 155 munduaren artean dagoan utsune miragarri luce zabal onec cabitu ta artu al daizan gari garau aimbeste urte igaro ezquero, acabatu dira zuen penac, urtengo dozue infernu icaragarri orretaric. Edo esango baleutsee, au jazoco zala, ichaso eta munduco ur guztiac edan daizanean iñurri batec, ez edanic
 160 ezpada urtean bein. O, ce atseguin andia artuco leuqueen infernutar erruquigarriac, onetarico promes bat eguingo baleutsé angueru santu batec Jangoicoaren partez!

54-133 *urteen buruan* < *urtheren buruan* (GGero 605); cf. *gorago urteren buruan* (54-120); mugagabearen erabileraz, ik. § 5.1.1.4.

54-134 *quitutasunetic* < *pagatcetic* (GGero 605).

54-150 *jaguite[co] icharomen bague*: cf. *eta ez iaiquitceco esperantçarequin guelditcen* (GGero 606), eta oro har *-tzeke itxaromena* edo *esperantz*a (4-183/184, 8-249, 15-237, etab.).

Poztucu litequez barri on au enzunic; arinduco lichaquie ango nequea
 165 cerbait; animatuco litequez; ez leuqué andic achina lengo nequearen erdia;
 nosbaiteco esperanceac consolatuco lituquez. Bada, cerupe guztiac artu al
 daizan gari garauac, millaca ta milloica gueituric, ascoturic balira bere; eta
 iñurri, euli, elcho pitin batec, millatic <380> milla urtera baño ez edanic,
 munduco ur guztiac agortuteco bear cituan urte luceac baño, dempora luce-
 170 agoan egongo dira condenatuac infernuco pena, su ta gar bician sarturic, se-
 cula arindu bague, consolamenturic artu bague. Garia ta ura bein edo bein
 guichituaz joango litequez; baña ez infernuco penac, irautez ta iraupez az-
 quenbagueac direalaco. O, gauza arrigarria! O, iraute lucea! Eztaquit celan
 pecatu eguiten daben au sinisten daben cristiñauac.

3 §.

175 Gogoratutea bacarric, cer izango dan infernuan betico egotea, seculaco
 penac igaro bearra, ta iños bere pena oneec ez azquendutea, ez esperanzaric
 orretaraco euquitea da asco, lastu ta icaratuteco pecatariric andiena, galdu
 gaistoena. Jangoicoac euquico eztaben leguez finic, ez eta infernuco neque-
 ac bere: cerren iraungo daben Jangoicoac dirauan artean.

180 O, mundu zoroa, cristiñau itsu sor gortu adimentubaguea! O zu, beti pe-
 catuan sarturic bici zareana; gorputzari nai dituan atseguñiac emoten deu-
 tsazuzana; Jangoicoric, ceruric, infernuric ezpalego leguez bici zareana!
 emengo pena labur bat, neque guichi bat, ordu bateco mina ecin sufritu do-
 185 zuna; gorputzeco gach bat dozunean aimbeste contu ta ardura artuten dozu-
 na: contu eguizu, gogoratu eguizu, ea cer izango dan gorputz ori betico suan
 erreten icustea; gomuta zaite seculabagueco secula agaz, esperanzabagueco
 beti agaz; ta ondo gogoratu ta consideraturic onetan, larga eguizuz gueroco
 lucementu ero utsac; guerotic guerora ibilteac; gueroco uste engañagarriac

-
- 54-163 *lichaquie*: erabat ondo irakurtzen ez denez, *lichaquie* (sic) zein *lichaque* ere izan lite-
 ke, baina gramatikako forma (*lichaquie* edo *lichaquee*, GB 36) hobetsi dut.
- 54-165 *nosbaiteco* < *noizbaiteco* (GGero 606).
- 54-167 *millatic milla urtera* < *milla urthetatic milla urthetara* (GGero 607).
- 54-171 *irautez ta iraupez* = GGero 607; cf. orobat 55-13. oh. vs *iraupe* > *iraupen* aldaketa
 (12-64/65. oh.).
- 54-172/173 *O, gauza arrigarria!...*: lerrokada bukaerarainokoa Añibarroren eransketa da.
- 54-178/179 *Jangoicoac euquico eztaben... ez eta infernuco nequeac bere*: egitura bitxia, < *Ceren
 nola Iaincoac ezpaitu iñanen finic, eta ez accabatceric: hala ifernuco penec ere ez-
 tute iñanen finic, eta ez accabatceric* (GGero 607).
- 54-180/182 *O zu... ezpalego leguez bici zareana*: Añibarroren eransketa.
- 54-186/187 *seculabagueco secula agaz, esperanzabagueco beti agaz* < *seculagabeco secula
 hartçaz, esperantçagabeco bethiere hartçaz* (GGero 607).
- 54-187 *ondo*: ondoan *onetan*, ezabatua.
consideraturic onetan: goraxeago bezala (ik. 54-48. oh.).

190 confesetaco, penitencia eguiteco, pecaturic urteteco, bicitza santu bat eguiteco, Jangoicoagana biurtuteco.

Infernutárrac infernuan egon ezquero urte milla ascotan; ta icusiric euren pena luce igaroaz ez dabela probechuric, dirudi biotz triste, jausi, ilunaz esango deutseela Jangoicoari: Cer da au, Jangoico andia? Non da zure misericordia, biguntasuna, erruquitasuna? Celan dozu gugaz orren biotz gogor calzaiduzcoa? Nos artean euquico gozuz penazco lecu onetan? Urteac eta urteac igaro dira emen gagozala erreric, gorituric, aricaturic. Ecin sufridu dogu onembeste. Nos, bada, acabatuco dira emengo penac, nos urtengo dogu emendic, nos aldatuco dozu gure contra emonic dozun sententia? Nos? A, galdu gaistoac, eranzungo jaque, onic mereci eztozuenac, izango bere eztozuenac, erremediobagueturic zagozénac. Itanduten deustazue cer izango da[n] zuecaz? Nos urtengo dozuen ortic? Ichozue oraindiño pusca bat; gox itoten zaree; dempora charra da orain contu ori aterateco; len munduan atera bear cenduen. Jaquinic zagoce, zuen penac orainche bariro asten direala; ta emetic beste orrembeste urteen buruan, bardin orduan asico <380bis> direala. Itandu eguzue, bada, beste bein, ea nos acabatuco direan. Orche secula betico egon bearco dozue; nire sententia ezta iños aldatuco; bere indarrean seculaco egongo da.

210 Eranzuera otz, motz, gogor au enzuten dabenean, cer pensatu, cer esan ta eguingo dabe arima madaricatuac? Ce sentimentua eracusico eztabe? Asico dira negarrez, dedarrez, cizpuruca, biraoca, ernegaturic, errabiaturic, desesperaturic. Asico dira euren miseria ta zorigacha, euren buruac eta besteenac madaricatuten: aguinca, atzamarca euren gorputzac zatitzen. Eta gueratuco dira entero triste, biotz-jausiac, etsituac, penatuac; iñondic bere consueluric, erremedioric, bitartecoric, esperanzaric eztaucan bat gueldituten dan leguez.

220 Eta cegaiti au onela? Cegaiti onembeste gach, min ta neque? Eta cergaiti cabu-acabantzaric izateco icharomen bague? Cergaiti? Pecatu mortal bat gaiti. O, ce gach icaragarria dan pecatua! Ce gorroto andia deus Jangoicoac! Asco da ara joateco pecatu mortal bacar bat. Celan, bada, eguiten dira aimbeste, ain sarri, ain ardura bague; ta ori cristiñau fededunen artean?

54-189/190 *confesetaco... biurtuteco*: Añibarroren eransketa.

54-191 *urte milla ascotan < anhitz milla urthez (GGero 608); milla urte behar luke (ik. § 5.1.2.7).*

54-200 *erremediobagueturic zagozénac < erremediotic campoan çaretenac (GGero 608).*

54-201/202 *gox itoten zaree < goiz urgoitu çarete (GGero 608).*

54-202/203 *dempora charra... atera bear cenduen*: Añibarroren eransketa.

54-204 *urteen buruan*: ik. 54-133. oh.

54-209 *Ce sentimentua eracusico eztabe? < Cer sentimentu eracutsico duten? (GGero 609).*

54-219/225 *Celan, bada... su ta garrez inguraturic?:* Añibarroren eransketa.

225 Emon lei itsutasun andiagoric? Ta zagoz sosegu ta epetasun orregaz, confesatu bague, pecatu mortalean? Badozu sinismenic, federic? Eta lo eguiten dozu? Barre, solasa, jostatzen zabiltz? Gogoratu dozu cer dan infernuan ego-tea, Jesusen laguntzaric ta cerutic erbesteturic, deabruz, su ta garrez inguraturic? Zuc orain usteco dozu bidebague andia eguiten deutsalala Jangoicoac condenatu bati, istante baten eguin eban pecatuagaiti seculaco castigua emonaz. Baña urrengo buruan eracusico deutsut, ezteutsala orretan pecatariari injuria, ez bidebageric eguiten.

54-223 *Barre, solasa, jostatzen zabiltz?:* egitura bitxia, edo aurreko perpausaren *eguin* aditza jakintzat emanaz, edo *solasa*-ren ordezt *solasca* zioela eginaz konpondu beharrekoa.

55. BURUA

Cegaiti ain dempora laburrean eguiten dan pecatuari dagoquion infernuan ain castigu andi ta lucea

5

1 §.

Ustez dirudi ta esan lei bidebagea edo injuria eguiten jacola pecatari bati, dempora labur guichi baten eguin eban pecatuagaiti, aimbat demporaco castigua emote[a]z. Baña, baldin ondo gogoratuten badogu, icusico dogu ez jacala orretan bidebageric eguiten. Eta bai pecatu <381> mortal danic chiquienari bere, justuro, zucen ta ondo dagocala emoten jacon seculaco penea, castigua ta infernua. Castigu ta pena au ezta infinito, *neurribagea*, berezco indartasun guztiaz; bada, alaco pena ecin jaso lei criatura batec. Baña da *neurribagea*, irautez ta iraupez, secula acabatuco eztana.

15 Onetaraco Santo Tomasec bere irugarren partean emoten dituan iru errazoiataric lenengoa da: Dempora guichi laburrean eguiten dan pecatuari emoten jaco betiraun guztico castigua, beragaz ofenditzen dalaco Jangoico bat ecin gueiangoan andia, miragarria, amai-azquenbagea. Bada orrela, castigua bere atzenbagea, acabatu, amaituco eztana izan bear da.

55-7/8 *aimbat demporaco* < *hanbat demborataco* (GGero 610); ik. § 5.1.1.4.

55-8 *emote[a]z* < *emaitez* (GGero 610).

55-10 *justuro* < *iustuqui* (GGero 610).

55-11 *Castigu*: ondoan *au*, ezabatua; *pena* ondoko *au*, berriz, gainean erantsia, leh. *penau*.

55-13 *irautez ta iraupez* = GGero 610; ik. 54-171. oh.

55-15 *lenengoa*: leh. *lengoa*.

55-17 *amai-azquenbagea*: hots, amaigabea eta azkengabea; ik. § 5.3.1.

55-18 *atzenbagea* < *infinitia* (GGero 611).

20 Baldin lurreco erregue bati belarrondoco bat emoten deutsanac, mereci
 badau castigu andiagoo, beste edoceini emoten deutsana baño: alan castigu
 andiagoo dagoquio, merecico dau, Jangoico berari, mundu ta ceru guztico
 erregue, eguille ta jabeari emoten deutsanac. Bada pecatariac, beragan da-
 nez, au eguiten dau pecatu mortalean jausten dan guztian. Emen munduan
 25 bere ascotan, dempora guichi labur baten eguiten dan gaistaqueriari, lapur-
 queriari, eriotzeari, emon daroioe castigu andia ta lucea: destierrua, galerac,
 carcela urte ascotacoa, ta bai eriotzea bere.

Au alan dala ezagutuco da, beguiraturic guizonaren pecatuagaiti eguin
 zan pagamentua, satisfaciñoa, quitutasuna. Bada, onetaraco Jangoicoaren
 Semea guizon eguin bear zan, emon ta issuri bere odol balio andicoa, ta cru-
 30 tze baten il. Ce gach icaragarria ezta izango pecatua, onembeste erremedio
 quitugarri escatuten badau? Pagu neurribaguetic atera guiñei, pecatuaren
 neurribagueco zorra.

Bici garean artean quitutu guiñeiz gueure pecatuac, baliatuten bagara
 Jesu Cristoren merecimentu, pena ta eriotzeaz. Bada, pecatuari badagoco
 35 pena ta castigu neurribaguea, onen quitusaritzat esqueñiten dogun paga-
 mentua Jesu Cristoren merecimentuacaz bere, neurribaco baliocoo da. Baña
 bici gare[a]n artean, ezpadogu pagua ta quitutasun au eguiten, errazoiac emon-
 go deuscue infernuan muga ta neurribagueco castigua, pena seculacoo, aca-
 beraric izango eztabena.

40 2 §.

Dempora guichian eguiten dan pecatuari emoten jaco castigu lucea ta se-
 culacoo, cerren orretaraco eztan beguiratuten, becatua eguiten emoten dan
 dempora <382> laburrari, ezpada pecatu eguiteco euqui zan gogoari, boron-
 45 dateari, maliciari ta Jangoico berari eguin jacon ofenseari. Bada, pecatu bera-
 gaz dagoala ta pecatu eguiteco gogoaz dagoala ilten danac, gueiago bici izan
 baliz, pecatu gueiago eguingo eban. Gura eban gueiago bici, pecatu gueiago
 eguiteco. Acabetan jaco bicitzea, baña ez pecaturaco gogoo, naia, borondatea.

Onelacoai jazoten jaque, gaubez candela arguitan jocoan dagozanai
 guertatzen jaqueena. Largatzen dabe jocoo, acabatzen jaqueelaco candelaa.

55-20 *deutsana*: leh. *deutsanac*; cf. *emaiten dioenac baino* (GGero 611).
castigu: *aurrean me*] (*mereci?*), ezabatua; cf. *cinez merecico du gaztigu handia* (GGero 611).
 55-25 *daroioe*: leh. *daroe*.
 55-31 *pecatuaren*: *aurrean neurri*] (*neurribagueco?*), ezabatua.
 55-36 *neurribaco*: honezaz gain, *ganorabaco* bakarrik (1-71, 8-188 eta 56-123) erabiltzen
 du.
 55-37 *gare[a]n*: ik. 1-134/135. oh.
pagua ta quitutasun au: halaxe ageri da, bitxia izan arren.
 55-44/45 *pecatu beragaz dagoala < beccatua berequin duela* (GGero 612).

- 50 Onec iraun baleu, jocoac bere iraungo eban. Alan dira, bada, pecatuan ilten direanac bere. Iraun erazo izan al baleutsé gueiago bicitzeari, pecatu gueiago eguingo ebén, San Gregorio andiac diñon leguez. Gura eben beti bici, beti pecatuari jarraituteco; ta onegaiti beti-betico castigua emoten jaqué. Bada, San Gregorio berac diñolez: Errazoi da, justiciari dagoquiona da, ondo ta zucen eguiña da, eztidilla bein bere castigu baga egon, bein bere pecaturic bague egon gura ez ebana. Onegaiti bada, errazoi az emoten jaco betiraun guztico pena ta castigua lasterca baten eguin zan gaistaqueriari: cerren pecatu eguitean igaroten dan demporea laburra bada bere, ori eguiteco borondatea lucea ta beticoa dan.
- 60 Eta batzuetan batzuc esaten badabe bere, pecaturic urten gura dabela, beste bein eguiteco gogoric ez dabela: baña obraz ta eguitez contrara eracusten dabe. Bada, pecatuan bicitzea acabetan dabe; ta beragaiti acabatuco eztan castigua ondo dagoquie.

3 §.

- 65 Santo Tomasec diño, dempora guichi labur piscan eguin zan pecatuari dagoquiola castigu andi luce seculacoa, pecatua ta pecatuaren errua, orbana, mancha, errastua, ondaquiña gueratuten dalaco seculaco garbitu ta quendu baga. Ecin parcatu liteque, ez garbitu pecatua, Jangoicoaren gracia bague, penitencia eguin bague; ta il ezquero bioc falta dira, ecin eguin litequez, ezta demporaric. Bada orrela, pecatuaren pena ta castiguac bere iraun bear dau betico. Eztator ondo dagoan pecatua, ta dagoan castigu bague.

- 75 Mercataritza, tratua, saldu-eroste bat laster eguiten da. Baña bein eguiñac betico dirau: saldua salduric, erosia erosiric guelditzen da betico. Buruan colpe bat emoten deusuenean, colpea laster dago <383> eguinic; baña osotutea, sendatutea nequez, luzaro, edo iños bere ez. Osatu ezquero bere, gueratuten da gueienetan marquea, señalea. Onela, pecatuaren saldu-erosia ta colpea arin eguiten da. Baña gueldituten dan manchea, marquea, señalea, errua, zorra ta obligaciñoa seculaco guelditzen da. Zorra eguiten da, pagua

-
- 55-51/52 *gueiago bicitzeari, pecatu gueiago: leh. bicitzeari gueiago, pe] (pecatu?); cf. Iraun araci al baleraucate guehiago biciari, beccatu guehiago... (GGero 613).*
- 55-52 *San: aurean diño, ezabatua; cf. (Dio San Gregorioc) (GGero 613).*
- 55-56 *ebana: jat. ebanac (arg. zuz.); cf. ezittecín... etcirenac (GGero 613).*
- 55-57 *lasterca baten < dembora gutiz eta laburrez (GGero 613).*
- 55-61/62 *contrara eracusten = GGero 614.*
- 55-70 *demporaric: leh. dempora.*
- 55-71 *Eztator ondo dagoan pecatua, ta dagoan castigu bague < Ceren ezta arraçoín, dagoen beccatua, eta dagoen gatzigu gabe (GGero 614).*
- 55-72 *saldu-eroste bat < sal-erosia (GGero 614).*
- 55-75 *edo iños bere ez: Añibarroren eransketa.*

80 ez. Igaroten da colpea, eta gueldituten da ondocoaren ondaquiña, errastua, mina.

Aror, bada, eracusiric, gueratuten dan ondocoagaiti, arin laster ta dem-pora labor guichian eguin zan pecatuari emoten jacon secula betico iraungo daben pena ta castigua. Emoten jacon leguez seculaco gloria ta saria, dem-pora guichi laburrean eguiten dan obra on bati.

55-79/80 *ondocoaren ondaquiña, errastua, mina* < *ondoco ondorea* (GGero 615); ik. hurrengo oharra.

55-81 *ondocoagaiti* < *ondoco ondoreagatic* (GGero 615); *ondore* itzultzeko arazoez, ik. § 5.3.4.

56. BURUA

*Cegaiti Jangoico misericordi[a]dunac ezteutsén parcatuten
secula infernuan dagozanai.*

1 §.

5 Gogoac emoten deust, benturaz batzuc esango dabéla: Ez litzateque obe,
Jangoicoa izan ezquero orren ona, erruquiorra ta ontasun bera, euquitea erru-
quia infernuan dagozan erruquiorracaz: beintzat dempora lucean an euqui
eta castigatu ezquero, ta euren uts eguiteac ezagutu ezquero? Bat baño
gueiago izan dira au alan esan dabenac. Gaisto oquerrac au alan izatea gura
10 leuqué. Baña ezta alan izango; eta ezta errazoi alan izan dedin. Cerren, ba-
tetic, baldin ezpaliz seculaco infernuric ta infernuaren bildurric, guichi izan-
go litequez munduan onac, justuac, prestuac, contuzcoac. Jaquinic ta sinis-
turic infernu icaragarri bat dagoala aoa zabalic gu irunsiteco, orrembeste
escandalo, oquer ta gaistaqueria enzun ta icusten badira; cer liteque, baldin
15 baguenqui alangoric eztagoala, edo ango penac eztireala betico izango? Pur-
gatorioco penac eztiriala betico irautecoac jaquinic, ardura entero andiric ar-
tuten eztogun leguez, infernucoagaiti bere bildur ta atzerapen guichi artu-
co guenduque; beintzat pecatu gueiagotan jausico guñatequez; bildur gui-
chiago Jangoicoari artuco gueunquio; munduac Giniebra edo Babilonia
20 gaisto bat irudingo leuque.

56-2 *misericordi[a]dunac* < *misericordiossac* (GGero 615); cf. 11-7, 11-145 eta batez ere
A-85, non egileak berak zuzendu duen.

56-7 *erruquiorracaz*: jat. *erruquiarracaz* (arg. zuz.).

56-10 *izan dedin*: leh. *izatea*, < *den* (GGero 616).

56-16 *eztiriala*: jat. *eztirialaco* (arg. zuz.).

56-17/20 *infernucoagaiti bere... irudingo leuque*: Añibarro *more*; cf. *Purgatorioetacoaz conso-
latcen gara, handic noizbait ilquitquo* [sic] *garelaco esperantçarequin, hala conso-
la guindezque bada, ifernucoaz ere* (GGero 616).

56-20 *irudingo*: ik. 46-144. oh.

25 Eta barriz, bestetic, ezta ondo eguiña, ezta errazoi, ezta combeni, Judas gaistoa egon dedin ceruan beste Apostolu santuen laguntzan. Eztirudi ondo, Jangoicoaren contra ibilli direanac, ta aren serbitzari umil, obedille <384> leal santuac beste munduan bardinac izateac. Au ez liteque misericordia, ezpada justiciaren falta; eta Jangoicoagan ecin dateque onelaco uts eguiteric, gobernubaguetasunic.

30 Onegaiti bada, ezteutso Jangoico zucen artez justuac bidebageric eguiten condenatuari, ez iños parcatuteaz. Ta ez parcatu arren, misericordioso ta erruquiorra da ta izango da Jangoicoa. Bada, Santo Tomasec diñolez: Jangoicoac berez, beragan danez, guztiai parcatuten deutsé; guztiacaz dauca misericordia. Baña bere neurrian, justiciac escatuten deutsan erara; ta orretaraco iños mereciguilla ta gai eguiten danean, ta ez bestela. Eta, celan deabruac eta guizon condenatuac eztagozan misericordia ta parcaciñoa irabazteco gai, borondate gaisto gogortuan dagozalaco: alan ezta euretara elduten
35 Jangoicoaren misericordia. Eurac euren buruac galdu dituez, Oseas profeta santuac eracusten daben leguez: eurac eragozten deutse Jaunari misericordia euquitea euracaz.

40 Baldin infernuan dagozanac baleuqué euren pecauten damu eguiazco bat, garbai oso benetaco bat; baleguie penitencia, biurtuco balira Jangoicoagana, itzulico balebe euren borondate bestea aldera, gaistotic onera, gorrotoric amoriora, orduan eracusico leuca euren aldera Jangoicoa[c] bere ontasuna, erruquia, parcatuco leusquioez euren pecatu guztiac, orain penitencia eguiazcoa eguiten dabenai parcatzen deutseen leguez. Orain gu bidezcoac gara: eguin guínei penitencia; baña aec ez: ez dabe orretaraco, ez gogoric, ez
45 laguntzaric, ez bitartetasunic, ez poderioric, ez graciari; goitic, cerutic etorri bear jaque gracia au; nai balebe bere, ecin eguin leie penitenciaric: igaro jaque orretaraco demporea, adiuntza, ocasiñoa; acabatu da aentzat feria; ichi dira ate guztiac, eztabe erremedioric.

50 Condenatuac euren pecatuen damua badabe bere, baña ez onetaraco bear dana: ez dabe Jangoicoagaiti, ez Jangoicoari zor jacon amoreagaiti, ezpada igaroten dituezan penac gaiti, Antioco ta Saul erregueac euqui ebena leguez. Aberre batec bere, min artzen dabenean, sentimentua eracusten dau. Infernuco condenatuac bere dauqueen damua, pena, sentimentua, dator icusteric euren

56-25/26 *onelaco uts eguiteric, gobernubaguetasunic < halaco faltaric (GGero 616).*

56-32 *mereciguilla ta gai < gai eta merecient (GGero 617).*

56-33/34 *eztagozan... irabazteco gai < ezpaitira... erdiesteco gai (GGero 617).*

56-42 *pecatu guztiac: leh. pecatuac, < beccatu guztiac (GGero 617).*

56-43 *bidezcoac < bidezcoac (GGero 618).*

56-45 *graciari: ondoan nai balebe bere, ecin p] (penitenciaric?), ezabatua; cf. gero 56-46an ezarria: tartekoa Añibaroren eransketa da.*

56-47 *demporea, adiuntza, ocasiñoa < dembora (GGero 618).*

56-51 *Antioco ta... leguez: Añibaroren eransketa.*

55 buruac ain pena ta min andietan; damu apurric ez dabe Jangoicoa ofenditu iza-
naz. Itsutuac, etsituac, gogortuac ta desesperatuac dagoz; ecin gauza onic as-
matu, gogoratu, eguin leie. <385> Jangoico berac dirauscu Escritura Santuan
aimbat lecutan, infernuan eztagoala erremedioric, ez acabatzeric, ez bitarteta-
60 eguiazcoa eguiten ezpadogu. Contuan ifinten gaitu, adirazo, bai ta cemaitu,
menazatu, orain bici garean demporan baliatzen ezpagara, gure utseguite
oquerrac erremediatzen ezpadoguz, bicitza gaistoa onduten ezpadogu, gal-
duac izango gareala; il ezquero on eguiteco demporaric euquico eztogula.

2 §.

65 Baña oraindiño batec edo batec esango dau: Eguia da guzti ori; eguia da
Jangoicoac alan dirauscula; alan cemaitu, menazatuten gaituala. Baña ben-
turaz cemai ta menazu oneec eztira cemaiac baño izango; berba ta esate ba-
carretan igaroco dira. Bada, Jonas profetaren demporan bere, cemaitu eban
70 Jangoicoac Ninive uria, esaten ebala berrogei egun barru ondatu, banatu,
galduco ebala Ninive erri peccataria. Baña ez eban ondatu, ez eban bete esa-
na; menazatu eban, baña colperic, castiguric emon ez. Alan izan liteque,
onetara etorri litequez infernuco peneetara seculaco botateco eguiten dituan
cemaiac bere. Eguia da, alan izango da, baldin ninivitar peccataria leguez,
75 guc bere orain penitencia eguiten badogu; baña bestela ez, iñolaco; il ez-
quero, arbola lurretic atera ezquero, ecin fruturic emon lei.

Bai ta Noe santuaren demporan Jangoicoac cemaitu eban mundu guztia,
ta esan bere bai, urjola andi bategaz itoco ebala. Celan esan, alan eguin eban:
ito ta ondatu cituan guizon ta bicicor guztia; bete, cumplitu eban bere ce-
maia. Ez eutseen ninivitarrai leguez icharon ta parcatu, aec leguez peniten-
80 cia eguin ez ebélaco. Penitencia eguiazcoa ta demporazcoa eguiten danean,
eztira Jangoicoaren cemaiac menazuac baño. Alan adirazoten dau Jeremias
profeta santuac Jangoicoaren icenean, esanic: Baldin nic cemaitu dodan gen-
teac bere peccatuen penitencia eguiten badau, nic bere atzeratuco <386> dot
castigua emoteco artu neban ustea, gogoa ta eguin neban cemaia. Eta, celan

- 56-59 *peccatu: aurean penit] (penitencia?), ezabatua. Esaldia (Ascotan... ezpadogu) Añibarroren eransketa da.*
56-67/68 *berba ta esate bacarretan igaroco dira < hitzetan iraganen dira (GGero 619).*
56-72 *peneetara: ik. § 4.2.4.*
56-74/75 *il ezquero...: bukaerainokoa letra-tinta ezberdinez dago, geroago erantsia bailitzan. Dena dela, lehenagotik, baña bestela ez-etik aurrera, dena Añibarroren eransketa da.*
56-76 *Bai ta: ondoan esango dozu, ezabatua.*
56-81 *cemaiac menazuac baño < mehatchuac mehatchu baicen (GGero 619); ik. § 5.5.1.*
56-84 *eguin neban cemaia: eta ondoan Axularrek eransten du: Erran nahi du, baldin iende hura, edo nor nahi den bertceric ere, guelditcen eta guibelatcen bada beccatu eguitetic, gueldituco eta guibelatuco naiz ni ere, mehatchatu beçala gatzigtatetic (GGero 620).*

85 infernuan dagozanac ez eben munduan bear zan penitencia eguin; ta orain infernuan dagozan leguez ecinduric eguiteco; onegaiti cumplitzen dira eura-
caz an, emen eguin jaqueezan cemaiaic, queñuac, menazuac.

Onen ganean ederto berba eguiten dau San Juan Crisostomoc, esanic:
Zuc gura cenduque, Jangoicoaren cemaiaic ta sentenciac ez izatea cemaiaic
90 baño; bada, ori zure escuan dago. Ondu ta obetu zaite, ta eztira beteco, guer-
tatuco, jazoco, icusico, cumplituco. Baña obetuten ezpazará, zugan beteco
dira: ceuc igaro, sufritu, probatu bearco dozuz, orain Jangoicoac adirazoten
deutsuzan castigúac, caltéac, penac, cemaiaic. Ninivetarrac leguez baliatu
balira Noeren demporaco gentéac, eguin jaqueezan, emon ta biraldu jaque-
95 ezan abisuacaz, etzirian galduco, itoco; ez jaqueen jazoco guerta jaqueena.
Guri bere castigu ta calteric etorrico ez jacu, baldin cemaiaic bildurturic,
orain penitencia eguiten badogu, orain onera biurtzen bagara.

Eta alan, orain gueuroc nor bagara, eztira guretzat Jaunaren cemaiaic,
menazuac ta queñuac baño izango. Baña bestela, baldin pecatu mortalean
100 gagozala beguiac ichiten bajacuz, eguin da gurea, galdu da arimea; ez da
guero gueiago onera biurtzeric, ez penitencia eguiteric: amaitu zan dempo-
rea.

Au eguia garbia da, cristiñau fededun guztiac sinistu ta autortuten dabe-
na. Ganeco guztia, ta Jangoicoac beste munduan, demporaren buruan ta
105 nosbait izango dabela misericordia infernucoacaz esatea, gogoratutea, sinis-
tu ta uste izatea da zoraqueria, asmo utsa, engañua, falsia, ta guizon gaisto
galdu conciencia zabal nasaiaren deseoa, nai gurea, contua, ipuiña ta pensua,
ta fedearen contra.

Guzti onegaiti, San Pabloc dirauscun leguez, dempora, beta, astia ta era
110 on au dogun artean, daguigun on. Isaias profeteac bere badirauscu: Billatu
eguizue Jangoicoa, idoro al daizuen dempora adiuntzecoan. Bada, orain ido-
ro guiñei, ta ez guero. Jesu Cristoc judegu itsu gogorrai, ta aetan guztioi di-
rauscu: Billatuco nozue, <387> baña ez nozue idoroco. Gauza galdua, galdu
dan lecuan billatu ta topatu bear da. Munduan galdu dogu Jangoicoa; bada,
115 emen billatu bear dogu, ta ez beste munduan: emen galduten da, ta ez an.

56-97 *onera biurtzen < onera convertitcen (GGero 621).*

56-98 *nor bagara = GGero 621.*

56-98/99 *cemaiaic, menazuac ta queñuac baño < mehatchuac mehatchu baicen (GGero 621).
cemaiaic: ondoan erabaguiac, ezabatuta.*

56-106/107 *guizon gaisto galdu conciencia zabal nasaiaren deseoa < iende galduen desircundea
(GGero 621).*

56-107 *pensua = GGero 621; ik. 1-86. oh.*

56-108 *ta fedearen contra: Añibarroren eransketa.*

56-109/110 *dempora, beta, astia ta era on au: astia: ik. § 5.1.1.1.*

56-110 *daguigun on < daguigun ongui (GGero 621).*

56-111 *dempora adiuntzecoan < demboran (GGero 621).*

Esan ta eracusi dan guztiric atera bear dogun frutua ta irabaztea da, gogoratutea gueuc gueure buruari baño calte andiagoric, ecin bestec eguin lei-gula. Mundu guztia gure contra jagui arren, baldin guc bideric emoten ezpa-
 120 dogu, egotzico ez gaituela infernura. Baña gueuc bacarric bota guiñei gueure burua ango sutegui icaragarri secula beticora. Etzaita, bada, ceu ceuretzat eguin ta biurtu orren arerio gogorra; erruquia ta contu euqui eguizu, arren, ceure buruaz, ceure arima bacar baliotsu orregaz. Etzaita ibilli gueroco luzamentu ero, uts, ganorabacoetan.

Biurtu zaita ceimbait lasterren ceure Jangoico maiteagana; atera eguizuz
 125 demporaz ceure concienciaco contu onac; presta zaita gaurganic confesiño eguiazco bat eguiteco; etzaita fiatu etorquizun engañarriarian, gueroco guero eroetan. Orain gura zaitu Jangoicoac; eztaquizu guero naico bazaitu. Zuc orain gura ezpadozu, benturaz guero berac enzungo etzaitu, artuco etzaitu, berandu zatozalaco, belu dalaco, demporea acabatu dalaco, atea ichi dalaco.

Onetaraco sarri, lecu ta dempora guztietan gogoan erabilli eguizuz infernuc
 130 o pena, neque ta zorigáchac. Batez bere, iños azquenduco eztireala; atzendu ta acabetaco bere esperanzaric, icharomenic eztagoala; secula betico iraungo dabéla. Au gogoratu eguizu; onetan pensatu gau ta egun: lo eguitera zoazanean, irazarten zareanean, tentamentu char bat jatortzunean. Esca
 135 eguiozu onetaraco Jangoicoari bere gracia, Ama Virginari bere bitartetasuna, angueru ta santuai euren laguntza.

Gogo ta asmo andi batez asi zaita bicitza on garbi bat eguitera: eguizu bicitza
 guztico confesiño guztiroco bat; emon zaita libru santuac iracurtera, gogozco oraciñoa egunero euquitera, meza enzutera egun guztietan lecuric
 140 badozu; ez beimbere ichi Maria <388> Santisimaren Errosario Santua. Atera eguizuz lengo utsac, orain demporea ondo emonic; larga eguizuz pecatuzco bideac, echeac, lagunac, ocasiñoac, peligru ta arriscuac; eci gorputz gaisto ori, baldin gura ezpadozu guero icustea erretzen infernuc su ta garreran. Eguizuz baqueac ta adisquidetu zaita ceure arerio gaisquil persegui-
 145 lleaz; biurtu eiozu fama quendua ta gauza ostua quendu deutzazunari; izan

-
- 56-120 *bada*: jat. *bat* (arg. zuz.); cf. *Etçarela bada cerori ceuretçat horrein etsai handia* (GGero 622); kopia huts argia, beraz.
 56-121 *erruquia ta contu euqui eguizu < urricall bequiçu* (GGero 622).
 56-124 *ceimbait*: ik. 48-58. oh.
 56-124/129 *atera eguizuz...*: hemendik eta lerrokada bukaerarainokoa Añibarroren eransketa da.
 56-127 *bazaitu*: *ba-* zehar-galderan (ik. § 4.4.7).
 56-134/148 *tentamentu char bat jatortzunean...*: hemendik hasi eta aipatu lerrorainoko guztia Añibarroren eransketa da.
 56-144 *gaisquil*: forma biluzia *gaisquilla* izan ohi da (cf. *gaisquilleari* 20-56, *gaisquillea* 22-130, *gaisquillac* 28-32, etab.).
 56-145 *quendua*: gainean, *galdua*-ren ordez; ik. 53-248. oh.

zaitte contuzcoa caridadean ta progimuaren amudioan. Artu eguiozu gorroto ta bildur andi bat pecatu chiquiari; bada, onec dacar pecatu mortala, ta beronec infernuco castigua.

150 Au eguiten badozu, onela bici bazara, uste dot Jesus maiteac arguituco zaituala, lagundu, zoriondu ta escua emon; bide onean ifinico zareala, edo sartuteco abiatu ta prestatuco zareala; ta ondo asiric ta obeto jarraituric ceruco bideari, mundu onetaco ichasoco ecachac, gachac, gora-berac igaroric, elduco zareala Ceru ederreco caia edo portu segurura, Jangoicoaren laguntzara ta cerutar guztien lagun, erritar ta adisquide maite beticoa izatera. *Jangoicoac alan nai daiala.*

O.S.C.S.R.E.

Fr. Pedro Antonio Añibarro.

56-153 *caia edo portu segurura < portura (GGero 623); caia: ik. § 5.1.1.1.*

Libru onetaco BURUEN idorogarria

	<i>Burúiac</i>	<i>Orriac</i>
	Axularren carta alabagarria obispo jaun bati	5
	1. Alperqueric dacartzan caltéac	11
5	2. Beste bat onen ganean	26
	3. Celan nai-gura utseetan ta deseo bacarretan igaroten jacun demporea	34
	4. Celan ez dogun gueroco segurantzaric	48
10	5. Gueroco zorian, arriscuan ta bada ezpada menturaz[c]oan benturaturic galduten gara.	57
	6. Gueroago gachago da peaturic jagui ta urtetea	63
	7. Guerotic guerora ibilliric artzen da ecandu gaistoa.	70
	8. Ecandu gaistoac gogortu ta ardurabaguetuten dau peataria	77
15	9. Guerotic guerora gabiltzala, bete diteque pecatuen neurria, ta osotu contua	88

-
- A-1 *idorogarria* < *contua* (GGero 624); erabat ohikoa (cf. *EL*¹ 237, *NekeA* 59, *LauEv* 346, etab., vs *idorobidea*, *EL*² 249).
- A-2 *Orriac*: eskuizkribuaren orrialdeak dira.
- A-3 *obispo*: baina Etxaus *arzobispo* zen, berak lehenago adierazi bezala (0-61).
- A-6 *utseetan*: liburu barruko izenburuan (hemendik aurrera barr.) *utsétan* dio (3-2); ik. § 4.2.4.
- A-10 *benturaturic*: barr. *menturaturic* (5-3).
- A-12 *ibilliric*: barr. *ibilteaz* (7-2).
- A-13 *gogortu ta ardurabaguetuten*: barr. *gogortzen ta ardurabaguetuten* (8-2).
- A-14 *pecatuen*: barr. *becatuen* (9-2).

	10. Asco balio dau Jangoicoaren misericordiac; eta celan bear dan beragan icharon ta fiatu	99
	11. Jangoicoaren misericordian fiaturic, ezta gueroco penitencia luzatu bear	103
20	12. Guerotic guerora ibilteaz galduten dogu demporea	118
	13. Gaztetic zartasunera penitencia lucetuten dabenaz	128
	14. Zartzaroan bere penitencia eguiten eztabenaz.	136
	15. Eriotzaco orduguño pecatuan egoteco gogoa daucanaz.	143
	16. Limosna eguiteaz, ta andic sortuten direan zorientasunac	159
25	17. Limosna ta beste eguite on borondatezcóac, ceuc ceure escuz edo bestearenaz, ceu bici zareala, ondorengoai ichi bague eguin bear dozuz	171
	18. Obra justiciazcoac, concienciaz zor dozuzanac, ondochoi larga bague ceuc eguin bear dozuz.	177
30	19. Ceimbat calte eguiten dituan juramentu ta biraoac; eta celan bear dan ceimbait len quendu ecanduzco oitura au.	185
	20. Aserreac, gorrotoac, areriotasunac dacartzan calteac	202
	21. Aserrea ta gorrotoa amatetaco lenengo osagarria edo erremedioa da bacochac bere ecandu aserreorra ezagutu ta agaz contu euquitea	214
35	22. Bigarren erremedioa da, diraquian lapicoari eguiten jacona, aserreari bere eguitea.	217
	23. Irugarren erremedioa, ez orduan tematu, porfiatzea, colerea igaro artean issilic egotea	224

A-17	<i>icharon ta fiatu</i> : barr. <i>ichadon, fidatu</i> (10-3).
A-22	<i>Zartzaroan... penitencia</i> : barr. <i>Zartasunean... penitenciaric</i> (14-2).
A-23	<i>pecatuan... daucanaz</i> : barr. <i>becatuan... dauquenaz</i> (15-3).
A-24	<i>direan</i> : barr. <i>dirian</i> (16-2).
A-26	<i>bague</i> : barr. <i>baga</i> (17-4).
A-28/29	<i>larga bague</i> : barr. <i>ichi bage</i> (18-3).
A-30	<i>dituan</i> : barr. <i>daben</i> (19-3).
A-31	<i>ceimbait</i> : ik. 48-58. oh.
	<i>quendu ecanduzco oitura au</i> : barr. <i>oituzco usadio au larga</i> (19-5).
A-33	<i>osagarria edo erremedioa</i> : barr. <i>osacaia edo erremedio[a]</i> (21-2).
A-36	<i>diraquian</i> : barr. <i>diraquien</i> (22-2).
A-36/37	<i>jacona, aserreari</i> : barr. <i>jacana aserracuntzari</i> (22-3).
A-38	<i>colerea</i> : barr. <i>colera</i> (23-4).

GUEROCO GUERO

40	24. Laugarren erremedioa, gogoratutea, arerióac eguiten deuscuzan bidebagueac Jangoicoaren castiguac direala	227
	25. Boscarrena, gogartutea, celan dagoan zure arerioa aserre danean	230
	26. Seigarrena, ez jaquin gura izatea cer diñoan genteác gugaiti	231
	27. Aserrea quentzeco beste erremedio batzuc laburrago ifiniac	233
45	28. Lenengo errazoaia arerioari parcatuteco da Jangoicoac aguinduten dabelaco	237
	29. Bigarren errazoaia, Jangoicoac beretzat ta bere contura artuten dabelaco bengatzea	243
50	30. Irugarrena, guc parcatu bear dogu, guri Jangoicoac parcatuco badeuscu	245
	31. Araguizco pecatuac dacartzan caltéac ta itsutasuna	248
	32. Beste calte batzuc	252
	33. Lenengo erremedioa, bidea ta bitartecoa araguizco pecatuaren contra da oraciñoa	256
55	34. Bigarren erremedioa, pensamentu ta gogoeta gaistoai lecuric ez emotea	258
	35. Irugarrena, borondate oso bat euquitea ez alangoric eguiteco . . .	260
	36. Laugarrena, ez alperric egotea	264
	37. Boscarrena, bost cenzunacaz, batez bere beguiacaz, contu euquitea	266
60	38. Seygarrena, miñagaz contu andia euquitea	269
	39. Zazpigarrena, sabelari gueiegui ez emotea, jan-edanean beguiratua izatea	273
	40. Zortzigarrena, enzuteaz, usaiñaz, ucututeaz ardurazcoa izatea . .	276
65	41. Guerotic guerora dabilzénac salatuten ditu euren conciencia	280
	gaistoac	

A-40 *deuscuzan*: barr. *deuscuezan* (24-3).
A-42 *gogartutea*: barr. *gogoratutea* (25-3). *gogartutea*: cf. VB *gogartu* (c.) “meditar”.
A-43 *cer diñoan genteác gugaiti*: barr. *cer diñoen gugaiti genteác* (26-3).
A-44 *quentzeco*: barr. *amatetaco* (27-2).
A-47/48 *artuten dabelaco bengatzea*: barr. *benguetea gordeten dabelaco* (29-3/4).
A-55 *gogoeta*: barr. *gogoraciño* (34-3).
A-57 *alangoric*: barr. *alacoric* (35-3).
A-60 *contu andia euquitea*: barr. *contu euquitea* (38-3).

	42. Alan ibilteac galduten dau concienciaco baquea ta sosegua.	292
	43. Gueroco larga bague, orainganic oitu bear gara onean irautera . .	299
	44. Icusiric Ceruco bidea baño gachago dala infernucoa, larga bear dogu guerotic guerora ibiltea.	308
70	45. Ceruco bidea ce erraza dan	313
	46. Ceruco bidea errazago da infernucoa baño	321
	47. Confesiñoa ezta luzatu bear guerotic guerora	334
	48. Sarri confeseteac dacartzan ónac.	341
75	49. Guerotic guerora dabillanac eguiten deutso bidebaguea Jangoicoari	349
	50. Alan dabillanac eguiten deutsee bidebaguea angueru santuai . . .	353
	51. Eguiten deutso bidebaguea bere buruari, lagunari, mundu guztiari	357
	52. Infernuco penac gogoratuteac laburtzen ditu guerotic guerora ibilteco luzamentuac. Lenengo pena da <i>calte-pena</i>	361
80	53. Infernuan igaroten dan bigarren penea da <i>gorputz-pena</i> , arimaco almenetan ta gorputzeco cenzunetan euquico dana.	366
	54. Infernuan dagoanac eztauco esperanzaric andic urteteco	375
	55. Cegaiti ain dempora laburr[e]an eguiten dan pecatuari dagoquion infernuan ain castigu andi luce beticoa	380
85	56. Cegaiti Jangoico misericordiadunac ezteutseen parcatuten secula infernuan dagozanai	383

A-66 *concienciaco baquea*: barr. *conciencia onaren baquea* (42-2/3).
A-67 *bague*: barr. *baga* (43-2).
A-68 *Ceruco bidea baño gachago dala infernucoa*: barr. *infernuco bidea dala gachago Ceruco baño* (44-2).
A-68/69 *larga bear dogu*: barr. *bear dogu larga* (44-3).
A-72 *ezta luzatu bear guerotic guerora*: barr. *guerotic guerora lucetu bear ezta* (47-2).
A-73 *confeseteac*: barr. *confesateac* (48-3).
A-78 *laburtzen*: barr. *laburtuten* (52-3).
A-82 *dagoanac eztauco... urteteco*: barr. *dagozanac eztaucue... urteiteco* (54-3/4).
A-85 *ezteutseen*: barr. *ezteutsén* (56-2).

HIZTEGIA

Hiztegitxo honek, hitz sorta baten datazioa aurreratzeko edo lekukotasunak berretzeko balioa izateaz gainera, agerian jarri nahi luke —hitzaurreak daukan berariazko hutsunea betetzearren— Añibarrok itzulpen honetan lexikoan egin zuen ahalegin handia, bai inoiz erabili (behar) ez zituen hitz eta esapideak bilduaz, baita, bestalde, Axularren testuko hainbat eta hainbat bere eginaz, ez gutxitan are hauetarako esanahikideak edo azalpen modukoak aurkituaz. Beraz, testuko aberastasunaren gaina eta bikaina da, ez inolaz ere testuko lexiko guztiaren bilduma.

Añibarroren hitzak gaurko grafian ageri dira, testuan ez bezala, idazkera bikoitzak ez ezik, egon litezkeen ulerpen gorabeherak saihesteko, ahal dela.

Itzulpenak, ahaleginean, bitarikoak dira: Axularren testuko kidea (“Ax.” laburduraz markatua) edo Añibarroren azalpena, esanahikide modura erantsia (“Añ.” laburdura). Bietan gutxi gorabehera gaurko idazkera batura jo da, dena dela, jatorrizkoak oharretan emanda daudela kontuan hartuta eta, ustez behintzat, irakurlearen mesedetan. Besterik esaten ez denean, ordea, argitaratzailearen itzulpenak dira.

Lehenengo lekukotasunek orain artean ezarri zaien datazioa daramate alboan. Lehen datazioaz ari naizenean, lehen testu-agerraldiari nagokio: hiztegietakoez, berez garrantzitsuak izan arren, ez dute ari garen arloan interes berezirik, aitzindaria Añibarroren hiztegia edota Larramendirena direnean izan ezik, eta honelakoen berri jadanik emana dago, testuari egindako oharretan, hain zuzen.

Hitzaren hedaduraz jabetzeko, “(Ip.)” laburdura erabili dut; zehazki, delako hitz edo esapidea Iparraldekoa dela adierazten du, edo gutxienez Iparraldean bakarrik aurkitu dela xx. mendera arte. Antzera, hitza Axularrengan bakarrik —xx. mendera arte bederen— aurkitzen denean, ondo-ondoan age-

ri den “(Ax)” laburdurak adierazten du, eta hitza Añibarroren gainerako idazlanetara igaro bada, orduan “(+ Añ)” laburdura erabili dut. Era bereztuan, “(Añ)” laburdurak, Añibarrok bakarrik erabiltzen duen hitza dela diosku.

Lehen lekukotasuna eta hitzaren hedadura erabakitzeko, *OEH*-aren datuak erabili ditut, jakina; honek oraindik eskaintzen ez dituen letretarako, *EH*-ra jo dut, baina kontuan har bedi hitz hautuak baino jasotzen ez dituezez, O letratik aurrera data gabe egoteak ez duela berez ezer esan nahi oraingoz. Añibarroren *GGero* batzuetan bakarrik, sistematik gabe, aipatzen du *OEH*-ak; berak jasotako *item*-ak ez dira hiztegitxo honetan sartu, oharkabeaz ez bada.

Azkenik, parentesi artean eta testu-oharretan bezala buruaren eta lerroaren zenbakia hurrenez hurren emanaz, testuko lehen agerraldiaren (edo oharra daramanaren) kokapena behintzat eskaintzen da, bakan batzuetan agerraldi gehiago edo guztiak, behararen arabera. Inoiz edo behin oharretarako deiak aurkituko dira: testuan jaso ez diren baina eskuizkribuan ondo irakurtzen diren hitzak dira, alegia, guretzat izan dezaketen garrantzia gorabehera, Añibarrok azkenean zokoratuak.

GUEROCO GUERO

- abundo*: Añ. gainez, ugari (16-179).
adibide: Ax. kontseilua (1-182, 23-10).
adigarri: Ax. seinalea (19-317/318).
adiontzaz: adiuntzaz, garaiz (43-84).
adiuntza: Añ. okasioa (56-47).
adiuntzeko: era onekoa (56-111).
adizain: Añ. tribunala (4-74).
aga: Ax. habea (0-90).
agertzaille: Añ. testigua, Ax. lekukoa (19-18, 19-75).
(bere) aginduko: Ax. bere manukoa (32-51).
Agintaritza: Ax. Parlameta (0-102).
ainotsu (1912): Ax. iluna (15-382).
aitatze (1885): Añ. izentazinoa, Ax. aipamena (19-213).
aizartu: Ax. ausartu (42-172).
akabera: bukaera (43-58).
akabeta: Ax. akabatzea (13-100).
albokada: Añ. elkar jotzea, zirria (40-19).
aldagarri (izond.): Ax. birlandatzekoa (39-64).
aldamio: eraikuntzetan goian lan egiteko jar-tzen diren oholak (1-92).
alde guttiz (Ip.): erabat (13-28).
-en alderako: Ax. -en alderakotzat (0-68).
alderdiu (Ax): Añ. makurtu (15-341).
aldez (Ip.): hein batean (8-32, 16-160, 43-229).
aldez... aldez... (Ip.): alde batetik... bestetik... (0-152).
aldez edo moldez (Ip.): Añ. batera edo bestera, nolabait (0-83, 33-32, 46-254, 47-6, 48-135).
aldi txarreko: Ax. haserrekorra (20-175).
aldizka (iz.): aldizkatzea (53-83).
alper-egite: Ax. alfer trabailua (48-118).
altsia (1897): litsa (15-351).
amanzebatu: Ax. amurusa (32-19/20).
amorebagetasun: Ax. desamorioa (32-66).
amost: hamabost, Ax. amorz (19-300).
amurutsu: Ax. amurusa (31-49).
andigura (izond., 1817): Ax. urguilua (14-75).
anditu: Ax. handitsua (47-116).
andiustetu: Ax. prezatu, loriatu (40-73).
andizkari: goreslea, laudatzailea (0-135).
antzi: Ax. antzua (39-32).
antz-irudintza: etsenplua, berdintza (0-24).
aparteko: Ax. berezia (53-90).
ar: Ax. laharra (15-377).
arbitasun: sumindura, Añ. haserre (11-93).
argigile: Ax. argiegilea (41-8).
argitari: argitzailea (9-18).
arintzaille: Ax. aringarria (45-163).
arrabio: amorrua (53-194).
arraño: Ax. arranoa (0-157).
arrausi, arrauzi: Ax. hasbeherapena (8-199, 15-226).
arriskatu (izond.) (1872): arrisksua (50-113).
asago (1946): Añ. urrin, Ax. urrun (8-204).
asko geiago: askoz gehiago (16-231).
asko-nai: Ax. amorioa (31-106).
askotasun: Ax. multzutasuna (15-173).
aserredun (1932): haserre dagoena (20-204).
asmagila (Añ): Ax. maliciatia (16-171).
atrebenzia: Añ. ausardia (11-182).
atseginbagetasun: Ax. desplazera (41-193/194, 46-348).
atsegindu (izond.): Añ. kontentua, poza (46-250/251).
atsemon: Añ. amatatu, Ax. iraungi (22-66).
atzamartu: atzaparkatu (53-193/194).
atzenbage: Ax. infinitua (55-18).
aurrebide (Añ): aurrerabidea (11-172).
aurrezko sartu: lehena sartu, Ax. aitzinean sartu (19-108).
ausardia: ausartzia (2-62).
ausikada: zaunka (3-122).
auzardia: Ax. ausartzia (0-71).
azaltxo (adond.): azaletik (2-60).
azama (Ip.): unidea (2-84).
azi-leku: Ax. hazlekua (39-63).
azor: Ax. aztorea (3-21).
azpisapo: azpisugea (13-103. oh.).
azpitu (1887): Añ. bentzutu, goiartu, Ax. merneratu (1-159).
azpizapotasun: saldukeria (20-35/36).
babanarru: pusla, Ax. ikortzirina (7-69/70. oh.).
baieztu: Ax. frogatu (9-141, 45-4/5).
bakar: Ax. xoilu (3-2); eremutarra (6-118).
bakebagetasun: ezinegona (46-111).
baketi: Ax. bakezkoa (32-78/79).
bakezale: Ax. bakezkoa (32-24).
bakotx batzuk: bakan batzuk (1-146).
baliobage: Ax. alferra (35-10, 53-265).
banaa: Ax. diferentzia (13-192).
banatasun: Ax. diferentzia (11-21/22. oh.).
bardintza: Ax. konparazioa (49-31).
barrikeria: Ax. erran-merranak (1-178).
barritxu: Añ. berba-lapikoa (19-264).
barrurengo: barnekoena (53-42).

- batar*: eremutarra (6-118).
beardun: Ax. probea (16-258).
bearreta: Ax. trabailua (1-41).
begi ordeko (1884): betaurrekoak, Ax. begi ordeak (20-176).
(angeru) begiragile: Ax. begirailea (50-18).
begiramentu: Añ. ardura, Ax. kontua (50-19); begirunea (52-41).
begirarte: Ax. begitartea (22-90).
begiratzaille (1824): Añ. ikuslea (51-59).
begiz galdu (1885): Ax. bistatik galdu (8-193).
beluco: Ax. berankorra (15-274).
benzuer: Ax. garaitia (43-88/89).
berandukor (berankor Ip.): Añ. luzekorra (3-132/133, 48-91).
berbaegikune: Añ. esaera (0-39); Añ. hizkuntza (0-46).
berbagile: hitzuna, hitz egiten duena (0-135).
berbaketan (1959): Ax. hizketan (38-134).
berba-lapiko: berritsua, hitzontzia (19-264).
berbatik berbara: hitzez hitz (0-38).
berbatu: berba egin (11-316, 12-181, 14-160, 15-214, etab.).
beregainezko, bereganeko, etab. (Ip.): beregainekoa (8-121).
beresi: Añ. basoa (0-134).
bertati bertara (1950): Ax. berehala (43-164).
besartu: Ax. besarkatu (46-388).
besteratu: bihurtu, aldatu (7-16).
bestetasun: Ax. diferentzia (11-22).
bestetu (1872): Ax. diferenta (4-123).
betegarri: Ax. konplimentua (5-125).
bibidertu: Ax. doblatu (6-64, 6-109/110).
bide-aurreko: Ax. gidaria (1-266).
bide-inguru: Ax. itzulingurua (45-171).
(eun) bidertu: (ehunez) biderkatu (46-143).
bigunkiro (1872): Ax. malguki (2-60).
bildurkiro: Ax. izigarriki (15-92).
biotz erdiratzaile: Ax. bihotz erdiragarria (53-266/267).
biotz-jausi: Añ. atsekabea (46-110).
biotz-jausten: Añ. desesperatzen (43-123).
bitarte: Ax. erremedioa (22-17).
bitarteko: Ax. erremedioa (21-13).
bitoriadun: Ax. biktoriosa (44-51).
bitxigarri (Añ): bitxia, ederra (53-140).
biurrera: (ostua edo zorra) bihurtzea (18-79).
bizikor: biziduna (56-78).
bostortz (1842): Ax. goldea (43-203).
botoi: Añ. pipila, ninia, Ax. botea, ninikoa (3-66).
brintzatu (1883): pitzatu, Ax. arrazatu (42-44).
brinza: ezpala (?), Añ. arantza (30-37).
-en buruan: -az gero (1-38).
burukala: Ax. eldarnioa (15-371).
burukala izan: Ax. adimendutik kanpoan izan (25-24).
burupe (Ip.): Añ. aurrebidea (11-173).
buztandu (Ip.): hozitu (1-272).
buzterri: Ax. uztarria (44-39/40).
buztertu: Ax. uztartu (45-216).
damugarri: penagarria (3-83).
dario: Ax. (ur) lasterra (2-14).
-en darraian: -en jarraian (50-77).
defensari: Ax. defendatzailea (41-288).
dendatu: Añ. saiatu, Ax. enseiatu (2-8).
deslaitu: Ax. aldaratu (6-7).
doi-doi: Añ. ozta (7-124).
doi-doi: Ax. doiez (16-178).
doloretsu: mindua, minbera (53-157).
Domnus Santu: Domuru Santu eguna (48-211).
edergarri: Ax. edergailuz (30-30/31).
ederrik: Ax. ongi (16-246).
egoki: bezeroa (48-55).
egontza: egoera (54-82).
egote: egoera, Ax. egoitza (41-103).
egikai: egitekoa, Ax. eginbidea (2-8).
eginbagetu (1925): Ax. desegin (54-79/80).
egun aurre: Ax. bezpera (28-119).
eguzkitu (1946): eguzkitan jarri, Ax. iguzkiztatu (1-275/276).
ekertsitu: ejerzitua (10-66).
elgontza: Añ. kontza, Ax. erroa (3-6).
emakume-gizakumezale: emakoa edota giza-koia (53-191).
enkina: Añ. gorrotoa, ikusiezina (24-6).
enkontru txar: istilua (26-48/49).
enzutaldi: Ax. audientzia (2-108).
erabagi: Ax. deliberatuki (3-32).
eradendu: Ax. xertoa (1-19).
eragingile: eragilea, eraginkorra (0-50, 35-109); eraginkortasuna (8-122).
eragozte: Ax. debekua (4-49, 4-53).
eransiera: Ax. iratxetura (5-73).
erausle: Añ. barrixua, Ax. eraslea (48-46).
erazi: larrutu (7-70).
erditu: Añ. umea egin (6-28).
erdoi: Añ. gorrina (1-157).

GUEROCO GUERO

- erlauts*: Ax. kofaua (13-154).
ernegari: Ax. errea (21-37).
eroankizun: jasangarria (45-115, 45-255).
eroanpen: Ax. pairua (21-49).
errazoibage: Ax. desordenatua (31-50).
errazoitik kanporatu: Ax. arrazoiak kanpokoa (20-262).
errebesu: Añ. gomitua, Ax. oka egina (43-244, 43-247).
erremediobagetu: Ax. erremeditik kanpoan izan (54-200).
errenkan: Añ. bata bestearen atzean (4-146).
errenkoretasun: Ax. irakidura (20-172).
errukiortasun: Añ. misericordia, Ax. misericordios izatea (16-38).
esaka gaisto: biraoa (19-316/317).
esatez ta egitez: Ax. hitzez eta obraz (23-20/21).
esetsitasun: Ax. akometamendua (38-78).
eskapremina: Añ. behartasuna (2-82).
eskastasun: Ax. eskasia (46-338).
esku estuko: Añ. zekena, Ax. abariziosa (53-184).
eskuratu: Añ. hezi, Ax. eskuperatu (7-34).
eskutasun: Añ. eskuka, Ax. eskutzatzea (40-85/86).
esperanzabagetu: Ax. etsitu (10-36, 24-61/62).
etorkizun (izond.): etorkizunekoa (21-63).
etxetar: Ax. etxe barrenekoa (41-146).
europok: berok, horiek, Ax. zuek (11-289).
exetu (izond.): sumina, haserre bizikoa (20-179).
ezaguerabagetasun: Ax. ezagutzagabetasuna (43-232).
(berba) eze (1930): lizuna (7-126, 38-7).
ezetasun: lizunkeria (35-92).
ezkotasun (1897): hezetasuna (48-77).
ezkotu: Ax. hezatu (54-31).
eznetu: Ax. esnatu (16-233).
ezpada ze: Ax. baina (12-158/159).
falsiatasun: faltsutasuna, gezurra (20-53).
fanfareria: Ax. balentia (15-127).
fauleru: Ax. gezurtia (19-264).
fiatzaile (1858): Ax. fiadorea (17-46).
filosofari (1980): Ax. filosofoa (9-114).
forfia: Ax. lehia (23-23).
gaberorte: iluntzea, ilunabarra (20-22).
gaiez (1911): Añ. ezer balio ez duena (3-72).
gainerokoa: Ax. gainerakoan (2-24).
gaistoagotu (1828): txarrera egin (8-9).
gaisto-egin (iz.): gaizki egina (5-26).
galtzaera (Añ): Ax. galtzapena (16-257).
garrazpera emon: Ax. horzkitu (3-84/85).
gaubetu: gautu (12-272).
gaur geiago (Añ): hemendik aurrera (14-133).
gauzez: Añ. ezer balio ez duena (3-72).
gaza: Ax. geza (15-346).
geiera: Ax. berretura (49-55/56).
geitura: Ax. berretura (5-73).
geldiera: gelditzeko puntua (9-118).
geldileku (1912): Ax. pausalekua (34-31).
geldiro: Añ. astiro, Ax. baratz (7-81).
geldo: Ax. ilauna (28-76).
gengel: Añ. (soineko) zaharra, zatartua, zati-tua, adobatua (49-38).
gerizatu (izond.): Ax. iluna (15-382).
gerorengo (adond.): azkenean, Ax. ondoan (23-37).
gero ta gero bere: Ax. azkenean ere (12-236).
gesal: Ax. gazia (15-345).
(errazoi) geurezko: Ax. arrazoin naturala (41-13).
gitxigarri: Ax. gutigarria (45-256/257).
gizakumezale: ik. *emakume-gizakumezale*.
gizatotzar (Añ): erraldoia (7-57).
gubernubaguetasun: desgobernua (56-26).
gogaitasun: nahigabea, higuina (20-186, 46-110).
gogaitu (izond.): aspertua (32-96).
gogaitze: asea, higuina (20-220).
gogartu (1898): hausnartu (A-42).
gogo artze: erabakia (35-109).
gogo kontrako: Ax. desgogarakoa (20-27).
gogotu (Añ): Ax. pentsatu (3-41).
goi-berak (1898): (itsasoaren) gorabeherak (9-40).
goiberatute: Añ. deskarga (11-108).
goi-goira (1872): gora-gora (1-88).
gomendazino: agindua, enkargua (28-155/156).
gomutazino: burutazioa (19-212/213).
goragotute: Ax. goratzapena (16-259).
gorarengo: Ax. gorena (23-83).
(angeru) gordegila: Ax. begirailea (50-17).
(angeru) gordeko: Ax. begirailea (50-58).
goroldi: Ax. goroldioa (2-19).
gorputz-pena: lat. *pœna sensus*, Ax. sensuaren pena (53-2).
gozarotasun (Añ): Ax. plazera (12-209); Ax. gozatasuna (46-73).
gozobage: Ax. gozogabea (19-341).

- granada* (1855): Ax. mingrana (43-50).
(angeru) guardako: Ax. begirailea (50-63/64).
guraiza: Ax. desira (3-67).
guratu (1961): Ax. konsentitu (20-75).
guztiroko (Añ): orokorra, Añ. jenerala (32-101).
guzurtu: Ax. gezurtatu (20-192).
guzur uts: Añ. guzurtia, Ax. gezurtia (19-264).
igarogarri: igaropidea, bizimodua ateratzeko behar-beharra baino ez dena (40-63).
igarokor: iragankorra (12-48).
igaropide, igaroipide: Ax. bizikaia (1-250); bizimodua (4-102, 16-107).
igarotez: Ax. iragaitzaz (4-25).
iges izan (du ad.): Ax. eskapatu (9-175).
igeste (1847): ihesa (4-65).
ikasbarri (1918): Ax. apendiz (7-80).
ikaztogi: Ax. ikaztobia (43-133).
ikuste: Ax. bista (37-21).
ilduratu: Ax. hildumatu (48-103).
ileratu: Ax. hildu (48-107).
iluntza: Ax. ilunbea (20-246).
inarra: Añ. izuzkia, Ax. isatsa (48-86).
indar-jausi: Ax. hebaina (13-212).
inguruka (1903): itzulinguruka (hitz egin, etab.) (47-19).
inka: Añ. alboko mina, Ax. saihetseko punta (15-122).
inolakoz: inolaz (56-74).
inolakoz bere: inolaz ere (40-22).
inolatan: Ax. neholatan (1-175).
inoskotan: inoiz ere, sekula; Ax. neholatan ere (19-35).
iraulka: Añ. itzulka (54-51).
iraunkarri: Ax. soportua (4-105).
iraunpen: iraupena (43-7).
irauntza: iraupena (43-7, 43-41).
irautasun (Añ): Ax. firmetasuna (43-149).
irazaratasun (1816): Ax. iratzarpentasuna (8-153).
irazi: (zaldarra) lehertu (47-122); (isurkaria) iragazi (47-139).
irudikor (1950): Ax. idurikorra (42-128).
irudindu: Ax. konparatu (6-4).
irudintza (Añ): Ax. konparazioa (49-31).
irudipen: Ax. itxurapena (30-30).
irudirazo (1970): itxurak egin, Ax. iduri egin (21-46).
irudiz: Ax. iduriz (7-151).
iruli (1963): irauli, itzuli, Añ. bihurtu, aldatu (0-47).
isio: Añ. biztu, erexegin, Ax. piztu, iratxeki (21-11).
istandatu: Ax. lehertu (47-122).
itsumuka: Ax. haztamuka (20-238).
itzulka: Añ. iraulka (54-51).
itzulbide: Añ. aitzakia (47-16).
itzulinguru (Ip.): Añ. jirabira (3-12).
itzulpide: Añ. aitzakia (3-93).
izentacino: Ax. aipamena (19-213).
izu izan: Ax. izi izan (21-31).
izuzki: Añ. inarrea, Ax. isatsa (48-86).
jaieterri: jaioterria (8-192).
jaiotza: jatorria, Añ. etorrera, Ax. arraza (0-113).
jake: Ax. jaka (4-199).
-t(z)en jakin (1952, ap. *OEH*, s.v. 1 *jakin* I, 5): ohi (16-48).
jakinez: ezezaguna (4-12).
janbide: Ax. jakia (45-162).
Jangoikoaren eskean dabilena: Ax. probea (16-74/75).
Jangoikoaren izeneko: Ax. probea (16-163).
jangoikotar: jainkotiarra (8-195/196).
jarduki: liskarra, eztabaida (6-107).
jarraite: Ax. segientza (7-29).
jasogarri: jasangarria (45-255).
jasokizun: jasangarria (45-23).
jataldi (1859, ap. *OEH*, s.v. *janaldi*): Añ. bazkaria, Ax. oturuntza (16-84).
jaundu (Ip.): Añ. jabetu (15-410, 45-130).
jausi (izond.): indargabetua (35-99).
josketa: Añ. puntada (7-81).
jungude: Ax. ingudea (8-17).
juramentugila: biraogilea (19-298).
juramentutsu (Ax): biraogilea (19-272).
juramentutu: Ax. juramentu egitea (19-79).
justiziadun: Ax. justiziatia (11-139).
justoro: Ax. justuki (42-62).
justuro: Ax. justuki (55-10).
kalopean: Ax. laur oinka (22-32).
kalte egin (iz.): kaltea (18-46).
kaltepena: lat. poena damni (52-123).
kaltetu: Ax. kaltiar gertatu (33-19).
kamara: Ax. ganbara (5-121).
katamotz: Ax. tigrea (7-116).
katarrotu: Ax. marrantatu (41-112).
katibutasun: Ax. gatibutasuna (46-332).
katigutasun: Ax. gatibutasuna (46-335).
kautibutasun: Ax. gatibutasuna (46-337).
kimera: Añ. errierta, Ax. liskarra (22-31).
kinpulla: tipula (54-98).

- kirrimarra*: istilua, eztabaida (1-172).
(konzienziako) kisketada (Añ): Ax. kontzienziaren autsikia (3-122).
kiskortu: kiskali (20-178/179).
kitutasun: Ax. ordaina, pagatzea (51-106, 54-134).
kobao: Añ. lezea (53-110. oh.).
kodaina (1862): Ax. sega (52-68).
koita (1903): Ax. koaita (0-87).
kontza (1885): Añ. elgontza (3-6).
konzienziadun: Ax. kontzientziatsua (41-184/185).
kondetasun: kondetza (18-92).
konortebagetu (1894): kordea galdu (21-36), burua galarazi (41-124).
konsejari: Ax. konseilari (23-22).
kontra emon: kontra egin, Ax. kontratu (19-246).
kontrakor (Añ): kontrakoa (32-67, 41-138).
kontrara bai: Ax. aitzitik (23-77).
kontraratu (Añ): Ax. kontratu (38-45/46).
kontratasun: aurkakotasuna (44-68).
kulpante: Añ. erruduna, Ax. kulpanta (41-302).
kutizioso: Ax. abariziosa, Añ. zekena (16-245).
labangarri (1931): irristakorra (15-365).
labore (Ip.): Añ. ogia, artoa (16-101).
lakatx (1857): Ax. karloa (6-21).
laprastgarri: irristakorra (15-365); Ax. perila (42-151/152).
lar (izond.): gehiegizkoa (19-220).
lasterka baten: Ax. denbora gutiz (55-57).
lastertu (1930): presa hartu (12-274).
lata: langa (2-50).
lau oinka: Añ. kalopean, Ax. laur oinka (22-32).
lauso: Añ. zaia (13-207).
lema: ordaina, Añ. satisfazinoa (45-228).
(zeinbat) len: Ax. lehen baino lehen (19-4/5).
lengo igaro(ak): Ax. aitzinekoak (18-72/73).
len-jaio: Ax. primizia (13-13); premua, Ax. lehenbizikoa (semea) (52-140).
len-sortu: Ax. primizia (13-13).
libertasun: Ax. libertatea (11-18).
limosnagila: Ax. erremusinalaria (16-14).
lokazur (1858): Ax. iuntura (13-187).
lotsatasun: lotsa (8-138/139).
lukreria: Ax. lukureria (41-30).
lupeztu: Añ. lohitu (14-111).
luterotasun (Ax): Añ. heregiaren antzekoa, Ax. lutertasuna (19-199).
luzaera: Ax. luzamendua (52-12/13).
luzekor: berankorra (48-91).
maila: lerroa (0-44).
maiontzi: Ax. baxera (21-54).
maite-maite izan (1896): oso maite izan (49-105/106).
makartu (1897): ahuldu (4-122).
makertu: muzindu, Añ. muturtu (21-38).
maliziadun (Añ): Ax. maliziatia (42-127).
maliziati (Ax + Añ): Añ. asmagilea (16-170).
malsintasun: Ax. malizia (11-300).
mamukio (1947): Ax. (fig.) malba (20-88).
manatu: elbarritu (23-56).
marinal: Ax. marinela (15-193, 23-31, 47-109).
mastegi (1852): Ax. mahastia (2-49).
menazatu: Añ. zemaitu (3-152).
menazu (Añ): Añ. zemaia, Ax. mehatxua (11-219).
mendel: Ax. habaila (7-54).
mendepean (Añ): mendean, Añ. azpian (1-83).
mendepetu: Ax. meneratu (1-159).
mentu: Ax. xertoa (34-16).
merezidu (iz.): Ax. merezia (41-331).
merezigila: Ax. merezienta (56-32).
meritugarri: merezimendukoa (48-96).
(euroen) mesedeok: Ax. zuek (11-290).
(zuen) mesedeok: Ax. zuek (11-296).
mezenzute: meza entzutea (18-157).
mezprezio egin (Ip.): Ax. eskarniatu (11-309).
milinkolia: Ax. malenkonia (53-263).
mingrana: Añ. granada (43-50).
mirutu (Añ): Añ. izutu, beldurtu (43-127).
miserikordiadun: Ax. miserikordiosa (11-145, 56-2).
moldata (c. 1912): Ax. erremediatu (39-58).
moropilo: Ax. koropiloa (6-109).
moteldu: mihia lotu, trabatu (41-113).
mugonez: ordu onean (20-139).
mundutasun (Añ): munduzalekeria (13-170).
nagiro: Ax. nagiki (2-60).
naibagetu: Añ. forzatua, Ax. bortxatu nahizkoa (35-101).
naizko: borondatezkoa, Ax. eta Añ. libre (20-42).
narru-puxiga: pusla, Ax. ikortzirina (7-69/70).
nastugile: Ax. nahastekaria (9-144).

- naturaltasun* (1961): Ax. naturaleza (33-13).
nekebagetasun (1924): Añ. olgura (36-22).
nekebagetu: Ax. aise ibeni (45-10).
neurribako: Ax. infinitua (55-36).
nini (1934): Añ. botoia, pipila, Ax. botea, nikoia (3-66).
odoitu (izond.): iluna, Añ. itsala (53-103).
ogi otzur: ogi papurra (16-101).
ogipeko: Añ. otseina, Ax. zerbitzaria (20-142).
oi-ez: ezohikoa (8-134).
oinazpi: Ax. oinzola (38-28).
oinolari: marmartia (41-130).
oinutsean: Ax. ortusik (38-28).
oio: oihua (12-244).
oitubage: Ax. usatugabea (45-44).
okelu (1818): Ax. zokoa (5-121, 46-25).
oles: deia (41-118).
onda: Ax. habaila (7-54).
ondamu: bekaizkeria (30-35).
ondakizun: Ax. perila (49-101).
ondatzaille: Añ. gastalaria (49-96).
ondo gurazko: Ax. ongi nahizkoa (20-152).
ondo-nagoa idoro: Ax. ongi ediren (20-248).
ondoren: Ax. ondorea (46-374/375).
onravage: Ax. desohorea (30-27).
ontartu: Ax. faboratu (10-53).
ontzatu: Ax. frogatu (15-116).
orbandu (1818): zikindu (19-7).
ordea: Ax. ordenantza (44-85).
ordeaz emon: Ax. prestatu (19-101).
ordenubage: Ax. desordenatua (20-261).
ordetasun: ordaina, Añ. satisfazioa (45-228).
ordetu: ordaindu (44-96).
ori danez: Ax. beraz (4-194).
orpo: Ax. (atearen) erroa (3-7).
osakai (1866): Ax. eta Añ. erremedioa (21-2, 24-6).
osokai: Ax. eta Añ. erremedioa (19-331).
ostatutu: Ax. ostatatu (2-41).
otsabar: Ax. habarrotsa (41-171).
padar: eremutarra (6-118).
panparroitasun: Ax. balentia (12-144).
para: gelditzeko puntua (9-118).
parka bear: Ax. barkakizuna (27-40).
parteletasun: Ax. partea (3-48).
perlesiadun: Ax. paralitikoa (43-226).
pipil (1935): Añ. botoia, ninia, Ax. botea, nikoia (3-66).
piti (izond.): Añ. laburra (12-32).
plana: Ax. plama (12-213).
potian: Añ. unean, Ax. pontuan (11-127).
poz (izond.): Ax. alegera (22-90).
poztasun (1860): poza (46-379).
presotu: Ax. atrapatu (5-83).
prestasun: Ax. diligentzia (44-73).
prestubage: Añ. zekena (11-280).
prestuezkeria: Añ. bilaukeria, doilorkeria (0-111).
prestueztu: Añ. galdu (2-17).
prestutasun: Ax. liberaltasuna (17-10/11, 44-70).
probetxubage: Ax. probetxugabekoa (53-264).
pulsu: Ax. polsua (20-233).
puntada (1830): orratz puntua (7-81).
puntoso: erretxina, kilika (22-19).
purrukatu: Ax. borrokatu (1-152).
puska baten puska: Ax. apur bat (28-77).
pustila: zakarra (7-69).
sabeldarroi (sic): Ax. sabeldarraioa (53-187); Ax. gula (44-71).
sabel utsik: Ax. sabel-uzkur (16-209).
saldu-eroste (1895): Ax. salerosia (55-72).
sastamar: zaborra, zarama (37-69, 48-89).
seguru bere: ziurrenik (46-5/6).
seinalakizunetan: Ax. seinalatzeketan (18-25).
seinge: Ax. haugabea (39-32).
sekulako irauteetan: Ax. sekulakotzat (52-169, 54-55).
semebage: Ax. haugabea (39-32).
sendotzaille: Ax. sostengua (0-90/91).
sentimentugarri: Ax. penagarria (53-266).
serbitasun: Ax. zerbitzua (13-58).
simpletasun: Ax. ergelkeria (31-63).
soberbiatsu, soberbiotsu: hantustetsua (9-45/46, 11-109).
soberbiatu: hantustetu (1-84).
solasezko: Ax. irri egitekoa (26-36).
solaska: Ax. dostatzen (31-71).
solastu: Ax. solastatu (28-108).
sostendu: sustengatu (13-191).
subate: Ax. sukaldea (7-21).
subertia: hantustea (36-50, 44-69).
suberio: hantustetsua (53-182).
sufrigarri: eramangarria (46-302).
superbia (Ip.): hantustea (40-82).
sustar: Ax. handitsua (47-116).
sustar, suster: Añ. elgontza (3-6, 3-7).
sutegi: Ax. sugina (54-59).
tentagile: Ax. tentagarria (34-30).

GUEROCO GUERO

- tristegarri*: tristatzen duena (52-127).
txarki: Ax. gaizki (12-216).
txaukada: zaunka, Añ. ausikada (53-235).
txilioka (1897): Añ. dedarrez (46-305).
txirpi: ernamuina (?) (43-160).
txirrinka: karranka (41-168).
txirritola: Ax. arroda (41-167/168).
txiskortu: kiskali (53-145).
txoten: Ax. nigar-xopina (53-122).
ugazabandre: etxeko andrea (51-33).
ugolde: Ax. uholdea (9-134).
ullege, *ullege*: Ax. ilegabea (12-17).
umaotu: Ax. umotu (9-159).
ume-egite: Ax. erditzea (6-30).
uriola, *urjola*: Ax. uholdea (9-134).
urkotasun: Añ. aidetasuna, Ax. ahaikoa (32-5).
urlizea: Ax. sandia (26-13).
urregotu: Ax. hurbildu (6-90).
urretu: Ax. hurbildu (4-152).
urreztu (1884): Ax. urraztatu (38-106).
urtebeteko: norbaiten heriotzaren urteurrenean egiten den elizkizuna (18-83).
usaikizun: aroma (40-35).
usaindu: Ax. usainztatu (40-30); Ax. usnatu (40-38).
usain egin: Ax. usnatu (40-36).
usaingarri: usainsua (40-30).
usegin: Ax. autsiki (27-13), (iz.) autsikia (52-31).
uts egin: Ax. errebelatu (6-13); faltatu, eskastu (39-62).
- utskor*: huts eragiten duena, galgarria (15-365).
zabalera (1840): Ax. berretura (49-55).
zaldar: Ax. handitsua (47-116).
zamai: Ax. zama (45-124).
zanko: Ax. zangoa (27-19).
zarrera: Ax. zahartzea (7-121).
zarta (1958): Ax. azotea, zigorra (24-22, 29-40).
zartartu (1885): zatar bihurtu (49-37).
zeago: zehatzago (44-132).
zeinbatez... ainbatez... (Ip.): Ax. zenbatenez eta... hanbatenez... (14-62/63).
zenbat lasterren: ahalik lasterrena (0-14).
zenzundu: Ax. zentzatu (41-73).
zia: akuilua (0-49).
zildu (1927): Ax. hozitu (1-271).
zirri (1847): Añ. elkar jotzea, albokada (40-19).
zitelasun: Añ. bilaukeria, doilorkeria (0-110/111).
zorabiatasun: Ax. erotzea (20-228).
zoragarri (izond.): burua galarazten duena (20-215).
zorionki: Ax. dohatsuki (0-155).
zulgin: Añ. arotza, Ax. zurgina (42-42/43).
zuzenbide: Ax. intenzioa (19-44); Ax. errege-la (44-85); Ax. okasinoa (51-56).
zuzengile: Ax. aitzindaria (41-8).



BLANCA URGELL LÁZARO

Gasteizen jaio zen, 1962an. Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatu eta doktorea. 1987-1996 bitartean K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren erredaktore izana, eta 1996-2000 bitartean Euskara Teknikoko irakasle EHUaren Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan. Egun Euskara eta Euskararen Historiako irakasle dugu Gasteizko Filologia eta Geografi Historia Fakultatean.

Ikerketa arloan, Hegoaldeko literatur euskararen eraikuntza eta garapenean sakontzea da bere lanen xede orokorra. Ildo honetatik, batez ere bi alorretan jardun du orain artean: literatur bizkaieraren sorkuntza garaian, berezi-bereziki Añibarroren inguruan, eta euskal hiztegi gintzaren historian. Lehenengo alorretik sortutako lan gehienak *ASJU* aldizkarian argitaratu dira, haien artean Añibarroren *Nekea arindurik* (1987) eta *Lora Sorta Espirituala*-ren (1988) argitalpenak. Bigarrean, *Hiztegi Hirukoitza*-ren *osagaiez* izeneko tesia (2000) aipatu behar da.

Hauezaz gainera, *Euskal Baladak: azterketa eta antologia* (1983, 2 lib., elkarlanean) argitaratu du, baita *Mitxelenaren Literaturaren inguruan* (1988) eta Lardizabalen *Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira*-ren (1995 eta 1999, 3 lib.) edizioak ere, hala nola beste zenbait artikulua euskararen historiari buruzko gai ezberdinez. Orain euskal hiztegi gintzaren historia bat idazten dihardu, elkarlanean.